

Egungo Euskararen Hiztegia

—N—

[bertsioa: 2024-01-09]

naba iz ipar ibar edo haran zabala.

Ibar edo haran zola zabala delarik, "naba" deitzen dugu zubereraz. Herria

Haatik ez erran "Aspeko naba", zinez hertsia beita Biarnoko haran hori. Herria

Alta zer naba gozoa. Herria

Los Angelesko naba, mojave basamortutik zetorren haize bero batek erratzatzen zuen, 1962ko agorrilaren 5 hura egun bihurtu aitzin, Brentwoodeko Marilyn Monroeren etxea gerizatzen zuten eukaliptus gorakoien puntak inarrosiz. Itxaro Borda

Mendiez haraitiko naba libratüz, Santiagoko bidea ideki deio Europa güziari. Herria

nabaitu ik nabaritu.

nabal ik nabala.

nabala (orobat nabal g.er. eta nabela g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian nabala agertzen da) 1 iz labana.

Amak eman xamangoa nabalaz karrakatu zuen Nakok: hezurriari xingar peza politik kentzen zizkion oraino! Itxaro Borda

Ruperto Gantzok, "Biba Luzaide" grabatu zuen nabala batekin Estatu Batuetako baso handi bateko lertxun lerdien batean. Pello Salaburu

Zenbatetan ez dut Maureen izena ene nabalaz mortuko zuhaitz apurren enborretan zizelkatu? Itxaro Borda

Nabala ahurrean ikusi ninduela, izuaren izuaz bezala, Mairosek urrats bat atzera egin zuen. Itxaro Borda

Janinak uste zuen nabala edo puñal bat sartzen ziola. Itxaro Borda

Zer bilatzen duzu? larrutuko zaituen nabala? Itxaro Borda

Borta erdi zabalik zen, aski zuen sartzea eta nabala zorrotza papoan tanpez sakatzea. Itxaro Borda

Paraxutisten kasta bat sortu zuan orduan, supergizonak, kolorez apainduak, nabala gerrian eta fusilak eskuetan karriken jaun eta jabe paseatzen zirenak. Itxaro Borda

Gero, nabal baten ipurdiaz harri bat joz, pindarrak atera eta ardagaia piztu zuen. Pablo Sastre

2 (hitz elkartuetan)

Nabala ukaldia zen. Itxaro Borda

Xiberotarra erorten da, nabela kaldüz kolpatürük. Herria

3 (izenondo gisa)

Abuztuko ortzegun gau horretan ere, "Purpleko" atetik kirika egin bezalaxe, aspaldiko sentipen ahantzi hura berritu nuen, bi gizasmeren begi nabalak nigan landaturik sumatuta. Aingeru Epaltza

4 ganibeta.

Bortz segundoko astia eman nion neure buruari, anaiaren plateraren ondotik nabala hartu arte. Aingeru Epaltza

nabalkada 1 iz labankada.

Nabalkada garbi batek marrazturiko tatuaje gorria, ordainketak eguneratu gabeko kokainazale berantiarren bularraldean. Aingeru Epaltza

Nire izena Ttipiren hilketaren eta Josuk hartutako nabalkaden gaineko lerroaldean barrenean agertzen zen, baina ene egunkarian bakarrik. Aingeru Epaltza

2 irud/hed

Usadioz kanpoko irribarre bat nabalkada baten atari izan daitekeela jakiteko denbora aski neraman lantoki horretan. Aingeru Epaltza

nabar¹ 1 izond orban ilunak edo arreak dituena; kolore argi eta ilunen nahasturaz osatua; kolore askotakoa. ikñabar.

Haren atzean, zenbait zaldi gorri, nabar eta zuri. Elizen arteko biblia

Gaur zure artaldeanartetik igaroko naiz, eta axuri beltzak eta antxume nabar nahiz pintoak oro bereiz jarriko ditut: horiek izango ditut lansari. Elizen arteko biblia

Katar bat, katar nabar bat, barrandan. Iñaki Arranz

Bere begi nabar txikiak Ellenen aurpegian iltzatzen ziren hitz egitean, antenak bailiran. Lopez de Arana

Hire begiek ninditean lehenik tiratu, zohardiak baitziren, nabarrak, itsasoa bezala. Aurelia Arkotxa

Soineko nabar bat jantzita, fantasiazko eskularruak esku lakarretan. Koro Navarro

Bizpahiru herri handi xamarrek eta herri koxkor eta auzo tiki mordoska nabar batek. Iñaki Segurola

Denborak eta kresalak arrailatu pareta nabar zikinek iragan hobe baten berri ematen zuten, gainbehera etengabe batena. Xabier Montoia

Horrekin batera, Kirxaren kafea esaten diotena dago bertan, hormak bete arabesko nabar. Patxi Zubizarreta

Pantera batena zirudien, bai, begien aurrean zuen itsasoaren narru nabarrak. Juan Luis Zabala

2 irud/hed

San Telmo hondartzara hurbildu eta, itsaso urdina ikusi beharrean, begirada nabar txinpartatsu bera urrunean, atzean, ostertzean. Txillardegia

Hamaika piezako puzzle nabar eta amaiezina osatu behar genuen, eta ahalik eta ezkutuen eduki. Fernando Morillo

Horretaz gainera, nahitazko zerrenda nabar horren ondoren, hau gehitzen zuen: [...]. Josu Zabaleta

Malenkoniazko mosaiko nabar bat osatzen zuten. Alberto Ladrón Arana

Emaitza: itzalak, gardenak, dirdirak... argiaren kolpeekin mintzaira oso bat, zuri, nabar, gorri eta, azken urteetan, urdinekin. Berria - Kultura

Biak bakarrik ilunabarrean xereza edaten ari ziren hosto zabaleko platanondo baten azpian, biak bakarrik jendetza nabarraren artean, ikustezinak bailiran. Lopez de Arana

Beste gauza bat ere bada **nabaria** : estilo batzuek modu sistemateko batean dituzte beren irudiak ikusgai denen bertso realistak batekin alderatuta. **Josu**

Zabaleta

Nabariak dira Senekarenean bere kontraesanak era argian aitortzeko ausardia. **Markos Zapiain**

Horixe bera gertatzen da giza adimenaren hautemateetan ere, hor ere gizakien arteko ezberdintasunak **nabariak** baitira batzuegandik beste batzuegana. **Xabier**

Kintana

Baieztapen honek, hain **nabaria** denez, ez du argibiderik behar. **Iñaki Mendiguren**

Nire gorritasuna erabat **nabaria** zen; irakiten neuzkan masailak. **Juan Kruz Igerabide**

2 (adizlagun edo predikatu gisa)

Alabaina, gogoeta pixka bat eginez gero, egia argi eta **nabari** ageri da. **Xabier Kintana**

Urretxindor baten abestia sasartean, eta Ceciliaren negar apala, entzuten ziren bakarrik **nabari** . Nire ahalegin guztiak gorabehera, **nabari** sumatzen nuen izumen handi batek hartuak zituela etxe hartakoak. **Josu Zabaleta**

Honetan ere profeta-espirituak Frantziskoren espiritu-dohain berezia **nabari** uzten zuen. **Askoren artean**

-Edo otzanduta -besteak, serios, txantxetako gogo eza **nabari** utziz. **Migel Angel Mintegi**

Ikus, ilunpetan dago lurra, gau beltzean herriak; zure gain, ordea, Jauna ageri da, haren aintza zure gain **nabari** . **Elizen arteko biblia**

Begiak itxi eta eskuak burura eramaten ditu; ajearen arrastoak **nabari** . **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zientzia espezializatuaren oinarritzko hipotesi eta premisak goragoko metafisikatik dedukzioz bihurtzen dira **nabari** eta zilegizko. **Askoren artean**

3 ez-nabari izond

Errepresentazio nabaria eta **ez-nabariaren** arteko bereizketa bereizketa logikoa baino ez da eta ez du edukia ukitzen. Bereizketa ez da hemen gauza bat eta bakarraren ezagutza ez **nabari** eta nabariaren forma logikoa soilik. **Ibon Urbarri**

4 nabari izansup_1 da ad (hirugarren pertsonan soilik) ik nabaritu.

Hainbat egileren eskua **nabari zen** han. **Iñaki Iñurrieta**

Alcalan **nabari zen** zuzenbide ikasketen aurkako aiherkunde bizia. **Piarres Xarriton**

Hiztegian eta aldaera lexikoetan ere **nabari da** beste euskalkietara hurreratzeko grina. **Koldo Zuazo**

Globalizazioaren eragina ageri-agerian **nabari da** . **Gotzon Garate**

Lehen begiratutik **nabari zen** hori. **Joxemari Iturralde**

Inoiz baino fermuago **nabari zen** espetxeratuaren arteko elkartasun ikusezina. **Koldo Izagirre**

Gunaren doinuaren ez da elizgizon biri dagokien bake girorik **nabari** . **Koldo Zuazo**

Garaipen usaina **nabari zen** barruan. **Unai Iturriaga**

Zenbait eliza eta haien kupula bizantziarrak, berdez eta urrez koloretzatutak, **nabari ziren** zeruaren atzealde grisean. **Karlos Zabala**

Nabari zen eguna argitzen ari zuela: elurra zuriago ageri zen, giza irudiak ilunago, eta basoa soilago, goibelago eta arruntago. **Jose Morales**

Nabari zen ondo amaituko zutela afera, musutxo bat ere emango ziotela laster elkarri. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Minduta zegoela **nabari zen** . **Iñaki Mendiguren**

Sentimenduez trufatzen den irri ilustratua zeinen exkaxa den **nabari da** , zeinen harroputza eta hauskorra. **Markos Zapiain**

Tinta urtua dataren arrastoetan bakarrik **nabari dela** . **Joseba Sarrionandia**

Nabari zenez , nagusiaren garia zen hura. **Jose Morales**

5 nabari izansup_2 zaio ad (nor osagaia hirugarren pertsonan soilik)

Animaliari ongi **nabari zaizkio** saihetsezurrak. **Jon Alonso**

Pikardia-arrasto bat **nabari zitzaion** ezpain-begietako zirkinari. **Anjel Lertxundi**

Orduko, gerri gizena **nabari zitzaion** Katalinari. **Aingeru Epaltza**

Ahotsean **nabari zaio** kezka eta beldurra Mertzexi. **Edurne Elizondo**

Urduritasuna **nabari zitzaion** aurpegian. **Urtzi Urrutikoetxea**

Begiei, berriz, atrofia optiko erabatekoa **nabari** zitzaion; ezin zuen ezertxo ere ikusi. **Xabier Olarra**

Nabari zitzaion ez zuela alferrik jarduten zeregin berezietan. **Jose Morales**

Nabari zitzaion emakumeak konkistatzea atsegin zuela eta sedukzioaz ikasitako asko eta asko praktikan jarri zituen nirekin. **Jasone Osoro**

Nire aurrean deseroso zeudela **nabari zitzaion** , eta gora joan dira Anastasio etxezainari gelak non diren galdetu ondoren. **Aitor Arana**

Aita gaixo zegoen, itxuran **nabari zitzaion** , baina ez zion erretzeari utzi. **Jon Maia**

Ni gelditzeak ez zuen batere poztu mutila, **nabari zitzaion** . **Fernando Rey**

Nabari zitzaidan ? ez dakit; haren mazeletan odolaren kera hauteman nuen hirugarren aldiz gosari horretan. **Aingeru Epaltza**

6 nabari izansup_3 du ad (nor osagaia hirugarren pertsonan soilik)

Otsoneak **nabari du** ganorazko etxea izandakoa dela eta Leon Karrikarena baino familia handiagoak hil eta bizi izan direla horma horien artean. **Hasier Etxebarria**

Botila bat zuen eskuan, eta aurpegian **nabari zuen** mozkortuta zegoela zeharo. **Mirentxu Larrañaga**

Ziurtasun-eza **nabari du** ahotsean, agur esateko hitz egokien bila ibili eta aurkituko ez balitu bezala. **Xabier Olarra**

Beso horiek, hanka horiek, lepo hori ikusirik, **nabari du** indartsua dela. **Juan Kruz Igerabide**

Badirudi, gaskoinetik zabalduak izan direla, batik bat, baina **nabari dute** halako kutsu bat, filologia alderdi hutsetik azaltzen samurra ez dena. **Patziku Perurena**

Hartan **nabari nuen** urte bakar baten joanak nire gorputzari ekarritako kanbiamendua. **Aingeru Epaltza**

Nitaz harro **nabari nuen** : ez nion begietara begiratzen, noski, baina tinko eusten nuen zutik, zirkini egiteke eta malkorik isuri barik. **Urtzi Urrutikoetxea**

Ezin naiz horretaz kexu izan: perfekzioari zion atxikimendua **nabari dut** horretan. **Monika Etxebarria**

Begiradan **nabari dute** denek ere, azpiofizialek nahiz ofizialek, zenbateraino bat egiten duten nire oinazarekin. **Mirentxu Larrañaga**

Lagunen estualdia **nabari zuen** . **Fernando Morillo**

Aurpegietan **nabari zuten** Adler hila zela. **Xabier Olarra**

Nabari zuen eguraldi ederra zetorrela. **Patziku Perurena**

· Emakumeek horretan espasmo-mugimenduak sentitzen dituzte eta eztarrian bola bat (*globus hystericus*) bezalako bat **nabari** uste dute, itoarazten dituen. **Xabier Kintana**

7 nabaria izansup_4 da ad (konpletiba batekin)

Nabaria zen zerbait esateko gogoz zegoela. **Anjel Lertxundi**

· Naziak garaituak zirela gero eta **nabariagoa** zen, ordea. **Eneko Bidegain**

Orduan eta **nabariagoa** zen erabiltzezina zela egutegi militar gisa. **Iñaki Mendiguren**

8 nabari-nabari izond

Trikimailuzko mugimendua antolatzen ari ziren, modu **nabari-nabarian** . Honetan ere, Erdi Aroko amodio kanten aztarna lizunak, **nabari nabariak** dira, hasierako ote lore eta txori berberak ezezik, sagar erre horiek direla nahaste. **Karlos Zabala**

Eleberririk horietan **nabari-nabaria** da, bestalde, Joyce eta AEBetako nobelagileengandik (Dos Passos, Faulkner, Hemingway eta besteengandik) hartutako tekniken erabilera, Goragalean ere suma zitekeena.soldadu euskaldun bat baino gehiago hil zuten buruzagi militar frantziarrek berek, beren aginduei muzin egiteagatik, **nabari-nabaria** izan arren muzina frantsesez ez jakiteak eragina zela. **Monika Etxebarria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahotsean nabari zitzaion (3); aldaketa nabari (3); apustuetakoa dirua nabari (3); argi nabari (8); argi nabari da (3); arrastoak nabari (3); asko nabari (3); aurpegian nabari (3); begietan nabari (3); beldurra nabari (4); berez nabari den (3); dirua nabari irten (4); ederki nabari (3); eragina nabari (7); eskua nabari (6); eskua nabari da (4); etsipena nabari (3); euforia nabari (3); falta nabari (5); gabezia nabari (3); garbi nabari (4); handia nabari (7); hori nabari (15); hori nabari da (9); hortik nabari (3); hutsunea nabari (3); itzala nabari (3); joera nabari (4)

nabari ageri (4); nabari ageri da (4); nabari da (172); nabari den bezala (10); nabari denez (4); nabari dira (19); nabari du (27); nabari dut (12); nabari dute (7); nabari duzu (5); nabari geratu (4); nabari geratzen (3); nabari irten (5); nabari irten zen (5); nabari izan (5); nabari nabari (3); nabari nabaria (14); nabari nituen (3); nabari nuen (17); nabari ohi (5); nabari zaie (12); nabari zaio (47); nabari zaizkio (8); nabari zaizu (3); nabari zen (84); nabari zenez (6); nabari ziren (22); nabari zituen (6); nabari zitzaion (8); nabari zitzaion (39); nabari zitzaizkion (6); nabari zuen (25); nabari zuten (3)

nekea nabari (11); ongi nabari (3); oraindik nabari (3); poza nabari (6); poza nabari zaie (3); tentsioa nabari (5); urduritasuna nabari (4); usaina nabari (6)

adibide nabaria (3); aldaketa nabaria (8); alde nabaria dago (3); arrisku nabaria (3); eragin nabaria (13); eragin nabaria izan (5); eragina nabaria (13); eragina nabaria da (5); eragina nabaria izan (3); errepresentazio nabaria (3); erritmo falta nabaria (3); ezintasun nabaria (3); falta nabaria (16); falta nabaria izan (4); gauza nabaria (7); gauza nabaria da (4); hobekuntza nabaria (11); hobekuntza nabaria izan (8); huts nabaria (4); hutsunea nabaria (3); jaitsiera nabaria (3); kontraesan nabaria (4); kutsu nabaria (3)

nabari nabaria (14); nabari nabaria da (4); nabari nabaria izan (3); nabaria denez (6); nabaria erakutsi (4); nabaria eta (6); nabaria izan (66); nabaria izan arren (7); nabaria izango (5)

oso nabaria (17); oso nabaria da (10); premialdi nabaria denean (3); presentzia nabaria (5); tentsioa nabaria (4); usaina nabaria (9); usaina nabaria zen (7)

gero eta nabariago (6)

gero eta nabariagoa (11); nabariagoa izan (4); nabariagoa izango (5); presentzia nabariagoa (4)

modu nabarian (3)

ezaugarri nabariena (4)

nabariezin *(orobat nabari ezin g.er.) iz ezin nabaritzukoa.*

Hiru puntu gorri ia **nabariezin**, zurtasun erabateko hartan galdurik. Xabier Montoia

Apur bat alden du zen berarengandik, eta eskua lasaitu zuen, ukipena ahalik eta **nabariezinena** izan zedin. Jose Morales

Kafesnea katiluan, leiho aurrean jesartzen da, ez du ikuskizuna galdu nahi, zelan jausten diren lehen euri tantak errekarera kontra, zelan urtzen diren argi eta freskotasan zati **nabari ezinak** Bilboren bihotzean. Sonia Gonzalez

Elkarri keinu ia **nabariezinez** itaunka. Berria - Kultura

Giza garunaren berezitasun harrigarrienetako bat lobulu frontalen handitasuna da; askoz txikiagoak dituzte beste primatuek, eta ia **nabariezinak** beste ugaztunek. Xabier Olarra

nabari gaitz *izond* nabaritzen zaila dena, ia nabariezaina.

Gero eta **nabari gaitzago**, Euskal Herrira hurbildu ahala. Xabier Montoia

nabari garri *izond* nabari daitekeena, nabaritzeko modukoa.

Behar bada garaiko giro eta planteamolden esentzialisten propioa da "erlijiositate" orokor hori [...], librepensamenduan eta laizismoan bertan ere **nabari garria** XIX. mendean. Joxe Azurmendi

nabari ki *adlag* era nabarian.

Harri barruko bihotz-borrokak-ek patata egitura du **nabari ki**, ez zuhaitz egitura. Markos Zapiain

Judizio analitikoaren oinarri-esakuneez ere hitz egin behar dugu, eta hau benetan gure jarduna diren sintetikoei kontrajarrita, zeren elkarren aurrean jartze honek azkenen teoria gaizki-uzertze orotatik askatzen baitu, eta haien izaera berezia begi-bistan jartzen baitu **nabari ki**. Ibon Uribarri

Goizaldeko hirurak jota, hona emaitza: lehengo nikel-dimetilgloximazko lainotxo gorrixka barik, prezipitatu **nabari ki** oparo bat. Juan Garzia

Hau da, izan ere, lehenago esakunearen formulaketa aldatu izatearen arrazoia, horren bidez esakune analitiko baten izaera **nabari ki** adieraztearren. Ibon Uribarri

2 ez-nabari ki

Ondorioz, lehenengoaren bitartez berba bakoitzaren antolara ez soilik ez-**nabari ki**, baizik eta inolaz ere ez dugu ezagutzen. Ibon Uribarri

nabari ro *adlag* era nabarian. ik nabari ki.

Gertakari guztietarik, halarik ere, harako hura datorkit bururat **nabari ro**, noiz eta ama, Mattin eta hirurok osabaren studiorat joan baikenen, paratzen zelarik ama ere izarrei beha teleskopiotik. Joan Mari Irigoien

Gorputzeko humoreek [...] nahastuak zirkulatzen dutelarik, ezkutuan eta isil-gordean, menean hartzen gaituzte, halako molde, non gure egiteetan **nabari ro** parte hartzen duten, guk haien berri ez dakigula. Joan Mari Irigoien

nabari tasun 1 *iz* nabaria denaren nolakotasuna.

Mendeetan zehar, eboluzionismoa doktrina filosofikoa edota ideologikoa bakarrik izan da, ideologia horrek ez baitzuen ez proba zientifikorik ez **nabari tasun** enpirikorik bere fedeari eusteko. Askoren artean

Nabari tasunari dagokionez, irakurleak zera eskatzeko eskubidea du: lehenik, **nabari tasun** diskurtsiboa (logikoa) adigaien bitartez, gero, ordea, **nabari tasun** intuitiboa (estetikoa) ere bai begiespenen bitartez, h[au] d[a], adibideen edo bestelako azalpenen bidezkoa *in concreto*. Ibon Uribarri

2 (hitz elkartuetan)

Bere izena du lege ekinza honek: **nabari tasun** akta. Joxan Elozegi

· Arrasto hau gabe ere, mito heroikoa lehertaraz daiteke bere barne-**nabari tasuna** piztuz. Iñaki Mendiguren

nabari tu, nabari (tu), nabaritzen 1 du *ad* ohartu, konturatu, argiro ikusi. ik sumatu.

Segituan **nabari tu** zuen Pedriñoren hatsak zuen kirats jasanezina. Josu Landa

Medikuarengana joango nintzela agindu nion, haren malkoak **nabaritzen** nituen neure ezker eskuaren gainean. Joxe Austin Arrieta

Entzundako hizketaren katean da **nabaritzen** ahal, berehala, hots batek bere hartan dirauen ala ez. Isabel Arrigain

Ogi egin berriaren urriak sudur mazelak kilikatu zizkion eta gosea **nabari tu** zuen. Itxaro Borda

Jangelatik irtereterakoan halako zalantza bat **nabari tu** diote, nora jo ez baleki bezala. Koldo Izagirre

Oinaze keinu bat **nabari tu** zion Gabinek aurpegian. Iñaki Iñurrieta

Oinaze bitxiak **nabari tu** nituen bularraren erdian eta ezkerreko izterrean. Txillardegui

Lozortirik esnatu, halako peltasun jostarina **nabari** zuen zainetan barrena. **Patxi Zubizarreta**
Orduan erruaren ziztada mingarria **nabari** zuen bularrean josita. **Joanes Urxiko**
Gaur, berriz, bi pasio **nabari** ditut neure barruan: zugarako leialtasuna, alde batekik, eta harenganako grina, bestetik, egia argi eta garbi... **Joan Mari Irigoien**
Florentek gaitzespena sumatzen zuen, halako kondena bat **nabaritzen** zuen altzarien haritz kolore argian, lanpara garbiegian, espartzuko alfonbra berriegian. **Karlos Zabala**
Gero begietan, duda bat **nabari** zion, ozenki erratera ausartzen ez zen galdera bat. **Elena Touyarou**
Ez nion **nabaritzen** ez amnesia, ez lobulu frontaleko sindromearen aztarnarik. **Xabier Olarra**
Esnatu, nagia atera, eta ondo lo egin zuela **nabari** zuen. **Jose Morales**
Estutzen hasi zen, zangoak jada ez zituen lurtean hain sendo finkatuak **nabaritzen**, errebolberrari eusten zion eskua gero eta makalago zeukan, dardaraka hasteko zorian. **Migel Angel Mintegi**
Berehala **nabari** genuen zakurrak geldirik zeudela, uhurika. **Juan Kruz Igerabide**
Hanna bere ukabil txikiak nire aurka altxatzen, ez dut ezagutzen, ez dut neure burua defenditzen, **nabari** ere ez nola haren ukabielek nire bekokia ukaldikatzeko duten. **Joxe Austin Arrieta**
Goitik behera blai, mindurik **nabari** zituen gorputz osoko hezurrak. **Xabier Montoia**
Oinak dardaraka **nabari** zituen eta arma tinkiako atxiki zuen, eskumuturrak hormatzeraino. **Itxaro Borda**
Besaultirik altxatu zenean lo **nabari** zituen hezurrak. **Joxemari Urteaga**

2 (inperzonalak)

-Nekearen ondoren gorputza lasaiago bezala **nabaritzen** da. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Batailoietan emandako kontsignaren ondorioak berehala **nabari** ziren Lizarrako kalean. **Txillardegia**
Ez duela uste gerora ahotsean aldakuntzarik **nabari** zaidanik. **Hasier Etxeberria**
Makilajeak eta jantzi dotoreek moteldu arren, adinaren eta bizimodu bapoaren eragina **nabaritzen** zitzaizkion. **Migel Angel Mintegi**
Begietan **nabaritzen** zitzaion urteek utzitako zama kezkarria. **Javi Cillero**
Aitari ez zitzaion keinurik **nabari**, ez ama lasaitzekorik, ez kontu eskatzeorik. **Anjel Lertxundi**
Laneko harremanetan **nabari** al zaio zerbait? **Migel Angel Mintegi**
Ezin argiago **nabari** daiteke puntu hori, berak dioena hona eraldatuz gero: [...]. **Andres Urrutia**
Asko **nabari** da zure falta. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aldaketa nabari (6); **asko nabari** (13); **asko nabari du** (5); **aurrerapausoak nabari** (3); **behera nabari** (4); **berehala nabari** (9); **dezena nabari** (4); **eragina nabari** (5); **ere nabari** (33); **eza nabari** (4); **ezintasuna nabari** (3); **falta nabari** (11); **faltan nabari** (3); **hotza nabari** (3); **hutsunea nabari** (5); **hutsunea nabari zuen** (3); **indarra nabari** (4); **laster nabari** (3); **mina nabari** (3)
nabari da (24); **nabari du** (28); **nabari zen** (26); **nabari zuen** (154)
neke nabari (7); **ongi nabari** (3); **presioa nabari** (3); **urdirutasuna nabari** (4); **usaina nabari** (7); **zerbait nabari** (9); **zerbait nabari zuen** (3); **zirrara bat nabari** (3)
asko nabari (5); **berehala nabari** (3); **falta nabari** (4); **hutsunea nabari** (4); **nabari da** (18); **nabari du** (11); **zerbait nabari** (3)
apenas nabari (6); **asko nabari** (7); **asko nabari da** (5); **epe luzera nabari** (3); **eragina nabari** (4); **falta nabari** (7); **faltan nabari** (3); **garbi nabari** (5); **hotza nabari** (4); **hutsunea nabari** (6); **laster nabari** (3); **mina nabari** (7)
nabari da (90); **nabari du** (17); **nabari zen** (28); **nabari zuen** (25)
neke nabari (6); **ondorioak nabari** (3); **ongi nabari** (4); **presioa nabari** (3)

nabarmen (4226 agerraldi, 250 liburu eta 1771 artikulutan) 1 izond inolako ohar, azalpen edo frogarik gabe berez ikusten, sumatzen edo ulertzen dena. ik nabari.

Tanta borobil **nabarmen** bat, gorri-beltza, blusa baporesuko hirugarren botoiaren ondoan. **Aingeru Epaltza**
Aulki birakorren gainean eserita zegoen [...] atzera makurtua eta kopetan eta aurpegian tiro arrasto **nabarmenak** zituela. **Aingeru Epaltza**
Aldian behin ahots fin eta **nabarmen** batek esaten zuen: "amatxo, begira nola egiten dudana dantza". **Lopez de Arana**
Proiektua xumea zen arren, izenburu **nabarmen** eta apur bat arranditsua ematea erabaki nuen. **Oskar Arana**
1788an Laclosen bizitzak aldaketa **nabarmen** bat izan zuen, gudarostea aldi baterako utzi eta politikari lotu baitzitzaion. **Jon Muñoz**
Txantxak txantxa, primeran aritu zen Jon, gainerakooi alde **nabarmena** kenduz. **Andoni Egaña**
Bihurrikera eta zorrotasun **nabarmeneko** karikaturrek. **Xabier Olarra**
Berrikuntza **nabarmen** bat ere badakar liburu honek: [...]. **Markos Zapiain**
Ezikusi **nabarmena** eginez, bere ondoan zetzan jostailu elektronikoa hartu eta hari josi zizkion begiak. **Aingeru Epaltza**
Mirari **nabarmen** eta harrigarri erakusten zuen haren otoiak santuaren eraginkortasuna. **Askoren artean**
Euskarak CVCV egiturarako joera **nabarmena** badu ere, gertatzen direla trabari bilkurak morfema elkarketaz, mailegu bidez edo bestela. **Lourdes Oñederra**
Gaitzespen-usain **nabarmena** zegoen airean. **Anton Garikano**
Adibide **nabarmen** bakar bat aipatzearen, Erromatar Inperioak sehaska helenikoa eman zion inspirazio siriakoa zuen kristautasunari. **Iñaki Mendiguren**
Diote seinale **nabarmen**, nabari, ikusgarri, agerri, erakusgarri horiek (hauta zuk irakurlea, eman ditudan izen ondoetan zein diren egokienak *visible, ostensible* eta *ostentatoire* adierazteko) izan dituen mantalina edo kippa edo girstino kurutzera erakusten dutela argi eta garbi ekarlearen nortasuna. **Herria**
Zalaparta politiko eta mediatiko **nabarmena** piztu zuen gertaera hark. **Txema Ramirez de la Piscina**
Nabarmena zen, alde horretatik ere, Alexandriaren eta Bagdaden arteko parekotasuna. **Jon Muñoz**
Jendearen arteko desberdintasunak **nabarmenagoak** ziren. **Joseba Urteaga**
Mineral-galera **nabarmena** izan zuten hezurretan. **Irene Aldasoro**
Nabarmena da margolan horretan [...] Giotto perspektibaren bila egiten ari den ahalegina. **Anjel Lertxundi**
Aspaldian horrelako ospakizunik egin gabeak ginelako-edo, **nabarmena** egin zitzaigun falta zirenen hutsunea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (adizlagun edo predikatu gisa)

Oinaztargia, argi egitean, **nabarmen** ikusten da; haizeak inguru gutzian jotzen du Bullarrak **nabarmen** gelditzen zitzaizkion jertsearen azpian. **Elizen arteko biblia**
L., autismo sakona zuen mutiko bat, **nabarmen** jantzia zen musikaren, "matematikaren" eta oroimenaren arloetako dohainez. **Xabier Olarra**
Nabarmen adierazten du, baita ere, Erreinuaren doan ematen zaigula, ez dugula irabazten. **Askoren artean**
Garaia zen, gaztaintza-koloreko adats luzea zeukan, makilajea sobera eta bizimoduaren ajeak **nabarmen** samarrak. **Migel Angel Mintegi**
Oso **nabarmen** azaltzen zuen haren gorputzean saihetseko zauria. **Askoren artean**
Hainbeste maite zituen tartekako isiluneez **nabarmen** aztoratu zuten mutikoa. **Josu Landa**
Cook andreak arras **nabarmen** adierazi zion: [...]. **Mirentxu Larrañaga**
Lehenago bereizezinak ziren nabardura batzuk orain oso bestelakoak ziren, eta denak [...] aldatu egiten ziren, **nabarmen** nahiz sotilki, argi-iturriaren uhin-luzeraren arabera. **Xabier Olarra**
Gero Maggierengana jiratu da **nabarmen**, eta esan dio: [...]. **Juan Garzia**
Bi kolpe entzun dituzu **nabarmen**. **Rafa Egiguren**

Jipoiak inoleak seinalde dauka soinean **nabarmen** . **Rafa Egiguren** .
Eta halaxe zen, zeren kanpo-kontsultetan klinikan ikusitakoa areagotu egiten baitzen aringoan **nabarmen** : [...]. **Xabier Olarra**
Barrezka ari zen, **nabarmen** , nitaz. **Joxe Austin Arrieta**
Renfeko langile batek listua bota du lurrera geltokian, **nabarmen** eta ozen. **Pako Aristi**
Halakoetan ere, haatik, kaltea **nabarmen** izaten da gozarena baino handiagoa. **Markos Zapiain**
Bateko eta besteko hizkerak, ostera, **nabarmen** desberdinak dira, eta hori ez da halabeharrenez onorioa. **Koldo Zuazo**
Beso-hankak **nabarmen** luzeak zituen, matraila irtena, begiak ezin hondoratuago eta ezpain lodi-lodiak. **Patxi Zubizarreta**
Gizakietan, **nabarmen** laburragoa da besaurrea besondoa baino. **Irene Aldasoro**
Izterrezur edo femurrean halako proba eginda, ikusi zen mineral kantitate **nabarmen** handiagoa dutela kirolariek adin bereko pertsona arruntek baino. **Irene Aldasoro**
Tira, **nabarmen** arrunta da, horixe baino ez, itxuragabea halakoa. **Mirentxu Larrañaga**
Hitz bakoitzaren azken silaba zen **nabarmen** azentudun. **Lourdes Oñederra**
-Ni, berriz, mutilzahar! -alaitasun **nabarmen** bortxatuaz. **Aingeru Epaltza**

• 3 *izond* bere ohitura, egite, molde, itxura gaitzesgarri edo bitxiengatik nabarmentzen dena.

Hantxe zebiltzan altxera eta aurrera dozena bat neska **nabarmen** , ganoragabe, likits eta ikusgarriro makilatu. **Juan Garzia**
Bestalde, **nabarmen** samar jantzirik egoteaz gain -zapata eta galtzerdi txuriak, fraka motzak doi-doiari agerian uzten zituen alkandora hawaiar koloretsu bat eta begiak ikusezin egiten zizkioten eguzkitako betaurreko ispiludunak-, berak egin du kopilotu lana. **Patxi Zubizarreta**
Gizatxar nazkarri **nabarmen** batekin bat egingo du irakurle harrituak. **Markos Zapiain**
Hara orduko, ilunduko zaizue -etsiarazi nahi izan nituen, aitzak emandako aitzakia guztiz **nabarmen** utzi gabe. **Anjel Lertxundi**
Aldi berean setaz ohartarazi nion ohitura horiek ez zitezkeela alda, nire sehiengatik aitzinean neure burua **nabarmen** utzi gabe. **Jon Muñoz**
Kontuz, txotxongilo, **nabarmen** geldituko haiz lagunengatik. **Josu Landa**
Ez zuen *podaroshnaz* baliatu nahi, **nabarmen** geratuko zen eta. **Karlos Zabala**
Aterpe bila joan behar izan zuen, lanbrotik babesteko eta, baita ere, euripean **nabarmen** ez gelditzeko. **Migel Angel Mintegi**
Gainerako guztiak elkarrekin bazkaltzeko geratu dira, tête du tourc den gidaria izan ezik, noski, eta beharbada **nabarmen** samar gertatu naiz. **Patxi Zubizarreta**
Ez zen arrunt- **nabarmen** horietakoa, ez zen harropuzten bere kirol-gaitasun eta gizon-kemenez, ez zuen inoiz gezurrik esaten. **Juan Garzia**
Nola zuritu geure burua? Jainkoak berak **nabarmen** jarri du gure bekatura. **Elizen arteko biblia**

4 *nabarmen izan da ad*

Nabarmen da hor, jitoen lapurketako hizkera erdisorgin erdiluzin moxorrotua. **Patziku Perurena**
Horregatik, herri zibilizatu guztietan **nabarmen** da, legeen santutegiaren aldamenen eta legegilearen zaintzapean, halako goiburua, ebatzi eta doktrinaren gordailua, egunero eraberritzen dena. **Andres Urrutia**
Kezkaturik zegoen, **nabarmen** zen, batek jakin Arrietarekin izandako solasak edo detektibearen presentziak kezkarazia; biek, nonbait. **Migel Angel Mintegi**
Baina inork arretaz bere osan begiratu zergo, akabo: hura manipulatu zegoela **nabarmen** baitzen. **Txillardegi**
Perlazzo lepokoa zintzuraren edergarri, forma zehaztekin paparrekoa ezkerreko bularralde apaldian eta harri handi borobila eskuin eskuko erietan **nabarmen** zitzazkion, tamainagatik ere, portretako emakumeari. **Aingeru Epaltza**

5 *nabarmen-nabarmen izond*

Ezponda Baithako neska-mutil gehienengatik **nabarmen-nabarmenak** zituen begitarte hark. **Aingeru Epaltza**
Zu eskale **nabarmen-nabarmena** izango zara. **Patxi Zubizarreta**
Atal horretan dauden aldeak ere **nabarmen-nabarmenak** dira. **Herria**

5a (adizlagun gisa)

Baina gauza bat falta da **nabarmen-nabarmen** , eta gauza hori ohea da. **Iñaki Seguro**
Hainbat gau eman zuen etxetik kanpo, luze jo zuen zurrutero-festa parrandazalaren batean, **nabarmen-nabarmen** . **Mirentxu Larrañaga**

6 *nabarmen-nabarmena izan da ad*

Lagunekin larrua jotzea baino gauza naturalagorik ez dago, **nabarmen-nabarmena** da, begien bistakoa, penagarria ere bada hori esan beharra eta horretaz eztabaidan ibiltzea. **Karlos Zabala**

7 *nabarmena izan* (konpletiba batekin)

Aurpegia puztua du loagatik, eta bata baten gerrikoa - **nabarmena** da ez dela berea- lotzeko ahaleginetan ari da. **Oskar Arana**
Nabarmena da zerbait nahi duela nirekin. **Anjel Lertxundi**
Ondo **nabarmena** da, bai, zuzentasunaren kaleetan ibiltzen ohiturik dagoela. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aldaketa nabarmen (12); **alde nabarmen** (9); **alde nabarmen bat** (5); **desberdintasun nabarmen bat** (5); **dirua nabarmen irten** (4); **egoera nabarmen aldatu** (4); **ekonomia nabarmen** (4); **era nabarmen** (4); **ezaugarri nabarmen** (7); **gauza nabarmen** (4); **guztiz nabarmen** (4); **hutsune nabarmen** (5); **joera nabarmen** (4); **keinu nabarmen bat** (4); **kopurua nabarmen jaitsi** (4); **mirari nabarmen** (4); **modu nabarmen** (4)

nabarmen ageri (24); **nabarmen ageri da** (6); **nabarmen agertu** (10); **nabarmen agertzen** (14); **nabarmen agertzen da** (5); **nabarmen aldatu** (37); **nabarmen aldatu da** (14); **nabarmen aldatzen** (6); **nabarmen areagotu** (6); **nabarmen azaltzen** (6); **nabarmen eragin** (6); **nabarmen eragiten** (8); **nabarmen erakusten** (6); **nabarmen erakutsi** (4); **nabarmen erakutsiz** (4); **nabarmen falta** (4); **nabarmen gailendu** (6); **nabarmen gaititu** (7); **nabarmen gainera** (16); **nabarmen garestitu** (4); **nabarmen gehitu** (9); **nabarmen gelditu** (15); **nabarmen gelditu zen** (6); **nabarmen gelditzen da** (4); **nabarmen geratu** (25); **nabarmen geratu da** (6); **nabarmen geratu zen** (11); **nabarmen geratuko** (10); **nabarmen geratuko da** (4); **nabarmen geratzen** (9); **nabarmen geratzen da** (5); **nabarmen gogortu** (4); **nabarmen gora egin** (11); **nabarmen gutxitu** (10); **nabarmen handiagoa** (8); **nabarmen handitu** (21); **nabarmen handitu da** (7); **nabarmen handituko** (5); **nabarmen handitzea** (8); **nabarmen handitzen** (7); **nabarmen hazi** (24); **nabarmen hazi da** (8); **nabarmen hobetu** (13); **nabarmen hobetuko** (4); **nabarmen igo** (26); **nabarmen igo da** (11); **nabarmen igoko** (5); **nabarmen igotzeko** (4); **nabarmen ikusten** (13); **nabarmen irten zen** (4); **nabarmen jaisten** (8); **nabarmen jaitsi** (22); **nabarmen jaitsiko** (4); **nabarmen jarri** (4); **nabarmen murriztu** (19); **nabarmen murriztu dira** (4); **nabarmen murriztuko** (4); **nabarmen nabarmen** (7); **nabarmen nabarmena** (4); **nabarmen okertu** (5); **nabarmen samar** (6); **nabarmen ugaritu** (10); **nabarmen ugaritu direla** (4); **nabarmen utzi** (18); **nabarmen uzteko** (5); **nabarmen uzten** (8)

oso nabarmen (37)

adibide nabarmena (6); **aldaketa nabarmena** (25); **aldaketa nabarmena izan** (6); **alde nabarmena** (26); **alde nabarmena dago** (10); **aldea nabarmena** (8); **aldea nabarmena da** (6); **arrasto nabarmena** (4); **aski nabarmena** (6); **atzerapauso nabarmena** (8); **aurrerapauso nabarmena** (4); **beherakada nabarmena** (11); **beherakada nabarmena izan** (9); **bereziki nabarmena** (8); **desoreka nabarmena** (5); **eragin nabarmena** (34); **eragin nabarmena du** (6); **eragin nabarmena izan** (15); **eragina nabarmena** (11); **eragina nabarmena da** (6); **falta nabarmena** (14); **froga nabarmena** (4); **garrantzi nabarmena** (6); **gauza nabarmena** (9); **gauza nabarmena da** (4); **gorakada nabarmena** (7); **gorakada nabarmena izan** (5); **hazkunde nabarmena** (5); **hazkunde nabarmena izan** (5); **hobekuntza nabarmena** (8); **huts nabarmena** (5); **hutsune nabarmena** (6); **igoera nabarmena** (10); **igoera nabarmena izan** (4); **jaitsiera nabarmena** (4); **joera nabarmena** (20); **kalte nabarmena** (6); **kontraesan nabarmena** (6); **kutsu nabarmena** (12); **lan nabarmena** (6); **lan nabarmena egin** (4); **murrizketa nabarmena** (4)

nabarmen nabarmena (4); **nabarmena da** (202); **nabarmena du** (16); **nabarmena zen** (75); **nabarmena zuen** (8)

oso nabarmena (35); **oso nabarmena da** (9); **oso nabarmena izan** (5); **oso nabarmena zen** (7); **pisu nabarmena** (4); **politiko nabarmena** (7); **porrot nabarmena** (5); **presentzia nabarmena** (5)

are nabarmenago (15); **gero eta nabarmenago** (15); **nabarmenago ageri** (6); **nabarmenago agertzen** (6); **nabarmenago egin** (6); **nabarmenago egiten** (4); **nabarmenago gelditzen** (5)

are eta nabarmenagoa (5); **are nabarmenagoa** (29); **are nabarmenagoa da** (9); **are nabarmenagoa izan** (5); **askoz ere nabarmenagoa** (4); **gero eta nabarmenagoa** (35); **inoiz baino nabarmenagoa** (4); **nabarmenagoa egin** (5); **nabarmenagoa egiten** (4); **nabarmenagoa izan** (12); **nabarmenagoa izan zen** (6); **nabarmenagoa izango** (5); **nabarmenagoa zen** (8)

are nabarmenagoak (6); **gero eta nabarmenagoak** (9); **nabarmenagoak dira** (11); **nabarmenagoak ziren** (6)

aldaketa nabarmenak (15); **aldaketa nabarmenak izan** (4); **alde nabarmenak** (14); **arazo nabarmenak** (4); **arrasto nabarmenak** (5); **aski nabarmenak** (6); **atzerapauso nabarmenak** (4); **aurrerapauso nabarmenak** (6); **desberdintasun nabarmenak** (8); **hobekuntza nabarmenak** (4); **huts nabarmenak** (4); **hutsune nabarmenak** (12); **ikur nabarmenak** (5); **kalte nabarmenak** (5); **keinu nabarmenak** (5)

ondorio nabarmenak (7); **ondorioak nabarmenak** (8); **ondorioak nabarmenak dira** (7); **oso nabarmenak** (10); **zantzu nabarmenak** (7); **zantzu nabarmenak zituen** (4)

nabarmenagotu, nabarmenago(tu), nabarmenagotzen da/du *ad* nabarmenago bihurtu.

Janzten zituen likrazko prakek bere izterretako gihar boteretsuen gorabeherak **nabarmenagotzen** zituzten. **Jon Alonso**

Bertara hurbiltzenago, hiri-kanpoko bihitegiak, ferratzailearen estalgunea, ardi triskilatu berrien eskorta **nabarmenagotzen** hasi zen Nora zero urretsuaren kontra. **Anjel Lertxundi**

Aspaldikoa dugu hitzen ondoeza, baina atzenaldera **nabarmenagotzen** hasi zaigu, zorionez. **Patziku Perurena**

Ordura arte kontziente izan ez balitz bezala, Jokinen inguruko amaraunak josten hasi zen, lotzen zituen ahala dardara **nabarmenagotzen** belauetan. **Unai Iturriaga**

nabarmenarazi, nabarmenaraz, nabarmenarazten du *ad* nabarmentzera behartu.

Tellagorri mehea zen, Pitxia gizona; Tellagorri arropa ilunez janzten zen, Pitxia, bere bolumena gehiago **nabarmenarazteagatik** beharbada, arropa argiz. **Koro Navarro**

Bi urte lehenago gimnasio batean izena emanda erositako txandal arrosa zeraman soinean, nik biziki maite nuena aldakak ederki **nabarmenarazten** baitzizkion. **Aingeru Epaltza**

Joan deneko hogeie edo hogeita hamar urtean, neurobiologoek erakutsi digute beste kontu batzuk **nabarmenarazteko** diseinaturik dagoela begia: mugak, argi-kontrasteak, kolore-aldeak, eta abar. **Juan Garzia**

Gosea **nabarmenaraztea** iduritu zitzaidan, alabaina. **Aingeru Epaltza**

nabarmendu, nabarmen(du), nabarmentzen (*orobat nabarbendu g.er. eta nabarmentu g.er.*) 1 du *ad* nabarmen jarri. ik azpimarratu.

Marra beltz batek **nabarmendu** egiten zizkion begi olio kolorekoak, horiztak, apur bat arreak. **Bernardo Atxaga**

Bizar zuri egunetan egin gabeak aurpegiko zurbila **nabarmentzen** zion. **Anjel Lertxundi**

Solidario guztiak bat **nabarmentzen** dute hura taldeak inoiz egin duen ekintzarik "garbiena, politena, eraginkorra eta inportanteena" izan dela. **Edurne Elizondo**

Zinema mutuaren garaiko kritiko gehienek aipatu eta **nabarmendu** dute zinemaren fotogenia-ahalmena. **Josu Zabaleta**

Egunkari guztiak albiste bat **nabarmentzen** zuten. **Jon Muñoz**

Balio anitzeko hitz baten adieretako bat **nabarmenduko** du. **Xabier Kintana**

Nafarroako Gobernuak **nabarmendu** zuen ekintzak 1.800 milioi pezetako galera ekonomikoa eragin zuela. **Edurne Elizondo**

Gorputzaren estura doiko soinekoak **nabarmenduriko** bular aldean. **Anjel Lertxundi**

-Galtzerdi bera egiten ari dun beti - **nabarmendu** zuen besteak-; lo gelditzen dun lanaren gainean, gehiegi jaten din... **Karlos Zabala**

Neure burua taldean **nabarmendu** nahi ez nuelako (zer edo zer argi baldin badut, horixe da: bidaia honetan oharkabean igarotzea). **Patxi Zubizarreta**

Horrexek **nabarmentzen** zuen Stanislaus Demba: besteek ez bezala jokatzek. **Anton Garikano**

Baina Catherineren aurrean ez zuen deus adierazi nahi, ez zion abantailarik eman nahi, ezta ahuleziak edo beldurrez bere burua **nabarmendu** ere. **Iñaki Zabaleta**

Nabarmentzekoa den beste aldaketa bat Euskal Etxekoena izan zen. **Pako Aristi**

Nabarmentzekoak dira, bestalde, Kemalen zenbait nobela labur. **Fernando Rey**

2 (inpersonalak)

Aldi batez, Daviden lekuan jarri nintzen, bera bizirik eta ni hilda banengo bezala, eta galeraren izugarritasuna **nabarmendu** zitzaidan. **Bernardo Atxaga**

Kopeta-ertzetako zainak **nabarmendu** zaizkio. **Anjel Lertxundi**

Aspalditik **nabarmendu** izan da [...] pertsonok ez ditugula irudiak denak batean osorik begiratzen, begirada aldiko leku batean segidan finkatuz joanez baizik. **Josu Zabaleta**

• 3 da *ad* gailendu, nabarmen agertu.

Sbarúa delakoa sasiz eta txaraz lasterriko muino apal batetik ehun bat metro **nabarmentzen** den granitoko prisma bat da. **Juan Garzia**

Une hartantxe ikusi nituen haren titimuturrak jertsean **nabarmentzen**. **Migel Angel Mintegi**

Ikusia zuen Frantzisko bere ahaide eta ezagunen artean itxuragabe jokatzeko eta bere zentzugabekeria beste guztien gainetik **nabarmentzen**. **Askoren artean**

Behaketaren behaketaz eta berezko trebetasunari esker **nabarmendu** zen bere lanbidean. **Patxi Zubizarreta**

Gazte siberiarra, ausarta, argia, saiataua, jokabide zuzenekoak, laster **nabarmendu** zen. **Karlos Zabala**

Ikasketetan ere ez baitzen sekula **nabarmendu**. **Joxean Agirre**

Hara Frantziskorengan **nabarmendu** ziren hamar dohainak. **Askoren artean**

Tristezia **nabarmendu** zen Al-Heluren begitarrean. **Patxi Zubizarreta**

Neskaren begietan zinezko interesa **nabarmendu** zen eta, kasik oharkabean, galdegin zuen: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Baina bestela bezala egiten zuen hori guztia, batere **nabarmendu** gabe, benetan egingo ez balu bezala. **Jose Morales**

Nabarmendu, bederen, ederki **nabarmendu** hintzen, abuztu hondarrean kontratua luza ziezaioten. **Aingeru Epaltza**

Hego ekialdetik ipar ekialdera zihono lur arrasetik ia **nabarmendu** gabe, estepa bera zuela haran bakar. **Karlos Zabala**

Etxea gehiegi **nabarmendu** gabe zelatatzeke moduko toki bat behar nuen. **Alberto Ladron Arana**

Erreformaren eta Kontrarreformaren eragina **nabarmentzen** hasi aurrekoa da, ordea, Ignazio Loiolakoaren berrikuntza. **Patxi Altuna**

4 nabarmenkerian erori.

Sinbologia berberari eutsiz, *goizoi*landa deitu izan zaio, mutiletan gaxterik hasten den neskatoari, edo *martxoko oilar gorri* nahiz *oilar gangar gorri* berriz, gaxterik neskazale **nabarmentzen** den mutilari. **Patziku Perurena**

Nabarmendu egiten ziren hizpidera atzerriko hitzak ekarriz. **Patxi Zubizarreta**

Tolosa honetan batez ere kontuz ibili behar dugula, Gipuzkoako hiriburua izan zenez geroztik etsai asko dugula; **nabarmentzea** kaltegarria izan daitekeela, eta zuhur jokatzeko. **Txillardegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

beharra ere nabarmendu (10); beharra nabarmendu (110); beharra nabarmendu zuen (53); beharrezkoa dela nabarmendu (12); bere burua nabarmendu (8); bereziki nabarmendu (12); berrirori nabarmendu (10); egin dutela nabarmendu (8); egiteko beharra nabarmendu (9); erantzukizuna nabarmendu (9); garrantzia nabarmendu (114); garrantzia nabarmendu zuen (58); garrantzitsua dela nabarmendu (8); gehiegi nabarmendu (8); giroa nabarmendu (8); kalitatea nabarmendu (8); lana nabarmendu (28); lana nabarmendu du (8)

premia nabarmendu (14); prest dagoela nabarmendu (9); zera nabarmendu (17); zera nabarmendu zuen (11)

zer nabarmenduko zenuke (15)

bat nabarmenduko (9); nabarmenduko du (11); nabarmenduko dute (9); nabarmenduko nituzke (16); nabarmenduko nuke (28); nabarmenduko zenuke (22); zer nabarmenduko (15); zer nabarmenduko zenuke (15)

beharra nabarmentzen (8)

nabarmengarri 1 *izond* nabarmentzekoa dena.

Taiwanetikoz auzian eta [...] armen gaineko bahimendua bertan behera uzteko eskarian Hu Jintao Txinako presidentek Chiracen sostengua lortu izana **nabarmengarria** da.

Berria - Mundua

Liburuaren alderdi **nabarmengarrienetako** bat«topiko gabezia» da, Rodriguezen ustez. *The Cement Garden* (1978), *Black Dogs* (1992), *Enduring Love* (1997) eta *Amsterdam* (1998) dira, ziurrenik, bere lanik **nabarmengarrienak**. **Berria - Kultura**

Gauzak ondo aztertuz gero, edonor konturatzen duk bekain iletsuak beste berezitasun **nabarmengarririk** ez zuela. **Jose Morales**

Ez zen garbitasuna hango korridore eta gelen berezitasunik **nabarmengarriena**. **Jose Morales**

Azterketa mailaren eta berarentzat **nabarmengarriak** diren osagaien definizioa. **Xabier Arregi**

2 (izen soila -en atzizkiaren eskuinean)

Pirografiaz grabatutako irudi bat zen, neska bat esgrima-jantzian, bere gorpuzkera negargarri bezain zaharkituaren **nabarmengarri**. **Mirentxu Larrañaga**

nabarmenkeria 1 *iz* nabarmentasun gaitzesgarria; egite nabarmena.

Soldadu errusiarren arrastoak ziren, eta haien amek ez zekiten nola estali halako **nabarmenkeria**. **Jon Maia**

Berezkoa ote zen, horrela sentitua, ala bazen **nabarmenkeria** pixka bat, berezi azaldu nahi bat? **Josu Zabaleta**

Handiak ez izan arren, biztanle askokoak diren estatuetan, luxu gogoa nagusitu egiten zaio **nabarmenkeriarako** joerari. **Juan Martin Elexpuru**

Beharbada, harrokeria deritzozu hori onartzeari, baina egia da -eskuak patriketan gorde nituen, keinuen **nabarmenkerian** ez erortzeko-. **Ramon Saizarbitoria**

Ihes egin behar zaio beti **nabarmenkeriari**, ez baita amildegi polit bat besterik. **Askoren artean**

Ez zen handikeriarik haren hitzetan, ez arrandiarik haren keinuetan, ez **nabarmenkeriarik** haren egiteetan. **Askoren artean**

Langilea, latz-antxa, **nabarmenkeriaren** etsaia, ezkondua eta bi seme-alabaren aita. **Aingeru Epaltza**

Nabarmenkeria galanta omen da emakumea horrelako tresna baten gainean harat-honat ibiltzea! **Gotzon Garate**

Nabarmenkeria hutsa zen Parisko hiriguneko etxe batean su eta gar sartu eta bi agente harrapatzen saiatzea. **Alberto Ladron Arana**

Hertsikeria sexualak sortzen baititu, usu, **nabarmenkeria** sexualik zabarrenak. **Patziku Perurena**

Txikitasun hori haustea zaila zen, **nabarmenkeria** itzelak egin ezean nortasunari itsatsita geratzen baitzen txikitasun hori. **Pako Aristi**

Ikusleengana itzuli zen Tomen aita, burua atzera bota eta arnasa hartu zuen bularra hanpatuz, **nabarmenkerian**. **Koldo Izagirre**

Beti **nabarmenkeriaren** bat egin behar! **Patxi Zubizarreta**

Ez zuela **nabarmenkeria** gehiagorik aditu nahi. **Mirentxu Larrañaga**

2 (hitz elkartuetan)

Horregatik ikus daiteke estatu zabal, ahul eta biztanle gutxikoetan, beste gorabehera batzuk ez badira tarteko, **nabarmenkeria**-gogoia nagusitzen zaiola erosotasunari.

Juan Martin Elexpuru

Frankotan aditua nago, halako **nabarmenkeria** kutsu batez edo: [...]. **Patziku Perurena**

3 *nabarmenkeriaz adlag* ik nabarmenki.

-Bai -esan zuen **nabarmenkeriaz** -. **Iñaki Mendiguren**

Begi harrokeriaz eta handinahiez beteekin, **nabarmenkeriaz** begiratu zion eskumuturreko erlojuari. **Patxi Zubizarreta**

Uste dut Weinberg-ek aditzera eman nahi zidala bere amak nahiago zituela emakumeak gizonak baino, eta Weimar-ko Errepublikaren urte nahasietan nahiko ageriki eta **nabarmenkeriaz** erakutsi izango zuela zaletasun hori. **Oskar Arana**

4 *nabarmenkeriazko izlag*

Babestu egin nahi baitzuen alabatzakoa amerikar pop kulturaren inauteri erotik, lurralde hartako hodi katodiko guzti-guztietatik etengabe isurtzen zen **nabarmenkeriazko** eta zaborrezko anabasa jainkogabe horretatik. **Oskar Arana**

nabarmenki *adlag* nabarmenkeriaz.

"Zazpiak bat" goiburua **nabarmenki** darabilen lehen olerkia bide da. **Iñaki Arranz**

Soineko estu baten bildutako biribiltasunak eta soberako txitxiak **nabarmenki** astinduz joan zen bezeroarekin. **Migel Angel Mintegi**

"Irakasle jauna", hasten da esaten, hitz hori **nabarmenki** ahoskatuz. **Oskar Arana**

Pozik nengoen ni, zinez; eta bera ere bai, **nabarmenki**. **Txillardeg**

Eta gogoko zuen musika, **nabarmenki**. **Xabier Olarra**

Ahaleginak ahalegin, huts egin zuen **nabarmenki**. **Josexo Azkona**

Arnasa hartu du ostera abokatuak **nabarmenki**. **Koldo Izagirre**

Oroitzeko premia, haurtzaroaren irudia moldatzea, **nabarmenki** larria zen ordurako berarentzat; baina artean ez zuen aurkitu bere bidea. **Xabier Olarra**

Gaztea zen eta indartsua, gorpuzkeko gihar guztiak **nabarmenki** markatuak zituen. **Joseba Sarrionandia**

Patioan eraikuntza asko zegoen: mirabeen bizitokiak, aletegiak, sotoak... **nabarmenki** zahartuak denak. **Jose Morales**

Sei urte inguruko neskato baten aurpegi biribila ageri da erretratu **nabarmenki** handituan. **Iban Zaldúa**

Ez zaizkit irabazleak ez galtzaileak **nabarmenki** interesatzen. **Ana Urkiza**

Gero eta **nabarmenkiago**, oinak non pausa ez neukala erreparatu nuen. **Txillardeg**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nabarmenki egin (3); **nabarmenki gailentzen** (3); **oso nabarmenki** (4)

gero eta nabarmenkiago (4)

nabarmenkiro *adlag* nabarmenki.

Tximiniñen eta ur-deposituen soslai **nabarmenkiro** ikus zitekeen haragia bezain gorrirka zen zeru hartan. **Lopez de Arana**

Aurrerantz makurturik, primerako ikuspegian neukan, nolabait esateko, neure emakuntza, eta bitxi bezain **nabarmenkiro** irteten zela iruditu zitzaidan. **Joxan Elozegi**

Analista horrek maratz-maratz zerrendatu zituen emaitza hain **nabarmenkiro** susmagarri baina formalki aitzakiagabe haiek. **Juan Garzia**

nabarmentasun 1 *iz* nabarmena denaren nolakotasuna.

Aristokraziak goستن duena da ongi dagoena gizarte homerikoan [...]: arrakasta, **nabarmentasuna**, luxua, ohorea, oparotasuna, aberastasuna, arrandia, distira eta horiek lortzeko beharrezkoa den zuhurtasuna, trebezia, ausardia, oldarkortasuna, indarra edo borroka. **Askoren artean**

Baiespen bakoitza sendotzeko, hortik heldu diren zalantzak argitzeko eta egiten zaien gezurtapenaren **nabarmentasuna** saihesteko ere, liburuak izkiriari eta eztabaidak egiteko premian aurkitzen dira, bestelako itzurbiderik ez bada. **Xabier Kintana**

2 (fonetikan)

Silaba egituratzearen beste hatsarre garrantzitsu bat **nabarmentasun** -kontrasterik handienarena da (*maximal prominence contrast*), CV bilkurak ongien betetzen duena.

Lourdes Oñederra

Badirudi azentuaren izaera eta **nabarmentasun** fonetikoak ez direla berdinak euskalki guztietan. Lourdes Oñederra

Bokal sudurkariak ahokariak baino entzungarritasun eta **nabarmentasun** gutxiagokoak dira. Lourdes Oñederra

Nabarmentasunaz ari garela, esan behar da azentuak, silabari dagokionean kanpotikako **nabarmentasuna** bada ere, eragin zuzena izan dezakeela silaba azentudun eta azentugabeen bereizgarrietan. Lourdes Oñederra

nabarmentu ik **nabarmendu**.

nabarmentxo 1 *izond* nabarmen samarra.

Pasea gaitezen haren testuetan, pasarte **nabarmentxo** batzuk han-hemen buruxkatuz. Joxe Azurmendi

Hauek denak ibilbide arrazista **nabarmentxoak** ez baldin badira, [...]. Joxe Azurmendi

2 (adizlagun gisa) ik **nabarmenxko**.

Asto samarra izateaz harrotzen zen eta **nabarmentxo** janzen zen, antzinako postiloien dotoretasun bizi horrekin. Koro Navarro

nabarmentze *iz* nabarmen jartzea.

Norbere nortasuna **nabarmentze** horretan, ikusi batera besterik dirudien arren, konplexuak disimulatzeko ahalegina dago sakon-sakonean. Koldo Zuazo

Haren margolanetan gertatzen dena ez da xuxen-xuxen ezabaketa neurotikoa, baizik elementu batzuen **nabarmentze** irudimentsu bat, areagotze bat. Xabier Olarra

Nabarmentze eta balioeste arbitrario eta berariazko horrek are ageriagoan uzten du ertz horiek irudia markoz kanpokotik bereizteko balio dutela. Josu Zabaleta

nabarmenxko *adlag* nabarmen samar. ik **nabarmentxo** 2.

Arpegia, gainera, pintatua zuen, ohi zuen baino nabariago - **nabarmenxko** ene gusturako-, baina nahiago nuen etxean bere buruaz eta bere itxuraz arduratzen zen emakume bat ikustea emakume utzi bat baino. Joan Mari Irigoien

nabarrerria ik **nafarrerria**.

nabarrismo *iz adkor* nafarra izateko nolakotasuna. ik **nafartasun**.

Askotan esaten dut: UPNri **nabarrismoan** irabazi behar zaio. Berria - Euskal Herria

nabartar ik **nafar**.

nabartu, nabar(tu), nabartzen 1 *da/du ad* nabar bihurtu.

Ordurako kolore ez-tietan **nabartua** zen jendetzaren artean igaro eta txilin-hots alaiko musikataran joan ziren. Irene Aldasoro

Kolore anitzez **nabarturiko** irudiek. Elizen arteko biblia

Kale janzkeran, emakume asko eta asko, hamaika koloretako guardasolak eskutan zeramatatzelarik; eta hondar gogor eta bustiko alderdian plaia **nabartuz**, alfer itxuran denak: gizasemeak eta andereak, umeak eta inudeak. Txillardegi

Ezerosotasuna biziki areagotzen da kopuruz duen indarra gehitu eta kultur egitura **nabartu** egiten duenean atzerriko jendearen sarrerak. Iñaki Mendiguren

2 *ilundu-edo*.

Ekiak soa **nabartzen** zion. Itxaro Borda

Arratsaldea **nabartzen** ari zela, gizonak agertu ziren. Juan Garzia

Zuzi bat ikusten zen kaian jadanik **nabartzen** ari zen gauean. Joseba Sarrionandia

Igeldo ostean ezkatutu zaharra ez den eguzkiak urdin aratz argitzen du itsasaldean ostertza, eta, hondo klaro horren kontra, badia inguratzen duten molkoak arre- **nabartuz** doaz ezari-ezarian kontrargitan. Iñaki Iñurrieta

3 (era burutua izenondo gisa)

Fonetikak erakusten zizkigun eboluzio luze eta zehatzak ez nituen aise segitzen, nahiago nituen sintaxiaren konplikazio **nabartuak**. Piarres Aintziart

nabasi *izond* zuhurtasunik gabea, ausarta.

Andre arrotz haren keinu **nabasi** eta barrabasegiak gizon gaztea doi bat harritu zuen, baina ez zion oztoporik jarri. Elena Touyarou

Jeloskorra banintz, balio handiagoko norbaitekiko nengoke jeloskor, eta ez mari txepel, tuntun, nagí, ezdeus, berekoi, historiko, arrunt, **nabasi** eta sexu-grinak jotako horiekiko... Mirentxu Larrañaga

nabe 1 *iz* eraikin handia, solairu bakarrekoa eta barne-hormarik gabea. ik **habearte** 2.

Jauregiari atxikita, gainera, altura txikiko **nabe** bat jasoko dute. Berria - Kultura

Pabilioi eta **nabe** logistiko antzekoak izatea nahi dugu, eta ez enpresa bakoitza bere kasa eraikitzen ibiltzea. Berria - Ekonomia

Durango eta Elorrio arteko errepedean ibili denak erreparatuko zion beharbada, salgaien **nabe** erraldioien bestaldean, izen bereko eliza dotoreari. Xabier Mendiguren

Elizegi

Cosmos delako lokala **nabe** bat zen, rock and rolleko taldeek jotzen zuten **nabe** bat. Fernando Rey

2 *elizetan, habe* arteko hutsunea. ik **habearte**.

Nabe nagusi eta bakarraren buruan aldarea zegoen -eskailera batzuen buruan- bere erretaula urreztatuarekin. Aitor Arana

Pauso labor baina irmoz hasi da aldaretik urruntzen, elizaren alboko **nabeetako** batean aurrera, eztei-jantziaren isats luzeak arrastaka darraiola. Iban Zaldúa

Elizako **nabe** zentrala inguratu zuen. Berria - Kultura

Nabe nagusiaren ezker eta eskuin aldeetan eta aldarearen eta koruaren artean, bi aitorleku zeuden. Aitor Arana

Monasterioko elizako **nabearen** erdian. Jon Maia

Aguzki berriaren lehen printzek **nabe** altuko beiradurak horizontalki trabeskatzen zituzten eta urrezko habe handiak jaurtitzen zituzten ojiba batetik bestera, fondo ilunean nabarmen ebakitzen zirela, ilunpeko eliza hartan izarniatuz. Koldo Izagirre

3 hed

Osptaleko **nabe** nagusian baziren oheak, ehundik gora. Edorta Jimenez

Ohez beteriko **nabean**, Beshir tunisiarrak nirearen ondoko ohaxka zeukan aukeratuta. Fernando Rey

4 industria-nabe

Fabrikak ziruditen industri **nabez** eta adreilu iluneko eraikuntza eskergaz josia. Guztira, lehen fasean 1,45 milioi metro koadro eraikiko dira, eta horietatik 650.000 metro industria-**nabe** bihurtuko dira. Joxemari Iturralde

2005eko urtariletik aurrera [...] lehenbiziko industria-**nabeak** eraikitzen hasi nahi dute. Berria - Ekonomia

nabegari iz nabigatzailea.

Atsegin handia izan zen giro hartan Elkanoren eta beste **nabegari** batzuen oroiz aspaldi idatziriko olerkiak irakurtzea, gaztelerazko itzulpen eta guzti. Edorta Jimenez

nabela ik nabala.

nabiera iz itsasontzi enpresa.

Latasa **nabierakoentzat** lan egiten duen Asenjo da ezagutzen dudan onena. Josu Landa

Horrela jakin zuen aurpegi ederreko gazte indartsu hark Santos zuela izena, **nabiera** bateko behargin mekanikoa. Josu Landa

Ofizialki panamarra bazen ere, egoitza nagusia Santanderren zeukan **nabiera** batena zen, izatez. Xabier Montoia

nabigaezin izond ezin nabigatuzkoa.

Ur laster **nabigaezinak**. Anton Garikano

nabigarri izond nabiga daitekeena.

Eszilaxek dio Zernez harantzago itsasoa ez dela **nabigarria**, han hondo gutxikoa delako, limoz eta itsas belarrez betea. Iñaki Iñurrieta

Frantzia handia duk baina ibai guztiak ditik **nabigarri**. Koldo Izagirre

Pertsian ez dagoela ibai **nabigarririk**, Kur ibaia izan ezik. Iñaki Iñurrieta

Nabigarri egiteko, ibaiak dragatu eta ibilbideak zuzendu dituzte. Berria - Gaiak

nabigarazi, nabigaraz, nabigarazten du ad nabigatzera behartu.

Eskifaia, nekaturik, gure ontzi herrenari ahal zen moduan **nabigarazten** saiatzen zen. Edorta Jimenez

Baina azaldu zionean zelan aritzen zen jolasean, uztaila Urmael Biribilean **nabigaraziz** eta horrela, Maimie ikaratu egin zen. Julen Gabiria

nabigatu, nabiga, nabigatzen 1 du ad ontziz ibili. ik itsastatu.

Zenonek ez zuen sekula berriro **nabigatu**. Edorta Jimenez

Kartagotarrek exijitu zieten erromatarrei ez zezatela **nabiga** muga batzuetatik harantzago. Iñaki Iñurrieta

Tver probintziatik aurrera **nabigatzeko** modukoa da [...]; hots, haren ibilbide gehien-gehiena ibil daiteke ontziz. Karlos Zabala

Indietara iritsi orduko, flota berriak eginarazi zituen, eta Euleo ibaitik, Tigris eta Eufratestik eta itsasotik **nabigatu** zuen. Iñaki Iñurrieta

Ontziak eginarazi zituen Hidaspes ibaian, ibai horretatik jaitsi zen, Indoan sartu eta honen bokaleraino **nabigatu** zuen. Iñaki Iñurrieta

Belaontzi handietan **nabigatzea** zen nire ametsa. Edorta Jimenez

Nabigatu gabeko itsaso, zeharkatu gabeko basamortu edo gaintitu gabeko mendikateren baten forman. Iñaki Mendiguren

Horri esker, Afrikako kostatik aldendu eta ozeano zabalean barrena **nabigatu** ahal izan zen Santa Helenako uharterantz edo Brasilgo kostarantz. Iñaki Iñurrieta

-Ene gazte denboran -erran zuen Erregek- ekia iraungitzen den alderantz, arrats-beherarantz **nabigatu** nian. Juan Garzia

Panamako banderapean **nabigatzen** duen ontzi baten ardura hartzeko. Edorta Jimenez

Karrakak, izatez, belak estutu eta aurtzaka **nabigatuz** haizerik gaitzenari aurpegi emateko gai ei ziren. Edorta Jimenez

2 (zer osagaiaz)

Eta urruti, oso urruti gertatu zen, hara heltzeko hiru urtetan zehar hamaika itsaso **nabigatu** behar baitziren itsasontzi handi batean. Xabier Mendiguren Elizegi

38.000 itsas milia **nabigatu** ostean, itsasoan lau urtez noragabean ibili eta gero. Patxi Zubizarreta

3 irud/hed

Nire gogoak denboraren itsaso beltzetan **nabigatu** zuen, antzinako nire herrikide haren buruan barrentzen ahaleginduz. Alberto Ladron Arana

Bakardadearen ekaitzik gabeko uretan **nabigatu** behar dugu. Edorta Agirre

Baina, drogatuta dagoenean batek gauza arraroak egiten ditu, argazkiak tarrantatu, norberaren miserian barrena algaraka **nabigatu**, kaxoieta gauzak atera eta lekuz aldatu. Harkaitz Cano

Postmodernismoan **nabigatzeko** erabateko hiztegia, itsaso postmodernoarean uhinetan itotzeko arriskurik badago ere. Askoren artean

Ilargia buruaren gainetik zihoakidan, airean **nabigatuz**, atzetik segika zetorkidan, zuhaitz arteetatik, kanpalekurainoko itzulbidean argi eginez. Mirentxu Larrañaga

4 (interneten)

Horregatik, bilaketa akademikoak egiteko komeni zaizu ahalik eta lasterren sarean **nabigatzen** ikastea. Askoren artean

Mezu guzietan erantzun ondoan, internet-en **nabigatzen** hasten da, eguneko berrien jakiteko, ez baitu irratirik piztu ere egun guzian. Eneko Bidegáin

Gorrek erosoago **nabigatzen** dutela webgune konplexuetan. Berria - Euskal Herria

Sakelako telefonoen bidez **nabigatzeko** sistema abiatu dute. Berria - Gaiak

Interneten **nabigatzeko** bide erraz eta ezagunena, baita hedatuena ere, WWW da. Askoren artean

Euskaltelek eskaintzen duen Aurrez Ordaintzeko Banda Zabala goraiatu zuten lau euoreen truke, bost orduz Interneten **nabigatu** daiteke. Berria - Ekonomia

Jada ezin da isilean **nabigatu**, eta inork ezin du bermatu, era berean, Internet bidezko posta trukea ere isilekoa dela. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

interneten nabigatzeko (7); **nabigatzeko aukera** (3)

sarean nabigatzen (3)

nabigatzaile 1 iz nabigatzen duen pertsona.

Garai hartan, **nabigatzaileak** behartuta zeuden itsas bazterrari jarraitzera; horixe zen, nolabait esan, haien iparrorratza. Iñaki Iñurrieta

-Nire osaba oso **nabigatzaile** trebea da. Migel Angel Mintegi

Nabigatzaile ausartak eta gizon ekinbidetsuak ziren. Juan Garzia

Funtsezkoa zen **nabigatzaile** ona izatea ergelkeriazko itsaso hartan, bidea ustekabeko tranpaz josia baitzegoen. Karlos Zabala

2 (izenondo gisa)

Enrike **Nabigatzailea** printze portugaldarraren jarraitzaileetako baikorrenaren ametsik ausartenak ere gainditu zituzten ondorioekin. Iñaki Mendiguren

3 Interneten-edo nabigatzeko programa.

Internet Explorer **nabigatzailearen** azken bertsioaren segurtasun sisteman akats edo zulo bat atzeman du Secunia enpresak. Berria - Gaiak

Nabigatzailean erakunde horren helbidea tekleatu, eta haren helbidean sar gintezean, helbidea eta orria egiazkoak ziren jakiteko. Berria - Gaiak

Gainera, **nabigatzailearen** beheko aldean itxitako giltzarra baten edo giltza baten irudia egoten da. Berria - Gaiak

Segurtasun programak eta **nabigatzailea** eguneratu. Berria - Gaiak

4 Interneten-edo nabigatzen duen pertsona.

Sare elektronikoaren bidez, Nestor Kirchner Argentinako presidenteari deitzeko eta baso-soiltzea geldiarazteko eskatu zieten **nabigatzaileei**. Berria - Gaiak

Siriako Gobernuak kontrolpean ditu sare elektronikorako sarrera guztiak, eta, «agintariak ez jakiterik nahi ez badute», beste herrialdeetako hornitzaileetara jo behar dute

nabigatzaileek. «Euskal Herriak eta Kataluniak zergatik nahi dute independenteak izan?», galdetu du **nabigatzaile** batek. Berria - Gaiak

nabigatze iz ontziz ibiltzea.

Bigarreneko baliotsuak dira nagieria debekatu eta lana bultzatzen duten legeak, **nabigatze** arteari [...], mekanikari (izen horren pean jartzen ditut artisaurik onenen arteak) eta zientzia matematikoei (beraiek baitira nautikaren eta mekanikaren iturri) prestigioa ematen dietenak. Esteban Antxustegi

Ez dakit, ordea, hastapen honetatik begiratuta, porturen batera iritsiko ote naizen edo, poesiako itsasontziak bezala, **nabigatze** hutsarekin kontsolatu beharko ote dudan.

Hasier Etxeberria

nabigazio (orobat nabigazione g.er.) 1 iz nabigatzea. ik itsasketa¹. -

Nabigazio hori Afrikako ekialdeko kostan egiten zen, eta garai hartako **nabigazioaren** egoerak nahikoa ondo frogatzen du ez zirela joaten urruneko lekuetara. Iñaki Iñurrieta

Ezbeharririk ez zen izan **nabigazio** horretan. Karlos Zabala

Nabigazio luzea egin eta gero, lur bedeinkatua aurkitu zuen lehorra. Koldo Biguri

Ulisesen **nabigazioaren** nekeak gai emankorra gertatu dira munduko poema guztietan lehenaren ondotik ederrena denarentzat. Iñaki Iñurrieta

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

1660ko **Nabigazio** -akta. Iñaki Iñurrieta

1888ko udaberrian, Guy de Maupassantek ibilaldi txiki bat egin zuen Mediterraneoan zehar *Bel Ami* izeneko bere belaontzian, eta **nabigazio** egunkari bat idatzi zuen.

Bernardo Atxaga

Egiptoko erregeen eta erromatarren **nabigazio** -plana urte berean itzultzea izaten zen. Iñaki Iñurrieta

Pan kapitainak kalkulatu zuen, **nabigazio** -karta kontsultatu ostean, ekainaren 21ean-edo helduko zirela Azoreetara. Julen Gabiria

Nabigazio -tresnen kutxatxo. Edorta Jimenez

Galileo satelite bidezko **nabigazio** sistema 2009. urterako prest egongo dela esan zuen atzo Europako Espazio Agentziak. Berria - Gaiak

GPS **nabigazio** sistemaren alternatiba gisa aurkeztu dute MapQuest sistema. Berria - Gaiak

Ingurua arakatzten duten orientazio- eta **nabigazio** -sistema landuak. Irene Aldasoro

Diru pila galantak eskaini zizkieten Vernerri **nabigazio** konpainiek bi pertsonaia horiek beren ontzietan itsasoratzearen truke. Karlos Zabala

Aena Espainiako Aireportuak eta Aireko **Nabigazio** erakundeak atzo jakinarazi zuenez. Berria - Euskal Herria

3 (interneten)

Interneteko pornografia orrietan sartzea aldizkari infinitu batean murgiltzea bezala duk, ez zeukak amaierarik heuk amaitzen duan arte... korritzen haizenean atera azkar handik, telefonoak korritzen jarrai ez dezan, esan zion lagunak **nabigazio** lujuriosorako helbide bat emanez. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nabigazio sistemak (6); **satelite bidezko nabigazio** (5)

azken nabigazioa (3)

nabigazione ik nabigazio.

nabo iz arbia.

Muzin hori nondik ete etorkon itaundurik, Txetxuk dino haren umezaroan oraindino bizi-bizirik egoan "inpernuko hauspo" kontua izan eitekeala, batez be, abade batek esan ei eutsanetik: "hoba hori soinuori **nabo** haziz beteko baheu". Xabier Amuriza

nabusi ik nagusi.

nafar (*2497 agerraldi, 70 liburu eta 1150 artikulutan*; orobat *napar g.er.*; **nafartar 159 agerraldi, 11 liburu eta 109 artikulutan**; eta *nabartar g.er.*) **1 izlag** Nafarroakoa, Nafarroari dagokiona.

Lapuri aldean **nafar** erregeen inor lagun sendorik bazuten, Garrotarrak ziren horiek. Aingeru Epaltza

Zenbat denboraz luzatu ziren errege **nafarraren** eta enperadorearen arteko isilpeko solasak? Aingeru Epaltza

Bazuen Martinek arerio bat, mutil **nafar** bat, Ebroke Erriberakoa, karabinero baten semea. Koro Navarro

Harri eta zur gelditu ziren **nafar** ordezkariak. Aingeru Epaltza

Berta Maurac-ekoa dama gaskoi gaztea zen; gazte bezain eder pertxenta; Nuño Inthalatzia, berriz, zaldun **nafar** prestua. Martin Anso

Bi liburu zale handi eta euskal liburugile haiei, eskaintzen diet, maiteko zuketan **nafar** teologoaren artikulua sorta hau. Piarres Xarriton

Nafar Doktoareari agindu zioten presondegitzat har zitza bere etxean zeuzkan egoitzak eta ez zedila handik nehora jalgi. Piarres Xarriton

Ikasgaienartekoa zen Irakasle **Nafarraren** ikasbidea, baina artzain teologiari emanez lehentasuna. Piarres Xarriton

Metropoliari, merkataria **nafar** batekin egin zuen topo. Felipe Juaristi

Bazekien **nafar** herrietan nola apaila pilota txapelketak mutiko gazteen artean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Euskarazko "pillota" hitzak, **nafar** erromantze zaharretik sortua behar du. Patziku Perurena

Nafar ekonomia moteldu eginen bada ere. Berria - Ekonomia

Zeren eta **nafar** etorkikoa izanez, Felipe Errege Jaunaren menpe bainaiz. Piarres Xarriton

Nafar euskalduna nazioz eta bihotzez. Filipe Bidart

Nafar abertzale eraldunenak, berriz, ez du behin ere "País Vasco-navarro" esango. Bernardo Atxaga

Nafar karlistek Francok euskara errespetatzea lortu izan balute [...]. Edorta Jimenez

Nafarroako eskuizkribu zahar asko xehero ikusia zen Yanguas **nafarrak**, hala dio bere "Diccionario de Antigüedades" ezagunean: [...]. Patziku Perurena

• 2 iz Nafarroako herritarra.

'**Nafarrak** Irunen sartu dira', esan zuen beste batek. Joseba Sarrionandia

Eusebiok berak ezagutzen zituen, bere herrian, 36ko gerlatik ihesi etorri **nafarrak**. Eneko Bidegain

Erriberako **nafarra** zen. Koro Navarro

Bigarren milurtearen bezperan zazpiehun kideko tribua osatzen genuen, erdiak lapurtarrak, laurdena **nafarrak** eta gaineratikoak ipar zein hego amerikarrak. Itxaro Borda

Hegoaldean, berriz, **nafar** eta bizkaitar askok euskara batua Gipuzkoako hizkeratzat daukate. Koldo Zuazo

Espainolek eta **nafar** arnegatuek hurrengo urteko udaberriaren bukaeran jo zuten kontraerasoa. Aingeru Epaltza

Euskaraz ere polito ikasi duen **nafar** jatorra duk gainera. Txillardegi

Erdaldunak ziren, **nafarrak**, unibertsitateko giro ezkeriar espainolean haziak eta PCEtik pasatakoak edo haren altzoan ibiliak. Xabier Mendiguren Elizegi

3 nafar gorri (ardo)

Eta ekarri **nafar** gorri gehiago ere, hau amaitu egin da eta.Ordura arte **nafar gorriarekin** sorgortu samar egon banintzen ere, berehala suspertu nintzen eta itzulera haren xehetasunak galdetu. Xabier Mendiguren Elizegi

· **Gorri nafarra** eskatu dio euskaraz zerbitzari beltzaranari. Sonia Gonzalez

· (haizea) Ipar gorria gogoan izanik edo, **nafar gorria** ere deitu izan diote haize hotz horri. Pello Zabala

Ekialdeko ukitua duela, baina Pirinio eta Auñamendi elurtuetatik pasatutakoan, hozkirria eraginez datorrena, ahulago, horri Ipar ttikia deitu izan zaio, **nafar gorria** ere bai, Ipar gaiztoagoaren koloretik baduelako. Pello Zabala

4 nafar-lapurtera XX. mendearen erdialdean Iparraldean lapurtera eta behe-nafarrerarekin eratu zen literatura-euskalkia; lapurtera eta behe-nafarrera biltzen dituen euskalkia.

Gipuzkera, bizkaiera, nafarrera, **nafar-lapurtera**, zuberera... euskalkiak baino, eredu sozialak egon direla esango nuke. Iñigo Aranbarri

Gustave Flaubert, **nafar-lapurteraz**. Berria - Kultura

Ez baikenuen haatik, **nafar-lapurterazko** gure euskalkian, neholaz oraino ez gizakirik ez pertsonarik ez asmatu, ez onartu! Piarres Xarriton

"**Nafar-lapurteraren**" gramatika deitu zion Lafittek bereari, eta izen horixe begitantzen zait, neuri ere, herrialde bi horietan garatu den euskalkia izendatzeko egokiena.

Koldo Zuazo

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskara nafar (7); herri nafar (4); mendizale nafar (4); mendizale nafar bat (3)

nafar abertzale (6); nafar ateneoak (5); nafar gazteak (3); nafar gobernuak (10); nafar gobernuaren (5); nafar guztien interesak (4); nafar hegoa (3); nafar herritar (3); nafar herritar talde (3); nafar hizkuntza (3); nafar lapurtarra (8); nafar lapurteraz (5)

atzelari nafarra (3); behe nafarra (4); doktor nafarra (18); egoi martinez nafarra (5); erdilari nafarra (6); euskara nafarra (4); garcia acosta nafarra (3); goi nafarra (3); jokalarri nafarra (3); koldo gil nafarra (5); nafarra izan (6); patxi vila nafarra (3); talde nafarra (3)

arkitekto nafarrak (3); artista nafarrak (3); atezain nafarrak (3); atzelari nafarrak (3); aurrelari nafarrak (10); david latasa nafarrak (3); doktor nafarrak (16); egoi martinez nafarrak (6); erdilari nafarrak (9); garcia acosta nafarrak (3); irakasle nafarrak (3); jokalarri nafarrak (11); nafarrak irabazi (8); nafarrak irabazi du (3); nafarrak izan (9); nafarrak izan ziren (6); nafarrak izango (3); nafarrak izango dira (3); nafarrak nagusitu ziren (4)

nagusi nafarrak (4); nagusitu ziren nafarrak (10); patxi vila nafarrak (4); politikari nafarrak (8); sozialista nafarrak (3); talde nafarrak (11); taldeko nafarrak (3); txirindulari nafarrak (3)

aurrelari nafarraren (5); doktor nafarraren (9); errege nafarraren (3); idazle nafarraren (3); politikari nafarraren (4); talde nafarraren (4)

doktor nafarrari (4)

euskara nafarrean (5)

etorkizuna nafarrek erabakiko (5); galdu zuten nafarrek (6); hartuko dute nafarrek (3); ikasle nafarrek (3); irabazi zuten nafarrek (7); jokalarri nafarrek (5); jokatu dute nafarrek (5); lortu dituzte nafarrek (3); lortu zuten nafarrek (9); nafarrek erabaki (7); nafarrek erabakiko (11); nafarrek erabakiko dute (5); nafarrek erabakitze (3); nafarrek erabakitzen dutena (5); nafarrek irabazi (3); nafarrek nahi dutena (4); nafarroaren etorkizuna nafarrek (3)

euskal nafarren (3); nafarren ahotza (5); nafarren alde (8); nafarren arma nagusia (3); nafarren atea (3); nafarren aurka (6); nafarren aurkari (5); nafarren babesa (3); nafarren borondatea (10); nafarren borondatearen (4); nafarren erabaki eskubidea (3); nafarren erabakitze (3); nafarren esku (5); nafarren eskubideak (3); nafarren gehiengoaren (3); nafarren helburua (5); nafarren hizkuntza (3); nafarren interes (3); nafarren interesak (8); nafarren kontra (4); nafarren nahia (3); sozialista nafarren (5)

juan gorriti nafatar (3)

nafarkeria iz nafarrei dagokien egintza gaitzesgarria.

Nafarkeriak. Patziku Perurena

nafarrera 1 iz Nafarroako euskalkia.

Gipuzkera, bizkaiera, **nafarrera**, nafar-lapurtera, zuberera... euskalkiak baino, eredu sozialak egon direla esango nuke. Iñigo Aranbarri

Bizkaieraren eta **nafarreraren** arteko aldea handiagoa da gaztelaniaren eta katalanaren artean dagoena baino. Berria - Euskal Herria

Bizkaierak, gipuzkerak eta **nafarrerak** hiruna [euskaltzain oso] behar dute gutxienez. Berria - Kultura

2 behe-nafarrera Bonaparteren sailkapenean, batez ere Iparraldeko Nafarroan Lapurdiko ekialdean mintzatzen den euskalkia.

Bernardo Garro "Otxolua"k Barbieren ixtorio-mixterioak **behe nafarreratik** bizkaierara aldatu zituenean, *Ipuin-Mipuinak* izenburupean argitaratu zituen *Euzkadi* aldizkarian.

Iñaki Arranz

Euskalki guztiak jorratu zituen: gipuzkera, bizkaiera, goi-nafarrera, erronkariara, lapurtera, ekialdeko **behe-nafarrera**, zuberera eta mendebaldeko **behe-nafarreraren**

aditzen morfologiekkin liburuak argitaratu zituen. Berria - Kultura

3 *goi-nafarrera* Bonaparteren sailkapenean, batez ere Hegoaldeko Nafarroan mintzatzen den euskalkia.

Aezkeraz, esaterako, laurogei grabazio daude, baztaneraz ehun eta hemezortzi, **goi nafarreran** zazpiehun baino gehiago, zaraitzueraz hogeita hamar, eta Nafarroako gipuzkeraz, berriz, ehun eta laurogeita hamar. Berria - Kultura

"Arraioa!", pentsatu duzu, "nola bete daitekeen hainbeste folio hegoaldeko **goi nafarreraren** kontsonante frikariet buruz!". Jokin Muñoz

nafarreri *(orobat nafarrería g.er., naparreri g.er. eta nabarrería g.er.) 1 iz* eritasun kutsakorra, sukarra ematen duena, larruazalean zuloak uzten dituzten pikor batzuk eragiten dituena. ik **baztanga**.

Duela mende bat, gripea, **nafarrería**, elgorria eta kolera moduko gaitz infekziosoak ziren osasunaren etsaiak. Berria - Euskal Herria

Ea probintzia hartan bazegoen gaitzen bat zabaldurik, hala nola sukar-epidemiaren bat, edonolako sukar hilgarriak, **nafarrería** edo bestelako eritasunik. Jose Morales

Txima luzeak eta **nafarreriak** markatutako matrailak. Sonia Gonzalez

Berehala ezagutuko duk: bisaia **nabarreriak** pikardatua dik eta, mintzatu beharrean, marraka egiten dik, bildots baten gisara. Aingeru Epaltza

Ene seme gaixoa, **nafarreriak** harrapatu ez du ba! Patxi Zubizarreta

2 (hitz elkartuetan)

1518-1519: **Nafarrería** izurrite bat izan zen Kariben eta izurrite horren ondorioz bertako asko hil ziren. Berria - Gaiak

3 *nafarreri zuri* baztanga eroa.

Gizon gaztea asaldaturik zegoen, lehenago ez baitzuen inoiz korderik galdu, eta inoiz ez baitzioten **nafarreri zuria** eta lorautsak eragindako alergia txiki bat baino eritasun larriagorik diagnostikatu. Oskar Arana

nafarrería ik **nafarreri**.

nafartar ik **nafar**.

nafartarrista *iz* nafar erregionalista.

Anartean zenbaitek zioten {...} jendearen izpiritua hipotesi debaldetan galtzen zela, **Nafartarristek** berek bahitzen zutela Xanti edo Biarnoan edo Bretanian [...] eta egun batez berriz aterako zela Vianako printzeari bidea prestatzeko. Michel Oronoz

Eta mementoan zerbitzatzeko manera hobereana baitzen, euskaldun abertzaleen kontra diren errabiatu horietarik zen eta ez zuen bakerik, bereziki **Nafartarristen** jokia ongi zilatuturik eta azterturik. Michel Oronoz

nafartarsa *(Euskaltzaindiak desegokitzat jotzen du -(t)sa atzizkidun formak ugaltzea) iz* nafar emakumea.

Serorak, **nafartarsak** oro har, beti gurekin atsegino ezin. Txillardegi

nafartasun *iz* nafarra izateko nolakotasuna.

Oraingo honek Pedro Agererengana bihurtu du begitartea, tak, apezak bere **nafartasunaren** berri eman duelarik. Aingeru Epaltza

Agintarien **nafartasuna** «Nafarroako izaera euskaldunaren kontra eraikitakoa» dela kritikatu zuen Kasaresek. Berria - Euskal Herria

Gai horietan UPNK ez duela «**nafartasunaren** eskusibitatea» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Hemen ere, jazo aro eder bera balin badugu segurik, plaza mukurru beteko da, **nafartasuna** eta euskaltasuna goraki azalduz. Herria

Bankuak babesturiko jota-jaialdietara joaten da ozta-ozta, **nafartasunaren** bereizgarri delakoan, kirten halakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

nafarzale *izond* Nafarroaren zalea dena.

Nafarroako ezkerrentzat proiektua garatzea «abertzaleak, euskaltzaleak eta ezkerreko **nafarzaleak** gustura egoteko modukoa», eta, bestetik, ezkerren diskurtsoa berritzea, «mende honetako desafioei aurre egin ahal izateko». Berria - Euskal Herria

nafarzaletasun *iz* nafarzalea denaren nolakotasuna.

Ezker abertzalearen aurkaritzan sortutako koalizio horrek botoak kendu nahi dizkio Espainiaren aurrean duin eta tinko mantendu den **nafarzaletasunari**, eraso errepresibo berrietarako lurra prestatuz eta nafarren ahotsa Madrilera gortean isilik mantentzeko. Berria - Euskal Herria

nafta 1 *iz* isurkari koloregabea, hidrokarbuo arinez osatua, petrolioaren destilatzetik lortzen dena eta errekin edo urgari gisa erabiltzen dena.

Nafta likidozko geruza bat zen, Angarako uren gainazala hartzen zuena eta harekin batera zihoana. Karlos Zabala

Eztanda sor zakar bat eta lama gaizto bat eraginez izeki zen barrenean **nafta** hautsezatatzko txorrotada. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

-Etxenagusaren semea izan behar du, Joxerena ez, bestea, **nafta** -fabrikakoa. Josu Landa

Nafta biltegi batzuk lehertu zituzten ibaiaren eskuin hegian, Poshkavsk herriaren eta Irkutsken artean. Karlos Zabala

naftaleno *iz* bentzenoaren saileko hidrokarbuo (C₁₀H₈), zuria, gotorra eta usain sarkorrekoa, ikatzarriaren alkaternatik lortzen dena eta industrian hainbat erabilera dituena.

Izan ere, parafinarekin egiten diren kandelak erretzean ustez minbizi sortzaile diren estirenoa eta **naftalenoa** aineratzen dira, formaldehidoarekin batera. Berria - Gaiak

naftalina 1 *iz* etxean pipien kontra erabiltzen den naftalenoari ematen zaion izena.

Larruek, **naftalinak** eta jantziek isuritako usaina sudurzuloetan itsasaten zitzaion. Jopez de Arana
Doktorearen zortzi soingaineko aurkitu ziren, berri-berriak, **naftalinaz** barrubeteak. Juan Garzia
Trajea kutxaren sakonetik atera, **naftalinaz** astinduo eta atzera ere etxera eraman zuten. Bego Montorio

2 (hitz elkartuetan)

Hegal zabaleko kapelu bat, malba koloreko belusezkoa, **naftalina** -usaina zeriona. Jon Muñoz
Naftalina -usaina zuen, baita kaxa huts eta zetazko paperez beteriko armairuena ere. Lopez de Arana
Naftalina -usaineko jantzi arre bat tolestean ari zen Ellen. Lopez de Arana
Ikusi gabea neukan aulki dotore batean eseri nintzen, **naftalina** gustua zuen edari bat zurrupatuz. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
naftalina usaina (5)

naftenato iz azido naftenikoaren gatza.

Uleratzen zutenez, gaitz guztia ez zen kalterako gertatu: ezbeharrak agerian jarria zuen banadio **naftenatoaren** gaitasun berezi hura, eta handik aurrera zuzenean nahastuko zioten erretxinari, zeinahi ere bezerorentzat izan. Juan Garzia
Gutziz uste gabeko moduan, beren laboratorioko gnomoez zera aurkitu zutela, aitzakia emaniko sorta oneratu egiten zela 0,1 banadio **naftenato** gehituz gero. Juan Garzia

naftilamina (*corpusean naphthylamin eta naptimalina soilik*) iz konposatu kimikoa, alkohol eta eterrean urtzen diren kristal zuri pozoitsuak osatua.

Bada, beste Müller hark ere, ahantzi gabeko laboratoriorik, itzaropenez eta izulaborriz bete batean, "beta-Naptylamin" esaten zuen "beta-**Naphthylamin**" esan ordez. Juan Garzia
Lehenbizikoa, lan kontuez bakarrik ("**naftilamina**"ren dosiaz, hain zuzen); Juan Garzia

nagaika iz kosakoen zigor edo zartailu modukoa, laburra.

Ongixko zekien hori niretzat **nagaikarekin** jotzea baino makurragoa zela. Matías Múgica

nagi 1 izond/iz lanerako edo egin behar dituen gauzetarako gogorik izaten ez duena. ikalfer.

Osaba argalak, aldiz, emazte **nagi** bat zuen. Pello Lizarralde
Ez al zatoz errita egitera zeure seme **nagiari**, zeinak, odolaldi beroa huts egini, geroko gerora baitu uzten zure agindu larriaren ezinbesteari erantzutea? Juan Garzia
-Ez da nire egitekoa oiloez arduratzea -erantzun du Felixek, mutiko zurbil, **nagi** eta izuberak. Itziar Otegi
Bat -izugarri lodia, **nagia** eta soraioa bera- azpiko gona hutsean etorri zen. Jose Morales
Motela zen, baina ez **nagia**; bere erritmoa zorrotz kalkulatzeko zuten nonbait. Xabier Olarra
Nagiak gara hiztegiatan esanahien bila ibiltzeko, hori ere bai, eta horrek kalte besterik ez digu egiten. Jon Alonso
Ez zaitez ausarta izan adierazpenetan, ez eta **nagi** eta motel ere egintzetan. Elizen arteko biblia
Barkatzeko bizkor, haserretzeko **nagi**, buruz zorrotz, oroimenez azkar, arrazoituen zoli, aukera egiten zentzudun eta gauza guztietan tolesgabe. Askoren artean
Langilea agintari, **nagia** zerbitzari. Elizen arteko biblia
Nagiaren sabaia erraz eroriko, zabarraren etxean itaizur franko. Elizen arteko biblia
Langintza temati hartara kondenatuta zeuden **nagi** eta alfer guztiak ikusten zituen haietan. Josu Zabaleta
Nagi bati hankatik tira, loti hari zakua ken. Xabier Mendiguren Elizegi
Goizko lauretatik azak pilaturik dituen auzo jendetsutik, oilanda eta faisaiak zortziak arte esekitzen ez dituen auzo **nagi** aberatseraino. Karlos Zabala

2 irud/hed (mugimenduz eta kidekoetz)

Emakumearen ahots logaletuan, haren keinu **nagian**, ez zen bozkario arrastorik, ezta ustekaberik ere. Aingeru Epaltza
Eskuaren jestu **nagi** batekin. 'Aida! Piarres Aintziart
'esango zuen akuiludunak, idi beilegiek mugimendu **nagi** eta astunak egingo zituzten itsasbazerreko bidetik behera Ondarroarantz, eta Lekeitiorantz, eta Gernikarantz. Joseba Sarrionandia
Mugimendu **nagi** batean dabil maiz ibiltaria, non ez den kirolari ments eta masokista horietarik. Piarres Aintziart
Ibilaldi luzea eta **nagia**. Marzel Etxehandi
Zaldia beren kasa zebiltzan, burumakur, ibilera jarraitu eta **nagiaz**, eta are geldoagoaz aldapa zela eta. Karlos Zabala
Ohetik jaiki eta bere ibilera **nagiekin** biluzik apaingelara zihoanean ere desberdina iruditu zitzaidan, helduagoa, eginagoa. Joxean Agirre
Nire etxera bisitari datozen apurrek bederen dantza pauso **nagi** batzuk egin ohi dituzte gehienez, pozik daudela agertzeko edo. Joxean Agirre
Begieta itsatsi ilea zakur bustien moduan astindu ondoren hiru lau besakada **nagi** emanda berriro urpera jotzen genuelarik. Koldo Izagirre
Usoak ere nekez ari ziren egun berrira esnatzen, eta Chavarriren estatuaren inguruko lorategietan zebiltzan ibilaldi urdurian han eta hemen mokoka **nagian**. Josu Landa

3 (bestelakoetan)

Eta ni -pentsatu nuen neure artean- kinka zail honetan, eta hanka **nagi** motel honekin... Txillardegí
Josebak izarak gainetik kendu eta beso **nagi** batez oheko beste aldeaz aztertu zuen: bakarrik zegoen. Fernando Morillo
Buru argia zuen, ernea bezain **nagia**. Juan Garzia
Arratsaldeko oren **nagietan**. Anjel Lertxundi
Beldur naiz zahartzaro **nagia** ez ote zaigun lohadarretara zabalduko eta guregan dagoen bizi giltzak askatuko. Xabier Amuriza
Oroimena lozorro **nagian** datza eta ez du tematzen gogoak bizirik ikusi uste duen hura aspaldi bereganatu zuela heriotzak. Xabier Amuriza
Erne egon bedi, baita ere, atsegin **nagi** edo zabarrak egon ez dadin gustuen maitasunean, asko itsutzen baitira ahuldade honekin. Joan Mari Lekuona
Nekerik gabeko nagitasun **nagia** da lobelarrarena. Edorta Jimenez
Leku bat, gorputz pasionatuaren uda luzatzeko grina baten eta ahaztutaren lo luzetik iratzartze **nagi** baten artekoa. Oskar Arana
Erreka-laino **nagienak** esnatuz eta harrotuz. Pello Zabala
Pasatu al zain sustoa? -esaten dit ahots **nagiz**. Anjel Lertxundi
ik beherago 9. Askoren artean
-Nola? -galdetu zuen Draco Malfoyren ahots hotz eta **nagiak**. Iñaki Mendiguren
Goialdeko terraza lauana bi bandera mugitzen ziren haize **nagian**. Alberto Ladron Arana
Erridua xaretuek ozta-ozta uzten zituzten sartzera kaletik zetozen argi-izpi **nagi** batzuk. Iñaki Segurola

Lo-kuluxkaren ordu **nagi** haietan. Anjel Lertxundi

Arratsaldeko argi **nagia** ona dut burua argi doirantz hurbildu eta poesia-liburu bat zabaltzeko. Anjel Lertxundi

Gainera, berehala izaten da argi **nagi** eta txurixka alu batez agertzen hasten den eguna, hozkia ematen didana. Pako Aristi

Buruan inolako kezkarik ez dugun une alai eta **nagi** horietako baten erdian. Jose Morales

Elurra egiteko era **nagi** bat. Bernardo Atxaga

4 (hitz elkartuen bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hotzaren eta beldurraren eraginez dardarka zarenean, oihu egin behar duzu, sastakaiaz leihora aterarazi zugar bizi den jainko zarrastel barru-**nagi** bezain barre-eragile hori.

Harkaitz Cano

5 (adizlagun gisa; ik beherago 12)

Kale edota abenida dotoreetatik **nagi** paseatu bitartean. Bernardo Atxaga

Goizean, batera esnatu dira biak, oraindik elkarren besoetan endredatuta, **nagi** eta zoriontsu. Patxi Iturritegi

Nekez jaikitzen naiz, **nagi** janzen, damuz naiz irteten. Josu Zabaleta

Neskak buruari **nagi** eraginez erantzun dio, ezetz. Aingeru Epaltza

Gabiraiak **nagi** eragiten zieten hegotei, beren higidurekin airearen errea astundurik. Anjel Lertxundi

Nagi baitabil eguzkia egun hauetan, **nagi**. Pello Zabala

Ahots motel bat, hitzak **nagi** baina alai ahoskatzen zituena. Iñaki Mendiguren

6 (izen gisa) ik nagitasun.

Goizeko **nagi** goxoak ohean nindukala -jaikiko al, ez al?... -telefono-hotsa. Xabier Mendiguren Elizegi

Nagiak gainetik kentzeko beste abagune baten opari egin nahi diguk, orduan! Anjel Lertxundi

Oiloak kotara bezala erretiratzea gustatu izan zait beti, eta jaikitzeko **nagi** gutxi... Pello Zabala

Bestelako keinurik egin gabe, bere begiak **nagian** edo logalean urturik. Joseba Sarrionandia

Nagirik gabe jaiki zen. Anjel Lertxundi

Nekea zuten agian, asperra zuten agian, **nagia** zuten agian. Felipe Juaristi

Espirituaren **nagiak** jota, ikerketa filosofiko guztiak abandonatzeraino. Imanol Unzurrunzaga

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Materia ergela, bere **nagi**-soraioan etsai, giza ergeltasuna etsai den bezala, eta hura bezala bere burueskastasan pasiboaren kariaz indartsu. Juan Garzia

Ke-lainoan **nagi**-urtika, aho-zabalka. Iñaki Iñurrieta

• 8 iz arboletan bizi den ugaztuna, ile sarria eta luzea duena, oso nagiki mugitzen dena eta buruz behera adar batetik dilindan egoten dena (*Bradypus tridactylus*).

Animalien entziklopedia batean, **nagien** argazkiak ikusiak nituen; buruz behera zintzilik bizi dira zuhaitzetan, zeruari begira. Juan Kruz Igerabide

9 **nagiz** (-tzeko atzizkiaren eskuinean) *adlag*

Protestaka eta marmarka hasiko ginen gu orduan, klaserara itzultzeko **nagiz**. Xabier Mendiguren Elizegi

Apirilean goiz eder batez / goizik bainintzan atzarrri, / eta ohea uztelko **nagiz** / nindagola pentsalari... Pello Zabala

10 **hatz nagi** eskuko laugarren hatza, erdikoaren eta txikiaren artean dagoena.

Hatz nagiko urrezko eraztuna. Patxi Zubizarreta

Oharkabean bezala, ezker eskuko eriak eskuineko **hatz nagira** eraman nituen, ezkon-eraztuna ukitzeraino. Aingeru Epaltza

Artega eraman du zigarroa hautsontzira, **hatz nagiaz** tak kolpetxo eman ez errautsa botatzeko. Joseba Sarrionandia

Hilotzari eskuin eskuko **hatz nagia** falta zitzaion. Aingeru Epaltza

Eskuineko **hatz nagian** du kolpea. Berria - Kirola

11 **nagi-nagi adlag**

Lanpetuegi zebilen erantzuteko, plisti-plasta eta pafaka, burua uretan sartuta balu bezala puzka, uretan mugimendu biribilak eginez edota ur azala behatzekin **nagi-nagi** igurtziz. Koro Navarro

Nagi-nagi jarri zen erretzeko mahaitxoaren kontra, haren gainean esku bat ipinita, eta ispiluari begirada bat bota zion, gauzak nagusitasunez eta patxadaz hartzen dituenaren itxura zeukala baieztatzeko. Anton Garikano

Laztantxo arin batzuk egin zizkion mokoan eta hipogrifoak **nagi-nagi** begiak itxi zituen, hura atsegin balu bezala. Iñaki Mendiguren

12 **nagiak atera**

Anna altxatu eta **nagiak atera** zituen. Lopez de Arana

Besoak eta zangoak zabaldu zituen **nagiak ateratzeko**. Jon Muñoz

Nagiak atera nituen ohetik jaiki gabe. Joseba Sarrionandia

Ahozabalka, **nagiak ateratzen** ditu, ordenagailua itzali, langelatik irten eta logelara joaten da. Antton Olano

Nagiak ateratzen dituen katakumearen antzera. Fernando Morillo

Crookshanksek arin salto egin zuen saskitik, **nagiak atera**, aharrasuz egin eta Ronen belauzetara salto egin zuen. Iñaki Mendiguren

Tabernatik irten zenean hiria itzartzera zihoan, **nagiak ateratzen** ari zen gauaren azken itzalek, egunsentiaren estreinako argiek eta kutsadurak ehunduriko izara azpian.

Migel Angel Mintegi

Nagiak ateratzen ari da, oraindik ere, akzio merkatua. Berria - Ekonomia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

mugimendu nagi (3); **nagi nagi** (15)

eskuko hatz nagia (4); **hatz nagia** (7)

nagiak atera (32); **nagiak atera zituen** (10); **nagiak ateratzeko** (6); **nagiak ateratzen** (20); **nagiak ateratzen ari** (6); **nagiak jota** (3)

eskuko hatz nagian (4); **hatz nagian** (8)

nagikeria 1 iz nagitasun gaitzesgarria. ik alferkeria.

Asmo horren hazteak arrazoi asko izango zituen: batetik, noski, **nagikeria**, erosokeria, neurekoikeria (edo ezaugarri horiek atzizkiaren kutsu ezkorrik gabe: nagitasuna, erosotasuna, neurekoitasuna). Xabier Mendiguren Elizegi

Atzarrri naiz, gorputza **nagikeria** goxo batean hedatua, baina izpiritua erne. Piarres Aintziart

Nahi gabe, bere **nagikeriak** halako arrangura goibel, isil eta triste bat eragiten zion. Jose Morales

Iratzargailua jo zuelarik, loaren barne barne sakonean sartua nintzen: bakearen seinaleztat hartu nuen gorputzaren **nagikeria**. Piarres Aintziart

Hochedéren aurrean nire uko txiki guztiak, nire zabarkeriak, nire **nagikeriak**, denak itsusten dizkion nire buruari, eta guztien gainetik, halakorik bada, nire eszeptizismoak.

Josu Zabaleta

Harrokeriak hondamendia eta urduritasuna baizik ez dakar, eta **nagikeriak** porrota eta behar gorria, **nagikeria** gosearen ama baita. Elizen arteko biblia

Nagikeriak pentsamenduak hazten ditu, eta pentsamenduak arriskutsuak izan daitezke, bakarrik bizi den edonork berehala ulertuko duenez. Oskar Arana

Hegan joan ziren lurrenezko dieiak, tunelak beltzak ziren hegazti handien gorputz hutsak eta hegoen zarpak irudi, eta **nagikeriaz** hautsi ziren gero. Koro Navarro
Erakar gaitzazu zugana, aita santua, zure usain gozoen atzetik joan gaitezen, gogogabe txepel, **nagikeriaz** geldo eta zabarkeriaz erdi hilik ikusten gaituzunok. Askoren artean

Laurogeita Hamaseigarren Kalearen kantoian marinel batzuk, binakako edo hirunakako taldetan banaturik, **nagikerian** zebiltzan. Lopez de Arana

Gurasoen diruaren kontura **nagikerian** bizi izatea? Jon Arretxe

Leude baten **nagikeria** edo utzikieratik atera ezin zutena, apezpiku baten zelotik eta arreta ekiletik aterako zutela uste zuten. Iñaki Iñurrieta

2 (hitz elkartuetan)

Arduragabekeria, erosokeria, **nagikeria** eta ankerkeria ekintza nabarmena da. Berria - Euskal Herria

-Buru- **nagikeria** hutsez, sineskeriaz nahiz konplikazioen beldur morbosoz. Juan Garzia

nagiki *adlag* nagitasunez; nagikeriaz. ik nagiro.

Ez omen zion, bezero gehienekin egin ohi zuen bezala, bere aldakak **nagiki** mugituz ezer lizunik esan. Joxean Agirre

Isilik ematen zion edaten zaldiari, isilik uztartzen zuen, astiro eta **nagiki** mugitzen zen haren inguruan, urrats txiki eta zalantzakorrak eginez. Jose Morales

Metak eta azaoak **nagiki** edo bizkor egin, axola gutxi berari. Jose Morales

Kanpaiaren hotsa geldiro entzuten zen, **nagiki**. Lopez de Arana

-Nik ez dut nahi -esan zuen Jansonek, **nagiki**. Jose Morales

Artean banderak ikus zitezkeen, batzuk leihoetatik dilindan, beste batzuk **nagiki** ari ziren dantzan hagetan, iraileko haize gozoaren altzoon. Lopez de Arana

Orain, xendera, sasi eta zuhaitz mehe batzuen artean, lurpeko bide bat bezala **nagiki** doa, hemen ilun, hor argi. Piarres Aintziart

nagikiro *adlag* nagiki.

Eta zertan ote zen hura, galdetu zion bere buruari, zainbelarrak pintzelarekin **nagikiro** zirikatuz. Anton Garikano

nagiontzi *izond* adkor nagia.

San Inaziotan ia orduerdia izanen du goizetik atzeratua, eguzki **nagiontzi** horrek; goizetik baitu abiada hartua, eguneko minutu batez atzeratuz. Pello Zabala

nagiro *adlag* nagiki.

Mutila **nagiro** aldentzen da txakurren ondotik eta bere kideen ondora biltzen da. Oskar Arana

Artean bere baitan zeukan amiantoak irristagarri samar bilakatzen zuen masa, **nagiro** orekara, hormagune bat bezala. Juan Garzia

Molekula batzuek dipolo elektriko bat daramate beren baitan, hots, ipar orratz fiimiñoak bezala jokatzen dute eremu elektriko batean: orientatu egiten dira, batzuk **nagiroago** beste batzuk baino. Juan Garzia

nagitasun 1 *iz* anerako edo egin behar diren gauzetarako gogorik eza. iknagi 6; nagikeria.

Goizeko hotz honek eta bide bazterrean hedatua den izotzak, gaueko lo eskasak gorputz osoan ezarri didan **nagitasuna** harrotzen eta haiztzen didate. Piarres Aintziart

Zutitu egin zen kolpetik, eta bere **nagitasunetik** atera. Bernardo Atxaga

Geldiro mintzatzen zen, esaldiei xarma ematen zien halako **nagitasun** batez. Josu Zabaleta

Amaitzen ari zen igandearen **nagitasunaz** gozatzen zuen. Josu Zabaleta

Nagitasunak galarazten zion berarentzat interesa aspaldi galdua zuen gai bati berriz ere heltzea. Koro Navarro

Asmo horren ahazteak arrazoi asko izango zituen: batetik, noski, nagikeria, erosokeria, neurekoikeria (edo ezaugarri horietatik atzikiaren kutsu ezkorrik gabe: **nagitasuna**, erosotasuna, neurekoitasuna). Xabier Mendiguren Elizegi

Nagitasunez hartu zuen edontzia negozio gizon eta profesionalen konpainian, eta argitara jaso zuen. Koro Navarro

Nire aurrean, nolabaiteko **nagitasunez** paratua, ideia handi eta motel bat zegoen. Monika Etxebarria

2 (izenondoekin)

Horrekin batera beste sentsazio bat, guztiz kontrakoa, huts infinituarena, **nagitasun** barearena, [...] pausatzeko unea geroratuko lukeen hegazti erraldoi batek eman lezakeen bezalakoa. Jon Alonso

Arabia hitzaren silabek zeharkatzen zuten nire arimaren **nagitasun** gozo isila, eta sortaldeko lilura batez xarmatzen ninduten. Irene Aldasoro

Ezin jakin zer dagoen erabaki horren azpian, **nagitasun** intelektual zinez kezkarria ustez akademikoa den erakunde batean, ezjakintasun iraingarria, ezezagunarenganako gutxiespena edo itsukeria ideologiko eskandalagarria. Berria - Kultura

Nekerik gabeko **nagitasun** nagia da lobelarrarena, norbera baitan zabalduz eta zabalduz lihoakeen bake-haize leun eta laztanezko baten airekoa. Edorta Jimenez

3 (hitz elkartuetan)

Horrek ere neke, **nagitasun** eta makaltasun sentsazioa sortzen zidan. Fernando Rey

Inertzia kontua da, hein handi batean; erosotasun edo **nagitasun** kontua. Berria - Gaiak

nagitsu 1 *izond* nagitasunez betea.

Eta edonondik zuk egia zeniola jabeturik eta uste osoa zure egian nuelarik, ez neukan erantzutekorik hitz baldar eta **nagitsu** hauek baizik: berehala... berehalaxe... Imanol Unzurrunzaga

2 (adizlagun gisa)

Baina nik ezin dut honela iraua, ezer egin gabe, **nagitsu**, kaiolaturik. Agustin Otsoa

nagitu, nagi(tu), nagitzen 1 da/du *ad* nagi bihurtu.

Burua erabiltzen ez bada, **nagitu** egiten da. Pello Zabala

Ordu eta 20 minutu laburtuko da eguna 30 egun hauetan: goizetik 29 minutu **nagitzen** da eguzkia; arratsetik, berriz, 50 minutu azkartzen du bere erretiroa. Pello Zabala

Haizea sortutakoan **nagitzen** hasitako arratsaldeko argia indarberritu egin zen, mendien atzean ezkutatu beharri itzuri. Anjel Lertxundi

Lanaren -denbora betetzearen- kontzeptu klasiko horren arabera, aisia txarra da, espiritua **nagitzen** baitu bekaturako bidean jarriz. Anjel Lertxundi

Eguraldi gaiztoak, inurriak kikildu, koldarrak **nagitu** ... baloreduna, berriz, trebatu...! Pello Zabala

Pausoa **nagitu** zenuen. Koldo Izagirre

Elge bazterra apalago zuen tokietan irudi zuen ibaiaren sabela bezain **nagitzen** zela. Itxaro Borda
Azkenaldian fikziorako **<nagiturik>** badago ere, idazle emankorra izaten jarraitzen du Pako Aristik. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Telefonoaren beste aldean funtzionario **nagitu** batek hartzen du. Edorta Jimenez

Hurrengo lainoa agertu eta leiho paretik erabat desagertu arte ez naiz jaikiko" eta antzeko jokoak proposatzea nor bere buru **nagituari**. Harkaitz Cano

nagitzar *izond adkor* nagia.

Baina mendeak joan, mendeak etorri, lozorro luzean daude milioi erdi **nagitzar**, artaburu eta gibel-handi, eta Rusen bakanka jaiotzen dira hitz ahalguztidun hori esateko gai diren gizonak. Jose Morales

-Amarruzale hori, oraintxe erakutsiko diat nor den hemen azkarrena! -ziotsun Selifanek **nagitzarrari**, jarlekutik altxatuxe eta zigorrarekin joz-. Jose Morales

Ezer balio ez, ezertarako gauza ez, eta besteren bizkar bizi zen **nagitzar**... Iñaki Mendiguren

nagusi *(orobat nabusi g.er. eta nausi g.er.)* 1 iz etxe bateko jauna zerbitzariari buruz.

Ez da morroiak bi **nagusi** zerbitza ditzakeenik. Elizen arteko biblia

Romanian, **nagusi** baten zerbitzura zegoen greziar bat lapurretaz salatuta zuten faltsuki. Askoren artean

Haize mehe batek altxaturiko euli-eskuadriak airean hegaz sartzen dira etxera, ausart, hango **nagusiak** balira bezala. Jose Morales

Morroiak **nagusiaren** hamar kamelu hartu zituen. Jose Antonio Mujika

Nagusi nahiz morroi, etxeokandrea nahiz neskame, saltzaile nahiz erosle, mailegu-emaile nahiz hartzaile, hartzekodun nahiz zordun. Elizen arteko biblia

Suertez, **nagusi** -etxeokandrea maltso eta onak zituan. Daniel Landart

Selifan eta Petrushka izugarri poztu ziren **nagusi** jauna aske ikusi zutenean. Jose Morales

-Horixe, etxeko **nagusi** izatea gutxi balitz, etxeko **nagusiaren nagusi** dugu hemendik aurrera -jaulki zuen marmarka Honorinek. Josu Zabaleta

Jauna, nire **nagusi** Abrahamen Jainkoa, arren, aurki dezadala gaur bila nabilena. Elizen arteko biblia

Maiz, ordea, neskame-morroiak dira **nagusi** bakartiak hil dituztenak, diru-goseak zirikatu. Gotzon Garate

Eta ez dun modurik aurkitzen hire **nagusi** horri atzaparra botatzeko? Karlos Zabala

Jainkoaren etxeko **nagusi** ezarritako Seme bezala izan da fidagarri. Elizen arteko biblia

Itsasoko arrain edo **nagusi** gabeko narrasti bailiran darabiltzazu gizakumeak. Elizen arteko biblia

-Berorri ez zaio ezer gertatu, **nagusi** ? -galdetu zuten. Juan Garzia

-Igo, **nagusi** ! -hark, leihotik, erantzun-. Patxi Zubizarreta

-Oker eman diote berria, **nagusi**. Juan Garzia

Orduan konturatu zela Barbara bere erruki eza zela jauregiko **nagusi** gaztea heriotzara zeramana. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zakurrak beti maiteko du **nagusia**, **nagusiak** ongi hartzen badu. Gotzon Garate

2 zenbait erakunde edo talderen burua mendekoei buruz; lantegi edo kideko bateko jabea (ikugazaba); jauna edo jabea, aginpidea, lehentasuna edo gailentasuna duena.

Ene **nagusi** berria Sarre-ko gizon tipito bat zen, irri guti, lehenago "brigades internationales"-etan engaiatua. Marzel Etxehandi

Bidean gogoratu zitzaizkan laneko **nagusiari** telefonatu behar niola. Daniel Landart

Presondegiko **nagusiak** erran zien bakoitzak ehun makil ukaldi ukanen zituela bizkarrean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Charles Martelek ondo baino hobeto jakin zuen bere abileziak erabiltzen gorteko morroi **nagusi** izenda zezaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pepin elizgizonak babestuz bihurtu zen monarkiako **nagusi**; Karlos Martelek, haren semeak, haiek zanpatuz baizik ezin izan zuen iraun. Iñaki Iñurrieta

Agente komertzial, enpresetako **nagusi** eta burtsako bisitari guztiak, goizeko orduetan lokala betetzen zutenak [...]. Anton Garikano

Hilerriko langileen artean **nagusi** zirudienari. Aingeru Epaltza

Agureak bere begi itzaliak musika tresnatik jaso, eta Kirxa bistatu zuen, kafe etxeko **nagusi** luze, flakoxta eta goibela. Patxi Zubizarreta

Hoteleko **nagusi** batek, errukitu eta lana eman zion ontzi ikuzten. Gotzon Garate

Bulegoan **nagusia** genuen alu samarra. Harkaitz Cano

Bere bulegoko **nagusi** zital haiek oztupo asko jartzen zizkieten. Pello Lizarralde

Nagusi gogor baten eskuetan utziko ditut egiptoarrak, errege bihozgabe batek menperatuko ditu. Elizen arteko biblia

[Jainkoa] da **nagusi** bakar eta zorionsua, erregeen Erregea eta jaunen Jauna. Elizen arteko biblia

Gero, arrapaladan, Antiokiara itzuli zen; han, hiriko **nagusi** Filipino zela aurkitu zuen. Elizen arteko biblia

Nik, lurreko **nagusi** naizen honek, armak hartu eta erregearen alde egiteko agintzen dut. Elizen arteko biblia

Jaunak haien **nagusi** jarri nahi izan ninduenean, nik ere zin egin nuen haien aurrean eta Erregela azkeneraino gorde nahi dut. Askoren artean

Izan zaitez zeure senideen **nagusi**, makur daitezela zure aitzinean zure amaren semeak. Elizen arteko biblia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Samosvistov **nagusi**-iturak eginez azaldu zen: kargu hartu zien jagoleei arretarik gabe zaintzen zutelako, eta soldadu gehiago ipintzeko agindu zuen, zaintza sendotze aldera. Jose Morales

Ez bedi inor **nagusi**-karguaz jabetu. Askoren artean

Nagusi-karguaren irrikaz ez baina beldurrez zeudenek. Askoren artean

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Banku-**nagusiak** ez zion dirurik eman, ez aurrerabiderik eskaini, ez handik edo hemendik finantzabideak lortzeko itzaropenik piztu... J.M. Olaizola "Txiliku"

5 aingerukien hurrenkerako bederatzi taldeetako laugarreneko kidea.

Mikel, Gabriel eta Rafael dohatsuei eta espiritu dohatsuen talde guztiei: serafin, kerubin, ahalmen, **nagusi**, aginte, botere, indar, aingeru eta goiaingeruei. Askoren artean

6 (predikatu gisa)

Denbora hartan, aldiz, frantsesak zebiltzan inguru haietan **nagusi**... Joan Mari Irigoien

Aurrerantzean ez dizute Jakob deituko, Israel baizik, borroka egin baitzute Jainkoarekin eta gizakiekin, eta **nagusi** atera zara. Jose Antonio Mujika

Itzaropen horiek, [...] aski dudazkoak dira diruen arteko konkurrentziak **nagusi** jarraitzen duenean. Koro Navarro

Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza **nagusi** gertatu bazen, zenbaterik gehiago ez ote dira bakar batengatik, Jesu Kristogatik, nagusi izango betiko bizitzan Jainkoaren salbazioaren dohain oparoa hartzen dutenak! Elizen arteko biblia

Meza bukatutakoan, lehia borroka bihurtzen zen, eta hamar edo hamabost mutilek elkarri erasotzeari ekiten zioten ereinotz adarra lantza edo ezpata moduan erabiliz, nor **nagusi** geldituko. Bernardo Atxaga

Baia **nagusi** Euskal Herrian, baina ezak gaina hartu Biarnoan eta Landesetan. Herria

• 7 izond karguz eta kidekoen mintzatuz maila gorenekoa dena.

Priore **nagusi** bat dute buru eta haren agindu eta araudiak obeditzen dituzte begirunez menpeko prioreek eta Ordenako beste anai guztiak. Askoren artean

Gure Gotzain **Nagusi** Pio V. Aita Sainduaren eta Felipe II. Errege Goienaren aurrean. Piarres Xarriton

-Erreletoen ama **nagusia** gaixo bati bisita egitera doa -esan zuen mandatariaik sudurreko ahotsez. **Koro Navarro**

Polizi buru **nagusia** ezin du ziurtatu muga pasa duen ala ez. **Karlos Zabala**

Antioke erregeak Kendebeo izendatu zuen itsasertzeko gudaiburu **nagusi** . **Elizen arteko biblia**

Sarjentu **nagusi** bat, nire bizitzan ikusten nuen lehenengoa, urratsez urrats hurbildu zen erdialdera. **Mirentxu Larrañaga**

FBIren buru **nagusi** Edgar Hooverrek agente Laddy txostengileari egindako orrialde bakar bateko erantzunean argi dio; "Ernestek ez du FBI gogoko". **Edorta Jimenez**

Erregeak bere laguntzaile **nagusi** hura bidali zuen hiri-sarrera zaintzera. **Elizen arteko biblia**

Zeuk jarriko duzu kopa Faraoiaren eskuan ostera ere, Edarizain **Nagusi** zinen garaian egiten zenuen bezala. **Jose Antonio Mujika**

Noble gipuzkoarrak urte an-dana zituen Iruñean, Felipe II.a bere maiestate katolikoaren ordezkari **nagusi** Nafarroako Erresuman. **Aingeru Epaltza**

Moisesen biloba Xebuel zen altxor guztien arduradun **nagusi** . **Elizen arteko biblia**

Erresumako prokuradore **nagusi** Pedro Etxarten seme bigarrena. **Aingeru Epaltza**

Ustekabean deitzen dute polizia-etxetik, ikertzaile **nagusi** Esterhuyse-k deitzen du Port Elizabeth-etik. **Oskar Arana**

Alkimo apaiz **nagusi** izendatu zuen eta israeldarren mendekua egiteko agindu zion. **Elizen arteko biblia**

Komedia iduriko hark nihaur ninduen aktore **nagusi** , eta lagunak ikusle, unti gaineko eszenarioan. **Joan Mari Irigoien**

-Gertaera horietan guztietan ideiak izan ziren gidari **nagusi** , onerako nahiz txarrerako. **Iñaki Heras**

8 garrantziaren edo gorabeheraren arabera lehena dena. (etxe, bide eta kidekoez)

Espainiako ikerketa erakunde publiko gehienek Madrilen dute egoitza **nagusia** . **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Hoteleko areto **nagusia** dantzaleku bihurturik. **Anjel Lertxundi**

Sarrerako atari **nagusiaren** gainean garai bateko armari dotore eta ongi landua ikus zitekeen. **Aitor Arana**

Beheko gela **nagusian** hamabi koltxoi kaxkar jarri dituzte, eta hik ere horietako batean egin beharko duk lo. **Txillardeggi**

Abokatuak gutun labur bat utzi du Donsu Etxeko bulego **nagusian** . **Anjel Lertxundi**

Soineko beltzez jantzitako emakume batek jauzi egin du etxe **nagusi** bateko ezkaratz freskotik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Uztailak 4-Kanpamendu **nagusia** / ez dut idazteko gogorik ere. **Xabier Montoia**

Astebete egon nintzen kanpaleku **nagusian** , hogen oheko oihal-dendan. Hiri gotortu eta hiri **nagusi** guztiak xehatuko dituzue, fruta-arbolak ebakiko, iturburu guztiak itxiko eta lur landuak hondatuko harriz betez. **Harkaitz Cano**

Azkenean, bide **nagusi** aldetik, erreposki zetorren auto baten burrunba entzun nuen. **Daniel Landart**

Europako **autobide nagusia** deiturikoan barrena. **Berria - Kultura**

Errepide nagusian , Sequoia Parkeko bisitarien autoek piztuta zeramatzaten argiak. **Bernardo Atxaga**

Karrika **nagusi** luzea, etxe eta bereziki balkoi ederrak, arkuak eta Santa María elizaren arkitekura berezia bere hiru edo lau estiloekin. **Piarres Aintziart**

9 (bestelakoez)

Masta **nagusiaz** gainera, *Ánimas* karrakak, karraka denen legean, bazituen han beste masta bi. **Edorta Jimenez**

Aldare **nagusiaren** atzean [...] Ama Birjinaren kapera dago, isilez eta ilunez heze. **Karlos Zabala**

Émile Zolak bi obra **nagusi** utzi dizkigu. **Karlos Zabala**

Beste bi tomoak izango ziren obraren atal **nagusia** . **Jose Morales**

Ingelesen Gutun **Nagusiak** debekatu egiten du gerra izanez gero atzerriko merkatarien salerosgaiak bahitzea edo konfiskatzea, errepresaliengatik ez bada. **Iñaki Iñurrieta**

Gehienetan hiru erregai **nagusi** erabiltzen ditugu: karbohidratoa (azukrea eta almidioa duten janariak), gantza eta proteina. **Irene Aldasoro**

Amak garrantzia ematen ziolako egun **nagusi** hartan denok elkarrekin Villa Lecuanon bazkaltzeari. **Bernardo Atxaga**

Matematikako Sari **Nagusian** parte hartzeko asmoz. **Jon Muñoz**

Unión Artesanaren gidaritzapean, Danborrada **Nagusi** baterako deia egin zen. **Askoren artean**

Hinduismoaren erlijio **nagusi** postbudikoak filosofia budista kanporatu zutenean [...]. **Iñaki Mendiguren**

Herrialde horietan, gainera, enplegu osorako politikaren ardatz **nagusi** bihurtu izan da Ongizate Estatua. **Iñaki Heras**

Neurriaren aldekoen ustez, argumentu horietan bada akats **nagusi** bat: lehiakortasuna aitzakiaz erabiltzen dela. **Iñaki Heras**

Biziera pobrea ezaugarri **nagusi** duen bokazioaren lehen pausoa. **Askoren artean**

Bi dira egindako kritika **nagusiak** . **Askoren artean**

Hiru eragozpen **nagusi** ditu ordezeko piezen inguruko kirurgiak. **Irene Aldasoro**

Liburu Santuaren arabera, hauxe da **lege nagusia** : Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala; eta hori benetan betetzen baduzue, ondo baino hobeto. *ik beherago* 15.

Elizen arteko biblia

Bi irizpide **nagusi** erabili ditugu. **Askoren artean**

Era horretan estatuak nazioarteko merkatarien desira **nagusiari** erantzuten zion. **Koro Navarro**

Betiko babestuko edo salbatuko gaituen Talde armatu edo azken Helburu edo behin-betiko Estatua den "Beste" **nagusi** hori ez da existitzen. **Joseba Zulaika**

10 adinez lehena dena; adin gehiagokoa.

Gero, Rebekak bere seme **nagusi** Esauen arroparik dotoreenak hartu -etxolan gordeak zituenak- eta Jakobi, seme gazteari, jarri zizkion. **Jose Antonio Mujika**

Anaia **nagusi** Felixek eta arreba Ernestinak apenas altxatu duten burua erantzuterakoan. **Itziar Otegi**

Arrazoi zenuen, anaia **nagusi** . **Juan Kruz Igerabide**

Jacqueline, arreba **nagusia** , moja sartu zuan. **Jon Muñoz**

-Nik hegan egin nuen orduan; ikusi zenuen, ezta, arreba **nagusi** ? **Juan Kruz Igerabide**

Ederra da anaia **nagusi** bat edukitzea. **Juan Kruz Igerabide**

Artean ere maite nuela -Marisak begiak jaitsi zituen, mindurik-, baina ez bera bezala, ama edo arreba **nagusi** bat bezala baizik. **Juan Kruz Igerabide**

11 (adinez) heldua.

Gero, **nagusi** egiten zarenean, ez duzu zertaz gozaturik izango. **Josu Zabaleta**

Garatzeko bidean diren herrialdeetan neska askok izaten dute umea adinez **nagusi** egin aurretik. **Berria - Gaiak**

Pertsona **nagusi** normal batek segundoko 2,5 milioi globulu gorri berri sortzen ditu gutxi gorabehera. **Irene Aldasoro**

Ni Miss Cardewren tutorea naiz, eta bera ezin da nire baimenik gabe ezkondu adinez **nagusi** ez den artean. **Antton Olano**

12 biltzar nagusi

1995eko urriaren hastean, New Yorkeko Nazio Batuen **Biltzar Nagusian** eman zuen hitzaldi garrantzitsuan. **Piarres Xarriton**

Uztaritze ez zen gehiago eskualdeko erdigune politikoa izanen eta, **Biltzar Nagusia** , euskaldunen eskubideen babestokia, iraganeko oroitzen soila bilakatuko zen, ondoko belaulndirako ahantzia izanen zena. **Elena Touyarou**

Arabako **Biltzar Nagusiek** , PPreten eta PSE-EEren ekimenez, Larrialdietarako Gizarte Laguntzen finantzaketa aldatzea defendatuko dute Eusko Legebiltzarrean Garapen Kontseiluaren **biltzar nagusia** iraganen da bihar, zuzendaritzako grebalarrien galdez. **Berria - Ekonomia**

Abuztuaren bilduko da Nazioarteko Astronomia Batasunaren **biltzar nagusia** . **Berria - Gaiak**

Seigarren **Biltzar Nagusia** du ETAK. **Markos Zapiain**

Bere anaia iraintzen duena, **biltzar nagusian** kondenatua izango da, eta hitzez mintzen duena, infernuko sutara kondenatua izango da.

Apaizburuak eta **Biltzar Nagusi** osoa Jesusen kontra gezurrezko lekukotasun bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko. **Elizen arteko biblia**

13 *estatu nagusisup* 1 jeneral edo kideko bati atxikiriko ofizial multzoa, aginduak prestatzeko eta helarazteko helburua

duena; buruzagi baten baten multzoa.

Joan-etorrian aritu da autoz, **estatu nagusi** fantasma baten bila, dibisioko **estatu nagusiaren** bila, subdibisioko **estatu nagusiaren** bila... **Josu Zabaleta**

Adolfo Suarezek Armadako **Estatu Nagusiarekin** egin omen zuen aurreneko bilera, akordioaren mamiaren berri emateko. **Berria - Euskal Herria**

1989. eta 1993. urteak bitartean, berriz, [Collin Powell] **Estatu Nagusi** Bateratuko burua izan zen. **Berria - Mundua**

Une hartan bertan iritsi zen don Karlos Borboikoa, erregenahia, jeneral karlisten **estatu nagusiaz** eta Vendéeren aldeko zenbait frantsesez inguratua. **Koro Navarro**

Balak txistuka zebiltzala, brigadako **estatu nagusiak** oihanean bilatu zuen babesa. **Pablo Sastre**

Gero, halako batean, Peppone alderdikidea heldu zen bere **estatu nagusiaz** lagundurik. **Koldo Biguri**

14 Estatu Nagusisup_2 pl Frantzian, erregimen zaharreko legebiltzarra, hiru estatuak osatua.

Parisko Legebiltzarrean (**Estatu Nagusiak** 1139 ordezkariak hiru mailatan zeuden banaturik: Jauntxoek 270 ordezkari zituzten, Elizak 291 eta Herriak 578. Azken horien artean zeuden Garatarrak. **Askoren artean**

15 lege-nagusi (orobat Lege Nagusi) konstituzioa.

Hotela konstituzioaren kontrakoa dela ere esan du Piero Pazzik: Italiako **lege nagusiaren** bederatzigarren artikulua hirietako itxura ona babesten du; hotelak, aldiz, hondatzen. **Anjel Lertxundi**

Hortarako, kanbiatu behar dela frantses **lege-nagusiko** bigarren artikulua edo berdin **lege-nagusi** hortan sartu Espainiakoak daukan hirugarrena, erran nahi baita euskara eta gisa bereko mintzaira guzien ezagupen osoa. **Herria**

Ingurumena, beraz, sartua da hemendik goiti frantses **Lege Nagusian**. **Herria**

Beharrik hor dugu errepublikaren **lege-nagusia**, beharrez bikain gerizatuko gituena bere bigarren artikulua balios horrekin... Errana izan zauku, eta oraino usu aditzen da hori, Europa batuaren **lege-nagusia** dugula onartu behar, onartu edo bestenez baztertu. **Herria**

16 nagusi egin ik nagusitu.

Lasaitasuna **nagusi egin** zen eta denak zeuden Fionni aho zabalik begira, honek, oraindik zorabiatuta, zutitzeko ahaleginak egiten zituen bitartean. **Joanes Urkixo**

Bizikleta haien eskuetan utzirik, eta almendra adar bat bakarrik zuela, hura ezpainetan harturik, giroaz **nagusi egiteko** asmoz abiatu zen segituan. **Josu Zabaleta**

Une horietan, balada sentikorrek **nagusi egiten** direnean, [...]. **Berria - Kultura**

(-en atzikiaren eskuinean) -Hara, hire **nagusi egin** diat eta senide guztiak haren zerbitzari egin ditiat. **Jose Antonio Mujika**

Begiradaren **nagusi egiten** dira, eurek agintzen dute horretarako propio sortutako espazio mugikorrean. **Berria - Kultura**

Zure menpe utzi ditu gizon-emakumeak, piztiak eta hegaztiak, nonahi bizi direla ere; guztien **nagusi egin** zaitu. **Elizen arteko biblia**

Ohitu da dagoeneko hango bizimodura, eta antzinakoena bera denez, bertako **nagusi egin** da. **Eskarne Mujika**

17 nagusi egon

Baina egia hauxe duk: Euskal Herrian jadanik gu **nagusi gaudela**! ez ditek irabazi, eta irabaziko ere ez. **Txillardegi**

Bera gazte zela, beraz, irlan espainolak **nagusi zeuden**; haien ohiturak, haien jolasak ekartzen ditu, poliki-poliki, gogora. **Pablo Sastre**

Parajeotan mendeetan **nagusi egon** den pentsamendu tradizional arkaikoa galduz doanean. **Joxe Azurmendi**

Futboleant, Aviron-tarrak **nagusi egon** dira beren zelaian, 550 behariren aitzinean, Arin-eko Donibandarren kontra (2/1). **Herria**

Argi era garbi erakutsi dute Hego-Afrikarrek nahi zutela **nagusi egon** beren etxean: 27 eta 13. **Herria**

Nagusi daude, baina eman dituzten lanak Txillidari eginiko opari dira. **Berria - Kultura**

18 nagusi izan da ad

Portugaldirak eta gaztelarrak Ekialdeko Indietan **nagusi zirenean**. **Iñaki Iñurrieta**

Itsasoan **nagusi** izatea **zen**, hain zuzen ere, [...] koloniekiko merkataritzaren nagusitasunaren giltzarria. **Koro Navarro**

Erabat kritikagarria da, beraz, ekonomiaren inguruan **nagusi den** determinismoa. **Iñaki Heras**

Europa ekialdean, joputasuna **zen** oraindik **nagusi**, Erdi Arokoa baino basatiagoa gainera. **Koro Navarro**

Gela hutsik zegoen; lasaitasuna **nagusi zen** bertan. **Lopez de Arana**

Zirinen zakartasun alkalinoa **zen nagusi**. **Karlos Zabala**

Gainerako bizidunek haienganako beldurra izatea nahi izan zuen, basapiztia eta hegaztien **nagusi** izan **zitezen**. **Elizen arteko biblia**

Heriotzaren **nagusi den** deabrua heriotzaren bitartez indargabetzeko. **Elizen arteko biblia**

Honela, berdintasuna izango da **nagusi**. **Elizen arteko biblia**

Gezurra da **nagusi** herrialdean, eta ez egia. **Elizen arteko biblia**

Beste ortodoxia bat dela gaur egun **nagusi**. **Iñaki Heras**

Kalean ezpatak kenduko dizkie seme-alabak, etxe barruan ikara **izango nagusi**. **Elizen arteko biblia**

Kristoren bakea **izan bedi nagusi** zuen bihotzetan. **Elizen arteko biblia**

Hemen ni **nauk nagusi**! **Gotzon Garate**

Ai zuek, ardoa edaten **nagusi**, edariak nahasten txapeldun **zaretenok**. **Elizen arteko biblia**

Mendebala eta ipar-mendebala ohi **baitira nagusi** neguaren bihotzean. **Pello Zabala**

19 nagusi izan du ad

Galdutako dute Loire/Atlantique departamendua (Nantes hiri **nagusi duena**) Britainiako lurraldeari lotua izan dadin. **Herria**

Bi ikusmolde horiek **ditut nagusi**. **Joan Mari Irigoien**

Jauna, gure Jainkoa, zu ez beste jaunak izan **ditugu nagusi**, baina zu, zu bakarrik, nahi zaitugu aitortu. **Elizen arteko biblia**

Probokazioei ez ihardesteko galdatu dizue bidaiarako **nagusi duzuen** lotinantak. **Xabier Montoia**

Esklabook, izan mundu honetan **nagusi dituzuenen** esaneko, erabateko begirunez eta bihotz-bihotzez, Kristoren esaneko bezala. **Elizen arteko biblia**

Zeuen **nagusi banauzue**, non da zor didazuen begirunea? **Elizen arteko biblia**

20 nagusi-magusi

Hizlariak eten behar izan zuen bere jarduna eta bere atzeko palkoan zeuden herriko **nagusi-magusiengana** biratu zen. **Koldo Biguri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

adinez nagusi (10); **ahaldun nagusi** (75); **aktore nagusi** (12); **akziodun nagusi** (9); **alderdi nagusi** (10); **alderdiko idazkari nagusi** (21); **alderdiko koordinatzaile nagusi** (14); **anaia nagusi** (129); **anaia nagusi felixek** (56); **apaiz nagusi** (38); **arabako ahaldun nagusi** (16); **aralarreko koordinatzaile nagusi** (20); **arazo nagusi** (17); **ardatz nagusi** (52); **arduradun nagusi** (38); **argudio nagusi** (9); **arrazoi nagusi** (41); **arriba nagusi** (17); **atal nagusi** (15); **aurkari nagusi** (20)

batzar nagusi (11); **berdeetako koordinatzaile nagusi** (12); **bi arrazoi nagusi** (20); **bi ezaugarri nagusi** (9); **bi helburu nagusi** (23); **bide nagusi** (11); **biltzar nagusi** (110); **biltzar nagusi bat** (24); **bizkaiko ahaldun nagusi** (16); **buruzagi nagusi** (31)

ccooko idazkari nagusi (10); **ciuko idazkari nagusi** (10); **diputatu nagusi** (30)

eako idazkari nagusi (20); **eeko idazkari nagusi** (91); **egun nagusi** (14); **elako idazkari nagusi** (18); **erakundeko idazkari nagusi** (76); **ercko idazkari nagusi** (18); **erlijio nagusi** (50); **erreferentzia nagusi** (15); **erronka nagusi** (13); **eskaera nagusi** (10); **estatuko fiskal nagusi** (15); **etxeko nagusi** (19); **ezaugarri nagusi** (34)

faborito nagusi (21); **fiskal nagusi** (51)

gai nagusi (74); **gazteak nagusi** (9); **gipuzkoako ahaldun nagusi** (28); **gipuzkoako idazkari nagusi** (16); **gune nagusi** (12)

hautagai nagusi (11); **helburu nagusi** (98); **hiri nagusi** (18); **hiru ardatz nagusi** (14); **hiru arrazoi nagusi** (9); **hiru gai nagusi** (9); **hiru helburu nagusi** (13); **hizpide nagusi** (26)

idazkari nagusi (806); **ideia nagusi** (18); **ildo nagusi** (16); **isiltasuna nagusi** (15); **isiltasuna zen nagusi** (13); **iturri nagusi** (18); **iuko koordinatzaile nagusi** (21); **izan da nagusi** (33); **izan dira nagusi** (17); **izan zen nagusi** (86); **izan ziren nagusi** (42); **izango da nagusi** (15); **izango dira nagusi** (22)

kale nagusi (9); **kezka nagusi** (15); **kontseilari nagusi** (45); **kontseiluko idazkari nagusi** (29); **koordinatzaile nagusi** (103)

labeko idazkari nagusi (26); lege nagusi (73); lege nagusi bat (10)
merkatu nagusi (10); meza nagusi (34); mezu nagusi (12)
nagusi atera (21); nagusi bakarra (13); nagusi da (67); nagusi daude (25); nagusi dira (44); nagusi egon (9); nagusi izan (234); nagusi izan zen (56); nagusi izan ziren (37);
nagusi izandako (12); nagusi izanen (15); nagusi izango (70); nagusi izatea (23); nagusi izateko (18); nagusi izaten (18); nagusi izatera (9); nagusi izendatu (22);
nagusi jauna (25); nagusi zen (98); nagusi ziren (53)
natoko idazkari nagusi (11); nbeko idazkari nagusi (58); nire nagusi (25)
oinarri nagusi (21); ondorio nagusi (28); ondorio nagusi atera (9); ondorio nagusi bat (9); ordezkari nagusi (17); osagai nagusi (10)
pertsonaia nagusi (15); politiko nagusi (9); ppko idazkari nagusi (40); protagonista nagusi (22); psnko idazkari nagusi (27); psoeko idazkari nagusi (9); puntu nagusi (13)
sari nagusi (16); seme nagusi (11); sindikatuko idazkari nagusi (19)
xede nagusi (16)
zati nagusi (9); zutabe nagusi (21); zuzendari nagusi (102)
agintari nagusia (10); ahaldu nagusia (40); aktore nagusia (18); akziodun nagusia (19); aldaketa nagusia (17); alde nagusia (15); alderdi nagusia (36); ama nagusia (12);
anaia nagusia (17); antso nagusia (12); apaiz nagusia (33); apaizgo nagusia (9); arazo nagusia (101); ardatz nagusia (68); ardura nagusia (52); arduradun nagusia
(38); areto nagusia (13); argudio nagusia (32); arma nagusia (44); arrangura nagusia (9); arrazoi nagusia (135); arrazoi nagusia da (10); arrisku nagusia (9); asmo
nagusia (18); aste nagusia (39); atal nagusia (10); ate nagusia (42); aurkari nagusia (35); auzi nagusia (10); auzitegi nagusia (15)
bablesle nagusia (9); baldintza nagusia (9); batasunaren biltzar nagusia (10); batzar nagusia (69); bere nagusia (39); berezitasun nagusia (10); berrikuntza nagusia (16);
berritasun nagusia (19); bertute nagusia (10); bide nagusia (33); bilboko aste nagusia (16); biltzar nagusia (460); biltzar nagusia egin (49); biltzar nagusia eginen
(45); biltzar nagusia iragan (15); biltzar nagusia iraganen (17); bultzatzaile nagusia (18); buruzagi nagusia (19)
diputatu nagusia (19); diru iturri nagusia (10); dohain nagusia (14)
eeko idazkari nagusia (25); eginkizun nagusia (22); egiteko nagusia (30); egoitza nagusia (68); egun nagusia (15); eguneko ekitaldi nagusia (10); ekitaldi nagusia (66);
elako idazkari nagusia (9); elkartearen biltzar nagusia (31); ene nagusia (9); eragile nagusia (33); erakundearen biltzar nagusia (11); erakusketa nagusia (12);
erantzukizun nagusia (10); erantzule nagusia (30); erreferentzia nagusia (30); errepide nagusia (25); erronka nagusia (70); errudun nagusia (9); estatuko fiskal
nagusia (9); estrategia nagusia (9); etapa nagusia (12); etxeko nagusia (41); ezaugarri nagusia (108); eztabaidea nagusia (9); eztabaidagai nagusia (14)
faborito nagusia (82); fiskal nagusia (17)
gai nagusia (98); gaitz nagusia (11); galdera nagusia (19); gehiengo nagusia (10); gipuzkoako ahaldu nagusia (19); goleatzaile nagusia (34); goleatzaile nagusia izan
(9); golegile nagusia (30); gorputz nagusia (11); gune nagusia (36); gure helburu nagusia (19)
hari nagusia (11); hautagai nagusia (58); helburu nagusia (416); helburu nagusia da (12); heriotza kausa nagusia (9); hiri nagusia (34); hitzordu nagusia (35); hizpide
nagusia (10)
idazkari nagusia (295); idazkari nagusia da (16); idazkari nagusia izan (14); ideia nagusia (26); ikur nagusia (12); ildo nagusia (17); indar nagusia (15); irabazteko faborito
nagusia (26); irabazteko hautagai nagusia (17); irizpide nagusia (20); iturri nagusia (53); izar nagusia (11)
joera nagusia (11); jokaturako partida nagusia (17); jomuga nagusia (10)
kale nagusia (34); kanpamendu nagusia (16); karrika nagusia (11); kausa nagusia (22); kezka nagusia (87); kontseilari nagusia (24); kontseilu nagusia (45); kontseiluko
idazkari nagusia (17); koordinatzaile nagusia (36)
labeko idazkari nagusia (16); lan nagusia (18); lege nagusia (59); lehentasun nagusia (11); lehiaketa nagusia (11); lelo nagusia (14); lema nagusia (12)
maila nagusia (22); masta nagusia (10); merkatu nagusia (13); meza nagusia (206); mezu nagusia (33)
nbeko idazkari nagusia (9); nire nagusia (32)
obra nagusia (16); oinarri nagusia (20); ondorio nagusia (26); ordezkari nagusia (22); osagai nagusia (23); oztopo nagusia (39)
parte nagusia (14); partida nagusia (53); pertsonaia nagusia (67); plan nagusia (15); plaza nagusia (14); politiko nagusia (23); proba nagusia (9); protagonista nagusia
(62)
rol nagusia (13); sailkapen nagusia (56); sari nagusia (237); sari nagusia irabazi (18); sari nagusia jokaturako (11); seme nagusia (15); sindikatuko idazkari nagusia (9);
sustatzailer nagusia (16)
talde nagusia (21); taldeko golegile nagusia (15); tesi nagusia (11); tresna nagusia (17)
txantoi nagusia (10); txapelketa nagusia (37)
urteko biltzar nagusia (55)
xapelketa nagusia (19); xede nagusia (63); zati nagusia (14); zeregin nagusia (43); zutabe nagusia (14); zuzendari nagusia (42); zuzendaritza nagusia (10)
ahaldun nagusiak (92); aiatola nagusiak (15); aktore nagusiak (22); akziodun nagusiak (12); aldarrikapen nagusiak (14); alderdi nagusiak (36); ama nagusiak (12); anaia
nagusiak (17); annan idazkari nagusiak (9); apaiz nagusiak (39); arabako ahaldu nagusiak (16); aralarreko koordinatzaile nagusiak (10); arazo nagusiak (38); ardatz
nagusiak (61); arduradun nagusiak (28); argudio nagusiak (12); arrazoi nagusiak (33); atal nagusiak (20); aurkari nagusiak (25); auzitegi nagusiak (197)
batzar nagusiak (62); batzorde nagusiak (15); bekatu nagusiak (22); bere nagusiak (18); bide nagusiak (11); biktima nagusiak (13); biltzar nagusiak (35); bizkaiko ahaldu
nagusiak (15); bultzatzaile nagusiak (16); buru nagusiak (15); buruzagi nagusiak (15)
datu nagusiak (9); diputatu nagusiak (30)
eaeko auzitegi nagusiak (90); eako idazkari nagusiak (13); eeko idazkari nagusiak (102); ekitaldi nagusiak (10); elako idazkari nagusiak (40); enpresa nagusiak (10);
eragile nagusiak (20); erakunde idazkari nagusiak (31); erantzule nagusiak (20); ercko idazkari nagusiak (14); erlijio nagusiak (22); errepide nagusiak (13); erronka
nagusiak (18); esakune nagusiak (9); estatu nagusiak (14); estatuko fiskal nagusiak (29); etxeko nagusiak (36); ezaugarri nagusiak (57)
faborito nagusiak (29); fiskal nagusiak (89); fiskaltza nagusiak (18)
gai nagusiak (41); gako nagusiak (12); gipuzkoako ahaldu nagusiak (27); gipuzkoako batzar nagusiak (11); gipuzkoako diputatu nagusiak (17); golegile nagusiak (9);
gune nagusiak (11)
hautagai nagusiak (39); helburu nagusiak (74); hiri nagusiak (9)
idazkari nagusiak (682); idazkari nagusiak adierazi (12); idazkari nagusiak esan (12); ideia nagusiak (11); ildo nagusiak (56); irizpide nagusiak (18); iturri nagusiak (11);
iuko koordinatzaile nagusiak (16); izar nagusiak (9)
joera nagusiak (9); justizia auzitegi nagusiak (51)
kale nagusiak (24); karabinero nagusiak (10); kezka nagusiak (17); kontseilari nagusiak (36); kontseilu nagusiak (132); kontseiluko idazkari nagusiak (32); koordinatzaile
nagusiak (75)
labeko idazkari nagusiak (59); lege nagusiak (18); nafarroako auzitegi nagusiak (11)
nbeko idazkari nagusiak (33); nire nagusiak (26); nondik norako nagusiak (12)
obra nagusiak (11); oinarri nagusiak (10); ondorio nagusiak (29); oposizioko alderdi nagusiak (12); ordezkari nagusiak (27); osagai nagusiak (15)
pertsonaia nagusiak (36); politiko nagusiak (9); ppko idazkari nagusiak (36); protagonista nagusiak (40); psnko idazkari nagusiak (20); psoeko idazkari nagusiak (13);
puntu nagusiak (20)
sari nagusiak (30); sindikatu nagusiak (9); sindikatuko idazkari nagusiak (20); sintoma nagusiak (9); sistani aiatola nagusiak (11)
talde nagusiak (19); txapelketa nagusiak (9)
xede nagusiak (11)
zazpi bekatu nagusiak (19); zuzendari nagusiak (109); zuzendaritza nagusiak (32)
areto nagusiak (46); aste nagusiak (50); ate nagusiak (12); auzitegi nagusiak (63); auzitegi nagusiak deklaratu (10); batzar nagusiak (67); bide nagusiak (14); bilboko
aste nagusiak (16); biltzar nagusiak (124); bulego nagusiak (12)
eaeko auzitegi nagusiak (42); egoitza nagusiak (33); eliza nagusiak (9); errepide nagusiak (18); errepide sare nagusiak (10); gela nagusiak (17); hiri nagusiak (43);
horma nagusiak (13)
jaialdiko partida nagusiak (17); justizia auzitegi nagusiak (9); kale nagusiak (84); karrika nagusiak (22); kontseilu nagusiak (36); lehiaketa nagusiak (10); maila nagusiak
(87); masta nagusiak (10); meza nagusiak (47)
partida nagusiak (68); plaza nagusiak (45); sailkapen nagusiak (159); sailkapen nagusiak ez (10); sare nagusiak (14); sari nagusiak (97); sarrera nagusiak (11); tropel
nagusiak (9); txapelketa nagusiak (47)
xapelgo nagusiak (18); zortziko nagusiak (25); zuzendaritza nagusiak (10)
idazkari nagusiarekin (22); kontseilu nagusiarekin (9); talde nagusiarekin (15)
ahaldun nagusiaren (24); aiatola nagusiaren (13); aldare nagusiaren (9); antso nagusiaren (10); apaiz nagusiaren (31); aste nagusiaren (12); ate nagusiaren (23); auzitegi
nagusiaren (45)
batzar nagusiaren (10); bere nagusiaren (45); biltzar nagusiaren (52)
eaeko auzitegi nagusiaren (17); eeko idazkari nagusiaren (21); egoitza nagusiaren (15); estatuko fiskal nagusiaren (10); etxeko nagusiaren (10)
fiskal nagusiaren (25)
idazkari nagusiaren (141); idazkari nagusiaren arabera (20); idazkari nagusiaren esanetan (15); idazkari nagusiaren hitzetan (13); idazkari nagusiaren ustez (21)
justizia auzitegi nagusiaren (13); kontseilari nagusiaren (11); kontseilu nagusiaren (68); koordinatzaile nagusiaren (14)
labeko idazkari nagusiaren (10); lege nagusiaren (23)
merkatu nagusiaren (21); meza nagusiaren (11)

nagusiaren alaba (9)
pertsonaia nagusiaren (17)
sari nagusiaren (15); **sistani aiatola nagusiaren** (10)
talde nagusiaren (10)
txapelketa nagusiaren (17); **xapelgo nagusiaren** (23); **xapelgo nagusiaren kondu** (9); **xapelketa nagusiaren** (9)
zuzendari nagusiaren (19); **zuzendaritza nagusiaren** (9)
apaiz nagusiari (16); **auzitegi nagusiari** (15); **bere nagusiari** (24); **eaeko auzitegi nagusiari** (9); **etxeko nagusiari** (13); **fiskal nagusiari** (11); **fiskaltza nagusiari** (11); **idazkari nagusiari** (35); **kontseilu nagusiari** (16); **lege nagusiari** (11); **nire nagusiari** (18)

nagusialdi *iz* zerbait edo norbait nagusi den aldia.

Egunero tenpluan zuekin nintzen, eta ez zenidaten eskurik bota; baina oraintxe da zuen ordua, ilunpearen **nagusialdia**. **Elizen arteko biblia**

nagusiarazi, nagusiaraz, nagusiarazten (*orobat **nausiarazi***) du *ad* nagusitzera behartu.

Nolabaiteko aukera irabazteko, bere ideiak **nagusiarazteko**, arerioak oinperatzeko. **Juan Garzia**
Politika gizona ere izan zen, eta ez nola nahikoa: 1848 ko iraültzan, Errepublikaren alderdia **nausiarazi** zūan Baionan, bortizkeriarik gabe. **Herria**
Itzelak dira, gainera, zenbaiten depresioak Institutuetan eta Lizeoetan, **nagusiarazitako** irudi hori ez bezalakoegi ikusten baitute beren burua. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gure jokoa **nagusiarazten** badugu, ordainekoa emango diegu, han nahiko ongi irabazi baitziguten. **Berria - Kirola**
Honek totalitarismoaren logika **nagusiarazten** du demokraziaren izenean. **Joseba Zulaika**

nagusigo (*105 agerraldi, 28 liburu eta 19 artikulutan; orobat **nausigo g.er.***) 1 *iz* nagusitasuna.

Inperioak bere **nagusigoa** galdu zuenean, borroka sortu zen Asisko hiritarren artean. **Askoren artean**
Microsoften **nagusigoa** kolokan. **Berria - Ekonomia**
Printzeak menekoekiko duen **nagusigoa**. **Esteban Antxustegi**
Min egiten digu erdaren **nagusigo** larderiatuak. **Juan Luis Zabala**
Haren **nagusigoa** gailenago iruditzen zitzaigun hilda zegoen honetan. **Josu Zabaleta**
Garai hartan erabateko **nagusigoa** zuen Kaikuk, Txirri patroï handiaren agindupean. **Berria - Kirola**
Hasieran Metafisikaren **nagusigoa** despotikoa zen dogmatikoen eskumendean. **Ibon Uribarri**
Horrela, argi-argi ikusi zuten denek Jainkoaren **nagusigoa**. **Elizen arteko biblia**
Burua berotzen ari zitzaidan, eta neure buruaren **nagusigoa** hain nuen galdua, non une hura baliatzeko tentatua izan bainintzen. **Jon Muñoz**
Sokratosen **nagusigoak**, bestalde, ezkutatu egiten du, batzuetan, bere garaian izugarriko garrantzia izan zuen eskola sofistikoak. **Askoren artean**
Ez zait bere jarrera **nagusigozkoa** gustatu. **Anjel Lertxundi**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ospe-asmoz beteta, Atenas, bere eragina handitu ordez bekaizkeria handiagotzen zuelarik, bere itsas **nagusigoa** zabaltzeaz bertatik gozatzeari baino arduratuago zelarik [...]. **Iñaki Iñurrieta**
Nire jendeak egin ohi dituen kontuen arabera, oraindik ume bat besterik ez naiz, eta "adin **nagusigora**", eskualdean diogun bezala, heltzeko lau urte falta zaizkit. **Agustin Osoa**
Kristok ere ez zion berak eman bere buruari apaiz **nagusigoaren** ospea, Jainkoak baizik. **Elizen arteko biblia**
Eta ezin du inork apaiz **nagusigoaren** ohorea beretzat hartu, Jainkoak dei eginek ez bada, Aaronek bezala. **Elizen arteko biblia**
Egiptoar mamelukoen esklabo- **nagusigoan**. **Iñaki Mendiguren**

nagusikeria 1 *iz* nagusitasun gaitzesgarria.

Konturatu ahal izan ginen, bai, **nagusikeriak** jo eta harropuztuta zegoela, distiratsu agertzeraino. **Mirentxu Larrañaga**
Autoritarismo eta **nagusikeria** guztien erro-errotiko arbuioa, individualismo ezin garaituzko bat, formalismoen eta zurrunkerien gaitzespen sakona, epelak eta txepelak ezin jasan ia fisiologiko bat... **Xabier Mendiguren Elizegi**
Gure buruak identifikatzeko agindu zigun bertan guardia egiten ari zen soldaduak, militar graduazio gabeek hasiberriekin erakutsi ohi duten **nagusikeriaz**. **Anjel Lertxundi**
«Negoziazioak zapuztea eta **nagusikeriaz** jokatzeari» egotzi diete enpresako arduraduneri. **Berria - Ekonomia**

2 (hitz elkartuetan)

Bruselak 497 milioi euroko isuna ezarri dio Bill Gatesen konpainiari, «ia monopolio **nagusikeriaz** baliatzeagatik». **Berria - Ekonomia**
· Hauen agintari batzuen aurka ustelkeria eta **nagusikeria** salaketak egin izan dira behin eta berriro. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
nagusikeriaz jokatzeko (4)

nagusiki *adlag* batez ere.

Bertsolaritzari dagokionez, **nagusiki** baserri giroko adierazpen izateetik gizarte industrial edo post-industrialean garatzera iragan da. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Nagusiki, inolaz ere ezin nuen ulertu mutilaren nahia ez aski izatea auzia bertan ebazteko. **Juan Garzia**
Nagusiki ez, nik uste. **Aingeru Epaltza**
Eta, Gaizkia deitzen dut edozein motatako Tristura, eta, **nagusiki**, irrika zapuzten duena. **Piarres Xarriton**
Lan honetan, **nagusiki**, Ontologiari arituko gara. **Askoren artean**
Edonola ere, ez da hori buruan dabilkiona Karlosi, ez **nagusiki** behintzat. **Iban Zaldúa**
Hugok egin duen testu-muntaian, positiboaren sinboloa da **nagusiki** Pasaia. **Koldo Izagirre**
Globuluak hiru motatakoak dira **nagusiki**. **Irene Aldasoro**
Frantziako kate bat zuten jarria, bezeria ere frantsesa baitzen **nagusiki**. **Juan Luis Zabala**

nagusiorde (*orobat **nagusi(-)orde***) 1 *iz* nagusiaren ordekoa den pertsona.

Izan ere, bera **nagusi-ordea** zen Ordenan, eta agindu zuen eta Konstituzio batez ezarri [...] anaietako inork ez zezala Ordenan haragirik jan. **Askoren artean**
Orduan anai Bernardok isilka esan zion anai Eliasi, Ordenako **nagusi-ordea** zenari: [...]. **Askoren artean**

2 (izen baten eskuinean)

Nazio Batuen Erakundeko idazkari **nagusiorde** Jan Egelandek atzo jakinarazi zuenez, [...]. **Berria - Mundua**

Ainhoa Etxaide LABeko idazkari **nagusiordeak** azpimarratu duenez, emakumeen oinarriko eskubideen defentsa egin nahi du sindikatuak. **Berria - Euskal Herria**

ELAko idazkari **nagusi orde**. **Berria - Ekonomia**

Errusiako Fiskal **nagusiorde** Sergei Fridinskik. Martxoaren 11ko erasoak ikertzen dituen batzordean atzo Poliziako Operatiboen zuzendari **nagusiorde** ohi Pedro Diaz-Pintadok deklaratu zuen Herritarren Segurtasunerako buru Santiago Cuadro izan zela atentatueta islamistek erabilitako lehegaria Titadyne zela esan ziona. **Berria - Mundua**

PPko idazkari **nagusiorde** Angel Acebes, berriz, PP-PSOE ituna egun dagoen moduan eustearen alde azaldu zen. **Berria - Euskal Herria**

3 nagusiordeko izlag nagusiordea.

German Kortabarria Idazkari **nagusi ordekoa**. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

idazkari nagusiorde (4)

idazkari nagusiordeak (4)

nagusiro *adlag* nagusiki.

Hura, orde, etsai amorratu bihurtu zitzaizkan eta bat-bateko askatasun harrigarri **nagusiro** agindu zidan horrelakorik ez esateko, bere adiskide izan nahi banuen. **Imanol Unzurrunzaga**

nagusitasun (794 agerraldi, 80 liburu eta 421 artikulutan; orobat *nausitasun* g.er.) 1 iz nagusi denaren edo nagusi dagoenaren egoera. ik **nagusigo**; **nagusitza**.

Kapitalismoaren **nagusitasun** unibertsal horrek gainditu egiten du maila geopolitikoa, biziki gainditu ere. **Koro Navarro**

Ekialdeko **nagusitasun** komertzial zein filosofikoa agerian uzteko irrikan zegoela. **Aingeru Epaltza**

Gizarte zibilaren **nagusitasun** moralak erakutsi beharrez. **Jon Alonso**

Anberes [...] bere **nagusitasuna** galduz joan zen, Amsterdamen onurarako. **Koro Navarro**

Frantsesentzat zer da demokrazia? gehiengoaren **nagusitasuna**, besterik ez. **Piarres Xarriton**

Latinaren **nagusitasunak** luzaroan iraun zuen Europako mendebalean. **Koldo Zuazo**

Era askotara definitu da artea; era horietako bakoitza ideologia baten ala bestearen **nagusitasun** edo gailentasunari egokitu izan zaio beti. **Josu Zabaleta**

Latinak elizan zuen erabateko **nagusitasuna** mugatu, eta herrietako hizkuntzak ezarri ziren haren lekuan. **Koldo Zuazo**

Ahalmenaren hitzarekin anitz gauza mota adierazten dira; hala nola, kargudunen kasuan **nagusitasuna**. **Piarres Xarriton**

Zeren jauna dutenek ez dute **nagusitasunik**. **Esteban Antxustegi**

Lege horiek on eta kalte amaigabeak egin zituzten; **nagusitasuna** galdu eta gero eskubideak utzi zituzten. **Iñaki Iñurrieta**

Kontu korrontean eta ohean bere **nagusitasuna** bermatuta ikusirik [...] ustezko arazo larriak beste itxura bat hartzen zuen. **Migel Angel Mintegi**

Inork ezin du dudan jarri gizonak, naturaz, beldurrik ez izatekotan, joera handiagoa izango luketela **nagusitasunerako**, gizarterako baino. **Esteban Antxustegi**

Nagusitasunaz abusatzea leporatzen dio. **Berria - Gaiak**

Haren irakaspenaz txunditurik zegoen jende guztia, **nagusitasunez** hitz egiten baitzien. **Elizen arteko biblia**

Nagusitasunez irakasten baitzien eta ez lege-maisuek bezala. **Elizen arteko biblia**

Erantzun ordez, Kallisthenes jauna mahai gainean makurtu eta **nagusitasunezko** irribarre batekin hasi zen Dembaren kapa askatzen. **Anton Garikano**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Japonia Asian dago, baina modernizazioaren ondoren bere burua ez du asiartzat; eta, gainera, **nagusitasun** -sentipen batek Asiako beste lurraldeak zapaltzera bultzatu zuen. «**Nagusitasun** jarrera» edo «jarrera menperatzailea» izateagatik eta kompetentzia ezetzateagatik. Kapitalismoa mundu osora zabaltzea, izan ere, ez da islatzen bakarrik garapen-maila desberdineko ekonomien artean sortzen diren **nagusitasun** -harremanetan. **Ibon Urbarri**

Kalezuloko emakumeekin borrokatzean edo eztabaidatzean erakusten zituen **nagusitasun** sen horren alderik makurrenak; denek hastio zuten eta gaizki esaka aritzen ziren.

Patxi Zubizarreta

Ez gobernamentu edo **nagusitasun** eskubidez, gerra eskubidez baizik. **Esteban Antxustegi**

Eta europarren **nagusitasun** -irriñoa ezpainenetan, bileran zer erabakiko zain dago, mehatua frogatzeko aukera behintzat emango diotelakoan. **Martin Anso**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Seme-alaben adin **nagusitasunarekin** amaitu egiten da gurasoen aginpea, ondorio zibilei dagokienez. **Andres Urrutia**

Betiko izan zirenean, jaunek hartu zuten feudoa oinordekoaren adin-**nagusitasuna** iritsi arte, dela beren etekinak handiagotzeko, dela tutorepekoa armetan hezitzeko.

Iñaki Iñurrieta

Eskoletan Erresuma Batuko kultura **nagusitasunak** Galesko nortasuna eta kultura deuseztatzen du. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nagusitasun absolutua (3); **nagusitasun handia** (3); **nagusitasun iraingarria** (3); **nagusitasun morala** (4); **nagusitasun osoz** (16); **nagusitasun osoz irabazi** (8); **nagusitasun politikoa** (4)

adin nagusitasuna (8); **astilleroren nagusitasuna** (3); **bere nagusitasuna erakutsi** (3); **erabateko nagusitasuna** (9); **erakutsitako nagusitasuna** (9); **euskara giputzaren nagusitasuna** (5); **ferrariaren nagusitasuna** (3); **giputzaren nagusitasuna** (5); **gizonaren nagusitasuna** (3); **gizonen nagusitasuna** (4); **merkatuan duen nagusitasuna** (3); **nagusitasuna agerian utzi** (5); **nagusitasuna berretsi** (3); **nagusitasuna erabatekoa izan** (7); **nagusitasuna erakusten** (4); **nagusitasuna erakutsi** (14); **nagusitasuna galdu** (4); **nagusitasuna galtzen** (4); **nagusitasuna handia** (3); **nagusitasuna hautsi** (4); **nagusitasuna ikaragarria** (3); **nagusitasuna ikaragarria izan** (3); **nagusitasuna izan** (3); **nagusitasuna lortu** (3); **nagusitasuna lortzeko** (6); **nagusitasuna nabarmendu** (3); **nagusitasuna onartu** (4); **taldearen nagusitasuna** (6); **tauren nagusitasuna** (3); **urteetako nagusitasuna** (3); **urteotako nagusitasuna** (3)

nagusitasunari aurre egiteko (3)

nagusitasunaz baliatzen (3)

nagusitasunez gailendu (4); **nagusitasunez irabazi** (22)

nagusitu, nagusi, nagusitzen (orobat *nausitu* g.er.) 1 da *ad* nagusi bihurtu edo gertatu; nagusitasuna hartu.

Davidek Hadadezer menperatu zuen garaian, Damaskora jo zuen Rezonek eta Damaskoko eskualdeaz **nagusitu** zen. **Elizen arteko biblia**

Madrilera aldatzea geroago etorriko duk; gure tropak Espainiaz **nagusitu** ahala. **Txillardegí**

Periferiako eremuez **nagusitze** borroka hau areago indartuko zen industria-iraultzarekin. **Koro Navarro**

Omriren aldeko jendea, orde, Ginaten seme Tibniren aldekoari **nagusitu** zitzaion; Tibni hil egin zen eta Omri errege bihurtu. **Elizen arteko biblia**

Halaxe **nagusitu** zitzaion David filistearri, habaila eta harri batez. **Elizen arteko biblia**

Aramearrak **nagusitzen** bazaizkit, zatozkit laguntzera; amondarrak **nagusitzen** bazaizkizu, berriz, ni joango natzaizu laguntzera. **Elizen arteko biblia**

David inguruetako herriei **nagusitu**. **Elizen arteko biblia**

Gudua izugarria izan zen; baina Judasenak **nagusitu** ziren Jainkoaren laguntzaz. Elizen arteko biblia

Etsaia ezingo zaizu **nagusitu** ; hark nire zerbitzuan lan egitea eragotzi nahi zizun. Askoren artean

Hurrengo egunean, berriz, mairuekin borroka egin eta behin betiko **nagusitu** zitzaizkien. Martin Anso

Geroagoko ETAn **nagusitu** ziren ekintzaileek irribarez har zitzaizketen arazo filosofiko hauek. Joseba Zulaika

Mutilaren hats sutua **nagusitu** zitzaion orduan, ezarriraino **nagusitu** ere, eta Hamidak begiak kliskatu zituen. Patxi Zubizarreta

Bart gauean Espainiako taldea hiru eta lau **nagusitu** zitzaion Jugoslaviakoari. Edorta Jimenez

Euskal-Herrian haatik, ELB da **nagusitu** , eta hori lehen aldikotz, % 51 bildurik, FNSEA-k % 45. Herria

2 (gauza abstraktuez) ik gailendu.

Harik eta ingeles industria Europako mundu-ekonomian **nagusitu** zen arte. Koro Navarro

Baina hara, txundidura duk hire amaz **nagusitu** . Juan Garzia

Ordu batzuk geroago, festa bukatu eta poz barbaroaren atzetik beti etortzen den tristezia barbaroa **nagusitu** zen salaz. Bernardo Atxaga

Ospakizun haiek alderantziko eragina zuten nigan: nahigabea eta malenkonia **nagusitzen** zitzaizkidan. Rafa Egiguren

Hura ikusi orduko, beldurra **nagusitu** zen guztiengan, defendatzaileengan zein erasotzaileengan. Agustin Otsoa

Isiltasuna **nagusitu** zen berriz kalean. Jon Muñoz

Horrelako giroa **nagusitu** da gure garai honetan. Jose Morales

Jakin-mina **nagusitu** zitzaion, ordea, Ruche jaunari. Jon Muñoz

Baina bere baitan harrokeria berehala **nagusitu** zitzaion lotsari, eta haserre erantzun zuen: [...]. Martin Anso

Bere nahia **nagusitzea** lortu zuen, eta bakarrik lo egitea. Patxi Zubizarreta

Eredu heterosexuala **nagusitu** da gizartean. Berria - Gaiak

Puritanismo olatu bat **nagusitzen** da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gure gizartean **nagusitu** den ideologiak, hau da, klase nagusiaren ideologiak ezartzen eta inposatzen ditu normala eta desbideratze sexuala zer den dioten irizpideak. Ilunpe berriz ere **nagusituan** , durundi egin zuen Bozgorailuren ahotsak. Luis Elberdin

3 adinez nagusi egin, heldutasunera iritsi.

Eta orain haurrak **nagusitu** dira, laster ezkontzeko adinean izango dira, eta horrela zikloa osatuko dute, denok zoriontsu izan gaitezen. Luis Elberdin

Haurrek, **nagusitu** ahala, hizkera bereziak sortzen dituzte euren jolasetan. Koldo Zuazo

Haur prodigioa **nagusitu** zenekoa. Berria - Kirola

Frantzia alderat etorriak diren gizonetarik gehienak, gizon heldu edo **nagusituak** dira. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aise nagusitu (40); **aise nagusitu zen** (14); **aise nagusitu zitzaion** (5); **aldearekin nagusitu** (7); **alderdia nagusitu** (7); **arazorik gabe nagusitu** (5); **baia nagusitu** (6); **baiezkoa nagusitu** (13); **baiezkoa nagusitu zen** (4); **beldurra nagusitu** (4); **berehala nagusitu** (5); **berriro nagusitu** (8); **berriz nagusitu** (4)

erabat nagusitu (22); **erabat nagusitu ziren** (6); **eromena nagusitu** (4); **eroso nagusitu** (8); **erraz nagusitu** (31); **erraz nagusitu zen** (14); **errazago nagusitu** (4); **espainiarra nagusitu zen** (4); **esprintean nagusitu zen** (5); **estatubatuarra nagusitu zen** (4); **eza nagusitu** (10); **ezetza nagusitu** (5); **ezezkoa nagusitu** (9); **ezezkoa nagusitu da** (4); **frantziarra nagusitu** (4); **galerak nagusitu ziren** (4); **gaztea nagusitu** (4); **giroa nagusitu** (6); **giroa nagusitu da** (5); **gogoa nagusitu** (4); **goitik behera nagusitu** (14); **gosea nagusitu** (4); **hasieratik nagusitu** (4); **hauteskundeetan nagusitu** (4); **hirukoa nagusitu** (4)

ipar uribe nagusitu (4); **iritzia nagusitu** (4); **isiltasuna nagusitu** (39); **isiltasuna nagusitu zen** (28); **italiarra nagusitu** (4); **nafarrak nagusitu ziren** (4)

nagusitu arren (6); **nagusitu den eredu** (8); **nagusitu zen berriro** (4); **nagusitu zen esprintean** (7)

nahiko erraz nagusitu (4); **nazabal nagusitu** (5); **oihuak nagusitu ziren** (4); **ongi nagusitu** (6); **partidetan nagusitu** (4); **poza nagusitu** (4); **proban nagusitu** (4); **sentimendua nagusitu** (4); **taldea nagusitu** (12); **taldea nagusitu zen** (8); **uribe nagusitu** (4); **zabaidu eta nagusitu** (4)

nagusituz gero (7); **nagusituz joan** (4)

etsipena nagusitzen (4); **joera nagusitzen** (4)

nagusitxo *izond* adkor adinez nagusi samarra.

Eta guk, **nagusitxoak** ordurako, ez genion inori ezertxo ere esan. Joxemari Urteaga

Nik **nagusitxoagoak** gogoko, ostera. Edorta Jimenez

nagusitza *izond* (31 agerraldi, 6 liburu eta 11 artikulutan) iz nagusitasuna.

Horrela, irainez ase, gizakiaren berezko harrokeria espiñuaren legera menderatzeko eta, etxeko etsaia azpiratuz, bere buruaren **nagusitza** era baketsuan eskuratzeko.

Askoren artean

Karrera hura Bettinik irabazi zuen eta han hasi zen Munduko Kopan geroztik izan duen **nagusitza** . Berria - Kirola

Eska beza premiazko laguntza, sorkarien Jaunak bere **nagusitza** erakuts dezan. Imanol Unzuurrungaga

1220an Frantziskok **nagusitziari** uko egin zionean, Pedro izendatu zuen bikario bezala. Askoren artean

nagusitzar *iz* adkor nagusia.

Desertore guzien txostenetan ageri dela espainol **nagusitzar** horren inguruko zelatariak oro Saratik iragaiten direla, eta hor ukaiten dituztela abisuak oro. Elena Touyarou

Podorea eta **nagusitzarren** itxurak iraultzen. Herria

nagusitze (*orobat nausitze*) iz nagusi bihurtzea, nagusitasuna hartzea.

Nagusitze horren garaia ez dut uste gure arteko lehen solasaldia baino beranduagoko izanen denik: baina horra non aditzen dizudan harrokeriari espantuka. Jon Muñoz

Gnassingbe Eyadema diktadoreak 40 urtez herri hori bere peko atxikirik, bizia galdu ondoan, hunen semeak irabazi ditu bozak militarren laguntzarekin baina herria ez baketu indarkako **nausitze** horrekin. Herria

Baiaren **nagusitze** hortaz ez da haatik sobera espantu egiten ahal. Herria

nahar *iz ipar* kaparra, laharra.

Harrobia izeneko lekua mendi mazelako buztinean ireki sarraski itsusia zen, sake gorri bat, irudi odola zeriola, dena **nahar** eta asun, beleen kuku toki ahantzi bat baino ez.

Itxaro Borda

Behin, ordea, eskolatik etxerakoan, harrobiaren parean, **naharretan** botaiak, jantzi purtzilikatuak sasien balantzan sumatu zituen. Itxaro Borda

Konparaketa poetikoa sobera garatu gabe, **nahar** artean eta lur hiletan handitu eta lilitutako arrosa zuria zen. Itxaro Borda

naharo ik naro.

nahas 1 *adlag* nahasirik.

Sabela **nahas** nabari zuen eta estomaka trebes. **Itxaro Borda**

Egunkarian irakurri zuen bere burua ibaira bota zuela, loak hartzeko erremedioak alkoholarekin **nahas** irentsi ondoan. **Itxaro Borda**

· Agian ez nuen egoki jokatu, baina ordurako nahikoa buru-**nahas** nengoen. **Jon Alonso**

2 *nahas-mahas* (orobat *nahasmahas g.er.*) *adlag adkor* nahasirik.

Eskolako sorginkeria-liburuak **nahas-mahas** pilatuta zeuden txoko batean. **Iñaki Mendiguren**

Izenburu horren pean, nahi adina genero eta agerkari sailkatu ohi da, **nahas-mahas** sailkatu ere. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Animaliak ere **nahas-mahas** bikotekatzen baitziren, otsoak katemeekin, hartzak behiekin. **Juan Garzia**

Kremallera ireki eta nik poltsan **nahas-mahas** sartutako arropak bereizten hasi zen, kolorezkoak alde batera, zuriak bestera. **Anjel Lertxundi**

Eleak **nahas-mahas** jaukitzen zitzaizkion: [...]. **Itxaro Borda**

Berriro ere sentimenduak **nahas-mahas** eta borborka ditut. **Patxi Zubizarreta**

Horra, **nahas-mahas**, nolako beharordu eta parada ainitzek zizkiguten elgarretartzeko paradak eman Lafitte eta ni bezalako batzueri. **Herria**

Gizona zentauro baita, haragia eta adimena **nahas-mahas**, jainko-hatsa eta hautsa. **Juan Garzia**

Hormetan hainbat margolan zeuden esekirik, estu-estu eta **nahas-mahas**. **Jose Morales**

3 (izen gisa)

Iskanbila eta **nahas-mahasa** besterik ez zen bagoietan lehen mementoan. **Karlos Zabala**

Gauzen kokapenak garrantzi handia du **nahas-mahas** horretan. **Edorta Agirre**

Gurpilen ilara luzeak, gurdiei loturiko abereen errenkada amaigabeak galtzen ziren kargatzen ari ziren salgaien **nahas-mahasaren** erdian. **Karlos Zabala**

Betaurrekoak jantzi eta, erdi ilunpean, pijamaren galtzen eske ibili nintzen gelako **nahas-mahasean**. **Aingeru Epaltza**

ik beherago 5. **Askoren artean**

Ez dakite egia **nahas-mahasetik** bereizten. **Joan Mari Lekuona**

Sekulako **nahas-mahasa** izan da dena-eta. **Mirentxu Larrañaga**

Lurra **nahas-mahas** hutsa zen; ilunbeak estalitako leize handia. **Jose Antonio Mujika**

Gure lubakiak eta babeslekuak **nahas-mahas** erabatekoan utzi zituzten aurreko egotiarrek, Seaforths-eko Jock konpainiakok. **Mirentxu Larrañaga**

Nahas-mahas sasiilustratu bat dirudi denak: munduaren arima, unibertsoaren batasuna, gizadiaren solidaritatea, nazioaren edo arrazaren izpiritua, norbanakoarena, etab.

Joxe Azurmendi

4 (hitz elkartuetan)

Lehendik ere egona nintzen han, eta ez ninduen harritu ikasle gazte, bulegari presatu eta zeregin handirik gabeko errentadun itxurako jende **nahas-mahas** haren barailak.

Anjel Lertxundi

· **Nahas-mahas** garaiak dira. **Iñigo Aranbarri**

5 *nahas-mahasean adlag adkor* nahas-mahas.

Habeak nonahi botata, alde guztietarantz leherturik, ia erabateko **nahas-mahasean** agertzen zen guztia. **Xabier Olarra**

Gizon ederra, ile beltz eta lisoa atzerantz orraztuta baina alboetatik **nahas-mahasean** jausten zitzaiona bekokira. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gauak ilunduriko Ama Birjinaren kaperaren aurrean, belaunalki batzuk besterik ez zeuden, **nahas-mahasean**, han belaunikaturiko emakumeen debozio beroak irauliak.

Karlos Zabala

Arantza eta lore ugari topatuko baituzu testuotan, non zer dagoen bereizteko zail den **nahas-mahasean**. **Patziku Perurena**

6 *nahas-mahastu da/du ad*

Zenbakiak eta letrak apeta hutsez edo haize aldakorraren ariora nolana **nahas-mahasten** dituztenak. **Aingeru Epaltza**

Liberalismoa, klasizismoa, erromantizismoa, tradizionalismoa, erlijio katolikoa, espainoltasuna, patriotismoa, honezkero dena **nahas-mahasten** da. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

denak nahas mahas (3); **nahas mahas** (132); **nahas mahas hartan** (3); **nahas mahas horretan** (3); **nahas mahas hutsa** (4); **nahas mahasa** (10); **nahas mahasean** (27)

nahas-mahastu ik **nahas 6.**

nahasaldi ik **nahasialdi.**

nahasarazi, nahasaraz, nahasarazten du *ad* nahastera behartu.

Meza erditan animaleko behi tropa bat, beren joarekin kantua estali eta **nahasaraz** artino. **Herria**

Garai haiek oroitzapen ilunak eta goxoak **nahasarazten** dizkiote. **Eneko Bidegain**

Hor dira pertzeptologiako laborategietan egiten diren pertzeptzio-iruzurrezko esperimenduak ere, ikusleari diapositiba bat eta kartoizko maketa bat **nahasarazten** zaizkionak, adibidez. **Josu Zabaleta**

nahasberritu, nahasberri(tu), nahasberritzen du *ad* nahasi eta eraberritu.

Eruditoak, funtsean liburuak **nahasberritu** besterik egiten ez duenak, atzenerako arraso galtzen du bere buruz pentsatzeko gaitasuna. **Patziku Perurena**

nahasberritzaile *iz* nahasberritzen duen pertsona.

Lehendik pentsatutako guziaren **nahasberritzaile** edo dibulgatzaile [...] beldurti bat besterik ez da. **Patziku Perurena**

nahasbide *iz* nahasteko bidea.

Virgilek, ikusmena berreskuratu berria duten gainerako guztiek bezala, ukimenaren eta ikusmenaren arteko lotura deserosoa zuen **nahasbide** nagusi: ukitu ala begiratu behar ote zuen ez jakitea. **Xabier Olarra**

Ez dela ezer haiengan oker edo **nahasbide** sorraraz dezakeenik. **Xabier Kintana**

Harridura eta irribarre urduari **nahasi** ziren ene baitan. Karlos Linazasoro
Kolera gogobetetasunarekin **nahasi** zitaion berriro ere, eta bere baitan bortizkeria eta desafiozko desira ilun bat nabaritu zuen. Patxi Zubizarreta
Eta beste behin egia eta gezurra **nahasi** ziren nigan. Fernando Rey
Ai zuek, ardoa edaten nagusi, edariak **nahasten** txapeldun zaretenok. Elizen arteko biblia
Gurin batetik eta bestetik hartzen zuen pixka bat, **nahasi** egiten zituen, batzuk besteekin zuzentzen, ardoekin egiten den legez. Karlos Zabala
Mariaren ametsak eta Mariari buruzko nereak **nahasi** nituen goiz hartan, bateratuz denak. Piarres Aintziart
Baina ez gu **nahasi** bere politikan, inolaz ere ez diot utziko hori egiten. Karlos Zabala
Aitaren haurrak tokika emanak, elgarrekin **nahasi** behar ez balute bezala! Michel Oronoz
Aireportuan ondotik, gure soak, gure irriak, gure kopeta keinuak bizpahirutan **nahasi** ziren. Itxaro Borda
Ez **nahastu** politika arazo honetan. Koldo Biguri
Ez dezagun politikarekin **nahastu** arazo hau. Koldo Biguri
Minbizitze-prozesuak, bada, itxura zenez, **nahasi** egiten zituen enbrioiaren garapenean lanean ari ziren erregulazio-sistematariko batzuk. Juan Garzia
Erabil ditzagun, bada, bata edo bestea, **nahasi** gabe. Iñaki Arranz
Batera, baina **nahasi** gabe. Fernando Morillo
Traketsenak sagarrak eta legarrak **nahastu** zituen zuhurtziarik eta zentzurik gabe, eta *Euskaldunon Egunkaria*rena Euskal Herrian gertatu berri diren beste atxiloketen upel berean sartu zuen. Gutxi faltan ez dira tiroka **nahasi** talde nagusikoekin. Bernardo Atxaga

2 ordena galdu edo galarazi. ik **nahaspilatu**.

Asteburua orduko, hala ere, goitik behera **nahasi** ziren kontuak. Urtzi Urrutikoeetxea
Kartak **nahasi** eta mila erataria elkartzen zituen. Juan Kruz Igerabide
Stanleyk lagun arteko poker joko bat proposatu zuen, eta kartak **nahastu** eta tropikoetan egingo zuen bizimodu berriaren gainean hitz egiten zuen bitartean. Oskar Arana
Berdin zioz piezak **nahasi** badituk, mugimendu guztiak gogoratzen ditia. Jose Morales
Ilea **nahasi** zigun Uil eta bioi bere esku handi kailuz beteekin. Juan Kruz Igerabide
Esku ahurrarekin ileak **nahasi** zizkion amultsu. Unai Iturriaga
Jaitsi eta **nahas** diezaiegun, bada, hizkuntza, elkar uler ez dezaten.
Ezjakintasunak eta tiraniak bakarrik **nahas** ditzakete hitz eta ideiarik argienak. Juan Martin Elexpuru
Horiaren gaineko gorri horrek barrenak **nahasi** zizkidan. Monika Etxebarria
Arantxa Arruti kartzelan hiltzeko zorian zegoela jakin genuen bertan, eta ikaragarri **nahasi** zen giroa. Rafa Egiguren
Horregatik, Babel -hau da, 'Nahasketa'- du hiriak izena, han **nahasi** baitzuen Jaunak mundu osoko hizkuntza eta handik sakabanatu baitzituen mundu zabalera. Jose Antonio Mujika
Goitik behera begiratu dit, neuk **nahasi** izan banu bezala hiriko ordena edo izurritua banintz baino okerrago. Anjel Lertxundi
Egun hotan, saltsa hori aintzina **nahasi** da, Frantzia iparraldeko ama familiako gazte batzuk salaketa bat eginik. Herria
Zulo beltzek ez dute informazioa irensten, **nahasi** egiten dute. Berria - Gaiak
Adelaren etorrerak, baina, zerbait **nahastu** zidan barruan. Juan Kruz Igerabide
Haren izena aipatze hutsak urdaila **nahasten** dit. Oskar Arana
Burutik hago hi, Paulo! gehiegi ikasteak burua **nahastu** dik. Elizen arteko biblia
Nahastu egin zela burutik "denbora gehiegi egoten zelako liburu artean". Bernardo Atxaga

3 gauza bat beste bat-tzat hartu edo harrarazi.

-Nahasi egin naiz. Juan Kruz Igerabide
-Pertsonaz **nahastu** omen ditun -esaten du aparatudunak, eguraldia jasotzen ari dela esango lukeen bezain laño. Anjel Lertxundi
Nahasi egin nahi ninduen. Juan Kruz Igerabide
Ez dakit oroimenak **nahastu** egiten nauen, baina esango nuke gau hartaz gerokoa izan zela nire bizitzako boladarik ederrena. Bernardo Atxaga
Irakurlea etengabe **nahasten** saiatu naiz. Joxean Agirre
Hala ere, Adelaren jokabideak **nahastu** egiten ninduen. Juan Kruz Igerabide
Ez gaitezen **nahasi**, hemen aldakuntza hitzari eman diogun esanahiarekin. Isabel Arrigain
Arrazoitu nahi dugunean, definizio faltsuek **nahasten** gaituzte beti. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Beste batekin **nahasten** nauzu... Karlos Zabala
"Ez dira gauzak **nahastu** behar", esan zuen. Bernardo Atxaga
Anitzetan gauza bat bertze batekin **nahasten** zuen. Joan Mari Irigoien
Ez da **nahasi** behar Hipokrates hori medikuntzaren aitarekin, harako zin hura egin zuenarekin. Jon Muñoz
T. Aranzadi eta L. Hoyos arraza eta herria ez **nahasten** saiatzen dira, arraza zoologian eta herria historian utziz. Joxe Azurmendi
Baina kontuz, haren itxurak ez zaitu **nahasi** behar: gizon hori dirudien baino hagitzez azkarragoa da. Alberto Ladrón Arana
Nahasi egin ditu nahita izenak, Carrero eta Correo, ni **nahasteko**. Agurtzane Juanena

4 (-kin atzizkiak)

Gazte siberiar bat, nire semearekin **nahasi** dudana -erantzun zion Marfa Strogoffek-. Karlos Zabala
Arrebarekin **nahasten** duzula uste dut. Harkaitz Cano
Igual iheslari haietako batekin **nahasi** naik. Fernando Rey
Bourbon Streeteko zulo ilunenak aise **nahas** daitezke infernuaren sukurtsalekin. Harkaitz Cano
Bokalei dagokien ingelesezko *front* izenlaguna ez dela **nahasi** behar kontsonantei bakarrik egotzen zaien *anterior* ezaugarriarekin. Lourdes Oñederra
Maila fonemiko eta morfemikoen arteko loturaren arazoa ez da **nahasi** behar transkribaketa fonemiko bat irakurtzeko informazio morfologikorik behar ote den galdetzearekin. Itziar Laka

5 (-kin atzizkiak) norbait, ezkonlaguna ez duen beste norbaitekin haragizko harremanean lotu.

Edozein gaiztakeria egiteko prest dago, gure ezkontza **nahastera** etorri da. Karlos Zabala
Ezkontza-nahasle izendatuko dute eta urdanga deitura ezarriko harekin **nahasi** denari. Aingeru Epaltza

6 (-kin atzizkiak) gauza gaitzesgarri batean parte hartu.

Ez **nahasi** sinesgabeeekin: ba ai dute zerikusirik elkarrekin zuzenbideak eta gaiztakeriak? elkar ote daitezke argia eta iluna? Elizen arteko biblia
Ez zaitezte berriro **nahasi**, Salbatzailean ezagutu zenutenean utzitako munduko lizunkeria eta ustelkeriatan. Askoren artean

7 da/du *ad* barne baretasuna edo argitasuna galdu edo kendu.

Ikusi orduko, burua **nahasi** bezala zitzaidan. Janbattit Dirassar
-Burua **nahasi** dit zalaparta honek. Aingeru Epaltza
Telefono deialdi hark, nahitaez, **nahasi** ninduen. Daniel Landart
Solas horiek barnea **nahasi** zidaten. Janbattit Dirassar
Nahasi egiten ninduten ideia haiek, ez zidaten lasai pentsatzen uzten. Joxan Elosegi
Demba isilik geratu zen, **nahasi** samarra Horvathen irribarre handiosarekin. Anton Garikano

Haren edertasunak burua zertxobait **nahasi** zidan. **Jon Muñoz**

8 (era burutua izenondo gisa)

Ile **nahasi** batzuekin, aurpegia zuhail, pilda batzuk soinean, [...]. **Janbattitt Dirassar**

Eguneroko bizitza **nahasi** honetan. **Bernardo Atxaga**

Ezingo da ondo neurtu ekintza hori giza harremanen hari **nahasi** eta aldakorrek ikertu gabe. **Juan Martin Elexpuru**

Paulinekin oso era **nahasian** kontatzen zuen afal ondoan katuak hatzak eta aurpegia miazkatzen zizkiola koskik egin gabe. **Karlos Zabala**

ik beherago 10. **Askoren artean**

Janinari amak jakinarazi zion Gerard, bere lehen maitalea, arbola eta sasi **nahasi** haietan ezkutatzen zela. **Itxaro Borda**

Mendebaldetik marmar **nahasi** bat zetorrela iruditu zitzaion. **Karlos Zabala**

Dakidana da, lotsa izigarri batek edo beldur **nahasi** bitxi batek hartu ninduela! **Janbattitt Dirassar**

Gizonak irribarre **nahasi** bat besterik ez zuen egin. **Karlos Zabala**

Baina garai **nahasi** hauetan deabruarekin ere beharko dugu oheratu. **Alberto Ladron Arana**

Batzuetan harritzen zarete maitemindu **nahasi** baten ahalkeaz edo asaldatzen zarete haren gainezkaldi suharrez. **Jon Muñoz**

Likido beltz eta uher- **nahasi** bat. **Juan Garzia**

Hilabete larri- **nahasi** gutxi haietan, alferrik saiatu ginen berreraikitzen, birjendetzatzen, azken hogeiturtealdiaren hutsarte historikoa. **Juan Garzia**

Denbora askoan isilik egon edo esan beharrekoa gehiegi pentsatu dutenek egin ohi duten bezala hasi omen zen, modu **nahasi** samarrean eta azkena esan beharrekoa aurrena esanez. **Joxean Agirre**

9 (era burutua hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Sirok pentsatu zuen neskato ile- **nahasi** bat ezagutua zuteneko gelaxka grakatsuan aurkituko zuela ostera. **Juan Garzia**

Argazki bakan eta engainagarriak, betaurrekodun memelo handi ile- **nahasi** hori eta besarkatzen daukan tuntun potzoloa. **Josu Zabaleta**

Inguratu zitzaion neskatala hari bospasei urteko haur ijito ile- **nahasi** bat. **Pablo Sastre**

10 (era burutua adizlagun gisa)

Egia esatera, dena **nahasi** oroitzen dut. **Patxi Zubizarreta**

Ilun egonik ere, maindire, burusi, petrolio-kriseiluak, ontziak, denak **nahasi** ageri ziren. **Juan Kruz Igerabide**

Akusatuak eta konbiktuak **nahasi** botatzen direlako kobazulo berera. **Juan Martin Elexpuru**

Galderak **nahasi** samar uzten ditu. **Luis Elberdin**

Nerbioak **nahasi** samar nituela konturatu nintzen eta handik alde egitea erabaki nuen. **Josu Zabaleta**

11 (era burutua izen gisa)

Eta ni zerbait gisaz ez arras ene baitan, halako **nahasi** batean. **Janbattitt Dirassar**

Nahasi pisu batek hartuak zizkidan gogo-bihotzak. **Janbattitt Dirassar**

12 nahasian (orobat nahastuan g.er.) adlag ik nahaste.

Zakartasuna eta goxotasuna noiz bat noiz bestea **nahasian** zebiltzan. **Juan Garzia**

Hunkipena eta amorrua sentitu ditu **nahasian** Gabinek, orain arte ez al zara konturatu? **Iñaki Iñurrieta**

Gerra eta bititza, **nahasian** izaten ziren biak... **Josu Zabaleta**

Barrenak nahastutako kasta izango gara gu: **nahasian** dabilzkigu atsegina eta nazka, edo nazka bete-betea ez bada ere, bai nazka bederen. **Iñaki Segurola**

Atseginarean eta oinazearen negar-malkoak ziren, **nahasian**. **Jesus Mari Mendizabal**

Han daude haitz-krabelinak, orri moreak tarteka, orri txuriak besteka, **nahasian**. **Pako Aristi**

Bazter batean, arrokekin **nahasian**, argazki-makina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Botilak eta beira zatiak ere bai zur hondakinekin **nahasian**. **Josu Landa**

Atea itxi zuen eta bere zotinak zabaldu, euriarekin **nahasian** entzuten jarraitu baitziren. **Juan Garzia**

Maila profesionalean, aldiz, sentsazio onak sentsazio ez hain positiboekin **nahastuan** dauzkat. **Berria - Kirola**

Bibliaren lehen kapitulu hauetan tradizio desberdinak suma daitezke, batera eta **nahasian** emanak -bata bestean txertaturik, alegia-. **Jose Antonio Mujika**

13 bazterrek nahasi nahasmendua sortu.

Egunkariko bulego guztietan barregarri gelditzeraino **bazterrek nahasi** ondoan, harendako bigarren kontratua erdiesteak kostatu zitzaidan doa. **Aingeru Epaltza**

Ez dezatela zuetako inor zigortu hiltzaile, lapur edo gaizkile izateagatik, edo **bazterrek nahasten** ibiltzeagatik. **Elizen arteko biblia**

Bortizkeria politikoak **bazterrek nahasten** dituenean, neurri polizialak hartzen ditu Estatuak. **Itxaro Borda**

Jan eta lo eta **bazterrek nahastu**. **Anton Garikano**

Amaiak, berriz, kontuz ibiltzeko eskatu zidan, berak ez zituela inola ere **bazterrek nahastu** nahi. **Joxerra Garzia**

14 nahasi-mahasi iz ik nahas 3.

Errogazioneko proosionek ez dira gehiago egiten bainan aurtengo **nahasi mahasi** haundiek inguramenaren kontra ereman dituzte nere gogoetak gai huntara. **Herria**

Harry ez zuen Ronekin edo Hermionerekin hitz egiteko aukerarik izan irteerako **nahasi-mahasi** hartan. **Iñaki Mendiguren**

15 nahasi-mahasian adlag ik nahas 5.

Gizon-ahotsak entzun ziren **nahasi-mahasian**, gero isilune bat eta, bat-batean, aizkora baten txistu-hotsa eta danbateko garbia. **Iñaki Mendiguren**

16 nahasi-nahasi izond oso nahasia.

Kokospoko bizarra **nahasi-nahasia** zuela eta begitarte zabal egokia logurez guztiz zurbil. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amets nahasi (4); bazterrek nahasi (7); bizitza nahasi (4); burua nahasi (9); egoera nahasi (8); ezagutza nahasi (3); garai nahasi (9); gauzak nahasi (4); gertakari nahasi (3); giro nahasi (11); giro nahasi horretan (3); ideia nahasi (5); ideia nahasi bat (4); ile nahasi (7); ixtorio nahasi (5); joko nahasi (3); kontu nahasi (3); mundu nahasi (6); mundu nahasi huntan (3)

nahasi antzean (3); nahasi da (5); nahasi dira (8); nahasi ditu (8); nahasi ditut (3); nahasi dituzte (5); nahasi du (3); nahasi dute (3); nahasi eta murriztailea (3); nahasi mahasi (3); nahasi minduen (5); nahasi samar (9); nahasi samarra (11); nahasi samarra izan (5); nahasi samarrak (4); nahasi zen (13); nahasi zidan (3); nahasi ziren (16); nahasi zituen (8); nahasi zitzaion (4); nahasi zuen (5)

solas nahasi (4); uda nahasi (3); ura nahasi (3); urte nahasi (5); urte nahasi haietan (3); zurrumurru nahasi (3)

arras nahasia (3); arrunt nahasia (5); aski nahasia (6); bizarra nahasia (3); burutik nahasia (9); egoera nahasia (9); eguraldi nahasia (3); erabat nahasia (7); giro nahasia (20); giroa nahasia (3); ile nahasia (5); ilea nahasia (3); ixtorio nahasia (5); joko nahasia (6)

nahasia zegoen (8)

oso nahasia (12); uda nahasia (8)

gero eta nahasiago (6)

aldi nahasiak (3); arras nahasiak (5); arrunt nahasiak (5); aski nahasiak (3); bazterrek nahasiak ziren (3); berri nahasiak (3); egoera politiko nahasiak (3); hitz nahasiak (3); ideia nahasiak (8); ile nahasiak (4); informazio nahasiak (3)

nahasiak daude (6)

oso nahasiak (5)

dena nahasian (3); denak nahasian (15); era nahasian (9); giro nahasian (5); modu nahasian (7)

ur nahasietan (3)

apur bat nahasirik (3); burua nahasirik (4); erabat nahasirik (6); gogoia nahasirik (3); guztiz nahasirik (6); ileak nahasirik (3); nahasirik ageri (6); nahasirik ageri ziren (3); nahasirik egon (4); nahasirik nengoen (3); nahasirik sentitzen (3); nahasirik utzi (3); nahasirik zegoen (4); nahasirik zeuden (4); zeharo nahasirik (3)

Psikologoarengana joan naizenean, ez dakit ba zer-nolako **nahasketa** izan den, baina engongelan batera beste mutil bat eta biok, biok ordu berean sartzeko asmoz nonbait. Pako Aristi

Nahasketa saihesteko, analitikotasunaren nozio eraldatu sinpleena Gottlob Frege-k aurkeztu zuena da. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahasketa mota hauek bereizi ohi dira: [...]. Josu Zabaleta

Hirugarren arauaren guztiz kontrakoa lehorraldia deitzen dut, hala nola arimaren ilunpea, gogo-nahastea, gai purtzil eta lurkoiatarako lera, zenbait **nahasketa** -tentaldiren ezinegona, fede-ezaren dardarizoa. Patxi Altuna

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Zenbait Silogismo **nahasketa** -eragingarriren eleketa mordoilo mamituak sartuz ahozkotasun oparoaz. Jon Alonso

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Arrain eta haragi **nahasketa** bat usaintzen ari zen. Karlos Zabala

Erritmo eta doinu **nahasketa** sailkaezina atondu dute beren lehenengo diskoan. Berria - Kultura

Kolore **nahasketa** bizia osatuz, beltz, urdin, berde, gorri, txuri... Pako Aristi

Sandrak kontatu zidanez, Ertzaintzaren analisien arabera kola, disolbente, pintura plastiko eta lokatz-**nahasketa** bat omen zen. Iban Zaldua

Ziur asko denok kanporatuko dugu geure usain-**nahasketa** ezaugarria. Irene Aldasoro

Oraingoan ez zegoen aurrekoetako zarata **nahasketa**, ia jende guztiak batera egiten baitzuen oihu eta txalo. Josu Landa

Balore-**nahasketa**, esker ona baztertzea, arimen kutsadura, sexu-perbertsioak, ezkon-desordenak, adulterioa eta lizunkeriak. Elizen arteko biblia

Sentimendu-**nahasketa** hartan borrokan. Jon Alonso

6 ipar nahasmendua.

Gizakiek ordena nahiago dute **nahasketa** baino. Piarres Xarriton

Joko berri horrekin izanen dela oraino **nahasketa** frango eta ondotik saltsa ederrik, denen buru zernahi xuxenketa egiteko... Herria

Sekulako **nahasketa** sortu da orduan, haren ondorioz lehen ministroak erabaki du berak aurkeztuko zuela legea eta ez Hezkuntza ministroak. Herria

Badute bost urte gerla-**nahasketak** ezagutzen dituztela han edo hemen. gerlako egun ilunak eta **nahasketak** zirela medio. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bien arteko nahasketa (6); **bien nahasketa** (4); **estilo nahasketa** (5); **nahasketa antzeko** (3); **nahasketa bitxi** (3); **nahasketa egin** (3); **nahasketa gisa** (3); **nahasketa handia** (5); **nahasketa handia dago** (3); **nahasketa handiagoa** (3); **nahasketa izan** (5); **nahasketa sortu** (3); **nahasketa sortzeko** (4)

nahasketak egiteko (3)

nahaski¹ iz janari bat arrautza irabiatuekin nahasirik prestazen den jakia.

Merendatzeko, gogoan dudan baratxuri freskoen **nahaskirik** goxoena prestatu zuen. Iban Zaldua

Nahaski janezina benetan. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Presaka prestatutako bazkaria egin ondoren -tomate-zopa, arrautza **nahaskia** eta salami ogitartekoak-, Lucy eta biok erosketak egitera atera ginen. Oskar Arana

Entsalada, perretxiko **nahaskia**, itsas-zapoa eta mamia. Berria - Kirola

Onddo **nahaski** beroaren arrastoa oraindik ahoan, Damian, aulkia atzerantz botata, zutitu egin da. Hasier Etxeberria

3 irud/hed

Bada burtsan, inbertsiogileei purearen ordez **nahaskia** ematea txarretsi behar da. Berria - Ekonomia

4 nahasketa.

Botikariaren eskuz **nahaskiak** prestatu ondoren. Elizen arteko biblia

Zapore garratza zuen, ikatz aire, odolaren eta asfaltoaren **nahaskiak**. Aingeru Epaltza

Jimmy itsumustuka hasi zen euliaren bila bi atzamarrez, eta behin harrapatu zuenean, erpuruaren eta erakuslearen artean zanpatu zuen, **nahaski** gris bihurtzeraino.

Lopez de Arana

nahaski² adlag nahasirik, nahaste.

Ongia eta gaizkia **nahaski** ematen dira historian; are, bata bestearen aita eta umea dira elkarrekiko. Joxe Azurmendi

Arraza eta nazioa berbak Ortegarengan **nahaski** irakurtzen ditugu. Joxe Azurmendi

Zientzia eta bere iritzi etiko-politikoak **nahaski** transmititzea ere amarru egitea litzateke: bera zientzian baita aditua eta autoritatea, balioetan edo etikan ez. Joxe Azurmendi

nahaski³ ik saski.

nahaskila iz nahasketa.

Egile baten izenak berdin-berdin adierazten al du bere izenarekin argitaratu duen testu bat edo goitizen batekin aurkeztu duena edo bera hil ondoren aurkitu dena, zirriborro modura edo ohar **nahaskila** besterik ez den ohar-liburua? Xabier Arregi

nahaskilo iz adkor nashate-borrastea, nahasketa.

Horrezaz gainera, hil-eta-biziko zernahi eratako **nahaskiloak** ditugu, noiznahi agintzen edo saltzen zaizkigunak. Iñaki Segurola

nahaskin iz janari nahaskia.

Bazkaria edo, ahora eramatera gindoazen ahi gisako **nahaskin** nazkagarri hura. Harkaitz Cano

nahaskor izond nahasia.

Bawtryko uhalgilearen kasuan Oliver Cromwel izan zen itzal babesletik iluntasun **nahaskor** bilakatu zen indar eragilea. J.M. Olaizola "Txiliiku"

Ortzian zeharreko eguzkiaren itzul-ibil ugarietan, piztien era **nahaskorrean** arrastatu zuten bizia. Xabier Amuriza

nahasle 1 *izond* nahasten duena. ik **nahasgarri**.

Funts paradoxikoa [...] eta enigmatikoa (inkontziente ere baita), **nahaslea** eta traumatikoa batzuetan. **Berria - Harian**

2 aipatzen dena nahasten duen pertsona.

Bestetik aldiz Francis Carricart zuten, karta **nahasle** ona. **Herria**

Baina gero Jim maitemindu egin zen soinu-**nahasletako** lankide Martha Ives-ekin, eta hor amaitu zen guztia. **Oskar Arana**

3 nahasmendua sortzen duen pertsona. ik **nahastaile 2**.

Agitadore edo **nahaslea** -gogoratzen ari nintzen-, finantzaria, herriko batzordeko partaidea, asaldaria, armadaren izen onaren zikintzailea, milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda zabaltzaile zorrotza eta zinikoa... **Edorta Jimenez**

Legegabeak bilatu eta pertsegitu egin zituen eta herriaren **nahasleei** su eman. **Elizen arteko biblia**

Han, istiluen arrazoiak hobeto ezagutu ondoren, ez zuen **nahasleengana** jo, Aita santu Honorioengana baino. **Askoren artean**

Aldiz Inglaterran ere ez dira batere fida, holako **nahasle** batzuen beldurrean dira Eguberriko egun horiek hurbiltzeari. "Eliztar" diodanean, hona Jaungoikoarengandik hurbil egotera etortzen diren gizon-emakume prestuei buruz ari naiz, eta ez inola ere beraien prestakuntza militarren erakustaldia egitera etortzen diren herri-**nahasleei** buruz. **Herria**

Kulpa gurea da utzi egiten dizugulako kale-**nahasle** horiek bezala janzten. **Anjel Lertxundi**

Ezkontza-**nahasle** izendatuko dute eta urdanga deitura ezarriko harekin nahasi denari. **Aingeru Epaltza**

4 (izenondo gisa)

Baina petrolioaren prezioa gorantz bultzatzen duten beste elementu **«nahasle»** batzuk bere horretan daude. **Berria - Ekonomia**

1.200 xihita badituela irakiri poliziak arrastatuak dio Allaoui kargudun berriak eta ere 300 hil badituztela jadanik amerikanoen laguntzarekin hilak kargudun berrietara bildu nahi ukan ez dutenak, oraiko buruzagiek diotelarik ez dutela holako kontrario **nahaslerik** onetsiko beren lurrean. **Herria**

5 **bazter-nahasle** ik **nahastekari**.

Frankismoaren azken urteetan, gure auzoa ideologiaren eltzeta egosleku bihurtu zen; inondik ere, inguruetako herri zein auzoetako **bazter-nahasleei** txoko egokia iruditu zitzaiezen gurea, non zer suma ibiltzeko. **Juan Kruz Igerabide**

Ezta burutik pasa ere horrelako txorakerietan sartzea! bestela ere nahiko beldur ematen didazu hor Frantzia horrenbeste gorri eta **bazter-nahasleren** artean. **Berria - Kultura**

Bazter nahasle multxo bat zela ari desmasia egiten eta heieri behar zela gogor egin. **Herria**

Polizia batek gizatxarren eta **bazter-nahasleen** aurrean amore ematea ere... **Lopez de Arana**

Eta, han zeukatean, kondenen agiritegian, nire **bazter-nahasle** aurrekaria; "**bazter-nahasle** matxinoa", Hanleyk deitu zidanaz. **Mirentxu Larrañaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bazter nahasle (17)

bazter nahaslea (3); **soinu nahaslea** (3)

bazter nahasleak (4)

nahasmahas ik **nahas 2**.

nahasmakeria *iz* nahas-mahas gaitzesgarria.

Ni xarmatzeko **nahasmakeria** ez badu behintzat, ez zen Xegamaren heriotza deitoragarria bakarrik izan, oker nengoen, gure Oteiza bihurtu zuena mendekari. **Koldo Izagirre**

nahasmen (*297 agerraldi, 82 liburu eta 112 artikulutan*) 1 *iz* gogoia nahastea; gogoia nahasirik dagoenaren egoera.

Wooden aurpegiari **nahasmenaren** ordezkari alaitasuna agertu zen. **Iñaki Mendiguren**

Gero zorabio hurra etorri zen, **nahasmen** hurra, ur loditan bezala barreiatuz joatea, eta argien jirabira. **Juan Garzia**

Nahasmen ezti batek lausotzen dizkio ganberan dauden gauzen inguruak. **Aingeru Epaltza**

Erorikoaren **nahasmenean**, ez nuen berehala antzeman xehetasun harrigarri samar bat, baina, segundo batzuk geroago, eta lurrean erorita nengoela oraindik, nire arreta erakarri zuen. **Koro Navarro**

Tratu txarrak, nagusikeriaren adierazpena baino gehiago, ahultasunaren, beldurraren, **nahasmenean** eta segurtasun faltaren adierazpena direla esango nuke nik. **Luis Elberdin**

Zoramenaren edo eromenaren eta **nahasmenean** adierazle ere bada hego haizea edo haize hegoa. **Patziku Perurena**

Beldurra eta **nahasmena** gairidituzko, gure burmuinaren egoera hori irudikatzen du, amets egiten hasten da. **Luis Elberdin**

Gero, ohikoa ez zuen erreakzio bat atera zitzaion, barruko **nahasmena** erakutsiz hitz egin baitzuen: [...]. **Anjel Lertxundi**

Nire buruko **nahasmeneari** aurre egin ezinik, ostatuan karta jokoan ziharduten batzuei begiratu nien. **Edorta Jimenez**

Buruko **nahasmenean** bat dago sarritan suizidioen atzean... **Berria - Gaiak**

Horri buruz taxilariak esan zuen berentzat **nahasmena** zela hainbeste aldaketa; hobe litzatekeela, New Yorken egiten omen zuten bezala, kaleak zenbaki bidez izendatzea. **Ramon Saizarbitoria**

2 ordena- edo argitasun-falta dagoen nahaspila. ik **nahasmendu 3**.

Gauzen **nahasmenak** berak traba egiten dit oro ikusteko eta ziur erantzuteko, hainbeste estalkitan bilduta zerbait ezkututzen ez ote zaidan beldur bainaiz, nire adimenak argitu ezineko zerbait, alegia. **Imanol Unzurrunzaga**

Nahasmena ez da erabat desegin. **Bernardo Atxaga**

Nahasmen handikoak izan ziren lehenengo egunen ostean, guztiz argi ikusi ahal izan zen moduan, guda, izatez, faxistek eta Ardatzeko indarrek Espainiako erakunde demokratikoen aurka sortua zen. **Edorta Jimenez**

Bijil herrian **nahasmen** izugarria zegoen. **Juan Kruz Igerabide**

Barruan zarata eta **nahasmena** dago, eta minutu batzuen ostean -adi ondo!- bilatzaileen garaipen oihu burrunbatsua, helburua lortu duten seinale. **Urtzi Urrutikoetxea**

Labur esanda: alde guztietan entzuten ditut zurrumurruak, esanez aldaketa hurbilak datozela, eragozpenak, **nahasmena**, asaldura, istiluak eta arazoak. **Urtzi Urrutikoetxea**

Herriaren nahasteak hizkuntzen arteko lehia eta **nahasmenera** eramaten du; hauetako batzuk "lingue franche" gisa barreiatzen dira, eta kasu guztietan haien hedapenak nolabaiteko endekatzea ekartzen du. **Iñaki Mendiguren**

Arazoirik gabe **nahasmena** eta asaldura eragin nahi dutela salatu du Lopez Aguilarek. **Berria - Euskal Herria**

3 nahasmendua.

Produktu eta sintoma ziren, ez hazkunde naturalarenak, baizik eta atzerriko Mendebaldeko modernoarekin talka egitean euren gizarteak izandako **nahasmenean**. **Iñaki Mendiguren**

Nahasmenak irauin zuen bitartean, Caracasko hedabide ia guztiak kolpisten esku zeuden. **Txema Ramirez de la Piscina**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nahasmen segundo batzuk izan ditu autostopistak, baina berehala abiatu da, bizkar-zorroa hartuta, kamioia dagoen lekura. **Iban Zaldúa**

Sinetsi ezina, amorrua, beldurra eta kulpa sentimenduak, hori denori harridura eta **nahasmen** sentipenez josita agertzen da; zer gertatzen ari den ulertu ezina. **Luis Elberdin**

Nahasmen -garaia, baina biltzeko eskubidea eta nor bere iritzia defendatzeko askatasuna behintzat bazeudena. **Xabier Mendiguren Elizegi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bere buru- **nahasmenean** hor du hiltzen ezkutuan zegoen agure gaixoa. **Juan Garzia**

Oriaren gudu- **nahasmenean** hantxe zebiltzan Hiru den eta Bat den Jainkoa, Irlandako jainkoki paganoak eta handik ehunka urteetara, Aro Nagusiaren hasieran, borrokatuko zirenak. **Juan Garzia**

Familia- **nahasmen** horiek gorabehera, eta ama berak hogeita hiru urte besterik ez zuela hil zitzaion arren, sekula ez nuen zalantzarik izan Tomek aurrera egingo zuela mundu honetan. **Oskar Arana**

Gaur egun, genetistek eta medikuek arrastoa segitzen diete ondaretasun- **nahasmenen** batean inplikaturtat jotzen dituzten geneei. **Juan Garzia**

Ez baitziren guztiak hizkuntza berean mintzo, eta inork ez baitzekien nirea, eta hitz- **nahasmen** handia baitzebilen. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nahasmen handia (13); **nahasmen handia sortu** (5); **nahasmen handiagoa** (3)

nahasmena eragin (4); **nahasmena eragiten** (6); **nahasmena sortu** (9); **nahasmena sortzea** (5); **nahasmena sortzeko** (3); **nahasmena sortzen** (10); **nahasmena sortzen du** (4); **nahasmena zen nagusi** (5)

nahasmenaren erdian (4)

nahasmendu (329 agerraldi, 94 liburu eta 71 artikulutan) 1 iz gizarte bakearen edo orekaren nahastea eta horren ondoriozko egoera.

Genova Italiako hirian G8 delako bilkurren karietarat gertatu **nahasmenduen** ondorioak dira orai ageri herri hortan. **Herria**

Nahasmendu izugarria zegoen hirian, lantegietatik hasi eta bulegoetaraino, dendetatik plazetara. **Josu Zabaleta**

Egun bat osoa iraun dute piztu dituzten **nahasmenduek**. **Herria**

Manifestaldi hori bururatzean, izan zen zalaparta eta **nahasmendu**. **Herria**

Jainkoak bakea maite baitu eta ez **nahasmendua**. **Elizen arteko biblia**

Aldi hartan ez zen bake segururik batetik bestera ibiltzeko, lurralde haietako jende artean **nahasmendu** handiak baitziren. **Elizen arteko biblia**

Foruzaingoak agintearen aurkako atentatua eta **nahasmendu** publikoa delitua leporatu dio. **Berria - Ekonomia**

Kantonamenduko jendarmeak **nahasmendu** haietara hurbiltzen ziren bakanetan, [...]. **Itxaro Borda**

Hiri hortan, **nahasmendu** asko izana zen gau guzian. **Herria**

Denek ikusten ere bazterrak inarrosaldi bat ederra hartu duela ainitz hiritan izan diren **nahasmendu** horiekin. **Herria**

Nahasmendu handiko garaiak ziren Iparraldean. **Itxaro Borda**

Dena gerla eta **nahasmendu**. **Herria**

Eguerdia aitizin semearen etxean izango zen eta karrikako **nahasmenduek** ez zioten arratsaldearen bakea trabatuko. **Itxaro Borda**

2 zerbaiten, eta bereziki gorputzaren organoren baten, aritzeko eran gertatzen den aldaketa edo nahastea.

Garuneko beste alde batzuetako lesioek beste **nahasmendu** batzuk sor ditzakete sentimen nahiz mugimenean, mintzamenean nahiz pertzepzio-, ezagumen- edo oroimen-funtzio espezifikoetan. **Xabier Olarra**

Gaitz hori metabolismoaren **nahasmendu** bat da. **Juan Garzia**

Nahasmendu psikikoren batek sortua izan behar baitu nahi horrek. **Jon Muñoz**

Portaeraren **nahasmendu** arinak, sexu arazoak eta aberrazioak, sugestio eta hipnosi kontuak. **Xabier Arregi**

Autismoak, garapenaren **nahasmendua** izanik, gero eta indar gutxiago du adinean aurrera egin ahala, eta norberak ikas dezake harekin hobeto moldatzen. **Xabier Olarra**

Forma genetikoa, gaitza duen gizabanakoaren edo familiaren baitan, beste **nahasmendu** genetiko batzuei loturik ager daiteke, hala nola dislexiari, arreta-faltaren nahasmenduari, **nahasmendu** obsesibo-kompulsiboari, edo Touretteren sindromeari. **Xabier Olarra**

Nire pentsamenduaren **nahasmendu** izugarriari diot beldur, batez ere, nire arrazoari, ihes egiten baitit, estura larri misteriozko, ikusezin batek zirriborraturik, barreiaturik.

Josu Zabaleta

Niretzat glosolalia edo heterofasia edo buru- **nahasmendu** edo eldarnio itxura gaiztoko hura maldan behera zetorren. **Karlos Linazasoro**

3 ordena- edo argitasun-falta dagoen nahaspila. ik **nahasmen 2**.

Frantziak inurritegi abarrakitu baten **nahasmendu** narrasa erakusten duenean. **Josu Zabaleta**

Hirian bazen mugimendu, non-nahitik etorri jendeen **nahasmendu** etengabea: saltzaile, marinela, jakintsu, aberats, pobre, etorkin, atzerritar... **Elena Touyarou**

Bitartean, biltzarra **nahasmendu** hutsa zen: batak hau eta besteak hura oihukatzen zuen, gehienek jakin ere ez baitzekiten zertarako bilduak ziren. **Elizen arteko biblia**

Herrira sartzeko **nahasmenduan** elkarrengandik bereiziak ziren. **Josu Zabaleta**

Hogeita hamar edo berrogei bat minutu luzez egon ginen hizketan, baina ez genuen ezer garbirik atera **nahasmendu** eta kezka geroz eta handiagoa izan ezik. **Oskar Arana**

4 nahasmena.

Galderak **nahasmendu** handia sortu zion Claudiari. **Karlos Zabala**

Nahasmendua eta asaldura gorabehera, printzesa gazteari ere desioa piztu zitzaion, eta esan gabe doa emakumeen irrika gizasemeena baino borritzagoa izaten dela. **Patxi Zubizarreta**

Burua **nahasmendu** hartatik atera eta antolatze ahaleginak eginda, martxan jarri nuen automobila, eta aurrera egin genuen Urbieta kalean gora. **Inazio Mujika Iraola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nahasmendu handia (5)

nahasmendua areagotu (3); **nahasmendua zela eta** (3)

nahasmendutxo iz adkor nahasmendua.

"Pantaila-efektu" terminoak eragin dezake **nahasmendutxo** bat, zinema-aretoko pantailaz ari delakoan; eta horrexegatik hobe da horrelako terminorik ez erabili; guk historian garrantzi handia izan duen artikulua bat aipatzeko baizik ez darabilgu hemen. **Josu Zabaleta**

nahasmentxo iz adkor nahasmena.

Bero horrek, normalean, goranzka doanez, altuerako aire geruzetan egiten du bere **nahasmentxo**. **Pello Zabala**

nahaspila *(orobat nahaspilo g.er. eta nahaspulo g.er.)* **1** iz nahasirik gausu gausu multzoa, nahas-mahasa.

Bazen liburu-denda bat salgai Zazpigarren Etorbidean, Park Slope-n, eta Harryk liburuaren negozioaz deus ere jakin ez arren, gustatu egin zitzaion denda, hango zirtzilerien eta zaharkien **nahaspilagatik**. **Oskar Arana**

Hamar egunetako egonaldian jantzi zikinak metatu zitzaizkion eta maletan sartu zituen; zerbait behar zuenean hondoan bilatu behar zuen, eta, Kôben erosi eta jaso zituen opariak ere han sartu zituen zehar, **nahaspila** izugarri hark maleta hainbeste puztu zuen, non ez baitzen itxen. **Ibon Uribarri**

Hura zen iskanbila eta ardaila, hura zarata eta **nahaspila**. **Karlos Zabala**

Nahaspilaren erdian ere, noiznahi egoki daitezke elkarren ondoan bi pieza, puzzlean elkarren ondoan behar dutenak. **Imanol Zurutuza**

Eta, **nahaspilaren** erdian, kale garbitzaile pila bat hurbiltzen ari zen bidegurutzearen bukaeratik, lerroan jarrita, erratzei kolpe neurritsuz eragiten zietela. **Karlos Zabala**

Nahitazuna hartu diot neure auzoari, maite dut zurien eta marroien eta beltzen arteko hango **nahaspila** aldakor hori, atzerriko azentuen koru geruza askotako hori. **Oskar Arana**

Josurenean une horretan zegoen **nahaspilan** -anaia aieneka, manta gorritz tindatuetan bildua; anbulantziakoak korridorean, beren trasteria guztia harat-honat zerabiltela; Edurne, histeriak joa, botikin ezdeusa eskuetan-, miraria izan zen haurraren azalpenak ulertu ahal izatea. **Aingeru Epaltza**

ik beherago 5. **Askoren artean**

2 irud/hed

Idazleen eta poeten bizitza gertutik begiratu eta kaos hutsa besterik ez zenuen aurkituko, arauaz besteko salbuespenen **nahaspila** amaigabea. **Oskar Arana**

Erabateko **nahaspila** da dena: odol-isurketa eta hilketa, lapurreta eta iruzurra, ustelkeria, desleialkeria, gizarte-gatazkak, zinaustek. **Elizen arteko biblia**

Neskak aurrera egiten zuen, itsumandoka, zarata kirrinkarien **nahaspilan** zehar. **Lopez de Arana**

Aztertzaile pitagorikoaren plantak egin zituen Ruche jaunak, **nahaspilan** mintzatuz: [...]. **Jon Muñoz**

Sentimen ugari bilduko ziren orduan beren baitara, **nahaspila** bizian. **Imanol Zurutuza**

Elebidun ere ote esanaldi bat euskaraz hasi eta Frantsesez bururatzen duena edo alderantziz Frantsesez abiatu ahapaldia euskaraz bukatzen duena? ez, **nahaspila** horrek gauza onik ez du. **Herria**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Liburutxo honek, hasi eta buka etenik gabe irakurtzean, **nahaspila** -inpresioa egiten du. **Askoren artean**

Asteazkenean iritsi zen Donostiara, Tolosatik, Joaquín de Gorrochategui monsiñorea, gorrien basakeriatik askatu berri, hiltzat eman baitzuten Donostia askatu eta aurreneko **nahaspila** uneetan. **Inazio Mujika Iraola**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina jendetza **nahaspila** bat, kontzientzia bakar bat badago, edo lotzen ari bada, ez da jadanik nahaspila. **Josu Zabaleta**

Handik minutu batzuetara kale erdian ez zegoen gorputz nahaste bat besterik, borroka **nahaspila** batean loturik. **Josu Zabaleta**

Lorategietako aulki batean eseri naiz, eta ikusi gabe egon naiz begira: harrizko aingerua, zozoak, urmaeleko belantzi tikiak, loreen kolore **nahaspila** ... **Patxi Zubizarreta**

Itxaropen apalagoak behar ditu eduki: soinu-**nahaspila** horren erditik, nonbaitetik, nahikunde hilezkorren nota zinezko bakar bat hegaz aterako dela, txori bat bezala.

Oskar Arana

5 nahaspilan nahaspilaturik, nahasian.

Bulegoetan eskuizkribu guztiak **nahaspilan** zeuden, elkargainka, ez zegoelako behar adina apalategi. **Fernando Rey**

Kaxa dezente pilatu zaizkigu, **nahaspilan**, eta txukuntzeari ekiten diogunean nondik jo ere ez dakigu. **Iñaki Arranz**

Aztertzaile pitagorikoaren plantak egin zituen Ruche jaunak, **nahaspilan** mintzatuz: [...]. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nahaspila ederra (3)

nahaspilatsu *izond* nahasia, nahaspilat betea.

Saguzarren aldrak agertu ziren, dozenaka, ehunka agian, ilunabarreko argitan hegaldi **nahaspilatsuan**. **Txillardegí**

Besoa berriz ere murgildu eta karramarro bat atera zuen zalaparta **nahaspilatsuz** beteriko konpartimentu batetik. **Karlos Zabala**

Ez zen jadanik orro **nahaspilatsu** bat, kanoikada garbien sail bat baizik. **Karlos Zabala**

Bere filosofieren labirinto **nahaspilatsuetan** galduta. **Jenaro Garate**

Hauteskunde **nahaspilatsuak** dira datozen hauek, aurrekoak eta haien aurrekoak baino areago agian. **Jokin Urain**

nahaspilatu, nahaspila(tu), nahaspilatzen *(orobat nahaspildu g.er., nahaspulatu g.er. eta nahaspulotu g.er.)* **1** du ad nahasi, nahaspila egin.

Haizeak ilea **nahaspilatzen** zion eta harrotzen. **Karlos Zabala**

Piztitxo sendokotea zen, txima zuri **nahaspilatuak** zituen eta han-hemenka beltzuneak alboetan. **Mirentxu Larrañaga**

Gizon bat mahaiaren gaineko aldizkariak **nahaspilatzen** ari zen. **Aingeru Epaltza**

Beren urak berehala nahasi ordez, elkarren ondoan doaz bi ibaiok 80 kilometrotan barrena, **nahaspilatu** gabe. Ahotsak murmur berdin eta bizi batean **nahaspilatzen** ziren.

Jon Muñoz

2 irud/hed

Inortxok ere ezer ez ulertzeko moduan **nahaspilatu** eta korapilatu behar dira gauzak. **Jose Morales**

Ruche jaunak, ordea, zeharo **nahaspilatua** zuen gogoa. **Jon Muñoz**

Auziren bat noiz **nahaspilatuko** zain daude denak. **Jose Morales**

Orain, hori aski ez, eta makur hasitako goiza, zuzendu beharrean, are gehiago **nahaspilatuko** zelako aierua nuen. **Aingeru Epaltza**

Alabaina, sentimendu bitxi bat **nahaspilatu** zitzaion ordu arteko bozkarioari eta handinahiari, eta bere baitan egin zuen: "halabeharrak nolatan ekarri dio halako zortea aita-amarik ez duen neskatila bati?". **Patxi Zubizarreta**

Zeozer argitzen zuela uste izan zuen bakoitzean, nahastea **nahaspilatu** egiten zitzaioela konturatzen zen. **Joxemari Urteaga**

Bi gizonak eztabaida gorrian **nahaspilatu** ziren, gaineratiko familiakideak erakarriz, emaztea eta lau haur, seme bat eta hiru alaba. **Elena Touyarou**

Arrazoi bakarra, arazo hau soluziorik ez duen eztabaida (sasifilosofiko) infinitu batean **nahaspilatze**ko interesa izan liteke. **Joxe Azurmendi**

Ez ezazu iker zuretzat ilunegi dena, eta ez azter **nahaspilatuegirik** dagoena. **Xabier Kintana**

3 nahasi, nahasmendua sortu.

Gure nazioa **nahaspilatzen** harrapatu dugu gizon hau; enperadoreari zergak ordaintzea galarazten du eta bera Mesias, erregea, dela esaten. **Elizen arteko biblia**

4 (era burutua izenondo gisa)

Faroen argi-konoan ikusgai: landare zurrun-geldiak eta lur-azaleko erro-multzo **nahaspilatuak**, erraien gisa distiratzten ari. **Joxe Austin Arrieta**

Titiburuak arroxak eta biribilak, pottotta bikaina, ile gorri **nahaspilatuek** estalia. **Karlos Zabala**

Jimmyk hanka **nahaspilatuen** artetik aurrera egin zuen, zigarro bat erre nahi baitzuen korridore kulunkari eta ilunaren muturrean. **Lopez de Arana**

Igande arratsalde hartako eguzki-izpiak leihoko farfailezko gortina astunen zirrikituetatik sartu eta alfonbrako arrosa gorrien gainean iraukatzten ziren, bulego **nahaspilatua**

itzalez eta argienez betez. [Lopez de Arana](#)

Baina, esadazu, zer gertatzen da *ante portas* jarduteko ohitura zahar jator horrekin eta haren historia [nahaspilatu](#) bezain kolorez betearekin? [Karlos Zabala](#)

Haizeak harroturiko hauts-zirimolak harturik zeukan Norak gogoia, sentimendu eta burutazio [nahaspilatuez](#) beterik. [Anjel Lertxundi](#)

nahaspilatuki *adlag* era nahaspilatuan.

Egilea eta Jauna bere sorkariagan seguruago ari dadin, biziki komeni zaio bere indar guztiez baliatuz mugitzea, txarki lehiatua dagoenaren kontrara jartzeko, baldin apika arima hori gauza bati [nahaspilatuki](#) lehiaturik eta okerturik badago. [Patxi Altuna](#)

nahaspilatzaile *iz* nahaspilatzen duena.

Botilaren sistema errepublikarra da azken batean, guztiz [nahaspilatzailea](#) endredamakila barraban. [Lutxo Egia](#)

nahaspilatze *iz* nahastea, nahaspila egitea.

Sakabanaketa hauxe bera -bere hutsuneeekin, bere urratuekin, bere [nahaspilatzeekin](#), bere gainjartzeekin, bere bateraezintasunekin, bere ordezkatzeeekin eta bere aldatzeeekin- deskriba daiteke bere singularitasunean gauza bagara zehazteko zer arau berezien arabera eratu diren objektuak, enuntziatuak, kontzeptuak eta aukeraketa teorikoak. [Xabier Arregi](#)

nahaspildu ik nahaspilatu.

nahaspilo ik nahaspila.

nahaspulatu ik nahaspilatu.

nahaspulo ik nahaspilo.

nahaspulotu ik nahaspilatu.

nahastaile 1 *izond* nahaslea.

Bazter ezazu zeharo mundu [nahastaile](#) eta engainagarri honek bere maitaleitsuak kateatzeko erabiltzen duen oro, eta maita ezazu osoki, zure maitetz bere burua eman zuen hura. [Askoren artean](#)

Orain, azkenean, libre du Virgilek ez ikustea, ikusmenaren eta espazioaren mundu itsutzaile eta [nahastailetik](#) ihes egitea. [Xabier Olarra](#)

Hamar egun zentzumenen tirabira hura konpontzeko; emozioak, berriz, hain [nahastaileak](#) ziren, non ia ez baitzen ausartzen haietaz pentsatzera ere. [Xabier Olarra](#)

Berriz ere zure mania [nahastaile](#) hori; orain ere ariko zara burutazioen bat asmatzen; gauza argi eta begi-bistakoak modu korapilatsuan zuritu behar. [Juan Kruz Igerabide](#)

Halako, bere buruaren berriemaile; horrelako, nire buru aski nahasiaren [nahastaile](#). [Aingeru Epaltza](#)

• 2 *iz* nahasmendua sortzen duen pertsona. ik nahasle 3.

Ez naute alabaina kolektiboan onartu, ez natzaie fidagarri, [nahastaile](#) hutsa naiz, edo infiltratua. [Koldo Izagirre](#)

Hemengo sindikatueta sozialistekin eta [nahastaile](#) zoro horiekin... [Lopez de Arana](#)

3 *bazter-nahastaile* bazter-nahaslea.

Hobe da benetako merezimenduak egin dituenari merezitakoa ukatzea, zitalari, maltzurri edo [bazter-nahastaleari](#) emateko arriskua hartzea baino. [Juan Martin Elxepuru / Bego Montorio](#)

Halakoak Asturias-etik etortzen ziren [bazter-nahastaleen](#) erruagatik gertatzen ziren, Langreo-ko eta Gijon-go portuetaiko sindikalista gorriak, subertsioaren profesionalak, oporra jotzera bortxatzen gintuztenak. [Koldo Izagirre](#)

Egun batean, Baldurri kalte egitea erabaki zuen Loki jainkoak, berez maltzurra eta [bazter-nahastailea](#) zelako. [J.M. Olaizola "Txiliku"](#)

nahastaldi *iz* nahasialdia.

Bere bolada osasuntsuetan adierazten zuenez, ezin zion inori egotzi bere noizean behinkako [nahastaldi](#) haien errua, eta zentzu horretan barregarriak iruditzen zitzaizkion Freuden teoriak. [Bernardo Atxaga](#)

nahastarazi, nahastaraz, nahastarazen du *ad* nahastatzera behartu. ik nahasarazi.

Maria, bibote grisaxkako jaun hark nola [nahastarazi](#) zuen gogoraturik, gorri-gorri egin zen lotsaz, umiliazioz eta desengainuz. [Irene Aldasoro](#)

Gogoeta bihurriek Jainkoarengandik aldentzen dute, eta haren ahalmenak, proban jarriz gero, [nahastarazi](#) egiten ditu zentzugabeak. [Elizen arteko biblia](#)

Bere helburua gehiago da kontrario bat apalaraztea: norberaren nagusitasunaren kontrastea aurkeztuz [nahastaraztea](#); norberaren jarreraren duintasuna eta baretasuna erakutsiz harrিতa uztea... [Iñaki Mendiguren](#)

Enuntziatuak tratatzen ditu eurak harrapatuta dauden metaketaren sendotasunean, enuntziatuak metaketa hori etengabe aldatzen dutelarik, egonezina eragiten diotelarik, [nahastarazten](#) dutelarik eta tarteka suntsitzen dutelarik. [Xabier Arregi](#)

Arkeologiak alderantziz jokutzen du: historiaren pazientziak luzatu dituen hari guztien korapiloak askatzea bilatzen du; ezberdintasunak biderkatzen ditu, komunikazio lerroak [nahastarazten](#) ditu, eta saiatzten da zailago egiten batetik besterako iragaiteak. [Xabier Arregi](#)

Ezin dugu onartu bortxazko edo neurritz kanpoko jarrerarik, zalantzan jartzen baitute Udaltzaingoaren profesionaltasuna eta langile talde hori irizpide politiko jakin batekin [nahastarazten](#) baitute, intentzioz nahastu ere. [Berria - Euskal Herria](#)

nahastatu *ad* nahasi.

Nahastatuta bai, ez ordea tratatuta. **Iñaki Arranz**

nahastatzaile *iz* nahaslea.

Ez dut inondik inora ere uste bizkaitarren balizko izaera harro, temati, zital edo bazter-**nahastatzailean** dagoenik horren arrazoia, oso bestelako gertakarietan baizik. **Koldo Zuazo**

nahaste 1 *iz* gauza desberdinak batzea. ik **nahasketa**; **nahasteka**.

Gero 250°C-ra berotzen genuen bisulfato horregaz azido tartarikoak **nahaste** bat, hala azido tartarikoak azido pirubiko bihurtuz. **Juan Garzia**

Mundu ordenatua sortu baino lehen, unibertsoa edo kosmosa eratu aurretik, **nahaste** izugarri bat zegoen, eta **nahaste** horri, betiereko elementuez osatuari, kaos deitzen zitzaion. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Aran ustelen, kontserbagai garratzaren eta arrautza ustelen **nahaste** baten usaina du gelak. **Josu Zabaleta**

Galtzerdi grisak hemen, horiak hor; gorbatak txartelekin, jakak eta trajeak katalogaturik, **nahaste** nabarmenik ez egiteko. **Xabier Olarra**

Zeren hitzen **nahaste** merketik ezin etor baitaiteke argitasunik... **Joan Mari Irigoien**

Gerta litezke, hizkuntza garatuz gero, hizketaren **nahaste** bitxi eta konplexuak: hitzontzikeriarako joera, kalaka zentzugabea nahiz esaldi eginez betetako hizkera estereotipatua, esate baterako. **Xabier Olarra**

Sentipen aristokratiko eta plebeiozko **nahaste** ezin eramaneko bat. **Josu Zabaleta**

2 norbait, ezkonlaguna ez duen beste norbaitekin haragizko harremanean lotu.

Behinola, herrian agure aberats eta neska batzuen arteko **nahaste** lizun bat gertatu zen batean, [...]. **Koldo Biguri**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jantzi-**nahaste** bitxia zeukan: marradun trajea, gorbata gorrimina, kapa beltz luzea eta purpura-koloreko bota puntadunak. **Iñaki Mendiguren**

Baina ulertezinak ziren margolanak, kolore-**nahaste** bat begi normalentzat. **Xabier Olarra**

Hots-**nahaste** eta hizketa-akatsak. **Oskar Arana**

Jende **nahaste** itzela zen hangoa, besterik ezin. **Karlos Zabala**

Haren eskuak ezin sexyagoak, egundoko ipurdia zeukan, ez dago hitzik maskulinitate eta feminitate **nahaste** hura deskribatzeko. **Karlos Zabala**

Horrela ibili ginen, euri-jasaren mendean, aita, ama eta hiruok, bakoitzak eskolako zorro bat eta erosketetarako poltsa bana zeramala, topetaraino gauza **nahaste** batez beteta. **Josu Zabaleta**

4 gauza bat beste bat-tzat hartzea edo harraraztea.

Ni nintzen **nahaste** haren guztiaren erruduna, eta gaitzetsi egin nuen neure burua Marina errugabeari egindako kalteagatik. **Oskar Arana**

Horrek ez du esan nahi hori dioena gezurretan ari dela, baina esan beharra dago askotan **nahaste** handiak daudela orgasmoaren inguruan. **Luis Elberdin**

Hitzez eta terminologiaz ari garela, interesgarri izan liteke eremu honetako ingelesezko hiztegiarekin izan dezakegun **nahaste** bat aipatzea. **Lourdes Oñederra**

Egia da polizi arduradun batek titadynereña aipatu ziola Ignacio Astarloa Segurtasunerako idazkariari, eta honek ministroari, baina arratsaldeko bostetarako argitu zen

nahaste bat izan zela, *Goma 2 Eco* zela. **Berria - Harian**

Batasunak «**nahaste** estrategia bat» ikusten du argitaratutako albistearen atzean: «**nahaste** estrategia dela uste dugu, eta helburu bakarra dauka: martxoaren 11ren inguruko gezur eraldioa ezkatzea eta Aznarren gobernuak gertakari horietan izandako erantzukizuna estaltzea», adierazi zuen Batasunak, prentsa oharrean. **Berria - Euskal Herria**

Zazpi minutu geroago, ordea, Gary Nevillek Lyongo *Olimpiqueko* atzelarien **nahaste** bat baliatuz sartu zuen lehen gola. **Berria - Kirola**

5 nahasmendua.

Tamalez, hori esateak **nahaste** pixka bat ekarri du epistemologiara. **Askoren artean**

Aldakuntza bi horiek **nahaste** galanta ekarri zuten euskal ortografiara. **Koldo Zuazo**

Orduan filosofia guztia gezur hutsa da, eta arrazoia, berriz, adimenaren **nahaste** bat. **Xabier Olarra**

Gaitz eskizofrenikoak, **nahaste** bipolarrak, eta psikosi organikoak. **Berria - Gaiak**

Horrek, ordea, jainkoaren buru-**nahaste** bat iradokiko luke. **Juan Garzia**

• 6 *adlag* nahasirik. ik **nahasi 12**.

Bi azterketa hauek ezin dira **nahaste** agertu, baina horrezaz gain, buruz buru ere ezin dira egon. **Isabel Arrigain**

Grezian ere, gariarekin **nahaste**, irindurik erabilzen omen zuten baba, ogia egiteko. **Patziku Perurena**

Ezin ditugu onahi eta noiznahi XVI eta XVII. mendeetako hitzak, Zuberoakoak, Errokarikoak eta Arabakoak, denak **nahaste** erabili. **Koldo Zuazo**

Open uztartuek ere, berezko eta amatur **nahaste**, berea segitzen. **Herria**

Atzaparra betean hartzen diat jeneroa, zati handi eta txikiak denak **nahaste**. **Koldo Izagirre**

Muker egiten genuen antzokiaren ondotik iragaitean, ez genuen haboro hanka sartuko bertan, halako asperdura bat ematen zigan, ikaraz **nahaste**. **Koldo Izagirre**

7 *kaka-nahaste iz*

Hik ur garbirik batere atera duk **kaka-nahaste** horretatik? **Aingeru Epaltza**

Hau **kaka-nahastea**, saltsa handian sartzen ari naiz. **Karlos Zabala**

Kaka-nahastea bakar-bakarrik sartu duk, inoren laguntzarik gabe. **Aingeru Epaltza**

-Merezi al du -jarraitu zuen Maizak- **kaka-nahastea** areagotzea hiru mila euro xumeengatik? **Migel Angel Mintegi**

Lehendik ere nahiko korapilo neukala banekien eta **kaka-nahaste** berririk ez zitzaidala komeni erabakitzen nuen batzuetan. **Hasier Etxeberria**

8 *nahaste-borraste (orobat nahasteborraste) iz*

Indiako hiri handietan trafikoa **nahaste-borraste** ikaragarria da. **Gotzon Garate**

Nik ere sekulako **nahaste-borrastea** izan dut gaur. **Mirentxu Larrañaga**

A zer **nahaste-borrastea** datekin! **Patxi Iturritegi**

Nire burua **nahaste-borraste** bat zen. **Juan Martin Elexpuru**

Club-eko zuzendaritzak ez zekien zer egin **nahaste-borraste** hura konpontzekko. **Joxemari Iturralde**

BBBko hirugarren mailan **nahaste-borraste** bat zegoen eman beharra: logika apur bat, beste apur bat etika, ezagutzaren teoria pixka bat... **Joxerra Garzia**

Ez zirudien etxean ezer falta zenik, baina paperen **nahaste-borrastea** kontuan hartuta, ezin zen ezer ziurtatu. **Iban Zaldua**

Hala eraturiko enbrioiak sagu inude batzuen baitan txertatzen; enbrioiak izozten; haiek atzera berotu eta handik urtetara berriro txertatzen, eta horrenbestez belaualdien **nahaste-borraste** bat eragiten. **Juan Garzia**

• **Nahaste** edo borraste, sentsazionalismo hutseko albisteak zabaltzea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nor da egun elebidun? frantsesa eta euskara nahas-mahas erranezinezko **nahaste-borrastea** derabiltzana? **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

buru nahaste (4); **denak nahaste** (3); **kaka nahaste** (6)

nahaste borrate (58); **nahaste borrate bat** (7); **nahaste borrate galanta** (3); **nahaste borrate handia** (6); **nahaste borratea** (31); **nahaste borrateak** (6); **nahaste borratean** (9); **nahaste handia** (5); **nahaste keinua** (3)
sekulako nahaste borratea (4)
kaka nahastea (4); **nahastea egotzi** (3); **nahastea eragin** (3); **nahastea sortu** (3); **sekulako nahastea** (4)

nahastear *adlag* nahasteko zorian.

Hargatik behiala iragarritakoaren egiaztatzea mirakulua zen; profetak berak etsitzen hasiak ziren engoitik, zenbata lau miliar ardi haiek **nahastear** zeudelako. **Itxaro Borda**

nahasteborraste ik **nahaste 8**.

nahasteka 1 *iz* nahastea. ik **nahasketa**.

Hortaz **nahasteka** kezkarria nagusitu zen nire bizitzan. **Matías Múgica**

Nahasteka polita osatu dugu, eta hori funtsezkoa da. **Berria - Kirola**

-Beraz **nahasteka** horrek egin du, pixka bat, hizkuntza baten galtzea... **Menane Oxandabaratx**

Edo berdin arrazoin horien guzian **nahasteka** batek. **Herria**

• 2 *adlag* nahasirik, nahaste.

Edalontziko azken tonika tantak edan nituen, horma urtuarekin **nahasteka**. **Aingeru Epaltza**

Haguna: zurrubiloetan urak airearekin **nahasteka** egiten duen zer zuria. **Xipri Arbelbide**

Gazteak adinekoekin eta zigor luze batzueri kondenatuak gaztigu ttipi batentzat hor direnekin **nahasteka**. **Herria**

nahastekamendu *iz* nahasmena, nahasmendua.

Erregeren gorteetan haur bastartak legezkoekin nahasten dira; halakoetan baizik ez da ezagutu, teilatupe berean, odolena **nahastekamenduek** kideruriko gisa bereko neska-mutil saldo nabarrik. **Aingeru Epaltza**

Hauxe desordena eta hauxe **nahastekamendua** ...! **Joan Mari Irigoien**

Oro zen harrabots eta **nahastekamendu**. **Aingeru Epaltza**

nahastekari *iz* bazter-nahaslea.

Monarkietan lehen tokietara heltzen direnak, maizenik deus ere ez dira, gaizkile kiskil, axpikari girgil eta **nahastekari** xirtxil batzuk baizik. **Markos Zapiain**

Gartzela hartarat aspaldi kondenatuak izan zirenen nigarrak eta intziarik -gaizkileenak, **nahastekarietak** eta gainerako jendailarenak- aditu zituela han barruan. **Joan Mari Irigoien**

nahastekatu, nahasteka, nahastekatzen (*orobat nahastikatu g.er.*) 1 du *ad* nahastu.

Solairua moketa batek gordetzen zuen, eta arrosotai bihurriak eta izarrak **nahastekatzen** ziren haren irudietan. **Karlos Zabala**

Lurra, belar iharra, haize askea, zeru zabala **nahastekatzen** ziren haren usainean. **Karlos Zabala**

Orokorki, Iparraldean, mezetan bi hizkuntzen **nahastekatzeko** hautua egin zen. **Herria**

Herrialde askotako musikak trebeki **nahastekatuz**. **Herria**

Behin baino gehiagotan amestu nuen, atsegina eta izulaborria **nahastekaturik**, atzipetzen ninduten eguna. **Aingeru Epaltza**

Ondarlarren hilobiak eta luzaidarrenak **nahastekaturik** daude, anaitasun haundienean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

2 (era burutua izenondo gisa)

Beltza, **nahastekatua**, edo Jainkoak daki nolakoa. **Pablo Sastre**

nahasteke *adlag* nahasi gabe.

Leku hura non ludi osoko leku guztiak baitaude, **nahasteke**, angelu guztietatik ikusirik. **Juan Garzia**

Hire agindua duk soil-soilik biziko ene garunaren liburu eskerga horretan, txikierioekin **nahasteke**. **Juan Garzia**

Zerbitzariekin eseri ziren, batzuen eta besteen arteko maila-desberdintasuna erakusteko, baina, hala ere, ezin bestela, elkarrekin **nahasteke**. **Felipe Juaristi**

nahastezin (*31 agerraldi, 18 liburu eta 4 artikulutan*) *izond* beste bat-tzat ezin har daitekeena. ik **nahasezin 2**.

Marihuanaren urrin **nahastezina** auto bameko zoko guztietara hedatzen ari zen. **Aingeru Epaltza**

Harekin, bertez gizaseme bat, uniformerik ez eraman arren, zomorroi kirats are **nahastezina** kutsatua. **Aingeru Epaltza**

Hindenburg zeppelinaren irudi **nahastezina** ikusten zen egunkariaren azalean. **Anjel Lertxundi**

Eskumako eskuan zekarren fusila, eta jakaren ezker poltsiko gainean, izar urdin eta marra gorri jositako txaplataren inguruan, Estatuko baso-guarden ezaugarri **nahastezina**. **Joxemari Urteaga**

Bulegoko atea jo bezain laster entzun zen "aurrera" **nahastezin** bat, barrukoa aspalditik zain eta kanpoan nor zegoen jakin balu bezala. **Joxemari Urteaga**

Han zegoen, hain sendoa, berezia -**nahastezina** -, hain etxekoa batez ere. **Ramon Saizarbitoria**

Jende aldra haren artean **nahastezina** egin zitzaidan Elenaren ekilibrista gorputza. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
ezaugarri nahastezina (3)

nahastikatu ik **nahastekatu**.

nahastura 1 iz zenbait gai nahasiz sortzen den gaia.

Goma hutsak baino iraupen hobea du **nahasturak**, eta hamar edo hogeai aldiz erresistentzia mekaniko handiagoa. [Irene Aldasoro](#)

Aire garbiaren eta kutsatuaren **nahastura** hori da alboelotara iristen dena eta odolari oxigenoa ematen diona. [Irene Aldasoro](#)

Nahastura hori berotan moldatu, eta gai gogor, arin eta merke bat ateratzen zen. [Irene Aldasoro](#)

2 irud/hed

Espanglish deitzen den **nahastura** horren inguruko zenbait argibide. [Pello Salaburu](#)

Asian, non industri iraultza exotiko batek, Mendebaldeko ekonomi ekimen desegokiak bizkortua, sozialki artean suberatu gabeko komunitateen **nahastura** geografikoa eragin baitzuen bere ekonomi laberako giza erregai biltzeko prozesuan. [Iñaki Mendiguren](#)

Motorrak isuri berria zuen oihaneko **nahastura** kakofoniko hura. [Oskar Arana](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etorri zen Nikodemo ere [...] hogeita hamarren bat kiloko mirra- eta alo- **nahastura** zekarrela. [Elizen arteko biblia](#)

Gainerakoan, ia kolageno hutsa da hezurra; aminoazido- **nahastura** bat da kolagenoa, eta hezurak egosten direnean lortzen den kola eratzten du. [Irene Aldasoro](#)

Nola Ama Birjina agertu zitzaion hilzorian zegoen anaia bati ezti- **nahasturazko** hiru ontzirekin eta nola sendatu zuen. [Askoren artean](#)

Uste duzue Fredek labezomorro- **nahastura** pixka bat hartuko lukeela, kakahueteak direla esango banio? [Iñaki Mendiguren](#)

Gainera, bidaiari bat baino gehiago kexatu egin zitzaion usain- **nahastura** haietaz. [Iban Zaldúa](#)

nahasturatu, nahastura(tu), nahasturutzen da *ad* aleatu.

Kobrearekin **nahasturutzen** delako brontzea emateko, [Juan Garzia](#)

nahi 1 iz (zerbait) nahi izatea; norbaitek nahi duen zera, zerbait egiteko gogo edo asmo finkoan gauzatzen dena. ik nahikara; desira; borondate; gurari; gutizia

Egin bedi zure **nahia** zeruan bezala lurlean ere. [Askoren artean](#)

Egunero behar dela eskatu egin dadila Jainkoaren **nahia**. [Joan Mari Lekuona](#)

Kostata bete nuen aitaren **nahia**. [Ramon Saizarbitoria](#)

Haren **nahiak** betetzen hasiak zirela uste dut. [Antton Olano](#)

-Hildakoen **nahia** sakratua da -esan zuen ahots solemnez-. [Koldo Biguri](#)

Nire amaginarrebaren eta emaztearen **nahia** eta, **nahia** baino gehiago, beharra zelako. [Ramon Saizarbitoria](#)

Bistan da enpresaburuen **nahiak** eta unibertsitateko irakasle-ikertzaileen ez datozela beti bat. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

Nire **nahi** hori alferrekoa zen. [Josu Zabaleta](#)

Sentipen berekoi, itsu eta absolutua da maitasuna, bere **nahi** hori besterik ikusten eta errespetatzen ez duena. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Batzuetan **nahia** edo desioa izaten da gida hori, eta "nahi duguna" ikusten dugu, ez agian dagoena. [Bernardo Atxaga](#)

Gauza harrigarria! San Frantzizkok otoitz egin eta handik egun gutxira, Jainkoak **nahi** hori ipini zuen handikiaren bihotzean. [Askoren artean](#)

Atzodanik alferretan ari naiz baliabideren baten bila: haatik **nahi** hori ez dezaket mendera. [Jon Muñoz](#)

Ez baitzuen **nahi** hura beste inork adi zezan. [Edorta Jimenez](#)

-Berdin zagok hilik edo bizirik, heure **nahiaren** arabera, heure esku daukaku-eta hiltzea edo bizirik uztea. [Juan Kruz Igerabide](#)

Lortu egin beharko baitu, nire ustez, **nahi** hutesz lor dezakeena. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Gaia desbideratu **nahi** hutsagatik bere tentsio kontuak solasera ekartzea zitakeria iduritu zitzaidan. [Aingeru Epaltza](#)

Hemen egon naizen eta nagoen denbora guztian konfiantza, maitasun eta txera izan **nahi** handi bat sentitu dut. [Josu Zabaleta](#)

Kontsumitzaileari "zaletasun eta **nahiak**" manipulatu dizkio etekinak ateratzen dituen industria kapitalistak, inongo eskrupulurik gabe. [Edorta Agirre](#)

Nahia versus errealitatea. [Ana Urkiza](#)

2 (-tzeko atzikiaren eskuinean)

Errealitatek desirara salto egiteko **nahi** bat. [Iñaki Iñurrieta](#)

Haiek ere beren santu izateko **nahi** zintzoan honelako zerbait egin zutela. [Askoren artean](#)

Aldi berean, gauzak ondo egiteko **nahi** ertsiezina eta obsesiboa izaten dute, beste guztiak bezala izatekoa, beste emakumeak bezala izatekoa. [Luis Elberdin](#)

Zeren, karbono-dioxidoa biriketan pilatu ahala, mekanismo automatiko bat abiarazten baita, arnasarik ez hartzeko **nahi** kontzientea baino indartsuagoa. [Irene Aldasoro](#)

Ondorioz, arima erlijiozkoan sortzen da arretaz azterketa egiteko **nahi** pietatezkoa. [Joan Mari Lekuona](#)

Pentsatu nahi dut, hasitakoari nola edo hala akabaila emateko **nahiak** horretaratut ninduela. [Aingeru Epaltza](#)

Egia esan, oso erraza zitzaion lorategian ezkutuka zebilen gizonari nahi zuena egitea bere helburua lortzeko **nahian**. [Aitor Arana](#)

3 (aditzaren baten era burutuaren eskuinean)

Aise ulertzekoa da irrika eskopikoaren kontzeptu hau, ikusi beharra eta begiratu **nahia** lotzen dituen. [Josu Zabaleta](#)

Keinu hori, hurbiltzea eragotzi **nahia** adierazteko egina dirudiena. [Ramon Saizarbitoria](#)

Azken finean, bere maitasuna lortu **nahiak** eraman ninduen Serranoko hotelera. [Ramon Saizarbitoria](#)

Zeren ahaztu **nahi** hori ere, sentimenduak ohi direnez, kontraesantsua baita errotik. [Juan Garzia](#)

Imitazioa baino "harago" iritsi **nahia**, irudiari ikusi ezin daitekeena [...] irudikatzen iristeko aukera ematea, alegia. [Josu Zabaleta](#)

Denbora ziklikora itzuli **nahia** da hori. [Iñaki Iñurrieta](#)

Eta plazerra ezagutu **nahiak** gozatu **nahia** ekarri zuen. [Jon Muñoz](#)

Agian agindu- **nahi** hura, baikortasun hura, alderdi praktikoa hura. [Anton Garikano](#)

Jakinmina ez zen epailearena soilik, gizonarena ere bazen gauzak nola eta zergatik gertatu ziren ulertu **nahi** hura. [Hasier Etxeberria](#)

Zu zerk mugiarazten zaitu: zalantzak, jakin nahiak, erakutsi **nahiak**...? [Ana Urkiza](#)

Donostiako manifestazio erraldoian nabaritutako adiskidetu **nahi** hura ere lokatz bihurtuko da. [Bernardo Atxaga](#)

Larrutik ezagutzen ditut nire herritarren izaera bekaizeriazkoa, dena jakin **nahia** eta arau betikoetatik urrutiratu ezina. [Anjel Lertxundi](#)

Azken beltzean, izen xixtrin batekiko atxiki- **nahia** (eta geronen izenarekiko ahantzi- **nahia**) da amodioaren indar kosmikoa gutzia. [Iñaki Seguroa](#)

-Bai, zeren eta zure herria ezagutu **nahia** dut. [Janbattitt Dirassar](#)

Aldi batez izan zen bat, besteak baino itsusiago agertu **nahia**. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Badaki akatsa eta hutsunea baliagarriago zaizkiola edozein osotasun **nahia** baino. [Joseba Zulaika](#)

Eta gauero haurraren ilura- **nahiak** irabazi egiten dio amaren nekeari, etzanaukiak ordu horretan bertan igortzen dion atsedeen-eskaintza atzenez. [Pako Aristi](#)

Albiste bakoitzean munduarengatze eta bake **nahiaren** aurpegi aratzean barbero labanaz irekitako ebakia iruditzen zaio. **Pako Aristi**
Gero eta itogarriagoa sentitzen hasita nengoen Adaren jokabide babes- **nahi** hura. **Anjel Lertxundi**
Ikusi egiten duzu adostasun **nahia**, irakurle gehienekin ondo konpondugurea... **Iñigo Aranbarri**
Leialtasun- **nahi** handi bat sentitzen zuen. **Josu Zabaleta**
Gizaki guztien elikagai- **nahia** giza urdailaren neurri txikiak mugatzen du. **Iñaki Heras**
Ez zuten uste halako jorreketa filologikoetan beren literatur **nahia** asetzeko biderik izango zutenik. **Iñaki Iñurrieta**
Ez dakit, baina segur aski egongo da espainolena baino kolektibizazio **nahi** handiago bat. **Iñigo Aranbarri**
- Animaliak buru-kolpeka adierazten zion bere ez- **nahia**. **Aingeru Epaltza**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Aurki asko ikusi nuen ederra bezain diru- **nahia** zela. **Matías Múgica**
Betidaniko ardura hori ez da gainera itxurakeria hutsa edo hitz-jario zuri- **nahia**. **Andoni Egaña**

6 **nahian** (3001 agerraldi, 241 liburu eta 893 artikulutan; orobat **nahiean** g.er.; aditzaren era burutuaren eskuinean) ik behe-rago 9.

Zenbat ez ote ziren hil bere familia aurkitu **nahian**. **Pello Salaburu**
"Oso gizon zintzo eta jakintsua da", gaineratu nuen azkar, gaizki esana zuzendu **nahian**. **Bernardo Atxaga**
Guziak harri huts hutsez egin eta, menderik mende, denbora harritu **nahian**! **Patziku Perurena**
Liburutegira begira jarri zen, asmatu **nahian**: Houghton, Georgiana Houghton, nik uste... **Iñaki Iñurrieta**
Hatzeko eraztuna erakutsi **nahian** ari zela ematen zuen. **Bernardo Atxaga**
Sonja, beldurrez zuri-zuri, Weiner negartia zaindu **nahian** ari zen. **Anton Garikano**
Begiak itxi eta gogoratu **nahian** jardun nuen; alferrik, baina. **Joxe Austin Arrieta**
Kafe etxearen sarbidean, langile bat irrati aparailu higatu eta zahar bat horman egokitu **nahian** zebilen. **Patxi Zubizarreta**
Baina gaur haizea bi anaien ahozeruan mezu berri bat itsatsi **nahian** dabil goiz-goizetik. **Pako Aristi**
Salbazio pribatuaren gisako zerbaite lortu **nahian** zabilta? **Oskar Arana**
Hantxe gelditu zen begiak gora jiratuak eta oinak altxatuz ibilian bezala baina bertatik mugitu gabe eta keinu batez belarrietan hazka eginez, burutik bereizi **nahian** -edo. **Karlos Zabala**
-Ni mehatxatu **nahian**? **Patxi Zubizarreta**

7 **nahiean** ik gorago 6.

8 -en **nahira** (orobat **nahiera** g.er.) -en borondatera. ik **nahitara** 2.

Ez dago irakurleari den-dena zertan azaldurik, irakurleak berak beteko ditu bere **nahira** narrazioak uzten dizkion hutsuneak. **Iñigo Aranbarri**
Eta, horrela, kausen kausak bilatzetik ez dira geldituko Jainkoaren **nahira** ihesegiteraino, erran nahi baita ezjakintasunaren aterbera jo artino. **Piarres Xarriton**
Eta semearen gogo bere **nahira** makurtuko zuela pentsatuz, lehenengo hitzez eta gero zigorkadez eta katez saiatu zen. **Askoren artean**
Iragana geroaren **nahira** makurtzea, horixe da modernotasunaren berezitasuna. **Joseba Zulaika**
Baldin arrazoi horiek ez bazaituzte nire **nahira** erorarazten, Cécile, ez nauzu maite nik maite zaitudan bezainbat. **Jon Muñoz**
Eta egiaz hala gertatu zen, Inozentzio jauna, munduko zuhaitzik goren eta altuena, Frantziskoren eskakizun eta **nahira** halako onberatasunez makurtu zenean. **Askoren artean**

9 **nahirik** (621 agerraldi, 132 liburu eta 53 artikulutan; aditzaren era burutuaren eskuinean) nahian.

Bakezkoak egin **nahirik** etorri zitzaion. **Aingeru Epaltza**
-Eta? -galdetu zion aitak, nola geldituko nintzen jakin **nahirik**. **Juan Kruz Igerabide**
Marmar egin zuen katuak, galdutako babesa eskuratu **nahirik**. **Anjel Lertxundi**
Farringtonen begi uher astunek zehar-begirada bat luzatu zioten lagun-taldeari, txantxetan ari zitzaizkiola ulertzen zuela erakutsi **nahirik**. **Irene Aldasoro**
Bere arrazoiei indarra erantsi **nahirik** -edo, ezpainak busti zituen mihi puntaz. **Aingeru Epaltza**
Zorroan eramaten da erregeen aurrean, gutxitan atera behar dela adierazi **nahirik** bezala. **Juan Martín Elexpuru**
Zirkulua egina zioten ingurukoek, "hau izan da!" adierazi **nahirik**. **Koldo Izagirre**
Hankaz gora jar dezakeelako ustez osatu **nahirik** gabiltzan puzzlea. **Iñaki Iñurrieta**
Jaka arina, azpian elastiko kolore bizikoa eta biribilguneak ongi markatzen zizkieten praka malguak janzten zituen; haien barruan aldakak zabunka eta bularrak itxialditik alde egin **nahirik** zebilzkion. **Migel Angel Mintegi**
Zorroan eramaten da erregeen aurrean, gutxitan atera behar dela adierazi **nahirik** bezala. **Juan Martín Elexpuru**
Espetxeratu baino lehen zapaldu zuten azken gailurretik ikusten ahal den paisaia oroit **nahirik** egoten dira. **Koldo Izagirre**

10 **nahita** ik **nahita**.

11 **nahizsup_1** (aditzaren era burutuaren eskuinean) nahian, nahirik.

Bizia salbatu **nahiz** joana zen ihes, eta, nonbaiteko xantza makurra, horra non galtzeko irrisku haunditan zegoen! **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Asko zituen sendatuak, eta gaitzen bat zuten guztiak gainera zetozkion ukitu **nahiz**. **Elizen arteko biblia**
Norbait, Jainkoak argiturik, gure bizimodu hau hartu **nahiz**, guregana baletor, abadesak ahizpa guztien oniritzia eskatu behar du. **Askoren artean**
Orduan, askatu egin zuten, senide haiek salbatu **nahiz**. **Elizen arteko biblia**
Ondasunen jabetza bermatu **nahiz**, agindu zuen notarioak zin egin zezala jabetza-titulua ez zela izuna. **Iñaki Iñurrieta**
Noiz nahi aurpegia bi eskuekin estaltzen zuen eta ileak gibelera tinkatzen, zerbaite gisaz lasaitu beharrez eta beldurrari nagusitu **nahiz**. **Eneko Bidegain**
Gure platerak non sartu ditugun asmatu **nahiz** ari da beti. **Josu Zabaleta**
Bizkitartean nahi nuke oraino Québec-en, Euskal Herrian edo beste eskualde anitzetan eskuratu edo berreskuratu **nahiz** dabilzan boterearen ideia itzuli, zeren aipatu dugun aitzineko nozio hartaz besterik badela irakats bailiezaguke Hannah Arendtek. **Piarres Xarriton**
-Gure mintzaia **nahiz** galerazi ari dirade lanian. **Piarres Xarriton**

12 -en **nahiz**² -en borondatez.

Bere **nahiz** eri denari, nork emanen dio osagarri? **Xipri Arbelbide**
Beren **nahiz**, gogo garbiz eta betiko ondasunen egarriz, lurreko ezeren jabe ez direnek, berena dute eskubide osoz zeruetako erreinua. **Askoren artean**
Deportatu batek, Maximilien Kolb fraideak, bere **nahiz** hartu zuen aita familiako baten lekua hiltzera joaiteko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Bitxia da nola Estatuaren **nahiz** klase, alderdi eta erakunde ofizial guztien alderako hautu erosoa, "arriskuan bizi", "abentura maite" eta halako diskurtso zuriaren pean estali nahi izaten den. **Joxe Azurmendi**
Rozinarteren hanketara erori zen halabehararren **nahiz**, oraindik lurrean baitzegoen altxatu gabe. **Patxi Ezkiaga**
Ez baldin bada kausa horrengatik ez eta Jainkoaren **nahiz** erori harria, nola bada bildu dira zortez horrenbeste baldintza? **Piarres Xarriton**
Zertan huts egin dut zure **nahiz** zure funtzionarioen edo herriaren kontra, ni kartzelan sartzeko? **Elizen arteko biblia**

13 **nahiz**³ ik **nahiz**.

14 -en **nahizko** izlag -en borondatezko.

Egun batez, heien ezinbertzea zena ala beren **nahizko** erabakia, xuxena ez nakike, Mixel Itzaina eta ni sartu ginen mahiburuan, bi heiek utzi lekuan. **Herria**

15 **azken nahi** ik **testamentu**.

Makinaz idatzitako hamabi zenden tolesturik barruan, **Azken Nahia** eta Testamentu bat zen, Flynn-eko Court Street kaleko abokatu-bulego batek prestatutik. **Oskar Arana**

-Hona bilarazi zaituztet, gure aita maite zenaren **azken nahia** zuei jakinarazteko. **Josetxo Azkona**

Bete ezazue nire **azken nahia** : Fubuki izan dadila nire hiltzailea. **Joxan Elozegi**

Lanak eman zizkidan haren **azken nahia** betetzeak. **Bego Montorio**

Matatiasen **azken nahia** eta heriotza. **Elizen arteko biblia**

Sara, amonaren **azken nahia** betetzeko, itzuli egin zen. **Joan Mari Irigoien**

· p/ Bere **azken nahietan** aginduaren kontra lur eman baitzioten gainera. **Josu Zabaleta**

Zeren, pastel hartako zati bat eskuratzeko kezkatan zegoenez, hildakoaren testamentu-betearazle izendatu baitzuen bere burua, haren **azken nahien** hartzaile fidel, haren agindu guztien betetzaille zorrotz. **Bego Montorio**

16 bizi-nahi ik bizinahi.

17 gora-nahi ik goranahi.

18 handi-nahi ik handinahi.

19 jakin-nahi ik jakin-nahi.

20 nahi adina (**242** agerraldi, **98** liburu eta **74** artikulutan)

Han idatzitakoa negatibo gisa geratuko zen grabatuta, eta hortik **nahi adina** kopia aterako genuen gero. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nahi adina arrautza aurkitzen du han batek. **Juan Garzia**

Orain, **nahi adina** denbora gera naiteke hirian. **Jose Morales**

- **Nahi adina** toki dago -erantzun nion erresumin pittin batekin. **Bernardo Atxaga**

Paper-orri puska batean **nahi adina** leku izango zuen bere demostrazioa zehatz-mehatz idazteko. **Jon Muñoz**

Eremita batek edo fraile errariak utzi litzake ile bizarrak **nahi adina** luze eta zikin, jainkoagana luzatzen baitzaizkio beti. **Patziku Perurena**

Ez nion **nahi adina** min eman. **Aingeru Epaltza**

Asko eta kasik **nahi adina** luza liteke esateko moduen zerrenda. **Iñaki Segurola**

Hartu, eta egin tiro, **nahi adina** . **Juan Kruz Igerabide**

21 nahi adinako izlag

Bileran ura oinarrizko eskubide gisa aldarrikatzeko presioa egiten saiatu dira, baina ez dute **nahi adinako** indarra izan. **Berria - Gaiak**

Zihigatik 649 kilometrora dagoen espetxean, furgonak garestiak dira eta ez daukate **nahi adinako** presuposua... **Koldo Izagirre**

Egoera batetik besterako aldaketa era askotara egin dezakegu, eta nahi adina biribil hertsu gehi ditzakegu, **nahi adinako** luzerakoak. **Itziar Laka**

Nahita ere nire besarkada ez litzatekeelako nik **nahi adinako** , zuk merezi bezalakoa. **Xabier Mendiguren Elizegi**

22 nahi ahala

Ordurako bazekien dotorezia handiz negar egiten, betazalak hondatu gabe, eta **nahi ahala** . **Josu Zabaleta**

Horiatariko batzuen ganean erran-merran franko ibiliak ziren hirian: **nahi ahala** haragi fresko omen -ez bakarrik plater barnean-, eta halaber hauts xuria nasaiki, sudur zuloen alaiagarri. **Aingeru Epaltza**

Iritsi duk Garcia horren jauregira, berak **nahi ahala** guzia urratu, ebatsi eta sutu dik. **Patziku Perurena**

23 nahi ala ez nahitaez.

Joan beharko dute, **nahi ala ez** , lruñera, hango militarren aitzinera, haien manueri jarraikitzeke. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Eta **nahi ala ez** hola gertatzen ari da. **Herria**

Bai, bizia arrunt desberdina denentzat eta, **nahi ala ez** , heldu zen bezala hartu behar... **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Laborantza Ganbara, **nahi ala ez** , da frantses erakunde bat. **Herria**

Orain adituko zidan, **nahi ala ez** . **Aingeru Epaltza**

24 nahi beste (**128** agerraldi, **56** liburu eta **37** artikulutan; orobat **nahibeste g.er.**) nahi adina.

Bizi zintezke, beraz, **nahi beste** mendetan. **Xabier Amuriza**

Paduretako lohietan apur bat aurtuztea aski izaten da **nahi beste** zizare lortzeko urte guztian. **Hasier Etxeberria**

Zilegi baitzen, betiere, **nahi beste** alkohol eskuratzeko. **Mirentxu Larrañaga**

Lauretan puntuan helduko da; zazpiak arte afalduko ez dugunez, **nahi beste** denbora izango dugu berriketarako. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Oraindik ere **nahi beste** indar bazuela beste edonori aurre egiteko. **Josetxo Azkona**

Lagun hurkoaren mahastian sartzen bazarete, **nahi beste** jan dezakezue; baina ez bildu ezertxo ere saskian. **Elizen arteko biblia**

Hau nire etxea da, eta **nahi beste** hitz egingo dut hemen! **Xabier Paya**

Alferrik jardungo nuen **nahi beste** oihuka eta garrasika... **Joxe Austin Arrieta**

Jaiégun eta gainerako festaburuetan berrogei kilo irin eskainiko dira labore-oparizat zezen bakoitzeko, eta beste horrenbeste ahari bakoitzeko; arkumeengatik, berriz, **nahi beste** . **Elizen arteko biblia**

25 nahi besteko izlag nahi adinako.

Nahi besteko dotea eta emaitza, eskatzen didazuena, emango dizuet; baina emadazue neskaxa emaztetzat! **Elizen arteko biblia**

Baina orduan ere Sarak ez zuen **nahi besteko** erantzunik jaso. **Joan Mari Irigoien**

Nire gogoeta, hitz, egite eta ez egite guztien epailea ez dela lege bat, **nahi besteko** unibertsa izango bada ere. **Jenaro Garate**

26 nahi bezainbat (**23** agerraldi, **13** liburu eta **7** artikulutan) nahi adina, nahi beste.

Horrela, bada, **nahi bezainbat** zedro eta zipres-zur eman zion Hiramek Salomoni. **Elizen arteko biblia**

Nahi bezainbat gizon ditut. **Patxi Zubizarreta**

Gasna, laranja, eta ura **nahi bezainbat** . **Piarres Aintziart**

Lantegian lo egiten genuen, lankideekin, mahaiaren ganean, gauerditik 5:30ak arte gero gure block-ean sartzen ginen 6:30etan hola egun guzia banuen **nahi bezainbat** pausatzeko. **Marzel Etxehandi**

Leku goxo eta lasaian asti guztia dute eztabaidak **nahi bezainbat** sakontzeko. **Berria - Euskal Herria**

Prefetak gauzak **nahi bezainbat** konplikatu ditzake, baina gertatuko dena ez da baitezpada berak nahi duena. **Berria - Harian**

Kasino bateko buffetera sartu, eta **nahi bezainbat** -xanpaina barne- kasik hutsaren truke jateko aukera izateak ere harritu egin gaitu. **Patxi Zubizarreta**

27 nahi bezala

Nahi bezala janzterik ez badugu, zertarako bizi? **Patxi Zubizarreta**

Ximurak **nahi bezala** egin nuen. **Aingeru Epaltza**

Lagun kutuna, zenbat edertasun! utzidazu eurretan **nahi bezala** ibiltzen, utzidazu musuz estaltzen. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nahigabearen nahigabez, oheratu egin behar izan zuen, gauzak **nahi bezala** atera ez zitzaizkiola eta. **Elizen arteko biblia**

Guk, gainera, ez ditugu mesedeak, edo lan onak (**nahi bezala** esazioz) erraz ahazten. **Migel Angel Mintegi**

Zuk, ordainez, janariz hornituko didazu etxea, nik **nahi bezala** . **Elizen arteko biblia**

Saito jaunak aintzat hartua zuen Johnson jaunaren erabakia eta, hark **nahi bezala** , golfean ariko zen berarekin. **Joxan Elozegi**

Haatik gauzak ez ziren berak **nahi bezala** itzulikatu eta Frantzia behere horretan higitu zituen azken urteak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baietz dena Jainkoak **nahi bezala** amaitu, bat ere itzulirik gabe. Patxi Zubizarreta

Eta **nahi bezala** erabiltzen ninduen, zeharo bere gogora. Aitor Arana

Gainerakoan, **nahi bezala**. Josu Zabaleta

28 nahi bezalako izlag

Metodo horrek ez luke, ordea, **nahi bezalako** emaitzarik izango. Irene Aldasoro

Horrekin esan nahi dizut zuk **nahi bezalako** erantzunik ez emateak ez duela zerikusirik ni norbaitekin ateratzearekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Egiazki Jesusek **nahi bezalako** Eliza izaiteko, fededunek eta heien buruzagiek ez dute ahantzi behar Izpiritu horri behatzea eta horren deiarri jarraitzea. Herria

Jainkoak ematen dio haziari berak **nahi bezalako** forma, bakoitzari dagokiona. Elizen arteko biblia

Izan ere, partida batzuetan ez dugu lortu **nahi bezalako** jokoa egitea. Berria - Kirola

29 nahi eta nahi ez (27 agerraldi, 16 liburu eta 2 artikulutan; orobat nahita nahiez g.er. eta nahitanaiez g.er.) nahitaez.

Nahi eta nahi ez, aste barruan partida bat jokatzeak igandeko kaltea dakar. Berria - Kirola

Aizu, **nahi eta nahi ez** ikusi behar duzu! Antton Olano

Beraz, **nahi eta nahi ez**, bat egin behar zuten denek, eta ados jarri. Jose Morales

-Lorrerera joan beharra dugu, **nahi eta nahi ez** -esan zion ontziburuari-. Edorta Jimenez

Esnea amaiturik teak limoiaz behar zuen **nahi eta nahi ez**. Joxemari Iturralde

Behin egitura sortuz gero, aurrera egin behar delako, **nahi eta nahi ez**. Ana Urkiza

30 nahi eta nahi ezko (orobat nahi eta ezko) izlag

Hain prezio handitan lortutako askatasunak, merkatalgorako askatasun bakar eta **nahi eta nahi ezkoak** bilakarazi ditu. Iñaki Heras

Akordio horrek **nahi eta nahi ezkoak** izan du Europa eta nazioarteko komunitatearen babes eta bermea. Berria - Euskal Herria

Nahi eta nahiezkoak da zigorrak beren artean oreka gordetzea, **nahi eta nahiezkoak** delako delitu larria saihesten ahalegin handiagoa jartzea, delitu arina saihesten baino, gizartea asko samintzen duena, gutxi samintzen duena baino. Berria - Euskal Herria

30a nahi ezik borondaterik gabe.

Ez dakit orduan topatu izan ez banu sekula esanen niokeen, **nahi ezik** irten zitzaidala esanen nuke, gerrak aldatu egiten gaitu denok. Koldo Izagirre

Pentsatu genuen Antoniok ez zuela inoren dirua **nahi ezik** utziko. Bernardo Atxaga

Halako beroaldi bizian ekin ere, fraideak nahita bere burua lurrera bota ez balu, **nahi ezik** beharko zuen lurrera erauzia. Patxi Ezkiaga

31 nahi gabesup_1 (orobat nahigabe g.er.) adlag

Baina **nahi gabe** izan da. Bernardo Atxaga

Nahita edo **nahi gabe** hasitako maitasun istorioak izanda ere, ezin dira ezabatu. Harkaitz Cano

Nagusia sinetsarazi nion **nahi gabe** egindako akatsa izan zela. Oskar Arana

Eta gertatu zen Adjib, **nahi gabe**, bere aitaren denda aurretik igaro zela. Patxi Zubizarreta

Batzuetan, **nahi gabe**, irrist egiten da; nor ez du noizbait mihiaz huts egin? Elizen arteko biblia

Irten, eta nire gogoz kontra, ohartu gabe, **nahi gabe**, hilerrirantz joan nintzen. Josu Zabaleta

Gure protagonistak, **nahi gabe** urrats bat atzera egin, eta tinko begiratu zion. Jose Morales

Gizon batek **nahi gabe** emana zuen sua. Leher eginda erori ginen ohe gainean, eta loak hartu ninduen, **nahi gabe**. Herria

-Travelling bat! -atera zitzaidan **nahi gabe**. Anjel Lertxundi

Behin Edith-i senar-emazte arteko gure liskarrak garratzenetako batean bota nion harako esaldi **nahi** gabe sakon eta ia mistiko hura: sinetsitakoan ikusiko dut. Oskar Arana

32 nahi gabe² ik nahigabe.

33 nahi gabeko izlag

Nahi gabeko oporretan nengoela ere atzendu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Nahi gabeko mihi-trabatze horren ostean, Rachelek ontzat emango zukeen ideia bat otu zitzaidan. Oskar Arana

Izan ere, Vioksen **nahi gabeko** ondorioak ez ziren gainerako botikenak bezain gogorrak. Berria - Gaiak

1996. urtean, Lyongo Apelazio Auzitegiak **nahi gabeko** hilketa egin izana leporatu zion Golfier ginekologoari. Berria - Gaiak

Horren ondorioz datoz gero hainbat **nahi gabeko** haurdunaldi. Luis Eiberdin

34 nahi hainbat (19 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan) nahi adina.

Egungentian, ordea, zelaian agertu zen Judas hiru mila gizonekin; baina ez zeukaten **nahi hainbat** babeski eta ezpata. Elizen arteko biblia

Hedabide berriek sortu dizkiguten aukerek gainera, bertso-paperak gutxienik bi motatakoak direla onartzera garamatza: behin entzun eta bat-batean ulertu eta gozatu beharrekoak, eta **nahi hainbat** aldiz eskuetan hartu eta geuk kantatuz gozatzekoak. Andoni Egaña

Nahi hainbat simulatu dezakete saio garrantzitsu baten aurretik. Andoni Egaña

Zenbat har ditzaket, aita?; **nahi hainbat**, maitia. Eider Rodriguez

35 nahi hainbateko izlag

'Mediku lez, nik jada lizentzia emango nioke,' **nahi hainbateko** poza eman dit Imanolek. Joseba Sarrionandia

36 nahi izan, nahiko (2920 agerraldi, 226 liburu eta 275 artikulutan; orobat nahi izango 478 agerraldi, 74 liburu eta 38 artikulutan) du ad zerbait egiteko, eginarazteko, lortzeko... asmo edo xede erabakia izan. ikgura 2; nahikatu; desiratu. (objektua izen sintagma edo kideko bat bat denean)

Gose dagoen jendeak ogia **nahi du**, ez hitz politikak. Koldo Biguri

-Ez, zuen karnetak **nahi** ditiat. Antton Olano

Zerorrek aukeratu..., nolako historia **nahi** duzu? Antton Olano

Urteko lehen garaipena **nahi** du Osasunak Iruñean. Berria - Kirola

Gaztigatu genien aldaketa **nahi** genuela. Pello Lizarralde

Bakea **nahi** baduk, gerla prepara ezak! Piarres Xarriton

Nik **nahi** ala ez, judu herratu bat nintzen. Anjel Lertxundi

ik gorago 22.

Horren ordez Nixonopil bat **nahi**? Oskar Arana

Goazen **nahi** duan lekura. Karlos Zabala

Bi sotesan emango dizkiat, **nahi** baduk. -Zer **nahi** duzu, emakumea? Karlos Zabala

Ba, nik ere antzeko zerbait **nahi dut**. Bernardo Atxaga

Hori bada **nahi** duana, pisu galanta kenduko didak gainetik. Anjel Lertxundi

Hik **nahi** dunana egingo dinagu... Antton Olano

37 (objektua du motako aditz ez jokatu bat delarik).

Mesede bat eskatu **nahi** dizut, ez ukatu. Elizen arteko biblia

-Tira, hitz egin **nahiko** zenioke? [Ibon Uribarri](#)

Benetako musika entzun **nahi** diagu! [Anjel Lertxundi](#)

-Ez dut berriro ezkontzaren ospinetik edan **nahi**! [Patxi Zubizarreta](#)

Afalordua da, eta ez dut Rosario bakarrik utzi **nahi**. [Bernardo Atxaga](#)

Nik espektroaren erdiko puntu batean jarri **nahi** dut, egia hantxe dagoelakoan nagoenez gero. [Xabier Kintana](#)

Bezeriari begirik kendu gabe, bere presentziak haiengan zuen eragina ziurtatu **nahi** balu bezala. [Patxi Zubizarreta](#)

Banekien hori entzun **nahi** zuela. [Ramon Saizarbitoria](#)

Horra hor imitatu **nahi** nauten emakume guztiei gomendatuko niekeen jokaera. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Izorratu **nahi** nauk, ala? [Aingeru Epaltza](#)

Adarra jo **nahi** al zion? [Migel Angel Mintegi](#)

Ez al duzu beraz hitz egin **nahi**? [Antton Olano](#)

Ez nuen berriro Shakespeare-ri buruzko ikastarorik egin **nahi**. [Oskar Arana](#)

Azpian geundenok, hain gaizki geundenez, gainean genuena kendu **nahi** genuen. [Pello Lizarralde](#)

38 (objektua da motako aditz ez jokatu bat delarik).

Pobreetan pobreea izan **nahi zuen**, denen mendeko eta zerbitzari. [Askoren artean](#)

Ikasketetan nabarmendu egiten zen eta zientzialari edo doktore izan **nahi** zuen. [Oskar Arana](#)

Davidek nirekin etorri **nahi** zuen bilerara, baina ezetz esan nion. [Oskar Arana](#)

Etorri **nahi** duenak abisa beza angailari edo Lurdeko erizain bat. [Herria](#)

Hala ere, pasatzera ausartuko naiz; baina zaldiek ez dute sartu **nahiko**. [Agustin Otxoa](#)

Afaltzera joan **nahi** baduzu, deitu. [Bernardo Atxaga](#)

Nola ostia **nahi** zenuten biziaren alderdi basatira bidaiatu behar bezalako musikarik gabe? [Aingeru Epaltza](#)

Nire alabak ez duela etorri **nahi**? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Osoki oinez ibili **nahi** ez dutenendako, autobusak izanen dira. [Herria](#)

Beste bide batetik ibili **nahi** dutenei, ordea, eduki uste dutena ere kendu egingo zaie. [Askoren artean](#)

-Zurekin bizi **nahi** nuke, inporta ez bazaizu. [Joan Mari Irigoien](#)

Orain ez diat hil **nahi**! [Jon Muñoz](#)

39 (objektua aditz jokatu bat delarik)

Hura hasiera bat izan zedin **nahi** izan zenuen, berarekiko hasiera, lotura. [Lourdes Oñederra](#)

Natik ez zien, ordea, zuzenean erantzuten, berarekin sukaldara joan zitezen **nahi** baitzuen. [Aitor Arana](#)

Uste genuen bere ahizparen gaixotasunaz jabetu gabe zegoela, ez zela konturatu aurreko gauean etxean izandako zalapartaz, eta ezjakin jarrai zezan **nahi** genuen, ohizko bizimodua egiten. [Bernardo Atxaga](#)

"Ez al zenuke **nahi** zerbait egin diezazudan?" ez zela agian hain neska argia pentsatuz, ezetz erantzun zion. [Ramon Saizarbitoria](#)

40 (objektua den aditzaren subjektua nahi-ren subjektuaz bestelakoa direnean, delako aditz hura era burutuan agertzen da)

-Egia esatea **nahi** baduzu, oso nekata, Um Hamida. [Patxi Zubizarreta](#)

[Marinak] indioilar haragizko sandwich bikoitzak eta kafe izoztuak zerbitzatu zizkigun, eta ohi baino pixka bat suharrago saiatu nintzen hura gorteiatzen, beharbada Tomek ni mirestea **nahi** nuelako. [Oskar Arana](#)

Aitari jipoia ematea **nahi** ote duzu? [Patxi Zubizarreta](#)

Zuen logelan eulirik ez egotea **nahi** duzue? [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Ez nuen Angelo eszena haren lekukoa izan nintzela konturatzerik **nahi**. [Anjel Lertxundi](#)

41 (objektua esan aditza delarik)

Honek **esan nahi** du, ez duela giza sortzeak Jainkoaren benetako seme-alaba egiten, baizik eta Jainkoaren agintzariaren arabera sortuak direla Abrahamen benetako ondorengoak. [Elizen arteko biblia](#)

Baina horrek ez du **esan nahi** niretzat garbi dagoenik oker hori nahita zergatik egin nuen. [Jon Alonso](#)

Dena den, horrek ez zuen **esan nahi** mediku harekin fidatzen nintzenik. [Oskar Arana](#)

Etxe hartan tiro haiek entzuteak **esan nahi** zuen poza zela nagusi eta gu, lehengusuok, ongi etorriak ginela eta ez gintuztela oihuka uxatuko. [Pello Lizarralde](#)

Amodio-konturik harekin pentsa ezinezkoa zela **esan nahi** zuen horrek. [Oskar Arana](#)

Horrek **esan nahi** du, hortzak, nolabait, biziaren muina, biziaren miraria, gordetzen duela bere baitan. [Patziku Perurena](#)

Zer **esan nahi** du honek, zer da odol hau?, aitak. [Anjel Lertxundi](#)

Honekin **esan nahi** dizut zerbait irabazten denean galdu ere egiten dela. [Bernardo Atxaga](#)

Litekeena da berak ene hitzetan ulertu duena nik **esan nahi** nuenaren aurkakoa izatea. [Xabier Kintana](#)

Joxemielek entzun zuena *majue* zen noski, hau da, *majoa*, sasoi hartan "senargaia" **esan nahi** baitzuen. [Iñaki Segurola](#)

-Bortuz haraindiko Nafarroara **erran nahiko** duk -lakartu zitzaidan boza. [Aingeru Epaltza](#)

42 dio ad nahitasuna izan.

Baina ez gura edo gale (amodio eraikian ere, zure zale izango naiz, txit asko **nahi** dizut, baina ez naiz gaurgero zure gura edo gale). [Iñaki Segurola](#)

43 nahi izate iz

Nahi izate hutsarekin sorgintzen zituen denak, aise eta zuzen. [Anton Garikano](#)

Nahi izate bakoitza ez da ez existitzen ahal ez ekitera heltzen ahal, non ez duen beste kausa batek horretara behartzen eta kausa hori, berriz, bere aldi, beste batek; eta horrela, azkenik gabe. [Piarres Xarriton](#)

Asma dezagun, beraz, **nahi izate** singular bat, hots, pentsatzeko modu bat; honen bitartez Izpirituak baieztatzen baitu triangelu baten hiru angeluak berdin bi zuzen direla. [Piarres Xarriton](#)

Beharrezkoa da bakoitzak bere **nahi-izate**, gurari edo ekinbideari uko egitea. [Joan Mari Lekuona](#)

Nahi izate hutsa zen, ez jakiteagatik zer den azken batean edertasuna, zer gustatu beharko litzazigukeen. [Joseba Urteaga](#)

Baina nik, beharrezkoa den une eta toki guztietan, ukatu egingo dut ulergarria iruditzen zaidanik zuen **nahi izate** ero eta tenerez kanpoko hori. [Jon Alonso](#)

44 (objektua aditz baren era burutua delarik)

Bestela, nola azaldu egun batean piperrak teilatuan lehortzen jarri **nahi izate** hura, atarian eguzkia zegoelarik? [Juan Kruz Igerabide](#)

Badakit ez naizela inoiz horrenbeste izatera iritsiko, baina iritsi **nahi izate** hutsak naizen baino irakasle hobe egiten nau, sekula iritsiko ez dudana helburu horrek ez baitit uzten naizentxoan goxo eginda egonean egoten. [Joxerra Garzia](#)

45 nahi izatera nahi izanez gero.

Gurean, badugu, **nahi izatera**, non laketu: [...]. [Iñigo Aranbarri](#)

Hamar urte dituk **nahi izatera** trenbide bakarrek geltoki txikiren bateko burua izan zitekeela, baina oraindik ez dik izar bat bakarra ere. [Fernando Rey](#)

Eta esanen dizut gauza bat, horrelako hamaika aukera izan nuen nik, **nahi izatera**. [Monika Etxebarria](#)

Zure aita lizunak **nahi izatera**, bejondeiola: zutaz goza dadila, baina ez zaitzala kateatu. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Beste edozein argibide **nahi izatera**, badakizu non aurkituko nauzun. [Arantxa Iturbe](#)

Agian hiltzetan hain gertu egonak eraman zititan gerra joan **nahi izatera** . Anton **nahi izatera** . Lourdes Oñederra

Transkripzioan desberdintasun hori islatu **nahi izatera** , H ikurraz adieraz daiteke bokal arteko hasperena. **Patxi Zubizarreta**

Egundo ez zuen serioski pentsatu hartaz libratzerik, baina, hala **nahi izatera** , inortok ere ezin izango zion galarazi. **Piarres Xarriton**

Bestalde, nahi duena nahi ez izatera, edota nahi ez duena **nahi izatera** , gizakia daraman afektua Beldurra deitzen dugu. **Imanol Unzurrunzaga**

46 nahiago izan du ad

Nahiago dut denbora idazten eman. **Bernardo Atxaga**

-Zein **nahiago duzu** , Ursula ala Anne? **Josu Zabaleta**

Beharbada **nahiago dik** lepotik har dezaan. **Janbattitt Dirassar**

Baina nik, nahiz ur hartatik ere edan, nahiz nire gizarte-mailako lagun haiek ere ibili, **nahiago nuen** aparte; **nahiago nuen** , psikologoak adierazi bezala, nekazari giroari atxikita bizi. **Bernardo Atxaga**

Haman batera joan baino, **nahiago zuen** bakardaderik gorriean egon. **Patxi Zubizarreta**

Nahiago zuen bere gabezia nabarmen azaldu eta begirada askotan lotsagabeak jasan, gezurrezkoa zela zein keinurekin edo Mugimendurekin atzemango zioten beldurez ibiltzea baino. **Ramon Saizarbitoria**

Uste dut Weinberg-ek aditzera eman nahi zidala bere amak **nahiago zituela** emakumeak gizonak baino. **Oskar Arana**

Nolanahi ere, **nahiago nuke** Castroko café batera jaitsi -esan zuen Helenek-. **Bernardo Atxaga**

Nahiago nuke oraintxe ere halakoetan sinesteko gauza banintz. **Mirentxu Larrañaga**

Nahiago nuke lehoi edo herensugearekin bizi emakume gaiztoarekin baino. **Elizen arteko biblia**

Nahiago nuke nik ere Charliek bezain pozik ibiltzerik banu. **Mirentxu Larrañaga**

Durant jaunak **nahiago zukeen** Rose sekula ezagutu izan ez balu. **Mirentxu Larrañaga**

47 nahien izan du ad

Baina iritsi zara, hortxe duzu Arraiturre edo La Casita, zeuk **nahien duzun** eran esanda. **Hasier Etxeberria**

Emakume bakoitzak **nahien duen** bidea aukeratzten du, gizaseme batekin bikotea osatu beharrik gabe. **Luis Elberdin**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)

aberastu nahi (14); abian jarri nahi (21); abiatu nahi (54); adarra jo nahi (15); adierazi nahi (555); adierazi nahi du (45); adierazpenik egin nahi (28); aditu nahi (82); aditzera eman nahi (14); alferri (20); agerian utzi nahi (27); agertu nahi (166); agindu nahi (17); agurtu nahi (25); ahal izatea nahi (11); ahantzi nahi (30); ahaztu nahi (71); aintzat hartu nahi (21); aintzina segitu nahi (12); aipatu nahi (91); aitortu nahi (85); aitortu nahi ez (19); akabatu nahi (22); ala nun nahi (14); aldaketa nahi (14); aldarrikatu nahi (51); aldarrikatu nahi izan (16); aldatu nahi (221); aldatu nahi du (21); aldatu nahi dute (14); aldatu nahi izan (14); aldatu nahi izatea (11); alde egin nahi (122); aldendu nahi (14); alferrik galdu nahi (20); alternatiba izan nahi (16); altxatu nahi (29); ama izan nahi (18); amaizu nahi (111); amaizu nahi du (19); amaizu nahi dute (14); amaiztea nahi (17); amor eman nahi (13); amore eman nahi (54); animatu nahi (12); antolatuta nahi (71); antolatuta nahi dute (11); antolatuta nahi izan (11); aplikatu nahi (14); aprobexatu nahi (24); apurtu nahi (21); apustua egin nahi (14); arazi nahi (22); arazorik nahi (11); arduratu nahi (12); areagotu nahi (13); argi utzi nahi (130); argitaratu nahi (21); argitu nahi (137); argitu nahi du (16); argitu nahi dute (17); argitu nahi izan (49); ari nahi (13); arindu nahi (17); aritu nahi (59); arraio nahi (13); arriskatu nahi (17); ase nahi (13); askatasuna nahi (19); askatu nahi (36); asko esan nahi (23); askok nahi (17); asmatu nahi (20); atera nahi (281); atera nahi du (15); atera nahi izan (27); ateratzea nahi (12); atsedean hartu nahi (11); atxiki nahi (72); atxiki nahi izan (12); atzean utzi nahi (14); atzeman nahi (23); atzera egin nahi (21); atzertatu nahi (21); aukera eman nahi (34); aukera galdu nahi (13); aukeratu nahi (12); aurkeztu nahi (94); aurkeztu nahi izan (13); aurkitu nahi (118); aurre egin nahi (42); aurrera atera nahi (17); aurrera egin nahi (48); aurrera eraman nahi (19); aurrera jarraitu nahi (15); aurreratu nahi (34); aurreratu nahi izan (17); azaldu nahi (204); azaldu nahi du (11); azaldu nahi izan (61); azaleratu nahi (14); azpimarratu nahi (159); azpimarratu nahi dut (14); azpimarratu nahi izan (67); aztertu nahi (135); aztertu nahi du (15); aztertu nahi izan (19)

babestu nahi (55); babestu nahi izan (11); baieztatu nahi (15); bakarrik egon nahi (36); bakarrik utzi nahi (12); bakea nahi (57); baldintzatu nahi (11); baliatu nahi (198); baliatu nahi izan (29); banatu nahi (17); barkamena eskatu nahi (20); barre egin nahi (11); batera joan nahi (20); batera utzi nahi (18); bateratu nahi (11); batu nahi (21); baztertu nahi (54); baztertu nahi izan (12); begiratu nahi (95); begiratu nahi izan (12); behartu nahi (81); behartu nahi izan (15); beldurtu nahi (16); benetan nahi (28); berdindu nahi (16); bere egin nahi (12); bereganatu nahi (50); bereizi nahi (37); beretzat nahi (26); berezia egin nahi (20); bermatu nahi (75); berpiztu nahi (12); berreskuratuta nahi (100); berretsitu nahi (38); berri eman nahi (39); berri izan nahi (11); berritoki nahi (23); berritu nahi (35); berriz ikusi nahi (11); besarkatu nahi (17); bete nahi (45); bete nahi izan (20); betetzea nahi (11); bidali nahi (100); bidali nahi izan (27); bideratu nahi (49); bihurtu nahi (175); bihurtu nahi izan (19); bilakatu nahi (44); bilatu nahi (114); bilatu nahi izan (22); bildu nahi (168); bildu nahi izan (23); bisitatu nahi (19); bizi nahi (338); bizi nahi izan (14); bizirik nahi (16); borrokatu nahi (22); bortxatu nahi (20); bota nahi (87); bota nahi izan (15); bozkatu nahi (11); bueltatu nahi (17); bukatu nahi (80); bukatzea nahi (16); bukitzatu nahi (230); burua zurituta nahi (11); burutu nahi (24)

dantza egin nahi (12); dastatu nahi (14); debekatu nahi (25); defendatu nahi (35); definitu nahi (12); dei egin nahi (13); deitu nahi (78); deitzea nahi (14); deklaratu nahi (28); desagerrarazi nahi (22); desagertu nahi (11); desbideratu nahi (12); desegin nahi (21); deskribatu nahi (13); deus erran nahi (13); deus esan nahi (12); deus nahi (12); deuseztatu nahi (13); dirua nahi (15)

edan nahi (51); eduki nahi (219); eduki nahi izan (22); egia jakin nahi (13); egia nahi (13); egiaztatu nahi (18); egin nahi (4989); egin nahi izan (670); eginarazi nahi (15); egitea nahi (124); egiten utzi nahi (15); egizu nahi duzuna (18); egokitu nahi (18); egon nahi (435); egon nahi izan (12); egotea nahi (86); egotzi nahi (22); ekarpena egin nahi (19); ekarri nahi (169); ekarri nahi izan (37); ekidin nahi (21); ekin nahi (44); elkartasuna adierazi nahi (28); elkartu nahi (38); eman nahi (1618); eman nahi izan (367); ematea nahi (47); engainatu nahi (39); entzun nahi (357); entzun nahi izan (29); epaitu nahi (26); erabaki nahi (38); erabil nahi (214); erabili nahi dute (13); erabili nahi izan (27); erabili nahi izatea (14); eragin nahi (57); eragotzi nahi (62); eraiki nahi (224); erakarri nahi (32); erakutsi nahi (555); erakutsi nahi izan (19); eraman nahi (316); eraman nahi izan (41); eramatea nahi (12); erantsi nahi (35); erantsi nahi izan (14); erantzun nahi (133); erantzun nahi izan (53); eraso nahi (16); eratu nahi (40); erauzi nahi (14); erdietsi nahi (27); erori nahi (24); erosi nahi (117); erosi nahi izan (13); erran nahi (1297); erran nahi baita (499); erran nahi izan (20); erraztu nahi (14); erre nahi (48); erreparatu nahi (16); erreplikatu nahi (44); errepetatu nahi (17); erretiratu nahi (19); esan nahi (4945); esan nahi baita (122); esan nahi izan (116); esan nahi nian (18); esan nahi nion (12); esan nahi nuzun (11); esan nahi nuen (47); esan nahi nuena (13); esan nahi nuke (22); esan nahi omen (16); esatea nahi (40); eseri nahi (39); eskaini nahi (183); eskaini nahi izan (26); eskatu nahi (181); eskerrak eman nahi (55); eskertu nahi (53); eskertu nahi izan (15); esku hartu nahi (16); esku utzi nahi (25); eskuratu nahi (78); esnatu nahi (22); estali nahi (42); estutu nahi (22); etekina atera nahi (16); eten nahi (34); etorri nahi (151); etortzea nahi (18); etsi nahi (27); etxera itzuli nahi (29); etxera joan nahi (23); euskara ikasi nahi (12); euskaraz bizi nahi (13); euskaraz egin nahi (15); euskaraz ikasi nahi (21); eutsi egin nahi (11); eutsi nahi (169); eutsi nahi izan (14); ezabatu nahi (26); ezagutarazi nahi (26); ezagutu nahi (216); ezagutu nahi izan (13); ezarri nahi (265); ezarri nahi izan (16); ezkondu egin nahi (12); ezkondu nahi (97); ezkondu nahi izan (13); ezkutatu nahi (73); ezkutatu nahi izan (11); eztabaidatu nahi (39)

finkatu nahi (28); fitxatu nahi (75); frogatu nahi (91); frogatu nahi izan (19)

gainditu nahi (58); gaineratu nahi (12); gaitzetsi nahi (16); galarazi nahi (37); galdetu nahi (89); galdetu nahi izan (20); galdu nahi (230); galdu nahi izan (21); garaipena lortu nahi (13); garaipena nahi (19); garaitu nahi (11); garatu nahi (38); garbi utzi nahi (64); garbitu nahi (43); garbitu nahi izan (11); garrantzia kendu nahi (26); gatazka konpondu nahi (11); gauzatu nahi (32); gehiengoak nahi (15); gehitu nahi (32); geldiarazi nahi (25); gelditu nahi (98); gelditzea nahi (11); geratu nahi (117); geratzea nahi (17); gertatzea nahi (19); gobernuak nahi (26); gogaitu nahi (12); gogoeta egin nahi (11); gogora ekarri nahi (25); gogorarazi nahi (57); gogorarazi nahi izan (23); gogoratu nahi (123); gogoratu nahi izan (28); gonbidatu nahi (26); goratu nahi (11); gorde nahi (137); gorde nahi izan (24); gozatu nahi (51); gutxietsi nahi (16); gutxitu nahi (22)

hala nahi (311); hala nahi izan (51); han egon nahi (20); handiagoko nahi (14); handitu nahi (62); hara joan nahi (15); haratago joan nahi (12); harrapatu nahi (61); harrotu nahi (17); hartu nahi (872); hartu nahi izan (172); hartu nahi izatea (11); hartzea nahi (42); hasi nahi (160); hasi nahi (160); hasi nahi (160); hasi nahi (160); hau esan nahi (24); hau nahi (34); hautatu nahi (17); hautsi nahi (67); hauxe esan nahi (13); hazi nahi (13); hedatu nahi (25); helarazi nahi (69); helarazi nahi izan (25); heldu nahi (104); herriak nahi (23); herritarrek nahi (18); hik nahi duana (13); hil egin nahi (52); hil nahi (201); hil nahi izan (29); hitz egin nahi (481); hiltzatu nahi (22); hobetu nahi (51); hondatu nahi (16); hondoratu nahi (12); honek esan nahi (38); horixe esan nahi (36); horrek eraman nahi (152); horrek esan nahi (385); hurbidu nahi (36); huts egin nahi (16)

ibili nahi (114); idatzi nahi (78); idazle izan nahi (23); identifikatu nahi (11); igaro nahi (32); igo nahi (56); igorri nahi (35); igorri nahi izan (11); ihardetsi nahi (14); ihes egin nahi (130); ikasi nahi (139); ikertu nahi (37); ikusarazi nahi (12); ikusi egin nahi (30); ikusi nahi (983); ikusi nahi izan (46); ikustea nahi (13); imajinatu nahi (11); indarrean jarri nahi (11); indartu nahi (52); independentzia nahi (19); inposatu nahi (74); ipini nahi (42); irabazi egin nahi (22); irabazi nahi (181); irabaztea nahi (18); iradoki nahi (13); iraindu nahi (17); irakatsi nahi (26); irakurri nahi (56); irau nahi (22); ireki nahi (64); irentsi nahi (20); iritsi nahi (142); iritziak jakin nahi (26); irten nahi (59); irudikatu nahi (47); irudikatu nahi izan (16); isilarazi nahi (25); islatu nahi (28); islatu nahi izan (13); ito nahi (28); itxaron nahi (24); itxi nahi (57); itxura eman nahi (23); itzuli nahi (224); itzuli nahi izan (23); itzultzea nahi (13); izan dadin nahi (30); izan nahi (1700); izatea nahi (446); izatea nahi izan (11); izaten jarraitu nahi (34); izena eman nahi (23); izendatu nahi (24); izorratu nahi (12)

jabe egin nahi (15); jabetu nahi (21); jainkoak hala nahi (15); jainkoak nahi (101); jainkoak nahi badu (19); jainkoak nahi izan (15); jaitsi nahi (48); jakin egin nahi (19); jakin nahi (1264); jakin nahi izan (157); jakin nahi izaten (13); jakinarazi nahi (78); jakinarazi nahi izan (13); jakitea nahi (12); jan nahi (88); jantzi nahi (27); jardun nahi (40); jarraipena eman nahi (13); jarraitu nahi (368); jarraitu nahi izan (31); jarraitzea nahi (33); jarri nahi (579); jarri nahi izan (88); jarri nahi izatea (12); jartzea nahi (39); jasan nahi (17); jaso nahi (122); jaso nahi izan (13); jaunak nahi (21); jendeak nahi (17); jin nahi (15); jo nahi (127); jo nahi izan (20); joan egin nahi (13); joan nahi (694); joan nahi izan (56); joatea nahi (27); jokatu nahi (234); jokatu nahi izan (22); jokatzea nahi (17); jolastu nahi (27); jorratu nahi (28); justifikatu nahi (11)

kalera atera nahi (14); kaleratu nahi (23); kalte egin nahi (14); kanporatu nahi (28); kantatu nahi (13); kendu nahi (223); kendu nahi izan (42); kobratu nahi (24); kokatu nahi (34); komentatu nahi (13); konbentzitu nahi (30); konpondu nahi (100); konpontzea nahi (13); kontatu nahi (165); kontatu nahi izan (20); kontra egin nahi (18); kontratatu nahi (14); kontrolatu nahi (43); kontsolatu nahi (15); korritu nahi (24); kritikatu nahi (15)

lagundu egin nahi (18); lagundu nahi (149); lagundu nahi izan (31); lan egin nahi (67); lana egin nahi (19); landu nahi (36); lapurtu nahi (17); lasaitu nahi (29); lasaitu nahi izan (13); leporatu nahi (16); libratu nahi (23); libre izan nahi (17); libre nahi (11); lo egin nahi (51); lortu nahi (523); lortu nahi izan (19); lortzea nahi (11); lotu nahi (69); lotu nahi izan (14); lurperatu nahi (13); luzatu nahi (87)

makurtu nahi (13); mantendu nahi (57); markatu nahi (16); martxan jarri nahi (38); mendekatu nahi (16); mezua zabaldu nahi (18); mintzu nahi (24); mintzatu nahi (87); molestatu nahi (11); moztu nahi (32); mugatu nahi (40); mugitu nahi (24); murgildu nahi (12); murriztu nahi (61); musu eman nahi (14)

Eta **nahiantak** Donamartirin bazkaltzen ahalko dira, herriko 2 ostatueterik batean. **Herria**

Bi alkarteek botin egiten dūen egūnaldi hori **nahiant** ororer zabalik da. **Herria**

2 (izenondo gisa)

Beraz herritar **nahianter** komita zabaldua da, baina izenak eman behar dira deituz 05 59 48 03 63-rat edo 06 81 75 99 29-rat mugikorrean. **Herria**

nahiarazi, nahiaraz, nahiarazten du *ad* nahi izatera behartu.

Eta nahiz eta bizinahirik ez izatera heldu, bere nahimenari bizibidean kementsu jarraitzeko agintzen dio gogoak, bizitzeko behar direnak **nahiaraziz**. **Jenaro Garate**

nahibeste ik nahi 24.

nahibezalakotasun *iz* nahi bezalakoa izateko nolakotasuna.

Eta hau guztia gizakien **nahibezalakotasunezko** irizpideari esker, haiek dira hitzak egiten dituztenak, animaliek, errukarriek, liskarra ikusten dute, gramatika horien berririk batere eduki gabe. **Jon Alonso**

nahien izan ik nahi 47.

nahiera 1 *iz* nahia, borondatea.

Maita dezagun guztiok bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz, indar eta ahalmen guztiz, ezaguera osoz, kemen guztiz, ahalegin osoz, estimu osoz, errai guztiz, desira eta **nahiera** guztiz Jainko Jauna. **Askoren artean**

Osterantzekoak, aldiz, ezin beraren **nahiera** edo borondatepean egon. **Andres Urrutia**

Erakunde zibilei dagokie izadiaren **nahiera** egokiak arautzea eta babestea. **Andres Urrutia**

2 (hitz elkartuetan)

Leongo probintzian sartzean, Burgos kastillanoaren aurkako iragarkiak badira eta hemen, hemen, Leon hiria urrun dagoela eta Galizia hor berean, baztertzte **nahiera** bat sendi da. **Piarres Aintziart**

3 *nahieran* (14 *agerraldi*, 10 *liburu* eta 2 *artikulutan*) nahierara.

Ezinbesteko betebeharra zen eskola, noski, baina hura utzi eta gero **nahieran** ibiltzen ginen, futboleak, bizikletan, txapetan... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaizkile anker eta sadikoek bete ohi zuten leku hori, **nahieran** zigortuz, SSak soilik mugatzen baitzuen haien jarduna. **Urtzi Urrutikoetxea**

Gure artekoak sexutik ez zuen deus, alde bateko desira eta sublimazioa izatekotan, baina egia da bazela menderakuntza-joko bat: neuk inor menpean hartzerik bilatu ez banuen ere, zeuk ematen zenidan zeure burua opari, piztia otzandu baten gisan, **nahieran** joko nezan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 *nahierara* (177 *agerraldi*, 40 *liburu* eta 93 *artikulutan*) gogara, nahi den bezala.

Nahierara irten zen dena. **Irene Aldasoro**

Ez dago esaterik ea egunen batean **nahierara** sortuko ditugun Albert Einstein edo Ava Gardner aleak. **Juan Garzia**

Maitemintzen naiz nahi dudan guztiarekin, **nahierara** gobernatzan baitut nire maitemintzeko grina. **Karlos Zabala**

Nahierara egiten du presioa: jarraituki, gorabeheraz nahiz sakaldika -gehitu zuen-. **Xabier Olarra**

Ur lasterrak **nahierara** bultzatzen zituen jelak, eta almadia, ur gaineko horma puska haien erdian nahasita, oharkabe zihoan aurrera. **Karlos Zabala**

Ikur linguistikoa arbitrarioa denez, badirudi modu horretara zehazturiko hizkuntza sistema askea dela, **nahierara** antola daitekeena eta soilik hastapen arrazional baten mendean dagoena. **Isabel Arrigain**

5 (-en atzikiaren eskuinean)

'Bere **nahierara**' esan dut; zeren borondateari baitagokio auzia, eta ez, logikaren eroak erabaki duen bezala, botereari. **Koro Navarro**

Profetek gezurra dute iragartzen, apaizek beren **nahierara** irakasten. **Elizen arteko biblia**

Gauza guztiak berezko izaeraren arabera sortzen dira, ez gizakiaren **nahierara**, baizik eta ausaz bezala antolatuta. **Santiago Iruretagoiena**

Ba al dago munduan kontraturik, kontratugile bakar batek bere gogo eta **nahierara** suntsi dezakeena, beste alderdiaren adostasunik gabe? **Andres Urrutia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere nahierara (13); **beren nahierara** (6)

nahierara antola (3); **nahierara ari** (6); **nahierara ari da** (4); **nahierara aritu** (18); **nahierara aritu zen** (13); **nahierara dantzatu** (4); **nahierara egiten** (4); **nahierara erabiltzeko** (4); **nahierara erabiltzen** (5); **nahierara ibili** (4); **nahierara mugitu** (4); **nahierara sartzen** (3)

nahiez *iz* zerbait nahi ez izatea; gogoko ez dugun zerbaitek edo norbaitek eragiten digun sentimena.

Zurrutean gastatzen nian dena, zuek biokin akordatzean nire barruan sentitzen nuen **nahieza** itotze aldera. **Eskarne Mujika**

Zure begietan, isiltasuna idatzia ageri da, eta zure aurpegian **nahieza**. **Eskarne Mujika**

nahiezik *adlag* gogoz kontra, gogo gaiztoz. ik *desgogara*.

Erdi **nahiezik** zegoen bera, erdi gogoz kontra. **Anton Garikano**

Zuzendaritzaren erantzukizuna hartu nuen nire gain, desgogara edo **nahiezik**, baina indar handiz. **Karlos Linazasoro**

Eta neure buruaren zailtzeko kontsolamendu hauetan murgilduta nengola, ustekabean, **nahiezik**, ezbeharrez, galdera hauxe etorri zait begi aurrera, [...]. **Koldo Izagirre**

Baina mina jasanezina zen, janaria urritu zitzaizanean ama jan **nahiezik** ikustea... mokoka mahai ertzean eta sutondoan: lapiko hondoari erantsitako artirina; eskolak eta larruak eta azalak jaten. **Anton Garikano**

nahigabe (*orobat nahi gabe g.er.*) 1 *iz* ezbeharrak eragiten duen sentimen mingarria. ik *atsekabe*; *bihozmin*.

Jerusalem, erantzi **nahigabe** eta zoritzarraren soinekoa, jantzi betiko Jainkoak damaizun ospearean soineko ederra. **Elizen arteko biblia**

Nahigabe, nazka eta desilusiozko imintzio bat ikusi zion aurpegian. **Anton Garikano**

Hauxe da nire samin eta **nahigabea**. **Askoren artean**

Nahiko **nahigabe** eta zorigaitz baditen ama-alaba horiek, pentsatzen ahal dun. **Anton Garikano**

Aldatuak da pentsamendu alaiak, nahiz onak eta santuak izan, hala nola, berpizkundeari eta aintzari buruz, ahaleginduz ez ekartzen, baizik neurre burua atsekabe, **nahigabe** eta nekeetara erakarriz. [Patxi Altuna](#)

Nire begirada eszeptiko tristeak **nahigabe** bat baino gehiago ekarri dit. [Anjel Lertxundi](#)

Negar isila eginez, ama zen aldetik pairatu zituen **nahigabe** eta pena guztiak kontatu zizkion Egor Timofeievitxi. [Jose Morales](#)

Maitasuna saihesten duena ez da, ordea, Venusen fruitu gabe gelditzen, aitzitik **nahigabe** gabeko atseginak hautatzen ditu. [Xabier Amuriza](#)

Orain, alkoholak eta **nahigabeek** makalduta nagok; itsasontzietan ja ez zidatek lanik eman nahi. [Eskarne Mujika](#)

Nahigabeen saila beharbada ez zen haientzat bukatu. [Karlos Zabala](#)

Amodiotik erretiratua zaudela diozu, desorekatu zintuen **nahigabe** batetik irten eta zeure izaera berriro nibelatzeke... [Pako Aristi](#)

Ahalik eta eztien eman zion senarraren zorigaitzaren berri, baina, **nahigabearen** aringarri, ondasunak elkarbanatzea proposatu zion. [Patxi Zubizarreta](#)

2 (izenondoekin)

Nahigabe handi batek hartua zuen Kirxa anderea. [Patxi Zubizarreta](#)

Druida beraren pareraino heldu eta ateari begira geratu zen, **nahigabe** handia erakutsiz. [Joanes Urkixo](#)

Egun asko egin zuen ohean, geroz eta **nahigabe** handiagoz. [Elizen arteko biblia](#)

Nahigabe galanta berarentzat. [Gotzon Garate](#)

Gezurra dioten irainak entzuten ari bainaiz eta **nahigabe** izugarriak hartu bainau. [Elizen arteko biblia](#)

Ez barren-barrean **nahigabe** ilun bat sentitu gabe. [Ramon Saizarbitoria](#)

Nahigabe latz hori josi nuen Maddalen gaixoari gertatu ixtripu ikaragarriari. [Janbattitt Dirassar](#)

Hona niretzat liburu gogoangarrienak: liburu irakurtzen amaitu beharrak halako **nahigabe** malenkoniatsua dakarkidatenak dira. [Anjel Lertxundi](#)

Erantzun beharreko galderak daukazu buruan, baina **nahigabe** fisikoak ez dizu behar bezala pentsatzen uzten. [Rafa Egiguren](#)

Nahigabe pertsonalak poesiaren kontsolamenduaren ukenduz bezatzea. [Anjel Lertxundi](#)

Ez nituen kontu haiek sinesten, edo, hobeki erran, ez nituen sinetsi nahi, baina, hala ere, **nahigabe** arrazoirik gabeko baina sakon bat sortzen zidaten. [Alberto Ladrón Arana](#)

3 (aditz baten objektu gisa)

Izugarritzko **nahigabea** dut, izeba Augusta. [Antton Olano](#)

Beharrik denbora aitzina badoa, anitz **nahigabe** eta beharrruak estaltzen dituena. [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Frantziskorekin bizi ziren anaiak lagundu zieten bidean, haien **nahigabea** arindu nahian. [Askoren artean](#)

Nahigabea erori zen familia osoaren gainera eta etxe hartako poza tristura bihurtu zen. [Askoren artean](#)

Ez Paulek ez Gerdek ez zekiten gau mundial hark zer nolako **nahigabea** ekarriko zien. [Patxi Zubizarreta](#)

Argi zegoen neska gazte hori hamaika **nahigabe** jasana zela iraganean. [Karlos Zabala](#)

Makur zaitez [...] eraman handi errukitsura, hura baita geure ondikoizko bizitzan erein ditugun **nahigabeak** jasanarazten dizkigun bakararra. [Jon Muñoz](#)

Nahigabea eta sumindura gailendu zitzaizkiolarik, mehatxu egin zion: [...]. [Patxi Zubizarreta](#)

Nahigabea sentitzen duzu ama horrela sufritzen ikusita. [Rafa Egiguren](#)

Laneko poz eta **nahigabe** guztiak partekatzen zituen beraiekin. [Jose Morales](#)

Nahigabeak eta emozioak hartaratua, gazteak bere baitan egin zuen: "Zergatik ez alde egin?". [Patxi Zubizarreta](#)

Eta badakizu nori zor dizkiozun **nahigabe** hauek guztiak? [Matías Múgica](#)

Handik urte batzuetara erasango zioten minbizia eta ia heriotza eurak ere ez ziren hurbildu ere egin orduan sentitu zuen **nahigabea** berdintzera. [Oskar Arana](#)

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kurutzea deitzen dugu, orai, bizi huntan karreiatu behar dugun edozoin sofrikario edo **nahigabe** mota. [Herria](#)

Schumacherrek platerera bota zituen labana eta sardexka, **nahigabe**-aurpegiaz, oharkabean kaka-mokordo bat irentsi balu bezala. [Fernando Rey](#)

Gelaren bat galde egin zuen, sartu eta berehala, eta, **nahigabe**-antza agertu zuen, han gelarik ez zela erantzun ziotenean. [Patxi Ezkiaga](#)

Arantxak **nahigabe** keinua egin dio Imanoli eta hau gelditu egin da une batez. [Joseba Sarrionandia](#)

Gizontxoak **nahigabe** imintzio bat egin zuen. [Koldo Biguri](#)

Pozez txoratzen, ni ikustean **nahigabe**-arrastorik bat ere ez bere aurpegian. [Fernando Rey](#)

Haserre-eguna izango da, larritasun- eta **nahigabe**-eguna, hondamendi handiko eguna. [Elizen arteko biblia](#)

Zure heriotza **nahigabe**- eta samin-unea izango da anaientzat eta beste askorentzat. [Askoren artean](#)

Nahigabe-minak sendatu, beharrak osatu, andereñoak babestu, alargunen bihotza suspertu, beste inork ez du hori guztia egin ohi zaldun ibiltariak baino hobeki. [Patxi Ezkiaga](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Maitasun- **nahigabeak**. [Oskar Arana](#)

6 nahigabea eman ik nahigabetu 2.

Hasieran beldur zen anaiari **nahigabea emango** ote zion, jale txikia baitzen hura. [Karlos Zabala](#)

Gogoia izaten nuen azaltzeko ez zegoela zertan kortesia erabili, [...] baina **nahigabea ematen** zidan. Izan ere, nik **nahigabea ematen** badizuet, norik poz nazake ni zuek izan ezik, neuk nahigabetu zaituztedanok izan ezik? [Lander Garro](#)

Sakearekin asmatzen badu berak **eman** diezaioke **nahigabea** Lizasori. [Berria - Kirola](#)

Egun bat atzerago itzultzen banaiz, izugarritzko **nahigabea emango** diot. [Elizen arteko biblia](#)

Zer **nahigabe** eman dizut, ama txit maitea? [Askoren artean](#)

Handik atera bezain laster joateko esan zidan, hartzeko lehen autobusa eta gurasoei **nahigaberik** ez **emateko**. [Pako Aristi](#)

Hik ez duk ikusi nahi, baina ikusiko duk nola egunen batean **nahigaberen** bat emango digun. [Antton Olano](#)

7 nahigabea hartu ik nahigabetu.

Nahiz zahagieki nahiz Morgianari begiratu, ez zuen hitzik ere esaten, hain izan zen handia **hartutako nahigabea**. [Patxi Zubizarreta](#)

Ez, ez dut uste etorriko denik, halako **nahigabea hartuko** zuen gajoak...! [Koldo Izagirre](#)

Ez, ez dut uste etorriko denik, halako **nahigabea hartuko** zuen gajoak...! [Koldo Izagirre](#)

Izugarritzko **nahigabea hartuko** nikek ezer gertatuko balitzaio Specker gizaioari. [Lopez de Arana](#)

- Ez hartu **nahigaberik** niregatik. [Juan Garzia](#)

8 nahigabeen lagundu (hiletetan)

Nahigabeen lagunduko balio moduan erantzun zion Nikolak: [...]. [Koldo Izagirre](#)

Laguntzen zintuela **nahigabeen**, berak. [Hasier Etxeberria](#)

- **Laguntzen** zaitugu **nahigabeen** -edo antzeko zerbait esan zion han zegoen emakume bakarrak, Gurutze Gorriko txabusina berde bat jantzita zeukanak. [Hasier Etxeberria](#)

Trantze horretan, zenbait leku euskarazkotan, **laguntzen** dizut **nahigabeen** eta holakoak esan beharrean, "etsi!" soila esan ohi da edo zen, motxean eta zuhurrean. [Iñaki Segurola](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nahigabe handi (8); **nahigabe handia** (23); **nahigabe handia ematen** (3); **nahigabe handia hartu** (3); **nahigabe handia izan** (4); **nahigabe handiz** (3)

atsekabea eta nahigabea (3); **heriotzak sortutako nahigabea** (3); **izugarritzko nahigabea** (4); **nahigabea berdintzeko** (3); **nahigabea ematen** (4); **nahigabea hartuko** (3); **poza eta nahigabea** (3); **sortutako nahigabea** (4); **sortutako nahigabea berdintzeko** (3)

neke eta nahigabeak (3)

nahigabeako hilketa (3)

nahigabe² ik **nahi 31**.

nahigabealdi *iz* naigabezko denbora.

Arratsaldeko opari-garaian atera nintzen **nahigabealditik**; soinekoa eta soingainekoa urratu nituela, belauniko jarri eta Jaunarengana, neure Jainkoarengana, luzatu nituen eskuak. **Elizen arteko biblia**

nahigabetu, nahigabe(tu), nahigabetzen 1 da *ad* nahigabea hartu.

Lasai ederrean eta fidaturik ikusi baitzuen, areago **nahigabetu** zen. **Patxi Zubizarreta**

Gertatua ikusirik, beste zerbitzariak biziki **nahigabetu** ziren, eta guztiaren berri nagusiari ematera joan ziren. **Elizen arteko biblia**

Eskura zeukan arroparik onena jantzi zuen, baina **nahigabetu** egin zen barneko arropari erreparatu ziolarik. **Patxi Zubizarreta**

Horregatik diotsut, ez zaitezela **nahigabetu**; egizu egiten ari zarena, jarraitu zeure jardunean, betiko maitasunean landatu zure anaiarte. **Askoren artean**

Maiz, denek ohoratzen zutenean, biziki **nahigabetzen** zen. **Askoren artean**

Zure aita Ebroko gudulekuan zebilen eta oso **nahigabetu** zen gure osabarena jakin zuenean. **Javi Cillero**

Baina emaztea larri **nahigabetu** omen zen Kabarantxelek eskainitako ikuskizunarekin. **Pako Aristi**

Erretore-laguna **nahigabetua** zen. **Elena Touyarou**

Baina Harry ohitua zegoen, horregatik gehiegi **nahigabetzeko**. **Iñaki Mendiguren**

2 du *ad* nahigabea eman.

Lisak ez zuen Marjolin **nahigabetu** nahi, bere nazka berriz ere erakutsiz. **Karlos Zabala**

Nahigabetu egiten nau zu denen aho-mihitan egoteak. **Patxi Zubizarreta**

Izan ere, nik nahigabea ematen badizuet, nork poz nazake ni zuek izan ezik, neuk **nahigabetu** zaituztedanok izan ezik? **Elizen arteko biblia**

Senarraren galerak bezainbat **nahigabetzen** zuen semearen desagerketak. **Patxi Zubizarreta**

Zure aita Ebroko gudulekuan zebilen eta oso **nahigabetu** zen gure osabarena jakin zuenean. **Javi Cillero**

Norbaitek **nahigabetu** banau, ez nau ni **nahigabetu**, baizik eta neurri batean -gehiegi ez esatearren- zuek guztiok **nahigabetu** zaituzte. **Elizen arteko biblia**

Belarrondoak baino gehiago **nahigabetzen** ninduen familiako sekretu bat ezkututzen zidatela konturatu izanak. **Anjel Lertxundi**

Ikaragarri **nahigabetu** nauela Zuzendari txit agurgarria hartarainoko trantze batera eraman beharrak. **Anjel Lertxundi**

Bakarrik dakit min sakona eragin zidala, ezin gehiago **nahigabetu** ninduen, gau eta egun etengabeko negarrean utzi. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ez zion bihotza erdiratzen haien etorrerak, ez eta **nahigabetzen** ere haien joanak. **Mirentxu Larrañaga**

3 (era burutua izenondo gisa)

Emakume **nahigabetua** Jainkoaren gizonaren hilibira ekarri zuten. Bisir **nahigabetuak** Xerazaderen nahia onartu behar izan zuen eta gau hartan bertan alaba eskaini zion Xariarri. **Askoren artean**

Irudi isil **nahigabetua** ez zen itzuli. **Jose Morales**

"Ari da orain ere don Silverio bere txokolatearekin", pentsatu zuen irribarre erdi mingots, erdi **nahigabetu** batekin. **Bernardo Atxaga**

Pitigrillik, bere betiko itxura misteriotsu, burgoi eta **nahigabetuaz**, orri-pasaka irakurri zituen pixka batean. **Fernando Rey**

Itzalgune **nahigabetu** batek zeharkatu zuen Domengaren behakoa, istant batez. **Elena Touyarou**

Orain **nahigabetu** horri aurre egiteko, lanaren egunerokotasun lotzailea erabili zuen eta tartekako bidaia batzuk, Frantziara, Ingalaterrara edo Italiara. **Josu Zabaleta**

Beti pentsatu izan dut Lur honetako **nahigabetuak** direla Jainkoaren hautatuak. **Patxi Zubizarreta**

4 (era burutua izen gisa)

Nahigabetuen kontsolatzaile behar du izan eta atsekabetuen azken ihesleku. **Askoren artean**

Ez zitzaion Lucyri harritzekoa egin hark **nahigabetu** aurpegia jartzea. **Joxemari Iturralde**

-Zer dela eta? -esan zuen Manilovek, xaloki eta **nahigabetu** -antzean berak ere. **Jose Morales**

Munduko **nahigabetuek**, beraien oheetan zauri eginda bizi direnek, kirasdunek, gaixo larrien deserrian baztertuta bizi direnek. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko nahigabetu (3); **nahigabetu antzean** (3)

oso nahigabetua (3)

gutziz nahigabeturik (3); **oso nahigabeturik** (7)

oso nahigabetuta (4)

nahigabez betea (3); **nahigabez beterik** (3)

nahigabetxo *iz* nahigabe txikia.

Gogo barruko bortxa zalantzatsua, pozaldi eta **nahigabetxo** guztiak, lana. **Jokin Urain**

nahigarri *izond* nahi izan daitekeena.

Estatu Batuak askoz ere **nahigarriago** bihurtzen zituzten bertuteak oso nabarmen zeuden errusiar komunismoarekin alderatuz. **Iñaki Mendiguren**

Bere gogoko baldin bada, **nahigarria** edo guragarria ez bada ere, ona da, maitagarria da; bere gogoko ez bada ez da maitagarria, guragarria edo erakargarria izan arren askotan. **Jenaro Garate**

Ondasun baten modura agertzen da -amaitua, mugatua, **nahigarria**, erabilgarria-. **Xabier Arregi**

nahika 1 *adlag* nahi izaten.

Eta nahimena **nahika** eta oroimena oroitzen. **Jenaro Garate**

2 *nola nahika* ik **nolanahika**.

nahikara 1 iz nahikaria.

Nik bederen, oraino ez nuen Bermeo egina, ez zegoen **nahikaririk**, maitazarrerik. **Iñigo Aranbarri**

2 *adlag* nahierara, gogara.

Eta hala ibiltzen zen hura, handiak bezala, **nahikara**, eta ni, tipiak bezala, ahalara. **Joan Mari Irigoien**

3 (-en atzikiaren eskuinean)

Uste dute horrelako irudiak sortzen ahal ez ditugun gauzen ideiak ez direla ideiak, asmakizunak baizik, osatzen ditugunak gure nahimenaren **nahikara**, alegia. **Piarres Xarriton**

Gure baitarik salbatzen ahal garena, naturazko gure indar soilekin eta gure **nahikara**, naturaz goiko laguntza berezirik gabe. **Piarres Xarriton**

nahikari 1 iz nahi izatea, borondatea; zerbait lortzeko nahi sendoa. **iknahi; desira; pretentsio; nahikeria 2**

Hemen, bada, *Desira* hitzaz gizakiaren ahalegin, bulkada, gurari eta **nahikari** guztiak aditzen ditut, hauek gizaki beraren egoera aldakorren arabera aldatzen baitira.

Piarres Xarriton

-Horra Jainkoaren **nahikaria**. **Patxi Zubizarreta**

Oro Bere **nahikariaren** arabera gertatzen da eta oro da Berea. **Patxi Zubizarreta**

Gauaren hastapena izarrei begira eman dugu, eta **nahikariren** bat eskatzeko esan diot izar lokaren bat ikusi orduko. **Javi Cillero**

Eta oihu hori ez da nolana hokioa, **nahikari** da edo agindu, aldarri demokratiko, ez da festa, ez da txantxa, eta guk jakin genuen hori ulertzen. **Karlos Linazasoro**

Azkenean ez duzu borondaterik, ez **nahikaririk**, eta ondarrean, ondarrean pazientzia heldu zaizu. **Marzel Etxehandi**

Euskarari orain arte eutsi baldin badiogu gure nahi berezi horri esker eutsi diogula neurri handi batean, baina **nahikari** hori desegiten bada, euskara bera ere desegingo dela. **Pello Salaburu**

Badakit bidea puskaka egin beharko dudala, baina, hasteko, Gares-Puente la Reina famatura lau egunez heltzeko **nahikaria** badut: ehun kilometro hurbil. **Piarres Aintziart**

Ez du iduri haatik Saddam Hussein-ek kanporat joaiteko **nahikaririk** baduela. **Herria**

-Ene bihotzaren **nahikaria** izan da, aspaldidanik, erromesaldi hau egitea. **Patxi Zubizarreta**

Clinton presidentaren **nahikaria** dela kargua utzi aintzin Iguzki alde Hurbilean bakearen sor araztea, hori da denek dakiten gauza. **Herria**

Geroari buruz badu, itxura ezezkor guzien gainetik, **nahikari** eta gar. **Herria**

2 (izenondoekin)

Irrika sutsu, **nahikari** sekretu, grina ohiz kanpoko eta lazgarria. **Xabier Olarra**

Inozoegiak gara agian, zeren gurari eta **nahikari** politiko hori, denok elkarrekin bakean bizitzeko beste oinarri batzuk aurkitzeko gurari hori, talde batek egiten duen bortxak zikitzen du, eta uhertu. **Pello Salaburu**

Aingerua bere **nahikari** gaiztoz aingeru on izatetik deabru bihurtu bazen, nondik zuen hark ere deabru bihur zedin **nahikari** gaizto hori, egilerik hoberenak egindako aingerua izanik oso-osorik? **Imanol Unzurrunzaga**

Xutik bizi izan da eta bururaino xutik egoitea izan du **nahikari** lehena. **Herria**

Horixe da nire **nahikaririk** indartsuena, eta krimen hori burutu arte ez dut bakerik izango. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Hala ere, **nahikari** azkar batek bultzaturik, Belzuntze batasuneko partaideek beti ardietsi dute Antzuolarren ongi errezebitzea. **Herria**

3 (hitz elkartuetan)

Benetako abizenak gogoan, deitura berriak sortzen dira asmo parodiko batek edo gardentasun **nahikari** batek bultzatuta. **Iñaki Arranz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere nahikaria (3); **egiteko nahikaria** (3)

nahikatu, nahika, nahikatzen du *ad* nahi izan.

Nahikatu dut eskandaluzko bide hori guztien onbiderako izan zedin, eta horra zer egin dudan. **Jon Muñoz**

Valmont jaunagandik hartu dudan gutun bat da, **nahikatu** baitu ni hautatzea isilmandatari, bai orobat bitarteko Tourvel andrearen aldera, eta halaber erantsi baitio nire gutunari bertze gutun bat harentzat. **Jon Muñoz**

nahikera iz nahikaria, borondatea.

Jakintzat ematen dut nigan hiru pentsamendu direla; hots, bat nire-nire, neure askatasun eta **nahikera** hutsetik sortzen dena; eta beste bi, kanpotik datozenak: bat espiritu onagandik, eta bestea txarragandik. **Patxi Altuna**

nahikeria 1 iz nahikari apetatsua.

Irrigarri eta peril handikoa litzateke legeen egitekoa norbanako batek bere **nahikeriaren** arabera urratzeko ahalmen mugagabea izatea. **Andres Urrutia**

Beheko mailan, aldiz, herria edo populua dago, **nahikeriaz** beteta, materian eta materiaz bizi dena, ekonomia mundukoa. **Askoren artean**

Haren aitak manatuta, ahaleginetan ari zen erreginarengandik ez urrutzeko eta hura **nahikeriarik** apalenean ere zerbitzatzeko. **Aingeru Epaltza**

Bai noski, literatura masiboki kontsumitzen duten ergelak diren bitartean, eta haien gogo simple eta **nahikeria** merkeak asetzeko prest dauden zu bezalako mertzenarioak diren bitartean. **Jon Alonso**

Leporaino daude sarturik ordenagabeko **nahikerietan**. **Joan Mari Lekuona**

Geroztik, nire **nahikeria** leninistak ere oroitzapenen kutxara igaro ziren. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ikuskapenerako Informazio eta Plangintza Ataleko zuzendaritza libre gelditzea fortunaren **nahikeria** izan zen. **Aingeru Epaltza**

Ezin da kexatu, baina tarteka beste norbait izateko **nahikeria** edo nostalgia sentituko du, beste norbaiten larruan ordu batzuk pasatzeko grina. **Joxean Agirre**

2 zerbait lortzeko asmo sendoa. ik **pretentsio**.

Kurioski munduko berrien goait nengoan, Elizaren etorkizunaz kezkatu nintzen eta ez nintzen ohartzten ene ingurumenean gertatzen ari ziren gizare-aldaketei: gazteen ikara eta **nahikeriak**, emakumeen eskakizunak, langileen arrangurak eta beste. **Piarres Aintziart**

Ez dute suportatzen dena ez kontrolatzea, preso batek bere **nahikeria** erakustea, bere nortasuna atxikitzea, buru egitea. **Filipe Bidart**

Kuraia eta **nahikeria** eta bertutea eta indarra ukan zituela, hark. **Daniel Landart**

Kabalkadetarik ihauterirat, toberetarik antzerkirat, talde bat sortu da **nahikeri** batekin: antzerkian goxatu. **Herria**

Nahikeria da erreferendum bat lau gai hauietaz galdatzea, eta hortarako mozioe baten sinaraztea jendeeri, arats hortan, betan, Euskal Herri guzian. **Herria**

Bainan horra nun, azen ontzeko, Espainiako apezpikuen batzarrak azkarki jorratu duen Ibarretxe-ren plana, gogor salatuz Euskal-Herriak bere buruaren jabe izaiteko ukan dezakeen **nahikeria** ...! **Herria**

Biba zuek gazteak, zuen **nahikeria** ona erakutsi baituzue. **Herria**

Nahiz politikeroen euskara defendatuzeko **nahikeria** eskasa deitoratzen dugun, lehen hobendunak ez ote dira gure familietako jendeak, gure aitamak, gure haurrideak?

Herria

Lege berriaren **nahikeria** da, etxe berrien egiteko baimenak ez nola nahika eta nun nahi emaita, tokiko laborantxaren geroa zaindu nahiz, eta ere ingurumenaren ahal bezainbat errespetatu nahian. **Herria**

Dagün urtean badate 20 urte Euskal Irratiak bizi direla, jenteen **nahikeria** eta indarrez. **Herria**

Banuen halako lotsa bat, halako ahalge bat hobeki erraiteko, baina ere denbora berean neska harekin solastatzeko **nahikeria** gaitza. **Janbattitt Dirassar**

Gehienik gustatu zaiona publiko pollit horri: lau pilotarien **nahikeria** sanao, eta jokoa ere bai harekin bixtan dena. **Herria**

Bazirudien tasun huraxe hartzen zuela, beste ezein **nahikeria** kutun bainoago, bera besteengandik bereizten zuen ezaugarri propioztat. **Mirentxu Larrañaga**

Esku berantetsiak ipur-mazeletan itsatsiz, aurpegi aldera erakarri nuen Kristina, haren osin gorri-beltzean pulunpatzeko **nahikeriaz**. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beren nahikeria (3); **egiteko nahikeria** (3)

nahiko 1 *adlag eta izlag* aski. (izen mugagabearen ezkerrean)

-Guk neskatan egiteko berriz jaiο beharko genikek, eta hala ere, **nahiko** lan. **Pedro Alberdi**

Oraindik ere, **nahiko** lan izanen duzu. **Alberto Ladron Arana**

Elias Elortzak [...] **nahiko** lan izaten zuen hitz egiteko. **Ramon Saizarbitoria**

Gainera, ni aurki jubilatuko nauk, eta ez diagu **nahiko** diru. **Iban Zaldua**

-Izango duzu **nahiko** betaurreko gaua bukatu baino lehen. **Koro Navarro**

Ez daukatela **nahiko** abere hilik jateko. **Jon Alonso**

Nahiko ezuste izan dut gaur. **Fernando Morillo**

Nahiko odol galdu banuen ere, ez zitzaidan gaiztotu. **Alberto Ladron Arana**

Lurrean **nahiko** elur ez balego bezala ari zuen zerutik. **Jon Maia**

Aski da; izan dut **nahiko** irain. **Ander Irizar**

Nik **nahiko** izerdi bota diat, baita bion partez ere. **Joan Mari Irigoien**

Nahiko barre egiten genuen, "ontze" gora eta "ontze" behera. **Joxemari Urteaga**

Pieza horren kontura **nahiko** barre eginak baikara, izan ere, etxean. **Xabier Etxabe**

Nahiko iseka egin ondoren, kapa erantzi eta bere soinekoak jarri zizkieten. **Elizen arteko biblia**

Bazen **nahiko** arrazoi haren semea emirraren aurrera eramateko. **Karlos Zabala**

Baditugu hemen **nahiko** arazo konpondu beharrak. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Goizetik jadanik izana zen **nahiko** mugimendu Baionako karrketan. **Herria**

Ugatzak, **nahiko** quorum zeukala iritzirik, nonbait, komunikatua irakurtzeari ekin zion. **Jon Alonso**

Zeingehiagoketara **nahiko** jende biltzen da. **Gotzon Garate**

Lajosek **nahiko** min egin zizun lehenago ere. **Ander Irizar**

Beste mundu bat da: **nahiko** leku dago; ez zaude beti inguratutik, ez kalez, ez jendez. **Xabier Olarra**

Gure jendea txiroa zen, eta hori **nahiko** motibazio bazen mobilizazioetarako. **Jon Maia**

2 (-a organikoa duten izenen ezkerrean)

Nahiko fruta jan dugu errepide bazterretako frutarboletatik. **Jokin Urain**

Errugbizaleek bazuten **nahiko** bazka telebixtan. **Herria**

Zoazi, zoazi baso baten edaterat, Jesus; baduzu **nahiko** denbora ta... **Menane Oxandabaratz**

Azkenean nirekin **nahiko** konfiantza hartu zuen. **Gotzon Garate**

Nahiko froga izango al da zuretzat? **Jon Alonso**

Saioak egiteko orduan ere, **nahiko** ganora zuten. **Lander Garro**

Hemengo unibertsitateak **nahiko** azpiegitura duelako horrelako ekintza baterako. **Anjel Lertxundi**

Orobat pentsatu du aurrerantzean **nahiko** kezka eta ardura izango dituela emakumeak alabaren gaixotasunarekin. **Imanol Zurutuza**

3 (izen mugatuaren ezkerrean)

Halaxe baitzen ohitura: egunez egindako barrasbakeriak iluntzean bildurik ospatzekoa, **nahiko** ardoa lagun. **Patziku Perurena**

Karia hortarat, **nahiko** sukarra izan da tokika. **Herria**

Walpurgis gauean sorginak deabruaren zumearekin hiru aldiz jotzen bazuen behia, urte guzian ematen omen zuela **nahiko** esnea. **Patziku Perurena**

Kaukasoren galdarek **nahiko** presioa zuten. **Karlos Zabala**

Egoeraren esplikatzeko **nahiko** astia ukanen zuten geroxeago. **Elena Touyarou**

Hain zuzen, berehala "Etxexuriak" jakinarazi du sari horrek erakusten zuela Estatu Batuetan bazela **nahiko** askatasuna, egiazko demokrazia izanez. **Herria**

-Morrosko handi eta indartsua bilakatu zen, basati samarra, inguruko jendea menderatu eta bere esanetara jartzeko **nahiko** trebetasunarekin eta herriko nahiz kanpoko neskekin eta emakumeekin larrutarako irrika erabatekoarekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Eta geroztik, zertan gira? ardura **nahiko** lanak eta trabak gela elebidun bat ezin ardietsiz. **Herria**

4 (partitiboaren ezkerrean)

Eta bazuen honelako bularretako batek **nahiko** zerikusirik. **Fernando Morillo**

Ez zuela **nahiko** denborarik izan bere seme-alaben heriotzak sortutako nahigabea berdintzeko. **Imanol Zurutuza**

5 (izen mugagabearen eskuinean)

Unibertsitateko kanpusera katu **nahiko** sartzen da gauez. **Gotzon Garate**

Horrela diru **nahiko** irabazten zuen. **Gotzon Garate**

Zakurron argazki **nahiko** daukat nire argazki albumean. **Gotzon Garate**

Ez nuke paper **nahiko** izango hemen horren berri emateko. **Pello Salaburu**

Ez dugu hemen Sapir-en berri **nahiko** emateko lekurik. **Lourdes Oñederra**

6 (-a organikoa duten izenen eskuinean)

Neronek baserrietan borroka **nahiko** ikusi izan dut. **Gotzon Garate**

Beraz, aukera **nahiko** eman zaizkie eta malguak izan gara. **Berria - Harian**

Harekin guztiarekin irabazten zuenerako denbora **nahiko** eta sobera galdua zuela esanez. **Bego Montorio**

Sultanak esan zuen: "Baduk froga **nahiko**, / fedegabe alu hau dela gehiegizko". **Xabier Olarra**

7 (izen mugatuaren eskuinean)

Ba nik, berez, Hasenmayer zekale-ogia **nahiko** nuen. **Anton Garikano**

8 (partitiboaren eskuinean)

Zakurrik akabatu zituen, horien artean dobermanak ere bai. [Gotzon Garate](#)
Desberdintasun hori [...] ez zaio hizkuntzen historian izan dezakeen garrantziari etekinik [nahiko](#) atera. [Lourdes Oñederra](#)

9 (izenondo, adizlagun edo kideko batekin)

Marmola, beste harri askoren antzera, [nahiko](#) gogorra da konpresiorako. [Irene Aldasoro](#)
Dena den, gaur egun [nahiko](#) zaila da softwarea eginez bizitzeko adina irabaztea. [Berria - Kultura](#)
Une batez pentsatu nuen [nahiko](#) tristea izanen zela karrika hits eta huts hartan bizitzea. [Alberto Ladron Arana](#)
Hau [nahiko](#) berria da euskal munduan eta, zalantza gabe, ez da batere seinale txarra. [Pello Salaburu](#)
Margolan indartsu baina [nahiko](#) beldurgarri eta arrotz haietatik. [Xabier Olarra](#)
Usaimen [nahiko](#) finekoa zen. [Xabier Olarra](#)
[Nahiko](#) urriak ziren zure ondasunak ni etorri aurretik. [Elizen arteko biblia](#)
Arrain eta narrastien kasuan, [nahiko](#) simpleak dira horretan parte hartzen duten prozesuak. [Irene Aldasoro](#)
Enbrioiaren eskeletoa kartilagozkoa bada ere, [nahiko](#) bizkor bihurtzen da hezur. [Irene Aldasoro](#)
Harryk [nahiko](#) garbi ikusi zuen irudi itzel bat, izugarritzkoa, begi distiratsu eta handiak zituena. [Iñaki Mendiguren](#)
Ni [nahiko](#) pozik nengoen komunista bihurtu izanaz. [Pello Lizarralde](#)
Nire poza (eta Rubirena ere bai!) baserrira heldu garenean, ni [nahiko](#) nekaturik eta izerdiz blai eginda. [Gotzon Garate](#)
Gero, lanarekin [nahiko](#) itota zebilela esan zidan. [Ramon Saizarbitoria](#)
Setiatuak [nahiko](#) eroso instalaturik baitaude. [Jon Alonso](#)
[-Nahiko](#) ados nago berarekin -bota zuen Wendyk, zakar. [Julen Gabiria](#)
[Nahiko](#) behean zegoen eguzkiak argitzen zuen, eta arnesak distiraka ari ziren urre gorriaren indarrarekin. [Agustin Otsoa](#)
Atarian geratu zen, [nahiko](#) luze oraindik, etxe barnerantz begira. [Ramon Saizarbitoria](#)

10 (aditz batekin)

Helburu publikoek [nahiko](#) jardun da, hor daude hobiak, irekirik hildakoak hartzeko, hor daude emakumeak, irekirik ere, biziak hartzeko. [Jon Alonso](#)
[Nahiko](#) jan ondoren, beste animalia askok bezala, zakurrek batzuetan hezurak lurrazpian gordetzen dituzte. [Gotzon Garate](#)
Desberdintasun hori ez da [nahiko](#) ikertu fonologian. [Lourdes Oñederra](#)
[Nahiko](#) leher eginda zegoen. [Harkaitz Cano](#)

11 (bestelakoak)

Badute [nahiko](#), lehendik ere, horretatik. [Imanol Zurutuza](#)
Horregatik, [nahiko](#) modu onean saldu zidaan, bera hil arte liburu-dendari eusteko baldintzarekin. [Anjel Lertxundi](#)
Begi-lausoak kentzea, beraz, [nahiko](#) prozedura simplea zen. [Xabier Olarra](#)
[Nahiko](#) emaitza onak izan zituzten neurri horiek. [Irene Aldasoro](#)
Erran dizudanez [nahiko](#) kontu xelebrea da, baina... [Alberto Ladron Arana](#)
-Tira, galdera interesgarria da hori -erantzun zion Riddlek atseginez-, eta [nahiko](#) kontu luzea. [Iñaki Mendiguren](#)
Omsken soldadu talde [nahiko](#) ugaria utzi zuen, hortaz. [Karlos Zabala](#)
Alargunaren etxean miseria-giro [nahiko](#) tristea zegoen. [Josu Zabaleta](#)
Agureak nongoa nintzen antzemango zion italiaraz egiteko nire moduari, aleman [nahiko](#) garbian hasi baititzaidan. [Anjel Lertxundi](#)
Erlijoaren inguruko [nahiko](#) kezka sakonak erabiltzen nituen, batez ere gerraz gerotik. [Alberto Ladron Arana](#)

12 (nahikoa izen mugagabearen ezkerrean)

Elliek [nahikoa](#) jende dauka txora-txora eginda. [Mirentxu Larrañaga](#)
Txalupetan mila gizon nabigazio-zale joango dira, ez genuke [nahikoa](#) ontzi jende gehiago sartzeko. [Jon Alonso](#)
[Nahikoa](#) lan bazutela Donostiako leku-hustea prestatzen; nahita ere, ezin zutela egoera kontrolpean eduki. [Inazio Mujika Iraola](#)
Baina nik [nahikoa](#) lan neukan neure buruarekin eta ospakizunera ez agertzea erabaki nuen. [Hasier Etxeberria](#)
[Nahikoa](#) diru irabazi dut, esan zuen. [Jon Alonso](#)
Pirroren bakearen ondoren bakarrik izan zuten [nahikoa](#) zilar txanpona egiteko. [Iñaki Iñurrieta](#)
[Nahikoa](#) mixeria nozitu zuela eta [nahikoa](#) zorigailtz, eta irain hura guztia bakardadean eraman beharra zama astunegia zela gizaseme batentzat. [Karlos Linazasoro](#)
Ez al da hori [nahikoa](#) mendeku? [Aitor Arana](#)
Horrela esanda erraza dirudi, erantzun zuen erregeak, ikusi behar da, ostera, [nahikoa](#) zurgin ote dugun. [Jon Alonso](#)
Biriketarik datorren aireak ez dakar [nahikoa](#) indar ahoskordei dar-dar eginarazteko. [Lourdes Oñederra](#)
Aurki al dezake berak, Davidek, bere bihotzean [nahikoa](#) maitasun emakume itsusi eta arrunt honentzat? [Oskar Arana](#)
Beatriz itzultzen denerako [nahikoa](#) kemen bilduko duelakoan. [Iban Zaldúa](#)
Badira [nahikoa](#) metodo hizkuntza deskribatzeko eta aztertze gaitzenak. [Xabier Arregi](#)
Ez zuen atsedetik hartu klase ertain baxuak ordaindu ohi zituen soldatei buruzko [nahikoa](#) informazio eduki zuen arte. [Jon Alonso](#)
Izan ezazue, beraz, [nahikoa](#) zuhurtasun geratzeko zalantzarik gabe konkistatuak dituzuen lurralde horietan. [Xabier Arregi](#)
Bazebilen hiri hartan [nahikoa](#) aberastasun hara eta hona, gizon argi batek apur bat poltsikoratzeko beste. [Oskar Arana](#)
Horretarako [nahikoa](#) gaitasun erakutsi duen Mem Ramiresez, armada ilustratuaren ordezkariaz, baliatzea nahiago ez bada. [Jon Alonso](#)
Eta hala ere ez zenuen [nahikoa](#) gizontasun izan, horrela esango zuten, gizontasuna, [nahikoa](#) zintotasun eta lañotasun zuk zeuk hobena aitortzeko. [Jon Alonso](#)
[Nahikoa](#) negar egin duzu dagoeneko, mila esker. [Mirentxu Larrañaga](#)

13 (-a organikoa duten izenen ezkerrean)

[Nahikoa](#) denbora igaro zen Costa emaitzarik gabeko deiaz asper zedin. [Jon Alonso](#)
Ematen al zidan sari hark [nahikoa](#) zuhurtzia? [Karlos Linazasoro](#)
Raimundo Silvak gogoeta egiteari ekin zion, eta [nahikoa](#) gogoeta egin zuen ondorio batera heltzeko. [Jon Alonso](#)
[Nahikoa](#) desabantaila izan zuten azkeneko bizilekuan ere. [Mirentxu Larrañaga](#)
-Ikusi dugu [nahikoa](#) dantza eta [nahikoa](#) lehoi-jostaketa -zioten Don eta Doñek-. [Bernardo Atxaga](#)

14 (nahikoa izen mugatuaren ezkerrean)

Familia zela eta ez zela, [nahikoa](#) dirua zeukan denak ere asebetetzeko. [Patxi Zubizarreta](#)
Neure larruari eusten [nahikoa](#) lana nuen. [Patxi Iturrategi](#)
Bere aita izateko ere [nahikoa](#) adina zeukan- [Nahikoa](#) nobedadea zen, udamineko ekaitz erauntsi handietako batean [...] 25.500 tximist eta oinaztu bota zituela nola zenbatu zituzten. [Anton Garikano](#)
- Baita ere, [nahikoa](#) sinesgarritasunarekin, lehen ere aipatu den Rolimeko Gil, Childe Rolim ere deitua. [Jon Alonso](#)
Eta, bakarrik zegoelarik, [nahikoa](#) argitasunarekin bereizten zituen bere burubideak. [Patxi Zubizarreta](#)

15 (nahikoa partitiboaren ezkerrean)

Haatik, egun hartan bazuten [nahikoa](#) arrantzarik guardia zibilek. [Juan Kruz Igerabide](#)
Ezinezkoa iruditu zitzaigun, ez geneukan-eta [nahikoa](#) dirurik. [Juan Kruz Igerabide](#)
Ez dirudi digresio moralizatzaile hauek [nahikoa](#) zerikusirik dutenik Raimundo Silvak Mogueime pertsonaiatzat onartzeko eduki dituen erresistentziekin. [Jon Alonso](#)

Frogarik gabe eta **nahikoa** frogapenik gabe sartu ordu buruz. ateko heldulekua biratzekoa egin zuen irekitzeko, nabaria izanik **nahikoa** indarrik ez zuela. **Xabier Arregi**

Nork ez du ulertuko ezen, armak erabiltzen ohitutako herri hartan, larruazal zakar eta maskurrez betetakoak ez zuela jasoko burdina goriaren edo ur irakinaren **nahikoa** markarik, handik hiru egunera agertu ahal izateko adinakoa? **Iñaki Iñurrieta**

16 (nahikoa izen mugagabearen eskuinean)

Oker dagoena zuzentzen ere badugu buruhauste **nahikoa** ! **Koldo Zuazo**

Eskarmentu **nahikoa** hartu nian behin, eta ez diat gehiagorik nahi. **Sonia Gonzalez**

Leku **nahikoa** genuen han arineketa eta dribling jarduteko. **Joseba Sarrionandia**

Hasperentzat hartzen den igurtziak aire kopuru **nahikoa** behar duenez [...]. **Lourdes Oñederra**

Jateko **nahikoa** badugu hemen, Jainkoari esker!... **Karlos Zabala**

Egiteko aspergarria aurrera eramateko osotasun **nahikoa** ez duen haurraren modura. **Agustin Otsoa**

Hori ez da, ordea, agurra ukatzeko motibo **nahikoa** . **Iban Zaldua**

Bazuen irakasle izateko gaitasun **nahikoa** . **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Eta hemen ere bada **nahikoa** auschwitz, **nahikoa** izurrite eta **nahikoa** gerra. **Joxerra Garzia**

17 (-a organikoa duten izenen eskuinean)

Denbora **nahikoa** kanpoan igarotzea aski bide da herrimina sortzeko. **Lourdes Oñederra**

Elokuentzia **nahikoa** eta jakituria gutxi zeukala esanez deskribatzen du Salustiok. **Esteban Antxustegi**

Bidean bakarren batek egin zuen haren kontura algarra **nahikoa** , baina Amari bost axola horrek. **Xabier Etxabe**

18 (nahikoa izen mugagaturen eskuinean)

Eta sendotasuna **nahikoa** izan dut... **Agustin Otsoa**

Luluk grazia, maltzurkeria eta gatza **nahikoa** eta sobera zituela erakutsi zion Hurtadori. **Josu Zabaleta**

19 (nahikoa partitiboaren eskuinean)

Eta bidean ez zegoen elurrik **nahikoa** . **Joseba Sarrionandia**

20 (nahikoa izenondo edo adizlagun batekin)

Nahikoa txikia iritzi nion sartutakoan. **Xabier Montoia**

Baina hori ez zitzaidan **nahikoa** interesgarria iruditzen. **Iban Zaldua**

Ez dinat inoiz egiaztatu, beharbada nire errua dun, ez naizelako **nahikoa** irekia. **Jon Alonso**

Bi aurrenekoak **nahikoa** desbideratuak. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Gure ibileretan jente klase asko inguratzen da eta batzuk **nahikoa** gogaikarriak bere bai. **Xabier Amuriza**

Deskribapen metodikorako kodeak **nahikoa** libreak dira eta kokapenerako eskalek oszila dezakete. **Xabier Arregi**

Musuehizagailu bat ere badut neronek diseinatu, **nahikoa** ongi funtzionatzen duena. **Karlos Linazasoro**

Nahikoa erraz lortu zuen. **Xabier Montoia**

Gauzak nola dauden kontuan hartuz gero, **nahikoa** lasai dagoela. **Jon Alonso**

Ondorioa izan zen **nahikoa** ongi ordaintzen ziola. **Jon Alonso**

Aitortu beharra daukat hortaz, hasteko, ni neu **nahikoa** deseroso sentitzen naizela gai honetan. **Joxe Azurmendi**

Hau ez da batere harrigarria; hizkuntzak eskaintzen dituen lanabesak **nahikoa** sistematikoki erabiltzen direla adierazten du. **Itziar Laka**

Bestea **nahikoa** gazterik hil duk, ba -bota nion, normaltasun itxura eginez, baina samindurik. **Edorta Jimenez**

Nahikoa garaiz ikasi nuen, alegia minik hartu nahi ezean, burua makurtu egin behar dela. **Mirentxu Larrañaga**

21 (nahikoa aditz batekin)

Dudleyk **nahikoa** jaten du han, ezta, seme? **Iñaki Mendiguren**

-Tira, **nahikoa** edan duk. **Patxi Zubizarreta**

Nahikoa egin duzu gau baterako. **Iñaki Mendiguren**

Eh, zuek, **nahikoa** egurastu zarete! **Iban Zaldua**

Nahikoa iritzi ziotenean, hiru gizonak kanpora atera ziren eta itzaletik itzalera, kontu handiz, bakoitza bere etxerantz abiatu zen. **Jon Maia**

Zalantzak, bestalde, **nahikoa** alditxartu ninduen, egia esan behar baldin bada. **Karlos Linazasoro**

Nahikoa pairatu du dagoeneko. **Oskar Arana**

Nahikoa aspertuko zen hemen. **Joseba Sarrionandia**

Horrek **nahikoa** lagunduko dizu, batik bat erritmo falta eta terminologia arraroak identifikatzen. **Askoren artean**

Etxean aurkitutakoarekin **nahikoa** edukiko ahal dute! **Oskar Arana**

Nahikoa behar luke horrek. **Oskar Arana**

'Uste dut **nahikoa** aitzinatu duzula', esan zion Arianek. **Joseba Sarrionandia**

22 (nahikoa bestelakoetan)

Nahikoa ikuspegi orijinala iruditzen zait. **Jon Alonso**

Nahikoa itxura abangoardistako lana zen. **Iban Zaldua**

Nahikoa esperientzia okagarria iruditu zitzaidan. **Iban Zaldua**

Suhari eta hezurrezko tresna **nahikoa** sinpleek osatzen zuten, gehienbat, magdaleniar horien ostilamendua. **Iban Zaldua**

Beroki polarren eta ikurrinen dentsitatea **nahikoa** iruditu zaidan multzo ibiltari bat topatu arte. **Iban Zaldua**

Ez da **nahikoa** gogoan hartzea sintagma baten zati guztiak elkarren artean lotzen dituen erlazioa. **Isabel Arrigain**

Nahikoa eta sobera haren amaren hiletara agertzeko. **Iban Zaldua**

-Nahikoa eta lar hitz egin diagu. **Patxi Zubizarreta**

23 (nahikoa izenondo gisa)

Arrazoi **nahikoa** da hori idazle hau beste argi batekin ikusteko. **Koldo Biguri**

Pentsatu bezala, diru-biltze **nahikoa** oparo harekin armak erosi zituzten. **Karlos Linazasoro**

24 cf uste 12.

Bigarrena, don Juan, gazte-itxura izan **nahiko** gizona zen, oso planta dotore eta txukuneko. **Josu Zabaleta**

Euskararen izeneko eta euskara izan **nahiko** zarata nahasi batzuk, kontzientzia, eginbehar eta ideien deslekuaren axalenetik ezinka jaiotzen direnak. **Iñaki Segurola**

25 nahikorik (izen sintagma mugagabe baten eskuinean; ezezko esaldietan)

Nonbait, ez zen oihal **nahikorik** izan besaulki guztiak janzteko. **Jose Morales**

Erresuminduta dago nirekin, bere ustez, laguntza **nahikorik** ematen ez diodalako. **Patxi Iturritegi**

Egoera hartan, ez nuen noski tresneria eta patxada **nahikorik** zilandrotxoak zer ziren ikertzeko. **Juan Garzia**

Larria da, ez baitakigu EHUK baduen azpiegitura **nahikorik** arazoari aurre egiteko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ez zuen inork uste harezkeroko Drake hark eraso egiteko ausardia **nahikorik** izan zezakeenik. **Edorta Jimenez**

Ez dut adin **nahikorik**, eta gazaroko berezto irakintzan eta arinkertan nago oraino. **Xabier Kintana**

Ez duzu gizon **nahikorik** Hollywooden? **Fernando Rey**

Gaur-gaurkoz ez daukate ez eskarmentu ez prestakuntza politikoa **nahikorik**. **Rafa Egiguren**

Ponpaketa **nahikorik** ez. **Irene Aldasoro**

26 (izen sintagma ezabaturik)

Eta Abasi kexaka hasten zitzaionean, hil ondoko oihalerako ez zuela **nahikorik** esaka. **Patxi Zubizarreta**

27 (izen sintagma mugagabe baten eskuinean; bestelako esaldietan)

Kantatzen eta jaten lan **nahikorik** badu. **Gotzon Garate**

Kobra **nahikorik** eskuratu dutenean, kooperatibara doa familia autobusez. **Gotzon Garate**

Nork berma dezake, dibortziarako arrazoirik azaldu ez delarik, horretarako zio **nahikorik** badagoela? **Andres Urrutia**

Eta lur **nahikorik** baduzu han? **Jose Morales**

28 ez-nahikoa izond

Baina halako ikuspuntua ez **nahikoa** izango litzateke. **Isabel Arrigain**

29 nahiko izan da ad aski izan.

Zure helbidea ematea **nahiko da**. **Monika Etxebarria**

- **Nahiko da**, Jokin... hainbeste misterio eta hainbeste itzulinguru. **Unai Iturriaga**

Dendari su emateko bi gizon ausart **nahiko zirela**, bera eta haren koinatua, esaterako. **Karlos Zabala**

Lehorrean ikusten denari eta ikusten ez denari erreparatzea **nahiko zen**, Juan Bautistak esan zuenez, itsasoan non geunden jakiteko. **Joseba Sarrionandia**

Eta **nahiko** izan zitzaion inondik ere kibilitaren gidaria ezagutzeko, haren kopeta baretu baitzen bertatik. **Karlos Zabala**

Eguratsa orratz zorrotzez mukurru dagoela iduri du, eta sinets liteke zaldun armadura bat ez litzatekeela **nahiko izango** diptero horien eztenetik libratzeko. **Karlos Zabala**

Hori gutzia **nahiko izango** ez balitz, dozenaka plan berri egin behar izan da, prozesu korapilatsu eta luze batean, sail batean hasi eta Madrilen bukatzen dena. **Juan**

Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nahiko izango ote da esatea ikusi eta sinetsiren artean aldea honetan datzala, alegia, ikusi oraingo gauzak ikusten direla, sinetsi, berriz, gerokoak? **Imanol**

Unzurrunzaga

30 nahikoa eta sobera

Elkar ikusten dugu, eta, sinets egidazu, **nahikoa eta sobera** da. **Iban Zaldúa**

Gutxi gara euskaldunak, baina, besarkada horren ondoren, **nahikoa eta sobera** izango gara hizkuntza eta kultura eta komunitate transnazional baliagarri bat osatzeko.

Joseba Zulaika

Luluk grazia, maltzurkeria eta gatza **nahikoa eta sobera** zituera erakutsi zion Hurtadori. **Josu Zabaleta**

Egia esanda, diru arazo handirik ez zeukan Mentxuk, amak aitaren ezkutuan **nahikoa eta sobera** eskuratu baitzion. biek dute kalitatea **nahikoa eta sobera** txapela berriro janzteko. **Josu Landa**

31 nahikoa eta sobra

Egunean behin zigorra ezartzea **nahikoa eta sobra** da gizaki batentzat. **Jon Alonso**

Van Daan jaunarentzat bainua bere gelan hartzeak ematen dion lasaitasunak **nahikoa eta sobra** merezi du ur beroa hainbeste solairu jaso beharra. **Josu Zabaleta**

- Matiasek esan zion **nahikoa** zela, **eta sobra**, baina, beharbada, gogoratuko zutela besteren bat. **Unai Elorriaga**

32 nahikoa izan da ad aski izan.

"**Nahikoa da**, Teresa! Mesedez!", eten nuen. **Bernardo Atxaga**

Buo, **nahikoa duk**, edantzak! **Pako Aristi**

Mesedez, **nahikoa da**, utzidazu joaten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nahikoa da begiratu bakarria desolamenduaz jabetzeko, baina eroso sentitzen zara hala ere giro horretan. **Rafa Egiguren**

-Irrika pizteko **nahikoa da**, bai, baina gutxi taxuzko zerbait egiteko. **Migel Angel Mintegi**

Behin bakarrik eta **nahikoa zen**. Hutsa **nahikoa izango zen** dena sutan jartzeko, eta jendea kezkatuta zegoen. **Joxemari Iturralde**

Dobbyk uste zuen bere bludgerra **nahikoa izango zela** horretara behartzeko... **Iñaki Mendiguren**

Hori **nahikoa izan** eta, ibaitik urrun irten gara. **Edorta Jimenez**

Eta ez **da nahikoa**. **Harkaitz Cano**

Granger andereñoa, hiru buelta **nahikoa izango dira**. **Iñaki Mendiguren**

Nahikoa izango zaizu jakitea ez zuk ez nik ez dugula sekula santan hain izaki ezirik ezagutu. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Baina ordu erdia **nahikoa izan zait**. **Bernardo Atxaga**

33 du ad

-Tira, **nahikoa dugu**, e? -esan zien Weasley andreak. **Iñaki Mendiguren**

-Hi, Natxo, **nahikoa diagu**! **Xabier Mendiguren Elizegi**

- **Nahikoa dugula** esan dut! -bota zion Weasley andreak, hutsik zegoen aulki batean bere erosketak utzita-. **Iñaki Mendiguren**

Nik batekin **nahikoa dut**, baina norekin? **Pako Aristi**

Goizekoa **nahikoa diat** gaurkoz. **Aitor Arana**

Lo dagoenean ere ez dago erabat lo, eta **nahikoa du** hots bat ziztu bizian aldegitako. **Bernardo Atxaga**

Ez pentsa **nahikoa duzenik** "Abrahamen ondorengo gara" esatea. **Elizen arteko biblia**

Hori entzutea **nahikoa izan zuen** Justok. **Joxemari Urteaga**

Pasaportea erakustea **nahikoa izan genuen**. **Rafa Egiguren**

Gure artean, ordea, **nahikoa dut** berari begiratzea azal barrura sar dakidan. **Oskar Arana**

Nunuk esan zuen gu biok **nahikoa genituela** etxea eta lorategia. **Ander Irizar**

Nahikoa nuen, hala ere. **Edorta Jimenez**

Jaunak ematen ziguna aski eta **nahikoa genuen** bizitzeko. **Jose Antonio Mujika**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

nahiko aberatsa (4); **nahiko** adierazgarria (4); **nahiko** ados (6); **nahiko** antzekoak (12); **nahiko** antzekoak dira (4); **nahiko** aparte (4); **nahiko** arazo (9); **nahiko** argi (45); **nahiko** argi dago (5); **nahiko** argia (8); **nahiko** arin (5); **nahiko** arraroa (6); **nahiko** arrazoi (11); **nahiko** arrunta (9); **nahiko** aurreratuta (8); **nahiko** azkar (9); **nahiko** aztoratuta (13); **nahiko** aztoratuta utzi (11); **nahiko** baikor (4); **nahiko** bakarrik (4); **nahiko** berandu (8); **nahiko** berezia (4); **nahiko** bereziak (5); **nahiko** bero (4); **nahiko** berria (13); **nahiko** berria da (9); **nahiko** berriak (4); **nahiko** bide (5); **nahiko** bitxia (12); **nahiko** bizia (5); **nahiko** buruhauste (5); **nahiko** da (8); **nahiko** denbora (29); **nahiko** desberdinak (4); **nahiko** diru (11)

nahiko egin (5); **nahiko** egoera (9); **nahiko** egokia (6); **nahiko** era (4); **nahiko** eroso (23); **nahiko** eroso irabazi (6); **nahiko** erraz (41); **nahiko** erraz irabazi (5); **nahiko** erraz nagusitu (4); **nahiko** erraza (12); **nahiko** erraza da (6); **nahiko** eskasa (9); **nahiko** eskasak (4); **nahiko** ezaguna (7); **nahiko** ezaguna da (6); **nahiko** ezagunak (5); **nahiko** ezezaguna (5); **nahiko** ezkor (4); **nahiko** frogia (5); **nahiko** gaizki (27); **nahiko** galduta (4); **nahiko** garbi (23); **nahiko** garbi dago (5); **nahiko** garbia (8); **nahiko** gauza (9); **nahiko** gaztea (4); **nahiko** gertu (12); **nahiko** gogor (7); **nahiko** gogorra (18); **nahiko** gogorra izan (4); **nahiko** gogorrak (4); **nahiko** goian (4); **nahiko** goiz (5); **nahiko** gorabeheratsua (5); **nahiko** gustura (13); **nahiko** gutxi (5); **nahiko** handia (26); **nahiko** handiak da (8); **nahiko** handiak (11); **nahiko** harreman (5); **nahiko** harrera (4); **nahiko** harrigarria (8); **nahiko** harrituta (6); **nahiko** haserre (4); **nahiko** heldua (5); **nahiko** hotza (4); **nahiko** hurbil (12)

nahiko ilun (5); **nahiko** iluna (4); **nahiko** indar (6); **nahiko** indarra (4); **nahiko** interesgarria (4); **nahiko** irekia (4); **nahiko** isila (4); **nahiko** jende (4); **nahiko** justu (11); **nahiko** komeria (4); **nahiko** kontu (6); **nahiko** laburra (5); **nahiko** lan (97); **nahiko** lan egin (4); **nahiko** lan emango (4); **nahiko** lan izan (10); **nahiko** lan izango (14); **nahiko** lan izaten (7); **nahiko** lanak (4); **nahiko** larri (13); **nahiko** larria (7); **nahiko** larria da (4); **nahiko** lasal (20); **nahiko** lasaia (7); **nahiko** lausoa (4); **nahiko** leku (8); **nahiko** luzea

(6); **nahiko maila** (10); **nahiko makal** (5); **nahiko meritu** (5); **nahiko merke** (5); **nahiko motilo** (4); **nahiko motibo** (4); **nahiko nahasia** (7); **nahiko nahasia da** (4); **nahiko nekatuta** (7); **nahiko normala** (8)

nahiko ohikoa (6); **nahiko ohikoa da** (5); **nahiko ohikoak** (4); **nahiko ona** (26); **nahiko ona izan** (7); **nahiko onak** (13); **nahiko onak izan** (6); **nahiko ondo** (119); **nahiko ondo ikusi** (6); **nahiko ondo moldatu** (5); **nahiko ondo moldatzen** (8); **nahiko ondo nago** (5); **nahiko ongi** (59); **nahiko parean** (5); **nahiko parekatua** (6); **nahiko parekatua izan** (4); **nahiko parekatuta** (5); **nahiko partida** (4); **nahiko pattal** (6); **nahiko pozik** (17); **nahiko presio** (4); **nahiko triste** (4); **nahiko tristea** (4); **nahiko txarra** (7); **nahiko txarto** (5); **nahiko txikia** (8); **nahiko txikiak** (7); **nahiko txukun** (29); **nahiko txukun aritu** (11); **nahiko txukuna** (10)

nahiko urduri (6); **nahiko urria** (4); **nahiko urrun** (28); **nahiko urruti** (8); **nahiko zabala** (10); **nahiko zaharra** (4); **nahiko zail** (4); **nahiko zaila** (35); **nahiko zaila da** (7); **nahiko zaila izan** (4); **nahiko zaila izango** (6); **nahiko zailak** (4); **nahiko ziur** (4)

babes nahikoa (8); **babesa nahikoa** (4); **beharrezkoa eta nahikoa** (5); **berdinketa nahikoa** (6); **denbora nahikoa** (20); **denbora nahikoa izan** (5); **indar nahikoa** (6); **informazio nahikoa** (7); **laguntza nahikoa** (4); **maila nahikoa** (4); **minutu nahikoa** (4)

nahikoa argi (16); **nahikoa arrazoi** (24); **nahikoa asti** (6); **nahikoa babes** (6); **nahikoa baino gehiago** (4); **nahikoa baliabide** (4); **nahikoa behar luke** (4); **nahikoa berme** (4); **nahikoa beta** (4); **nahikoa buruhauste** (7); **nahikoa da** (341); **nahikoa da hori** (4); **nahikoa da horretarako** (5); **nahikoa dauka** (7); **nahikoa daukagu** (5); **nahikoa daukat** (6); **nahikoa dela** (51); **nahikoa dela uste** (9); **nahikoa den** (9); **nahikoa dena** (5); **nahikoa denbora** (47); **nahikoa denbora izan** (8); **nahikoa denbora izango** (9); **nahikoa diagu** (13); **nahikoa dinagu** (4); **nahikoa dio** (4); **nahikoa dira** (12); **nahikoa diru** (20); **nahikoa du** (64); **nahikoa du gaur** (4); **nahikoa dugu** (37); **nahikoa duk** (20); **nahikoa dun** (6); **nahikoa dut** (27); **nahikoa dute** (28); **nahikoa duten** (4); **nahikoa duzu** (15)

nahikoa edan (6); **nahikoa eduki** (4); **nahikoa egin** (61); **nahikoa egin zian** (20); **nahikoa egin zuen** (8); **nahikoa egiten** (11); **nahikoa egiten ari** (4); **nahikoa ematen** (4); **nahikoa entzun** (4); **nahikoa ere** (4); **nahikoa erraz** (7); **nahikoa erraza** (4); **nahikoa esan** (21); **nahikoa esan zuen** (4); **nahikoa esatea** (5); **nahikoa esperientzia** (5); **nahikoa eta** (74); **nahikoa eta gehiago** (13); **nahikoa eta gehiegi** (18); **nahikoa eta sobera** (18); **nahikoa ez** (156); **nahikoa ez bada** (8); **nahikoa ez balitz** (12); **nahikoa ez dela** (16); **nahikoa ez direla** (6); **nahikoa ez eta** (16); **nahikoa ez zela** (11); **nahikoa ezagutzen** (6); **nahikoa froga** (10); **nahikoa genuen** (7); **nahikoa gora** (4); **nahikoa gure** (4); **nahikoa hitz egin** (7); **nahikoa hurbil** (11)

nahikoa indar (20); **nahikoa informazio** (5); **nahikoa iritzi** (5); **nahikoa iruditu** (8); **nahikoa iruditzen** (6); **nahikoa izan** (347); **nahikoa izan da** (13); **nahikoa izan daiteke** (12); **nahikoa izan dira** (8); **nahikoa izan du** (9); **nahikoa izan nuen** (10); **nahikoa izan zen** (72); **nahikoa izan ziren** (8); **nahikoa izan zuen** (35); **nahikoa izan zuten** (10); **nahikoa izanen** (31); **nahikoa izango** (194); **nahikoa izango da** (42); **nahikoa izango zen** (10); **nahikoa izatea** (8); **nahikoa izaten** (54); **nahikoa izaten da** (18); **nahikoa jan** (5); **nahikoa jende** (5); **nahikoa lan** (83); **nahikoa lan izan** (16); **nahikoa lasai** (4); **nahikoa leku** (8); **nahikoa litzateke** (32); **nahikoa luke** (10); **nahikoa luzea** (4); **nahikoa negar** (4); **nahikoa negar egin** (4); **nahikoa nuen** (10)

nahikoa ondo (15); **nahikoa ongi** (11); **nahikoa salatu** (4); **nahikoa sari** (4)

nahikoa urrun (11); **nahikoa urruti** (5); **nahikoa uste** (4); **nahikoa zaio** (5); **nahikoa zait** (5); **nahikoa zela** (25); **nahikoa zela esan** (6); **nahikoa zen** (54); **nahikoa zigor** (6)

oinarri nahikoa (4); **osasunak nahikoa** (4); **partida nahikoa** (4); **puntu bat nahikoa** (5); **sostengu nahikoa** (6)

baliabide nahikoak (4); **hitz nahikoak** (5); **minutu nahikoak izan** (7)

arrazoi nahikorik (4); **babes nahikorik** (9); **baliabide nahikorik** (16); **berme nahikorik** (5); **bitarteko nahikorik** (4); **boto nahikorik** (4); **denbora nahikorik** (6); **diru baliabide nahikorik** (4); **diru nahikorik** (14); **froga nahikorik** (15); **indar nahikorik** (14); **informazio nahikorik** (7); **politiko nahikorik** (4)

nahikotzat jo (8); **nahikotzat jotzen** (6)

nahikoa ik **nahiko** 12.

nahikor *izond* ik **nahitsu**.

Langile **nahikor** kementsueri esker. Herria

Kokotza azkarra zuen, **nahikorra**. Michel Oronoz

nahikorik ik **nahiko** 22.

nahikotasun 1 *iz* nahikoa denaren nolakotasuna.

Legearen arabera, baliabide publikoak irakaskuntzarako eta ikerketarako erabiltzerakoan, «**nahikotasun**», helburu eta ardura» lehenetsuen arabera hartu behar dira erabakiak. Berria - Euskal Herria

2 harrokeria.

Nahikotasunaz begiratzen didazue ni txiki naizelakoan, eta ez zarete konturatzen nirean usu direla zuen sudurrentzat aspaldi debeku diren urrin gozoak. Jon Alonso

3 (hitz elkartuetan)

Oinarrizkoena falta zaio, nahimen eta ekimen endogenoaren **nahikotasun** maila. Txema Ramirez de la Piscina

- Erabileran **nahikotasun** horretan literatura garrantzizkoa da, baina ezin du berak bakarrik egin historiak eta hitzunek egin ez duten bidea, nahiz laguntza handia izan daitekeen... Ana Urkiza

nahikotxo 1 *adlag adkor* nahiko, askotxo.

-Tailerra utzi nuenetik **nahikotxo** aldatu zait bizitza, bai... Paddy Rekalde

Diskoa entzunez gero, **nahikotxo** igartzen dela uste dut: abesteko eran, interpretazioan... Berria - Kultura

Berarekin topatu zen egun batean esan ziolako **nahikotxo** pattal aurkitu zuela. Koldo Biguri

Horrexen bidez jakin ahal da Patxi Ibarluzea hura pilotu egina zela Mexiko gerran sartu baino **nahikotxo** lehenago. Edorta Jimenez

2 (izenekin)

Azkenaldian elkarrizketa **nahikotxo** egin dizkiote eta nabaritzen zaio; pilotalekuan bezala, kazetarien aurrean ere zailtzen hasia da. Berria - Kirola

Nahikotxo diru, egia esan. Oskar Arana

Nahikotxo garagardo edana nuen ordurako. Joxemari Iturralde

nahikunde *(orobat nahikunte g.er.)* 1 *iz* nahia, desira.

Halere, ez dute guztiak beren **nahikunde**a betetzen. Gotzon Garate

Laster, ordea, askatasunaren **nahikunde**ak eraginda, ordura arte Espainiaren azpian zeuden nazioek zeinek bere bidetik jo zuten. Gotzon Garate

Kukumixa kaiola hartarik ateratzeko **nahikunde**a piztu zitzaion. Itxaro Borda

Baina nola izan ditake egiazko amodiorik, libertaterik ez den bikote batean, familia batean, erresuma batean, gogoan dituzun ideiak, **nahikunde**ak, bihotzean dituzun sendimenduak, ez dituzularik libertate osoan agertzen eta gauzatzen ahal? Michel Oronoz

Asmo garbi eta soila Jainkoa bakarrik bilatzeko, inolako **nahikunderik** gabe ez bere burua, ez probetxugarri gerta dakiokoen ezer bilatzeko. Joan Mari Lekuona

Berehala konturatu zen **nahikunde** hori alferrikakoa zela, zeren aitaren heriotza baitzen munduan inoiz gertatu zen eta azkenik gabe gertatzen jarraituko zuen gauza bakarra. Juan Garzia

Erabaki horien bidez, foruen aspaldiko zedarrien aztarna guziak ezabatzeko **nahikunde**a zuten. Elena Touyarou

Sinestea bera ordea, adimenduaren ekintza da, Jainkoaren egiazko hitza onartzen dugularik, **nahikundearen** aginduz, Jainkoaren graziak sustaturik. Piarres Xarriton

Nahikundeek hilarazten dute alferra, haren eskuak ez baitaude lanerako prest.

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nahikunde handirik arramortzatze gogorik gabe. Herria

Sistema horien gainean nortasun bakarra eraiki nahi izatea egitasmo politiko hutsa da, zilegia izanda ere, eta gaur egungo eskema hirukoitian kultur nortasun bakarra eraiki daitekeela sinistea, **nahikunde** hutsa da. Berria - Kultura

Zure eskuetan uzten dut nire burua, zure **nahikunde** gurgarrian bai denboran eta bai eternitatean. Joan Mari Lekuona

Dabid Profeta Santuak, **nahikunde** sutsuak eraginik, hots egin zuen: "Basahuntza irrikaz errekarra bezala, halaxe ni zuregana, ene Jainko". Joan Mari Lekuona

Asmo garbi eta soila Jainkoa bakarrik bilatzeko, inolako **nahikunderik** gabe ez bere burua, ez probetxugarri gerta dakioken ezer bilatzeko. Joan Mari Lekuona

Soinu-nahaspila horren erditik, nonbaitetik, **nahikunde** hilezkorraren nota zinezko bakar bat hegaz aterako dela, txori bat bezala. Oskar Arana

3 *goi-nahikunde*

Erraten da, adimenduaren **goi nahikundearen** neholako erabakirik, ez barneko edo kanpoko ekintzarik, ez dela izaten ahal osoki bortxazkoa, zeren eta nehor ez baita bortxatzen ahal osoki nahi izatera, baina bai nahi eta beldur izatera. Piarres Xarriton

nahikunte ik nahikunde.

nahimen 1 *iz* nahi izateko ahalmena.

Horregatik deitzen zaio **nahimena**, nahiaren indarra. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni neu, ni gogoa ari naiz -dihardut- nire ahalmen diren adimena, **nahimena** eta oroimenaren aurretik, edo goragotik, edo barruagotik. Jenaro Garate

Adimena prest zeukan kristautasuna onartzeko, **nahimena** ez oraindik. Imanol Unzurrunzaga

[...] bat aditzeko ahalmena, eskoletan Adimena deitzen dutena eta, bestea, berriz, nahi edo ez nahi izateko ahalmena, deitzen dutena **Nahimena** edo Borondatea. Piarres Xarriton

Ni ene gorputz hauxe naiz, ene gorputza nire **nahimena** da, nire **nahimenaren** objektibazioa. Askoren artean

Nahimen hori gabe bekaturik ezin egingo genukeen eta ildo horretatik, ikaragarria badirudi ere, Jaungoikoa har genezakeen gure bekaturen egiazko egiletzat. Imanol Unzurrunzaga

Beraz, gorputzen edertasunak ez du gezurrik esaten, **nahimenik** ez daukalako. Imanol Unzurrunzaga

Zeren nahi izatea beharrezkoa bada, nondik etor daiteke nahi izate hori **nahimenetik** ez bada? Imanol Unzurrunzaga

Gogojardunak hartzen ari denari on handia egiten dio haiei ekiteak bere Egile eta Jaunarekiko adore handiz eta esku zabal-zabalez, bere **nahimen** eta askatasun osoa eskainiz, Jainko handia balia dadin bai haren pertsonaz, bai daukan guztiaz, bere borondate txit santuaren arabera. Patxi Altuna

Oharmen **nahimen** eta erabakimendu osoz, Euskal Herriaren bizi-partaide naiz, eta guztiz aintzakotzat hartzen dut Euskal Herriaren berezko izantza, eta beregain bizitzeko borondatea, egungoa eta etorkizuneko. Herria

Erantzun automatikoak, gehientsuenak gure **nahimenari** itzurtzen zaizkionak, erreflexuak, alegia, eta halakoak gizakiak bezain ongi gauza ditzakeela makina batek, edo hobeki agian. Joxe Austin Arrieta

Rousseaurentzat, aldiz, herria ere **nahimenaz** hornitua da: nahimen orokor honek beti nahiko luke onena herri osoarentzat. Markos Zapiain

Izpiritutik (oldozmen eta **nahimenetik**) behar du abiatu: izpirituaren forma historikotik hain zuen, hori da arraza. Joxe Azurmendi

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Gizakia **nahimen** libreaz jantzita ez balego, injustua litzateke zigorra eta injustua, era berean, saria ere. Imanol Unzurrunzaga

Badakit, bai, anitz badirela uste dutenak demonstratzen ahal dela Jainkoaren izaerari dagokiola adimen gorenaren eta **nahimen** librearen jabe izatea. Piarres Xarriton

Ea zer egin behar den, baldin eta **nahimen** askea, Jainkoa eta geroko mundua badaude. Ibon Uribarri

Ez baitut nik deus sentitzen honako hau bezain irmo eta sakon, alegia, **nahimen** propioa daukadala eta berak naroala zerbaitez gozatzera. Imanol Unzurrunzaga

Ohituak baitira Jainkoaren baitan asmatzen libertate bat guk definitu dugunaz guztiz bestelakoa, hots, **nahimen** absolutua. Piarres Xarriton

Schopenhauerren metafisika, errepresentazioarena ez ezik (berbaitango gauza inoiz ez da errepresentazioaren objektu), errepresentazioa (adimena, arrazoimena) ere azkenean **nahimen** itsuaren morroi eta organismoaren funtzio eratorri bihurtzen da. Askoren artean

Tori, Jauna, eta har ene askatasun osoa, ene oroimena, adimena eta ene **nahimen** osoa, dudan eta daukadan guztia. Patxi Altuna

3 (hitz elkartuetan)

Egiaz, **nahimen** -indar handia eta arreta eskatzen dira hori egintzetan beteko bada. Joan Mari Lekuona

Gurak, animalia izatetik datozkit; nahiak, adimendun eta nahimendun izatetik; gogoak, aldiz, adimen eta **nahimen** ahalmenen jaun maitagogo izatetik. Jenaro Garate

· Gaur konbentzigarria otuko litzaioke giza **nahimena** askea dela; bihar, izadiaren kate disolbaezina kontsideratu ondoren, askatasuna norbere buruari egindako iruzurra besterik ez dela eta izadia baino ez dagoela usteko luke. Ibon Uribarri

4 desira.

Nahimena ez da aski, dirua behar da ere holako lan baten aintzinarazteko. Herria

Nire baitan, baina -nola kontura zintezkeen, gero-, hitz bihurtutako **nahimen** hutsa izan zen, milaka egunen segidan gogor eutsitako irrika. Eduardo Matauko

Ez giza sakrifizioan oinarritutako subiranotasuna, gizartearen **nahimen** demokratiko eta askotarikoan baizik. Joseba Zulaika

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adimen eta nahimen (4); **nahimen librea** (8); **nahimen librea eman** (3); **nahimen librearen** (5); **nahimen osoa** (3)

adimena eta nahimena (11); **nahimena askea** (4); **nahimena eta adimena** (3); **nahimena eta oroimena** (10)

adimenak eta nahimenak (3); **nahimenak agintzen** (3)

adimenaren eta nahimenaren (4); **nahimenaren askatasuna** (4); **nahimenaren erabakimen** (3); **nahimenaren eta oroimenaren** (3)

arrazoimenak determinatutako nahimenean (3); **nahimenean ipintzen** (3)

nahimendun *izond* nahimena duena.

Pertsona izaki arrazional eta **nahimenduna** denetik maitatzeko gai da, eta maitasun honetan, hain zuzen ere, barrundatzen du Agustinek lehen hirutasuna: maitalea, maitatua eta maitasuna. Imanol Unzurrunzaga

Gurak, animalia izatetik datozkit; nahiak, adimendun eta **nahimendun** izatetik; gogoak, aldiz, adimen eta nahimen ahalmenen jaun maitagogo izatetik. Jenaro Garate

nahinoiz *adlag* noiznahi.

Ikasleak eskubidea du, inork inposa ez diezaion, menturaz batere axola ez zaion eztabaida bat; edo eskubide berdina dauka, **nahinoiz** beste edozein gairi buruz eztabaidak berak inposatzeko. Joxe Azurmendi

nahinolako *izlag* nolannahikoa.

Fanatismo horretzek eusten baitio **nahinolako** fedetan. Patziku Perurena

Edaritan, inbiditan, fedetan, ohoretan, haragitan, dirutan edo **nahinolako** biziotan edo banitatetan, grina ezkuturen bat ito nahian? Patziku Perurena
Horratz aristoteliko, eskolastiko, erretoriko, edo **nahinolako** "konputologo modernillo" batek sekula konprentituko ez dizun gauza. Patziku Perurena

nahinon *adlag* nonahi.

Errotik ekintzaile, euskalduna abentureroa da eta etxetik kanpo ibili ohi da, gudian, itsasoan eta **nahinon**. Joxe Azurmendi
Ikusiak zituen, beraz, Gomel, Tchernigov, Minsk eta Voronejeko hondakinak eta hilkintzaren arrastoak **nahinon**. Felipe Juaristi
Giro haretan, trikitilariaren estimaziorik ezin falta, leihaketak eta antzekoak **nahinon** zirala. Xabier Amuriza
Tren estazioan jende piloa dago, maletak, kutzak, bidefardelak **nahinon**. Joseba Sarrionandia
Erlesioneak ez bezala, amak **nahinon** dituzu funtsean berdinak. Xabier Montoia

nahinondik *adlag* nondik-nahi.

Nahinondik atera daiteke berun hilgarria. Xabier Montoia
Eta agure zahar hark bere esku parkinsonianoari eraginez agurtzen gintuen **nahinondik**, guk martxanteretan erositako txikleak, pepitak, erregalizak jaten genituen artean. Joseba Sarrionandia

nahinongo *izlag* nonahiko.

Estoatarrentzat gizon-emakumeak, arrazoimenari jarraitzen dioten eta ez diotenen artean banatzen dira: **nahinongo** arrazoizkoak alde batean, **nahinongo** barbaroak bestean. Askoren artean

nahinora *adlag* noranahi.

Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen **nahinora** joateko, Zoaz kalera gura baduzu lakoak entzuten zituen estreinakoz. Joseba Sarrionandia
Errealitatearen eta gogoaren artean zalantzan bizi gara beti, **nahinora** alde eginarazten digun geratzeko behararekin, eta gauden lekuan geldirik egonarazten digun alde egiteko premia larriarekin. Joseba Sarrionandia
Bai, deserturako ihesean, edo **nahinorakoan**, inoiz egin duen negarrik zuriena egin du gizonak. Patziku Perurena

nahirik ik nahi 9.

nahita ((*hala nahita -66 agerraldi, 25 liburu eta 5 artikuluko- barne*) *620 agerraldi, 149 liburu eta 158 artikulutan*) **1 adlag** nahi izanik, berariaz. ik **nahitara; ohartuki**.

Letra xehea **nahita** eginiko hautua da. Iñigo Aranbarri
Argi dago, zigorra ez litzatekeela zuzena izango, egintza horiek **nahita** eginak ez balira. Imanol Unzurrunzaga
Ea **nahita** egindakoa izan zen "emakume horrek" egindako huts egitea. Iñigo Aranbarri
Baina horrek ez du esan nahi niretzat garbi dagoenik oker hori **nahita** zergatik egin nuen. Jon Alonso
-Benetan uste duzu **nahita** hil nuela? -galdetu zion erreginak. Juan Kruz Igerabide
Maite omen duen bati sufriarazten diona, eta **nahita** sufriarazi gainera, pertsona makurra da. Josu Zabaleta
Nahita aipatu zituen hilketak, Arrietaren erreakzioa ikusteko. Migel Angel Mintegi
Zurrunmuru makurrenak **nahita** zabaltzeaz arduratu ziren. Monika Etxebarria
Galdera hau **nahita** da inozoa. Josu Zabaleta
Don Pedro, **nahita** izan gabe ere, antzinako moduko gizona zen. Josu Zabaleta
Nahita ez dut esan hemen espazioaren "ikusmeneko pertzepzioa". Josu Zabaleta
Eskuaz halako imintzio arraro bat egin zuen airean eta, **nahita** edota nahi gabe, edalontzi bat ukitu eta hark plater bat jotzean apurtu egin zen bizpahiru zatitan. Joxemari Iturralde
Euskadi Literatur sarien banaketa, **nahita** edo ez, Nafarroako letren omenaldi bihurtu zen.- **Nahita** egin huen? -galdetu zuen Julenek, burua, ohi zuen moduan, atzera eta aurrera mugituz. Fernando Morillo
- **Nahita** ? -galdetu zuen Robertek. Xabier Olarra

2 **nahitako** (*orobat nahitazko g.er.*) *izlag*

Funtzioak non kokaturik dauden garunean; mugimendu-eremuak **nahitako** mugimenduak kontrolatzen ditu. Irene Aldasoro
Ziklo horiek bankarien **nahitako** jardunak eragiten zituela. Iñaki Mendiguren
Gauza jakina da ere **nahitako** ekintza guztiak borondatean sortuak direla eta nahitaez daudela bere menpean. Esteban Antxustegi
Horixe da, hain zuzen ere, Proustentzat ezaugarririk baliotsuena: **nahitako** oroimena, haren iritiz, kontzeptuala da, konbentzionala, eta ahula. Xabier Olarra
Nahimena batetik bestera daroan mugimendua **nahitakoa** ez balitz eta gure esku ez balego, gizakiak ez luke ez laudoriorik ez arbuiorik mereziko, nolabait esateko. Imanol Unzurrunzaga
Horra zergatik harriaren mugimendua naturala den eta arimarena **nahitakoa**. Imanol Unzurrunzaga
Hasperen eta istripuen ordeztu, irain zuzen eta **nahitakoak** hasi ziren. Anton Garikano

3 *hala nahita*

Bada, Elisabeth deitzen da, horrek bueltarik ez, bere aitak hala **nahita**. Joxe Austin Arrieta
Izan beza, gure jaun Goikoak hala **nahita**, bizian heriotza, argian iluntasuna, gizartean bakardadea. Felipe Juaristi
Zoriak hala **nahita**, Elimeleken familiako Boozen sail batean hastera egokitu zen. Jose Antonio Mujika
Goiz batean, bideak hala **nahita**, Afrikako hotelik dotoreenaren aurretik -Mammouniatik- pasatu ginen biok motozikleta batean. Bernardo Atxaga

4 **nahita ere**

Ezin da hurbildu, **nahita ere**. Berria - Harian
Nahita ere, ezin izango nintzatekeen berarekin ezkondu. Joxe Austin Arrieta
Garbi ikusten dut **nahita ere** ezingo nukeela berriro horren xaloa izan. Josu Zabaleta
Grossmanek ez zuen etsi nahi, eta, hala **nahita ere**, ezin zezakeen etsipenean erori, hitzen jabe zen bitartean. Felipe Juaristi
Nahita ere ez zenituen ikusiko. Xabier Olarra
Leize handi bat dago zuen eta gure artean: **nahita ere**, ez dauka inork hemendik zuegana igarotzerik, ez eta hortik guregana ere. Elizen arteko biblia
Nahita ere ez ginen gauza izango egia esateko, hainbeste ikaratu gintuen. Matías Múgica

Nahita ere, zaila delarik beste alde batera begiratzea, eta gero gehiegitan bezala, errealitateak ezarri bezala. Joxerra Garzia

Euskaldun izatea bera ere -ez diot nik- ez dago, **nahita ere**, edozein txoropitoren esku. Iñaki Segurola

Amsterdamen, Uriel da Rua bihurtu zen Moisesen fedearen jarraitzaile, baina aldaketak zerbait utzi haren buruan kordokaturik, sekula ez baitzen izan benetako kristau eta sekula ere ez zen benetako judu izango, hala **nahita ere**. Felipe Juaristi

Ezta **nahita ere**. Juan Luis Zabala

Nahita ere ezin. Hasier Etxeberria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berak hala nahita (4); **berak nahita** (5); **ezta nahita ere** (3); **hala nahita** (66); **jainkoak hala nahita** (24)

nahita ari (10); **nahita aukeratu** (6); **nahita bilatu** (4); **nahita egin** (31); **nahita egina** (4); **nahita eginak** (4); **nahita egindako** (24); **nahita egindako zerbait** (4); **nahita egindakoa** (5); **nahita egingo** (4); **nahita eginiko** (4); **nahita egiten** (17); **nahita ematen** (3); **nahita eragindako** (6); **nahita ere** (44); **nahita ere ez** (5); **nahita ere ezin** (7); **nahita ere ezingo** (4); **nahita gertatzen** (3); **nahita hil** (4); **nahita izan** (7); **nahita jartzen** (4); **nahita nahiez** (4); **nahita piztu** (5); **nahita piztutako** (3); **nahita sartu** (3); **nahita zabaltzeaz arduratu** (3); **nahita zapaltzen** (3)

nahitaez *(965 agerraldi, 140 liburu eta 196 artikulutan; orobat nahitez g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian nahitaez agertzen da)* 1 *adlag* nahi bada eta nahi ez bada; inoren nahimenetik at, halabeharrez, ezinbestean, nora ezean. **iknahi 29; baitezpada; derrigor.**

Nahi izanez gero, segidan irakur ditzake denak, bistan da, bata bestearen ondoan eta dauden ordenan berean; baina ez du **nahitaez** horrela egin behar. Jose Antonio

Mujika

Bi baldintza bete behar dira **nahitaez** ilusioa gerta dadin: [...]. Josu Zabaleta

Baldin eta ebakitzen badu, bitan zatitzen du **nahitaez**. Jon Muñoz

Horrenbestez, perpaus analitikoak egiazkoak dira **nahitaez**. Askoren artean

Ez dugu eredu hori nonahi eta noiznahi **nahitaez** erabili behar. Koldo Zuazo

Bada **nahitaez** egin beharreko galdera bat. Iñaki Heras

Bukatu zen arratsaldeko saioa jostundegian eta neska guztiak pauso bizkorrean abiatu ziren herriko plaza aldera, ilundu aurretik **nahitaez** egin beharreko lan batera bezala.

Bernardo Atxaga

Hiru gauza dira **nahitaez** saihestu behar ditugunak, berrikuntza hori lortu nahi badugu. Joan Mari Lekuona

Zentzu horrek jainkozkoa behar du izan **nahitaez** (Jainkoak baizik ezin eman diezaioke zentzurik errealitateari), eta, horrenbestez, ezkutukoa behar du izan **nahitaez**.

Josu Zabaleta

Horrek argi eta garbi erakusten du badela, **nahitaez**, irudia hautemateko, pertzibitzeko denbora-bitarte bat. Josu Zabaleta

Horrek, **nahitaez**, franko harritu ninduen. Daniel Landart

Jainkoa ez dago kosmosari berak ezarritako eta **nahitaez** onartu beharrekoak ez diren legeen mende. Xabier Kintana

Neure gorputzaren ikuspuntua hartzen nuen, **nahitaez**. Josu Zabaleta

2 nahitaezko izlag

Nahitaezko gaia zen urte hartako Akordeoi Lehiaketan, eta bere aitak behin eta berriro joarazten zion. Bernardo Atxaga

Beraz, hautazkoa den *Thau* gara dezakegu, eta ez **nahitaezko** *Tnah* formaldatzea honelako adibideak jorratzeko. Itziar Laka

Etxeko eulia, alegia, eta halaxe izan da ia betidanik, eulia gizakiaren **nahitaezko** bizilaguna izan baita. J.M. Olaizola "Txiliku"

Horrela bizi izan ditugu autobiografiaren eta hilketaren arteko harremanak, ez munduan zehar aske dabilen Gaizto izugarri ulertezina bezala, krimenean geure **nahitaezko** parte-hartze gisa baizik, Abrahamen antzera. Joseba Zulaika

Guztiek -dio berak- onartzen dute munduaren existentzia posible besterik ez dela, **nahitaezko** existentzia balu, hura Jainkoa litzatekeelako. Xabier Kintana

Lege zibilek arautzen dituzte harreman naturalak eta konbentzionalak, aginduzkoak nahiz borondatezkoak, **nahitaezkoak** zein komenientziazkoak. Oskar Arana

Lege zibilak saihestu dezake indarra eta bortxa erabiltzea, senar-emazte pozgabeak loturik edo ezkon barruko ezkongetza **nahitaezkoan** irauarazteko. Andres Urrutia

Nahitaezkoa zaigu eredu erromantikoa uko egitea anakronismoan edo bazterketan ez erortzearen. Bernardo Atxaga

Inbertsioen errentagarritasunak, izan ere, **nahitaezkoa** zuen faktore horiek beti eskura izatea. Koro Navarro

3 (mugagabeen aditz bati dagokiola)

Hogeita batgarren mendean gaude, eta **nahitaezko** gertatzen da galdera: zer dagokio gaur egun abertzaletasun heroikoari? Joseba Zulaika

Baina hemen ere **nahitaezko** suertatuko dira "pagaburuak". Joseba Zulaika

Aurkakotasunak eta kontraesanak ez dute antagonismoa **nahitaezko** egiten. Joseba Zulaika

Soldaduskara joatea **nahitaezko** zenean. Joseba Zulaika

Nahitaezko baita zerbaitek aldagaitz irautea, gauza guztiak ezerez hutsera etor ez daitezten. Xabier Amuriza

Higienea eta ordena **nahitaezko** ditu inguruan, gero buruan ere oreka izateko. Harkaitz Cano

Bide bazterrean galdu ditu marxismo arruntak **nahitaezko** zituen hainbat fiabardura, hala nola pentsalari handiaren obra bere testuinguruan aztertzeari buruzkoak. Iñaki Heras

Nazio guztiek ez dutela Estatu bat **nahitaezko**. Joseba Zulaika

4 ez-nahitaezko izond

Inguruneak aukera ematen dion guzti-guztietan gertatzen ez den ordezkatzeari esaten da hautazko edo **ez-nahitaezko** dela. Lourdes Oñederra

Ordezkatze bat ez **nahitaezko** dela esatea edo hautazko dela esatea gauza bera da. Erantzun absoluturik ez dut uste dagoenik, eta ez dut uste behar dugunik, h[au] d[au], arazoa irakaskuntzan **ez nahitaezko** eta ez osoki tabu bihurtzea daukagu. Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

behar da nahitaez (5); **behar du nahitaez** (9); **behar dute nahitaez** (5); **behar zuen nahitaez** (16); **egiten du nahitaez** (4)

nahitaez aipatu (4); **nahitaez aipatu behar** (3); **nahitaez atera** (3); **nahitaez atera behar** (3); **nahitaez azaldu** (3); **nahitaez behar** (11); **nahitaez behar zuen** (3); **nahitaez bete** (7); **nahitaez egin** (9); **nahitaez egin behar** (3); **nahitaez egin beharreko** (3); **nahitaez eman** (3); **nahitaez eman behar** (3); **nahitaez erabili** (3); **nahitaez eragina** (3); **nahitaez eraman** (4); **nahitaez eraman behar** (3); **nahitaez esan** (3); **nahitaez existitzen** (6); **nahitaez gertatu** (3); **nahitaez gertatzen** (4); **nahitaez hobetu** (4); **nahitaez hobetu beharko** (3); **nahitaez irabazi** (38); **nahitaez irabazi behar** (32); **nahitaez irabazi beharko** (4); **nahitaez izan** (6); **nahitaez izan behar** (4); **nahitaez joan** (8); **nahitaez kontuan** (4); **nahitaez kontuan hartu** (3); **nahitaez lortu** (3); **nahitaez ona** (5); **nahitaez onartu** (6); **nahitaez segitzen da** (5); **nahitaez txarra** (3); **pairatzen du nahitaez** (3)

nahitaezko baldintza (7); **nahitaezko da** (4); **nahitaezko formaldatzeak** (4); **nahitaezko iritzi zion** (3); **nahitaezko oinarri** (3); **nahitaezko ondorioa** (3)

egitea nahitaezkoa (6); **egitea nahitaezkoa dela** (3); **ez da nahitaezkoa** (8); **hartzea nahitaezkoa** (3); **izateko nahitaezkoa** (3); **lortzea nahitaezkoa** (4); **nahitaezkoa da** (61); **nahitaezkoa du** (4); **nahitaezkoa dute** (3); **nahitaezkoa iritzi** (19); **nahitaezkoa iritzi zion** (11); **nahitaezkoa izan** (3); **nahitaezkoa izango** (13)

nahitaezkoak dira (5)

nahitaezkotzat jo (4)

nahitaezkotasun iz nahitaezkoa denaren nolakotasuna.

Dagoena ulertzea, bere **nahitaezkotasuna** ezagutzea da, kausa-ondorioen ezinbestea. Markos Zapiain

Nahitaezkotasuna, ikusi dugun bezala, Mundu Zahar eta Berria bakar eta banaezin egiten zituen "distantzia deuseztearen" alderdi bat zen; baina **nahitaezkotasun** hau

nahiz¹ 1 *junt* bere ondotik datorren perpausak adierazten duena gorabehera, esaldi nagusian esaten dena egia denean ezartzen den juntagailua. (juntagailuaren mende dagoen esaldiaren aditzak **-(e)n atzizkia hartzen duela**).

Aurpegiaren ez daukat espresio berezirik, **nahiz** eta errelajatu itxura ematen dudan eskuak poltsikoetan sartuta dauzkadalako. **Bernardo Atxaga**

Bere orduko irakasleen artean atxikimendu berezi batekin aipatzen zuten Jodocus belgikarra, **nahiz** jaun hori guztiz garazki epaitzen duen Jose Lopez Ortiz historialariak. **Piarres Xarriton**

Batez ere Iparraldean, bistan da euskara gainbehera doala, **nahiz** han ere baden euskara ikasten ari den jendea. **Pello Salaburu**

Nahiz behialako mantalina buruzapi baten kontra trukatu zuen, argi zen haren soinekoak serora jantziak zirela. **Elena Touyaru**

Nahiz ez duen gaia haiek bezala aurkezten, zuzenbidea eta teologia elkarretarazten dituelakotz eta kasu konkrituak ere eztabaidatzen, bere ondoko kasuisten aitzindari agertzen zaigu nafarra. **Piarres Xarriton**

Gizartea identifikatu izan dugu normalean estatu baten azpian dagoen eremuarekin, **nahiz** gauzak ikusteko modu hori ere ez den maizkara batere argia. **Pello Salaburu**

Badakizu ez dizudala gerra honetaz hitz egin nahi, **nahiz** harro nagoen borroka honetan borrokatzeaz. **Jon Muñoz**

2 (mendeko esaldiak aditza era burutuan eta laguntzailerik gabe duela).

Unibertsitatean joan ginenean ere elkarrekin jarraitu genuen, **nahiz** karrera desberdinak ikasi. **Bernardo Atxaga**

Asmakuntza horrek [...] egundoko ospea eman zion, **nahiz** artean hain gaztea izan. **Juan Garzia**

Nahiz eta soldaduek behin baino gehiagotan geldiarazi, Grenobleraino ez zuten arazo handirik izan, Robespierrearen pasa-agiria mirakuluzkoa baitzen ausaz, gaitzen sendagarri. **Felipe Juaristi**

Zeren zenbait kasutan gertatzen baita etxean erabiltzen den hizkera nagusia erdara izaten dela, **nahiz** senide guztiak euskaldunak izan. **Pello Salaburu**

Nahiz zuzenbidezko bi sailak landu, bakarrik sail kanonikoaren doktoregoa zuen eskatu. **Piarres Xarriton**

Batzuk atezu larrian ari ziren lanean, **nahiz** txistuka aritu alegia lasai eta aise. **Juan Garzia**

Errezatzeko gogoa egin zitzaidan, **nahiz** errezatzen ez jakin. **Bernardo Atxaga**

Nahiz Valmontek maiteminduta dagoela aitortu ez, Merteuil andreak behin baino gehiagotan egotziko dio maiteminduta egotea. **Jon Muñoz**

Nahiz eta Nofutur zergatik bahitu zuten oraindik ere ulertu ez, animalien trafikatzailen aztamari heltzerik ez zegoela konturatu zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Erdi Aroko pentsaeraren alderdi horiek ere ez dira ahaztu behar, **nahiz** aitortzekoa izan ez zetozeela bat orduko gizakiak barru-barrutik sentitzen zuten autonomia-desioarekin. **Askoren artean**

Horren ondoren, galdera bat sortu zitzaion, bere buruari sekula egin ez ziona, **nahiz** orain aitortu behar izan harrigarria zela, oso, ez egin izana. **Jon Muñoz**

Habibiren tristurari antzemana zion Maxek, **nahiz** elkarrizketaren zati handi bat itzuri. **Jon Muñoz**

Errusiarek ezin zuten, oraingoz behintzat, probintzia utzi, **nahiz** eta tratuak egin behar izan Siberiako mugetatik hara. **Karlos Zabala**

Nahiz ni, esan beharrik ez, errotik egon Motako Gazteluak adieraz zezakeen guztiaren kontra. **Txillardeg**

3 (mendeko esaldiko aditza ezabaturik).

Hori zen arrazoietakoa bat, **nahiz** ez bakarria, eta ez menturaz garrantzizkoena, aspaldiko kontua baldin bada ere. **Pello Salaburu**

Eta beldur handia zegoen bazterretan, **nahiz** ongi disimulatu. **Txillardeg**

Berretzailerei heldu zien gero Jonathaneke, eta zehatz-mehatz deskribatu Léari, **nahiz** arrebari bost axola hori guztia. **Jon Muñoz**

Sorterriaren kezka bihotzean barna alha dutenak edo, haietarik batek zioen bezala, %100 basque izaiteko **nahiz** ez beti euskaraz-nolazpait lehiatzen direnak. **Piarres Xarriton**

4 edo.

"Ezagueraren gizartean" bizi gara, eta gizarte mota honetan, onartu **nahiz** ez, konturatu edo ez, gero eta garrantzi handiagoa hartzen du unibertsitateak, horixe da liburu honen mamiak dioena. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Ibaietakoak ur biziak ziren, buztintsu **nahiz** gardenak izan. **Iñaki Mendiguren**

Burugabearekin auzitan hasten den zuhurrak, haserretu **nahiz** barre egin, ez du atsedetik izaten. **Elizen arteko biblia**

Handi **nahiz** txiki, pobre **nahiz** aberats, elizako **nahiz** munduko, guti izan ziren gau hartan beren etxeetan gorde zirenak. **Aingeru Epaltza**

Gosea edota izurritea izatean, gorrinak **nahiz** herdoilak, larrapoteak **nahiz** harrak jotzean, etsaiak hiriren batzuei erasotzean, edonolako ezbehar **nahiz** gaitzalditan. **Askoren artean**

Aberats izan **nahiz** behartsu, noble **nahiz** xume, arbiatu **nahiz** estimatu, zuhur **nahiz** sinple eta ezjakin, kleriko **nahiz** laiko. **Askoren artean**

Baina, asmatu **nahiz** huts egin, eginikoak ez zuen bueltarik. **Xabier Montoia**

Horrela, ustekabekoren bat gertatu **nahiz** berri txarren bat etorri gero, herrialdeko jendea ez zen larrituko, jakingo baitzuen agintea nori zion utzia. **Elizen arteko biblia**

Hire inguruan, asko gaixotuko dituk bateko **nahiz** besteko pozoiz edo gaitzez. **Edorta Jimenez**

Konkurrentzia oro ezabatuz, benetako konkurrentzia **nahiz** birtuala. **Koro Navarro**

Azken aldian, ametsetan **nahiz** esna, jardina gurutzatzen ikusten diat berriro Krisztina. **Xabier Olarra**

Lurrean kukubilkatua egoten zen, janzen **nahiz** pipatzen, edota okin bikotea zelatatzen. **Patxi Zubizarreta**

Bost eguneko ostalua da bizitza -esan ohi da, eta, gogoz **nahiz** gogoz kontra, seigarrenerako utzi beharra daukagula. **Imanol Zurutuza**

Zuregana zihoazenak **nahiz** zuregandik zetozenak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Guztiak joan daitezke lauki beltzetatik zurietara **nahiz** zurietatik beltzetara. **Imanol Zurutuza**

Ezin ditu burutik uxatu haien ziriak, haien burla on-usteko **nahiz** txantxa gaiztoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jaso dezazula (nigandik **nahiz**, nire absentsian, besterengandik). **Imanol Zurutuza**

Darabiltzan konparaketak, haren akustika, haren puntuazio **nahiz** sintaxiaren pasadizoak. **Juan Garzia**

Atzealderantz, lobulu tenporaletaraino iristen zen, eta beherantz, berriz, dientzefalo **nahiz** garun-aurreraino. **Xabier Olarra**

5 nahiz... edo...

Pertsonaiek mirestea baino, **nahiz** gizon **edo** emakume handiak izan eta berebizikoren bat egin, hobe deritzot gertuko pertsonak miresteari, bizitza eta arima nirekin partekatzen dutenak alegia. **Juan Kruz Igerabide**

Buru estaltzeko erabil daitezkeen zapi **nahiz** oihalak **edo** bizarra bera ere debekaturik daude erlijio edo sinesmen baten isla badira. **Berría - Euskal Herria**

Beti gazte dago bere orduko jokolariekin, **nahiz** gehienak **edo** denak behar bada zenuak direla: Lino Ventura, Bernard Blier, Jean Lefebvre, Francis Blanche. **Herria**

Enpresa munduan, zuzendariak, enpresa handi **nahiz** txiki **edo** ertainekoen, kontuan izan beharko lukete [...] antolaketa eta prozesu produktiboan berrantolaketa egin behar direla, teknologia berri horien ahalmen osoa atera nahi bada. **Iñaki Heras**

ETAren ekintzak sobran baitaude Katalunian **nahiz** Estatu **edo** Euskal Herriko edozein lekutan. **Berría - Euskal Herria**

Nahiz etorkizuneko **edo** iraganeko gauza baten ideia izan. **Piarres Xarriton**

Sabel gainean **nahiz** lau zangoen **edo** gehiagoren gainean narrasta dabilzan piztiak debekatuak dituzue eta ezin izanen dituzue jan. **Elizen arteko biblia**

Abereak akatsen bat badu -herrena **nahiz** itsua bada Baserrietatik etorritako neskei egiten nien kirika jaunartzera hurbiltzen ziren guztien artean; nahiz beren jantzi **modaz** kanpokoak, nahiz beren orrazkera arruntak **edo** beste akatsen bat badu-, ez diozue Jaunari zeuen Jainkoari oparizat eskainiko. **Elizen arteko biblia**

6 nahiz eta junt nahiz.

Isaakek, grisago, beste bien arteko zubi izatea beste meriturik ez du ia-ia, **nahiz eta** berari eskainitako zatian bi kontakizun eder sartzen diren. **Jose Antonio Mujika**

Ivy, hegazkin atzeratuaren zain geundela, hiru orduz jarduna zitzaidan hitz eta pitz, **nahiz eta** berak badakien ez naizela sekula eta inola ezkonduko. **Joxe Austin Arrieta**

Horra ene ibiltokia... **nahiz eta** zelda baten itxura duen, kanpoan naiz eta kanpoko airez asetzen ahal naiz. Filipe Bidart

Ez naiz ez denik esaten ari: akordua dudanetik baitut maite, **nahiz eta** ez dudan gogoan noiz egin zidaten haren aurkezpena, noiz sentitu nuen estreinakoz haren fereka neure esku amets-gosean. Joxerra Garzia

Nahiz eta soldaduek behin baino gehiagotan geldiarazi, Grenobleraino ez zuten arazo handirik izan, Robespierreren pasa-agiria mirakuluzkoa baitzen ausaz, gaitzen sendagarri. Felipe Juaristi

Behragoko ur-geldiune batean, ibaiak berak bota zituen bazterrera, hilotz, **nahiz eta** berehala iritsi laguntza. Juan Kruz Igerabide

Hobe baltsara sartu ez balu, **nahiz eta** haria eta orratza erabiliz konpon ez daitekeenik ez izan. Aingeru Epaltza

Har beza nork bere ezpata eta zeharkatu kanpalekua, aterik ate jendea hilez, **nahiz** eta anaia, laguna edo auzokoa izan. Elizen arteko biblia

Nahiz eta zimiterioko borrokan parte hartu ez, Lubis gurekin zegoen elizan Pantxo bere anaiarekin etorrita. Bernardo Atxaga

Eta hori egia zen, **nahiz eta** Tomek berak jakin ez, artean. Oskar Arana

Nahiz eta erabili ez, hantxe ikusten nituen, zintzilik. Jasone Osoro

Eta pozgarria ere bai, nik uste, **nahiz** eta... Bernardo Atxaga

7 nahiz... nahiz...

Morroi bat, **nahiz** kalerako **nahiz** lur lanerako balio zuena. Patxi Ezkiaga

Nahiz plazan **nahiz** kalean, bazter guztietan dago zelatan. Elizen arteko biblia

Tenpluaren behea ere, **nahiz** bamean **nahiz** kanpoan, urrez estali zuen. Elizen arteko biblia

"Euzkadi" haren ideia, ordea, faltsua zen neurri handi batean; **nahiz** guretzat hungigarria izan, **nahiz** harekin maiteminduta egon. Bernardo Atxaga

Tamalez, ordea, **nahiz** bateko **nahiz** besteko potentziak denborazko gauza hutsaletan aritzen dira eta nahasten. Joan Mari Lekuona

Jendearen haragia, **nahiz** emaztearena **nahiz** berea, gris higuigarria iruditzen zitzaion. Xabier Olarra

Beti klimax baten bidean, **nahiz** harantza **nahiz** honantza. Pello Zabala

Biziagoa da Kixotearen mamu aleman **nahiz** eskandinaviar **nahiz** indostanikoa, estilistaren hitz-sorkari asmotsuak baino. Juan Garzia

Borrokaen gorrian bere autobiografiako hizkera **nahiz** ikuspuntua **nahiz** kontatutakoa bizi-biziak dira. Markos Zapiain

Kristauak **nahiz** turkoak **nahiz** kale jantzian daudenak, denak ari dira lanean, zein oihalak atontzen, zein loreak ureztatzen, zein oholza aurreko aulkiak lerroan txukun jartzen. Anjel Lertxundi

Baserietatik etorritako neskei egiten nien kirika jaunartzera hurbiltzen ziren guztien artean; **nahiz** beren jantzi modaz kanpokoak, **nahiz** beren orrazkera arruntak. Bernardo Atxaga

· Labore-opariak, **nahiz** labean erreak **nahiz** eltzean **edo** zartaganan prestatuak, eskaintzen dituen apaizari dagozkie. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ahoz nahiz idatziz (6); aita nahiz ama (8); bata nahiz bestea (5); batak nahiz besteak (5); batean nahiz bestean (5); bateko nahiz besteko (5); batera nahiz bestera (14); eguneko nahiz gaueko (7); egunez nahiz gauez (7); gauez nahiz egunez (5); gizaseme nahiz emakume (10); gizon nahiz emakume (9); gizoneko nahiz emakumezko (13); gustatu nahiz ez (5); handi nahiz txiki (13); herriko nahiz atzerriko (7); izan nahiz ez (10); kleriko nahiz laiko (12); libre nahiz esklabo (6); nahiz ez beti (5); nahiz ez den (54); nahiz ez diren (22); nahiz ez dudan (7); nahiz ez duen (16); nahiz ez dugun (5); nahiz ez duten (16); nahiz ez izan (5); nahiz ez zen (7); onak nahiz txarrak (6); onerako nahiz txarreak (15); publikoak nahiz pribatuak (5); semea nahiz alaba (5); txiki nahiz handi (11)

*nahiz*² ik **nahi 11**; **nahi 12**.

nahuatl iz azteken hizkuntza, gaur egun Mexikoko eskualde batzuetan hitz egiten dena.

Ari naizenaz ari naizela, K hori ezin da **nahuatlezo** kakáua besterik izan, hori baitzen, kakaoa, XIX. mendeko belaontzi haiek amerikar lurretatik ekartzen zutena. Bernardo Atxaga

Azteken **nahuatl** mintzairatik Jose Ramon Negretek euskaratua. Patziku Perurena

naiade iz mitologia klasikoan, iturri eta ibaietako ninfa.

Hiria mendean hartu ondoren, uretako ikuskizunak egiteko prestatu zuten erromatarrek antzokia, **naiade** eta guzti. Jon Muñoz

Oi, iturri haietako **naiadea**! Koro Navarro

Itakan bada Forzis izeneko portu bat, eta barruan, pikuondo baten azpian, leize bat dago, non **Naiadeak** deritzen ninfak bizi baitira. Juan Kruz Igerabide

Orduan bere lurrari mun egin zion, **Nalade** ninfei otoitz eginez. Juan Kruz Igerabide

naipe 1 iz jokoko karta.

Nik adiskidetasun huts mantendu nahi nuena zuk harago behartu nahi izan zenuen, harago ezin eramanak min eramanezina sortzen zizulako apika, eta horra nola erori zen behera hitz erdiz jasotako **naipezko** zubia. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Neskak soinekotik **naipe** -sorta atera, eta eskoban jokatzeko hasi ziren, funtzionarioa iritsi zen arte. Iban Zaldúa

Naipe -gatzelu bat erortzen den moduan, monarkia egun batetik bestera desegin zen herrialde hartan. Iban Zaldúa

Duela gutxi hasi dituzte lanak, Gasteizko Alde Zaharreko Aitzogile eta Hedegile kaleen artean dagoen orubean, **Naipe** museoaren parean. Berria - Kultura

nairobiar izlag/iz Nairobikoa, Nairobiri dagokiona; Nairobiko biztanlea.

Josu Iztueta kideak **Nairobiarren** ibilbideak izeneko diaporama saioa eskainiko du, 22:00etan, Larraonan bertan. Berria - Euskal Herria

naka-naka adlag irenstearen onopatopeia. ik ñaka-ñaka.

Ardiki peza erraldoia **naka-naka** irensteari ekin nion, deus ez bailitzan, haurrak triste jarraitzen zuen bitartean. Itxaro Borda

Gasna, **naka-naka** irenstean, edozein sukalde ilunetan, lur azaleko nomada guztiekin, ahataraka haurridetzen naiz. Itxaro Borda

Onartzen baldin baduzu haatik, gure ezkontza bereziaren **naka-naka** klikatzeko, ohea prest daukat. Itxaro Borda

naka-nakatu, naka-naka(tu), naka-nakatzen du ad naka-naka irentsi.

nakar 1 iz zenbait maskorren barrualdean eratzen den gai gogor zuria, ostadarraren koloreez distirutzen duena.

Salgai ipinitako lehenbiziko arrainetan, **nakar** arrosak, koral odolkarak, perla esne kolorekoak, ozeanoaren distirak eta zurbiltasun berdeak oro aurkitu zituen berriz ere.

Karlos Zabala

Lipar batez gelditu egin zen **nakarrak** bezala diz-diz egiten zuen Plaza hotelari behatzeko. **Lopez de Arana**

Nakarrezko hautsontzi batean. **Felipe Juaristi**

Haizemailea atera eta astintzen hasi zen; **nakarrezkoa** zen, txit urreztatua. **Karlos Zabala**

Zolua esmeraldaz, **nakarrez** eta marmolez egina zen. **Elizen arteko biblia**

Dionisok kutxa batetik ondo zaindutako erretratu bat atera zuen, **nakarrezko** marko batez inguratua bera. **Felipe Juaristi**

Jaka laurdena, oihal zuri listadunekoak, **nakarrezko** hiru botoi distiratsu zoragarriak lotua. **Matías Múgica**

Botoi-zuloak ere erre-harizkoak dira, eta botoiak **nakarrezkoak**. **Felipe Juaristi**

2 nakarrezko apaingarria.

Aitak apain-mahai gorri bat erosi zion, **nakar** itsatsiekin. **Juan Kruz Igerabide**

3 nakarraren kolorea.

Kolore distirant haiek guztiak nahasten ziren batzuk besteekin, maskorren haragi tonuak legatzen opaloekin, berdelen **nakarrak** barbarinen urreekin, sardinarren urrezko haridun soinekoak izokinen zilar atal handiekin. **Karlos Zabala**

Bitartean, berdel urrekarek, bizkarra txartatu berdekez ildaskatuta, beren saihestetako **nakar** aldakorrari distirarazten zioten. **Karlos Zabala**

Hegazkina oso gora badoa, ezkonberriaren mantelina bezala garraiatzen duen **nakar** zurizko xingolarengatik bereizten gaituzte lurretik. **Josu Zabaleta**

4 irud/hed

Nakarrezko hodeiz beterik, zeru urdina gero eta ilunagoa zen. **Lopez de Arana**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urrezko eta zilarrezko etzaulki asko zen han, eta zolua jade, marmol, **nakar** - eta azabatxe-harlosaz egina zen. **Elizen arteko biblia**

Mahaitxo bakoitzean kristalezko bola distiratsu bat zegoen, **nakar** -itxurako lainoz bete. **Iñaki Mendiguren**

Arrain usain mehea zerion; eta, esku baten gainean, hatz txikitik hurbil, sardinaz ezkata bat zeukan, han **nakar** orban bat ipintzen ziona. **Karlos Zabala**

nakaratu izond nakarraren kolore edo distira duena.

Jendea dotore jantzita joaten zen; kasula gorri **nakaratu** batekin hornitzen zen apaiza; koruak eta organoak kantaz eta musikaz betetzen zuten eliza argitsua. **Bernardo Atxaga**

Kontua da han ez dagoela inolako koadrilarik, inolako soinuulerik besoetan akordeoi txuri **nakaratu** bat duela. **Bernardo Atxaga**

Iruditzen zitzaidan dena lauso eta **nakaratu** zela nire inguruan. **Xabier Olarra**

Tximeleta **nakaratuak** krisalidetatik jaio eta hil arte aritzen ziren leihoko kristala jotzen. **Anton Garikano**

Perla erraldoiak nola, bizi-bizi, zurbil bihurtzen zituzten, beren argi **nakaratu**, misteriozko eta erregetiarren pean, gas sareak, gas zikin gaiztozkoak, eta kolorezko kristalezko lore-sortak. **Josu Zabaleta**

Iruditzen zitzaidan dena lauso eta **nakaratu** zela nire inguruan, eta bazirela bertan presentzia askotariko eta bereizezinak. **Xabier Olarra**

namibiar izlag/iz Namibiakoa, Namibiarena; Namibiako herritarra.

Kandahar eta Herat herriak lotzen dituen errepide nagusiak egin zuten lehen eraso eta AEBetako segurtasun enpresa bateko lau langile hil ziren: hiru afganistandar eta **namibiar** bat. **Berria - Mundua**

nandrolona 1 iz anabolizante esteroidea, giza gorputzean kopuru txikietan aurkitzen dena. **iknorandrosterona**.

Zigortu aurretik, kirolariak **nandrolona** hartu duela erakutsi egin behar da. **Berria - Kirola**

19-norandrosteronak ez du zertan **nandrolonaren** hondarra izan. **Berria - Kirola**

Italiako Giroan ez zuten ezer topatu, baina arakaturako beste zenbait tokitan bai HG hormonak, **nandrolona**, morfina nahiz zaldia dopatzeko produktuak. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

16 urterekin bi aldiz eman du **nandrolona** positibo tenislari bulgariarrak, eta nazioarteko federazioak bi urteko zigorra jarri dio. **Berria - Kirola**

nano¹ 1 izond/iz bere motatakoiei buruz guztiz txikia dena. **ikñño**.

Jiganten herrian **nano** den gizona, jiggant izan daitekek nanoen herrian... **Joan Mari Irigoien**

Pagauso pauma-isatsak, oilar **nanoak**, basaahateak, usapalak eta usoak. **Jon Muñoz**

Altzifreak, idi-bihotz arbolak, lizarrak eta palmondo **nanoak** burumakur zeuden, bost eguneko euriaren eta haizerik ezaren ondoren. **Anton Garikano**

Hala jarraituz gero, laster kamera **nanoak** paratuko dituzte zakil-puntetan eta Falopioren tronpetan, sartu-irtenetan hor barruan zer jazotzen den xeheki ikus dezagun.

Berria - Kultura

Whisky koloreko itsasoan izeberg pusketa **nanoak** ziruditen izotz zatiek. **Jasone Osoro**

Whisky koloreko itsasoan izeberg pusketa **nanoak** ziruditen izotz zatiek. **Jasone Osoro**

Ezkaratz ezin **nanoago** bat edarien hozkailu batez eta bi erregailuko gas-sukalde batez hornitua. **Oskar Arana**

2 iz gizon guztiz txikia. **ik ipotx**.

Zahartuta dago, eta gezurra da irla batean bizi dela Marilynekin: Dublinen bizi da, eta gauero abesten du pub triste batean, gitarra jotzen duen **nano** batekin. **Berria - Kultura**

Iparaldeko mendietako **nano** bat? **Agustin Otsoa**

-Eta orain arte sekula ez du **nano** batek elforik garaitu hitzarioari dagokionez -erantsi zuen-. **Agustin Otsoa**

Nano konkordun bat zen, baina kasik hura bezain bitxiak ziren haren jantziak. **Patxi Zubizarreta**

Etxola txiki-txikiak, txotxongiloaren inguruko **nano** saltariak [...]. **Koro Navarro**

Etxeko pibotek erraldoiak ziruditen, eta kanpokoak **nanoak**. **Berria - Kirola**

-Ez al du beldurrik? -murmurikatu zuen **nanoak** -. **Matías Múgica**

-Zezenak **nanoa** harrapatu! -esan du Gabik barrezka. **Jokin Muñoz**

Hemen ez da aski masa kritikorik, ez dugu fisik! hori ulertu behar duzue! munduan badira handiak eta badira **nanoak**. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nanoaren gorpua (4)

nano² milamilioirena adierazten duen aurrizkia.

Zeinek ez du aditu **nano** - aurrizkia daraman hitzen bat? **Berria** - Gaiak

Gauzakiak eta gizakiak / Nanokosmosa ikuskizunerako, Victor Franco Puntos kimikari kataluniarrek eginiko Promenade in nanoland (**Nano** herrialdera bidaia) irudi lanean oinarritu da Lasuen. **Berria** - Kultura

nanoegitura iz nanometroetako tamaina duen egitura.

Lore itxurako **nanoegiturak** egin dituzte Cambridgeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) nanoteknologia-zentroan. **Berria** - Gaiak

nanoeskala iz nanometroetako eskala.

Nanoteknologiaren oinarrietako bat zera da: materiala **nanoeskalan** dagoenean bere propietate fisiko eta kimikoak jatorrizko materialarekin konparatuz gero zeharo ezberdinak izan daitezkeela. **Berria** - Gaiak

nanoestruktura iz nanoegitura.

Johannes Barth Suitzako **Nanoestrukturen** Fisikarako Institutuko kidea. **Berria** - Gaiak

nanofotoniko izond

Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Teknologia **Nanofotonikorako** Zentroan ADSLa baino mila aldiz azkarragoa den Interneterako konexio bat diseinatu dute. **Berria** - Gaiak

nanogramo iz neurri banakoa, gramoaren milamilioirenaren baliokidea dena.

Gernuan mililitroko 19 norandostretronaren 2 **nanogramo** baino gehiago agertuz gero. **Berria** - Kirola

Pertsona batek 55 **nanogramoko** maila eman dezake, eta bere gorputzak sortutakoak izan, ez orain arte pentsatzen zen bezala nandrolonaren hondarra. **Berria** - Kirola

nanohodi iz nanometroetako tamaina duen hodia.

Altzairua bera baino gogorrago diren karbonozko atomoen metaketa bat dira **nanohodiak**. **Berria** - Gaiak

Nanopartikulak eta **nanohodiak**, bestelako produktu kimikoen antzera, arautzeko eskatu diete zientzialariek Erresuma Batuko Gobernuari eta Europari. **Berria** - Gaiak

Kablea karbonozko **nanohodiz** egitea proposatu zuen Edwarsek. **Berria** - Gaiak

nanokonposatu iz nanometroetako tamainako konposatua.

Nanokonposatuen beste adibide bat ferrojel deritzonak dira. **Berria** - Gaiak

Gehigarriaren tamaina nanometroen mundura iritsitaokan **nanokonposatu** hauen propietateak zeharo aldatzen dira. **Berria** - Gaiak

Normalean, **nanokonposatu**etan erabilitako kargak edo gehigarriak silikatoen familiakoak izaten dira. **Berria** - Gaiak

nanokosmos iz adkor kosmos ezin txikiagoa.

Literaturaren, musikaren eta eskulturaren bidez **nanokosmosera** hurbiltzeko ikuskizuna prestatu du Fran Lasuenek: Gauzakiak eta gizakiak / Nanokosmosa ikuskizunerako, Victor Franco Puntos kimikari kataluniarrek eginiko Promenade in nanoland (Nano herrialdera bidaia) irudi lanean oinarritu da Lasuen. **Berria** - Kultura

nanokultura iz adkor kultura ezin txikiagoa.

New York hirian diseinu irakasle den aldetik, ikasleek **nanokulturak** sortzeko egin duten apustua aztertu zuen atzo. **Berria** - Harian

nanomedikuntza iz nanometroetako dimentsioetan aritzen den medikuntza.

Ryanek adierazi zuenez, bestalde, **nanomedikuntzaren** bitartez egindako diagnostikoak azkarragoak eta hobek izango dira. **Berria** - Gaiak

nanometro iz neurri banakoa, metroaren milamilioirenaren baliokidea dena.

nanomilimetro iz neurri banakoa, milimetroaren milamilioirenaren baliokidea dena.

nanomundu (orobat **nano mundu**) iz nanometroetako tamainako gauzen mundua. ik **nanokosmos**.

Obra handi ikusgarrietatik dena dezakeen nanoteknologia deritzanak sortu behar omen duen ezin ikusizko **nanomundu** ahaltsura igaro gara, nano mental askoren liluragarri eta bakarren baten -hau da, ekonomiaren- bizigarri. **Iñaki Seguro**la

Unibertsitateak gizartearekin duen harremana nahiko ahula da, eta, hori dela eta, galdetu zidaten ea diseinatuko nuen emanaldi bat **nano** mundua azaltzeko; modu ludiko eta ikusgarri batean gaia kalera ateratzeko. **Berria** - Kultura

Jatorri zientifikoko irudiak oinarrian hartuta, Lasuenek gure pertzepziotik kanpo gelditzen den **nano** mundura bidaia bat proposatu du, eta horretarako, JosAnton Artzeren eta Joan Brossaren poesia balliatu ditu berak ikuskizunerako espresuki egindako musikarekin batera. Berria - Kultura

nanoordenagailu iz namometroetako tamainako ordenagailua.

Material berria asmatu dute, **nanoordenagailuak** ekar ditzakeena. Berria - Gaiak

nanopartikula iz namometroetako tamainako partikula.

Nanopartikulen tamaina nanometroaren ordenakoa da. Berria - Gaiak

Ferrojel bat disolbatzaile batek puztutako sare polimeriko bat da, burdin oxidozko **nanopartikulez** betea. Berria - Gaiak

Gizarteko hainbat alorretan erabiltzen dira **nanopartikulak**; kosmetikoak egiteko, esaterako. Berria - Gaiak

Kasu honetan zink oxidozko **nanopartikulak** erabiltzen dira erradiazio ultramorea xurgatzeko. Berria - Gaiak

Nanosillize hauek likatasun oso baxua dute, beste **nanopartikulekin** egindako konpositeekin konparatuz gero. Berria - Gaiak

Nanopartikulak eta nanohodiak, bestelako produktu kimikoen antzera, arautzeko eskatu diete zientzialariek Erresuma Batuko Gobernuari eta Europari. Berria - Gaiak

nanosatelite iz adkor oso tamaina txikiko satelitea.

Nazioarteko espazio agentzia ezagunenek 50 **nanosatelite** jaurtiko dituzte 2007. urtean, Lurraren orbitan jarri zuten lehenengo satelitearen 50. urteurrena ospatzeko.

Berria - Gaiak

Kilo bateko masa izango dute **nanosatelite** horiek eta bi urte egingo dituzte orbitan. Berria - Gaiak

nanosegundo iz neurri banakoa, segundoaren milamilioirenaren baliokidea dena.

Apika, aldaketaren dardarek irauin zuten **nanosegundo** haietan halaxe izan zen. Iban Zaldua

nanosentsor iz oso tamaina txikiko sentsorea.

Nanosentsoreen bidez, adibidez, uraren kalitatea neurtu ahal izango da une oro. Berria - Gaiak

nanosilize iz

Nanosilize hauek likatasun oso baxua dute, beste nanopartikulekin egindako konpositeekin konparatuz gero. Berria - Gaiak

nanoteknologia 1 iz namometroetako dimentsioetan aritzen den teknologia.

Nanoteknologiak erakusten digu atomoak manipulatu daitezkeela, baina ez gara gai manipulatzeko horren ondorioak ikusteko: nori irudikatzen du hogeita hamar liburukiko eta milaka orrialdeko entziklopedia bat, esaterako, bolaluma baten muttur txikian sartua? Pello Salaburu

Nanoteknologiak eremu zientifiko asko ukitzen ditu, baina gaur polimeroekin lotutakoak azalduko ditugu. Berria - Gaiak

Nanoteknogiaren bidez, elektrodo nimoñoak dituzten pelikula bereziak egin daitezke. Berria - Gaiak

Nanoteknologia erabiltzeko beste eremua elikagaien ingurukoa da. Berria - Gaiak

XXI. mendean **nanoteknogiaren** iraultza ikusiko dugula diote adituek. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Lore itxurako nanoegiturak egin dituzte Cambridgeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) **nanoteknologia** -zentroan. Berria - Gaiak

nanotxo iz adkor nanoa.

Zazpi **nanotxoak** ate ostean geratu ziren eta Edurnezuriri entzuten omen zioten hasperenka eskatzen: Esadazu gezur bat, Pinotxo, Orain egia bat, Orain gezurra, Orain egia, Orain gezurra, Orain egia, Orain gezurra... Joseba Sarrionandia

nantestar iz Nanteskoa, Nantesi dagokiona; Nantesko biztanlea.

Gaixo Bordalesak; berriz ere galdu dute etxen **Nantestarren** kontra: 2 eta 0. Herria

nantu iz Amazoniako indio tribu bateko kidea.

Aurreko bidaian gaixotu egin nintzen han, eta **nantu** deitzen diren indio batzuekin egon nintzen. Joseba Sarrionandia

Ez dakit **nantuak**, El Dorado, oihana, El Porvenir, ibaia bera, nire ontzia errealak diren. Joseba Sarrionandia

napalm 1 iz gel bihurturiko gasolina, su bonbak egiteko erabiltzen dena.

Berau da **napalm** delakoa lehenengoz erabili zen lekua. Edorta Jimenez

Niri gustatuko litzaideke munduak betiko gordetzea batzuen koldarkeriaren irudi hori, Vietnamen **napalmetik** ihesi zihoan neskato biluzi harena gorde genuen moduan, herri apalek jasandako zapalkuntzaren oroitarri gisa. Berria - Kultura

60ko eta 70ko urteetan terroristek gidatutako B-52 hegazkinak **napalmezko** terrorea hedatu zuten Kanputxea eta Vietnamgo herritarren artean. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Napalm jaurtigailuen errauts pozoitsuak. Itxaro Borda

AEBek emaniko mailegu baten bitartez, Kolonbiako Armadak **napalm** eraso abiatu zuen hegoaldeko Marquetalia errepublika komunistaren aurka 1964ko maiatzaren 27an. Berria - Mundua

Eroetxea **napalm** ukaldi bortitzez garbitzeko. Joxan Elozegi

1964an orduko gobernuari **napalm** bonbak eman zizkion. Berria - Mundua

napar ik **nafar**.

naparrerri ik **nafarrerri**.

naphtylamin ik **naftilamina**.

napoleon **ondar** izlag **Napoleon Bonaparterena**, **Napoleon Bonaparteri dagokiona**. ik **napoleoniko**.

Jeneral **napoleon** **darraren** semea, arian arian bere gaztarotxo kontserbakoitik aldenuz, irekitzen ari da mundu berrietara, Iraultza hurbildu ahala. **Koldo Izagirre**
Gerra **napoleon** **darren** ondoko Errestaurazioan gaude eta erromantizismoaren hastapenetan. **Joxe Azurmendi**

napoleoniko izond **Napoleon Bonaparterena**, **Napoleon Bonaparteri dagokiona**. ik **napoleon** **ondar**.

Hirugarren (Napoleon) borrokaldiran Errusia da gerra-egile nagusia, eta agian Amerikako Estatu Batuak ere sar daitezke bertan, "1812ko gerra" gerra **napoleonikoaren** eranskintzat hartzen bada. **Iñaki Mendiguren**
Aitaren afizioa zen, historia militarra; **napoleoniko**, batik bat. **Iban Zaldúa**
«Dinastia **napoleoniko** luzatzen ariko balitz bezala» jokatu zuen Chiracek. **Berria - Mundua**
Aro iraultzaileko eta **napoleonikoko** herri armada handiek. **Xabier Arregi**

napoleon **zale** izond **Napoleon Bonaparteren zalea**.

Osaba burgesak **napoleon** **zale** egin dituela bata zein bestea. **Anjel Lertxundi**

napolitano izond **Napolikoa**, **Napoliri dagokiona**. ik **napolitar**.

Bizi baldin bada, honezkerok izan du mazmorretara zigortu zuen soldadu **napolitano** haren barri. **Koldo Izagirre**

napolitar izlag/iz **Napolikoa**, **Napoliri dagokiona**. ik **napolitano**.

Bestelakoak: 131 pitbull, 96 argentinar dogo, 32 brasiliar fila, 49 kanariar presa, 37 **napolitar** mastin. **Gotzon Garate**
Jauregiak berak ere, Byronen tximino armiarna-lanparetatik zintzilikatuekin eta altzari **napolitar** apainduraz beteegiaren artean hara eta hona dabilten indioilarrekin, badu denboraz kanpokoaren eta dekadentziaren arteko nahastura doi hori. **Oskar Arana**
Artilleroak ere etorri ziren, talde berean nahasturik gaztelarrak eta **napolitarrak**, kanoien ardura hartzera. **Edorta Jimenez**
Eta arraza "mediterranearra" kaskarrena, zeinen kategoriarik beherenak **napolitarra** eta andaluzaita baitira. **Joxe Azurmendi**
Ostatutako bidean **napolitar** fina zela erran zigun, naturala eta egi-egiazkoa, eta Donejakuerako bidean zihoala. **Joan Mari Irigoien**

naptilamina ik **naftilamina**.

napur **1** iz ipar ñapurra, ahozuria.

Gora Lapurdi eta Ibaialde, gure agiatza hoberenek lagunt ditzatela Angeluar **napur** horiek. **Herria**

2 (izenondo gisa) irud/hed

Udaberri hastapenetako apirila maitagarrien argitasunaren apurak golkoa inarosten zidan, bide **napurretarik** nindoala, haize kontra eta hezurretaraino txipatua: egia erran Bardeetako eki errautsekin batera, mortu gorrailetara ohituago nintzen. **Itxaro Borda**

narbartear izlag/iz **Narbartekoa**, **Narbarteri dagokiona**; **Narbarteko biztanlea**.

Pilotagile **narbartearrak**, erdaraz jatik ez zekienak, partida hastekoan aztertu zituen pilotak, eta Aranazkoenak askoz pisuagoak zirela ikusi, baina deus ezin esan, bertzenaz... **Patziku Perurena**

narda **1** iz nazka, higuina.

Bere eskuz ferekatzen zituen eriak; inolako **nardarik** gabe miatzkatzen zituen sufrizen zutenen zauri odoltsuak. **Juan Garzia**
Garaieraz (leinu horretako gainerakoak bezala) eskas ziren; ez zuten ikararik sortzen, **narda** baizik. **Juan Garzia**
Baina ez, ez pentsa, horrek eragiten zidan nekeagatik, **nardagatik** zenik -egiazko **narda**, zinez-, ematen zidan penagatik, pena larriagatik baizik. **Josu Zabaleta**
Hori ere falta denean, **narda** eta nekea nagusitzen zaizkigu. **Aingeru Epaltza**
Are gehiago: hiritarrek **narda** hartzen dute legeekiko; erdeinua sortzen zaie ezarritako gobernu-eraz; bi erlijioen kontrako susmoen ordez, bietako baten aldeko fede irmoa sortzen da. **Iñaki Iñurrieta**
Narda eta higuina eman zidan amak eta zerbait erraitetokan ere egon nintzen... baina ez zen oraino ene ordua... **Joan Mari Irigoien**
Hau nazka! -pentsatu zuen komisariorako, garbitasun-kontuetan oso zorrotza ez zen arren, eta **nardaz** begiratu zion astiro kulunkatzen zen oin biluziari-. **Jose Morales**
Amona hil zenean, haren seme eta errainek aste luzez jardun zuten, **nardaz** eta higuinez, etxeko bazter guztiak hartuak zituen erlikia pilo eskerga hartan eskua sartu eta aukera egiten. **Juan Garzia**
Narda zahar baten, nire hondo sakonean ezkutuan egona zen **narda** baten uhinek eraso zidaten gero. **Joxan Elozegi**

2 narda izan dio ad

Lehendik ere astunegia zirudien kargari zioten **narda** areagotu egin zen fiskoaren gosearen gai zirela ikustean. **Iñaki Iñurrieta**

Bigarrena: grazia eskatzea bekatuak ezagutzeko eta **nardatzeko**. **Patxi Altuna**

2 gogaitu, nahigabetu.

Ondotik, harriaren kontra zorrozten ari zirelarik, tailuak egiten duen kurrinka kirats eta erlats bezalako zerbait, beharriak kexatzen eta **nardatzen** duena. **Michel Oronoz**

Eztabaida haiek **nardatzen** zuten eta bakan hartzen zuen parte. **Elena Touyarou**

Ez diet gehiago entzun nahi: **nardatu** egiten naute. **Monika Etxebarria**

Nardatua zen, non deabru zegoen haren ama? **Elena Touyarou**

-Berriketak dira, jauna, ez zaitut horrekin **nardatu** nahi. **Monika Etxebarria**

Frantziak AEBak **nardatu** zituen Irakeko gerraren kontra agertuta; ez zuten estatubatuarrei berriro ere gogait egingo Zacarias batengatik... **Berria - Harian**

Jendea xiritua, pariatzaileak hatsa moztua, juje bakarra, Txikito Kanbokoa, **nardatua**, denak untsa zuzendu nahiz, haren boza ezin entzuna arrabotsaren eta oihuen artean. **Michel Oronoz**

Bainan gertatzen dena da, denak betan heldu dira, bazter guziak denak beteak-eta gero denak **nardatuak**. **Menane Oxandabaratz**

Minixtroak dio jende ainitz **nardatuak** direla sobera molde txar badelakotz hor gaindi eta lege berria egina dela beraz jendeak gostuan ibil diten eta ez ikaran egon... **Herria**

Bonaparteren balentriek liluratu baldin bazituzten, zorigaitzez, bere garaian, eta geroztik ere, [...] bestaberrietako aitzindari, soinulari edo apez nahiz apezpiku batzuk, gure beste herritar iheslari, gudari ala desertur frango ere nazkatu eta **nardatu** zituzten. **Piarres Xarriton**

Gisa hortan greba egin dutenek badituztela beren arrazoinak, hori bat da, bainan gaurko egunean jendea ainitz mugitzen baita, holako grebarekin bazterrak laster **nardatzen** ere dira. **Herria**

3 (era burutua izenondo gisa)

-Baina Kattalinek Gérard-engan du begiratzen, Sophie-k galdera pausatu duelarik ihes egitera utzi duen begitarte **nardatuaz** ohartu baita. **Eneko Bidegain**

Eta oinezkoak ihardesten dio halako aire kexu eta **nardatu** batekin, arrunt hasarre bezala: [...]. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jende ainitz nardatuak (3)

nardatze iz nazkazea, higuintzea, gogaitzea.

Kontsulatueta **nardatze** politika daramate, eta ikusi behar da nola! «zatoz bihar, agiri bat eskas duzu». **Berria - Harian**

nardo iz akara.

Nardoa, ipurua eta azafrana, kanela eta ereinotza; intsentsu, mirra, aloe, mota guztietako lurrin bereziak. **Elizen arteko biblia**

Ene erregea etzanik dagoela, nire **nardoari** usain-gozo darío. **Elizen arteko biblia**

Jesus Betaniaren zen, Simon legendunaren etxean; mahaian zegoela, emakume bat etorri zen, hartzurizko ontzian **nardoazko** ukendu garbi eta garestia zekarrela. **Elizen arteko biblia**

Orduan, Mariak, **nardo** garbizko kilo erdi bat ukendu, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi. **Elizen arteko biblia**

nare 1 izond barea.

Gau izartsu, **narean**. **Imanol Unzurrunzaga**

Baina jakin beharrean gaude, ea ni laino artean edo ilunpean ote nagoen, zeru **narea** ikusteko aukerarik gabe, edota mendi gailurrean gertatzen den bezala, ortziaren eta behe lainoen artean zintzilik, aire garbia gozatzen ote dudan eta argi narea goian ikusten eta behean laino zarratua. **Imanol Unzurrunzaga**

Bera ere saiatzen ari zen neskatoaren aurpegi **nare** eta klasikotik irribarretxo bat erauzten. **Joxemari Iturralde**

Izan ere, eskuratu eta gorde ezin ditugun gauzen gabezia gogo **nare** eta berdinez pairatzen duena baino sendoago nor izan daiteke? **Imanol Unzurrunzaga**

Tinkotasun **nare** batez mintzatu zen orduan: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Forma ideal berorrek fantaziozko lainoaren gainetik argitzen dit arrazoimen garbi, iraungigaitz eta betikotasun **narea** duen argiarekin. **Imanol Unzurrunzaga**

Han agertzen zitzaizkan kastiitatearen duintasun garbia, **narea**, ez pozkario txarrean, oneski ferekatzen, zalantzarik gabe etor nendin baizik, erukizko besoak, eredu onez gainezka, nigana luzatuz, ni onartzeko eta besarkatzeko. **Imanol Unzurrunzaga**

Eta esan gabe doa, baietzaren boza, ezetzarena ez bezala, ondo pentsatua izan da, heldua, batua, **narea** eta "oihurik gabea". **Iñigo Aranbarri**

Eta bai aurkitu ere larre eder eta mardulak, lurralde zabal eta **nare** hartan, lehen Kamen ondorengoak bizi izaniko tokian. **Elizen arteko biblia**

Bere haurtzaroko hainbat oroitza agertu zuen Mathildek, istorioak kontatzea atsegin duen baten hizketa-modu **narez**. **Anjel Lertxundi**

Bakarrik, bakartuta, oreka **narean**. **Iñaki Iñurrieta**

Ez dago ezer gozoagorik jakintsuen doktrinak ondo eraikitako goi tenplu **nareetan** bizitzea baino. **Xabier Amuriza**

2 (adizlagun gisa)

Pentsa eta pentsa ibili zen, **nare**, astitsua, eta neska artean maite zuela ondorioztatu zuen, baina aldi berean argi zuen bien arteko lotura guztiak hautsirik zeudela eta mendekatze gogo bizia zuela. **Patxi Zubizarreta**

Gorputzak bare, arimak **nare**. **Felipe Juaristi**

Aho-begi txikiak itxita zituen, oso itxita, sudur biribila bezain **nare**. **Felipe Juaristi**

Jira erdia egin eta eskaileretan gora igo zen berriz; bere gela argitsuko ohean etzan zen berriz, amasa bare, begirada **nare** eta lasai. **Felipe Juaristi**

Joanesek ezpain-ukitua egin zion ardoari eta, amasa bare, burua **nare**, mahaian zeuden besteak bezala, Aloiz Sarajevoko printzearen ipuina entzuteko moduan jarri zen, eskuak geldí, begiak zoli, ahoa isilik eta belarriak erne. **Felipe Juaristi**

Mehe eta **nare** ageri zen hiriko etxe ilara, badiara begirako fatxada, doi puntu bakan batzuetan bakarrik hausten zela perfil lau hura: Artzain Onaren dorre-orratz erdian, Atotxako dorrea apur bat ezkerreago, Orly hotelaren eraikina behar zuena eskuinereago. **Iñaki Iñurrieta**

Behi lokartuaren bizkarra bezain **nare** eta leun dago ur-gaina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Oraina zabaldu eta sakontzekotan, naturarekin ados bizi beharra dago Senekaren ustetan: dagoena onartu, patuak dakarkizunaren aurrean arima **nare** atxiki. **Markos Zapiain**

naretasun 1 iz narea denaren nolakotasuna. ik baretasun.

Hori du etsipenak ona: bakea, **naretasuna**. **Ramon Saizarbitoria**

Gutxierekin konformatzeko erraztasuna bere izate osoan agertzen zen: begi irtenen **naretasunean**, gizentzeko joeran, eta bere etengabeko poztasunean. **Patxi Zubizarreta**

Hiri zerutarreko bakea Jaungoikoarekin eta Jaungoikoagan elkarrekin gozatzearen batasun txit ordenatu eta txit adiskidetsuan datza; eta gauza guztien bakea ordenamenduaren **naretasunean**. **Imanol Unzurrunzaga**

Gogo onez entzuten dut zure kezka; era horretan azaltzen didazu zeurea ez dela ausarkeria, eta horixe da, hain zuzen, **naretasuna** zaintzeko modurik onena. **Imanol**

Unzurrunzaga

Hobe da haien laidoak **naretasunez** jasatea, eta eginahalak egitea, elkartasuna eta adiskidetasuna finkatzeko balio duten gauzetan. **Piarres Xarriton**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Bekaizkerian ere **naretasun** zuhur bati eusten zion, eta ez zuen arduragabekeriarik edo okerrik egiten. **Patxi Zubizarreta**

Espirituzko **naretasun** handiz bizi izan baikinen, gorputzaren kutsadura orotik arima zainduz, grina txarren sugarretatik urruti. **Imanol Unzurrunzaga**

Halako **naretasun** alai bat, itsasoko uhinek oinazpikoa mugiaraziko baliote bezala, berehala jabetu bazen ere. **Iñaki Iñurieta**

Erabateko **naretasuna** zen, zoriontasun osoa, astinaldirik gabe, bizitasunik gabe, aire berotan bainaturik. **Karlos Zabala**

3 (hitz elkartuetan)

Benetan ez zuen barne **naretasuna** erakutsi nahiko balu bezala, Egutxi agurea hausnartzen saiatu zen ea argi hura belusaren gorrimina nabarmentzeko zen, ea belusaren kolorean islatzen zen argiak neskatoaren larruzalari edertasun are liluragarriagoa eskaintzen zion. **Ibon Uribarri**

naretsu 1 izond baretsua. •(adizlagun gisa)

Oso zaila baita erabat **naretsu** irautea, arazorik gabe eta uste osoz onartzen genituen aburuak bat-batean eztabaidaren berotan ahultzen direnean, eskuetatik erauziko balizkigute bezala. **Imanol Unzurrunzaga**

naretu, nare(tu), naretzen da/du ad baretu.

Eta Dodovi ere, babes-mekanismo moduan jakina, irriaren tximistak jo zion saihetsetik edo goi-goitik, eta hura ere ez zen **naretu** hesteak bota artean. **Karlos Linazasoro**

Barren nahasiak **naretu** ezinik, irakurlea lardaskan aritu da. **Iñigo Aranbarri**

Eta hortxe, bere arnasa gero eta lasaiagoarekin **naretuta**, apneaz gogoratu da aita. **Alberto Barandianen**

nargile (orobat narguile) iz ekialdeko pipa-mota, kea, ahoratu baino lehen, ur lurrinduzko ontzi batetik igarotzen dena.

Hainbat bezero, dibanetan eseriak, **nargile** erretzen eta tea edaten ari ziren. **Patxi Zubizarreta**

Gelaren iluntasunean bildurik, eserlekuan begiztatu zuen, **nargilea** lasaikiro errez. **Patxi Zubizarreta**

Atalasean eseri zen ondoren, bakar-bakarrik, **narguilea** erretzera. **Xabier Aranburu**

Sugar gehiago jarri zituen agureak **narguilean**, eta zupada luzea egin zuen ondoren. **Xabier Aranburu**

Narguileetatik erretzen zuten gizonezkoek, eta borrokaldiei buruz mintzatzen ziren. **Xabier Aranburu**

Sanker, alda iezeaiok ura **nargileari**! **Patxi Zubizarreta**

Narguileek aiereratzen zuten lurrina baino gozoagoa zen usain hura. **Xabier Aranburu**

Kanpoan hozkirri zegoen; barnean, ostera, **nargileen** keak, bezeroen arnasak eta sutegiaren beroak epeltasun gozoa sortua zuten. **Patxi Zubizarreta**

narguile ik nargile.

narko 1 iz narkotrafikatzailea.

Narkoak kartzelako erregeak dira. **Berria - Mundua**

Ultra-eskuindar talde hau FARCen aurkari bortitzena izateaz gain, Pablo Escobarren -Forbeseko munduko aberatsenen zerrendan agertu zen **narkoa** -eskutik ibili ondoren, 1989an haren aurka zuzendu zen, Gobernuaren eskutik. **Berria - Mundua**

2 izond narkotrafikoarena.

Nire aitormena liburuan Castañok aitortu zuen «Kolonbiako gerrak politikoa izateari utzi ziola, ekonomikoa eta **narkoa** bilakatzuz». **Berria - Mundua**

3 narko-areto (orobat narkoareto)

Gipuzkoan drogak hartzeko eguneko zentro bat eraikitzea, Bilboko Zamakola auzoko **narko-aretoak** izan duen harrera ona ikusita. **Berria - Euskal Herria**

Metadona **narkoaretoan** har zezaketela esan zieten. **Berria - Euskal Herria**

4 narko-estatu

NBEk ohartarazi du opio sailak ugaritu direla eta herrialdea «**narko**-estatu» bilaka daitekeela. **Berria - Mundua**

5 narko-latifundio (corpusean narkolatifundio soilik) iz

Hala ere, azken urteotako hazkunde azkarra ulertzeko ez da nahikoa Armadaren konplizitatea, eta duela gutxi arte baliatu duten zigorgabetasuna, baizik eta droga negozioaren bitartez eskuratu dituzten baliabide eta **narkolatifundioaren** hazkunde ere. **Berria - Mundua**

narkoareto ik narko 3.

narkolatifundio ik narko 5.

narkoleptiko izond ezin saiheztuzko logale patologikoak jasatzen dituen.

Tarte horiek Lorraine pertsonaia **narkoleptikoak** dituen ametsen bidez lotzen dituzte, eta, onirikoak izanik ere, kanpoko errealitatean gertatzen ari denaren erretratua egiten dute, kasik premonizio gisa. **Berria - Kultura**

narkotiko 1 iz logalea eta sentiberatasun falta eragiten dituen droga. ik narkotizatzaile.

Bere ustez, garai bateko psikosi kolektiboak, flagelazioa eta dantza-epidemia bitxiak, haxixaren edo antzeko **narkotiko** baten gehiegizko kontsumoak eragin zituen. **Anton Ganikano**

Ekipaje piletan marihuana eta beste **narkotiko** batzuk bilatzeko trebaturiko txakurrek. **Irene Aldasoro**

Ondoez lauso bat sentitu nuen, eta zurruntasunari egozten saiatu nintzen, eta ez **narkotiko** baten eraginari. **Juan Garzia**

Batzuek diote abstinentzia sindromea dela, hau da, burmuineko **narkotikoen** eguneroko dosia falta dutela. **Luis Elberdin**

NBE Nazio Batuen Erakundeak sortutako **Narkotikoen** Kontrolerako Nazioarteko Taldeak (INCB) atzo Londresen, Erresuma Batuko hiriburuan, aurkeztu zuen 2003ko

Uteroko Txostena. Berria - Gaiak

2 irud/hed

Einsteinek musika izan zuen beti narkotiko, ezinbesteko droga. Fernando Morillo

3 (hitz elkartuetan)

Narkotiko trafikazalea izaki, gauaren babesean jokatu ohi zuen. Patxi Zubizarreta

4 (izenondo gisa)

Begi eta ezpainei Ekialdeko idoloen aurpegiaren lasaitasun narkotiko bera darie. Xabier Paya

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)
narkotikoen kontrolerako (3)

narkotizatzaile izond logalea eta sentiberatasun falta eragiten dituen. ik narkotiko.

Esperientziak erakutsi digu masa-hedabideek duten efektu narkotizatzaile benetan sendoa dela. Txema Ramirez de la Piscina

Telebistak pertsona horiengan duen eragina eta efektu narkotizatzaile askoz ere nabarmenagoa da. Txema Ramirez de la Piscina

Gizarte-aldaketaren eragile izan behar zutenak -klase herritarrak, alegia- dira, paradokiko, hedabide narkotizatzaile horien kontsumitzaile handienak. Txema Ramirez de la Piscina

narkotrafikante iz narkotrafikatzailea.

Nik egunero eraman ditut nire taxian filmean interpretatzen dudak narkotrafikantea bezalako gizasemak. Berria - Kultura

Bestela politiko sartuko lirateke, edo narkotrafikante. Berria - Kultura

narkotrafikatzaile iz drogekin trafikatzeko duen pertsona.

Gobernuak dioenez, narkotrafikatzaileen negozioarekin bukatzeko era bakarra uztak keztatzea da. Berria - Gaiak

Agintariak bazter utzitako auzoak dira, eta, hala, narkotrafikatzaileen eta gaizkile taldeen ekintza eremu bihurtu dira. Berria - Gaiak

narkotrafiko iz drogen trafikoa.

Narkotrafikoak sostengatzen du gatazka. Berria - Mundua

Etorkin batzuk narkotrafikoa, lapurreta eta erasoekin besterik lotzen ez direnean, [...]. Iñigo Aranbarri

Kolonbian, adibidez, narkotrafikoa dela-eta, bertako ekonomia jarduera BPG ofizialak adierazten duenaren bikoitza ere izan daitekeela uste da. Iñaki Heras

Kolonbiako narkotrafikoa dela eta, Venezuelako zerua hegaldatzeko hegazkin estatubatuarrei emandako ezezkoarekin amaitzen du kronika. Pako Aristi

Honen arabera, Pentagonoaren zerbitzu sekretuek 1991n ondutako txosten batek dio Alvaro Uribe ordu hartan «narkotrafikoarekin eta Medellingo kartelarekin harremanak» zituela. Berria - Mundua

naro (orobat naharo g.er.) 1 izond ugaria, joria. ik oparo.

Ez zegoen beste biderik -esan nion, esku bat bere ilaje naro eta nahasian sartu eta burua nire kontra pitin bat estutuz. Joxean Agirre

Arraposturik ezean suertatu da zure burutxo nire hitz jario naroaren ondorioz? Jon Arretxe

Gazteak, egun horretan beste otamen naroagorik izango ez duela aurreikusten duenaren espresio bildua dauka. Jon Alonso

Odol zorrotada naroa isuriko da itsastakurraren bihotzetik. Joseba Sarrionandia

Zingira kiratsuak larre naro bilakaturik. Karlos Zabala

Erdian, urrezko sutontzi bati dirgai naroa zerion. Juan Garzia

2 irud/hed

Aitatxi Migelek mihi naroa zuen gertakariaren segida hari batean lotzeko, eta xuhurra, berriz, bere bihotz barnea agertzeko. Aingeru Epaltza

Neguko dirgai errauts-koloreak eta espaloietako ezki biluziek areagotu egiten zuten inoiz luxu handikoa izandako barridearen, ez dut esango hondamendia, baina bai halako abaildura naroa. Anjel Lertxundi

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Eta Claude [...] bi andreak hain sasoiko, hain behar den bezala, hain bular naro ikusita, amorruez bete, eta, gerrikoa estuturik, honela esan zuen marmarka, haserre ahotsean: [...]. Karlos Zabala

4 (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Ipurdi polita nabarmendu dio jarrera horrek, eta bazekien besoez eta buruez babesten zebilen bularren naroaz. Urtzi Urrutikoeetxea

5 (adizlagun gisa)

Behin ere ez dut ezagutu une horietan horren samur ematen den gizonik, barren-barrenekoa hain naro eta garden eskaintzen duenik... geroago, noski, dena itzaltzeko ahaztura amaigabe, ia bihozgabe batean. Eduardo Matauko

Gero, etxeratzean, amari eta aitari kontatu nien Hondarribian ikusia, naro eta xehero. Joan Mari Irigoien

Madalena busti, intxaurre-gaztaina gutxi; Madalena klaro, gaztaina gero, edo gaztaina naro. Pello Zabala

narotasun 1 iz ugaritasuna, joritasuna. ik oparotasun.

Su-etena eta giroa sendotu ahala, prentsa dosierak naroago etorriko zaizkigu. Iñigo Aranbarri

Alaitasun, sormen, tolesgabetasun, narotasun bat, beste gaixoei, eta orobat gainerako guztioi, zoragarria iruditzen zitzaiguna dosi txikitan. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Atergabeko landare-narotasun hura, malastasun-usain hura, umotasun ustelduzko kirats hura. Joxe Austin Arrieta

narra (orobat narrria g.er.) iz gurgilik gabeko gurdia modukoa, bere gainean jartzen diren gauza pisuak herrestan eramateko erabiltzen dena. ik lera¹.

Badirudi lorrean (arrastan) garraitzen den gauza orok uzten duela lorratza: narrak, lerak, goldeak, areak... Patziku Perurena

Lera, goldea, area, **narra** edo alferra beti lorrean edo arrastaka dituela. **Patziku Perurena**
San Markosetarako **narra** bat hosto gorde behar da. **Pello Zabala**
Coruñako harri landuzko kaleetan zebilen gurdi eta **narría** jario etenbako bizi-bizia ikusi besterik ez zegoen; mando eta astoena, zaldi eta behorrena bezain bizia. **Edorta Jimenez**

narradore iz kontalaria.

Hala, haren ipuinetatik irakurrienean, Kalekantoi arrosakoloreko gizona delakoan, asasinatzaile bat da **narradorea**. **Juan Garzia**
Narradoreak Ryan du izena. **Juan Garzia**

narras (orobat narrats; Euskaltzaindiaren Hiztegian narras agertzen da) 1 izond itxuran edo janzeran behar lukeen era, txukuntasuna edo jasotasuna ez duena.

Rossetti-k bere burua zaintzeari utzi, eta garai bateko galai eder eta alaia izan zena izaki **narras** eta higuingarria bilakatu zela irakurri nuen. **Ramon Saizarbitoria**
Emakume polita zuan, bai, izen ederrekoa eta euskalduna, baina **narrasa** eta lotsagabea, gaizkilea eta, hori ziur esaterik ez dagoen arren, hiltzailea be bai akaso... **Juan Luis Zabala**
Orain zarpail, zurbil, erdi gaixorik, maiz edanda eta drogan sartua dabil, herriko gazterik **narrasena** lagun dituela. **Gotzon Garate**
Oldarrean abiatzen ginen, baionetak lepo-leporaino sartuta, huro **narras** haren aurka biraoka eta madarikazioka. **Mirentxu Larrañaga**
Bizar hazia zeukan, kalpar nahasi eta zikinak, arropa **narrasak**, usaina halamoduzkoa... egiazko basajauna. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Zuri nabari ohi zitzaion bizkar aldean soin gaineko blusa **narrasaren** azpian. **Mirentxu Larrañaga**
Bitartean bere bizar urdindu **narrasa** leuntzen zuen eta, kapelua goratuta, bere profeta zaharraren kopeta noblea xukatzen zuen. **Fernando Rey**
Tom beheko solairuan zegoen hura dendara sartu zenean -blai-blai sartu zen, arropetatik eta iletik ura turrustan zeriola, izaki arraro eta itxura **narraseko** bat, begi aztoratuekin eta kirats higuingarri eta min bat zerraiola. **Oskar Arana**
Gure arteko agente **narrasena** ere ez zuen onartuko dirurik jostun harengandik. **Matías Múgica**
Orain putetxe **narrasak** alokatzeik bizi zen, baina ez zion muzin egiten harreman laburragoetan ere bitartekari izateari. **Anton Garikano**
Auzo hura eremu **narras** eta txiro bat zela artean, etorkin saiatuen eta langile familien bizileku. **Oskar Arana**
Arditzarren ile horiztatu-**narratsaren** ondoan arkumeen txuria edertasun hutsa da. **Pako Aristi**

2 irud/hed

Hala ere, eskema **narras** zirriboratu bat izan ezik, ez neukan besterik idatzirik, erredaktaturik. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Entzuna genuen bazela beste sistema bat, multikopista, alegia, **narras** samarra baina merkeagoa, panfletoak-eta egiteko garai batean erabilia. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Haize mina dabil, dotorea aroa etxean utzitako euri zirin, **narras**, lorrinaren aldean. **Iñigo Aranbarri**
Eguraldi **narrasa** zela medio kontrola galdu, laprast egin eta errepide kontrolaren aurka joan zen, hori zen bertsio ofiziala. **Harkaitz Cano**
Izan ere, egoera **narratsa** zen hura. **Unai Iturriaga**
Dotorezia **narras** hori, aldrebeskeria handiusteko hori zen Kaskagorriren bereizgarri nagusia. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ez nuen gorputz desiorik txikiena ere sentitzen, ez jelsiorik txikiena ere, ez behintzat gutako bakoitzak dudarik gabe sentitu izan duen jelsia **narras** hartatik. **Matías Múgica**
Eraman ezina zitzaion jendearen esker txarra, politikarien joko **narrasa**, monarkiaren gainbehera. **Iñigo Aranbarri**
Zer egos dezake ni bezalako alproja batek, ofiziorik **narrasenean** aritzen den xixare batek? **Matías Múgica**
Bizitza **narrasaren** eta heriotza ziztrinaren artean zintzilik. **Anton Garikano**

3 (adizlagun gisa)

Gela **narras** samar zegoen, dena betetzen zuen ohe ikaragarria oso nahastuta ageri zen. **Juan Martin Elexpuru**
Gero, nire arropak pilatzen hasi nintzen maletan, nolanahi eta **narras**, ez neukan-eta ezer txukun egiteko trenpurik. **Anjel Lertxundi**
Mende hasierako olerkari, kazetari eta komandante ospetsu eta eredugarriaren aldean gutiz **narras** eta zarpail helduko zen Tolosara mende amaierako kazetari ohi gris eta ezezaguna. **Juan Luis Zabala**
Ez, adiskidea, zuk **narras** maite gaitzazu, txukun edonork maite gaitu eta. **Jose Morales**
Narras, logale eta ohetik jaiki berria aurkitu zuten etxeko nagusia; adabakiak zituen jakan, eta zuloak botetan. **Jose Morales**

4 adlag arrastaka. ik herresta 5; narraska.

Sukaldeko lurrean **narras** daramatela konturatzen da. **Oskar Arana**
Suge baten antzera higitu da kamioien lerroa, **narras** kasik. **Xabier Montoia**
Han urrun hil beharrean enbarkazioraino ekartzea erabakiko duzue, amaren gorpua **narras** eramatea zailagoa izango delakoan. **Joseba Sarrionandia**
Gero meategira itzultzen ziren, eta, gauean gizonak jareginik, han zihonan hura itzalgaitza, benetako otso bat bezala hormen kontra **narras**. **Juan Garzia**
Narras zoazte, tiro egiten duzue. **Xabier Montoia**
Gizonen eskuak **narras** zebiltzan, kristal apurtezin batean gora doazen zomorroen modura. **Lopez de Arana**

5 (izen gisa, hitz elkartuetan)

Saskia besoan atez ate urazak saldu nahian zebiltzan emakume behartsuen oinetako zaharren **narras** soinua. **Karlos Zabala**

6 narrasean adlag arrastaka, herrestan.

Eta atzera egin zuen bizi-bizi, basati bat bezala **narrasean**, alertzeen arteko alderik trinkoenerantz. **Karlos Zabala**
Belauniko jarri eta **narrasean** joan zen itsasontziaren bizkarretik. **Julen Gabiria**
Narrasean dabilen piztia nazkagarria bezala ibilarazi zuela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Mikel Strogoff, belar gainean **narrasean**, zaldiarengana hurbildu zen. **Karlos Zabala**
Eta atzera egin zuen bizi-bizi, basati bat bezala **narrasean**, alertzeen arteko alderik trinkoenerantz. **Karlos Zabala**
Narrasean baino ezin da atera leize-zulotik, higiturik, herbaldurik, itxuragaizturik. **Oskar Arana**

7 narras egin arrastaka eraman.

Tabernan sartu bezala irten da agurea dendatik, praka barrenak **narras** eginez libibaz higitutako solairuan. **Javi Cillero**
· Iztterrak zabaltzen dizkit irribarre eginez, esku batez hankartea tentatzen, eta besteaz **narras-narras** egiten dit bular aldean. **Javi Cillero**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

narras maite gaitzazu (5)

narraska adlag arrastaka, herrestan. ik narras 3; narras 6; narrasta

Lur jota gaude, hautsetan **narraska**. **Elizen arteko biblia**
Ez nintzen gauza zutik jartzeko, baina larritasunak kemenik aski eman zidan lurrean **narraska** abiatzeko, etxeordetik irten eta kalean zehar arrastaka jarraitzeko, etxe aldera,

ustez, izu-laboriarekin eta zangarra suzko aitzo moduko zerbaitek ziztaturik, ezin bainuen argi ikusi non nengoen eta nora nindoan. Juan Kruz Igerabide
Belauniko hurbildu zen, eta, oheraino **narraska** igorik, erregearen esku zimurtua jaso, handik eraztuna irristarazi, eta atxiki egin zuen. Juan Garzia
Anaiaren esku bat ikusi nuen, **narraska**, neskak jantzirik zuen bere txabusinaren azpira. Aingeru Epaltza
Erorka biren ondoren iritsi zen eguzkiak laster berotuko zituen iturburuko haizetara, hankapalua **narraska** eroala. Koldo Izagirre
Bazirudien **narraska** zihoala eskua, geldiro-geldiro labanarantz hurbiltzen. Josu Zabaleta

narraskeria 1 iz narrasari dagokion egitea.

Zuen baimenarekin, adiskideak, ez ditut zehazki kontatuko hurrengo urteetan egin izan nituen **narraskeriak**. Matías Múgica

Bere ordeze jarri zuten funtzionarioak egin zituen **narraskeriak** ez direla Ministerioan -eta ez Ministerioan bakarrik- berehalakoan ahaztuak izango. Karlos Linazasoro

2 narrastasun gaitzesgarria.

Txapelik ez buruan, brusa urratua, galtza jario eta alkandora bistan, zazpi urteko barrabas baten **narraskerian**. Karlos Zabala

Narraskeria eta zikinkeria edonon! Iñaki Mendiguren

Pobrezia, miseria eta **narraskeriaren** erdian, hiru gauza dira ranchito guztietan aurki litezkeenak: telebista, musika aparailua eta sakeleko telefonoa, Venezuelako telefono zelularra esaten dutena. Pako Aristi

3 narraskerian narraskeriak egiten.

Sethek, barrez, baztertu egin zituen, kalezuluan zihoan inork ikus ez zituzan **narraskerian** jendartean, egun-argitan, haizetan. Anton Garikano

narraski adlag narrastasunez, narraskeriaz.

Dionisosen gau mahaia arakatu zuen **narraski**. Unai Iturriaga

Nahikoa buruhauste eman diezu beie ala beie, **narraski** eta batere arrazoirik gabe, ez hitz zakarragorik erabiltzeko. Matías Múgica

Arropa **narraski** kendu niola gogoratzen dut, eta baita ere, ingurumarririk gabe, titiak igurztzen hasi nintzaiola. Iban Zaldúa

narrasta adlag arrastaka, herrestan.

Menpera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurrean **narrasta** dabilzan piztia guztiak. Elizen arteko biblia

Sabel gainean nahiz lau zangoen edo gehiagoren gainean **narrasta** dabilzan piztiak debekatuak dituzue eta ezin izanen dituzue jan. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lurrean narrasta dabilzan (5); **narrasta dabilzan** (11); **narrasta dabilzan piztiak** (4)

narrastaka adlag arrastaka, herrestan.

Sugeak beti izan badu ere higuin puntu bat, nazkagarri gertatzen zitzaion martxoko sapa bero ustel horretan nagi antzean **narrastaka** azaltzen zenekoa: Martxoko sugeak, 40 eguneko negua. Pello Zabala

narrastasun iz narrasa denaren nolakotasuna.

Lehen bezala janzen ziren denak, etxeko arropa arruntekin, eta begi erne-erne batek soilik antzeman zezakeen halako **narrastasun** eta zabartasun doi baten arrasto hautemangaitza, gogotik ahaiegindu arren Shevirev doktoreak ezin ezaba zezakeena. Jose Morales

'Bi-mila, e-kain-aren he-mere-tzia,' irakurri du umeak, irakurtzen ikasi berrien **narrastasunarekin**. Joseba Sarrionandia

narraste iz herrestan joatea edo eramatea.

Pistolaren kolpekaria atzera erakarri zuen uanean ireki zen atea, baina biotako inork ez zuen kirrinka sentitu, ezta oin punten **narraste** ahula ere, presentzia grisa. Aritz Gorrotxategi

narrasti (orobat narrasti g.er.) 1 iz animalia ornodun odol-hotza, biriken bidez arnasa hartzen duena, errulea, azala ezkatat estalia duena, eta lau hankak endurtuak edo motzak dituelako herrestan ibiltzen dena.

Lauzpabortz kolpez akabatu nuen **narrastia**. Joan Mari Irigoien

Ezabatu egingo dut mundutik nik sortu dudana gizakia; gizakia eta harekin batera abereak, **narrastiak** eta zeruko hegaztiak, damu bainaiz hauek egin izanaz. Jose Antonio Mujika

Atera ziren untzitik bizidun guztiak ere: abere, hegazti eta **narrastiak**. Elizen arteko biblia

Oharkabea, berriro ere sofatik alde egina zen, **narrasti** bat bezain isil: zubirantz zihoazen eskailerak igotzen ari zen. Harkaitz Cano

2 pl narrastiek osatzen duten klasea.

Arrainen eta **narrastien** arteko trantsizioa erakusten duen animalia baten fosila topatu dute Kanadako iparraldean. Berria - Gaiak

Duela 375 milioi urteko fosila da, eta arrainen ezaugarri asko baditu ere, eskumuturra eta **narrastien** beste atal asko ditu. Berria - Gaiak

Narrastien biologiak, hasieran, eta ugaztunenak, ondoren, gizasemearen genitalak kanpoan izatea ekarri du. Luis Elberdin

Narrasti emeek ez dute baginarik. Luis Elberdin

Arrainak eta **narrastiak** ez bezala, hegaztiak eta ugaztunenak odol berokoak dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azido urikoa, gizonaren eta ugaztunen jariakineta urri-urria, txorien irazkinen ehuneko 50 dela, eta **narrastien** irazkinen ehuneko 90. Juan Garzia

Anfibioak irabazian ateratzen dira arrainekin konparatuta, eta gizakiaren arratoi-antzeko aurrekoak, beren garaikideekin, **narrasti** erraldoiekin, konparatuta. Iñaki Mendiguren

Ez gara **narrastiak** bezalakoak, ez dugu urte batetik bestera larruazala erantzi eta berria hartzen. Javi Cillero

Azazkal berritza, **narrastien** larru berritza bezala, gu izaki dilubioaz aurrekoekin lotzen gaituen aztarna bat da. Iñaki Iñurrieta

Maskota gisa erabiltzen diren **narrastiak**, dortokak, esaterako, kutsadura iturri arriskutsua dira. Berria - Gaiak

Edo kameleoi, kameleontidoen familiako **narrasti** saurioen izen arrunta alboetatik zapalduetako gorputza, elkarrekiko independenteki mugitu daitezkeen begiak... Unai Elorriaga

Narrasti bat zirudien, **narrasti** atzeratu bat izaki bizidunen bilakaera osoki gauzatu gabea gauzatzera zetorrena, ugaztun bihurtzera zetorrena milioika urteko atzerapenarekin. Harkaitz Cano

3 izond herrestan dabilena.

Aurrera egin dugu bidean, suge **narrastien** antzera herrestan. **Mirentxu Larrañaga**

Eta berak eman zidan musua, bere mihi epela animalia baten moduan mugitu zitzaidan ahoan luzaroan, epela eta **narrastia**, eta arnasarik gabe utzi ninduen. **Joseba Sarrionandia**

Etorkin **narrasti** eta umezurtza zuen bere aurrean orain. **Harkaitz Cano**

Ate hotsa entzun orduko, zapata **narrastiak** komunekoa atera gerturatu baino lehen, amak, Venga, ya vale esan eta bukatutzat ematen zuen bere egitekoa. **Eider Rodriguez**

Begiak jaso, eta zapelatz bat dakusk airean urrutiratzen, eta lasaitu ederra hartzen duk: harena behar zian, noski, itzal **narrastiak**. **Joxerra Garzia**

-Gezurti **narrastia**! -bota zion Txilintxok izkinaren batetik. **Julen Gabiria**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hegazi-, abere- eta **narrasti** -mota bakoitzetik bina sartuko dira zurekin, bizirik irau dezaten. **Elizen arteko biblia**

Ikusi eta buruan talka ikaragarria sumatzea, **narrasti** -garunean edo nonbait han, bat izan da. **Jose Angel Irigaray**

Narrasti -etxeko zaintzailea oneratu ezinik zegoen. **Iñaki Mendiguren**

Lurretik irteten ziren zizareei gatzat botatzen zitzaizanean, haiek bihurrikatu egiten ziren, gelditu gabe, **narrasti** -dantza batez. **Juan Kruz Igerabide**

Narrasti imitazioko alkandora orlegi honekin, eguzkipean erdi-lo dagoen iguana dirudizu. **Eider Rodriguez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abere eta narrasti (3); narrasti emeek (4)

lurreko narrastiak (4)

narrastiek garatu (3)

narrastien mintzoa (3)

narrastitasun iz narrastia izateko nolakotasuna.

Platanondo baten kontra estutu zara, bizkarra enbor arrakalatsuan pausatuz, eta lepoa, luze-luze jarrita, begiak itxita, mimetizaturik zaude kasik, nahiz eta alkandoraren **narrastitasuna** naturalegia ez izan. **Eider Rodriguez**

narrastu, narras(tu), narrasten (orobat narrastu g.er.) 1 da/du ad narras bihurtu.

Oso gizon txukuna zen, baina azkenera **narrastu** egin zen. **Koldo Izagirre**

Garaziren motots harro borobila, lehenago tente egona, blai bustita, desitxuratuta zetzan buruan; eta lepoaren gaineko tontort xarmangarri izandako hura, **narrastuta** agertzen. **Txillardegi**

Meategi-sarreran zaindaria dagoen gizona, kagurak amorratzen zegoela-eta, bazter batera joan da egin beharrekoak egitera; ezin **narrastuko** du gero beraiek egon behar duten lekua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Joko-mahai berde biribil handi bat zen mundua, pattarrez zikindua, zigarro-hautsez **narrastua**. **Anton Garikano**

Itsasoa pixka bat **narrasten** bada ez zaiela asko inportatu diote galiziarrek Kantauriko gorabeheretara nahiko ohituak daude eta. **Berria - Kirola**

Atergabeko euri-jasak lurra asetzen eta **narrasten** duen gisan. **Iñaki Segurola**

Mendiek bi gisatoko bideak sortzen dituzte: sugedorriak bezala bihurka **narrasten** direnak eta boak bezala uhinka **narrasten** direnak. **Koldo Izagirre**

2 (gauza abstraktuez)

Mesedez horrek ezaupidea eta adiskidetasun sanoa etsai ditu, eta adiskidetasuna **narrastu** ondoko zaputaldia lagun. **Iñaki Segurola**

Matias konturatu zen egoera deserosoia zela hura eta komunikazioa **narrasten** zuela. **Unai Elorriaga**

Askotan, etenean akatsen bat egiteak teknikoki dakarren galeraz gain, bertsolariari ideia bera galaraziko dio, etena huts egitean bere alde aurretiko esamoldea eta egitura aldatu beharko baititu, eta, aldatzean, egindako lan guztia **narrastuko** du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Ez nintzan lapurreta egiteko, hiltzeko eta nolanhako maitakeria lohietan **narrasteko** askatasunaz ari. **Juan Luis Zabala**

Urdaibaik milaka kantabriar eta astillerotarren festa **narrastu** nahi izan bazuen ere, [...]. **Berria - Kirola**

Gainera, idazteko nire ahalmen kaskarrak segur aski **narrastu** eginen luke haren edertasun eta xarma guztia. **Alberto Ladron Arana**

3 (era burutua izenondo gisa)

Arrotza gizon mozkote eta lodia zen, ile gris **narrastua** zuen, eta larri zirudien. **Iñaki Mendiguren**

4 (hitz elkartuetan)

Hautsontzia mukuruz zeukan, eta aurpegia apur bat negar-**narrastua**; bion edalontziak ahalik ongien bete eta, arren, lehengoa barkatzeko erregutu nion. **Joxe Austin Arrieta**

5 herrestan joan edo eraman.

Ximurra asotsik gabe **narrastu** zen gure artetik kanporaino. **Aingeru Epaltza**

Makurka hurreratu natzaie, etsaien lerroetan sabotaiak egitearren txarrantxapetik **narrasten** nintzen moduan, sekulan baino Metxago. **Koldo Izagirre**

Mikel Strogoffek odol hotzari eutsi zion, eta, belar handien artean **narrastuz**, zerbait ikusten eta entzuten saiatu zen. **Karlos Zabala**

narratiba 1 iz narrazioak ontzeko jarduera, literatura narratiboa. iknarraziogintza; kontagintza.

Poesia, **narratiba**, saiakera, haur eta gazte literatura eta itzulpengintza landu ditu batik bat. **Koldo Izagirre**

Poesia beroaldi bat da, eta **narratiba** txindurri baten lan luzea. **Ana Urkiza**

Niri gogoetaz betetako **narratiba** duk gero eta gehiago gustatzen zaidana. **Mikel Hernandez Abaitua**

Benetan esaten diat, tipo hori edo itsua zuan, edo ez zian liburua irakurri, edo **narratiba** laburrak ez zekian ezer. **Mikel Hernandez Abaitua**

Gero **narratiba** berria sendotu zen beste hainbat idazleren eskutik: Natsume Sōseki, Akutagawa Ryūnosuke, Mori Ōgai, Dazai Osamu, Tanizaki Jun'ichirō, eta abar. **Ibon Uribarri**

Narratiba sozialaren etiketaren muga estuetan erori gabe, agerikoa da pobreen aldeko hautua. **Fernando Rey**

Bi **narratibak**, prentsarena eta literaturarena, ez dira elkarren senide baino. **Iñigo Aranbarri**

Citizen Kane-k **narratiba** zinematografikoa irauli zuen. **Berria - Harian**

Hogeigarren mendeko **narratibaren** antologia guztietan lekua irabazita duten obra pare horretatik bata, *Lautada sutan* ("El llano en llamas", Koldo Etxabek euskaratua), ipuin sorta bat da, generoarean bilakabidean mugarri nabaria. **Juan Garzia**

RUT atzeritarren kontakizuna hebertarren **narratibaren** maisulantzat hartua izan da. **Jose Antonio Mujika**

Euskal literaturaren kanonaren berrikusketa egin beharrean gaude euskal **narratiba** femeninoaren ikusezintasuna behingoz eta betirako ahantzirik uzteko. **Berria - Kultura**

Abenturako eta zientzia fikzioko **narratiban**, puntako erreferentzia ezinbestekoa dira Vernerren obra oparoa osatzen duten liburua. **Berria - Harian**

Poesian eman zituen bere lehen literatur sorkuntza-lanak, nahiz eta **narratiban** egindako lanagatik den, batez ere, ezaguna. **Ana Urkiza**

Hango liburu-apal **narratibaz** beteak! **Juan Garzia**

Narratibazko lanak igorri behar dira 2005eko otsailaren 15erako, Baionako Mattin Megadendarat. Heria

Narratibako Espainiako Saria jaso zuen iaz. Berria - Kultura

Ezin dira **narratibaren** legeak definitu. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Narratiba arloko Espainiako Sari Nazionalak itzultzaile lana utzi eta idazle profesional izateko aukera eman zizun. Berria - Kultura

Eta idazle gisa, bide arras oparora du saiakera eta **narratiba** generoetan. Berria - Kultura

Narratiba modu honek Estatu Batuetako XX. mendearen bigarren erdiko ipuingintzaren maisuak dakarzkigu gogora: John Cheever, Raymond Carver, Richard Ford... *Edo zu edo ni* (Erein, 2000) eta *Sartu, korrontea dabil* (Erein, 2001) **narratiba** liburuen ondotik, [...]. Berria - Kultura

Poesia eta **narratiba** testuak dira nabarmen ugarienak, artikulu eta albiste laburrak badira, inkestak, elkarrizketak, txistek, iragarkiak... Jokin Urain

Palestinako **narratiba** egile garrantzitsuenetako bat. Berria - Kultura

Parte hartzeko, **narratiba** lanetarako proiektuak aurkeztu behar dira, ekainaren 30a baino lehen. Berria - Kultura

Susa **narratiba** bilduma. Xabier Mendiguren Elizegi

De Pradak irabazi du Espainiako **Narratiba** Saria. Berria - Kultura

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mitoa izan daiteke, benetan, exortzismo-egintza erritual bat literatur **narratibara** pasatzea. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

espainiako narratiba (4); **poesia eta narratiba** (3)

euskal narratiban (3)

narratibazko lanak (3)

narratibitate iz narratibotasuna.

Konturatu naiz bazeudela elementu batzuk liburua justifikatzen zutenak: erudizioa, **narratibitatea** ... Berria - Kultura

Artelanez biltzen dituzten zeinu horiek guztiak **narratibiterako** potentzial bat eduki arren, artistaren proposamenak ez luke inoiz narrazio oso eta ertsi bat osatuko. Berria - Kultura

Erakustearen eta narrazioaren arteko bereizkuntza horrek irudiarekin lotura duten bi **narratibitate** maila izan daitezkeela esan nahi du, besteren artean: irudi bakarrean lehenengoa, eta irudi-sekuentzian bigarrena. Josu Zabaleta

narratibo izond kontakizunarena, kontakizunari dagokiona. ik narrazio 2.

Zati **narratibo** guztiak bildu ditugu hemen. Jose Antonio Mujika

Elkarrizketa ugarirekin ez dagoela prosa **narratibo** onik. Mikel Hernandez Abaitua

Beste gauza bat da, ahots **narratibo** bera erabiltzea, Iholdiren bilduman gertatzen den bezalaxe. Ana Urkiza

Kodeak eta eredu **narratiboak** ere eraberritu behar dira. Txema Ramirez de la Piscina

Material **narratiboa** antolatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere adimen osoa eta bizitza osoa itzala nola berreskuratu ahitu zituen, horra koska eta horra abiapuntu **narratibo** polita, tarte horretan zer gerta zitekeen asmatzeko. Anjel Lertxundi

Bost atal Bernardori eskaini ondoren, Frantziskorengana bihurtzen da berriro arreta **narratiboa**. Askoren artean

Zurrumurruak, baita funtzio **narratiboa** hartzeko gai izan direnak ere, betidanik egon dira munduan. Bernardo Atxaga

Egilearen ahozko hizkerarekiko joera islatzen duen prosa **narratiboa**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Forma **narratiboetan** irudiak nola sortzen diren aztertzen du. Berria - Harian

Batik bat, [Ulisesen] alderik **narratiboanek** hautatu ditut, eta mitoen eta lekuen deskripzio luzeak oso laburturik utzi. Juan Kruz Igerabide

Planoak badu nolabaiteko autonomia **narratibo** bat, baina erakutsiaren mailan gertatzen den kontaketa bat da. Josu Zabaleta

Hauak dira minimalismo **narratiboaren** ezaugarriak: kontakizun laburrak, esaldi laburra eta paragrafo motza nagusi direnak, oso eszenografia eskasa, pertsonaia gutxi, eta ekintza, drama, gutxiestea. Koro Navarro

Plano **narratiboa** trebeki aldatuz. Jon Alonso

Hona beste denbora lerro **narratibo** bat. Unai Iturriaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elementu narratibo (3)

funtzio narratiboa (3); **hari narratiboa** (4)

eredu narratiboak (3)

narratiboki adlag narratibaren aldetik.

Espioitza edo nobela beltzaren gaineko aurriritzia dago atzean, baina Greene ez zen, **narratiboki**, berritzaile izan, interesa eta trama nahiago izan zuelako beti. Berria - Kultura

Ustez oso "moderno" eta "iraultzaile" diren mezu asko eta asko guztiz ulertezinak eta **narratiboki** atzerakoiak dira. Txema Ramirez de la Piscina

narratibotasun iz narratiboa izateko nolakotasuna. ik narratibitate.

Espazioan bezalaxe inskribatzen da denboran kontaketa, eta, horrenbestez, narraziozko irudi oro, eta berdin irudikapenezko irudi oro, **narratibotasunaren** "kodeek" markatuta dator, **narratibotasun** hori sekuentziazte baten bidez agertu baino lehen ere. Josu Zabaleta

Irudiari dagokionez, irudi finkoari dagokionez batez ere, **narratibotasunaren** irizpidea izango da indartsuena: irudiak, irudikatzen dituen gertaerak ordenatuz kontatzen du batez ere, irudikapena nolakoa den. Josu Zabaleta

Denbora sintetiko hori (argazkiak horren aise, horren "naturalki" sortu ezin duena) da, inondik ere, zinema **narratibotasunera**, fikziora, gehien bultzatu duen ezaugarrietako bat. Josu Zabaleta

Lanaren egiturak estuki jarraitzen die mitologiako pasarte hark azaldutako gorabeherei, baina betiere dantzaren esparruaren barruan, hau da, **narratibotasun** errazean jausi gabe. Berria - Kultura

narratologia iz narratibaren azterketa, egituraren eta aritze eskemen aldetik gauzatua.

Kontaketa, jakina den bezala, beren esanahiak historia bat osatzen duten adierazle multzo bezala aski zehatz definitua du azkenaldi honetako **narratologiak**. Josu

Zabaleta

Gaudreaulten iritzian, hain zuzen, **narratologiak**, bere zentzurik estuenean, *telling* edo esatea baizik ez du hartzen, zeinahi delarik ere kontaketa euskarria (idatzizkoa, antzerkia, zinema). Josu Zabaleta

Otegi azterketa estrukturalista egin zuen; Toledok ere bai, baina semiologiaren edo **narratologiaren** ildotik. Berria - Kultura

narrats ik **narras**.

narratu, narra(tu), narratzen du *ad* kontatu, kontaketa egin.

Gogoratu zitzaion lotinant batek **narratu** ziola euskaldunek Alemaniako armadaren lau kide harrapatu zituztela Otxandio aldean egun batzuk lehenago. Lutxo Egia

Narratu dudan historiak irrealak dirudi, bi gizon desberdinen gertaerak nahasten direlako bertan. Juan Garzia

Neskato saharar batek sentitzen duen bazterkeria **narratuko** du ipuinean. Berria - Kultura

Nobela bizia eta arina da, baina baita hori baino askoz gehiago ere, ederki **narraturiko** eta primeran euskaraturiko obra hau. Berria - Kultura

Abiadura azkarreko prosaz dago **narratua**. Berria - Kultura

narratzaile 1 *iz* kontalaria, kontatzailea.

Poeta ala **narratzaile**? Ana Urkiza

Narratzailea autobus bidaia bat kontatzen hasi da, nirearen oso antzekoa. Iban Zaldia

Gero, autoreak dantzalekura bidean jartzen du **narratzailea**, bitarte horretan ezer gertatu izan ez balitz bezala. Anjel Lertxundi

Narratzailearen ahotsa ageri zaigu kanpotik bezala, distantzia hartuz bere pertsonaiekiko. Berria - Harian

Nolanahi ere, **narratzaileak** ez daki nola iritsi emakumearengana, nola kontatu istorio bat, nola atsedean hartu orainaldian. Markos Zapiain

Narratzailea da, beraz, protagonista nagusia. Eskarne Mujika

Irადoki egiten da zer gertatu den, baina **narratzaileak** ez du ipuina biribiltzen, eta irakurleak eman behar dio amaiera ipuinari. Berria - Kultura

Bi pertsonaien aldi bereko ekintzak deskribatzea ezinezkoa baita, fisikoki eta mentalki, batez ere elkarrengandik urrun daudenean, **narratzaile** baten apeta eta nahikeriaren menpeko, jakina delarik, gainera, **narratzaile** hori kezkatuago egon ohi dela bere kontakizunaren interes objektiboak irizten dien horiek, honako edo bestelako bigarren mailako pertsonaiaren esperantza ez zilegirik baino. Jon Alonso

Iban Garatek egingo ditu aurkezpen lanak, eta Agurtzane Intxaurrega izango da **narratzailea**. Berria - Kultura

2 (izenondoekin)

Ez da dudarik konbenzio errealista hausten duela horrek, baina, ondo pentsatuz gero, ez da sinesgaitzagoa hori errealismo petoaren beste prozedura batzuk baino:

narratzaile orojakilea bera dut gogoan adibide nagusi. Juan Garzia

Narratzaile orojakileaz gain, elkarrizketa biziak eta aproposak, sinesgarriak, erabiltzen ditu idazleak. Berria - Kultura

Kijoteren **narratzaile** fikziozkoaren izen arabiarrak. Patxi Ezkiaga

Lehenago ez bagenekien, orain badakigu: **narratzaile** sendo baten aurrean gaude. Berria - Kultura

Kritikari askok erromantikotzat jotzen dute, eta biziki miresten dute amets eta ikuskari fantastikoen sortzaile gisa, fantasiaz eta misterioz oparo hornituriko istorioen **narratzaile** mistiko gisa. Jose Morales

Carver poeta eta **narratzaile** handia hil da Port Angelesko bere etxean. Harkaitz Cano

Hedatuz joan zen iparreko auzuneetara iritsita bere gazteluan ostatua emanda zegoen **narratzaile** bikain horren fama. Fernando Rey

3 (hitz elkartuetan)

Gogoz kontra, Fionn **narratzaile** lanari ekiteko behartuta aurkitu zen. Joanes Urkixo

Eta haietaz gainera, nire **narratzaile**-solasaldi bridagabeak, Balzac, Ariosto, Fantomas, Madame Bovary, Tristan eta Isolda eta halakoen moduan. Fernando Rey

Behin baino gehiagotan aitortu diguzu zure idazkietan **narratzaile**-mina izan duzula azken urteotako eleberririk irakurtzean. Javi Cillero

4 (izenondo gisa)

Nahigabeen ere Felixen gorputz malguaren irudia datorkio ipuineko emakume **narratzaile**-protagonistari. Edorta Jimenez

Koldo Mitxelena ere abisatu zigun kluxe **narratzaile** bera dagoela [...] Chaucerren Bath atsoari buruzko pasadizoan, Cervantesen Camachoren ezteien kontakizunetan eta Peru Abarkako Maisu Juanen ostatuko zorra kitatzeko moduaren azpian. Anjel Lertxundi

Ametsak hautsia omen dute beren estruktura **narratzailea**; jauzika eta elipsi sekulakoak eginez ibiltzen omen dute beren bide laburra. Anjel Lertxundi

Beste prosa **narratzaile** batzuei halako laudorioak eskainirik ere. Juan Garzia

Azken afaria: apostolu bakoitzaren aurpegia gertatzen ari denari buruzko ikuspuntu **narratzaile** bat da. Anjel Lertxundi

Saka dezadan hatza, saka-saka, zaurian, eta atera dezadan plazara munta handiko gorabehera bat, oraingo usadio **narratzaile** baldarrak aintzakotzat hartzen ez duena: [...].

Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

narratzailearen ikuspuntu (3)

narrazio 1 *iz* kontakizuna.

Narrazio hori, 1936ko lehen hilabeteetan idatzia, 'Zezenaren adarrak' izenarekin gordea da lehenengoetan. Edorta Jimenez

Bere **narrazioak** emozioz, sentimenduz eta grinaz beterik egoten dira. Fernando Rey

Trukatze orokor ikusgarri bat dago **narrazio** honetan, bilakaera txundigarri bat: [...]. Markos Zapiain

Narrazioa, izan ere, planoen autonomia ezabatzen duen irakurketa jarraitu batek egiten duen bidean baizik ez da azaltzen. Josu Zabaleta

Dena dakien narratzailearik ez da izaten, beti ikuspegi batetik egiten da **narrazioa**. Ibon Uribarri

Ondoko hiru **narrazioetan**, "Rossetti-ren obsesioa", "Marcel Martinen aitatasun ukatua" eta "Bi bihotz, hilobi bat", patua protagonista/narratzailearen nortasunak barnebiltzen eta adierazten du. Markos Zapiain

Laburbilduz, ibaia funtsezkoa da **narrazioaren** egiturari. Lopez de Arana

Bakarrik ari da bere lanean, hitz zehatzen bila, **narrazioaren** gehikerietan galdu gabe. Pako Aristi

2 (izenondoekin)

Juan Carlos Perez kantariaren letra batetik abiatuta **narrazio** labur bat taxutzea, eta *ltoiz* rock taldea desagertzea, gauza bat eta bera izan ziren. Iban Zaldia

Ez zituen **narrazio** laburrik besterik idatzi berrogeita zazpi urte bete zituen arte. Iban Zaldia

Nire liburu hau isilunez beterik dago, **narrazio** etenez josia. Pako Aristi

Tradizioaren zaporea duten testuak eratzten ditu, eta erdibidean dago Indiako epikotasun klasikoaren eta bidelapur zintzoei buruzko **narrazio** erromantikoen artean.

Fernando Rey

Narrazio mitikoak hartzen ditut gogoan, nire gizarteko jendearen bizitza esplikatzen baitute. Bernardo Atxaga

Narrazio zientifiko orok diskurtso metaforikoa du oinarri. Iñaki Heras

Narrazio literarioak, prentsak ez bezala, bakardade harremanetara garamatza. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **narratibo**.

Film batzuek hobeto "kudeatzen" dute emozioen zikloa, ikusleari, **narrazio** -egitura ongi menderatuz. Josu Zabaleta

Narrazio -jakituria eskerga bat zebilela jaun eta jabe haien orrietan. Juan Garzia

Puntuazio sistema bitxiak eta **narrazio** ildo desordenatuak bikain lortzen dute irakurlea tren-geltoki txiki bateko eta gazte baten sentimenduen zurrumbiloi sartzea.

Fernando Rey

Irratian zein telebistan, hedabide bakoitzaren **narrazio** legeak ezagutzeak du axola, ez azken orduko softwarea ezagutzeak. Joxerra Garzia

Zinemaren **narrazio** -prozedura bereziak. Josu Zabaleta

Irudikapen- eta **narrazio** -eginkizunak: koadroak, mundu bereizi bat erakutsiz, eratzen duen ikuspen-indizea are gehiago indartzen da irudi hori irudikapenezkoa, edota narraziozkoa, kontaketazkoa, irudimen-balio ohargarri batekoa denean. Josu Zabaleta

Deleuzek mugimendu-irudiaren hiru modalitate bereizten ditu, pertzepzio-irudia, ekintza-irudia eta afekzio-irudia, zein prozesu den nagusi: pertzepzio-prozesua, **narrazio** -prozesua ala adierazpen-prozesua. Josu Zabaleta

Narrazio sorta izan behar zuen, atalka argitaratuko genuena, testu eta irudiez osatua. Anjel Lertxundi

Lehen **narrazio** -bilduma 1952an argitaratu zuen, *Sari sicak (Haurrak: Kapelu horia* eta beste **narrazio** batzuk), eta poesia-irakurleek aspaldi hartu zuten sekta itxura hartzen ari dira narratzaileak eta **narrazio** -irakurleak. Fernando Rey

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Interpretatzeko aukera moztu eta era bakar batean ulertzeko ematen da prentsa-**narrazioa** . Iñigo Aranbarri

Ohean etzan eta *Ehun polizia*-**narrazio** *hoberenak* izeneko liburu mardula irakurtzen. Bernardo Atxaga

Duela urte batzuk nagusi ziren eztei-**narrazioak** eta metro karratuaren salneurriari buruzko iritzi-trukeak. Iban Zaldúa

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

narrazio bilduma (4); **narrazio labur** (6); **narrazio laburrak** (13); **narrazio liburua** (5); **narrazio maila** (4); **polizia narrazio** (4)

narrazioak eta olerkiak (3); **narrazioak irakurtzen** (3); **sarrionandiaren narrazioak** (5)

narrazioaren haria (3)

polizia narrazioen (3)

narraziogintza iz narrazioak ontzeko jarduera, narrazio literatura. ik **narratiba**.

Literatura urbanoaren aldarrikapenak bazuen, bestalde eta oinarrian, gure **narraziogintzaren** hastapenetako jatorrizko bekatutik ihes egiteko halako premia begi-bistako bat.

Anjel Lertxundi

Zientziaren aurrerapenak ordu arte pentsaezinak ziren aukerak zabaltzen zituen garaia egokitu zitzaion Vernerri, eta aukera berri horiek alde aurretik igarri eta **narraziogintzaren** oinarri eta bizigarritzat erabiltzen bete-betean asmatu zuen, inor gutxi bezala. Berria - Harian

Bistan da, Zeta eleberriarren egilea ez zaigu ari **narraziogintzan** . Berria - Kultura

Hark bultzatu zuen Pirandello, ordu arte gehienbat olerkiari emana, **narraziogintzan** sartzera. Josu Zabaleta

Dunetako maitasun gauari leku eman zion gero zubipeko **narraziogintzak** . Koro Navarro

narraziozkotasun iz narraziozkoa izateko nolakotasuna.

Izan ere, zinemaren teoriak, pinturarena baino modernoagoa denez, kontzeptu berriak eta akulitzaileak onartzeko inertzia eta uzurtasun gutxiago izan du, noski; eta zinemak, ikusmenezko irudia eta **narraziozkotasuna** , biak batera konbinatzen dituen, desira eta irrikak nabarmenago giltzatzen ditu. Josu Zabaleta

Alde batetik, zinema izatez dena, [...] **narraziozkotasunari** mendekotua baina bere emaitzarik onenak guztiz interesagarriak dituena (Faurek Chaplin aipatzen du eredutzat), baina bere izaeraz mugatua dena-, eta, bestetik, zinema izan daitekeena (izan beharko lukeena?). Josu Zabaleta

narratzi ik **narrasti**.

narratzi ik **narrastu**.

narrria ik **narra**.

narriadura iz andeatzea, hondatzea.

Gaurko bidetik jarraituz hondamendi ekologikoa eta ekosistemaren **narriadura** larria besterik ezin da etorri. Iñaki Heras

Gurea, bestela esateko, Denboraren poderioz erortzen hasitako etxea zen, eta **narriadura** begi-bistakoa izan arren, ez genuen ezer egiten eragozteko. Migel Angel Mintegi

Telebistitis kronikoa zaitzu lotzen burmuinean eta, segidan, gainbeherako **narriadura** hedatzen gorputz osoan barna. Jose Angel Irigaray

Epaitegien jarduna errazteko erabiltzen den itzultzaile sistema, bestalde, ez dela «egokiena» esaten da abokatuen txostenean, «administratzen den Justiziaren **narriadura** ekartzen baitu batzuetan, bai eta oinarritzko eskubide eta printzipioen urrapena». Berria - Euskal Herria

narriatu, narria(tu), narriatzen da/du *ad* andeatu, hondatu.

Adituek azaldu dutenez, ontziak isuri zuen hidrokarburoen erdia oso poliki **narriatzen** da, eta, beraz, fuel-olioa desagertu ondoren ere kutsadura bertan geratuko da. Berria - Gaiak

Entzuten dizut, eztarria **narriatua** duzu. Josu Zabaleta

Greenpeacek adierazi duenez, Lakuak «mota guztietako» isuriak baimentzen ditu kostaldean eta horrek «baliabide naturalak etengabe **narriatzea** » dakar. Berria - Euskal Herria

Eta bere lehengo soslai latz eta zurruna kopeta iluneko begitarte larritua bilakatua zen, egurats gorriak, eurriak eta eguzkiak biluztu eta **narriatua** . Fernando Rey

Kaleak hondatuta aurkitu nituen, etxe-sailetan hutsuneak tarteka, eta oraindik zutik zeudenak ere lorrinduta, **narriatuta** , zulatuta, leihorik gabe. Urtzi Urrutikoetxea

Maastrichten eta euroaren aitzakiaz murrizketa politika zorrotzak ezarri ziren, gizarte-babesa **narriatu** , kapital-errenten gaineko zergak leundu eta abar. Iñaki Heras

narrio iz akatsa, orbana.

Akatsak bilatzen nizkion, eginahalean **narrioak** bilatzen. Noiz eta, haren ondorez, berretu, emendatu eta hedatu baitzen **narrio** eta arrazadura hura. **Matías Múgica**
Badago, beraz, **narrio** espainol bat arraziala, hala esana zuen Menéndez Pidal-ek [...], h[au] d[a], badago historia markatzen duen elementu bat historia baino barnagokoa.
Joxe Azurmendi

Lixibaz zulatutako izarak, / **narrioz** betetako sabaia, / moketaz forratutako lurra, / argi gorria, / puta merkea. **Jasone Osoro**

narriotsu izond akastuna.

Aizpahiru egunetan utzi nuen auzia bere kasa, ea orban **narriotsu** haiek kentzen eta desagertzen zitzaizkidan. **Joan Mari Irigoien**

Neure buruari ezetz eta ezetz erraiten nion arren, iduri hark, bertzerik gabe, kutsatzen ninduen eta sentiarazten ninduen munduko gizonik lohitsuena eta **narriotsuena**.
Joan Mari Irigoien

narritadura iz minberatasuna; haserre nabaria.

Marmoken zitzadak epidermisaren **narritadura** eragin dezake. **Beria - Gaiak**

Larruazalaren **narritadura** latza eragiten du, eta minbizia ere eragin dezake [dioxinak]. **Beria - Gaiak**

Horrez gain, mukosak eta arnasbideak **narritazen** dituzten gaiak zein sistema endokrinoari kalte egin diezaioketen hormonak edo, besterik gabe, osasunarentzat arriskutsuak diren konposatuak daude produktuotan. **Beria - Gaiak**

Bere ahotsari nolabaiteko **narritadura** itoa adierazten utzi zion lehen aldiz. **Jon Alonso**

Izan ere, azkazal luze eta obalatu bat hautsi berri duenaren **narritadura** saihestezina ulertzekoa baita. **Jon Alonso**

narritagarri 1 izond narritatzen edo minberatzen duena.

Horrek eta atxiloketak eragindako estresak, eta guardia zibilen kolpeek eta aerosol **narritagarriak** bihotzekoa eragin zioten. **Beria - Mundua**

2 irud/hed

Urduritasuna sortzen zuen, halako sentipen zehaztugabe eta **narritagarri** bat eragiten zuen. **Jose Morales**

Orain bere baitan arestiko sentazioen oroitzapenak burutik kendu ezin zuen pentsamendu **narritagarri** baten kontra egiten zuen borroka. **Jon Alonso**

narritari iz txantxetan edo isekaz aritzeko joera duena.

Oi ene, ez duzu aurkituko **narritari** hoberik! **Juan Garzia**

narritatu, narrita, narritatzen 1 du ad minberatu.

Azala **narritatu**, eta antzekoak gertatzen dira. **Beria - Harian**

Oihal latzak lepo mehe zuria minberatu eta **narritatzen** zion. **Jose Morales**

Ekinaren ekinez bagina lehortzen eta **narritatzen** zaiela, besterik ez. **Luis Elberdin**

Bularrak **narritatuta**, beteta, ateratzen hasten zaizkionean bezala. **Beria - Kultura**

2 nabarmen haserretu.

Maria andrea gehien **narritatzen** duena da hau bezalako aldaketa itzelak gertatzen ari direla eta bera ez dela ezertaz jabetu. **Jon Alonso**

narru 1 iz larrua.

Kutxa berrituaren inguruan **narrua** jostea erabaki nuen. **Edorta Jimenez**

Behin hori eginik, kutxa berriz itxi eta **narruzko** estalpean sartu nuen. **Edorta Jimenez**

Tabako xeherako erabiltzen zuen **narruzko** toxa zabal-zabalean zeukan mahai gainean. **Josu Landa**

Geu bere harrotu ginan eta, afanaren afanez edo, tanbolinari **narrua** apurtu jakon. **Xabier Amuriza**

- Zelako **narrua** daukazun, putakume horrek! **Jon Arretxe**

2 irud/hed

Pantera batena zirudien, bai, begien aurrean zuen itsasoaren **narru** nabarrak. **Juan Luis Zabala**

3 (hitz elkartuetan)

Han ez dik **narru** zati hau beharko, ez duk uste? **Edorta Jimenez**

Ahuntz **narruzko** zahagi zaharretik zahagi berriagora doan ardoa balitz bezala. **Jon Maia**

Martxoan ostotsa, apirilean behi **narruak** (hotza kentzeko **narru** jantzia behar, noski). **Pello Zabala**

4 (sexu harremanak aipatzeko) ik narru 9.

Azken batean zer dok ba **narrua** jotea? **Unai Iturriaga**

- **Narrutan** egin izanak ez dik esan nahi hirekin maiteminduta nagoenik... Inguruoak berotu egin ziren haren esanekin, eta Joseluk ikusi ahal izan zuen, oso labur ikusi ere, haietako batek atzamarrez **narru** jotze keinu nabarmena egin zuela. **Unai Iturriaga**

5 eskularrua.

Narruak kendu eta motorraren gainean ipini zituen eskuak. **Koldo Izagirre**

- Labana bat azaldu du mahaian, **narruan** sartua. **Koldo Izagirre**

6 narru-beltz (corpusean larrubeltz soilik) larru-beltza.

Segundo batzuk geroago hasi da zerbitzari **narrubeltza** besoak altxatzen, ordura arte lo egon eta kolpera esnatu balitz bezala. **Patxi Iturritegi**

7 oilo narru

Kanpotik haize freskoa zetorrenez, oilo-**narrua** jartzen ari zitzaion. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
narruzko zezen (4)

narruazal iz larruazala.

Hezurrak eta **narruazala** ia giharrrik gabe elkarrekin itsatsita. **Josu Landa**
Sentitu duk inoiz gosea, beste baten **narruazalaren** beharra, berorik beroenaren beharra? **Josu Landa**

narrubeltz ik **narru 5**.

narrugorritan iz larrugorrian, biluzik. ik **larrugorri 6**.

Bueno, ba, mutilak joan ginen pistinara, ta nola trajebañurik eta ezer ez geneuken, **narrugorritan** bañatu giñuztean. **Xabier Mendiguren Elizegi**

narrutaldi iz larrualdia.

Ez dakit zeini arreta jarri; nahikoa eta larregi nuen kaiku honekin! a!, nola urtu behar dudan **narrutaldi** bikoitz honekin!. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

narrutu, narru(tu), narrutzen du *ad* larrutu.

Usainka hurbildu zen gure taldera, eta berehala harrapatu, ito, **narrutu** eta gordinik jan genuen. **Jokin Urain**

nartex iz antzinako kristau basiliketan, katekumenoentzat bereizten zen ataria.

Bestetan, Bizantzioko **nartex** haien antza hartzen du fatxadak, aski gauza harrigarria probintzia honetan. **Berria - Kultura**

nartzisismo (*orobat nartzizismo g.er., narzisismo; Euskaltzaindiaren Hiztegian nartzisismo agertzen da*) **1** iz norbaitek bere dohain fisiko edo moralez sentitzen duen miresmen gehiegizkoa.

Ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzea **nartzisismoaren** erreakzioa da: apatia horrek, gure boterearen fantasiaz aparte, eguneroko pertsona konkretuak ez ditugula ezagutzen adierazten du. **Joseba Zulaika**

Euskal **nartzisismoak** ez digu utzi ETaren hondamendia bere neurri osoan ikusten eta sentitzen. **Joseba Zulaika**

Pertsonen dikotomia edo hausturan, bizirik irautea baimentzen duen **nartzisismoa** dago. **Berria - Kultura**

Ez nau harritzen Mikel Lasari Le bateau ivre ez gustatzea, egia baita gogaikarria ere egiten den **nartzisismoa** dariola poemari. **Anjel Lertxundi**

Bizitzea, andrearekin biltzea, oztopatzen diguna (gerra, edo norberaren tentelkeria, **nartzisismoa**, ganorabakokeria, kontzientziaren ausikia), behingoz ehorztea da kontua, eta lurpean betirako bakean uztea, geure bizitza babes dezagun. **Markos Zapiain**

2 (hitz elkartuetan)

Bizio, behar, plazer, sufrimendu arraroa, besteekin komunikatzeko premia, **nartzisismo** forma bat, bizitza ikusteko eta sentitzeko modu pertsonal eta diferentea izatea...

Ana Urkiza

Maitatzeko modu nartzisista primario hau du bereizgarri haurrak; heldua den pertsona malenkoniatsuarena da **nartzisismo** mota bigarrena. **Joseba Zulaika**

nartzisista (*orobat narzisista eta nartzizista g.er.*) **1** izond nartzisismoarena, nartzisismoari dagokiona.

Grande Marlaska eta haren inguruko epaile **narzisista** guztiak. **Berria - Harian**

Gizarte **nartzisista** eta hedonista honetan gizakia ez dago heriotzari aurre egiteko prestatua. **Berria - Gaiak**

Sexu heldutasunik ez dutenak, ezaugarri **nartzisistak** dituztenak, alkoholarekin edo drogekin arazoak dituzten pertsonak edo hormona anomaliak dituztenak. **Berria - Gaiak**

Maitatzeko modu **nartzisista** primario hau du bereizgarri haurrak. **Joseba Zulaika**

Ezin ulertuak, huts egiteak, traizioak ere uler ditzake **nartzisista** ez den amodio mota honek. **Joseba Zulaika**

Zentzu askotan gauzatzen da nostalgia hori: erregresio **nartzisista**, ametsarekin berdintzea, baina baita antzinako garai mitiko batera itzultzea ere, Platonen haizuloaren mitora, oraingoan. **Josu Zabaleta**

Modernizazio eta industrializazioaren erasoaz gain diktaduraren erregresioa zegoen, eta Euskal Herri malenkonzitatuarenganako lotura **nartzisista** bera galtzear zegoelarik, identitate tradizionalak zauri larriak jasan beharra zeukan nahitaez. **Joseba Zulaika**

2 iz nartzisismoak jotako pertsona.

Gauza maitatuaren bestetasuna eta autonomia ahantz ditzakeen neurrian bakarrik maite du **nartzisistak** bestea. **Joseba Zulaika**

Liburuan barrena, Saizarbitoriak errieta egiten die abertzale itsuei, errieta ustezko antiabertzaleei, eta, oroz lehen, bere buruari; horregatik ez du inoiz **nartzisista** ematen, bere buruaz sarritan mintzo bada ere. **Markos Zapiain**

nartziso¹ iz *Amaryllidaceae* familiako landarea, erraboi pozoitsua duena, lore zuriak edo horiak, oso usaindunak, ematen dituen (*Narcissus* sp.); landare horren lorea. ik **lilipa**.

Zelai batean haizea, **nartzisoak** udaberrian... **Xabier Olarra**

Loreak ere ikusgarriak ziren oso, **nartziso** eta nenufarrak, urdinak gehienak kolorez, handiak gehienak tamainaz, eperrak gainean jarri eta habian bezala geratzen baitziren. **Felipe Juaristi**

2 (hitz elkartuetan)

Umeari Ishmir eman zioten izena, hiazinto eta **nartziso** petaloak baino xuriagoa zelako. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Larunbatean lau lore sorta ekarri zizkigun Bepek: hiru **nartziso** sorta eta hiazinto nanozko sorta bat, hau niretzat. **Josu Zabaleta**

Nartziso -baratze bat dirudi, bat-batean loratua. **Joxe Austin Arrieta**

Horman bermatuta eta **nartziso** -koloreko kimonoa jantzirik, Ellenek bozkarioz begiratu zuen zapata-kutxa itxurako gela handi hartara. **Lopez de Arana**

Oraindik zetazko paperean bildutako **nartziso** -ontzi batetik gainezka eginez, izar-itxurako lore batzuek dir-dir egiten zuten fosforeszentzia argiz, lur bustiaren usaina zeriela, lurrin ilaun eta zorrotz batekin nahastuta. **Lopez de Arana**

nartziso² (*orobat narziso*) **1** iz pertsona nartzisista.

-Nartziso bat zara, egolatra nazkagarri bat. **Karlos Linazasoro**

Animo eroriak altxatzen, idazle desmotibatuak adoretzen, idazle alferrak aupatzen, **nartzisoak** balakatzen, zalantzaiegi segurantzia ematen, seguruegiei freno jartzen. **Jon**

2 (izenondo gisa)

Sortzailea **nartzisoa** eta masturbazioari emana izaten da, ez du bere buruaz ahanzi eta bestek sorturikoa maitatzeko behar den eskuzabaltasuna. **Markos Zapiain**

nartzizismo ik **nartzisismo**.

nartzisismo ik **nartzisismo**.

nartzisista ik **nartzisista**.

nartziso ik **nartziso**².

nartzizista ik **nartzisista**.

nasa¹ *iz 1 iz* tren edo metro geltokietan, bidaiariak eta zamak bagoietara sartzea edo bagoietatik ateratzea errazteko, trenbidearen alboan eraikitzen den plataforma.

Burdinbidearen bestaldean hantxe zegoen geltokia, aterpedun **nasa** bat baino askoz gehiago ez. Gure helmugara iritsi ginenean, gizona trenetik presaka jaitsi eta beste bidaiariak **nasa** bete baino lehen urrutiratu zen. **Juan Garzia**

Katigamenduen kabinan hots bat aditu zen eta disko gorriak piztuitzalia egin eta zuri bihurtu zen, eta nik kabinatik giltza atera eta lasterka joan nintzen **nasa** aldera, estalpera. **Fernando Rey**

Trenetik jaitsi eta **nasako** jendetzaren artean nahastu nintzen. **Alberto Ladron Arana**

Bagoi batetik behi aziendaren adarrak ateratzen ziren, buru batzuk luzatu egiten ziren eta **nasa** aldera begiratzen zuten, behibegi handiak ziren, jakinminez eta tristeziak beteak. **Fernando Rey**

Bederatzigarren **nasa**... hamargarren **nasa**. **Iñaki Mendiguren**

Nasan sartu zen, bagoietara inguratu, eta erretzaile ez zirenentzat zela zioen batean igotzen hasi zen. **Josu Zabaleta**

Ni **nasan** nengoen eta treneko nagusiari eta bere langileei eta suginari begiratzen nien. **Fernando Rey**

Eta sotoko leihotatik ikusi nuen Hubi?cka maniobraburua **nasara** aterea zela. **Fernando Rey**

2 (izenondoekin)

Soldaduz inguratutako **nasa** jendegabeen kondenatuak motel argizatuturiko bagoietarantz abiatu zirenean. **Jose Morales**

Metroaren sarreran *Tribune*-a erosi zuen eta bultzaka jaitsi zen eskaileretan behera, **nasa** jendetsu eta kirasturaino. **Lopez de Arana**

Prestatu zen, eta tren gelditu zenean, **nasa** hutsera jauzi egin zuen. **Josu Zabaleta**

Azken aldian bezala, gizon multzo bat zain zegoen metroko **nasa** estali gabeen. **Joseba Urteaga**

Almak trenari jarraitu zion, aterki zuri batekin [...] lepoa trenerantz, eskuinerantz jiratuta, **nasa** oinetan amildegi bihurtu zitzaion arte. **Harkaitz Cano**

Nasa zabala eta luzea, eta hortik hara ezker eta eskuin, ipar eta hego, trenbidearen bi aldeetaranzko urruntze amaigabea. **Joseba Sarrionandia**

3 (hitz elkartuetan)

Azterapenekin zetozen trenen inguruko informazioa, **nasa** aldaketak, eta antzeko abisuak seguru aski, inorentzako ez zirenak agian. **Iñaki Zabaleta**

4 irud/hed

Sanz presidentea pozik azaldu zen, Wolfsburgen baieztu egin baitiote margoketa **nasa** berria 2006. urtearen erdialdera hasiko dutela, eta 2007rako amaitu. **Berria - Ekonomia**

5 kaia.

Nasa hutsik egoteak antxoia garaia esan nahi du, edo sardinarena, edo atunarena, hau da, lanerako garaia eta lanerako itsasoa, partila ona mareajea amaitutakoan. **Koldo Izagirre**

Eskafandra, zapatoiak eta buruko bola harrigarri hura jantzi zituen eta **nasako** eskaileretan behera astiro jaitsita itsasoan murgildu zen. **Joseba Sarrionandia**

Harrizko eskailera zaharren goiko mailetan jesarri zen, **nasa** trasatlantikoko enbarkaderoan zegoen oraindik txalupa. **Koldo Izagirre**

Neska arineketan zetorren **nasa** gainetik, batelaren paretik. **Joseba Sarrionandia**

Gizonak haurren erretratuak egin nahi zituen eta, portuko **nasa** artean galdu zen. **Edorta Jimenez**

Sestaon bi **nasa** dauzkagu, eta **nasa** bakoitzean ontzi bat eraikitzen jardun beharko genuke. **Berria - Ekonomia**

Beharrezkoan, hareaz beteriko zakuokin kartoletaraino enbarkazioa, udaletxe aurreko **nasara** datoz, eraikin horixe babesteko dira-eta mozolo-itxurako zakuok. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

geltokiko **nasan** (3); **nasan bertan** (3); **nasan gelditu** (3); **nasan sartu** (3)

hiru laurdeneko nasara (3); **nasara atera** (12); **nasara atera nintzen** (4); **nasara atera zen** (3); **nasara heldu** (3); **nasara iritsi** (4); **nasara jaitsi** (3)

nasen arteko (4)

nasa² *iz* Kolonbian hitz egiten den indigenen hizkuntzetako bat.

Irrati honek **nasa** hizkuntzaz eta gazteleraz eman du Minga-ren gainean gertatzen zenaren berri. **Berria - Mundua**

Irrati igorgailu txiki bat daraman tandem bizikleta honek indigenekin batera burutu du ibilbidea, *Radio Payumat* indigenen **nasa** hizkuntzan «sartzeko baimena eskatzen dut» esan nahi du *payumat* hitzak irriatirekin bat eginez. **Berria - Mundua**

nasai *1 izond* lasaia.

Alkandora loratu bat, praka **nasaiak**, eta eguzkitarako kapela hori txiki bat dauzka jantzita. **Oskar Arana**

Santi arropa bakeroa jantzita goitik behera, alkandora **nasaiaz** mitxelinak disimulatzen. **Jon Arretxe**

Marlboro pakete bat atera zuen soineko urratu eta **nasaiaren** poltsikotik. **Oskar Arana**

Ez dago Bev Shaw bakarrik, Bill Shaw ere badago, hura ere zapala, sukaldeko mahaian tea daten, erremolatxa gorriaren koloreko aurpegiarekin eta ile urdinuarekin, eta lepo **nasaiko** jertse bat jantzita. Oskar Arana

Euren begitaratean irribarre goxoa azaltzen zen, irribarre **nasai** eta mazala. Gotzon Garate

2 (adizlagun gisa)

Bufanda bat zerabilen **nasai** eta luze, unibertsitario eternoa bilakatua. Koldo Izagirre

Ipurdi aldean estu eta gerrian **nasai** samar egokitu zaizkio; ez diote gaizki ematen hala ere. Leire minutura azaldu zen, pijama urdin argi batekin, gorputza **nasaiago**, kulero eta bularretako barik, estuasun barik. Patxi Iturritegi

Lotsatuegi, esango dio bataik besteari, lotsatuegi ezer kontatzeko, eta barre egingo dute **nasai** beren baitarako, beren balentriaz oroituta. Oskar Arana

Nasaiago jokatu dugu guk aurreko lerrootan, araua pittin bat hausten bagenuen ere, zirt-zart eta zirti-zarta bezalako hitz bikoitzak sail berean sartu behar genituela iritzita. Iñaki Arranz

Galesterrek utzitako etxoletako batean antolatu ditut laurak, eta nahikoa **nasai** zeuden lekuz, hatuak ere ez baitzituzten aparteko handi. Juan Garzia

Jesarrita ez baina merezi lukete hilgaiak kamainan **nasai** etzanda egin diezaien berba. Koldo Izagirre

3 ugaria.

Irache hotelean kafe on bat, lehenik, eta gero, gosari **nasaia**. Piarres Aintziart

Azken egunetako uhar **nasaiek** ibaia loditu eta lohitu zuten. Itxaro Borda

Arratsaldeko euri epel **nasaia**. Ramuntxo Etxeberri

Trafikoa **nasaia** zen. Ramuntxo Etxeberri

Pentze **nasaietarik** altxatzen zen usainak gatibatzen ninduen, ez errateko paralisatzen. Itxaro Borda

Oihan **nasaia** eta eremu desertuak zeharkaturik. Piarres Aintziart

Kamiotik mitrailleta asots **nasaia** ozen zetozen eta partida zuena irudiz, tiratzaile bakartia, tiratzetik gelditu zen, hila menturaz. Itxaro Borda

Egun luze hauetako eguzki ordu **nasaien** bero sapatsuen artean. Pello Zabala

Gertakari horietarik eta jokolarien jokoari esker sortzen da irria, irri **nasaia**. Herria

Gutun bat, amodio sentimendu **nasaienez** hornatua. Janbattitt Dirassar

Erran gabe doa zernahi gai mota aztertzen duela Piarres Charriton-ek euskara **nasai** eta aberats batean idatzi liburu hortan. Herria

Nahiz oraino hautagai lixta guziak ez diren agertuak, oraidanik badakigu hautu **nasaia** izaneren dela ekainaren 13-an. Herria

Entzulego **nasai** bat da antzoki edo pilotalekuetan bildu, bazterrak kokorerraino betez. Herria

4 (adizlagun gisa)

Kaian, emazte larri, papo-handi batzuk arrain-saltzale zeuden, dena oihu eta irri, solasa **nasai** bezain gizen! Janbattitt Dirassar

Eskuak garbitu ahala garbitu nituen, ur epela eta Josuren xaboi merkea **nasai** erabilia. Aingeru Epaltza

Ez da normala izenari laguntzeko baino iraintzeko erabiltzen den adjektiboa hain sarri, hain naro, hain **nasai** erabiltzea. Iñigo Aranbarri

5 zabala.

Gero, anitzez berantago, 1844an, Irauketa etxea, bere lur eremu **nasaiekin**, saldu zion gobernua Beltrán Echepeare luzaidarrari. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Astelehenean, agorrilaren 1a Larrondoko itzal **nasai**an herritarren eguna egun guzian. Herria

Dendak soilgune **nasai** baten erdi-erdia hartzen zuen, urki zoragarriak eta pinu eskergak inguruan. Karlos Zabala

Duela bospasei urte Donibane Garazin berean erositako zuten 1000 m2-ko lur eremuan altxatu da, azken sei hilabete hauetan, ikastola **nasai** bat, 31 urte hontan igurikatzen zuten heinekoa. Herria

Eskola berriak 130 ikasle errezebi lezazke bere gela **nasaietan**. Herria

Gehiengo **nasaiena** Donibane Garaziko kantonamenduan, % 67-ekin. Herria

6 *galtza-nasai pl*

Belusezko **galtza**-nasai belaunetarinokoz jantzirik etortzen zen eskolara. Juan Garzia

Galtza **nasaia**, bonbatxoak. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gehiengo nasai (10); **gehiengo nasai bat** (3); **gehiengo nasai batek** (3); **lasai eta nasai** (3); **mahain nasai** (3)

egitarau nasaia (5); **gehiengo nasaia** (19); **gehiengo nasaia ukan** (4); **hautu nasaia** (3); **lan nasaia** (4); **parte hartzea nasaia** (3); **uzta nasaia** (3)

txalo nasaia (5)

inharreko barne nasaia (3); **josta leku nasaia** (3)

talendu nasaieko (3)

nasaikeria iz lasaikeria, bereziki lasaikeria.

Ez mozkortu, ardotik **nasaikeria** baitator; aitzitik, bete zaitezte Espirituaz. Elizen arteko biblia

Gauza jakina da, Le Blanc-en dendatik desagertu zen astean, neska itsas ofizial gazte batekin ibili zela, zeina ondo ezaguna baitzen bere **nasaikeriagatik**. Koro Navarro

Gizajoa Leslie Bird porto-edalea, gizajoa Gil Morris txikia, arrasto beltz bat margotuz betazpietan markatzen baitzuen larunbatero bere **nasaikeria**, han ikusiko banindute, paretetan boxeolarien argazkiak erdi erorka zituen gela ilun, mixerable hartan. Koro Navarro

nasaiki *adlag* ugaritasunez, ugarri.

Erramu sainduarekin un benedikatua **nasaiki** bota zuen exorziztak jendeen gainera, ganbarako xoko-moko guzietara, ohe azpia ahantzi gabe. Michel Oronoz

Ez genuke ahantzi behar Baigorriko seme ospetsuak ez zuela arazorik izan auzoko erratzuarren odola isurtzeko **nasaiki**, ez eta ere Baztan aldera ihesi joanak zituen bere herritarren ehizatzeke. Piarres Xarriton

Ongi jaten zuten, **nasaiki** ere; hori erakutsi digute. Herria

Horietariko batzuen gainean erran-merran franko ibiliak ziren hirian: nahi ahala haragi fresko omen -ez bakarrik plater barnean-, eta halaber hauts xuria **nasaiki**, sudur zuloen alaigarri. Aingeru Epaltza

Egia erran, gazte ginelarik baginazkien orain **nasaiki** entzuten diren hitz gordinak, baina ez ginituen erraiten jende helduen aitzinean. Herria

Aspaldiko denboretan, herri hau jendetsua eta aberatsa zen, artilea baitzen **nasaiki**. Piarres Aintziart

"Hontanas" hitzak erakustera emaiten duen iturria ikusi dut, bere ura bi txorrotetatik **nasaiki** dariola. Piarres Aintziart

Eta gure mitikoaren buruan, filosofo gazte baten buruan bezala, sekulako ideiak **nasaiki** jalgitzen dira, alderdi guzietara joz. Michel Oronoz

Etorria naiz, bizia izan dezaten eta **nasaiki** izan dezaten. Piarres Xarriton

Haundiek ere beren ametsaldiak izanki, baina atzartze dorpeak ondikotz **nasaiki** ... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

nasailore (orobat *nasailora*) iz

Burura datozkit, orobat, **nasailoreak** eta atxaparrak, eta zalkeak, eta kuku-prakak, eta garikota gorriak, eta arkakaratsak; *Cymbalaria muralis* (murruntza), *Filipendula ulmaria* (**nasailora**), *Saxifraga sarmentosa* (harrautsia), etab. **Mirentxu Larrañaga**

nasaitasun 1 iz lasaitasuna.

Materiaren kopurua inoiz ez da izan ez estuagoa ez **nasaitasun** handiagokoa. **Xabier Amuriza**

Ez ditu haize freskoa eta zuhaitz berdeak desiratzen, landaldeko **nasaitasun** erabatekoa desira du. **Koro Navarro**

2 ugaritasuna.

Ur honen **nasaitasunak** eta bazter hauen aberastasunak bat egiten dute. **Piarres Aintziart**

Lanari emanen diozu zure bihotz ona, **nasaitasuna**, eta lanak emanen dautzu onarpena, laneko lagunak beren ikustatea, errespetua. **Herria**

Orai ez dugu holakorik, **nasaitasunean** bizi garen jendaldentzat, ez daukagu gehiago lurra gure hazlea, eta sahetsean, mundu zabalean, gosez hiltzen diren malurusak!
Herria

nasaitu, nasai(tu), nasaitzen da/du ad lasaitu.

Goma tenkatu, goma **nasaitu**, eta mutilak begiak jasotzen ditu zorutik. **Anjel Lertxundi**

Emakumeak lokarria **nasaitu** eta alde batera baztertzen du. **Oskar Arana**

Ipurdia birjina duzu, orduan! ba ez zaitez larritu, nahiz eta oso estua izan, **nasaituko** dugu eta. **Juan Martin Elexpuru**

nasamona iz

Lurralde horretara joan ohi dira **nasamonak** palmondoen uzta biltzeko. **Patziku Perurena**

naski iz ziur aski, beharbada, antza denez. ik noski.

Berak **naski**, ez zukeen inoiz bere familian, heriotzaren pairamena ezagutu. **Daniel Landart**

Gauza batek nu harritu: Apezpiku berri hau, oraino aitzinekoa baino beldurtiagoa dugu **naski**. **Piarres Xarriton**

Galde frangori, eta galdea funtsez entzun gabe ere **naski**, ihardetsi du haatik ezetz. **Herria**

Ohore gose baita ama? ez dugu **naski** ezagutzen amarik, ohorearen gatik lotu zenik eta irauten bere sailean. **Herria**

Zer duxula izena, Pantxika **naski**? **Janbattitt Dirassar**

Borrokatu beharko duzue **naski**. **Itxaro Borda**

-Lan anitz ukanen dugu **naski**. **Elena Touyarou**

Gero ta fiteago ari naiz **naski**, Utergako etxeak hor berean baititut jadanik. **Piarres Aintziart**

Ixilik dago, bere ondokoa ez deusetan tratatzeko gisan **naski**. **Herria**

Goazen, beraz, Emile Larre-rekin, bainan hizkuntza gidari, hain da ederra, joria, apaindua Bastida Belarreko semearen euskara eta, denbora berean, hain gurea, artzain etxolakoa **naski**. **Herria**

-Zure bila dabilta **naski** -adierazi zion jokalaria batek taldeko beste bati. **Elena Touyarou**

Zuk ez nauzu **naski** ezagutzen baina nik badakit zu nor zaren, ene andrea zure auzoan sortua da. **Janbattitt Dirassar**

Eta errazenetarik bat, **naski**, gaurkoa. **Piarres Aintziart**

Haratago eta gehiago **naski**! **Janbattitt Dirassar**

Ez zen erraza **naski**. **Itxaro Borda**

Hobe nuen **naski**, denak fuera-futre utzirik, etxeko ohean sartzea. **Daniel Landart**

-Ez dakinat zer duen, **naski** ez zuen etortzeko gogo handirik... **Eneko Bidegain**

Aurten sei urte baditu **naski** dagola horrat ekarria. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ere ba naski (4); **ere bai naski** (4)

naskitu, naski(tu), naskitzen ad

Zizka-mizken mahai luzea apurrez eta hondakinez **naskiturik** dago. **Edorta Jimenez**

nata 1 iz esne gaina. ik krema 2; gain.

Heure burua ikusi behar huen, kalamidade horrek, **nataren** aparra ezpainen inguruan huela, nola joaten zitzaizkian begiak Mariasunen eskote aldera. **Jokin Muñoz**

Nata, krema edo xantilizkoak izan, jendeari aukera eman gutxienez, gogo asebetezko asmoz. **Berria - Kirola**

Tatuajearen usainak begiak irekiarazi zizkion eta, bere bularra ikusi zuenean, titiburuak **natatz** inguratutako soufflé baten itxura zeukan. **Jasone Osoro**

Nire bihotz esker txarrekoan inongo xamurtasunik ez esne, jogurt, gazta, gurina, **natatzko** pastel eta abarreatatik. **Joxean Sagatzizabal**

-Itxaron pixka bat, horiei **natatzko** bi karajilo atera arte. **Pako Aristi**

-O!, zer txuri dagoen dena -egin zuen hasperen-, hor aurreko mendi horrek **natatzkoa** dirudi. **Bernardo Atxaga**

2 (hitz elkartuetan)

Baina barra gaineko ezpain-zapiak hartzera joan zuan, muturreko **nata** arrastoak behin eta berriz alkandorako maukarekin garbitu ez hitzan, seguru asko. **Jokin Muñoz**

natibitate 1 iz Eguberria.

Pentsa zertan geratuko litzatekeen egun guztiotan hartu dugun lana, eliza konpontzeko eta polit-polita egon dadin oraintxe **Natibitaterako**, norbait hilez gero etxe horretan. **Juan Garzia**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Jaunaren **Natibitate** jaiain egin zuen jaiotza. **Askoren artean**

· Belenen borrokak izan ziren eta 200 bat ekintzaile eta zibil palestinarrek **Natibitate** elizan hartu zuten aterpe, 40 fraide eta lau mojarren artean. **Berria - Mundua**

natibo 1 *izond* sorterrikoa, jaioterrikoa.

Hiztun **natiboek** osatzen dute hizkuntzaren gunea, eta gune horixe da une honetan indartu behar duguna. Atzerriko hizkuntzak ikasten ditugunean, beti izan ohi dugu kontuan irakaslea **natiboa** den ala ez. **Koldo Zuazo**

• 2 *iz* sorterriko, jaioterriko pertsona.

Hegoafrikako eta Australiako **natiboen** umeei ere horrela deitzen zitzaizen. **Julen Gabiria**

Amerika konkistatutakoan, primitibismoak bere lekua aurkitu zuen: **natibo** amerikarrak "primitibo prestu"aren lekua hartu zuen. **Askoren artean**

Lekuaren bazterrekotasunak eta klimaren eta lurrairen lakarrak bertara jende tipo bat erakarri duelako: menturazale, sakats, gerraria, **natiboekin** urtu dena. **Joxe Azurmendi**

natilla 1 *iz pl* gorringo, azukre eta esnearekin, bestek beste, egiten den gozoki krematsua. **ikarrautzesne**.

Natilla batzuk X edo Y andrearentzat, titia ematen ari da eta. **Joseba Urteaga**

Serieko erreprodukzioa nonahi ageri da gaur egun: txokolatzeko **natilletan**, disketeetan nahiz galtzetan. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Osakidetzak jakinarazi duenez, Donostiako Amara Berri eskolan entsaladilla, eta San Patricion **natilladun** merengea izan ziren salmonella kasuen eragileak. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan)

Natilla -azpil bat, intxaur muskatu hautsez gaineztatua. **Irene Aldasoro**

natul 1 *izond* *adkor* naturala.

Euskara (ia) inork ez dakien hizkuntza da, jakite naturalez eta **natulez**. **Iñaki Segurola**

Guaia -ez "jatorra"- eta euskarazko jende **natula** izatea oso zaila da, azpeikiotiarra edo ondarrutarra ez denarentzat, eta hau, dakienak badaki eta ez dakienak ez dauka erremediorik. **Iñaki Segurola**

Eta horrek ez dik tankera **natulik**, txikitos. **Iñaki Segurola**

2 (adizlagun gisa)

Bera bezalakoek bai, baina mutilek ez dutela **natul** pentsatzen, eta zergatik, eta pitoarekin pentsatzen dutelako, hain juxtu. **Iñaki Segurola**

natur ik **natura** 2.

natura 1 *iz* izatasun fisikoa duten gauza guztien multzoa, osotasuntzat hartua, eta bereziki izaki biziduntzat hartua. ik **izadi**.

Natura, bada, dagoenaren multzoa da. **Xabier Amuriza**

Gure lurra, gure **natura** ere, femeninoa baita. **Eduarne Elizondo**

Natura osoa da erotik gupidagabea eta xahutzailea. **Txillardeggi**

Natura eta naturaren obra. **Joxe Azurmendi**

Natura jakintsua da. **Karlos Linazasoro**

Izpirituaren eta **naturaren** arteko erlazioa. **Joxe Azurmendi**

Naturak zer bakoitza berriro bere elementuetara disolbatzen du, baina ez du ezer hutseraino ezereztzen. **Xabier Amuriza**

Naturak sortutako munstro odoltzalea... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Naturak ez baitu mendekurako grinarik, ez gogorik. **Felipe Juaristi**

Naturak merkataritzarako egin zituen arabiarak, ez gerrarako. **Iñaki Iñurrieta**

Natura geldí eta lo dago sasoi honetan: izotzak eta hotzak hartan laguntzen diola. **Pello Zabala**

Bazterrak, landa eta pentze, ezitutasun batean lo daude, baina lo emankor batean, gaurko hezetasun eta eguzki honen artean **natura** ari baita bere barneko kalda isilean udako uzten apailatzen. **Piarres Aintziart**

Natura ezagutzea gizakiaren buru-irispidean dago, eta ezagutze hau boterea da. **Iñaki Mendiguren**

Landareetan gertatzen dena ikusiz, komeni da horretan ere **natura** imitatzea, adibidez zuhaitz biribiletan gertatzen dena. **Santiago Iruretagoiena**

Proiektuak ez zuten **natura** errespetatzen. **Eduarne Elizondo**

Historia kokatu beharreko lekuan **natura** kokatzen dute. **Bernardo Atxaga**

Bonba leherketaren suak eta hotsak **Natura** bera ere hunkitzen zutenean. **Ramon Saizarbitoria**

Sekula ez du ohiturak **natura** garaituko. **Patziku Perurena**

Ugalketa **naturaren** baimen bat baino ez da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Ekonomiak sistema ekonomikotik kanpoko zerbait balitz bezala ikusten du **natura** kontzeptua. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Naturak bi badira, zuek baieztatzen duzue, argiaren erresuma eta ilunpearena [...]. **Imanol Unzurrunzaga**

Kontua ez da besteak geure burua bezala maite izatea: hau **naturaren** lege guztién kontrakoa da, eta **naturak** bakarrik gidatu behar ditu gure bizitzako jarduera guztiak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Erratan da **naturako** legearen arabera, bai eta edozein lege zibilen arabera [...] hiri orok badaukala esku eta botere bere hiriko hiritar bakoitzaren gain. **Piarres Xarriton**

2 (izenondoekin)

Deneriko animaliek, osterá, [...] ez dute eguraldiaren arabera jantzirik aldatu beharrik, ez daukate, ondasunak zaintzeko, armen eta harresi garaien premiarik, lurra berak eta **natura** artatsua denei denetik oparo ematen baitie. **Xabier Amuriza**

Pasaia berak deskubritu duen **natura** garbi, korrunpitu gabea da Hugorentzat. **Koldo Izagirre**

Natura aingerutu hori **natura** hila besterik ez daiteke izan; besterik da lurra edo mendia bere on-gaitzekin. **Iñaki Segurola**

ik beherago 6. **Askoren artean**

Gizakiak izadi edo **natura** fisikoarekin duen lehiaren pasadizo hori limes militar baten kolapsoan gertatzen denaren konparazio egokia da. **Iñaki Mendiguren**

Natura ez gizatiarraren legeei dagokienez, gizakiak ezin ditu aldatu, baina erabil ditzake bere helburuetarako. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**natur**) ik **natural**.

Edozein antolamendu, berdin Erregeena, **natura** legearen ala Jainko legearen kontra doana, ez baita ez zilegi ez zuzen. **Piarres Xarriton**

Hobbesen liburuan bi ideia nagusi irakur ditzakegu: giza itunarena, alde batetik, eta **natur** legearen eta giza legearen arteko hierarkiarena, bestetik. **Askoren artean**

Forma, hain zuzen ere, hori baita **natura** -prozesuaren xedea. **Itziar Laka**

Bankuek, izan ere, **natura** -baliabide handiak zituzten herrialdeetara jo zuten, edota produktu manufakturatuen esportazioak kurba argi goranzkoa zutenetara. **Koro Navarro**

Izan ere, **natur** balibideak "libretzat" hartu dira diren arte. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Gizarteek beharrezko duten **natur** espazio horri, Aztarna Ekologiko esaten zaio. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Natur ingurunea menderatzeko gizakiek duten ahalmena. **Askoren artean**
Eta kontsumitzen den **natur** aberastasuna itzela izan arren, kapital naturalaren stocka ez da aintzat hartzen inoiz. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**
Hortaz, gizon-emakume oro berdinak lirake berez eta izatez, kulturen arteko aldeak bizi-baldintza desberdinen ekarpenak lirake, ez jatorrizko **natur** desberdintasunen emaitza. **Askoren artean**
Paradisuarien kopia eta irudia baino ez dela gure **natur** mundu hau, horretaz jabetu ziren jakintsuak. **Xabier Aranburu**
Avenida de Burgos industrialdean, asfaltoan nabil, **natura** gose. **Piarres Aintziart**
Lurraren beste agerkeria gezurrezko bat da "gure bazterrak" dei genezakeena, hots: [...] sasoi bateko paisajistek ikusi uste zuten **natura** -puska apaingarri huts bihurtua. **Iñaki Seguro**
Aurki, Buenos Aires-ko Zoologikoan edo **Natura** Historiaren Museoan ikusi ahal izango dugu soilik **tigrillo**-a. **Iban Zaldúa**

4 izaera. ik naturaleza.

Baina ez Zentaurorik izan zen, ez **natura** bikoitzea eta gorputz bikoitzekorik izan daiteke inoiz, lohadar heterogeneoz osaturik, enda bietatik jaio eta ahalmenak orekan egoteko moduan. **Xabier Amuriza**
Gizakiaren **natura** kontuan hartuta, autobiografia halabeharrez da gezurtia. **Iban Zaldúa**
Eta hala gainerako leku guztietan ere, gnomoen ekinokzioko itzalak desberdinak direla ikusten da gauzen **naturaren** arabera. **Santiago Iruretagoiena**
Euskararen eite eternalean sinetsi eta haren existentzia eta **natura** sistematikoki aztertzea dedikatzen den filologo-klasea. **Pello Salaburu**
Natura jainkozkoa eta Jainkoaren izatea oso goian geratzen dira, gaindegi guztien gainetik, baita Jaunarekiko batasun gorenean, sakonenean, gogokoenean ere. **Joan Mari Lekuona**
Beraz, bere "sena" bezala izango du hori, "bigarren **natura**" bat bezala (baina kulturaren produktua!). **Joxe Azurmendi**
Ibili, kurritu: bigarren (ala lehen?) **natura** bezalako zerbait zait zangoetaz hola baliatzea. **Piarres Aintziart**
Ilustrazioaren **"natura"** frantsesa" eta erromantizismoaren **"natura"** alemana". edozein gorabeheratan bere jokamoldea gidatzeko eta arautzeko jendartean. **Joxe Azurmendi**
Beharrezkoa da sua egurrean berean sartzea, eta suak egurrari bere **natura** ematea, guztia antzeko gerta dadin, gero eta berdinago, beren arteko diferentziarik txikiena ere ezabatuz. **Joan Mari Lekuona**
Gogoratu behar dugu, gainera, nola naturan, goragoko izaki baten inpresioa eta eragina atseginago eta gozoago den, edozein izakirentzat, izaki honek berea duen **natura** eta izaera baino. **Joan Mari Lekuona**
Arima korporal hori **natura** soil bezala ulertu behar dugu (potentzia edo ahala); ezhistorikoa, hortaz. **Joxe Azurmendi**

5 giza natura

Baina hilzori hartan ere jana desiratzen zuen giza **naturak**. **Koro Navarro**
Gizabanakoaren genesisia giza **naturaren** geniaren bilduma, laburpena edo eredu del. **Jenaro Garate**

6 natur parke (50 agerraldi, liburu 1 eta 23 artikulutan) ik parke 8.

1982an gune heze hura **natur parke** bihurtu zuten. **Berria - Harian**
Gasteizko Mendiak **natur parke** izendatzeko egitasmoa prest du Udalak. **Berria - Euskal Herria**
Taldea ekologistek salatu dutenez, **natur parkeak** ez du babes perimetrorik. **Berria - Euskal Herria**
Natur parkeetan eta babestutako inguruneetan dauden koka sailak gai toxikoen bidez suntsitzea erabaki du Kolonbiako Gobernuak. **Berria - Gaikiak**
Jaurlaritzak Aralar **Natur Parkeko** arauak aldatu izana gaitzetsi dute. **Berria - Euskal Herria**
A Lanzadako hondartza, Corrubedoko **natur parkea** eta Carnota herria dira ingurune kaltetuenak. **Berria - Gaikiak**

7 natur zientzia (78 agerraldi, 24 liburu eta 15 artikulutan; orobat natura zientzia agerraldi 1 artikuluan 1ean)

Hemen, **Natur Zientzia** printzipio empirikoetan oinarritzen den heinean besterik ez dut hartu nahi aintzat. **Ibon Uribarri**
Natur Zientziak (*Physica*) apriorizko judizio sintetikoak barnebiltzen ditu bere baitan printzipio gisa. **Ibon Uribarri**
Programa horren arabera epistemologiak **natur zientziaren** ezagutzaren baieztatapena juzgatu nahi du apodiktikoki. **Askoren artean**
Handik hara, **Natur zientzia** modernoaren garapenak darrai, alde batetik, eta Zuzenbide naturalaren, moral naturalaren, erlijio naturalaren garapen teorikoak, bestetik. **Joxe Azurmendi**
Leesek **natur zientzien** arloan kokatu zuen hizkuntzaren ikerkuntza. **Itziar Laka**
Psikologiaren, neurofisiologiaren zein beste **natur zientzien** metodoak eta emaitzak erabiliz. **Askoren artean**
Beraz, giza perfekzioa heldu nahi duenak, beharrezkoa du, ororen aitzinetik, Logikan ikasten saiatzea, geroago, mailaka, Matematikan, bai halaber **natur zientzietan** eta, azkenean, Metafisikan. **Xabier Kintana**
Natur zientzietan, zientzialariak laborategietan behaketa kontrolatuak egin ditzake eta bere hipotesiak egiaztatuz: gizarte-zientzietan, ordea, nekez. **Iñaki Heras**
Claude Dendaletxe mendizale, geologoa eta **natura zientzietan** aditua denak, besteak beste, 25 bat liburu idatziak ditu orain arte. **Berria - Kultura**
Lehen orduan korear hizkuntza eman dugu, bigarrenean **natur zientziak**, eta hirugarrenean aritmetikako kontrola izan dugu. **Juan Kruz Igerabide**

7 natura gune ik naturgune.

8 natura hil (margolan mota)

Askeago pintatzeko aukera izaten zutenean, paisaiak eta **natura hilak** egiten zituzten. **Berria - Kultura**
Guk **natura hila** esaten diogun koadro mota horri, *Still life* esaten diotela ikusi besterik ez dago. **Harkaitz Cano**
Hormetan eskegitako hiru margolan txikiak ere gustu onekoak baina neutroak ziren, paisaia alaiak eta **natura hilak**. **Alberto Ladrón Arana**
Gau osoak igarotzen zituen kale haietan atzera eta aurrera, sekulako **natura hilak**, egundoko margolanak gogoan jiraka, ametsean. **Karlos Zabala**
Uste duzu **natura hilak** margotzen edo errusiera ikasten ibili beharko nukeela. **Oskar Arana**

9 naturaz gairako (69 agerraldi, 27 liburu eta 3 artikulutan; orobat naturazgairako 3 agerraldi, 3 liburutan)

Fede katolikoaren kontra doan heresia, **naturaz gairako** krimena da eta beraz, **naturaz gairako** legea hausten duen krimena, baina ez da neholako botere laikorik, nahi bezain gora eta urrun heldurik ere, **naturaz gairako** heltzen ahal denik, naturazkoetara baizik. **Piarres Xarriton**
Elizaren botere **naturaz gairakoa**. **Piarres Xarriton**
Bizantziar ikonoak **naturaz gairako** aura bat zuten, bere erlijiozko eginkizunari zegokiona. **Josu Zabaleta**
Giza soinaren egitura ikusten dutelarik, zorutzen dira eta antolaketa edo horren kausak ez baitakizkitez, hortik ateratzen dute ez dela antze mekanikoz egina baina jainkozko edo **naturazgairako** antze osatua dela alde batek beste baten ez zaurtzeko gisan. **Piarres Xarriton**
ADN birkonbinagarriaren nozioa misterioarekin eta **naturaz gairakoarekin** loturik dago. **Juan Garzia**
Doi bat harrituta geratu nintzen haren aurpegian ikusi nuen gogobetetasun bare ia **naturaz gairakoarekin**. **Oskar Arana**
Fantasiako literatura klasikoan ez bezala, Maupassanten historietan ez da **naturaz gairako** inguruneraren beharrik. **Josu Zabaleta**
Zenbaitetan, seinalea hori baino sotilagoa izan zitekeela pentsatzen zuen, ez zuela zertan hain **naturaz gairako** izan behar. **Iban Zaldúa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gorbeiaiko natur parkean (4); natur balibide (6); natur balibideak (25); natur balibideak antolatuzko (8); natur balibidean (21); natur gune (3); natur guneak (3); natur hondamendi (3); natur hondamendien (4); natur ingurunea (4); natur legearen (4); natur parke (16); natur parke izendatu (5); natur parke izendatzeko (3); natur parkea (6); natur parkeak (5); natur parkean (9); natur parkearen (5); natur parkeetan (3); natur parkeko (4); natur zientzia (13); natur zientziak (25); natur zientziak sailak (3); natur zientzialari (3); natur zientziaren (8); natur zientzien (10); natur zientzietako (7); natur zientzietan (10)

giza natura (9); gure natura (5); izatearen natura (4)

natura babesteko (3); natura errespetatzen (3); natura eta gizakia (3); natura eta substantzia (3); natura ez gizatiarraren (3); natura ezagutu (3); natura gaiztoa (3); natura hil (3); natura hila (6); natura hilak (13); natura hilen (3); natura imitatuz (3); natura iraintzen (3); natura jakintsua (4); natura legeak (4); natura legearen (3); natura oro (9); natura osoa (8); natura osoaren (8); natura osoaren ordena (3); natura pentsalaria (3); natura zaintzeko (4)

giza naturak (3); historiak eta naturak (3); jainkoak edo naturak (3); naturak berak (21); naturak berak bultzatzen (3); naturak egin (3); naturak eman (9); naturak emandako (6); naturak ematen (4); naturak eskaintzen (4); naturak eskaintzen dizkigun (3)

naturarekin bat eginik (3); naturarekin harremanetan (5)

giza naturaren (23); giza naturaren etsaiak (3); gizakiaren eta naturaren (4); naturaren alde (4); naturaren aldeko (4); naturaren argiak (3); naturaren asmo (4); naturaren asmoa (4); naturaren aurka (3); naturaren aurkako (4); naturaren babeserako (3); naturaren baitan (8); naturaren beraren (5); naturaren berezko (3); naturaren bultzadei (3); naturaren edertasuna (4); naturaren etsaiak (3); naturaren goreneko eskubidez (3); naturaren indar (3); naturaren indarra (3); naturaren indarrak (6); naturaren kontra (7); naturaren kontrako (8); naturaren kontrakoa (13); naturaren kontrakoa dela (3); naturaren kontserbaziorako (3); naturaren lege (8); naturaren legea (6); naturaren legeak (28); naturaren legearen (5); naturaren legeei (5); naturaren legeek (10); naturaren legeekiko (5); naturaren legeen (15); naturaren mintzoa (7); naturaren mirari (3); naturaren ordena (11); naturaren ordena arruntetik (3); naturaren ordena komunari (3); naturaren parte (6); naturaren teoria (3); naturaren zati (3)

naturarentzako mundu fondoak (3); naturarentzako mundu funtsak (10)

giza naturari (3); naturari berari (4)

gauzen naturatik (3); naturatik jaso (3)

naturaz gaindiko (54); naturaz gaindiko gaietan (3); naturaz gaindiko gauzen (3); naturaz gaindiko gauzetan (3); naturaz gaindikoa (10); naturaz gaineko (15); naturaz gaineko gaiak (3); naturaz gainetik (4); naturaz goitiko (6); naturaz kontra (3); naturaz kontrako (4); naturaz kontrakoa (4)

naturazko egoera (3); naturazko egoeran (14); naturazko izaeran (3)

natural 1 izond naturarena, naturari dagokiona; naturak (eta ez gizakiaren eskuak) sortua; naturaren arabera. ik natura 3.

Perurenak ez baitu gizarterik gabeko ingurune **naturalik** ulertzen ez ezagutzen. **Patziku Perurena**

Hilketatat jotzetik urrunena dabilena "heriotza **naturala**" izeneko hilketa izango da noski. **Iñaki Seguro**

Ekonomikoa mundu fisiko **naturaletik** aparteko sistematzat ulertzean, politika ekonomikoa eta garapenaren aurrerapausoen neurketak moneta terminoetan beste ezertan ez dira oinarritzen. **Iztiaz Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Mundu guztiak jotzen zuen larua mundu guztiarekin, **naturala** da, intzestua berez txarra dela pentsatzea da artifiziala, ez dago berez deus txarrik intzestuan, alderantziz, Naturaren indarra da, guztiz **naturala** ! **Karlos Zabala**

Erran nahi baitut esferetarik bat ere ez dela aldizka lasterrago, aldizka astiroago ibiltzen, baina bakoitzak, bere abiadura eta higitzeko erari dagokienez, bere lege **naturalari** men egiten diola. **Xabier Kintana**

Graziari esker erraten dut, zeruko zioriona guk geure indar **natural** soilekin irabaz dezakegula gaizki erraten dutenen aurka. **Piarres Xarriton**

Prestige petrolontziarena ere halaxe izan omen da: hondamendi **naturala**. **Joxerra Garzia**

Hornidura **naturalak** (nekazaritzakoak, meatzarikoak) eta faktore-hornidurak (lana, kapitala). **Koro Navarro**

Horrela ez du modurik belaunaldi aldaketa **naturala** ziurtatzeko, ume nahikorik ez baita. **Pello Salaburu**

Hogeiaren bat urtetik hona, hautespen **naturalaren** guztiahaltasuna eta eboluzioaren jarraitutasuna auzitan jarri ditu [...] "jauzikako oreka" delakoaren teoriak. **Juan Garzia**

Harreman hori bilatzea, beraz, **naturala** da, naturak berak bultzatzen baikaitu sexura, edertasuna eta plazera amu. **Markos Zapiain**

Askok uste baitzuten gaixotasun **naturala** baino, deabruaren eraginezkoa zela. **Askoren artean**

2 gizakiak berari ez egina edo sortua ez dena, artifiziala ez dena; naturak sortua bezalakoa dena. ikartifizial.

Itsasontziak ekaitzetik babesteko egokiak diren berezko portu **naturalik** ez baldin badago, beste modu honetara jokatu beharko da: [...]. **Santiago Iruretagoiena**

Horrelakoak izango dira elikagai **"naturalen"** osagarriak. **Edorta Agirre**

Han egiten den ardo **naturala** da guztia; txarra askotan, ez baitakite prestatzen, baina **naturala**. **Josu Zabaleta**

Produktu **natural** batzuen bidez lorturiko produktuak, aldiz, arriskutsuak dira jende askorentzat: esnea -bertako laktosa asimilatzeke laktasa entzimarik ez baitute gizaki heldu gehienek-, laboreetako glutena, kakahuetea, txerriak, fruta batzuk (marrubia, meloia, zitrikoak, drupa asko, etab.), arrain urdina... **Edorta Agirre**

Sendagarri **naturalak** dira belarrak. **Koldo Zuazo**

Giltzurrun artifiziala handia eta baldarra da, material sintetikoek ezin baitute berdindu organo **naturalaren** errendimendua. **Irene Aldasoro**

Biderik ezagunenak alkohola eta droga guztiak dira, bai **naturalak** bai artifizialak. **Karlos Zabala**

Autore batzuek ikaste **naturala** (jabekuntza) eta formala (ikaskuntza) bereizteko erabiltzen dute. **Lourdes Oñederra**

Gauza **natural** izenekoez sekula baino fama hobea irabazi dute gaur egunean, eta ez da misterio: pozoi industrial eta hormonalaren pikardiak agerikoegiak egin dira Ongizatepeko gorputz-arimetan, eta hortik etorri da, egundaino ez bezala, gauza **naturalen** eta Naturaren beraren jainkotzea edo ingerutzea. **Iñaki Seguro**

Sedukzio prozesua oso modu **naturalean** -ia oharkabe- inor zapaldu gabe gauzatzen da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Hizkuntza **naturalak** -literatura araudi orotatik at daudenak- aldakorrak direla frogatzeko. **Isabel Arrigain**

Ez dagoela dialekto **naturalik**, ezaugarri dialektal **naturalak** baizik. **Isabel Arrigain**

Irudikapena motibatua da: beste teorialari askok, ordea, irudikapen-teknika batzuk beste batzuk baino **"naturalagoak"** direla azpimarratu dute, irudiei dagokienez batez ere. **Josu Zabaleta**

3 berezkoa.

Aitzitik, besoa eskainiko zion emazteari, makuluak ez baitira, zorionez, gorputzaren atal **naturalak**. **Imanol Zurutuza**

Merkataritzaren ondorio **naturala** bakea ekartzea da. **Iñaki Iñurrieta**

Nik ere, gainerako guztien gisara, haren seme odollezkoa jotzen nuen aitaren jarraitzaile **naturalizat**. **Aingeru Epaltza**

Beti jarri nau sutan niretzat munduko gauzarik **naturalena** zena isilgordeka eduki beharrak. **Karlos Zabala**

Horren arabera, globalizazioa prozesu **naturalizat** hartzen da, berezkatat. **Iñaki Heras**

Ikuspen **naturalean** bi kolore desberdinen hurbiltasunak, eta hurbiltasun horrek eragiten duen elkarren "kutsatzeak" eragiten duten efektua imitatu nahi da arau horren bidez. **Josu Zabaleta**

Idazle izateko bide **naturala** kazetaria izatea zela uste izan zuen, eta, hein batean, horregatik aukeratu zuen kazetaritzaren bidea. **Ana Urkiza**

Lana helburu **naturalizat** hartuko da eta jainko berri bihurtuko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Euskalkiak aberastasuna direla, hizkuntzaren altorra direla, euskara **natural**, fresko, bizi, indartsu eta gihartsu direla. **Koldo Zuazo**

4 normala, arrazoizkoa.

Munduko gauzarik **naturalena** iruditut zitzaien Durant jaunari neskek berarenganako zuen txera. **Mirentxu Larrañaga**

Ofizialki, **naturala** denez, FMik ez du ezer inposatzen. **Iñaki Heras**

Oso **naturala** da ginekologoaengana joatea. **Arantxa Iturbe**

Marcos, Maria eta Lucas idazten ari ziren, idaztea gauza **naturala** balitz bezala. **Unai Elorriaga**

5 itxurakeriarik edo alferrikako zailtasunik ez duena.

Umbertoren gaia ekarri zuen osterasolasa, **naturalak** izan nahi zuten tonua eta keinuak erabiliz:[...]. **Anjel Lertxundi**

Musu eman genion elkarri, Adak naturalitatez, nik **naturala** izan nahi zuen exhibizionismo gisako batez. **Anjel Lertxundi**

Naturalago nintzela iruditzen zait; esan nahi dut naturaltasun handiagoaz neramala neurosi obsesiboa. **Ramon Saizarborita**

Azkenik, Lakatos niregana jiratu, eta doinurik **naturalenean**, sartzean norbait ezagutu eta agur egingo balio bezala, honela esan zidan: [...]. **Matías Múgica**

Paristarren bizimoduaren alaitasun **natural-naturalak** bete-betean liluratu ninduen. **Anjel Lertxundi**

6 (adizlagun gisa)

Esaldia ez zitzaien berak baino **natural** atera. **Bernardo Atxaga**
Amaren aldeko aitona aristokrata nuen, dotorezia handikoa, frantsesez eta alemanez **natural** hitz egiten zuen, Europan izana zen hainbat alditan. **Karlos Zabala**
Kioskora joan eta ea aldizkari lizun berririk iritsi den galdetzen dut, **natural-natural** galdetzen dut, bost inporta niri nor dagoen inguruan. **Karlos Zabala**
Gau batez, Florentek bostehun libera eskatu zizkion Quenuri, **natural-natural**, kontu ireki bat izan balu bezala. **Karlos Zabala**

7 legeaz, erlijioaz eta kidekoen mintzatuz, naturan oinarritzen dena.

Lege politikoan eta **naturalen** artean dagoen aldeaz. **Juan Martin Elexpuru**
Ekitatea lege **naturalerako** itzulera da, lege positiboan isilune, kontraesan edo gorabeheretan. **Berria - Euskal Herria**
Testamentu egiteko ahalmena mugatua dela, egundo ere ez eskubide **naturala**, lege politiko eta zibilak arautua baino. **Andres Urrutia**
Munduan ordena **naturalak** agintzen du. **Xabier Kintana**
Berezko ordena razional edo **natural** horrek determinatzen du moral baten objektibitatea. **Joxe Azurmendi**
Antzinaroa, Zuzenbide (edo moral) **natural** objektiboaren aroa kontsidera genezake; [...] Modernia, Zuzenbide **natural** subjektiboarena. **Joxe Azurmendi**
Arkitekturaren "erregela **naturalak**" gauzatuko litzukeen eraikin jatorrizko eta arketipikoaren metaforak, funtsezko eginkizuna betetzen du "artearen" eta naturaren arteko lotura ziurtatzen duen aldetik. **Santiago Iruetagoiena**

8 naturalpeko izlag

Elkarrekiko begiruneaz batuketa egin eta ezkontideen arteko eginbehar eta betebeharrak, gizaki adimendun eta sentiberen arteko harremanetan gauzatzen direnak, horra hor zuzenbide **naturalpeko** gaiak. **Andres Urrutia**

9 ez-natural (orobat eznatural) izond

Akats horietariko batzuk, ordea, eskakizun kontrajarrien arteko hautsi-mautsien ondorio dira; beste batzuk, berriz, daramagun bizimodu **ez-naturalak** eragiten ditu, eta beste zenbait, azkenik, ez dira diruditen bezain garrantzizkoak. **Irene Aldasoro**
Hauxe da gizarte modernoaren tragedia: grina **eznaturalak** eta ezbeharrak ugaltzeko sistema absurdo huts bihurtu dela. **Anjel Lertxundi**
Zibilizazio egoera hau **ez-natural** eta egongaitza baita. **Edorta Agirre**
Zibilizazio Egiptziakoa jada osatua zuen biziaren baten luzapen **ez-naturalera** hixoen inbasioaren astinduak galvanizatu baino lehenagoko garaira. **Iñaki Mendiguren**
Predikatu hori **ez-naturala** den zerbaiti dagokion kontzeptua da. **Askoren artean**

10 gas natural

Petrolioaren ordez energia nuklearra, ikatza eta **gas naturala** erabiltzea. **Koro Navarro**
Herialde horietako industrializazioa, 1960ko hamarraldiaz geroztik, hidrokarburoen errenten ustiapenean oinarritzen da (petrolio, **gas naturala**). **Koro Navarro**

11 historia natural

Une berean, **historia natural** delakoa ahalegintzen ari zen landareak eta animaliak sailkatzeko, haien egitura ikusgaiari eginik so, haien azaletik hautematen denari. **Juan Garzia**
Idorturik ageri zen, **Historia Naturalaren** Museoko sarrerako aretoan. **Joxan Elozegi**
Historia naturala interesatzen zitzaion; zomorro, kristal eta mineralak biltzen zituen eta, gainera, oso ikasle ona zen. **Fernando Rey**
Har dezagun, esate baterako, **Historia naturalaren** kasua garai klasikoan: berak ez darabiltza XVI. mendeko kontzeptu berberak; zaharrak diren batzuk (generoa, espeziea, ikurra) beste erabilera bat dute orain; beste batzuk agertzen dira (hala nola, egiturarena); beste batzuk geroago sortuko dira (hala nola, organismoarena). **Xabier Arregi**
Harreman hauek guztiek **Historia naturala** kontrajartzen dute hala XVI. mendeko naturalisten diskurtsoarekin nola XIX. mendeko biologistenarekin. **Xabier Arregi**

12 parke natural

Bièvres herriko **parke natural** eder baten erdian zegoen Seminario Handian. **Piarres Aintziart**
Pagoetako **parke naturaleko** Lorategi Botanikoan. **Herria**
Aratz-Aizkorri **Parke Naturalaren** Natur-Baliabideak Antolatzeke Planetik «haratago» joanda. **Berria - Euskal Herria**
22 kilometroko **parke naturala** paratzeko proiektua taxutzen ari da. **Berria - Euskal Herria**
Herialdeko oihan itxienetakoak dituen Gunung Leuserko **parke natural** erraldoiak banatzen du Aceh Sumatraren gainerako lurraldeetatik. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baliabide natural (9); **balio natural** (4); **egoera natural** (3); **erreserba natural** (4); **eskubide natural** (5); **gauza natural** (7); **guztiz natural** (3); **hain natural** (6); **historia natural** (7); **hizkuntza natural** (6); **hondamendi natural** (9); **hondamendi natural bat** (3); **klase natural bat** (3); **lege natural** (10); **modu natural** (6); **modu natural batean** (4); **muga natural** (3)

natural asko (4); **natural atera** (3); **natural eta berezko** (3)

natural natural (17); **natural onartu** (3)

ordena natural (6); **parke natural** (13); **ziurtasun natural** (3)

argi naturala (7); **egoera naturala** (8); **eskubide naturala** (6); **filosofia naturala** (4); **fonologia naturala** (3); **gas naturala** (29); **gauza naturala** (12); **giro naturala** (3); **guztiz naturala** (6); **harreman naturala** (6); **hautespén naturala** (15); **heriotza naturala** (5); **historia naturala** (15); **ingurune naturala** (3); **itxura naturala** (3); **izaera naturala** (3); **jarralpen naturala** (3); **joera naturala** (8); **kapital naturala** (8); **lege naturala** (29); **leku naturala** (3); **modu naturala** (3); **muga naturala** (8); **mugimendu naturala** (3)

naturala balitz bezala (5); **naturala izan** (30); **naturala zirudien** (4)

oinarri naturala (4); **ondorio naturala** (4); **ordena naturala** (4); **ordezkatzete naturala** (3); **oso naturala** (15); **oso naturala da** (4); **parke naturala** (5); **prozesu naturala** (8)

modu naturalagoan (4)

gauza naturalagorik (4)

abortu naturalak (3); **atal naturalak** (3); **baliabide naturalak** (41); **balio naturalak** (3); **bitarteko naturalak** (3); **eskubide naturalak** (3); **gauza naturalak** (4); **gorputzaren atal naturalak** (3); **harreman naturalak** (5); **hautespén naturalak** (6); **historia naturalak** (3); **hondamendi naturalak** (12); **izaki naturalak** (3); **jaidura naturalak** (3); **lege naturalak** (34)

paisaia naturalak (3); **produktu naturalak** (4); **sentimendu naturalak** (3); **zientzia naturalak** (6)

argi naturalaren (3); **arrazoi naturalaren** (9); **arrazoi naturalaren bidez** (3); **defentsa naturalaren** (4); **epaile naturalaren** (3); **eskubide naturalaren** (5); **filosofia naturalaren** (3); **fonologia naturalaren** (4); **gas naturalaren** (18); **hautespén naturalaren** (10); **historia naturalaren** (28); **historia naturalaren museoko** (3); **hizkuntza naturalaren** (3); **kapital naturalaren** (9); **kapital naturalaren stocka** (3); **lege naturalaren** (40); **lege naturalaren aurka** (4); **lege naturalaren aurkako** (5); **lege naturalaren doktrina** (3); **lege naturalaren kontra** (4); **medikuntza naturalaren** (4)

ordena naturalaren (4); **zuzenbide naturalaren** (11)

eskubide naturalari (3); **hazkunde naturalari** (3); **lege naturalari** (3)

bere esparru naturalean (3); **egoera naturalean** (12); **era naturalean** (13); **esparru naturalean** (3); **gizonen egoera naturalean** (3); **guztiz modu naturalean** (4); **habitat naturalean** (3); **historia naturalean** (4); **hizkuntza naturalean** (6); **modu naturalean** (39); **modu naturalean egiten** (3); **oso modu naturalean** (5); **parke naturalean** (8)

baliabide naturalei (3); **hizkuntza naturalei** (3)

hondamendi naturalek (7); **hondamendi naturalek eragindako** (3); **lege naturalek** (4)

aralarko parke naturaleko (3); **gas naturaleko** (8); **hizkuntza naturaleko** (8)

baliabide naturalen (29); **baliabide naturalen ustiaketa** (3); **eskubide naturalen** (4); **gauza naturalen** (3); **hizkuntza naturalen** (3); **hondamendi naturalen** (4); **lege naturalen** (9)

gauzarik naturalena (14); **gauzarik naturalena balitz** (4); **munduko gauzarik naturalena** (10)

modurik naturalenean (5)

arrazoi naturalez (3); **jakite naturalez** (3); **lege naturalez** (3)

muga naturalik (3)

naturaldu, natural(du), naturaltzen da/du ad natural bihurtu.

Santu handia, jakitez eta neurritz, zintzoa eta egiazalea, orekaz **naturaldua** erabat, santua bezain gizaseme osoa! **Pello Zabala**

Ondo jabetzen ziren euskalki bi horiek nahastuz sortutako hizkera artifiziala izango zela, baina urteen joan-etorrian, irakaskuntzaren, hedabideen eta idazleen lanari esker, **naturaldu** egingo zela zioten. **Koldo Zuazo**

naturaleza 1 iz izaera.

Horra nola uste faltsu bakar batek **naturalezarik** onena honda dezakeen! **Jon Muñoz**

Naturaleza kontua. **Berria - Kirola**

2 natura. ik izadi.

"**Naturalezaren** alde guztiak", idatzi zuen Victor Hugok, "baita itxura batera oso apartatuak ematen dutenak ere, elkarrekin harremanaturik daude milaka harmonia sekreturen bitartez". **Bernardo Atxaga**

Gainean zeru urdina nasai iguzki azkarrarekin, inguruan nahiko **naturaleza**: irudi horiek sartzen dira beilarien buruan barnasko, on edo txar, ezin ahantzizko gisan. **Herria**

Bulegariarentzat berdailu edo **naturaleza** besterik ez dena, nekazariarentzat aleunka belar eta landare klase konkretu dira. **Patziku Perurena**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik natural.

Gizakion elkarrearen jatorria eta jatorri honi lotzen zaizkion aurrerapenak, hala nola hizkuntza eta arkitektura bera, gizadia **naturaleza**-egoeran bizi zen basoetan sortutako sute handi baten emaitza izango ziren Vitruvioren esanez. **Santiago Iruetagoiena**

naturalisatze ik naturalizatze.

naturalismo 1 iz naturatik at ezer ez dagoela dioen eta gauzak azaltzeko naturaz gainera zernahiren eragina ukatzen duen dotrina.

Teoria honen helburuetako bat teoria objektibistek - **naturalismoak** eta intuizionismoak, adibidez- jasandako kritikak gainditzea da. **Askoren artean**

Naturalismo etikoaren adierazpentzat har dezakegu, adibidez, utilitarismoa. **Askoren artean**

Honela izendatzen ditu autoreak munduaren ikuspegi ezberdinak: **Naturalismoa**, Askatasunaren Idealismoa eta Idealismo Objektiboa. **Askoren artean**

2 errealismoan oinarritzen den literatura eskola edo estiloa, gizonarengan naturaren legeen mende dagoen alderdia azpimarratzeko joera duena; margolaritzan, natura errealismoz irudikatzen duena estiloa. ik errealismo.

Espressionismoa aurretik izan dituen eskolen, inpresionismoaren eta **naturalismoaren**, kontra agertzen da beraz, barneko beharkizunaren arte bezala, kanpoko errealitatearen artearen kontra, *N*aren proiektzioaren arte bezala, izadiaren imitazioaren kontra. **Josu Zabaleta**

Zolaren inguruan famatutako "**naturalismo**" ak bizitzaren alderdirik arrunt eta hutsalenetan jarria zuen arreta: pertsonaiaren istorio berezia inguruaren indar ezkutuen artean itota gelditzea ekarri zuen gizartearen bilakaera zientifikoki azaldu beharrak. **Juan Garzia**

Idazten hasi aurretik, hausnarketa luzeak egin zituen eta **naturalismoaren** oinarriak finkatu. **Karlos Zabala**

Bere liburuetan Maupassanten **naturalismoa** eta Poeren sinbolismoa bateratzen zituen. **Jose Morales**

Batzuek kostunbrismo eta errealismoaren artean ez ditek bereizketa handirik egiten, beste batzuek gauza bera egiten ditek **naturalismoarekin** nahastuz. **Mikel Hernandez Abaitua**

Manierismotik **naturalismora** hainbat pintorek eginiko jauzia azaltzea. **Berria - Kultura**

Fusioko pintura eginez, inor gutxi bezala lotzen du **naturalismoa** abstrakzioarekin, eta plano poetikoetara transmititzen diren emozio sakonak bideratzen ditu. **Berria - Kultura**

Zinematografoa asmatu zen garaiko ikusleek filmeko irudiaren **naturalismoaren** berme gisa hartu zuten, beste ezeren gainera, ilusio hori. **Josu Zabaleta**

3 (hitz elkartuetan)

Baroja gizon herabea zen, lotsakorra, literatur **naturalismoaren** gordintasun deskriptiboa hastio zuena. **Josu Zabaleta**

naturalista 1 iz natur zientziak aztertzen dituen pertsona.

Ernst Heinrich Haeckel (1834-1919) filosofo eta **naturalista** alemana. **Xabier Olarra**

Ordurako, erabateko esploratzailea zen, **naturalista** ukituren bat gorabehera. **Bernardo Atxaga**

Idazle naturalistak egintzak harrapatu behar zituen **naturalista** batek insektoak harrapatzen zituen modu berean, haren hitzetan esanda. **Karlos Zabala**

Era berean, **naturalisten** taxonomia alderatu ahal izango litzateke ez gramatikarekin eta ekonomiarekin, baizik eta fisiologiarekin eta patologiarekin. **Xabier Arregi**

Harreman hauek guztiak Historia naturala kontrajartzen dute hala XVI. mendeko **naturalisten** diskurtsuarekin nola XIX. mendeko biologistenarekin. **Xabier Arregi**

Askatasunaren eta libertatearen arteko diferentzia ez da oso garbia; **naturalistek** ez dute sekula aurkitu ez bateko ez besteko espeziimen bizirik. **Xabier Olarra**

2 naturalismo filosofikoaren aldeko pertsona.

Naturalistentzat, oro har, judizio moralak egiazkoak ala faltsuak izan daitezke, eta estatus hori ezagutgarria da. **Askoren artean**

Ordenaren kontzeptu esentzialista edo **naturalista** (metafisiko) batez. **Joxe Azurmendi**

3 literatur naturalismoaren aldeko idazlea.

Nobelagintzaren arazo nagusia kausalitatea dela, eta **naturalistek** aldarrikatutako ahalegina -errealitate bakar eta zinezkoaren kopia edo notario-akta baten bila- banitate eta zentzugabekeria hutsa zela. **Bernardo Atxaga**

Hurtado idazle naturalisten aldekoa zen, eta Montanerri **naturalistak** ez zitzaizkion gustatzen **Josu Zabaleta**

4 izond naturalismoarena, naturalismoari dagokiona. (filosofian)

Kritika horiek funtzionalismoaren "inozokeria" eta zenbait gabezia erakusteko balio dute, baina oraingoz ez dago proposamen funtzionalista teleologiko argirik funtzio kontzeptu aberatsago hori analisi **naturalista** batean jasotzen duenik. **Askoren artean**

Mooreren iritziz "ona" kontzeptua beste kontzeptu batera murrizten saiatu diren teoria etikoak, edo kontzeptu hori beste batekin identifikatu dutenak (zorionarekin, adibidez), "falazia **naturalista**" n erori dira. Egoera horren aurrean, ikuspegi **naturalista** hori dutenentzat, arazoa hau da: zer egin gogo-egoerak publiko edo zientifikoki kontrastagarri izan daitezke. **Askoren artean**

Eskolastikaren nominalismoari muzin eginez, materialismo **naturalistaren** zein eraikuntza kognitiboaren alde agertu zen hastapenetik. **Askoren artean**

Gaur antropologia-mota askotarikoak aurki daitezke bereizita, aukeren arabera: antropologia **naturalista** edo biosoziala, biopsikikoa, kulturala edo soziala (etnologikoa), pedagogikoa, politologikoa (edo politikoa), ekonomikoa, teologikoa (edo erlijiosoa), [...]. **Askoren artean**

5 (literaturan eta margolaritzan)

Arrakasta horren diruaz etxe bat erosi zuen Zolak Medanen, eta hara hurbildu ziren hurrengo urteetan Huysmans, Guy de Maupassant, Henri Céard, Paul Alexis, eta beste idazle **naturalistak**. **Karlos Zabala**

Itsasondoko meategiei buruzko eleberri **naturalista** bat egin nahi zuela, Zolaren antzera-edo. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Herentziak eta inguruneak giza jokaera guztiak azaltzeko aski zirela frogatzen saiatu zen [Zola], bere helburu **naturalista** gogoan. **Karlos Zabala**

Ezin dira margolari **naturalistatza** hartu, baina [...] arreta handiagoa jartzen diote egunerokoari, errealitateari. **Berria - Kultura**

Ez dago paisaiaren irakurketa **naturalistik**: ez da kontatzen ikusten dena eta entzuten dena. **Bernardo Atxaga**

Marrakzi **naturalistaren** lehen fase gisa. **Josu Zabaleta**

Harrigarria erlijioaren hatzak hain barnen herri ttipi hartan, ohaidetasuna hain **naturalki** onets zezaten. Elena Touyrou
Ba, behartzen nauzuen kasuan, neuk esango dizuet erraz eta **naturalki** : hura da heriotza na-tu-ra-la. Iñaki Segurola
Haren aurretik pasatu ginen, poliki-poliki eta, kasualitatez, begiak jaso eta ahizparen begiak ikusi nituen; biok, **naturalki** , barrez hasi ginen. Pablo Sastre
Musikaren antzera, bazirudien bere ahotsez zeudela hitz haiek esanak, bere buruaz kanpo, eta erraz eta **naturalki** esaten zutela gau osoan gogoan eduki zuena, hainbat gauza esan bitartean. Anton Garikano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

zuzenean eta naturalki (3)

naturaltasun 1 *iz* naturala denaren nolakotasuna.

Donostiarrek, [...] basatizat daukate Pasaia; haren **naturaltasun** eta jatortasuna, barbaroa iruditzen zaie. Koldo Izagirre
Dietetikak eta medikuntzak oro har; nudismoak eta beste **naturaltasun** eta naturalkeriak. Iñaki Segurola
Naturaltasuna brutalitatea ere bada. Koldo Izagirre
Euskara ortopedikoan daude idatziak, plastikozkoan, hizkuntza guztiak duten **naturaltasun** goxo hori errekarra bota ondoren. Pello Salaburu
Bere **naturaltasunak** jartzen ninduen urduri, edo neure zurruntasunak. Joxean Agirre
Ez nekien zer miretsi gehiago: haren sotiltasun eta **naturaltasuna** , haren idazte-perfekzioa ala haren giza barrenaren ezagutza. Berria - Kultura
Zaila da enpirikoki hain konplexua den gertakari baten azterketak teoria horren esparruan duen **naturaltasunari** zor zaiona aitortzea. Itziar Laka
Komunikazioa eta **naturaltasuna** hedabide elektronikoen elementu garrantzitsuak dira. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hori dela-eta, bisitari **naturaltasun** itxura eman nahi izan banion ere, berehala sumatu zidan aitak zerbait arraroa. Nola egin **naturaltasun** itxurak? Xabier Mendiguren
Elizegi

Ez zitzaizkidan naturalak iduritu, **naturaltasun** falta hartan gezur handi bat gordeko balute bezala. Joan Mari Irigoien

3 *naturaltasunez* adlag

Besterik gabe esan zuen, **naturaltasunez** , ahots neutroaz; esan nahi dut ez zuela garraztasunik ageri, eta gutxiago txantxetan jarduteko itxurarik. Ramon Saizarbitoria
Guernica izena ere **naturaltasunez** ebaki zuen, Picassoren koadroagatik seguru asko. Bernardo Atxaga
Erakarri egiten ninduen aurpegiaren ikuskariak, ordu arte ikusi ez nuen zerbait nabaritu niolako edo **naturaltasunez** ikustera ohiturik nengoelako; azken finean, zerbait **naturaltasunez** ikustea ez ikustea bezala baita. Ramon Saizarbitoria
Naturaltasunez jokatu eta nire buruari inporta ez zaidala sinetsarazten saiatu naiz. Harkaitz Cano
Erabateko **naturaltasunez** onartu zuen nire gonbita, asmo ezkuturen bat izan nezakeelako susmorik gabe antza. Ramon Saizarbitoria
Berak **naturaltasunez** besarkatu eta emeki estutu zuen. Jose Morales
Irudipena dut jendartean nagoenean gustagarri gertatzeko desira gehiegizkoak **naturaltasunez** jardutea eragozten didala. Ramon Saizarbitoria
Gezurrezko **naturaltasunez** . Xabier Paya
· "Nahiko ondo, David", erantzun zidan berak **naturaltasun** handiz. Bernardo Atxaga
Orduan **naturaltasun** osoz esan zidan: [...]. Aitor Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

naturaltasun guztiz (3); **naturaltasun handienarekin** (3); **naturaltasun handienaz** (3); **naturaltasun handiz** (13); **naturaltasun osoz** (49)

naturaltasuna fonologian (8)

naturaltasunez hitz egin (3)

naturazale (5 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; orobat **naturzale** 14 agerraldi, 4 artikulutan) *iz* naturaren zalea den pertsona; naturalista.

Pirinioetako mendiak zeharkatzeko baliatzen dute hegaztiak Linduseko eremua, migrazio garaian; tirabirak sortzen dira haiei so egitera joaten diren **naturzaleen** eta usoen zain diren ehizatarien artean. Berria - Euskal Herria
Datu horiek ikusita, Haritzalde **Naturzaleen** Elkartek koipuaen inguruan azterketa sakonagoa egiteko garaia heldu zela pentsatu zuen. Berria - Euskal Herria
Apaiza izango zen, hala badiote kronikek, baina hori baino lehenago, **naturazale** . Hasier Etxeberria
Txindokipeko abaltzisketar **naturazale** Inazio Urretabizkaiarena. Pello Zabala
Norbaitek ez baldin badu ez buruzagirik ez erregerik gizarteak emanik, badu bizkitartean Jainkoa bera den Natura **naturazaleak** emanik, berak bere burua kudeatzeko, bideratzeko, eta argitzeko boterea. Piarres Xarriton

naturazgaindiko ik **natura** 9.

naturgune (83 agerraldi, liburu 1 eta 40 artikulutan; orobat **natur gune** 11 agerraldi, 2 liburu eta 7 artikulutan eta **natura gune** agerraldi 1 artikulatu 1ean) *iz*

Urtegiak hiru **naturgune** hartuko ditu azpian: Txintxurrenea Iratin, eta Iñarbe eta Gaztelu Urrobin. Eduerne Elizondo
Pirinioetako 60 leku **naturgune** babestu izendatu ditu Europako Batzordeak. Berria - Gaiak
Legez babestutako **natur gunea** osatzen dute Biarritzko Mouriscot aintzirak eta inguratzen duen basoak. Martin Anso
Lehendik ere izan zuten autonomia erkidegoek gaitzaren inguruan babes handien behar duten padura eta **natur guneak** zerrendatzeko aukera. Berria - Euskal Herria
18. artikuluan **naturguneen** babes eremuak arautzen ditu. Eduerne Elizondo
Hirigintza eta **natura guneen** begirapena, informazio eta komunikapen teknologia berriak, eta azkenik, kultur muntadura azkar batzuk. Herria
Europak ebatzi baitzuen ezin zitekeela erran Nafarroako Gobernuak urtegiari babesa emateko aldatu zuela **Naturguneen** Legea. Eduerne Elizondo
Eronkariko Ibarreko Batzarrak bultzatzen duen proiektu horrek hango **naturgune** babestua ttipituko du. Herria
Halaber, plangintzak dio berebiziko garrantzia izan behar duela **naturgune** askoren babesak. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

naturgune babestu (3); **naturgune babestuak** (3)

larrako naturgunean (4)

nafarroako naturguneen legea (3); **naturguneen babes** (4); **naturguneen babes eremuak** (3); **naturguneen lege** (10); **naturguneen lege berria** (6); **naturguneen lege berriaren** (3); **naturguneen legea** (7); **naturguneen legearen** (3); **naturguneen legearen aldaketa** (3)

naturismoa *iz* bizitzan eta bereziki osasuna zaintzean bide naturalak erabiltzea adarrikatzen duen doktrina. ik **naturopatia**.

"Nudismoa eta **naturismoa** naturaltasun osoz" praktikatzen duten popabisteroen biluztasun zuri edo jantzia. **Naturismoa** dela, homeopatia dela, baita yoga dela ere. **Iñaki Seguro**la

Testuaren mamia nahasketa handi bat da: kristautasuna, taoismoa, **naturismoa**, kideatasun kastrensea, Kung-Fu telesaileko esaldiak... dena sartzen da. **Pako Aristi**

naturista *1 izond* naturismoarena, naturismoari dagokiona.

Medikuntza **naturistaz** arnegatu ondoxetik, haren zakua botika mordoskaren altxatokia zen, buruko minak eta txaketenak estakuru. **Aingeru Epaltza**

Bere sabeleko fruitua elkarte **naturista** baten eskuetan ezarria zuela jakinaraztearekin erakutsi zidan lehen faktura. **Aingeru Epaltza**

2 naturismoaren aldeko pertsona.

Orain badira ordenagailuko programak katolikoentzat, **naturistentzat**, gaixo daudenentzat eta seme-alabarik ez izateko metodorik erabiltzen ez dutenentzat edo debekatua dutenentzat. **Karlos Zabala**

Hogeita batgarren mendeko hippyen karabanek igerileku eta minigolfa izango ditiztek denek, eta **naturista** partikular bat... **Unai Iturriaga**

naturistiko *izond* naturari dagokiona. ik **naturalistiko**.

Ez ditut batere gogoko "edertasun **naturistiko**" horiek, azken batean, ez baitute gure jakitearen perspektibak ematen dien zentzu zuria besterik erakusten. **Patziku Perurena**

naturkume *iz* naturaren kumea.

Egoera moral-aurretikoan, prehistorian, ez dago ongirik eta gaizkirik, plazerra nahi da lortu eta desplazerra itzuri, ez dago instinto horixe baino arau "moral" goitarragorik **naturkume** soil garbiarentzat. **Joxe Azurmendi**

naturopata *izond* naturopatian espezialista.

Margarett Girard **naturopatak** mintzaldi bat eskainiko du "Odolbidea" gaiaz. **Herría**

Philippe Bignalet **naturopatak** emanen ditu xehetasunak. **Herría**

naturopatia *iz* eritasunak bide natularez, kirurgia eta drogarik gabe, tratatzea. ik **naturismo**.

Naturopatian berezitua den Margaret Girard-ekin. **Herría**

naturzale ik **naturazale**.

naufragatu, naufraga, naufragatzen **1** du *ad* hondoratu, urperatu.

Gorputz bat nasan ematen du, bidaiara luze bat egiteko esperoan, aspaldian **naufragaturiko** ontziaren zain. **Joseba Sarrionandia**

2 irud/hed

Ardozko itsasoan **naufragatu** zuten ideia haiek desegin nahi zituen urpeko harkaitzen kontra. **Unai Iturriaga**

3 (era burutua izenondo gisa)

'Ontzi **naufragatu** bat?' galdetu nuen. **Joseba Sarrionandia**

Haiek hain ondo jaso zuten mundu aspaldi galdua, garai batean portuko soto ugarietako bat izan zen liburu-denda erdi ilun erdi **naufragatu** batean hautsez beteta. **Anjel Lertxundi**

naufragio *1 iz* hondoratzea, urperatzea.

Orduan esan nien bi egun bazirela **naufragio** lazgarri batetik onik irten nintzela. **Patxi Zubizarreta**

Baina **naufragiotik** ez zuen ezer salbatzerik izan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Naufragio batetik bizirik ateratakoa ematen zuen. **Fernando Rey**

Naufragioak eragindako zauriek oinazeturik, eta jauregikoei bere benetako egoera agertu ezinez hil omen zen higanota. **Anjel Lertxundi**

Zeren eta halaxe sentitzen bainaiz usu, zalantzen itsaso koleratuan arrazoinaren untzia galdu zuen gizona bezala, **naufragioaren** ondoko hondarrei heldurik. **Joan Mari Irigoien**

2 irud/hed

Astebete zen Kristinak etxeko atea erakutsi zidanetik, eta bertze hainbertze denbora nire ezkonbizitzaren **naufragiotik** salbaturiko puskak Zabalguneko pentsiotzar bateko gelatarrean metaturik zeutzala. **Aingeru Epaltza**

Ene empatia txit sentikorra, maitañoak, zeren arrano beltzaren tabernan nire egoera hauskor berean baitzeuden **naufragiotik** eskapaturiko dozena eskas bat mozkor arrail erabat deskontzertaturik. **Patziku Perurena**

Zeren neure gorputz-arimen **naufragio** hartan haiek bainituen nik ohol eta salbabide, Amsterdameko karriketako jende-jendailen balizko trufetarik eta haien irrietarik ihes egin ahal izaiteko. **Joan Mari Irigoien**

Egunerokotasunaren **naufragioa**, zurezko gure etxe kaxkarretan. **Harkaitz Cano**

Naufragio asko izandako hiri baten sekretuak. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Espaloian botata xanpain botilak: 2005aren **naufragio**-arrasto hutsak: *Non plus ultra*. Garai hartan ezarri ziren aubaine-zerga eta **naufragio**-zerga zentzugabeak. **Berria - Kultura**

naufrago *1 iz* itsasoan galduriko pertsona.

Txalupa hartu, eta ea zer zen ikustera joan naiz: bi **naufrago** italiar aurkitu ditut, Gaetano di Amalfi eta Andrea di Noli. **Juan Garzia**

Naufrago bat hil omen zen bertan, San Bartolome egun batez. **Anjel Lertxundi**

Lehorrera eraman eta, **naufragoa** zalduna zela ikusirik, Pedro Zarauzkoak bere etxera eraman zuen, Narrosko jauregira. **Martin Anso**

Brown jaunak esperantza ahul bati heldu zion, nola **naufragoak** ohol ezgauzari. **Karlos Linazasoro**

Hondoratze handi bateko **naufrago** bakarra, halako zerbait, niri isilekoak esaten. **Koldo Izagirre**

2 irud/hed

Abiatu eta hondoratzen dena da **naufragoa**; helburu bat begiz jo, iritsi ez, eta porrot horrek sofriarazten duena. **Juan Garzia**

3 (hitz elkartuetan)

Naufrago itxura penagarria zeukan agurea ikusirik. **Jon Alonso**

• 4 *izond* itsasoa galdua.

Alabaina, aurreko eguerdian, aski lan nuen neure buru **naufragoa** mihise arteko portura garraiatzen, aurreneurriez oroitzeko. **Aingeru Epaltza**

Adin horretan literatura bizitzaren aurrerapen izan ohi da, bizitzen ikasteko modu bat, baina neskato haren kasuan arima **naufragoen** helduleku ere bazela pentsatu ohi nuen eta bizia salbatu zioten autore horiek gurtu egiten zituen. **Joxean Agirre**

Haren baitarik sorturiko liburu ederrak umezurtz dira jaio orduko, egur-ohol itsaso gainean, ur-azalean kulunkan, irakurle **naufragoaren** eskumenean. **Berria - Kultura**

Zisneen uhartean ez dago zapata **naufragoak** eta zakur lehertuak besterik. **Koldo Izagirre**

Baina batelaren jabea bertan da, ardo botila **naufrago** baten aurrean seguru asko. **Anjel Lertxundi**

nausi ik **nagusi**.

nausiarazi ik **nagusiarazi**.

nausigo ik **nagusigo**.

nausitasun ik **nagusitasun**.

nausitu ik **nagusitu**.

nausitze ik **nausitze**.

nautika iz itsasketa zientzia.

Bizkaiako 24 epamahiak horrela banatuko dira: Leioako campuseko lau ikastegitan hamaika epaimahai, EHUko Bilboko fakultate eta eskoletan hamar, Portugaleteko

Nautika Eskolan bi eta bakarra Barakaldoko Meatze Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskolan. **Berria - Euskal Herria**

Iñaki Alcedo EHUko **nautika** irakaslea *Prestige*-ren istripuaren arrazoieta sakontzen saiatu zen atzoko egunean. **Berria - Euskal Herria**

nautiko *izond* itsasketarena, itsasketari dagokiona. ik *itsasketa*¹ 2.

Itsas bazterretik 100 metro baino gutxiagora eraikitzea debekatzen du legeak, nahiz eta baldintza hori ez den ezartzen uretatik gertu egotea ezinbestekoa duten ekinbideen kasuan, hala nola, arrantza edo base **nautikoak**. **Berria - Mundua**

Batetik, Vital Kutxak golf zelaia egiteko asmoa du, Aldaieta Elkarte **Nautikoaren** lursailetan. **Berria - Euskal Herria**

navaho ik **navajo**.

navajo (19 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean; orobat *navaho* 7 agerraldi 2 liburutan) 1 iz Estatu Batuetako mendebalean bizi den tribu nagusietako bateko kidea.

Navajo-en erreserba batera joan zen behin gizon azal zurbil bat, argazki makina, grabagailu eta bideo-kameraz beteta ibili ohi den horietakoa, indiarren kontuak ezagutu nahian ibiltzen diren azal zurbil horietakoa. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bazterrek zokomiatzen zebilela, iritsi zen hogan batera (**navajoen** antigoaleko etxea da hogana) eta han ere ikusmiran jarraitu zuen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Baina paisajea ez ezik, **navajoen** zaldietan ibiltzea ere zoragarria izan da. **Patxi Zubizarreta**

Apatxe chiricauek **navajoengandik** hegoalderantz bizi ziren. **Pablo Sastre**

2 (izenlagun gisa)

-Navajo indiaoa naiz, Arizonakoa, eta etxera itzultzeko dirua biltzen ari naiz. **Iñaki Zabaleta**

Navaho indiar batzuekin batera. **Josu Zabaleta**

Galdegin nion ea nola esaten zuten "agur, ongi ibili" **navajo** hizkuntzan. **Iñaki Zabaleta**

Momadayren nobela bateko **navajo** sendagune baten deitura zen Lukatxukai. **Itxaro Borda**

Dineh Jones **navajo** artzain kide baten autoan sarturik bideratu zen Las Vegasera. **Itxaro Borda**

Garai haietan Kayenta, Chinle eta Moencopi **navajo** hirixken artean ibiltzen zen artzain. **Itxaro Borda**

Ni ikusirik, gidari **navajoari** bozkario oihu bat atera zaio. **Patxi Zubizarreta**

Artista **navajoa**, berriz, han egon zen, marrazketan buru-belarri murgildurik, zirkinik egiteke ia. **Xabier Olarra**

Worth eta Adair Arizonako indiar erreserba batean bizi ziren zazpi indiar **navahorekin** (sei 17-25 urte bitartekoak, eta zazpigarrena adintsuagoa, 55 urtekoa) harremanetan jarri ziren. **Josu Zabaleta**

navajoar (*corpusean navahoar soilik*) izlag navajoa. ik *navajo* 2.

Tony Hillermanek **navahoar** ohiturak sartuz idazten ditu nobela beltzak eta nik betidanik indioak miretsi ditut, hara harrapatua nintzela. **Ana Urkiza**

naximentu *iz* jaiotza, Jesusen jaiotzaren irudikapena.

Erdialdean, Plaza Barriko errektangulua, **naximentu** batean bezala paratua. Txillardegi

Bidean, pasilloan barrena, Gabonetan ipinitako **naximentuaren** ondotik pasa naiz. Xabier Etxabe

Zortzi figuraz osatutako **naximentu** zaharra, aingeruari eusten dion kometa eta guzti. Xabier Etxabe

naxka *iz* adkor nazka.

Barrenak nahastutako kasta izango gara gu: nahasian dabilzkigu atsegina eta nazka, edo nazka bete-betea ez bada ere, bai **naxka** bederen. Iñaki Segurola

Behin-behineko eskema: gauza batzuk izango lirateke "ez eta ez", nazka, eragozpen eta atzerakada garbiz; eta gero, dudakoak dudako eta gizabanakoak gizabanako, "ez baina bai": hauxe da delako morbo horren erresuma naturala, **naxka** eta xikiñaren aurkintza. Iñaki Segurola

Gizakia ez da, bistan da, ur garbiz eta on hutsez bizi; **naxka** eta xikiña berekin ditu. Iñaki Segurola

nazaretar *izlag/iz* Nazaretkoa, Nazareti dagokiona; Nazaretko biztanlea.

Jesus **Nazaretarra** naiz, zuk pertsegitzen duzuna. Elizen arteko biblia

Antonio santua [...] Arlesko Kapitulu probintzial batean Jesus **Nazaretarra**, juduen erregea gurutzeko titulua anaien predikatzen ari zitzaizen, hitz eztiak ahotik jaulkiz.

Askoren artean

Guztiok dakizuen, Jainkoak Jesus **Nazaretarra** zuen aurrean sinesgarri egin zuen, mirariak eta egintza ahaltsu eta harrigarriak haren eskuz eginez. Elizen arteko biblia

Nazaret izeneko herrian jarri zen bizitzen; horrela bete zen Jainkoak profeten bidez esana: "**Nazaretarra** esango diote". Elizen arteko biblia

Gizon hau guztiz galgarria dela ikusi dugu; mundu guztiko juduen artean sesioak pizten ari da, eta berau da **nazaretarren** sektako buru. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jesus nazaretarra (10)

jesus nazaretarraren (3)

nazi 1 *izond* nazionalsozialista.

Antisemitismoa ez zen Alemania **nazian** sortu. Urtzi Urrutikoetxea

1941etik 1944ra Alemania **naziaren** esku egon zen Estonia. Berria - Kultura

Handik laster sortu zen eta indartu Hitlerren alderdi **nazia** edo Nazional-sozialista, Versaillesen alemaniar aberriak jasan Diktat itsusia mendeka omen zezakeen alderdi bakarra. Piarres Xarriton

Diktadura **nazian** juduak eta egungo zuzenbide-estatu demokratikoetan paperik gabeko etorkinak *homo sacer* berriak direla. Berria - Kultura

Antijeren aita Holandan, gerra denboran, sarjentu **nazia** izan zen, Schumacher sarjentua. Fernando Rey

Zutik irmo, bere batailoi **nazia** gogoan. Fernando Rey

Norbaitek esan balit orduan Dornier eta Heinkel hegazkin **naziek** mila eta bostehun eta gehiago pertsona soil hil zituztela Gernikan, aho zabalik gelditu izango nintzatekeen, oñi baten aurrean bezala. Bernardo Atxaga

Balkoi nagusian, bandera **nazi** handi bat. Anjel Lertxundi

Gurutze **nazi** baten barnean lerrotatu argazkien ondoan faxistak hitza emana da. Herria

Esparru **nazietako** preso ohiekin hainbat orduz eginiko elkarrizketetan azalduko oroitzapenak. Joxan Elozegi

Kontua da, Russell Spencer arte zuzendariak bilera eskatu zidala agur- **naziaren** sorrerari buruzko gag bat bururatu zitzaiola-eta. Harkaitz Cano

Horrenbestez, uko egin zion lerro **nazi**-faxistetan borrokatzeari eta, ondorioz, kontzentrazio-esparru militar batera bidali zuten, Poloniara. Koldo Biguri

2 irud/hed

Llamazaresek, Sevillatik, «ETAren basakeria **nazia**» salatu zuen. Berria - Harian

Zakurra zakur **nazia** zen, aitak Holandan aurkitu zuen zakur **nazi** baten umea Fernando Rey

3 *iz* Alemaniako alderdi nazional-sozialistako kidea.

Ikusi ahala erosten nituen Joseph Rothen edo Hermann Ungarren edo **naziek** debekatutako hainbat autoreren liburuak, nahiz alemanez izan nahiz frantsesez. Anjel Lertxundi

Emaztea eta beste umeak **naziek** okupaturiko Varsovian geratu ziren. Koro Navarro

1933an Suitzara emigratu behar izan du, gero Frantziara eta 1942an USARA **nazien** ihesi. Joxe Azurmendi

Naziek gas ganberak erabili izana zalantzan jarri du Le Penen ordezkok. Berria - Mundua

Baina orduko Alemaniaren etsaiek berehala zabaldu zuten **naziek** berek egin zela atentatua; lehergailua jarri eta eskua ezkutatu, **naziak** maisuak zirela horretan; jendea komunisten eta juduen kontra jartzeko burutzen zituztela **naziek** sator-lan haiek. Anjel Lertxundi

Palestinako arabiarren bizkar [...] erakutsi zuten **naziek** juduei pairarazitako sufrimenduetatik sionistek ikasitako irakaspena ez zela izan beraiek biktima gisa jasandako krimena ez egitea, baizik eta, beraiei txanda egokitzean, beraiek baino herri ahulago bat jazartzea. Iñaki Mendiguren

Kontua da gerra osoan zehar Francok faxisten eta **nazien** laguntza jaso duela. Alberto Ladrón Arana

Naziak garaiak zirela gero eta nabariagoa zen, ordea. Eneko Bidegain

Garbizale eta garbijale amorratuak **naziak** izan dira hemen, oraindik ez dakienik balego. Iñaki Segurola

4 (izenondoekin)

Oso denbora gutxian **nazi** sutuak bilakatu ziren. -Otto! -eta apalxeago, geuk bakarrik entzuteko moduan-: **nazi** madarikatu hori, zer arraio. Ramon Etxezarreta

Denek nindukaten **nazi** konbentzitutzat, denek ikusi ninduten zalditegian Sebastiani pixa egiten. Anjel Lertxundi

-Ni ez naun **nazi** kriminal bat! Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

sarjentu nazi (3)

sarjentu nazia (3)

naziak eta faxistak (3)

alderdi nazien (3); **alemania nazien** (6)

naziek hil (4)

falangisten eta nazien (4); **nazien aldeko** (5); **nazien aurka** (5); **nazien aurkako** (8); **nazien eskuetan** (4); **nazien garaia** (3); **nazien garaiko** (3); **nazien kontra** (4); **nazien kontrako** (10); **nazien krimenak** (3)

nazifaxismo *iz*

«Gerra zintzoaren» mitoa Estatu Batuak **nazifaxismoaren** antitesi gisa deskribatzen duena ez dute kritikatu nahi izan hedabide eta historialari kontserbadoreek. Berria -

nazikume *iz adkor* nazien kumea.

Ageri dira burges laño eta ziztrinak, **nazikumeak**, juduren bat; aditzen ditugu gezurrak, nazio sentimenduak, anbizioak, berriz ere gezurrak. **Pablo Sastre**

nazio *(orobat naziño g.er., nazione g.er. eta nazione g.er.)* 1 iz giza talde aski zabala, bere batasunaren ezagutza eta elkarrekin bizitzeko nahia ezaugarritzat dituena. ik **aberri**.

Herri ez den **nazio** gehiegi dago Europan. **Anjel Lertxundi**

1789ko iraultzaz geroz, alabaina, Frantziaren eremuetako ikastegi guztietan, izan zitezten Errepublikarenak edo Elizarenak, Enperadorearenak edo Erregerenak, irakatsi izan da beti, Estatu eta **Nazioa** eta Populua eta Aberria [...] denak gauza bera direla, egundainotik eta sekulakotz Frantzian. **Piarres Xarriton**

Nazioa kulturaren eta hizkuntzaren arabera definitzen dute batzuek, Alemaniako tradizioari jarraiki nazio kulturala, eta **nazioa** estatuarekin parekatzen dute besteek, Frantziako tradizioari jarraiki nazio zibikoa. **Berria - Harian**

Euskal Herria **nazioa** dela aitortzea, autodeterminazio eskubidea aitortzea eta konponbidea bide baketsuetatik bilatzea. **Berria - Harian**

"**Nazioa**" eta "nazionalismoa" gogoko ez dituzten batzuek, **Nazioa** eta nazionalismoa gutietsi beharrez-edo, baso, sasi edo oihan usaina darion "Etniaz" edo "etnizismoaz" mintzo zaizkigu. **Piarres Xarriton**

Europa nazioen **nazioa** da. **Edorta Jimenez**

Nazioak edota herriak baloratzerakoan, hizkuntza hartzen dute erromantikoen ardatz. **Bernardo Atxaga**

Hizkuntza da hein handi batean **nazioa** egiten duena. **Isabel Arrigain**

Arabiar **nazioa** bakarra da. **Berria - Harian**

Ezagutzen haut, eta, ezagutzen haundianetik ari haiz **nazioa** eraikitzen. **Joxerra Garzia**

Nazioak, egia da, ez dira inondik ere desagertu, eta estatuarte sistemak badu oraindik ere etorkizunik. **Koro Navarro**

Merkataritzaren espirituak **nazioak** elkartzen baditu ere, ez ditu berdin elkartzen norbanakoak. **Iñaki Iñurrieta**

Arnold Toynbee historiagileak ere porrota egokiago ikusten zuen **nazio** baten indarrak mobilizatzeko. **Joseba Zulaika**

Gai honi buruz isiltasun unibertsala nabaritzen dut gaurko **nazio** guztietan. **Juan Martin Elexpuru**

2 (izenodoekin)

Nazio pobreek aberatsago izateko egin beharko luketena. Lehenbiziko Mundu Gerra bukatu zenean, 62 **nazio** burujabe ziren munduan. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Finantzaketa justuagoa eta **nazio** katalana onartzea eskatzen dute. **Berria - Mundua**

Nazio germaniarrek erromatar inperioa konkistatu zutenean. **Iñaki Iñurrieta**

Godok izan ziren lehen zapalduak, **nazio** nagusia zirelako. Doktrina liberala, ez da harrizkoa, **nazio** hegemonikoetan -Herbehereetan aurrena, Ingalaterran gero-gorpuztu zen. **Iñaki Iñurrieta**

Nazio barbaroetako jakintsuek. **Iñaki Iñurrieta**

Gure Ipar Euskal Herri xumea bere altzoan goxatzen eta kulunkatzen zuen **Nazio** puxant eta Aberri Handi egiazkoa. **Piarres Xarriton**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **nazional**.

Egituratzeko politiko esatean, **nazio** -hizkuntza eta erlijio bakarra indarrez ezartzea, biztanle-taldeak administrazio zentral indartsu zapaltzaile baten mende ordenatzea ulertu behar da. ohi-turk dute osatzen egiazki **nazio** batasuna. **Koro Navarro**

Frantzian eta Ingalaterran, Ehun Urteko gerrak eginkizun erabakigarria izan zuen monarkia zentralizatuen eta **nazio** -nortasunaren osieran. **Koro Navarro**

Azken horiek dira **nazio** izaera itxuratuta eta aldirik onenarako ere duin direnak. **Andres Urrutia**

Welcomiaren **nazio** himnoa, diotsot, isiltasuna da. **Edorta Jimenez**

Nazio -arazoa, bere sustraian, **nazio** -kultur arazoa dela sinetsi dut beti. **Txillardegi**

Ez dagoela berriz ere lekuan lekuko **nazio** dirura bueltatzerik. **Iñaki Heras**

Era berean, itun horrek eginkizun erabakigarria izan zuen **nazio** -ekonomien barne-oztopoak ezabatatzeko. **Koro Navarro**

Justizia bera ere, gutxi pentsatuko luketenez, nazioartekoa da eta XX. mende bukaeran ari zen **nazio** mugak pixkanaka hausten. **Pello Salaburu**

Nazio Eztabaidaguneak Gatazkaren Konponbiderako Proposamena eta **Nazio** Eraikuntzarako Proposamena aurkeztu ditu. **Berria - Euskal Herria**

Nazio Eraikuntzaren txostena Tasio Erkiziak aurkeztu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Ekonomia jarduera neurtzeko gehien erabiltzen diren adierazleak dira Barne Produktu Gordina (BPG) eta **Nazio** Produktu Gordina (NPG). **Iñaki Heras**

- Nazio-arazoa, bere sustraian, **nazio** -kultur arazoa dela sinetsi dut beti. **Txillardegi**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Espanian ere, Estatuak irakaskuntzari eginkizun politiko **nazio** -eraikitzailea eman dio, eta irakaskuntza sisteman bereziki historiari. **Joxe Azurmendi**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beltzaren gutxiespen horretan Hegel-ekin (eta Hume, Voltaire, etc.) bat dator [...]: beltzak "haur **nazio**" bat dira, gogoetarako ezgai. **Joxe Azurmendi**

Iparaldeko Estatu Batuen antzeko latin-**nazio** handi bat osatu nahi zuen. **Gotzon Garate**

6 **Nazio Batu** p/

Nazio Batuen Erakundearen agentzia bat da FMI, nazioarteko finantza erakunde nagusia. **Iñaki Heras**

Nazio Batuen Erakundea ez da gehiago izan Estatu arteko administrazio antolamendu hotz soil bat, baina bai Munduko Nazioen familiarentzat beti zabalik dagoen Etxondo gozoa. **Piarres Xarriton**

Kosovoarrak, kurduak, timortarrak inongo errukirik gabe akabatzen badituzte, **Nazio Batuetan** eserleku bat izateak ematen duen babesa falta zaielako da. **Markos Zapiain**

Nazio Batuen Biltzarren, herrien biltzar baten eta Gizarte Zibilaren Foro baten arteko elkartzeko posible baten bidez, [...]. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

EAE dagoeneko egokitzen ari da **Nazio Batuen** Goi Bilerak proposatutako ekin-tza programara. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Latino Amerikako **Nazio Batuetako** Ekonomia Batzordeko ekonomistek. **Koro Navarro**

Nazio Batuen arabera, Ameriketako Estatu Batuetan pobrezia ez da, oinarrian, lan faltari loturiko arazo bat. **Iñaki Heras**

1972a, **Nazio Batuen** Giza Ingurumenari buruzko Konferentzia izan zen Stockholmen. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Nazio Batuen Truke eta Garapenari buruzko Konferentzia. **Koro Navarro**

7 **estatu-nazio** (96 agerraldi, 6 liburu eta 16 artikulutan)

Estatu-Nazioa erlijiosoa da errotik, sakraltasunaren erritu, bandera eta liturgia guztietan; eta fedea eta debozioa exijitzen ditu. **Joxe Azurmendi**

Kultura izan da aspaldi honetan, filosofo idealisten ondotik eta **Estatu-nazioaren** teoria gailendu zenetik, politikaren oinarri. **Bernardo Atxaga**

Lurraldetasun printzipioa, indarraren monopolioaren kontrola eta ordezkartzearen oinarritutako botere politikoa zirela **estatu-nazio** modernoa itxuratzen zutenak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Baina ikusten dut **estatu-nazioen** boterea indarrean dagoela: Errusiak XVIII. mendeko ideiak muinetaraino buruan sartuak ditu, hots, Estatu soberania absolutuarenak. **Piarres Xarriton**

Eta horrela **Estatu-Nazio** ondorioztasun gelditu zen korsikar jeneral gazte baten eskuetan. Piarres Xarriton

Estatu-nazioak gero eta ahalmen gutxiago du diru-politika kontrolatzen, bere aurrekontuak erabakitzen, produkzioa eta merkataritza eratzten, zerga korporatiboak biltzen, eta agindutako giza irabaziaz eskaintzen, testuinguru globalean bere ekonomia-erlehiakortasuna ziurtatzen ez badu. Joseba Zulaika

Lehen kapituluak, "Estatuaz, Nazioaz eta **Estatu-Nazioaz**" dihardu. Herria

8 nazio-estatu *(45 agerraldi, 7 liburu eta 5 artikulutan)*

Hiri estatuak, **nazio-estatuak**, baita inperioak ere. Koro Navarro

Nazio-estatu lehiakide batzuek eratu duten munduko ekonomia-erlehiaren aroa. Koro Navarro

Kataluniaz ari da bereziki, baina haren kontsiderazioek berdin balio dute Rubertek "Herrialde Politikoki Pobre" deitzen dituen gainerako **nazio estaturik** gabekoentzat ere. Joxerra Garzia

Heldutasunaz gainera, **nazio-estatuak** eskarmentuak, katalunieraren aurkako jarrera zitalek bereziki, erabaki dute aldaketa. Markos Zapaiain

XVIII. mendetik aurrera, ez ziren hiri estatuak izan Europako mundu-ekonomia-erlehiaren ardatza, **nazio-estatuak** hiriburuak baizik, haiek barne-merkatu azkenik bateratua ematen baitzioten indartsu hazten ari zen industriari. Koro Navarro

Duela gutxi arte, **nazio-estatuak** izan dira ekonomia-erlehiaren espazio nagusiak; azken hamarkadetan, berriz, mundu mailako merkatuak, bloke erregionaletan banaturik, gero eta gehiago ezartzen ditu produkzio, konkurrentzia eta kontsumo jarraibide eta erregelak. Iñaki Heras

Estaturik gabeko Europako herrien ukazioa; **nazio estatuaren** kontzeptutik merkatu estatuaren kontzeptura pasatzea. Berria - Harian

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

atzerriko nazio (9); **ekuatoriko nazio indigenen** (7); **estatu nazio** (21); **estaturik gabeko nazio** (14); **europako nazio** (13); **euskal nazio** (16); **herri eta nazio** (8) kataluniera nazio izaera (17); **munduko nazio** (10)

nazio aniztasuna (8); **nazio arteko** (19); **nazio askapen** (12); **nazio askapenerako** (58); **nazio askapenerako armada** (13); **nazio askapenerako fronte** (7); **nazio bat da** (14); **nazio bat dela** (34); **nazio bat gara** (15)

nazio batuei (7); **nazio batuek** (33); **nazio batuen** (1221); **nazio batuen erakunde** (7); **nazio batuen erakundea** (44); **nazio batuen erakundeak** (315); **nazio batuen erakundean** (33); **nazio batuen erakundearekin** (7); **nazio batuen erakundearen** (163); **nazio batuen erakundeari** (26); **nazio batuen erakundeko** (442); **nazio batuen giza** (9); **nazio batuen haurren** (29); **nazio batuetako** (26); **nazio batuetan** (14)

nazio batzarra (12); **nazio batzordeak** (17); **nazio bilkura** (7); **nazio biltzarra** (7)

nazio eraikuntza (75); **nazio eraikuntzak** (9); **nazio eraikuntzan** (51); **nazio eraikuntzan aurrera** (7); **nazio eraikuntzarako** (52); **nazio eraikuntzarako proposamena** (10); **nazio eraikuntzaren** (68); **nazio eraikuntzaren alde** (8); **nazio eraikuntzari** (22); **nazio eraikuntzari begira** (11); **nazio erakundeen** (7); **nazio erakundetzea** (12); **nazio eskubideak** (13); **nazio eskubideen** (9); **nazio estatu** (10); **nazio estatuaren** (7); **nazio estatuen** (9); **nazio estrategia** (11); **nazio eztabaida** (14)

nazio eztabaidagunea (36); **nazio eztabaidaguneak** (103); **nazio eztabaidagunean** (42); **nazio eztabaidagunean parte** (8); **nazio eztabaidagunearen** (51); **nazio eztabaidaguneari** (9); **nazio eztabaidaguneko** (23); **nazio eztabaidaguneko talde** (7); **nazio eztabaidagunetik** (10)

nazio eztabaidak (8); **nazio eztabaidan** (7); **nazio garapen** (8); **nazio garapenerako** (115); **nazio garapenerako biltzarra** (22); **nazio garapenerako biltzarrak** (44); **nazio garapenerako biltzarraren** (22); **nazio garapenerako biltzarreko** (9); **nazio gisa** (66); **nazio handi** (15); **nazio hizkuntza** (8)

nazio ikuspegia (8); **nazio indigenen** (7); **nazio izaera** (48); **nazio izaeraren** (10); **nazio kontzientzia** (11); **nazio mailako** (46); **nazio mailan** (14); **nazio manifestazioa** (8); **nazio moduan** (9); **nazio nortasuna** (7); **nazio plana** (11); **nazio programazioa** (11)

estatu nazioa (17); **euskal herria nazioa** (11); **euskal nazioa** (26); **nazioa eraikitze** (8)

estatu nazioak (7); **estaturik gabeko nazioak** (20)

estatu nazioaren (24); **euskal nazioaren** (24); **euskal nazioaren onarpen** (7)

estaturik gabeko nazioei (9)

estaturik gabeko nazioek (19)

estatu nazioen (17); **estaturik gabeko nazioen** (48); **nazioen aberastasuna** (8); **nazioen artean** (37); **nazioen arteko** (34); **nazioen aurka** (7); **nazioen aurrean** (7); **nazioen eskubideak** (13); **sei nazioen torneoa** (12); **sei nazioen torneoa** (10); **sei nazioen torneoko** (8)

estaturik gabeko nazioetako (16); **hiru nazioetako torneoa** (7); **sei nazioetako torneoa** (23); **sei nazioetako torneore** (7)

nazioanitz *izond* nazioaniztuna.

Estatuaren izaera **nazioanitza** ala naziobakarra zen jokoan zegoena. Berria - Euskal Herria

nazioaniztun *iz* nazio askoren artekoa.

Wallersteinek mundu-sistema deitzen dio lanaren banaketa **nazioaniztun** batean oinarritzen den truke-sare orori. Koro Navarro

Braudelek eta Immanuel Wallerstein-ek proposaturiko mundu-ekonomia-erlehiaren nozioa, ez dagokio mundu mailako ekonomia baten osaerari, espazio ekonomiko **nazioaniztun** baten osaerari baizik. Koro Navarro

Espazio **nazioaniztunean** barreiatutako baliabide naturalak edo produktu erdi bukatuak. Koro Navarro

nazioarte 1 *iz* nazioarteko erkidegoa.

Oso esanguratsua da auzitegiak ebazpenean esatea **nazioarte** osoaren eginbeharra dela Israeliek legea betetzen duela ziurtatzea. Berria - Mundua

Nazioarte testuinguru jakin bat da, gure alde erabili ahal duguna. Berria - Euskal Herria

Izan ere, Nazio Batuen Erakundea eta **nazioarte**, oro har, ahalegin handia egiten ari dira botikak merkatuzko. Berria - Gaiak

Nazioarte eta Munduko Bankua palestinarren ghetizazioa laguntzen ari dira. Berria - Harian

Nazioarteak laguntza ekonomiko handia eman zuen. Berria - Kultura

Sahararak erakutsi duten eskuzabaltasunaz baliatu behar dute Rabatek eta **nazioarteak**. Berria - Harian

Burundin, bakea lortzeko gertu daudela dirudien garai honetan, behar-beharrezkoa dute **nazioartearen** laguntza. Berria - Gaiak

Gosea ez da halabeharrezkoaren alaba, baizik eta, askotan, **nazioartearen** inertzia-erlehiaren ondorioa eta goseak jotako herrialdeen ekimen zehatzen emaitza. Berria - Gaiak

Kosovoko albaniarrek **nazioartearen** bonbardaketen eraginez ihes egin zutela adierazi zuen. Berria - Harian

Nazioartearen aurrean justiziaren defendatzaileen ikur bihurtu da. Berria - Harian

Agirrek Parisen hainbeste xehetasunik gabe eman zituen kartzeletako datuak, eta **nazioarteari** begiraletza eta arartekotza galdatu zizkion. Jokin Urain

Auzi nuklearra dela eta, Iranek **nazioarteari** jotako erronkak presio handia jarri du aste honetan petrolioaren prezioen gain. Berria - Ekonomia

Nazioartean gehien erabiltzen den hizkuntza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nik kasu hau **nazioartean** salatua nahi nuke, hemen ez dut eta justiziarik ikusi inon. Pako Aristi

Gerlak galdu du **nazioartean** zuen ospea eta itzala. Piarres Xarriton

Osagarritasunaren printzipioa, teorikoki, lotuta dago **nazioartean** banaketa desberdina duten faktoreen trukearekin ere (lana, kapitala). Koro Navarro

Nazioartean homologaturiko erratza da gero hau! Iñaki Mendiguren

Euskal Herritik eta **nazioartetik** etorritako zientzialariek euren proiektuak aurkeztuko dituzte bertan. Berria - Gaiak

Nazioartera zabaldu zen zure edertasunaren ospea, erabatekoa baitzen neuk eman nizkizun apaingarriengatik. Elizen arteko biblia

Guatemalan bertan jaramonik egiten ez dietela-eta **nazioartera** joko dute emakumeek, kanpoko presioak etxekoengan eragingo duen esperantzaz. Berria - Gaiak

Jakinarazi zuen Bizkaia osoan hedatzen ari dela **nazioartetik** datorren korrantea, eta BBK «aitzindari» izan dela banka etikoaren alorrean. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik nazioarteko.

Bere tesia argia da: hainbat arrazoik ahalbidetu dutela Itoizko urtegiaren kontrako borroka **nazioarte** mailako izaera hartzea. Edurne Elizondo

Eraginortasuna lortzeko, **nazioarte** mailako informazio trukaketa azkartuko duen mailako datu basea sortzea ere proposatu zuten. Berria - Harian

Euskaldunok **nazioarte** mailan behar dugun onespena berreskuratzen lagunduko lukeelako. Herria

Munduko herriei **nazioarte** mailan merzei duten garrantzia emanez betiere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bere herritarrak babesteko ez bada gai, **nazioarte** komunitateak egin beharko du. Berria - Mundua

ICRC Gurutze Gorriaren **Nazioarte** Batzordeak jakinarazi zuen gertakari hauen berri bazuela. Berria - Mundua

Matxino hauen ekitaldia ez da **nazioarte** terrorismoari lotua. Berria - Mundua

Ukrainako 225 hautes-barrutietan banatu ziren 12.000 **nazioarte** behatzaileek, [...]. Berria - Mundua

Nazioarte tropak Iraketik erretiratu osteko segurtasun plan bat aztertzen ari direla iragarri zuen atzo The Guardian egunkari britainiarrak. Berria - Harian

Zentzugabea litzateke **nazioarte** indarrari Iraketik alde egin dezan eskatzea, gure herrialdearen segurtasuna eta egonkortasuna bermatzeko egiturak oraingoz eraturagabeak baitira. Berria - Mundua

Nazioarte politika komuna izango duen Europa aldarrikatu zuen buruzagi jeltzaleak. Berria - Euskal Herria

Nazioarte bake planak, aldiz, Aristide bere agintaldiaren amaieraraino, hots 2006ko otsaila arte, geratzea aurriztatu du. Berria - Mundua

Hurrengo **nazioarte** erako txapelketa ekainaren 27an jokatu da, Seguran (Gipuzkoa), Segura Egunaren ekitaldian. Berria - Kirola

Nazio Batuen Erakundearen ardurapean dagoen **Nazioarte** Zigor Auzitegia hasi zen aztertzen Serbia eta Montenegrok NATOKo partaide diren zortzi estaturen aurka egindako salaketa. Berria - Mundua

· Jose Mari PASTOR, Egunkariako **nazioarte** saileko arduraduna. Herria

-Zein koloretakoak dira El País egunkariako **nazioarte** saileko fitxak? Joxerra Garzia

Tximistak bezala goiti, lau-bortz urtetan Nazio- **Nazioarte** -Ekonomia ataleko erredakzio-buru bilakatua zen. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nazioarte erako (4); **nazioarte** komunitatearen (3); **nazioarte** mailako (15); **nazioarte** mailan (21)

behar du nazioarteak (3); **nazioarteak** jarritako (5); **susmoa du nazioarteak** (3)

europan eta nazioartean (3); **nazioartean** egin (4); **nazioartean** egindako (5); **nazioartean** ezaguna (3); **nazioartean** ezagutaraztea (6); **nazioartean** hedatzen (3); **nazioartean** izan (4); **nazioartean** izango (3); **nazioartean** lehiazteko (8); **nazioartean** zabaltzeko (4)

nazioartean administraziopean dago (3); **nazioartean** arreta (3); **nazioartean** babesa (7); **nazioartean** diru laguntza (3); **nazioartean** diru laguntzak (3); **nazioartean** esku hartzea (3); **nazioartean** kezka (5); **nazioartean** laguntza (15); **nazioartean** laguntza eskatu (5); **nazioartean** laguntzarekin (3); **nazioartean** laguntzaren (3); **nazioartean** presentzia (3); **nazioartean** presioa (3); **nazioartean** sostengua (4)

eskatu dio nazioarteari (8); **eskatu diote nazioarteari** (3); **eskatu zion nazioarteari** (9); **eskatu zioten nazioarteari** (3); **nazioarteari** begira (7); **nazioarteari** eskatu (3)

nazioartera begira (4); **nazioartera** zabaldu (9); **nazioartera** zabaltzea (3)

nazioartetik etorriko (3); **nazioartetik** etorritako (5); **nazioartetik** jasotzen (4)

nazioarteko (6035 agerraldi, 92 liburu eta 3032 artikulutan) 1 izlag hainbat nazioaren artean egiten dena, hainbat naziori edo nazioen arteko harremani dagokiena. ik **internazional**; **nazioarte** 2.

Antolamendu-printzipioak **nazioarteko** mailan ezin bideratuzkoa dirudi, baina bidera daiteke eskualde mailan. Koro Navarro

Bistan da, horrenbestez, azkenean araudiak egingo direla hemen ere, batzuetan **nazioartekoak**, beste zenbaitetan nazio barnekoak. Pello Salaburu

Munduan den gosearen arazo larriari konponbidea bilatzeko **nazioarteko** kezka gaur egun arte iritsi zaigu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez da literatura: **nazioarteko** orriek kalitatea ematen diote egunkari honi. Iñigo Aranbarri

Belaunaldien arteko eta **nazioarteko** anaitasuna gure zereginaren oinarri da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Oztopo moral eta politiko guztien gaitetik, **nazioarteko** gizarteak diktaduraren aurkako ETaren legitimitatea onartu egin zuen gehienbat. Joseba Zulaika

Unescok, zirudienez, zirrara eragin zion, **nazioarteko** zer guztiek bezala nonbait. Joxe Austin Arrieta

1920ko hamarkadan sortu **nazioarteko** erakundeen ahulezia laster agertu zen, zorigaitzez. Piarres Xarriton

Gero, kontzeptua zabaldu eta **nazioarteko** erakunde guztietan erabiltzen hasiko dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Beste Mundu bat Posible da lelopean, Foroaren asmoa **nazioarteko** gogoeta eta esperientzia-trukerako espazio gisa finkatzea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Orduko, Peronek agintzen zuen Argentinan, Nurembergen **nazioarteko** epaimahai bat ari zen naziak epaitzen, [...]. Pello Salaburu

Nazioarteko terrorismoa eta Irakeko gerra beste berriek ez zen bazterretan. Joseba Zulaika

Oparoa atera zen martxoaren 8an, Emakumeen **Nazioarteko** Eguna zela-eta *Berria*-k gehigarri gisa kaleratu zuen eranskina. Iñigo Aranbarri

Nazioarteko zientzia aldizkarietan lan ugari argitaratu ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Karlos Santamariaren izena ez zitzaidan arrotz, sorterritik urrun ikasten nengilene 1945-1955 urte haietan, "Donostiako Solasaldi **Nazioartekoez**" eta haien zuzendariaz anitz aipu baitzen bazterretan. Piarres Xarriton

Trukerako edo indultzurako eskaera Gurutze Gorriko **Nazioarteko** Komiteari zuzentzen zaio, eta honek Genevara bidaltzen du. Jokin Urain

Nazioarteko Brigadak ez dira Errepublikaren aldeko indar bakarrak. Edorta Jimenez

Gaur bertan emango dira Miarrizteko **Nazioarteko** Jaialdiko Urrezko Eguzkiak. Hasier Etxeberria

Zientzia Bateratuaren **Nazioarteko** Entziklopedia. Askoren artean

2 (ekonomian)

Nazioarteko edo erregio-arteko merkataritzaren eragina neurtzeko, herrialde baten benetako kontsumoa kalkulatzeko da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bestalde, iragarri zuen **nazioarteko** ekonomia «egonkorragoa» izango dela. Berria - Ekonomia

Azken finean, inbertsioa ez zen **nazioartekoa**, inperialista, Leninek ospetsu bihurtu zuen esapidaren arabera. Koro Navarro

Garapen iraunkorraren helburuak eta garapen global baten izaera integratzaileak areagotu egiten dituzte instituzio nazionalentzako zein **nazioartekoentzako** arazoak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekarpenak eskuratzeko aukera inbertsiogile mota guztiei zabaltzeko asmoa agertu du Eroskik, bai txikizkako, bai erakundeetako, bai bertako inbertsiogileei, bai **nazioartekoei**. Berria - Ekonomia

Truke-tasak, eskuarki, egunero finkatzen dira **nazioarteko** dibisa merkatuetan. Iñaki Heras

Nazioarteko merkatu mugak desagertu dira; bankuek **nazioarteko** 1,5 trilioi eragiketa egiten dute egunero. Pello Salaburu

Nazioarteko merkatuetan petrolioaren prezioaren goranzko bilakaerak Euroguneko ekonomiaren gain izan ditzakeen ondorioak neurtzen segitzen du EBZ Europako Banku Zentralak. Berria - Ekonomia

Nazioarteko kontabilitate neurri berriak betetzeko, Gamesa Aeronautikan 60 milioi euro inguruko ezohiko probisio bat egin behar dutela ere azaldu zuten. Berria - Ekonomia

Komanditako sozietatea, **nazioarteko** kapitalez osatua askotan, nagusitu zen azkenean urrutiko merkataritzan. Koro Navarro

Nazioarteko finantzak kontrolatzen dituzten gizonen ez ditek onartuko. Lopez de Arana

EAEko 18 enpresa Kubako La Habanako **Nazioarteko** Azokan. Berria - Ekonomia

Nazioarteko Diru Sistema baten helburua truke-tasetan egonkortasun jakin bat lortzea da. Iñaki Heras

Nazioarteko Lan Erakundeak 15 urtez azpikoentzat debekaturik du lan egitea. Gotzon Garate

2 Nazioarteko Diru Funtza

Beste lekuetan, Afrikan, Latino Amerikan, nazioarteko finantza-erakundeek, hau da, **Nazioarteko Diru Funtzak** (NDF) eta Munduko Bankuak, sistematikoki sustatu dute kapitalismoaren sarrera. Koro Navarro

Konferentzia horretan sartu zen **Nazioarteko Diru Funtsa** eta hari eman sistemaren arauak gainbegiratzeko ardua. Itzi Heras

Nazioarteko Diru Funtsa esaten baldin badu ekonomiaren hazkundera ez dela uste zen bezain handia izango, edo uste baino hobea izango dela, munduko burtsa guztiak gori-gori jarriko dira. Pello Salaburu

Ekonomia Estatuak kontrolatzearen aldekoa da, baita Munduko Bankuaren eta **Nazioarteko Diru Funtse**n politika neoliberalen aurkakoa ere. Berria - Harian

Nazioarteko Diru Funtsen ordezkariek eta zorraren hartzekodunen batzarrak ezin zuten onartu, egoera hartan, erresumen jarduera ekonomikoaren inolako etendurarik. Iban Zaldua

Nazioarteko Diru Funtsa %4,6ko hazkundera aurreikusten du aurten munduan. Berria - Ekonomia

Txostena ateratu du **Nazioarteko Diru Funtsa** hegazti gripeak ekar ditzakeen galera ekonomikoen gainean. Berria - Gaiak

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

antzerkiaren nazioarteko (17); dantzaren nazioarteko (10); desarmarako nazioarteko batzorde (13); emakumeen nazioarteko (14); energia atomikoaren nazioarteko (49); energia atomikorako nazioarteko (40); energiaren nazioarteko (8); eskubideen aldeko nazioarteko (33); eskubideen nazioarteko (27); euskararen nazioarteko (13); euskararen nazioarteko eguna (8); giza eskubideen nazioarteko (24); gurutze gorriaren nazioarteko (28); gurutze gorriko nazioarteko (9); haur liburuaren nazioarteko (9); idazleen nazioarteko (11); Jugoslavia ohirako nazioarteko (44); kapitalen nazioarteko (8); kultura garaikidearen nazioarteko (21); lanaren nazioarteko (41); lanaren nazioarteko erakundeak (10); langileen nazioarteko (8); liburuaren nazioarteko (23); liburuaren nazioarteko eguna (14); museoen nazioarteko (8) nazioarteko aditu (14); nazioarteko adituak (8); nazioarteko adituek (16); nazioarteko adituen (8); nazioarteko agentziak (32); nazioarteko agentziako (26); nazioarteko agentziaren (21); nazioarteko agindua (10); nazioarteko agintariak (14); nazioarteko antzerki (15); nazioarteko arte (12); nazioarteko atxilotze (20); nazioarteko atxilotze agindua (13); nazioarteko automobilismo (13); nazioarteko automobilismo federazioak (8); nazioarteko auzitegi (8); nazioarteko auzitegiak (12); nazioarteko auzitegiaren (11); nazioarteko auzitegiaren (10); nazioarteko azoka (8) nazioarteko bake (10); nazioarteko banaketa (9); nazioarteko batzorde (22); nazioarteko batzordea (9); nazioarteko batzordeak (32); nazioarteko batzordearen (13); nazioarteko batzordeko (11); nazioarteko begirale (11); nazioarteko begiraleak (11); nazioarteko begiraleek (13); nazioarteko best seller (8); nazioarteko bilkuran (8); nazioarteko biltzarra (12); nazioarteko biltzarrean (8); nazioarteko bitartekaritza (9) nazioarteko dimentsioa (8); nazioarteko diru (100); nazioarteko diru funtsa (11); nazioarteko diru funtsak (31); nazioarteko diru funtsaren (12); nazioarteko diru funtseko (12) nazioarteko egoera (10); nazioarteko eguna (124); nazioarteko eguna ospatzeko (8); nazioarteko egunarekin (9); nazioarteko egunaren (35); nazioarteko egunaren harira (10); nazioarteko egunean (32); nazioarteko ekonomia (21); nazioarteko ekonomiaren (15); nazioarteko elkartasun (15); nazioarteko elkartasuna (11); nazioarteko elkartasunezko (10); nazioarteko elkarteak (10); nazioarteko energia agentziak (11); nazioarteko erako (8); nazioarteko erakunde (39); nazioarteko erakunde (13); nazioarteko erakundeak (108); nazioarteko erakundearen (18); nazioarteko erakundearen (46); nazioarteko erakundearen arabera (14); nazioarteko erakundeari (9); nazioarteko erakundeei (9); nazioarteko erakundeek (49); nazioarteko erakundean (14); nazioarteko erakunde (51); nazioarteko espazio (55); nazioarteko espazio estazioan (12); nazioarteko espazio estazio (9); nazioarteko espazio estazioa (8); nazioarteko euskal (10) nazioarteko federazioak (33); nazioarteko federazioan (13); nazioarteko federazioaren (10); nazioarteko federazioetan (11); nazioarteko federazioko (12); nazioarteko finantza (47); nazioarteko futbol (15); nazioarteko futbol federazioak (9) nazioarteko gatazka (9); nazioarteko gatazketan (11); nazioarteko gazte (8); nazioarteko giza (24); nazioarteko giza eskubideen (16); nazioarteko gurutze (16); nazioarteko gurutze gorriak (9) nazioarteko harreman (12); nazioarteko harremanak (17); nazioarteko harremanen (9); nazioarteko harremanetan (9); nazioarteko harremanetarako (16); nazioarteko ikerketa (14); nazioarteko indar (17); nazioarteko indarrak (9); nazioarteko indarraren (9); nazioarteko indarren (11); nazioarteko iritzi (8); nazioarteko irristatze (9); nazioarteko itsas (9); nazioarteko itunak (10); nazioarteko izaera (8) nazioarteko jaialdia (12); nazioarteko jaialdiak (8); nazioarteko jaialdian (13); nazioarteko justizia (61); nazioarteko justizia auzitegiak (28); nazioarteko justizia auzitegiaren (8) nazioarteko kale (8); nazioarteko kanpaina (9); nazioarteko kirol (8); nazioarteko komunitatea (18); nazioarteko komunitateak (62); nazioarteko komunitatearen (50); nazioarteko komunitateari (32); nazioarteko konferentzia (36); nazioarteko konferentzia bat (8); nazioarteko konferentzian (11); nazioarteko konferentziaren (10); nazioarteko kongresua (9); nazioarteko kriteriuma (21); nazioarteko kriteriumean (12); nazioarteko krosa (17) nazioarteko laguntza (48); nazioarteko laguntza eskatu (9); nazioarteko lankidetzatza (20); nazioarteko legeak (12); nazioarteko legedia (47); nazioarteko legediaren (20); nazioarteko legeria (8); nazioarteko lehiaketa (11); nazioarteko lehiaketetan (11); nazioarteko liburu (9) nazioarteko mailan (14); nazioarteko maisu (10); nazioarteko merkataritza (32); nazioarteko merkataritzan (10); nazioarteko merkataritzaren (24); nazioarteko merkatuan (15); nazioarteko merkatuetan (15); nazioarteko mintegia (8) nazioarteko olimpiar batzordeak (14); nazioarteko olimpiar batzordearen (8); nazioarteko olimpiar batzordeko (14); nazioarteko ordena (13); nazioarteko ordezkaritza (10); nazioarteko osasun (8); nazioarteko pen klubak (10); nazioarteko pen klubaren (9); nazioarteko pilota (9); nazioarteko politika (13); nazioarteko politikan (13); nazioarteko politikaren (8) nazioarteko sarea (8); nazioarteko sistema (8); nazioarteko soldaduak (13) nazioarteko talde (14); nazioarteko terrorismoarekin (8); nazioarteko terrorismoaren (15); nazioarteko terrorismoari (10); nazioarteko trikiti (8); nazioarteko txirridularitza (48); nazioarteko txirridularitza elkargoa (12); nazioarteko txirridularitza elkargoak (22) nazioarteko urtea (8) nazioarteko zientzialari (8); nazioarteko zigor (71); nazioarteko zigor auzitegiak (24); nazioarteko zigor auzitegiaren (9); nazioarteko zigor auzitegiaren (12); nazioarteko zinema (11); nazioarteko zinemaldia (9); nazioarteko zuzenbidea (19); nazioarteko zuzenbidearen (14); nazioarteko zuzeneko (86); nazioarteko zuzeneko inbertsioak (15); nazioarteko zuzeneko inbertsioen (55) osasunaren nazioarteko (13); politikoaren nazioarteko (15); preso politikoaren nazioarteko (10); presondegiatako nazioarteko (8); saioen nazioarteko (10); uraren nazioarteko (8)

nazioartekotasun *iz* nazioartekoa denaren nolokotasuna.

Bi kontzeptu: **nazioartekotasuna**, hau da, nazioek elkarren artean egiten dituzten tratuei dagokiena, eta globalizazioa, hau da, ekonomiak nazioen mugak hautsiz egiten dituen tratuei dagokiena. Pello Salaburu

Nazioartekotasun horren adibide da hegazkinaren fabrikazio lana: hegoak Erresuma Batuan egiten dituzte, hegazkin gorputzaren zati batzuk Hamburgon (Alemania), kabina Tolosan (Okzitania) eta atzealdea Espainian. Berria - Ekonomia

Badirudi, merkatu mugak hautsi ondoren, **nazioartekotasunean** ondasun gehiago hartzen dutela nazio txikiak nazio handiek baino. Pello Salaburu

Dokumentuan aurkitu behar dugu guk bilatzen dugun espiritua garaikidetasunean eta **nazioartekotasunean**. Berria - Harian

Gizarte hiritarra, kulturaren esparrua eta euskararen **nazioartekotasuna** etengabe eta ozen aldarrikatu zituen. Koldo Zuazo

Amorruz kentzen genituen kofradiako zutabearen ageri ziren txatal haiek, euskal patrioiak esku hartu behar zuela justizia sozialean, **nazioartekotasunak** euskal izatearen hondamena zekarrela, guretasuna erdaldundu nahi zutela jainkogabeek. Koldo Izagirre

Eta horretara eramaten gaituzte **nazioartekotasunaren** izenean, Ceutan hasi eta Panticosan bukatzen den **nazioartekotasun** nazional horren izenean, gaztelaniarekin hasi eta espainolarekin akitzen den hizkuntza-**nazioartekotasun** horren alde egiten dutenek. Pello Salaburu

nazioartekotu, nazkioarteko(tu), nazioartekotzen 1 da/du *ad* nazioarteko bihurtu.

Herialde industrializatuetako jardueraren mugimendurekin lotuta dauden inflexio zikloak gorabehera, **nazioartekoturiko** ekoizpenak munduko BPGean duen pisua (%9 1998an, eta %5 1985ean) handituz joango da. Koro Navarro

Merkataritza oso **nazioartekotua** dago gaur, eta orobat dago nazioarteko finantzen zenbait mekanismorekin lotua. Koro Navarro

Baina kausa palestinarra **nazioartekotu** zuen Arafatek eta, okerrak oker, palestinarren burujabetza negoziazio mahai batean aitortzea posible egin zuen. Berria - Mundua

Euskal PEN Klubeko lehendakaria zaren aldetik, zein neurritan balio dezakeela uste duzu euskal PEN Klubaren ekimenak euskal idazleak **nazioartekotzeko** ? Ana Urkiza

2 (era burutua izenondo gisa)

Euskal literaturako idazlerik **nazioartekotuena** zara. Ana Urkiza

nazioartekotza *iz* internazionala (laugarren adieran). ik **nazioartekotasun**.

Arabiarra, aspaldidanik ari zaizkigu erakusten, **nazioartekotza** terroristako kidea da, Bosnian, Txetxenian, Afganistanen, nonahi dela sarraskirik handiena egiteko gertu

nazioartekotze 1 *iz* nazioarteko bihurtzea. ik [nazioarteratze](#).

Borrokagune bat baino gehiago dugu: esku-hartze instituzionala eta [nazioartekotzea](#). [Berria - Mundua](#)

PPren Gobernuak Euskal Herriak bizi duen gatazka Espainia eta Frantziaren mugetatik kanpora atera eta [nazioartekotzearen](#) aldeko apustu gogorra egin du. [Berria - Euskal Herria](#)

Gatazkaren [nazioartekotzea](#) : Baikorra izateko arrazoieta bat nazioartetik jaso duen babesa dela dio. [Berria - Euskal Herria](#)

Euskal PEN Klubeko lehendakaria zaren aldetik, zein neurritan balio dezakeela uste duzu euskal PEN Klubaren ekimenak euskal idazleak [nazioartekotzeko](#) ? [Ana Urkiza](#)

2 (ekonomian)

Ekonomiaren globalizazioa, [nazioartekotzea](#) edo mundializazioa, 90eko urteetan arreta handia bereganatu duen gaia izan da. [Iñaki Heras](#)

Ezagutzaren Clusterrak euskal enpresen [nazioartekotzeari](#) buruzko txostena aurkeztu zuen atzo Bilbon. [Berria - Ekonomia](#)

Ekoizpenaren [nazioartekotzeak](#) azaltzen du, partez, nazioarteko trukeen dinamismoa. [Koro Navarro](#)

Proposatutako neurriak lau eremutan banatu ditu txostenak, [nazioartekotzean](#), berrikuntzan, enpleguan eta erakunde publikoen estrategiatan. [Berria - Ekonomia](#)

Ikasleak Mondragon Korporazio Kooperatiboa (MCC) atzerrian sortzen ari den lantegietara bidaliko ditugu. [nazioartekotzearen](#) testuinguru berrian hezteko. [Berria - Euskal Herria](#)

[Nazioartekotzearen](#) alde egindako apustuan garrantzirik handiena automobilgintzako osagaien esportazioak duela dio Adegik. [Berria - Ekonomia](#)

1980ko hamarraldiko bigarren erdiko nazioarteko zuzeneko inbertsioen gorakada, aurrenik, europar eta japoniar enpresen ekoizpen-jardueren [nazioartekotze](#) lasterraren ondorio da. [Koro Navarro](#)

Enpresen arteko itun estrategikoak, normalean ikerketa-garapenaren ahalegina bateratzeko egiten direnak, alor honetako halako [nazioartekotze](#) baten adibide dira, baina [nazioartekotze](#) hori herrialde industrializatuetara mugatzen da beti. [Koro Navarro](#)

3 (hitz elkartuetan)

Lan tresnak egokitzea, orain arteko garapen, berrikuntza eta [nazioartekotze](#) mailari ondo eutsi ahal izateko. [Berria - Ekonomia](#)

Globalizazioaren fenomenoak, [nazioartekotze](#) -prozesu horretan, aldaketa da jarraipena baino areago. [Koro Navarro](#)

Soldata desberdintasunen areagotzea; teknokrazia; edota [nazioartekotze](#) politika sozialik eza, besteak beste. [Iñaki Heras](#)

nazioarteratu, nazioartera(tu), nazioarteratzen da/du *ad* nazioartera atera. ik [nazioartekotu](#).

Imitza elkarteak segaren bidea jorratzen, eguneratzen eta [nazioarteratzen](#) jarraitzen du. [Berria - Kirola](#)

nazioarteratze 1 *iz* nazioartera ateratzea. ik [nazioartekotze](#).

Normalean idaztetik itzulpena ez da denbora asko pasatzen (ia bat-batekoa izaten da [nazioarteratzea](#)), munduko argitaletxe ahaldunenek beti baitaukate norbait (scouter bat) hiriburu literario handienetan bertan argitaratzen den produkzioa galbahetik pasatu eta nazioarteko best-seller-aren kutsua izan dezakeen oro segituan bere merkatura inportatzeko. [Berria - Kultura](#)

Kapitalismo nazionalen, erregulazioa keynesianoa ekonomiaren [nazioarteratzearekin](#) bateragarria izan zen, antzeko sistema sozioekonomikoa zuten herrialdeen artean gertatzen zenean nazioarteko elkar-trukea. [Iñaki Heras](#)

Azken urteetako mendebaldeko herrialdeen hazkuntza ekonomikoaren motorra izan dira teknologia berrikuntzak, eta baita, zalantzarik gabe, ekonomiaren [nazioarteratze](#) eta globalizazioaren eragile garrantzitsuak ere. [Iñaki Heras](#)

2 (hitz elkartuetan)

Eguno munduaren berrantolaketan, sistema ekonomiko kapitalistaren hedapen eta [nazioarteratze](#) -prozesuan kokatzen da globalizazioa. [Iñaki Heras](#)

[Nazioarteratze](#) bidean diren kooperatibek politika sozialari buruz aurrez aurre dituzten erronken berri ematen duen Anjel Mari Errasti EHUko lankidearen Dokortetza Tesia. [Iñaki Heras](#)

naziogin *izond* nazioa egiten duena.

Haatik, naziolari forma eman, karakterea markatu, arraza nagusiak bakarrik egiten du, eta hori, arraza [naziogina](#) , bat bakarra izaten da. [Joxe Azurmendi](#)

naziogintza *iz* nazioa egitea.

Euskal Herriaren askapen prozesuan borrokari atxiki bezala, nazio eraikuntzari, hau da, [naziogintzaren](#) auzolanari ere, atxiki nahi zaio. Herri eta nazioa bagara, ordea, eta horregatik biltzen gara hemen, fisikoki batzuk, bihotz eta gogoz besteok, mundu zabaleko nazio parlamentu guztiek egiten dutena egiteko: herrigintza, [naziogintza](#) . [Berria - Harian](#)

Udalbiltzak berak «herri moduan erantzuteko» deia luzatu zien [naziogintzaren](#) aldeko eragile guztiei; «erantzun bateratua» eskatu zien. [Berria - Euskal Herria](#)

Espainiako historia nazio espainolaren eraikuntza sublime bezala irakurtzen da, eta [naziogintzaren](#) heroi handiz beteaz aurkitzen da. [Joxe Azurmendi](#)

nazioka *adlag* nazioen arabera.

Egunen batean, gehiago lortzen ditudanean, [nazioka](#) jarriko ditut. [Joxemari Urteaga](#)

Hego Euskal Herriko tiralariek [nazioka](#) ere tiratuko dute, baina Euskal Herriko Txapelketan garaile izan ziren taldeekin, gizonezkoetan. [Berria - Kirola](#)

Euskal Herriko tiralariek [nazioka](#) ere tiratuko dute, baina Euskal Herriko Txapelketan garaile izan ziren taldeekin, gizonezkoetan. [Berria - Kirola](#)

naziokide *iz* nazio berekoa.

Zeelanda Berriko Canterburyk bost aldiz irabazi du txapelketa; Auckland [naziokideak](#) hirutan (lehen 1996an) eta Australiako ACTk bitan. [Berria - Kirola](#)

Vladimir Balan [naziokideak](#) ere Miarritzen dihardu. [Berria - Kirola](#)

Ea gizakiak, karitate legez, estatu ezberdinetako bere [naziokideak](#) gehiago maitatu behar dituen, nazio ezberdineko bere estatukideak baino? [Piarres Xarriton](#)

naziomania *iz* *adkor* nazioarekiko grina.

Neuri ere barregura ematen zidan euskaldun fededunen [naziomania](#) edo delako horrek, eta barre egiten nuen; ez zegoen gaizki. [Iñaki Segurola](#)

nazional 1 *izond* nazioarena, nazioari dagokiona. ik nazio 3.

Bertan heroi **nazional** bat aurkezten zaigu: Yossef Benami irakasle eta jeneral israeldarra. Joseba Zulaika

Bi guardia **nazional** ziren, Francisco atxilotuta eramateko aginduarekin, autoa lapurtua zelako. Pako Aristi

Ikaskide hura, polizia **nazional** baten alaba, hil zutenean. Mikel Hernandez Abaitua

Milizia **nazional** sartu nahi duten gizonak bilatzen ditut. Elena Touyarou

Biblia **nazional** antzeko zerbitz bilakatu da historia (ideologia **nazionalaren** jariatzaile nagusi). Joxe Azurmendi

Batasun **nazional** baterantz goaz, gerra baino lehen inori bururatu ezin zitzaiona. Lopez de Arana

Zer aterako dugu honetatik, zer askatasun, zer eraikuntza **nazional**, zer ostia... Juan Kruz Igerabide

Durán-entzat [...], ordea, "herriaren arima" arima **nazionala** zentzu politiko nazionalistan da. Joxe Azurmendi

Gorabehera politikoak baino barnago, identitate **nazionala** "birjaiotza" nazional baten berme gisa agertuko da. Joxe Azurmendi

Eta horretara eramaten gaituzte nazioartekotasunaren izenean, Ceutan hasi eta Panticosan bukatzen den nazioartekotasun **nazional** horren izenean, gaztelaniarekin hasi eta espainolarekin akitzen den hizkuntza-nazioartekotasun horren alde egiten dutenek. Pello Salaburu

Volksgeist espainolaren doktrina, krausista bereziki, angustia **nazional** baten espresio bezala ikusten da. Joxe Azurmendi

Euskadi askatzearen aldeko mugimenduak bi arazo nagusi konpondu nahi zituela zioen komunikatuetan, alde batetik **nazionala** eta bestetik soziala. Bernardo Atxaga

Festa **nazional** berria ez da gure herriko herrixka bakar batean ere ospatuko. Elena Touyarou

Combat aldizkarian eta idazleen batzorde **nazional** parte hartuz. Monika Etxebarria

Enpresa multinazional deitzen direnak [...], kasurik gehien-gehienetan, atzerrian jarduten diren enpresa **nazionalak** izaten dira. Koro Navarro

Kapitalismo **nazional**, erregulazioa keynesianoa ekonomiaaren nazioarteratzearekin bateragarria izan zen. Iñaki Heras

Aurrean, nolana ere, Iraultzak ondu nahi zuena: estatu **nazional** edo bakarraren gogoia. bere galtzada puztu eta asfaltatuarekin, errepide **nazional** antza zuen. Andres Urrutia

ik beherago 4. Eskola **nazional** aurrean seguritatekoak jende olatuari eutsi ezinik, kamiseta estu eta baseballeko biserez jantzita. Unai Iturriaga

HBko Mahai **Nazionalaren** espetxeraketa. Pako Aristi

Amaren betiko kaligrafia, gerraosteko eskola **nazional** espainolean trebaturiko letrekin. Joseba Sarrionandia

Monduteguy aitzinetik pasatu zitzaion, herri ordezkarien lagun, guarda **nazional** konpainia baten geriza sendoarekin. Elena Touyarou

Espainiako Literatura Sari **Nazionala** irabaztea. Pello Salaburu

Espainiako Auzitegi **Nazionalak** legez kanpokatuz eta baliogabetzat jo zuen Itoitz 1995. urtean. Eduarne Elizondo

Erretiratu aurretik Liburutegi **Nazional** lan egiten nuen. Juan Garzia

Madrieko Biblioteka **Nazionalera** jo behar izan nuen [nobela] eskuratzeko. Iban Zaldúa

2 (izenondo elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauza politiko-administratibo edo folkloriko-**nazional** gisa. Iñaki Segurola

• 3 (izen gisa N larriarekin) errepide nazionala.

-Lasaai... **Nazionalera** Altea parean irtengo ginela erabaki genuen, ez al zara gogoratzen? Iban Zaldúa

4 *izond/iz pl* 1936-1939-ko gerran, Franco jeneralaren alderdikoa.

Gerra garaian bera sartu zuan Obaban tropa **nazionalen** buru. Bernardo Atxaga

Nork ez zuen sinetsiko Espainia **nazional** Asturiasko dinamiteroek erre zutela Gernika? Lutxo Egia

Mundaka zela Zona **Nazionalera** irteteko hautaturiko lekua. Edorta Jimenez

Marriot, Madrilidik alde egin bezain pronto, eremu **nazionalera** mugatu zen; Caponek, aldiz, sartu-irten egin zuen, baina Gernikakoaz idatzitakoek **nazionalen** etsai bihurtu zuten. Lutxo Egia

Gero gerra etorri zen, eta aitona Terueleko frontearen aritu bide zen, **nazionalen** armadako zapadore-unitate batean. Iban Zaldúa

Nazionalak aurrera egiten zuten geldiezin Gernikarantz. Lutxo Egia

Nazionalekin soldadu, Extremadura eta Madrilgo frontearen ibili zen. Iñigo Aranbarri

5 *nazional-demokrata* (orobat *nazionaldemokrata*) *izond*

Lehen ministroaren aurreneko zeregina, dena den, Alderdi **Nazional demokrata** berritzea izango da. Berria - Mundua

Alemanian Alderdi **Nazionaldemokrata** (*Nationaldemokratische Partei Deutschlands*) 1964. urtean sortu zen. Bernardo Atxaga

6 *nazional-demokratiko* (orobat *nazionaldemokratiko*) *izond*

Inkesten arabera, agintean den Aliantza **Nazional Demokratikoak** behera egingo du eta gehiengo osotik urrun geratuko da. Berria - Mundua

Nabarmentzekoa da, era berean, NPD Alemaniako Alderdi **Nazionaldemokratikoa** eskuin muturreko taldeak igandeko bozetan ustekabean izaniko gorakada: bozen %4,2 lortuta, Legebiltzarrean sartzeko zorian izan da. Berria - Mundua

7 *nazional-esentzialista* (*corpusean nazionalesentzialista soilik*) *izond*

Don Quixote Espainiaren sinbolo **nazionalesentzialista** bat bihurtu da. Joxe Azurmendi

8 *nazional-katoliko* (orobat *nazionalkatoliko*) *izond*

Sinkretismo **nazional-katoliko** horren adibide txiki-txiki bat: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Argi dago bete bete asmatu zutela ideologia **nazional-katolikoaren** iluntasuna irudikatzean. Berria - Kultura

Espainia berri **nazional-katolikoan** behar bezalakoxe Estatu teoria. Joxe Azurmendi

Nazio honen agintariek, intelektualek eta komunikabideek dena ahaztu zuten: indiarren genozidioa, judu eta musulmanen jazarpena, ijitoen esetsaldia, inkisizioa, eta horrela diktadura **nazionalkatolikotik** demokrazia posmoderno eta transabangoardistaraino doan urratsa eman zuen. Berria - Kultura

9 *nazional-katolizismo* (orobat *nazionalkatolizismo g.er.*) *iz*

Ez du horrek erran nahi kristau oro behartua dela Herria helburu hartzera, **nazional-katolizismoa** deritzon espainol edo frantses handi askoren gaitz berean eror baikintzeko orduan. Piarres Xarriton

Oroit atzoko ala gaurko **nazional-katolizismoek** egin desmasiez. Piarres Xarriton

ismo-en sorrera (sindikismoa, sozialismoa, komunismoa, anarkismoa, inperialismoa, liberalismoa eta sozialismo demokratikoak, nazionalismoa eta, geroago, nazionalsozialismoa, faxismoa edota **nazionalkatolizismoa**). Askoren artean

Oroit atzoko ala gaurko **nazional-katolizismoek** egin desmasiez. Piarres Xarriton

10 *nazional-sozialismo* ik *nazionalsozialismo*.

11 *nazional-sozialista* ik *nazionalsozialista*.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

akordio nazional (7); **aldeko estrategia nazional** (4); **alderdi nazional** (23); **aliantza nazional** (5); **aliantza nazional demokratikoak** (4); **batasuneko mahai nazional** (4); **batzorde nazional** (6); **bi guardia nazional** (6)

egunkari nazional (8); **egunkari nazional bat** (5); **erakunde nazional** (7); **eskubide nazional** (4); **estrategia nazional** (10); **guardia nazional** (19); **guardia nazional irakiar**

(4); heroi nazional (4)

ikuspegi nazional (8); kontseilu nazional (5); mahai nazional (17); mahai nazional berria (8); mahai nazional berriaren (4); nazional irakiar (5); nazional sozialista (9)
nortasun nazional (4); plan nazional (4); polizia nazional (5); zentro dramatiko nazional (5)
aginte nazionala (11); akordio nazionala (7); alderdi nazionala (7); aliantza nazionala (4); artxibo nazionala (5); asanblea nazionala (6); auzitegi nazionala (122); batasun nazionala (23); batzar nazionala (18); batzar nazionala egin (7); batzorde nazionala (5); bloke nazionala (4); dibisio nazionala (4); dolu egun nazionala (4)
egun nazionala (15); ekimen nazionala (4); ekitaldi nazionala (4); eraikuntza nazionala (10); erakunde nazionala (13); ereserki nazionala (5); errealtate nazionala (4); eskola nazionala (15); espainiako auzitegi nazionala (29); espainiako sari nazionala (11); estrategia nazionala (4); euskal eskola nazionala (11); gazte erakunde nazionala (4); guardia nazionala (10); hezkunde nazionala (4); hezkuntza sistema nazionala (7); historia nazionala (5)
ikuspegi nazionala (8); irakeko kongresu nazionala (9); izaera nazionala (12); komunitate nazionala (5); konferentzia nazionala (8); kongresu nazionala (11); kongresu nazionala alderdiko (5); kontseilu nazionala (10); kontzientzia nazionala (7); liburutegi nazionala (8); literaturako sari nazionala (4); mahai nazionala (15); manifestazio nazionala (15); mobilizazio nazionala (4); mugimendu nazionala (5); museo nazionala (5)
nortasun nazionala (7); palestinar aginte nazionala (10); plan nazionala (4); polizia nazionala (10); sari nazionala (35); sari nazionala irabazi (8); sari nazionala jaso (7); segurtasun nazionala (8); sistema nazionala (14); subiranotasun nazionala (8)
aginte nazionalak (48); alderdi erlijioso nazionalak (6); alderdi nazionalak (12); asanblea nazionalak (12); auzitegi nazionalak (337); auzitegi nazionalak ezarrirako (5); auzitegi nazionalak hartutako (5); auzitegi nazionalak zabaldutako (4); batasuneko mahai nazionalak (23); batzar nazionalak (22); batzorde nazionalak (40)
eeko batzorde nazionalak (4); erakunde nazionalak (4); eskoziako alderdi nazionalak (9); eskubide nazionalak (8); espainiako auzitegi nazionalak (166); espainiako polizia nazionalak (6); guardia nazionalak (26); gutxiengo nazionalak (4); hauteskunde batzorde nazionalak (14); hauteskunde kontseilu nazionalak (6); hezkunde nazionalak (9); hezkuntza nazionalak (8)
institutu nazionalak (10); interes nazionalak (7); irakeko guardia nazionalak (11); konferentzia nazionalak (8); kontseilu nazionalak (14); mahai nazionalak (38)
palestinako aginte nazionalak (48); polizia nazionalak (17)
zentro nazionalak (7); zuzendaritza nazionalak (5)
aginte nazionalarekin (6); palestinar aginte nazionalarekin (6)
aginte nazionalaren (21); akordio nazionalaren (4); alderdi nazionalaren (5); auzitegi nazionalaren (130); auzitegi nazionalaren aginduz (9); auzitegi nazionalaren atariaren (5); auzitegi nazionalaren aurrean (4); auzitegi nazionalaren erabakia (5); auzitegi nazionalaren erabakiak (4); auzitegi nazionalaren esku (16); batasun nazionalaren (5); batzar nazionalaren (4); batzorde nazionalaren (7); bloke nazionalaren (4)
eraikuntza nazionalaren (18); eraikuntza nazionalaren alde (4); eraikuntza nazionalaren aldeko (4); eskola nazionalaren (14); eskoziako alderdi nazionalaren (4); espainiako auzitegi nazionalaren (35); euskal eskola nazionalaren (12); guardia nazionalaren (20)
irakeko akordio nazionalaren (4); irakeko guardia nazionalaren (7); konferentzia nazionalaren (6); kontseilu nazionalaren (8); liburutegi nazionalaren (9); mahai nazionalaren (18); mugimendu nazionalaren (8)
palestinako aginte nazionalaren (21); plan hidrológico nazionalaren (4); polizia nazionalaren (11); segurtasun nazionalaren (5)
aginte nazionalari (15); auzitegi nazionalari (31); batzar nazionalari (5); batzorde nazionalari (4); espainiako auzitegi nazionalari (11); guardia nazionalari (4); palestinar aginte nazionalari (15); segurtasun nazionalari (5); zuzendaritza nazionalari (4)
aginte nazionalen (6); asanblea nazionalen (15); auditorio nazionalen (6); auzitegi nazionalen (249); auzitegi nazionalen aurkeztu (7); auzitegi nazionalen deklaratu (22); auzitegi nazionalen deklaratu (4); batzar nazionalen (22); batzorde nazionalen (5)
egun nazionalen (4); espainiako auzitegi nazionalen (126); guardia nazionalen (6)
irakeko guardia nazionalen (4); konferentzia nazionalen (6); liburutegi nazionalen (7); madrilgo auzitegi nazionalen (7)
palestinako aginte nazionalen (6)
aebetako segurtasun nazionala (4); aginte nazionala (235); aginte nazionala gobernu (4); aginte nazionala gobernu (6); aginte nazionala presidentea (68); aginte nazionala presidentea (11); aginte nazionala presidentetzarako (5); alderdi erlijioso nazionala (4); alderdi nazionala (27); alderdi nazionala buru (5); aliantza nazionala (4); asanblea nazionala (11); askapen nazionala (13); askapen nazionala armada (9); auzitegi nazionala (607); auzitegi nazionala epaile (57); auzitegi nazionala epaileak (79); auzitegi nazionala epailearen (23); auzitegi nazionala fiskal (12); auzitegi nazionala fiskalburu (14); auzitegi nazionala fiskalburua (5); auzitegi nazionala fiskaltzak (12); auzitegi nazionala iturriek (6); auzitegi nazionala presidentea (7); auzitegi nazionala salak (7); auzitegi nazionala zaintza (4); batasun nazionala (40); batasun nazionala gobernu (12); batasun nazionala gobernu (14); batasuneko mahai nazionala (11); batzar nazionala (7); batzorde nazionala (8)
elkarte nazionala (6); entzutegi nazionala (5); erresistentzia nazionala (4); eskola nazionala (4); eskoziako alderdi nazionala (21); espainiako auzitegi nazionala (335); frantziako asanblea nazionala (4); fronte nazionala (6); guardia nazionala (44); guardia nazionala kideak (4); hauteskunde kontseilu nazionala (4); hezkunde nazionala (4); hezkuntza nazionala (5)
institutu nazionala (7); irakeko guardia nazionala (27); irakeko segurtasun nazionala (4); kongresu nazionala (5); kontseilu nazionala (26); kontseilu nazionala kide (4); liburutegi nazionala (5); mahai nazionala (25); mahai nazionala kide (11); mahai nazionala kideak (4)
palestinako aginte nazionala (235); segurtasun nazionala (33); segurtasun nazionala kontseilari (6)
unibertsitate nazionala (8); zentro nazionala (6); zuzendaritza nazionala (8)
auzitegi nazionalera (109); auzitegi nazionalera bidali (4); auzitegi nazionalera deklaratzera (15); auzitegi nazionalera eraman (11); auzitegi nazionalera joan (7); espainiako auzitegi nazionalera (42); zona nazionalera (4)
adiskidetze nazionalerako (6); aebetako segurtasun nazionalerako (4); askapen nazionalerako (14); irango segurtasun nazionalerako (4); segurtasun nazionalerako (56); segurtasun nazionalerako aholkulari (13)
auzitegi nazionala (17); espainiako auzitegi nazionala (8)

nazionaldemokrata ik **nazional 5**.

nazionaldemokratiko ik **nazional 6**.

nazionalesentzialista ik **nazional 7**.

nazionalisma ik **nazionalismo**.

nazionalismo (*orobat nazionalisma g.er.*) 1 iz nazio batek beregintasuna lortzeko duen eskubidea aldarrikatzen duen dotrina edo higikunde politikoa; nazio nortasunaren gorakuntza, norbere nazioarekiko atxikimendu gartsua edo grinatsua; atxikimendu horretan oinarritzen den dotrina, nazioa gainerako gauzen gaintetik jartzen duena. ik **abertzaletasun**.

Erljioaren aitakiaz, fundamentalismora lerratzen diren **nazionalismoak**. Piarres Xarriton

Nazionalismoa erlijio bat da, beste erlijio baten ordeko nahiz beste erlijio baten lagunkide izan daitekeen erlijio bizi-betegarri bat. Iñaki Segurola

Apai z gaiztoa eta espanyar gaiztoagoa, euskal **nazionalismoaren** heriozko doktrinen zabalzaile setatsua, eta egiazko aberriaren kontrako ideien eta Euzcadi izeneko amesgaizto horren ereile ezaguna. Inazio Mujika Iraola

Geroztik, muga guztiak gaindituz, sozialismoaren itzalean lo zeuden **nazionalismo** guztiak jazarri zaizkie Mendebaldeko estatuburuari. Aranzadi-ren testua, kritikoa arrazaren kontzeptuaz baliatzen diren **nazionalismo** guztiak, baita euskaldunarekin ere, bestetik euskal herri-nortasunaren aldekoa da. Piarres Xarriton

"**Nazionalismoa** bidaiaituz sendatzen da" ospetsuaren kontrapuntua botatzen baitzien: "asko bidaiaitugatik ere, ergela beti ergel". Markos Zapiain

Saizarbitorientzat, **nazionalismoa** ezinbestekoa izan da euskarak iraun dezan; aldi berean, euskarak izateko arrazoia eman dio **nazionalismoari**. Markos Zapiain

2 (izenondoeekin eta izenlagunekin)

Gogoan hartu behar da, Menéndez Pelayo eta Pidal-en, krausismoaren, 98ko belaunaldiaren herentzia komuna **nazionalismo** espainol axanpatsu bat izan dela. Joxe Azurmendi

Afrikanerren holandar **nazionalismo** estu eta bortitzaren erupzioak. Iñaki Mendiguren

Irlandar **nazionalismoaren** ereduva ere eraginkorra zen: 1916ko Dublingo Matxinada Pazkoko eredu bihurtu zen aberrianoentzat. Joseba Zulaika

Diru murrizketak; zurruntasun administratiboak eta gehiegizko esku-hartzea; politizatutako sindikalismoa; etia azpizko tokiko erregulazioak; eta azpitzen gatazka sor ditzaketen muturreko **nazionalismoak**. **Berria - Ekonomia**

Han zegoen alde batetik euskal **nazionalismoaren** "Beste" nagusia, espainiar Estatuak. **Joseba Zulaika**

Mentalismo hori eta **nazionalismo** etniko hau lotuz, Volksgeist hitza sortu zen, hots, herri bakoitza bereizten duen espiritu egonkor eta ezberdina. **Askoren artean**

Lauaxetaren mundu erlijiosoa ere, orduko **nazionalismo** sabindarraren harikoa, erabat arrunta egingo zitzaion Etxebarrietari. **Joseba Zulaika**

Horrek bihurtu du Oteiza, Atxagaren ustez, **nazionalismo** esentzialistaren eragile edo zabaltzaile nagusi. **Berria - Harian**

Eta biak **nazionalismo** erromantikoiari jazarri zitzaizkion, ekonomia-aren izenean, bakoitza bere aldetik. **Piarres Xarriton**

Nazionalismo klasikoak subjektuaren mendekotasuna exijitzen du. **Joseba Zulaika**

Geroago indarturiko nazioek, Alemaniak esate baterako, emango zizkioten **nazionalismo** ekonomikoari aldeko argudioak zorrotzenak. **Koro Navarro**

Hitz batez, ETAk zera esaten dio **nazionalismo** historikoari: [...]. **Joseba Zulaika**

Estatu-Nazio horren apostoluek irri egiten dute **nazionalismo** periferikoen etnizismoaz. **Joxe Azurmendi**

Jendea *Architecture à la française* bat bilatzen saiatzera bultzatu nahi zuen **nazionalismo** arkitektoniko anti-italiar baten testuinguruan azaldu zen [...] *De Architectura* jatorrizkoaren itzulpena. **Santiago Iruretagoiena**

Frantziako Lehen Inperioaren historiak erakusten dio, ikusi nahi duenari, zein errazki iragan daitekeen **nazionalismo** harroenetik inperialismo higuigarrienera. **Piarres Xarriton**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **nazionalista**.

Nazionalismo giroan, oso jomuga erraza zela pentsatzen nuen. **Berria - Mundua**

Italian adibidez, "Populuaren Alderdia" gudukatu zen "Faxismoa" deitu **nazionalismo** mota berezi baten aurka. **Piarres Xarriton**

Nazionalismo kontuan, Espainia bera baino ere gogorrago izan da beti Frantzia, berdintzaileago. **Joxerra Garzia**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikusi dugu, K.o. 1918an bakatu ziren ehun urteetan, hizkuntz **nazionalismoak** danubiar habsburgotarren monarkia desegin zuela. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nazionalismo baztertzailaren (3); **nazionalismo berri** (3); **nazionalismo demokratiko** (3); **nazionalismo demokratikoaren** (4); **nazionalismo ekonomikoa** (3); **nazionalismo erradikalak** (3); **nazionalismo katalana** (3); **nazionalismo mota** (5)

euskal nazionalismoa (14)

euskal nazionalismoak (10)

espainiar nazionalismoaren (4); **euskal nazionalismoaren** (33); **nazionalismoaren alternatiba** (10); **nazionalismoaren alternatiba bakarra** (3)

euskal nazionalismoari (4)

euskal nazionalismoaz (3)

nazionalismotik haratago (3)

nazionalismokeria iz nazionalismo gaitzesgarria.

Jokoa joko eta ez bertzerik, ez eta ere sar kirol guzietan behar ez duen nazionalismorik, **nazionalismokeriak** baitira. **Herria**

nazionalista 1 *izon*d nazionalismoarena, nazionalismoari dagokiona, nazionalismoan oinarritzen dena; nazionalismoaren aldekoa. ik **nazionalismo 2**.

Italia bizitzen ari den giro **nazionalista** sutsua ez duk egokiena atzerritar batekin kupitzeko, ezta atzerritar hori alemana izanda ere. **Anjel Lertxundi**

Oinarri **nazionalisten** ganean. **Iñaki Mendiguren**

2 bere herriak edo nazioak beregaintasuna lortzeko edo estatu bat osatzeko eskubidea duelako iritzia duena. **ikabertzale**.

Joseren hizkuntz politika hutsegite negargarria izan zen, eta mugimendu **nazionalisten** lehen astinaldiak eragin zituen, ehun urte baino geroago Habsburgotarren Inperioa zatituko zutenak. **Iñaki Mendiguren**

Gurea ez da iraultza ezkerriar bat; gurea iraultza **nazionalista** bat da! **Pako Aristi**

Horregatik dute halako antza jokaera **nazionalista** batzuek erlijio fenomenoekin. **Bernardo Atxaga**

Bidea errebolta **nazionalista** zen kolonialismoaren aurka. **Iñaki Mendiguren**

Gerra Zibileko nazionalismoaren derrotaren ondoren, lehen aldiz iritsia zen euskal gizarte **nazionalista** erailketa beharkizun politikotzat justifikatzera. **Joseba Zulaika**

Euskal Herriko historia orokor eta nazionala, eta **ez nazionalista**, egin beharra. **Berria - Kultura**

Modu apal batez konplutiko zuen bere kontzientzia **nazionalistarekin**, ziur aski ez zen abertzale sutsua inoiz izan. **Mikel Hernandez Abaitua**

Ortega-rena *Volksgeist* nazional eta espainola da, ona; ez *Volksgeist* **nazionalista** -itxia, agresiboa, etc. **Joxe Azurmendi**

Jarrerarik zentzuzkoena nor bere birus **nazionalista** onartzea da, organismoan bere antigorputzak gara ditzan, osotasuna ondorioz osasuntsuagoa -lasaiagoa- bilakatuko baita. **Markos Zapiaín**

Aitona Miguel berehala atxilotu zuten beste politiko **nazionalista** eta errepublikar batzuekin batera. **Mikel Hernandez Abaitua**

1914ko Gerlako suak itzaltzean, indartu eta batu ziren bi mugimenduak -Errepublikaren aurkako fededun euskaldunena eta abertzale **nazionalistena** - euskaltzaileen batasunak sortuz. **Itxaro Borda**

3 (izenondo elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikuspegi nazional **nazionalista** erabiltzen denean -*Volksgeist*a orduan agertzen da batik bat lehen planoan autoreotan- historiak bilakabide teleologiko miragarri gorakaria dirudi. **Joxe Azurmendi**

Edozein politika burges-**nazionalistatik** urrutiratuta, langile-klasearen interesen defentsan jarri nahi ditu indar guztiak, haren abangoardia bihurtzeko. **Rafa Egiguren**

4 (izan aditzarekin)

Itxia eta atzerakoa da, primitiboa, probintzianoa, agrafoa, karlista edo **nazionalista**, arrazista, terrorista askotan. **Patziku Perurena**

-Ez duzue zertan **nazionalista** izan, zuek, hizkuntza horren barruan aberria duzuenok. **Edorta Jimenez**

Ohiko datu pertsonalak jaso ondoren, zera dio: 1968ko abuztuaren 10era arte jarrera zintzoa erakutsi izan duzula, nahiz eta ideologiaz **nazionalista** izan. euskara zabaldu eta sendotuko bada, heldu da ordua nazionalismoaren eta euskararen arteko lotura hausteko, **nazionalista** ez direnek ere berengana dezaten. **Rafa Egiguren**

-Nik aldaketa hau **nazionalista** dela esango nuke, gure nortasuna galdu genuen egoera batetik baikatuz. **Pako Aristi**

Ikasiko ahal dugu noizbait, liberal edo sozialista baino gehiago **nazionalista** den frantses eta espainol politikari asko badabilela bazterretan! **Piarres Xarriton**

· **Nazionalista** erradikal itsu bat zara! **Joxe Azurmendi**

5 (izen gisa)

Herder anarkistek eta sozialistek ez dute gutxiago irakurri eta maitatu izan **nazionalistek** baino; austro-marxistek eduki dute maisutat eta nazio zapalduetako **nazionalistek** inspiratzailetzat. **Joxe Azurmendi**

Nazionalisten zerrendan aurkezten da. **Irene Aldasoro**

Aberriaren pizkundeak ere gutako asko ez gaitu askorik gogoberotzen, **nazionalisten** eskuetatik badator. **Joseba Zulaika**

Ez dago bi Espainiarik; denok bat gara, denok demokratek eta liberalak (salbu **nazionalista** periferikoak, noski). **Joxe Azurmendi**

Nazionalistek berez hizkuntzari berari ez diote aparteko maitasun edo atxikimendurik, hizkuntzak eragiten duen kontzeptuari baizik. **Iñaki Segurola**

Godua laburra bezain arrantza ona gure mutilek: zortzi euskal **nazionalista**, Españari zioten gorrotoan nabarmen direnak eta hamaika mendigoitzale ondo asko armatuak. **Iñazio Mujika Iraola**

6 ez-nazionalista izond

Familia **ez nazionalista** batetik dator, eta nire mutil koskorretako giroan ere ez zegoen Joxe Mari, Joxe Antonio edo Joxe Miel besterik. **Anjel Lertxundi**
Ikusgarria da, guztion aberri txiki karnalok mespretxatu eta gero, nolako aberri espiritual paregabeak eraikitzen eta defendatzen dituzten **"ez-nazionalista"** "absolutista" "unibertsal" horiek -ideiak, doktrinak, periodo historikoak, debozioko testu sakratuak..., beren aberritxo zerutarrak, beren etetxo ondoan. **Joxe Azurmendi**
Zail da kontra egitea Rubert de Ventos-ek Kataluniako independentziaren alde egindako argudioei, eta ikuspegi **ez-nazionalista** batetik eginak dira hain zuzen. **Joseba Zulaika**
Alderdi nazionalistek eta **ez nazionalistek** sostengatutako gobernuak. **Berria - Euskal Herria**

7 (izen gisa)

Ea **ez nazionalistek** irabazten dugun eta nazionalismoa Ajuria Enetik kanporatzen dugun. **Berria - Euskal Herria**
Nazionalisten eta **ez nazionalisten** arteko akordioekin bizi izan ditu herri honek garairik onenak. **Berria - Euskal Herria**
Nazionalistekin eta **ez nazionalistekin**, independentistekin, soberanistekin, autonomistekin eta zentralistekin. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abokatu nazionalista (3); **alderdi nazionalista** (31); **bloke nazionalista** (24); **bloke nazionalista galiziarra** (5); **bloke nazionalista galiziarrek** (8); **bloke nazionalista galiziarreko** (8); **buruzagi nazionalista** (6); **egitasmo nazionalista** (3); **euskal nazionalista** (7); **koalizio nazionalista** (4); **komunitate nazionalista** (5); **militante nazionalista** (8); **mugimendu nazionalista** (9); **muturreko alderdi nazionalista** (6)
nazionalista bretoioren (3); **nazionalista espainiarra** (3); **nazionalista galiziarra** (5); **nazionalista galiziarrek** (8); **nazionalista galiziarreko** (10); **nazionalista galiziarreko buru** (3); **nazionalista islamistak** (4); **nazionalista izan** (5); **nazionalista izatea** (3); **nazionalista moderatua** (4); **nazionalista moderatuen** (3)
politiko nazionalista (4); **proiektu nazionalista** (4); **talde nazionalista** (7); **talde nazionalista islamistak** (3)
alderdi nazionalistak (27); **asmo nazionalistak** (3); **buruzagi nazionalistak** (5); **cymru alderdi nazionalistak** (7); **euskal nazionalistak** (6); **ezkerreko nazionalistak** (4); **idea nazionalistak** (4); **mugimendu nazionalistak** (8); **muturreko alderdi nazionalistak** (4)
alderdi nazionalistako (14); **alderdi nazionalistako buru** (3); **cymru alderdi nazionalistako** (3)
mugimendu nazionalistan (4)
alderdi nazionalistaren (5); **buruzagi nazionalistaren** (3); **cymru alderdi nazionalistaren** (3); **hamill nazionalistaren** (3); **ideologia nazionalistaren** (4); **mugimendu nazionalistaren** (4)
alderdi nazionalistari (3)
alderdi nazionalistei (3)
alderdi nazionalistek (8); **euskal nazionalistek** (7); **indar nazionalistek** (3); **nazionalistek salatu** (3)
alderdi nazionalisten (8); **euskal nazionalisten** (4); **nazionalisten artean** (8); **nazionalisten batasun** (3); **nazionalisten batasuna** (7); **nazionalisten eta autonomisten** (3)

nazionalitate 1 iz nazio modukoa; nazioa.

Estatutuak nazio bat garela onartzen du, eta ez **nazionalitate** bat Espainiako Konstituzioak dioen bezala. **Berria - Mundua**
Gu alderdi federalista gara, Europak nazioen, **nazionalitatean**, erregioen federazio gisa osatua egon beharko du. **Berria - Harian**
Haren ustez, euskaldunok ez gara etnia bat, **nazionalitate** bat baizik. **Berria - Kultura**
Europar, berriz, Austriako, Turkiako, Errusiako inperioen aurka Italiak, Serbiak, Hungariak edo Poloniak aldarrikatu zuten lehenbizikotz **Nazionalitatean** Printzipio famatua. **Piarres Xarriton**
Eskubide horren bitartez, nazio edo **nazionalitate** bakoitzak bere kabuz erabaki zezakeen berdintasunean beste nazio edo **nazionalitateekin** estatu bakarrean bat egin edo askatasunez bereizi. **Rafa Egiguren**
Ekuadorko **Nazionalitate** Indigenen Konfederazioak horri aurre egin, eta Quito hiriburua hartzeko asmoa iragarri zuen. **Berria - Mundua**

2 nazio batekoa izateko nolakotasuna. ik naziotasun.

Gizonaren duintasunari, bere **nazionalitate**, bere arraza, bere erlijio, bere sexu, bere graduaren gainetik zor zaion errespetua. **Piarres Xarriton**
Bath taldean bost **nazionalitateko** jokalariek dihardute: Ingalaterra, Samoa, Gales, Tonga eta Frantziakoak. **Berria - Kirola**
Leonek galdua zuen **nazionalitate** italiarra, aberrigabe bihurtua zen. **Fernando Rey**
Egina zuen Frantziako **nazionalitatea** erdiesteko eskaera. **Fernando Rey**
1946an amerikar **nazionalitatea** lortu zuen. **Berria - Kultura**
Gaur egun oraindik ere britainiar **nazionalitatea** du Herr Piper-ek. **Joxe Austin Arrieta**
Zazpi **nazionalitate** 32 presoentzat. **Marzel Etxehandi**

3 (hitz elkartuetan)

Eta **nazionalitate** -aldaketa horietatik erlijio- eta klase-aldaketak aztertzeraz igarotzen garenean, aurkitzen dugu hor ere familia dela, eta ez gizabanakoa, unitate ulergarria. **Iñaki Mendiguren**
Garai hartan barruti gutxi zeuden Otomandar Inperioan, beren biztanleria gutxi gorabehera ere homogeneoa zutenak hizkuntz **nazionalitatean**, eta gutxi halaber estatu-kategoriaren hastapenak zituztenak. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekuatorko nazionalitate indigenen (3)
belgikako nazionalitatea (3); **frantziako nazionalitatea** (3)
nazionalitateen printzipio (3); **nazionalitateen printzipioa** (7)

nazionalitatedun izlag nazionalitatea duena.

Aljerian jaioa, Frantziako **nazionalitateduna** eta heziketa judua jasotakoa izan zen Derrida. **Berria - Kultura**

nazionalizatu, nazionaliza, nazionalizatzen 1 du ad atzerritarren esku dauden enpresak bertakoien eskuetara igaroarazi; enpresa pribatuak nazio erakunden eskuetara igaroarazi.

Industria **nazionalizatu** zen, nekazaritza kolektibizatu. **Berria - Mundua**
Biharamunean, Erresuma Batuak eta Frantziak unilateralki inbaditu zuten Sinai, aitzakia faltsu batekin: Egiptok Suezeko kanala legez kanpo **nazionalizatu** nahi zuela. **Berria - Mundua**
Atzerriko enpresek kontrolatzen duten gasa **nazionalizatzearen** inguruko bost galdera egingo dizkiete boliviarreri erreferendumean. **Berria - Mundua**
Erregaiak **nazionalizatze**ko erabakiarekin kezkatuta agertu dira multinazionalak. **Berria - Mundua**
MASek, aldiz, hidrokarburoen produkzioa, merkaturatzea eta garraioa **nazionalizatzea** eta irabazien erdiak Estatuarentzat izatea eskatu du. **Berria - Mundua**

2 (era burutua izenondo gisa)

Industria **nazionalizatu**etako langileek sekula ez zuten pentsatu beren sindikatuak deusezteko edo beren kideen interesak bultzatzeko eskubideari uko egitea. **Iñaki Mendiguren**

3 nazionalitatea eman.

1761ean, Perrault-en frantses erara "**nazionalizatutako**" Vitruvio hark Espainian sor zezakeen interesa erakutsi zigun Joseph Castañeda-k. **Santiago Iruretagoiena**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
erregaiak nazionalizatze (7); **erregaiak nazionalizatze erabakiarekin** (3); **petrolio nazionalizatze** (4)

nazionalizatze iz nazionalitatea ematea.

Errekorte liburu handi bat, azalean **nazionalizatze** agiria itsatsita zeukana, gero ezkontza agiria, Los Angeleseko Konterri osorako balio zuen negozio agiria, greziar armadan ibili zeneko argazki bat, Corarekin ezkondu zen eguneko beste bat [...]. **Pablo Sastre**

nazionalizazio iz atzerritarren esku dauden enpresak bertakoen eskuetara igaroaraztea; enpresa pribatuak nazio erakunden eskuetara igaroaraztea.

Andres Soliz Erregai ministroak **nazionalizazioa** ez dela konfiskazioa nabarmendu zuen atzo. **Berria - Mundua**
Orain arteko **nazionalizazioak** ez dira eragingarriak izan pobre bizi diren herritarren egoera hobetzeko. **Berria - Mundua**
Evo Moralesek gerra egin nahi die Bolivian jarduten duten petrolio enpresa atzerritarrei, eta hidrokarburoen **nazionalizazioa** ebatzi du. **Berria - Ekonomia**
Beste gauza batzuk pintatzeko agindu zidan: Baas-en lorpenak, petrolioaren **nazionalizazioa**, palestinarrek sionismoaren eta inperialismoaren kontra zeramaten borroka. **Juan Kruz Igerabide**

nazionalkatoliko ik nazional 8.

nazionalkatolizismo ik nazional 9.

nazionalki izond nazioaren ikuspegitik.

Durán bera erromantzeroan, literarioki baino gehiago, historiko-politikoki, hots, **nazionalki** interesatzen da, zehazkiago izpiritu nazionalaren historiagatik. **Joxe Azurmendi**

nazionalsozialismo (9 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan; orobat nazional(-)sozialismo 4 agerraldi, 3 liburutan) iz A. Hitler-en doktrina politiko eta ekonomikoa. ik nazismo.

Nazionalsozialismoak erakutsia zidan biguina zor niela agure hura bezalakoei. **Anjel Lertxundi**
1933. urtetik Hitler zegoen agintean Alemanian, eta **nazionalsozialismoaren** indarra gero eta handiagoa zen Europako erdialdean. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Nietzscheren eragina XX. mendeko **nazionalsozialismoaren** garapenean. **Askoren artean**
Hainbat herrialdetan ideologia mundutar berrietara -faxismora, komunismora, **nazional sozialismora** eta antzekoetara- konbertituak aski indartsuak izan ziren gobernuen kontrola hartzeko eta beren doktrina eta praktikak jazarpen erukigabearen metodoez ezartzeko. **Iñaki Mendiguren**
Nazionalsozialismoa boterera heltzeak lehenbizi oztopatu eta gero debekatu egin zuen bere liburuen zabalkundea. **Anton Garikano**
II. Mundu Gerratik landa, **Nazional-sozialismoak** eta haren aldeko Estatu-Nazioek egin desmasiak ikusi-eta, [...]. **Piarres Xarriton**

nazionalsozialista (16 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan; orobat nazional(-)sozialista 13 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan) 1 izond nazionalsozialismoarena, nazionalsozialismoari dagokiona. ik nazi.

Luze gabe, *Völkischer Beobachter* Alemaniako Langileen Alderdi **Nazionalsozialistaren** kazetan argitaratu zuen albistea. **Iñigo Aranbarri**
Oihu egin genuen iraultza **nazionalsozialistaren** alde. **Anjel Lertxundi**
Reich Berriko gertari gaindiezinak eta ideal **nazionalsozialistaren** babesleak. **Alberto Ladron Arana**
Mugimendu **nazionalsozialistako** kide ez denak ez daki zer gerta dakiokkeen bihar. **Josu Zabaleta**
Aski dugu Mustafa Kemal Ataturkek Turkiaren onbideratze larderiaturako ezarri zuen erregimena aipatzea; Mussoliniren erregimen faxista Italian; eta Hitlerren erregimen **nazional sozialista** Alemanian. **Iñaki Mendiguren**
Gerra-makina **nazional-sozialistaren** suntsipen gogorrak. Errusia komunistan ugazaba pribatuen likidazioaren ondoren sindikatuen arauketa etorri zen bitartean, Alemania **nazional sozialistan**, berriz, sindikatuen likidazioaren ondoren ugazaba pribatuen arauketa etorri zen. **Iñaki Mendiguren**

2 irud/hed

Nagalanden independentziaren aldeko borroka izan dira 1956. urtetik hasita, baina azken zazpi urteetan talde independentziazale nagusi Nagalandeko Kontseilu **Nazional Sozialista** (NKNS) su-etenean izan da, New Delhiko gobernuarekin negoziatzen ari baitzen. **Berria - Mundua**

• 3 iz nazionalsozialismoaren alde dagoen pertsona.

Giroa argitu arte -nazioarteko presioek **nazionalsozialistak** kikildu arte, amona Erikaren hitzekin esateko. **Anjel Lertxundi**
Hans, adibidez, harekin lanean ari ziren agente alemanen burua, benetako **nazionalsozialista** zen. **Alberto Ladron Arana**
Handik gutxira Hans **nazionalsozialisten** aldekoa dela konturatzen da. **Josu Zabaleta**
Ez nongoen neure onenean, banekien-eta kontrabandisten, espion eta desertoreen bidea zela, baita **nazionalsozialistengandik** ihes egin nahi zuen judu askorena ere. **Anjel Lertxundi**
Antisemitismo hori ez zen izan **nazional sozialista** alemanak agintera eraman zituen indarretako ahulena. **Iñaki Mendiguren**

nazionaltasun 1 iz nazionala izateko nolakotasuna.

Egunkaria-ren oinarrietan aipatzen den **nazionaltasunak** zenbait baldintza betetzera behartzen gaitu. **Iñigo Aranbarri**
Eskerrak **nazionaltasunak** hainbeste ardura digun... **Iñigo Aranbarri**

2 nazionalitatea.

Istoria ez da Estatu bakar baten eremuan kokatzen edo/eta ez ditu **nazionaltasun** bakarreko pertsonaia biltzen. **Berria - Kultura**
Hala, esku artean, Fischerrek AEBetako **nazionaltasuna** galtzearen posibilitatea daukate. **Berria - Kirola**
Estatubatuarra, gainera, japoniar batekin ezkonduko da, eta japoniar **nazionaltasuna** hartu ahal izango du. **Berria - Kirola**

naziotasun 1 iz nazio batekoa izateko nolakotasuna. ik nazionalitate 2.

Esentzia betikotzat jotzen dute berrehun eta berrogeita hamar urte doi duen Italiaren batasuna, eta **naziotasunaren** kontrakotzat daukate Aostan frantsesa koofiziala izatea.

Anjel Lertxundi

Ageri honen bidez herritarrek euskal **naziotasuna** hautatu dutela adiarazten dute. Herria

SAk eta EAK Euskal Herrian bizi diren herritarrei aitortzen diete euskal herritartasun eta **naziotasuna**. Berria - Euskal Herria

«Herritartasun eta **naziotasun** kontzeptuak ezin dira bereizi» EBkoaren aburuz. Berria - Euskal Herria

Hark Galiziaren **naziotasuna** onartzea nahi dute BNGko kideek. Berria - Harian

Bahia Cochinoseko inbasioan parte hartu zuten zazpi kubatarri **naziotasuna** itzuli die Habanak. Berria - Mundua

Herritarren %67k beren burua «lehenbizi galestar» jotzen dute, **naziotasunaren** inguruan eginiko inkesta baten arabera. Berria - Mundua

Iragana eta **naziotasun** koloniala azaltzen ditu Marc Querrek. Berria - Kultura

-Noel Monks -esan zuen-, kazetaria, **naziotasunez** australiarra. Edorta Jimenez

Iparaldeko euskaltzain guztiok daukagun, gure nortasun agirian idatzirik, nahi ala ez: *nationalité française*; erran nahi baita, euskara garbian, **naziotasunez** frantsesak garaia, ofizialki, guztiok. Piarres Xarriton

Frantsesa bai, frantses estatuaren hiritar edo 'citoyen' naizen aldetik, baina Euskal Herriko seme sortu naizenez geroz, 'nazionalitatez' edo **naziotasunez**, euskalduna.

Piarres Xarriton

Hizkuntzak ematen dio literatura bati **naziotasuna**, ez estetikak. Anjel Lertxundi

Robert Reich-ek dienez 1991, globalizazioaren fenomenoak bere izatean bertan dauka enpresen **naziotasunaren** desagerepenaren ernamuina. Koro Navarro

2 (hitz elkartuetan)

Harreman argirik gabeko **naziotasun** ekimenak, debekatuta. Ondarroan egingo da ekainaren 6an aurtengo **Naziotasun** Eguna. Berria - Kirola

Euskal Herriko **Naziotasun**. Aitormena, euskal herritartasuna adierazteko balio duen ageria da. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal herriko naziotasun (12); naziotasun aitormena (13); naziotasun aitormenaren (3); naziotasun eguna (6); naziotasun egunean (3)

espainiako naziotasuna (3); euskal herriaren naziotasuna (4); euskal naziotasuna (17); naziotasuna aldarrikatzeko (3); naziotasuna du (3)

euskal naziotasunaren (11); naziotasunaren aldeko kanpainaren (3)

nazir iz Testamentu Zaharrean, Jainkoari sagaraturiko soldadua.

Gainera, 'nazir' da Sanson, Jainkoari sagaraturiko soldadua. -Hara, nire burutik ez da inoiz labanik pasatu, Jainkoari sagaraturiko **nazira** bainaiz ni amaren sabeletik.

Jose Antonio Mujika

Ibili kontuz: ez edan ez ardorik ez edari hordigarririk, eta ez jan kutsaturiko ezer, Jainkoaren **nazira** izango baita haurra amaren sabeletik hil arteraino Jose Antonio Mujika

nazireu 1 iz nazira.

Sabelean sortu eta semea izanen duzu; ez edan ardorik, ez beste edari mozkorgarririk, eta ez jan ezer kutsaturik; amaren sabelean sortu eta hil arte, **"nazireu"** izan behar baitu haurrak, hau da, Jaunarentzat sagaratu. Elizen arteko biblia

Ilea motz-motz egingo du **nazireuak** elkarketa-etxolako sarreran eta bere sagarapenaren ezaugarri duen ile moztua elkartasun-oparia erretzen deneko sutara botako du.

Elizen arteko biblia

Profetak sortarazi nituen zuen seme-alaben artetik, eta **nazireuak** zuen gazteen artetik. Elizen arteko biblia

2 (hitz elkartuetan)

Nazireu -garai guztian Jaunari sagaraturik dago. Elizen arteko biblia

Nazireu -botoaren denboraldi guztian ez du ilea moztuko: Jaunari sagaratu baitago, ilea hazten utziko du. Elizen arteko biblia

nazireutza iz naziraren kargua.

Jaunari sagaratuentzat legea: **nazireutza**. Elizen arteko biblia

Nazireutzak dirauen bitartean, ez du mahatsez eginiko ezer jango, ezta haziz edo azalez eginikorik ere. Elizen arteko biblia

nazismo iz nazional-sozialismoa.

Nazismoa gogorarazten du Schultzek: arrazismoa, gizon-emakume ahulak akabatu nahia, agintari klase berria boterera. Karlos Zabala

Kondenamendu berean sartu ditu, barkamenduaren eta bakearen izenean, **nazismoa** batetik eta komunismoa bestetik, giristinoak deituz mundu berri eta hobe baten eraikitzerat. Herria

Posibilitaterik ez al dagoen razionalki eztabaidatu eta behin betiko garbi ebazteko, etikoki eta razionalki demokrazia **nazismoa** baino hobe delako berez eta beti. Joxe Azurmendi

Horrela bada, misio batera abiatzera noan honek ez darabilt gogoan Mendebaldeak **nazismoaren** kontra daraman borroka. Mundu Gerran **nazismoaren** kontra jardun zuten soldadu estatubatuarrek omentzeko. Josu Zabaleta

Simone Weil sindikalista iraultzailea eta marxista kritikoa zen, Espainiako gerra zibilean milizianoa, borroka proletarioan aktibista eta **nazismoaren** biktima. Joxe Azurmendi

Gutunek, Hitlerren boterera iriste hasieran, **nazismoaren** benetako izaera salatzen dute. Ramon Etxezarreta

Nazismotik ihesi Walter Benjamin-ek idatzita utzi zuen dokumentu historiko bakoitza basakeriaren dokumentua ere badela. Askoren artean

Heidegger, Jaspers eta Walter Benjaminen ikasle eta kide argienetarik zelarik, **nazismoari** ihesi Frantziara etorri zen 26 urteetan 1933an. Piarres Xarriton

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nazismoa eta komunismoa (3)

nazismoaren kontra (3); nazismoaren kontrako (4)

nazista izond nazional-sozialista. ik nazi.

Ukan liteke historiaren filosofia bat arrazaren erabilera franko deigarriarekin, eta antirrazista izan (arrazismo **nazistaren** aurkaria kasu honetan). Joxe Azurmendi

Nazistaren aski informazio zegoen Espainian, eta inork edukitzekotan, Ortega-k eduki behar zuen. Joxe Azurmendi

nazizale izond nazien zale dena.

Ez, ordea, batere **nazizalea**, bera. **Pablo Sastre**

· Feuchtwanger-en Oppenheim anaiak irakurria genuen, Frantziatik ezkutuan inportatua, eta ingeles Liburu Zuri bat, Palestinatik etorria, zeinean "izugarrikeria **nazizaleak**" deskribatzen baitziren; erdia sinetsi genuen, baina aski zen. **Juan Garzia**

nazka 1 iz biguina, bereziki goragalea eragiten duena. ik narda.

Eta ez da "inbidia" edo "ezin ikusia", ez: **nazka** da, **nazka** garbi-garbia. **Iñaki Seguro**

Soldaduska eta gerra, Alemania eta Kaiserren alde odola ematerainokoa, noski, orain **nazka** eta botagura eragiten zuen judu odola ematerainoko gerra galdua. **Felipe Juaristi**

Munduak izendatzen ez dakien **nazka** batek puztu zidan bularra, eta izoztu zidan, heze eta astun, bihotza. **Koro Navarro**

Barrenak nahastutako kasta izango gara gu: nahasian dabilzkigu atsegina eta **nazka**, edo **nazka** bete-betea ez bada ere, bai nazka bederen. **Iñaki Seguro**

Baina hitz zehatza ez zen "**nazka**", baizik eta "hozka". **Bernardo Atxaga**

Gizon erdi biluziak eta emakume erdi biluziak lotsa sentiarazten zuten, **nazka**, destainazko errukia. **Jose Morales**

Leporaino nengoen, **nazkak** gaindituta. **Txillardegi**

Ezin gintezkeela beti bizi **nazkaren** uretan ito-ez-ito nekagarri horretan. **Karlos Linazasoro**

Pacok ematen zidan **nazka** amoru birhurtu eta, kanporatu ezean, nigan geratzen zen borborka. **Xabier Montoia**

Jaka jartzen laguntzen dion moduagatik senarra bide duenaren kokots biguina, sabel puztua, **nazka**. **Lourdes Oñederra**

Margaren azalak zurira egin zuen, eta **nazka** zen begietaratu zitzaiona. **Ramon Saizarbitoria**

Oraindik harat, dirudi lur saltzaile batek erostun bat kausitzea, trenkatzeko, ez duela aski izanen, orduan hasiko baitzaizkio asperrak, **nazkak**, gohaindurak eta... loa galtzeak. **Herria**

Hau **nazka**! **Jon Alonso**

A ze **nazka**! **Lopez de Arana**

Eta aghhh!, ze **nazka**, ezta? **Jon Arretxe**

2 (izenondoekin)

Nazka melenga baten moduko zerbait. **Monika Etxebarria**

Izan ere jendeak halakoei **nazka** handia baitzien. **Askoren artean**

Uretan gelditu nintzen, nahiz eta bat-batean **nazka** galanta eragin hainbeste zomorrok, ur uherretako burbuila haiek, eguzkiaren distira ustelak eta, ahoz goraka begiratuta, landarez josia ageri zen zeru hark. **Joxe Austin Arrieta**

Nazka itzela eman zidan jende honen hipokresia eta jauntxokeriak, berokia eta poltsa hartu eta alde egin nuen. **Juan Martin Elexpuru**

Ordu laurden bat aski litzateke, ziur naiz, neure buruarenganako **nazka** erabatekora irits nadin. **Monika Etxebarria**

Neure burua astindu nuen zikinkeria likatsu hura gainetik kentzeko, baina eutsi egiten zion eta hainbeste zegoen, tonaka eta tonaka existentzia, mugarik gabe: **nazka** neurrigabe haren hondoan itotzen nintzen. **Monika Etxebarria**

Bekozkoa ilundu zuen Honorék, **nazka** betean. **Joxan Elosegi**

Eta jende on-onen gizarte onak malko epel gezurrezko bat ixurtzen du mendizale zintzoaren heriotzan, eta **nazka** hotz egiazko bat sentitzen jonki zikin pozoitua, ongi merezita, nirbana tipitik nirbana handi betikora iristatu eta hiltzera etzaten denean, metro pasatxoko hegaldi motz itsusian. **Iñaki Seguro**

3 (aditzen objektu gisa)

Kleraren eta kirol-oinetako zaharren usain nahasia da, ezta irrian trabatu eta **nazka** eragiten didana. **Jesus Mari Mendizabal**

Nazka hori gaintitzen lagunduko zioagu gaur, ez al da hala mutilak? **Anjel Lertxundi**

Nazka baretu zitzaidanean, harekin berriz txortan egin ahalko nuela pentsatzeraino iritsi nintzen. **Karlos Zabala**

Handitu egin zitzaizkion **nazka** eta mespretxua, eta erabakita zeukan koldar hura tiroka garbitzea. **Anton Garikano**

Orduan, zeuen buruaren **nazka** sentituko duzue egindako gaiztakeria guztiengatik. **Elizen arteko biblia**

Lisa ez zen gauza bere harridura eta bere **nazka** ezkutatzeko, antza zenez. **Karlos Zabala**

Nahiz bataz nahiz besteak **nazka** dute azken geltoki. **Josu Zabaleta**

Sinistu nahi nuke asko eta asko garelako ETarekin **nazka** eginda egonagatik ere argi eta garbi daukagunak sorgin-ehiza ez dela konponbidea. **Joxerra Garzia**

ik beherago 8. **Askoren artean**

Militar jende hura **nazka** eginda zegoen osotara, leporaino benetan. **Txillardegi**

4 (hitz elkartuetan)

Kaleak hutsik, dena geldu Lizarran, eta barneko **nazka** olatuak menderatuz, Kale Nagusiko gure bulegorantz abiatu nintzen, pentsakor. Lagundu egiten zien, tarte bat utziz, beren **nazka** aurpegien atzean sorbaldak nola jasotzen zituzten begira. **Txillardegi**

Azkenean hurbildu zen eta usain egin zion erreboilo bati, **nazka** keinu bat eginez, gutxiago ordaindu nahi duten bezero guztiek bezala. irudi Hori saihestu eta **nazka** sentsazioari aurre egiteko. **Karlos Zabala**

Nazka imintzio batez esaten zuen hori. **Karlos Zabala**

Mukizapi bat eskatu nion garbitzeko, eta hatz-puntekin hartu nuen, aurpegiarekin **nazka** imintzioak egiten nituela. **Karlos Zabala**

Beste pixka batean geratu zen han, **nazka** imintzioka plater eta azpilen gainetik. **Karlos Zabala**

Hatsaren eta zerabilen perfume itsaskorraren nahasketa barru-barruraino sartu zitzaion Maizari, **nazka** puntu bat emanez. **Migel Angel Mintegi**

5 nazka eman

Urdaitegiak **nazka** eman zion berriz ere, lehen baino modu jasanezinagoan. **Karlos Zabala**

Nazka ematen didate zure hortzek, zikinak diruditelako. **Ramon Saizarbitoria**

Lore zimelek **nazka** ematen didate. **Lopez de Arana**

Guaiak gara, eta **nazka** ematen digu sub-jende normalak. **Iñaki Seguro**

Nazka ematen dit kaka-lan horrek -esan zuen Jimmyk, astiro hitz eginez. **Lopez de Arana**

· Pena eta **nazka** ere eman ditzakeela edo ematen dituela, lotsa ez ezik. **Iñaki Seguro**

Horregatik, amorrua eman zidan, eta **nazka** ere bai. **Ramon Saizarbitoria**

6 nazka hartu

La Sarriettek **nazka hartzen** zuen beso itsusi haiek urtzen ari zen ore haren erdian nola tematzen ziren ikusita. **Karlos Zabala**

Orduan, babiloniarrek etorri egin ziren berarekin oheratzeko eta kutsatu egin zuten beren lizunkeriez; baina haiekin kutsatu ondoren, **nazka hartu** zien. **Elizen arteko biblia**

Tolerantziari **nazka** hartu genion aspalditxotik, arrazoiz hartu ere, eta orduz geroztik intolerantziari ederretsiak daude askotxo hemen hauetan. **Iñaki Seguro**

· **Nazka** neurotikoa hartu zion. **Jose Morales**

7 –i nazka izan

Janari guztiak **nazka** zieten, eta heriotzaren atarian zeuden. **Elizen arteko biblia**

Arratoi tzarren hozkadak kenduta -zeruak daki nolako **nazka diedan** -, lan hark ez zuen aitzakiarik. **Anjel Lertxundi**

Nazka digute, arrazaz, eta berragin ez dago eragierik. **Edorta Jimenez**

Gure amonak sekulako **nazka zien** animaliei, eta bere onetik ateratzen zen katuren batekin jostaketan ikusten gintuen aldiro, esanez eritasunen bat harrapatu eta gero berari kutsatuko geniola. **Fernando Rey**

8 nazka-nazka egin

Hortxe segitzen duzu goma-puska lehor bati koxk eta koxk, harik-eta **nazka-nazka** egin eta, ahoan ezin edukizko karkaxa lodi gogortu baten pare dela sentituz, ahotik kanpora bota duzun arte. **Iñaki Seguro**

Danek telefonoaz **nazka-nazka** egin egon behar du. **Patxi Zubizarreta**

Nazka-nazka egin da nongoen pertsona informatua izateaz. **Juan Luis Zabala**

Erretorika gaien jantzia, berehala gaineratu zuen filosofo ingelesak iritzi hori erromatarrena zela, tiraniaz **nazka** eginda zeudenean. **Esteban Antxustegi**

Bizimodu zikin honetatik **nazka-nazka** eginda nagok. **Lopez de Arana**

Nazka-nazka eginik baleude bezala hasi ziren gero, eta une hobereanean gerarazi zituzten josteta guztiak. **Joxan Elozegi**

Bere etxeko paradisu hura, luzera, **nazka-nazka** egiteko modukoa zen, zakarrago ez esateagatik. **Fernando Rey**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a ze nazka (3); **hau nazka** (9)

; nazka aurpegia (9); **nazka aurpegia jarriz** (4); **nazka eman** (12); **nazka eman zion** (5); **nazka emango** (13); **nazka emango balio** (3); **nazka ematen** (101); **nazka ematen dit** (16); **nazka ematen du** (5); **nazka eragin** (3); **nazka eragiten** (7); **nazka eta higuina** (3); **nazka handia** (4); **nazka handiagoa** (3); **nazka hartu** (3); **nazka izango** (3); **nazka keinu bat** (4); **nazka keinoa** (4)

nazka nazka (55); **nazka nazka egina** (3); **nazka nazka eginda** (43); **nazka pixka** (5); **nazka pixka bat** (5); **nazka sentitu** (3); **nazka sentitzen** (4); **nazka sorrarazten** (3); **niri nazka** (4); **niri nazka ematen** (3); **nuen nazka** (3); **usainak nazka** (3); **ze nazka** (7); **zer nazka** (4)

nazkarik handiena (3)

nazkaz begiratu (3)

nazkagarri (orobat nazkarri g.er.) 1 izond nazka ematen duena, higuigarria. ik nazkante; nardagarri; okaztagarri. (gauzak)

-Ene, bada!, zein gauza **nazkagarriak** esaten dituzun -atera zitzaion Sobakevitxen emazteari. **Jose Morales**

Zu, ordea, hobiratu gabe bota zaituzte, gauza **nazkagarriaren** pare. **Elizen arteko biblia**

Bai, Heriotzak atzapar **nazkagarriak** amarengana hedatu eta haren ilea ukitu zuen. **Matias Múgica**

Eta zertara etorri zinen hiri **nazkagarri** honetara? **Lopez de Arana**

Ospitale hura, dagoeneko eraitzia dagoena zorionez, eraikin zikin, **nazkagarri**, kiratsez bete bat zen. **Josu Zabaleta**

-Hau zorri-zulo zikin **nazkagarri** bat besterik ez duk. **Lopez de Arana**

Beti bazuen hitz **nazkagarriaren** bat guri esateko: [...]. **Mirentxu Larrañaga**

Irakurgai **nazkagarriak**, lizunkeria, birao eta galdukeria sorta kalifikaezinak. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Usain **nazkagarria** sudurreraino iristen zitzaidan, ito behar ninduela. **Josu Zabaleta**

Batek daki zer-nolako zaborrez eginiko edabe **nazkagarri** bat asmatzen du. **Jose Morales**

Janari **nazkagarria** eman zidatek gaur bazkaltzeko, ondoezik zeukaat oraindik sabela. **Jose Morales**

Ronen aurpegiak kolore berdexka **nazkagarri** bat hartu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Guztiak Betazalik Gabeko Begiaren ikur **nazkagarria** zeramaten, suarekin markatuta. **Agustin Otsoa**

Lanbide **nazkagarria**, baina ezizena erabil dezaket... **Lopez de Arana**

Igoera amaierarik gabekoa iruditu zitzaion Merryri, zentzurik gabeko bidaia amesgaizto **nazkagarrian** barrena. **Agustin Otsoa**

2 (pertsonak eta animaliak)

Antiokiar hirirtasuna zuten jerusalemendar batzuk bidali zituen Jason **nazkagarriak**. **Elizen arteko biblia**

-Ganorabakoa izateaz gain, zitala eta **nazkagarria** ere bada -oldartu zitzaion Ulinka, bizkor-. **Jose Morales**

Ondo merezita zeukan ateo **nazkagarri** horrek. **Lopez de Arana**

-Ni fideista egolatra **nazkagarri** bat; zu, putakumea. **Karlos Linazasoro**

Zenbat gezur eta hitz-erdi, eta dena puta **nazkagarri** honekin joateko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Bai, auto-istripuan hil ziren, gezurti **nazkagarri** hori. **Iñaki Mendiguren**

Marikoi **nazkagarria** Sokrates hura, hori besterik ez zen, marikoi astakirten **nazkagarria**. **Karlos Zabala**

Sartu eta mota guztietako narrasti eta piztia **nazkagarrien** irudiak eta Israel herriko idolo guztiak ikusi nituen horman marraztuta. **Elizen arteko biblia**

Madarikatu hori, Snaga, zizare **nazkagarria**! **Agustin Otsoa**

Euli **nazkagarri**z inguratuta bizi nahi badu, hori bere hautua da. **Hasier Etxeberria**

-Zomorro likatsu **nazkagarriak** -esan zuen. **Koro Navarro**

Arkakusoa bezain zirikatzailea, mandeulia bezain **nazkagarria**. **Jon Alonso**

Oin azpian zapaltzeko adorerik gabe zomorro **nazkagarri** bat dakusanak sentitzen duen higuin-sentipen ezin azalduko horrekin. **Jose Morales**

Oihanetan zehar irudi ilunak ibili ziren, odola zainetan izozten zuten izaki **nazkagarriak**. **Agustin Otsoa**

3 (izen soila izan eta kideko aditzekin)

Emazteari berari ere **nazkagarri** zaio nire arnasa, higuigarri natzaie neure odolekoei. **Elizen arteko biblia**

Esku hura **nazkagarria** zen ikusteko. **Josu Zabaleta**

Sikhtarrei, berriz **nazkagarri** zaie hindutarren mila eta mila jainko, ikono, irudi eta pintura. **Gotzon Garate**

Egia zen aurpegiari itsasten zitzaion eta bizi **nazkagarri** bihurtzen zuen kirats lurrinsu, zahar eta heze hori. **Jose Morales**

Itxurazale soila izatea, **nazkagarri** eta amorragarri gertatzen baitzaizu luzean. **Pello Zabala**

Orduan, janaria, jakirik goxoena ere **nazkagarri** gertatzen zaio. **Elizen arteko biblia**

Jainkoak gizonari eman zizkioan gauzetatik zein **nazkarrigo**, musuak baino -erantzun zidan, ezpainak zerbeztatik hurbilago errukitik baino. **Pako Aristi**

4 (izena artikularekin izan eta kideko aditzekin)

Boterea barberoaren hatzak bezain **nazkagarria** da. **Harkaitz Cano**

Van Daan senar-emazteak **nazkagarriak** dira. **Josu Zabaleta**

"Pobreak **nazkagarriak** dira", idatzi zuen brutalki Louis Ferdinand Célinek. **Bernardo Atxaga**

Pikutara dantzaldiak, **nazkagarriak** dituk, ez zetoza bat errusiarron senarekin. **Jose Morales**

Aurre egiten zaienean koldar **nazkagarriak** baino ez dira. **Koldo Izagirre**

Izugarria da, sarritan pertsona horrek ez baitu batere kulparik, baina bat-batean **nazkagarria** iruditzen zaizu, ezin duzu jasan haren ahoari darion kiratsa, ezin duzu jasan haren ilearen usaina. **Karlos Zabala**

Hurrengo goizean, esnatu zenean, gelako anabasa inoiz baino **nazkagarriagoa** eta jasangaitzagoa suertatu zitzaion. **Harkaitz Cano**

5 (izen soila bestelako aditzekin)

Eta ikusten duzun horrengo aldi, Emily, hau esaiotzu nire partez: berriro horren **nazkagarri** etortzen bada, kalera botako dut. **Lopez de Arana**

Ez da ez dizudala eskertzen, ez da puruak txarrak direla, baina... -ziztrin eta **nazkagarri** sentitu zen. Jon Alonso

Gorrotagarri eta **nazkagarri** egin zaizkizun haien esku utziko zaitut. Elizen arteko biblia

Eta ideia hor da, orduan ere hain **nazkagarri** egin zitzaidan masa handi zuri hori: lau urte ziren berriz ez nuela ikusi. Monika Etxebarria

Eguna guztiz argitu zuen, eta gela are **nazkagarriago** eta zikinago agertu zen. Jose Morales

Fisikoki gero eta **nazkagarriago** zegoen. Jasone Osoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kirats nazkagarri (3); **usain nazkagarri** (3)

agure nazkagarria (3); **benetan nazkagarria** (3); **janari nazkagarria** (3); **kirats nazkagarria** (4); **nazkagarria da** (20); **nazkagarria iruditu** (4); **nazkagarria iruditzen** (6); **nazkagarria zen** (12); **usain nazkagarria** (5)

gauza nazkagarriak (3); **nazkagarriak dira** (4)

nazkagarrikeria 1 *iz* gauza nazkagarria.

Gogoan dut koktel bereziak jarri zirela modan, zein baino zein xelebreaokak: esnea pippermint-arekin, garagardoa patxaranarekin eta horrelako **nazkagarrikeriak**. Xabier

Mendiguren Elizegi

Leo Blom Jopie de Beer-en lagun mina da, eta haren **nazkagarrikeria** guztiez kutsatua. Josu Zabaleta

Hori ez da naturala; hori, hori... erokeriaren eta **nazkagarrikeriaren** zuloan sartzea da hori. Xabier Mendiguren Elizegi

2 egintza nazkagarria.

Nongo putetxetan ikasi zuen hori? Haren emaztea izan nahi, eta nola ausartzen zen horrelako **nazkagarrikeria** egitera, urdangarik ziztrinenaren pare? Karlos Zabala

Norbait koinatarekin ezkontzen bada, **nazkagarrikeria** egiten du. Elizen arteko biblia

Sallie Springer-ek sekulako **nazkagarrikeriak** esaten ditu, eta dagoeneko neska batekin oheratua omen da. Josu Zabaleta

nazkamen *iz* nazka, nazkatzea.

Etsia hartutako edo **nazkamen** kosmikoak harrapatutako pertsonak. Iñaki Segurola

nazkante 1 *izond adkor* nazkagarria. (gauzak)

Ez duk horregatik txorabiatzen, Lubis, erretzen dituen zigarro **nazkante** horiek gaizkitzen ditek. Bernardo Atxaga

Turismo bulego **nazkante** horietako panpin rubia bati. Patziku Perurena

Irribarre **nazkantea** bizar koipeztuaren gainean, kubata basoa eskuan eta nire bularretara so. Sonia Gonzalez

Ikusi behar zenuen nolako irriño **nazkantea** egiten zuen zure defendatzailea omen zenak! Koldo Izagirre

Iparraldetik haizerik ez badator, eguzkia **nazkantetik** nazkagarrira pasatzeko zein guti behar den jakin dut gaur. Berria - Kirola

2 (pertsonak eta animaliak)

"Atso **nazkantea**", pentsatu nuen. Fernando Rey

Manina edo Vanina delako anorexiko **nazkante** hark "Porco Dio" oihuka eman zuen afal aurreko koktel garaia, harik eta esku errukitsu batek piszinara bultzatu zuen arte.

Patxi Iturritegi

Nazkante hori denbora guztian dabilkio zelatan. Patxi Iturritegi

Eta bidal ezak **nazkante** hau hemendik ostiko bat emanda. Koldo Izagirre

-Nazkantea alaena! Jon Muñoz

-Salatari **nazkantea**! -ulu egin zuen-. Agustin Otsoa

Esan ezak garbi esan behar duana, **nazkantea**! Xabier Paya

Luth, arin, txakur **nazkante** hori gelditu behar dugu! -oihu egin zuen Golek txakurraren atzetik korrika abiatzearekin batera. Joanes Urkixo

Angel señorita horietako batekin etorri zunan Iruainera inork ikusiko ez zuelakoan, eta ari zunan hor larrua jotzen eta zaldia irrintzika, bera jo eta jo eta zaldia irrintzi eta irrintzi, ez uzten zaldi **nazkanteak** larrua lasai jotzen, eta halako batean, bazekinagu Angel ez dela oso gizon lasaia, hartu pistola eta danba buruan, eta zaldia isilik betiko.

Bernardo Atxaga

nazkarri ik nazkagarri.

nazkatu, nazka(tu), nazkatzen 1 *da ad* nazka sentitu; gogaitu. ik **nardatu**.

Guretzako hitzak ez dira apaletan albatzeko hartxuri pollitak; geure hatsez edo herdez zikindutako kristal biziak baizik; eta haiekin osatzen dugu geure ispilua, eta hartan geure burua sumatzean, harrotu, **nazkatu**, edo ikaratu egiten gara. Patziku Perurena

Hilabete pasatu orduko **nazkatu** zen, ordea: «ia behingoan gure etxea/bizitzeko lez dagoen, edo banandu egingo gara/bertara heldu baino lehen». Berria - Kultura

Nazkatu naiz bukaera tristea duten ipuin alaiak. Lourdes Oñederra

Azkenean, **nazkatu** nintzen, eta alde egin nuen zulo horretatik. Iban Zaldúa

Liburua hartu nuenean, uste nuen gerra kontuekin **nazkatuko** nintzela. Patziku Perurena

Telebista ikusteaz **nazkatzen** denean, autoa hartu eta Atlantic City-ra joaten da. Oskar Arana

• 2 du *ad* nazka eman; gogaitu.

Egia esan, Herodotoren estilo klasikoak ezin lezake inor **nazkatu**. Patziku Perurena

Baina epel zarelako eta ez bero, ez hotz, botagura emateraino **nazkatzen** nauzu. Elizen arteko biblia

Honek bereziki kezkatzen gintuen, eta **nazkatzen** eta etsitzen. Jon Alonso

Ez zaitut gehiago ikusi nahi, **nazkatu** nauzu. Aritz Gorrotxategi

Sexuak **nazkatu** eta aspertu egiten du, eta lo orduak kentzen dizkio. Luis Elberdin

Gauza bera aldi askotan egiteak **nazkatu** egiten du. Berria - Kultura

Horrelako pedantekeriek nekatu eta **nazkatu** egin dezakete bat baino gehiago. Koldo Zuazo

Horditu, akitu, **nazkatu** egin naute hedabideek, eta izan dut gauza xebreak ikusteko paradarik. Iñigo Aranbarri

· **Nazkatuta** ninduten, leporaino beteta, egunero tratatu behar nituen artista, idazle, musikari, aktore, zinema edo antzerki zuzendari, bertsolari, dantzari eta abarrek. Juan

Luis Zabala

3 (aditz laguntzailerik gabe)

Eta ez egun batean edo bitan, edo bost, hamar edo hogeai egunetan bakarrik, hilabete osoan baizik, **nazkatu** eta botaka hasi arte. Jose Antonio Mujika

Eta drogen ondotik hiesa etorri zen, sarraskia ekarri zuen madarikazioa; banan-banan garbitu zituen gazte deserteruak eta ez-konformeak, politikaz etsia hartutakoak, utopia iraultzaileez **nazkatuak**. Juan Kruz Igerabide

Basomutil lanaz gain, hire txantxak entzuteaz ere **nazkatzen** hasia nauk -erran nion. Alberto Ladron Arana

Dena den, ordurako asko eta asko hasiak ginen indarkeriaz **nazkatzen**. Alberto Ladron Arana

Nazkatua nago zure lehengusinak sendatzen! Fernando Rey

Nazkaturik nagok hirekin -arin urrundu zen, urrats handiak eginez. Agustin Otsoa

Nazkatua nago zezen, bildots eta akarren odolaz. Elizen arteko biblia

Bizitzaz **nazkatu**rik nago Esaturen emakume hitiar horiengatik. Elizen arteko biblia

Benetan esaten diat, Joe, herri honetako jendea **nazkatuta** zagok gerrako heroiez. Lopez de Arana

Begira, zangoak zabaltzen ibiltzeak **nazkatuta** nauka, diru polita ematen badit ere uzteko irrikan nago. Migel Angel Mintegi

Topaleku edo, nik liburu-denda bat jarri nion, tabernez **nazkatu** samarrik. Xabier Mendiguren Elizegi

Banekien aldi batez ezingo nituela beso biluzi horiek, galtzarbeetako orbanak eta ilearen eroriko nagia nire gogotik erauzi, behin eta berriz gogoratuko nituela neure burua ere **nazkatzeraino**. Joxean Agirre

Zer mitifikatzen da gure artean **nazkatzerainokoan**, bertute zelta horietek ez badira? Patziku Perurena

4 (era burutua izenondo gisa)

Eta protesta moduan sortu dira zerrenda asko ere: *Zerga Gutxiago* eta *Automobilista* **Nazkatuak**, adibidez. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nazkatua nago (5)

egoeraz nazkatuta (3); **gizartea nazkatuta dago** (4); **nazkatuta dago** (6); **nazkatuta dagoela** (5); **nazkatuta daude** (5); **nazkatuta nago** (23); **nazkatuta nagok** (5); **nazkatuta zegoen** (8); **pixka bat nazkatuta** (3)

nazkatzen hasi (4); **nazkatzen hasia** (14); **nazkatzen hasia naiz** (3); **nazkatzen hasia nintzen** (3); **nazkatzen hasita** (5)

neandertal ik neanderthal.

neanderthal (14 agerraldi, 2 liburu eta 8 artikulutan; orobat neandertal 9 agerraldi, liburu 1 eta 6 artikulutan) iz erdiko Paleolitoan bizi izan zen gizaki mota, sendoa, motza, baraila-irtena eta kopeta-txikia zena.

Neanderthalek ere mintzatzeko gaitasuna ukan zezaketela adierazi zuen Naberanek. Berria - Euskal Herria

Jorge Oteiza eta **neanderthalak** izanzen dira Ziburuko Harriaren Herriak jaialdiaren protagonistak. Berria - Kultura

Ez nuke bidegabekeria jokatu nahi egiazko **neandertalekin**, baina parentesi bat egin nahiko nuke hemen istorio bat kontatzeko. Karlos Zabala

Neanderthal gizakia agertu zen unetik hasi eta *homo sapiens* agertu zen urtera. Berria - Gaiak

neba 1 iz emakumezko batentzat, senide arra. ik anaia.

Zure amatxoren **neba** da Tom, badakizu; eta ni, osaba. Oskar Arana

Karmenen **neba** Txominek ez zuen umerik. Xabier Montoia

Maitemindua nago nire **neba** Rodolfoarekin, eta beti egongo naiz. Karlos Zabala

Amonaren **neba** Algie saiatzen zen ni ustekabean harrapatzen magia egitera behartzeko. Iñaki Mendiguren

Nire **neba** da; berak nahi ez badu ere jakin dadin. Juan Garzia

Jakin ere ez nik, anartean, Hannak **neba** bat zuenik. Joxe Austin Arrieta

Zorigaitzez, gure aita hil egin zen eta ama, **neba** eta hirurok egin ginen erresumaren kargu. Patxi Zubizarreta

Eta han atzean, nire **neba** nagusia zagok, handiekin. Eskarne Mujika

Nire **neba** txikia Uil da. Juan Kruz Igerabide

Lotsagarria izango zela **neba** apaizgaiarentzat emagalduta izandako arrebarekin bizitzea. Gotzon Garate

Ez nion esan bere **neba** nintzenik. Eskarne Mujika

Hirekin joango nauk, **neba** -esan zion gazte livoniarrak. Karlos Zabala

-Emaidak eskua, **neba** nirea! -esan zion. Karlos Zabala

Ezti-mamitan egoten nintzen ipurdia altxatzen zidanean, eta behor gazte bizia bihurtzen nintzen nire **neba** basa-zaldia estaltzen ninduean. Karlos Zabala

2 bular neba

Husain Kirxa zuen gogoan, **bular neba**. Patxi Zubizarreta

Jainkoak nahi izan zinan hura hire **bular neba** izatea. Patxi Zubizarreta

3 ezkon-neba ik ezkoneba.

4 neba-ahizpa (5 agerraldi, 4 liburu eta artikulua 1ean) pl

Nora Langen oroitzapenak ez dira gozoagoak: «Nik hamahiru urte nituen, eta gurasoekin eta **neba-ahizpekin** bizi nintzen [...]». Rahab, beronen aitamak, **neba-ahizpak** eta ahaide guztiak etxetik atera eta israeldarren kanpalekutik kanpora utzi zituzten. Berria - Euskal Herria

Urte batzuk doi bete orduko, begietako bristada nabarmenarengatik berezi zen bere **neba-ahizpengandik**. Juan Garzia

5 neba-arreba (84 agerraldi, 44 liburu eta 17 artikulutan; orobat nebarreba 9 agerraldi, 2 liburutan; cf anaia 2 325 agerraldi, 84 liburu eta 92 artikulutan) pl anai-arrebak.

Zazpi **neba-arreben** arteko laugarrena. Unai Elorriaga

1946ko zezeilaren 15ean jaio zan, Laukizko Matzerrota izeneko etxean, 10 **nebarrebaren** artean zaharrena. Xabier Amuriza

Bere gain hartu behar izan zuen lau **neba-arreben** ardura. Berria - Harian

Seme-alabak Venezuelan zituen, eta **neba-arrebak** Donostian. Ramon Saizarbitoria

-Jakin berri dut -sartu nintzen tartean ni- **neba-arrebak** zaretela. Juan Garzia

Beraz, **neba-arreben** arteko ezkontza besterik gabe desegina gelditu zen. Gotzon Garate

Erabat ziur nago elkarrekin konpontzen diren **neba-arrebak**, osaba-ilobak eta izeba-ilobak, aita-alabak eta ama-semeak, ad infinitum, askoz ere gehiago direla gure hipokrisiak onartzen duena baino, eta ez dago arrazoirik bestela izan behar duela esateko. Karlos Zabala

Neba-arreba horiek (Hansel eta Gretel) hirira etorri dira amari tratamendu psikiatriko on bat jarriko dioten esperantzan. Harkaitz Cano

6 neba-arrebatasun neba-arrebak izateko nolakotasuna.

Aitzitik, horrek, gizakien arteko **neba-arrebatasuna** eta justizia ipiritua zabaldu eta gizartearen harmonia orokorra bermatzen du. Andres Urrutia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amonaren neba (3); **ezkon neba** (6); **neba arreba** (13); **neba arrebak** (35); **neba arrebek** (4); **neba arreben** (16); **neba arreben arteko** (7); **neba arrebez** (3); **neba arrebok** (3);

neba gaztea (4); neba maitea (4); neba nirea (7); neba txikia (4); nire neba txikia (3)
nebak eta ahizpak (3)
ezkon nebaren (6)

nebarreba ik **neba 5**; **anaia 5**.

nebatxo *iz adkor* neba.

Bere kezkak azaldu zizkidan: amarekin eta **nebatxo** batekin bizi omen zen. **Gotzon Garate**
Nebatxo maitea, oparitzen dizkizut nire arropa guztiak, zora zaitez haien lurrinean. **Koldo Izagirre**

nebulosa 1 *iz* izar-lainoa.

NASAren arabera, atomo horiek eguzkia sortu aurreko **nebulosaren** konposaketa gordetzen dute. **Berria - Gaiak**
Gure eguzki-sistema partikularra ez baita Esne Bidean izar-hautsezko orban txiki bat baizik, eta Esne Bidea bera ez da *ci-devant* **nebulosa** bat baino gehiago, sugarrezko jaiotzatik azken errauspenerako bidean doazen milioika **nebulosen** artean. **Iñaki Mendiguren**
Gure sistemako munduak, gure familia txiki honetakoak, eguzki **nebulosatik** banan-banan askatuz joan ziren gasezko eraztun primitiboak globotan kondentsatzeaz sortuak direla. **Josu Zabaleta**

2 irud/hed

Pentsamendua, bere hartan hartua, halabeharrez ezer mugaturik ez dagoen **nebulosa** baten gisakoa da. Ordurako jada urteak zeramatzan, zure amak esaten zuen bezala, **nebulosa** hartan sartua. **Isabel Arrigain**
Askotan, azken urteetan batez ere, bazirudien zuen bisitaldiak ilusioa baino areago enbarazu egiten ziola, zuen presentziak bere **nebulosa** hartatik errealitate gordinerara etorraraziko balu bezala. **Jokin Muñoz**

nederlandar (*orobat neerlandar g.er.*) *izlag/iz* holandarra.

Klubak liburu zoragarri bat oparitu dit, **Nederlandar** sagak eta elezaharrak, baina nahastu egin dira eta bigarren liburukia oparitu didate; horregatik lehenengo liburukia aldatu dut, beste bi libururen truke. **Josu Zabaleta**
Geroago **Nederlandar** Indietara joan nahiko zukeela esan dit, hango nekazaritza sailetan bizitzeko. **Josu Zabaleta**
Abenduko gertaerek Cayenneko presonegira eraman zuten, baina handik ihes egin eta bi urtez ibili zen Guyana **nederlandarrean** batetik bestera, itzultzeko gogo biziaz eta polizia inperialen beldurrez. **Karlos Zabala**
Oso autore gutxiak zabaldu dute nazioartean literatura **nederlandarra**, Haassek bezala. **Berria - Kultura**
Michael Boogerd eta Erik Dekker dira **nederlandarren** aukera garrantzitsuenak. **Berria - Kirola**
Eta nola kontatuko zenieke jendarmeei... -pauza egin zuen, esatera zihoanaren eragina indartzeko... zirgarietako batek kontatu didan **nederlandar** herratuarena? **Anjel Lertxundi**
Nederlandar herratuaren biktima izatetik, ezin hilez bizirik dabilen neskatza herratua dela sinestera pasatu da! **Anjel Lertxundi**

nederlandera (*orobat neerlandera g.er.*) **1** *iz* Holandan eta Flandesen mintzatzen den hizkuntza germaniarra. ik **flandesera**.

Batzuetan, dialekto bati hizkuntza izena eman zaio literatura bat sortu duelako; hori da hain zuzen portugesa eta **nederlandarren** kasua. **Isabel Arrigain**
Ingeles irratiak hamarretako emanaldian, alemanez, **nederlandaraz**, frantsesez eta beste hizkuntza batzuetan: *The invasion has begun*, egiazko inbasioa hasi da, beraz. **Josu Zabaleta**
-Ez dakit ondo ari garen, Mathilde... -esan zion **nederlandaraz**, ahots mardul batez, kokotsa ukabilaren gainean jarri eta gero. **Anjel Lertxundi**
Pim-ek (horrela deitzen baitiot orain aitari) **nederlandera** irakastea nahi du. **Josu Zabaleta**
Dusselek oso gaizki hitz egiten zuen **nederlandaraz**. **Josu Zabaleta**
Ordainketa beste eskola batzuk emanez, **nederlandarazkoak**, adibidez. **Josu Zabaleta**
Lehendabizi **nederlandarrik** ingelesera Nelsonen azkeneko guduari buruzko paragrafo bat itzuli dit. **Josu Zabaleta**

2 (hitz elkartuetan)

Nik gustura emango dizkiot **nederlandera** eskolak, berak frantsesean eta beste gai batzuetan ematen didan laguntzaren ordainez. **Josu Zabaleta**

neerlandar ik **nederlandar**.

neerlandera ik **nederlandera**.

nefrektomia *iz* ebakuntza kirurgikoa, giltzurrun bat osoki edo partzialki erauztean datzana.

Gaur egun, giltzurruneko minbizi lekutua dutenei organoa kentzen zaie **nefrektomia** azkenerako. **Berria - Gaiak**

nefritiko *izond* giltzurrunarena, giltzurrunari dagokiona.

Hurrena koliko **nefritiko** batek behartuta berriro ospitaleratu eta handik itzuli zenean iruditu zitzaion emaztea gaztetaldi berri batek igurtzi zuela! **Pako Aristi**
28 urteko mutil gazteak koliko **nefritiko** bat jasan zuen Vega de Urrielluko aterpe batean zegoenean. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
koliko nefritiko (3)

nefrologo *iz* giltzurrunaren gaitzetan espezialista den medikua.

neftalitar

iz Itun Zaharreko Naftaliren leinuko kidea.

Hori izan zen **neftalitarren** ondarea, senitarteka banatua, aipaturiko hiri eta herrixkak barne. **Elizen arteko biblia**

Neftalitarren buruzagia Enanen seme Ahira izango da. **Elizen arteko biblia**

Ni izaten nintzen, maiz, festaburuetan Jerusalemera joaten zen **neftalitar** bakarra, Israel osoarentzat betiereko legez arautua dagoena betetzera. **Jose Antonio Mujika**

negal ik negel.

negar

(*orobat nigar g.er.*) **1** iz malko guruinei darien isurkaria, begietatik ateratzen dena.

Jeremiasen **negarra**. **Elizen arteko biblia**

Liskar, **negar** eta urduritasun horiek halako tirandurak eta nekeak eragiten dituzte. **Josu Zabaleta**

Negarra, sentimenduen adierazpen gisa, bestea konpromisoan jartzen duen gehiegikeria iruditzen baitzait. **Ramon Saizarbitoria**

Hobe **negarra**, irria baino; begitartea goibel egon arren, bihotza ondu egiten baita. **Elizen arteko biblia**

Ezintasuna beste behin, eta **negarra** eta kulpaa. **Luis Elberdin**

Dena zen barau, dena **negar** eta intziria; eta haietako asko zaku eta errauts gainean etzan ziren. **Jose Antonio Mujika**

Dena intziri, dena txilio eta **negar**. **Harkaitz Cano**

Egunak badoatzi, **negar** eta irri. **Herria**

Baina mirari berri batek **negarra** poz bihurtu zien eta dolua bozkario. **Askoren artean**

Dolua kantu bihurtu zien eta **negarra** bozkario. **Askoren artean**

Negarra eta hortz-karraska izango dira han. **Elizen arteko biblia**

Negarrez egon zela ere pentsatuko zuen, hura bezalako aurpegi ederrean **negarra** posible balitz-. **Agustin Otxoa**

Asko kostatu zait, izerdí eta **negar** asko kostatu zait honen aske izatera iristea. **Josu Zabaleta**

Hasierako kolpeak, ukabila itxita, masaila bete-betean jo bazizkion ere, hurrena ukaldi indargabe sarriak eman zizkion, **negarrak** amorrua baretu izan balio bezala, eta azkenerako, ukabilak itxita, bular gainean batera erortzen utzi zituen, aieska bihurtuta **negarra**. **Inazio Mujika Iraola**

-Zure begietan **negarra** bezalakoa dago... **Juan Kruz Igerabide**

2 (izenondoekin)

Miskaren **negar** isilek lotinanta hil egin zela adierazi zuten. **Pablo Sastre**

Negar isil eta sakona. **Pako Aristi**

Beste serbiar biak ere **negar** mutu malko gabeko batean direla dirudi. **Edorta Jimenez**

Itsuen **negar** mututua. **Patziku Perurena**

Eta zoriona zer da, munduan geure lekua badugula aitortzen digun **negar** bihurria baino? **Pako Aristi**

Eta negarrari eman zion segidan, sentimenduz blaitutako **negar** inozo bati. **Anjel Lertxundi**

Eta zoriona zer da, munduan geure lekua badugula aitortzen digun **negar** bihurria baino? **Pako Aristi**

Marga ez da **negar** erraza duten emakume horietakoa, baina begiak busti zitzaizkion. **Ramon Saizarbitoria**

Eta barre zein **negar** errazekoa naiz. **Arantxa Iturbe**

Euskaldunok ordea, **negar** zaileko jende noblea omen gara. **Patziku Perurena**

Trajea kuxtaren sakonetik atera, naftalinez astindu eta atzera ere etxera eraman zuten non Eduarda andreak, ohe ondoko **negar** kontsolaezina etenez, bi ordu eman zituen eskuliatzen. **Bego Montorio**

Borrokari ari zaizkit poz negargarriak **negar** pozgarriekin, eta ez dakit nor irtingo den garaile. **Imanol Unzurrunzaga**

Minutu bat geroago, sudurpean odol **negar** mehe bat zuela itzuli zen, hats-goitika. **Aingeru Epaltza**

Han, inork ikusten ez zuelakoan, **negar** bizian lehertu zen, begiak iturri. **Karlos Zabala**

Alazne **negar** urdurian hasi zen. **Fernando Morillo**

Heriotzaren lagun diren **negar** mingotsak. **Xabier Amuriza**

Negar ezti nasaia isuri zituen Eusebiak, poltsotik eskuratutako musuzapi zuriaz txukatu zituenak. **Josu Landa**

3 (aditzekin)

Goizeko ordu txikitetan, auzo guztia lotan eta ni, berriz, umearen **negarra** isildu ezinik. **Arantxa Iturbe**

Izan daiteke sonajeroa, haurraren **negarra** mututzeko aspaldiko tresna. **Andoni Egaña**

Umearen **negarra** lasaitu ezin dugunean, egun batetik bestera, ni izateari utzi, eta ama bihurtu gaituztela konturatzen garenean. **Arantxa Iturbe**

Oraingoan negarrez hasi zen emakumea, eta **negarra** baretu eta gero ere ez zuen besterik esan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gotzone, bitartean, ikaragarri lanpeturik dago kanpadendan, honi loturak aldatzen, horri termometroa ezartzen, hari **negarra** ezitzen... **Aingeru Epaltza**

- **Negarra** aterako zaidak. **Koldo Izagirre**

la **negarrak** irten behar zigun barrez. **Josu Zabaleta**

-Hire heriotza ziztrina hutsaren hurrengo duk, egin didaan mina estaltzeko -esan zion, **negarra** zeriola. **Juan Kruz Igerabide**

Negarra irentsi egiten genuen, edabe mingots bat bezala. **Juan Kruz Igerabide**

Zotin sor eta luze batzuk egin ondoren, **negarra** eten zen eta sorbaldek dar-dar egiteari utzi zioten. **Jose Morales**

-Argisientian nentorrelarik nire ardiekin, **negarra** ikusi dizut begietan. **Anjel Lertxundi**

Ez dakit umeren bat negarrez ote zihoan; hala balitz, abestiak **negarra** itotzen zuen. **Julen Gabiria**

Ez dizuet **negarra** galaraziko, malko guztiak ez baitira txarrak. **Agustin Otxoa**

Behin baino gehiagotan, udako gaueetan, Kako-okarren malkoen iturria ireki zuen, haren **negarra** azalaraziz. **Julen Gabiria**

Baso itxian nembilela, otsokume baten **negarrak** entzun nituen. **Jon Maia**

Kendu egingo dio Jaunak pozbide zuen jendetza ugaria, harrokeria **negar** bihurtuko zaio. **Elizen arteko biblia**

Eta haiek bota zituzten **negarrak**! **Daniel Landart**

-Astelehen goizaldeko laurak arte, **negarrek** itotzen ez bagaituzte. **Edorta Jimenez**

Halako batean berriz esnatu zuten haurraren **negarrek**. **Koro Navarro**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zure eguzkia ez da behin ere jaitisiko, ez eta zure ilargia gordeko ere, ni, Jauna, izango bainauzu zeure argi betiko, eta amaituak izango dira zure **negar**-egunak. **Elizen arteko biblia**

Hara, badator **negar**- eta samin-eguna, atsekabe- eta tristura-eguna! **Askoren artean**

Luzaz egon zen **negar**-jarioa eten ezinda. **Lopez de Arana**

Dodovi ere barrez lehertu zitzaizkion hesteak, eta malkotan jarri ginen hirurok handik puska batera, **negar** -irriz. Karlos Linazasoro

Gizon-emakume kantari guztiak aipatzen dute gaurdaino Josias beren **negar** -kantuetan. Elizen arteko biblia

Entzun, Israel herri, zuregatik abesten dudan **negar** -kanta hau: [...]. Elizen arteko biblia

Inor ere ez zen gauza poz-oihuak eta **negar** -hotsa bereizteko. Elizen arteko biblia

Egia esan, euskal zera guzietan, lotsa ematerainoko **negar** dunduri zuria besterik ez dut sumatzen. Patziku Perurena

Betel inguruan ehortzi zuten [Debor] arte baten pean; Jakobek "**Negar**-Arte" eman zion izen arteari. Elizen arteko biblia

Emazteak eta seme-alabek, senide eta adiskideek **negar** -itxurak egiten dituzte. Askoren artean

Munillaren umeen **negar** -saio bukagaitzek esnaturik. Txillardegi

Hau **negar** - eta samin-unea izango da anaiantzat eta beste askorentzat. Askoren artean

Negar iturria urrituz, jaiki nintzen uestez eta Jaungoikoak ez zidala besterik agintzen. Imanol Unzurrunzaga

Negar arrastoak itzalixeak zituen bisaiatik, eta makillaje paratu berriak halako distira bat sorrarazten zion larru-azalean. Aingeru Epaltza

Izan ere, ordurako Peterrek guztiz sinetsita zeukan bizitza osoan **negar** -tantarik ere ez zuela isuri. Julen Gabiria

Hautsontzia mukuru zeukan, eta aurpegia apur bat **negar** -narrastua. Joxe Austin Arrieta

Negar muskila menperatu zuen han, Durangoko Basque Hotel likitsean. Itxaro Borda

Aiak eta hasperenak, intziarik eta nigar **xopinak** . Joan Mari Irigoien

Uilen **negar** -mainek esnatzen ninduten, amonak jaikiarazten zuenean. Juan Kruz Igerabide

Ezin izan dio eutsi begietara etorri zaion aurreneko **negar** kolpeari. Jokin Muñoz

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Aldarte txarrean, asperturik eta haserre, harat-honat ibiltzen nintzen, beti kontu handiz amak nire begi **negar** -gorrituetan ez ziezadan antzeman etsipena. Eduardo Matauko

Aintzineko asteartean Saran, Senpereko bidean, gertatu da ixtripu **negar** egingarri bat. Herria

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarrena adizlaguna delarik)

Oldarrean bildu naiz amaren besoetara **negar** hipaka, eta hari erranez: [...]. Jon Muñoz

Kanpora egin orduko, baina, atzetik joan zitzaion Sara **negar** -hasperenka: [...]. modurik errukigarrienean **negar** -garrasika hasteko zorian zegoen. Joan Mari Irigoien

Eskuarki **negar** -arrantzaka jarduten zuen arren, gizasemeak irrikatsu inguratzan zitzaizkion laster batean adore ematera eta kontsolatzera. Mirentxu Larrañaga

Txitxikov ikusi bezain laster, lurrera bota zituen hala gozoki-papera nola ur-zakurra, eta hortxe hasi zen zakurtzua **negar** -intzirika. Jose Morales

Eta, ileak lazten zitzaizkiola, belauniko jarri, eta **negar** -erreguka hasi zen: [...]. Joan Mari Irigoien

Ordubete igaro eta gero ere, lotuta jarraitzen dute ardiek, oraindik ere **negar** -marraka. Oskar Arana

Ni gidari, Roman aldamentean, eta Karmen atzean, **negar** -adiaka oraindik. Inazio Mujika Iraola

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dikiteako Kuretak gogoratzen dituzte, zeintzuek behinola Jupiterren haur-**negarrak** Kretan ezkutatu omen zituzten. Xabier Amuriza

Emakume-**negarrak** entzuten dira kalean, polizien biraokak. Felipe Juaristi

Berak jakinarazi zizkidan ni ikusteko duzuen irrika, zuen damu-**negarra** eta nirekiko maitasuna. Elizen arteko biblia

Guztiak ikusiko dute, bai eta zulatu zutenek ere, eta lurreko arraza guztiak hileta-**negarra** egingo dute harengatik. Elizen arteko biblia

Etxean betidanik entzun ohi duen mendi-**negarra** politegia zela, gehiegizko fantasia helduen ahotan. Iñigo Aranbarri

Gure arazoimenaren zedarriengatik eruki-**negarren** bitartez. Ibon Uribarri

8 irud/hed

Kantuarren **negarrari** eskusoinu ttar batekin lagunduko zion itsuak. Patziku Perurena

Gero, **negar** -putzu batean ito nintzen, eta utzi egin nion pentsatzeari. Juan Martin Elexpuru

Izerdi **negarrek** kopetan beheiti egiten zidaten. Aingeru Epaltza

Euri-**negarra** izaten zelako, garaitsu honetan, ekaitzen boladak pasa eta gero, euri tikiaren presentziak. Pello Zabala

Euria leihotaen zartaka, eta paretako zira eta aterkien euri-**negarrak** tantaka joan eta elkartzan ziren istil txikitan lurrean. Anton Garikano

Ur **negarrek** orbel azpitik irten eta bidea gurutzatzen dute. Pello Lizarralde

Ezpainen arteko muxua, / kandela **negarra** , / likina, / beroa. Jasone Osoro

9 negarrez ik negarrez.

10 negar anpulu

-Txo, aspaldiko! -esan zidan, **negar-anpuluak** begietan-. Jon Arretxe

Matrailean behera **negar anpulu** batzuk zihoazkion. Unai Iturriaga

Orduan, aspaldiko partez, ama, ahal bezain amultsuki ene bi besoan artean hartu nuen eta gure bi matelek elkar hunki zutelarik, ene **negar-anpuluak** harena busti zuten. Daniel Landart

Eta areago urtu zen **negar anpuluetan** , eskaini zion kanta hasitakoan. Xabier Montoia

Neuk ere, juez guztiok bihotz gogorrenaren izena badugu ere, ezin nien **negar anpulu**ei eutsi. Gotzon Garate

11 negar batean

Negar batean lehertu zen Edith. Koro Navarro

Josek Benjamini lepotik heldu, eta **negar batean** aritu ziren biak besarkaturik. Elizen arteko biblia

Negar batean dihardu, belauniko, edozein momentutan erizaina sar daitekeen arren; eskuan muin ematen dit: ez dut ulertzen. Joxe Austin Arrieta

Nahigabe handiz eta **negar batean** hartu zituzten andak eta mendiaren bestaldetik jaitsi ziren gorputzaren zatiak jaso eta ehorztek. Askoren artean

Harryren ondoan eseri zen; mutikoari begiratu eta **negar batean** hasi zen. Iñaki Mendiguren

Emakume bat aurkeztu zitzaion **negar batean** , zortzi urteko bere semetxoa besoetan zuela. Askoren artean

Egun batean, neskato txiki bat aurkitu dute **negar batean** . Oskar Arana

Erregina zelaira irten zen beste dama batzuekin, **negar batean** , doluka, bere eskutik gizon bat hil zelako. Juan Kruz Igerabide

Andrea, hura entzutean, intziri egin zuen ostera ere, eta aieneka hasi zen, **negar batean** , ihes egin zutelako. Koro Navarro

Haien belaunetara makurtu zen, **negar batean** . Juan Kruz Igerabide

12 negar egin

Negar egin zuen semeagatik. Jose Antonio Mujika

Lagunek ongi etorria eman ziguten, eta **negar egin** zuten bizia galdu zutenengatik. Juan Kruz Igerabide

Zer da ote dolu egitea? galdu dugunari **negar egitea** , agur erraitea. Herria

Negar egiten nuen zutaz orroitzean. Herria

Zergatik **egiten** ote du **negar** ? -galdegin zuen. Patxi Zubizarreta

-Mundu guztiak ez du **negar egiten** ezbeharren bat gertatzen zaionean -esan nion nik. Jon Muñoz

Llumeak **negar egiten** du amorruren amorrux, egindako hutsen damuz, sentitzen duen ezintasunak eraginda. Antton Olano

Poz direnekin poztu zaitezte, **negar dagitenekin egizue** negar. Anjel Lertxundi

Saiatu nintzen **negar** ez **egiten** , ustez nintzen gizona izateko. Jon Muñoz

eginak, hori entzunik, **negar egiteko** zuen saminki. [Juan Kruz Igerabide](#)
Halako gogoia dut... **negar egiteko**! [Josu Zabaleta](#)
Virginiak **negar egiten** zuen ohean ahuspez jarrita, hain isilka non batzuetan bere bizkar-ikarari erreparatu behar nion lo gelditu ote zen jakiteko. [Bernardo Atxaga](#)
Guztiak **negar**, barau eta oititz egin zuten. [Elizen arteko biblia](#)
Senar-berriek antsi egin zuten, emazteek **negar**, ezkon-ohetan eserita. [Elizen arteko biblia](#)
Negartia izan zen beti, aise eta usu **negar egiten** dutenetakoa. [Mirentxu Larrañaga](#)
Herr Haspern zurbil-zurbil zegoen, **negar egiteko** zorian. [Anjel Lertxundi](#)
Utzi ziozu **negar egiteari**, zeharo gaixotu nahi ez baduzu. [Mirentxu Larrañaga](#)
Baina kontra egiten diot **negar egiteko** gogoari, kontra abaildurari, kontra beldurrari. [Anjel Lertxundi](#)
Gauetz, **negar egiten** huen isilean, zotinek gabe, zizpururik gabe; malkoak soilik, besaulkiaren gainera irristan, hotsik gabe, gela partekatu hartan. [Eskarne Mujika](#)
Alberto burumakur itzuli zen, begietatik sua zeriola, **negar eginez** baino amorrak hartua, "mendeku puta, mendeku puta..." esanez behin eta berriz, "zer aterako dugu honetatik, zer askatasun, zer eraikuntza nazional, zer ostia...". [Juan Kruz Igerabide](#)
Bere berezitasun guztien artean deigarriena, eta minik handiena ematen ziguna, bere borrokarako erresistentzia zen, bere **negar egin** ezina. [Bernardo Atxaga](#)
Negar egin nahiaren eta urduritasunaren artean noragabetuta. [Fernando Morillo](#)
Negar eginaren seinale. [Gotzon Garate](#)

13 irud/hed

Barrurantz **negar egitea** bezain ariketa zaila da hori. [Harkaitz Cano](#)
Ura tantaz tanta iragazten da eta perla luzetan **egiten** du **negar** leizeen bobedatik. [Koldo Izagirre](#)
"Harriak **negar egin** lezake" bihotzak gainez egitean. [Patziku Perurena](#)
Triste zaudenean / musikak **negar egiten** du / zure ordez. [Pako Aristi](#)

14 (osagarriekin)

Negar asko **egin** nuen, eta aitak beste horrenbeste. [Josu Zabaleta](#)
Negar gutxiago **egin** zuen han, bere anaiaren ohe hutsaren aurrean egingo zukeena baino. [Karlos Zabala](#)
Baina hainbeste **negar egin** zuen, ezen biharamunean askatasuna bihurtu zion. [Karlos Zabala](#)
Eta, **negar** isila **eginez**, ama zen aldetik pairatu zituen nahigabe eta pena guztiak kontatu zizkion Egor Timofeievitxi. [Jose Morales](#)
Negar samina **egin** zuten haurrek osabari agur egiterakoan. [Gotzon Garate](#)
Horregatik amak **negar** hautsia **egin** zuen arreba zaharrena etxetik joan zenean. [Jon Maia](#)
Dudleyk berehala utzi zion **negar** -plantak **egiteari**. [Iñaki Mendiguren](#)
Horrela **egiten** zuen, bada, erosta eta **negar** gure protagonistak. [Jose Morales](#)
Amak **negarra** besterik ez zuen **egiten**. [Arantxa Iturbe](#)
Gau osoan **negarra** baizik ez dut **egin**. [Jon Muñoz](#)
Han, erreginak **negar** handiak **egin** zituen hura ikusita, eta elkarri hitz gozoak esan zizkieten. [Juan Kruz Igerabide](#)
Hots, haren azken gutuna irakurriz, ezin bukatuzko **negarrak egin** nituen. [Jon Muñoz](#)
A zer **negarrak egingo** dituen Laertes aita zaharrak, a zer **negarrak** Penelope emazteak eta Telemako semeak. [Juan Kruz Igerabide](#)

15 negar eginarazi (17 agerraldi, 12 liburutan)

Nahiago nuke, ahal baniezaio **negar eginarazi**, ahal baneza lurrean zanpatu, eta ahal baniezaio bihotza sentiarazi astun, itzel, eta zornez gaiztotua. [Mirentxu Larrañaga](#)
-Ama, ez iezadazu **negar eginarazi**, heriotz gaiztoari ihes egin berria naiz eta. [Juan Kruz Igerabide](#)
Haurdun nengoenean bihotzak esaten zidan hasita nengoela oraindik aurpegiak ez zuen hura maitatzen; buruak, ezinezkoa zela oraindik ezagutzen ez nuen norbait maitatzea, are gutxiago oraindik izan ere ez zen norbait; eta hormonek **negar eginarazten** zidaten. [Arantxa Iturbe](#)
Errepresioaren erruz hantu biktima nortasuna, nortasun depresiboa da: norberak bere egoeraz negar egin dezake, **negar eginaraz**. [Itxaro Borda](#)
- Alegia, **negar eginarazi** behar nion gaitari. [Pako Aristi](#)

16 negar eragin (16 agerraldi, 12 liburu eta artikulu 1ean)

Negar eragiten zion kea zen dena. [Lutxo Egia](#)
Ez al zidan **negar eragiten** eta hortzak estutzera behartzen? [Alberto Ladron Arana](#)
Ez dizut **negar eragin** nahi, ez dut zure bihotza samurtzeko premiarik. [Ander Irizar](#)
Kristoren nekaldiak **negar eragiten** dio. [Askoren artean](#)
Dolu dut egin izan den guztia; **negar eragiten** didate bizi izan diren guztiak; denbora gelditu nahi nuke, ordua gelditu nahi nuke. [Josu Zabaleta](#)
- Zerua aipatu izanak **eragin** zidan **negarra**, zinez. [Edorta Jimenez](#)
Antzezlan bateko edozerk **eragin** ziezaiokkeen **negarra**: janzki ñimiñoek, maitasun bateraezinak nahiz elkarrekikotasunekoak, limurkeriak, araztasunak, otseinen leialtasunak, ezkontzek, triangeluek. [Mirentxu Larrañaga](#)

17 negar eta negar adlag

Negar eta negar ari da gauean masailak malkoz beteta. [Elizen arteko biblia](#)
Émile belaunikatu egin zuan, **negar eta negar** ari zuan, zotinek bizkarra astintzen ziotean. [Josu Zabaleta](#)
Bizikletara igo eta etxera joan nintzen; hantxe egon nintzen luzaro **negar eta negar**. [Josu Zabaleta](#)
Magali egundainokotan **negar eta negar** hasi zen. [Janbattitt Dirassar](#)
Bere emaztea alboan zegoen, **negar eta negar**, senarrari begira. [Jokin Urain](#)
Baina baita zeharo sentimental azaldu ere, **negar eta negar**, besterik ez baitzuen egiten, nahiz eta, berez, bera matematikaria izan. [Joxe Austin Arrieta](#)
- Anna ohe ertzean eseri eta **negar eta negar** egin zuen. [Lopez de Arana](#)
Umeak **negar eta negar** egiten du, itotzeko zorian, amaberriak antzeman ezin duen zerbaitengatik. [Arantxa Iturbe](#)

18 negar gas

Gutxienez 15 lagun zauritu zituzten, balez eta **negar-gasez**. [Berria - Mundua](#)
Israelgo Armadak zauritutako Hamaseko ekintzaile bat eta manifestari gazte bat hil zirela, baita Hebron herenegun izandako borrokaldirian **negar gasa** irentsi zuen 65 urteko gizonezko bat ere. [Berria - Mundua](#)
Negar gasak jaurti zizkieten ikasleei. Manifestariak molotov koktelak eta harriak jaurti zituzten Turkiako polizien aurka eta hauek erantzun zuten **negar gasa** botata. [Berria - Mundua](#)
Goizeko laurak inguruan iritsi zen Polizia eta, **negar gasak** eta borrak erabiliz, ordu laurdenean bota zituzten ikasleak kanpora. [Berria - Ekonomia](#)
Soldaduek **negar gasak** erabili zituzten ehunka manifestari palestinar zein ezkerreko israeldar sakabanatzeko. [Berria - Mundua](#)
Poliziak manifestariak **negar gasarekin** sakabanatu eta dozenaka lagun atxilotu zituen. [Berria - Mundua](#)
Soldaduek **negar gasak** eta balak erabili zituzten, eta, gutxienez, bost palestinar zauritu zituzten. [Berria - Mundua](#)

19 negar herri

Lurra, "**negar-herri** hau". [Juan Garzia](#)
Negar-herri honetan bizi zelarik, aita dohatsuak arbuatu egiten zituen gizakien ondare diren aberastasun pobreak, eta, aberastasun altuagoen desiraz, pobretasuna irrikatzen zuten bihotz-bihotzez. [Askoren artean](#)

Aita, zu igaroko beste mundura, eta zuri jarraitu dizun familia hau **negar herri** honetan geldituko da bakarrik. Askoren artean
Eta zer egin, euskaldun bakar baten poza ere ezin eraman duen **Negar Herri** euskañol batean? Patziku Perurena

20 negar malko

Aurpegia zurrundauka, **negar-malkoei** eusteko ahaleginagatik. Oskar Arana
Negar-malko garratzak isuriz, esaten zuen: "Neure anaia haserretu dira nirekin". Askoren artean
Negar malko mardul beroak isuri zitzaizkion begietatik. Karlos Zabala
Perlak bezalako **negar-malko** lodiak zerizkion hegaztiari luma distiratsuetan behera. Iñaki Mendiguren
Damuzko **negar-malkoak** isuri? Oskar Arana
Emakumeek zapi txuri bana atera zuten soinekoaren poltsikotik eta **negar malkoak** xukatu zituzten. Felipe Juaristi
Horregatik, nahigabetua daukagu bihotza, **negar**-malko lausoturik begiak. Elizen arteko biblia
Orduan, Jainkoa gorensten zuten kontaezin herrien ahotsa altxatu zen, eta lurbira osoan entzun ziren kantu-hotsak, airea poz-oihuz bete zen eta lurra **negar-malkoz** busti. Askoren artean
Negar-malkoz bustiko zaituztet, Hexbon eta Elale, mahats-biltze eta utzako poz-irrintziak galdu baitira zuenean. Elizen arteko biblia
Lasterka alde egin zuen bere etxerantz, **negar-malko** betean. Mirentxu Larrañaga

21 negar-megar adkor

Buru barneko mamurik beltzenak oldarka, **negar-megar** isil batean egin nuen puska luzea. Aingeru Epaltza

22 negar ontzi ik negarrontzi.

22a negar purpuila ik purpuila 2.

23 negar zotín iz

Patzikuren ohetik **negar zotín** ahul mehe bat itzuri dela sumatu dut. Txillardegi
Hariaren beste puntan **negar-zotín** bat entzun nuen, bihotza erdiratu zidana. Daniel Landart
Eztei-jaia hileta bihurtu zen, eta kantu-soinuak **negar-zotín**. Elizen arteko biblia
Dagoeneko **negar zotínak** baretzen hasiak zituen. Joxean Agirre
Raymonden **negar-zotínak** gero eta bareagoak ziren eta aurki utzi zion dardaraka aritzeari ere. Mirentxu Larrañaga
Negar-zotínei uzten diete hitzek bidea; Llumen aurpegiak ezin du dagoeneko darion tristura ezkatuta. Antton Olano
Axenariok **negar-zotínak** areagotu ditu. Itziar Otegi
Neska negarrez ari zen, Durant jaunak harropuzki zioenez, **negar-zotínekin** bazter guztiak zipriztinduz bezala. Mirentxu Larrañaga
Ivyk berriro ekin zion **negar-zotínari**. Joxe Austin Arrieta
- Haren **negar-xotínak** gogoan ditut oraino. Daniel Landart

24 negar-zotinka adlag

Martin! -esan zion **negar-zotinka** -. Koro Navarro
-Hil egin nahi nuke, hil egin nahi nuke - **negar-zotinka** esan zuen, ahotsa atzamarren artetik jaulkiz. Lopez de Arana
"Zergatik ari zara **negar-zotinka** ?" galdetzen dizutenean, erantzun: laster iritsiko den albiste batengatik. Elizen arteko biblia
Malko mardulak isurtzen zituen orduan, eta **negar-zotinka** ematen zuen ia egun osoa. Jose Morales
Florentek Quenu txikia, hamabi urte besterik ez artean, bakar-bakarrik aurkitu zuen sukaldearen erdian, **negar zotinka**, mahai baten gainean eserita. Karlos Zabala
Koldarrenak dardarka eta **negar-zotinka** ere hasten ziren. Agustin Otsoa
Nire nagusia! -oihuka, ia **negar-zotinka** -. Agustin Otsoa

25 negarra begietan

Hondakinen artean sartu eta **negarra begietan** nuela geratzen nintzen sukaldeko axuleiu sarritan artean ere zuri eta osoei begira. Juan Luis Zabala
Behin piperrauts asko bota zion ogiari, eta zakurra **negarra begietan** heldu zen, atsoarekin batera, emakumearen etxera. Patxi Zubizarreta
Esan bezala, azti afrikarra biharamun iluntzean agertu zen eta, **negarra begietan**, Mustafaren etxea ezagutu nahi izan zuen. Patxi Zubizarreta
Negarra begietan, Ed Thatcher zutitu egin zen, ukabilak hertsirik. Lopez de Arana
Betazal pisu geldoak jasotzen zituenean, emaztea ikusten zuen bere begirakune gaixoarekin, eta alabak, eta semeak, denak ere **negarra begietan**. Patxi Zubizarreta
Aurpegia zeharo zurbiltzen baitzaio, **negarra begietan**, hazpigiak nahasiak, etenik ahotsa, eta jardun guztia egokiturik gogoan darabilen irudira. Juan Garzia

26 negarrari ekin

Mrs. Baldwinek bekokia mahai-ertzean ezarri eta **negarrari ekin** zion. Lopez de Arana
Berriz ere, **negarrari ekin** zion Karmenek, eta errepikatu egin zituen aurreko hitzak. Inazio Mujika Iraola
Beldurturik, **negarrari ekin** diot. Anjel Lertxundi
Negarrari ekin zion agureak, pozak eraginda. Xabier Aranburu
Etsipenezko **negarrari ekin** dio orain, negar-zantzo eta uluka, ahizpak alde egin ondoren. Xabier Paya

27 negarrari eman

Josek, haiengandik urrunduz, **negarrari eman** zion. Jose Antonio Mujika
Jakingo bazenu..., esan zuen amak, eta **negarrari eman** zion. Anjel Lertxundi
Eta Benjamini lepotik helduta, **negarrari eman** zion; negar batean aritu ziren biak, besarkatuta. Jose Antonio Mujika
Ez zion **negarrari eman** kotxean ginen arte, etxera bidean. Fernando Rey
Neure buruaren errukiz **negarrari eman** nahi izan nion, malkorik ez zitzaidan etorri baina. Xabier Mendiguren Elizegi
Umeak ezagutu egin ninduen eta **negarrari eman** zion. Eskarne Mujika
Ergel horiek guztiek **negarrari ematen** ziotek loreak gogoan hartzen dituztenean. Karlos Zabala
Eman diezaiozun **negarrari**, halako aitaren kontsolamendurik gabe gelditu garelako. Askoren artean

28 negarrari etsi

Batzuen saminak besteena eragiten zuen, eta ia inork ezin zion **negarrari etsi**, bakearen mezulari haiek hain saminki negar egiten ikustean. Askoren artean
Ezin **negarrari etsi** eta alde egin behar izan zuen handik. Xabier Montoia
Negarrari etsi ezinik, malkoek aurpegia sutzen zioten neurrian, espartzuarekin dzit-dzat ari zen, baldosaren horia zurituz. Jasone Osoro
Batetik bestera dabilela, sukaldara iristen da Iñake, ia **negarrari etsi** ezinik. Xabier Mendiguren Elizegi
Malkotan gaude biok, **negarrari etsi** nahian. Harkaitz Cano
Eta emakume bat **negarrari eusten**, atearren kontra bermaturik. Juan Garzia
Besarkatu ahal izan duenean, mukiak xukatu ditu **negarrari eusteko**. [...] -agindu zuen, **negarrari** eustiz-. Urtzi Urrutikoetxea

29 tipula-negar

Zeren nahikunde garbi orenen, sentimendu garbi orenen, idealen, eginbeharraren, begirunearen, lotsaren traba "gizatiar" guztia botaz, bizitza horrela -horren basaki- "sinplifikatzaera" behartzen zarenean, orduan ezerk ez dizu higuin eta narda gehiago eragiten kontzientziaren hozkadak baino: **tipula negarrak!** Josu Zabaleta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

barau eta negar (5); **barre eta negar** (11)

egik negar (4); **egik negar** (26); **egin zuen negar** (12); **egin zuten negar** (7); **egiten negar** (14); **egizu negar** (4); **egizu negar** (5); **ez egin negar** (9); **ez negar egin** (5)

intziri eta negar (5); **nahikoa negar egin** (4)

negar anpuluak (6); **negar artean** (5); **negar asko egin** (10); **negar batean** (90); **negar batean ari** (6); **negar batean aritu** (4); **negar batean hasi** (13); **negar baten** (6); **negar bizian** (5)

negar egin (297); **negar egin behar** (10); **negar egin du** (5); **negar egin nahi** (12); **negar egin nuen** (30); **negar egin ondoren** (4); **negar egin zuen** (76); **negar egin zuten** (11); **negar eginarazi** (8); **negar eginarazten** (6); **negar eginen** (9); **negar eginez** (16); **negar egingo** (29); **negar egingo dut** (4); **negar egitea** (22); **negar egiteak** (4); **negar egiteari** (28); **negar egiteari utzi** (20); **negar egiteko** (105); **negar egiteko gogoa** (21); **negar egiteko gogoari** (4); **negar egiteko puntuan** (4); **negar egiteko zorian** (12); **negar egitekoa** (7); **negar egitekoa izan** (4); **negar egitekotan** (4); **negar egiten** (215); **negar egiten du** (18); **negar egiten dute** (6); **negar egiten nuen** (8); **negar egiten zuen** (50); **negar egiten zuten** (15); **negar egitera** (16); **negar egiteraino** (5); **negar egitetik** (9)

negar eragin (4); **negar eragiten** (8); **negar eta aiene** (4); **negar eta barre** (5); **negar eta dolu** (4); **negar eta guzti** (4); **negar eta intziri** (4); **negar eta negar** (23)

negar gasa (9); **negar gasak** (11); **negar hegian** (5); **negar herri** (9); **negar hipaka** (7); **negar hots** (4); **negar hotsa** (6); **negar hotsak** (5)

negar intzirika (9); **negar isila** (5); **negar kanta** (17); **negar malko** (23); **negar malkoak** (33); **negar malkoei** (5); **negar malkorik** (4); **negar malkotan** (30); **negar malkoz** (21); **negar muzinka** (5)

negar oihuka (4); **negar pixka bat** (5); **negar saio** (4); **negar samina** (4)

negar zorian (7); **negar zotin** (31); **negar zotina** (10); **negar zotinak** (28); **negar zotinek** (5); **negar zotinekin** (4); **negar zotinen** (9); **negar zotinen artean** (7); **negar zotinka** (167); **negar zotinka ari** (18); **negar zotinka hasi** (40)

otoitz eta negar (4); **saminki negar egiten** (5); **zenbat negar egin** (4)

amaren negarra (6); **negarra begian** (7); **negarra begietan** (12); **negarra eragiteko** (6); **negarra eragiten** (4)

negarrak begietara (4); **negarrak entzuten** (5)

negarrari ekin (10); **negarrari ekin zion** (7); **negarrari eman** (116); **negarrari eman dio** (6); **negarrari eman nion** (11); **negarrari eman zion** (63); **negarrari eman zioten** (17); **negarrari ematen** (10); **negarrari ematen zion** (4); **negarrari eutsi** (26); **negarrari eutsi ezinik** (9)

ez negarrik egin (12); **negarrik egin gabe** (5); **negarrik egingo** (10); **negarrik egiten** (16); **negarrik ez egiteko** (4)

nigar batean (3); **nigar egin** (24); **nigar egin arazteko** (5); **nigar egin nuen** (3); **nigar egiteko** (5); **nigar egiten** (8); **nigar purpuilak** (4)

nigarra begian (7); **nigarra begietan** (4)

negarbera 1 *izond* negar egiteko joera duena.

Ekintza-gizon ausart bortitzak ziren espioiak, ez ni bezalako musikazale **negarberak**. jende honek sentimenduak gogoturik baitauzka eta ez baita oso **negarbera**.

Alberto Ladron Arana

Ez nuen uste idazlekumeak hain **negarberak** zirenik. **Edorta Jimenez**

Zenbat eta moralina estuagoan hezi, orduan eta irriberago eta **negarberago** jendea. **Patziku Perurena**

2 irud/hed

Mintzo **negarbera** bera dugu Soroarena hurrengo artikuluan ere, Donostiako Loiolatik oraingoan. **Iñigo Aranbarri**

Izan ere, aztoratu egin da eta ezpainak puzten zaizkio, itxura **negarberaz**. **Monika Etxebarria**

negargale *iz* negargura.

Bihotza ilundurik, **negargalea** etorri zitzaion. **Patxi Zubizarreta**

Ospitalerako bidean, **negargalea** sentitu zuen senarrak. **Imanol Zurutuza**

negargaletu, negargale(tu), negargaletzen da *ad* negargalea sentitu.

Negargaletua nintzen. **Matías Múgica**

negargarri (*orobat nigargarri g.er.*) 1 *izond* negar eragiten duena. ik *deitoragarri*.

Berrogeiren bat neska izango ginen, denak koarto handi batean, xentimorik kobratu gabe egun osoan lanean, jatekoa **negargarria** eta leihotik kanpora begiratzea debekatua.

Arantxa Iturbe

Capuccino **negargarri** bana edan ondoren, mahai gainean utzi zuen neska agertu aurretik irakurtzen ari zen egunkaria. **Lutxo Egia**

Badira kontu barregarriak eta badira **negargarriak** ere, eta ez da beti erraza izaten batzuk eta besteak bereizten. **Joxerra Garzia**

Giza hiltzaile eta biraolari hark heriotza **negargarria** izan zuen atzerrian. **Elizen arteko biblia**

Baina hil ziotelarik Andoaingo ekintza **negargarrian** Lopez de la Calle lagun eta irizkidea, berak hartu zuen harroki hark utzitako lekua, eta akabo Yankee zabekidea.

Hasier Etxebarria

Hango higiene egoera **negargarriaren** ondorioz, tifus epidemia bat izan zen. **Josu Zabaleta**

Fede-aitorpen bat idatzi zuen torturei ihes egiteko, baina idatzi ondoren, osasun egoera **negargarriak** ez zion sinatzen utzi. **Juan Martín Elexpuru**

Kobazuloa ematen zuen egitura **negargarriko** pisu zikin eta ilun baten. **Jon Arretxe**

Kalte **negargarriak**, inguruko herri eta auzoetan. **Pello Zabala**

Elizaren inguruan itsutasun **negargarriak** jotako jende-multzoz izugarria ikusi zuen, aurpegia zerurantz zutela eta belauak lurrean. **Askoren artean**

Gero, taxua galdu balu bezala, faltak egin eta egin hasi zen, modu **negargarrian**, eta partida berdindu egin zen. **Koro Navarro**

Frankismoaren eskola publikoan Historia modu **negargarrian** erakutsi ziguten. **Edorta Jimenez**

Agirrek itzulpena euskara «**negargarrian**» eginda zegoela salatu zuen. **Berria - Euskal Herria**

Egoera **negargarrian** zeuden, higuina eragiteraino ikaratuko zuten Wilkie. **Mirentxu Larrañaga**

Hor dauden haurren gorabeherak **negargarriak** izan dira. **Gotzon Garate**

Izan ere, epaileen lana **negargarria** izan zen atzokoan. **Berria - Kirola**

Baina, hori baino okerragoa oraindik, **negargarriagoa** iruditu zaigu Kleiman, Voskuiji eta Bepekin horren zikoitza izatea, haiei ere ez baitie ezer eman. **Josu Zabaleta**

Dena den, hautu **negargarri** ala itxaropen iturri, emaitza hor da. **Herria**

2 (adizlagun gisa)

Negargarri egon ninduan, baina deus ere ez nekian hire lagunaren zeraz... **Aingeru Epaltza**

Handik egun batzuetara egin zuen azterketak txundituta utzi zuen, **negargarri** atera zitzaiolako; nahastuta jaiki zen aulkitik, lotsa-lotsa eginda. **Josu Zabaleta**

Inoiz barre egin dizute makila magikoaz **negargarri** jarduteagatik? **Iñaki Mendiguren**

Asko eta asko euren gorputz erdi-hilak herriko kale eta leku publikoetan arrastatzen eta **negargarri** hiltzen ikusiko zenituen, zikinez eta zarpailez josiak, hezurren gainean azal huts, ultzera zantarrak eta ustelmenak ia lurperatuak. **Xabier Amuriza**

Hor zegok kokxa, **negargarri** egiten diat nik dantzan. **Iñaki Iñurrieta**

Jokalariek nekea nabaritu eta etxetik kanpo **negargarri** jokatu dute. **Berria - Kirola**

Atzo, berriz, Rodríguez Santiago eta bere laguntzaileak aritu ziren **negargarri**. **Berria - Kirola**

Defentsan **negargarri**, eta erasorako gaitasunik ez, diote irratiko tertuliek. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Hoba dok sikurik barregarri... bustita **negargarri** baino. **Unai Iturriaga**

3 *negargarizko izlag* negargarria.

Papagaiak bezala **negargarizko** gustu txar batez jantzita. Purak eta Ernestinak **negargarizko** bidea zeramaten; ez batak ez besteak ez zuten eszenarako dohainik. **Josu Zabaleta**

Utikan **negargarizko** imintziok, eta ekin. **Juan Garzia**

4 *gas negargarri* negar gasa, gas negarrarazlea. ik **negar 18**.

Hainbat gaztek botilak, harriak eta galtzada-harriak jaurti zizkieten segurtasun indarrei eta horiek gas **negargarriarekin** erantzun zieten. **Berria - Ekonomia**

Bertzalde Poliziak gas **negargarria** igorri zion aurpegira Bob Edme argazkilaria, auzitegiaren atarian. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera negargarri (6); **ikusizun negargarri** (3); **negargarri aritu** (3); **negargarri honetan** (3)

egoera negargarria (5); **ikusizun negargarria** (3); **itxura negargarria** (8); **negargarria da** (16); **negargarria iruditzen** (5); **negargarria izan** (14); **negargarria izan da** (3); **negargarria izan zen** (7)

baldintza negargarriak (5); **egoera negargarriak** (3); **lan baldintza negargarriak** (3); **negargarriak dira** (4); **negargarriak izan** (3)

egoera negargarrian (4); **modu negargarrian** (4)

negargura *(orobat nigargura g.er.)*iz negar egiteko gogoia. ik **negargale**.

Barregura eragiten zidan **negargura** baino gehiago. **Ramon Saizarbitoria**

Sekulako **negargura** etorri zitzaidan. **Alberto Barandiaren**

Urrats bat egin eta **negargura** etorri zitzaion. **Anton Garikano**

Anaia zela-eta hunkiturik, **negargaruk** eman zion eta, gelara joanda, negar egin zuen. **Jose Antonio Mujika**

Eta horrek **negargura** ematen zizun, eta ez zenekien zergatik. **Alberto Barandiaren**

Negargura bortitz batek hartu zuen, baina oraingoan eutsi egin zion. **Patxi Zubizarreta**

Negargararen moduko zerbaitek estutzen dizu eztarria eta indarrez besarkatzen duzu Luisen bular gihartsua.] **Lourdes Oñederra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

negargura eman (3); **negargura ematen** (6); **negargura etorri** (4); **negargura etorri zitzaidan** (3)

negarka *adlag* negar egiten. ik **negarrez**.

Hala egon ziren ordu pare batean: bata mutu eta bestea **negarka**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Ez duzue erdibiderik: beti **negarka** matxismoa dela eta ez dela, baina gero, gizonkerietan aritzen ez zaizuen, to, homosexuala! **Aingeru Epaltza**

Uda iritsi zen, eta kurriloak ez ziren joan, jauregi ondoko ibai inguruan segitu zuten oihuka eta **negarka**. **Felipe Juaristi**

Kanpoan, aidaka ari ziren itzainak, **negarka** orga zamatuak. **Aingeru Epaltza**

-Eroa oihuka, min **negarka**, min botaka ari zen, iraganaren bekatuak aitortuz eta aitortu ahala haiek deitoratuz. **Felipe Juaristi**

negarlari *iz* negar egiten duena.

Ur beroz mukurutu bazina hurbilduz, mununu jada **negarlaria** garbitu zuen izebarekin. **Itxaro Borda**

negarño *iz adkor* negarra.

Hori erraitean, Magaliren begitartean loretu zen irriño bat bezala baina denbora berean begi xokoan **negarño** bat ere agertu. **Janbattitt Dirassar**

negarralde *iz* negarra.

Baina, zoaz zu zendako, tiranta batean sartu zuen, egundainokotan **negarralde** gaitza eginik. **Janbattitt Dirassar**

negarraldi *iz* negar egiten den denbora.

Lasaitu nintzen eta baretu zen nire **negarraldia**. **Joxemari Iturralde**

Negarraldi lotua zen, irrintzi ñimiño batzuk besterik ez ziren entzuten arnasarik gabeko eten amaigabe batzuen ondoren. **Josu Landa**

Osaba Kamilenean egindako **negarraldia** doi bat asaskatua zuen, halako baretasun sakon eta goibel batean utzi. **Patxi Zubizarreta**

Irribarre alaia egin du, oinaze arrastorik ere ez, nik uste izandako **negarraldirik** ez. **Juan Martin Elexpuru**

Eroaldiari **negarraldiak** txanda hartzen ziolarik, oheratzen laguntzen zuen, kopeta oihal busti batez freskatu ondoan, eskuak hartzen zizkion, eta emeki mintzaten loak hartu arte. **Elena Touyarou**

Bihotz-zirraragatik lehenago baino aztoratuago, braust eseri nintzen ohean **negarraldi** eder bat egiteko asmoarekin, zintzurrean trabatua izan bainuen hamaika aldiz negargura. **Fernando Rey**

negarrarazle *(orobat nigarrerazle)* izond negar eragiten duena.

Ura botatzeko kanoiak, gas **negarrarazleak** eta plastikozko balak erabili zituzten segurtasun indar turkiarrek. **Berria - Mundua**

Justiziaren ganik neurritz kanpoko zigorrak, poliziaren ganik kolpe, ostiko eta gas **nigarrerazle** ... **Herria**

Hasieran, Poliziak lehergailu **negarrarazleak** botatzen eta kautxuzko balekin tiroka hasi zen, baina bala hilgarriak baliatu zituen gero. **Berria - Mundua**

negarregingarri *(corpusean nigarregingarri eta nigarringarri soilik)* izond ipar negar eginarazten duena, negargarria.

Kanpalekun sartzen ziren gero eta gehiago preso, aliatuek mehatxatu eskualdeetatik zetozenak: jende gaixo **nigarregingarriak**, goseak hilak, hezur eta larru, ardura oinez etorriak edo biziki emeki zebiltzan trenetan, jatekorik gabe. **Marzel Etxehandi**

Bistan da, hori **nigarregingarri** da, enetako gauza mingarrienetarik bat da. **Menane Oxandabaratx**

Legegai berriari buruz, bazituzten alabainan hamar mila emendagailu proposatuak, irringarri ere bailitake ez balitz izaitekotz **nigarringarri**! **Herria**

Zapartingarri ere litake ez balitz **nigarringarri**! **Herria**

negarrez (orobat nigarrez g.er.) 1 adlag negar eginez.

Iritsi ziren, bada, hamabi mirabeak, lantuka eta **negarrez**. Juan Kruz Igerabide
Apaizek, berriro sartu eta aldre eta santutegiaren aurrean zutik, oiuhu egin zuten **negarrez**: [...]. Elizen arteko biblia
Negarrez ari zen: "Kolegioan gaixo jarri nintzenez beste esperantzarik ez nuen, korrika etorriko zinela ni ikustera". Bernardo Atxaga
Magali **negarrez** hipaka ari zen. Janbattitt Dirassar
Zuengatik ari naiz **negarrez**! Jose Morales
Negarrez aritu zitzaidan, den-dena kontatu artean: nola Koronela landetxera agertu zen, eta [...] aitari kontatu zion Charlie Peaceful lapur ziztrin bat zela. Mirentxu Larrañaga
Traizio egin ziola Masakori, esan zidan ia **negarrez**. Bernardo Atxaga
Negarrez hasi, eta zoko batean eseri zen. Jose Morales
Aginte makila lurrera bota, eta **negarrez** hasi zen. Juan Kruz Igerabide
Negarrez ala barrez, zertan hasi behar dugu? Agustin Otsoa
Begiak **negarrez** urtu zitzaizkion. Karlos Zabala
Orduan, emaztea **negarrez** joan zitzaion Sansoni: [...]. Jose Antonio Mujika
Hamar egun lehenago, Rose **negarrez** etorri zitzaion bulegora. Mirentxu Larrañaga
Etxera iritsitakoan, ldoiak kufia erantzi du eta amaren logelara joan da **negarrez**. Eider Rodriguez
Luisak ez zuen inoiz Pedro **negarrez** ikusi, eta orduan ere ez. Jon Maia
Mutilak umea **negarrez** entzun zuen. Koro Navarro
-Ai ene! -erantzun zion Santxok **negarrez** -ez bedi, arren, hil berori, nire jaun hori. Patxi Ezkiaga
Aldamenean esertzen zait: **negarrez** dago. Eskarne Mujika
Negarrez hago, Gabriel Aresti Segurola, eta ez dik axola inork ikusteak. Pedro Alberdi
Ekin eta ekin, berak; ni, **negarrez**. Jesus Mari Mendizabal
Atsekabe honek egun asko iraun zion, eta bitartean etengabe **negarrez** eta intzirika jarraitu zuen, eta Jainkoari erregutuz itzul ziezaiola errukiz bere arimaren senar maitea. Askoren artean

2 erdi negarrez

Ahopena kexatzen eta erdi-**negarrez** hasi zen; eta ia marmarrean ari zen San Frantziskoren aurka, halako lekura ekarri zuelako. Askoren artean
-Oi, Martin! -esan zuen erdi **negarrez** Katalinak-. Koro Navarro
Beti izerditan, beti kexaz, beti erdi **negarrez**. Edorta Jimenez
Eskaileretan behera abiatu zen lasterka eta presaka, nora zihohan jakin gabe, erdi **negarrez** erdi irribarretsu. Aritz Gorrotxategi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

ama negarrez hasi (5); **ari zara negarrez** (11); **ari zen negarrez** (8); **begiak negarrez** (8); **berriro negarrez** (6); **beti negarrez** (6); **erdi negarrez** (18); **hasi zen negarrez** (12); **negarrez ari** (156); **negarrez ari da** (18); **negarrez ari zen** (46); **negarrez aritu** (11); **negarrez aritzen** (5); **negarrez aurkitu** (5); **negarrez egon** (4); **negarrez erregutzen** (4); **negarrez erregutzen zion** (4); **negarrez esan** (5); **negarrez eta alieneka** (5); **negarrez eta intzirika** (7); **negarrez etorri** (5); **negarrez hasi** (241); **negarrez hasi da** (17); **negarrez hasi nintzen** (23); **negarrez hasi zen** (135); **negarrez hasiko** (18); **negarrez hasia** (6); **negarrez hasteko** (32); **negarrez hasteko zorian** (20); **negarrez hasten** (37); **negarrez hasten da** (12); **negarrez hastera** (4); **negarrez hastera zihola** (4); **negarrez hipaka** (30); **negarrez hipaka hasi** (8); **negarrez hipaka lehertu** (5); **negarrez ikusi** (13); **negarrez ikustea** (5); **negarrez ikusten** (4); **negarrez jarraitzen** (10); **negarrez jarraitzen zuen** (5); **negarrez joan** (7); **negarrez urtu** (4); **negarrez urtzen** (5); **negarrez urtzen zen** (4); **negarrez utzi** (6); **negarrez zegoela** (6); **negarrez zegoen** (9); **negarrez zeuden** (4); **denak negarrez** (3); **erdi negarrez** (7); **nigarrez ari** (9); **nigarrez hasi** (13); **nigarrez hasi nintzen** (7); **nigarrez hasten** (6); **nigarrez hipaka** (3); **nigarrez ikusi** (8)

negarrontzi iz adkor negartia.

Mutilak, bere arranguren oihartzuna ikusirik, arrantzen arteko irribarre herabetia egin zuen, baina ez zuen ematen neskari **negarrontzien** sinfonia gehiegi gustatzen zitzaionik, painelua eskatu baitzion mutilari nahiko haserre. Xabier Mendiguren Elizegi
Bihotz bihotzetik diotsuet: zinezko minik ezaren uholdeak arrastaka darama gure **negarrontzi** lohitu, ez baitzuen alferrik esan poetak: malkorik haundienak lohia dira. Patziku Perurena

negarti (orobat nigarti g.er.) 1 izond/iz maiz edo erraz negar egiten duena. ik negartsu.

Atzeko ume **negartiak**, hitz horiek ulertu balitu bezala, are biziago eutsi dio bere negar-saioari. Txillardeggi
Ume **negarti** baten esnelapiko huts sentiarazten nautenean. Arantxa Iturbe
Sekula ez nuen pentsatuko umetxo potolo **negartiak** gustatuko zitzaizkizunik. Iñaki Mendiguren
Aizpeberriko egonaldia borobiltzeko, bere ama egiaz izeba zuela esan zioten, eta izeba **negarti** eta histerikoena benetako ama zuela. Aitor Arana
Abertzale **negarti** haiekin beste kontu bat izan zitekeen, ziur. Edorta Jimenez
Aspaldi erakutsi ziguten baserritarra **negarti** hutsa dela, eta ez dela sobera fidatu behar haren hitzetan. Iñaki Segurola
Faltsua, gezurtia, **negartia**, barregarria, astuna, eta harroputza da. Josu Zabaleta
Pasiloz pasillo, gelaz gela, **negarti** bat kontsolatu, liskarti bi baztertu. Xabier Mendiguren Elizegi
Azkenean, okerrena amaitu denean, begi lausotu eta **negartiez** so egin dut gorantz. Mirentxu Larrañaga

2 irud/hed

Jainkoaren maitasuna maltzurki aipatu zuen limosna eskatzeko, eta ahots **negartiz** Jainkoaren izenean lagun ziezaiotela eskatu. Askoren artean
Johannesez eta Andrésez halako batean ez zioten segitu kondesaren doinu **negarti** mudurriari. Felipe Juaristi
Goiz euritsu bateko Karmenen irudi **negartiak** datozkit gogora. Anjel Lertxundi
Xake liburu nirekin eramateko eskari **negartiari** ere ezentzuna egin zion. Alberto Ladron Arana
Azkenean, dendarri txiki-jatorraren aldeko artikulu **negarti** horiek sinatzen dituztenak, guztiok bezala, autoa hartu, eta hiri-periferian dagoen HiperEroski, Carrefour, Mammouth edo Pryca erraldoirantz abiatzen dira. Iban Zaldúa
Baten bati barkamena eskatzea gauza zaila da, urguilu tematiaren eta damu **negartiaren** artean oreka bilatzeko egintza labaina. Oskar Arana
Mozkorraldiak areagotutako apaltasun **negarti** batez hitz egin zuen gero. Anjel Lertxundi
Eta nago, denboraren buruan, jeltkideen sinbologia berbera jaso ote duen ETA inguruan sortu den abertzaletasun iraultzaile **negartiak** ere. Patziku Perurena
Nahikoa diagu hainbeste **negartirekin**, hainbeste olerkari humanitariorekin. Karlos Zabala

3 (hitz elkartuetan)

Harroputz eta **negarti** tonu batez, gizon bateg, gizon orrietan zaio ari. Xabier Olarra

4 zume **negarti** sahots mota, beheranzko adarrak dituena (*Salix babylonica*).

O, haritza, lizarra eta **zume negartia** Lopez de Arana

Bestetik lore sekulakoak eta itxura eta forma guztietako lore pila zeuden aintzira-bazterretan, baita **zume negartiak** ere non-nahi, hostaila ur barrenean sartuta. Fernando Rey

"Turgeniev"en aurrean, bidearen bestaldean, zelai muttur bat dago, bizpahiru zume **negartik** babesten duten oasi bat zabor kontainerren artean. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tonu negarti (4)

ahots negartiz (3)

negartoki *iz* negarren tokia.

Agur, gure aberri egarriaren azken edantoki gazia; gure oinaze ameskorren ohe hotza; gure gomutasun xamur-xamurren **negartokia**; gure isileko malko goxoak bildu dituen zapi zoriona. Jokin Urain

negartsu 1 *izond* negarrez betea. ik **negarti**.

-Neu naiz -erantzun zion ahots **negartsu** batek. Lopez de Arana

Verlaque andrearen irudia ezin zuen uxatu batez ere, haren ahots **negartsua**, begietan malkorik ez bazuen ere. Karlos Zabala

Isekaz ari zaizkit, baina nik Jainkoari jasotzen begi **negartsuok**. Elizen arteko biblia

Begi urdin **negartsuak** zituen, eta kliskatu eta kliskatu zerabiltzan suaren aurrean. Irene Aldasoro

Begi **negartsuak** ikusi nizkion... Joxe Austin Arrieta

Gizadi **negartsua** sineskeria gupidagabearen mende, zekenkeria, gutxi batzuen handinahia erregeen urre-kutxak eta tronuak giza odoloz tindatzen, isileko traizioak, ageriko txikizioak, [...]. Juan Martin Elexpuru

2 (adizlagun gisa)

Kezka hodei baten azpian makurtu eta, begiak **negartsu** zituela, tailer handi bat ikusi zuen non neska batzuk oihuka ari baitziren Mrs. Soubrineren atzean. Lopez de Arana

Burua jaso zuenean begiak **negartsu** zeuzkan. Migel Angel Mintegi

negartu, negar(tu), negartzen du *ad* zerbaitek eragindako atsekabea negararren bidez adierazi. ik**deitoratu**.

Zirrara handia hartu genuen guztiok; eta mundu guztiak **negartzen** zuen huraxe izan zen negar egin ez zuen bakarra. Jon Muñoz

Xarlesek behin baino gehiagotan auzoko abereak kalitu zituen, jendeek kabalen desagertzea **negartzeaz** beste erremediorik ez zutela. Itxaro Borda

Antzina batean absentzia hura Amona Babyk izan zuen: gogotik **negartutako** semea, haren diruak askatu baitzuen ama. Anton Garikano

negatibitate *iz* negatibotasuna.

Estatu gabeko nazioen erronka hauxe da: nola utzi agindupeko kontzientziaren **negatibitatea** alde batera eta zer egin norberaren esparruan hegemonia lortzeko. Joseba Zulaika

Kausa hori gabetze oro baino askozaz goragokoa dela eta oso goitik urrundu **negatibitate** eta positibitate orotatik. Joan Mari Lekuona

Era errepikarian detektatzen da **negatibitate** hutsaren esperientzia eta adierazpena [...]: hitz batean, Ezerezaren esperientzia da. Joan Mari Lekuona

negatibo 1 *izond* ezezkoan edo ezan oinarritzen dena.

Absolutu **negatibo** bat: "ez". Piarres Aintziart

Froga positiboa eskatzen zuen, froga **negatiboa** aski zelarik. Iñaki Iñurrieta

Dena den, faktore **negatibo** batek garrantzi handiagoa izan dezake sailkapenerako faktore positibo batek baino. Isabel Arrigain

Eta baita libertateak ere, bai libertate **negatiboak** (goserik eta eritasunik ez izatea, kasu) eta bai libertate positiboak (norberak aukera duen bizitza lortzea, kasu). Iñaki Heras

Hegelen erabateko espiriturik eta sintesirik gabeko ezezko historia edota dialektika **negatiboa** hartu zuten kontuan. Askoren artean

Hezigaitza eta managaitza kontzeptu **negatiboak** dira; mutiririk lotsagabezia adierazten du; errebeldea, aldiz, sistema baten kontrako jarrera aktiboa duena da, haren aurrean errebelatzen dena. Xabier Mendiguren Elizegi

Komenigarria da adieraztea gure historia mendealdarrean bertan Teologia **Negatibo** deitu izan den horren tradizio handi bat nabari dela, zeinean Jainkoa Ezereza bezala agertzen eta esperimintatzen baita. Joan Mari Lekuona

Eugenesia **negatibo**, kentzezko horren beste aldean, berriz, eugenesia positibo, hautespeneko dugu, haurrik gogobetekoena izateko ahaleginean oinarritua. Juan Garzia

Baina benetan, liburuaren testuingurua kontuan hartuta, kutsu **negatiboa** ote dauka *Neverland* hitzak? Julen Gabiria

Haurdunaldi testetan gertatu ohi den moduan, testa egin eta 2-3 minutuan jakin daiteke positiboa edo **negatiboa** den. Berria - Gaiak

Ekografiaren emaitza ere **negatiboa** izan zen, esan nahi baitzuen ongi zituela gaixoak gibela, behazun-maskuria eta pankreasa. Imanol Zurutuza

Maimonek Jainkoaren betegintzak era **negatiboan** ulertarazteko darabilen argudioa, ("Bera ez da guk pentsatzen dugun bezain betegina, gure giza izaeraren mugengatik Haren betegintzak diren bezala ulertzeko gai ez garelako") [...]. Xabier Kintana

2 (izen gisa)

EPOa atzemateko WADAren gernu analisiak **negatibo** faltsuak jaso zitzakeela jakina zen, EPOa artifizialki hartu eta analisiak ez atzematea, alegia. Berria - Harian

Proban egin zituzten gemu analisi guztiek **negatiboa** eman dute, UCIren arabera. Berria - Kirola

3 kaltegarria, onuragarria denaren kontrakoa.

Egitasmoan «alde positiboak eta **negatiboak**» ikusten dituztela. Berria - Mundua

Kapitalismoaren bilakaeran sortu diren alderdi **negatiboak** ez dira ez makalak. Iñaki Heras

Inbertsio, aurrezki eta herrialdearen lehia-ahalmenean eragin **negatiboa** duenez, epe jakin batera, herrialde horren ekonomia-hazkundera eragin **negatiboa** izan dezake, eta bide horretatik, baita langabezia ere. Iñaki Heras

Konkurrentziaren printzipioaren egituratze instituzionala, gizarte mailako ondorio **negatiboak** gutxiagotzen dituena. Koro Navarro

Globalizazio prozesuaren handitasunari buruz baino prozesuak sor ditzakeen ondorio positibo edo **negatiboei** buruzko eztabaida hau, are da sakonagoa. Iñaki Heras

Finantza merkatuen globalizazioaren inguruan ez da dena **negatiboa** izan. Iñaki Heras

Ezin da ukatu beharrezkoa dela zientziaren eta teknologiaren (industriarekin elkarlanean) potentzialtasun **negatiboak** (arriskuak) murriztuko litzuketen neurriak hartzea.

Askoren artean

Une horretaraino eutsi diet beldur izpiei, pentsamendu **negatibo**ei, baina orduan bururatzan zait aurki hasiko direla larritasun izpiak agertzen. **Iñaki Iñurrieta**

Onetik aterako ninduen grina hiltzaile, pasio **negatibo** baten menpe. **Jon Alonso**

4 alde on baino txar gehiago dituena.

Kasu guztietan litzateke, noski, egin beharrekoa inbentario **negatibo** hori... **Juan Garzia**

Estrella Bernalekin egin zuen ikerketaren arabera, urtegiaren balantze ekonomikoa "guztiz **negatiboa**" izango da. **Eduarne Elizondo**

Balantze **negatibo** horren eta etsipen horren ordainetan edo, [...]. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Bilakaera **negatiboa** da», azaldu zuen Noriegak. **Berria - Kirola**

Espainiako Justiziaren funtzionamenduaren inguruan EAEko biztanleen %58k iritzi **negatiboa** dutela diote. **Berria - Euskal Herria**

5 ezkorra.

Neurriaren aldekoen ustez [...] kritika horietako asko "gizakiaren ikuspegi oso **negatiboan** oinarritzen dira". **Iñaki Heras**

6 kopuruez, zenbakiez edo kidekoez mintzatuz, zero baino txikiagoa.

Izan ere, antzinateko zibilizazioetan zenbaki **negatiborik** ez zen. **Jon Muñoz**

Al Samaw'alek, berriz, kopuru **negatiboak** erabili zituen, eta berretzaileak kalkulatzeko oinarritzko araua frogatu. **Jon Muñoz**

Zenbaki **negatiboetan**, irrazionaletan, irudizkoetan, eta abar, badago beti ispiluaeren beste aldera joatea. **Jon Muñoz**

Zenbaki baten karratua positiboa da beti, positiboa zein **negatiboa** izan zenbakia. **Jon Muñoz**

Ezin baita kopuru **negatibo** baten erro karratua atera. **Jon Muñoz**

Ez dago logaritmorik oinarria **negatiboa** edo berdin 1 duenik! **Jon Muñoz**

Koordenatu **negatibo**ei oso begi gaiztoz begiratzen zitzairen, bereziki Descartesek; harik eta ingeles batek, John Wallisak, herritartasuna aitortu zien arte. **Jon Muñoz**

Ezer ez edukitzea eta, gainera, zorretan egotea, horra zen den zenbaki **negatiboa**. **Jon Muñoz**

Aste honetan bertan jakinarazi du Alemaniak bere iazko hazkuntza **negatiboa** izan zela, -%0,1ekoa. **Berria - Ekonomia**

7 irud/hed

Izan ere, zeroa da [...] heriotzaren horizontea: ezereza eta atsedena, alegia; depresioarena, aldiz, zenbaki gorriak dira -zeroaren azpitik daudenak, beraz-, ondoeza eta ezinegona ondorio dituztenak eta bizitza zerbait **negatibo** bihurtzen dutenak. **Joan Mari Irigoien**

Saldo horren bariazio **negatiboak** automatikoki urritzen du diru-masa, eta, horren ondorioz, interes-tasek gora egiten dute. **Koro Navarro**

Interes-tasa erreale **negatibo**en biktima izan ziren [hartzekodunak] 1970eko hamarraldian. **Koro Navarro**

Ekimen honek badu, zeharka bada ere, duela ez urte asko arreta berezia jaso zuen errentaren gaineko zerga **negatiboarekin** erlaziorik. **Iñaki Heras**

Hainbat ikerketetan jaso izan da per capita errenta eta umeen lanaren arteko korrelazio **negatiboa**: herrialdea aberastu ahala behera egiten du lan mota horrek. **Iñaki Heras**

8 zerbaiten alderantzizkotzaz hartzen dena. (argazkigintzan)

Tiraderak eta armairuak nahastu zituzten; antza, argazkien **negatibo**en bila. **Eduarne Elizondo**

Paperezko **negatiboarekin** egindako hobekuntzak gogoratu zituen. **Joxemari Urteaga**

Kristalezko **negatiboak** hartuta, argazkien kopiak egin dituzte, antzinako erara. **Berria - Kultura**

Nire logelako mutiko batek esan dit **negatiboa** edabe egokian errebelatzen badut, irudiak mugitu egingo direla. **Iñaki Mendiguren**

Errebelatzeko laborategian irudikatu nuen une batez, bonbilla gorriaren azpian [...] **negatiboak** ilearendako haizagailu batekin lehortzen. **Alberto Barandiaren**

Negatiboak erabiltzen dituen kamera bakar bat egingo du aurrerantzean Nikonek. **Berria - Gaiak**

9 (bestelakoetan)

Berez baliogabeako edo neutralak diren polaritateak ere, balioz kargatzen ditugu: arra/emea, handia/txikia, zuria/beltza, eta bietako bat polo **negatiboa** bihurtzen dugu. **Joxe Azurmendi**

Lezo: kontrairudi **negatiboa**. **Koldo Izagirre**

Modernitateari muzin egiten dion [...] Euskal Herri hori, Euskadi **negatiboa** (edo "Espainia beltza") nonahitsu dago hemen presente: gerrak utzitako kedarrak eta hondakinak han-hemen, ikusten diren etxeetako txirotasuna; bideetako lapurrak eta bandidoak [...]. **Koldo Izagirre**

Ez dut inon Kawabataren liburuari lotzen zaionik ikusi, baina lotura hori nabarmena da, Kawabatak hein batean Grimm anaien jatorrizkoaren irudi **negatiboa** sortzen badu ere. **Ibon Urbarri**

Une honetan, ordea, norabide **negatiboan** ematen ari dira urratsak. **Berria - Euskal Herria**

10 elektrizitatean, elektroarena, elektroari dagokiona.

Zelularen gune horren alboetako elektroien mugimenduak lehengora ekartzen du egoera, eta atzera ere karga **negatiboa** ezartzen da zelularen mintzean eraso kimikoa gertaturiko gunean. **Irene Aldasoro**

Animalien zelula guztietan, elektrizitate-karga **negatibo** txiki bat dauka mintzaren barrualdeak; axoiak ere beste zelula batzuk bezalakoak dira alde horretatik. **Irene Aldasoro**

Sodio ioiek karga positiboa dute, eta, ioi multzo handi batek kapilarretarako bidea egin duenean, haien karga positibo metatuak karga **negatiboa** duten ioiak (kloroa, adibidez) erakartzen ditu gai irazitik odolera. **Irene Aldasoro**

Haizea ionizatu egiten da, eta elementu positiboak eta **negatiboak** banatzen ditu. **Joseba Sarrionandia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

froga **negatibo** (3); **negatibo eman** (9); **negatibo eman dute** (7); **zenbaki negatibo** (4)

emaitza **negatiboa** (4); eragin **negatiboa** (11); eragin **negatiboa izan** (3); guztiz **negatiboa** (5); hazkuntza **negatiboa** (5); hazkuntza **negatiboa izan** (3); karga **negatiboa** (5); **negatiboa eman** (3); **negatiboa izan** (24); **negatiboa izan zela** (4); **negatiboa izango** (4); **oso negatiboa** (4)

froga **negatiboak** (9); **negatiboak dituela** (3); **negatiboak izan** (8); ondorio **negatiboak** (5); **positiboak eta negatiboak** (8); **zenbaki negatiboak** (5)

adiera **negatiboan** (3)

zenbaki **negatiborik** (3)

negatibotzat hartzen (3)

negatiboki *adlag* era negatiboan.

Oreka politikoak izan dezakeen eragina, hizkuntza baten bilakaera atzeratzen duenean, kanpoko baina positiboa da; ezegonkortasunak, zeinak alderantzizko ondorioa baitakar, aldiz, **negatiboki** eragin dezake soil-soilik. *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkarietako irakurleen %59k eta %58k, hurrenez hurren, **negatiboki** baloratu zuten Madrilo Gobernuaren jarrera euskal gatazkaren inguruan. **Isabel Arrigain**

Eta honekin ez dut **negatiboki** baloratu nahi, baina alderantziz, geure tradizio zahar mila bider isekatu batentzat bere ohorea errebindikatu. **Joxe Azurmendi**

Balioak kontzeptuei dagozkiena esaten denean, jakintzat ematen da kontzeptu hauek bereizgarriak direla; ez daude positiboki definituak beren edukiaren arabera, baizik eta **negatiboki**, sistemaren beste terminoekiko erlazioengatik. **Isabel Arrigain**

Adimena lehenago **negatiboki** besterik ez zen definitu: sentsuzkoa ez den ezagumen gisa. **Ibon Urbarri**

Negatiboki zoriontsua zen Yin egoera hori, giza kontzientzia eta nortasuna Yang mugimenduaren bidez sortu zirenean apurtu zen, "Jainkoak argitasuna iluntasunetik banatu zuenean". **Iñaki Mendiguren**

Logikaren zati honek, beraz, Analitika izena jaso dezake, eta horregatik, **negatiboki** bederen, egiaren frogarria osatzen du. **Ibon Urbarri**

negatibotasun *iz* negatiboa denaren nolakotasuna.

Negatibotasun hau da beren egiletasunaren ezaugarria, baita beraien ezarpen eta iraupenerako funtsezko baldintza ere. **Iñaki Mendiguren**
Bilduma honetan Eminem-ek izandako lipar argitsuak dituztu (*Without me, Cleaning out my closet*) eta lasto asko, kasu *Fack* kantu berrian, betiere **negatibotasunaren** bide erraza hartuz. **Berria - Kultura**

negazio *iz* ezezkoa.

Horregatik errealitate (gauzatasun) deitzen zaio, zeren objektuak bere bitartez soilik eta bera iristen deneraino baitira Zerbait (gauzak), aurrean duen **negazioak**, aitzitik, gabezia soil a esan nahi duen bitartean, eta hau soilik pentsatzen denean, gauza ororen ezeztapena errepresentatzen da. **Ibon Uribarri**

negel (*orobat negal; Euskaltzaindiaren Hiztegian negel agertzen da*) *iz* larruazaleko erregosia.

Areago: ez zen ageri han ez ospelik, ez erredua edo garatxorik, ez **negal**, baba, kalentura, pustula, zimur, kailu, orbain edo granorik. **Bernardo Atxaga**
Moldeko hitzek ikaragarriko azkura ematen zidatek, **negal** bat banu bezala. **Lopez de Arana**
Mrs. Cohen atso zaharra makurturik zebilen eta aurpegi beltzarana eta **negalez** bete zuten, errege-sagarraren antzera. **Lopez de Arana**
Bularreko **negal** eta mantxa gorri eta ubelak. **Bernardo Atxaga**
Venenaciak bere garaiko aristokrata munduaren barneko bizimodu guztia ezagutzen zuten; Isabel II.aren **negela** eta amorru erotikoa; haren senarraren inpotentzia; aristokraten bizioak, gaixotasunak, ohiturak, bere begiez ikusitako xehetasun guztiekin ezagutzen zituen **Josu Zabaleta**

negil ik neguil.

negoziaezin 1 *izond* ezin negoziatuzkoa.

Ez da logikoa eta ezin da defendatu segurtasun indarrak kontuan hartzen ez dituen testu bat: «Hori **negoziaezina** da». **Berria - Mundua**
Kopuru horiek **«negoziaezinak»** direla azpimarratu zuten sailburuak. **Berria - Euskal Herria**
Teherango ordezkarik Ali Larijanik negoziazioekin jarraitzeko prest baldin badaude ere, energia nuklearraren inguruko ikerketen auzia **«negoziaezina»** dela zehaztu zuten: «Iranek eskubide osoa dauka uranioaren aberasteari ekiteko, energia nuklear zibila ekoizteko xedean». **Berria - Mundua**
Lopez Aguilarrak adierazia zuten bezperan Ibarretxe plana **«negoziaezina»** eta «inkonstituzionala» dela eta ez duela aurrera egingo. **Berria - Euskal Herria**

2 *negoziaezinezko izlag* negoziatuzkoa.

Negoziaezinezko kopuruak. **Berria - Euskal Herria**

negoziaigai 1 *izond* negoziatuzkoa. ik negoziagarri.

Horrez gainera, banku-kreditu zaharrak titulu **negoziaigai** bihurtu ziren; teknika horri esker, zorraren krisia gertatu ondoren, nahiko erraz hautsi ahal izan zituzten bankuek garapendeko herrialdeekin zituzten konpromisoak. **Koro Navarro**
Erabaki eskubidea ez dela **negoziaigai** erantzun dio Jaurizaritzak Zapaterori. **Berria - Euskal Herria**

• 2 *iz* negoziatuzkoaren gaia.

Berriro ere justizia eta polizia arloko eskumenak Stormonten esku uztea, ekintza armatuak etetea, desarmae eta erakunde autonomoen funtzionamendua bermatzeko neurriak izango dira **negoziaigai** nagusiak. **Berria - Mundua**

3 *negoziaigai izan du ad*

Gai hori bera **negoziaigai** izan zuten joan den ostegunetik larunbat eguerdira bitartean, Leedseko gazteluan izan zituzten elkarrizketetan. **Berria - Mundua**
Erakunde armatuaren eta gobernuen arteko mahaian «desmilitarizazioa, presoak eta iheslariak, eta biktimak» izango dituzte **negoziaigai**. **Berria - Harian**

negoziaigarri 1 *izond* negoziatuzkoa. ik negoziatuzkoa.

Paper **negoziaigarria**, altortegi inperialak gordetzen zituen ordezkariekin bat zetozen txeeen forman, Tang gobernuak jaulki zuten K.o. 807an eta 809an. **Iñaki Mendiguren**

2 (izan eta kideko aditzarekin) ik negoziatuzkoa 3.

Nafarroa ez dela **negoziaigarri** ziurta dezala exijitu dio Sanzek Zapaterori. **Berria - Euskal Herria**
Autodeterminazio eskubidea herri guztiek duten eskubidea da; beraz, ez da **negoziaigarria**, oharraren arabera. **Berria - Euskal Herria**
Alliren hitzetan, KAS alternatibako puntuen artean bi ziren **«negoziaigarriak»**: langileen baldintzen hobekuntzari buruzkoa, bata, eta Espainiako polizi indarrak Euskal Herrietik kanporatzeari buruzkoa, bestea. **Berria - Euskal Herria**
Eusko Jaurizaritzaren ordezkariek nabarmendu zenez, Ibarretxe Plana «ez da plana, baizik eta proposamena; **negoziaigarria** den eta alda daitekeen agiria baita». **Berria - Mundua**
Presoei erraztasunak ematea bezalako kontzesioak **negoziaigarriak** dira; beste batzuk ez. **Berria - Harian**
Osion Arafatek independentzia **negoziaigarri** bihurtu zuela dio Husseinek, eta orain jendeak ez dakiela aldarrikapenari nola eutsi; matxinadak izaera soziala galdu duela ere salatzen du. **Berria - Mundua**
Gainerako sindikatuek **«negoziaigarria»** iritzi zioten gai horri. **Berria - Ekonomia**

negoziaiketa 1 *iz* negoziatuzkoa.

Aljerko **negoziaiketak** amaitu zirenean. **Jokin Urain**
Hiru urteren buruan, [...] Menelao bidali zuten Jasonek, erregeari dirua eraman eta garrantzizko arazoan **negoziaiketa** egin zezan. **Elizen arteko biblia**
Abian zeuden **negoziaiketetan** bazegoela nolabaiteko itxaropena denak ontziratzeko agindua lortzeko. **Jokin Urain**
Turkiarekiko **negoziaiketak** abian jartzeko. **Berria - Mundua**
Negoziaiketak eten egin ziren bolada batez. **Jokin Urain**
Elkarretaratzearen ondotik **negoziaiketak** izan dira langile eta nagusien artean baina aintzina mendurik gabe denen buru. **Herria**
Lanaldi murrizketaren eskaera alde batera uzteko exijitu diote, **negoziaiketarekin** jarraitzeko. **Berria - Ekonomia**
Elkarrizketa, harremanak, edo transferentzien **negoziaiketa** eskaini, eta, bitartean, Ibarretxe plana usteltzen utzi, beste mota bateko akordio bidea nagusi dadin. **Berria - Euskal Herria**
Gatazka gainditzea elkarrizketa, **negoziaiketa** eta hitzarmen baten ondorioz etorriko da. **Berria - Euskal Herria**

Lanpostu berrien **negoziaietak** EDF-ean. [Herria](#)

Negoziaietak, hala ere, gogorrak izango dira. [Berria - Kirola](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Era berean, pazientzia eskatu zuen «**negoziaietak**» prozesuak luzeak baitira». [Berria - Kirola](#)

Konponbiderako Mahaia, **Negoziaietak** prozesua, akordiorako prozesua ez da ordezkaritza instituzionaletik abiatzen. [Berria - Harian](#)

Buruzagi xiitaren eledun Kais Al-Jazalik adierazi zuen atzo gudukak areagotuko direla, AEBetako ordezkariek **negoziaietak** mahaitik ospa egin ondoren. [Berria - Mundua](#)

Negoziaietak saioaren ondoren maila eraginkorrago batean sartu nahi izan dugu. [Berria - Euskal Herria](#)

Gogora ekarri zuten sindikatu batzuek **negoziaietak** mahaia utzi zutela, behin Osasun Sailari lanpostuei buruzko legea ez betetzea leporatu ondoren. [Berria - Euskal Herria](#)

Euskal Herriaren interesen defendatzeko eta gatazkaren konponbideari begira balizko **negoziaietak** ildo bati jarraituz, Herri Ordezkaritza osatzeko proposamena luzatu genuen. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziak gai guztiak aipagai ezarriko ditu Turkiaren kidetze **negoziaietan** barruan, hauen artean genozidio armeniarren kontua. [Berria - Mundua](#)

Paisleyk erantzun zionez, bake **negoziaietan** akordio batera iristea gustuko izango luke, baina, akordioak justua izan beharko luke. [Berria - Mundua](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

elkarrizketa eta negoziaketa (3); **negoziaietak eta hitzarmen** (3); **negoziaietak luzean** (3); **negoziaietak prozesu** (3); **negoziaietak prozesua** (3); **negoziaietak prozesuak** (3)
negoziaietak abian (3); **negoziaietak hasi** (4); **negoziaietak hasteko** (3); **turkiarekiko negoziaketa** (3)
negoziaietan ondorioz (3)

negoziaietak 1 iz tratularia.

Bestela ere aitak sarritan alde egiten zuen itsasora edo hirira, Don Juan Manuel Garaikoaren negoziak zirela eta, gure aita Don Juan Manuel Garaikoaren bokartaren **negoziaietak** zelako. [Joseba Sarrionandia](#)

• 2 izond negoziak aritzen dena.

Agirre hori putakume izela duk!, putre galanta!... sasi-demokraziaren jauntxo **negoziaietak** berria, eusko jaurlaritza, diputazioa eta udalaren babespean beti dirutza egiten. [Paddy Rekalde](#)

Hik garai hartan hainbat aldiz madarikatutako jeltzale **negoziaietak** ezagun hura. [Paddy Rekalde](#)

Argiak bi neska **negoziaietak** haiek, segituan ulertu zuten nora ailegatu nahi nuen. [Fernando Rey](#)

negoziaietak, negoziak, negoziatzen 1 du ad negoziak edo tratua egin, helburu jakin bat iristeko asmoz.

Zer **negoziaietak** behar du, gainera, irabazleak? [Karlos Linazasoro](#)

Elkarrekin **negoziaietan** duten bi nazio elkarren mendeko bihurtzen dira: batak erosteko interesa badu, besteak saltzekoa, eta batasun guztiak elkarren premiaren gainean oinarritzen dira. [Iñaki Iñurrieta](#)

Lagun hurkoarekin borrokatu baino **negoziaietak** nahiago ditek. [Lopez de Arana](#)

Familia bien artean eztabaidatu eta **negoziaietak** zituzten ezkonsariak eta elkarketaren gorabeherak. [Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio](#)

Tom Manhattanen zen arratsalde horretan, Harryrekin, berriki hildako idazle baten alargunarekin **negoziaietan** haren senar zenduaren liburutegiko liburuen gainean. [Oskar Arana](#)

-Zurekin buruz buru **negoziaietak** nahi nuke. [Matias Múgica](#)

Bera izan zen eusko gudarien errendizioa italiarrekin **negoziaietak** zuena. [Mikel Hernandez Abaitua](#)

Horrela De Valerak publikoki uko egin ziezaiokeen **negoziaietak** zen itunari, baina isilean, ordea, konponbidearen baldintzak onartu eta bere abertzaletasun puruaren karisma gorderik geratzen zen. [Joseba Zulaika](#)

Gaztetan ez da printzipioekin **negoziaietan**. [Agurtzane Juanena](#)

Salatu dute ezin izan dutela jakin Deskontua **negoziaietak** aurretik, nekazaritza laguntzak berrikusi behar zirela zioen Londresekin. [Herria](#)

Baionak BAM hiri elkargoarekin **negoziaietak** duen urte aniztetako planaren kontu zer egiten den xuxen heldu den urtean. [Herria](#)

Israelekin zeharka **negoziaietako** prest zegoela esan zuen astelehenean. [Berria - Harian](#)

2 ondasunak saldu nahiz erosi, irabaziak lortzeko.

Bertan, besteak beste, akzioak, enpresen partaidetzak, edota enpresen zorrak (obligazioak, bonoak edo letrak) **negoziaietan** dira. [Iñaki Heras](#)

Oporrak eskatu zituen bere nagusiar, kreditu bat **negoziaietak** banketxearekin eta hegazkin txartelak erosi. [Ramuntxo Etxeberri](#)

Espanian, Filipe II.ak, haren aita Karlos V.ak bezalaxe, etengabe **negoziaietak** behar izaten zituen negozio-gizonekin bere politikagintzaren finantza-bitartekoak. [Koro Navarro](#)

Haiek aspaldi egin diote uko beren kredituak berriz **negoziaietako** aukera orori. [Koro Navarro](#)

Enpresak borondatezko hartzekodunen konkurtsoan deklaratu du gizarte segurantzarekin duen zorra **negoziaietan** jarraitzeko. [Berria - Kirola](#)

Hauekin duen zorra 88.000 milioi dolar, bonoetan **negoziaietako** prozesuan hamaika tirabira sortu dira. [Berria - Mundua](#)

Enpresak hartzekodunen konkurtsoan deklaratu behar izan du ordainketa **negoziaietan** jarraitzeko, eta Asegarek zorra ordaintzeko kaudimenik ez duela aitortu du. [Berria - Kirola](#)

3 (era burutua izenondo gisa)

PANeko presidente Mahmud Abbasek «bake **negoziaietak**» lortzeko deia egin dio Olmert. [Berria - Harian](#)

Irtenbide **negoziaietan** puntua salbu. [Berria - Harian](#)

Irtenbide politiko **negoziaietak** ezker abertzalearen lorpena bihur zitekeelako. [Berria - Harian](#)

Aterabide **negoziaietan** lortu ezean, borroka armatuari berriz ekingo diozue? [Berria - Harian](#)

Indarkeria eta bazterketa dira konponbide elkarrizketatu eta **negoziaietak** benetan tratatzen duten faktoreak. Mugak ezartzeko erabakia **negoziaietak** edo alde bakarrekoa izango dela ere adierazi du. [Berria - Euskal Herria](#)

Kontratuen Foru Legeak dio prozedura **negoziaietak**, aurrekontu gutxioko lehiaketetan bakarrik egin daitekeela. [Berria - Euskal Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

berriro negoziatzen (4); **berriz negoziatzen** (7); **epeak negoziatzen** (3); **etarekin negoziatzen** (12); **gobernuarekin negoziatzen** (4); **irtenbide negoziatzen** (6); **klausula negoziatzen** (3); **mahaian negoziatzen** (4)

negoziatzen bat (4); **negoziatzen beharra** (5); **negoziatzen beharreko** (11); **negoziatzen beharreko gaia** (3)

ordezkariekin negoziatzen (3); **palestinarrekin negoziatzen** (3); **sindikatuarekin negoziatzen** (8); **sindikatuarekin negoziatzen beharreko** (3); **zer negoziatzen** (8)

gatazkari irtenbide negoziatzen (4); **irtenbide negoziatzen** (9); **irtenbide politiko negoziatzen** (5)

sindikatuarekin negoziatzen (3); **terroristekin negoziatzen** (3)

etarekin negoziatzen (3)

negoziatzen alde (3); **negoziatzen aldekoa** (3)

akordio bat negoziatzen (4); **aurrekontuak negoziatzen** (5); **bakea negoziatzen** (4); **baldintzak negoziatzen** (4); **erreforma negoziatzen** (3); **estatuarekin negoziatzen**

(7); etarekin negoziatzeko (3); hitzarmen kolektibo negoziatzeko (10); hitzarmen negoziatzeko (12); ituna negoziatzeko (6); lan hitzarmena negoziatzeko (5); lan ituna negoziatzeko (6)

negoziatzeko asmoa (4); negoziatzeko asmorik (4); negoziatzeko aukera (14); negoziatzeko aukerarik (5); negoziatzeko aukerarik ez (3); negoziatzeko batzorde (3); negoziatzeko beharra (4); negoziatzeko bilera (3); negoziatzeko borondate (8); negoziatzeko borondatea (16); negoziatzeko borondatea agertu (4); negoziatzeko borondaterik (32); negoziatzeko borondaterik ez (23); negoziatzeko borondaterik eza (3); negoziatzeko deia (10); negoziatzeko deia egin (8); negoziatzeko duen (3); negoziatzeko erabateko (3); negoziatzeko eskaintza (3); negoziatzeko eskatu (17); negoziatzeko eskatuko (4); negoziatzeko eskubidea (5); negoziatzeko garaian (4); negoziatzeko mahaiari (3); negoziatzeko prest (79); negoziatzeko prest agertu (14); negoziatzeko prest dagoela (9); negoziatzeko prest jarraitzen (3); negoziatzeko tartea (5)

palestinarrekin negoziatzeko (4); palestinarrekin negoziatzeko prest (3); plana negoziatzeko (3); proiektua negoziatzeko (3); soldatetan negoziatzeko (3); soldatetan negoziatzeko tartea (3); zuzendaritzak negoziatzeko (3)

baldintzak negoziatzen (3); berriro negoziatzen (7); berriro negoziatzen (3); erreforma negoziatzen (3); estatutua negoziatzen (3); ezkutuan negoziatzen (3); gobernuarekin negoziatzen (5); hamasekin negoziatzen (3); hasi ziren negoziatzen (3); hitzarmena negoziatzen (15); ituna negoziatzen (18); ituna negoziatzen hasteko (4); lan hitzarmena negoziatzen (10); lan ituna negoziatzen (13); negoziatzen aritu (15); negoziatzen hasi (28)

negoziatzen ari (112); negoziatzen ibili (7); negoziatzen jardun (3); negoziatzen jarraitu (6); negoziatzen jarraituko (6); negoziatzen jarraitzea (5); negoziatzen jarraitzeko (34); negoziatzen jarraitzeko asmoa (9); negoziatzen jarraitzeko borondatea (4); negoziatzen jarraitzeko prest (4); negoziatzen jarraitzen (4); negoziatzen segituko dute (3)

su etena negoziatzen (3)

ituna negoziatzera (7); ituna negoziatzera esertzeko (3); lan ituna negoziatzera (7); negoziatzera behartu (10); negoziatzera behartuta (4); negoziatzera behartzeko (5); negoziatzera deitu (7); negoziatzera eseri (3); negoziatzera esertzeko (11); negoziatzera esertzeko eskatu (6); negoziatzera joan (3)

negoziatzaile 1 izond negoziatzen duena.

Talde **negoziatzailea** eratu zen; 30.000 sinadura lortu ziren eta 185 batzorde eratu ziren herri eta auzoetan. **Berria - Euskal Herria**

Sindikatu **negoziatzaileak**, Hartmut Meinek, aitortu du soldata igoera apalagoa onartzeko prest daudela, baina ez dutela amore emango enpleguaren defentsan. **Berria - Ekonomia**

Datorren asteazkenean bilduko da Kutxako hitzarmen kolektiboaren mahai **negoziatzailea**. **Berria - Ekonomia**

Dimisio honekin, gobernu osatzeko orduan bere alderdiaren posizio **negoziatzailea** sendotu nahi duela azaldu du Lisbeth Petersenek. **Berria - Mundua**

Batasunak nabarmendu egin zuen jada ez dagoela Aljeriakoaren gisako bide **negoziatzaileetan**. **Berria - Euskal Herria**

ETAk ez zuen prozesu **negoziatzailea** modu patrimonialistan egin nahi. **Berria - Harian**

• 2 iz negoziatzen duen pertsona.

Juan Ajuriagerra eta Lucio Artetxe **negoziatzaileak** ere atxilotu egin zituzten Santoñan, baina ez zituzten exekutatu. **Jokin Urain**

«Harria irentsi behar izan dugu», aitortu zuen IG Metalako **negoziatzaileak**, Hartmut Meinek. **Berria - Ekonomia**

UCDKo **negoziatzaileek** Suarezentzat idatzitako ohar bat topatu zuten behin jeltzaleek lurrean. **Berria - Euskal Herria**

Dagoeneko AEBen aldetik zenbait kontzesio lortu dituzte **negoziatzaileek**. **Berria - Harian**

Teherango gobernu **negoziatzaileen** burua den Javad Vaidik berretsi zuen Iranek «eskubide osoa» zeukala energia atomikoaz ikerketa lanak bultzatzeko. **Berria - Mundua**

Urte zorbait Joanenezat lanean arizan ondoan, bere nausiarekin partxuegoan hasi zen bera ere **negoziatzaile** bilakatuz. **Herria**

Robert Zoellick AEBetako Merkataritza ordezkaria eta Pascal Lamy Europako Batasuneko Merkataritza komisarioa **«negoziatzaile** leialak» direla gaineratu zuen. **Berria - Ekonomia**

3 (hitz elkartuetan)

Okupazio indarrek **negoziatzaile** taldeko buru Khaled al-Jumeili atxilotu zuten herenegun. **Berria - Mundua**

Akordioa sinatu nahi badu, Teheranen kontrako jarrerak eragozteko exijitu dio Irango **negoziatzaile buru** Ali Larijanik. **Berria - Mundua**

negoziatze iz negoziok edo tratuak egitea, helburu jakin bat iristeko asmoz.

Negoziatze eta berreste prozesu horren ondorioz erabakitako esparru politikoak orain artekoak baino adostasun handiagoa lortzea. **Berria - Euskal Herria**

Eta azken batean, zerbait zientifikoki kreditatzen da **negoziatze** eta gizarte-elkarrekintza prozesu baten emaitza gisa. **Askoren artean**

negoziazino ik negoziazio.

negoziazio (orobat negoziiazino g.er.) 1 iz negoziatzea.

Amiantoz beteriko ontziaren inguruko **negoziazioak**. **Negoziazio** haiek, adiskidetze zabal baten espirituak inspiratuak, Jouxtebouvilleko borrokek eten zituzten. **Berria - Gaiak**

Ibarretxek **negoziazioak** hasiko ditu hiruko gobernu osatzeko. **Iñigo Aranbarri**

Negoziazio hori abiatzeko eguna ere finkatu zuen Ibarretxek. **Berria - Harian**

Esanahi-truke bat, **negoziazio** bat, ulermen-arintasun bat; guztiak telepatikoak ote ziren pentsarazteko bezain nabarmena inoiz. **Xabier Olarra**

"Gure egoerak oso laster erabateko aldaketa" izango duela jakinarazi digu, guri buruzko "ezkutuko **negoziazioak**" hasi baitira, "indar aleman eta aliatuen artean, bitartekari neutralekin". **Urtzi Urrutikoetxea**

Udalak tarte horretan **negoziazioei** ekiteko jarrera irekia erakutsi izan balu, greba bertan behera utziko genuen, inondik ere. **Berria - Kultura**

Zortzi urteko **negoziazioen** ondoren. **Koro Navarro**

Bi bandoen arteko **negoziazioak** gogorrak suertatu ziren. **Iban Zaldúa**

Sanzen irudiko, urtebeteko **negoziazioen** ondoren, akordioak ez lortzea ez da «zentzuzkoa». **Berria - Ekonomia**

Horren prezioa adosteko **negoziazioak**, luzeak eta korapilatsuak dira, dirutza ederrak baitira jokoan. **Edorta Jimenez**

Nik espero dut PPK jarrera aldatuko duela eta **negoziazioetan** parte hartuko duela. **Berria - Harian**

Negoziazioak oso aurreratuak daude, eta ezustekorik ezean, Menotti aurki izango dugu gurekin. **Berria - Kirola**

2 (izenondoekin)

Negoziazio serio eta bideragarriak, **negoziazio** pragmatikoak, Euzkadi salbatuko zuten negoziaketak, Santoñako haiek bezalakoak, nahi zituen EAJK. **Jokin Urain**

Marokoren eta Polisarioaren artean **negoziazio** zuzenak hasteko gomendioa egin du txostenak. **Berria - Harian**

ETAren ikuspegian, **negoziazio** politikoaren aurreko fasea zen hura. **Berria - Harian**

Negoziazio gogorrak izan omen zituzten, herrian zegoen giro txarraren neurrikoak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Negoziazio luzeak eta korapilatsuak. **Jon Alonso**

Truke-letrak kreditu-tresna bihurtu ziren berehala, eta baita espekulaziorako tresna ere, **negoziazio** bereziak hasi baitziren egiten epemugen eta diruen balioaren inguruan. **Koro Navarro**

Ordezkaría aukeratzeko autonomia, mendekotasun politikoa, **negoziazio** kolektiboa, greba egiteko eskubidea... **Rafa Egiguren**

Kirol arloko txakalaldiaz gain, diru sarien **negoziazio** liskartsuak izan dituzte jokalariek zuzendariekin. **Berria - Kirola**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Negoiazio -erakunde bat (GATT), munduko trukeen liberalizazioa sustatzeko xedea zuen. Koro Navarro
Lehen **negoiazio** -saioen ondoren [...] herrialde industrializatuen inportazioen gaineko batez besteko muga-sariak zortzi bider murriztu dira, %40tik %4ra igaroz 2000n. Koro Navarro

Akordio horrek, haren aurretik izan ziren **negoiazio** saileri buruz, bi alderdi berri ditu. Koro Navarro

Erakundeekiko **negoiazio** prozesua zabaltzea erabaki zuen Filmatetikiko batzarrak. Berria - Kultura

Pertsonen arteko harremanak, protokoloak eta prozedurak eraikitzea, eta **negoiazio** bideak sortzea ere arkitektura da. Berria - Kultura

Abenduaren 31ra bitarteko **negoiazio** epea ireki du Filmatetikiko, «akordio bat lortzeko». Berria - Kultura

Langileen **negoiazio** ahalmena eta grebarako eskubidea. Berria - Harian

Negoiazio indar handia dutenek, hau da, nolabaiteko botere ekonomikoa dutenek, beren soldata, errenta edo irabaziak hobetu ditzakete. Iñaki Heras

Ez dute jakin ezberdintzen **negoiazio** gaiak eta klubaren ekitaldiak. Berria - Kirola

ik negoiazioiagai.

Protokoloa garrantzitsutzat jotzen dute, oro har, **negoiazio** esparru orokorra sortzen duelako. Berria - Harian

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alec Reid apaiz katolikoa da, eta esperientzia luzea du bake **negoiazioetan**. Berria - Harian

Norvegiak bitartekari lanak egingo ditu beste behin bake **negoiazioetan**. Berria - Mundua

- ELN Nazio Askapenerako Armadaren eta Bogotaren aurre **negoiazioen** bigarren elkarrizketa txanda amaitu zen atzo Habanan. Berria - Mundua

5 *negoiazio gune* ik negoiazioigune.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

aurtengo negoiazio (12); **aurtengo negoiazio kolektiboaren** (4); **benetako negoiazio** (4); **elkarrizketa eta negoiazio** (22); **iazko negoiazio** (4)

negoiazio eske (4); **negoiazio esparru** (6); **negoiazio gogorak** (5); **negoiazio gune** (4); **negoiazio kolektibo** (10); **negoiazio kolektiboa** (77); **negoiazio kolektiboak** (17); **negoiazio kolektiboan** (39); **negoiazio kolektiboaren** (57); **negoiazio kolektiboaren bidez** (7); **negoiazio kolektiboaren eredu** (4); **negoiazio kolektiboari** (16); **negoiazio kolektiboaz** (6); **negoiazio kolektiboetan** (5); **negoiazio kolektiboko** (9); **negoiazio kolektiborako** (17); **negoiazio luze** (5); **negoiazio luzeen** (5); **negoiazio mahai** (22); **negoiazio mahai batean** (5); **negoiazio mahaia** (37); **negoiazio mahaia osatu** (4); **negoiazio mahaia** (8); **negoiazio mahaian** (44); **negoiazio mahaiaren** (4); **negoiazio mahaietan** (8); **negoiazio mahaiko** (6); **negoiazio mahaira** (14); **negoiazio mahaitik** (5); **negoiazio ministro** (8); **negoiazio ministroak** (7); **negoiazio politikoa** (11); **negoiazio politikoak** (4); **negoiazio politikoaren** (5); **negoiazio politikorako** (10); **negoiazio prozesu** (46); **negoiazio prozesu bat** (15); **negoiazio prozesu batean** (8); **negoiazio prozesu bati** (4); **negoiazio prozesua** (27); **negoiazio prozesuan** (9); **negoiazio prozesuaren** (8); **negoiazio prozesuari** (5); **negoiazio prozesurik** (6); **negoiazio saio** (6)

paneko negoiazio (7); **paneko negoiazio ministro** (4); **sektoreko negoiazio** (4)

elkarrizketa eta negoiazioa (11); **hitzarmenaren negoiazioa** (12); **lan hitzarmenaren negoiazioa** (7); **lan itunaren negoiazioa** (17)

negoiazioa abiatzeko (4); **negoiazioa eskatu** (4); **negoiazioa hasi** (9); **negoiazioa hasteko** (5)

aldean arteko negoiazioak (4); **aurreneko negoiazioak** (4); **bake negoiazioak** (40); **bake negoiazioak abiatu** (4); **bake negoiazioak hasi** (4); **estatusari buruzko negoiazioak** (4); **gobernua osatzeko negoiazioak** (5); **hori lortzeko negoiazioak** (4); **jartzeko negoiazioak** (4); **lortzeko negoiazioak** (4); **moncloako negoiazioak** (4)

negoiazioak abiatu (24); **negoiazioak abiatu zituen** (5); **negoiazioak abiatuko** (5); **negoiazioak abiatuko dituzte** (4); **negoiazioak abiatzeko** (13); **negoiazioak amaitu** (5); **negoiazioak aurrera egin** (5); **negoiazioak berriz hasteko** (5); **negoiazioak eten** (10); **negoiazioak etenda** (7); **negoiazioak etengo** (5); **negoiazioak hasi** (39); **negoiazioak hasi aurretik** (4); **negoiazioak hasi zituzten** (11); **negoiazioak hastea** (7); **negoiazioak hasteko** (26); **negoiazioak hasteko eskatu** (4); **negoiazioak hautsi** (12); **negoiazioak izan** (4); **negoiazioak tratatzen** (5)

osatzeko negoiazioak (7); **sartzeko negoiazioak** (6)

lan hitzarmenaren negoiazioan (4); **lan itunaren negoiazioan** (8)

elkarrizketa eta negoiazioaren (7); **elkarrizketaren eta negoiazioaren** (5); **negoiazioaren alde** (5); **negoiazioaren aurka** (6); **negoiazioaren bidetik** (4); **negoiazioaren bidez** (17); **negoiazioaren eta akordioaren** (4)

negoiazioari begira (4); **negoiazioari ekiteko** (4)

bake negoiazioei (5); **negoiazioei berriz ekiteko** (6); **negoiazioei ekin** (6); **negoiazioei ekiteko** (10)

negoiazioek aurrera egin (4); **negoiazioek porrot egin** (6)

negoiazioekin jarraitzeko (12)

bake negoiazioen (7); **hilabeteko negoiazioen** (8); **hilabeteko negoiazioen ondotik** (4); **negoiazioen alde** (5); **negoiazioen bidez** (7); **negoiazioen gakoa** (5); **negoiazioen ondoren** (15); **negoiazioen ondorioz** (4)

bake negoiazioetan (20); **itunaren negoiazioetan** (4); **negoiazioetan ari** (8); **negoiazioetan ari dira** (4); **negoiazioetan aritu** (4); **negoiazioetan hasteko** (4); **negoiazioetan parte hartu** (12); **negoiazioetan parte hartzeari** (4); **negoiazioetan parte hartzeko** (7); **negoiazioetan parte hartzen** (7)

negoiazioetarako ministro (4); **negoiazioetarako ministroak** (6)

negoiaziorako deia (6)

bake negoiaziorik (4)

negoiazioaldi iz negoziatzen den aldia.

Ingalaterrako iparraldean bildu ziren Tony Blair Erresuma Batuko eta Bertie Ahern Irlandako Errepublikako lehen ministroak datorren astean alderdiak bilduko dituen

negoiazioaldia prestatzeko. Berria - Mundua

Eraginik izan al dezake, ordea, DUPeko buruaren ustezko heriotza hurbilak Stormonteko gobernua berriz indarrean jartzeko **negoiazioaldian**, eta, horri jarraiki, bananduriko uhartearen etorkizunean? Berria - Mundua

negoiazioburu iz negoiazio prozesu bateko burua.

Palestinako Aginte Nazionalako **negoiazioburu** Saeb Erekatetik Tel Aviviko presio egiteko eskatu zion nazioarteari, hark PANi zergetatik dagozkion diru funtsak itzultzeko.

Berria - Mundua

Irango **negoiazioburu** Ali Larjani El Baradeiri idatziz ohartarazi zion Segurtasun Kontseilura jotzeak Iranek IAEAren duen konfiantzari «azken kolpea» emango diola.

Berria - Mundua

Kosovoko albaniarren **negoiazioburu** Lufti Hazirik apenas aipatu zituen bi aldeek bat etorritako alorrak, eta egunotako bilerak «independentziarako bidearen hasiera» zirela nabarmendu zuen. Berria - Mundua

Sinn Feineko **negoiazioburu** Martin McGuinness IMCren txostena gutxietsi zuen. Berria - Mundua

negoiazioburuorde iz negoiazioburuaren ordekoa.

Auzi nuklearrerako **negoiazioburuorde** Javad Vaedik esan zuen afera Segurtasun Kontseilura eramateak bertan behera utz dezakeela Moskuk Teherani eginiko eskaintza, hots, Iranen uranioa Errusian aberastea. Berria - Mundua

negoiazioigai iz negoziatzeko gaia.

Euskal Herrian indarrean jarriko den alderdien mahai horretan denak **negoiazioigai** izan behar al du? Berria - Harian

Estatutuarekin presoak kalera kanpaina gogor salatu zuten, «amnistia ez delako sekula **negoiazioigai** izango». Berria - Euskal Herria

negoziazio gune (orobat *negoziazio gune*) iz negoziatzen den gunea.

Bi **negoziazio gune** proposatzen zituen, baina ezaldi berean. **Berria - Euskal Herria**

Dagoeneko garbi dago iraila baino lehen ez dela osatuko konponbiderako mahaia, edo mahaia, edo dena delako **negoziazio gunea**. **Berria - Harian**

Tentsioa ez zegoen **negoziazio guneetan** bakarrik. **Berria - Euskal Herria**

Arago, aurtan Euskal Herrian **«negoziazio gune** sendoa» ikusiko dela ziurtatzen du. **Berria - Euskal Herria**

negoziazio kide iz negoziazio batean parte hartzen duen kidea.

Aljeria eta Mauritania ere aipatzen dituztenak, **negoziazio kide** gisa. **Berria - Harian**

negozio 1 iz etekina ateratzen den jardura. ik irabazpide; tratu.

Nik ezin seguru diezazuket nolakoak izan ziren aitaren **negozio** haiek: sal-erosi nahasiak izan ote ziren edo sal-erosi garbiak, lukurreriazko tratu gaixto engainamenduz beteak edo engainamendu gabeak, [...]. **Joan Mari Irigoien**

Tratulariek herrialde batean **negozio** asko dituztenean, kanbioak gora egiten du nahitaez. **Iñaki Iñurrieta**

Tailer bat jarri zitean Obabako industrialdean kamioiak konpontzeko, eta berealdiko **negozioa** egin. **Bernardo Atxaga**

Aitaren **negozioa** ez zait oso-oso gustagarria iruditzen; gelatinarazgarriak eta piperbeltza baizik ez du saltzen. **Josu Zabaleta**

Hiru anaia zebiltzan **negozio** berean. **Xabier Etxabe**

Orubeak **negozioetarako** erabiliko dituen beldur da Laureiro. **Berria - Ekonomia**

Gizon batek bizitza osoa lan eta lan eman badu **negozio** bat aurrera ateratzeko, ez du kalean geratu nahi atzerritar malapartatu horien erruagatik, ezta Wilkinson? **Lopez de Arana**

Kamioien **negozioan** hasi zen anaiekin, Juanito eta Joxerekin. **Xabier Etxabe**

Guztira zakurren **negozioak** mila milioi euro ematen omen ditu urtero. **Gotzon Garate**

Abokatzeko estudioak bukatuta, **negozioen** munduan sartu zen, banku batean. **Joan Mari Irigoien**

Egongo zela-eta **negozio** hura gorabidean jartzeko moduren bat. **Bernardo Atxaga**

Ni **negozioa** eramaten erakutsi nahian eta hi, berriz, beti alferkerian. **Fernando Rey**

Denboran jauzi txiki bat egin, beraz, eta tailerreko nagusia ikusten dut, nire lagunari eta niri mintzatzen: ez du **negozioarekin** jarraitu nahi. **Juan Kruz Igerabide**

Herrialde hartako beste nonbaitera joango zen bizitzera, eta **negozio** bat irekitzeko beste diru emango zion, baldin eta trukean zin egiten bazuen ez zela inoiz ere berriro Chicaigora itzuliko. **Oskar Arana**

-Ditudan sos guztiak jarri nahi ditut zure **negozioan**, Andreas. **Anjel Lertxundi**

Ba dakik nork jasotzen dituen **negozio** honen irabazkiak? **Josu Landa**

-Goldweiser, ez al zara han higiezin **negozio** batean sartu? **Lopez de Arana**

Krimen munduan drogen eta armen salmentaren ondoren emakumeen **negozioa** da dirurik gehiena ematen duena. **Gotzon Garate**

Kotxe-gidari ofizioa utzi eta Arkalerekin sartua zen kontrabandoko **negozio** batzuetan. **Koro Navarro**

Familiaren diru guztia sartuta zegoen **negozioak** hondoa jo zuen. **Josu Zabaleta**

Hirian zuen edari-etxearen **negozioak** porrot egin zion. **Irene Aldasoro**

Hiru **negozio** itxiak zituen, beste biren bideak urratuak, berriz. **Joxemari Urteaga**

Laneko bizitzaren zatirik handiena heriotzaren **negozioan** iragana nuen, eta seguru asko istorio goibel gehiegi nituen entzunak. **Oskar Arana**

Negozio horren bidez sortzen da banku-dirua, diruaren biderkatze prozesuarekin. **Iñaki Heras**

Negozioak **negozioak** ditun, eta lagunak, lagunak. **Antton Olano**

2 (izenondoetan)

Ez da egokitzat jo **negozio** zibil arruntetan [...] korrituen hainbatekoa diruzalekeriaren atzaparretan eta mailegu emaileen lizentziapean uztea. **Andres Urrutia**

Litekeena da, egoera honetan, **negozio** handien eta errentisten interesek talde indartsua eratzea. **Iñaki Heras**

Batetik bestera ibiltzen naiz **negozio** txikiak egiten. **Jose Morales**

-Gure **negozio** txikia zuzendu behar dugu aurrena-. **Anton Garikano**

Teorian **negozio** errealek finantzatzea helburu dute eragiketa finantzario horiek. **Iñaki Heras**

Gisa horretan mendekatuko diagu eta, aldi berean, **negozio** biribila egingo diagu. **Patxi Zubizarreta**

Ez dira **negozio** onak, ez dago lehiakortasun handirik. **Edorta Agirre**

Negozio polita egiten ari dela errepikatzen dio Robertok bere buruari. **Urtzi Urrutikoetxea**

Negozio kaskarra eginen luke. **Aingeru Epaltza**

Goiko mailara igaroko dira, **negozio** zikin eskergaren kaltean, gaitzak aurreikustea ere **negozio** baita. **Edorta Agirre**

Zeure **negozio** propioa edo, gutxienez, zeure lantokiko buruetako bat izan behar duzu, nahi duzun arropa jantzeko. **Iban Zaldúa**

Kristau-aroko hogeigarren mendean **negozio** probetxagarriak egiteko Mendebaldeko klase ertainak zituen aukerak gero eta murriztagoak ziren Mendebaldeko jardura-gune kapitalista guztietan. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

General Motors-en **negozio** kopurua Indonesian herri hartako BPG bezain handia da. **Pello Salaburu**

Egungo 24.230 milioi euroko **negozio** bolumenetik 39.000 milioira pasatuko da BBK. **Berria - Ekonomia**

Epe horretan, 250,79 milioi euroko **negozio** zifra lortu zuen CAFek. **Berria - Ekonomia**

Produktzioak planifikatzea ezinbestekoa izango da, elikatzea lehenetsita eta **negozio** -irizpideak bigarren mailara ekarrita. **Edorta Agirre**

Batez besteko legea gizabanakoen arazoetara aplikatu zitekeela modurik argienean erakusten zuen **negozio** -jardura aseguruarena zen. **Iñaki Mendiguren**

Erran gabe ulertarazi zion **negozio** -kontuak bitarteko ematen zuela senarrak hainbeste denbora etxetik kanpo. **Mirentxu Larrañaga**

Denek zekiten zer **negozio** klase egiten zen karrika-zulo hartan. **Alberto Ladron Arana**

Mundu garatuak nahikoa du mundu garatuarekin, **negozio** aukera nagusiak herrialde horietan baitaude. **Iñaki Heras**

Negozio -jantzi sotil bat daraman emakume zango lodi eta motzeko bat igarotzen da bere ondotik eta apartamentu-etxera sartzen da. **Oskar Arana**

Gure gizonak **negozio** -barkari baten ostean ezagutu zuen ilehoria, kontratu bikain bat sinatu ostean hain zuzen. **Migel Angel Mintegi**

Etxe-orratz hori Tokioko **negozio** -auzo ospetsuaren bihotzean jaso dago, eta begirada guztiak erakartzen ditu. **Jon Muñoz**

Epe luzera **negozio** -iturri joriagoa da hedabideetan kanpainak eginez populazioaren zaletasunak aldaraztea. **Edorta Agirre**

Enpresa pribatuen oinarrituriko **negozio** -mundu mendebaldartuan. **Iñaki Mendiguren**

Negozio -zikloa eratzeko, **negozio** -sistemaren erantzunetik *prima facie* garrantzitsuagoak dirudite kanpoko astinduek baino. **Iñaki Mendiguren**

Iman batek nola, Parisek hala erakartzen zuen nabarmentzen zen jende oro: artistak eta bankariak, gaizkileak eta **negozio** -jendea, puta-zorriak eta espiak. **Anjel Lertxundi**

Enpresa-munduko hizkera erabiltzera, bigarren **negozio** -lerro bat. **Aingeru Epaltza**

Los Angeleseko Konterri osorako balio zuen **negozio** agiria. **Pablo Sastre**

4 (hitz elkartetuen bigarren osagai gisa)

Diru-**negozio** oker frango izan dela hor nunbait, hori da nolazpait agertzen. **Herria**

Garagar **negozioak**. **Matías Múgica**

Banku-**negozioetan** hamar urte arrakastatsu... **Lopez de Arana**

Jabe berriak [...] taxidermia-**negozio** bat zabaldu zuen handik denbora laburrera. **Josetxo Azkona**

Herriko estilo patriarkalak izango zuen eragina Sarasola familiak arbel-**negozioarekin** normal-normal segi zezan, beste zenbait enpresaburu jeltzaleri jabetzak kendu zizkieten garaian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Aldre batean etxeko nagusia zegoen, Jean Laffitte, Galveston guztiaren ugazaba, esklabotza **negozio** agintarietako bat. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Artean numismatika-**negozio** batean niharduen. **Josetxo Azkona**

Gero, ikasketa laburren ondoren, irabazi oneko merkataria **negozioetara** eman zen. **Askoren artean**

Gurasoen lurraldetik deserriratzearen ondorio ekonomiko tamalgarriak erbestean merkataritzan trebetasun berezia garatuz gaudituz zituzten eta, laborantzaren orde besterik hiri-**negozio** batzuetan, erbesterratu lurgabeek jada ezin baitzuten zertu lanbide hori. **Iñaki Mendiguren**

Parisen motor **negozio** bat irekitzekotan zebilen. **Irene Aldasoro**

Pizzi aspalditik kezkatuta zebilela gaizki joan zitzaion hazi-**negozio** bategatik eta askotan esan zuela behin-betiko bukatzeko gogoia zuela. **Koldo Biguri**

5 irud/hed

Negozio espirituala mundua arbuizatzetik hasten dela, eta Kristoren soldadutzak nor bere burua garaitzean duela abiapuntua. **Askoren artean**

6 denda.

Stanleyk **negozioa** irekita badu, zuek izango zarete Chowder bentaren historian lehenbiziko bezeroak. **Oskar Arana**

Basile bere **negozio** ate aitzinean egon zen, eskuak igurzten zituela, etengabe eskuin eta ezker behatuz. **Elena Touyarou**

Bi armak hartu, bere **negozio** ate bizpahiru zarrapoz hetsi, eta bideari lotu zen, orgaren errotek utzi hatzei jarraikiz. **Elena Touyarou**

7 **negozioa egin** (31 agerraldi, 11 liburu eta 19 artikulutan; orobat **negozioak egin** 25 agerraldi, 6 liburu eta 18 artikulutan; eta **negozio egin** 5 agerraldi, 4 liburu eta artikulatu 1ean)

Hala ere, **negozioa egin** zuen. **Koro Navarro**

Frantsesak etorri zirenean, diot, hori haiekin ibili zen sozio, eta **negozioa egin** zuen, ez nolana hikoia gainera Napoleonen seme gaizki hazi haiekin. **Anjel Lertxundi**

Hizkera eta herrialde orotako jendajeak biltzen dira hemen beren **negozioak egitera**. **Patziku Perurena**

Ikea enpresa handiak galesa erabiltzea bultzada handia da hizkuntzarentzat, eta argi erakusten du hizkuntza aniztasuna gauza ederra dela **negozioak egiteko** orduan ere. **Berria - Mundua**

Brent ez nuen gogoko, eta ez zitzaidan gustatzen haren **negozio egiteko** estiloa. **Aingeru Epaltza**

Gaur edo bihar halako hirira joango gara, eta urtebete emango dugu **negozioak egiten** eta dirua irabazten. **Elizen arteko biblia**

Gure asmoa ez da **negozioa egin** eta dirua ateratzea; guk filma ikus dadin nahi dugu, jendeak egoera ezagutu eta hausnar dezan. **Berria - Kultura**

Atsegin handia izan da zurekin **negozioak egitea**. **Alberto Ladrón Arana**

Diru publikoarekin elkarte pribatu bat **negozioak egiten** ari zelako. **Pello Salaburu**

Giza duintasunaren aurkakoa litzateke berez berritzen ez diren gorputz atalekin **negozioa egitea**. **Berria - Gaiak**

Politikaz gain Ameriketako lurretatik etorritako ondasunekin ere **negozioak egiten** baitzuten baroi jaunak. **J.M. Olaiola "Txiliku"**

Higiezin merkatuan **negozioak egiteko**. **Berria - Ekonomia**

Garestiagoa bada, norbait **negozioa egiten** ari den seinale. **Pako Aristi**

Leku askotan egin nahi dituzte honelako parkeak, ez energia beharrari erantzuteko, **negozioa egiteko** baizik. **Juan Luis Zabala**

McCabe, prostituzioarekin **negozio egin** nahi duen koldarra, eta burdela dotoreziaz jantzi nahi duen Miller andere gogorra. **Berria - Kultura**

Tailer bat jarri zitean Obabako industrialdean kamioiak konpontzeko, eta berealdiko **negozioa egin**. **Bernardo Atxaga**

Upelek saldu, ordea, 7,7 milioi euroko **negozio egin** duela dio Fiskaltzak. **Berria - Ekonomia**

Enpresak tamainako **negozioa egitea** bidezkoa du; ezin onartuzkoa dena, ordea, negozio horren kausaz edo ondorioz gizadiak osasuna galtzea, bizimodua endekatzea, bitzita moztea. **Edorta Agirre**

8 **negozio gizon** (81 agerraldi, 37 liburu eta 16 artikulutan; orobat **negozio gizon** 6 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan)

Spainian, Filipe II.ak, haren aita Karlos V.ak bezalaxe, etengabe negoziatu behar izaten zituen **negozio-gizonekin** bere politikagintzaren finantza-bitartekoak. **Koro Navarro**

1882an, Bouvilleko armadoreen eta **negozio-gizonen** federazioa sortu zuten. Gonbidatu guztiak zineko **negozio-gizonak** eta izarrek ziren. **Monika Etxebarria**

Negozio-gizon argia zen, antza, eta aberastasun ugariak lortu zituen. **Askoren artean**

Altxor ezkutua aurkitu zuela sentitzen zuen, eta **negozio-gizon** zuhurraren antzera, gauza guztiak saltzeko asmotan zebilen, aurkitu berri zuen harribitia erosteko. **Askoren artean**

Merkataria, itzalgarria bada, ez da merkataria hutsa, **negozio-gizona** ere bada nola edo hala. **Jose Morales**

9 **negozio emakume**

Fraulein Seligman-Braude **negozio** emakumea zen. **Koro Navarro**

"Rassool doktore andrearen iritzikoa naiz ni ere, nolabait", dio **negozio-emakumeak**. **Oskar Arana**

- Beste edozein **negozio** gizon edo **emakume** bezala, New Age-ren enpresaburuak behar horiek asetzeko bideak bilatzen ditu merkatu partikular horretan. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren **negozio** (3); diru **negozio** (9); diru **negozio oker** (6); euroko **negozio bolumena** (3); euroko **negozio kopurua** (3); euroko **negozio zifra** (5); gero eta **negozio** (3); hirigintza **negozio** (3); milioi euroko **negozio** (12)

negozio atal (5); **negozio aukera** (4); **negozio aukerak** (3); **negozio batean sartu** (3); **negozio bidaia** (4); **negozio bidaian** (3); **negozio bihurtu** (10); **negozio bikaina** (4); **negozio bilakatu** (4); **negozio biribila** (7); **negozio bolumena** (11); **negozio bolumenaren** (3); **negozio ederra** (6); **negozio gizon** (43); **negozio gizon bat** (3); **negozio gizon batek** (3); **negozio gizona** (8); **negozio gizonak** (7); **negozio gizonari** (3); **negozio gizonak** (4); **negozio gizonekin** (3); **negozio gizonen** (5); **negozio gizonentzat** (3); **negozio handi** (6); **negozio handiak** (4); **negozio handiena** (4); **negozio ilunak** (3); **negozio interesak** (3); **negozio itzela** (7); **negozio kopurua** (9); **negozio lagun** (3); **negozio oker** (8); **negozio oker batzuetan** (4); **negozio on** (5); **negozio on bat** (3); **negozio ona** (7); **negozio txarra** (4); **negozio txiki** (5); **negozio zifra** (13); **negozio zifraren** (3); **negozio zikloen** (4)

osasuna **negozio bihurtu** (3)

milioi euroko **negozio** (3); **negozio babesteko** (3); **negozioa egin** (10); **negozioa egitea** (8); **negozioa egiteko** (15); **negozioa egiteko aukera** (3); **negozioa egiten** (7); **negozioa ere** (6); **negozioa eta** (4); **negozioa ez** (6); **negozioa hain** (3); **negozioa itxi** (4); **negozioa negoziatzen** (4); **negozioa ondo** (3); **negozioa saldu** (3)

negozioak direla eta (3); **negozioak ditu** (3); **negozioak egin** (7); **negozioak egiteko** (8); **negozioak egiten** (7); **negozioak egitera** (3)

negozioan hasi (3); **negozioan sartu** (4)

negozio bide iz negoziatze bidea.

Bere arrazakide askok bezala, **negozio bidea** hartu zuen, aberasteko eta gerorako habe sendoak, edozein ekaitzek botatzen gaitzak, erakitzeko. Familia osoarentzako dibertsioa zen **negozio bide** berria: ekintza filmetarako zinemak, bideo-joko aretoak, teatro erakargarri baina ez serioegia, jantoki azkar eta merkeak, eta antzeko hainbat jostaketa bide. **Felipe Juaristi**

negozioburu *(orobat negozio buru)* iz negozio baten burua.

Utzi behar izan genian kontrabandoarena, baina **negozioburuaren** azkartasunak salbatu ninduen ataka larriagoetatik. **Josu Landa**
Segidan, **negozio buruek**, sarrerakoak amaiturik, auzi serioei ekiteko jarri izan duten hizketa molde bertsuarekin. **Patxi Zubizarreta**

negoziodun iz negozioa duen pertsona.

Beti hor zaude zu sillan eserita, **negoziodunen** aurrean jarrita. **Xabier Olarra**

negozioegile iz negoziolaria.

Holandako oihal hoberenaz egin galtzoinak soinean ukanik ere, beren buruak *sans-culottes* iraultzaile izendatzen zituzten burges haiek: notario, abokatu, **negozioegile** dirudun. **Elena Touyarou**

negozioegizon ik negozio 8.

negozioekide *(orobat negozio-kide)* iz negozio berean ari den pertsona.

Gure gizonak negozio-bazkari baten ostean ezagutu zuen ilehoria, kontratu bikain bat sinatu ostean hain zuzen, **negozioekideekin** ospatzen ari zela. haietako batek, Carlos izenekoak, bi etakide ezkututzen dizkik hotelean bere **negozioekideei** ezer esan gabe. **Migel Angel Mintegi**
Urte horretan berorretan Antonietta Portulano, bere aitaren **negozioekidearen** alabarekin ezkondu zen. **Josu Zabaleta**

negoziolari iz negozio gizon edo negozio emakumea.

Neguan, hain zuzen ere, **negoziolariak** izan dezaten beren lanetan jarduteko aukera eguraldi txarraren eragozpenik izan gabe. **Santiago Iruretagoiena**
Arabia sauditarrean beti segitzen da petrolio munduari interesatzen diren mendebal aldetiarren kontrako herrak eta jazarkuntzeek, halaber araba ez diren **negoziolari** eta politikoa horien kontra. **Herria**

negoziotxo iz adkor negozioa.

Negoziotxo batean ari naun, neure pisua zaukanat, eta gaztetxotako zorakerietatik... badakin zein gordetzen dudan. **Urtzi Urrutikoeetxea**
Saltzaileak, belaontzi frantses bateko kontramaisuak, **negoziotxoak** egin nahi zian nire kontura, baina liburuek ez ditek piperrik balio. **Anjel Lertxundi**
Egun horretan ez da lore-saltzaile baimenik behar lore hori saltzeko eta edonork egin dezake bere **negoziotxoak** mendian -edo bere lorategian- lore horiek bildu eta salduz. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

negoziozale izond negoziolaria.

Nahiz **negoziozale** izan, nahiz bankuko langile, legegizon edo enpresa bateko buruzagi, aurre egingo zion horri. **Anton Garikano**

negrotasun iz azal beltzeko pertsona izateko tasuna.

Berba zantarra norberarena egin eta **negrotasunari** inoiz egindako banderarik ederrena da Cesairen poema luzea. **Iñigo Aranbarri**

negrotto iz adkor azal beltzeko pertsona.

Eta hor gertatuko dira, banaka-banaka, erahilketa harrigarri batzu, Agatha Christie-ren "Hamar **negrottoak**" famatuaren molde berean. **Herria**

negu 1 iz lau urtarotetan hotzena, udazkenaren ondotik datorrena, Lurraren iparraldean abenduaren 21 edo 22tik martxoaren 20 edo 21era hedatzen dena.

Negua da, eta hotz egiten du Vienan. **Imanol Zurutuza**
Negua denean, etxe barruan geratzen da telebista ikusten. **Oskar Arana**
Neguan geunden, eta seiatarako iluntzen zuen. **Juan Kruz Igerabide**
Lurrak diraueno ez dira inoiz faltako ereiteak eta uztabiltzeak, hotzak eta beroak, udak eta **neguak**, egunak eta gauak. **Jose Antonio Mujika**
Negu edo uda, udazken edo udaberri, eliza gotiko ala kartoi-harri faltso, zer axola dio, eguzkia bere orbita betiberdin azkengabea jira eta bira badabil? **Karlos Linazasoro**
ik beherago 14. Eta beste **negu** bat etorri zen; eta udaberria, uda eta udazkena berriro. **Juan Kruz Igerabide**
Negu guztian oso urrun lan egin zuela esan zigun, soldaduak eta espetxeratuak zuzendu omen zituen. **Juan Kruz Igerabide**
Izan ere, muxarrak behin lo hartuz gero **negu** osoa pasatzen du lotan. **Pako Aristi**
Baziren beste ordu batzuk Vienako **negu** hartan, non, tarteka, mundu guztiak emanez bezala argi berriari, epel usaineko haizeari. **Xabier Olarra**
Erdipurdiko **negu** baten ondoren, udaberri eder bat etorri zaigu orain. **Josu Zabaleta**
Negua amaitu zenean leiho guztiak ireki zituen, ongi etorria emanez bezala argi berriari, epel usaineko haizeari. **Pako Aristi**
1568ko urtarrilak egun batzuk baizik ez zituen eta **neguak** bere mutur itsusiena erakusten zuen goiz hartan. **Aingeru Epaltza**
Neguaren bihotzean ez zen ongi ikusia beroaldia eta hegoa. **Pello Zabala**
Moldaketa horri esker, saguzarrek errazago gaintitzen **neguak** sortutako eragozpenak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Negua pasatu ondoren, samuaren kumea esnatzen denean, babarrun ale osoa dauka elikagai, indarrak hartu eta zeru zabalera irten aurretik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**
Tailerreko lana gogorra zen; **neguan** hotza pasatzen genuen, eta udan beroa, uralitazko estalpe txatxu haren azpian. **Juan Kruz Igerabide**
Eta **neguan**, berriz, ehunka elur maluta, udako gauetako tximeleekin antz handia dutenak. **Bernardo Atxaga**
Neguan ibaia zein iluna zen kontatzen zigun aitak; ez omen zegoen hura jasaterik soju edan gabe. **Juan Kruz Igerabide**
Neguan lozorroan egon ohi dira, eguzkia amets, munduan diren erbestera guztien antzera. **Joxerra Garzia**

2 (izenondoekin)

Negu bizian batez ere, euriagatik edo kazkabarragatik kapote baten azpian joan beharra geneukanean, [...]. **Bernardo Atxaga**

Behin oso **negu** gogorra egin zuen, hotza eta luzea. Pako Aristi

Negu gogorra egin zuen, eta Peru gure etxean egon zen lurmendua zuen arte. Pako Aristi

Desordu da Vienako **negu** hotzean Mozartentzat, eta malkoak isurtzen dira musikagilearen masailetan behera. Imanol Zurutuza

Etzekandereek ere beren supazterra akulatu behar, bai janariaren prestatzeko, bai eta etxearren doi bat berotzeko **negu** luze eta aspergarrietan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bat-batean iluntzen hasi zuen, **negu** gordineko arrats behera bat balitz baino azkarrago eta trinkoago. Anjel Lertxundi

Negu euritsu baten ondoko maiatz-hilean gaude, eta ikusgarria da lurra dakarren gorantza-nahia. Pako Aristi

Eskualde hartan gertatzen ohi denez, **negu** goiztiarrak udazkena beretzat hartu behar zuela irudi zuen, hango giro berezia zela bide. Karlos Zabala

Azken egunetako hotz izugarriak Siberiako **negu** zorrotza hurreratzan ari zela iragartzen zuen. Karlos Zabala

Negu siberiarrean pilatutako elurra guztiz urtzen du udako eguzkiak. Karlos Zabala

Negu australean tenperatura larriagoa izango da, 37 gradu zeropetik, edo 45 gradu zeropetik. Joseba Sarrionandia

Klima gero eta gordinagoa izango dela aurreikusi zuten: uda gero eta beroagoa eta **negu** gero eta gordinagoa. Berria - Gaiak

Neure baitara babestu naiz, triku bat **negu** hurbila igarotzeko baino bilduago. Anjel Lertxundi

Negu urrun bateko otsoak. Pako Aristi

3 (hitz elkartuetan)

Negu arratsalde da Zornotzan, hamasei urte ditut eta maiteminduta nago. Joseba Sarrionandia

XIX. mende erditsuan, Erronkariko biztanleek ardietsi zuten Erriberako Bardenas deitu lurraldera joaiteko baimena beren artaldeekin **negu** bazketara. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gainerakoak ere etxera abiatu ziren, herriko **negu** isiltasunean. Josu Zabaleta

Ganora handiz, eta **negu** gauetako behinolako suhartasunaz. Josu Zabaleta

Udan ere jendeak **negu** arropekin ibili beharko zuelako. Joseba Sarrionandia

Odol hotzeko animalia gehienek **negu**-loa asmatu dute tenperaturen jaitsierari gogor egiteko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lau gizon winchester bana besoetan zutik, **negu** giroko western batekoak bailiren, aurrean hiru gorpu biluzi ahuspez dituztela. Joseba Sarrionandia

Negu-garaiko goiz batean, soineko urriz eta pobretxo jantzita otoitzean ari zela. Askoren artean

Jainkoa goretsi zuten, hark **negu** sasoi hartan Asisen lortezinak ziren arrain haietaz bere zerbitzaria hornitu zuelako. Askoren artean

Negu aurreko sasoi hartan sarritan heltzen zen behelainoa, batez ere lehor aldetik. Joseba Sarrionandia

Ozonoaren hutsartea, euri azidoak, **negu** efektua, eta abar. Pello Salaburu

Mahatsaren udazken-dasta udazkenean, eta mahaspasaren **negu**-dasta neguan. Joxerra Garzia

4 irud/hed

Trenaren agerpenak **negu** gehiago ekarri zuen negu hotzera. Felipe Juaristi

Negua zen, gerran beti baita **negu**. Felipe Juaristi

Caponek lehendik zekien urte osoa zela **negu** gerra batean. Lutxo Egia

Londres **negua** da. Lutxo Egia

Aspaldi hartan gero eta helduezinago iruditzen zitzaion, gero eta urrunago, gero eta **neguago**. Lutxo Egia

5 (nor bihurtua)

Azkenik, neguko solstizioak elurra dakartza eta lei kixkorak berritzen ditu; badator **Negu**, haginak hotzez dardar. Xabier Amuriza

6 *negu alde* ik negualde.

Zehatzago begira, **negu alde** euritsuaren portatzen dela ikusten da Pontevedra aldean. Pello Zabala

Kirola gehienetan **negu aldean** egiten diren zoin gehiagokak bururatzan ari dire. Herría

Larrañagak esan du **negu aldean** barrurako zenbait saio egiten dituztela, baina jaialdi denboraldia «San Isidroren hasi eta San Martin inguruan» amaitzen dutela. Berria - Kultura

Negu aldean ez bezala, elurteak gutxitu ahala, lehorte idorren kontuak ugaltzen dira apirilean eta hortik aurrerako sasoiaren. Pello Zabala

Surf ekimenak urte osoan burutzen badituzte ere, saltegia itxita egoten da, **negu aldera** jende gutxi ikusten delako Getariako karriketan. Berria - Harian

Hain zuzen ere, uza garaia bukatzean, eta ondorioz ahora zer eramana bukatzean, **negu aldera** ugaltzen baitziren eske kontuak eta kantuak gure alderdi honetan, batez ere Frantzi aldetik, Santiobidea barrena. Patziku Perurena

. SPUC elkarteak baditu **negu alde** egiten diren xapelgoetan abiatuak edo laster abiatuko talde edo pare andana ederrak. Herría

7 *negu beltz*

Mikel Strogoffek nahiago zuen bidaia **negu beltzean** egin, urtaro horretan lera zerbitzua antola baitzitekeen ibilbide osorako. Karlos Zabala

Negu beltzaren atarian hil zen otso beltza, zahartuta. Jon Maia

Negu beltzeko elurte zurietan. Patziku Perurena

Eta **negu beltzean**, lur gorriaren gainean, eguraldiaren haserreari aurka egiteko ahoak darion amasa besterik ez. Patxi Ezkiaga

Garizuma bukatu da; ilun aire batekin oraino, **negu beltzak** ez du amor emateko gogorik. Herría

Beste oroitzapen bat: **negu beltza** zenean, anai-arrebok elkarri arrima-arrima eginda egiten genuen lo. Anjel Lertxundi

Horiek hola, **negu beltzenaren** ondotik ere beti dator primadera. Herría

8 *negu bete*

Negu betea zen, eta Buchenwald-eko mendixkaren gainean, haizea mehea. Marzel Etxehandi

Negu betea zen arren, ezusteko bero oldea baliatuz terrazak jarriak zituzten zenbait tabernari aurreikuslek eta goizeko zazpi t'erdia inguruan jada aulkiak ezarri eta gosaltzeko ostatuak irekitzen ari ziren. Harkaitz Cano

Euskal Herrian ausardia handia behar da **negu betean** bainu bat hartzeko. Berria - Kirola

Hego Hemisferioan **negu betean** sartuta daude. Berria - Kirola

Lekuka, **negu betean** izaiten dira herriko bestak. Herría

Negu betean ginen, baina hoinbeste lagunez bete gela hartan itozeko beroa zen. Marzel Etxehandi

Leihotik sartzen den **negu beteko** argiak, berriz, izotzaren kolorea du. Anjel Lertxundi

Ez da udaberririk izan; azaroz geroztik eguraldi aldagaitz, hotz eta euritsu batean bilduta bizi nintzela iruditzen zitzaidan, apur bat hotzagoa besterik ez **negu betean**. Joseba Urteaga

9 *negu erdi*

Lehenengo gose greba hura **negu erdian** egin genuen, eta hotzaz askoz gehiago izorratzen zara; ez da jakiten, ez jateak eta ahuleziak edo hotzak izorratzen zaituen gehiago. Jokin Urain

Horrela, bada, 1764. urte hartako **negu erdi** aldera, gehiegizko hotzak izan ziren, eta otsoak oso ankertu ziren. Josu Zabaleta

10 *negu gorri*

Erleei ezta eta ardorik onena jartzeko agintzen zuen, **negu gorrian** goseak hil ez zitezen. Askoren artean

Ez hotzak ez beroak izutzen ez duten agente bakarra, ez **negu gorriak** ez uda minak geldiarazten ez dutena, tximista bezala hegan doana, argindarra, alegia. Karlos Zabala

Kalean bertan aritu ziren hasiera batean, azokak-eta baliatuz, baina **negu gorriak** gogor jo zuenean tabernetara sartu behar izan zuten. Txema Ramirez de la Piscina

Zuhaitzei behatu diegu, loreei, **negu gorriko** ondofik inbarratzen den naturaren mirakulu orterrekatu eta, hala ere, beti miresgarriari. **Xabier Montoia**

Negu gorriko eltzean, aza eta zerrikia elkarrekin maizenean. **Patzi Zubizarreta**

Floridara, **negu gorriko** hotz makurretik ihesi. **Xabier Montoia**

Orduan **negu gorriko** izotza sentitu nuen berriro, bai orduan bai beraren "Gabon" xuxurla hura entzutean. **Patxi Zubizarreta**

11 *negu min* (orobat *negumin g.er.*)

Giza elkartek prefetari eskatuak zizkioten hamalau ohe bederen aterbe gabeentzat **negu minaren** iragaiteko. **Herria**

Gaixotasunak harrapatu zuen **negu minean** eta, udaberria heltzearekin batera, osatu egin zen. **Patxi Zubizarreta**

Negu min hotzean, espirituz sendo eta kartsu, jelaz edo elurrez betetako zulo batean murgiltzen zen maiz. **Askoren artean**

Gaueko hamaiketan ez sartua izatea... **negu minean**, horrelako eguraldi txarrekin, kezkarri zen kezkarri. **Daniel Landart**

Ondoan, arditegi berria, modernoa, hiru lau ehun ardi aise aterbetuko dituen, bazkatuko dituelarik **neguminean** artzainak eta deitziko oraiko tekniken arabera. **Piarres Aintziart**

Negu-minean egonik ere, bero dago ia habeartean, hain baita handia bilduriko jendetza! **Jon Muñoz**

Iduri luke gaineko bidea baino errexagoa dela behereko hau, bereziki **negu minean**, noiz eta ere elurra metatzen baita kasko horietan haizea ufaka ari denean. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Uda hasiberri hartan nik **negu minaren** hotza nabaritu nuen neure baitan, eta bakardadearen hotzikara. **Patxi Zubizarreta**

12 *negu oro* (orobat *neguoro*) *negu* guztietan. ik *neguero*.

60 urte pasako kate latzean jardun zen, ia **neguoro**, urte solte batzuetan bakarrik huts eginez. **Pello Zabala**

Zuhaitz banintz, hostagabetuko nintzateke udazken eta **negu oro**, baina ametsak mantendu eta sostengatuko ninduke orduan zutik, zeren, nola bizitzari heriotza darraion, hala baitarraio heriotzari bizitza. **Joan Mari Irigoien**

13 *negu parte*

Odol beroko hainbatek ere gauza bera egiten du eta **negu partea** gorputzaren egoera berezi horretan pasatzen dute: hartzek, marmotek, katamusarrek... **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Negu partea iragan du erosi duen untzia berritzen, motorrea, masta eta bela nagusiak aldatu edo berritu ditu, hortarako behar ziren "sponsors" delakoen erdia jada aurkitua du. **Herria**

Urtaroei erreparatzeko sentiberatasun gutxitxo izaten dudana arren, nahi gabe ere ikusiko nituen elur-pindarrak **negu partean**, adaxka gorrituak udazkenean, bazterrak berdatzen udaberriak aurrera egin ahala... **Xabier Mendiguren Elizegi**

Negu partean, eguraldi ona egiten duenean, pasealeku horietan entrenatzen dira atletak. **Santiago Iruetagoiena**

Janariak **negu partean** banatuak izanen dira zailtasunak dituzten familieri. **Herria**

Jaiotetxeko leihotik bezala, elurra ikusi nahi zuela **negu partean**. **Felipe Juaristi**

Negu parteko goiz hartan, Julian Treku izenabizeneko mutila bere etxetik irten zen Ibarben, egunero bezala, ikastetxera joateko. **Pedro Alberdi**

14 *uda ala negu* (**12** *agerraldi*, **6** *liburu eta 5* *artikulutan*; orobat *uda nahiz negu*, **2** *agerraldi*, **2** *liburutan*; *uda zein negu* **3** *agerraldi*, **3** *liburutan*; edo *uda edo negu* **2** *agerraldi*, **2** *liburutan*) *adlag*

Hirira jaisten zenean, **uda ala negu** izan, burutik oinetaraino oihal lodi eta koloredun batez estaltzen zen, mairuen gisara. **Felipe Juaristi**

Ni, aldiz, egunero, **uda ala negu**, iguzki ala euri, hotz ala bero, goizean eta arratsaldean, baietz bai!, promenaderat ateratzen nintzela. **Filipe Bidart**

Sukaldeko leihoa zabalik izaten zuen beti, **uda ala negu**, egun ala gau. **Jon Maia**

Errepidean, **uda nahiz negu**, beti izaten zen Rosatik Guarora zebilen gurdi eta bizikleta joan-etorria. **Josu Zabaleta**

Karrikaz karrika **uda zein negu**, umeak atzetik zituela. **Felipe Juaristi**

Berdin diola, esan dit, **uda edo negu**. **Hasier Etxeberria**

15 *uda eta negu*

Beltzez jantzi ohi zen **uda eta negu**, laburregi geratzen zitzaion traje batekin. **Joxean Agirre**

Ateetatik hurbil, baratze handi hesitu bat dago: hantxe udare, granada, sagar, piku eta oliboondoak, **uda eta negu** alez beterik. **Juan Kruz Igerabide**

Uren erdiak Itsaso Hilerantz joango dira, eta beste erdiak Mediterraneorantz, **uda eta negu**. **Elizen arteko biblia**

Oinutsik zebiltzan **uda eta negu**. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

negu aldean (3); **negu aldera** (4); **negu batean** (5); **negu batez** (4); **negu beltza** (3); **negu beltzaren** (5); **negu beltzean** (6); **negu beltzeko** (3); **negu betearen** (3); **negu betearen** (17); **negu garaiko** (3); **negu gogor** (3); **negu gogorra** (6); **negu gordin** (3); **negu gordineko** (3); **negu gorria** (8); **negu gorriak** (34); **negu gorrian** (19); **negu gorriaren** (3); **negu gorriko** (7); **negu gorriko hotzak** (3); **negu guzian** (4); **negu guztian** (3); **negu hasieran** (4); **negu hotz** (3); **negu hotza** (5); **negu hotzean** (7); **negu ilun** (3); **negu izan** (4); **negu luze** (3); **negu luzearen** (3); **negu minean** (13); **negu negukoa** (3); **negu osoa** (7); **negu osoan** (10); **negu partean** (13); **negu sasoiaren** (3); **negu siberiarrean** (3)

uda ala negu (12); **uda eta negu** (13); **uda zein negu** (3); **udazken eta negu** (7)

negua amaitu (3); **negua baino lehen** (4); **negua bukatzeaz** (3); **negua da** (16); **negua dator** (3); **negua dela** (3); **negua etorri** (6); **negua etorri zen** (4); **negua gero** (8); **negua gogorra** (4); **negua heldu** (9); **negua heldu da** (6); **negua hotz** (3); **negua hurbil** (4); **negua igarotzeko** (3); **negua iritsi** (6); **negua izan** (12); **negua jin** (4); **negua joan** (4); **negua pasatu** (3); **negua pasatzeko** (3); **negua zaharren hilgarria** (3); **negua zelako** (3); **negua zen** (17)

uda eta negua (4)

aurtengo neguan (11); **iragan neguan** (4); **joan den neguan** (6); **neguan berriz** (3); **neguan egin** (3); **neguan egindako** (5); **neguan eginiko** (3); **neguan eta udaberrian** (5); **neguan gaude** (3); **neguan hasi** (4); **neguan izan** (3); **neguan sartu** (5); **neguan sartzen** (3)

udan eta neguan (4); **udan zein neguan** (4); **udazken eta neguan** (4)

neguaren abiadura (3); **neguaren ama** (3); **neguaren amaiera** (4); **neguaren atarian** (3); **neguaren bihotz** (6); **neguaren bihotza** (6); **neguaren bihotzean** (4); **neguaren bihotzeko** (3); **neguaren erdian** (3)

aurtengo neguari (3); **neguari aurre egiteko** (3)

neguko adar (3); **neguko argia** (3); **neguko arrats** (3); **neguko arratsalde** (7); **neguko arratsalde batean** (3); **neguko arropa** (4); **neguko azoka** (11); **neguko azokako** (4); **neguko azokan** (23); **neguko bideragarritasun plana** (11); **neguko egun** (29); **neguko egun hotza** (3); **neguko egun hotzetan** (3); **neguko eguzki** (10); **neguko eguzkiaren** (4); **neguko elur** (3); **neguko fitxaketa** (3); **neguko fitxaketak** (4); **neguko fitxaketak egiteko** (3); **neguko gau** (21); **neguko gau batean** (5); **neguko gau batez** (3); **neguko gau hotz** (3); **neguko gauak** (3); **neguko gauetan** (6); **neguko goiz** (13); **neguko goiz hotz** (3); **neguko haize** (9); **neguko haize hotzak** (3); **neguko hilabeteetan** (3); **neguko hotz** (4); **neguko hotza** (5); **neguko igande** (4); **neguko koarta** (3); **neguko lehen** (8); **neguko merkatua** (8); **neguko merkatuan** (17); **neguko olinpiar joko** (3); **neguko olinpiar jokoak** (27); **neguko olinpiar jokoetan** (17); **neguko plana** (6); **neguko solstizioan** (4); **neguko solstiziotik** (4); **neguko txapelketa** (8); **neguko zirkua** (13)

negurako gordea (3)

negualde (**4** *agerraldi*, **3** *liburu eta artikulatu* **1**ean; cf *negu alde* **10** *agerraldi*, **3** *liburu eta 4* *artikulutan*) iz ik *negu* **6**.

Luhusoko ortzegunean hasiak dira, aratsaldeko zazpiak eta erditan uda guziko partidak, jaz Hazpamen jokatu zirenak eta **negualdean** Baiona tipiko Sant Andres trinketean jokatzen direnak. **Herria**

Urune esan du Arantxak, *Talue esneagaz*, eta umetan amamak **negualdera** inoiz prestatzen zigan opil zapal eta borobila gogoratu dut, Talo berue, eta zapore gabezia bat igarri dut ahoan. **Joseba Sarrionandia**

negualdi **1** iz *negu* garaia, *neguak* irauten duen aldia. ik *negute*.

3 hilabeteak, **negualdi** osoa joan ohi dela eauritsu. **Pello Zabala**

Irkutslera bidali zituzten **negualdia** portutxoan igarotzen zuten ongiak oro, eta, eraman ahal guztia harturik, garaiz babestu ziren ekialdeko Siberiaren hiriburuan. **Karlos**

Zabala

Negualdian ikasketei ekin eta udaldietan kiroletan eta ehizan ibili ohi ziren biak. **Edorta Jimenez**

Ama hizketan hasi zitzaion, **negualdirako** gomendio guztiak amaigabeko xehetasunez emanez. **Josu Zabaleta**

Ni izan naiz arotza gonbidatzera joan dena, baina haren denda bera izan da, gau bakar bateko **negualdi** labur batez, biok babestu gaituen zaku izerditsua. **Patxi Zubizarreta**

Gizonaren sormena ere **negualdian**, ilunaldietan, itzalaldietan, ernaltzen baita. **Patziku Perurena**

2 irud/hed

Mozartek, gogo-ordainez, ez zuen sekula ahaztuko Pragako egonaldia, bertan ezagutu baitzuen musikariak Giacomo Casanova, bere bizitzako **negualdian**, alde guztietatik zahartzaroaren ura eta bitsa zerizkiola, eta bertan eman baitzioten Vienan inoiz izan ez zuen berotasuna. **Felipe Juaristi**

neguazken iz neguaren amaia.

Beharbada ere, **neguazken** honen prestakuntza fisikorik gabe abiatu, nekadurak jujamendua samintzen dit eta mina arrapizten. **Piarres Aintziart**

Neguazkenetako sasoiari, prestatu omen du soroa, baba bota du, Sebero gotzainari laguntzen lan dezente ere ba omen zuen, eta otoitz eta eskari dabilela, babaok ez dira ba egun pare batean loretan prantatu? **Pello Zabala**

negubide iz negurako bidea.

Ekinozioa da eguzkiarentzako zubia: udabidean, behetik gora doala, erdibidean kokatzen zaion udaberriko gunetxoa bata, eta goitik behera, **negubidean** doaneko udazken ate berexi hori, bestea. **Pello Zabala**

Udazkenak, udatik **negubidean** paratzen gaituenez gero, udaren azken hondarrak oparitzen badaki. **Pello Zabala**

Negubidean, non edo han, oterik guriena ebaki otasegaz, ipini zamatan, eta nola ekartzen omen zuten bizkarrean etxera, ikuiluko azindei emateko. **Patziku Perurena**

neguero adlag negu guztietan. ik negu 12.

Neguero baten bat hiltzen zen hotzez kalean, eta orduan udaletxeak edo apaizek edo karitate elkarteek edo *Salvation Army*-k oheak prestatzen zizkieten pabiloi batzuetan.

Iñaki Zabaleta

neguil (orobat negil eta neguril) iz urtarrila.

Hilabetearentzat baginuen euskaraz beste izen bat, untsa asurtia gainerat, **negila** edo **neguila**, neguan sartzeko hilabetea delakotz alabainan. **Herria**

Nolanahi ere, bai urtaril eta urtaril, edo baita ilbeltz eta **negil** edo **neguil** ere, abenduaren eta urtarilaren tarte hori seinalatze erabili izan dira: beltzeta eta argi gutxien eta extuena duela adierazteko. **Pello Zabala**

Neguril, neguil, neguile, neguaren bihotz hilena, indargeena, argi laburrena esateko erabili omen zen. **Pello Zabala**

neguka adlag

Udaberriko, udaka, udazkeneko eta **neguka**. **Bernardo Atxaga**

negumin ik negu 11.

neguoro ik negu 12.

neguril ik neguil.

neguritar izond/iz Negurikoa, Neguriri dagokona; Neguriko biztanlea.

Euskal-**neguritar** burgesia Goizeko-Izarra eta Sotaren beste ontzi batzuetara igo zen bien bitartean, giro hobearen bila: Venezuelara, Mexikora... **Jokin Urain**

neguritiko izond/iz adkor neguritarra.

Neska **neguritikoak** seguruenik, hizkerak salatzen zuenez. **Patxi Iturritegi**

Erakundiak, ganera, dirua biltzeko eta **neguritikoak** izorratzeko bakarrik erabiliko yozak armak hemendik aurrera. **Txillardegi**

Euskal artea lau **neguritiko**-ren esku ez geratzeko ahalegin itzela egin dute. **Berria - Kultura**

negurkatu ik neurkatu.

negurri ik neurri.

negurtu ik neurtu.

negutar izlag negukoa, neguari dagokiona.

Kolore **negutarrak** alde batera utzi, eta kolore biziakin osatu dute afixa. **Berria - Harian**

negutasun *iz* negua izateko nolakotasuna. • *irud/hed*

Espos berrieri nola erran Sakramendua ez dela arropa xuria estreinatzea bakarrik? erlisionearen kultura arras galdua edo ainiz arrotzia euskararen arabera, hora hemengo Elizaren **negutasuna**. **Herria**

negute *iz* negua den denbora, negualdia.

Esker gaiztokoa izan bada ere, menderen mendetako **negute** beltzetan, zerrikiak baino arima gehiago salbatu du azak gure herriskotan. **Patziku Perurena**

Egin dezagun kontu, oraintsu arte, euren artaldeak hartu eta euren herrietatik urrun joan ohi zirela **negutea** igarotzera. **Koldo Zuazo**

Bai udaldian beroetatik eta bai **negutean** hotzetatik babesteko, eurite, elurte eta haizeteetatik gordetzeko, gizakiak aurretik prestalan asko egin behar izaten ditu, eta horiek ezin dira mamitu pentsaera eta gogoetaren bitartez ez bada. **Xabier Kintana**

negutegi 1 *iz* berotegia.

Negutegi batean loreak aldatzen, edo, lan-mahai batean oholak moztzen. **Jesus Mari Mendizabal**

Gaur bertan milaka apio aldaxka landatu ditut nire **negutegietan** eta hemendik aste batzuetara bilduko ditut. **Berria - Harian**

Lurralde honetan ez duk orkidearik hazten, neure **negutegian** nik hazten ditudanak kenduta. **Xabier Olarra**

Plastikozko **negutegia** hasi ginen altxatzen bertako zabalgunee batean. **Rafa Egiguren**

Emakumeak harem-ean bezala loreak gordetzeko ditudan **negutegietan** igarotzen ditut nire egunak eta nire gauak. **Josu Zabaleta**

Ur-baporea askatzen zuten makinei begira gelditu zen Monike; **negutegiko** sabaitik zintzilikaturik zeuden. **Eider Rodríguez**

Eskailera bat zegoen **negutegiaren** kontra, eta ore mordoxkak han-hemenka erantsita, **negutegiko** sabaia konpontzen hasiak zirenez. **Anton Garikano**

Askorentzat snob bat zen, zenbaitentzat odolkidetasunak eta endogamiak ahuldutako sasi-aristokrazia leinu baten azken alea, errukarriek **negutegiko** lore ikusten zuten. **Jon Alonso**

1985. urtean, 9.000 hektarea baziren **negutegi** bilakatuta. **Berria - Euskal Herria**

Negutegi handi batek bilduko ditu kanpaldian izango diren bilera, hitzaldi eta ekitaldiak. **Berria - Euskal Herria**

Gasteizko euskaltegietako ikasleak etorriko dira **negutegira**, eta klaseak hemen hartuko dituzte. **Berria - Euskal Herria**

2 *negutegi efektu* berotegi efektua.

Negutegi efektua eragiten duten gasen isurketaren hazkundea etetea. **Berria - Ekonomia**

Negutegi efektuak, berriz, parke natural horien balioa honda dezakeela ohartarazi dute. **Berria - Gaiak**

Gas naturala, berriz, asko dago eta merkea da, baina **negutegi** efektua areagotzen du. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

negutegi efektua (11); **negutegi efektua eragiten** (3)

negutu, negu(tu), negutzen 1 du *ad* negua igaro.

Behiala Orreagatik Ainarbe aldera ekartzen omen zituzten mendibehiak **negutzer**a, eta udalahenean beren behisailak aurrean hartuta, joare kalanka eta marru, atzera goimendietara abiatzen zirenean, hala esaten omen zuten goizuetarrek: [...]. **Patziku Perurena**

2 negu itxura izan.

Besterik ez zen nabarmentzen hiriaren azal **negutuan**. **Iñaki Zabaleta**

nehoiz (*orobat neoiz g.er.*) 1 *adlag* inoiz.

-Aitak ez zizun **nehoiz** deus kontatu? **Elena Touyarou**

Ala ahantzia dute gazteek, profeta berriek dioten bezala, autokritikarik gabe ez dela **nehoiz**, nehon deus egin? **Piarres Xarriton**

Marko orain Indietarik heldu da eta urrungo herrialde horietan diren mirakondatu dizkidalarik, miresturik gelditu naiz, **nehoiz** nehorik ez baitzizkidan horrelako berriak jakinarazi. **Aurelia Arkotxa**

Nehoiz nehongo gizakiak ez ikusi, ez entzun, ez amestu ez dituen aberastasun, atsegin eta bozkarioen jabe izanen delarik. **Piarres Xarriton**

Txikiok ezin ukan baitugu **nehoiz** arrazoirik gure eskaeretan. **Hasier Etxeberria**

-Ez zakinat zer irabaziko dugun; dena dela, José mainguka ibiliko dun hemendik aitzina, eta ez dinagu **nehoiz** jakinen noren edo zerengatik. **Itxaro Borda**

Jakin ezak, mutil, ez baldin baduk frantses izan nahi, ez haizela **nehoiz** apeztko! **Piarres Xarriton**

Zeren-eta biharamun hartan burutu behar nuen urratsa, ez bainuen ordura artean **nehoiz** eman, ezta antzekorik ezer ere. **Txillardegi**

Badu funtsean politika egiazkoak [...] edozein ikusgarrik **nehoiz** izanen ez duen eraginkortasuna. **Piarres Xarriton**

Nehoiz ezabatzen ez ziren tatxa gorriak jantzietan. **Itxaro Borda**

Eta bitxiki, **nehoiz** ez bezala, arrazoi ematen zion. **Itxaro Borda**

Nehoiz baino gehiago jendeke parte hartu dute. **Herria**

Ez zion behin ere mazelakorik eman; beraz, ez zen **nehoiz** haren beldur izan. **Elena Touyarou**

Enrieta aldiz, jada erran dizuedan bezala, ez zen auzotegian gehiago **nehoiz** agertu. **Elena Touyarou**

2 *nehoizko izlag* inoizkoa.

Nehoizko kondenamendurik ez eta, gauzak ongi iraganez, asegurantza sozialeko paperak ukanen dituzte. **Elizen arteko biblia**

Etorri haiz azkenik, erran dizu Cartier kapitainak, **nehoizko** irrikik zabalena eskainiz. **Xabier Montoia**

3 *nehoiz ere izlag* inoiz ere.

-Erradan eta, Sophie, ez didan **nehoiz ere** salatu gizongaia badunala. **Eneko Bidegain**

Ez nazak **nehoiz ere** utz, Joanes... **Joan Mari Irigoien**

-Ez duzu **nehoiz ere** haurrik izango. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez baita nehoiz (5); **ez da nehoiz** (11); **ez dela nehoiz** (7); **ez dudala nehoiz** (3); **ez dugula nehoiz** (3); **ez dute nehoiz** (3); **ez naiz nehoiz** (3); **ez nintzen nehoiz** (3); **ez zela nehoiz** (3); **ez zen nehoiz** (6); **ez zidan nehoiz** (4); **ez ziren nehoiz** (4); **ez zuen nehoiz** (14); **ez zutela nehoiz** (3)

nehoiz baino (45); **nehoiz baino gehiago** (7); **nehoiz eman** (4); **nehoiz ere** (37); **nehoiz ere baino** (4); **nehoiz ere ez** (6); **nehoiz ez** (84); **nehoiz ez bezala** (11); **nehoiz ez da** (4); **nehoiz ez dut** (7); **nehoiz ez nuen** (3); **nehoiz ez zen** (5); **nehoiz ez zuen** (4); **nehoiz ezagutu** (4); **nehoiz gertatu** (3); **nehoiz ikusi** (3); **nehoiz izan** (9); **nehoiz izanen** (3); **nehoiz jakin** (4)

nehoizka *adlag* inoizka.

Eta, **nehoizka**, isilunez eteten zituen bere solasak, zeinak profitatzen baitzituen kezko uztai edo koroatxo haien egiteko. **Joan Mari Irigoien**

Zeren Collège de France-n bai batzuegoen ikaskideren bat, baita irakasleren bat ere **nehoizka**, gauza haietarako prest egon zitekeena eta koadroen nondik norakoez mintzatzeko gertu. **Joan Mari Irigoien**

nehola 1 *adlag* inola.

-Ukaitearen arloan ezin da osorik sar **nehola**. **Herria**

2 neholako *izlag* inolako.

Kasu berean geunden gu geu ere euskaldunok, ezen, gure Hegoaldeko diputatu batzuek bidali ziotelarik Wilson presidenteari beren askatasun deia, ez zien, nik dakidala, nehorik **neholako** erantzunik eman. **Piarres Xarriton**

Arima arrazoiduna alabaina gauza gorpuzgabea eta zatiezina da eta ez du **neholako** hatz behatzik. **Piarres Xarriton**

Zeren eta arima baino izpiritualago eta singleago baita aingerua eta haiek biak baino ere Jainkoa, **neholako** konparaziorik ere gabe. **Piarres Xarriton**

Gainera, ez zegoen **neholako** argirik barnean, **neholako** ahotsik, **neholako** pausorik, **neholako** hotsik. **Koldo Izagirre**

Bizpahiru zaintzalek lagundurik, kartierreko ateari buruz abiatzen naiz, burua galderaz beterik. Ate handi famatu hura zabaltzen dute eta kartierretik ateratzen gira detentziorik normalean sartzeko, **neholako** neurri berezirik gabe. **Filipe Bidart**

Bordaren inguruan ez zuen **neholako** seinale susmagarririk antzeman. **Itxaro Borda**

3 neholare *ere* inola ere. ik neholere.

Errepublikaren hizkuntza ez dela izan behar **neholare** ingelesa. **Piarres Xarriton**

Estatu jakobino eta monarkikoen ezin dute **neholare** onartu beren mugen eta konkisten kuestionatzea; beren hizkuntza eta inposaketa moldearen kuestionatzea. **Filipe Bidart**

Lagun batzuek ez dutela ene ikusmoldea, aurrerakoa ala desesperatua, onartzen, jendearen oreka bio-psikologikoa ez dela kimika bidez **neholare** kanbiatu behar hitza oihuz moztzen didatela. **Itxaro Borda**

Horrek ez du **neholare** gure hizkuntzaren egoera hobetzen. **Herria**

Urrats berri bat emanen zuen eta dena trabarik gabe iraganen zela baldin bazekien ere, senditzen zuen beldurra ez zezakeen **neholare** kasa. **Eneko Bidegain**

4 neholaz *ere* neholare ere.

Eskualde hartan ez dela **neholaz ere** apez ihardokitzailerik onetsiko, eta, are gutxiago, lehengo eginkizunak bete eta iraultzaren kontrako propaganda egiten duenik. **Elena Touyarou**

Eta nola ez dion hark eman bere legearen aurka deus erabakitzeke eskurik, ezin du **neholaz ere** deus erabaki haren aurka. **Piarres Xarriton**

Jainko Egiatzkoaren lekua orain Nazioari emaiten dion Nazionalismoa ez da, **neholaz ere**, Kristauen sinestea izaiten ahal: Erromatar paganoen sineste okerretara itzultzea litzateke hori, dudarik gabe. **Piarres Xarriton**

Lau leiho ttipietatik sartzen zena ez zen **neholaz ere** bagoi erdiraino heltzen. **Eneko Bidegain**

Baina ez dio horrek laguntzarik ekartzen Baldusi, ez eta nehon **neholaz ere** Lukanoren bertso honek: *Bere jabe ez den ahaldu oro indartuko da.* **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neholare (25); **neholare ez** (10)

ez da neholako (9); **ez dago neholako** (4); **ez dela neholako** (3); **ez du neholako** (10); **neholako afekturik** (6); **neholako bertuterik** (4); **neholako gaizkiaren** (3); **neholako kargurik** (4); **neholako xehetasunik** (3)

neholaz ere (41); **neholaz ere ez** (4)

neholere *adlag* neholare ere.

Guziek elkar atxik dezagun, **neholere** ahal bada. **Piarres Xarriton**

nehon (*orobat nehun g.er. eta nihon g.er.*) 1 *adlag* inon.

Ala ahantzia dute gazteek, profeta berriek dioten bezala, autokritikarik gabe ez dela nehoiz, **nehon** deus egin? **Piarres Xarriton**

Ez dituela nehoiz ez **nehon** gaizkileak gaztigatuko. **Piarres Xarriton**

Garbitasuna, lixiba usaina, argi xuri bizi bat... eta beste nehor ez ageri **nehon** ibilbideetan. **Filipe Bidart**

Nehorik **nehon** egundaino egin ez duen bitzikeria pisu bat! **Janbattitt Dirassar**

Azkenean atabal handiaren inguruan kantuz eta jauzteka ari diren gazteen eskuen hauspoak eta bestaldetik ozen den herriaren bozkario miragarriak, ez diote **nehon** nehorik kalterik egiten. **Piarres Xarriton**

Moto, auto, kamioneta, sirena guziak pizturik, oihuka marrumaka, **nehon** gelditu gabe, ez eta su gorrietan ere. **Filipe Bidart**

Pilotariak eskuen berotzen hasiak baina Maddalenik **nehon** ez ageri... **Janbattitt Dirassar**

Hirian sartu ziren, **nehon** gelditu gabe, eta portu bazterrera iristean, zaldiak aske utzi zituzten. **Elena Touyarou**

Ez zen Historiaren itzulia baratu, ez Europan, ez Ameriketan, ez beste **nehon** mundu zabalean. **Piarres Xarriton**

-Etxean baino **nehon** ez hobe -erran zuen pentsakor arma azpi-artean zutik zetxikanak. **Itxaro Borda**

Presuna ohargarria eta maitagarria, **nehon** baldin bazen. **Marzel Etxehandi**

2 nehongo *izlag*

Diote jende horiek, ez dela biluzirik ibiltzean ahalkerik, Jainkoak hala gaituelakotz kreatu eta hori naturala dela eta ez dela hor **nehongo** gaizkirik. **Aurelia Arkotxa**

Horrelako etxe zabalean bizi zelarik, neholako hiriaren eta **nehongo** erregeren menpean izan gabe. **Piarres Xarriton**

Eta politiko horiek **nehongo** bandil eta kriminalekin nahastekatuak dira, merkatu beltzero, ohoin, proxeneta, pederasta, Sorbonako erakle, industria-gizon, ofizier, diputatu, apez, lastaira beretan aurkitzen dira, mahai beretan. **Marzel Etxehandi**

Ez zezan **nehongo** negoziotian, ez bere burua ager, ez bere iritzirik eman. **Piarres Xarriton**

Nehongo arautegian idatzia ez zen jokamolde araudi bat hautsi zuen: harreman sexualak ukan zituen, ezkondu gabe, eta bekatuaren froga sabelean zeraman. **Elena Touyarou**

Nehongo harrokeriak, ez neholako gaiztakeriak bultzatu gabe. **Piarres Xarriton**

Ezen, ez genuen aurkituko **nehongo** gizonik ez emazterik, ez enbaxadorerik ez bankaririk, [...] ez erlezainik ez txirindularirik, aita saindu hark, batere durduzatu gabe, bakoitzari bere ofizioko azken hitza emanen ez zionik. **Piarres Xarriton**

Leku batetik besterako jin-joanek ondarrean **nehongo** erromes bilakatu ninduten. **Piarres Aintziart**

Baionatik Maule edo Pauerraino bazakiten beste kasetalariak Lafitten berri, ez baitzen hura beldur **nehongo** ikasle lauso edo bihurrien trakeskerien salatzeke. **Herria**

Nehongo lehiaketa guziak jokatzu eta gehienak irabaziz, gehiago dena, ala trinket ala ezkerpareta eta orotan. **Herria**

3 nehon *ere*

71 urtetan, itsasuntzi beladun batean, munduaren itzulia bururatu du 233 egunez **nehon ere** gelditu gabe. **Herria**

Ez zen **nehon ere**, abiatzear zegoen trenea huts egiten alajainkoa! **Itxaro Borda**

Beste **nehon ere** ez funtsean. **Janbattitt Dirassar**

-Berritua, **nehon-ere**... **Menane Oxandabaratz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste nehon (5); **ez beste nehon** (3); **ez da nehon** (5); **nehon ageri** (5); **nehon baino** (4); **nehon ere** (7); **nehon ez** (23); **nehon ez da** (4)

ez da nehondik (5); **ez zuen nehondik** (3); **nehondik ere** (40); **nehondik ere ez** (3); **nehondik ez** (3); **nehondik ezin** (3)

beste nehongo (3); **ez da nehongo** (4); **ez dela nehongo** (3); **ez duela nehongo** (3); **jainkoaz kanpo nehongo** (3); **nehongo kausarik** (3); **nehongo substantziarik** (6); **nehongo substantziarik ez** (4)

nehon ez (4)

nehondik *(orobat nihundik g.er.) adlag* inondik.

Noizbait, nehor **nehondik** ez ageri-eta, berriz ari izan nintzen atea jo eta jo... **Janbattitt Dirassar**

Apaldu eta mirazkatu zuen: bezperako motozerraren ametsa kolokoratu zitzaion, odol isuririk ez zitzaion susmatzen arren, **nehondik**. **Itxaro Borda**

Eliza ez da mugatzen hartatik ageri den horretara, baina hartatik ageri den hori, ezin du berak **nehondik** ukatu. **Piarres Xarriton**

Arrantzale jantziek ez zen Bidartetik haratago joanen ahal, eta Baionara sartzeko kontrola, pentsa, **nehondik** ez zuen pasatuko. **Elena Touyarou**

Agian eni idaztera bultzatu zaituen Jesu Kristo gure Jaunaren amodioak ordainduko du horrelako borondate ona eta karitatea, zeren nik, nahirik ere, ez baitut **nehondik** ene zorra betetzen ahal, ez ihardesten ahal zuk zure aldetik erakusten didazun borondate onari! **Piarres Xarriton**

3 nehondik ere

-Nire anaia **nehondik ere** ez da atzerritarra. **Elena Touyarou**

Nik ez dezaket **nehondik** ere uka indianoa naizela! **Aurelia Arkotxa**

Beste anitz euskaldun bezala, ez zen **nehondik ere** ados Paristik heldu ziren manu garratzekin. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ez baitu **nehondik ere** batasunak irauten ahal, non ez zaion horrela lerro handiaren ezberdintasunari begiratzen. **Piarres Xarriton**

1848an esposatzera zihoazen biak, noiz eta ere Madrilgo errege palazioak jakinarazi baitziren ezkontza hori ez zela **nehondik ere** onartzen ahal. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

· **Nehondik ere** eskuin bozkatzera abian da; horrek hoztu du Sophie. **Eneko Bidegain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ez da nehondik (5); **ez zuen nehondik** (3); **nehondik ere** (40); **nehondik ere ez** (3); **nehondik ez** (3); **nehondik ezin** (3)

nehor *(orobat nihor g.er.) izord* inor.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bertze nehor (8); **bertze nehor ere** (3); **beste nehor** (16); **beste nehor ez** (6); **besterik nehor** (3); **ez baita nehor** (10); **ez baitzuen nehor** (3); **ez da nehor** (29); **ez dago nehor** (3); **ez dela nehor** (10); **ez du nehor** (11); **ez duela nehor** (4); **ez dut nehor** (5); **ez dute nehor** (10); **ez luke nehor** (3); **ez nehor** (6); **ez nuen nehor** (4); **ez zen nehor** (8); **kasik nehor** (8)

nehor agurtu gabe (4); **nehor ahanzi gabe** (5); **nehor baino** (6); **nehor baletor** (3); **nehor baztertu** (4); **nehor berexi gabe** (3); **nehor bizi** (3); **nehor bortxatu gabe** (4); **nehor enoatu** (5); **nehor ere** (33); **nehor ere ez** (8); **nehor ere ikusi** (3); **nehor etzen** (4); **nehor ez** (275); **nehor ez ageri** (5); **nehor ez baita** (13); **nehor ez baitzen** (7); **nehor ez da** (65); **nehor ez dadila** (4); **nehor ez dadin** (7); **nehor ez daiteke** (3); **nehor ez dela** (13); **nehor ez den** (3); **nehor ez du** (3); **nehor ez duk** (3); **nehor ez dut** (5); **nehor ez dute** (3); **nehor ez omen** (3); **nehor ez zela** (4); **nehor ez zen** (37); **nehor ez zitekeen** (3); **nehor ezagutzen** (7); **nehor ezagutzen ez** (3); **nehor ezin** (8); **nehor guti** (12); **nehor guti da** (3); **nehor gutik** (6); **nehor hil** (4); **nehor ikusi** (5); **nehor izan** (7); **nehor kolpatu gabe** (3); **nehor ohartu gabe** (3)

sekula nehor (3)

bertze neherekin (3); **ez zuen neherekin** (3); **neherekin ez** (4)

beste neherekin (4); **deusen ez neherekin** (3); **ez da neherekin** (5); **ez du neherekin** (5); **ez neherekin** (6); **neherekin beldur** (5); **neherekin beldurrik** (8); **neherekin beldurrik gabe** (4); **neherekin ez** (5); **neherekin ez deusen** (4); **neherekin kontra** (3); **neherekin laguntzarik gabe** (3)

bertze neherekin (3)

bertze neheri (6); **beste neheri** (5); **da neheri** (3); **ez bertze neheri** (4); **ez duela neheri** (3); **ez neheri** (4); **ez zaio neheri** (5); **kalterik egiten neheri** (3); **neheri baimenik** (3); **neheri deus** (4); **neheri eman** (3); **neheri ere** (3); **neheri ez** (15); **neheri ez zion** (3); **neheri kalterik egin** (5); **neheri kalterik egiten** (5); **neheri minik egin** (3); **neheri trabarik** (3)

bertze nehor (3); **beste nehor** (3); **beste nehor ez** (9); **ez baitu nehor** (4); **ez du nehor** (17); **ez nehor** (5); **ez nehor ez** (3); **ez zuen nehor** (13); **gutarik nehor** (3); **haletarik nehor** (3); **hori nehor ez** (13); **hori nehor ezin** (8); **horiek nehor ez** (4); **nahiz nehor ez** (5)

nehor amesten ez (3); **nehor asmatzen ez** (3); **nehor baino hobeki** (11); **nehor deus** (6); **nehor ere** (24); **nehor ere ez** (5)

nehor etzuen (7); **nehor ez** (594); **nehor ez baitaki** (7); **nehor ez baitezake** (3); **nehor ez baititu** (3); **nehor ez baitu** (18); **nehor ez baitzekien** (3); **nehor ez baitzuen** (4); **nehor ez bezala** (5); **nehor ez daki** (47); **nehor ez dakiela** (6); **nehor ez dezake** (16); **nehor ez dezan** (4); **nehor ez die** (4); **nehor ez dik** (3); **nehor ez dio** (4); **nehor ez diote** (3); **nehor ez dit** (5); **nehor ez ditu** (12); **nehor ez dizue** (3); **nehor ez du** (149); **nehor ez duela** (18); **nehor ez duelarik** (3); **nehor ez duen** (4); **nehor ez ikusten** (3); **nehor ez jakin** (25); **nehor ez nahi** (3); **nehor ez nau** (3); **nehor ez ninduen** (3); **nehor ez omen** (5); **nehor ez zaitu** (5); **nehor ez zekien** (7); **nehor ez zezakeen** (8); **nehor ez zezan** (6); **nehor ez zidan** (6); **nehor ez zien** (4); **nehor ez zion** (7); **nehor ez zituen** (9); **nehor ez zuela** (12); **nehor ez zuelarik** (4); **nehor ez zuen** (45)

nehor ezin (61); **nehor ezin du** (7); **nehor ezin erran** (39); **nehor galdegin** (3); **nehor ikus ez** (3); **nehor ikusi gabe** (3); **nehor jakin** (4); **nehor nahi** (4); **nehor sinetsi** (4); **nehor uste** (37); **nehor uste baino** (23); **nehor uste ez** (10)

orduan nehor ez (3); **zeren nehor ez** (3)

nehorat *adlag* inora.

Bizirik, abere bihi bat ez ditake kamiunez **nehorat** ereman, salbu hiltegiatarat. **Herria**

Baina Maider ez zen **nehorat** ateratzen. **Janbattitt Dirassar**

Eta, bat-batean, hemen naiz, zelda batean bakarrik, ezin mugituz, **nehorat** ezin joan, nehor ere ikusi gabe, deus ez egitekorik, zaintzaleak atea noiz zabalduko didan zain, beha, ene urratsak kondatzen, orenak minutuka kondatzen, minutuak urraska... **Filipe Bidart**

Indar bat egiten ere da **nehorat** biltzerik ez duten horien hein bat laguntzeko, bereziki hotz handiak badirelarik. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nehorat ezin (15); **nehorat ezin abantzatzu** (3); **nehorat ezin gehiago** (3); **nehorat segidako biltzerik** (3)

nehun ik nehon.

neka ik nekatu 8.

neka-neka ik nekatu 8.

nekabera *izond* nekea adierazten duena.

Garbi-garbi gogoratzen dut haren ahotsa; antzinako hiribaztertarraren ahots patxadatsu. **nekabera**, sudurkaria, oraingo italiar txistu-hotsik gabea. **Juan Garzia**

nekabide *iz* nekea, oinazea.

-Bizitza osoa **nekabidea** besterik ez da. **Patxi Zubizarreta**

nekadura 1 *iz* nekatzea. ik unadura; akidura.

Nekadurak eta hotzak sendimendu eskas batean utzi naute. **Piarres Aintziart**

Nekaduraz, tristeziaraz, Kirxaren kafea geratzen zitzaion azkena zela oroitu zuen. **Patxi Zubizarreta**

Geroxago da, bi orenez goiti iraun duen partida hortan, agertu irabazleen tema bipila batetik, eta galtzaleen **nekadura** bestetik. **Herria**

Sindrome hori hainbat gaixotasun motatan gauzatzen dela zehaztu du ikerketak, hala nola buruko min izugarriak, etengabeko **nekadura**, giharretako min itzelak edo larruko hainbat eritasun. **Berria - Mundua**

2 irud/hed

Bihurdura-problema, igurzketa-koefizientea, altzairuaren bibrazioaren eraginezko **nekadura** eta abar. **Joxe Austin Arrieta**

3 (hitz elkartuetan)

Nekadura sentsazioarekin joan gara salara eta bata bestearen alboan eseri gara. **Joseba Sarrionandia**

nekaezin (*orobat neka ezin g.er.*) 1 *izond* ezin nekatuzkoa. (pertsonez)

Kalakari isilezina, bidaiari ipurtarina, gautxori **nekaezina**, edale zoroa eta emakumezale gogorra. **Aingeru Epaltza**

Komunikabide, herri aldizkari eta literatur aldizkari askotako kolaboratzaile fin eta **nekaezina** da. **Ana Urkiza**

Irakurle arretatsua zen, oroimen sendokoa, eklektikoa eta **nekaezina**. **Juan Garzia**

Durant jaunak bildumazale **nekaezintzat** eta irakurle aseezintzat zeukan bere burua. **Mirentxu Larrañaga**

Askotan deitu zion Pierre-Olivierrri, audientzia berezietan, bidaiari **nekaezinak** konta ziezazkion, behin eta berriro, lurralde ezezagun haietako gertakizun eta ohitura bitxiak, bazter ezkutuetaoko lilura estaliak. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Kazetaritza mota hori, egunez egun errepikatuta, iraultzailerik **nekaezinena** ere aspertzeko eta desliluratzeko gai da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Apostolu **nekaezinak** Atlantikoa zeharkatua zuen Cadizetik Vera Cruzera, eta Ozeano Barea, Akapulkotik Filipinetaraino. **Iñaki Mendiguren**

Errukarren laguntzaile **nekaezinak** ez zion huts egin eta erreguak entzun zizkion. **Askoren artean**

Eurak oraindino estudianteak dira, errepikatzaile **nekaezin** horietarikoak. **Jon Arretxe**

Ohean **makina** nekaezina da. **Jon Arretxe**

2 (animaliez eta gauzez)

Zakurrak nagusiaren alde borrokatzeko prest daude, artaldeak zaintzen **nekaezinak** dira. Erle-armada batek jaten dizu barrena; ondo antolaturik daude, eta lanean

nekaezinak dira. **Goizon Garate**

Inurri **nekaezinen** antzera. **Jose Morales**

Espermatozoide **nekaezinak** tronpetara iritsiko dira, baina han ez dute obulurik aurkituko. **Luis Elberdin**

Bere zama ia guztia esklabo mekaniko **nekaezin** bati eman diolako. **Iñaki Mendiguren**

Futuro hitzaren beharrik gabe, planetek, meteoritoek eta beste asteroideek betetzen dituzten orbita eliptiko **nekaezin** eta ia zehatzez axolatu gabe. **Joseba Sarrionandia**

Eguneroko kontua da Kaiku taldearen ahalegin **nekaezina**. **Berria - Kirola**

Zazpi urte mutu zeramatzan andre batek irrika **nekaezinez** bere erreguak zuzentzen zizkion Jainkoari, mihia aska ziezaiola eskatuz. **Askoren artean**

Esquerrak koherentzia osoz jokatu du, eta alderdiaren jarrera **nekaezin** eta beligeranteak Espainiako Gobernuaren eta CiUren nahiak zapuzteko balio izan du. **Berria - Mundua**

Haien berritsukeria **nekaezina** gehiegizko bihurtzen zenean, hitz labur eta apalez eta burua makurtuz isiltasuna ezartzen zuen. **Askoren artean**

Erritmo **nekaezina**, are gehiago soingintzan hasi berria den batentzako. **Berria - Kultura**

Hereseen aurkako gorrotoa gupidagabea zen, eta bere grinaren jardun sutsua **nekaezina**. **Jon Alonso**

3 (adizlagun gisa)

Hiriaren gainean biraka ari ziren **nekaezin**, putreak bezalaxe, gizon kondenatuen haragiaren zain. **Agustin Otsoa**

Abadea adeitsu eta **nekaezin** agertzen zen kontsulta haietan. **Karlos Zabala**

Nekaezin, Jimmy ibili eta ibili zebilen. **Lopez de Arana**

4 nekaezinezko *izlag* nekaezina.

Etengabe ari zen oihu eta oihu, **nekaezinezko** ahots batez: [...]. **Josu Zabaleta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

langile nekaezina (3); **nekaezina izan** (6)

nekagabe *izond* nekerik ez duena.

Han behean zegoen metropoli modernoaren bihotz **nekagabea**, neonezko arteria argitsuek zeharkatua: bankuak, museoak, pizzeriak, megadendak... **Patxi Iturritegi**

Arreta guztia liburu baten ertzeko txikikeriaren batean edo tipografian ipinita ordu luze **nekagabeetan** hausnarrean aritzea. **Koro Navarro**

nekagaitz 1 *izond* nekez nekatzen dena. (pertsonez)

Langile ixila baina **nekagaitza**, emaitzetan oparoa. **Herria**

Miren baizik ez dut topatu, zure betiko emazte, lagun eta zaindari **nekagaitza**. **Xabier Montoia**

Noizean behin haur **nekagaitz** edo begirale betigazte batek ekingo dio udalekuan arrakasta handiena izandako doinuren bati. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Artean ez zuen beste ezeren ardurarik Egiaren bilatzaile **nekagaitza** deitua izan den Agustín deunak. **Imanol Unzurrunzaga**

Lasai, lasai, jar zaitezte ilaran, **nekagaitza** naiz, denendako egonen da, bete itzazue zuen godaletak nire elderraz. **Koldo Izagirre**

2 (animaliez eta gauzez)

Emakume ederra baitzen, mendian ahuntz **nekagaitzen** moduan ibiltzen zena. [Joan Mari Irigoien](#)
Gure ustezko ordezkotzan adore harturik, mundua -eta munduan gu!- salbatzeko lanari ekiten dio, kemen **nekagaitz** batez. [Anjel Lertxundi](#)
Ortodoxiak zimendu ezin sendoagoak aurkitu ditu beraren lan **nekagaitzean**. [Anjel Lertxundi](#)
Agudoago ibiltzen zen, bere pauso **nekagaitzaz**. [Karlos Zabala](#)
-Zure barkamena eskatzen dut, lehengusu -esan zuen Golek bere irribarre **nekagaitz** faltsuarekin-. [Joanes Urkixo](#)
Nasa hartan harrien eta olatu **nekagaitzen** artean lotuta. [Joseba Sarrionandia](#)

3 (adizlagun gisa)

Baina nabaritu ditut bien bitartean haren begi txiki eta odolaz apur bat gorrituak, etengabe artega eta **nekagaitz**, pertsona eta talde batetik bestera ibilian. [Urtzi Urrutikoetxea](#)
Hamahiru urteko neskatila saiatu baten setakeriaz, **nekagaitz**, nire bizitza zurearen jiran zebilen, zure existentziaren inguruan. [Eduardo Matauko](#)

nekagarri 1 *izond* nekatzen duena. (pertsonez)

Jan eta ixo, agure **nekagarri** hori, eta segi sagarrondoak landatzera eta irratia entzutera. [Eider Rodriguez](#)
Nik uste bezala, neska hau **nekagarria** duk. [Patxi Zubizarreta](#)
Aste latza pasa berria nintzen, egunik ez bilerarik gabe, atsedena behar nuen; eta jendea **nekagarria** da. [Joxe Austin Arrieta](#)

2 (gauzez)

Ez zuen uste hain lan **nekagarria** zenik hura. [Josu Zabaleta](#)
Aurretik, baina, tramite **nekagarriak** eta ilara luzeak egin eta, segurtasunaren aitzakian, mugimendu askatasuna urratzen dituzten baldintzak onartu behar izan dituzte. [Berria - Harian](#)
200 kilometro gorabeheratsu eta **nekagarri** aurretik, Erdialdeko Mendikateko errepide gaiztoetan barrena. [Berria - Kirola](#)
Haien oldar **nekagarriak** guztiz kezkatu utzi zuen. [Askoren artean](#)
Inguru dena zurrupatu eta trukean ezer ematen ez duen begirada **nekagarri** horietako bat. [Harkaitz Cano](#)
Anaiekin modu **nekagarri** eta maltzurrian jokatzeko hasi zen. [Askoren artean](#)
Aldapa luze **nekagarri** batek eraman ninduen oihanaren gainera. [Daniel Landart](#)
Ezin gintezkeela beti bizi nazkaren uretan ito-ez-ito **nekagarri** horretan, eta, munduari uko egin nahi izanez gero, baldintza bat bete behar dela ezinbestez eta aurretik; alegia beraren konkista. [Karlos Linazasoro](#)
Egia esan, oso **nekagarria** da dirurik eta baliabiderik gabe zinema egitea. [Berria - Kultura](#)

3 (adizlagun gisa)

Margaritari **nekagarri** gertatzen zitzaion anaia denbora guztian etxean egotea, eta irtetera bultzatzen zuen. [Josu Zabaleta](#)
Norbaitek esan dezake egia dela ez natzaizuela **nekagarri** gertatu, baina, begi argikoa naizenez, engainuz harrapatu zaituztedala. [Elizen arteko biblia](#)
Lagunaren patxada **nekagarri egiten** ari zitzaidan. [Aingeru Epaltza](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lan **nekagarri** (4); **nekagarri egiten** (5); **nekagarri gerta** (3); **nekagarri gertatzen** (4)

lan **nekagarria** (7); **luze eta nekagarria** (4); **nekagarria gertatzen** (3); **nekagarria izan** (12); **nekagarria izan zen** (6); **nekagarria izango** (4); **nekagarria zen** (8); **oso nekagarria** (7)

nekaldi 1 *iz* Jesu Kristok hil aurreko egunetan pairatu zituen nekeak eta oinazeak. ik **pasio 2**.

Jesusen jaiotza, **nekaldi**, piztuera eta igokundeko misterioak begiratzu eta bereganatuz. [Askoren artean](#)
Jesusen gurutzean, **nekaldian** eta heriotzan, jotzen du bere gailurra, Jesusek, bere borondatea Aitaren borondatearen baitan jarriz, bere burua opari eskaini zuenean. [Askoren artean](#)
Pazko-afaria eta **nekaldia**. [Elizen arteko biblia](#)
Kontura gaitzean anaia guztiok, bere ardiak salbatzearen gurutzeko **nekaldia** jasan zuen Artzain onaz. [Askoren artean](#)
Senti dezadala bizi naizen bitartean, ariman eta gorputzean, ahal den neurrian, zuk, Jesus ezti horrek, zeure **nekaldi** ikaragarriko orduan sentitu zenuen oinazea. [Askoren artean](#)
Jesusek bere **nekaldi**-piztuerak lehenengoz iragarri. [Elizen arteko biblia](#)
Gurutze-bideen adibidea aipatzen du, elizetan Kristoren **nekaldia** irudikatuz egon ohi diren hamalau irudizko sekuentziak. [Josu Zabaleta](#)

2 irud/hed

Tammuz eta Atis eta Adonis eta Osirisen **nekaldietan** Jesukristoren **Nekaldiaren** iragarpena suma genezake. [Iñaki Mendiguren](#)
San Verekundo soldadu eta martiriaren **nekaldia**. [Askoren artean](#)
San Sebastian martiriaren **nekaldiari** buruzko estampa sepia bat. [Mirentxu Larrañaga](#)

2 Jesu Kristoren nekaldia gaitzat duen oratorioa.

Obra: 'San Joanen araberako **nekaldia**' BWV 245. [Berria - Kultura](#)
Beste **nekaldian**, Mateorenean, musikak hitza gailentzen du, baina Bach-enean hitz taupadak gorputzetik zeharrrastaten ziren. [Berria - Kultura](#)
Ebanjelarietako aparteko lana bete zuen, Bachen **nekaldi** honetan hitzak duen garrantzia behin eta berriz azpimarratzen bere ahoskeran. [Berria - Kultura](#)

3 neke edo oinazezko denbora. ik **nekealdi**; **oinazealdi**.

Gogoko zuen jendeari jakinaraztea nolako **nekaldia** zen kontzertu bat berarentzat. [Irene Aldasoro](#)
-Izan dinagu aski **nekaldi**. [Juan Kruz Igerabide](#)
Hauxe bai **nekaldia**, Jauna, gaitza benetan, **nekaldi** latza. [Mirentxu Larrañaga](#)
Jainkoaren izenean, amaituko al dituzu behingoz zure oloak, Wilmarth andereñoa, eta libratuko al nauzu **nekaldi** honetatik? [Mirentxu Larrañaga](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nekaldi piztuerak (7)

jaunaren nekaldia (5); **kristoren nekaldia** (6); **nekaldia eta piztuera** (3)

jaunaren nekaldiagatik (3); **kristoren nekaldiagatik** (5)

kristoren nekaldiaren (9); **kristoren nekaldiaren oroipena** (3); **nekaldiaren oroipena** (3)

jaunaren nekaldiko (5); **kristoren nekaldiko** (5)

nekarazi, nekaraz, nekarazten 1 du *ad* nekatzera behartu.

Zergatik **nekarazi** duzu jende hau gertatu, geure artean inolako gerrarik? **Elizen arteko biblia**
Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango istil, urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak jario osasun-galgarriak sortzen dituen, bidatzia **nekaraziz** eta maiz arrisku larrian utziz. **Karlos Zabala**
Pazientzia askorekin jokotuta, kontrarioa estu hartuta, **nekarazita**, pilota lau t'erdiko arrastoan behin eta berriz jarrita. **Berria - Kirola**
Laino artean kea balitz bezala azaldu zen argia, geltokitik irteerakoan, begiak **nekaraziz**. **Felipe Juaristi**

2 gogaitarazi.

Autoreari guttiz lotsagarri zaio irakurlea hain luzaz **nekaraztea** beheko klaseko jendeari buruzko kontuekin. **Jose Morales**
Nekarazi egiten zaitu bere argudioekin. **Oskar Arana**
Potter gaixoa nire esku dago, eta ez du inork **nekarazi** behar! **Iñaki Mendiguren**
Gure gorputz galkorra arimarentzat zama da, lurrezko etxola honek berez kezkatu den espiritua **nekarazten** du. **Elizen arteko biblia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
espiritua nekarazten (3); **nekarazten du** (3); **nekarazten zuten** (3)

nekatu, neka, nekatzen 1 da *ad* lanaren edo ahaleginaren ondorioz indarrak ahitu edo nabariki gutxitu. ikakitu; unatu; adikatu.

Alferrik **nekatu** naiz, hutsean eta zertarako gabe akitu ditut indarrak. **Elizen arteko biblia**
Asko **nekatzen** nauk hoteleko dantzaldietan soinua jotzen. **Bernardo Atxaga**
Laster **nekatzen** nintzen eta eseri egin behar izaten nuen. **Alberto Ladron Arana**
Berehala **nekatzen** nintzen, berehala edozein lekutan loak hartzen. **Txillardegi**
Ez genuen inoren kontura jan geure ogia; aitzitik, gau eta egun lanean **nekatu** ginen zuetako inorentzat zama ez izateko. **Elizen arteko biblia**
Lasterketari soilik diot beldur, itsasoan asko **nekatu** bainaiz, eta nire hankak oraindik ahul samar baitaude. **Juan Kruz Igerabide**
Azkenean, **nekatu** egin ziren etsaien zaldiak. **Elizen arteko biblia**
Kementsu prestatzen da lanerako, ez zaizkio inoiz besoak **nekatzen**. **Elizen arteko biblia**
Nekatura zuen mihia, arratsalde osoan hizketan aritu baitzen Dorset Streeteko pub batean. **Irene Aldasoro**
Luze ari zara hitz egiten, zutik, eta **nekatu** egingo zara. **Josu Zabaleta**
Inspektoreak **nekatu** arte jo zuen. **Bernardo Atxaga**
Gero Fernando hauspoari eragiten aritu zitzaion tarteka-tarteka, **nekatu** zen arte. **Koro Navarro**
Zure ikusmena **nekatu** eginen da eta ezingo duzu ikusi zeure begirada behartu baino lehenago hauteman ahal zenuena bera ere. **Xabier Kintana**
Neska **nekatzen** dun zutik egoten, eta esertzeko baimena eskatzen zion izebari. **Anjel Lertxundi**
Oso berandu da eta **nekatura** dago. **Antton Olano**
Ezin izan zuen lo hartu, sobera **nekatura** zen. **Koldo Izagirre**

2 nekea hartu.

Nahaste-borrastea zuzentzen zergatik **nekatu**? **Gotzon Garate**
Inoiz ez zen **nekatu** hitz bat ahoskatzen edo irriñorik tikiena ere oparitzen. **Aingeru Epaltza**
Kristinaren aginduak -gonbidapenez mozorrotzen ere ez zen **nekatu** -, nahi gabean, hondar egunetako ene ezbaierako bat argitu zidan. **Aingeru Epaltza**
Dauzkadan bi tapakiekin estali ginen biok, eta ez nintzen **nekatu** zatarrak pilatuz ohiko estalkia osatzen. **Koro Navarro**

• 3 du *ad* nekea eragin.

Hasieran joan hadi poliki, zaldiak **nekatu** gabe, gero lasterka egin beharko diagu-eta. **Koro Navarro**
Haurdunaldiko lehen asteek izugarri **nekatu** ninduten eta mehetu zitzaizkidan masailak. **Joxan Elozegi**
Eskailerek **nekatu** egiten zaituzte. **Lourdes Oñederra**
Gelara itzuli eta bukatzeko agindu zieten, zeren "dantza on orok **nekatu** egiten baitu". **Josu Zabaleta**
Lanak **nekatu** egiten gaitu eta astialdiak lanerako prestatzen gaitu. **Berria - Gaiak**
Arnasa hartu zuen, ordu arte kontatu zidanak ikaragarri **nekatu** izan balu bezala. **Anjel Lertxundi**
Egoteak ere **nekatu** egiten zaitu, baina neke horrek ez dizu minik ematen. **Lourdes Oñederra**
Mendeetan eta mendeetan egin behar izan duen lanak sorbaldak makurrazazi eta hankak **nekatu** dizkiola esan liteke. **Anjel Lertxundi**
Nik, gizabidez jokatu nahi nuen eta, erizainaren gustuko testu bat idazten **nekatu** dut eskua. **Anjel Lertxundi**
Ez zait gustatzen burua alferrik **nekatzea**, eta, amak dioenez, oraindik gaztea naiz zenbait gauza ulertu ahal izateko. **Patxi Iturrategi**
Horiek gutxi batzuk besterik ez dira, orain bat-batean gogoratu ditudanak burua **nekatu** gabe. **Karlos Zabala**

• 4 da/du *ad* nekea sentitu edo sentiarazi. ik gogaitu.

Amorante bat: pentsatze hutsarekin **nekatu** egiten naiz. **Iban Zaldua**
Nekatzten hasia zen pixkanaka "loti ederren" etxe hartaz. **Ibon Uribarri**
Nire emazteari sinestera, ez omen nintzen **nekatu** haren titi ikusgarriei so egiteaz, "begiak pilotak bezain zabal". **Aingeru Epaltza**
Zutik egoteaz **nekatzen** nintzenez, bost axola zitzaidan lupetza edo putzua egon: lekua egin eta jarri egiten nintzen. **Urtzi Urrutikoetxea**
Nekatzten hasia nengoen, **nekatzen** eta aspertzen. **Jasone Osoro**
Nekatu nintzen beren panparroikeriez eta arrandiez, ez nuen beren gustu txarreko umore matxista aintzat hartu. **Jon Alonso**
Europar dirua galtzeaz **nekatu** dela adierazi du General Motors multinazional estatubatuarrek. **Berria - Ekonomia**
Baina hainbeste [lenteja] ikusten zituenean, batzuk igerian eta beste batzuk multzo zirkunstantzialetan, **nekatu** egiten zen, eta haserretu. **Unai Elorriaga**
Lur jota nago; arazoa konpontzen ez badut, laguna nirekin **nekatu** egingo da, eta hobeto egingo dion beste bat bilatuko du. **Luis Elberdin**
Berritsu hutsa da, **nekatu** egiten baitzaitu azkenerako. **Josu Zabaleta**
Berarengandik, gauza bakar batek **nekatzen** ninduen: bere arte-grinak, bere dena ikusi beharrenez maniak. **Joxe Austin Arrieta**
Barbaroak **nekatu** egiten ninduen. **Urtzi Urrutikoetxea**
Ez zaitut **nekatu** nahi fakultatekoek oparitu dizkidaten astalarroekin. **Anjel Lertxundi**
Horrelako pedanteriekin **nekatu** eta nazkatu egin dezakete bat baino gehiago. **Koldo Zuazo**
Ez zintuzket gehiegi **nekatu** nahi, baina entzun gaitzazu, otoi, unetxo batean, ohi duzun bihotz onez. **Elizen arteko biblia**
Egunak **nekatu** eta aspertu egiten nau. **Josu Zabaleta**
Etorkizunak **nekatu** egiten du. **Bernardo Atxaga**

5 (era burutua izenondo gisa)

Irakasle **nekatu** honek asko estimatuko luke norbaitek bermut bat ekarriko balio. **Bernardo Atxaga**
Suspenseak soilik mantentzen zituenean ezizari **nekatu** haiek esna, ondoren zer gertatuko zen, zer kontatuko zuen jakin-nahiak. **Pako Aristi**
Errezatu egin nien Jainkoari eta eliza populatzen zuten igeltsuzko, egurrezko eta marmolezko irudi **nekatu** eta insomnee. **Joseba Sarrionandia**
Lur biluzia zuen gehienetan bere gorputz **nekatuarentzat** ohe. **Askoren artean**

Ikusi ditu nire atsekabea eta nire esku **nekatuak** . Elizen arteko biblia

Emakume gazteak aurpegi **nekatu** eta garbia du, pixka bat muturtua. **Monika Etxebarria**

Mahai gainera eman zuen so **nekatua** . **Felipe Juaristi**

-Agure madarikatua -marmar egin zuen, irribarre **nekatu** batez. **Jon Muñoz**

Eta hala hasi zen, ahots **nekatu** batez, eztulaldiek aldiro eteten zutela: [...]. **Josu Zabaleta**

Begirada pisu **nekatu** batez. **Monika Etxebarria**

-Zuk uste? -begiratu zidan distira **nekatu** batez-. **Juan Kruz Igerabide**

Bizkar zabaleko gizon txikia zen eta tximino-begi **nekatu** hondoratuak zituen. **Lopez de Arana**

Halako aire **nekatu** , unatu, abaildu batekin. **Josu Zabaleta**

Joseba jauzi **nekatu** batez jaiki zen. **Fernando Morillo**

Oroitzapen bat bera ere ez zuela esnatu zen, pentsamendu bat ere ez zuela, loaldi **nekatu** hartan bere buru guztia hustu izan balitzaio bezala. **Josu Zabaleta**

Nekatuari indarrak berritzen dizkio, ezinduari ahalmena bihurtzen. **Elizen arteko biblia**

Zatozte niregana, **nekatu** eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atseden. **Elizen arteko biblia**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Basurtokoaren **nekatu** ahotsari ezitasun berri bat igarri nion nik. **Edorta Jimenez**

Apaiza isilik zegoen, **nekatu** aurpegiarekin, eta horrexegatik hain zuzen, isilik eta nekatuta zegoelako ez zuen tximistarenik aipatu. **Felipe Juaristi**

Inolako sentipenik erakutsi gabe ari zen, **nekatu** aire bat, gehienez ere, lorik gabeko beilak hartaratu. **Aingeru Epaltza**

Emakume batek, argiak itsuturik, eskua eraman zuen begietara **nekatu** itxuraz, eta burua inarrosi zuen. **Monika Etxebarria**

7 nekatzearren adlag

Ez hainbeste ez **nekatzearren** , nola gauza horiei iraunarazteko, astiro zihoan Dahlmann, zorientasun larri arnastuz hirustaren usaina. **Juan Garzia**

8 neka-neka egin asko nekatu.

Luze egin du igeri itsasoan aurrera, **neka-neka egin** arte. **Pako Aristi**

Honekin batera, ariketa fisikoa, asmo bakarrarekin: gorputza **neka-neka egin** "tentaldi" oro ezabatzeko. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

Nik ez nuen lanik aurkitzen, eta **neka-neka egiten** nintzen zeinerenahi egiteko ordainduren bila. **Juan Garzia**

Eta lelo berarekin ari zitzaion egunero, Sanson **neka-neka egiteraino** . **Jose Antonio Mujika**

Noiz balakuka, noiz errietan abere gaixoei, **neka-neka eginak** baitzeuden aire astun geldo harengatik bideko maldagatik baino gehiago. **Karlos Zabala**

Tabernara **neka-neka egin** a iristen zen, eta bere burua gela beiraduneko bankuan erortzen uzten zuen. **Karlos Zabala**

Neka-neka eginik etxeratu eta artean bagenuen elkar maitatzeko aski indarrak. **Xabier Montoia**

Burua **neka-neka eginik** zeukan. **Migel Angel Mintegi**

Gizona gauzez **neka-neka eginda** etortzen zen, greziar auzunean zuen etxera, salmenta asko hitzez eta are gehiago idatziz lotu ondoren, eta andrea zain izaten zuen.

Felipe Juaristi

Neka-neka eginda nago, egia esan. burdinazko atea ondo itxita, etxeko goialdeko gela ez askoz alaiagoetara abiatu ginen, **neka-neka eginda** . **Aitor Arana**

Zuhaitz baten azpian su egin eta etzan egin zen, **neka-neka eginda** . **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahots nekatu (5); alferrik nekatu (3); asko nekatu (6); aurpegi nekatu (4); begiak nekatu (3); berehala nekatu (4); burua nekatu (5); egiteak nekatu (3); gehiago nekatu (3); gehiegi nekatu (4); irribarre nekatu (3); jendea nekatu (3); nahikoa nekatu (3)

nekatu antzean (10); nekatu arte (12); nekatu bat (6); nekatu baten (3); nekatu batez (6); nekatu behar (3); nekatu beharrik (7); nekatu eta aspertu (3); nekatu gabe (23); nekatu itxura (10); nekatu izan (3); nekatu nahi (9); nekatu naiz (6); nekatu nintzen (4); nekatu samar (10); nekatu samarra (3); nekatu zen (9); nekatu ziren (3)

sobera nekatu (3); zergatik nekatu (4); zertarako nekatu (3)

arras nekatua (3); arrunt nekatua (3); biziki nekatua (5); gorputz nekatua (3); hain nengoen nekatua (3)

nekatua dago (6); nekatua egongo (3); nekatua ematen (4); nekatua nago (10); nekatua zaude (3); nekatua zegoela (4); nekatua zegoen (7); nekatua zen (3); oso nekatua (15); oso nekatua nago (4)

begi nekatuak (7); esku nekatuak (3); nekatuak ditu (4); nekatuak zeuden (5)

nekatuegi nago (3); nekatuegi zegoen (7)

nekatuegia dago (3)

alferrik nekatuko (4)

nekatuak dagoela (4); nekatuak daude (3); nekatuak egon (6); nekatuak egon arren (3); nekatuak hago (4); nekatuak nago (10); nekatuak nengoen (5); nekatuak sentitzen (8); nekatuak zegoela (5); nekatuak zegoen (8); oso nekatuak (12)

apur bat nekatuta (7); ederki nekatuta (3); hain nekatuta (3); horren nekatuta (3); jada nekatuta (3); nahiko nekatuta (7)

nekatuta amaitu (3); nekatuta balego (5); nekatuta balego bezala (4); nekatuta dago (22); nekatuta dagoela (11); nekatuta daude (7); nekatuta egon (7); nekatuta egongo (10); nekatuta egotea (5); nekatuta ematen (5); nekatuta ematen zuen (3); nekatuta eta aspertuta (3); nekatuta gaude (7); nekatuta geunden (4); nekatuta ikusten (5); nekatuta iritsi (8); nekatuta nago (44); nekatuta nagoela (3); nekatuta nagoenean (3); nekatuta nagok (7); nekatuta nagon (4); nekatuta nengoela (3); nekatuta nengoelako (3); nekatuta nengoen (15); nekatuta sentitzen (4); nekatuta sentitzen zen (3); nekatuta sumatu (3); nekatuta zaude (7); nekatuta zegoela (18); nekatuta zegoela esan (4); nekatuta zegoelako (3); nekatuta zegoen (32); nekatuta zeuden (4); nekatuta zirudien (3)

oso nekatuta (53); oso nekatuta dago (5); oso nekatuta nengoen (3); oso nekatuta zegoela (4); pixka bat nekatuta (4); taldekideak nekatuta (3); zeharo nekatuta (5) gehiegi ez nekatzeko (5)

alferrik nekatzen (5); asko nekatzen (10); burua nekatzen (5); ez da nekatzen (9); ez dira nekatzen (4); gehiago nekatzen (6); hankak nekatzen (3); inoiz nekatzen (5)

nekatzen ari (9); nekatzen ari zela (4); nekatzen da (4); nekatzen den (4); nekatzen denean (3); nekatzen dira (6); nekatzen du (7); nekatzen hasi (8); nekatzen hasi zen (3); nekatzen hasia (13); nekatzen hasia nintzen (3); nekatzen nintzen (4); nekatzen nintzenean (3); nekatzen zaitu (4); nekatzen zenean (5); nekatzen zuen (5)

neka neka egin (3); neka neka eginda (46); neka neka eginik (3)

nekatze iz lanaren edo ahaleginaren ondorioz indarrak ahitu edo nabariki gutxitzea.

Esatera noan honek topiko usaina du baina, Aloña, bere gaizkitze eta **nekatze** haiekin guztiekin, sekula ez zegoen aldarte egokian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Opor edo bakantza denboran, gorputza bera heziz arimarekin batean, egiten zituzten balentria ederrak, xintxuketa, kurritze, kanpo-lan eta **nekatze** ... hainbestetaraino nun bilakatzen baitziren gazte horiek zailtasun eta trebezia haundiko putiko gogor. **Herria**

nekatzeke adlag nekatu gabe.

Eta zalduneria liburuak irakurtzen gehiago **nekatzeke** , handi haiek guztiak hartu eta istegira botatzeko agindu zion andeari. **Patxi Ezkiaga**

nekazal ik nekazari 3.

nekazaldu izond nekazari bihurtua.

Hara, horrekin guztiarekin, gure laborari **nekazalduak** Lorentzo santuari zion debozio partikularra. **Pello Zabala**

nekazale *izond* nekazaria, laboraria.

Bi-biok ere baliabide errazak eman dizkiete baseritar **nekazaleei**, hain zuzen ere, besoak aberastasun sortzaile dituztenei, euren buruak lurren jabe egiteko. **Andres**

Urrutia

· Duela zenbait urte, lurrarekin borrokatzen ziren gizonek merexi zuten **Nekazale** izena; tresna berriari esker lana errextu da, bainan kasu ixtripuari. **Herria**

nekazari *(orobat nekezari g.er.)* 1 iz lurra landuz bizibidea irabazten duen pertsona. ik **laborari**; **lugin**.

Nekazari bat, *paysan* bat, lurrari atxikitako gizona. **Oskar Arana**

Kain eta Abel **nekazariaren** eta nomadaren ordezkarri dira. **Iñaki Mendiguren**

Iritzi zabalduenaren arabera, **nekazaria** da hemen eta nonahi lurretik gertuena bizi den giza klasea. **Iñaki Seguro**

Mila lagun inguru bizi zen orduan herrian; **nekazariak** eta abeltzainak. **Eduarne Elizondo**

Hemen, **nekazariak** meatzariari utzi dio lekua. **Karlos Zabala**

Gizondutakoan ez nintzela **nekazaria** izango agindu nion neure buruari, diligenziako nagusia izango nintzela, maiorala alegia. **Bernardo Atxaga**

Nekazariak, goizean, sorora joaten dira uzta hartuta. **Koro Navarro**

Begira **nekazariari**: lurraren fruitu ederraren zain egoten da eta pazientziak itxaroten ditu sasoiaren sasoiak. **Elizen arteko biblia**

Lanean ahalegindu den **nekazariak** behar du izan lehena uzta-biltzean. **Elizen arteko biblia**

ekoizpenaren parte bat **nekazariak** bereganatzen du, gainerakoa jaunarena da. **Koro Navarro**

Alorrez harago **nekazarien** izbak ageri ziren. **Jose Morales**

Nekazariak hiriko azokara zihoazen, eta haien irudi arropa ugariz jantzietan gau amaitu berriaren freskura sentitzen zen oraindik. **Jose Morales**

Joputzaren garaian, gobernua **nekazarien** errolda egiten zuen aldika, eta lurjabeek erroldaturiko arima-kopuruaren neurrian ordaintzen zituzten zergak. **Jose Morales**

Tokiko merkataritza **nekazarien** bigarren mailako jarduera zen, eta xehekako salerosketa baino ez zen haietan egiten. **Koro Navarro**

Zinez, garaiko kroniken arabera, zazpi andre hil zituen **nekazari** bat izan zen, Ibañez de Garayo izenekoa eta 1860. urte aldera urkatu zutena. **Bernardo Atxaga**

Onuragarria al zen **nekazariak** erostea beste leku batera aldatzeko?, horra hiriko elkarrizketa, eztabaida eta gogoeta guztien mamia. -Esadazu, adiskidea, zenbat **nekazari** hil zaizkigu azken errolda aurkeztu genuenetik? **Jose Morales**

Gaur kalean bizi denarekiko arraz diferentia eta bestelakoa **nekazariaren** filosofia. **Pello Zabala**

Biak oso neska ederrak ziren, ez pentsa, **nekazariak** izanagatik. **Pello Lizarralde**

Gizonezko nekazariak deitzen diren herri heheak erabiltzen zuten hitz arrunta. **Jose Morales**

Mundua denon baratze handia da, ken ditzagun hesiak eta txarrantzak, itsasoa arrantzaleena, lurra **nekazariena**. **Koldo Izagirre**

2 (izenondoekin)

Ahaztu egin zaizu ez dagoela **nekazari** onak saltzen dituen lurjabeak. **Jose Morales**

Nekazari gazte ile-horail bat zen. **Josu Zabaleta**

Bazen behin **nekazari** aberats bat, dohain berezia zuena: gai zen animalien hizketa desberdinak ulertzeko. **Patxi Zubizarreta**

Hirugarren Munduko **nekazari** pobreek bizirik irauteko zelako lanak egin behar dituzten kontatu nion nik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Eskualdeko **nekazari** pobreek antolatutako ehizaldi xumeak. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nekazari baldar, ezjakin, arloaren topikoa bazterturik, **nekazari** argi, jakintsu, gizatasunez jantziaren erudia eraiki behar zuen Mogegek. **Anjel Lertxundi**

Eta halaxe gertatu zen printze ahaltsu eta boteretsu bat **nekazari** xumea bilakatu zela. **Patxi Zubizarreta**

Nire aitaita artzaina zen, **nekazari** eskolagabea. **Pello Zabala**

Nekazari ezjakin batek ezin zituen afixak irakurri susmagarri bilakatu gabe. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Nekazari zorritsu horiekin baino hamar bider gehiago irabaz dezaken. **Eskarne Mujika**

Denbora asko ez dela, ez zen harrizketa ehitari edo **nekazari** bakarti bat elurretan hiltzea. **Bernardo Atxaga**

Lubis, Pantxo, Ubanbe eta **"nekazari** zoriontsuengandik" jasotzen nuen mezua doi-doi iristen zitzaian eguneroko zarataren artean. **Bernardo Atxaga**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **nekazal**; Euskaltzaindiaren Hiztegian ez da **nekazal** agertzen; bai **nekazari**-) ik **nekazaritza** 3.

Nekazari etxe bat zen, handia, antzinakoa, zuria, aurrealdea zuriz margotua, eta lehen solairuan hormaz estalitako galeria bat zuena. **Josu Zabaleta**

Hiru probintzietako eta Nafarroako baseritar eta kapare zahar haiek, Pirinioetako bi aldeetako **nekazari** erdiaristokrazia hark, Borboi harengan sinesten zuten, atzeritar arrunta eta atzeritartua izanagatik ere, eta hiltzeko ere prest zeuden horrelako abenturazale irigarri baten goranahia asetzearren. **Koro Navarro**

Hango **nekazari** produktuek munduko merkatuetara iristeko ahalmena izatea. **Iñaki Heras**

Nekazari -lanetan ehun arima inguru dituzten lurjabeek. **Jose Morales**

Nekazari -eskualdeetako bizimodua beti izan da elkarren aurka azpikerietan ari diren auzokideen istorioa. **Oskar Arana**

Adélaïne Fouque, **nekazari** familia aberats bateko alaba, Pierre Rougon izeneko morroiarekin ezkondu eta seme bat izan zuen, Pierre. **Karlos Zabala**

Sandrak El Salvadorrera joatea pentsatu zuen, hango **nekazari** -komunitate batean lagunduz geure bizitza-proiektuan jarrai genezakeelakoan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Andaluzan **nekazari** arraza da, aurpegiko hazpegietan beretan ezagun du. **Joxe Azurmendi**

Hamaika **nekazari** -belaunaldik hamaika bider iraulitako lurra da. **Imanol Zurutuza**

Zertarako dituzu nekazariak?, haien **nekazari** -bizimodua babesteko? **Jose Morales**

Nekazari giroko festetan. **Xabier Olarra**

Estimu handitan daukat, beti **nekazari** -beroki arruntez jantziak badago ere. **Jose Morales**

Oihal puska adabakituz, zakuz, antzinako fraide eta **nekazari** jantziz, bizkarrean itxura gabeko pardelak zituztela. **Josu Zabaleta**

Nekazari -herri primitiboetan. **Iñaki Mendiguren**

Mendebaldeko Kristandadean **nekazari** -gizartea zen orduan. **Iñaki Mendiguren**

Rasputinek liluratuta zeukan inguruko **nekazari** jendea. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

4 (izenondo gisa)

Ararateko emakume **nekazariak** bezala jantzen zen, gona asko bata bestearen gainean. **Fernando Rey**

Sartu nintzen ni ere gizon eta emakume **nekazari** haien artean, eta hara zer ikusi zuten nire begiek: [...]. **Bernardo Atxaga**

Gizarte **nekazari** eta txiro batek egin zezakeen neurri apalean, berriro agertu ziren euskarazko liburuak plazan. **Koldo Zuazo**

Esan beharra dago, Euskal Herri **nekazari** emakumeak lanik gogorrenetan gizonak bezalaxe edo okerrago ibiltzen zirela. **Koldo Izagirre**

Horrelakoa zen baseritar **nekazariaren** patua, lan bat bukatu baino lehen bestea zain. **Pello Zabala**

Erroma "arraza **nekazaria**" da beste ezer ez. **Joxe Azurmendi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabako nekazari (3); ari zen nekazari (3); auzoko nekazari (3); bertako nekazari (5); euskal herriko nekazari (3); hango nekazari (4); milaka nekazari (3); nafarroako nekazari (5)

nekazari aberats (6); nekazari eremu (3); nekazari eremu biziak (3); nekazari eremuetan (3); nekazari eskoletan (3); nekazari eta abeltzain (5); nekazari eta abeltzainei (3); nekazari eta abeltzainen (7); nekazari etxe (5); nekazari ezjakin (5); nekazari familia (8); nekazari gazte (3); nekazari gazteen (4); nekazari giroan (3); nekazari giroari

(3); nekazari guneetan (3); nekazari hilak (4); nekazari hiltzaileen (3); nekazari hiltzaileen parabola (3); nekazari munduan (4); nekazari pobrez (3); nekazari txiro (3); nekazari zahar (4); nekazari zoriontsuen (8)

neska nekazari (3)

nekazaria izan (3)

nekazariak dira (4); nekazariak erosi (3); nekazariak esan (8); nekazariak esan zion (5); nekazariak izan (5); nekazariak zirela (3); nekazariak ziren (6)

nekazariei zuzendutako (4)

nekazariak erabiltzen (4); obabako nekazariak (3); txitxikoven nekazariak (3)

arabako nekazarien (3); euskal herriko nekazarien (16); indigenen eta nekazarien (6); langileen eta nekazarien (3); nekazarien beharrak (3); nekazarien egoera (9); nekazarien elkartasunak (6); nekazarien elkarreak (6); nekazarien errolda (3); nekazarien eskubideak (3); nekazarien eta abeltzainen (7); nekazarien giroko (3); nekazarien sindikatuak (4); nekazarien sindikatuko (6)

nekazal ikerketa (3); nekazal lurretan (4)

nekazaritza 1 iz lurra lantzea, lur lana; nekazariaren lanbidea. ik laborantza.

Jarduera ekonomiko nagusia: **nekazaritza** eta abeltzaintza. Bernardo Atxaga

Argi dago, proteina ekoizteaz ari garela, **nekazaritza** abeltzaintza baino bide ekonomikoago eta ekologikoagoa dela. Edorta Agirre

Estatu Batuetan, mendearen hasieran, % 39 ari zen lanean **nekazaritza** eta meatzaritzan, % 39 zerbitzuetan eta % 29 manufakturan. Pello Salaburu

Berrogeita zazpi herritatik hogeita hemeretzi dira landa-baserri eta **nekazaritzari** lotuta bizi direnak. Pello Zabala

Cajamarca eskualdeko herritarren %72 abeltzantzatik eta **nekazaritzatik** bizi dira. Berria - Gaiak

Nekazaritza ikasi zuen Donapaleuko Laborantza eskolan eta Historian lizentziatua da Paueko unibertsitatean. Ana Urkiza

Garapen-bideko herrialdeetan berriz, biztanleriaren parte handi bat aritzen da **nekazaritzan**. Koro Navarro

Nekazaritza gero eta gehiago erabiltzen ari diren pestizida modernoek hainbat heriotzaren errua egotzi zaie. Irene Aldasoro

Hasieran, FARCEk ez zuen begi onez ikusi drogari loturiko **nekazaritza** bultzatzea eta kokazaleei koka zerga kobratzen zien. Berria - Mundua

Artoaren eta sagarraren nekazaritza nagusitu zaizkio erre-koloreari, lautadari, buztinaren usainari, gariaren eta mahatsaren **nekazaritzari**. Anjel Lertxundi

Nekazaritzarako egokiak diren 15 hektareako lur-sail bat. Pako Aristi

Halaxe gertatzen da industria-erlaketara bideraturiko gaieki dagokienez (meatzaritzakoak nahiz **nekazaritzakoak** izan), gai horien horniduran gertaturiko eten orok ekoizpenaren kate osoa geldiaraz baitezake. Koro Navarro

Nonahi ageri ziren, beraz, fabrikak eta meatzeak, baina bakar eta urri baserriak eta **nekazaritzako** etxaldeak. Karlos Zabala

Nonahi ageri ziren, beraz, fabrikak eta meatzeak, baina bakar eta urri baserriak eta **nekazaritzako** etxaldeak. Karlos Zabala

COAGen arabera, **nekazaritzako** gasolioaren %33 zergak dira. Berria - Ekonomia

Kreditua, meatzaritza edo **nekazaritzako** errentarik baldin badago, eta laguntza bereziki, izaten dira atzerritar kapitalen sarbide nagusia. Koro Navarro

James Wilson (1836-1920) **nekazaritzako** ministro izan zen McKinley, Roosvelt eta Taft (1897-1913) lehendakari zirela. Xabier Ollarra

Europar gizarteak ez du, oro har, begi onez ikusten **nekazaritzan** aplikatutako transgenikoen bioteknologia. Askoren artean

Nazio Batuen Elikadura eta **Nekazaritzarako** Erakundearen (FAO) 2003ko Txostenak adierazten duenez, [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nekazaritza txirotasunaren aldeko aldeetan pobrezia edota azpigarapena hedatu dira, eta **nekazaritza** aberasetakoetan, berriz, ekonomia hazkundera eta industrializazioa. Iñaki Heras

Nekazaritza transgenikoa egiten bada, kontsumitutako produktuak ere transgenikoak izango dira, argi utzi nahi diegu kontsumitzaileei. Berria - Euskal Herria

Nekazaritza ekologikoaren kontseilu arautzailea osatu nahi du Lakuak. Berria - Ekonomia

Uste duzu **nekazaritza** industrialia iraunkorra dela? Berria - Gaiak

Egun, garesti ordaintzen dugu agente komunistaren garaietan bultzatutako **nekazaritza** intentsiboa. Berria - Mundua

Zer gertatu behar da ohiko **nekazaritzak** iraua ahal izateko? Berria - Ekonomia

Iraupeneko **nekazaritzaren** ordez dirua egiteko nekazaritza ezarri zen. Iñaki Mendiguren

Etorkizuneko **nekazaritza** guneak irudikatzea ere zail zaio oraindik. Berria - Gaiak

Lurrik gabeko **nekazaritza** bultzatu du Jaurilaritzak. Berria - Ekonomia

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik nekazari 3.

Zortzi urterekin, haurrak **nekazaritza** lanetan laguntzen hasiko ziren. Luis Elberdin

Prezio konstanteetan, lehengaien beharaldia, eta **nekazaritza** eta meatzaritza-gaia bereziki, etengabea izan zen aldi horretan guztian. Koro Navarro

Emakumeek oso leku nabarmena zuten **nekazaritza** gizartearen aurretiko egitura sozialetan. Luis Elberdin

Horieta batean, Marquetalian, **nekazaritza** komunitatea ezarri zuten 1.000 nekazarik. Berria - Mundua

Nekazaritza lurrik garrantzitsuenen (Kalkilia eta Tulkarem artekoak oso emankorrak dira) galera gertatzen ari da. Berria - Harian

Ez du inoiz oso begi ona edukiko **nekazaritza** -giroko bizimoduaren edertasunari erreparatzeko, Wordsworth horrenbeste irakurri izan arren. Oskar Arana

Landa eta **nekazaritza** ingurunearen errealitatea gizarteratzeko helburuari jarraikiz, lau film eskainiko dira Donostiako Antzoki Zaharrean eta Larrotxene kultur etxean. Berria - Kultura

Kirkukeko **nekazaritza** kooperatiba baten egoitzaren kontra tiro egin zuten atzo. Berria - Mundua

AEBetako erdialdeko lurraldeetan, **nekazaritza** guneetan, homosexualitatea gaitz ikaragarritzat jotzen dute. Berria - Kultura

Nekazaritza sektorean aldaketarik ez badago, abendu eta Gabon beroak izango ditugu. Berria - Ekonomia

Euskal Herriko **nekazaritza** eskola gehienetan ikasketak espainieraz edo frantsesez egin beharra dago. Berria - Harian

Aterabide bat dago hor Europako **nekazaritza** krisiarentzat? Berria - Harian

Nekazaritza ekonomiatik zerbitzuetako ekonomiara pasatu ondoren, emakumeek independentzia ekonomikoa berreskuratu dute. Luis Elberdin

Periferiak, batik bat, sistema kapitalistan sartutako munduaren lehengai eta **nekazaritza** ondasunen hornitzaile funtzioa betetzen du. Iñaki Heras

"Integrazio" hitzak, hemen, Europak eta europar kolonoek bortxaz eta sistematikoki beretu zituztela kontinenteko meategi eta **nekazaritza** -aberastasunak esan nahi du. Koro Navarro

Inoiz **nekazaritza** -balio nabarmenik izan gabeko eskualdeetan. Iñaki Mendiguren

Estatu Batuetatik milaka tona **nekazaritza** produktu sartuko direlako Perura. Berria - Mundua

Nekazaritza praktika intentsiboek luraren emankortasuna ahultzen dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Etxea zelarik **nekazaritza** -ekoizpenerako gizarte- eta ekonomi unitate onena. Iñaki Mendiguren

Ukrainako **nekazaritza** industria garrantzitsuenen sinboloa. Berria - Mundua

Txikiak etxalde miserableak ziren, eta handiak itsusiak, **nekazaritza** -desarrollismoak jotako nukleoak. Iban Zaldúa

Nafarroako **nekazaritza** hauteskundeak iragan dira. Herria

Nekazaritza lanpostuak sortzeko eta natura zaintzeko baliatu nahi dugu. Berria - Harian

Nekazaritza -politika bateratu guztiz murriztailean. Koro Navarro

CCOOko **Nekazaritza** Federazioko buru Macario Irustak dioenez. Berria - Harian

Eraso faxista **Nekazaritza** Ganberaren kontra, Piazza Fontanan, Milanen: 16 hil eta 98 zauritu. Berria - Mundua

Nekazaritza Ministerioko funtzionario ohia. Iban Zaldúa

Espainiako **Nekazaritza** ministro Luis Atienzak. **Edurne Elizondo**

Nekazaritza eta Arrantza Sailak 180.000 euro ordaindu zizkion Alavesi. **Berria - Kirola**

Chris Patermann Europako Batasuneko **Nekazaritza** eta Bioteknologia Saileko zuzendariak. **Berria - Gaiak**

2002. urteko maiatzean, Bush juniorrek **Nekazaritza** Lege Berria sinatu zuen. **Iñaki Heras**

Europako **Nekazaritza** Politika Bateratuak. **Iñaki Heras**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mundu osoan, familiako baserri **nekazaritzak** krisi globala nozitzen du. **Berria - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrantza eta nekazaritza (3); espainiako nekazaritza ministerioak (5); espainiako nekazaritza ministerioa (3); espainiako nekazaritza ministro (4); europako nekazaritza politika (4); frantziako nekazaritza ministroak (3); jaurlearitza nekazaritza sailburuak (3)

nekazaritza ahalduari (4); nekazaritza arloan (3); nekazaritza arloko (3); nekazaritza bultzatu (3); nekazaritza diputatu (3); nekazaritza diputatua (3); nekazaritza diputatuak (3)

nekazaritza ekologikoa (5); nekazaritza ekologikoaren (3); nekazaritza ekologikoko (3); nekazaritza elikagaien (5); nekazaritza elkarre (3); nekazaritza elkarreak (3); nekazaritza eredu (6); nekazaritza eremuetako (5); nekazaritza eremuetan (6); nekazaritza eremuetatik (4); nekazaritza erreforma (3); nekazaritza eskola (8); nekazaritza eskolak (3); nekazaritza eskoletako (4); nekazaritza eskoletako ikasleen (4); nekazaritza eskoletan (6); nekazaritza esportazioei (3); nekazaritza eta abeltzaintza (9); nekazaritza eta arrantza (39); nekazaritza eta elikadurarako (3); nekazaritza gaien (3); nekazaritza gizarteak (3); nekazaritza guneetan (10)

nekazaritza industriala (4); nekazaritza inguruetan (3); nekazaritza intentsiboa (6); nekazaritza komisario (4); nekazaritza komisarioak (4); nekazaritza komisarioaren (3); nekazaritza kontseilari (3); nekazaritza lur (5); nekazaritza lurrak (6); nekazaritza lurren (5); nekazaritza lurretan (5); nekazaritza ministerioak (18); nekazaritza ministerioaren (3); nekazaritza ministerioa (6); nekazaritza ministro (17); nekazaritza ministroa (5); nekazaritza ministroak (24); nekazaritza ministroaren (4); nekazaritza ministroek (8); nekazaritza ministroen (5)

nekazaritza politika (36); nekazaritza politika bateratua (4); nekazaritza politika bateratuak (4); nekazaritza politika bateratuaren (6); nekazaritza politikaren (4); nekazaritza produktuen (6); nekazaritza saila (3); nekazaritza sailak (15); nekazaritza sailburu (4); nekazaritza sailburua (4); nekazaritza sailburuak (10); nekazaritza salteko (4); nekazaritza sektorean (4)

nekazaritzako laguntzak (3)

nekazaritzan aritzen (4); nekazaritzan erabiltzen (4)

nekazaritzarako erabiltzen (4)

nekazaritzaren plan estrategikoa (3)

nekazaritzari lotuta (3)

nekazaritzatik bizi (12); nekazaritzatik bizi dira (4)

nekazio iz nekatzea, nekadura.

Gizon bat bere emaztearekin ari zen eguneko eginbehar txiki eta xume bati buruz, kontzientzia lasai dutenek bakarrik hitz egin dezaketen moduan hitz egiten zuten haien artean, ahotsean **nekazio** gozo antzeko zer bait antzematen zitzaieela. **Berria - Kultura**

neke 1 iz gehiegizko lanak eragiten duen ahultasuna; jardun nekagarriak eragiten duen egoera. ikakidura.

Toki bakarti batera iritsi ziren, bideko **nekeagatik** lehertuta eta goseak. **Askoren artean**

Begietako gaitz oso larriak jo zuen, bideko **neke** eta sufrimendu handiagatik, eta bereziki joan-etorrian jasadako bero izugarriagatik. **Askoren artean**

Ez zuen batere beldurtzen hotza, beroa, gosea, egarria edo **nekea** jasan beharrik. **Karlos Zabala**

Belaniko jartzen da bere gelan, eta halaxe egoten da **nekeak** errenditzen duen arte. **Bernardo Atxaga**

Nekeak eta logaleak jota, erdi lotan zegoen. **Rafa Eiguren**

Nola ez zuen **nekeak** abaildu? **Karlos Zabala**

Ohartua nintzen **nekeak** erasanda zebilela aspaldiko egunetan. **Anjel Lertxundi**

Uste duzu **nekea** sendatu egingo zaizula lana eta giroa urtebetez alboratuta. **Lourdes Oñederra**

Ibilbide latz eta luzearen **nekeaz** eta egarriak itota. **Askoren artean**

Mendiz mendi ibili ondoren baino **neke** gehiago sentitzen dut hanketan. **Anjel Lertxundi**

Begiak sabaiko puntu zehazgabe batean josi zituen, **neke** eta gelditasunagatik itxi ziren arte. **Iñaki Zabaleta**

Kamiolarietara bizitzaren **nekea** arintzera ateratzen diren prostitutek egiten duten bezala. **Pako Aristi**

Ondoeza sentitzen nuen, eta **nekea** izango zela pentsatu nuen. **Imanol Zurutuza**

Hartara, **neke** gozo batek nire gorputza menderaturik, anpulia atzera estali nuen, eta behearen gainean utzi. **Edorta Jimenez**

Urteko egunak adina zulo egin dituela Trabukok -aitzur eta pala, izerdi eta **neke**, madarikazio eta behazun-. **Elizen arteko biblia**

Uharteko mendietara iritsi eta bidaia oso nekoso bihurtu zenean, eta **neke** harekin batera Juanen aldardea, eta denona, pitzatu bezala egin zenean, ametsak ere txartu egin zitzaizkidan. **Bernardo Atxaga**

Gau barearen gozamenen **nekearen** azken mugarrietaraino eraman ondoren, unerik bereziena, beharbada, oheratzen nintzenekoa izaten zen. **Pako Aristi**

Calçada do Correo Velho [...] igotzen ari ziren, baina gaur hegoak balitu bezala sentitzen zen, eta **nekeak**, **nekea** zen arren, beste **neke** bat eskatzen zuen. **Jon Alonso**

Indarra xahutzen dutela eta **nekean** ahitzen direla. **Xabier Amuriza**

Nekeak Aitareten etxera ekarri nau. **Iñaki Seguroa**

2 lan neketsua.

Beso zakarrak ziren, sendoak, kargetara eta **nekeetara** usatuak, ministroarenak eta haren emaztearenak ez bezala. **Aingeru Epaltza**

Ez ezazu hainbeste lan eta **neke** har; gu izango gara zure lekuko. **Iñaki Iñurrieta**

Inprenta lanetan aritzen ez zenean, itzultzailearen **nekeak** hartzen zituen gainean, begien itsugarri. **Felipe Juaristi**

Arimek han atsedena kausituko dute, begiek atsegina, eta gorputzek beren **neke** eta lanetarako pausalekua. **Xabier Kintana**

Zenbat **neke** paper zati hau eskuratzeko... **Urtzi Urrutikoetxea**

Zenbat **neke**, zenbat izerdi, zenbat buruhauste euskararen alde saiatu izan garen bakoitzean! **Pello Salaburu**

Neke handiz makurtu du gorputz handikotea. **Anjel Lertxundi**

Leihotik ikusi nuen muinoko bide lakarretik **neke** handiz igotzen. **Juan Garzia**

Benetan, lotsaturik nago niregatik hain **neke** handiak hartu dituzuelako. **Jose Morales**

Neke handirik gabeko afera izanzen zuan, bertzalde: bi tiro aski maletategi barnera, autoa landa isolatu batera eramanda. **Aingeru Epaltza**

Neke handirik gabe hasi nintzen nabarmetzen nire ikaskideen aldean. **Aingeru Epaltza**

Zenbat **neke** eta lan! gau asko lorik egin gabe; gose eta egarri; maiz ezer jan gabe, hotzak eta jantzirik gabe. **Elizen arteko biblia**

Neke guti hartu nuen gaitzerrailak gezurtatzen. **Aingeru Epaltza**

Tradizioa ez baita oinordekotzan ematen zaigun zerbaitekin, lan eta **neke** askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. **Anjel Lertxundi**

Trena gelditu egin zen halako batean, **neke** handiz, ia larre erdian. **Juan Garzia**

3 egoera gogor edo mingarri baten ondoriozko oinaze edo ezinegona.

Hala, **neke** hori nolabait arintzearen, Biblia sakratua hartu zuen eskuetan. **Jon Alonso**

Ni pazoren pozez nindoan, **neke** guztiak ahaztuta. [Patxi Zubizarreta](#)

Neke handiak sorrarazten dizkit oroitzeak berak. [Joxan Elozegi](#)

Ez daki (inork ez lezake jakin) nire dolu eta **neke** kontaezinen berri. [Juan Garzia](#)

Haiak baino **neke** gehiago jasan dut, kartzela gehiago, zigorkadak zer esanik ez; hilzorian ere egona naiz hamaika aldiz. [Elizen arteko biblia](#)

San Damian berriztatzerakoan izan zituen **neke** eta atsekabeak, eta nola hasi zen bere burua menderatzen limosna eske joanez. [Askoren artean](#)

-Zertarako hainbeste **neke** serora madarikatu batengatik? [Elena Touyarou](#)

Kosta ahala kosta, nekeari **neke** gehiago emanez, lortu zuen Heriorengandik urrutiratzea. [Felipe Juaristi](#)

Amodioaz gozaturik, senar-emazteek elkarri esan zizkieten pasatu zituzten **neke** eta min guztiak. [Juan Kruz Igerabide](#)

Gero, minutu batzuen buruan, ahaztu, eta alai egongo zen berriz, eta hala libratzen zen saminaren, doluaren pena eta **nekeetatik**. [Xabier Olarra](#)

Hainbeste ibilaldi zoro hara eta hona, hainbeste ikasketa eta lan, hainbeste min eta **neke**, hainbeste izu eta negar, hainbeste amore emate eta umiliazio bitzta osoan zehar, honetarako? [Juan Luis Zabala](#)

Ni neure denbora guztian **neketan** bizi izan naiz. [Gotzon Garate](#)

ik beherago 14. [Askoren artean](#)

Arriskuz eta **nekez** betetako gudu honetan. *ik* nekez². [Imanol Unzurrunzaga](#)

4 (izenondoekin)

Eta orduko **neke** fisikoa izugarria bazen, zer esan bestelako akidurez? [Karlos Linazasoro](#)

Lehenago hartan bezalako **neke** astunik gabe zihoan bere bidean. [Patxi Ezkiaga](#)

Naturak gizonezkoak andrezkoak baino lehenago pilatu zituen artilegintzan [...] nekazari lantsuek lotsarizat hartu eta lan hura emakumei pozik utzi arte, ehuleek ere **neke** gogor bera jasan zezaten eta langintza zakarrean gorputza eta eskuak zail zituzten. [Xabier Amuriza](#)

Une txikien pilo handiaren **neke** jasangaizta. **Neke** handiak jasateko sortua da gizaki oro, uztarri astuna dago Adamen seme-alaben gain. [Lourdes Oñederra](#)

Seme eta anai guztiak leku berean bizi ziren aita dohatsuarekin, **neke** handitan eta gabezia gorrian. [Askoren artean](#)

Lehen ez zenuen baina orain betikoa dirudien **neke** nekagarri hori, **neke** etengabe barkaezina. [Lourdes Oñederra](#)

Lantxo batzuk egin nahi dituzulako, barruko **neke** minsor hori baretu nahi duzulako, atsedean puxka bat arimaren barru-barrutik behar duzulako. [Pello Zabala](#)

Askoz gehiago nekatu beharko duzu, urtebeteko **neke** isilak igaro beharko dituzu horretaz jabetzeko, horretaz ere jabetzeko. [Lourdes Oñederra](#)

Bat-batean **neke** ikaragarria etorri zitzaidan gainera. [Aingeru Epaltza](#)

Horren kontra, horri ihesi ibiltzeagatik bide zaude horren nekatura, horregatik bide zauzka horren harrapatua egunetik egunera astunduz doan **neke** izugarri horrek.

[Lourdes Oñederra](#)

Kristautasuna Zibilizazio Helenikoaren kolapsoaren ondoriozko **neke** espirtualetatik sortu zen. [Iñaki Mendiguren](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

- **Neke** aurpegia duzu. [Iñaki Zabaleta](#)

-Gure armadaren joan-etorrien berri ematen omen ziean errebele - **neke** aire batez aditzera eman zidan Domingok. [Aingeru Epaltza](#)

-Tira ba -esan zuen Mr. Densch-ek **neke** ahotsaz-, agian ez dut ondo jokatu. [Lopez de Arana](#)

Inoiz ez zenuen duda-mudarik nimiñoena ere azaldu, ez **neke**-arrastorik ez asperdura-zantzurik. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Jesus Mesiasen **neke**-zoria eta ikaslearen zoria. Begietara begiratu nion [...] baina ez nion ikusi lehenagotik ikusi gabekorik ezer; agian **neke**-keinu arin bat, izatearen erroetatik bertatik jaiotzen diren neke horietako bat. [Elizen arteko biblia](#)

- Errejistro-zerrendan emaitzak lerroka luzatu ahala, lan errepikakorren **neke**-asperdura poz-pilpera bilakatuz zihoan. [Juan Garzia](#)

Hala, gau batez, bere gaixotasunengatik **neke**-oinaze larri eta ezberdinez ohi baino abailduago zegoela, bihotz-barnean bere buruaz errukitzen hasi zen. [Askoren artean](#)

Estatuak erlijio zehatzik babestu beharrik ez du, eta moral laiko baten aitzindaria dugu, besteak beste, dibortzioaren **neke**-larrietan. [Andres Urrutia](#)

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urrutietako lurraldeetan bizi ziren anaien bidaia-**nekeak** arintzeko. [Pako Aristi](#)

Bi hitzak azaltzen ziren orrian, Jacques Tati maitearen erretratu bat ikusi nuen, eta, beti gertatzen zaidan bezala, areago itzul- edo idaz-**nekea** daukadanean, ezin izan nion tentazioari eutsi. [Bernardo Atxaga](#)

Haurtzaroko xalotasuna itsu da gurasoen bizi-**nekeekiko**, eta horregatik idealizatzen dugu iragana. [Anjel Lertxundi](#)

Osagarriz axolatzten bainiz damügarri atzamaite dit, beit dakit holako delibero bat jarraikirik baldin bada, osagarri **nekeak** geroago eta handiago litüzkelata jenteeek. [Menane Oxandabaratz](#)

Buru **neke** handirik gabe pentsatu zuenez. [Felipe Juaristi](#)

Ez zen harritzeko ere, hainbestean, begien ahalegin edo erabilera jarraituaren ondorioz begi-**neke** akutuko aldiak izatea Virgilek. [Xabier Olarra](#)

- Baina luzeegi izango litzateke guztien oinaze-**nekeak** eta sendaketa-moduak banan-banan kontatzea. [Askoren artean](#)

Ezkondutako atsegin-**nekeak**, hiri bateko bizitza halamoduzkoa, norbait izatearen sentipen errotua. [Felipe Juaristi](#)

Nork behartu ninduen halako itsasaldi luze-bihurrian abiatzera, eta hainbesteko ardura-**nekez** destilatzerata bentzenoa? [Juan Garzia](#)

• 7 izond neketsua, nekeza.

Lan **neke** da [...], eta neke hori liburuan nabarmendu ez dadin, baditu tarteka sartzeko kontakizun kostunbrista batzuk ere. [Anjel Lertxundi](#)

Etapata **neke** izanez geroz, eta ere luzeenetarik bat, Ponferrada hirira nahi baitut heldu, goizik abiatu naiz. [Piarres Aintziart](#)

Imajina ditzaket soro idor hauetan Erdi Aroko bidaiariak, pausoen makaltasunean edota zaldien trosta **nekean** batetik bestera. [Pako Aristi](#)

-Gauza bat biziki **neke** galdegiten dautazu. [Menane Oxandabaratz](#)

Erretretan sail **neke** hortan ala zernahitan. [Herria](#)

8 (adizlagun gisa)

Hatsaren berriz hartzea **neke** gertatu zitzaion Mari ikusi zuelarik bere aitzinean, mutiko ttipia besoetan, eta osaba xerkatu zuen, soaz. [Elena Touyarou](#)

Batzordeko presidentek **neke** ikusten du besta egiteko leku barreiatuak aurkitzea. [Herria](#)

Behartua zegoela ikusirik, etsia hartu eta hartara makurtu zen, bihotzean min eta urdailean **neke**. [Patxi Ezkiaga](#)

9 neke egin

Eta horrek biziki **neke egin** daut bizia. [Menane Oxandabaratz](#)

Egia esango dizuet: bi tokitara joatea oso **neke egiten** zait. [Gotzon Garate](#)

Ikusi egin baintuen, nire burua hartaz konbentzitzea **neke egiten** zitzaidan arren. [Edorta Jimenez](#)

- Elurtzan barrera zoaz eta **neke neke eginda** ailegatuko zara itsasertzera. ik nekatu 8. [Joseba Sarrionandia](#)

Zaldiak hebaingudeak; zaldunak **neke** gaizto eginak; beren erresuma noblerako bidea hartu dute atzera. [Patziku Perurena](#)

10 neke izan da ad

Neke zen bereiztea zer nagusitzen zen haren bisaia zurbilean, oinazea ala kolera. [Aingeru Epaltza](#)

Ez **zen neke izan** haren besoetatik askatzea, hain ahula baitzen. [Aingeru Epaltza](#)

Eliza katolikoaren osasuna sortzen dituen apaiz kopuruaren arabera neurtu behar izan balitz, **neke liteke** osasuntsu dagoenik sustengatzea, bederen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako barrutian. [Berria - Euskal Herria](#)

Neke zaizu Biarritz, Donibane-Lohizune, Baionako karririk aljeriarrez beterik irudikatzea. [Xabier Montoia](#)

Haren etxe aurreko karririk harri kokkorrezkoa zuen zoru, eta **neke zitzaion** handik iragan beharra. [Juan Garzia](#)

Neke zitzaidan nire orduak partekatzea. Aingeru Epaltza

Bizia **neke zitzaidan**; eguzkitsuak eta ardi marrakaz hornituak izanagatik bazterrak zurpail eta hits kausitzen nituen. Itxaro Borda

-Eta hori... -Joanttori **neke zitzaion** mintzatzea-, hori guzira zer dela kausa? Elena Touyarou

Eta lege hau artoski gogoratuko -ez **baita** hori **neke** - eta begiratu duenak, denbora guti barne, bere egintzak Arrazoiaren agintepean, gehienetan, bideratzen ahalko ditu. Piarres Xarriton

Jakin behar da gerla denboran frango **neke izan dela** Gainekoletako muga horretan pasatzeko eskubidearen ukaitea. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bainan erraitea da erretxenik, horren gauzatzea aldi biziki **neke** ! Herria

11 *neke-lan* (orobat *nekelan g.er.*) lan neketsua.

Ugazaba da gure **nekelanetik** aberasten dena. Patziku Perurena

12 *p/*neke eta lanak.

Nork maite ditu **neke-lanak** ? Imanol Unzurrunzaga

Behin San Frantziskori eskatu zioten erruki zedila neskatxaren gaitzaz, haren **neke-lanak** kontsideratuz. Askoren artean

Nire iritzian, oraingo **neke-lanak** ezer gutxi dira gero guregan azalduko den aintzaren aldean. Elizen arteko biblia

13 *nekearen nekez* (39 agerraldi, 29 liburu eta artikulu 1ean; orobat *nekearen nekeaz* 6 agerraldi, 5 liburutan)

Ilunabar aldera itzuli zen Herbert, **nekearen nekez** zurbil. Joxe Austin Arrieta

Martin garaile itzuli zenean, **nekearen nekez** leher eginda eta bere bi basurdeak zekartzala, heroia balitz bezala hartu zuen herri osoak. Koro Navarro

Horma zuriaren aurrean, **nekearen nekez**, erdi itxita daukazazu begiak. Rafa Egiguren

Nekearen nekez leherteko zorian zaudenean, ni jarriko naiz zure orde. Karlos Zabala

Gainerako berrehunak gelditu egin ziren, **nekearen nekez** ezin baitzuten Besor ibarra igaro. Elizen arteko biblia

Gero, **nekearen nekeaz**, loak hartu zuen aitaren hilobiaren ondoan. Patxi Zubizarreta

Munduaren basoan galdu eta **nekearen nekez** lo geratutako ume bat zirudien. Anjel Lertxundi

14 *neketan adlag* nekez.

Euskal Herrian bizi izan balira, konturatuko ziren zuhaitz gehienek hain **neketan** irabazitako hostoak galtzen zituztela eta berriz ere zetorrela mendi eta bitzikietara elurra. Pello Salaburu

Albiste baten zoko-moko guztiak **neketan** ekartzen ahal baitira lau hitzetara. Aingeru Epaltza

Neketan aurkituko dugu horiek baino hizkuntza pedanteagorik eta erredundanteagorik. Pello Salaburu

Peristak Ripodasi ordaindu zion apurrak **neketan** berdinduko zian gorpuaren truke Soriarri atera nahi ziona. Aingeru Epaltza

15 *nekezko izlag* nekea adierazten duena.

Txori burlati bat gurutzatu zen lur arras eta intziri egin zuen haur baten antsia antzeratuz; harantzago **nekezko** kexu edo bat jaulkitzen entzun zitzaion. Ez ote da alaitasun optimista hori **nekezko**, zahardadezko behera-behar batek, etsi-behar batek ekarria? Juan Garzia

Egitate honekin, bahitzaileak bere egoera **nekezkoaren** berri nahi zuen eman. Berria - Mundua

- Saminezko eta **nekezko** hesia jaso dit inguruan. Elizen arteko biblia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

biziki neke (14); **ez da neke** (4); **hainbat neke** (5); **hainbeste neke** (14); **lan eta neke** (8)

neke arrastorik (4); **neke asko** (4); **neke askoren** (4); **neke askorik gabe** (4); **neke aurpegia** (9); **neke baita** (4); **neke da** (25); **neke eta gaitz** (11); **neke fisiko** (4); **neke fisikoa** (5); **neke gabe** (4); **neke gehiago** (11); **neke guzian** (4); **neke guztiak** (5); **neke guztien** (8); **neke guztien gainetik** (6); **neke handi** (4); **neke handia** (16); **neke handiagoz** (5); **neke handiak** (25); **neke handien** (5); **neke handirik** (35); **neke handirik gabe** (23); **neke handiz** (42); **neke izan** (9); **neke izanen** (9); **neke lanak** (4); **neke zen** (12); **neke zitzaion** (5); **nekeak neke** (6)

pena eta neke (5)

bideko nekea (4); **ehiza eta nekea** (6); **eragindako nekea** (9)

lan nekea (5); **nekea antzematen** (4); **nekea arintzeko** (5); **nekea besterik ez** (5); **nekea da** (8); **nekea dela** (4); **nekea eragiten** (5); **nekea hartu** (6); **nekea izan** (8); **nekea izango** (4); **nekea nabari** (11); **nekea nabaritu** (7); **nekea nabaritzen** (6); **nekea nabaritzen hasi** (4); **nekea pilatu** (6); **nekea pilatzen** (5); **nekea sentitzen** (4); **nekea sortzen** (4); **nekea sumatu** (7); **nekea sumatzen** (16); **nekea sumatzen hasi** (7); **nekea zen** (4)

gero eta nekeago (4)

nekeak hartu (5); **nekeak izan** (6); **nekeak jasan** (4); **nekeak jota** (19); **nekeak neke** (6); **nolako nekeak** (5); **penak eta nekeak** (7); **urrats nekeak** (4)

nekearen eraginez (6); **nekearen nekeaz** (6); **nekearen nekez** (39); **nekearen ondoren** (4); **nekearen ondorioz** (7); **nekearen poderioz** (4); **nekearen zama** (4)

baterer nekerik gabe (9); **inolako nekerik gabe** (4); **nekerik eman** (4); **nekerik ez** (11); **nekerik gabe** (59); **nekerik gabeko** (6); **nekerik hartu** (9); **nekerik hartzen** (5)

nekealdi *iz* nekea. ik nekaldi.

Estuasun, enbarazu eta **nekealdi** asko pairatu behar dira une horretan, baina konpensatzen die. Pako Aristi

1950ean Istanbulera itzuli eta, lan bila **nekealdiak** jasan ondorenean, bertako puntako egunkari aurrerakoi batean erdietsi zuen lana, Cumhuriyeten hain zuzen (Errepublikak). Fernando Rey

Halere, ez omen zuen neurritz kanpoko **nekealdirik** izan. Berria - Kirola

nekebide *iz* nekatzeko zioa.

Ez ziren ausartu zirkin egitera ere, printzesari **nekebide** izango ote zitzaion eta garaiz baino lehen esnaraziko ote zuen beldurrez. Felipe Juaristi

nekegabe *izond* nekatzan ez dena.

Kontuak kontu, dela musika berez maite nuelako, dela izan ez nuen maitasunaren ordekotzat hartzen nuelako, musika-entzule fin eta **nekegabea** bihurtu nintzen, eta, zeharbidez, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren jarraitzaile sutsua. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta haien elebitasun erraz eta **nekegabea** oso komenigarria zen beraien guraso zaharrentzat. Iñaki Mendiguren

nekelagun (orobat *neke-lagun*) *iz* nekeetan laguna dena.

Frantziako mertzenario ezagun bat, Richard Rouget, Frantziako Armadako eskuin muturreko ofizial eta Denarden **neke lagun** izandakoa, Boli Kostako presidentearentzat espezialistak errekrutatzeaz akusatuta zuten. Berria - Mundua

Sabela betetzearren adiskidearen **nekelagun** da, baina borroka egin behar denean, babeski atzean gordetzen. Elizen arteko biblia

nekelan ik neke 11.

nekepe

1 *nekepean* nekearen azpian.

Altxatu, altxatu zen, baina apenas egon ahal zuen zutik falta ziren minutu eta segundoetan, ahul, jada derrotatua, Joe Frazierrek **nekepean** ere jotzen jarraitzen zuen artean.

Joseba Sarrionandia

Gogoa kementsua zuen, izan ere, baina gorputza **nekepean**. **Karlos Zabala**

Bizi astun baten **nekepean** kexu-izerditan. **Juan Garzia**

Nekepean umiliarazi zituen, lur jo zuten, eta nork lagundurik ez. **Elizen arteko biblia**

2 zigorraren azpian.

Agindu zidan gero ez niezaion nehorri hitzik erran, haren benedikapenaren **nekepean**. **Piarres Xarriton**

neketsu *(249 agerraldi, 94 liburu eta 54 artikulutan)* 1 *izond* neke askokoa, nekez bete. ik **nekoso**.

Galbidea beheranzko pendiz arina da; onbidea, aldiz, goranzko aldapa **neketsua**. **Berria - Kirola**

Muga bien artean [...] basamortuko ibilaldi luze eta **neketsua** dago. **Jose Antonio Mujika**

Jende errukarri horiek, Asiaren erdialdeko bidaia **neketsuaren** ondotik ozta-ozta indarberriturik, behartuta zeuden atzera bidaiari ekin eta sorterrira itzultzeko. **Karlos Zabala**

Zertan zabilzate oraindik ere bide gaitz eta **neketsuetan**? **Imanol Unzuurrungaga**

Gizon hark bide luze **neketsua** ibilia zuela begi bistakoa zen. **Karlos Zabala**

Ezin baitzituzten, eguneko lan **neketsuaren** ondoren, gorputzeko eta arimako premiak ase. **Askoren artean**

Han lan **neketsuak** egin arren, askoz gehiago irabazten dute. **Gotzon Garate**

Huts-hutsetik liburutegi bat sortzea ondo zeregin **neketsua** da. **Jon Muñoz**

Larunbatean Brive menderatu ondoan Tolosaren aurka bi partida zail, **neketsu** eta gogor jokatu beharko dituzte miarritzarrek. **Berria - Kirola**

Eskularruak kentzea ez zait egiazki ariketa **neketsua** suertatzen, hatz luze eta politak ditut. **Harkaitz Cano**

Andrea isildu eta, keinu **neketsu** batez, jaiki egin zen. **Alberto Ladron Arana**

Irribarre sotila saiatu zuen, baina ez zitzaion zirkin **neketsu** bat besterik atera. **Anjel Lertxundi**

Argia hartu berri hartan borroka gogor eta **neketsua** eraman behar izan zenuten. **Elizen arteko biblia**

Betiko borroka astuna eta **neketsua**. **Sonia Gonzalez**

Gertakizun honek oso egoera **neketsuan** ezarriko luke Palestinako herria. **Berria - Mundua**

Hori izanen dugu zatirik **neketsuena** ezen, bestaldera jaisteko, ez da arazo izpirik. **Elena Touyarou**

Behin, egun **neketsu** baten ondoren, goiz oheratu nintzen. **Koro Navarro**

Bederatzi hilabete **neketsu** behar izan zituen hara eta hona Dubinsky andrea aurkitu aurretik. **Oskar Arana**

2 (izan aditzarekin)

Zaila, **neketsua** da autista batekin bizitzea, baina baita magikoa ere. **Berria - Kultura**

Bidea **neketsua** izan zen; ez zen aise euriek lohigune bihurtua zuten lur hartan ibiltzea eta, guneka, harkaitzetarik erori harriak baziren. Nire lehenbiziko irakurketa-ahaleginak **neketsuak** izan ziren. **Elena Touyarou**

-Garaiak **neketsuak** dira -jarraiki zuen Basilek. **Elena Touyarou**

Supermerkatura joatea ez bezala, **neketsua** izaten da zerbaiten bila kalera abiatzea. **Sonia Gonzalez**

Ura berotzea, berriz, **neketsuagoa** izan zen. **Edorta Jimenez**

Eсна irautea **neketsu** zitzaion eta buruko min sorgor bat zuen. **Ibon Uribarri**

3 (adizlagun gisa)

Adinekoek, ostera, lehengoari eusten zioten eta, ulertzekoa denez, **neketsu** gertatzen zitzairen h-z betetako izkribuetara begiak ohitzea. **Koldo Zuazo**

Dembak **neketsu** hartu zuen arnasa. **Anton Garikano**

Mundu hau erosoago edo **neketsuago** iragaiteak ez du haientzat guretzako bezainbat pisurik. **Gotzon Garate**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bidaia neketsu (3); **luze eta neketsu** (3)

aldapa neketsua (3); **lan neketsua** (14); **luze eta neketsua** (10); **luzea eta neketsua** (3); **neketsua izan** (9); **neketsua zen** (6); **oso neketsua** (5)

luze eta neketsuak (3); **neketsuak dira** (3); **neketsuak izan** (4)

lan neketsuaren (3)

lan neketsuetan (4)

neketsuki *adlag* era neketsuan.

Joseba **neketsuki** jarri zen sofan, egoera hartaz asperturik. **Iñaki Zabaleta**

nekez¹ *adlag* neke edo lan handiz.

Liburu batzuk aise eta erraz irakurtzen dira, beste batzuk **nekez**. **Bernardo Atxaga**

Inbaditzaileak erraz iritsi zitezkeen-eta hegoaldeak, eta laguntzaileak, berriz, **nekez** iparraldetik. **Karlos Zabala**

Ez ziren aberats porrokatuak, lanaren saria **nekez** irabazten zuten langileak baizik. **Felipe Juaristi**

Begiak lausotu eta **nekez** ikus zezakeen berba egiten ziona. **Xabier Montoia**

Nekez ibiltzen dira, kasu eginez, harrietan behatopatu gabe. **Michel Oronoz**

Arnasa **nekez** hartzen zuen astoaren gainean itxaklok urruntzen ikusi zuten. **Elena Touyarou**

Sam ere **nekez** altxatu zen. **Agustin Otsoa**

Nekez eutsi nion aitaren begiradari, hain zen-eta zorrotza. **Anjel Lertxundi**

Volgaren bideari jarraitu zion itzulera, ura **nekez** ikusi arren, hainbeste ibai ontzien forma itzaltsuek estalita. **Karlos Zabala**

Nekez konpreniarazi omen zioten espetxeko zuzendaritzari eskal presoek. **Xabier Montoia**

[...] kantatu zuen ahopeka, **nekez**, Maxek, hain baitzen aldrebesa esaldia. **Jon Muñoz**

Stalingradon, ikusirik zein **nekez** eusten zieten sobietarrek alemanei, bururatu zitzaion Zeunerri orkestra, ordu arte bakerako erabilia izan bezalaxe, gerrarako erabil zitekeela. **Felipe Juaristi**

Nekez jaikitzen naiz, nagiz janzen, damuz naiz irteten, eta pauso bakoitzak, mugimendu bakoitzak,[...] pentsamendu bakoitzak karga lehergarri bat jasotzen ari banintz bezalaxe unatzen nau. **Josu Zabaleta**

Egia garbia da, nahiz eta **nekez** sinesten den. **Karlos Zabala**

Gauez egin beharreko lana **nekeza** zen, baina horretara ere ohitu egin zen azkenean. Patxi Zubizarreta

Kaiola desegin ondorengo askatasuna **nekezagoa** da ulertzen eta zer den jakiten. Iñaki Segurola

Egia hau jakiten **nekeza** baldin bada gizon lasai baten aidea, keinuak eta itxura ikusita, askoz ere **nekezago** jakingo dugu oinaze-dardarek zeinu guztiak aldatzen dituztenean. Juan Martin Elexpuru

Oso **nekeza** dela fardelak ekipaje tokira igo behar izatea, eta agentziak hobe lukeela fardelak garraiatzeko erremolke tiki bat erantsi izan balu. Patxi Zubizarreta

Kontseiluak zenbat eta kide gehiago izan, orduan eta **nekezagoa** izango da legee iruzur egitea. Juan Martin Elexpuru

Piramideak, berriz, **nekezagoak** izaten dira garraiatzen. Jon Muñoz

Renfeko langile batek listua bota du lurrera geltokian, nabarmen eta ozen: igaro **nekezak** diren orduen mende bizi den gizakiaren utzikeria! Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gutziz **nekeza** (3); **hain nekeza** (5); **lan nekeza** (18); **lan nekeza dela** (3); **lan nekeza izango** (3); **nekeza da** (16); **nekeza dela** (8); **nekeza egin** (7); **nekeza egiten** (6); **nekeza eta** (5); **nekeza gertatzen** (5); **nekeza izan** (8); **nekeza izan zen** (3); **nekeza izango** (9); **nekeza izango da** (4); **nekeza zait** (3); **nekeza zen** (7); **nekeza zitzaion** (4); **oso nekeza** (7); **zaila eta nekeza** (3)

are nekezago (8); **gero eta nekezago** (10)

are nekezago (8); **gero eta nekezago** (10)

nekezale iz

Espainiako enbaxadako **nekezaleek** nahikoa buruko min dute ikasleekin, eta berri bat gehitu zaie. Lutxo Egia

nekezari ik nekazari.

nekezia 1 iz nekea.

Xirriindulari hunek itzulia bukatu du Parisen kasik 4 oren eta erdiren gibelarekin, erran nahi baitu bertzeak baino gehiago egon dela bidean eta **nekezian**. Herria

Maitasunarengatik **nekezia** guziet eta maila sozialeko ezberdintasunei ihardokitzeko gai izan zen. Elena Touyarou

Nekezia handiak izan ditu merkatal ganbarak enpresa bat aurkitzen Liverpool-en itsas trafiko horren asumitzeko. Herria

Alabainan gure eskoletan haur frango bada ikasteko **nekeziak** dituztenak eta manera berezi batez segitu behar direnak. Herria

Nekezia eta nahigabetan ere ardura lehen lerroan ditugu andereak. Herria

2 miseria.

Horrek, pentsatzekoa zen bezala, **nekezia** orokorra sortu zuen. Elena Touyarou

nekeztu, nekez(tu), nekezten du ad nekez edo eragozpenez bete.

Baina emakumearen uestezko ohorea bere aurrealdeko lehen fruituetan omen dagoenez, **nekeztu** alor horretarako bidea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

nekora iz karramarro handia, oskola leuna eta zapala duena, jateko oso ona(Loicarcinus puber).

Buiak, txangurruak eta **nekorak**. Berria - Euskal Herria

Matilde **nekora** bat egosten ari zen. Unai Elorriaga

Larritu zen **nekoraren** espiritua ikusi zuelako lapikotik irteren. Unai Elorriaga

nekos ik nekoso.

nekoso (89 agerraldi, 44 liburu eta 11 artikulutan; orobat nekoso g.er.) 1 izond neketsua.

Mikel eta Nadia Semilowskoetik atera eta Irkutskeko bide **nekosoari** lotu zitzaizkion berriro. Karlos Zabala

Ez zen lanbide **nekosoa**, eta hamaika gizaseme ezagutu zuen eta hamaika iluntze eman zuen haien konpainian. Mirentxu Larrañaga

Emazteari argibide **nekosoak** eman beharko dizkiolako. Anjel Lertxundi

Banekien lan luze **nekosoa** nuela aurretik. Karlos Linazasoro

Ondoko gelatik zetorren osaba-izeben zurrunga **nekoso** bikoitza. Lopez de Arana

Madame Beylek bekainak goratu zituen zirkin **nekoso** batez. Anjel Lertxundi

Zeren txalupen multzoa etorriko baitzen arraunean, arraunketa **nekosoan** oraino estuarioaren erdian, armez eta gizonez astun zamaturik. Jon Alonso

Izugarri **nekosoa** egiten ari zitzaidan elkarrizketa hura; halako izenik merezi bazuen, behintzat. Iban Zaldúa

Jeneralean izugarri **nekosoa** gertatzen den hizkuntza aldaketa hori. Joxerra Garzia

2 (izan aditzarekin)

"**Nekosoa** duk azterketak zuzentzea", pentsatu duk. Jokin Muñoz

Banekien burruka hura zaila, latza eta **nekosoa** izango zela. Joxemari Iturralde

Iluna **nekoso** da adimenarentzat, begiarentzat bezalaxe, baina ilunetik argia ateratzeko, horretarako behar den ahalegina bide, atsegingarri behar du derrigor. Patziuko Perurena

Jendea **nekosoa** zait, baita gizonezkoak ere. Joxe Austin Arrieta

Badakizu zein **nekosoa** den lanpostu bat aurkitzea. Karlos Zabala

Eta, egia esan, hori da **nekosoa**: ofizioa afiziorik gabe bete beharrekoa. Pello Zabala

Aszesi handiegia eskatzen zien lantegi hark, **nekosoegia** zen testu haietan barrena sartzea, ezer ulertu baino lehen hartzen zituen asperrak, higuinak. Iñaki Iñurrieta

3 (izan aditza ezabaturik)

Ordenantza erretzeko prozesua zaila izan da, eta **nekosoa**. Berria - Harian

"A zer **nekosoa** zu ere", esaten zion amak. Fernando Rey

4 (adizlagun gisa)

Atezaina aditu bat da nonbait trantze hauetan eta, epaileari agertu dionez, besarkada labur bat kiligarri gerta dakioko gizasemeari baina luzeegi bat **nekoso**. Joxean Agirre

nekosta *iz* pinuaren ordenako zuhaitza, enbor-zuta, hosto berde ilunak, adaburu luzea, eta zur gorrixka eta usainduna dituen *(Cupressus sempervivens)*. ik **zipres**.

Libanoko **nekosta** eta zedroek ere poz hartzen dute zure lepotik, esanez: "Zu erori zarenez geroztik, ez dator inor gu moztera. Elizen arteko biblia

Hain zen txairoa eta ederra, ezen gogora ekartzen baitzuen gau zuri bat hegoaldeko lekuren batean, itsasertzean, **nekostekin** eta haien itzal beltzekin. Jose Morales

Spencerek, berriz, intsusa eta **nekosta** parekatu zituen, biak hala biak duten herio-adierazpen horrengatik. Pello Zabala

nekrofago *izond* hilotzak jaten dituen . ik **hilikijale**.

Baina daukagun gauza bakarra demonio **nekrofago** zorritsu bat da ganbaran, eta gnoemoak lorategi guztian. Iñaki Mendiguren

Weasley jauna ez zegoen iritzia emateko moduan, baina haren emazteak mehatxu egin die erreportariei, esanez alde egiteko berehala handik edo familiako demonio

nekrofagoa bidaliko diela bestela. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

demonio nekrofagoekin (4)

nekrofilia 1 *iz* heriotzak norbaiti eragiten dion erakargarritasuna.

Koadroa Rossettiren hoberentzat aipatu ohi delarik ere, batzuentzat makabroa da, eta autorearen **nekrofilia** adierazgarri. Ramon Saizarbitoria

Nekrofilia, koprofilia, eta beste *filia* asko. Karlos Zabala

Nekrofilia moduko bat du. Josu Zabaleta

[Miguel de Unamunok] **«nekrofilia** eta zentzugabeko oihua» zela erantzun zion, 1936an, «gora heriotza» esan zion jeneral faxista bati. Berria - Mundua

2 (hitz elkartuetan) ik **nekrofiliko**.

Nekrofilia -istorio hondoratuaren kontura idatzitako lerroez landa, iduri zuen ugaldean agertutako atsoaren hilotz bizigabeari zuku gehiago ateratzerik ez zela, kazetaritzaren ikuspegitik bederen. Aingeru Epaltza

nekrofiliko *izond* nekrofilari dagokiona. ik **nekrofilia 2**.

Ukitu eskatologikoa edo **nekrofilikoa** edo pornografikoa zuten gauzen aurrean omen nuen intolerantzia eta beldur puritanoa. Ramon Saizarbitoria

nekrologia *iz* hilberria. ik **nekrologiko**.

Ez zait eskasten, bakarrik nor hil den, horretako... besterik ez, **nekrologia** hori. Menane Oxandabaratz

nekrologika *iz* hilberria. ik **nekrologiko**.

Zer sailetan paratu haute orain, telebistetako programazioan ala **nekrologiketan** ? Aingeru Epaltza

nekrologiko *iz* 1 hilberria. ik **nekrologia; nekrologika**.

Euskalerraren alde aldizkariak -56. zenbakian-, **nekrologiko** hungigarria argitaratu zuen maisu musikagilearen omenez. Askoren artean

2 *izond* hilberriei dagokiena.

XX. mendean hiltzeko elementu erakargarrienak agiri motzean kausitzen nituelako, *urrutizkina*, *lexomil* eta *Herria* astekariko azalpen **nekrologikoen** aierua halaber, idazkiak erabat berazten ninduen. Itxaro Borda

Hileta egunean egunkarietan atera ziren aipamen **nekrologikoetan** ez zen oharkabean pasatu bere etxeko gelan aurkitutako despedida oharra. Joxean Agirre

nekromante (*orobat nigromante g.er.*) *iz* nekromantzian aritzen den pertsona.

Nekromanteak huts egingo du arimari dei egiten bere lanbideko trikimailuak ikasi arte. Iñaki Mendiguren

Osaba Iturrioz doktoreak eman zion hezurdura horman eskegi zuen, eta halako magialari edo **nekromante** baten etxezulo baten itxura hartu zuen gelak. Josu Zabaleta

Eleberrietan, paladinak, **nigromanteak**, maitagarriak, zaldi hegodun edo adimendunak, gizon ikustezin edo zauriezinak, pertsonaia handien jaiotzaz edo hezkuntzaz arduratzen ziren sorgin eta aztiak, jauregi sorgindu eta desorginduak. Iñaki Iñurrieta

nekromantiko *izond* nekromantziari dagokiona. ik **nekromantzia 2**.

British Museum-en antzinako agiri asko daude gordeta, gehienak apaiz jendearekin zerikusia dutenak, pentagrama **nekromantiko**z eta bestelako zeinuz balioztatutak, arao hitz gisa erabilitako inizialez Xabier Olarra

nekromantzia 1 *iz* etorkizuna iragartzea, hilen espirituei dei eginez.

Bertako ikasketek ez omen dute unibertsitekoen antzik, deabruak arte magikoa, astrologia edo **nekromantzia** bezalako gaiak irakasten omen ditu-eta. Beste batzuen arabera, igarle izan zen, eta Pertiako aztiek irakatsia; **nekromantziaren** eta belar erogarrien zientziaren jabe omen zen. Anjel Lertxundi

Nekromantziatzko ikuspen bat zela pentsatu zuten, harik eta Dolcinok otarrearri estalkia altxatu zion arte. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; corpusean **nekromantzi** forma soilik) ik **nekromantiko**.

Denboran zerturiko topaketa bat (berpizkunde bat), bestalde, **nekromantzi** egintza da, arima bati dei egitea. Iñaki Mendiguren

nekropoli (*orobat nekropolis g.er.*; *Euskaltzaindiaren Hiztegian nekropoli agertzen da*) **1** *iz* kristau aroa baino lehenagoko hilerria.

Aztarnategi horretan berebiziko garrantzia du gudari zeltiberiarren **nekropoliak**. Berria - Kultura

Badaude antzeko arreak dituzten beste **nekropoli** edo hilerriak. Berria - Gaiak

Duela bi urte beste 80 bat hilobi agertu ziren Beriainen bertan, etxe bat altxatzeko lanetan, eta ingurua, beraz, **«nekropoli** garrantzitsua» izan zitekeela uste du Pello Iraizoz

Ondarearen Berreskurapenerako Elkarteko kideak. Berria - Kultura

Islamiar **nekropoliek** badute loturarik bisigodoen garaiko hilobiekin? Berria - Gaiak

VII. mendeko **nekropoli** islamiar bat aurkitu dute aste honetan Alacanteko Pego herrian; bertan hilotzez gain, haiekin batera lurperatutako hainbat objektu ere aurkitu dituzte. Berria - Gaiak

Hadrumeteko **nekropolisean** datza Sextilio, Septima xarmatzailearen eta haren ahizpa birjina Foinisaren artean. Juan Garzia

Iberiako penintsulan beste bi **nekropoli** handi daude. Berria - Gaiak

2 hilerria, bereziki handia eta oroitarriz osatua.

Eliza bateko **nekropolia** Kondestablearen jauregian. Berria - Harian

Panteoiaren aurrean, esplikatu nion eliza izateko hasi zutela eraikuntza, baina 1789an amaitu zutenez, Iraultzak "Famaren tenplu" bihurtu zuela - **nekropoli** bat, "Frantziako askatasunaren gizon handientzat", eta han daudela hainbat pertsonaiaren hileta monumentuak, besteak beste, Voltaire, Rousseau, Hugo, Zola eta baita Marie Curie-rena ere, gizona ez izan arren. Ramon Saizarbitoria

nekropolis ik nekropoli.

nekropsia iz autopsia.

Hartzaren gorpua Okzitaniako Tolosara eraman zuten, **nekropsia** egitera, haren heriotzaren gorabeherak zehaztu ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Nekropsien bidez ikusi zenez, animalia guztiek odol isuriak zituzten barne belarrian. Berria - Gaiak

Ohiko **nekropsia** izan da, egin behar delako egiten diren horietakoa. Fernando Morillo

nekrosi 1 iz organismo baten zati jakin bateko zelulen edo ehunen heriotza.

Medikuen txostenetan, urriaren 13an egiten zaio **nekrosiari** lehen erreferentzia; baina aurretik badaude Romanok garondoa sentitzen zuen minari buruzko aipamenak, eta baita buruko TACean hematoma bati buruzkoa ere. Berria - Euskal Herria

Nekrosia beste zerbaitek eragin zuela dio, ezin dela izan guardia zibilek emandako kolpeen ondorio. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan)

Maiaketa horretan aldian behineko hatzaren zuritasunarengandik, **nekrosi** zantzu nabarietara iristen da, infekzioa eta aurre **nekrosia** igaroz. Berria - Kirola

nektar 1 iz grekoen eta erromatarren mitologiaren arabera, jainkoek edaten zuten likorea.

Biak leizezulara joan ziren, eta Kalipsok janaririk eta edaririk gozoenak eskaini zizkion, anbrosia eta **nektarra** besteak beste. Lurrak ziklopeoi ere ematen ziguk ardorik, baina heure hau anbrosia eta **nektar** hutsa duk. Juan Kruz Igerabide

Egiatzko zaldunak bezala, zaldiak korbeetara eroaten ditut; errautsa kendu eta ilea leundu ondoan, anbrosia eta **nektarra** isuriz ausarki, oparo eta gozo edatera ematen diet. Itxaro Borda

Ahuntz bizardunei basa-oliba atsegin zaie, hartatik anbrosia baletor eta **nektarrez** gantzuturik balego bezala; gizakiontzat, berriz, ez dago haren hostoa baino mingotsagorik. Xabier Amuriza

2 irud/hed

- **Nektarra** da hau! -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

Mendaro edo mirra esentzia gozoa edo sudurrentzat **nektarra** den akara lurrina egitera zoazenean, [...]. Xabier Amuriza

Eta berriro isuri nintzen, oraingoan zutik, bere ahoan, nik eskaintzen nion **nektarra** gutiziaz edoskitzen zuelarik. Juan Martin Elexpuru

nektarina iz aranondoaren eta mertxikondoaren menduaren fruitua.

Berro entsalada, ilarrak arrautza egosiarekin, arto pastela esnetan eta azahar lorearekin, **nektarinak**, marrubiak eta baso bete Malaga. Koldo Izagirre

Deskribapen gogoangarriak egin zituen aranaren azalaren argizari-ukitu labainaz, muxiken bixar-ukitu goxoaz eta **nektarinen** leuntasunaz ("ume baten masailen antzekoa"), eta laranjen azal pikortatuaz. Xabier Olarra

nematodo iz har sexubakarra, gorputza mehea, segmentugabea eta kutikula batek estalia duena.

Biek aukeratua zuten egitasmotzat nerbio-sistemaren hari-antolamendua aztertzea, trebeki hautetsiriko mutante batzuen laguntzarekin; Seymour-ek, drosofilarena, eta Sydney-k, berriz, **nematodo** txiki batena, *Caenorhabditis elegans* delakoarena. Juan Garzia

Eulia ala **nematodoa**? Juan Garzia

Drosofilan edo **nematodoan**, hauteman ez ezik, bakartu ere egin litezke geneak, eta araztu, haien anatomia xeheki azaldu, atzera berriz organismoan txertatu, eta ikusi zein diren funtzionamendu-baldintza zehatzak. Juan Garzia

Bistan da, amaren umetokian landaturiko enbrioi baten garapenaren azterketa askoz ere konplexuagoa zen, eta mila aldiz zailagoa egiten, euli, **nematodo**, are igel batena baino. Juan Garzia

2 (hitz elkartuetan)

Hilabete batzuez, Sydney-k emandako **nematodo**-ondoarekin jolasean jardun nuen. Juan Garzia

nematodotxo iz adkor nematodoa.

Alde batetik, zehatz-mehatz atzematen da, xehetasuneraino, euliaren edo ugalketa lasterreko **nematodotxo** baten garapena. Juan Garzia

nemesi iz mendekua, zigorra.

Azken **nemesia** Mazedoniako Filiporen erabakia izan zen, Akemenestar Inperioa konkistatuz egoera alderantzikatzea. Iñaki Mendiguren

Zentzurik gabeko eraso horiek bidezko **nemesia** izan zuten bere garaian. Iñaki Mendiguren

Aldi berean, Idazti Deunak jainkotzearen **nemesi** moral eta intelektuala protestanteen morrontza izan zen, trentotar katolizismoak, artean apaizgoan oinarrituak, izan ez zuena. Iñaki Mendiguren

Sormenaren **nemesia**: nortasun iragankor baten idolatria. Iñaki Mendiguren

nemoteknia iz

Oroimena **nemoteknia** gisa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nemoteknia hertsiki lotua dago formulazio gogoangarriekin. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

nemotekniko izond

Hizlari klasikoek bezala, teknika **nemotekniko** batzuk bideratu behar ditu bertsolariak egiturak (errima eta argudio sekuentziak), hitzak eta formulazio zehatzak gogoan edukiko baditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jarduera **nemoteknikoen** aplikazio praktikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

nenufar (orobat nenufare; Euskaltzaindiaren Hiztegian nenufar agertzen da) iz

Loreak ere ikusgarriak ziren oso, nartziso eta **nenufarrak**, urdinak gehienak kolorez, handiak gehienak tamainaz, eperrak gainean jarri eta habian bezala geratzen baitziren.

Felipe Juaristi

Guzmudek, urtero legez, **nenufare** zuri ezin ederragoa eramaten zion bere osin sekretutik. Xabier Mendiguren Elizegi

Bihurgune geldo batek sortzen duen putzuan, **nenufar** horiak eta ninfa ardo kolorekoak ikus daitezke diz-diz, eguzkiaren argitan. Hasier Etxeberria

Batasuna lore eder bat da, **nenufar** bat ur azalean. Berria - Mundua

neoantisemitismo (corpusean neo-antisemitismo soilik) iz

Ez da agian kasualitatea judu-sionismoa eta **neo-antisemitismo** alemana bata bestearen ondoren sortu izana eskualde geografiko berean, 1918az aurreko Austriar Inperioan alemanez hitz egiten zen lurraldeetan, alegia. Iñaki Mendiguren

neoaristotelestar (corpusean neo-aristotelestar soilik) iz

Neo-aristotelestarrek naturaren legeak sorturiko mundutik sorreraren aurreko errealitatera extrapolatzen dituzte. Xabier Kintana

neoaristoteliko (orobat neo-aristoteliko) izond

Horren ondorioz, greziarraren ondoren teoria-klase hori defendatu dutenei **neoaristoteliko** esan zaie. Askoren artean

Joera horri **neo-aristoteliko** esan zaio, eta horren aldekorik ezagunena Alasdair MacIntyre izan da. Askoren artean

Etika kantiar garatuen (Rawls) eta **neo-aristotelikoen** (MacIntyre) bultzadek. Askoren artean

neoaristotelismo (corpusean neo-aristotelismo soilik) iz

Neo-konfuzianismoa espirituali mahayanaren mende erori zen bitartean, **neo-aristotelismoa** Kristau Elizaren teologian ezarri zen, honen ikuspegi ofizialean Aristoteles ezinbestean fedegabea izanik. Iñaki Mendiguren

Ez zuten horrela uste izan **neo-aristotelismoa** bidezki dei genezakeen sistema garatu zuten geroagoko aristotelestarrek. Xabier Kintana

neoarkaiko (corpusean neo-arkaiko soilik) izond

Aspaldian (gure artean, duela hogeita hamar bat urte) sortu eta hedatuz etorri da pentsaera **"neo-arkaikoa"**: hiriko bizimodu, errutina eta atzerakuntzaren kontra, produktu industrialen aurka eta jaki natural, landatar eta "jatorrizkoen" aldeko pentsamoldea. Edorta Agirre

neoautonomismo iz

Atzo onartutako agiriaren arabera, 2006ak «urte eraginkorra» izan behar du «PPren eredu zentralistaren eta PSOEren **neoautonomismoaren** arteko hirugarren bidea egiteko». Berria - Euskal Herria

neoautonomista izond

Testuinguru honetan, 2006ak urte eraginkorra izan behar du Espainian eredu estatu anitza proiektatzeko eta sustatzeko dugun konpromisoa sendotzeko, PPren eredu zentralista eta PSOEren **neoautonomistaren** arteko hirugarren bidea alegia. Berria - Euskal Herria

neobabiloniar izlag

Gizarte Babilonikoa eta Egipziakoa azkenean Gizarte Siriakoak bere gizarte-gorputzera ekarri zituen, nahiz eta Babilonikoak arrakasta izan bere kultur nortasunari seiehun urte inguruz eusten Nabukodonosorren **Neobabiloniar** Inperioa Zirok eraitsi ondoren. Iñaki Mendiguren

Zeren eta Juda gatibu eramatean, **neobabiloniar** gerra-jaunak ez baitzuen soilik zegoen erlijio nagusi baten aurrerapena bultzatu, baita ia berri bat sortarazi ere. Iñaki Mendiguren

Ematen du Asiriarr Inperioaren ondorengo estatu **neobabiloniarrek** Egiptoren jarraibideari segitu ziola mertzenario helenikoak alokatzean. Iñaki Mendiguren

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neobabiloniar inperioa (3)

neobarbarismo iz

Are harrigarriagoa gerta dakiguke ikustea frantziar aristokrata zoliarren *jeu d'esprit* politikoa arrazazko mito bihurtzen dutela germaniar **neobarbarismo** demoniakoaren igarleek. Iñaki Mendiguren

neobarbaro *izond*

Hutsalkeriaren epaia viktoriar garaiko letra-gizon baten olerki eztiaren bidez entzunarazten da, aro **neobarbaro** baten izotza sentitzeraino bizi izan zena. **Iñaki Mendiguren**

Nahiz eta sortu izan ditugun, eta sor ditzakegun berriro, Atila **neobarbaroak**, zibilizazio galbideratuen arnegatuak, Hitler eta bera bezalakoek forman, mundu-mailako gure sistemak ez die zertan beldur izan mugaz harantzagoko barbaro benetakoen gerakin errukarrei. **Iñaki Mendiguren**

neodada *izond* neodadaista.

Nam June Paik, nahiz eta korearra izan, Fluxus taldeari lotu zitzaion, **neodada** inspirazioa zuen taldeari. **Berria - Kultura**

neodarwinismo *(orobat neo-darwinismo) iz*

Batzuek eta besteek ez dute eboluzioa berdin ikusten: **neodarwinismoak** edo Sintesi Modernoak lehenengo ikuspegia bultzatu du batez ere; garapenaren biologia lantzen dutenen ustez, alabaina, garapena kontuan harturik, eboluzioak bigarren irudi horren trazuak hartzen ditu. **Askoren artean**

Makro-historiaren maila jakin batean kontsidera daiteke "espezieek eboluzionatzen dute" moduko baieztapen batek enuntziatu bera eratzen duela Darwinengan eta Simpsonengan; maila finago batean eta erabilpen-eremu mugatuagoa kontuan hartuz ("**neo-darwinismoa**") Darwinen benetako sistemari kontrajarrita) bi enuntziatu ezberdinez dihardugu. **Xabier Arregi**

neoboluzionismo *iz*

Mundu Gerraren ostean **neoboluzionismoaren** joera batzuk berpiztu ziren, baina gaur ez. **Askoren artean**

neorrealismo ik neorrealismo.

neoestatutario *izond*

Espresuki adierazten da planaren helburua Espainiar Estatuari itun politiko berri bat eskaintzea dela, beti ere oinarri **neoestatutarioekin**. **Berria - Euskal Herria**

Hori dela eta, Batasunak gaurkoan agertu nahi du, argi izanik erreforma **neoestatutarioaren** bidetik gatazka konpontzeari begirako akordioa egiterik ez dagoela, [...]. **Berria - Harian**

Beste esku batekin imazekin itun **neoestatutario** baten ikurra astindu (Katalunian Masekin egin duen antzera), jeltzaleak ordainean, bere alderdian harrikoa egin beharko duelarik, urez eta harriz. **Berria - Euskal Herria**

neoestatutista *izond* neoestatutarioa.

Bide **neoestatutista** bukatuta dagoela esaten dugunean ez da EAJren diskurtsoa deskalifikatzeko, nora joan nahi dugun argitzeko baizik. **Berria - Euskal Herria**

Ez gaude prest ziklo berria **neoestatutista** izateko, burujabetza eskatzen dugu. **Berria - Euskal Herria**

neoeuskaldun *(corpusean neo euskaldun soilik) izond* XX. mendearen hasierako Euskal Herriko arkitektura estiloa, euskal baserri zaharretako elementuetan oinarri hartzen duena.

Hor gaindiko etxeak anitz "**neo euskaldun**" estilokoak dira, duela ehun bat urte kostalde guzian hedatu zen estilokoak. **Herria**

neofaxismo *iz* bigarren mundu gerra ondoko faxismoa.

Bai, Aznarrek azkar asko eskatu du botoa Chiracentzat, **neofaxismoari** bidea itxi behar zaiola eta. **Hasier Etxeberria**

neofaxista 1 *izond/iz* neofaxismoarena, neofaxismoari dagokiona.

1945az geroztik, indarkeria **neofaxistari** Estatuko hainbat sektorek laguntza eta arnasa eman izan diote. **Berria - Mundua**

60ko hamarkadako ikasle eta langileen protestetan murgilduta, Italiako mugimendu iraultzailea antolatu egin zen eraso **neofaxistei** eta Estatuak antolatutako azpigo desorekatzaileei aurre egiteko. **Berria - Mundua**

«Berriz ere, Alfonso Alonso alkatearen itzal **neofaxista** eta autoritarioa nabarmendu da», adierazi zuen *Gasteiz Izan*-ek. **Berria - Euskal Herria**

2 *izond/hed* neofaxismoaren aldekoa.

Franco Frattiniren ordeaz, Atzerri ministro kargura Franco Fini **neofaxista** izendatu du Silvio Berlusconi Italiako gobernuburuak. **Berria - Mundua**

Kartzelari bat (1978an), polizia bat eta **neofaxista** bat (biak 1979an) hil izana leporatu zioten. **Berria - Mundua**

neofiguratibo *izond/iz* XX. mendeko bigarren erdiko pintura estiloa, teknika figuratiboa bereganatzen duena.

Eta tipoa, kudeatzen duen arte galeriaz mintzatzen hasi, eta udazkenean antolatuko duten **neofiguratiboen** erakusketarekin segitu du lasai antzean. **Patxi Iturritegi**

neofigurazio *(corpusean neo-figurazio soilik) iz*

Irakurlea nekatzeko inolako asmorik gabe: kubismoa, dadaismoa, ez-figuratiboak, futuristak, onirikoak, suprematismoa, metafisikoak, surrealistak, **neo**-figurazioa, espresionismo abstraktua... Braque, Picasso, Léger, Picabia, Duchamp, Klee, Chagal, Rothko, Dubuffet, Bacon, Morandi, Calder... **Anjel Lertxundi**

neofito 1 *izond/iz* erlijio batean sartu berria.

Aita Pipadun izatetik Aita Katxinetan izatera pasatzekotan zeuden beste hiru **neofitoren** ondoan eserarazi ninduen, albo bateko aulki luzean, mahaiburu, oholta eta atletik hurbil. **Jon Alonso**

Hasierako marmarrak buila eta algara bihurtu ziren, eta Guebokinderrek, eztabaida andeatzen ari zela ikusirik, moztu egin behar izan zuen dei honekin: has bedi **neofitoen** zeremonia! **Jon Alonso**

Neofito papergabetuak oihu txiki batzuk bota zituen, baina, zorionez, gehienek isiltzeko eskatu zioten "sssshhhh" luze batez. Jon Alonso

2 talde edo jarduera batean hasiberria.

Kristinak besoak goititu zituen, hiri ondoan ireki berriko golf-zelaian entrenatzen ziren **neofito** apain baina irigarrien jarreran. Aingeru Epaltza

Jeneroa ezagutzen zuen espezialista, etxeoandre hura, suntsitzeaz baitago: sukaldaritzako oinarriak ezagutu gabe, nekez molda ditzake **neofitoak** errejeta gehientsuenak, teknikaik menderatzeke, tresneria aproposik eta jeneroak eskura baditu ere. Edorta Agirre

"Nola deitzen diate hiri, Joseba?", esan nion. "Etxeberria –erantzun zidan serio-. Baina oraindik ez duk ofiziala. **Neofito** bat nauk". Bernardo Atxaga

neofonetiko *izond*

Horien barruan bereizten dituenen artean, hemen aipatzea merezi dute: (a) *traditional* edo *paleophonetic* deituak, arrazoi fonetikoa izan zutenak, baina dagoeneko ez dutenak, eta (b) *divergence* edo txandakatze **neofonetikoak** arrazoi fonetiko biziak dituztenak. Lourdes Oñederra

neofordismo *iz* ekoizpen kate automatikoan datzan lan sistema.

Teknizismoaren eta aurrerapenaren kontrako utopiaren ordez, kontsumo ekologikoaren utopia da nagusi: produktu biologikoen eta ekologikoen shopping ekologikoa, nolabaiteko hedonismo ekologikoa, eta produkzio bide ekologikoen **neofordismo** ekologikoa, ekoprodukzioa. Iñaki Heras

neoformalismo *(corpusean neo-formalismo soilik) iz*

Beste alde batetik, Bordwellek indar handiz predikatu du berak "**neo-formalismo**" deitzen duenaren alde; **neo-formalismo** horrek testu artistikoak beren testuinguru formal eta estilistiko zehatzaren definizio xehe baten bidez interpretatzeko metodologia bat esan nahi du, grosso modo. Josu Zabaleta

neofrankista *(corpusean neo-frankista soilik) izond*

N.ko gobernü **neo-frankistak**. Herria

neogotiko *izond* XIX. mendeko arkitektura estiloa, estilo gotikoan oinarria hartzen duena.

Izan ere, haren proposamena *mainstream* kutsuko pop melodia itsaskorretara mugatzen zen, aire **neogotikoz** eta film futuristetako misterio kutsuaz inguratzen ederki asmatu zuten arren. Patxi Iturritegi

Ezkerretara, euskal Etxera goaz berrikitan amaitu katedrale **neogotikoaren** aintzinean pasatuz. Herria

neogramatikari *iz* eskola neogramatikoaren aldeko hizkuntzalaria. ik **neogramatiko 2**.

Berehala eskola berri bat sortu zen, **Neogramatikariena** hain zuzen; horren buru guztiak Alemaniakoak izan ziren: K. Brugmann, H. Osthoff, W. Braune eta E. Sievers germanistak, Leskien eslabista eta abar. Isabel Arrigain

neogramatiko 1 *izond* hizkuntzalaritza eskolez mintzatuz, hots legeei funtsezko garrantzia ematen ziona.

Frogatu beharko da nola positibismo **neogramatikotik** sailkapenen zientzia saussurearra sortu den, [...]. Isabel Arrigain

2 *iz* eskola neogramatikoaren aldeko hizkuntzalaria. ik **neogramatikari**.

Neogramatikoan eskola izan da lehen aldiz analogiari dagokion tokia eman diona. Isabel Arrigain

Nahiz eta **neogramatikoena** izan beraren funtsezko lanbidea, estrukturalismoaren ekarriarekin ongi osatu zuen. Lourdes Oñederra

Neogramatikoei esker, hizkuntza ez zen hartu berez bilakatzen den organismo gisa, baizik hizkuntza taldeen multzozko espirituaren emaitza gisa. Isabel Arrigain

neohippy *(corpusean neo-hippy soilik) iz*

Irakasle batek kontatu zian, Garan noiz edo noiz kolaborazioak idazten dituen play-boy **neo**-hippy horrek, hain zuzen. Jokin Muñoz

neohizkuntza *iz*

Jose Miguel Lopez Belaustegieta detektibe galaktiko trinoa (trisexuala, eleberriaren etorkizun urruneko **neohizkuntzan**), alias Cosmic Josemi, Nueva Euzkadi planetako Tecno Buru Batzarrak kontratatzen du Lurrera jaitsi eta bertan omen datzan Sabino Aranaren gorpua berreskuratzeke. Berría - Kultura

neohiztegizale *(corpusean neo-hiztegizale soilik) iz*

Doktrina indartsu honen ukazioa da Eliza Episkopaldarraren hortzei **Neo-hiztegizaleek** bota dieten erronkarik handiena. Xabier Olarra

NEOI ik **neon**.

neoinperialismo *iz*

Aiartzaren arabera, berriz, globalizazioa «inperialismoaren ataka berri bat» baino ez da eta, horrek, kapitalaren garapenarekin du zerikusia: "**Neoinperialismoa** marko juridiko-politiko berriak eraikitzen ari da eta Europak ezin du ihes egin". Berría - Euskal Herria

NEOIZ ik **nehoiz**.

neokantiar *izond* neokantismoarena, neokantismoari dagokiona.

"Balioren filosofia" oro har Badengo eskola **neokantiarra** ohi deritzonari iritzi ohi zaio (Windelband, Rickert, etab.); eta Lehen Filosofia edo oinarriko filosofia berri bat ezarri nahi izan du, dena gainezkatua zuen erlatibismoaren uholdeari aurre egiteko. **Joxe Azurmendi**

neokantismo *iz* europar higikunde filosofikoa, Hegelen erabateko idealismoaren aurrean Kant en oinarri filosofikoetara itzultzea proposatzen zuena.

Ezin ahaztu, ostera, tradizio analitiko at, Cassirer-ek **neokantismoan** edo Bachelard-ek egindako azterketa sakonak kontzeptualizazioaz. **Askoren artean**

Neokantismo linguistikoa mahairatu ostean. **Askoren artean**

Heideggerrek bultzatzen zuen Fenomenologiak Cassirerrek eragindako **neokantismoari** errelebu hartu zionean, Levinas lehenaren alde agertu zen, bigarrena politikoki leku egokiagoan aurkitzen bazen ere. **Berria - Kultura**

neokapitalismo *iz* kapitalismo mota berria, Estatuak ekonomian esku hartzea onartzen duena.

"Gaurko errealtatea", "prozesu historikoa", **"neokapitalismoa"** ... eta antzeko terminoak sartzten, nahiz eta harira ez etorri. **Rafa Egiguren**

Planifikazio ekonomikoa ez da **neokapitalismoaren** ezaugarrietako bat. **Berria - Euskal Herria**

neokapitalista *izond* neokapitalismoarena, neokapitalismoari dagokiona.

Europako Merkatu Batuan sartzeko erabili nahi zuten norabide teknokratikoari eta teknika **neokapitalistei** ere eskaini diezu tarte bat. **Rafa Egiguren**

neokatolizismo *iz* XIX. mendearen azken hamarraldietako ideologia politikoa, gizartean eta gobernuan tradizio katoliko ortodoxoa berrezartzeko helburua zuena.

XIX. mendean Frantzia zabaldu zen **neokatolizismoari** irudi asko eman zizkion Ingresek, elizetan jartzeko Rafaelen erako Amabirjinak edo leihoetako koloretako beirak egiteko ereduak. **Berria - Kultura**

neoklasiko 1 *izond* neoklasizismoarena, neoklasizismoari dagokiona.

Eraikin **neoklasiko** batean kokaturiko museoak 1.700 metro koadroko azalera hartzen du, eta 17 erakusketa areto ditu. **Berria - Kultura**

Coculim kondeen jauregiko atari **neoklasikoa**. **Jon Alonso**

Bi solairutan zazpina leiho **neoklasikoz** osatua. **Txillardegi**

Jean Auguste Ingres (1780-1867) margolari **neoklasiko** frantziarraren atzera begirakoa aurkeztu zuen Louvre museoak atzo. **Berria - Kultura**

Bigarren poesia liburu honetan tradizio **neoklasikoaren** erreferentziak beste hainbat tradizio literarioekin gurutzatzen dira. **Berria - Kultura**

Ballet Biarritzen estilo **neoklasikoa** ezagututa eta Malandainek obra klasikoak jorratzeko duen modua kontuan hartuta, berrikuntzak nabariak izango dira. **Berria - Kultura**

Dantza bera **neoklasiko** estilokoa da. **Berria - Kultura**

Borreroak itsu-itsuan sinesten du metempsikosian, bere begiekin ikusi baititu zendu berrien arimak urretxindor urdin, arrain **neoklasiko** edo landare ibiltari bihurtzen. · Are gehiago, tradizio (**neo**) **klasiko** horren erreferentziak hari garrantzitsua dira, baina ez bakarrik, eta horregatik, haren ezagule ez direnek ere topatuko dute haren poesia liburuetan zer gozaturik. **Karlos Linazasoro**

• **2 iz** neoklasizismoaren jarraitzailea.

Handik aurrera, ordea, Racine, Molière eta gainerako **neoklasikoen** ondorenean, oro aldatu egingo da literaturan. **Bernardo Atxaga**

Imajina dezagun ilustratu batek, **neoklasikoa** arte kontuetan, ekiten diola aurrea, esanez: [...]. **Bernardo Atxaga**

3 (hitz elkartuetan)

Neoklasiko -kutsu halako bat zuen, gogoan dut hori behintzat, oso hotza baitzen. **Anjel Lertxundi**

• **4 izond** (*ekonomian*)

Neozioarteko merkataritzaren teoria tradizionala (klasikoa eta **neoklasikoa**) ekoizpen-faktoreak aldagaitzak, konkurrentzia erabatekoa eta perfektua, eta etekinak konstanteak edo beheranzkoak zirelako hipotesian oinarritzen zen. **Koro Navarro**

Doktrina hori eskola marginalista, **neoklasiko** eta monetaristetako autoreengan agertzen dela, eta ez klasikoengan. **Iñaki Heras**

Ikusmolde **neoklasikoa**, beraz, urritasun erlatiboan oinarritzen da berriz ere trukea azaltzeko, hau da, osagarritasunean, ez ekoizpen-eraginkortasun erlatiboan, alegia, konkurrentzian. **Koro Navarro**

Estanfazioaren agerpenak pentsamolde **neoklasikoa** itzularazi zuen (monetarismoz mozorroturik); haren ondorioak oso argiak izan ziren 1980ko hamarraldian. **Koro Navarro**

Keynesen ekarpenekin aberasturiko sintesi **neoklasikoa** izan zen ekonomia teoria nagusia Bigarren Mundu Gerraren amaieratik 70eko urteen hasierako petrolioaren krisia arte. **Iñaki Heras**

Ortodoxia **neoklasikoa**, berrogeita hamar urtez bazterturik egon ondoren, berrituz izan zen teoria ekonomikora. **Koro Navarro**

Ekonomialari **neoklasikoek** herrialde baten aberastasunetik kanpoko zerbait balira bezala hartzen dituzte truke-baliorik ez duten natur baliabideak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

neoklasizismo *iz* arte eta literatura mugimendua, antzinate klasikoko arau eta gustoetara itzultzeak ezaugarritzen duena.

Azpi-atal bana dute euskal literaturak, literatura klasikoak, **neoklasizismoak**, erromantizismoak, sinbolismoak eta modernismoak, besteak beste. Eta gehiago balio du oraindik, beharbada, estilo kolektiboentzat, lehendik izan diren estiloen kontra baizik ez baitira definitzen estilo bezala: **neoklasizismoa** rococo estiloaren kontrako erreakzio bezala, erromantizismoa klasizismoaren kontrako erreakzio bezala, eta abar. **Berria - Kultura**

Neoklasizismoa hori zen, errorik gabeko arkitektura, tokiko ezaugarriak aintzat hartzen ez zituenak. **Berria - Kultura**

Ez da pentsatu behar, hala ere, neutroak direnik eta espiritu historiko propioa ez dutenik, **Neoklasizismo** berantiarren baitan moldatutako espiritua, alegia. **Santiago Iruretagoiena**

Neoklasizismoak eman zigun fruitu oparoenak, doktrina-kutsuko Peru Abarka klasikoak, laburbiltzen du, elkarrizketa moduan, galeria honetan arnasten ari garen ideologia baserri zalearen muina. **Anjel Lertxundi**

neoklasizista *izond* neoklasikoa.

Denetik ikus daiteke: Canovaren eskultura **neoklasizista** bere linea sosegatuaren oreka eta araztasunarekin (*Le Tre Grazie*), Rodinen forma sinuosoagoak *Donna accovacciata* bere obran [...]. **Berria - Kultura**

neokolonial *izond* neokolonialismoarena, neokolonialismoari dagokiona.

Eliseoan egiten ari zaizkion epaiketarekin «interbertzionista **neokolonial**» ospea garbitu eta mertzenario garaiko oroitzapenak lurperatu nahi ditu. Berria - Mundua

neokolonialismo *iz* herrialde azpigaratuen ekonomian eta politikan esku hartzea, bereziki metropoliek kolonia ohietan gauzatzen dutena.

Dena den, elikaduraren mundializazioaren ondoren, berriro ere **neokolonialismo** amerikarra etorriko den beldurra hautematen da nonahi. Edorta Agirre

Azken 200 urteetan lehen aldiz, **neokolonialismotik** askatzea posiblea da, Kirchner, Lula, Chavez eta Castro presidentetek 'desarrollismo nazionalaren' eta eskualdeko integrazioaren alde borrokatzen direlako. Berria - Mundua

Feminista sozialista historikoa naiz, klase eta genero zapalkuntzaren kontrakoa, eta pobrezia, kapitalismoaren eta **neokolonialismoaren** kontra borrokatzen naiz. Berria - Kultura

neokolonizatzaile *izond/iz* neokolonialismoa ezartzen duena.

«Gure helburua ez da **neokolonizatzaileen** gisara janaria botatzea Afrikako biztanleen gainera, maila guztietan bizi duin bat eraikitzeko tresnak eskaintzea baizik», esan zuen Jean Charles Durdyte Sokorri Katolikoaren eledunak. Berria - Euskal Herria

neokomunismo *iz*

Liberalismoaren aurrean ere joera berriak sortu ziren, besteak beste, N. Bobbio, A. Giddens eta J. Habermas-en sozialismo liberala, errepublikanismo berria eta demokratismo erradikala hurrenez hurren, postmodernitatearen joera politikoak (edo T. Negri eta F. Guattari-ren **neokomunismo** edo autonomia). Askoren artean

neokonbertso *iz* erlijio edo ideologia batera konbertitu berria den pertsona.

"Tira", esan du berekiko, "arnegatu eta **neokonbertsoen** entusiasmoa...". Jokin Muñoz

neokonduktibismo *iz*

la konduktismo-mota guztiek (konduktismo watsondarra, **neokonduktibismoa**, konduktismo erradikala, etab.) gogo-egoerei erreferentzia egitea gainditu nahi dute. Askoren artean

neokonfuzianismo (*corpusean neo-konfuzianismo soilik*) *iz* Jesu Kristo ondoko bigarren milurtearen hasieran sortu zen konfuzianismo berria, pentsamendu taoistako, eta batez ere budistako, hainbat elementu hartu zituen.

Neo-konfuzianismoa espirituaiki mahayanaren mende erori zen bitartean, neo-aristotelismoa Kristau Elizaren teologian ezarri zen, honen ikuspegi ofizialean Aristoteles ezinbestean fedegabea izanik. Iñaki Mendiguren

neokonfuziar (*corpusean neo-konfuziar soilik*) *izond/iz* neokonfuzianismoaren jarraitzailea.

Gai honetan aditua den txinatar moderno batek esaten digu "**neo-konfuziarrak** sendotasun handiagoz atxikitzen zaizkiela taoismoaren eta budismoaren ideia nagusiei taoistak eta budistak eurak baino". Iñaki Mendiguren

neokontserbadore (*orobat neo-kontserbadore*) **1** *izond* neokontserbadurismoan oinarritzen dena.

Haren programa **neokontserbadorea** gogokoa zaie iparramerikar gehieni. Berria - Mundua

Auzune aberatsenetako burgesiak, patronalak, CTV sindikatuak -seguru asko, Amerikan dagoen ustelduenak-, eta masa-hedabide handienek osatu zuten aliantza **neokontserbadorea**. Txema Ramirez de la Piscina

Jonah Goldberg kazetari **neokontserbadoreak** Gobernuaren auzi garrantzitsuak kritikatu ditu. Berria - Mundua

Zuzendaria, esaterako, Barry Blechman **neokontserbadorea** da. Berria - Mundua

2 (izen gisa)

Neokontserbadoreak, 1970eko hamarkadatik, AEBetako gizartea giro zapaltzaile eta autoritarioago baterantz bultzatzen saiatu dira, beraiek 'Demokraziaren Krisia' deitzen dutenari aurre egin ahal izateko. Berria - Mundua

Neokontserbadoreek babestutako Txalabiren ordez CIAko kolaboratzaile lad Alaui jarri zuen boterean. Berria - Harian

FBik kontra-ikerketak abia dezala eskatuta, Pentagonoko **neokontserbadoreen** gainbehera eragin dezake CIAk. Berria - Mundua

Gobernuaren aldekoa eta **neokontserbadoreen** ideologoak ahotsa bilakatu den egunkaria. Berria - Mundua

neokontserbadurismo *iz* XX. mendearen amaieran Estatu Batuetan sortu zen mugimendu politikoa, higikunde kontserbadoreen ezaugarriak areagotzen zituen.

Neokontserbadurismoa babesten jarrai ez dezakedan sinbolo politikoa edo ideia eraikuntza bihurtu da. Berria - Mundua

neokortex *iz* garun-azaleko zatirik handiena eta berriena, haren gainaldean kokatua dena. ikneopalio.

Burmuineko **neokortexa**, hau da, kultur balioen eta gustu pertsonalen sistema. Luis Elberdin

neokristau *izond* kristautasun berriari dagokiona. • *irud/hed*

Kristautasunak -beste semitismo modu bat, hau ere- gizakiaren bukaeran eta haren bizitzaz kanpo kokatu zuen paradisuak, eta anarkistek **neokristauak** baizik ez dira, neosemitak, alegia- bizitzan eta lurrean kokatzen dute paradisuak. Josu Zabaleta

neoliberalismo *izond* A. Packard-ek XIX. mendean eraldatua eta T. Lysenkok Errusia sobietikoan J.-B. Lamarcken teoria ebolutiboaren haritik eratu zituzten teoriari dagokiena.

Garai hartan, dialektikaren izenean, **neoliberalismoa** komunismek, karaktere bereganatuak ondoretasunez jasotzen zirelako hipotesiaren aldeko, eraso egin zieten -ez zientzia-argudioz armaturik, Engels-en testuez baizik- errusiar genetistei. [Juan Garzia](#)

neoliberal *(orobat neo-liberal g.er.) 1 izond* neoliberalismoarena, neoliberalismoari dagokiona.

Euskal Herria ekonomia **neoliberalen** «biktima» dela esan zuen Agerrek. [Berria - Euskal Herria](#)

Axioma **neoliberal** onartuta da hori ere: "merkatuan lehentasunak edo nahiak gizabanakoen nahien metaketaz ezartzen dira". [Iñaki Heras](#)

Argentinaren eskubideak zapaltzen dituen NDFren politika **neoliberalak** eragina. [Iñaki Heras](#)

Globalizazio **neoliberal** eta patriarkatua txanpon beraren bi aldeak dira. [Berria - Harian](#)

Inposatu nahi diguten neurri **neoliberal** hau gaitzesten dugula adierazi nahi dugu ozenki. [Berria - Ekonomia](#)

Hainbat erreforma **neoliberal** egin zituen. [Berria - Mundua](#)

Ikuspuntu neoklasiko, liberal edo **neoliberalarentzat**, beraz, langabezia lan merkatuan gertatzen den arazo bat da. [Iñaki Heras](#)

Bere azken helburua pentsamendu **neoliberal** bakarraren aurreko alternatibak biltzen dituen nazioarteko mugimendu bat eraikitzea eta proposamen askotarikoak eskaintzea da. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Irizpide ekonomiko **neoliberalak**. [Berria - Euskal Herria](#)

Jarrera «**neoliberal** peto-petoa» erakusten ari da patronala, sindikatuen iritziz. [Berria - Ekonomia](#)

Patronal **neoliberal** eta atzerakoia dugu. [Berria - Ekonomia](#)

Udako beroak edonoren gogoia kiskal lezake gizarte kapitalista **neoliberal** honetan. [Edorta Jimenez](#)

Globalizazioaren eta diskurtso **neoliberalaren** kontra dauden zenbaiten aldetik ere kritika latzak jaso dituzte ekimen hauek. [Iñaki Heras](#)

Europa [...] funtsean **neoliberal** den politika batean oinarrituz eraikitzen ari da. [Berria - Mundua](#)

• 2 iz neoliberalismoaren aldeko pertsona.

Pentsamendu bakar horri kritika (edo kritika mota bat) ere ezaguna da eta oso hedatua dago, eta, zenbait **neoliberalen** aburuz, balizko beren pentsamendu bakarra bera baino are zabalduago. [Iñaki Heras](#)

Gure **neoliberalen** aurkako kanpainaren ekintzekin jarraitu zuen ELAK bart. [Berria - Ekonomia](#)

ELAK, finean, «mozorroa kendu gura die etxeko **neoliberalak**», Kortabariak zehaztu zuenez. [Berria - Ekonomia](#)

Erabateko merkatu-legea, %100ekoa, inoiz aplikatu ez denez, ezinezkoa dela horren aplikazioak, **neoliberal** talibanean dioten legez, mundu honetan bertan paradisu ekonomikoa sortuko duela zehaztea. [Iñaki Heras](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

politika neoliberal (4)

eredu ekonomiko neoliberal (3); eredu neoliberal (8); globalizazio neoliberal (7); izaera neoliberal (3); politika neoliberal (7); sistema neoliberal (3)

politika neoliberalak (13)

eredu neoliberalaren (5); globalizazio neoliberalaren (7); politika neoliberalaren (5)

egungo eredu neoliberalari (3); eredu neoliberalari (7); globalizazio neoliberalari (3)

politika neoliberalak (3)

politika neoliberalak (11)

politika neoliberal (10)

neoliberalismo *(orobat neo-liberalismo g.er.) iz* liberalismoaren aldaera berria, Estatuaren esku-hartze mugatua onartzen duena.

Neoliberalismoaren praxiak, ordea, ez du zerikusi handirik benetako liberalismoarekin. [Iñaki Heras](#)

Kontinenteko **neoliberalismoaren** kontrako alternatibak. [Berria - Euskal Herria](#)

Neoliberalismoaren lorpen nagusia zuzenbidezko estatu soziala behin betiko baztertea izan da. [Askoren artean](#)

Neoliberalismoak dena kutsatzen jarraitzen du, ideologikoki eta ekonomikoki. [Berria - Ekonomia](#)

Neoliberalismoari bere armekin egin behar zaio aurre. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Globalizazioari eta **neoliberalismoari** aurre egin eta garapen formula alternatiboen inguruko ekarpenak egiteko eztabaidarako gunea da foroa. [Berria - Mundua](#)

Neoliberalismoak Gobernu Kanpoko Erakundeek sorkuntza sustatzen du. [Iñaki Heras](#)

Neoliberalismo basatiaren hazkundera lehenbailehen moztu beharra arrazoitu eta gertutasunean eta berdintasunean oinarritutako ekonomia apal eta gizatiarrago bat aldarrikatu. [Juan Luis Zabala](#)

Neoliberalismo gordinak, Sombart-ek zioen bezala, gizakia bizitzaren zentro izatetik aldentu zuen. [Iñaki Heras](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neoliberalismoaren aurka (3); neoliberalismoaren aurkako (4); neoliberalismoaren kontrako (5); neoliberalismoaren kontrako borroka (3)

neoliberalista *izond* neoliberal.

Espainiako Gobernuak Gasteizen duen ordezkariaren aurrean elkarretaratzea egin zuten 50 bat lagunek, Ameriketako herriekin Espainiak izaniko «politika **neoliberalista**» salatzeko. [Berria - Harian](#)

Gizartearen berdintasunaz mintzo dira, baina hitzetatik haratago, politika praktikoa egin behar dutenean, Europako **neoliberalistak** kontserbatzaileen gisakoak dira.

[Berria - Euskal Herria](#)

neoliberalizazio *iz* neoliberalismoa.

Neoliberalizazioari aurre egiteko politika alternatiboak izango dituzte igandera arte hizpide, mundu osoko 70.000 pertsonak, Caracasen. [Berria - Mundua](#)

neolingua *iz* adkor hizkuntza berria.

Orduak eta orduak eman litezke EITB taldeak sortutako **neolingua** erakusten duen munduaz miraz. [Iñigo Aranbarri](#)

neolitiko 1 *izond* historiaurreko aroez mintzatuz, Harri Aroaren azken aldiari dagokiona.

Iraultza **"neolitikoa"** honat. **Patziku Perurena**
Manuel Lekuonaren obran hainbat aldiz aipatzen da bertsolaritzaren izaera **"neolitikoa"** edo "prehistorikoa". **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Paleolitiko arotik zetorkigun hizkuntzak ikastola **neolitikoaren** aterpea baino gehiago merezi zuela. **Itxaro Borda**

2 (izen gisa) ik neolito.

Euskal Herria behin eta betiko osatua eta zehaztua gelditu zela uste dute, aspaldi batean noski, **Neolitikoa** edo. Eskandinaviar paleolitiko, **neolitiko**, brontze-aro eta kristau-aurreko Burdin Aroko kulturen laginak. **Bernardo Atxaga**
Ez dago lotsa onaren mugetatik irten beharrik jakiteko Oteizak **neolitikoan** ikusi uste zuena hizkuntzan geneukala eta daukagula euskal hiztunok. **Anjel Lertxundi**
Aldez aurretiko ikerketetan **Neolitikotik** datozen aztarnak aurkitu ditugu kantueta. Cromlecheta ageri zaizkigun **neolitikoko** aztarnak baino biziagoak baitira hizkuntzak eskaintzen eta eraikitzen dizkigun jentil-baratzeak. **Berria - Harian**
Euskararik gabeko euskal herritarrek hizkuntza baino haratagoko eremu sakratu batzuetan bila zezakeen, balizko **neolitiko** batean, euskal arimaren esentzia. **Anjel Lertxundi**

3 (beste izen baten ezkerrean)

Neolitiko garaiko euskal gizakia ulertzeko eginahal etengabea izan zen haren bizitza. **Pako Aristi**
Neolitiko garaia arte itxaron behar dugu antropologikoki euskal etniaz, eta, ondorioz, euskal arteaz hitz egin ahal izateko. **Berria - Kultura**

neolito 1 iz neolitikoa. ik neolito 2.

Garai guztiei buruzko informazioa izango du Arkeologia Museoko bisitariak: Paleolitoa, Epipaleolitoa, **Neolitoa**, Brontze Aroa eta Burdin Aroa, Erromatarren garaia eta Erdi Aroa. **Berria - Kultura**
Gipuzkoako Paleolitoa, **Neolitoa**, Brontze aroa eta Burdin aroa. **Berria - Kultura**
Euskaldunok emana genion **Neolitoan** erantzuna, erantzun estetiko, arazo existentzialari. **Iñaki Iñurieta**
Neolitoko zortzi aletegi aurkitu dituzte Egiptoko Al Fayum hirian **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Ikerleek aurkitu dituzten karakol azaldegia ugariak, batez ere paleolito eta **neolito** arokoek, argi erakusten omen dute gure arbasoen jaki preziatu izana dela. **Patziku Perurena**
Neolito garaiko aurkikuntza Jaizkibelen. **Herria**
Jaizkibelen, **neolito** aroko gizon baten aztarnak aurkitu ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak. **Herria**
Neolito garaian heldu zen laborantza Euskal Herrira, Ebro ibaiaren bidez, baina baita Pirinioetatik eta Soria aldetik ere. **Berria - Euskal Herria**

neologismo iz hitz berria.

Neologismo hau (*arte aktibismoa*) Internet sarean hasi zen erabiltzen 1994an. **Txema Ramirez de la Piscina**
Zuzentzaileak bikoizteko dohain azpimarragarria du, *deleatur* bat marraztu edo koma eztaba daezina sartzen du, eta,aldi berean, **neologismoa** onar dezagun, heteronomizatu egiten da, irudi, konparazio edo metafora batek iradokitzen duen bideari segitzeko gauza da. **Jon Alonso**
Kolore horiak denotazioz /galbinikotasun/ esanahi bat duela esatea ("horia izatea" adierazteko **neologismoa**) arrunckeria bat baizik ez da. **Josu Zabaleta**
Elektrokuzio bidezko exekuzioari buruz zutabe mordoxka bat idatzi zuen (**neologismoa** gaitzesten zuen, bestalde, hitza egintza baino okerragoa zela esanez). **Xabier Olarra**
Neologismoak asmatzeari ekin ziotenen artean, XVIII. mendean Aita Larramendi, eta, XIX-XX. mendean bueltan Sabino Arana izan ziren gehien nabarmendu zirenak. **Iñaki Arranz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
sabino aranaren neologismoak (4)

neoludita iz ik ludita.

Eta egun ere bada, bide bertsuan, **neoluditarik**. **Iñaki Heras**

neomarxista izond K. Marx-en lehen idazlanetako pentsamentuan, hots, Engels-en eraginaren aurrekoetan eta ekonomiaren determinismori uko egoten diotenenan, oinarritzen diren pentsamendu ildoetakoak.

Antropologia filosofikoa deritzana, Alemaniako eskola edo proiektu zehatz baten izendapena izan da jatorriz: proiektu polemikoa hastapen hartan, batzuek gogor ezetsia (bai Heidegger existentzialistak bai Horkheimer **neomarxistak**), gogoz landu eta garatua beste batzuek (Max Scheler-ek, Plessner-ek, etab.). **Askoren artean**

neomerkantilismo iz XIX. mendearen azken hamarraldietan eratu zen teoria ekonomikoa, esportazioan sustatzen, inportazioak tratatzen eta dibisa erreserben maila goratzen eta kontrolatzen ahalegintzen dena.

XVII. eta XVIII. mendeetako aberastasunen azterketa zeaugarrituko du Colberten merkantilismoak eta Cantillon **neomerkantilismoak**, biek batera, eratu ahal izan duten sistemak. **Xabier Arregi**
Neomerkantilismo hori -Machiavelli eta Hobbesez geroztik kontinente zaharrea nagusitu zen errealismo politikoaren bertsio ekonomikoa-, 1870etik aurrera zabaldu zen, non eta munduko ekonomia gaur menderatzen duten hiru herrialdeetan: Estatu Batuetan, Japonian eta Alemanian. **Koro Navarro**

neomerkantilista izond neomerkantilismoarena, merkantilismoari dagokiona.

Orain arte [...] beti izan dira merkatu nazionalak partez itxita utzi dituzten eta atzeritar teknikez aktiboki jabetu diren politika **neomerkantilistak**. **Koro Navarro**

neomoderno izond/iz adkor

Erazena erlatibismo unibertsal honengatik heia goratzea da eta eskandalizatzea -hala ikusten dugu-; eta, gure **neomoderno** batzuek gustu dutenez, egungo miseriaren aldean behialako ilustrazio razional eta burgoi paregabea goraitzea. **Joxe Azurmendi**

neon (orobat neoi) 1 iz gas geldoa, lanpara elektrikoak egiteko erabiltzen dena.

Neonezko hodi fluoreszenteak. **Joseba Urteaga**

2 neonezko argia.

Eguna argi edo ilun egon, **neonak** beti piztuta egoten dira gure tailer eskerga horretan. Eskarne Mujika

Itzali egin nituen **neonak**. Joxan Elosegi

Neoia han-hemen, eta izkina egiten duten bakarrak afrikarrak. Urtzi Urrutikoeetxea

Bat-batean bakar-bakarrik zaude munduaren erdigunean, zeruko bazter guztietatik **neoia** isurtzen delarik zure gainera. Oskar Arana

Geltokiak erakartzen naute, bereziki gauaren magiak ematen diolarik jendeari epopeia aire bat, baten aurpegi ximurtua zizelkatzen duelarik **neon** bortitzak. Piarres Aintziart

Neon berdeak Alexen aurpegi zatiak argitzen zituen, baina tarteko zulguneen itzalek ageri zuten indar handiena. Fernando Morillo

Neozko letra moreak. Pako Aristi

Hoteleko **neonezko** izen dirdiratsua. Ramuntxo Etxeberri

Nire parean, Newberry erostetxe handien gainean, **neonezko** errotulu izugarri handi bat piztu-itzalian zen. Fernando Rey

Kliska eta kliska ari ziren **neonezko** Asiako denda zein ostatu entseinak miretsiz. Itxaro Borda

Ilunabar berdea etel beronen **neonezko** iragarkiak, izozki-saltzaileak, platanondoan azal larrutua, txorien txorrotxioak, itzalen sarea zoru gainean, eta ahoen lore gorriak. Joxe Austin Arrieta

Han behean zegoen metropoli modernoaren bihotz nekagabea, **neonezko** arteria argitsuek zeharkatua: bankuak, museoak, pizzeriak, megadendak... Patxi Iturritegi

3 (hitz elkartuetan)

Poonan, Kulkarni jaunak bi kilo eta erdi kristal jan zuen, **neon** tutuak, bonbillak eta indizio bonbiltxoak xehe-xehe egin ondoren. Gotzon Garate

4 neon-argi (13 agerraldi, 5 liburutan; orobat neoi-argi 3 agerraldi, 3 liburutan)

Kalera ematen zuen kristal handi hartan, **neon-argi** gorriko hodi mehe batzuez egindako errotulu bat ikusten zen zintzilik; "Cath's coffee shop", zioen. Iñaki Zabaleta

Neon-argi keinukari berdea zeukan goiko aldean. Fernando Morillo

Neon-argien itsustasunak ez zidaten xangrina eragotzi. Joxan Elosegi

"Hau da Las Vegas diot eta ez naiz lotsatzen" pentsatzen du zapata zuriak dituen gazteak, auzoak eta hiriak bere aldera erreskatatuz, aspaldi pasatako kontzertuen berri ematen duten kartel erdi tarratuei eta **neoi argiei** so. Harkaitz Cano

5 neonezko argi (10 agerraldi, 9 liburutan; orobat neoizko argi 13 agerraldi, 6 liburu eta 4 artikulutan)

Hotel Roma da, **neoizko argi** gorri batek adierazten duenez. Anjel Lertxundi

Neonezko argiak eta tentelkeria amerikar ugari bazterretan, *country* eta *spaghetti western* estilokoak, 60ko hamarkadako aztarna nostalgikoak. Patxi Iturritegi

Artean goizegi piztutako **neonezko argiek** beste aldeko tabernaren izena zabalzten zuten kalean zehar, gorri eta more orain, more eta gorri ondoren. Joxemari Urteaga

Gauerdia aspalditxo iragana, asteburuko usadioari jarraikiz, **neonezko argi** gorriek mugaturiko azpimundura jotzeko ordua zela deliberatu zuen Iñigok. Migel Angel Mintegi

Barru iluna **neoizko argi** aldizkako eta keinukariz piztuko da, horregatik dirdiratuko dira haginak, nabarmenduko dira botoiak, moretuko dira ezpainak, eta iragan mendeko lehen aldiko film mutuetan bezala mugituko dira gorputzak. Joseba Sarrionandia

Ilunabarrean, bigarren mailako errepideetako moteletan, **neoizko argien** pean kokatzen ditu Cillerok pertsonaiak, hondoa jotzera iristen ez den dekadentzia giroan. Berria - Kultura

Urrunean agertzen ziren saltegien eta iragarki erraldoien **neonezko argiek** pinpirin dirdiratsua ziruditen. Ramuntxo Etxeberri

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neon argi (4); **neon argiak** (3); **neon argiek** (3)

neonezko argiek (3)

neoizko argi (7); **neoizko argiak** (4); **neoizko letrero** (3)

neonazi (orobat neo-nazi g.er.) 1 izond neonazismoarena, neonazismoari dagokiona.

Paris Saint-Germaineko [...] hiru zale zigortu ditu Frantziako epaile batek, otsailaren 6ko partidaren bandera **neonazia** erakutsi zutelako. Berria - Kirola

Orain buruzagiak mila bider arrakastuagoak diren ideia eta metodo **neonazietara** hauen bultzatzailearen, hots, AEBetako administrazioa kontrolatzen duen eskuin muturraren, boterea ia mugagabea da makurtzen dira. Berria - Mundua

2 iz neonazismoaren aldeko persona.

4.000 **neonazi** bildu dira Rudolf Hess omentzeko. Berria - Mundua

Neonazien asmoa Brandenburgoko Atean barrera Holokaustoaren aldeko monumentu berrira martxa egitea zen. Berria - Harian

Lana alemaniarrentzat eta gisako leloak aldarrikatu zituzten **neonaziek**. Berria - Harian

Euskadiko gazteen hamarretik batek bakarrik adierazi du bereak ez bezalako ideia edo sinesmenak dituztenekin oso desgogora edo desgogora daudela, eta, gainera, **neonaziak** edo eskuin-eskuinekoak diren taldeak arbuizatzen dituzte gehien. Berria - Euskal Herria

neonazismo iz bigarren mundu gerraren ondoko doktrina nazionalsozialista.

Egun Fischerren hitzek zentzu guztia galdu dute, eta bere paranoian antisemitismo eta **neonazismo** tantak nahasten ditu. Berria - Kirola

neopaganismo iz kristautasunaren oinarri moralak alde batera utzi eta paganismoaren hartzearen aldeko joera soziala.

Mendebaldeko Zibilizazioa hamazazpigarren mendetik aurrera Mendebaldeko Kristandaretik aldentuta garatu zenean, Elizak, sekularismoa hedatzearen eta

neopaganismora itzultzearen beldur izanik arrazoiz, fedea desagertzen ari zen gizarte-sistemarekin identifikatu zuen oker. Iñaki Mendiguren

neopagano izond /iz neopaganismoari dagokiona; neopaganismoaren aldekoa.

Frazer eta haren pentsaera bertuko garaikideak kristau-aroan hamabosgarren mendean Italian lehenengoz sortu zen eskola arrazional eta toleranteko mendebaldar

neopaganoen azken belaunaldia izan ziren. Iñaki Mendiguren

neopalio iz neokortexa.

Sartzen dugu entziklopedia eta hiztegia den oro, eta horrela ez dugu oroimenik eduki behar, baina gauzak ulertzeko modu hau [...] erabat eta izugarri erreakzionarioa da, zeren gure guraso eta aiton-amonen liburutegiek ere horretarako balio baitzuten, **neopalioak** gehiegizko karga eduki ez zezan. Jon Alonso

Orduan Mem Ramiresek Mogueimeri esan zion, *Jarri hor, gainera igoko naiz*, agian pentsa liteke esaldi hau ez zela **neopalioaren** obra izan, non, eskailera eta soldadu disziplinatuen oroimenaren ondoan, intelijentzia ere bai baitago, ordenadoreak harro erakutsi ezin duen kausa eta efektuaren arteko harremana edo konbergentzia, eta ordenadorea ez daiteke intelijentziaz harro, zeren dena dakielarik, ez baitu ezer ulertzen. Jon Alonso

neoplasiko *izond* neoplasiari, hots, ehun tumoredunak eratzeari, dagokiona.

Lau substantzia horiek gaitz **neoplasikoei** (gaitz tumoredunak) zelan eragiten dien argitu gura dugu, batetik. **Berria - Gaiak**

Lifa-sisteman sortzen den minbizi mota bat da *Hodgkinen gaitza* edo *Linfogranulomatosi gaiztoa* deitzen dutena; beste modu batera esanda, histiozitoen eta zelula erretikulatuen ugaltze **neoplasikoa**. **Berria - Gaiak**

neoplatoniar *(8 agerraldi, liburu 1ean) izlag* neoplatonismoarena, neoplatonismoari dagokiona. ik **neoplatoniko**.

Erdi Aroko intelektualak logikaren aldetik aristotelikoak ziren, baina gainerakoan, ikuspegi teologiko eta filosofikoari dagokionez, inspirazio platoniarra eta **neoplatoniarra** ziren nagusi haien artean. **Askoren artean**

Erdi Aroko filosofiak ere gogoz erabili du filosofia greziarra, aristotelismoa **neoplatoniar** inspirazioarekin osatuz, bien artean sistema teozentriko bat eraikitzeko. **Askoren artean**

Haien arteko filosofo ospetsuenek (hala nola al-Farabik 870-950 inguruan, eta Avizenak 908-1037 inguruan) **neoplatoniar** kutsu handiko filosofiak landu zituzten, eta, horrenbestez, kristau-pentsaerak lehendik zeukan joera **neoplatoniarra** indartzera zetozen. **Askoren artean**

Liber de Causis (hau, berriz, Proclo **neoplatoniarren** inguruan egindako iruzkina). **Askoren artean**

neoplatoniko *(4 agerraldi, 2 liburutan) izond 1* neoplatonismoarena, neoplatonismoari dagokiona. ik **neoplatoniar**.

Anbrosio apezpikua buru zuen Zirkulo **Neoplatonikoan** parte-hartzea izan zen funtsezkoa aurkikuntza honetan. **Imanol Unzurrunzaga**

2 iz neoplatonismoaren aldeko pertsona.

Mario Victorinok grekotik itzultitako **Neoplatonikoan** liburuak irakurri zituen, Plotinoren Enneadak zehazki. **Imanol Unzurrunzaga**

Bere ibilbide profesionala ere aurkitzen dugu liburu honetan, Zizeronen Hortensio elkarrizketa irakurri zueneko, manikeismoaren gainbehera, **neoplatonikoan** eta Bibliaren irakurketa eta bere konbertsio moralaren jazoera. **Imanol Unzurrunzaga**

Mila urte geroago, kultura egipziako hau oraindik bizirik eta Zibilizazio Helenikoa hiltzorian zegoenean, **neoplatonikoetako** azkenekoek beren maisu ospetsuaren sentimendua mirespen itsu-itsuaren gailur ia zentzugaberaino eraman zuten. **Iñaki Mendiguren**

neoplatonismo *iz* Alexandrian, III. mendearen inguruan sortu zen doktrina, Platonen filosofian oinarritzen zena.

Abraham Ibn 'Ezraren **neoplatonismoaren** eragina nabarmena izango da ondorengo eskolastikan. **Askoren artean**

Biek izan zuten eragin handia, arabiarren artean lehenbizi eta gero kristauen artean, aristotelismoa **neoplatonismoarekin** nahasteko. **Askoren artean**

Transmutazioa: espezieak ez dira tipo aldezinak (**neoplatonismoaren** eraginez uste zen bezala). **Askoren artean**

neopositibismo *iz* XX. mendeko doktrina filosofikoa, logikan eta zientzian oinarritzen dena.

Programa berri horren bultzatzaileek filosofo eta zientzialari talde desberdinak osatu zituzten -horietako ezagunenak Vienako Zirkulua eta Berlingo Zirkulua ziren- orientabide komun batean, enpirismo logikoa deritzaneko -edo positibismo logikoa, **neopositibismoa**-. **Askoren artean**

Amerikako Estatu Batuetan Willard van Orman Quine, Nelson Goodman eta Wilfrid Sellars-ek **neopositibismoaren** dogma batzuk arbiatu zituzten, analitikoaren eta sintetikoaren arteko bereiztea ezabatu eta esanahiaren holismoa bultzatu ostean. **Askoren artean**

Orduan, **neopositibismoaren** epistemologia eta ontologia zabaldu ziren. **Askoren artean**

Neopositibismoaren ondokoan analisi estrukturalista zientifikoetan. **Askoren artean**

neopreno 1 *iz* oso temperatura altuetan ere hondatzen ez den kautxu sintetikoa.

Surflariak erabiltzen dituzten **neoprenozko** praken antza du. **Berria - Gaiak**

Lekuan bildutako lagunetatik bi **neoprenozko** urpekari jantziz zeuden errekarren bazterreko harri borobil banatan eserita, oinetan jantzita zituzten eskarpinak errekan sartuta. **Hasier Etxeberria**

Neoprenoa, 5mm-koa edo 7 mm-koa? **Jon Alonso**

2 irud/hed

Ez dut sinesten bere **neoprenozko** buru-bihotzak delako Zentro hartara begira dituenak muturren aurrean daukan mendia bere hartan maita dezakeenik. **Iñaki Segurola**

neoprimitibismo *(corpusean neoprimitismo) iz* arte higikunde garaikidea, herri artearen itxura ustez primitibo eta bakunean oinarritzen dena.

Neoprimitismoak arrakasta handia izan zuen Errusian, Hego Amerikako, Afrikako eta Ekialdeko herrietako arte primitibo eta tribalak, hain zuzen. **Berria - Kultura**

neoprofesional *iz* profesional gisa lehen aldiz aritzen den kirolaria.

Neoprofesionala da, lehen urtea, lehen hilabeteak egiten ari da profesioaletan. **Berria - Kirola**

Beste hirurak **neoprofesionalak** dira: Juanjo Oroz, Alberto Losada eta Ivan Gilmartin. **Berria - Kirola**

Laugarren fitxaketak ere, Igor Anton **neoprofesionalak**, bi orduko entrenamendua egin zuen taldekideekin Txorierrri eta Uribe-Kostako errepideetatik barrena. **Berria - Kirola**

Iragan larunbatean Altsasuko pilotalekuan Larraia **neoprofesionalari** 22-7 nagusitu ostean, Karlos Armendariz izango da Nafarroako lau t'erdiko txapelketa ofizialeko bigarren finalista. **Berria - Kirola**

neoprotekzionismo *iz* aduana-zergez bestelako neurrietan -ustez ekologikoetan, adibidez- oinarritzen den protekzionismoa.

Hegoaldeko herrialdeek biziki kritikatu dituzte gizar- eta ekologia-klausula horiek, benetako izena aitortzen ausartzen ez den **neoprotekzionismo** bat ikusten baitute haietan, eta arrazoiz ikusi ere sarritan. **Koro Navarro**

Jakina zen Enel Suezek jabetzeko erosketa eskaintza egitear zela, eta «**neoprotekzionismoz**» jardutea egotzi zion Frantziari Claudio Scajola Italiako Industria ministroak. **Berria - Ekonomia**

neorealismo ik **neorealismo**.

neorrealismo (*orobat **neoerrealismo** g.er. eta **neorealismo** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **neorrealismo** agertzen da*) **1** iz zinema higikundea, bigarren mundu gerraren ondoan Italian sortu zena, errealismo biziak ezaugarritzen duena, eta literaturaren ere eragina izan zuena.

Literaturan eta zinean hain fruitu ederrak eman zituen **Neorrealismo** italiarrena deitu zuten korronteko gai eta ezaugarri guzti-guztiak ditu pelikulak: kontatzen den istorioaren karga soziala; gerra ondoko egoerak bide bazterrean utzitako miseria; lorpen sindikalen garrantzia eta Eredu Amerikarrarenganako lilura, [...]. **Anjel Lertxundi**

Italiako **neorrealismoko** Roberto Rossellini *Roma, città aperta* eta *Dogma* korronte berriko Dogville emango dituzte, esaterako. **Berria - Kultura**

Besteok egunak eta gauak ematen genituen literaturaz hitz egiten, zinemaz (italiar **neorrealismoa** zebilen artean nagusi), [...]. **Juan Garzia**

Nire estiloa **neorrealismo** italiarretik hurbil dago. **Berria - Kultura**

2 irud/hed

Espainiar **neorrealismoaren** harribitxi honek mundu zabaleko hainbat tokitan izan zuen arrakasta, agian ederki jasotzen dituelako ezinezko iraultzaren sentsazioa eta giza kondizioa mugatzen dituzten oztipoak, kanpokoak nahiz barnekoak. **Berria - Kultura**

neorrealista *izond/iz* neorrealismoarena, neorrealismoari dagokiona.

Film **neorrealista** bat ikusten ari den ikusleari *Bizikleta-lapurrak*-en zoritxarrak zirraratu eragiten diola uste da, eta De Sicaren film horrek 1950ean Italian zegoen langabeziaren errealitatea adierazten duela. **Josu Zabaleta**

Inork esan dezake zinegile **neorrealistek** hala filmatzen bazuten, amerikarrek zeuzkaten medioak falta zitzaizkielako zela. **Anjel Lertxundi**

Zuzendari kataluniarrek eginiko azken bi film **neorrealistek** itxiko dute zikloa. **Berria - Kultura**

Neorrealistak, idazleak zein zinegileak, kultura elitista baten guztizko etsaia dira, ihesteko baizik balio ez duen arte baten etsai amorratu; urrutiko daude poetika goratsu baten edo hausnarketa sakon baten izenean eguneroko bizitzari bizkarra erakusten dion arte batetik. **Anjel Lertxundi**

neorromantiko *izond* musikan, erromantizismoaren amaierako konposizio teknikak musika-elementu berriez hornituak erabiltzen dituena.

Orain arte ezagunak zirenak ere gutxi entzun dira, horrexegatik, jotzeko duten zailtasunagatik; baina oso ederrak dira, **neorromantikoak**; 1975ean zendu zen, baina bere orek XIX. mendearen akaberako musika dakarte gogora **Berria - Kultura**

neosemita *izond*

Semitek paradisu materialista bat asmatu zuten (zentzu txarrean) gizakiaren hasieran; kristautasunak [...] gizakiaren bukaeran eta haren bizitzaz kanpo kokatu zuen paradisu, eta anarkistek -neokristauak baizik ez dira, **neosemitak**, alegia- bizitzan eta lurrean kokatzen dute paradisu. **Josu Zabaleta**

neositerapia ik **noesiterapia**.

neosurrealismo *iz* 1970 inguruan eratu zen arte generoa, subkonstzientearen mundua pinturaren, arte digitalaren eta argazki tekniken bidez adierazten duena.

Neosurrealismoaren bidetik, Larraldeko dioenez. **Berria - Kultura**

neoswing (*corpusean **neo-swing***) *iz* 1990 urteetan Estatu Batuetan sortu zen musika-generoa, swing estiloa beste estilo batzuekin –rockabiliarekin, kasu– nahasiz eraberritzen duena.

Urrats sendoenak *Roomfull of Blues* taldean egin zituen, 1967tik aurrera, eta hogeita urte beranduago **neo**-swing korronteari aurreratu zitzaion, 30eko eta 40ko hamarkadetakoko big band klasikoetan oinarritutako abestiak grabatuz. **Berria - Kultura**

neotaismo *iz* III. mendean Txinan sortu zen mugimendu filosofiko eta metafisikoa, taoismoa eta konfuzianismoa konbinatzen dituena.

Neotaismoa. **Iñaki Mendiguren**

neotradizionalismo (*corpusean **neo-tradizionalismo** soilik*) *iz*

Neo-tradizionalismo inperialista nagusi izandako estiloari uko egin zitzaion bat-batean, eta estilo arrazionalistari bidea eman. **Berria - Kultura**

neozelandar *izlag/iz* zeelandaberritarra.

Mahaiaren inguruan, amerikar bat, **neozelandar** komunista bat, hego-korear bat, irlandar bat eta bi euskaldun. **Harkaitz Cano**

Za la Mort eta irteko baimenarekin dagoen marinel **neozelandar** baten arteko piura izaten dute. **Koldo Biguri**

nepaldar *izlag/iz* Nepalekoa, Nepali dagokiona; Nepaleko herritarra.

Nepaldar langile hauen kasuak, haatik, ez zuen bi kazetari frantziarren bahiketarik eragindako elkartasun oldearen antzekorik eragin. **Berria - Mundua**

Ximiko bat bihotzean ukanen dute haatik, duela bi urteko lasterkaldiaren irabazlea, Sumba Sherpa **nepaldarra**, berriketan zendua baita goi mendi horietan. **Herria**

Budazaleak baitira **nepaldarrak** eta Mahomazaleak baltiarrek. **Xabier Montoia**

Himalaiaren ateratako argazki bat, bi **nepaldar** "Euskal presoak Euskal Herrira" zioen maindiretxoari heltzen. **Iñigo Aranbarri**

Ansar al Sunnako Armada izeneko talde islamista batek iragarri zuen atzo 12 **nepaldar** bahitu zituela, hauen enpresak okupazio indarrekin lan egiten duela azalduta.

Berria - Mundua

nepenta

Enpedoklesek, zutitu, besoa luzatu, eta Homerok **nepenta** soraioagarriari buruz paraturiko bertsoak kantatu zituen. Juan Garzia

nepertar *izond* logaritmoez mintzatuz, oinarri gisa e zenbakia duena.

“Logaritmo naturala” edo logaritmo **nepertarra** esaten zaion, Napier, logaritmoen asmatzailearen izenetik. Jon Muñoz

nepotismo *iz* kargu publikoak betetzeko, senide eta adiskideei lehentasuna ematea.

Ustelkeria eta **nepotismoa** leporatzen zieten aimara indiarrek hirurei. Berria - Mundua

Gobernuburu izendatua izan ondoren, ustelkeriaren eta **nepotismoaren** aurka borrokatuko zuela agindu zuen Kadirovek. Berria - Mundua

nerabe 1 *izond* haurtzaroaren eta gaztaroaren artean dagoena.

Badakit oso kontu bitxia dela mutil **nerabe** bat guztiz liluraztea apenas ezagutzen duen emakume erkin adineko batekin. Haren gorpuzkerak neska **nerabe** batena ematen zuen, ipurdia eta bularrak bere tokian. Anjel Lertxundi

Auzibidea jarrita zuen neska gazte **nerabeei** gurasoek deus jakin gabe abortatzeko aukera ematen dien legearen aurka. Berria - Gaiak

-Oi! akats larria! -esan dit lagun **nerabeak**. Pako Aristi

Poe lehengusina **nerabe** batekin ezkondu zen. Oskar Arana

Ikus dezagun nola bizi izan zuen Oteiza **nerabeak** 1930 urte inguruko abangoardien borborra. Anjel Lertxundi

Paperari eusten zion esku zartatu eta belztuak kontzientzia txar moduko zerbait piztuko zion seguru aski orduko Mentxu ikasle **nerabe** eta kontserbadoreari. Josu Landa

Errege **nerabe** bat izan nahi nuke nik, bai horixe. Fernando Rey

Itxura zabartu samarra, aire mundutarrek horditutako **nerabe** baten itxura. Xabier Olarra

Artean **nerabe** zela sartu zen dominikarren ordenan jaioterrian bertan. Joan Mari Lekuona

Hamabost urteko **nerabea** zen Dani Untziti 1985ean. Edurne Elizondo

Guk **nerabe** izateari utzi genion. Jokin Urain

Honi guztioni, gainera, gehitu behar zaio amak denboraldi luzeak egiten zituela ospitale psikiatrikoan, gu lehenik umeak eta gero **nerabeak** ginen bitartean. Aitor Arana

Gustura entzuten zituen **nerabeagoek** neskekin zeuzkaten ateraldiak, zorrotz eta zuzen, ikastolako girotik apartearen. Urtzi Urrutikoeetxea

• 2 *iz* haurtzaroaren eta gaztaroaren artean dagoen pertsona.

Haurrak eta **nerabeak**, berriz, nondik-nahi. Pedro Alberdi

Argi-armiarmak sabaitik dilindan, **nerabeandako** arropa-denda batean baino ispilu gehiago bazterretan. Aingeru Epaltza

16 urtetik gorako **nerabeek** har dezakete. Berria - Gaiak

Dosi txikiko ahozko antikonzeptibo konbinatuak (AOC) oso egokiak dira harreman sexual iraunkorrak dituzten **nerabe** eta gazteentzat. Luis Elberdin

Nerabeak keinu lizunak egiten zizkidan, hator, hator!, esaka. Anjel Lertxundi

Gazteturik ikusten nuen, bizi-gogoz beterik, **nerabe** bat bezala. Juan Kruz Igerabide

Nerabe baten amets erromantikoa zen hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Marxismoari eta psikologiari buruzko liburu asko samar lapurtuak nituen gaztetxo nintzelarik, artean diru askorik gabeko **nerabe**. Juan Kruz Igerabide

3 (izenondoekin)

Badakit antzeko galderak egiten zizkiola Adelak bere buruari, nahiz eta ez zizkidan aipaturiko modu horretan adierazten, jakina, ezin zizkion-eta modu horretan azaldu ni nintzen **nerabe** bizargabeari. Juan Kruz Igerabide

Neskak belarrian zerbait xuxurlatu eta gure anaiak **nerabe** hankagorri batek ere eginen ez zukeen irribarre zozo batez erantzun zuen. Aingeru Epaltza

Emakumezkoen alboan izatearren joan naiz, ni neu ere edozein **nerabe** gorriren pare. Edorta Jimenez

Dantzarako, **nerabe** dantzariak agertu ziren. Juan Kruz Igerabide

Dena, **nerabe** moko-guri batzuk ginen garaietatik. Aingeru Epaltza

Behin eta berriz berrirakurtzen dut Mario Benedettiren nobela **nerabe**-usaineko bat. Iñigo Aranbarri

Frontoia ez du gehiago *Independentzia eta Sozialismoa* aldarrikatzen, letra guztiak **nerabe** horail batek ezkututzen duen spray pote gorri batean gorde baitira. Eider Rodriguez

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txarrena da **nerabe** bikote batek horrela hasi behar izatea beren bizitza sexuala, horrelako esperientzia batekin. Luis Elberdin

Nire **nerabe**-bizimoduari ekin nion berritro. Juan Kruz Igerabide

Gaztetxo eta **nerabe** garaian, amonarekin joaten nintzen Outeirãora. Karlos Zabala

Ez dio flekilloak ohi bezala bere bisajeari **nerabe** itxurarik ematen. Harkaitz Cano

Ezpondatik behera jaitsi ahala hobeto antzeman zion neskatoaren ibilera irtirinari, minigona beltzean aldakak mugituz eta **nerabe** bularrak mahuka gabeko atorran harrotuz. Urtzi Urrutikoeetxea

Ruche jaunak ez zuen erantzun; miretsita zeukan bikien **nerabe**-suminak. Jon Muñoz

Bazirudien Tomek bizitzaren aurreko jarrera zentzuzko, gogoetazko eta doi bat harridurazkoarekin eraman zuela bere gurasoen banantzearen hondamendia -bai eta arreba gaztearen **nerabe**-amorrualdiak ere. Oskar Arana

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

haur eta nerabe (8); mutil nerabe (4); nerabe bat hil (3); nerabe izateari (3); nerabe zela (3); neska nerabe (4); urteko nerabe (6)

nerabea zela (3); nerabea zen (5); urteko nerabea (4)

haur eta nerabeak (7); haurrak eta nerabeak (3); nerabeak babesteko (3); nerabeak babesteko lege (3); nerabeak dira (4); urteko nerabeak (3)

nerabetasun 1 *iz* nerabea izateko nolakotasuna. ik nerabezaro.

Haurtzarotik **nerabetasunerako** bide gogorra eta etorkizunik gabeko mundua ikusiko dute neska-mutilek. Berria - Kultura

Nerabetasunak munduaren argiak erakutsi bezain azkar gau-klubetako argi koloretsuak aukeratu zituen Ruthek, eta haietan ibili ohi zen gona estu, zigarreta-bokila luze eta baso sakonak zituela lagun. J.M. Olaiola "Txiliku"

Nerabetasuna, bai fisikoa, bai psikologikoa, puxka bat atzeraturik beharbada, abaila bizian ari zaio nabarmentzen. Xabier Olarra

2 (hitz elkartuetan)

Telefono deia zuela esateko berriz abisatu ziotenean [...] korrika joan zen Lucy pasilu luze haietatik aurrerantz, urduritasun puntutxo batek jota, dardar ttipi baten gisakoa bihotzean, iruditu zitzaion garai bateko kontuak itzuli zirela ostera ere, **nerabetasun** garaiak, aspalditik desiaturiko senargai batek, azkenik, etxera deitzen zuenean bezalaxe.

Joxemari Iturralde

nerabetxo *iz adkor nerabea.*

Gaur egun poesia **nerabetxoentzat** duk, motel... [J.M. Olaizola "Txiliiku"](#)

Maitasun minez zauritutako **nerabetxoak** izan ohi dira ia beti, eta borroeroak orduan, hitz goxoekin, egin nahi duten erokeriaz jabeazten ditu. [Karlos Linazasoro](#)

nerabezaro *(orobat nerabe aro g.er.) iz nerabe garaia.*

Baina Hendaiara bizitzera joan eta **nerabezaroan**, gorputza aldatzen hasi zitzaidanean, mugez eta kontraesanez konturatzen hasi nintzen. [Ana Urkiza](#)

Nerabezaroan mutututa egon zen hilabetez, bere gorputzarekin gertatzen zena ulertu ezinik, bere matrailezurra baimenik eskatu gabe hazten ari zelako haserre, bere bizarrarekin, bere azaleko pikor eta gorritasunekin amorratuta. [Harkaitz Cano](#)

Neska batzuk **nerabezaroan** iristen dira beren ederrenera. [Joxean Agirre](#)

Ez dut aise konprenitzen zenbaiten seta, **nerabezaroari** eta gaztaroari giza denboraren garairik anarkiko eta aurreiritzi gabeenak iritzeko. [Aingeru Epaltza](#)

Sufrimenduan bizi bainintzen **nerabezarotik** eta hori gauza normaltzat hartzen bainuen. [Piarres Aintziart](#)

Nerabezarora heldu zenerako nahiko margolari trebea bide zen, zentzurik ortodoxoenean. [Iban Zaldúa](#)

Nik **nerabezaroa** aspaldi utzia nuen atzean. [Jon Muñoz](#)

Narrazio autobiografikoetan, haurtzarora eta **nerabezaroa** berreskuratu zituen. [Berria - Kultura](#)

Elikadura eskasak, ariketa ezak eta estresak eragiten dute zientzialariek **nerabezaro** aurreratua deitu dutena, herrialde garatuetan gertatzen ari den fenomeno. [Berria - Gaiak](#)

Nerabezaro goiztiarretik, bere bizitzako helburua emakumeekiko plazera izan da, eman eta jasotzea. [Xabier Paya](#)

Nerabezaro gorrian bezala, eskuva ohekide nerabileria bildu ninduen loak. [Aingeru Epaltza](#)

Berrogei urteren muga gainditua nuen, bigarren **nerabezaroan** sartzea bezala da hori edo okerrago. [Joxean Agirre](#)

Kaxa batean topatutako idatziekin eta nire **nerabezaroko** oroitzapenekin osatu dut liburua. [Berria - Kultura](#)

nerau *izord ni; ni-ren forma indartua. ik neu.*

Ikuskizunak gogoberritua, **nerau** ere saiatu nintzen gorpuarengana, lurra jotzen ari baitzen jadanik. [Aingeru Epaltza](#)

Jatorri xumekoa zen, **nerau** bezala. [Juan Garzia](#)

Bi agente sekretu bagina bezala, gure neskatoa eta **nerau** liburu-apalategietako baten atzean ezkutatu ginen eta honako elkarrizketa hau entzun genuen. [Oskar Arana](#)

Nahi baduzu, **nerau** joanen naiz Ho_sapera haiek ekartzera. [Fernando Rey](#)

Nerau bederen egia honen lekuko ona naiz. [Askoren artean](#)

Begira, aldikari zikin hori nire lagunaren eskuetan zegoen, baina hamar segundo lehenago nik **neronek** neukan, eta hogeitasei segundo lehenago beste ikasle batek. [Bernardo Atxaga](#)

Hau idazterakoan malkoa ez dut urruti **neronek** ere. [Iñaki Segurola](#)

Guztiek zekiten nire berri, **neronek** baino gehiago. [Hasier Etxeberria](#)

Hori aski ez, ondore hartan, **neronek** eskatu behar izan nituen alde zurretik agindutako aleak. [Patziku Perurena](#)

Baina **neronek** jaso nian, eta hemen daukak. [Txillardegí](#)

Neronek azalduko dut filosofoek gai honetaz zer-nolako iritziak dituzten aipatzean. [Xabier Kintana](#)

Bertze dei bat, **neronek** ez, **neroni** baizik. [Aingeru Epaltza](#)

Neroni ere gertatu zitzaidan ezinago zakar esaldia. [Txillardegí](#)

Neroni ere gertatu zait behin halako bat. [Juan Garzia](#)

Orain **neronen** begiekin ikusten ari nintzen hala zela. [Matías Múgica](#)

Eseri nire seme Salomon **neronen** mandoaren gainean, eta eramazue Gihonera. [Jose Antonio Mujika](#)

Itsaso zabal baztergabeko horretan urturik daude nere arbaso gaxteen eta neure **neronen** begi biak. [Iñaki Segurola](#)

Aipa daitezke, esate baterako, George Beadle eta Edward Tatum-en lanak, Salvatore Luria eta Max Delbrück-enak, [...] Jacques Monod eta **neronenak**. [Juan Garzia](#)

Jainkoaren errukiari eta **neronengan** ikus-ikusiari esker, gaitzesten ditut orain eta gerorako guztian. [Patxi Ezkiaga](#)

Okerrera **neronentzat**, hemen, kanpoan, edozeinek ikusita ere. [Arantxa Iturbe](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nerau ere (4)

izan dut **neronek** (3); **neronek** bakarrik (4); **neronek** bezala (4); **neronek** egina (3); **neronek** eraman nuen (3); **neronek** ere (115); **neronek** ere ez (29); **neronek** ere ezin (3); **neronek** euskaratua (4); **neronek** ikusi nuen (3); **neronek** ikusia (3); **nik neronek** (38); **nik neronek** ere (10)

neroni ere (49); **neroni** ere ez (6); **neroni** ez (4); **neroni** izan (4); **neroni** joango (4); **neroni** nauk (3); **neu neroni** (3); **neu neroni** besterik (3); **ni neroni** (31); **ni neroni** ere (7)

nerbio 1 *iz gorputzaren zatiak burmuinarekin eta bizkar-muinarekin harremanetan ipintzen dituzten zainetako bakoitza. ik kirio.*

Zerbaitek hortz baten **nerbioa** ukitu izan balio bezala. [Lopez de Arana](#)

Ez, lasai egoteko, **nerbioak** izango direla. [Lourdes Oñederra](#)

A ze **nerbioak**, ezta? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Nire ustez, **nerbioetako** gauza da batez ere. [Josu Zabaleta](#)

Inork ez baititu ematen hamar egun bete, ohean sartuta, **nerbioetatik** jota dagoelako soil-soilik. [Mirentxu Larrañaga](#)

Hutsa falta nuen **nerbioetatik** egiteko. [Koro Navarro](#)

Nerbioetako gaixotasunetan espezialista. [Josu Zabaleta](#)

Nerbioak nahasi samar nituela konturatu nintzen eta handik alde egitea erabaki nuen. [Josu Zabaleta](#)

Nerbioak jota amaitu ohi zuen eguna. [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Hermione eta biak zain zeuden, entzuten, **nerbioak** airean zituztela... [Iñaki Mendiguren](#)

Ez din zentzurik **nerbioak** airean bizitzeak. [Lopez de Arana](#)

Nerbioak dantzan, indarrak bildurik, prestatu zen erasorako. [Migel Angel Mintegi](#)

Nerbioetakoa eman zion eta erietxera eraman behar izan zuten. [Berria - Harian](#)

Hasiera batean marihuana bila joan nintzen, **nerbioak** lasaitzeko. [Sonia Gonzalez](#)

Indarrak bildu eta **nerbioak** baretzeko. [Ramon Saizarbitoria](#)

Nerbioei eusten asmatzean datza gakoa. [Berria - Ekonomia](#)

Nerbioen lau harietatik zintzilik zegoen, txotxongilo baten gisan. [Harkaitz Cano](#)

Nerbio -kontuak dira. Mirentxu Larrañaga

Ulertu ezinezko **nerbio** gorabeherak izaten ditu. Josu Zabaleta

Parisa etorri nintzen, hotelera, eta medikuetara joan nintzen nire **nerbio** egoera begiratzen. Josu Zabaleta

Enpresako egiazko postaria, lanean arratsaldean hasten zena, **nerbio** -krisi larri baten atarian zegoen. Joxan Elozegi

-Eraman ezazue hemendik! -oihu eginda, atzerantz erori zen **nerbio** -atake batek jota. Lopez de Arana

Emakumezko irakasle newyorktar bati **nerbio** -atakeak eman zion. Iñaki Zabaleta

Nerbio erasoaldi luze bat eman eta oihuka hastea baizik ez zuen lortu. Josu Zabaleta

Laster konturatu nintzen larritasun sakon bat, **nerbio** asaldura gehiegizko bat gainditzeko eginahal ahul eta hutsaletatik sortua zela koherentzia falta hura. Koro Navarro

Ospitalean zegoen, erotzeko zorian (**nerbio** -porrotaren mugan), eta margotzea, antza, soluzio edo sendaketa modu bat izan zen berarentzat. Xabier Olarra

3 (testuinguru teknikoetan)

Erretina eta **nerbio** optikoa aktiboak zituen, bulkadak hartu eta igortzen zituzten, baina garunak ez zien tankerarik ematen; neurologoen hitzetan, agnosiko zegoen. Xabier Olarra

Gorputzaren diseinuan, ordea, elkarri loturik egon behar dute pieza guztiak odol-hodi, **nerbio** eta beste ehun batzuen bidez. Irene Aldasoro

Mielina, garuneko **nerbioak** estaltzen dituen geruza, zenbat eta ahulagoa izan gaitza garatzeko arriskua are handiagoa dela. Berria - Gaiak

Nerbio bati estimulu jarraitu bat aplikatzen zaionean, erantzuna ez da jarraitua izaten. Irene Aldasoro

Nerbioan datorren bulkada elektriko ahulak azetilkolina askarazten du. Irene Aldasoro

Batzuetan, labirintoa garunera lotzen duten **nerbioak** ebakitzen dira eritasuna tratatzeko. Irene Aldasoro

Azetilkolina desegiten duena kolinesterosa da, **nerbioetan** normalki egoten den substantzia bat. Irene Aldasoro

4 (testuinguru teknikoetan, hitz elkartuen lehen osagai gisa) ik **nerbioso**.

Nerbio -ehunez egina da garuna. Irene Aldasoro

Erretinaren ondoan dauden **nerbio** -zelula, odol-hodi eta beste egitura batzuen itzal iraunkorrek ez dira ikusten. Irene Aldasoro

Ez da ahaztu behar klitoria **nerbio** bukaeraz josita dagoela. Luis Elberdin

Ménière-ren eritasunean nahasturik dago zirkuluerdi formako kanalen eta haien **nerbio** -konexioen funtzionamendua. Irene Aldasoro

Gerra biologikorako ekoizti diren **nerbio** -gas batzuk kolinesterasaren inhibitzaile dira, hau da, kolinesterasari bere eginkizuna betetzea galarazten diote, eta, hartara, **nerbio** -bulkadaren transmisioa erabat oztopatzen. Irene Aldasoro

5 (testuinguru teknikoetan, hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Jakina, sentipen-**nerbioz** inguratutik daude ile-folikulu asko, eta ukimen-organo delikatu bihurtzen ditu horrek ileak. Irene Aldasoro

Zelula argi-sentikorrez eta bestelako ehunez osatutako pila korapilatsu baten azpian dago [erretina], ikusmen-**nerbioaren** zuntzez koraturik. Irene Aldasoro

Sudurreko usaimen-**nerbioen** zelulek erradiazio infragorria igortzen dutela. Irene Aldasoro

6 indarra, kemena.

Hona bigarren **nerbio** dramatikoak, Agustin izeneko agure armairutxoarena, baserria tremendismoaren agertokizat daukatenen morboa aitzakiarik gabe gizenduko duena.

Anjel Lertxundi

Eragitea lortzen badu, motelak izango dira zirrarak eta oso **nerbio** gutxikoak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez dakit zergatik, baina seguru nengoan hartu behar ninduen militarra iharra, garaia, **nerbio** handikoa izango zela. Anjel Lertxundi

Mémée deitzen zioten guztiak amonari amultsuki, oso musugorria zen, bizia, **nerbio** handikoa, eta ozen egiten zuen hitz, eskuei eraginez, emakume italiarren edo espainiarren antzera. Joxan Elozegi

7 **nerbio bulkada** (orobat **nerbiobulkada g. er.**)

Belarriak ere oso antzera jokatzen du: soinuak jaso eta **nerbio-bulkada** bihurtzen ditu garunera bidaltzeko. Gerra biologikorako ekoizti diren nerbio-gas batzuk kolinesterasaren inhibitzaile dira, hau da, kolinesterasari bere eginkizuna betetzea galarazten diote, eta, hartara, **nerbio-bulkadaren** transmisioa erabat oztopatzen. Irene Aldasoro

Usaina detektatzen dutenean, nerbio-seinalea garunera, usaimen-erreboiloko eremu jakin batera, bidaltzen dute, **nerbio bulkada** baten bidez. Berria - Gaiak

Eszitazio sexuala martxan jar dadin, korpuskuluek etenik gabe bidali behar dituzte informazioa eta **nerbio bulkadak**; bestela, eszitazioa jaitsi egiten da. Luis Elberdin

Bulkada kimiko lokalizatu batek jartzen du abian **nerbiobulkada**; bulkada kimikoak zelula-mintzaren irazkortasuna aldatzen du gune batean, eta sodio ioiak (normalean kanpoan eusten zaienak) barrura sartzen dira. Irene Aldasoro

8 **nerbio sistema**

Kokaina efektua egiten ari zen **nerbio sisteman**. Unai Iturriaga

Ezetz erantzun dio doktoreak, oso zaila dela **nerbio-sistemako** tumore batek metastasia sortzea. Imanol Zurutuza

Nerbio-sistema guztia eraikitzen duten adreiluak dira neurona edo nerbio-zelulak. Irene Aldasoro

Nire min hau nire garunaren eta **nerbio-sistemaren** egoera edo gertakari partikular batekin identifikatzen da. Askoren artean

Touretteren sindromeak **nerbio-sistemaren** alde sakonetan eta subkontzientean ditu sustraiak. Xabier Olarra

Hox direlako geneon arabera kokatzen dira ornoak, saihetsak, giharrek, **nerbio-sistema** zentral eta sinpatikoaren egiturak. Juan Garzia

9 **nerbio-tik**

Nerbio-tik bat zuen betidanik begi batean; hari begira egoten nintzen, ezinbestean, elkarrekin ikasgela berean genbiltzan garaian. Mirentxu Larrañaga

Begi batean **nerbio-tik** bat zeukan. Iñaki Mendiguren

10 **nerbio zuntz** (orobat **nerbiozuntz g.er.**)

Noiz eta nolako indarrez uzurtu agintzen duen kontrol-sistema guztia **nerbio-zuntz** mehez osaturik dago. Irene Aldasoro

Haren azpian, gai zuria dago, **nerbio-zuntzezko** masa trinko bat, konexioak egiten dituen bi hemisferioen artean eta garunaren beste atal batzuen artean. Irene Aldasoro

Nerbio-zuntz batek hainbat muskulu-zuntzi eragiten die, eta muskulu-zuntz horiek guztiak batera uzurtzen dira, unitate eragile bakar baten gisa. Irene Aldasoro

Zelularen beste muturra, berriz, garunera doan **nerbiozuntz** batekin konektatzen da. Irene Aldasoro

Giza belarrian, badira 28.000 **nerbio-zuntz** inguru. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nerbio amaierak (4); **nerbio amaierak** (3); **nerbio atake** (5); **nerbio atake bat** (3); **nerbio bukaera** (7); **nerbio bukaerak** (3); **nerbio bukaeraz** (3); **nerbio bukaerak** (3); **nerbio bulkada** (12); **nerbio bulkada bihurtzen** (4); **nerbio sistema** (15); **nerbio sistema zentralean** (3); **nerbio sistemak** (7); **nerbio sistemako** (10); **nerbio sisteman** (6); **nerbio sistemaren** (17); **nerbio zelula** (4); **nerbio zelulak** (4); **nerbio zuntz** (17); **nerbio zuntza** (3)

nerbioak airean (8); **nerbioak baretzeko** (3); **nerbioak dantzan** (3); **nerbioak izango** (3); **nerbioak jota** (10)

nerbioan zehar (3)

nerbioei eustea (3); **nerbioei eusten** (3)

nerbioek jota (3)

nerbioaldi iz nerbio erasoaldia.

Nerbioaldi batek uzurtzen du eta isilarazten dut. Josu Zabaleta

nerbiobulkada ik **nerbio 7**.

nerbiadura *iz* bobeda eta kidekoetan, nerbio egitura.

Itzalak, sabaietako hutsuneetan lokarturik, pilareen basoa ugaltzen zuen, infinituraino luzatzen zituen **nerbiadura** delikatuak, galeria ebakiak, pertsiana gardenak. **Karlos Zabala**

nerbioso 1 izond nerbioarena, nerbioei dagokiena. ik **nerbio 4**.

Tentsioa sumatzen zaio juezari, belarriak tente, halako tik **nerbiosoren** bat. **Berria - Kirola**

Beren zereginarekiko esker txarraren intuizioak, beren gizarte-egoerari atxikitako uzkurduretatik sortzen zen ezinbesteko tentsio **nerbiosoarekin** batera, [...]. **Iñaki Mendiguren**

Idazlea terminal **nerbioso** guztiak oso sentibera dituen izakia da. **Ana Urkiza**

Amaiera **nerbioso** gehiago dauzkagu gure larruazalean gizonaek baino. **Ana Urkiza**

Zibilizazioaren lehen ondorioa sentsibiltate **nerbiosoaren** garapena da, eta sentsibiltate horren harrotze edo bizkorketa gure gaitz nahiz plazerren jatorrian dago. **Bernardo Atxaga**

2 nerbioak airean-edo izateko joera duena. ik urduri; artega.

Izaera **nerbioso** eta mugituak musikan perkusioaren bidea jorratzera eraman zuen Antonio. **Xabier Etxabe**

Sits txiki bat da don Rodrigo, arrea eta **nerbiosoa**. **Unai Elorriaga**

Zibilizazioaren lehen ondorioa sentsibiltate **nerbiosoaren** garapena da, eta sentsibiltate horren harrotze edo bizkorketa gure gaitz nahiz plazerren jatorrian dago. **Bernardo Atxaga**

Bazkalorduan begi eta betileak pausaleku bila, itsasora irten eta ur iluna besterik aurkitu ez zuten tximeletak, gero tristura haragi **nerbiosoaren** konpainia bakar leihoko kontrargian begiratu zaitudanean, eskuak Mafaldaren amantalean igurtziz, delikatu. **Eider Rodriguez**

3 (adizlagun gisa)

Raquel Welchengana hurreratu nintzen orduen, ni ere **nerbioso** bere ule ederra bere kolkoan ikusiz. **Bernardo Atxaga**

Horrek **nerbioso** jarri zuen Matias. **Unai Elorriaga**

Horrela jardun nuen, pixkanaka, poliki eta soseguz bezain **nerbioso**, urduri eta desasosegaturik. **Joxean Sagatzizabal**

Eguzkiak kafe asko hartu izan balitu bezala edo, beste era batera esanda, eguzkia **nerbioso** balego bezala. **Unai Elorriaga**

nerbiostu, nerbios, nerbiosten (*orobat nerbiotu g.er.*) da/du *ad* urduritu, artegatu.

Baina artegatzen ari da; **nerbiosturik**, itzuli eta erdi jauzi bat egiten du -hau kai-geltokia da, ezta? **Jose Angel Irigaray**

Deabruak hartutako aleman txatxu haien asmozioa, eta orduantxe hasten nintzen ni **nerbiosten** eta asaldatzen. **Fernando Rey**

Eta Tomek ez deitzen! Angie **nerbiotzen** ari zen. **Iñaki Zabaleta**

Berri agentzietako ordezkariak, irratilariak, [...] argazkilariak, eta haiekin gure Patxi, jadanik **nerbiostua** bertzeak baino tiraleku hobia bereganatzeko afanetan. **Aingeru Epaltza**

nerbiotsu *iz* urdiria, artega. ik **nerbioso 2**.

Nerbiotsu zirudien. **Iñaki Zabaleta**

Arduraduna bere aulkian mugitu zen **nerbiotsu** hori entzutean. **Iñaki Zabaleta**

nerbiotu ik **nerbiostu**.

nerbiozuntz ik **nerbio 9**.

nerbiziko ik **nirebiziko**.

nerreganatu ik **nireganatu**.

nerrekoikeria ik **nirekoikeria**.

nerremodu ik **niremodu**.

neretu ik **niretu**.

nescafe (*orobat Nescafe eta neskafe*) **1 iz** kafe disolbagarria.

Beti bezala, gurasoenetik **Nescafe**, esne kontzentratua eta hainbat gailleta-pakete neramatzen. **Joseba Urteaga**

2 kikara bat neskafe.

'**Nescafe**' txar bat edan eta gero, atera ziren hotelatik. **Ramuntxo Etxeberri**

3 (hitz elkartuetan)

Goitik behera datoz geure gainera polaroid argazki batzuk, loreontzia, igeltsuzko hontza, **nescafe** ontzia, etxeko giltza eta beste hainbat gauza, ikaragarritzko erorketa,

apurketa eta zalapartarekin. Joseba Sarrionandia
Eta Gregorrek ere sentitu zinan, **Nescafe** pota hutsaren aurreko sentipen hori, ezta? Harkaitz Cano
Justizia, ordena, desordena, Gregor Samsa, **neskafé** pota hutsaren aurreko depresioaldiak. Harkaitz Cano

neska (orobat *nexka*, *g.er.*, *batzuetan adkor.*) 1 iz heldutasunera iritsi ez den emakumezkoa; haur emea. ikneskatxa; neskatila.

Neska asko zen plazan eta denak ohartu ziren kanpotarren artean bazela gazte eder bat, dotorea, luzea, begi berdeak zituena. Gotzon Garate
Beharrianak adin bereko hiruzpalau **neskako** taldea batu zituen uda hartan: bakarra herrikoa bertakoa eta beste biak Madrildik eta Barakaldotik joanak, Maria Antonia bezala. Urtzi Urrutikoeetxea
Neskaren begi beltzek oroitzapenaren kolore mina zuten. Anjel Lertxundi
Neskek aingeru bati bezala begiratzen dizute. Bernardo Atxaga
Bat-batean **neskarengana** jiratu zen, haren begiek erakarri izan balute bezala. Patxi Zubizarreta
Eztia bezain gozoa den **neska** batekin. Patxi Zubizarreta
Bere familiak nobleziako **neska** batekin ezkontzera behartu zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ea **neska** bat ezagutu eta harekin ezkontzen haizen. Bernardo Atxaga
Ixtaber beste **neska** bat kortejatzen hasi zen; baina Pernandok makurkeria bera jokatu zion hauspoarekin. Koro Navarro
Ez dut ezer bazter utziko **neska** gabideratzeko, barneraturik izan ditzakeen irizpide moral faltsu guztiak ateratzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ala gizon zahar hark ezarria zuen **neska** hura esperantzeta? Daniel Landart
Neska filmatu nuen behin. Joxe Austin Arrieta
Neska amerikarra da, gizona Quebecekoa. Edorta Jimenez
-**Neska** guztiz amultsua da. Gotzon Garate
-Sekulako **neska** -Xerealek. Iñaki Iñurrieta
Sendatzen hasia zen **neskaren** harrotasun mindua. Koro Navarro
Hyderabad-en 6.000 rupiagatik 13 urteko **neska** bat inguratu zuen, harekin ezkontzeko. Gotzon Garate
Hauek ez ditun bederatzi urteko **neska** batek ikustekoak! Itxaro Borda
Ene gorteko **nesketan** gehienik preziatzen eta estimatzen dudana da. Aurelia Arkotxa
Nesketan, lehen taldeak irabazi Lasseube herrian 16 eta 11. Herria

2 (deiki gisa)

-Gabon, **neska**! -esan zion Ninik. Xabier Olarra
-Bai, **neska**. Fernando Morillo
-Bai, **neska**, ez da ezer gertatu-eta. Joxemari Iturralde
Isilik egon hadi, **neska**. Pablo Sastre
Zuk, **neska**, itxaron hemen. Mirentxu Larrañaga
-**Neska**, orain ez -eskatu zion gure aitak. Jon Muñoz
-**Neska**, zelako jendetza! Sonia Gonzalez
-Joder, Idoia, **neska**, bagenekien makarra hutsa zinela, baina horrelakoak! Sonia Gonzalez
-Haiek beste garai batzuk ziren, **neska** -erantzun zion amak-. Jon Muñoz
Mutil batzuekin? klaseko lagunekin, **neska**. Fernando Morillo
Ken ezan burutik, **neska**, ez dun-eta amesgaizto bat besterik. Anjel Lertxundi
-Lasai, lasai, **neska** -esan zion marmarka osabak behorri, behorra lasai zegoen arren. Koro Navarro
-**Neska**, telefonoa horrela tratatzen badun, txiki-txiki egingo dun. Antton Olano
-Hastea besterik ez dugu egin, **neska**! Pako Aristi

3 (izenondoekin)

Hamazazpi urteko **neska** euskaldun bat, Francisca Saragueta. Pello Salaburu
Hogeita hamabi urteko **neska** ezkongabe batek haur egin zuen. Gotzon Garate
Nekez sinistuko dugu egia **neska** itsusi baten ahotik, eta erraz asko irentsiko edozer asmakeria **neska** eder batek esan badu. Matias Múgica
Neska galantak -ederrak- dotea aurpegian, zen esaera. Iñaki Segurola
Arropazaindegiko **neska** ilegorria berokiak biltzen ari zen. Lopez de Arana
Eskaileretan neska-talde bat erne zegoen **neska** txiki ilehori batek zer esango. Lopez de Arana
Bekain okertuen azpian begi beltz distiratsuak zituen **neska** musugorri eta ilebeltz bat sartu zen gelan. Lopez de Arana
Neska larri hanka-handi batzuk. Janbattitt Dirassar
Hortzak erakutsiz barre egiten zuen **neska** ile kizkur txiki bat. Lopez de Arana
-Gizonak urde galantak dira **neska** gajookin. Lopez de Arana
-**Neska** tuntun batekin hasi da eta orain nitaz oroitu ere ez da egiten! Aitor Arana
Aitaren esanetan, **neska** gaiztoa nauk. Mirentxu Larrañaga
Badakit **neska** axolagabe askori ez diela batere ardura horrelako jokabideak, baina niri ikaragarria iruditzen zait. Mirentxu Larrañaga
Baina **neska** askonahia duk, ez izan zalantzarik. Patxi Zubizarreta
Cadine, hamasei urterekin, **neska** oldarkorra zen, kaleko buhame beltza, txit grinatsua, txit sentsuala. Karlos Zabala
Bere alaba ote zegoen patriotek su emandako beltzen eskolako **neska** zalapartarien artean. Anton Garikano
Bagenekien denok apaiza elizako sakristian gazte taldeekin biltzen zela, mutil bizardun eta **neska** jeansdun eta kangurudunekin. Juan Kruz Igerabide
International Stores denda handiko goiko leihoan [...] **neska** uniformedun talde bat ageri zen, te katiluak zituztela eskuetan. Koro Navarro
-**Neska** kubatar askok dituzte errusiar izenak. Jon Muñoz
Ederra **neska**!

4 (izenondo elkartuekin)

Neska piano-jolearen leihopetik pasatzerakoan, burua jaso nuen. Anjel Lertxundi
Gure haurretan mutiko gazteak gorrotatzen bazituen, gorrotatzenago **neska** maripertxentak. Aingeru Epaltza

5 (izen baten ezkerrean)

Talentu handiko **neska** aktore batek berebiziko arrakasta lortu du the zinnia girl-en... Lopez de Arana
Neska dantzari tropel bat sartu zen orduan plazara. Karlos Zabala
Ile argiko **neska** zerbitzari batek fruta-mazedoniaren bi errazio ekarri zizkien. Lopez de Arana
Zurezko mahai jantzigabe batean eseri zen, bi **neska** langile eta mekaniko baten aurrez aurre. Irene Aldasoro
Paristar **neska** udatien xarment bat "dragatzen" nuen aldi guziz, nire izenaren jatorria esplikatut behar nion beti. Ramuntxo Etxeberri

Maite **neska** adiskide batekin ari zen dantzan. Gotzon Garate

Ilara bat harantzago, ospitalean injekzioa jarri zion **neska** erizaina ikusi zuen. Joxemari Iturralde

Neska saltzailearen deskribapena egin zion Perrettek. Jon Muñoz

Horra hemeretzi urteko **neska** esklabo bat -bera baino urtebete nagusiagoa- baso ilunetan barrena oinez, urrutiko seme-alabengana bidean. Anton Garikano

Orduan ohartu zen neskamea, bonet zimurtua zuen **neska** mulato bat, gelan sartua zela eta berari so zegoela. Lopez de Arana

Hogeigarreneko hamarkadako modaren arabera apaindutako **neska** lapur gaztea. Lopez de Arana

Garai hartan, bizar eder eta ondo moztua zuen, barre egiten zuen, loreei ardoa botatzen zien [...] eta **neska** buhame eder bati gorte egiten zion. Jose Morales

6 (mutil-ekin batera; ik beherago 16)

Txikitu ditut zurekin gizon eta emakumeak, txikitu zahar eta gazteak, txikitu mutil eta **neskak**. Elizen arteko biblia

Berehala lortu zuen ikuskaritzak onar zezan mutilak eta **neskak** elkartzea, auzoko eskolako bi gelak batu eta adinen arabera bereiztea. Juan Kruz Igerabide

Kontatu nizun plazan mutil guztiak elkarrekin bueltaka ibiltzen zirela, alde batera, eta **neska** guztiak, juxtu beste aldera. Arantxa Iturbe

Han berean zeuden, bai, mutil bat eta **neska** bat, lorategiko bi ezpel hesiren arteko pasabidean. Joan Mari Irigoien

Aupa **neska** ta mutil goazen elgarrekin. Herria

Orduan denak, **neska** eta mutil, hasi ziren barreka. Luis Elberdin

Dedalok, hura [Minotaurora] elikatzeko kargudun, hilerro zazpi mutil eta zazpi **neska** igortzen zizkion, Atenasko hiriak eskainiak. Juan Garzia

Neska edo mutila izan, gauza positiboak transmititzen saiatu behar dugu. Berria - Euskal Herria

Ez dakit mutila edo **neska** izango den, baina erditzeko egunerako ez da gehiegi falta. Patxi Zubizarreta

Demagun mutil batek esan diola **neska** bati telefonoz deituko diola. Mirentxu Larrañaga

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Nor da? -galdetu zuen barrutik **neska** -ahots batek, abokatuari dartada handia eraginez. Lopez de Arana

Hazpegi zehazgabeak zituen **neska** -aurpegi arre batek ziztada bat eragin zion. Lopez de Arana

Neska -bikote osatu berriarena ez zidala berak kondatu, beste idazle emakumezko batek baino. Edorta Jimenez

Eskaileretan **neska** -talde bat erne zegoen neska txiki ilehori batek zer esango. Lopez de Arana

Urte hasieran **neska** -talde hartara mutil berri bat etorri zen, Unai Arratibel. Gotzon Garate

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Hasi nintzen jostun miserable xamar baina inolaz ere kriminal bat ez zen harengana, benetan esklabo-saleroslea edo **neska** -saltzailea izan balitz bezalako gorrotoa hartzen.

Matias Múgica

Esplotatzailea eta **neska** -limurtzailea izanagatik, auzoko jendeak ez zion gorrotorik Victoriori. Josu Zabaleta

Geroago bere buruari gangster eta **neska** -bahitzaile deitu bazion ere. Joxemari Iturralde

9 haur emea. ik mutil 8.

Sei seme-alaba izan zituen erregearekin, hiru **neska** eta hiru mutil. Martin Anso

Neska ala mutikoa, hori, etortzean ikusiko...! Daniel Landart

10 *neskatan* ik mutil 9.

Ez dago beti **neskatan** egiterik, zer egingo zaio ba? Iñaki Segurola

Neskatan, asteburuetako gau haiek ziren **neskatan** egiteko, hasten zen Gabin. Iñaki Iñurrieta

Lan asko egin behar izan nuen Zuzenbidea gainditzeko, eta ez nuen astirik izan **neskatan** ibiltzeko. Lopez de Arana

Tarteka blokeko nagusixeagoekin gelditzen hasi zen, **neskatan** nori nori zer egin zion adi-adi entzuten. Urtzi Urrutikoetxea

Urtebete baino gehiago nuen andrearengandik banandurik eta **neskatan** ez naiz sekula trebe izan. Aingeru Epaltza

Neskatan dohain apartekoa zen gure laguna. Aingeru Epaltza

Hasieran bezala ginen: gizonok edanean, neskek dantzan, Pablo **neskatan**. Joxean Sagatzizabal

11 *neska gazte* (orobat *neskagazte g.er.* eta *nextkagazte*, *batzuetan adkor.*; ik *neskazimur*) gazte emea.

Joan zen, bada, **neska gaztea**, eta ezkutuan iritsi zen Artur erregea zegoen lekura. Juan Kruz Igerabide

Orduantxe bertan **neska gazte** bat azaldu zen zuhaitz baten atzetik. Bernardo Atxaga

Neska gazte bat zegoen etxolako atean bi mutil gazterekin hizketan eta barrez. Irene Aldasoro

Neska gazte ederrenez bete nuen errege kristau baten jauregia. Anjel Lertxundi

Neska gazte dotore bat, dena orbantxo betea aurpegia, sartu zen dendan. Jon Muñoz

Neska gazte birjina bat bilatu behar genizuke, errege jauna. Elizen arteko biblia

Senarra itsasoan duela, sasiko haur bat munduratu izanaren lotsagarrikeria leporatzen dioten **neska gazte** adultero baten oinazeak kontatzen ditu. Anjel Lertxundi

Neska gaztea polita zen, bere neurrian, begiratzen zioten gehienen begien bistara. Mirentxu Larrañaga

Lehenagotik liskarturik omen zeuden [...] arbi mamitsu bat bezain lerdan eta mardula zen **neskagazte** odol-bizi bat zela kausa. Jose Morales

Karrantat igan orduko, han kausitzen dut **neska gazte** aurpegi-argi bat, ilea beltz-beltxa, ene adintsukoa. Janbattiit Dirassar

12 *neska katxarro adkor* neska puska.

Ez zen **neska katxarro** horietako bat, baina bere armak bazituen gorputz txikiari neska eder baten trazak emateko. Llum **neska katxarroa** inork utzi! Unai Iturriaga

Neska katxarroa, aizue. Joxean Sagatzizabal

13 *neska koskor* (orobat *neska kozkor g.er.*, *neska koxkor* eta *neskakoxkor g.er.*)

Buba Nina izeneko **neska koskor** adimenez urri batek. Anjel Lertxundi

Eskutik helduta omen zeudean, eta Sethek **neska koskorra** ematen omen zian haren aldean. Anton Garikano

Bost urteko **neska-koskorrak**. Iñaki Segurola

Urkamenditik gertu, **neska-koskor** talde bat ari zen sokasaltoan. Anjel Lertxundi

Aspaldi, artean **neska koskorra** zela, bere amak behin, Vienako emakume askoren ohitura zen-eta, gasolina bota zuen sukaldeko ikatzetara, sua bizitzeko. Anton Garikano

Neska koxkorrak, bederatzita-hamar urte inguruak; egunero agurtzen ninduten pasatzean. Fernando Rey

Gazteago, indartsuago, **neska koskorretan** bezala, belarretan etzanda lo. Anton Garikano

Neska koskorretan, Karmenen etxeokoei sarritan aipatzen omen zituzten karlistadetako kontu zaharrak, oso bakanetan 36ko gerrari buruzkoak. Anjel Lertxundi

Neska koxkorretan beste hiru ahizpak nirekin pasiera joaten ziren. Gotzon Garate

14 *neska-lagun* (331 *agerraldi*, 47 *liburu* eta 160 *artikulu*; orobat *neskalagun* 169 *agerraldi*, 50 *liburu* eta 25 *artikulu*; *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n *neska-lagun* agertzen da) ik mutil 19.

Anai-arrebak, koinatu-koinatak, ilobak, semea, **neska-laguna** ... Jokin Urain

Ai, **neska lagun** bat banu! Josu Zabaleta

-Behin batean **neska-lagun** bat izan nuen -esaten zion-, garagardo-lata bat edan orduko, bere burua leihotik behera botatzen saiatzeko. Mirentxu Larrañaga

-Non duzu **neska-laguna**? ziu nago ez duzuela bikote polita egiten. Jose Morales

Bai, anaiak presentatu zidalarik bere **neska-laguna**, Heletako Santa Katalina feria gaueko dantzaldian, bihotza saltoka hasi zitzaidan. Daniel Landart

Bere **neska laguna** -ezkondo gabe zeuden, jakina- ume esperoan zegoelako. **Joxerra Garzia**
Arnaren **neska-lagun** Begoñak aurkeztu zuen ihesari buruzko txostena. azkeneko **neska-lagun** iraukorra gradudun-ikasketetako kide bat izan zuen, Linda ez-dakit-zer izeneko bat. **Rafa Egiguren**

Gizonetako batek burdinazko barra batekin jo zituen **neska-lagun** ohia eta haren laguna. **Berria - Euskal Herria**

Bi emazte ditu, edo emazte bat eta **neska-lagun** bat. **Oskar Arana**

-Neska lagun asko al duzu New Yorken? -galdetu zion Catherinek. **Iñaki Zabaleta**

- Parisko moda segitu nahian, larunbat arratsaldetan elkartzten ziren lizeoko **neska-lagunekin** 'Ye-ye' musikaren entzuteko. **Ramuntxo Etxeberri**

15 **neska-motz** (orobat **neskamotz**) *adkor* neska.

Bazen, era berean, benta hartan, Asturias aldeko **neska motz** bat: aurpegi-zabala, lepondo-ordeka, sudur-motza, begi bat oker eta bestea ez oso xuxen. **Patxi Ezkiaga**

Eta jakin behar duk, Santxo, traidore haiek ez zirela nire Dulzinea antzaldatu hutsez ase, baizik eta **neskamotz** itsusi zarpail haren antza eman ziotela. **-Neska motz** ona zegon egina -esan zuen Paul D-k-. **Patxi Ezkiaga**

Jaune, eta ez al dauket halako gustue ematen dian **neska-motz** hau laztantzeik? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

16 **neska-mutiko** (orobat **neskamutiko g.er.**) *pl* neskek eta mutikoak.

Neska-mutiko guztiek erran dut, eta ez, anarteraino Etxeberrinean bezala, mutikoeek soilik. **Aingeru Epaltza**

Gero, Nob apaiz-hirian, ezpataz hil zituen Saulek bertako gizaseme eta emakumeak, **neska-mutiko** eta bularreko haurrak, idi, asto eta ardiak. **Elizen arteko biblia**

Arrasateko ikastolan, zortzi urteko **neska-mutikoen** maisu. **Joxerra Garzia**

Ikastolako gela batean elkartzten ziren Pello Esnal eta Rosa Lertxundi irakasleak, bertsolaritza ezagutu nahi zuten **neska-mutikoeekin** . **Andoni Egaña**

Jakin ahal izan nuenez, modan daude Tetrak **neska-mutikoen** artean. **Iban Zaldúa**

Ezkontza jende gaztearentzat da, umeak izan nahi dituzten **neska-mutikoentzat** . **Oskar Arana**

- 10 leku hirugarren ikastaldirako (uztailaren 23 tik agorriaren 1 ra), 11 urteik 16 urterainoko haurrentzat, **neska-mutiko** , joko mota guziak nahasirik. **Herria**

17 **neska-mutil** *pl* neskek eta mutilak.

-Tira, **neska-mutilak** , azken ahalegina! **Aingeru Epaltza**

Festa-giroan dauden berrogei **neska-mutilek** sortzen duten zalaparta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

OHOKo bigarren mailako gela zen, 7-8 urteko **neska-mutilak** , etxeko giro erdaldunekoak gehien-gehienak. **Joxerra Garzia**

Neska-mutil gazteak larrugorri, euren sasoirik onenean, hilak, buruak odol putzu batean. **Gotzon Garate**

Zahar eta gazte, hor daude kaleetan zehar lurtean etzanik; nire **neska-mutilak** ezpataz jota erori dira. **Elizen arteko biblia**

Bi gazte zetozen, **neska-mutilak** , bikainak, kaskagorriak. **Gotzon Garate**

Eta bertan ito omen ziren maiteminak jotako **neska-mutilak** . **Txillardegi**

Pepponek bazekien **neska-mutilak** elkarrekin zebiltzala, eta familiak kontra zeudelaJulianek **neska-mutilak** zituen; Mikelek, berriz, mutikoa. **Koldo Biguri**

- Banku batean eserita, **neska-mutil** talde bat. **Edorta Jimenez**

18 **neska puska** *adkor*

A zer **neska puska** ! **Lopez de Arana**

Zu bai **neska puska** , soineko horrekin! **Neska puska** ederra... **Lopez de Arana**

Izugarrizko **neska puska** zen. **Koro Navarro**

Trenputxartua, burumindua, **neska puska** baten aitzinean irrigarri gelditua... **Aingeru Epaltza**

Oso pozik daude denak **neska puska** batzuei helduta. **Jokin Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

auzoko neska (8); bi neska gazte (33); gelako neska (7); herriko neska (14); izeneko neska (26); izeneko neska bat (9); mutiko eta neska (9); mutil edo neska (8); mutil eta neska (9)

neska ala mutila (9); neska atsegina (9); neska bahitu (10); neska bat ezagutu (13); neska bat hil (15); neska bat ikusi (11); neska bat sortu (9); neska beltz (8); neska beltzaran (13); neska dantzari (7); neska eder (32); neska eder bat (10); neska ederra (37); neska ederrak (20); neska edo mutil (7); neska eta mutiko (10); neska eta mutil (23); neska eta mutila (7); neska euskaldun (9); neska ezezagun (8); neska gaixoa (8); neska gazte (352); neska gazte bat (92); neska gaztea (88); neska gazteak (112); neska gaztearen (24); neska gazteari (28); neska gazteei (9); neska gazteek (14); neska gazteen (20); neska gaztek (14); neska harrituei (20); neska ilegorria (8); neska ilehori (15); neska ilehoria (8); neska izan (10); neska izango (8); neska jatorra (24); neska koskor (11); neska koskorra (10); neska mutiko (21); neska mutikoak (18); neska mutikoei (11); neska mutikoeek (14); neska mutikoen (16); neska mutil (83); neska mutilak (65); neska mutilei (9); neska mutilek (36); neska mutilen (40); neska mutilen artean (11); neska oso (8); neska pinpirin (7); neska polit (25); neska polit bat (11); neska polita (15); neska politak (12); neska polliit (14); neska puska (12); neska sortu (14); neska talde (16); neska talde bat (9); neska ttipi (28); neska ttipi bat (7); neska txiki (24); neska txiki bat (8); neska txikia (10); neska txikiak (7); neska xarmant (8); neska zerbitzari (8); neska zintzoa (7); neska zuri (8)

nire neska (32); oso neska jatorra (7); urteko neska (131); urteko neska bat (41); urteko neska gazte (15)

erantzun zuen neskek (19); esan zion neskek (22); esan zuen neskek (202); galdetu zion neskek (23); galdetu zuen neskek (12); mutilak eta neskek (7); neskek alde egin (7); neskek begiratu (8); neskek esan (11); neskek eta mutilak (22); neskek irribarre egin (13); urteko neskek (8)

neskarekin hitz egiten (20)

neskaren ahotsa (7); neskaren aita (13); neskaren aitak (20); neskaren amak (7); neskaren aurpegia (8); neskaren aurrean (7); neskaren begi (10); neskaren begiak (7); neskaren bila (8); neskaren bular (7); neskaren eskua (7); neskaren gorputz (9); neskaren gurasoek (7); neskaren izena (16); neskaren ondoan (10)

neskarengana hurbildu (10)

neskari begira (16); neskari begiratu (11)

neskatan egiteko (17)

athleticeko neskek (11)

neskafe ik **nescafe**.

neskagazte ik **neska 11**.

neskaka *adlag*

Gero kostaldeko presoen, ikastolaren edo errefuxiatuen alde muntaturiko dantzaldietara lehiatzen ziren, **neskaka** , usu arrakastarik gabe. **Itxaro Borda**

neskakoxkor ik **neska 13**.

neskalagun ik **neska 14**.

neskalaguntzera (*orobat neska-laguntze*) iz igandeetan, dantza edo erromeria bukatzean, mutil batek neska bati baserrirako bidean laguntzea.

Honek, **neskalaguntzera** joandako mutila harrika hartzeko ohitura ez aspaldiko hura dakar gogora; badirudi Erdi Aroko justiziaren aztarnak dituela. **Patziku Perurena**
Neska-laguntzera joan eta bueltako bidean galdu egin zen gaztearena. **Xabier Etxabe**

neskame 1 iz zerbitzaria, bereziki etxe batean etxeko lanak egiten aritzen dena. ikneskato; mirabe; sehi.

Etxeko enpleguatuak garbitzaile, **neskame**, haur zaindari edo lorezain dituztenei zerga kenkariak egingo zaizkie. **Berria - Ekonomia**

Senarra eta bi zerbitzariak, sukaldaria eta **neskamea**. **Joxemari Urteaga**

Bere **neskameari** "ez nago inorentzat" maiestatzeko bat bota ondoren, bere langelan desagertzen zen. **Josu Zabaleta**

Neskamea kutxan eseri da; joste-lana hartu du. **Monika Etxebarria**

13:00etan bazkaltzen zuen, beti bakarrik -**neskamea** mahaia zerbitzatu eta erretiratu egiten zen-. **Bego Montorio**

Neskamea sukaldean txukuntzen ari da, edo arropa lisatzen, ez da nabarmentzen. **Jon Alonso**

Baina etxeko lanak egiteko **neskame** bat kontratatzeraino ailegatzea... **Jon Arretxe**

Jende asko, batez ere emakumeak: **neskameak**, garbitzaileak, etxekoandreak ere bai, "neronek erosten dut, seguruagoa da-eta" esaten duten horietakoak. **Monika Etxebarria**

Dendako **neskameak** hor lo egingo zuen, eta bosgarren solairuko gela etorri berriarentzat izango zen. **Karlos Zabala**

Beltzez jantzitako **neskame** batek gela zabal, triste, ilun batera sartu zituen. **Josu Zabaleta**

Amona xahar bat, **neskameari** besotik helduta. **Anton Garikano**

Susana atera zen, ohi bezala, bi **neskame** bakarrik lagun zituela, eta parkean bainatzeko gogoia etorri zitzaion. **Elizen arteko biblia**

Gero, Zilpak, Learen **neskameak**, bigarren seme bat eman zion Jakobi. **Elizen arteko biblia**

Labanek bere neskame Bilha eman zion Rakeli **neskametzat**. **Elizen arteko biblia**

Pozik zirudien, Quenu andre ederrari lagunduta; apaizaren **neskameak** beti begirunez aipatzen zuen, auzokideen estimu handia bereganatu duen pertsona bat bezala. **Karlos Zabala**

Haien **neskameak** jai hartzen du igandeetan. **Monika Etxebarria**

2 irud/hed

Eta hartatik dago munduan urrea kakaren **neskame**. **Iñaki Segurola**

3 (izenondo eta izenlagunekin)

Neska hura **neskame** zen behinola landetxe batean, **neskame** adoretsua, prestua eta zuhurra. **Josu Zabaleta**

Neskame maratz bat bidaliko dizut, eta haren azpilanari esker, handik gutxira hilko zara. **Patxi Zubizarreta**

Neskame azal-ilun bat etortzen zitzaion egunero garbitze-lanak eta kafea egitera. **Mirentxu Larrañaga**

Gogoan dut urtebete doi egin nuen ostatu bateko **neskame** bularjoria. **Anjel Lertxundi**

Harenera heldu zirenean, **neskame** xahar batek zabaldu zien atea. **Patxi Zubizarreta**

Emakume harrigarri honen ganberako **neskamea** izan omen zen Marie-Émilie. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Dendako **neskameak** hor lo egingo zuen, eta bosgarren solairuko gela etorri berriarentzat izango zen. **Karlos Zabala**

4 (adizlagun gisa)

Gero **neskame** ibili zen andre gupidagabe batzuen zerbitzuan. **Fernando Rey**

Marie Miarritzen dabil **neskame**, eta asteburuan baizik ez da herriratsen. **Javi Cillero**

Hamar seme-alaba izan eta alabak umetan **neskame** bidali behar izan zituen. emakumearen senarraren bitartekaritza, etxe hartan bertan hartu dute **neskame**. **Arantxa Iturbe**

Ez zitzaion asko kostatu neska leku hartatik atera eta bere etxean **neskame** sartzea. **Jon Muñoz**

Gaztetan zenbait etxetan **neskame** egona zen, harik eta bere azkeneko ugazaba hil eta neskametzari utzi zion arte. **Josu Zabaleta**

5 irud/hed

Senekarentzat, bertutea plazer hutsaren **neskame** ipintzea ere, deus handirik egin ezin duen izpirituaren egintza da. **Patziku Perurena**

6 (morroi-rekin batera; ik beherago 8 eta 9)

Lau horiek bi seme eta bi alaba, beste biak heurre zerbitzurako behar dituan **morroia** eta **neskamea**. **Imanol Zurutuza**

Oihuak eta oihuak entzun baintuen, eta **morroiak** eta **neskameak** ikusi nituen, harat eta honat zihoazela, jauregi aitzinean. **Joan Mari Irigoien**

Nirekin auzitan zebilela, **morroi** nahiz **neskameren** bati eskubidea ukatu badiot, [...]. **Elizen arteko biblia**

Aurrean bi idiak, ondoren bi lapurrak, haien atzetik **morroia**, gero **neskamea** txakurrarekin. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Harridura handiz ikusi zuen erregearen emaztea, hogei **morroi** eta hogei **neskamez** inguratua, jauregitik iriteten. **Patxi Zubizarreta**

Alabaina, Xariarren barrera ezin oso lasai egon, zeren, jauregira itzultitakoan, emazteari, mirabe beltzari, **neskameei** eta **morroiei** lepoa mozteko agindu baitzuen. **Patxi Zubizarreta**

Nire **neskame** eta **morroien** artean berebiziko haserreak pizten ziren egunero. **Josu Zabaleta**

Orduan, nire aitak familia osoa eta **neskameak** eta **morroiak** hartu eta Segurara eroan zituen. **Koldo Izagirre**

Eta, haiekin batera, hogei **neskame** hogei **morroirekin**, denak lizunkeriara emanak. **Patxi Zubizarreta**

Idunekoz apaunduriko **neskameak** edo jaka lodiko **morroiak**. **Jose Morales**

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hamabi urte zituenean "osaba" batek Katmandun **neskame** lana eskaini zion. **Gotzon Garate**

Orain orduka egiten zuen **neskame**-lana. **Fernando Rey**

Luisa eta Violette ez zeuden ohitura jende arruntarekin egotera, eta, saiatzen ziren arren **neskame** izaera hartzen, **neskame** soinekoak hartuta zituzten bezala, errazago sartu zitzaion **neskame** soinekoa **neskame** izaera baino. **Felipe Juaristi**

Biak dantzan, jira eta buelta hasi ziren gizona eta emakumea, pintatzailea eta **neskame** moztaroko kondesa-ordea. **Felipe Juaristi**

Pariseko bosgarren estaietako **neskame**-ganbaretan, ezer ez da sobera. **Janbattitt Dirassar**

Gonak labor eta bernak has ageri zen **neskame** saldo batek inguratu nau. **Koldo Izagirre**

Eta neskame bat ere bazen, egoki eta garbi jantzia -**neskame** fabrika berezi batetik zuzenean ekarria iduri zuen-. **Matías Múgica**

8 morroi-neskame pl morroi eta neskameak.

Venancia neskame egondako lehenengo etxeko etxekoandrea emakume apetatsu, ero bat zen, umore guttiz zitalekoa; seme-alabak, senarra, **morroi-neskameak** jotzen zituen, eta bere lagunak etsaitzea gustatzen zitzaion. **Josu Zabaleta**

Beraz, guztiok geunden maiatz hartan etxean, jauregiko nagusiak eta **morroi-neskameak**... **Joan Mari Irigoien**

Lana zerbait arrunt eta **morroi-neskameei** zegokien gauzatat hartzeko ikuspegi helenikotik aldentze iraultzaile hau ez zen ezarriko San Benediktoren Erregelak ez balu santifikatu izan. **Iñaki Mendiguren**

Zeuen **morroi-neskameak**, zeuen gazterik bikainenak eta astorik hoberenak eramango dizkizue, beraren sailtan lan egin dezaten. **Elizen arteko biblia**

9 neskame-morroi pl neskame eta morroiak.

Lehenago **neskame-morriak** ahaideen artekoak izaten ziren, noizbait berriak izateko lanak egiteko ekarriak. **Gotzon Garate**

Giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain zikinak eta mozkortiak, **neskame-morriek** zergatik lo egiten zuten nahi adina denbora eta esna zeudenean zergatik zeuden beti alferkerian. **Jose Morales**

Oso tratu ona eman zioten Abrami Sarairerengatik, eta ardiak eta behiak, astarrak eta astemeak, **neskame-morriak** eta gameluak eskaini zizkieten oparizat. **Eiizen arteko biblia**

Norbaitek leihotik begiratu balu, han ikusiko litzuke **neskame-morroi** guztiak saltoka. **Jose Morales**

Hala ere, erregearen barrena ezin oso bakean egon, zeren, itzulitakoan, emazte-mirabeak eta **neskame-morriak** hiltzeaz gain, gauero-gauero neskatilla urratugabe bat eskatzen hasi baitzen. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere neskame (5); **etxeko neskame** (3); **gure neskame** (3); **haren neskame** (4); **morroi neskame** (3); **neskame dabiltzan** (3); **neskame gisa** (3); **neskame lana** (3); **neskame lanetan** (5); **neskame lanetan aritzen** (3); **neskame morriak** (10); **neskame zahar** (3); **neskame zaharra** (4); **neskame zegoela** (3); **nire neskame** (6); **zure neskame** (3)

bere neskamea (4); **gure neskamea** (3); **morroia eta neskamea** (3); **neskamea bidali** (3); **neskamea dela** (3); **neskamea eman** (3); **neskamea izan** (3); **neskamea izango** (5)

bere neskameak (3); **dendako neskameak** (3); **etxeko neskameak** (3); **learen neskameak** (4); **morroi neskameak** (10)

morroi neskameei (3)

neskameorde iz neskamearen ordekoa.

Gonbidatuengongelako **neskameordea** zen Molly; eta, Charliek, ehiza-txakurtegia lan egiten zuen, eta baita ukuiluan ere, txakurrak eta zaldiak zaintzen, eta gogoko zuen oso. **Mirentxu Larrañaga**

neskametxo iz adkor

Baserrero giroko neska zintzo ongi hezi bat, obsesioez eta fobiez bete, dukesa bat bezain harro, eta **neskametxo** bat bezala gorriturik. **Koro Navarro**

Uailie-n, apartamentu eder bat alokatu nian, kanilarekin eta elektrizitatearekin, **neskametxo** bat ere banian, eta errespetuz "Bai jauna" esaten zidaan. **Patxi Zubizarreta**

neskametza iz neskamearen lana edo lanbidea.

Lilyk, etkezainaren alabak, egiten zien **neskametza**. **Irene Aldasoro**

Lan egiteko uzten dien aukera bakarra eskupean da, arautu gabeko eremutan, gehienak **neskametzan**. **Berria - Euskal Herria**

El Salvadorren **neskametzan** aritzen diren neskek eguneko 16 ordu lan egiten dute eta hilabetean jaiegun bakarra izaten dute. **Berria - Gaiak**

Zein egoeratan daude **neskametzan** dabilzan emakume atzeritarrik? **Berria - Euskal Herria**

Gaztetan zenbait etxetan neskame egona zen, harik eta bere azkeneko ugazaba hil eta **neskametzari** utzi zion arte. **Josu Zabaleta**

neskamotz ik neska 15.

neskamutiko ik neska 16.

neskanegun ik neskenegun.

neskatasun iz neska denaren nolakotasuna.

Hori aztertu nahiko balu bezala, Egutxik berriro haren kopeta eta masailak begiratu zituen eta, ondoren, masailezurrean hasi eta leporaino luzatzen zen marra **neskatasunez** bete. **Ibon Urribarri**

neskatiko (29 agerraldi, 10 liburutan) iz adkor neskatoa.

Berdin zaigu hiltzaldi bateko mintzaira, egunkarikoak, lagunartekoa edo bost urteko **neskatiko** bati egiten dioguna. **Pello Salaburu**

Emazterik ezean, **neskatikoa** zen, bere 13 urtetan, Garrüzeko etxekoandre. **Aingeru Epaltza**

Niregana bihurtu ziren **neskatikoaren** begi borobil ilunak. **Aingeru Epaltza**

Neskatiko bat zeraman eskutik, juxtu-juxtu ibiltzeko gauza. **Aingeru Epaltza**

Ordea, handik metro batzuetara ikastolako liburuak besapean dituztela zu baino pixka bat gazteago diren mutiko-**neskatiko** batzuk erdaraz entzuten ditugunean bihotza berriz ere bere toki naturalera itzultzen da. **Pello Salaburu**

neskatila (521 agerraldi, 95 liburu eta 56 artikulutan; orobat neskatil g.er. eta neskatilla g.er.) 1 iz neskatoa, neskatxa.

Gure azafata -hogeit bat urteko **neskatila**, ume bat, alegia, itxuraren arabera behintzat-. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zen jada 16 edo 17 urteko **neskatila**. **Juan Luis Zabala**

Oso aspergarria da, hamaika urteko **neskatila** baten arazotxo ergelak entzun behar izatea. **Iñaki Mendiguren**

Zikintzeko beldurrez dagoen sei urteko **neskatila** baten imintzio serioak. **Karlos Zabala**

Haurtzaindegi bereko bi urteko **neskatila** bat hil zelako, ustez hori ere meningitisak jota. **Berria - Euskal Herria**

Batzuk **neskatilak** dira, besteak 30 urtera iritsi ez diren neskatxak. **Gotzon Garate**

Ezkon hitza emana zuen **neskatila** zen orain. **Patxi Zubizarreta**

Kasik oro **neskatila** eta emazte gazteak ziren. **Herria**

Titiak hazi berri zaizkion **neskatila** nerabeak janzen dituenak bezalakoxea. **Jasone Osoro**

Mutil honek **neskatila** ematen du. **Patxi Zubizarreta**

Bost protagonista nagusi hiru mutiko eta bi **neskatila**, bigarren mailako beste hiru pertsonaia. **Berria - Kultura**

Mahaietan bi **neskatila** eta mutil bat eserita, orrialde handitako karpeta eta makina bat boligrafoz inguratutik. **Txillardegui**

Zail da azaltzen, bidegurutze asko dago; **neskatila** bat utziko dizut, bidea erakusteko. **Jose Morales**

Deus ikusi ez duen, deus ez dakien **neskatila** gazte bat seduzitzea. **Jon Muñoz**

Neskatila lo bete-betean dago eta ez da ezertaz jabetzen. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Hamahiru urteko **neskatila** saiatu baten setakeriaz. Eduardo Matauko

Neskatila eder, alai, begi biziko haren aita izateko urguilu sekretu hark. Bego Montorio

-Behin batean, bazen **neskatila** eder bat artzain pobre batekin maitemindurik zegoena. Patxi Zubizarreta

Éowynen ahotsa **neskatila** gazte eta triste batena bihurtu zen. Agustin Otsua

Neskatila xarmangarri honek aingeru baten moduan xurgatu dit... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neskatila garbi eta errugabe asko hil dut, baina Jainkoak Xerazade eman dit opari, bera eta hiru mutil kozkor horiek. Patxi Zubizarreta

Imagina ezazu ogia irabazteko akordeoi tipia jotzen duen **neskatila** itsua. Patziku Perurena

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harrizko **neskatila** -buru bat zen, halakoxe jarreraren jarria, non lo datzan emakume baten aurpegia baitzirudien. Joxe Austin Arrieta

Bere nebari, **neskatila** jantzi mozorrotu eta ile luzeak erantsi zizkieten. Gotzon Garate

Neskatila talde batek kantoia zeharkatu du irratian entzun daitekeen azken arrakasta ozen kantatuz. Sonia Gonzalez

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bizkaiko zenbait herritan neska plazakoa edo plaza-**neskatila** esaten zitzaion [...] plazara, dantzara eta mutil-susmoan hasitako neskarri. Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gaueko neskatila (3); **hamabi urteko neskatila** (3); **neskatila bat hil** (4); **neskatila eder** (4); **neskatila gazte** (6); **neskatila gazte bat** (3); **neskatila polit** (3); **neskatila ttipi** (4); **zortzi urteko neskatila** (4)

neskatilatxo *iz adkor* neskatila.

Haur taldetxo bati diru poxi bat eman ondoren, azkenean hamarren bat urteko **neskatilatxo** poltit bat etorri zitzaidan, arren eta arren, zerbait emateko. Gotzon Garate

Arbolaren ondoan, **neskatilatxoa** bere parketxoan jolasean. Eskarne Mujika

Neskatilatxoak oinutsik eta zangoetako azazkalak pintaturik dabilta. Gotzon Garate

neskatilla ik neskatila.

neskato *(1618 agerraldi, 137 liburu eta 149 artikulutan; orobat nexkato g.er., batzuetan adkor., eta nexkatto g.er., batzuetan adkor.) 1 iz neska; neska gaztea. ik neskatxa; neskatila.*

Hamar bat urteko **neskato** batek ireki zigun atea. Jon Muñoz

Aldaka estuak ditu, hamabi urteko **neskato** batenak bezain. Oskar Arana

Zazpi urteko **neskato** bati bezala eman nion agindua. Bernardo Atxaga

Baso sarritik **neskato** bat azaldu zen, hamalau urte baino ez, beltzarana. Felipe Juaristi

Arduraduna eta bi **neskato** : zortzi-bederatzi urte batek, eta hamaikaren bat-edo besteak. Josu Zabaleta

Egoera horretan, **neskatoen** gaztetasuna eta agurearen zahartasuna aurrez aurre daude, eta **neskatoen** betiko loa dirudienak hurbil duen heriotza iradokiko dio Egutxiri. Ibon Uribarri

Borneon, **neskato** batek hilekoa duenean, hiru egun eta hiru gau ematen ditu bere etxeko teiltuan. Emakume, mutiko eta **neskato** , guztira berrehun mila lagun hartu zizkieten gatibu israeldarrek Judakoei. Monika Etxebarria

Neskatoa zorabiatuta zegoen, eta mutikoaren besoetan zetzan. Julen Gabiria

Mutikoak (eta **neskatoak** ?) bakarrik masturbatzen direla, baina helduz goazen neurrian "umekeria" horiek atzean utzi behar ditugula. Luis Elberdin

Etxeko **neskatoak** mintzaira horren eskolak eman zizkion bere ohantzean. Aingeru Epaltza

Neska aberatsen haurtzarora izan zuen, denboraldiak emanak zituen luxuzko bainuetxe eta hoteletan, eta bainuetxeetan dantza egina zen ia-ia **neskato** bat besterik ez zelarik. Fernando Rey

Gure **neskatoak** ematen du Windsor Gaztelura doala urtebetetze ospakizunen batera. Oskar Arana

Neskatoaren arazatasunari agureen zatartasuna zegokion nolabait. Ibon Uribarri

Bazirudien **neskato** gazteen soinean bazegoela agureen bihotzak heriotzara erakartzeko zituen halako min bat. Ibon Uribarri

2 (izenondoekin)

Lotan hiltzea, adibidez, gau hartako bi **neskato** gazteen artean, ez al zen soin eltzartu batek lor zezakeen azken asebeta? Ibon Uribarri

Larrua **neskato** dirudunen bati txanoa egiteko salduko zuten, agian. Josu Zabaleta

-Arraioa, zu bai **neskato** ausarta! ez zara beldur? Jose Morales

Europako bazter txikituren batera jauzi egingo nuen paraxutaz, gosez hiltzen ari ziren mutiko eta **neskato** galduak salbatzera. Oskar Arana

Etxe horretan, drogen menpe lozorroan dauden **neskato** biluzien ondoan igaroko du gaua. Ibon Uribarri

Ellenek globoen hariak ipini zituen txapel gorriko hiru **neskato** tximino-aurpegidunen esku zikin-itsakorretan. Lopez de Arana

Garai hartan ni **neskato** tentel bat besterik ez nintzen... Lopez de Arana

Zerk bihurtu zuen Ama Birjina **neskato** flakatu batek uestez ikusitako irudia? Bernardo Atxaga

Horregatik bakarrik ezin zen ondorioztatu **neskato** birjinak soilik lokarrarazten zituztela etxe hartan. Ibon Uribarri

Hire ama garai horretan **neskato** begi-umil bat zuan. Juan Garzia

3 haur emea. ik neska 9.

Paolak ere izan zuen, garaitu hartan, **neskato** bat. Fernando Rey

Bere familiatik bizirik segitzen zuen partea bere biloba propioak zirelako, ezagutuko zituen lehenak eta bakarrak: bi mutil eta **neskato** bat, katuka hasia. Anton Garikano

Bostondarrek Hester Prynneri leporatzen zioten sasiko **neskato** bat munduratu izanaren lotsagarrikeria adulteroa, kasu. Anjel Lertxundi

-Jauna, hilik jaio den **neskato** batez. Anjel Lertxundi

4 neskamea.

Preso eramanen artean bazen bat, Katalin Galtzagorritegikoa, Sarara etorri berritan erretoretxean **neskato** hartu zuena. Aingeru Epaltza

Jauregian **neskato** ote zegoen Antsa larru-apantzailearen alaba? Aingeru Epaltza

5 (hitz elkartuetan)

Han ere **neskato** -bularrak. Ibon Uribarri

Nekaturik eta zurbil dauka aurpegia; betazpiak ditu, **neskato** -esku argalak orobat zurbil, baina irribarrea ezpainetan. Jose Morales

-Horri deitzen zioten maizat-uzta, uzta-andregai, edo baita huntz-**neskatoa** ere. Pello Zabala

6 neskato-mutiko iz pl neskato eta mutikoak.

Nebarrebeak, zortzi, hamaika eta mahahiru urteko **neskato-mutikoek**, ez eukien soinurik bat be. Hiriko kaleak **neskato-mutikoz** beteko dira, plazetan jolas eta jolas.

Xabier Amuriza

Habana ontzian bi mila **neskato-mutiko** izan dituk joateko; *Goizeko Izarran* berriz mila emakume. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

gau hartako neskato (3); **lokarrarazi zuten neskato** (4); **mutiko eta neskato** (5)

neskato alaia (3); **neskato bat hil** (4); **neskato bat ikusi** (3); **neskato beltzaran** (4); **neskato beltzaranak** (4); **neskato beltzaranaren** (3); **neskato biluzi** (3); **neskato eder** (6); **neskato eta mutil** (3); **neskato gazte** (15); **neskato gazte baten** (4); **neskato gazteen** (3); **neskato polit** (3); **neskato txiki** (11); **neskato txiki bat** (5); **neskato txikia** (4); **neskato txikiak** (4); **neskato xarmagarri** (3); **neskato zurbilaren** (4)

sei urteko neskato (4); **urteko neskato** (37); **zortzi urteko neskato** (3)

ari zen neskatoa (3); **gau hartako neskatoa** (3); **lokarrarazi zuten neskatoa** (3); **neskatoa hil** (4); **neskatoa izan** (3); **sei urteko neskatoa** (3); **urteko neskatoa** (15)

esan zuten neskatoak (4); **mutikoak eta neskatoak** (3); **neskatoak begiak irekiko** (3); **neskatoak bira egin** (3); **neskatoak eta emaztekiak** (3)

hildako neskatoaren (3)

neskatoaren arnasa (4); **neskatoaren aurpegia** (4); **neskatoaren besoa** (3); **neskatoaren bular** (3); **neskatoaren eskua** (3); **neskatoaren ezpain** (3); **neskatoaren gorputza** (3); **neskatoaren ile** (4); **neskatoaren ilea** (4); **neskatoaren izena** (4); **neskatoaren ondoan** (5); **neskatoaren oroitzapena** (3); **neskatoaren sorbalda** (5)

urteko neskatoaren (3)

neskatoari eman (4)

neskatoek hartzen (3)

neskatoen gaztetasuna (3)

neskatoko *iz adkor* neskatoa.

Bazkariaren alaitzeko musikariak ere izan ziren; Destribat gaztea bere akordeonarekin, kantuz beste mutiko batek eta **neskatoko** batek lagundurik. **Herria**

neskatotxo *iz adkor* neskato txikia.

Loratogietan Serpentinaren zatitxo bat baino ez dago, laster zubi baten azpitik pasatzen baita, urrunera joateko, mutikotxo eta **neskatotxo** bihurtzen diren txori guztiak jaitzen diren irlara. **Julen Gabiria**

Larunbatean bisitan izan zuten lagunetako bat haurdun zegoela eta, «ea Idoia **neskatotxoa** ekartzera animatzen dudana», esana zion lagunari. **Berria - Euskal Herria**

neskatoxe *iz* neskato txikia.

Ikastolako arduraduna barrera abiatu zen, edari freskoen manatzera eta artean sakelatik **neskatoxe** haren argazkia jalgi nuen: M6 telekateko *Hot Form* emankizunaren aurkezle astana baten itxura zuen, lotura izpirik ez noski Euskal Herriko baserrietako emazte beltzaran, pulpios, indartsu eta sanoekin! **Itxaro Borda**

neskatto 1 *iz* neskato txikia.

Esklabu turkoa bailitzan baliatzen zuten, ama urrikalgabeak baimendu Agustinen manuetan ihalozka: urde bazkatzen, ardi zaintzen, [...] lur-sagar ereiten eta nik dakita zenbat zeregin xehetan higatzen zen bederatzi urteko **neskattoa**. **Itxaro Borda**

Egun hartan burumakur egon nintzen, nire ondoan ohatua hamabost urteko **neskatto** bat zegoelako. **Fernando Rey**

2 haur emea. ik neskato 3; neska 9.

Mutikoaren ondotik **neskattoa**, Maider izendatu dutena. **Herria**

Bigarren sortzea izan da Isabelle Ascona eta Laurent Elgart familian, **neskatto** bat hemen ere, Joana izendatu dutena. **Herria**

neskatxa (*1036 agerraldi, 124 liburu eta 65 artikulutan; orobat neskatz g.er., eta nexkatxa g.er., batzuetan adkor.*) 1 *iz* neska gaztea. ik neskato; neskatila; neskato.

1999an, azaroan, zuzenbide ikasten ari zen Samiya Haiquiqui 24 urteko **neskatxa** desagertu egin zen New Yorkeko Queens eskualdean. **Gotzon Garate**

Uttar Pradesheko Mehrana-n, Roshni Jat, 15 urteko **neskatxak** alde egin zuen hogei urteko Brijendra bere maitalearekin. **Gotzon Garate**

Autoan zihoan gizonak 11 urteko **neskatxa** bati autora igotzeko eskatu zion. **Berria - Euskal Herria**

5 urteko **neskatxa** batek. **Pello Salaburu**

Matxinoek zibil andana hil dute, eta emakume zein **neskatxa** ugari bortxatu, horietatik zenbaitek hiru urte baino gutxiago zutelarik. **Berria - Mundua**

Bidelapur baten ibilerak eta harekin maitemindutako **neskatxa** umezurtzaren samina gurutzatzen dira Giuseppe Verdiren *Il Masnadieri* operan. **Berria - Kultura**

Abigail, berehala jaiki, asto gainean jarri eta bost **neskatxa** lagun hartuz, Daviden mandatarien ondoren joan eta Davidekin ezkondu zen. **Elizen arteko biblia**

Neskatxa baten lerdentasuna ez bazuen ere, haragi sendoko emakumea zen, hala gerritik gora nola gerritik behera ere. **Migel Angel Mintegi**

Neskatxa eta emakume asko ikusi genituen segidan, denak ere guztiz ederrak, beren ile txirikordatu, gerruntze gorri eta urdin bikain egindakoekin. **Koldo Izagirre**

Ez da hain urrun eliza katolikoan behar ginuela, guk, emaztek eta **neskatxek**, mantalina eman elizan sartzeko. **Herria**

Bezero hori nahiko aberatsa zen eta **neskatxa** emagaldutegitik atera nahi izan zuen. **Gotzon Garate**

Garai hartan **neskatxa** bat besterik ez nintzen. **Ander Irizar**

Aurreneko senargaiak **neskatxa** zapuztu ondoren, neskaren gurasoek molde tradizionalen ezkontza antolatatu dute beste familia bateko semearekin. **Gotzon Garate**

Gero biak, **neskatxa** eta mutila, printzesa eta mezularia, galdu egin dira, izarrak zeruan galtzen diren bezala. **Felipe Juaristi**

Neskatxak musu eman zion mutilari masailean. **Felipe Juaristi**

Eskuarki, mutilak betazalak jaisten zituen haren aurrean, **neskatxa** baten antzera. **Karlos Zabala**

Nire bizitzan atsegin izan zaidan **neskatxa** bakarra. **Antton Olano**

Ez zegoen Edinburgon eta hurbileko herrietan zaldunik, jauntxorik, kaparerik, langilerik edo nekazaririk, bihotzaren zokoan edo gaueko amets gozoetan **neskatxa** hura gordetzen ez zuenik. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak...

2 (izenondoekin)

Zirraragarriegia, beharbada, **neskatxa** gazte batentzat. Emaztea hartu zuen, Andrea izeneko **neskatxa** gazte bat. **Antton Olano**

Hogei urterekin **neskatxa** ederra omen zen, baina, ederraz gain, beste zenbait dohainek egiten zuten berezi eta miresgarri. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Hogei urte zituen eta **neskatxa** txit polita zen, goxoa. **Gotzon Garate**

Hala ezagutu zituen Eva zazpi urteko **neskatxa** ponpoxa eta Werner, okupazio armada alemaneko kapitain zainarta. **Itxaro Borda**

Neskatxa alaia zen, xaloa, adiskidetsua. **Gotzon Garate**

- **Neskatxa** ezkongai politikak bilatu behar zaizkio erregeari. **Jose Antonio Mujika**

Ume izateari oraindik utzi ez dion **neskatxa** gizen baten usaina zen hangoa. **Karlos Zabala**

Augustinek prest zegoela zioen, barreka, haurtzaroa utzi gabeko **neskatxa** potolo baten gisa. Karlos Zabala

Printze xuri-urdinaren zain luzaz egondako **neskatxa** nancy baten desengainuarena. Iñaki Segurola

Umi, kosmoseko **neskatxa** politena izango zenarentzat, eta Uil, kosmoseko gizonik mardulena izango zenarentzat. Juan Kruz Igerabide

3 (hitz elkartuetan)

Gustuko zuen bere ganbara, **neskatxa** gela hura, non Augustinek gauza txikiak utziak baitzituen han-hemenka, emakume gauza samur bezain txolinak. Karlos Zabala

Lepo argal-argal eta samurra eta **neskatxa** -beso orobat argalak ziren haren adinaren adierazgarri bakarrak. Jose Morales

4 haur emea. ik **neska 9**.

Tradizioaren arabera mundura **neskatxa** ekartzea, zoritxarra ekartzea zen. Gotzon Garate

5 *mutil-neskatxa* *p/* mutilak eta neskatxak.

Aurrera edo atzera, baina mokaduak egin zezala bere bidea! Nolanahi ere, gure herrietako erromeriak ez ziren ahazteko, Abadiñoakoa eta beste bezala: San Blas eta Santa Agedako periak, **mutil-neskatxen** ezaupideak. Pello Zabala

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aughrim go neskatxa (4); **herriko neskatxa** (4); **izeneko neskatxa** (8); **motots kaxkagorridun neskatxa** (3)

neskatxa birjina (7); **neskatxa birjinak** (5); **neskatxa eder** (12); **neskatxa eder bat** (3); **neskatxa ederra** (8); **neskatxa eta herioa** (6); **neskatxa gazte** (17); **neskatxa gazte bat** (3); **neskatxa gazte batentzat** (3); **neskatxa gazteak** (9); **neskatxa hil** (3); **neskatxa maite** (3); **neskatxa polit** (4); **neskatxa pollita** (3); **neskatxa ttipi** (8); **neskatxa ttipi hori** (5)

urteko neskatxa (16); **urteko neskatxa bat** (4)

erantzun zion neskatxak (9); **esan zion neskatxak** (5); **esan zuen neskatxak** (11); **galdegin zion neskatxak** (3)

neskatxari begira (4)

neskatxen soka dantza (3)

neskatxatxo *iz*

Gogora ekarri zuen lo eskaseko ohelagun izan berri zuen **neskatxatxo**. Juan Garzia

neskatxo (*orobat neskatxu*) 1 *iz* neska txikia. ik **neskatxa**.

Andrazko bat agertu zen etxeko ate-postan, sein bat besoetan eta **neskatxo** bat gonari oraturik. Edorta Jimenez

Amak **neskatxo** bat balitz bezala tratatzen nau, eta amorru handia ematen dit horrek. Josu Zabaleta

Neskatxoak, hain bat-bateko aldagetak ustekabeen hartuta, ihesari eta negarrari eman zion. Askoren artean

Haurtzaindegiko emakume bat arduratuko da **neskatxoaz**. Eskarne Mujika

2 (deiki gisa)

-Ondo da, **neskatxo**, ez duzu ba eraztunik izango. Ander Irizar

neskatxu ik **neskatxo**.

neskazahar (*orobat neskazar g.er.*) 1 *iz* gaztaroa igaro eta ezkongai dirauen emakumea. ik **mutxurdin**; **mutlizahar**.

Lehengusu haiek -mutlizahar eta **neskazaharrak** denak-, bazituzten etxeak hiriburutik hurbileko zenbait herritan. Josu Zabaleta

Neskazaharrak, gona beltza jantzita, intsektu orban bitxi bat ipintzen zuen argitasun gordinen erdian. Karlos Zabala

Bagenuen **neskazahar** bik kudeaturiko paper eta liburu denda bat. Koldo Izagirre

Neskazahar itsusi, beltz, kakatua-sudurdun bat zen, loro zaharrak baino urte gehiago zituen. Josu Zabaleta

Neskazahar geratu ditun, eta ondo merezita gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Neskazahar zital horietako bat da, besterik ez. Lopez de Arana

2 (izenondo gisa)

Ahizpa **neskazahar** batekin erdibana. Aingeru Epaltza

Ezin jasan ez amaren galdera arranguratiak [...] ezta izeba **neskazaharren** ateraldi pozoitsuak. Aingeru Epaltza

Lehorak bularrak, atso **neskazaharrak**. Fernando Rey

neskazahartu, neskazahar(tu), neskazahartzen (*orobat neskazartu g.er.*) 1 *da/du ad* neskazahar bihurtu.

Behin **neskazahartuta**, tabernako lanetan laguntzen zion Amari, eta hura hil zenean Mariari. Xabier Etxabe

Ametsetan milaka senargai agertzen, baina egunak eta urteak aurrera eta inoren arrastorik ez; esnatu eta etxeko lanak egiten hasterako denborak ihesi, **neskazahartu** egingo zuen mehatxua hautsetan idatzi ondoren. Pako Aristi

Lotsa ote zen Fubuki, **neskazahartzen** hasia zelako? Joxan Elozegi

2 *neskazahar-hurrendu da ad*

Zertarako engainatu erbesteko mutil bat, eta zertarako engainatu bere burua, urteen ispiluan eta herri guztiaren aurrean **neskazahar** -hurrentzen ari dena? Pako Aristi

neskazale *izond* nesken zalea dena.

Ez, ez dut uste **neskazalea** denik. Xabier Paya

Herman Koopman ere nazkagarri bat da, Jopie de Beer bezala, gonazale eta **neskazale** hutsa berau ere. Josu Zabaleta

Bariatatea aurkitu nahi zuen **neskazaleak** putetara joan beste erremediorik ez zeukala gehienetan. Pako Aristi

Zahar horiek, gaur eguneko **neskazaleei** ere, asko ligatzen dutenei, nahiz eta inoiz putetara joan ez, 'puteroak' deitzen diete. Pako Aristi

Bat bakarrik zegoen irribarrez, mutil sendo bat, **neskazale** eta andre-ehiztari amorratua. Josu Zabaleta

neskazar ik **neskazahar**.

neskazartu ik **neskazahartu**.

neskazimur *iz adkor* emakume adindua. ik **neska 11**.

Parrokoa eta zenbait **neskazimur** gelditu ziren bakarrik aldare aitzinean, Jainkoari otoitzean belaunikatuta. **Koldo Izagirre**

neskenegun *(orobat neskanegun; Euskaltzaindiaren Hiztegian neskenegun agertzen da) iz ipar* larunbata.

Xiberoko laborantxa lizeoaren ate zabaltzea egin da **neskenegun** hontan. **Herria**

«Maule baita» zinema salak errezebitzen du **neskenegun** hunetan, SWING filme berri berria, aurten doi doi eginik izan dena. **Herria**

Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldez, igandea eta **neskaneguna** (larunbata) dituzte laket eta maite: *Igante edo neskanegünian azüzkülük mozten tüzü.* **Pello Zabala**

neskita *iz (baskito-rekin batera)*

Baskitoez eta **neskitaz** jantzi ditugu umeak eta, batzuetan (min ematen du esateak), baita gure buruak ere. **Iban Zaldua**

Lehengo egunean ondo asko emozionatu hintzen ba *Sorginen Laratzean* bota zituzten Nevadako Euskal Jai horren irudiekin, baskitoez eta **neskita** guzti horiekin. **Iban Zaldua**

neskuts *iz* birjina.

-Astiro, astiro... ofizial ipar amerikarrek aise emango dituzte berrogeita hamar libera **neskuts** baten trukean. **Patxi Zubizarreta**

nestorianismo *iz* Nestorioren heresia, Jesu Kristorengan bi pertsona daudela, eta Ama Birjina giza pertsonaren ama baino ez dela aldarrikatzen duena.

Nestorianismoaren eta monofisismoaren kristau-heresia antitetikoentzat. **Iñaki Mendiguren**

Mendebalde erromatar katolikoko misiolariak aurrez aurre ipini baitzituen **nestorianismoaren** Erdialdeko Asiako ordezkariekin eta lamaismoaren Tibeteko ordezkariekin.

Iñaki Mendiguren

Zoroastrismoak, **nestorianismoak**, monofisismoak eta Islamak guztiak jarraitu zioten judaismoaren norabideari. **Iñaki Mendiguren**

nestoriar ik **nestoriotar**.

nestoriotar *(orobat nestoriar) izond/iz* nestorianismoari dagokiona; nestorianismoaren aldekoa.

Nestoriotar uhina altxatu eta erori egin zen, ondoren uhin monofisita etorri zen, eta ondoren uhin musulmana, dena bere aurrean eraman zuena. **Iñaki Mendiguren**

Kristautasunaren sorreraren eta Islamaren sorreraren arteko kristau-heresia antihelenikoez ere emanak zituzten "fosilak" eliza **nestoriotar** eta monofisitaren forman. **Iñaki Mendiguren**

Bere buruari kristautasun propioa emanez heresia **nestoriotar** eta monofisiten eran, baita literatur baliabide propioa ere, hizkuntza siriakoaren eran. **Iñaki Mendiguren**

Grekoen kristau-ikasle **nestoriotarrek**, sirieraz mintzo zirenek, eta **nestoriotarren** ikasle musulmanek, arabieraz mintzo zirenek. **Iñaki Mendiguren**

Bai **nestoriotarren** eta Mendebaldeko kristau katolikoen elizek bai Islamak, baita mahayaniar budismoaren sekta tantriko lamaistak ere. **Iñaki Mendiguren**

Ez, ez naiz Jesu Kristoren iduria lohitzen ari, nahiz eta dogma katolikotik gero eta urrunago sentitzen naizen eta gero eta sozinitarragoa eta **nestoriotar** naizen, nolabait erraitegatik. **Joan Mari Irigoien**

neto *izond* ez dagokiona kendu ondoren gelditzen dena. ik **garbi 2**.

Erradiazio **neto** garbi hau da, baita ere, klimaren beraren egitura, proportzio eta fluktuazioak egin eta mantentzen dituen faktore printzipala. **Pello Zabala**

Abantaila konparatiboaren legeari jarraiki, merkataritzak irabazi **netoa** ekar diezaioke munduari. **Iñaki Heras**

Irabazi **netoa** handitzeak ez du esan nahi, ordea, munduko biztanle eta herrialde guzti-guztiak irabaziko dutenik horrekin. **Iñaki Heras**

Aurrez izan diren teknologia aurrerakuntza gehienek enplegu **netoa** sortu izan duten arren, informazio teknologiek egoera desberdina sortu omen dezakete. **Iñaki Heras**

Ongizate Ekonomiko **Netoa** (OEN), herrialdeen benetako adierazle bat sortzearen aipaturiko faktore negatibo eta positiboak kontuan hartzen dituen adierazlea. **Iñaki Heras**

neu 1 *izord* ni; *ni-ren* forma indartua. ik **nerau**.

Neu naiz Alfa eta Omega, lehena eta azkena, hasiera eta bukaera. **Elizen arteko biblia**

Hori **neu** nintzen, ba. **Joxe Austin Arrieta**

Neu nintzen zaldi hura. **Bernardo Atxaga**

Neu nauzu Jauna zeure Jainkoa, Egiptotik, esklabotzatik, atera zintuena. **Elizen arteko biblia**

-Orduan **neu** joango nauk. **Inazio Mujika Iraola**

Ikus ezazue, ikusi, **neu** naizela Jainkoa -dio Jaunak-. **Askoren artean**

Neu ere izana naiz eklektiko, orain bat bakarren zale naiz. **Josu Zabaleta**

Edaten hasi nintzen **neu** ere. **Anjel Lertxundi**

Alabaina, lan gogor hark **neu** ere gogortu egin ninduen, zaildu. **Juan Kruz Igerabide**

Ni **neu** ere harrিতa nengo. **Joxe Austin Arrieta**

Patatak jan eta jan, **neu** ere. **Jasone Osoro**

Ni **neu** urteik urtera zaharrago naizen arren, ikasleak ez baitira behin ere zahartzen. **Joxerra Garzia**

Nire beharrea zeuden etxeak, ala ni **neu** nintzen etxearen babespean eroso eta seguru nengoena? **Juan Kruz Igerabide**

Ni **neu** ere iritzi horretakoa nintzen. **Joxean Agirre**

Eta horregatik idatziko zuen euskaraz, ni **neu** ere ez konprometitzeko. **Bernardo Atxaga**

Eta horra hor Esau, **neu** bezalakoxe babalorre trakets bat. **Oskar Arana**

2 (nork kasuan)

Neuk zaindu nion esku-poltsa. [Joxe Austin Arrieta](#)

Neuk izan behar dut nire ama. [Josu Zabaleta](#)

Nik **neuk** nire borondatez maite dudan eta maite nauen gizakiarekin sofritu nahi badut, ez ote dut atsegin eta eskubide handiagoz Jainkoarekin sofrituko, niri didan maitasunagatik Jainkoak sofritzen badu? [Joan Mari Lekuona](#)

Neuk hartu nitzizun botila ardoak eta **neuk** ordainduko dizkizut. [Unai Iturriaga](#)

Neuk diotsut beldur izan nuela, **neuk**. [Josu Zabaleta](#)

Itzulpena **neuk** egin behar izan nuen, Herbertek espainiarrik ulertzen ez-eta. [Joxe Austin Arrieta](#)

Baina **neuk** ere esan nezake hori. [Josu Zabaleta](#)

Neuk ere izango nukeen akaso zer esanik beste egoera batean, baina orduko hartan Goizedarren hitzak poeta handi batenak iruditu zitzaizkidan. [Juan Luis Zabala](#)

-Ez dakit **neuk** ere. [Unai Iturriaga](#)

Nik **neuk** ez dakit non daukadan burua. [Josu Zabaleta](#)

Baina nik **neuk** bederen ez nuen halakorik inoiz ikusi. [Txillardeggi](#)

Badakit hori kantatzen ari garelarik Big Joe eta etxeokoa dituela gogoan, nik **neuk** bezala. [Mirentxu Larrañaga](#)

Nik **neuk** ere ez dakit. [Iñaki Mendiguren](#)

Gauza bera egin dut nik **neuk** ere. [Anjel Lertxundi](#)

3 (nori kasuan)

-Bai, ez al zenidan **neuri** esan ziur zenekiela zer zegoen barruan? [Iñaki Mendiguren](#)

Zu lasai, itxita edukiko dugu gaurkoz, bost axola **neuri**. [Josu Landa](#)

Beste guztiei agertu ondoren, **neuri** ere agertu zitzaidan, garaiz kanpo jaiotako haurra bezalakoa naizen honi. [Elizen arteko biblia](#)

Ez, zuzen zabilta, **neuri** ere ez dit inporta! [Sonia Gonzalez](#)

Antzeko kontu bat gertatu zitzaidan niri **neuri** ere aspaldi ez dela. [Koldo Zuazo](#)

Une honetan ere, kamioia hondarrez mukurru daukat, hau niri **neuri** dagokit, ni neu naiz kamioia, eta nik neuk sortuak dira gainean dauzkadan hondar tonak. [Juan Kruz Igerabide](#)

3 (noren kasuan) ik **neure**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bedeinka nazazu neu (4); **hasi nintzen neu** (5)

neu arduratu nintzen (5); **neu arduratuko naiz** (16); **neu bainaiz** (8); **neu bainintzen** (8); **neu bakarrik** (32); **neu be** (5); **neu behintzat** (5); **neu bere** (8); **neu bezala** (12); **neu bezalaxe** (8); **neu ere** (415); **neu ere bai** (12); **neu ere ez** (32); **neu ere horrela** (4); **neu ere joango** (4); **neu ere pozik** (4); **neu ez nago** (4); **neu ez naiz** (12); **neu izan bainintzen** (4); **neu izan ezik** (4); **neu izan gabe** (4); **neu izan naiz** (10); **neu izan ninduan** (4); **neu izan nintzela** (6); **neu izan nintzen** (20); **neu izango naiz** (15); **neu izango nauzu** (4); **neu izango nintzela** (5); **neu izango nintzen** (4); **neu izatea** (6); **neu izateko** (7); **neu joango naiz** (12); **neu naiz jauna** (67); **neu naiz lehena** (4); **neu naizela** (26); **neu onartzen nau** (6)

ni neu (558); **ni neu baino** (5); **ni neu behintzat** (4); **ni neu bezala** (5); **ni neu bezalaxe** (6); **ni neu ere** (118); **ni neu izan** (12); **ni neu izango** (7); **ni neu izaten** (4); **ni neu joango** (6); **ni neu naiz** (8); **ni neu naizela** (4); **ni neu nintzela** (4); **ni neu nintzen** (5)

agian neuk ere (4); **baina neuk ere** (7); **baina nik neuk** (7); **baita neuk ere** (10); **egin nuen neuk** (4); **eta neuk ere** (36); **eta nik neuk** (64); **ezta neuk ere** (9)

neuk baino (12); **neuk bakarrik** (35); **neuk be** (14); **neuk behintzat** (11); **neuk bezala** (9); **neuk egin dut** (9); **neuk egin nion** (5); **neuk egin nuen** (5); **neuk egina** (5); **neuk egingo dut** (7); **neuk emango dizuet** (4); **neuk erabakiko dut** (4); **neuk erakutsiko dizut** (7); **neuk ere** (500); **neuk ere badut** (5); **neuk ere bai** (11); **neuk ere beste** (5); **neuk ere ez** (75); **neuk ere ezin** (10); **neuk ere halaxe** (5); **neuk ere horixe** (4); **neuk ere ikusi** (6); **neuk ere neure** (6); **neuk esango dizut** (9); **neuk hartu nuen** (6); **neuk ikusi nuen** (7); **neuk uste dut** (4); **nik neuk** (565); **nik neuk baino** (4); **nik neuk behintzat** (9); **nik neuk ere** (111)

neuri egin zenidaten (5); **neuri ere** (79); **neuri ere ez** (7)

neumatiko ik **pneumatiko**.

neumokoziko ik **pneukoziko**.

neumologo ik **pneumologo**.

neumonia ik **pneumonia**.

neumoniko ik **pneumoniko**.

neumonologia ik **pneumologia**.

neumozistis ik **pneumozistis**.

neura *iz adkor* neurastenia.

Egia da ez naizela ni bereziki orekatua: baditut neure **neurak**, antsioso naiz oso, filia hainbat fobia ditut... baina horiek guztiak, sinetsiezadazue, ez datozkit izenetik.

[Joxerra Garzia](#)

Egia da ez naizela ni bereziki orekatua: baditut neure **neurak**, antsioso naiz oso, filia hainbat fobia ditut... baina horiek guztiak, sinetsiezadazue, ez datozkit izenetik.

[Joxerra Garzia](#)

Ez du hori beste sententurik, ez hori beste poesiarik, ez hori beste neuririk eta **neurarik** gure gogoak, gure munduko izateari bere guztizko zentzua ematerakoan. [Patziku](#)

[Perurena](#)

neural *1 iz* nerbioei eta nerbio sistemari dagokiona.

Haren ikusmena, hain bazterrekoa zen, hain muga-mugakoa, non pentsa baitzitekeen gehiegizko zama **neuralak** edo identitate-talkak areago bultzatzen zuela

itsutasunerantz. [Xabier Olarra](#)

Izaera edo portaera bereganatzeko egintza bat ikusten dugu (nahiz eta termino psikiko eta **neuraletan** definitu beharra dagoen), zeinaren bitartez beste nortasun baten

trebetasunak, sentipenak, engrama **neural** osoak, zerebroan nagusitama baitira eta pertsona bat, haren nerbio-sistema osoa, berrimoldatzen baita, emanaldiak irauten duen bitartean. **Xabier Olarra**

2 (izenondo elkartuetan)

Gaur egun ez dugu tresna egokirik goi mailan eragina duten halako galera sentsorial-**neuralen** ondorio sotilak anatomikoki adierazteko. **Xabier Olarra**

neuralgia 1 iz

Neuralgia bortitzez jota nengoela probatu dut nik erremedio hori, eta geroztik gehiegitxo erabili izan dut beharbada. **Josu Zabaleta**

2 irud/hed

Egiaren alergiak, eta nagia **neuralgiak** **Iñaki Arranz**

neuralgiko 1 iz neuralgiarena, neuralgiari dagokiona.

Erreflexu bat baino ez da, baina izugarri atsegina; plazera larruzaletik burmuineko gune **neuralgikoraino** doa. **Luis Elberdin**

2 giltzarria dena.

Rafael Moneok diseinaturiko kuboen bosgarren urteurrena ospatzeko, hamazazpi emanaldi egingo dira hiriburuko hamaika tokitan; toki **neuralgikoa** Kursaal izango da.

Berria - Kultura

Isats-pianoa gure gelako zentro **neuralgiko** garrantzitsua da. **Harkaitz Cano**

neurastenia iz nerbio eritasuna, abaildurak eta tristeziak ezaugarritzen dutena.

Itzalaren... malenkoniaren... **neurasteniaren** ... bailaran. **Lopez de Arana**

neurasteniko izond neurasteniak joa.

Blancheren ahots eta keinuetan pertsona **neurastenikoetan** baino ezin suma daitekeen nekea nabari da. **Xabier Paya**

Maniako, depresibo, **neurasteniko**, paranoiko, eskizofreniko eta egoista batekin ezin dirau: banoa. **Itxaro Borda**

· Ardia ñapurra izateaz gain, arras **neurastenikoa** ere bazela frogatzea. **Itxaro Borda**

neurvide iz neurtzeko bidea.

Bera ere hasi zen aurki dirua txorakerietan barreiatzen, emakumeek beren senarren, beren maitaleen dirua xahutzeko izaten duten grina erotu horrekin, haiekin gastatzen den dirua haienganako amodioaren **neurvidea** balitz bezala. **Matias Múgica**

neure nire-ek -hots, ni izenordainaren genitiboak-, perpauseko *nor*, *nori* edo *nork* osagaiari dagokionean har dezakeen era; *nire*-ren indargarria. ik **neu**.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

badut neure (11); **bainuen neure** (21); **baitut neure** (15); **dagit neure biziarengatik** (16); **daukat neure** (20); **daukat neure burua** (10); **diat neure** (20); **diet neure** (14); **dinat neure** (10); **diot neure** (176); **diot neure buruari** (135); **ditut neure** (58); **dizkiot neure** (14); **dizkiot neure buruari** (10); **dizut neure** (15); **dudala neure** (14); **dudan neure** (15); **dut neure** (389); **dut neure artean** (19); **dut neure baitan** (9); **dut neure burua** (142); **dut nik neure** (10)

egin nion neure (31); **egin nuen neure** (54); **egiten diot neure** (12); **egiten nuen neure** (12); **eman nion neure** (14); **erran nion neure** (12); **esan nion neure** (75); **esan nuen neure** (38); **esaten diot neure** (12); **esaten nion neure** (25); **ez diot neure** (11); **ez dut neure** (55); **ez naiz neure** (14); **ez nintzen neure** (10); **ez nion neure** (15); **ez nuen neure** (24); **ezta neure** (12); **galdetu diot neure** (17); **galdetu nion neure** (34); **galdetzen diot neure** (42); **galdetzen nion neure** (38); **hasi nintzen neure** (17)

ikusit dut neure (19); **ikusit nuen neure** (48); **ikusten dut neure** (32); **ikusten nuen neure** (21); **izan diot neure** (9); **izan dut neure** (12); **izan nuen neure** (13); **nago neure** (9); **naiz neure** (76); **nau neure** (14); **nengoen neure** (18); **neukan neure** (14)

neure adiskide (9); **neure aita** (18); **neure aitaren** (23); **neure alaba** (16); **neure alde** (23); **neure aldetik** (29); **neure ama** (11); **neure amaren** (15); **neure anaia** (20); **neure arimaren** (12); **neure artean** (307); **neure artean pentsatu** (13); **neure aurrean** (43); **neure azken** (13)

neure baitako (15); **neure baitan** (213); **neure baitara** (27); **neure baitarako** (15); **neure baitaren** (14); **neure baitatik** (16); **neure barne** (14); **neure barnean** (9); **neure barrena** (9); **neure barruan** (25); **neure begi** (11); **neure begiekin** (11); **neure begien** (18); **neure begien aurrean** (13); **neure begiez** (22); **neure begiez ikusi** (11); **neure begiokin** (9); **neure begiz** (24); **neure besoetan** (10); **neure bidea** (13); **neure bihotza** (11); **neure bihotzaren** (14); **neure bihotzeko** (10); **neure bizia** (18); **neure biziarengatik** (19); **neure bizitza** (41); **neure bizitzako** (25); **neure bizitzan** (24); **neure bizitzaren** (20); **neure borondatez** (10)

neure buru (19); **neure burua** (1139); **neure burua engainatzen** (10); **neure burua ikusi** (11); **neure burua ikusten** (12); **neure burua zurituz** (9); **neure buruan** (32); **neure buruarekiko** (15); **neure buruarekin** (119); **neure buruaren** (138); **neure buruaren jabe** (37); **neure buruaren kontra** (11); **neure buruari** (1042); **neure buruari egiten** (10); **neure buruari esan** (20); **neure buruari esaten** (23); **neure buruari galdetu** (23); **neure buruari galdetzen** (48); **neure buruari galdezka** (14); **neure buruaz** (124); **neure buruaz beste** (31)

neure denbora (14); **neure denboran** (12)

neure eder (9); **neure egin** (14); **neure egiten** (13); **neure egoera** (11); **neure emazte** (11); **neure emaztea** (11); **neure errua** (20); **neure esku** (41); **neure eskuz** (23); **neure esperientzia** (9); **neure espiritua** (11); **neure etxea** (9); **neure etxean** (33); **neure etxera** (15); **neure gain** (47); **neure gainean** (10); **neure gelako** (9); **neure gelan** (17); **neure gelara** (20); **neure gogara** (17); **neure gogoa** (10); **neure gogoz** (10); **neure golkorako** (10); **neure gorputz** (18); **neure gorputza** (11); **neure haserre** (9); **neure heriotza** (9); **neure herri** (13); **neure herria** (22); **neure herrian** (10); **neure herriaren** (13); **neure hitza** (14); **neure hitzak** (9)

neure indar (12); **neure inguruan** (15); **neure iritzia** (12); **neure izen** (10); **neure izena** (16); **neure kabuz** (59); **neure kasa** (38); **neure kantuan** (10); **neure kolkorako** (42); **neure kontu** (9); **neure kontura** (20); **neure kontzientziaren** (9); **neure lana** (14); **neure lehen** (26); **neure ondoan** (27); **neure onera** (38); **neure onera etorri** (13)

neure onetik (51); **neure onetik atera** (9); **neure onetik ateratzen** (28); **neure seme** (32); **neure semea** (19); **neure semeari** (9); **neure sumina** (12)

neure zerbitzari (17)

ni neure (69); **nian neure** (21); **nik ere neure** (20); **nik neure** (266); **nik neure artean** (23); **nik neure burua** (32); **nik neure buruari** (21); **ninan neure** (10); **nintzaion neure** (9); **nintzen neure** (101); **nintzen neure burua** (10); **nioan neure** (14); **nioan neure buruari** (13); **nioen neure** (18); **nioen neure artean** (9); **nioke neure** (15); **nioke neure buruari** (9); **nion neure** (350); **nion neure buruari** (289); **nituen neure** (64); **nizkion neure** (11); **non neure** (9); **nuela neure** (28); **nuen neure** (535); **nuen neure artean** (101); **nuen neure baitan** (39); **nuen neure burua** (183); **nuen nik neure** (12); **nuke neure** (26)

orain neure (23); **orduane neure** (22); **pentsatu nuen neure** (35); **sentituz nuen neure** (13)

zait neure (11); **zaitut neure** (9); **zen neure** (24); **zidan neure** (16); **zidagit neure** (16); **zitzaidan neure** (15); **zuen neure** (12)

neureganatu, neuregana(tu), neureganatzen (*96 agerraldi*, *51 liburu eta 7 artikulutan*) du *ad* neuregana ekarri, neure bihurtu. ik **nireganatu**.

Metalezko paretaren bermea utzi nuen, botila **neureganatzeko** asmoz. **Aingeru Epaltza**

Mutil hura kosta ahala kosta **neureganatu** behar nuen. **Aitor Arana**

Oraingoan bai, **neureganatuko** dut senarra, hiru seme eman baitzitkiot. **Elizen arteko biblia**

Ezgauza nintzela pentsatu nuen halako emakumea **neureganatzeko**. **Hasier Etxeberria**

Sikem hiria poz-positik **neureganatuko** dut, -Seguru nagok gauza anitz dauzkaala, **neureganatu** nahiko nituzkeenak... Sukot haranaz jabetuko. Alberto Ladrón Arana
Alemanentzako italerazko gramatikan nekez **neureganatzen** nituen esaldiak zeuden. Fernando Rey
Banekien argibidea ez zela zuzena, baina hitzak falta zitzaizkidan, hitz egokiak, arazoibidea, dotorezia, jendearen arreta **neureganatzeko**. Anjel Lertxundi
Tonu serioagoa **neureganatu** eta altxatu behar genuen eraikuntza intelektual eder bezain sendoaren lehen esaldia ipintzeari ekin nion. Bernardo Atxaga
Ezin garaituzkoa nintzelako omena **neureganatzea** izan zen nire lehen ardura. goitik behera irensten bainuen aldizkaria, hizkuntzaren sekretuak argitu eta **neureganatu** nahian. Jon Muñoz
Nola jarriko nuen hitzetan artean **neureganatu** gabe neukana? Anjel Lertxundi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
arreta neureganatzeko (3)

neurekoi *izond* singularreko lehen pertsonan mintzatzen denak bere nahi edo interesari soilik begiraturik jokatzeko duela adierazteko erabiltzen duen izenondoa. ik **nirekoi**.

Neurekoi hutsa naizela? Lopez de Arana

Jelosiaren zastada sentitu nuen, baina oso **neurekoia** izango nintzela pentsatu nuen, nik jada gozatutakoa ukatzen banion. Juan Martín Elexpuru

Ezin nuen besterik egin, nire baitan sentitzen nuen arabera jokatu dut osoki, jokabide **neurekoi** batean agian, baina lasaitasuna izateko lagungarri izango zitzaidan moduan betiere. Josu Zabaleta

neurekoikeria *iz* singularreko lehen pertsonan mintzatzen denaren berekoikeria.

Nik nahiago nikek hemen geratuko bahintz, baina hori ere **neurekoikeria** izanen lukek, ezta? Joan Mari Irigoien

Hala aritu ziren puska batean eztabaidan: aitak nire **neurekoikeria** eta nire "lantxoak" defendatuz, eta Dussel marmar batean denbora guztian. Josu Zabaleta

Neurekoikeria galanta zorion hori batzuentzat, ohartzen naiz, aspaldiko ametsen truke eskuratua. Xabier Montoia

Neurekoikeriaz ari naiz: sudurluzeok susmagarriago izango gara beti ariar arrazako poxpolinak baino. Joxerra Garzia

neurekoitasuna *iz* singularreko lehen pertsonan mintzatzen denaren berekoitasuna.

Asmo horren ahazteak arrazoi asko izango zituen: batetik, noski, nagikeria, erosokeria, neurekoikeria (edo ezaugarri horietatik atzizkiaren kutsu ezkorrik gabe: nagitasuna, erosotasuna, **neurekoitasuna**). Xabier Mendiguren Elizegi

neuretu, *neure(tu)*, *neuretzen* (**14 agerraldi**, **5 liburutan**) du *ad* neure bihurtu. ik **niretu**.

Halatan, **neuretu** ditudan emakume guztien artean, hura da gaitzerratea zinez atsegin dudana bakarra. Jon Muñoz

Edertasuna **neuretu** beharra nuen berriro, Honoré etxera zenerako. Joxan Elozegi

Haren baimenaren esperoan egon gabe **neuretu** nuen mahaiaren aitzinean zegoen kadira hutsa. Aingeru Epaltza

Haren ondoan geratzen naiz, suhar, sukarretan, torturaturik, badakidalako heriotza hurbil duela, eta ihartzen ari dela ikusiz, nik **neuretzen** dudalarik, bere bizi laburra adieraz ezinezko fereka batean arnasten, edaten, biltzen dudana bitartean. Josu Zabaleta

Ez ditut zure penak leunduko, **neuretuko** ditut ordea. Jon Muñoz

neurezko *izond* neure kabuzkoa.

Luze gabe partidak bertatik bertara ikusteko irrika **neurezko** uzkurtasun eta lotsari nagusitu zitzairen. Alberto Ladrón Arana

Neure barren-barrenean, **neurezkoenean**, oraindik bizirik jarraitzen zuen umetako amets zaharrak. Eduardo Matauko

Ez nintzen ausartzen, ez bakarrik herabetasun eta konfiantza falta hain **neurezkoengatik**, baizik eta, orobat, Ritak oztopoak jartzen zizkielako harremani, batek jakin zergatik. Juan Garzia

Eta ez ei da zori hutsezko errore bat izan, baizik eta neure-**neurezkoa** omen dudana (--?) errore bat, neure lanbidea bezalakoxea, neure bizi osoa bezalakoxea, bestalde. Joxe Austin Arrieta

neurgai *iz* neurtzeko gaia.

Mugimendua ez ezik egona ere alditan neurtzen dugu eta hau esaten: "geldi egon adina mugitu da" edota "mugitu baino bi edo hiru aldiz gehiago egon da geldi" eta esan ohi denez, eta berdin gertatzen, gure **neurgai** ulertu edo taxutu dezan beste edozerekin, gutxi gorabehera. Imanol Unzurrunzaga

neurgailu 1 *iz* neurtzeko gailua. ik **neurgarri**.

Neurgailu bati elkarturiko zelula fotoelektriko txiki bat da esposimetroa. Irene Aldasoro

Bazuen tartetxorik **neurgailu** berriak asmatzeko: mikrobarometroa moldatu zuen, baita plubiometro modelo itxuroso bat ere, besteak beste. Pello Zabala

Bostak inguruan beste lurrikara bat atzeman zuten **neurgailuek**, 3,1 gradukoa. Berria - Euskal Herria

Martxoaren 15ean Jaurilarizaren **neurgailuak** 227 eta 228 mikrogramo sufre dioxido neurtu zituen metro kuboko, legeak ezarritako mugatik gertu. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezkerraldera makurtu eta begiratu nionean erregai-**neurgailuari**, tankea zortziren bateraino beterik zela erakusten zuen. Oskar Arana

Abiadura **neurgailuak**, prest. Berria - Kirola

Eguzkia zulatzen hasia zen argi-**neurgailua** zuhaitzen norabidean jarri zuenean. Joxemari Urteaga

Ke **neurgailuen** heina igo behar izan dute erretzaile baten keaz ez dadin martxan jarri. Berria - Harian

Huts-**neurgailuaren** orratza, hantxe zeroan zut-zut egona, gainbeheran hasi zen, ezkererantz lerratuz. Juan Garzia

3 irud/hed

«Ziurgabetasuna» nagusi da, enpresaburuen irudiko, aldagai eta **neurgailu** ekonomikoek ez dutelako aurrera egiten. Berria - Ekonomia

Ibex 35 **neurgailuak** %10 eta %15 bitarteko igoera izatea espero dute. Berria - Ekonomia

Datua oso larritzat jotzen dute zientzialariek, apoak, igelak eta arrabioen familiako animaliak ingurumenaren kalitatearen **neurgailuak** direlako. Berria - Gaiak

Egun onak eta txarrak bereizteko horixe baino **neurgailu** hoberik ez du bertsoariarik. Andoni Egaña

Isiltasuna infinitua baita, eta ez du onartzen, musikak bezala, zentzumenen **neurgailurik**. Felipe Juaristi

Gazteekiko interes hori, beraz, izan daiteke **neurgailu** ona. Berria - Kultura

Elur pilotetan bezala, hemen ere askotarikoak izan daitezke aldaerak, **neurgailua** non ezartzen dugun: hitzetako letrez eta silabez gain, esaldietako hitzen kopurua, paragrafoen lerroena, liburu atal bakoitzeko paragrafoena... **Iñaki Arranz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neurgailua hutsean jartzeko (3)

neurgaitz *izond* neurtzen zaila dena, ia neurtezina.

Aldur, aurkako edo erdibideko, denek onartuko dute aho batez bertsoa gauza subjektiboa dela, **neurgaitza** onenera; neurtezina ia beti. **Andoni Egaña**

Jainkoak daki zer kopuru **neurgaitzeraino** ez zen haziko dirutza eder hura infernuko piztia tartean sartu izan ez balitz. **Jose Morales**

Denbora puska **neurgaitz** batez, munduaren atzemaile abstraktutzat jo nuen neure burua. **Juan Garzia**

Gure belaualdiak galera **neurgaitzak** ikusi ditu: kristautasuna moralismo motz bihurtu zitzaiguneko; utopia sozialistak kapitalismo hutsak garaitu zitueneko; nazionalismoak Aranaren kultura eta terrorismoaren suzko bataioa jasan zueneko. **Joseba Zulaika**

Liburuen nolakotasun espazialak ez bezalako betelan **neurgaitz** eta barreiatuagoa betetzen dute oihartzunek espazioan. **Anjel Lertxundi**

Eta Mireiak ez zuen fisikaririk nahi, ez zuen bere lanaz hitz egin nahi, bere poz **neurgaitzaz** baizik. **Fernando Morillo**

neurgarri 1 *izond* neur daitekeena.

Berdin lantzen ditu bai lerro zuzen **neurgarriak** eta haien artean neurtezinak direnak, bai horiei dagozkien azalera karratuak edo laukizuzenak. **Jon Muñoz**

Denbora eta espazio **neurgarriak** baino haratagoko eremu batean dago gure baitako irudimenaren esparru misteriotsu hori. **Anjel Lertxundi**

Adierazleak "hedadura bat irudikatzen du eta hedadura hori dimentsio bakar batean da **neurgarria**". **Isabel Arrigain**

Diru laguntzak aurrekontuetan nabarmen igotzeko eta horiek banatzeko irizpide zehatz eta **neurgarriak** erabiltzeko. **Berria - Euskal Herria**

Prebentzioak, hitz bitan, ebidentzia zientifikoa oinarritutako egoera gertagarri eta **neurgarri** ezkorrez dihardu. **Berria - Gaiak**

Arazoi nork duen zehazteko hainbat elementu objektibo daude, eta gehienetan **neurgarriak** dira. **Berria - Euskal Herria**

• 2 *iz* neurtzeko sistema. ik **neurgailu**.

Hortaz, ez da erabiliko Gipuzkoako Txapelketan darabilten **neurgarri** bera; hartan, ebakeraren kalitatea ere neurtzen baitute. **Berria - Kirola**

Nihilista izan daiteke hitz egokia, bai, ez bainintzen biziki abertzalea (euskarazko eskoletara ez apuntatzea, horren erakusgarri), ezta ikaragarri ezkertiarra ere; kokaera politikoa erabakitzeko **neurgarri** klasiko horietan moderatu samarra nintzen beraz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

· Idazlearen memoria munduaren **neurgarri**, gainerako idazlanak ulertzeko giltza. **Berria - Kultura**

neurgarritasun *iz* neurgarria denaren nolakotasuna.

Lerroen eta planoen neurteztasun- eta **neurgarritasun**- propietateak, lerro arrazional eta irrazionalen existentzia, eta, oro har, Euklidesen X. liburuak daukan gutzia.

Xabier Kintana

neurka ik **neurkada**.

neurkada (*orobat neurka g.er.*) *iz ipar* erritmoa, neurria.

Demagun bazoazela bidean, gidariaren eskuinean zarela, zure begirada abiaduraren **neurkadaren** arabera badabilela. **Berria - Kultura**

Urratsaren **neurkadan**. **Herria**

Agatak ordutik hara ez zuen saihets-batzarrik filmatu: denak bat ziren, bouzoukiaren **neurkadaz** aharrak, jeloskeriak, tristeziak ezabatuak bailiran. **Itxaro Borda**

Baina laster, mendeak ziruditen segundoak ahitzean, birrikak ozenki eta **neurka** naturalagoan husten eta betetzen sumatzen zituen. **Itxaro Borda**

neurkatu, neurka, neurkatzen (*orobat negurkatu g.er.*) 1 du *ad* neutru; neurrian eman.

Izebak gorputzaren mugimenduak **neurkatzen** zituela, ezpainetara ura luzatzen eta noiztenka kopeta mustukaz lehortzen zion, amultsuki. *Entzun bai jauna gure baitan sar* **neurkatu** zuen eztki Graxik ezpainak doi-doi higituz, jendetza beha zegoela ohartzeke. **Itxaro Borda**

2 (era burutua izenondo gisa)

Orduan denak lerrotan emaiten ziren, eta kanpalekuan sartzen ginen urrats **neurkatuan**, xut zeuden postako soldadoei agurra eginez. **Marzel Etxehandi**

Trakturrak ari ziren kantari, piko **negurkatuz**, ziotelarik, sarri arbia izanen dela Jaun haundi. **Herria**

neurkera *iz* neurtzeko era edo sistema. ik **neurtzikera**.

Kultura bakoitzak munduaren **neurkera** zuen Frantziako Iraultza arte: arabak eta kana erdiak, oinak eta zeleminak, pintak eta kuartiloko, librak eta ontzak, goldeak eta arrak... **Anjel Lertxundi**

neurketa 1 *iz* neurtzea.

Izenak berak adierazten duen moduan, triangeluen **neurketa** da trigonometria. **Jon Muñoz**

Likintasan, azaleko tentsio, errotazio-ahalmen eta halakoen **neurketa** simpleak. **Juan Garzia**

Utilitarismoa aztertu dugunean, aipatu ditugu ondorioen **neurketak** sortzen dituen zailtasunak. **Askoren artean**

Urteak pasatu ditu zeru-lurren **neurketetan** Antoine d'Abbadie d'Arrast jakintsunak. **Michel Ornoz**

Han, dakizunez, dena neurtzen da, nahiz nik ez dakidan zenbaterainoko zorrotasuna duten **neurketa** hauek. **Pello Salaburu**

ekoizpen-jardueren erregionalizazioaren **neurketa** egoki batek kontuan hartu behar ditu, nazioarteko zuzeneko inbertsioen fluxuak ez ezik, enpresa multinazionalen beren barne-merkatuen gaineko jarduerak ere. **Koro Navarro**

Neurketen datuak hamar minutuz behin lortzen dira. **Berria - Gaiak**

Era berean, aberastasunen azterketari kontrajartzen zaizkio, zeinu kualitatiboen ikerketa **neurketazko** zeinu kuantitatiboari kontrajartzen zaien bezala. **Xabier Arregi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neurketa akats bat [...] ere egin dut. **Koldo Biguri**

Hona hemen aldarearen neurriak, orain arteko **neurketa**-unitate berberaz hartuak. **Elizen arteko biblia**

Neurketa -unitate gisa eremu produktiboa erabiltzen duen lanabes horrek potentzialtasun handia du iraunkortasunerantzko bidean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

-Non da Hermione? -galdetu zion Harryk, **neurketa** -zinta hartu eta bere idazlana zabalduz. Iñaki Mendiguren

Gure zentzumenak **neurketa** -tresna dira, eta sentsazioaren bidez jasotzen dute kanpoko mundua guretzat. Xabier Olarra

Neuropsikologoak **neurketa** testak deitzen ditugunak erabiltzen ditu, kaltea zenbatekoa den jakiteko, eta horiek erabat objektiboak dira. Berria - Gaiak

Teknika berriei esker, gauden espazioaren soinu mapa bat egin dezakegu, baina **neurketa** sistema batek sortutako irudi bat izango da. Berria - Kultura

Bildutakoa **neurketa** estaziora bideratzen da, eta han konposizioa, tenperatura, presioa eta emaria neurtzen dituzte. Berria - Euskal Herria

Egia esan, zerrendak askoz ere aberatsagoak dira, **neurketa** era askotan egiten baita: ez bakarrik hobereenak orotara. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aztertu eta konparatu zituzten bi besoak eta indar-**neurketa** bat egitea erabaki zuten. Irene Aldasoro

Bada tradiziozko lotura bat giza adimeneke egiten duten denbora-**neurketaren** eta erlijioak giza arimetan zertzen duen eraginaren artean. Iñaki Mendiguren

Lur-**neurketaren** lan arruntetatik. liburuak indarka ari baitziren beren artean, borroka-**neurketa** sutsuetan elkarri haginka eta erasoka. Iñaki Mendiguren

4 norgehiagoka, lehiaketa.

Ostegunean UEFA Koparen finalerdiko itzulerako **neurketa** jokatu behar duela Valentziaren aurka. Berria - Kirola

Espainiako Ligan sei **neurketa** jokatu dituzu. Berria - Kirola

Ez ditugu beste lehiaketetan adina erakartzen duten **neurketak** jokatu, baina aurrera egiten jakin behar dugu. Berria - Kirola

Final-laurdenetako hirugarren **neurketa** galdu du, eta gaur nahitaez irabazi behar du, sasoiari agur esan nahi ez badio. Berria - Kirola

Azken **neurketa** irabazi arren ezin gara lasaitu. Berria - Kirola

Taldeko jokalariek eta entrenatzaileak berak aitortu dute «ilusioz gainezka» jokatu dutela gaurko Trabzonsporren aurkako **neurketa**. Berria - Kirola

Uztaritzeko [bertso] **neurketa** gain gainetik gustatu zaiku. Herria

5 neurketa/neurketak egin

Talesek **neurketa egin** zuen uanean, hau zen egoera: [...]. Jon Muñoz

Ciesek urtean bi **neurketa egiten** ditu. Berria - Euskal Herria

Punta-puntako teknologia baliatuz, NASAko ikertzaileek hainbat **neurketa egingo** dituzte egunotan, eta horiek klima aldaketa zerk eragiten duen jakiteko argigarri izango diren ustea dute zientzialariek Estazio meteorologiko horiek etxola antzeko batzuk dira non **neurketak egiten** diren. Berria - Gaiak

Luizia izandako lekutik metro batzuetara dorre meteorologikoek **neurketak egiten** dituzte momentu oro. Berria - Harian

--Xuxen egin zituen **neurketak**. Juan Garzia

British Museumak erosten zituen, hiru libra esterlina ordaintzen zen burezur bakoitzeko, **neurketa** antropologikoak egiteko. Joseba Sarrionandia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi neurketa jokatu (3); biharko neurketa (3); denboraren neurketa (3); gaurko neurketa (11); indar neurketa (7); itzulerako neurketa (3); itzuliko neurketa (3); kontrako neurketa (4)

neurketa asko jokatu (3); neurketa bakarra (4); neurketa bikaina (3); neurketa egin (6); neurketa egiten (3); neurketa erraza (3); neurketa galdu (6); neurketa galdu du (3); neurketa gogorra (4); neurketa hasi (6); neurketa irabazi (8); neurketa irabazteko (5); neurketa izan (3); neurketa izango (9); neurketa izango da (5); neurketa izango dute (3); neurketa jokatu (22); neurketa jokatu ditu (7); neurketa jokatu (18); neurketa jokatu dute (7); neurketa ona (5); neurketa osoa jokatu (3); neurketa parekatua (3); neurketa prestatzeko (6)

neurketak egiteko (3); neurketak egiten (5); neurketak galdu (5); neurketak irabazi (4); neurketak irabazi ditu (3); neurketak izango (3); neurketak jokatu (3)

aurkako neurketan (5); azken neurketan (3); gaurko neurketan (5); joaneko neurketan (6)

neurketarik galdu gabe (4)

neuroanatomia iz nerbio sistemaren anatomia.

Neuropsikologo batek psikologia azterketak egiten ditu lehenengo, eta gero, neurofisiologia, **neuroanatomia** eta neuropatologia ikasketak egin behar ditu, baina, batez ere, esparru horiek guztiak prozesu kognitiboekin nolako harremana duten aztertzen ikasi behar du: arreta, memoria, hizkuntza, ikaskuntza... Berria - Gaiak

neuroartritiko izond nerbio sistemaren artritisa joa.

Gauza logikoa zen; **neuroartritikoa** zen. Josu Zabaleta

neurobiologia iz nerbio sistemaren biologia.

Gaur egun, berriz, Harvardeko Unibertsitatean (Boston, AEB) egiten du lan, **Neurobiologia** Departamenduan. Berria - Gaiak

neurobiologiko izond neurobiologiarena, neurobiologiari dagokiona.

Ez dakigu burmuineko prozesu **neurobiologikoek** kontzientzia zelan sortzen duten zehazki. Joseba Sarrionandia

Denboraren iragaiteak isilaraziz doan oihartzuna, egia esan, akordurik bizienek ere, garunetako oroitze-mekanismo **neurobiologiko** hutsak ez diren beste euskarrinen bat behar izaten baitute. Edorta Jimenez

Oinarri **neurobiologikoen** alorretik. Berria - Gaiak

neurobiologo iz neurobiologian aditua.

Neurobiologoek erakutsi digute beste kontu batzuk nabarmenarazteko diseinaturik dagoela begia: mugak, argi-contrasteak, kolore-aldeak, eta abar. Burmuinak iraupen handiko oroitza penak nola gorde eta gogora ekartzen dituen argitu du Kaliforniako Unibertsitateko **neurobiologo** talde batek. Juan Garzia

neuroblastoma iz nerbio zelula enbrionarioetan eraturiko tumor gaiztoa.

Sagu-**neuroblastoma** zelula batzuk. Juan Garzia

neurodegeneratibo izond nerbioen endekapenari dagokiona, nerbioak endekatzea dakarrena.

65 urtetik gora dutenen artean zabalduen dagoen gaixotasun **neurodegeneratiboa** da parkinsona, alzheimerren atzetik. Berria - Gaiak

Eritasun **neurodegeneratibo** hilgarri bat. Juan Garzia

Gaitz **neurodegeneratiboak** ikertzen ari da David Gubb, Biogune ikerketa zentroan. Berria - Gaiak

neurofibrilar

1 korapilo neurofibrilar proteinazko ezohiko bilduma modukoa, neuronen barnean txirikordatzen diren harizpiek osatua.

Zenbait kasutan, nahastean, korapilo **neurofibrilarrak** sortzen ditu proteina horrek, hots, Alzheimerren gaitza sortzen duten egitura batzuk sortzen ditu burmuinean, zeren egitura horiek zelulen arteko loturak tratatzen dituzte. [Berria - Gaiak](#)

neurofibromatosi 1 iz nerbio sistemaren nahasmendu genetikoa, nerbioetan tumoreak haztea eragiten duena.

Mekanikari gazte bat zen Bennetten azken pazientea, **neurofibromatosi** hedatua zuena; gaixotasun bitxi eta inoiz kantzeroso horrek handitu marroixka eskergak eta azal zati puztuak eragin ditzake, eta gorputz osoa desitxuratu. [Xabier Olarra](#)

2 (hitz elkartuetan)

Neurofibromatosi kasu bitxi bat deskribatzen ari zen: berriki operatutako gazte batena. [Xabier Olarra](#)

neurofisiologia iz nerbio sistemaren fisiologia.

Neuropsikologo batek psikologia azterketak egiten ditu lehenengo, eta gero, **neurofisiologia**, neuroanatomia eta neuropatologia ikasketak egin behar ditu. [Berria - Gaiak](#)

Bide horretatik uler daitezke Zientziaren Filosofiaren ikusmolde kognitibistak (psikologiaren, **neurofisiologiaren** zein beste natur zientzien metodoak eta emaitzak erabiliz, hainbat filosofok proposatu duten bidetik: [...]). [Askoren artean](#)

Bennett bera ere txundituta zegoen, eta, eskularruak kentzean, horren guztiaren **neurofisiologiaz** galdezka hasi zitzaidan. [Xabier Olarra](#)

neurofisiologiko izond neurofisiologiarena, neurofisiologiari dagokiona.

Mina ez da identifikatu behar propietate edo gertakari **neurofisiologiko** orokor batekin, haiek gugan eragiten dutenarekin baizik, alegia, haien rol kausalarekin. [Askoren artean](#)

neurofisiologo iz neurofisiologian aditua.

Han ginen Bob Wasserman, nire lankide oftalmologoa, Ralph Siegel, **neurofisiologo** bat, eta neu, Jonathan I.ri test orokor bat egiteko. [Xabier Olarra](#)

Sindromeaz termino neurokimiko eta **neurofisiologikotan** pentsatzeko. [Xabier Olarra](#)

neurogeno izond etorkia nerbioetan duena.

XIX. mendean psikopatologia arduratu den eremuan oso goiz ikusi dugu agertzen [...] delinkuentziaren erregistroari dagozkion objektuen sail bat: gizahilketa (eta buru-hilketa), pasio-hilketak, sexu delituak, lapurreta-mota batzuk, erromestasuna -eta ondoren euren bidez jaraunspena, inguru **neurogenoa**, eraso edo autozigortze jokaerak, perbertsioak, bulkada hiltzaileak, sugestibilitatea, etab.-. [Xabier Arregi](#)

neurohidrauliko (*corpusean neuro-hidrauliko soilik*) izond nerbio sistemaren hidraulikari dagokiona.

Hainbeste sentimen errezeptore eta nerbio bukaera ditu, eta hainbeste motatakoak, non ingeniariak **neuro-hidraulikoko** lan ezin hobe den [klitoria], plazer eragile indartsua eta pasio kitzikagarrienak eta sutuak eragiteko gai. [Luis Elberdin](#)

neurokimiko 1 izond gai kimikoez mintzatuz, nerbio sistemari eragiten diona.

Adituek uste dute maitemintzearekin batera gertatzen den euforia gure burmuinak FEA anfetamina eta beste substantzia **neurokimiko** batzuk askatzen dituelako gertatzen dela. [Luis Elberdin](#)

2 gai neurokimikoei dagokiena.

Burmuinak ezin dio inbasio **neurokimiko** horri luzaroan eutsi. [Luis Elberdin](#)

Sindromeaz termino **neurokimiko** eta neurofisiologikotan pentsatzeko. [Xabier Olarra](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

substantzia neurokimiko (4)

neurokirurgia 1 iz kirurgiaren adarra, nerbio sistemako eritasunak ebakuntzen bidez tratatzeaz aritzen dena.

Ebakuntzan, Dominikar Errepublikako bertako eta atzerriko 18 mediku, kirurgialari eta erizainek parte hartu zuten, Jorge Lazareff Kaliforniako Ameriketako Estatu Batuak unibertsitateko haurren **neurokirurgia** saileko zuzendaria buru zutela. [Berria - Gaiak](#)

2 neurokirurgia saila.

Greg erietxean aztertu zuten medikuek **neurokirurgia** bidali zuten. [Xabier Olarra](#)

neuroleptiko izond/iz sendagaiez mintzatuz, nerbio sisteman eragin lasaigarria duena.

Jaiki, lan egin, jan, pausatu, emaztearekin bekoz beko afaldu isilik telebistari begira eta loak har, bi **neuroleptiko** irentsi ondoan: bizia deitzen zena, hots. [Itxaro Borda](#)

Totte txepela, zilarrezko gurutze miresgarria papoan zeramala, **neuroleptikoz** hantu ama zut-zuta saihetsean. [Itxaro Borda](#)

Gehienek halatan, **neuroleptikorik** gabe, gusturik hoberenean, bazekiten derrigorrez egin behar zena manatzen hitz labur, zuhur eta suharrez. [Itxaro Borda](#)

neurologia 1 iz medikuntzaren adarra, nerbio sistemaren anatomiaz, fisiologiaz eta eritasunez aritzen dena.

Beste azterketa batzuek [...] oharren fonetikaz hitz egiten dute, nahiz eta hor bereziki irristakor izan fonetikaren eta fonologiaren arteko muga eta, halaber, eremu biok

neurologia, psikologia eta inguruko gaietako izan lezaketen erlazioa. [Lourdes Oñederra](#)

Neurologiatik soziologiara pasatzea ez dut gustuko, ni neurologoa naizelako. [Berria - Gaiak](#)

1974an eta 1975ean argitaratu zituen Geschwindek lehen lanak sindromearen intzidentziari eta ezaugarriei buruz; Stephen Waxman lankidearekin batera landu zuen alor hori, eta txunditurik utzi zuten **neurologiaren** mundua. [Xabier Olarra](#)

Neurologian espezializatu zen **Berria - Harian**

Garapen maila horrek burmuinaren ezaugarrietan ere baduela eraginik erakusten dute **neurologiazko** ikerketa zenbaitek.

Lourdes Oñederra

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **neurologiko**.

Neurologia arazoak dituztenen aldeko jaialdia izango da, Denena Fundazioak antolatuta. **Berria - Kirola**

Salamancako Virgen de la Vega ospitalera eraman zuten **neurologia** sailean zain zezaten. **Berria - Kirola**

Neurologia ataleko Ibáñez doktoreak, ordea, ez zuen ondo ahoskatzen hitz egiten zuenean. **Imanol Zurutuza**

New Yorkeko Albert Einstein **Neurologia** Kolegioan. **Berria - Kultura**

Neurologia zerbitzua zuzentzen du Bartzelonako Vall d'Hebron erietxean eta irakaslea da Pompeu Fabra unibertsitatean. **Berria - Gaiak**

Neurologia Departamenduko zaintza berezietako gela batera eraman zuten. **Berria - Harian**

Nafarroako Unibertsitateko **Neurologia** irakasle Jose Manuel Martinez Lagek. **Berria - Gaiak**

neurologiko *izond* neurologiarena, neurologiari dagokiona. ik **neurologia 2**.

Arazo **neurologikoak** dituen suge baten gisan. **Karlos Zabala**

Orain Greg, itsu ez ezik, elbarri ere bazen, bai alde **neurologikotik**, bai gogamenekotik. **Xabier Olarra**

Geroago azterketa **neurologiko** labur bat egin nion, zerebeloaren funtzioari eta oreka-kontuei jarriz bereziki arreta. **Xabier Olarra**

Jokabidea gidatzen duten emozio-indarren azpian dautzan sistema **neurologikoak** deszifratzeko. **Xabier Olarra**

Parkin eta PINK 1 geneetan gertatutako arazoekin lotu dute eritasun **neurologikoa**. **Berria - Gaiak**

Gaitz **neurologiko** degeneratibo gehienekin horrela gertatzen da. **Berria - Gaiak**

Lesio **neurologiko** baten ondorioz. **Luis Elberdin**

Kalte **neurologikoa** duten pertsonetan. **Berria - Gaiak**

Garuna ongi duzu, eta estudio **neurologiko** guztietan ez da lesio zelularrik ez funtzionalik agertzen. **Joan Mari Irigoien**

Errendimendu akademikoan eta adimen gaitasunean eragiten duten buruko alterazio eta nahaste **neurologiko** arinak saihestea. **Berria - Gaiak**

Ezpain genitalen, uretraren eta perineoaren estimulazioak garrantzi handia duela emakumearen eszitazio sexualerako, eta guztien artean lotura **neurologiko**, muskular eta odolekoa dagoela. **Luis Elberdin**

Ikuspegi **neurologikotik**, orgasmoa erreflexua da. **Luis Elberdin**

Orgasmoak bi fase ditu: **neurologikoa** bata, eta motorra bestea. **Luis Elberdin**

Ilusio optikoa egia **neurologikoa** da. **Xabier Olarra**

neurologo 1 *iz* neurologian aditua.

Adolfo Lopez de Munain Donostiako Ospitaleko **neurologoa** da. **Berria - Gaiak**

Gurutzetako erietxeko Dementzien Unitateko **neurologo** Manuel Fernandezek hartu zituen hizpide bi botikak, baikor. **Berria - Gaiak**

Nerbio-sistemaren higadura eta suntsipen guztiak bezala, beti liluratu ditu **neurologoak**, agerian jar baitiezaguke nola eraikitzen den sistema hori. **Xabier Olarra**

Nadiaren kasuak [...] zalaparta handia piztu zuen **neurologo** eta psikologoaren artean. **Xabier Olarra**

Orain, gainera, ikertzaileek eskura zituzten, aurreko aroetako **neurologoek** ez bezala, garun-irudiztapen teknika berriak (TAK, EMI, PJT, SQUID, etab.). **Xabier Olarra**

"Azpitik gorako" trastornoa edo neuropsikologikoa, **neurologoen** mordoiloan. **Xabier Olarra**

2 (hitz elkartuetan)

Neurologo esperientziatik abiatu eta zorroztasun sakonez eta bihotz samurrez, zuzenean tratatu dituen kasuak plazaratu zituen. **Berria - Kultura**

neurologoburu (*corpusean neurologo buru soilik*) *iz* neurologo talde baten burua.

Estimulazioak eta loak garunaren garapenean duten eragina nabarmendu du Bartzelonako Vall d'Hebron erietxeko **neurologo buruak**. **Berria - Gaiak**

neuroma *iz* nerbio ehuneko handitua edo tumorea.

Neuroma akustiko izeneko tumore onbera izateko aukera bikoiztu egiten da sakelako telefonoa luzaroan erabiltza. **Berria - Gaiak**

neuromodulu *iz*

Baliteke savantek garunean sistema nabarmenki espezializatua izatea, neurri gabe garatutako sistema edo "**neuromodulu**" bat, eta une jakin batzuetan "piztuta" egotea - estimulu egokiak (musikala, ikusmenezkoa, edozein) sistema une egokian aurkitzen duenean- eta orduan berehala hastea eginahal guztian lanean. **Xabier Olarra**

neuromuskular (*orobat neuro-muskular*) *izond* nerbioei eta giharrei dagokiena.

Jatorri genetikoko gaitzak, eritasun **neuromuskularrak**, kasu, dituztenek seme-alaba osasuntsuak izatea ahalbidetzen duen teknika berritzaile bat. **Berria - Gaiak**

Horixe da hain zuzen ere eritasun **neuromuskularrak** dituztenek Osakidetzari egiten dioten eskaeretak bat. **Berria - Gaiak**

Jon Andoni Urtizbera, Pariseko miologia institutoko mediku-espezialista eta eritasun **neuro-muskularren** europear zentroko zuzendari zientifikoa. **Herria**

GENE Gipuzkoako Eritasun **Neuromuskularren** Elkarteak. **Berria - Gaiak**

neurona 1 *iz* nerbio sistemako zelula.

Nerbio-sistema guztia eraikitzen duten adreiluak dira **neurona** edo nerbio-zelulak. **Irene Aldasoro**

Garunak baditu 10.000 milioi **neurona**, eta **neurona** bakoitza beste 10.000ri konektaturik egon daiteke. **Irene Aldasoro**

'Gizakia gazte hasten da hiltzen, hogeita bost urtetik aurrera egunero 25.000 **neurona** galtzen du. **Joseba Sarrionandia**

Neurona motorretako gaixotasun bat ikertu nahi zuela esan zuen orduan zientzialari eskoziarrak. **Berria - Gaiak**

Neurona etengailu bat da funtsean, eta pentsa daiteke ea aski ote diren etengailuak, 10.000 milioi izanda ere, konputagailu bat egiteko. **Irene Aldasoro**

Bulkada horiek, nahitaez, **neurona** askotatik pasatu behar dute beren azken helburura iristeko. **Irene Aldasoro**

Neuronak egurastu beharra daukat. **Jon Muñoz**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **neuronal**.

Ez, ez nengoen mozkor, mozkorraren aurreko euforian baizik, burmuinetako **neurona**-haren artean zirkuitulabur bat sortu zitzaidanean... **Joan Mari Irigoien**

Neurona zirkuitu kaltetuak osatzeko. [Berria - Gaiak](#)

Bagenekien **neurona** -konexioan eragiten zuela, baina ez genekien nola. [Berria - Gaiak](#)

Bazela garuneko **neurona** -mailan, entzumenezko espazioaren "mapa" gisako bat, zentzumen bidezko informazioaren puntuz puntuko proiektzio ororen guztiz desberdina.

[Josu Zabaleta](#)

Neurona multzo bat dugu garunean, eta horiek aldi berean ari dira berbetan. [Berria - Gaiak](#)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Seinale hori, bizkar-muinera iritsi bezain laster, nerbio-amaieretara bideratzen da berriro, mugimendu-**neurona** batetik zehar, eta nerbio-amaierak muskulua uzkurraztzen dute. [Irene Aldasoro](#)

neuronabegatzaile ik **neuronabigatzaile**.

neuronabigatzaile *(corpusean neuronabegatzaile soilik) iz*

Neuronabegatzaileak erakusten digu non ari garen zehazki lanean; geure begiz ikusten dugunaren atzean zer dagoen erakusten digu, eta horrela arrisku asko saihesten dira. [Berria - Gaiak](#)

neuronal *iz* neuronarena, neuronari dagokiona. ik **neurona 2**.

Gogoaren deskribapena ez da burmuinaren deskribapena eta, adibidez, min izatea ez da soilki egoera **neuronal** jakin batean egotea. [Askoren artean](#)

Ekintzen "zertarakoa" ezin da jokabide edo egoera **neuronaletara** murriztu, ezta saguen jokabidea aztertu nahi denean ere. [Askoren artean](#)

Sare **neuronal** artifizialei. [Joseba Sarrionandia](#)

Semir Zeki, berriz, [...] maila fisiologikotik ari zitzaion hurbiltzen problemari: tximino anestesiatuei ikusmen-kortexean mikroelektrodoak sartu, eta estimulu koloretakoak ematean sortzen ziren potentzial **neuronalak** neurtzen zituen. [Xabier Olarra](#)

neuropata *iz* nerbioetako gaitz batek jo duen pertsona.

Onartu beharra dut **neuropata** naizela. [Karlos Zabala](#)

neuropatologia *iz* nerbio sistemaren patologia.

Neuropsikologo batek psikologia azterketak egiten ditu lehenengo, eta gero, neurofisiologia, neuroanatomia eta **neuropatologia** ikasketak egin behar ditu, baina, batez ere, esparru horiek guztiak prozesu kognitiboekin nolako harremana duten aztertzen ikasi behar du: arreta, memoria, hizkuntza, ikaskuntza... [Berria - Gaiak](#)

Isidro Ferrer Bartzelonako Unibertsitateko **Neuropatologia** Saileko kideak Alzheimerren gaitzari buruz hitz egitean bazter lagatzen ditu etsipen hitzak. [Berria - Gaiak](#)

neuropatologo *iz* neuropatologian aditua.

Isidro Ferrer Bartzelonako unibertsitateko **neuropatologoa**. [Berria - Gaiak](#)

neuropsikiatria *iz* medikuntzaren adarra, eritasun neurologiko eta mentalak aztertzen dituena.

Histamina jariatzen duten garuneko zelulei esker gara kontziente esna gaudenean, Los Angeleseko (AEB) Unibertsitateko **Neuropsikiatria** Institutuaren arabera. [Berria - Gaiak](#)

neuropsikiatriko *izond* neuropsikiatriarena, neuropsikiatriari dagokiona.

Gaixotasun **neuropsikiatriko** guztien artean heredatzeko arrisku gehien duena da hau. [Berria - Gaiak](#)

neuropsikologia 1 *iz* medikuntzaren adarra, gaitz neurologikoek prozesu psikologikoetan duten eragina aztertzen duena.

Psikologiaren barruan dagoen zientzia da **neuropsikologia**. [Berria - Gaiak](#)

2 (hitz elkartuetan)

Nazioarteko **Neuropsikologia** Elkarteko urteroko biltzarra [Berria - Gaiak](#)

neuropsikologiko *(orobat neuro-psikologiko) izond* neuropsikologiarena, neuropsikologiari dagokiona.

Arazo **neuropsikologikoak** ezin direla ulertu [...] dauden ahalmenak eta haien eraketa berezitik abiatuak baizik. [Berria - Kultura](#)

Ebaluazio psikologiko eta **neuropsikologiko** sail bat egin zioten Gregi, eta guztietan aipatzen zen, haren oroimen eta arretaren arazoez gain, "axalekoa" zela, "ume bat" zela, "ulermenik" ez zuela, "euforikoa" zela. [Xabier Olarra](#)

Ikuste-prozesatzearren eta ikustun-identitatearen porrota, oinarri organikoa zuena ("azpitik gorako" trastornoa edo **neuropsikologikoa**, neurologoen mordoiloan). [Xabier Olarra](#)

Korrelazio **neuro-psikologikoen** jokoak, proiektzio-sistema elkarkari eta kausaltasun-arlo zirkular legeaz ulertuta. [Xabier Arregi](#)

neuropsikologo *iz* neuropsikologian aditua.

Neuropsikologo batek psikologia azterketak egiten ditu lehenengo, eta gero, neurofisiologia, neuroanatomia eta neuropatologia ikasketak egin behar ditu.

Neuropsikologoak neurraketa testak deitzen ditugunak erabiltzen ditu, kaltea zenbatekoa den jakiteko, eta horiek erabat objektiboak dira. [Berria - Gaiak](#)

Larry Squire **neuropsikologo** ikertzailearen lana funtsezkoa izan da lobulu tenporalaren oroimen-sistemaren garraio-funtzio hori argitzeko. [Xabier Olarra](#)

neurosi (*orobat neurosis g.er.*) **1** iz nerbio sistemaren eritasuna edo nahasmendua, anatomia oinarri ezagunik ez duena.

Korrika egin behar horrek gaixotasun mota bat izan behar du, **neurosi** bat -hasten omen zitzaion senarra. [Joxean Agirre](#)

Besteenganako eskuzabaltasun hura, lanbidean zuen trebetasun berezi hura, **neurosi** baten emaitza? [Juan Kruz Igerabide](#)

Hilketa baten ostean eldarnio paranoiko bat dagoela edo delitu sexual batean **neurosi** bat dagoela. [Xabier Arregi](#)

Banakoaren **neurosiak** sexua du oinarri; aldiz erlijioak, neurosi unibertsalak alegia, norberekeria. [Markos Zapiain](#)

Aipatu duzun herriminak edo lekukotzeko izaten dituzten arazoek eragin egiten badute ere, ez dira **neurosiak** edo psikosiak agertzen. [Berria - Euskal Herria](#)

Sarritan alferreko lana da gaixo hori mundu-ikuspegi osasungarri eta bizimodu egoki batera ekartzen saiatzea, gotortu eta babestu egiten baita **neurosi** eta ustekeriako harresi baten atzean. [Karlos Zabala](#)

Neurosiaren lehengusu propioa den fanatismoa, jatun exkaxen laineza bat besterik ez da. [Iñaki Segurola](#)

2 (izenondoekin)

Gauzak -erabakiak hartzea batez ere- biharamunerako uztea [...] **neurosi** obsesiboaren ezaugarrietako bat baita, Sedanoren iritiz behintzat. [Ramon Saizarbitoria](#)

Izan ere, erlijioa gizateriaren **neurosi** obsesiboa da. [Markos Zapiain](#)

Eskizofrenia lotsagarri bat saldu eta **neurosi** errukarri bat erosi. [Iñaki Segurola](#)

Baina badira bizirik dirauteino, **neurosi** arraroak edo berezi samarrak gordetzen dituztenak. [Berria - Kultura](#)

Erratan du fedea eta Amodio absolutu batek dituela kasik sendatu **"neurosi"** oso larria" zeukan neska gaztea. [Piarres Aintziart](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

"Usher Etxearen hondamena" kontakizunean, **neurosi** kasu bat aztertzen da, oraintsu jakin denez, bere ezagun baten kasua, ez, uste izan den bezala, berea. [Koro Navaro](#)

Barre-karkara luze azantzatu bat izan zen, egiazkoa ia, **neurosi** puntu batez zipriztidua. [Karlos Linazasoro](#)

4 gerra-neurosi

"Obus-xokaren trauma" edo "gerra-**neurosia**" ere esaten zaio. [Mirentxu Larrañaga](#)

Eguneroko bere zereginetan aurreikusitako gabeko edozerk ataka gaiztoan jartzen zuen Durant andrea, gerra-**neurosiak** jotako eriondo batena zirudien atakan jarri ere.

[Mirentxu Larrañaga](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

neurosi obsesiboa (3)

neurosis ik **neurosi**.

neurotiko **1** izond neurosiarena, neurosiari dagokiona. ik **neurosi 2**.

Lehenengo maila, prozesu inkontzienteen antolamenduari dagokiona (sintoma **neurotikoa**, ametsak), eta bigarren maila, psikologia tradizionalak kontuan hartzen zuena (pentsamendu ohartua). [Josu Zabaleta](#)

Literaturgintzak jolas **neurotikotik** zer duen erakusteko izan behar omen zuen. [Ramon Saizarbitoria](#)

Akademizismo aldiaren ezaugarria ikusgarri bihurtu behar horrek hartan dituen ondorio gutzit kaltegarriak dira, "errealitate-efektua" errealitatearen ordain **neurotiko** bat bilakatzen baita. [Josu Zabaleta](#)

Nazka **neurotikoa** hartu zion. [Jose Morales](#)

• **2** iz neurosiak jotako pertsona.

Neurotikoa ifernuan bizi da maizenik. [Piarres Aintziart](#)

Neurotikoa neurotikoa delako idazten du, ala idazteagatik bilakatzen da **neurotiko**? [Ramon Saizarbitoria](#)

Sedanok dioenez, **neurotiko** obsesiboaren ezaugarrietako bat omen da aspergarria izatea. [Ramon Saizarbitoria](#)

Egonarririk gabe eta bete ezinezko eskaerekin estu hartuko duen emakume burges **neurotiko** bat. [Oskar Arana](#)

Inguruan genituen hegazkinen marrumak, piztia **neurotikoa** bailiran. [Javi Cillero](#)

Militante bat bezain ernegante eta **neurotiko**. [Iñaki Segurola](#)

neurotransmisore iz nerbio bulkadak transmititzen dituen gaia.

Hain zuzen ere, **neurotransmisore** bat, dopamina, garunean ongi orekatua ez egotearen ondoriozkoztat. [Xabier Olarra](#)

Metilfenidatoak bizkortzen dituen **neurotransmisoreak** era naturalean piztea lortzen dugu. [Berria - Gaiak](#)

neurozientifiko izond

Gerald Edelmanen lan **neurozientifiko** du euskarririk sendoena Bartletten ondorioak, hark garunaz duen ikuspegia. [Xabier Olarra](#)

neurozientzia iz biologiaren adarra, nerbioen eta nerbio ehunaren anatomia, fisiologia eta biokimika aztertzen dituen.

Chomskyren bi liburu horiek lan bakarra osatzen dute, eta bertan aurkeztutako hizkuntza teoria funtsezkoa gertatu da **neurozientzian**, filosofian eta psikologian, eta hizkuntzalaritza zientzia kognitibotzat hartzeko oinarriak ezarri ditu. [Itziar Laka](#)

Konputagailua **neurozientzietan** lotzen dugunean inteligentzia artifizialaz hitz egiten hasiko gara. [Pello Salaburu](#)

350 profesional ariko dira bertan lanean, onkologiaren, bihotzeko fisiopatologiaren, **neurozientzian** eta terapia genikoen eta hepatologiaren arloetan. [Berria - Euskal Herria](#)

Neurozientziako ikertzaile entzutetsua. [Berria - Euskal Herria](#)

Erromako (Italia) Psikobiologia, Psikofarmakologia eta **Neurozientziarako** Institutuko adituek, sistema opioideorik gabeko saguak sortu zituzten genetikoki. [Berria - Gaiak](#)

neurozirurgia iz neurokirurgia.

«Bigarren burua bestea baino azkarrago ari da hazten», adierazi zuen atzo Jorge Lazareff Californiako unibertsitateko haurren **neurozirurgia** saileko medikuak. [Berria - Gaiak](#)

neurozirujauk iz neurokirurgialaria.

Neurozirujauk, endokrinoak, psikiatrak, psikoanalistak eta baita argiketariak ere lanean jarri ziren, betiere zientziaren izenean eta haiek "osatzeko" asmo jatorra tarteko zela. **Luis Elberdin**

neurrazazi, neurrazaz, neurrazazten (*orobat neurtarazi*) du ad neurtzera behartu.

Neurtu nahi ezak berak **neurrazaziko** zaitu gainera zorrotzen eta abudoen. **Patziku Perurena**

Hark trabatu zidak mihia eta **neurtarazi** zizkidak hitzak; zigortu nahi zuen hutsegite bat hik barkatuko ote hidaan beldurrez baitzen. **Jon Muñoz**

neurri (*orobat negurri g.er.*) 1 iz neurtzearen emaitza; neurketaren bidez finkatzen den tamaina. iktamaina; izari.

Neurri eta tankera bera zuten bi izakiek. **Elizen arteko biblia**

Badaude, ordea, batzuk Erastotenesek lurra bira osoaren benetako **neurria** atera zezakeenik ukatzen dutenak. **Santiago Iruretagoiena**

Banderaren **neurriak**, zortzi bat metro luze eta horren erdia-edo zabal. **Edorta Jimenez**

Emakume ederra zen, batik bat hogei hemezortzi **neurriko** baino emakume beteagoak gogoko zituztenentzat. **Migel Angel Mintegi**

Trigilfoen kapitela modulua seiren bateko **neurria** izango du. **Santiago Iruretagoiena**

Hots baten ozentasuna beste baten bikuna denean, bien arteko desberdintasunaren **neurria** 3 dB dela. **Lourdes Oñederra**

Halako **neurria** duen zulo bat nekez itxi daiteke, nekez... **Patxi Zubizarreta**

Oharra justu bere **neurria** zuen gutunazal batean sartu, eta gutunontzira jaitsi nintzen. **Ramon Saizarbitoria**

Dendako erakusleihoa, **neurri** guztietako ezkontza argazki eta jaunartze eguneko potretaz josita zegoen. **Harkaitz Cano**

Gutzira 70 kaiera daude ikusgai, **neurri** guztietakoak. **Berria - Kultura**

Neurri eta kolore guztietakoak gaudek munduan, **neurri** eta kolore guztiak asetzeko hain zuzen ere. **Aitor Arana**

Neurri bertsuan ageri dira ongia eta gaizkia gizonarengan. **Imanol Zurutuza**

Zaingelek, hormek eta atalondoak besteen **neurri** berberak zituzten.

Edo gerta liteke eltxo baten **neurriko** elefantea existitzea, bai eta elefante baten **neurriko** eltxoa ere; hori guztia -diote- arrazoimenak onargarri du. **Xabier Kintana**

Haztea **neurritz** handiagotzea da. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

ik beherago 21. **Askoren artean**

Neurriak hartzea zen nire egiteko nagusia: jostun-zerrenda hartu, eta bezeroen sorbalden, mahuken, gerriaren luze-laburra neurtzen nituen. **Anjel Lertxundi**

ik beherago 31. **Askoren artean**

2 (izenondoekin)

Mihia hazi zitzaion mutikoari eta mintzatzeko **neurri** egokira etorri. **Askoren artean**

Gizaki guztien elikagai-nahia giza urdailaren **neurri** txikiak mugatzen du. **Iñaki Heras**

Neskak **neurri** ertaineko gela bat ikusi zuen, larruzko zenbait besaulki eta sofarekin jantzia. **Patxi Zubizarreta**

Zutikako **neurri** handiko argazkiak salbu, beste guztiak Blanco-Santos familiarenak dira. **Berria - Kultura**

Neurri handiko hartz bat zen. **Karlos Zabala**

Angeluetako pilareak **neurri** zabalekoak egin baldin badira, dobelei eutsi eta aparailuari sendotasuna emango diote. **Santiago Iruretagoiena**

Soropilak zingirako landareei utzi zien lekua, eta **neurri** erraldoiak hartu zituzten hango hezetasuna eta udako beroa zirela bide. **Karlos Zabala**

Amazoniako Biosfera eta Atmosfera Ikertzeko **Neurri Handiko Esperimentua** (LBA) da dokumentuaren izena. **Berria - Gaiak**

3 irud/hed

Gizona da gauza guztien **neurria**. **Askoren artean**

Batasunaren fruitu dira egokitasuna eta adostasuna, eta hauen bitartez daukate gauza konposatuek beren izatearen **neurria**. **Imanol Unzurrunzaga**

Gorputzak markatuko digu gure desioaren **neurria**. **Luis Elberdin**

Eraz jakin zitekeen, ezbaierik gabe, soldadu alemanen heriotza-gosearen **neurria** zenbaterainokoa zen. **Felipe Juaristi**

Gonak jartzen dio **neurria** bere jardunari. **Arantxa Iturbe**

Bihar goizean zapatari horrek bere **neurriko** orkoia aurkituko dik hemen, bota zuen, eta baita korroskada bat ere. **Anjel Lertxundi**

ik beherago 20. **Askoren artean**

Askotan, arrakasta komertzialak ez du balio artistikoaren **neurria ematen**. **Anjel Lertxundi**

Maialen Lujanbiok, aldiz, ez zuen bere **neurria eman**. **Berria - Harian**

ik beherago 29. **Askoren artean**

Eta, batez ere, jakituriaren ateak zabal ditzakeen jakin-minaren **neurria ematen** du. **Anjel Lertxundi**

4 irud/hed (izenondoekin)

Krisiak gogorren ukitu dituen hiru herrialdeetan (Thailandia, Indonesia, Hego Korea), defizit korranteak **neurri** beldurgarri batera iritsi ziren 1990eko hamarraldiaren lehen erdian. **Koro Navarro**

Literatura feminizatu egin da; irakurlea ere, **neurri** esanguratsu batean, emakumezkoa da. **Ana Urkiza**

Gainerako giza erakundeak -ohiturak, legeak eta abar-, denak, **neurri** desberdinetan, gauzen arteko erlazio naturalean daude oinarrituak. **Isabel Arrigain**

Epistemologiaren hurrengo zutabe nagusia Descartes da, batez ere bere *Meditazio Metafisikoak* -baita, **neurri** apalagoan, *Metodoaren Diskurtsoa* ere-. **Askoren artean**

Hala ere, ikusi den bezala, merkatuak **neurri** egokia behar du izan horretarako. **Koro Navarro**

Horrela, IG/BPG zatidurak ematen digu IGn egiten den ahaleginaren **neurri** egokia. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Izan daitezkeen disputak eta eztabaida ustekoak Kongregazio barrurako egiten diren antzeppen eta itxurapen hutsak besterik ez dira, tamainako **neurri** polit baten barruan betiere. **Iñaki Seguro**

Badira irakurlearen **neurri**-neurria egindako tituluak. **Iñigo Aranbarri**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soka bat besterik ez zuen eskura, eta **neurri**-unitate bat behar zuen. **Jon Muñoz**

Neurri kontua, noski, bizitzan gauza asko bezala. **Iñaki Heras**

6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baltsamatzeari buruzko tratatuaren infolio- **neurri** berekoa zen. **Anjel Lertxundi**

Bizarra egiteko makina eta familia- **neurriko** xaboa... **Sonia Gonzalez**

Porno- **neurriko** zakil bat, zer esan nahi dudan ulertzen badidazu, baina batere erakargarria ez nire begietarako. **Oskar Arana**

Ezinezkoa da atrio txikiak atrio handien proportzio- **neurri** berdinak izatea. **Santiago Iruretagoiena**

Nire jaioteguna, kontu-korrantea, kolesterol- **neurria**, altuera/zabalera/pisua erlazio egokia, golf-klubean erabiltzen dudak takilla, etxeko garajearen sartzeko klabea... **Jon Alonso**

Praktikan, adibidean ez bezala, bankuek jasotzen dituzten gordailuen ehuneko jakin bati erreserba gisa eutsi behar izaten diote beren kutxetan; portzentaje horri kutxa- **neurria** deritzo. **Iñaki Heras**

Diru berriaren eta diru zaharren arteko kanbio-**neurriak** behera egin duenez, ezkutatu askoren irabazia ematen dielako Frantziar. **Iñaki Iñurrieta**

Erre egiten zituzten; horixe zen orduko zentzate **neurria**; zergatik ibili koplekin. **Luis Elberdin**

Ochantze moduko bat zuen lanabes eta gizatasun-**neurri**. **Joxerra Garzia**

7 mota jakin bateko tamainak edo kopuruak neurtzeko erabiltzen den tamaina edo kopurua, neurtze oinarritzat hartzen dena.

Denbora, distantzia, luzera, bolumen, pisu eta balioaren **neurri** estandarrek gizarte-bizitzako premiak dira edozein mailatan, maila primitibotik gora. **Iñaki Mendiguren**

Frantziar iraultzaileek, beren egutegi sekular berria ezartzen hain osoro huts egin zutenek, arrakasta ekumenikoa izan zuten beren pisu eta **neurri** berriekin. **Iñaki Mendiguren**

Ez duzue pisu eta **neurri** faltsurik erabiliko salerosketetan. **Elizen arteko biblia**

Lehenengo beren burua hartzen dute **neurritzat** eta, gero, **neurri** horrekin balioztatzen dituzte beren buruak. **Elizen arteko biblia**

Behin-behineko **neurri** bat beste zer bait aurkitu bitartean. **Oskar Arana**

Horrela, beren bekaturen **neurria** betetzen ari dira etengabe. · Dirua **neurri** duenak, nahi ez duela ere, "gauza garestiak" behar ditu begiz jo, onak diren edo zer diren begiratu gabe kasik. **Elizen arteko biblia**

Mundua **neurri** hartuta, hitzen bonbardaketak nola funtzionatzen duen ikusteko, bada Paduako Unibertsitateak Balkanetako auziaz egindako azterketa zuhur bat. **Iñigo Aranbarri**

8 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neurri-sistema orokor guztietatik, denbora neurtzeko sistemaren premia sumatzen da lehenengo. **Iñaki Mendiguren**

1849a arte, Europa osoan sistema hamartarra ezarri zen arte, Nafarroak bere **neurri** sistema atxiki zuen. **Berria - Kultura**

9 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Legoa **luzera**-neurri zaharra da, gutxi gorabehera 4 km-ren baliokidea. **Karlos Zabala**

Hazbeteak eta luzera-**neurriak** aipatu zizkion. **Mirentxu Larrañaga**

Desiatina: Errusiako azalera-**neurri** antzinakoa (109 hektarearen baliokidea). **Jose Morales**

Aleentzako edukiera-**neurria**. **Xabier Kintana**

Pud: Errusiako pisu-**neurri** antzinakoa (16,3 kilogramoren baliokidea). **Jose Morales**

Zenbatean saldu duzu olo-**neurria**? **Jose Morales**

Zuri-horixka zaldi jatorra duk, bere zeregina betetzen dik, eta gustura emango niokek bazka-**neurri** bikoitza. **Jose Morales**

Hortik atera zuen ezen kopuru jakin bateko zilar-pisuari ur-**neurri** jakin bat zegokiola. **Santiago Iruretagoiena**

Metal preziatuaren erabilera balio-**neurri** gisa. **Iñaki Mendiguren**

10 neurtzeko erabiltzen den tamaina jakineko ontzia.

Balantza zuzenak, pisu zuzenak eta **neurri** zuzenak erabiliko dituzue. **Elizen arteko biblia**

Hau agindu du Jaunak: lau litroko **neurria** manaz bete eta gorde ondorengo belaunaldientzat. **Elizen arteko biblia**

Soldoak neurtzeko *efa*-k eta likidoak neurtzeko *bat*-ak edukiera bera izan behar dute, oinarritzko **neurria** izango den *homer* baten hamarrena. **Elizen arteko biblia**

11 egokitzat edo normaltzat hartzen den kopuru edo tamaina jakina.

Baina bien artean, bada **neurri** bat! **Daniel Landart**

Pabiloiek makina moderno baten antza hartzen zuten, egun berriaren argitan igeri, karratuak, denak berdinak, **neurri** guztietatik at, lurin makina erraldoia, herri oso bat barneratzeko prest dagoen galdara. **Karlos Zabala**

Txitxikovek, **neurri** guztiak gaintzitzen ari zela konturatutik, kotxe bat eskatu zuen, eta prokuradoreak eskainitako drojkia onartu zuen. **Jose Morales**

Zaldunen **neurria** zaldia da, ez astoa... eta gu zaldunak gara. **Joan Mari Irigoien**

Nik ez dut ukatzen maite dudala Frantzia, zuzen den **neurrian**. *ik beheerago* 19. **Piarres Xarriton**

Ardoa ere **neurririk gabe** edaten ditek. **Juan Kruz Igerabide**

ik beheerago 25. **Askoren artean**

Hargatik ahalegintzen zen ezkontza harremanen etekinik handiena ateratzen, **neurririk gabe**, ahalik eta grinatsuen. **Patxi Zubizarreta**

Italiako arkitektura, ez daukat esan beharrik, **neurririk gabe** da aberatsa. **Anjel Lertxundi**

12 gehiegikeriarik eza; gehiegikerietatik urruntzen denaren jokabidea. ik **neurritasun**.

Eta hortxe dago koska: **neurrian**. **Patxi Iturritegi**

Azken batean, hemen ere, **neurrian** dago gakoa. **Iñaki Heras**

Fernando, ordea, lehendabiziko harridura eta miresmena bareturik eta **neurria** etorririk, aspertzen hasia zen. **Felipe Juaristi**

Administrazioa euskalduntzeko ekimena «**neurria** ekarri» beharra aldarrikatu zuen Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburu Miren Azkaratek. **Berria - Euskal Herria**
ik neurritatu.

13 lortu nahi den helburuaren arabera aritzeko modua. **ikbide**¹.

Juduen kontrako **neurriak** bata bestearen ondoren iritsi ziren, eta askatasun asko eta asko kendu ziguten. **Josu Zabaleta**

Politikoeke bidegabean konponbiderako **neurriak** har ditzaten eragozteko. **Juan Garzia**

Lehen **neurriak** aho batez adostu zituen kabineteak. **Josetxo Azkona**

Gaixoaren infekzioari aurre egiteko **neurriak**. **Iñaki Heras**

Bai eskaria indarberitzeko **neurriak** ezartzea eta bai sistemak behar zuen likidezia ematea. **Iñaki Heras**

Produkzio prozesuak eta kontsumo motak murrizteko **neurriak**. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Hizkuntz eskakizuna "zero" profileria jaitea izan zen lehen **neurria**. **Aingeru Epaltza**

Badaezpadako **neurri** gisa. **Berria - Kultura**

Badaezpadako **neurria** da, egon lasai. **Gotzon Garate**

Azkaratek berresten du berari dagokion egoera askatasunezkoa dela, «baina ez edozein preziotan, eta xantxia bezala erabiltzen diren kontrolen **neurripean**». **Berria - Euskal Herria**

14 (izenondoekin)

Agintarieke oso **neurri** estuak hartu zituztela mota guztietako ustelkeriak eragozteko. **Jose Morales**

Madarikatu egiten zituen ustelkeriaren aurkako **neurri** zorrotzak eta funtzionarioen jokaera adeitsu eta gizalegezkoago hura. **Jose Morales**

Neurri gogorragoak hartu behar zirela besoko horia eramaten ez zutenen kontra. **Anjel Lertxundi**

Neurri bereziak hartu ditut. **Harkaitz Cano**

Neurri gaizto horiek gogaikarri eta eramangaitz gertatu zitzaizkion jende guztiari. **Elizen arteko biblia**

Horregatik presa guztia, horregatik **neurri** ezohikoak. **Inazio Mujika Iraola**

Bitartean Liu Pang-ek **neurri** eraginkorrak hartu zituen botere inperialaren nagusitasunari eutsi eta areagotzeko. **Iñaki Mendiguren**

Zitologia **neurri** prebentiboa da, batez ere infekzioak eta uteroko lepoko minbizia prebentitzeko. **Luis Elberdin**

Zergertaerako **neurri** soila omen, gure hegazkinak bi motorrekin ere hegan egin baitzezakeen. **Joxe Austin Arrieta**

Baina hori ez dela arrazoia bizkor konpondu daitezkeen **neurri** ekonomikoak ez hartzeko. **Iñaki Heras**

Hazkundera moteltzen bada, langabezia-tasa jadanik altua duen herrialde batek [...] nekez eutsiko dio **neurri** murriztaileen bidez bere aurrekontuaren defizitaren igoera automatikoari. **Koro Navarro**

15 (hit elkartuetan lehen osagai gisa)

2010erako baliabide genetikoaren erabilera arautzeko **neurri** sorta indarrean jarri nahi dute nazioartean. **Beria - Gaiak**

Medikuntzaren eta teknikaren aurrerapenak, hain zuzen ere, **neurri** -hartze berrietara behartzen du bere erantzukizunaren duin den gizaki oro **Joxe Austin Arrieta**

16 (hit elkartuetan bigarren osagai gisa)

Polizia **neurri** ikaragarriengatik. **Itxaro Borda**

Legeak ekoizleei [...] orain higiene-**neurri** zorrotzak betearazten dizkien arren, sektore asko "ahantzita" daude. **Edorta Agirre**

Errefuxiatuak lasai ibiltzen ziren garai hartan, lagun artean, ez zen babes-**neurri** berezirik hartzen. **Agurtzane Juanena**

Segurtasun **neurriak** sakratuak dira guretzat. **Rafa Egiguren**

Isilpeko arauari jarraiki, arduraz gorde nituen segurtasun-**neurri** guztiak. **Rafa Egiguren**

Lehiakide menderatuak suspertzeko arriskuaren aurkako segurtasun-**neurri** gisa. **Iñaki Mendiguren**

Orain, arriskutik babesteko eta defentsa-**neurriak** hartzeko asmatu izan diren makinei buruzkoak azalduko ditut. **Santiago Iruretagoiena**

Zainketa **neurri** gogorrek hartu beharrean zeuden aurrea. **Karlos Zabala**

Inbasioa gertatzen denerako aurre-**neurri** bat baietz izan! **Josu Zabaleta**

17 doinuaren zati banaketa, eritimoarentzat oinarri gertatzen dena (ikkonpas); bertso lerroak izan behar dituen silaba klase eta zenbatekoa.

Erima eta **neurria**, esate baterako, poesiaren eta bertsoaren berezko osagaiak dira. **Iñaki Arranz**

Berbaldi bakoitzak, edukiak eduki, beti izango du doinu bat, erima bat eta **neurri** bat. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Hizkuntza bakoitzak **neurri** poetiko bat duela. **Beria - Kultura**

Bertsolariak bertsoa **neurri** jakin bati atxikia osatzen du. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Neurri jakin bateko doinua aukeratu du, ordurako bere arrazoibidea silaba kopuru jakin batera tolestu duelako. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Kartzelako lana, hots, bakarka, gaia emanda, hiruna bertso, doinu eta **neurri** librean. **Beria - Kultura**

Jainkoaren eta fedearen lorian **neurri** laburrean idatzi himno eta koplak ziren, beraz, haren lan gehienak. **Aingeru Epaltza**

Neurri batzuen barruan eta buruan bildu dituen erima-hitzeekin une jakin batean esateko gai dena. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Bertso "ikusgarriagoa" egite aldera, doinu-**neurriak** luzeagotu nituen. **Andoni Egaña**

Jatorriz testu neurtua izanda, euskarazko **neurri** moldeetara ekartzeak beste oztobide bat erantsi dio itzulpengintzari. **Beria - Kultura**

· Arimaren denborak beste data batzuk baititu, beste **neurri** batzuk, itsas uhinen antzekoak. **Juan Kruz Igerabide**

Oinazkerik ere ez dut, baina galdu zuen ene bihotzak **neurria**, galdu zuen konpasa. **Joan Mari Irigoien**

18 neurri sup_1 adlag neurritz.

Ni bezalakoa izan behar da; **neurrian** sufritu behar da. **Monika Etxebarria**

Guk bezala egin behar da, **neurrian** sufritu. **Monika Etxebarria**

Barrua pozten eta argitzen du ardoak, bere garaian eta **neurrian** edanez gero. **Elizen arteko biblia**

Errotan bakarrik ez, ardoari ere, **neurrian** beti, irabazia damaio. **Pello Zabala**

19 neurri sup_2 adlag neurri egokian.

Igandeetan, berriz, urdaia banatzen ziguten, eta arroza, **neurrian**, gero astelehenetan eta asteazkenetan hiruna ontza hezur ematen zizkiguten, baba nahiz garbantzuekin batera, lapikokoa egin genezan. **Edorta Jimenez**

Horren soineko polita, tamalgarria izango zen oraindik beste puska batean ez erabiltzea, **neurrian** neukan eta arnas egin nezakeen haren barruan. **Joxan Elozegi**

Maite baitu, maite baitute, dudarik gabe, euskal kultura, baina hori bai: euskal kultura mutu den bitartean eta **neurrian**: eskurik gabe, besorik gabe, eta, batez ere, aho-mihirik gabeko euskal kultura maite dutela, alegia. **Joxerra Garzia**

Lerroka jartzen ziren gizonak, pikoitza eder bat eskutan, eta, **neurrian**, denek batean, altxatzen zuten eta gero lurra uzkaizten. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Hark ere ageri beharko zukeen bezalatsu, nahiz eta **neurrian**. **Mirentxu Larrañaga**

· Emakumearen autoan ebatsi nuen hura nahiko ongi zegokidan, neurri-**neurrian** neukan gainera. **Joxan Elozegi**

20 neurriko izlag ik beherago 28.

Etorri handikoak ziren biak, baina askotan gainezka egiten zuen haien jarioaren uholdeari aurkitu zion Lizarriturrik **neurriko** hesia. **Pako Aristi**

Neurriko ikaslea baizik ez zuen falta bere senari bide emateko, eta Mentxurengan topatu zuen hautagai perfektua. **Josu Landa**

Bi sentimendu hauek geratzen dira, batik batik, ikuslearen gogoan, eta ez legeak itsatsi gura lukeen izu osasungarria; baina **neurriko** zigor jarraikorrekin nagusitzen den sentimendua azkenengoa da, bakararra delako. **Juan Martin Elexpuru**

Bere bizitzako denbora guztiaren zentzu oneko eta **neurriko** izan zela anaiekin. **Askoren artean**

Aurrea hartzen dio haren jakinmin larriari, galdera bat jarri ahoan, eta **neurriko** erantzuna ematen dio... ber-bertan. **Juan Garzia**

Begirada luzea zuzendu zion gero, esatera zihoanari **neurriko** seriotasuna emateko. **Anjel Lertxundi**

Buenos Airesen, gizon atsegin **neurriko** bat zen; La Caledonia-n, berriz, klan baten buruzagi zorrotza, bere arbasoak bezala. **Juan Garzia**

21 neurri adlag ik gorago 18.

Ardoa bizia da gizakiontzat, **neurritz** edanez gero. **Elizen arteko biblia**

Alkoholaren gisakoa da, **neurritz** pizgarria eta, neurritz gain, are hilgarria. **Xabier Montoia**

Afari arina eskatu zuen gonbidatuak, eta arnoa ere **neurritz** edan zuen. **Joan Mari Irigoien**

Atzerazale, geldizale edo astiro ibizale horietakoa zinela idatzi zenuen behin batean; **neurritz**, tamainaz, zuhur (xuhur?), zentzuz, kontuz, tentuz... zen zure eskola. **Iñaki Seguro**

Zentza gaitzazu **neurritz**, ez haserrez, ez gaitzazun ezereztu. **Elizen arteko biblia**

Zuzena da eremu urriko ezaugarriak **neurritz** erabiltzea eta eremu zabalekoei lehentasuna ematea. **Koldo Zuazo**

Hala ere, **neurritz** jokatzeko ahalaginduta, "esango dizut noizbait, zutaz zer pentsatzen dudana" bota nion lehor. **Ramon Saizarbitoria**

Baina beti ere **neurritz**. **Joan Mari Irigoien**

Konfiantza **neurritz** hartzeko edaria dukezu. **Pako Aristi**

22 neurri batean

Neurri batean gizaki orok darama urruti-minaren arantza hori bere baitan itsatsirik. **Joxean Agirre**

Ez da, dena dela, lan teorikoa bakarrik, **neurri batean** teorikoa baldin bada ere. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Neurri batean, uste dut, beldurra ona dela. **Ana Urkiza**

Ikusiko dugun bezala, Eliza bera erromatar herri-administrazioaren onuradun izan zen, eta, beraz, hemen ere, ondarea zeharka transmititu zen **neurri batean**. **Iñaki Mendiguren**

Are gehiago haserretu zen Txixikov gertaturikoa buru argiz aztertu zuenean, orduan konturatu baitzen bera izan zela, **neurri batean**, erruduna. **Jose Morales**

Lanaren banaketarik bazen, izan, **neurri batean**, Erdi Aroan. **Koro Navarro**

Literaturak bere-berea du, **neurri batean** behintzat, alferrikako izatea. **Joxerra Garzia**

Apalategi bakoitza aurrekoaren segida da, baina, aldi berean, bere buruaren jabe **neurri batean** bederen. **Pello Salaburu**

23 neurri bateraino

Neurri bateraino, gibela gauza da substantzia toxikoei aurre egiteko. Eta erantzun hori jasorik, jakin behar du **neurri bateraino** berean setati izaten. **Irene Aldasoro**

Baldin eta agindutakoa zintzo betetzen ez bazuen, emaztearen kontrako **neurriak hartuz** zituzten. **Juan Kruz Igerabide**
Zeregin horretan herriko etxeek, erakunde ofizial gisa, eragin handia dute euskararen aldeko **neurriak hartuz** eta euskararen erabilpena sustatuz. **Herria**
Hurrengo egunetan, apenas irten nintzen kalera, eta atera nintzen bakanetan, **neurriak hartuta**. **Anjel Lertxundi**

32 neurriz gaineko (orobat neurrizgaineko g.er.)

Gizonak bere buruarengan zeukan **neurriz gaineko** konfiantza izan zen bere onetik atera zuen bakarra. **Patxi Zubizarreta**
Begi-ninietako hondo-hondotik begiratzen zidan gogortasun **neurriz gaineko** batez. **Anjel Lertxundi**
Egonaldi **neurriz gaineko** baten ondoren, noizbait ere agertu zen, bada, autobusa izkinan, eta espaloi ondoan frenatu zuen azkenean. **Xabier Olarra**
Heldugabearen erreakzio **neurriz gainekoa** ? ez hori soilik. **Aingeru Epaltza**
Espero den irabazia **neurriz gainekoa** den bezala, eragozpenak ere neurri horretan ugaritzen dira. **Iñaki Iñurrieta**

33 neurriz kanpoko

Ez zuten horretarako inolako "adiskidetasun-itunik" egin beharrik izan, adin horretako mutikoek beren erritu ponpoxo, barregarri, **neurriz kanpoko** suhartasunezko horiek antolatzen dituztenean ohi duten bezala. **Xabier Olarra**
Begira hor, Sancho Panza lagun, non ageri diren hogeita hamarren bat **neurriz kanpoko** erraldi. Ikusezina bazina baino diskretuago ibili beharra dago hemen, ahotsa altxatzea edo protesta edo **neurriz kanpoko** poza eta, oro har, nabarmentzen den ezain jokabide dutxa hotzarekin apaltzen baitute. **Anjel Lertxundi**
Ni deseroso sentitzen hasi nintzen, hura gutzia **neurriz kanpoko**a iruditzen zitzaidan eta. **Juan Kruz Igerabide**
Hain izan baita **neurriz kanpoko**a haren hil-berriari hedabideetan eman dioten lekua. **Joxerra Garzia**
Zigor horiek **neurriz kanpokoak** direla esan zuen Goirizelaiak. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

aurkako neurri (42); **aurre egiteko neurri** (19); **azken neurri** (8); **babes neurri** (18); **babesteko neurri** (7); **badaezpadako neurri** (24); **badaezpadako neurri gisa** (10); **badaezpadako neurri guztiak** (7); **beharreko neurri** (7); **beharrezko neurri** (9); **bermatzeko neurri** (16); **doinu eta neurri** (10); **hainbat neurri hartu** (12); **hainbat neurri hartuko** (7); **hartutako neurri** (13); **kontrako neurri** (16); **kontrol neurri** (20); **kontrolatzeko neurri** (7); **lehen neurri** (9); **lortzeko neurri** (8)
neurri asko (12); **neurri ausartak** (7); **neurri bakarra** (12); **neurri batean** (547); **neurri batean bal** (11); **neurri batean bederen** (14); **neurri batean behintzat** (43); **neurri batean edo** (12); **neurri bateko** (8); **neurri bateraino** (23); **neurri batzu** (12); **neurri batzuk** (35); **neurri bera** (22); **neurri berean** (113); **neurri bereko** (21); **neurri berekoa** (15); **neurri berekoak** (20); **neurri berezi** (12); **neurri bereziak** (54); **neurri bereziak hartu** (11); **neurri berri** (20); **neurri berria** (7); **neurri berriak** (32)
neurri egokia (15); **neurri egokiak** (15); **neurri egokiak hartu** (7); **neurri egokian** (7); **neurri ekonomiko** (9); **neurri eraginkorragoak** (7); **neurri eraginkorrak** (48); **neurri eraginkorrak eskatu** (9); **neurri eraginkorrak hartu** (7); **neurri fiskalak** (8); **neurri gabe** (17); **neurri gabeko** (23); **neurri gehiago** (27); **neurri gisa** (45); **neurri gogorragoak** (11); **neurri gogorrak** (25); **neurri gogorrak hartu** (10); **neurri guztiak** (82); **neurri guztiak hartu** (14); **neurri guztiak hartzeko** (9); **neurri guztien** (10); **neurri handi** (287); **neurri handi batean** (281); **neurri handiagoan** (15); **neurri handiak** (10); **neurri handian** (14); **neurri handien** (8); **neurri handiko** (21)
neurri iragarri (7); **neurri jakin** (13); **neurri legalak** (7); **neurri librean** (11); **neurri moduan** (7); **neurri murriztaileak** (8); **neurri nagusiak** (7); **neurri neurriko** (9); **neurri neurrikoa** (9)
neurri ona (7); **neurri politiko** (9); **neurri politikoak** (10); **neurri proposatu** (16); **neurri sistema** (7); **neurri sorta** (24); **neurri sorta bat** (8); **neurri txikiagoan** (13); **neurri txikian** (9); **neurri txikiko** (7)
neurri zehatz (23); **neurri zehatzak** (68); **neurri zehatzak eskatu** (8); **neurri zehatzak hartu** (11); **neurri zorrotzagoak** (29); **neurri zorrotzak** (84); **neurri zorrotzak ezarri** (11); **neurri zorrotzak hartu** (12); **neurri zorrotzak hartuko** (7); **neurri zorrotzak hartzen** (8); **neurri zorrotzen** (10); **neurri zorrotzik** (7)
prebentzio neurri (10); **saihesteko neurri** (8); **segurtasun neurri** (128); **segurtasun neurri bereziak** (11); **segurtasun neurri gisa** (7); **segurtasun neurri guztiak** (12); **segurtasun neurri handiak** (8); **segurtasun neurri handien** (8); **segurtasun neurri zorrotzak** (15); **zein neurri hartu** (7); **zenbait neurri hartu** (9); **zer neurri hartu** (9); **zer neurri hartuko** (7)
aurkako neurria (8); **beharreko neurria** (7); **benetako neurria** (19); **espero zen neurria** (9); **hartutako neurria** (14)
neurria eman (62); **neurria emango** (7); **neurria ematea** (14); **neurria emateko** (12); **neurria ematen** (37); **neurria hartu** (66); **neurria hartua** (8); **neurria hartuta** (7); **neurria hartzea** (27); **neurria hartzeko** (27); **neurria hartzen** (32); **neurria izan** (13); **neurria izango** (8)
aldeko neurriak (31); **amaitzeko neurriak** (11); **araberako neurriak** (7); **aurkako neurriak** (70); **aurkako neurriak hartu** (10); **aurkako neurriak hartzeko** (8); **aurre egiteko neurriak** (60); **babes neurriak** (19); **babesteko neurriak** (36); **badaezpadako neurriak** (16); **behar diren neurriak** (46); **beharreko neurriak** (57); **beharreko neurriak hartzeko** (8); **beharrezko neurriak** (43); **beharrezko neurriak hartu** (8); **beharrezko neurriak hartuko** (9); **beharrezkoak diren neurriak** (8); **berehalako neurriak** (16); **bermatzeko neurriak** (35); **bestelako neurriak** (13)
egiteko neurriak (71); **eragozteko neurriak** (12); **euskararen aldeko neurriak** (10); **galarazteko neurriak** (8); **gutxitzeko neurriak** (9); **halako neurriak** (10); **hartu beharreko neurriak** (53); **hartutako neurriak** (44); **hobetzeko neurriak** (14); **horrelako neurriak** (18)
izateko neurriak (16); **konpontzeko neurriak** (13); **kontra neurriak** (9); **kontrako neurriak** (52); **kontrol neurriak** (53); **kontrol neurriak zorrotzu** (8); **kontrolatzeko neurriak** (19); **laguntzeko neurriak** (11); **murrizteko neurriak** (16)
neurriak abiatzeko (9); **neurriak areagotu** (17); **neurriak areagotzeko** (7); **neurriak aztertzeko** (8); **neurriak betetzen** (13); **neurriak bultzatu** (7); **neurriak eskatu** (35); **neurriak eskatu ditu** (8); **neurriak eskatzen** (12); **neurriak gogortu** (11)
neurriak har (51); **neurriak har ditzan** (13); **neurriak hartu** (296); **neurriak hartu behar** (64); **neurriak hartu ditu** (22); **neurriak hartu ezean** (18); **neurriak hartuko** (119); **neurriak hartuko dituela** (29); **neurriak hartuta** (8); **neurriak hartuz** (15); **neurriak hartzea** (103); **neurriak hartzeko** (207); **neurriak hartzeko eskatu** (74); **neurriak hartzeko exijitu** (7); **neurriak hartzeko prest** (8); **neurriak hartzen** (91); **neurriak hartzen hasi** (9); **neurriak hartzera** (17)
neurriak indartzeko (7); **neurriak iragarri** (13); **neurriak jarri** (7); **neurriak jasotzen** (7); **neurriak proposatu** (14); **neurriak salatu** (8); **neurriak zorrotzeko** (12); **neurriak zorrotzu** (24); **neurriak zorrotzu dituzte** (10)
prebentzio neurriak (16); **proposatutako neurriak** (12); **saihesteko neurriak** (16); **segurtasun neurriak** (177); **segurtasun neurriak areagotu** (12); **segurtasun neurriak hartu** (8); **segurtasun neurriak zorrotzu** (12); **sustatzeko neurriak** (8); **zigor neurriak** (19)
ahal den neurrian (71); **ahal dudan neurrian** (27); **ahal duen neurrian** (23); **ahal dugun neurrian** (19); **ahal duten neurrian** (12); **ahal duzun neurrian** (7); **ahal zen neurrian** (16); **ahal zuen neurrian** (16)
behar den neurrian (8); **bere neurrian** (43)
hartutako neurriek (8)
hartutako neurriekin (7)
beharreko neurrien (12); **hartu beharreko neurrien** (9); **hartutako neurrien** (13); **neurrien berri eman** (7); **neurrien inguruan** (11); **segurtasun neurrien** (11)
bere neurriko (9); **neurri neurriko** (9)
bere neurrira (15); **neurrira egin** (9); **neurrira egina** (11); **neurrira egindako** (29); **neurrira egindakoa** (7)
aurkako neurririk (13); **kontrako neurririk** (7); **neurririk ez hartzea** (8); **neurririk gabe** (46); **neurririk gabeko** (28); **neurririk hartu ezean** (11); **segurtasun neurririk** (13)
eskubideen kontrako neurritzat (3); **kontrako neurritzat jo** (3)
neurriz gain (65); **neurriz gain baliatu** (12); **neurriz gaineko** (33); **neurriz gainekoa** (12); **neurriz kanpo** (76); **neurriz kanpoko** (78); **neurriz kanpoko** (36); **neurriz kanpoko** (7); **neurriz kanpokoak** (7)

neurribako ik neurrigabe 2.

neurribide iz neurritasuna, neurria.

Bere horretan irauin eta tinko eusten diona zerbait da, hala nola bertutea beti bat baita, eta beronen atal nagusiak eta dotoreenak eratasuna eta **neurribidea** dira. **Imanol Unzurrunzaga**
Zuen **neurribidea** ager bekie gizon guztiei. **Anjel Lertxundi**
Onginahiz eta **neurribidez** gobernatzen saiatu naiz, agintearen gehiegikerietara makurtu gabe. **Elizen arteko biblia**

neurridun 1 izond neurria duena.

Jadanik frogatua da mugitzen den guztia, zalantzarik gabe, **neurriduna** eta zatigarria dela. **Xabier Kintana**
Kopulatzeko Desira hori **neurriduna** izan ala ez, lizunkeria deitzen ohi zaio. **Piarres Xarriton**

Bozketa **neurriduna** deitzen diogu botua emateko sistema berriari: botuen balioa ez da denentzat berdina, atalak hartzen baitira kontuan (irakasleak, AZPkoak, ikasleak), eta atal bakoitzari honenbestekoa egotzi, berdin delarik atal bakoitzean zenbatek ematen duten boza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

neurrigabe *(orobat neurri gabe; Euskaltzaindiaren Hiztegian neurrigabe agertzen da izond markarekin; ik neurri 25)* 1 izond neurririk ez duena.

Hala eta guztiz ere, bere erreakzioa **neurrigabea** iruditu zitzaidan. Haren egitura espiritual eta fisikoaren arabera, basakeria eta gutizia beti **neurrigabeak** ziren harengan, eta bi grina horiek etengabe ari ziren ihesbide bila gerran. Bernardo Atxaga

Zigor eskaera **neurrigabeak**. Berria - Euskal Herria

-Handitasun **neurrigabea** da, behinik behin, egiptoarren berezitasuna, ezta? -mintzatu zen Léa-. Jon Muñoz

Erlijoen aberastasuna izugarria da eta, gainera, gizakion gaitasun **neurrigabea** erakusten digu. Askoren artean

Ez al zen kaosa edo ilunpeetako leize **neurrigabe** hura, kosmosa edo mundu antolatua baino lehenagoko zerbait? Iñaki Segurola

Inolako mugimendurik ez bakardade **neurrigabe** hartan. Josu Zabaleta

Esan beharrik ez dut, gainera, zuen amaren joera gizonzale **neurrigabe** horrek segida izan duela zuetako baten batengan. Aitor Arana

Maitasun miragarri eta **neurrigabea**! Joan Mari Lekuona

Alaitasun lauso baina **neurrigabe** eta ausart baten sentipena. Jose Morales

Ikusi, eta ez luke ulertuko, Jainkoa deritzola jakin arren, eta ulertezintasun **neurrigabearen** oinaze **neurrigabeak** dar-dar eragingo lioke. Jose Morales

2 neurrigabe *(orobat neurri gabeko; Euskaltzaindiaren Hiztegian neurrigabe agertzen da)* izlag neurrigabea.

Inesek Jesu Kristo du bere **neurrigabe** aberastasun, eta ez da hori bezalako segurantzirik. Askoren artean

Nikanorrek, bere **neurrigabe** handikeriaz harrotua, oroitarri bat eraikitzea erabaki zuen. Elizen arteko biblia

Giza konfiantzaren euskarri diren urrea eta zilarra pilatu eta **neurrigabe** ondasunak dituztenak. Elizen arteko biblia

Neurrigabe izulaborri batek hartu zuen hori guztia entzutean. Jose Morales

Ez duzu uste zuzena ez dena zuzengabea dela, eta zuhurra ez dena zuhurtziagabea dela, eta neurritsua ez dena **neurrigabe** dela. Imanol Unzurrunzaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bermea neurrigabea (3); **maitasun neurrigabea** (4)

maitasun neurrigabeagatik (3)

eskaera neurrigabeak (3)

neurrigabe *desira* (3)

neurrigabekeria 1 iz neurririk gabeko egintza gaitzesgarria.

Hala, «**neurrigabekeria**» horren adibidetzat jarri zuen hutsik zegoen lokal baten pertsiara belztea leporatuta 18 urteko espetxe zigorra eskatzen dien gazteen kasua.

Berria - Euskal Herria

Neurrigabekeria guztiak egin zituzten gladiadore ihes eginekin. Juan Garzia

2 neurrigabetasun gaitzesgarria.

Gotorlekuak neurrigabe boterearen **neurrigabekeria** du, dudarik gabe. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gabiltzan duintasunez, egun-argiz bezala: ez jan-edanean eta hordikerian, ez lizunkeria eta **neurrigabekeria**, ez haserre eta norgehiagokerian. Elizen arteko biblia

Beiraren eta metalaren **neurrigabekeria** hartan, Liburuen Dorrea zen betoizko atal bakarra. Jon Muñoz

neurrigabeki *adlag* neurri gabe, neurririk gabe.

Ezartzen dizuten bakartasun sistema hain da zentzugabea, non, erritmo edo arritmia horri jarraitzea ikaragarri kostatzeaz gain, zure baitako larrialdi eta antsiaren sentazioak **neurrigabeki** bizkortzen baitira. Filipe Bidart

Haren aho **neurrigabeki** nekaturia aski mintzo zen bere oinazeaz. Monika Etxebarria

Garraiolari autonomoen Euskal Herriko gehienak hala dira galerak izaten ari dira, gastuak «**neurrigabeki**» ari direlako igotzen. Berria - Harian

Baztan ibaian sekula ikusi gabeko arraina ari dela ugaltzen, **neurrigabeki**. Hasier Etxebarria

neurrigabe *ik* neurrigabe 2.

neurrigabetasun 1 iz neurrigabea denaren nolakotasuna. ik neurrigabekeria 2.

Badira gizon argiak eta gizon onak, baina badira are gehiago, Montaigne bezala, adiskidetasunaren **neurrigabetasuna** doan eskaintzen dizutenak. Joseba Zulaika

Ez du ezerk pozten eta gozaten, **neurrigabetasuna** den Jainkoak bakarrik. Joan Mari Lekuona

Jainkoaren **neurrigabetasunean** ezkutaturik, haren Probidentzia Jainkozkoaren atzean, non nik ezin baihait iritsi ez ikusi, eta nora ez baitira heltzen nire hitzak. Juan Garzia

Hemen gaiaren **neurrigabetasuna** etsigarria da. Iñaki Mendiguren

2 neurririk eza.

Inma Berriozabali ulergaitza egiten zitzaion bera atxilotzeko erabilitako baliabideen «**neurrigabetasuna**». Berria - Harian

neurrigabezia iz neurririk eza.

Kapitalismoaren harrapartzaren irrazionaltasunak bere **neurrigabezia** jabetzen zaila gertatzen zaigun hondamendira garamatza. Iñaki Heras

neurrigainezko izond neurriz gainekoa.

Irakasle pederastak ahots **neurrigainezko** batez erakutsi dit bere desadostasuna. Anjel Lertxundi

neurrigaldu izond neurria galdu duena.

neurriko ik neurri 20.

neurrimendu¹ iz neurria, neurritasuna.

Makurtzen eta beldurpean bizitzen ohitzen badira berdeen eta adoretuen diren adinean, sentimenduak oraindik ia aldatu gabe daudenean **neurrimendua** deitzen zaion esperientziaren eraginez, [...]. **Juan Martin Elexpuru**

Neurrimenduz emaniko zigorren egokitasuna oinarri hartuta. **Juan Martin Elexpuru**

Agintzea gustatzen zaiona, suminkorra, jenio bizikoa, gauza orotan **neurrimendu** gabea, [...] horrelakoa naiz ni bi hitzetan. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

neurrimendu² iz errazionamendua.

Berek, biek ere, ezkontzarako entrenamendua egin behar zuten, eta **neurrimendu**-liburuxkaren eskasiak ahanzaraziko zizkidan janariak atonduko zizkidaten. **Juan Garzia**

neurriño iz adkor neurria.

Jean Pierre Raffarin gobernuburua bera ere arras kezkatua agertu da eta berehala **neurriño** batzu finkatu ditu, minixtroek ere izari bat behar dutela atxiki... **Herria**

neurritatu neurritu(tu), neurritatzen da/du ad neurritu etorri; neurritu ekarri.

Izan ere zenbat ote ziren, desegin beharreko kalteak, zuzendu beharreko okerrak, onbideratu beharreko bidegabekiak, **neurritatu** beharreko gehiegikeriak, ordaindu beharreko zorrak. **Patxi Ezkiaga**

neurritatze iz neurritu etortzea; neurritu ekartzea.

Neurri hori erabakita dagoenean horren gainean egingo da itxura ederra lortzeko egin behar den neurrien doiketa, hain zuzen ere, kanpotik ikusten duenarentzat nabarmen azal dadin **neurritatzea** (*eurhythmia*). **Santiago Iruretagoiena**

Neurritatzeak esan nahi du itxura ederra lortzea, eta elementuen konposizioan egoki proportzionatuko forma izatea. **Santiago Iruretagoiena**

neurritasun (orobat neurtasun g.er.) iz gehiegikerietatik urruntzen denaren jokabidea edo bertutea. ik neurri 12; neurribide.

Bertute aristotelikoak hauek ziren: zuhurtzia, justizia, sendotasuna eta **neurritasuna**. **Berria - Euskal Herria**

Inoren zuhurtziagatik ez da gizakia zuhur egiten, ez eta indartsu inoren indarragatik, ez eta neurritu inoren **neurritasunagatik**, ez eta zuzen inoren justiziagatik. **Imanol Unzurrunzaga**

Neurritz kanpo desiratzen diren gauzetatik irrika aldentzen duen bertutea **neurritasuna** da. **Imanol Unzurrunzaga**

Hain juxtu, beldurra, ergelkeria edo akidura besterik ez denari zuhurtzia, zorrotasuna edo **neurritasuna** deituz. **Patziku Perurena**

Jainkoaren **neurritasuna** egiptoarrak zigortzean. **Elizen arteko biblia**

Ez duzu esateko ezer?, errepikatu zuen aitak, oraingoan oihuka eta **neurritasuna** galduta. **Anjel Lertxundi**

Antzeko **neurritasuna** azaldu zuten erromatarrek hizkuntza ofizializat latina ezartzerakoan beren inperioko probintzietan, non greziera baitzen ama-hizkuntza edo ezarritako lingua franca. **Iñaki Mendiguren**

Batere **neurritasunik** gabe, otsoa ardiatara bezala joan zen. **Askoren artean**

Begira-begira geratu zitzaion don Ottavio, txundituta, **neurritasunik** gabeko miresmenez aintzat hartzen zuela Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Prestatu zeuen gogoa zerbitzurako, eta bizi **neurritasunez**. **Elizen arteko biblia**

Berotasunekin agurtu ninduen eta hamar bat minutuz franko lasaiki solastatu ginen, Abelen heriotza **neurritasunekin** aipatuz. **Daniel Landart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta bizi **neurritasunez** (3)

neurritasunik gabe (4)

neurritsu 1 izond neurritasunez aritzen dena. ik neurritzko.

Inoren zuhurtziagatik ez da gizakia zuhur egiten, ez eta indartsu inoren indarragatik, ez eta **neurritsu** inoren neurritasunagatik, ez eta zuzen inoren justiziagatik. **Imanol Unzurrunzaga**

Esadazu, arren: ez duzu uste zuzena ez dena zuzengabea dela, eta zuhurra ez dena zuhurtziagabea dela, eta **neurritsua** ez dena neurrigabekoa dela. **Imanol Unzurrunzaga**

Aitortzen dut gizakia zuzena ez denean injustua dela; eta gauza bera esango nizuke zuhurrari eta **neurritsuari** buruz. **Imanol Unzurrunzaga**

Adimenez barea, gogoz gozoa, espirituz **neurritsua**, kontenplazioan jaso, otoitzari etengabe emana eta gauza guztietan sutua. **Askoren artean**

Izan atsekabeen eraman handiko, otoiitzean erne, lanean ausart, hitzetan **neurritsu**, jokabidean serio eta mesedeetan esker oneko. **Askoren artean**

Bizimodu antolatuko familia burges-txikia, **neurritsua**, zuhurra. **Oskar Arana**

Bularreko angina sendatua zuela eta ondorenik ez zuela ziurtatu zion arren, zuhurra eta **neurritsua** izatea gomendatu zion. **Patxi Zubizarreta**

Turkiak gobernu berri bat ukanen du beraz, islamist **neurritsuek** moldatuko dutena, hek baitute gehiengo osoa ardietsi berriketan egin diren botzetan. **Herria**

2 neurritz betea.

Bera baitzen, eta ez beste inor, lasterketaren ibilbide **neurritsu** eta egokia galdu zuena. **Imanol Unzurrunzaga**

Musiak bere aldamenen ibiltzen irudikatzen zuen Verner, betiko ibilera zehatz, geldi, **neurritsuarekin**, orpoak lurrean iltzatuz. **Jose Morales**

Kale garbitzaile pila bat hurbiltzen ari zen bidegurutzearen bukaeratik, lerroan jarrita, erratzei kolpe **neurritsuz** eragiten zietela. **Karlos Zabala**

Direnak eta ez direnak ezereztatzen dituen joritasun eragabeari zorrotasun **neurritsuaz** egin nioan buru. **Jon Muñoz**

Ahots bare eta **neurritsu** bat, iruditu zitzaidan, emozio eta doinu-jauzi urrikoa. **Oskar Arana**

Kalezuloan denek ala denek zekiten Buxi doktoarek oso prezio **neurritsuak** zituela, eta merke antzean erosten zituen hortzeriak prezio onean saltzen zituela berriz. **Patxi Zubizarreta**

Dotorezia **neurritsu** batez jantzita dago. **Iban Zaldúa**
Gipuzkoaren zorpetze **neurritsua**, altxortegi sendoa, zerga diziplina eta gizarte eta ekonomia eredu ikertu ostean, «kalitate ezin hobearen kalifikazioa» eman dio. **Berria - Ekonomia**

3 (adizlagun gisa)

Neurritsuago mintzatu zitzaion Perrette: [...]. **Jon Muñoz**
Aurrez aurrekoetan, berriz, beti bezain **neurritsu** jokatzan zenuen, alai eta irritsu ere bai, tratuaeren poderioz bai baitzenekien zer nuen gogoko zer disgustuko. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Orain **neurritsu** ikusten dira, beren indarretara mugatuak, beren barrutia sakon ezagutzen dutela. **Joan Mari Lekuona**

neurritsutasun iz neurritsua denaren nolakotasuna. ik neurritasun.

Nazionalismo espainolaz gain, bere **neurritsutasun** edo uzkursunarentzat Caldera-k beste zio hau ere ematen du: [...]. **Joxe Azurmendi**

neurritu ik neurtu.

neurritzgaineko ik neurri 32.

neurritzko izlag neurritsua, neurritz bete.

Emazte zintzo haiek, seme jator haiek, alaba garbi haiek, merkatar **neurritzko** haiek. **Josu Zabaleta**
Eta arrazoin zuen, halaber, Senekak, noiz eta neurria eta **neurritzko** plazerrak kontseilatzen baitzituen. **Joan Mari Irigoien**
Aurrean, oraindik zutik dirauten XIX. mendeko jauregi bakan horietako bat nekusan, egituraz klasikoa baina **neurritzko** modernismoaz jantzia. **Ramon Saizarbitoria**
Neurritzko prezioa duen kalitateko etxebizitza duina izateko. **Berria - Euskal Herria**
Gradellerenean, Lisak bizitza bare eta **neurritzkoari** eutsi zion, bere irribarre politarekin hango giroa alaitzen zuela. **Karlos Zabala**
Epailearen erabakiak **neurritzkoak** izan behar dute, ustezko delituaren tamainarekin proportzionalak. **Berria - Harian**
Ikusten duzunez, **neurritzkoa** dut mintzaira; ez zait jadanik haizu izen arras ezti horiek, nire bihotzak biziki maite dituen horiek, eta isilean etengabe erraten dizkizunak baliatzea. **Jon Muñoz**
Aditua ez denari ere zalantzarik gabe onak eta garestiak iruditu ohi zaizkion moduko jantziak zeramatzan soinean, **neurritzkoak** eta dotoreak. **Ramon Saizarbitoria**
Negoziazio liskartsuak baztertu eta **neurritzko** soldata igoerak eskatu. **Berria - Ekonomia**
Jakina da armadaren esku-hartze **neurritzko** batek ekarri zuela atzera lasaitasuna barren-gogoetara. **Monika Etxebarria**
Fregeren azterketak a priori justifikagarriak diren proposizio guztiak analitikoak direla dioen enpirismoaren bertsio bat sortu zuen (**neurritzko** enpirismoa). **Askoren artean**

neurritzti iz geometria.

Sizilia uharterean ere aurkitu izan dira hezurrak, beso, hanka, sorbaldeko hezurrak, handiak; beraien handitik garbi dagoke, dorre handiak adinakoak bazirela hezur haien jabeak; hala dioke **neurritztiak** [**Neurritztiak**: geometriak, hots, harmoniak] batera dudarik gabe. **Patxi Ezkiaga**

neurtarazi ik neurrarazi.

neurtasun ik neurritasun.

neurtegi iz neurketak egiten dien tokia.

Airaçq (airearen kalitatearen **neurtegia**) zerbitzuek argitaratu baitzituzten berriki ADA lantegi inguruko airearen erreferentziak, lege zehaztu den baino hiru aldiz plomu gehiago botatzen zuela lantegi horrek agertu zen. **Herria**

neurtezin izond ezin neurtuzkoa.

Atomoaren mundu mikroskopikoan grabitate **neurtezina** da; kosmosean, ordea, unibertsoaren egitura grabitateak sortu du, galaxiena ere bai. **Berria - Gaiak**
Aldeko, aurkako edo erdibideko, denek onartuko dute aho batez bertsoa gauza subjektiboa dela, neurgaitza onenera; **neurtezina** ia beti. **Andoni Egaña**
Garuneko mekanismoak ulertezinak dira; beldurrak eta urduritasunak gizakiarengan izan dezaketen eragina **neurtezina** da benetan. **Berria - Kirola**
Nubia eta Egiptoko indar **neurtezinak** zituen euskarri, Put eta Libiako herriak laguntzaile. **Elizen arteko biblia**
Balio **neurtezinako** beste harribitxi berezi-berezi batzuk. **Ander Irizar**
Egun batez, israeldarrak, itsas hondarra bezala, **neurtezin** eta kontaezin izango dira. **Elizen arteko biblia**
Berdin lantzen ditu bai lerro zuzen neurgarriak eta haien artean **neurtezinak** direnak, bai horiei dagozkien azalera karratuak edo laukizuzenak. **Jon Muñoz**
Aingeru aurpegi horretan ez zen, alabaina, trufa-aierurik, sufrimendu **neurtezin** eta isilaren marka baizik. **Aingeru Epaltza**
Baiki, misterio **neurtezin** eta sakon bat baino ez dago honela batu ahal izateko harmonia minean eta erlijiosoen izakiaren endekatze sendagaitza eta kreationearen gaztetasun betierekoa. **Koldo Izagirre**
Elkarrekiko **neurtezinak** dira diagonal eta alde! **Xabier Kintana**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
elkarrekiko neurtezinak (4)

neurtezingintasan iz neurtezina denaren nolakotasuna.

Elkarrekiko **neurtezingintasuna** ez dago begien bistan! **Jon Muñoz**
Lerroen eta planoen **neurtezingintasun** - eta neurgarritasun-propietateak, lerro arrazional eta irrazionalen existentzia, eta, oro har, Euklidesen X. liburuak daukan guztia eta antzeko gauza batzuk. **Xabier Kintana**

neurtitz 1 *iz pl* hitz neurtuak; hitz neurtuzko idazlana. ik **bertso**; **olerki**.

Neurtitz txarrak aipa daitezke, poeta handi batenak direnean. Jon Muñoz

Mutil horrek arras **neurtitz** ederrak egiten ditu haatik! Jon Muñoz

Paul Valéry-ren *Cimitière marin* delakoa, **neurtitz** alexandrinoetara aldatua. Juan Garzia

Izan ere, planetaren biribiltasun oso-oso eman nahi zuen **neurtitzetan**. Juan Garzia

Gerora baino ez zitzaion sartu **neurtitzak** ontzeko grina enoagarria. Juan Garzia

Eskuak gainean ezarriak eriak sendatzen zituen, eta **neurtitzak** erreztatzen, Homeroren ereduari. Juan Garzia

Adieraz ote zezakeen **neurtitzetan** beraren baitako malenkonia? Irene Aldasoro

Neurtitzen erritmoa sentitu zuen bere inguruan gelan. Irene Aldasoro

Neurtitzez ari zen Garbizu ere, ibaiak bizitza iragankorrek duen antz handiaz. Imanol Zurutuza

2 *sing*

Hitz-lau arruntetik **neurtitz** berezairainoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran, ñabartasun hori ere nolabait gordetzen ahalegindu gara. Juan Garzia

Gure kasuari egokitzeko, azken **neurtitza** honela xüxen daite: [...]. Herria

3 (hitz elkartuetan)

Ez da **neurtitz** -idazlerik, txiripazko eta ezteusena izanik ere, bere soneto perfektua zizelkatu [...] ez duenik. Juan Garzia

neurtizkera *iz* neurtitzak egiteko era edo antzea. ik **neurkera**.

Dena dela, eutsi egin diegu eszena-erremateetako pareatu sarriei, lautu dugun **neurtizkeraren** zantzu gisa, 5/5/8 neurrira egokiturik. Juan Garzia

Ariketa berezi batetara helduak ginen: prosazko testu bat itzuli, ulertzeko, eta latinezko **neurtizkeran** ezarri, zeinek egiten zituen lerro gehienak. Piarres Aintziart

neurtizketa *iz* neurtiztan ontzea.

Harek beti sustatu izan du bertularitza eta **neurtizketa** bertsu idatzian, berak idatziz bezala besterenak gogotik hartuz. Herria

neurtizlari *iz* neurtitzak ontzen dituen pertsona. ik **poeta**; **olerkari**; **bertsolari**.

Parnasoko frantses **neurtizlariak** artifizialak maite zituzten, kokainaz eta morfina hantua. Itxaro Borda

neurtiztu, neurtitz/neurtiztu, neurtizten du *ad* neurtitz bihurtu.

Oi Ofelia laztana, olerkari traketsa nauzu; ez dakit neure lantzuok **neurtizten**; baina maiteen maite zaitudala, ezin maiteago, sinetsi. Juan Garzia

neurtu, neur, neurtzen (*orobat neurritu g.er. eta negurtu g. er.*) 1 du *ad* (zerbaiten) luzera edo kidekoren bat mugatu.

Aretoa **neurtu** gura nuke. Edorta Jimenez

Neurtu zuen, bada, hiria makilaz, eta bi mila kilometrotik gora zen; luzera, zabalera eta altuera berdina ziren. Elizen arteko biblia

Ofizialak zakua eskuetan hartu, lupaz zentimetro bakoitza aztertu, pisatu, **neurtu**, usain egin eta ostikoka ere erabili zuen. Koldo Biguri

Hark **neurtu** zuen aurrenekoz zehaztasunez Lurra. Jon Muñoz

Metro kuboetan **neurtu** behar baita, betelana egiteko. Pablo Sastre

Soka ondo tenkatuaren laguntzaz, hesolatik piramidearen oinarria zegoen distantzia **neurtu** zuten. Jon Muñoz

Sarreraren luzera eta zabalera ere **neurtu** zituen. Elizen arteko biblia

Etxe haren luze-zabala **neurtu** izan balu, [...]. Joxan Elozegi

Ukaldi txikiak jotzen zituen hezurretan, haien lodiera **neurtzeko**, imajinatu nuen eskumuturrean, erlojuaren lekuan, aparatu berezi bat neramala, zunda moduko bat, itsasoaren edo ibai baten sakonera **neurtu** beharrean, puntu geografiko bakoitzaren denbora-sakonera kalkulatzeko zena. Karlos Zabala

Ekialderantz egin zuen gizonak, eta eskuan zeukan kordelxoaz bostehun metro **neurtu** zituen. Elizen arteko biblia

Mugarritik bi arra **neurtu**, eta eskuetan lurra kentzen hasi zen. Ramon Saizarbitoria

Hiri handi honetan distantzia laburrenak ere kilometrotan **neurtu** behar direnez [...]. Joxemari Iturralde

Horrela, bai begiz eta bai ukitzuz, zauriaren tamaina **neurtu** ahal izan zuen. Askoren artean

Egunen batean itzuliko naiz, nire ametsen distantzia **neurtzera**. Lopez de Arana

2 luze/zabal/garai izan. (*Euskaltzaindiaren Hiztegian, soka horrek bost metro neurtzen ditu baino, soka hori bost metro luze da hobesten da*)

Bi metro **neurtzen** zuen bufanda. Jasone Osoro

Phobos [...] forma ez-biribilekoa da eta, gure ilargiarekin konparatuz, adibidez, txiki samarra da: 27 kilometro **neurtzen** ditu alde zabalean eta 19 kilometro estuan. Berria - Gaiak

Horretan behintzat zu baino gehiago naiz, nahiz eta lau oin besterik ez **neurtu**, eta ez dut uste gehiago haziko naizenik, zabalean ez bada. Agustin Otsoa

Eskultura eta arkitekturaren erdibideko panelek 5 x 2,70 zentimetro **neurtzen** dute, eta bi paretetan daude zintzilik. Berria - Kultura

Izotz-azazkal 12-15 zentimetro **neurtzen** dituztenak. Pello Zabala

3 (denbora)

AAU balioak milisekundotan **neurtu** ohi dira. Lourdes Oñederra

Hor ditugu [...] gizakiak denbora **neurtzeko** erabili izan dituen hiru elementu nagusiak: eguzkia, ilargia eta lurra. Pello Salaburu

Egunak, asteak, urteak, mendeak, denak dabilta zinez **neurtzeko** erraza ez den zerbaiten **neurtu** nahian: denboraren iragana. Pello Salaburu

Denbora oso ondo **neurtu** dute. Oskar Arana

Neurtu ez zezakeen une etengabe batez gizona suge erraldoiaren parean aurkitu zen, horma bezain geldo. Itxaro Borda

Doan aldia, suma hala neurtzen dugu; baina iragana, jada ez dena, edo geroa, oraindik ez dena, nork **neurtu**? Imanol Unzurrunzaga

Neurtu ere egiten ditugu, halako aldi zenbat luzeago ala laburrago den halakoren aldean. Imanol Unzurrunzaga

Azken bainua hartu zuenean urpean zenbat denbora pasatzeko gai ote zen **neurtu** nahi izan zuen. Harkaitz Cano

4 (bestelako magnitudeak eta kidekoak)

Pisua ez baita beti kilotan **neurtzen**. Arantxa Iturbe

Uraren tenperatura eskuarekin **neurtu** eta bainuontzian sartu zen. Joxemari Urteaga

Gainazal bat jotzen duen argi kopurua ere **neur** daiteke: argiztapena, hain zuzen; argitzen den gainazal-unitate bakoitzeko argi-fluxu gisa definitzen da, eta *lux*-etan

neurtu da. [Josu Zabaleta](#) da. Nota jakin batetik eskala bat goragoko nota beroretara, maiztasuna, Hz-etan **neurtua**, bikoiztu egiten da. [Lourdes Oñederra](#)

Gaztetxoaren zeregina bertako eskailera altuaren angelua **neurtzea** da. [Harkaitz Cano](#)

Eguzkiak galeriako atearekin egiten zuen angelua begiz **neurtu** zuen. Gero gluzemia **neurtu** behar da. [Joanes Urkixo](#)

Ur-jarioa **neurtzeko**, honela egingo da: [...]. [Santiago Iruretagoiena](#)

Ingeniaritza-materialetan inoiz **neurtu** den frikzio-indar txikiena baino bost edo hamar aldiz txikiagoak dira giza giltzadurretan **neurtutako** frikzio-indarrak. [Irene Aldasoro](#)

Iruñean **neurtu** dute orain arte sekula izan ez duten ur kontsumorik handiena: 1754 pinta ur segunduko. [Herria](#)

Beste indize praktikoa bat ere bada motorraren errendimendua **neurtzeko**: potentzia/pisua erlazioa. [Irene Aldasoro](#)

Orduko 60.000 dukatetan **neurtu** zituzten kalteak. [Pello Zabala](#)

Eskariaren prezio-elastikotasunak eskariaren ehuneko hazkundera **neurtzen** du, ondasun baten prezioa ehuneko bat jaisten denean. [Koro Navarro](#)

Ekonomiaren hazkundera **neurtzeko** erabiltzen diren adierazle makroekonomikoei loturikoak. [Iñaki Heras](#)

5 irud

Izan ere, zuek zein neurritz **neurtu**, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak. [Elizen arteko biblia](#)

Arrakasta salmentekin **neurtzen** bada, hau izan da gure arrakastarik handiena. [Berria - Kultura](#)

Nork **neurtu** du Jaunaren espiritua? nor izan da haren aholkulari? [Elizen arteko biblia](#)

Puntaren zorrotza **neurtu** nuen hatz baten mamiaz. [Anjel Lertxundi](#)

Nola **neurtu** arriskuak dena goitik behera datorrenean? [Josu Zabaleta](#)

Ezingo da ondo **neurtu** ekintza hori giza harremanen hari nahasi eta aldakorrik ikertu gabe. [Juan Martin Elexpuru](#)

Txapelketak antolatu behar dituenak **neurtu** behar du une horretan eta esparru horretan, txapelketa bakoitzak funtziorik betetzen duen. [Andoni Egaña](#)

Edmeak isiltasuna **neurtu** zuen, Elena beste batekin zebilela bazekien arren. [Itxaro Borda](#)

Azken hitzek haiengan izan zuten eragina **neurtu** nahi balu bezala. [Aitor Arana](#)

Gauza guztiak helburu hori lortzeko duten baliagarritasunaren arabera **neurtu** behar direla. [Xabier Olarra](#)

Literatura ez baita **neurtu** litekeen gauza, nor den lehenengo eta nor bigarren zehazteko; are gehiago: lehiaren ideia bera literaturaren funtsaren perbertsioa dela esan genezake. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Oraingo irria urduria izan zen, ezin-eta **neurtu** nire erranak zenbat zuen trufa eta zenbat benazko. [Aingeru Epaltza](#)

Proposatu diren planen alde on eta txarrak **neurtu** eta gero. [Jon Alonso](#)

Hala ere, eztabaidagarria da nola **neurtu** "hobea", edota zein den "helburu hobea" giza garapenean. [Askoren artean](#)

Nire hitzak **neurtu** zituen eta ulertu nuen aspaldi eginak zituela berak nik neure buruari egiten nizkion arrazoibide berberak.*ik beherago* 9. [Jon Muñoz](#)

Gure kontrakoek ikusi eta **neurtu** ahal izan dute ez gaituztela berriz enganatuko. [Herria](#)

6 (objektua indarrak dela)

laz bost aizkolarik **neurtu** zituzten indarrak Itziarren, baina bihar sei izango dira. [Berria - Kirola](#)

-Jakin ezazu, osaba, norbaitek nire aurrean Lancelot salatzen badu, nirekin **neurtu** beharko dituela indarrak. [Juan Kruz Igerabide](#)

Hator niregana, bat bakarra nauk-eta, hirekin bakarka bere indarrak **neurtu** nahi dituen. [Patxi Ezkiaga](#)

Bi bandoek elkarri hamaika segada eta eraso txiki egin ondoren, noizbait indarrak zuzen-zuzenean gudu-zelaian **neurtu** behar zituztela erabaki zuten. [Martin Anso](#)

2002an, apustua eta Urrezko Aizkora irabazi zizkion Mindegiak Arriari; txapelketan ez zituzten indarrak **neurtu**. [Berria - Kirola](#)

Aurtengo denboraldian hiru aldiz **neurtu** dituzte indarrak T auk eta Pamesak, tentsio eta gogortasun handiko jokoa eskainiz. [Berria - Kirola](#)

Henrikeren armagizonek ezpatak herdoiltzera ez utzi nahi eta sar-atera azkarretan **neurtu** zituzten etsaiaren indarrak. [Aingeru Epaltza](#)

Ondorengo bi jardunaldietan Bartzelona eta Deportivoren aurka **neurtu** beharko dituelako indarrak. [Berria - Kirola](#)

Espainiak Holandaren aurka **neurtu** zituen indarrak 3. eta 4. postuetarako lehian. [Berria - Kirola](#)

• 7 da ad indarrak neurtu, lehiatu.

Don Kijotek, adoretu, erronka egiten dio basapiztiari, kaiolatik atera eta harekin **neurtu** dadin. [Patxi Ezkiaga](#)

Hamahiru urte besterik ez zituenean Azpeitiko Komunoron Sakabirekin **neurtu** zen trikitilariari jantzi zitzaion txapela. [Iñigo Aranbarri](#)

Denboraldi aurreko proba guztietan, behin bakarrik **neurtu** dira gainerako taldeekin. [Berria - Kirola](#)

Aurreko denboraldian Reala txapeldun izateko eta Celta Txapeldunen Ligara sailkatzeko borrokan zirela **neurtu** ziren Vigon. [Berria - Kirola](#)

Etxean Zaragoza, Sevilla, Albacete eta Bartzelonaren aurka **neurtu** dira Aguirreraren mutilak tarte honetan, eta bi porrot jaso eta bi berdinketa lortu dituzte. [Berria - Kirola](#)

Galaretako estelarrean **neurtu** ziren atzo Agirresarobe-Etxabe eta Altuna I.a-Urrutia bikoteak. [Berria - Kirola](#)

• 8 du ad bertso lerroetako silabak neurri jakin baten arabera moldatu edo zenbatu.

Bertsogintzan errimatu, **neurtu** eta kantatzeaz gain zerbait aurkitzen ez duenak nekez eutsiko diola bertso-lanari. [Andoni Egaña](#)

Ez da bertsolaririk nahi duena esan eta gainera **neurtu** eta errimatu egingo duenik. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Errima poesiaren ikurtzat har genezake, hitz lerroak **neurtzea** den hein berean. [Iñaki Arranz](#)

Kantatzen, errimatzen eta **neurtzen** dakienak, bat-bateko bertsogintzaren gutxieneko arau teknikoak betetzen ditu beraz. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Eta nahiz eta buru-indar handia xahutu duen inprobisazio hutsaren garaian (almazenetik errimak ateratzeko, ongi **neurtzeko**, hizkuntza akatsik ez egiteko... oraindik gogoan du 40 segundo atzera pentsatu duen esaldia, eta pentsatu bezalaxe du gogoan gainera. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

9 (hitzak, urratsak eta kidekoak) ongi pentsaturik edo neurritz erabili.

Ate itxi baten parean gelditu eta, zaindariatario bateg hura jo orduko, hitzak **neurtu** eta pisatuak nituen. [Aingeru Epaltza](#)

Uste dut ez nituela hitzak oso ondo **neurtu**. [Joxean Agirre](#)

Gero erantzuna ongi **neurtu** eta hizkuntza arranditsu batean formulatu behar duzu, bezeroak ere orakulutzat jo zaitzan. [Juan Garzia](#)

Gerde arretaz urrea eta zilarra, baina **neurtu** zeure hitzak ere kontu handiz. [Elizen arteko biblia](#)

Berritsuen erzapainek inoren hitzak errepikatzen dituzte, zuhurren hitzak ongi **neurtuak** izaten dira. [Elizen arteko biblia](#)

Hurrena eman beharreko pausoak ondo **neurtu** behar dituzu. [Pako Aristi](#)

Hemendik aintzina urratsa **neurtu** beharko: ez luzeegi, lurrari hurbilago, oinetakoak kasik herrestan; bertenez maratoi hau ez dut bururutzen ahalko. [Herria](#)

-Baina geure buruak **neurtzen** jakingo genuela esan dio. [Josu Zabaleta](#)

10 (era burutua izenondo gisa)

Bizkarrak uzkurto nituen, anarterainoko hoztasun **neurtuaz**. [Aingeru Epaltza](#)

Urrun doan ibiltariaren baitan zuhurtziak ezartzen baitu jasankortasun iraunkorra, indar **neurtu** bat, etengabeko piru bat segitzen balitz bezala. [Piarres Aintziart](#)

Nagusia ihardetsi egin zion, doinu **neurtu** batez oraindik, baina urduri samar hura ere. [Josu Zabaleta](#)

Ustekabeen pasatu zait denbora, kontzeptu **neurtu** eta beti berdin hori. [Anjel Lertxundi](#)

Olerki **neurtuek** diziplina eta logika handia eskatzen dute, idazteko metodo jakin bat... [Ana Urkiza](#)

Gurasoen hitz **neurtu** bezain komenientziak zio haien aitzinean, [...]. [Joan Mari Irigoien](#)

ik beherago 13. [Askoren artean](#)

Poesiak eskaintzen du bereziki, bere lerro **neurtuetan**, akrostikoetarako parada egokia. [Iñaki Arranz](#)

Alkatea ere jakinean dago -izan ziren neskatxaren hitz **neurtu** eta apalak. [Felipe Juaristi](#)

Jatorriz testu **neurtua** izanda, euskarazko neurri moldeetara ekartzeak beste oztzopobide bat erantsi dio itzulpengintzari. [Berria - Kultura](#)

Eta isekazko ateraldi batekin trufa erordez, azalpen oso eta **neurtu** bat eman zion. Oskar Arana

Azken finean Costa gizon handia da, eta **neurtua** bere adierazpenetan. Jon Alonso

11 ezin neurtuzko

Elkar ezagutzen ez duten jendeen arteko jestu horiek, ebaska bezala eginak direlarik, badukete, ez idurian, adiera sakon zerbait, senditzen den erranahi bat, analisatu nahi ez dudana funtsean, atxik dezaten jestu horiek beren baitan **ezin neurtuzko** kar hori. Piarres Aintziart

*Moskoe-ströme*k erdian duen sakontasunak **ezin neurtuzkoa** izan behar du. Koro Navarro

Katedraleko dorreak egon beharrean meskita nagusiko alminarra egon izan balitz, ez zuen ikusten ahalko, zen bezain meharra izanik, aereoan, **ezin neurtuzkoa** kasik. Jon Alonso

Baratze eta laborantzan kalte **neurtu ezinekoak**; 450 fabrika, berriz, kalteak jasandakoak. Pello Zabala

12 hitz neurtu

Hitz lauz zein **hitz neurtuz**. Iñaki Arranz

Esaldi motzak, **hitz neurtuak**, elkarrizketak isiltasunekin sujerituak, gutunak... denetarik agertzen zaigu kontakizunaren feria txiki honetan. Berria - Kultura

Lehen hurbilpen xalo horretan, horrelako zer edo zer uler lezake aurreiritzirik gabeko irakurleak, **hitz neurtu** bihurriak hitz lau zabar batera bihurtuta: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontaera hogeita lau kantutan banaturik dago, **hitz neurtuan** originalean. Juan Kruz Igerabide

Bere amodioa eta zorabioa azaldu zion, nola hitz lauan hala **hitz neurtuan**. Patxi Zubizarreta

Bertsulari sentikorra, **hitz neurtu** sakonez, bere sentimenduen berri zazkienak zabalzten. Herria

Bi arimaren poza eta zorianaz mintzatu zen, eta Wertherrek Karlotari idatzirik **hitz neurtuzko** gutuna irakurtzen hasi zitzaion Sobakevitxi. Jose Morales

Ipui onac liburuan ere parte hartu zuen Juan Antonio Mogekek, hark idatzitako **hitz neurtuzko** zortzi alegia baitatoz amaieran Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arabera neurtu (10); **aztertu eta neurtu** (3); **behar bezala neurtu** (5); **bere indarrak neurtu** (3); **distantzia neurtu** (6)

egoera neurtu (3); **emaizak neurtu** (3); **erabilera neurtu** (4); **eragina neurtu** (4); **hitz neurtu** (5); **hitzak neurtu** (3)

ikusi eta neurtu (3); **indarrak neurtu** (24); **maila neurtu** (6); **neurritz neurtu** (3)

neurtu bat (4); **neurtu behar** (53); **neurtu behar ditu** (6); **neurtu beharko** (35); **neurtu beharko ditu** (7); **neurtu beharra** (3); **neurtu dituzte indarrak** (9); **neurtu gaituenaren batura** (4); **neurtu izan** (4); **neurtu nahi** (28); **neurtu nahi izan** (7); **neurtu nahian** (5); **neurtu ondoren** (7); **neurtu zituen indarrak** (6); **neurtu zituzten indarrak** (25); **neurtu zuen gizonak** (3)

nola neurtu (7); **nork neurtu du** (3)

ondo neurtu (21); **ongi neurtu** (11); **oso ondo neurtu** (3); **oso ongi neurtu** (3)

taimana neurtu (3)

ondo neurtua (3); **pase neurtua** (3); **ura neurtua** (4)

hitz neurtuak (3)

arabera neurtuko (3); **aurka neurtuko** (38)

indarrak neurtuko (17); **indarrak neurtuko dituzte** (11); **irabazlearekin neurtuko** (3); **kontra neurtuko** (19)

neurtuko ditu indarrak (54); **neurtuko dituzte indarrak** (109); **neurtuko zaituzte** (3)

pisu neurtuko (3); **probatan neurtuko dituzte** (3); **ruben belokirekin neurtuko** (4); **ruizekin neurtuko** (3); **talde batekin neurtuko** (4); **talde neurtuko dira** (3); **taldeek indarrak neurtuko** (3)

ondo neurtuta (4)

ondo neurtutako (5)

arabera neurtuz gero (3); **hitz neurtuz** (6); **hitzak neurtuz** (8); **igurtziz edo neurtuz** (3)

hitz neurtuzko (3)

ezin neurtuzkoa (3)

eragina neurtzea (3); **indarrak neurtzea** (4)

arrazakeria neurtzeko (4); **autisten adimena neurtzeko** (3); **denbora neurtzeko** (7)

erabilpena neurtzeko diagnostika (3); **eragina neurtzeko** (16); **eraginkortasuna neurtzeko** (4); **euskara maila neurtzeko** (3); **euskararen erabilpena neurtzeko** (3); **garrantzia neurtzeko** (3); **genero eragina neurtzeko** (4); **gorputzeko temperatura neurtzeko** (3); **hitzak neurtzeko** (4)

indarra neurtzeko (6); **indarrak neurtzeko** (14); **kalitatea neurtzeko** (7); **kalteak neurtzeko** (4); **kopurua neurtzeko** (3); **maila neurtzeko** (14)

neurtzeko aukera (9); **neurtzeko balio** (3); **neurtzeko balioko** (5); **neurtzeko diagnostika bat** (3); **neurtzeko era** (3); **neurtzeko erabili** (4); **neurtzeko erabiltzen** (8); **neurtzeko erabiltzen diren** (3); **neurtzeko gai** (3); **neurtzeko gailuak** (4); **neurtzeko ikerketa** (4); **neurtzeko modu** (7); **neurtzeko orduan** (7); **neurtzeko sistema** (7); **neurtzeko tresna** (7)

sasoia neurtzeko (4); **tenperatura neurtzeko** (4); **tenperatura neurtzeko gailuak** (3)

arabera neurtzen (25); **denbora neurtzen** (5)

egoera neurtzen (5); **enpresaburuen konfiantza neurtzen** (3); **hauteskundeetan neurtzen** (3); **hobeto neurtzen** (3)

indarrak neurtzen (5); **kalitatea neurtzen** (5); **konfiantza neurtzen duen** (4); **neurtzen hau hi** (3); **neurtzen jakin** (4); **neurtzen saiatu** (3); **neurtzen saiaturen** (3); **ondo neurtzen** (8); **ongi neurtzen** (4); **oso ondo neurtzen** (3); **zerk neurtzen hau** (3)

ametsen distantzia neurtzera (3)

neurtugabe *izond* neurtu ez dena.

Oso ezjakina da baieztapen ausarten edo komunitatearen zati handi eta onena jadanik bere alde duen zerbaiten aurkako eraso **neurtugabe** jakinak arriskutsutzat jotzea; izan ere, honek beraiei izan behar ez zuten garrantzia ematea esan nahi du. Ibon Uribarri

neurtzaile 1 *izond/iz* neurtzen duena.

Horren guztiaren atzean arrazoia ari da lanean, *logos* **neurtzailea**, nahiz eta *daimonak* mitoen irakaspen ez eroak ufatu. Askoren artean

Baina **neurtzaileok** ez dira presondegietakoa funtzionarioak. Koldo Izagirre

Hitz **neurtzaile**, musikatzaille, hauxe aberastasuna! Herria

Azterketan Europako Hizkuntzen **Neurtzaileen** Elkartearen (ALTE) irizpideak erabiliko dituzte. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Arabiarren eta beste hainbat maiuren zientzia geografikoa eta lur-**neurtzailea**, garai haietan, nahi den auzeratuaren egonik ere, ez dago sinesterik planetako lur-azalean caaba baten kokapena mugatzen jakingo zutenik Jon Alonso

3 *angelu-neurtzaile iz* angeluak neurtzeko tresna.

Mapamundi bat, erregelak eta angelu-**neurtzaile** bat. Joan Mari Irigoien

Mapa bat hartu hemendik, bertze bat handik, erregela eta angelu-**neurtzailea** eskuan, sukarrak hartua bezala bere kalkulua egiten Joan Mari Irigoien

neurtze *iz* (zerbaiten) luzera edo kidekoren bat mugatzea; zernahi magnitude mugatzea.

Erregeak, lur-**neurtze** lanak finiturik, bilkura itxi zuen, berau jaso gelditi zedin dagokion bilkura-akta idatzi zen, eta Raimundo Silva etxerantz itzuli zen, arratsa aurreratu zegoen eta. Jon Alonso

neutraltasun *(39 agerraldi, 12 liburu eta 21 artikulutan)* 1 iz neutrala denaren nolakotasuna.

Termino hori aurkezteko erabili den **neutraltasuna** harrigarria da; gaur egun, "garapena" esanez gero edozein gauza uler dezakegu ia-ia. [Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde](#)

Batzordearen **neutraltasuna** izango da gakoa. [Berria - Kirola](#)

Zenbait gizarte-zientzialarientzat, positibistentzat, gizarte-zientzietan ez da balio-iritzirik eman behar, eta erabateko **neutraltasuna** lortu behar da. [Iñaki Heras](#)

Max Weber-entzako edozein fenomeno sozialen ikertzailearentzat obligazio etiko eta eskakizun metodiko baitezpadakoa da **neutraltasun** eta objektibitate absolutua. [Joxe Azurmendi](#)

Indiferentzia ideologikoa edo **neutraltasun** erlijiosoa. [Joxe Azurmendi](#)

Terrorismoaren aurrean **neutraltasunik** ezin da erabili, informatu bai baina propaganda egitea ez da inolaz ere zilegi, eta biktimek ez dute horrelako irainik merezi. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Moskuk Georgjan duen enbaxadore Vladimir Txjivshviliik bere agintariak «**neutraltasunez**» jokatuko dutela adierazi zuen atzo. [Berria - Mundua](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neutraltasun hauste auzi bat. [Berria - Mundua](#)

Kargutik kentzeaz gain «konfiantza galeragatik», behin-behinean etxean atxilotuta edukiko dute buruzagi militarra, «aukera politikoekiko **neutraltasun** betebeharra urratu» duela argudiatuta. [Berria - Mundua](#)

Justiziaren ikur tradizionala dut gogoan, haren balantza, haren itxura barea, **neutraltasun** seinale modura hostoz gainezkatzen den eremu hori. [Berria - Harian](#)

neutrino iz elektroiaren kide den partikula elementala, karga elektrikorik ez duena.

Korronte neutroak aurkitu zituzten, **neutrinoak** erabilia. [Berria - Gaiak](#)

Wolfgang Pauli, bere garaiko fisikaren egoerarekin etsita zegoen bolada batean, depresio latz baten mendean erori zen, eta orduantxe omen zuen, beste etsimenduzko kolpe batean, **neutrinoaren** hipotesia bota. [Iñaki Segurola](#)

neutro 1 iz ezaugarri nabaririk ez duena.

Ahots **neutro** gizabidetsu batez, kortesia galdu gabe betiere, aski izan zuen erantzun sendoago hau emanik. Haren ahots **neutro**, grinarik gabea barnea kiskaltzen zion pindar bortitza mozorrotzeko baizik ez zen. [Joxan Elozegi](#)

Behar-beharrezkoa izanez gero, hitz **neutro** onargarria *penis* da. Josuren mintza-doinu betiere **neutroak** begiak buhurrazai zikidan. [Oskar Arana](#)

Aurpegiera **neutroa** jarri zuen Ruche jaunak, barrutik estutzen zuen zirrara agerian ez uzteko. [Jon Muñoz](#)

Giroa oso **neutroa** zen, eta bazuen antza zure ume jaioberria kristal batzuen gibeletik ikustera joaten zaren gela horiekin. [Pello Salaburu](#)

Bigarren koka takadak ez zidan mintzamen itzuli, baina, whiskyaren eta zerbezaren laguntzaz, ez ongiezik ez bozkariorik gabeko egoera **neutro** batera igorri ninduen. [Aingeru Epaltza](#)

Ikuslearen denbora ez da jario beti berdin eta **neutro** bat, ekintzak kokatuz doazen ontzi bat; oso bestela baizik: ekintza horiek beroriek determinatzen dute denbora. [Josu Zabaleta](#)

Zoriontasuna doinu **neutro** eta idor batekin deklaritzen da jeneralean, eta, zergatik ez esan, etsipen aire batekin, etsitzen jakite bat baita zoriontasun deklaratu. [Iñaki Segurola](#)

Edifizio **neutro**, kolore bako, garden eta funtzionala. [Berria - Kultura](#)

2 dauden aukeren artean inongora makurtzen ez dena. ikneutral.

Historia dela bazter nahasle, eztabaida piztaile, ez bere baitarik, **neutroa** baita -izan behar luke segurik- baina gizonek bereganatzen baitute beti eta hola bata bestearen kontra altxatzen direlaketoz. [Michel Oronoz](#)

Ez dagokit juzkatzea, deskribapen ahalik **neutroena** baita nire zientziaren lanabes behinena. Ez dago enuntziatu orokorrik, enuntziatu askerik, **neutro** eta burujaberik. [Anjel Lertxundi](#)

Ez dira egitasmo **neutroak**, ezta neutralak ere. [Berria - Euskal Herria](#)

Idaztea ez baita ekintza **neutroa**. [Berria - Kultura](#)

Ez da erraza hura era **neutroan** deskribatuko duen inor aurkitzea. [Berria - Gaiak](#)

Bada banakuntza bat batetik emozioaren ikuspegi "**neutroen**", emozioa ekimenaren arautzaile hartzen dutenen, eta bestetik emozioa subjektuaren emaitzen beheraldiekin batera gertatu ohi den disfuntzioaren erakusgarri bezala hartzen duten ikuspegi negatiboagoen artean. [Josu Zabaleta](#)

Bokal fonemak hizkuntza batean bi nolakotasun edo tinbre sorta (bata "argiagoa" eta bestea "ilunagoa") osatzen badituzte, edo kopuru bereko bi fonema sorta dira, edo fonema **neutro** bat ere badago. [Lourdes Oñederra](#)

Tautologia eta antilogia ez den formula bati **neutro** esaten zaio. [Askoren artean](#)

3 gramatikan, jenero bereizketa sexuaren arabera egiten duten hizkuntzetan, arretarikoa nahiz emetarikoa ez dena.

Era berean, esan dezakegu indoeuropar hizkuntzak bazuela **neutro** singularreko -*d* bukaera, adjektiboek agertzen zuten -*m*-tik desberdina zena, pronominala esaten diogun flexioan. [Isabel Arrigain](#)

Gizon eme handia naiz, gizon ar handiak gizon ar handi diren modu berean, ez bilatu ilargia eguerdian, gure espeziearen izena maskulinoa da eta ez **neutroa** kasualitatez besterik ez, beharbada horrela izango da beste hizkuntzaren batean ere, gramatikak ez du zeresanik kasu honetan. [Karlos Zabala](#)

4 kimikan, ez azidoa ez alkalinoa ez dena.

Aurretiazko kalkulu zuhurrik egiteko gauza ez, tornasolera erreakzio **neutroa** emateraino nahastu genituen, eta nahastea izugarri berotu zen noski, ke zuria zeriola borbor. [Juan Garzia](#)

Atsegin handiz hartzen dute atsedena beren sentipen gaiztoek sorrarazten dieten barne-garraztasunetik, hiperklorhidriko batek gai **neutro** bat irensten duenean bezalaxe. [Josu Zabaleta](#)

neutrofilo iz giza odoleko leukozito mota ugariena, bakterioak eta ondoak fagozitatzeko egitekoa duena.

Neutrofiloak immuno sistemako zelulak dira berez, koloratzaile neutroz tindatzen diren zelulak. [Berria - Gaiak](#)

Zientzialari espainiarren arabera, **neutrofilo** horiek tumore gaizto baten gainean egiten duten presio mekanikoak minbiziaren garapena oztopa dezake. [Berria - Gaiak](#)

Neutrofiloak minbizia garatea eragotzi dezaketela uste dute. [Berria - Gaiak](#)

Neutrofiloak zelula gaiztoen haztea eragozteko ez ezik, tumoreak deuseztatzeko gai ere izan zitezkeela. [Berria - Gaiak](#)

Tumoreak inokulatu eta denbora batera ikusi zuten tumorearen inguruan zeuden **neutrofilo** zelulek egindako presioak minbizia eragiten duten zelulak zabaltzea eragozten zuela. [Berria - Gaiak](#)

neutroi 1 iz atomoaren nukleoko partikula elementala, karga elektrikorik ez duena.

Berilio oso elementu kimiko arina da, forma egonkorrean eta ohikoenean, Berilio 9a lau protoi eta bost **neutroi** ditu nukleoan. Berria - Gaiak

Protoien eta **neutroien** osagaiak quarkak elkarturik gordetzen ditu indar horrek. Berria - Gaiak

Fusioa protoiak eta **neutroiak** hartzen dira kontuan. Fernando Morillo

Neutroi baten bidez uranio-nukleo bat zatitzen da. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Alde egin aurretik, ordea, argazkiak atera zituen, 200 bonba atomiko, **neutroi** lehergailuak eta soilik lau kilo plutonio behar zuten mikrobonbak agertu zituen irudiotan, alegia.

Berria - Mundua

Topatu zuen: izar arruntek, eguzkia bezalakoek, **neutroi**-izarra izan zezaketen euren nukleoetan. Fernando Morillo

Beste teoria baten arabera, bi **neutroi** izarren topaketak sortzen ditu gamma izpien flashak. Berria - Gaiak

neutropenia iz odoleko granulozitoak gutxitzea.

Haietako batzuk **neutropenia** izan zuten, leukozito kopurua gutxitzea. Berria - Gaiak

neutrotasun iz neutroa denaren nolakotasuna.

Gutierrez ere bartz segundoko lana eman zion pantera zaurituaren bisaia **neutrotasun** dudatsu batera mudatzeak. Aingeru Epaltza

nevadatar izlag/iz Nevadako, Nevadari dagokiona; Nevadako herritarra.

Gutxi ziren, hala ere, etxe hartara edariaren edo sexuaren egarriz joaten ziren **nevadatarrak**; asko eta asko, aldiz taberna edo saloiaren atzeko ate ezkutua gurutzatuz, etxearen Kaliforniako aldeko joko-aretoa joan ohi zirenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

newtondar izlag

Izadiaren historia orokorra eta zeruaren teoria edo mundu-erakin osoaren sorkuntzari eta jatorri mekanikoari buruzko saialdia, **newtondar** printzipioen arabera. Ibon Uribarri

Kantek bere garaiko zientzia fisiko-matematikoaren -batik bat, **newtondarraren** -sistemarekin erkatu gura zuen filosofia. Askoren artean

1769/1770 inguruan itzultzen da Kant indarberritua aurreko proiektura: zientzia, hau da, **newtondar** Natur Zientzia bereziki edo zientzia enpirikoa oro har, eta Metafisika bateratzera. Ibon Uribarri

newyorkar ik newyorktar.

newyorkdar ik newyorktar.

newyorktar (orobat newyorkar, newyorkdar g.er. eta new yorktar) 1 izlag New Yorkoa, New Yorcki dagokiona; New Yoriko biztanlea.

Newyorktar lagun batzuk itaundu nituen. Aurrekontu oso apal batekin, poliki-poliki erotzen joango den artista **newyorkar** baten Ferrara bera gorabeherak kontatzen ditu filmak. Iñaki Zabaleta

Udabidean turistak eta **newyorktarrak**, lehenak [...], bigarrenak hiri zalapartatik minutu batzuetan atsedendu nahiz, eskailera horietan jartzen dira. Iñaki Zabaleta

Estatu Batuetan, adibidez, txastar batek aukera handiagoa du heriotza zigorrera kondenatua izateko epaiketa batean **newyorkar** batek baino, eta beltz batek askoz ere arrisku handiagoa du zuri batek baino. Pello Salaburu

Ennio Morricone handiaren estudioan eta jatorri italiarreko **new yorktar** baten ekoizpenarekin. Berria - Kultura

Baina orain gaizkileekin baino areago, hiria okupatzen duten milaka poliziekini ibili behar dute kontuz **newyorkdarrek**. Harkaitz Cano

Ohartu orduko, gitarra mafrunditu batek atezuan jarri ninduen, eta **newyorktarrak** listu egin zidan bozgorailu beltzetik: [...]. Aingeru Epaltza

nexka ik neska.

nexkagazte ik neska 11.

nexkato ik neskato.

nexkatto ik neskato.

nexkatxa ik neskatxa.

nezesarioki adlag nahitaez.

-Nezesarioki! Menane Oxandabaratz

nezeser iz norbera txukuntzeko gauzak eramaten diren estutxea.

Zazpiak jo bezain laster komunean sartu da Yolanda, eskuko poltsatik atera berri duen **nezeserra** eskuan duela. Eider Rodríguez
Maleta handiaren barnekaldeko kremailera txikian sartuko duzu, **nezeserrear** egunero ikusiko zenuke. Hortzetako zepiloa eta bizarra kentzeko makina **nezeserrear** bildu, eta hau ere maletatxora. Lourdes Oñederra
Hortzetako zepiloa eta bizarra kentzeko makina **nezeserrear** bildu, eta hau ere maletatxora. Mikel Hernandez Abaitua
Emakumeen **nezesar** zahar, eder bat, karnalitazkoa, barruan guraizeak, berana eta denetariko kosmetika-tresnak zeuzkana. Anton Garikano
Iratzargailuari orratzak gerarazi eta **nezeserraren** ondoan jarri zuen. Harkaitz Cano

nezesidade ik **nezesitate**.

nezesitate *(orobat nezesidade) iz* beharra.

Zergatik erran ote zuen osaba Joanikotek hura, **nezesitaterik** ez zuenean [...]? Joan Mari Irigoien
Mignonen gorputzaren zoko bakoitzean pot egiteko **nezesitate** hura. Joan Mari Irigoien
Beharaldi batean kalean **nezesidadez** konplutuz gero, zure gernu isuria urre ordainez kobratuko dizu hemengo Udaltzaingo beti ere erneak. Aingeru Epaltza

ni 1 *izord*

2 (izen gisa)

Nire **ni** ausartak barre egiten zion nire **ni** beldurtiari. Josu Zabaleta
Ez du oraindik galdu, ezin du galdu bere **ni**, **ni** oinazeztatu hori, odoletan dagoena eta akabatu nahi izan ez dutena. Monika Etxebarria
Izan ere, **nia** nire pentsatzearen kontzientzia besterik ez da. Ibon Uribarri
Baina arima, edo **nia** pentsatzailea, halakoa da. Ibon Uribarri
Nire **"Ni" a** ez ezkutatze eskubidea. Ana Urkiza
Nia da ni naizena. Ana Urkiza
Lehenik, subjektuaren barne haustura daukagu: Legearen hitzarekin bat egin duen **nia** eta Lege horren aurka borrokatzen den desira ez-zilegia. Joseba Zulaika
Galdetzen badut ea nola bereizten den nik pentsatzen dudana **nia** bere burua begiesten duen **niatik** (begiesteko beste erak gutxienez ahalgarriak bezala irudika ditzakedan heinean) [...]. Ibon Uribarri
Descartesen aburuz, **niak** ezaugarri batzuk baldin baditu [...] **nia** azaltzeko aukera bakarra ezaugarri horietariko bakoitza gogotik kanpoko zerbaitek kausatzen duela jakiteak emango liguke. Askoren artean
Niak eta zuak begiak dituzte, zainak, hezurrak. Berria - Kultura
Zure **Niaren** eta obraren artean badago bereizterik? Ana Urkiza
Miresten gaituena maitatzen dugu, **"ni"-ari** men eginez? Andoni Egaña

nibel 1 *iz* galga.

Eraikuntzen orubeetan trazak egitea, eskuairak, **nibelak** eta lerroak erabiliz. Santiago Iruretagoiena
Nukleoaren gainean zoladura jarriko da erregela eta **nibelarekin** doi-doi berdinduta, marmolezko losazkoa edo mosaikozkoa. Santiago Iruretagoiena
Zentzuzkoagoa da misilek eta itsaspekoek erabiltzen duten orientazio-sistema inertzialarekin konparatzea labirintoa, edo, konparaketa sinpleago batera etorri, burbuilazko hiru **nibel** biltzen dituen tresna batekin. Irene Aldasoro
Eraikuntza horretan, justizia erabiliko dut plomutzat, zuzenbidea **nibeltzat**. Elizen arteko biblia

2 maila.

Berrogeita hamar mila libera balio zuten oholez beteriko ontzi bat harrapatuta trabeska paratu zuen enbatak estuneko bigarren dartsenan sartzen zelarik, eta portura heltzeko ahalegin hartan itsas **nibeletik** hirurogeitaka oinera jaurti zuen uhin batek harkaitzetan gora. Koldo Izagirre
Oinaze-eragileak ankertzen doazen heinean, gizonen arimak ere gogortu egiten dira, isurkinak eta beren baitako gauzak **nibel** berean jartzen diren moduan. Juan Martin Elexpuru

3 nibelean

Plataforma hori **nibelean** egingo da zabalerraren ia erdiraino. Santiago Iruretagoiena
Hondoraino iristen direnean, azpitik ez zaizkie hodiei oso egitura altuak egingo, **nibelean** joan daitezen ahalik eta biderik luzeenean. Santiago Iruretagoiena

4 ke *nibel interj adkor*

Ke **nibel** !-hau da, hau, ero koadrila! Berria - Kirola

nibelatu, nibela, nibelatzen 1 *da/du ad* maila berean jarri.

Galburu moduan jarritako adreilu tiburtinoak ere arreta handiz egin behar dira, ez dezaten hutsunerik edo konkorgunerik izan, eta egon daitezen ondo zabaldua eta erregelarekin **nibelatuta**. Santiago Iruretagoiena
Barru harresituaren eta iturburuaren tartean mendiak baleude, lurrazpitik tunelak egingo dira eta goian azaldu dudana malda horren arabera **nibelatuko** dira. Santiago Iruretagoiena
[Arkimedese]k uste duelako ura ez dagoela **nibelatuta**, baizik eta esfera-forma duela. Santiago Iruretagoiena
Ura **nibelatutako** gainazal batetik gora igoarazten denean, era asko eta askotako aire-kolpe naturalak sortzen dira. Santiago Iruretagoiena
Nik uste, horrekin arraunlaria gehiago egiten dela, hura ez da sartu eta tira, **nibelatzen** ere ikasi behar da, batez ere itsaso txarrean. Berria - Kirola
Gaurko egunean, berriek munduaren itzulia egiten dute laster, gure **nibelatzeko** eta berdintzeko bezala, eta hanbat gaixto hori gure ohidura on eta nortasun pindartsuendako. Herria
Ekialdea eta mendebaldea bereizten dituen mugak [...] munduaren goiko aldea eta beheko aldea banantzen diren lekuan, dirudienez berez **nibelatutako** zirkunferentzia moduko bat duela, astronomoek horizontea deitzen dutena. Santiago Iruretagoiena

2 irud/hed ik **orekatu**.

Amodiotik erretiratua zaudela diozu, desorekatu zintuen nahigabe batetik irten eta zeure izaera berriro **nibelatzeko** ... Pako Aristi

nibelatze *iz* maila berean jartzea.

Koska nabarmenak badira, seinale aire-masen **nibelatze** horretan haize bortitza dabilena: zenbat eta presio-gradientea pikoagoa izan, orduan eta haize latzagoa. Pello Zabala

nibelazio *iz* nibelatzea.

Lehenengo urratsa **nibelazioa** egitea da. **Santiago Iruretagoiena**

Agian, Arkimedesen liburuak irakurri dituenak esango du urarekin ezin dela benetako **nibelaziorik** egin, hark uste duelako ura ez dagoela nibelatuta, baizik eta esfera-forma duela eta lurraz zentroa duen leku berean duela hark ere bere zentroa. **Santiago Iruretagoiena**

nibelungo *iz* germaniar mitologiako herri bateko kidea.

Richard Wagnerren *Der ring des nibelungen* (**Nibelungoen** eratzuna) opera tetralogia. **Berria - Kultura**

nickel *iz* dolarraren bost zentimoko txanpona.

Neskak dolarra aldatu eta bi **nickel** sartu zituen zirrikitutik. **Lopez de Arana**

Mutila zenbatzen hasi zen eskuan zeuzkan **nickelak**. **Lopez de Arana**

Poltsikoak zulatuta zeuzkanez, alkandoraren hegale batean lotu zituen **nickelak**. **Lopez de Arana**

-Aizak, Freddy, **nickel** bateko isuna biraoak esateagatik. **Lopez de Arana**

Tira, ipini **nickel** bat pianoan. **Lopez de Arana**

-**Nickel** bat gorde behar dut, bihar bulegora joateko. **Lopez de Arana**

Ez niokek **nickel** faltsu bat ere utziko. **Lopez de Arana**

nietzschear *(orobat nietzschetar g.er.) izlag* F. Nietzscherena, Nietzscheri dagokiona.

Baroja ezbaian dabil bere baitan, eta urte batzuetan ibili zen horrela, **nietzschetar** ekintza-gizonaren eta begiesle huts gogogabearen artean. **Josu Zabaleta**

Bitxia da, esate baterako, *La leyenda de Jaun de Alzate*-n, adibidez, euskal arima eta mitologia nola germaniartzen duen, Orzi eta Thor berdinduz, bertute **nietzschearrez** adelatuz, etab. **Joxe Azurmendi**

Estiloaren filosofia **nietzschearra**. **Joxe Azurmendi**

Genealogia **nietzschearrak** gauzatutako deszentramenduaren aurrean arrazionaltasuna gizateriaren telosa bihurtuko duen jatorrizko oinarriari buruzko ikerketa kontrajarri du. **Xabier Arregi**

nietzschetar ik **nietzschetar**.

niganatu, nigana(tu), niganatzen *(4 agerraldi, 4 liburutan) da/du ad* nireganatu.

Zuhaitzen izerdia pittin bat **niganatzen** denean idazten dut. **Joxan Elozegi**

Bat-batean, argi bat ikusi nuen **niganatzen**, ziztu bizian; jo ez nintzan, bidetik irten nintzen. **Juan Kruz Igerabide**

Bere errespetua **niganatu** nahi dut. **Xabier Paya**

Bere ikasgaiak **niganatzen** hasi orduko Alkimia ikasteari ekin nion berriro, neure kasa. **Xabier Aranburu**

nigar ik **negar**.

nigargarri ik **negargarri**.

nigargura ik **negargura**.

nigarregingarri ik **negarregingarri**.

nigarrerazle ik **negarrarazle**.

nigarringarri ik **negarregingarri**.

nigarti ik **negarti**.

nigeriar *izlag/iz* Nigeriakoa, Nigeriari dagokiona; Nigeriako herritarra.

Aratseko 9etan, "Trans-blues" ikusgarria: Beñat Amorena-ren *Burrunka* taldea, Tui Mamaki, Nubians kamerundar ahizpak, Kamel Zekri **nigeriarra**, Mixel Etxekopar eta bertze... **Herria**

Endurance 33 urteko bilbotarra, eta jatorriz **nigeriarra**, Basurtoko Ospitalean zendu zen etxeko leihotik jausitakoan izandako zaurien ondorioz. **Berria - Euskal Herria**

Mamua harrapatzeko sarea bukatzen ari nintzela eta, Amos Tutuola idazle **nigeriarraren** *Mozkor bat sasirik sasi* hartu nuen eskuetan, mende honetan idatzi den mamu-liburu boteretsuenetakoa baita nire ustetan. **Bernardo Atxaga**

Hondoratutako ontzietako batean 38 maliar, hiru gambiar, **nigeriar** bat eta bolikostar bat zihoazen. **Berria - Mundua**

Hori afroingelesa dun, **nigeriarra** beharbada. **Lutxo Egia**

Neurri handi batean petrolioaren aberastasunak eraman ditu **nigeriarrak** miseriara. **Berria - Mundua**

Harrika hiltzera zigortu dute **nigeriar** bat, ezkontzaz kanpo haurra izateagatik. **Berria - Gaiak**

«Hemen [Espainian] bizi, lan egin eta zergak ordaintzen ditugu; zuek kulturak ikasten ere ari gara, baina ezin dugu bozkatu; esklaboak bezala bizi gara», kexatu zen Leonard Ogunleye **Nigeriar** Elkarte lehendakaria. **Berria** - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

jatorriz nigeriarra (3)

nigertar *izlag/iz* Nigerkoa, Nigerrri dagokiona; Nigerko herritarra.

Horietao lan gehienetan Damoure Zika **nigertarra** izan zuen laguntzaile. **Berria** - Kultura

nightclub *iz* gauaz irekitzen den festa aretoa.

Edozein bulego edo kafe etxetan, edo agian **nightclub** batean topo egin nahi genuke harekin, elkarri aurpegira begiratu eta besarkatzeko. **Joseba Zulaika**

nigromante ik nekromante.

nihaur 1 *izord* ni; *ni*-ren forma indartua.

Nihaur naiz denbora. **Piarres Aintziart**

Nihaur jaitsiko naiz gustuan. **Janbattitt Dirassar**

Oixtian aipatu ditudan jende estonateuk naute **nihaur** akuilatu eta itzuli mitzuli filosofoetan erdi galdurik utzi! **Piarres Aintziart**

Ez dut omen erranen, **nihaur** han bainintzan. **Michel Oronoz**

Badaukat ene paperetan gutun bat, **nihaur** Hazpametik Parisera bidali nindutelarik [...], André Hiriart-Urruty zenak handik bidali zidana. **Piarres Xarriton**

Karrikan dabilta edo barneko edozein xoko aski handi zaie, **nihaur** bainaiz nihauren oroitzapen. **Piarres Aintziart**

Nihaur ezen Nafarroak nau sortua, Gaztela Berriak Alcalan eskolatua, Frantziak gizon heldu egina, Gaztela Zaharrak Salamancan goraiptua, Portugalek apaindua. **Piarres Xarriton**

Bat-batean, **nihaur** ere haur ttiki senditu nintzen. **Daniel Landart**

Batzuetan haatik, **nihaur** ere ahalge naiz! **Janbattitt Dirassar**

Egia erran, **nihaur** ere gogoetatua egona niz, Eguberriko bestaz erraiten ahal direnak oro ez ote diren jadanik erranak eta aspaldian gainerat! **Herria**

Baina menturaz **nihaur** baizik zaurtzen ez nautenez bozkaria nintekeela. **Piarres Xarriton**

2 (nork kasuan)

Zergatik ez nezake aitor, **nihaurk** egiaztatu ahal izan nuela puntu harrigarri hori. **Piarres Xarriton**

Nihaurk erantzuten ahalko nuen! **Menane Oxandabaratz**

Nihaurk ene baitan, **nihaur** bakarrik deus ez niz. **Menane Oxandabaratz**

Behar nuke **nihaurk** ene burua inarrosi berriz hasteko. **Menane Oxandabaratz**

Ez dakit berria zuzena den, aitortzen dut ordea **nihaurk** ene zalantzak baditudala gai horri buruz. **Piarres Xarriton**

Hutsa bete da erdizka eta **nihaurk** ezagutu baitut Etienne Salaberry eta haren idazteko talendua, badakit erdi hartara ez naizela heltzen. **Herria**

Nihaurk ere badakit zer zor diogun [Juan San Martain] gipuzkoar lagun horri iparraldeko batzuek bereziki "Egan" aldizkariaren arduradun izan zen urteetan. **Herria**

Karrikaz karrika ibili nintzen, **nihaurk** ez jakin zeri buruz... **Janbattitt Dirassar**

Zeren eta ez baitakit **nihaurk** ere. **Menane Oxandabaratz**

Eta argia piztera noalarik orroitzen naiz ez dudala **nihaurk** barnetik pizten ahal. **Filipe Bidart**

3 (nori kasuan)

Nihauri eta nere familiari gertatua kontatzen dut, gertatu den bezala eta kito. **Herria**

Orain erran behar banio Mixel deputatuari... horren fazoina gostako zaut **nihauri** urtean 150 mila libera baino gehiago... **Menane Oxandabaratz**

Orduan naiz **nihaur** ere Sorogaineko behi gaizo bati so gelditu, nik hari beha eta harek **nihauri**. **Herria**

Gosea engainatu nuen itoka janez ostatu triste batean, edariak haserrea goxatzen zidala, **nihaur nihauri** istorio ments eta gazi gozo kontatzen ari nintekeela naski. **Piarres Aintziart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nihaur bainaiz (3); **nihaur bainintzen** (3); **nihaur ere** (51); **nihaur ere ez** (4); **nihaur izan nintekeela** (3); **nihaur joanen naiz** (3); **nihaur nauzu** (3); **nihaur nintzen** (3)

nihaurk ere (12); **nihaurk ere ez** (4); **nihaurk ez dakit** (3)

nihauren baitan (16); **nihauren burua** (5)

nihaurk bezala (3); **nihaurk ene** (4); **nihaurk ere** (25); **nihaurk ere ez** (3)

nihilismo *iz* doktrina filosofikoa, ezer absoluturik ez dagoela aldarrikatzen duena.

Nietzsche kritikoa gogorra izan da, agian gogorrena, bereziki kristautasunarekin, **nihilismoaren** defentsa egiten zuenean. **Askoren artean**

Nihilismoa da gure historia kulturalaren emaitza: kristautasunaren, moralaren eta filosofiako egia-entzuten kontzeptuaren ondorio nahitaezkoa da. **Joxe Azurmendi**

Nihilismoarako joera hark deseroso jartzen ninduen, nork bere burua bere ezerezen ispilu aurrean ikustea ez baita kontu atsegina. **Anjel Lertxundi**

Nihilismoaren eta fanatismo ideologikoaren kontra, tinko sinesten zuen gizakiak pertsona moduan duen balioan. **Berria** - Kultura

Ez nuke nahi inork ulertzetik egiaztapen horretatik atera beharreko ikaskizuna etsipena edo **nihilismoa** denik. **Juan Garzia**

Baina ez da ahaztu behar ETAre formazio ideologikoan Europako pentsamendu joera berriak nagusitu zirela, ateismotik existentzialismora, marxismotik maoismora, anticolonialismotik **nihilismora**. **Joseba Zulaika**

Literaturan, idazkuntza konbentzionaletik eta haren azturetatik libratzeko ahaleginak tarteko, existentzialisten absurdura eta Beckett-en **nihilismora** eramango zuen horrek. **Juan Garzia**

nihilista 1 *izond/iz* nihilismoarena, nihilismoari dagokiona; nihilismoaren aldekoa.

Arrazoiak? bat, seguru asko, nire orduko pentsaera eta jarrera **nihilistak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Egiaztapen **nihilista** horiek ez dakarte deus berririk. **Juan Garzia**

Batzuei otoitz **nihilista** irudituko zaie, baina ez da otoitz **nihilista**, norberatasunaren aurkako otoitza baizik. **Berria** - Kultura

Nihilista izan daiteke hitz egokia, bai, ez bainintzen biziki abertzalea [...] ezta ikaragarri ezkertiarra ere [...], baina, aldi berean, banuen beti kontra agertzeko joera bat ere.

Xabier Mendiguren Elizegi

• **2 iz Errusian XIX. mendearen erdialdean sortu zen, eta balio sozial eta moralei uko egiten zien mugimendu iraultzailearen aldeko pertsona.**

Piotrek beti egotzi izan zion istripuaren ardura Tsarrari, eta hura izan zen, nork daki, **nihilistekin** bat egitera eraman zuen arrazoietako bat. **Iban Zaldua**

Helsinki aldi bat pasatu ondoren, **nihilisten** taldekoa izandako kide baten bitartez, basozain lan erosoan lortu zuen lurjabe handi baten lurretan, iparraldean, Suomuyarvi lakuaren inguruan. **Iban Zaldua**

nihilistiko *izond* nihilista.

Requiem filosofiko **nihilistiko** baten antzekoa da. **Berria - Kultura**

nihilitario *izond*

Baina, halaz guztiz ere, badakigu, sumatzen dugu, biziaren iturriak benetakoak direla, baina badakigu ere, sumatzen dugu, benetakotasun hori ez dela egia oso eta totalitarioa, eta ezta gezur oso eta **nihilitarioa** ere. **Xabier Olarra**

nihor ik **nehor**.

nihun ik **nehon**.

nihundik ik **nehondik**.

niigatar *izlag/iz* Japoniako Niigatakoa, Niigatari dagokiona; Niigatako biztanlea.

Hiru emakumezko ziren: Tokioko 24 urteko ikasle bat, 23 urteko **niigatar** bat eta «etxeoandre» gisa identifikaturiko 29 urteko bat. **Berria - Gaiak**

nikaraguar *izlag/iz* Nikaraguakoa, Nikaraguari dagokiona; Nikaraguako herritarra.

Behinola itxaropenen eta ilusioen herrialdea zena, **nikaraguarrentzat** nahiz kontinentean benetako iraultzan sinesten zuten atzerritar askorentzat, Ameriketako herrialderik pobreena da orain, Haitiren ondoren. **Berria - Mundua**

Hondatze ekonomiko eta sozialak emigrazioa areagotu du, batik-bat Costa Ricara, non ia milioi bat nekazari eta neska **nikaraguar** dabilzan lanean. **Berria - Mundua**
Bianca Jagger giza eskubideen aldeko ekintzaile **nikaraguarra**. **Berria - Gaiak**

nikel¹ *1 iz* zilarren koloreko metala, gogorra eta malgua, herdoiltzen zaila, 1452 °C-tan urtzen dena (Ni; at. z. 28).

Atean, lurrin atsegin melenga zegoen, marmol ondo garbituaren eta **nikelaren** usainarekin nahasirik. **Nikel** metalikoa, burdina bezala, magnetikoa da. **Lopez de Arana**

Ondorioztatu genuen **nikela** burdina dibalentearekin batera zihola beti ere. **Juan Garzia**

Meatzeetako haitzean, beraz, bazen **nikelik**: gutxi samar; gure analisisen arabera, ehuneko 0,2 batez beste. **Juan Garzia**

68.000 tona **nikel** jasotzeko aukera izango da urtero. **Berria - Mundua**

Nikelaren sektoreko inbertsio berriei [...] esker. **Berria - Mundua**

Beasaingo CAFek onartutakoa baino 94 aldiz zink gehiago emititzen du; Santurtziko zentral termikoak onartutakoa baino 300 aldiz **nikel** gehiago. **Berria - Euskal Herria**

Nikelezko zerbaitek ñir-ñir egin zuen Baldwinen eskuan. **Lopez de Arana**

Zerbitzu-mahaiaren gainean zegoen **nikelezko** izotz-ontzi batean. **Lopez de Arana**

Hiru koroa eta **nikelezko** txanpon batzuk zeuden bertan. **Anton Garikano**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Txinak 500 milioi dolar inbertituko ditu Kubako **nikel** produkzioan. **Berria - Mundua**

Egia da, halaber, ikasleei beren poltsikotik jarrarazten zizkiela bost lira, arranoaren ikurra zeramaten haietakoak, zilar nitratoa egiteko, eta hogeitazentimo, berriz, hegan egiten zuen andre biluzia zeramaten haietakoak, **nikel** kloruroa egiteko. **Juan Garzia**

Arduragabe ikutzen zituen prezipitatuak, **nikel**-dimetilgliosima pisatu, eta ederki kostatu zitzaidan buruan sartzea ez zela komeni analisisaren emaitzak puztea. **Juan Garzia**

Batek fantasiasu irudikatzen zituen nire arbaso urrun baten ibilerak, berun- eta orobat **nikel**-ehiztaria bera. egindako analisiari esker, sufre, kloro, kaltzio, burdina eta **nikel** arrastoak aurkitu dituzte. **Juan Garzia**

· Minbizia eragiten duten **nikel**-kadmiozko pilak erabat debekatzeko proposamena atzera bota zuten. **Berria - Gaiak**

nikel² *izond*

Gaixo zango eta oin maiteak, honaraino ekarri nauzue, beti fidel, beti **nikel**; merezi duzue, bai, freskatze pixka bat. **Piarres Aintziart**

nikelatu *izond* nikeleztatua.

Ni beste espaloitik nindoan eta ez ninduen ikusi, gaztigatu egin nahi izan nuen baina, berehala hartu baitzuten erdian atzetik zetozkion trafikoko guardiazibilen Sanglas **nikelatu** handi haietarik bik. **Koldo Izagirre**

Berhin ere baino xaloago, zigarro bat eskaini zidan, zilar **nikelatuzko** tabakontzi trinko batetik. **Matías Múgica**

· - **Nikelatu** edo kromatu bat bidal dezatela: itxura hobea emango dik. **Koldo Biguri**

nikeleztatu, nikelezta, nikeleztatzen **1 du ad** nikel geruza batez estali.

Bolizko giltzadura artifizialak erabili zituen, 1890ean, Thomas Gluck kirurgialari alemanak; **nikeleztaturiko** altzairuzko torlojuak lotzen zitzaizkion eskeletuari, inoiz kolaz sendoturik. **Irene Aldasoro**

Txapa obalatua zen, **nikelezkoa** itxuraz, eta agentearen zenbakiaz gain, bi hitz zituen irarrita: Geheime Staatspolizei. **Alberto Ladron Arana**

2 (era burutua izenondo gisa)

Ebakuntza-gela **nikeleztatu** bat eta gomazko eskularruak zituen zirujau bat nituela zain. **Joseba Urteaga**

Neskari begi artean sartu dio bala **nikeleztatua**. **Pablo Sastre**

Haren belarrietan, idazmakinei konfeti **nikeleztatua** zerien gupidarik gabe. **Lopez de Arana**

nikethamida iz arnas zikloari erasaten dion akuilagarria.

Edwardesek positibo eman zuen iragan apirilaren 24an eginiko analisi batean, probak **nikethamida** kontsumoa aurkitu zuen. **Berria - Kirola**

niki iz puntuzko alkandora, askotan mauka motzekoa.

Mantxa gorri bat sumatu nuen nire **nikian**, odolarena ematen zuena. **Bernardo Atxaga**

Soineko gorri bat daramat soinean, eta Juanluisek **niki** berde bat eta lihozko galtza beltzak. **Eider Rodriguez**

Zer eramango du jantzita, *Off Spring*-en **nikia** ala *Nafarroa Oinezeko* kamiseta grisa? Laranja koloreko ilea daukanak **niki** estua gorantz jaso eta prakak lotzen dituen botoia eta gerrikoa askatu ditu. **Pako Aristi**

· Ilea atzealdean bildua, praka motzak eta **niki** tiranteduna. **Paddy Rekalde**

nikolastar izond

Esku **nikolastar** haiek egindako parea zaharrok ere badute beren hutsa, beren zulo iluna, harri bat falta beti: izena, titulua... **Patziku Perurena**

nikotina 1 iz tabakotik ateratzen den alkaloide pozoitsua, uretan oso erraz urtzen den isurkari koloregabea.

Azala zimela nuen, horixka matea, **nikotinaren** kolorekoa. **Ramon Saizarbitoria**

Hatzetan ageri zuen **nikotinaren** horitasunak ematen zion aire zaharkitu hura. **Ramon Saizarbitoria**

Hatzetan **nikotinak** uzten duen arrastoa nabari, une batez ere ez zuen geldi edukitzen eskua. **Xabier Olarra**

Nikotinak horituak zeuzkan eskuin eskuko hatz luzea eta erakuslea. Nire urdail **nikotinaz** beteari. **Iban Zaldúa**

Larrua **nikotina** sulfuroaz igurzten diete, borrokan hasi eta kontrarioa zozotu dadin. **Gotzon Garate**

Barre batean hasi zen Suso, **nikotinaz** zikindutako haginak agerian. **Paddy Rekalde**

Gauza jakina da **nikotinak** ikusmen-lausotzea ekar dezakeela (anbliopia), eta akromatopsia ere bai, batzuetan. **Xabier Olarra**

Nikotinaren menpekotasunaren kontrako tratamenduak **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Medikuak baimendutako **nikotina**-dosia neureganatzen nuen bakoitzeko, hamar begik gurutziltzatzen ninduten. **Arantxa Iturbe**

Larrua **nikotina** sulfuroaz igurzten diete, borrokan hasi eta kontrarioa zozotu dadin. **Gotzon Garate**

Bi aukera daude: **nikotina** partxeak, eta pilulak. **Berria - Euskal Herria**

Jateko gogoa ere gehitzen du **nikotina** faltak. **Berria - Gaiak**

nikotinatsu izond nikotinaz betea.

Astiki xurgatu nuen, bafada **nikotinatsua** birika aseetara xiringa baten karga zainean bezain astiki bidaliz. **Aingeru Epaltza**

Komunean, argia piztu gabe pixa egin eta eztarri urratua laxatu nuen, karkaisa **nikotinatsuak** gehituz zuloko ur horiztatuari. **Aingeru Epaltza**

nimino ik ñimiño.

nimino ik ñimiño.

ninbo 1 iz hodei gris iluna, euria sorrarazten duena.

Ninbo, kumulu eta zirruak ikusi zituen, harietan desegiten zirenak irudi apetatsuak osatu eta gero. **Jon Alonso**

Ortzi honetara hodei eta **ninbo** hegalarien egile diren halako gorputzak ere kanpotik etortzea gertatzen da. **Xabier Amuriza**

Hodei eta **ninbo** jariotsuak. **Xabier Amuriza**

2 argi koroa.

Halo, [...] zentzu hertsian astro bat inguratzen duen argi-eraztuna, eta maiz samar "aureola" edo "**ninbo**"-arekin nahastu ohi dena, jainko eta santuek buru inguruan izaten duten antzeko fenomeno batekin, alegia. **Xabier Olarra**

Peshteko artista jainkozale Szedgkinen Eguberria pinturan, "**ninboa**" ez dute Ama Birjinak eta Haurrak bakarrik. **Xabier Olarra**

3 kumulu-ninbo (orobat kumuloninbo) iz kolore gris iluneko hodei masa trinkoa, ekaitz gogorrek sortzen dituen.

Begiak herts eta aldizka **kumulu-ninboak** zein estratu-kumuluak zitzaizkion argitzen. **Itxaro Borda**

Ortzaizean multzoturiko **kumulu-ninbo** astunak airez, sabelak hurrez bezala, husten eta hertzen ziren. Txingorra, berriz, bestelako prozesuetan eratzen eta ekoizten da: goranzko haize bertikal bortitzak dabiltzan **kumuloninboen** barruan. **Itxaro Borda**

ninfa 1 iz maila apaleko jainkosa, iturri, ibai, baso edo mendietan bizi zena. iknaiade.

Herritarrek uste dute inguru horietan **ninfak** eta satiro ahuntz-hankadunak bizi direla. **Xabier Amuriza**

Edan ezazu ura iturri honetatik, eta ahuntzak ere gera daitezela, iturriko **ninfen** ondoan, atsedean hartzen. **Santiago Iruretagoiena**

-Ulises gizajoa Kalipso **ninfaren** jauregian dago, uharte batean, berebiziko sufrimendua pairatzen. **Juan Kruz Igerabide**

Akaian eta Peloponeso guztian Doro izan zen Errege, Helenosen eta Phthia **ninfaren** semea. **Santiago Iruretagoiena**

Ninfa iheslaria sastrakan katigatuta zegoela hurbildu zitzaion Dionisos. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Ninfaren lotsaizunak mirestu egin zuen Dionisos jainkoa, zaila baitzen **ninfen** artean hain malezia gutxikorik eta lotsagorritzeko adinako apaltsuna zuenik aurkitzea.

2 intsektuen metamorfosian, larba egoeraren ondoko animalia.

Eta bihurtune geldo batek sortzen duen putzuan, nenufar horiak eta **ninfa** ardo kolorekoak ikus daitezke diz-diz, eguzkiaren argitan. Hasier Etxeberria

ninfomana *izond/iz* ninfomaniak joa. ik **ninfomano**.

Ninfomana da, bazenekien? Fernando Rey

Ez zara, bada, zeu, **ninfomana** oroxurgatzaile bat izango? Karlos Linazasoro

Milioi bat dolar dituen **ninfomana** bat. Fernando Rey

Inesek jokabide arraroa erakusten zuen: isiluneak, haserrealdi bortitzak, irri maltzurak... burutik jota zegoela zirudien, baina inoiz ezagutu dudan **ninfomanorik** setatsuen a zela onartu beharrean nago. Aritz Gorrotxategi

ninfomania *iz* emakumeengan, sexu desira patologikoa.

Batek baino gehiago **ninfomania** egozten zion Adelari, baina ziur nago ez zuela halakorik. Juan Kruz Igerabide

ninfomano *izond/iz* ninfomaniak joa.

Haurdu geratu arren oraindik ez zekiten emakume gazteak, **ninfomanoak**, emaztea jipoitzen zuten gizatxarrak, etorkizun igarleak, top-less dantzariak, edo eta azken hauek hilekoa zutenean tampaxaren haria tangaren kanpoaldetik ikus ez zedin mozten zieten gizezko lizunak. Harkaitz Cano

Bera ere masturbatzen da, baina, hala eta guztiz ere, berdin-berdin desio du neska eta bere burua ez du **"ninfomanotzat"**. Luis Elberdin

nini 1 *iz* ume txikia. ik **nīni**.

Ez dezaten pentsa etxetik kanpo moldatzeko gauza ez den **nini** errukarria denik. Xabier Mendiguren Elizegi

Haur koxkortzen hasia eta **nini** sortu berria haiekin doaz. Berria - Euskal Herria

Jatorritik bidaiari lotua den jaialdi honek aurtun amaren tripan dagoen **ninia** edo Egiptoko lurrek gorde altxorak zintzilikatatuak dituzte. Berria - Kultura

Ibai bazterreara jo zuten hogeiei eguneko **ninia** eramanez. Itxaro Borda

-Txibatoa? -Aloñak, **ninia** tititik zintzilik-. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldi hartan bizia galdu zuena 22 hilabeteko **nini** txiki bat izan zela, zorigaitzoko bonba baten ondoan pasatzeagatik. Pello Salaburu

Baldin eta buruko mina bazuen, edota oinetako arkuak zitzaka bazituen, kexuka aritzen zen, urrikalgarri, **nini** bat antzo. Mirentxu Larrañaga

Nini baten moduan tratatzen zuen. Mirentxu Larrañaga

nini baten ipurdia bezain soila nuela kokotsaldea eta ez nuela bizarra egiteko premiarik. Mirentxu Larrañaga

Begiratu zuelarik, ikusi zuen bere adineko neska bat, "coca-cola" tiserata zikin luze bat gona gisa, **nini** biluzi bat altxoan. Ramuntxo Etxeberri

2 (hitz elkartuetan)

Nere esku lodiak olioz bustitzen nituen eta zure **nini** gorputz tipia artoski eta emeki manipulatzeko nuen. Ramuntxo Etxeberri

3 begi-ninia.

Begiek ez zuten ez bizitasunik ez distirarik, eta **nini** gabeak ziruditen. Koro Navarro

Betazalek **niniaren** erdia estaltzen zioten. Unai Iturriaga

Saloira bildutako emakumeak [...] larru gorri jarri ziren, beren gorputz gorritatuak denon begiei, eta batez ere errege-ordearen **nini** zuriei eskainiz. Felipe Juaristi

Ez naiz **niniak** mintzen edo ikusmena zauritzen duten irudiez mintzo. Xabier Amuriza

Niniak ere katuarenak zituen, eta sudurpean ageri zitzaizkion ile apurrek ere katua zekarkidaten gogora. Edorta Jimenez

4 begi-nini

Argi gutxi denean zabaldu egiten da **begi-ninia**, argi gehiago sar dadin. Josu Zabaleta

Emakumearen **begi-nini** beltzak lasai zeuden. Ibon Urbarri

Medikuaren linternetxoak **begi-nini** dilatatu batzuk argitu zituen. Joxemari Urteaga

Begi-ninietako hondo-hondotik begiratzen zidan gogortasun neurritz gaineko batez. Anjel Lertxundi

Ispilu aurrean eseri zen bere **begi-nini** zabaldu beltzei so. Lopez de Arana

Lehen gutuneko azken esaldi hura **begi nini** dilatatuetan irakurri zion, baina espresio goxo eta irribarresua erakutsi zuen Macarenaren aurpegiak. Joxemari Urteaga

Begi-nini gardenen inguruan argizko uztai horixka zeukan. Juan Kruz Igerabide

5 -en **begiko nini**

Gramo bat azukre pisatu nuen, platinozko arragoan (gure **begiko ninia** zen huraxe) su emateko. Juan Garzia

Nire poltsikoa gizontzera etorriko da jabe kolekatuak bere **begiko niniaren** truke ordainduko duenaren laurdena. Aingeru Epaltza

6

Debaldetan pasa ditut hatz-**niniak** paretan. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

begi nini (17); **nini beltz beltz** (3)

begi ninia (20); **begi ninia itxiago** (3); **begiko ninia** (3)

begi niniak (23)

begi ninian (5)

begi niniaren (7)

begi niniek (5)

begi ninien (5)

begi ninietako (3)

begi ninietan (15)

ninibear ik **ninivetar**.

ninibetar ik **ninivetar**.

ninivear ik **ninivetar**.

ninivetar (*orobat **ninivear**, **ninibetar** eta **ninibear**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **ninivetar** agertzen da*) *izlag/iz* Ninivekoa, Niniveri dagokiona; Niniveko biztanlea.

Zeren, Jonas **ninivetarrentzat** seinale gertatu zen bezala, hala gertatuko baita Gizonaren Semea ere gizaldi honentzat. **Elizen arteko biblia**

Hil aurretik jakin zuen nola hondatu zuten Ninive eta ikusi zituen Kiaksarek, Mediako erregeak, Mediara erbesteratutako **ninivetarrak**. **Elizen arteko biblia**

Ninivearrek sinetsi egin zioten Jainkoari. **Elizen arteko biblia**

Ninibetarrek ikusi zutenean itsumutilik gabe eta urrats sendoak eginaz zihoala, txundituta geratu ziren. **Jose Antonio Mujika**

Ninivetar batek, ordea, erregeagana joan eta ehorzketak nik egin nituela esan zion. **Elizen arteko biblia**

Nintendo *iz*

Kinok, ondoan, **Nintendo** txiki bat atera du. **Pako Aristi**

Nintendoarekin utzi nuen pantaila aurrean, eta lasagna mikro-uhindu berriarekin azaldu nintzenerako, lo seko zegoen besaulkian, pantailan terrorista irakiarrek Martinen tanke birtuala gupidagabe erasotzen zutela. **Iban Zaldúa**

Baina semea Tetratik atera eta haren koltxoira eraman beharrean, **Nintendoa** itzali eta tapaki pare batez estalita utzi nuen bertan, besaulkian etzanda, gaua pasa zezan. **Iban Zaldúa**

nipadios *interj*

Nipadios! **Jon Arretxe**

nipoï ik **nipondar**.

nipon ik **nipondar**.

nipondar (*29 agerraldi, liburu 1ean; orobat **nipoï** g.er. eta **nipon** g.er.; cf **japoniar** 498 agerraldi, 61 liburu eta 149 artikulutan*) *izond/iz* japoniarra.

Gerra-presoren nengoen ni ere esparri **nipondar** batean. **Joxan Elozegi**

Urtea bukatu baino lehen, dena den, artikulua aldatzeko asmoa dute agintari **nipoiek** gerra debekua kenduz eta soldadu gehiago izan ahal izateko 237.000 soldadu ditu egun. **Berria - Harian**

Bigarren Mundu Gerraz geroztik yankiak noiz hurbilduko labana zorrozuta leizean igurika zeuden gerlari **nipon** haietarik bat. **Koldo Izagirre**

Ez dute **nipondar** guztiek halako sudurrik, baina halakoa duen inor azalduz gero, japoniarra da jatorriz zalantzarik gabe. **Joxan Elozegi**

Japonian, sabotaje deitzen zaio horri: **nipondarrek** bidera dezaketen krimen handienetako bat. **Joxan Elozegi**

Sekula ez naiz izan lehendakariari dimisioa aurkeztu nion egunean baino **nipondarragoa** izan. **Joxan Elozegi**

niputaidea *interj*

Niputaidea! **Jon Arretxe**

niputokaso *interj*

Eta lehen deitu duen maisu jilipolla eta txaposo horri **niputokaso!** **Jon Arretxe**

nirbana ik **nirvana**.

nirebiziko (*corpusean **nerebiziko** soilik*) *izlag* berebizikoa.

Ez dago esan beharrik, lista horren guztiaren ostean, goizeko seiak baino lehen, eguneko eguraldiaren berri eman behar nuen koitadu honi, neguko goiz ilunetan batik bat, **nerebiziko** laguntza ematen zidala, hotz-bero ezberdinen arabera, toki eta paraje bakoitzeko puntuko eguraldiaz jabetzeko. **Pello Zabala**

nireganatu, niregana(tu), nireganatzen (*26 agerraldi, 24 liburu eta 2 artikulutan; orobat **nireganatu** g.er.*) **1** da *ad* niregana etorri.

Ez da gehiago **nireganatu**, baina bizpahirutan begiratu egin dit. **Pako Aristi**

• **2** du *ad* niregana ekarri; nire bihurtu. ik **neureganatu**.

Eta gizon hura nor den hatzaz seinalatzen badidate, bera **nireganatzeko**, ezagutzeko eta adiskide egiteko irrikatan nago. **Imanol Unzurrunzaga**

-Badrulbudur printzesa **nireganatu** arte ez dut onik izango. **Patxi Zubizarreta**

Merezimendu osoz **nireganatu** dut libertino lizun haragikoiaren titulua. **Karlos Zabala**

Batzuetan kosta egiten zaidak hemengo edertasun hau **nireganatzea** -esan zuen osabak-. **Bernardo Atxaga**

Udaberriko sentsazioak **nireganatu** ditut azkenean eta oso aldi egokian nago zerbait hungigarria sortzeko. **Jon Arretxe**

Geroztik oharatu naiz, Gilen laborariak oharatarazirik, frantsesa **nireganatu** dudala amak erakatsi euskara arrotz bilakatu arte eta gainera kasik gutietsiz. **Piarres Aintziart**

Berak **nireganatu** du erregearen, beronen kontseilari eta handikien onginahia. **Elizen arteko biblia**

Behin baino gehiagotan, ahoaren beteaz, isiltzekoren bat erranen nuen noski, baina nik, dama horren arreta **nireganatu** bertze gogorik ez nuen. **Aingeru Epaltza**

Horren faltan, gaitasun ikaragarriak **nireganatuak** nituen beste alor batzuetan. **Karlos Zabala**

Nola erabil dezake droga sare batek ni bezalako arrotz bat? Eta kokaina hori, kokaina izatekotan, **nireganatuko** banu? Edo poliziari esanen banio? **Iñaki Zabaleta**

nireganatze

iz niregana ekartzea; nire bihurtzea.

Auzoko andra atsegina **nireganatze** nahia dut, ni beste bati hitzemandan izan arren. Jenaro Garate

nirekoi

izond singularreko lehen pertsonan mintzatzen denak bere nahi edo interesari soilik begiraturik jokatzeko duela adierazteko erabiltzen duen izenondoa. **ik neurekoi**.

Tontoa ez ezik, **nirekoi**a sentitzen nintzen, ankerra, adiskide eskasa. Bernardo Atxaga

Temati alena ni, **nirekoi** halakoa. Xabier Montoia

Nik atzo nire kasuaz pentsatzen nian bakarrik, **nirekoi** samarra izanik: niretzat gerran interesa zegoan, negozioia. Koldo Biguri

nirekoikeria

 (*orobat nerekoikeria*) *iz* singularreko lehen pertsonan mintzatzen denaren berekoikeria.

Nolanahi ere, horretan pentsatzea **nirekoikeria** izango litzateke, eta orain taldean pentsatu behar da. **Nerekoikeria** putzu ilun batean behera lerratzen nintzela konturatzean, eta ideia beltzak lekustatzuz, Xaxiren solasei uztartu nintzaian. Berria - Kirola

niremodu

 (*corpusean neremodu soilik*) *adlag* nire kasa.

Honatz, errepikarik barrokoenak han hemenka kimatuz, **neremodu** moxtu eta zure atseginerako moldatua: [...]. Patziku Perurena

Neremodu euskaraturik honelatsu litzake: [...]. Patziku Perurena

niretar

iz nire familiakoa, nire artekoa, nire aldekoa edo nire alderdikoa dena.

Landako zuhaitzek fruitua emango dute, lurra uzta, eta **niretarrek** lasai biziko dira lurraldean. Elizen arteko biblia

Gerlan ari zen, papistekin, **niretarren** kontra. Aingeru Epaltza

Niretarretako norbait ager zitekeen noiznahi, baina hala gertatu ahal izateak ez zuen Gilen ikaritzen. Aingeru Epaltza

-Niretarrengana itzuli beharko diat -erran zuen orduan. Aingeru Epaltza

niretu

, nire(tu), niretzen (*orobat neretu*) *du ad* nire egin, nire bihurtu. **ik nireganatu**.

Imajinatzen nuen Parisko gizarte dotoreeneko dama eskisitoen biluztasun zoragarria ikusiko nuela eta bai, agian, damak **"niretuko"** ere. Matías Múgica

Ikusten nituen guztiak kosta ahala kosta **"niretu"** nahi izaten banituen ere, indar berarekin sentitzen nuen ni ezin nintzela haietako bakar batena izan. Matías Múgica

Baina egiaz Lutezia **niretzeko** tematua nintzen, Golubtxik izateari uzteko tematua nintzen modu berean. Matías Múgica

nirvana

 (*orobat nirvana g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian nirvana agertzen da*) **1** *iz* budismoan, erabateko zorientasuna, norbanakoa jainkoaren izatearekin batzen, eta oinaze eta desirarik ezean datzana.

Beste batzuek **nirvana** deitu arren hark lasaitasun egoera deitzea nahiago zuen horren bila. Bego Montorio

Deus gutxi aski da **nirvanara** joateko, zerbait edan, porro bat, kanta bat, argazki bat, kontzientzia aldatzen edo zirikatzen duen edozein gauza. Karlos Zabala

Lehen kanpaia entzun orduko, komisarioa, Telleriari erabat gogaikarri zitzaion **nirvana** partikularrean murgildu zen. Harkaitz Cano

Hizkuntza landuz **Nirvanarantz** Sexu bidez. Jose txo Azkona

2 (hitz elkartuetan)

Hasiera-hasieran ez gazi eta ez gozo, **nirvana** egoera moduko batean nengoan, dena gertatzen baitzitzaidan berri, dena bitxi, dena deigarri. Xabier Mendiguren Elizegi

nitasun

iz ni izateko nolakotasuna.

Zeren, ni ni banaiz, **nitasun** bat dudalako da -modu batean deitzeagatik, jaun André-, eta ni nor banaiz, nortasun bat dudalako, baina zer dira eta zertan dautza **nitasun** hori eta nortasun hori, eta zer dakigu haietaz? Literatura, ezer izatekotan, **nitasunaren** laborategia dela, geure nortasun hondatua konpontzeko balio duen tailerra. Joan Mari Irigoien

Bere burua imitatzen hasia zegoela eta **nitasun** berri bat asmatu behar zuela erabaki zuen. Joxean Agirre

Ezaguera eta jokaera, irudipen eta sentipen guztiak bat eginez "nortasun", **"nitasun"** eta halako hitzez aipatzen dugun identitatea osatzen dutenekin. Xabier Olarra

Denbora eta gu gurinezko, neu izateko baino, **nitasuna** urtzeko daukagu aisia. Anjel Lertxundi

nitrata

ik nitrato.

nittrato

 (*orobat nitrata g.er.*) **1** *iz* azido nitrikoaren gatza.

Hidrokarburoak, koloranteak, **nittratoak** eta pestizidak dira produktu arrisksuenak. Berria - Euskal Herria

Ongarriak dira kontaminatzaileetako batzuk **nittratoak**, fosfatoak, nitritoak...Bolbora egiteko **nittratoa** ekoizten zuten lantegira. Berria - Gaiak

Hodiak-eta garbitzeko erabiltako **nittrato** sodikoa isuri zuten San Pedro errekastora. Berria - Euskal Herria

Fertiberia enpresak bestelako produktuak egiteko osagai moduan erabiltzen diren azido nitriko, **nittrato** kaltzio-amoniokoa eta nitrosulfato amoniokoa egiten ditu. Berria - Euskal Herria

Ez da arto eremurik anitz, horietan baitira **nittrato** horiek agertzen. Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nekazaritza arloko **nittrato** hondakinek itsasoan eragindako kutsadurari aurre egiten. Bonba hori **nittrato** eta gasolio nahasketa batez osatuta zegoen. Berria - Mundua

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Leherkari mota amonio-**nitratoa** dela eta tenporizagailu elektrikoan bitartez zartarazi zituztela adierazi zuten. Berria - Euskal Herria

Sodio-glutamatoa, gesala (potasio-**nitratoa**), gatz urdin edo grisa, itsas gatza, etc. Edorta Agirre

Nitrogeno oxidoa amonio **nitroa** kontu handiz berotuz prestatzen da. [Juan Garzia](#)
Zilar **nitratozko** soluzio baten tantatxo batekin ukitu nuen jalkina. [Juan Garzia](#)

nitriko 1 *izond* nitrogenoari dagokiona; azido nitrikoari dagokiona.

Amodio eremu suntsitua nintzen, hautsezko pentoka, zerutik isuri euri **nitrikoa**, belarrak berak ukatzen zuen lurra, eta egoera honek ezer onik ez zidan ekarriko. [Itxaro Borda](#)

2 nitrogenoa 5 balentziarekin daukana. ik **nitroso 2**.

Fertiberia enpresak bestelako produktuak egiteko osagai moduan erabiltzen diren azido **nitriko**, nitrato kaltzio-amoniokoa eta nitrosulfato amoniokoa egiten ditu. [Berria - Euskal Herria](#)

Halakorik ez zen laboratorian: bai, ordea, amoniakorik eta azido **nitrikorik**. [Juan Garzia](#)

Litekeena duk Alargun Beltzaren ADNan azido **nitriko** upel batean egotea honezkero, landareentzako ongarri bihurtua. [Harkaitz Cano](#)

nitrito *iz* azido nitrosoaren gatza.

Ongarriak dira kontaminatzaileetako batzuk nitratoak, fosfatoak, **nitritoak**.... [Berria - Gaiak](#)

nitro *iz* potasio nitratoaren izen zaharra. ik **gatzu**.

Badago beste ur hotz mota bat **nitroa** duena, adibidez Vestinoko Pinnako ura, Kutiliokoa eta antzeko beste leku batzuetakoa, edaten denean barrua garbitzen duena eta hesteetatik pasatzen denean eskrofula-tumoreak sendatzen dituena. [Santiago Iruretagoiena](#)

nitrogenatu *izond* nitrogenoduna, nitrogenoa daukana.

20 tona amonio **nitrogenatu** zeramatzan kamioi bat lehertu, eta gutxienez 16 pertsona hil eta beste 11 zauritu ziren atzo Mihaillesti hiri ondoan, Errumaniako erdialdean. [Berria - Mundua](#)

nitrogeno 1 *iz* gas koloregabea eta usaingabea, arnasa harteko edo bertan errekontzak egiteko balio ez duena, eguratsaren lau bostenak osatzen dituena. ik **azota**.

Nitrogenoa ez da ondo disolbatzen, ez uretan, ez odolean. [Irene Aldasoro](#)

Union Española de Explosivos (Galdakao) enpresak 110.120,4 kilo **nitrogeno** isurtzen ditu urtean, finkatutako kopurua halako bi. [Berria - Euskal Herria](#)

Beste aukera bat **nitrogenozko** proteina-hondakina amoniako bihurtzea litzateke. [Irene Aldasoro](#)

Nitrogeno likidoa baliatuz, elikagaiak -195º C-tara jeltatuko ditu etxeoandreak edo sukaldeko nagusiak segundo gutxitan. [Edorta Agirre](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

400 megawatteko zentral batek 110 kilo **nitrogeno** oxido igortzen ditu orduro. [Berria - Harian](#)

Nafarroan sortzen diren **nitrogeno** oxidoen %20 bitarteko kopurua Castejongo zentral termikoei egotzi dakiekeela. [Berria - Euskal Herria](#)

Berde koloreko hostoak gorri bihurtzen dira, landareak minek isurtzen duten **nitrogeno** dioxidoa xurgatzean. [Berria - Gaiak](#)

Karbono monoxidoaren, **nitrogeno** dioxidoaren, sufre dioxidoaren, ozonoaren eta airean dauden beste partikulen maila. [Berria - Gaiak](#)

Nitrogenoa edo azota neurriak aldiz beti emendatzen ari dira lurralde osoan. [Herria](#)

Gehiegizko **nitrogeno** kopuruak eremu hilak sortzen ditu mundu osoko ozeanoetan, oxigeno bako eremuak. [Berria - Gaiak](#)

Aeroenbolia, **nitrogeno** burbuilak odolean pilatzen direneko gaixotasuna da. [Harkaitz Cano](#)

- Zoritxarrez, energia kimiko handia beharko litzateke proteinaren nitrogenozko hondakina **nitrogeno**-gas bihurtzeko. [Irene Aldasoro](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

isurtzen duten nitrogeno (3); **nitrogeno dioxidoa** (5); **nitrogeno dioxidoa xurgatzean** (4); **nitrogeno oxido** (6); **nitrogeno oxidoa** (4); **nitrogeno oxidoak** (5)

nitroglizerina *iz* gai astuna eta oliokara, azido nitrikoak glizerinari eraginez lortzen dena eta lehergaiak egiteko erabiltzen dena.

"Frantzia bada hitz bat **nitroglizerina** bezain kontuz erabiltzea komeni dena", ematen digu gaztigu Olivier Mukuna-k *Égalité Zéro* liburuan. [Iñigo Aranbarri](#)

nitrokonposatu *iz* konposatu nitrogenoduna.

Iradoki dutenez, N-**nitrokonposatuak** dira erantzuleak. [Berria - Gaiak](#)

nitrosamina *iz* konposatu organikoa, nitritoek amina sekundario batekin oso ingurune azidoan erreakzionatzen duenean sortzen dena.

Haragi gorria jan ondoren sortzen dira **nitrosaminak** eta beste konposatu horiek hesteetan. [Berria - Gaiak](#)

nitroso *izond* nitrogenoa 3 balentziarekin daukana. ik **nitriko 2**.

Beste bost gas ditu jomugan itunak: nekazaritzak eta zabortegiek askaturiko metanoa, ibilgailuek isurtzen duten oxido **nitrosoa** eta industria prozesuetan sorturiko PFC, HFC eta SF6a. [Berria - Harian](#)

Negutegi efektua eragiten duten isurketak (karbono dioxidoa, metanoa eta oxido **nitrosoa**) «askoz ere urriagoak» dira trenbideko garraioan, errepidean baino. [Berria - Euskal Herria](#)

nitrosulfato *iz*

1 **nitrosulfato amoniko** nitrato amonikoaren eta sulfato amonikoaren nahastura.

Fertiberia enpresak bestelako produktuak egiteko osagai moduan erabiltzen diren azido nitriko, nitrato kaltzio-amoniokoa eta **nitrosulfato** amoniokoa egiten ditu. [Berria -](#)

nitxo 1 iz horma hilobia.

Izan ere, inori ez dio ilusio handirik egiten **nitxo** batean sartzeak. [Unai Elorriaga](#)

2 irud/hed

Lehenago, gastronomia aristokratikoaren bereizgarria izan zen premiatik urrutiratutako janaria: hari horri jarraiki, ahaltsoak bere estatus soziala produktu garesti eta exotikoak janean (kontsumituz) erakusten du oraino ere, **nitxo** ekologikoaren presiopeko elikatze-jarduera herritarren kontra. [Edorta Agirre](#)

3 (hitz elkartuetan)

Europako industriaren ikur eta, azken finean, Europaren beraren ikur gisa ere aurkeztu nahi izan dute, munduko beste hegazkin handien egile bakarrari -AEBetako Boeing- gailendu zaiolako aparatu handien merkatu **nitxoan**. [Berria - Harian](#)

nobatada iz adkor hasiberriarena, hasiberriari eginiko txantxa.

"Colegio Mayor" horietako batean genuen ostatu, eta, azterketa erraldoia aski ez bailitzan, hango beteranoen gustu txarreko **nobatadak** jasan behar izan genituen. [Joxerra Garzia](#)

Eskolan iritsi berriei egiten genizkien **nobatada** gupidagabeak. [Iban Zaldúa](#)

nobato izond/iz adkor hasiberria.

Aski **nobatoak** baitira gizajoak munduan egote kontuetan. [Markos Zapiain](#)

Lumatu gabeko oilasko hasberri baldin baginen ikastetxe hartara gindoazenetako asko, gu bezain **nobato**, gu bezain ezjakin eta inozentea zen Periko ere: karrera bukatu berria, huraxe zuen lehenengo lana, aurretik, itxura denez, probatu gabea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Sartu aurretik, **nobatoetako** batek esan zuen eraikineko lehen solairuko lurreko zurajeak su hartu zuela, dena erortzeko arriskua zegoela. [Jon Alonso](#)

nobedade 1 iz gauza berria. ik berritasun.

Nobedadeak etengabe agertu eta desagertzen zaizkigu begien aurretik. [Pako Aristi](#)

Nobedadeez gain, batek baino gehiagok eskertzen ditu lehengo gauzak. [Berria - Kultura](#)

Espero izatekoa zen, a zer **nobedadea**. [Harkaitz Cano](#)

Makina berri bat ekarri zuten, kopiatzailea esaten zitzaiona, **nobedadea**. [Jon Maia](#)

Hura bai **nobedadea**, musikari bati ordaintzea. [Harkaitz Cano](#)

Geroztik, ama beltzez janzen hasi zen eta horixe da gogoratzen ahal dudana **nobedade** bakarra. [Alberto Ladron Arana](#)

Ohean lo egiten baitzuten, beraiantzat **nobedade** ederra zena. [Pablo Sastre](#)

Laukizko herrian zan eta, nireak lez, besteen begiak be **nobedade** demoninotzko hataraxe adi-adi egozan danak. [Xabier Amuriza](#)

Nobedade gisa, aurtan GPS sistema erabiliko dute lehendabizikoz. [Berria - Kirola](#)

Zeharkatu ohi zituen hirietan ikusitako **nobedade** nagusienak aipatzen zizkien. [Xabier Aranburu](#)

Berebiziko aitzina pausotzat aurkeztu zuten Parisen: halakoxea baitzen **nobedade** hori. [Pello Zabala](#)

Hasierako hamaikakoari dagokionez, ez dirudi **nobedade** asko egongo denik. [Berria - Kirola](#)

Bere garaian **nobedade** izan ziren antzinako liburu hauek ere badute publikoia Durangon. [Berria - Kultura](#)

Idazleen aburuz, garai zailak bizi ditu literaturak, batez ere, argitaletxeek «**nobedadea**» eta errentagarritasuna lehenesten dituztelako. [Berria - Kultura](#)

Ez zen **nobedade** noski ordurako, baina hori gertatzen zen bakoitzean, gu bezala mundu guztia, muintetarainoko larritasun-zirrara batek jorik sentitzen ginen. [Juan Garzia](#)

Agian, baserriar haientzat kalera jaistea, farolen argia ikustea eta musika entzutea sekulako **nobedadea** zela. [Pako Aristi](#)

Kazetarietzako ikastaroa antolatzea ere **nobedadea** da. [Berria - Harian](#)

2 liburu, musikalan edo kideko berria.

Azokara bi **nobedade** eramango ditu: bata, Koldo Zuazoren euskalkien mapa eta, bestea, 20005eko egutegia. [Berria - Euskal Herria](#)

Hartu magnetofonia eta grabatzera joaten ginen, eta bera beldurka ibiltzen zen, ni bistan azaltzen banintzen ez zuen joko nik nahi nuen **nobedade** hura, horregatik ezkutua ibiltzen ginen. [Pako Aristi](#)

3 berria.

Artzaina, berriz, Andaluziako mendi eta larreei buruz aritu zitzaion, baita bidean tokatzen zitzaizkion hirietako azken **nobedadeez** ere. [Xabier Aranburu](#)

3 (hitz elkartuetan)

Rambuteau kalearen izkinan, **nobedade** denda handiaren apal hutsen artean, enplegatu batzuk zeuden zutik; erakusleihoa prestatzen ari ziren. [Karlos Zabala](#)

4 nobedadea egin zorabiatu, alditxartu.

Pello Zabaleta bertsoari zena, arratsalde eder batean paseatzera atera zen mendi-aldera, eta han, pinudi baten erdian **nobedadea** egin, eta hamaseiren bat ordu pasa omen zituen baso beltzean bakar-bakarrik, lurrean, bere buruaz baliatzeko gauza ez zela. [Iñaki Segurola](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi nobedade (3); **nobedade izan** (3); **nobedade nagusia** (3)

azken nobedadeak (3)

nobedaderik ez (5)

nobedadetsu izond erabat berria edo berria dena.

Gure inguru hauetan tokatu zaizue ezer **nobedadetsurik** erreparatzea, akaso? 1999ko udazkenak ez du aparteko koska nabarmenik izan. [Pello Zabala](#)

Artean lagun ezkonberriaren egoera **nobedadetsu** zitzaien, eta Perikok onartu egin zuen lagunek, etxekoandre kuttun berria denek azkarrago ezagutu eta konfiantzazko bihur zezaten, bota zioten proposamena: lanean ari ziren bitartean, Isidorak presta zezala denentzat afaria. [Pako Aristi](#)

nobedadetxo iz adkor nobedadea.

Ilbehera eta ilgora, ilberri eta ilbete, hor ibili ohi naiz erreparatu eta erreparatu, aspertu gabe, ekarri ohi baitu **nobedadetxoren** bat bere martingala beti berrien artean.

[Pello Zabala](#)

nobedadeta iz nobedatez izatea.

Nobedade horiek ia urterokoak izatean, **nobedadeta** utzi eta normalizat hartu behar ote diren galde genezake. Pello Zabala

nobedoso *izond* erabat berria edo berria dena. ik nobedadetsu.

Seguru zegoen Martari ikaragarri gustatuko zitzaioela abentura moduko hau, jolas guztiz berri eta **nobedoso** baitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

nobel 1 iz Nobel saria.

Wangari Maathai ekologista kenyarrak jaso du Bakearen **Nobela**. Berria - Mundua

Pritzker saria irabazitakoa da, arkitekturaren **Nobela**. Berria - Gaiak

2 Nobel sarisup_1

Maisu Zaharrak biziki miresten zuen Marie Curie, Ireneren ama ospetsua (eta bi **Nobel Sari** irabazi zituen pertsona bakarra). Fernando Morillo

Nobel saria irabazi duen hamargarren emakumezkoa da. Berria - Kultura

Urte hartan eman zioten **Nobel saria**, baina ez zuen onartu. Monika Etxebarria

Kimikako **Nobel saria** eman zioten Van't Hoffi, 1901ean. Unai Elorriaga

Isaac Bashevis Singerri eman zioten 1978ko Literatura **Nobel saria**. Koro Navarro

Shirin Ebadi: Irandar emazte honek ukan du bake **Nobel saria**. Herria

Nobel saria, kimiaren sailean, hiru ikerle handik ukan dute, horietarik batto frantsesa, Yves Chauvin. Herria

García Márquez idazleak **Nobel saria** eskuratu zuen urte berean, 1982an. Pello Salaburu

Nobel saria jasotzeak eragin handia izan zuen bere lanaren hedapenean. Ibon Uribarri

Sartrek uko egin zion **Nobel sariari**. Berria - Kultura

Nobel sari epaimahaiki bi pertsona hauen lana saritzean ondoko bi ezaugarri aipatu zituen «ustekabeko aurkikuntza eta harrigarria». Berria - Gaiak

2004. urteko Right Livelihood sariak Bakearen **Nobel sari** alternatiboak banatu zituzten herenegun Hiderabaten (India). Berria - Gaiak

3 Nobel sarisup_2 Nobel sariduna.

Agintea lortu berri duen diktadorea ez da gaur gotzain bat aldamenen duela agertzen herriaren aurrean; aukeran nahiago du **Nobel sari** bat ondoan. Anjel Lertxundi

Maurice Allais 1998. urteko **Nobel sariak** dioen legez, kreditu mekanismo hauen bidez merkatu ekonomien minbizia sortu da. Iñaki Heras

Joseph E. Stiglitz Ekonomiako **Nobel sariaren** *Globalization and its discontents* liburua. Iñaki Heras

Gidarien artean ekonomiako bi **Nobel sari** zituen funts horrek, eta gutxieneko ekarpena 10 milioi dolarrekoa zen. Iñaki Heras

Esan zidan itzal handiko jende asko lo egina zela ohe hartan, ministroak, hiru **Nobel sari**. Jon Muñoz

Nobel Saria Fisikan 1938an. Fernando Rey

4 Nobel saridun Nobel saria eman dioten pertsona.

Paul Dirac (Fisikako **Nobel Sariduna**). Fernando Morillo

Sune Bergstroem 1982ko Medikuntzako **Nobel sariduna** hil da, 88 urterekin. Berria - Gaiak

Literaturako **Nobel saridun** Günter Grassen izen bereko eleberraren zinemaratzea. Berria - Kultura

Adolfo Perez Esquivel **Nobel** Bake **saridunak** bitartekari lanak egin zituen. Berria - Mundua

Bakearen bi **Nobel saridunak** diru gehiago eskatu dute tuberkulosiaren aurkako borrokarako. Berria - Gaiak

Idazten ez ezik **Nobel Saridun** honek badaki irakurtzen ere. Berria - Kultura

Goseari, bakardadeari eta elkartasun faltari buruz irakurri ditudan orririk finenak idatzi zituen Knut Hamsun **Nobel saridunak**. Anjel Lertxundi

Imre Kertész **Nobel Saridun** berriak txarrantxa-alanbrez eta zaintza-dorrez inguratutako oroitzapenen artean idazten duen bezala. Hasier Etxebarria

Coetzee **Nobel saridunaren** 'Lotsaizuna' euskaratu du Oskar Aranak, Jokin Zaitegi sariari esker. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bake nobel saridunak (4); **bakearen nobel sari** (3); **bakearen nobel saria** (23); **bakearen nobel sariduna** (8); **bakearen nobel saridunak** (8); **fisikako nobel saria** (3); **fisikako nobel sariduna** (5); **fisikako nobel saridunak** (3); **kimikako nobel saria** (3); **literaturako nobel saria** (8)

nobel sari alternatiboak (4); **nobel saria eman** (24); **nobel saria eskuratu** (5); **nobel saria irabazi** (8); **nobel saria jaso** (18); **nobel saria jasotzeko** (4); **nobel sariak** (14); **nobel sariak zioen** (3); **nobel sariaren** (11); **nobel saridun** (32); **nobel saridun bat** (3); **nobel sariduna** (38); **nobel saridunak** (44); **nobel saridunaren** (18); **nobel saridunari** (9); **nobel saridunek** (10); **nobel sarirako** (14)

sei nobel saridun (6)

nobela (*2207 agerraldi, 145 liburu eta 357 artikulutan; cf eleberri 1426 agerraldi, 107 liburu eta 347 artikulutan*) 1 iz eleberria.

Emakumeak azaldu zidanez, hori zen Duvrescu idazten ari zen **nobela**, zendu zenean. Iban Zaldúa

Neil Gordon-ek idatzitako **nobela** datorkit gogora, *Isaaken Sakrifizioa*. Joseba Zulaika

Bera protagonista zen **nobela** bat idazteari ekin nion. Joseba Urteaga

Jose Manuel Etxeitak, 1909an, *Jose txo* **nobela** argitaratu zuenean. Koldo Zuazo

Emakume bat eserita **nobela** bat irakurtzen; adin ertaineko gizon bat bueltaka. Rafa Egiguren

Aurelia Arkotxak "Septentrio" liburua aurkeztuko du, Eneko Bidegainek aldiz "Mahatsaren begia" bere azken **nobela**. Herria

Nobelak trukatzeko genituen, bakeroenak, Simenonenak, Zane Greyrenak. Karlos Linazasoro

Abel izenak Unamunoren *Abel Sánchez* **nobelaren** titulua ekarri zidan gogora. Anjel Lertxundi

Horixe da Enrique Vila-Matasen **nobela** baten izenburua, *Paris no se acaba nunca*, 2003. urtean argitaratua. Iban Zaldúa

Gogorarazi nion **nobelaren** pasarte oso garrantzitsu baterako behar nuela eta hura taxutu gabe ez zegoela aurrera jarraitzeko modurik. Ramon Sazarbitoria

Dickensen *Oliver Twist* **nobelako** Faginek baino bihotz gaiztoagoa zuela ikazkinak. Anjel Lertxundi

Azken finean, zer da **nobela** bat, ipuin puztu bat baino? Iban Zaldúa

Genero bezala, **nobela** ez zait interesatzen. Jon Alonso

Ez nuen uste inola ere **nobela** maisulana izan zitekeenik. Iban Zaldúa

Zuen herrian, bigarren mailako generoa da **nobela**; garai hartan oso estimu gutxian zeukaten. Juan Garzia

Kasualitate horietako bat, **nobela** edo film batean aurkitu eta sinetsiko ez zenukeena. Iñaki Iñurrieta

Hegazkinean itzulera natorrela ideia on bat izan diat, hiru istorio dituen **nobela** bat eta argitaratu gabeko materiala batera ematea, omnibus modura. Edorta Jimenez

Ezagutzen al duzu Julio Vernerren **nobela** bat, izpi berde batez ari dena...? Iñaki Iñurrieta

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nobela handi guztien hasierak ezagutzen ditut buruz. Joxean Agirre

Lehen testua trama gisa idatzia zegoen eta **nobela** luzeago baten zirriborroa zirudien. Joxean Agirre

The mummy **nobela** bururreko pertsonaia nagusia. Bernardo Atxaga

Nobela da, laburra da, baina ez da **"nobela** laburra" bere egitura semiotiko sakonenean, irakurle jantziak antzeman diokeenez. Iñaki Segurola

Nobela poliziako klasikoetan bezala, auziaren muina denbora-faktorea zen. Jon Alonso

Guztietan zerabilen tonu berbera, Jazmin saileko **nobela** erromantikoena gogorarazten zidana, nolabait. Iban Zaldua

"Harreman arrisksuak" **nobela** psikologikoen obra aitzindaria da, gutun bidezko nobelen eta literatura libertinoaren ekarria biltzen dituen beste. Jon Muñoz

Nobela beltz eta sozialaren arteko mistura bat. Unai Iturriaga

Horregatik iruditu zitzaizkidan hain barregarri eta sinesgaitzak zenbait **nobela** amerikar, gaztetxoan alkoholismoa modu ikargarri eta tremendistan agertarazten zutenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Abenturazko **nobelak** horrelatsu zeudela eraikita, arazoak planteatu eta arazo horiek konpondu. Xabier Mendiguren Elizegi

Zerbitzariari aspaldi irakurritako beldurrezko **nobela** bateko pertsonaia baten trazak hartzen zizkio. Joxean Agirre

Philip K. Dick-en *The Man in the High Castle*, zientzia fikziozko **nobela** bat. Iban Zaldua

Apaletik bere **nobela** argitaratu berria hartu eta besaulki batean irakurtzen hasi nintzen. Joxean Agirre

Nik, berriz [...] behin eta berriz berrirakurtzen dut Mario Benedettiren **nobela** nerabe-usaineko bat: [...]. Iñigo Aranbarri

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horregatik da zentzuzkoa Conraden kritika, baina ulertzekoa da halaber **nobela** -idazleen jarrera. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkue XI **Nobela** saria. Ana Urkiza

Azkenean buruz ezagutzen dut **nobela** heroi eder hori! Jon Muñoz

Nobela -irakurleen profiletan emakumezkoarena agertzen da nabarmen. Ana Urkiza

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizon batek, alproja batek, gero ikusi ahal izan nuenez, nire bizitzari buruzko detektibe **nobela** idatzi zian, *Arrakastaren sekretua* izenekoa. Lopez de Arana

Horregatik, askotan bukaeratik hasi ohi naiz polizi **nobelak** irakurtzen, amaiera argitu ondoren lasaitasunez ekin baitieziaiket hasieratik. Ramon Saizarbitoria

Niretzat, *Saturno* maitasun **nobela** bat da, baina irakurle askok ez du horrela ikusi. Ana Urkiza

Sendabidean jarri eta biharamunean *Bratislavarrak* bere epopeia idazten hasi zen, letra xehe inprimaturiko bost liburukik osatuko zuten ibai-**nobela**. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abenturazko nobela (5); artzain nobela (5); azken nobela (9); bigarren nobela (6); euskal nobela (4); hirugarren nobela (6); idatzitako nobela (9); inguruko nobela (4); izeneko nobela (6); lehen nobela (18); lehendabiziko nobela (5); lehenengo nobela (7)

nobela argitaratu (5); nobela bat idatzi (6); nobela bat idatziko (7); nobela bat idaztea (7); nobela bat idazteko (7); nobela bat idazten (10); nobela bat irakurtzen (4); nobela beltz (6); nobela beltza (7); nobela beltzak (4); nobela beltzaren (7); nobela berri (7); nobela berria (11); nobela berriak (4); nobela handi (6); nobela handi bat (4); nobela historiko (7); nobela historikoa (16); nobela historikoak (15); nobela idatzi (5); nobela idatzi zuen (4); nobela idazteko (9); nobela idazten (8); nobela irakurtzen (6); nobela izan (5); nobela labur (8); nobela laburra (11); nobela laburren (4)

oinarriko nobela (6); polizia nobela (4)

nobelak idatzi (4); nobelak idazteko (7); nobelak idazten (5); nobelak irakurri (4)

nobelako pasarte (4); nobelako pertsonaia (14); nobelako pertsonaia nagusiak (8); nobelako pertsonaiak (4); nobelako protagonista (4); nobelako protagonistak (4); ulysses nobelako (4)

euskal nobelan (4); lehen nobelan (4); nobelan agertzen (5); nobelan zehar (7)

nobelatzat jo (3)

nobelagile 1 iz eleberrigilea.

PEN Klub elkarteak, jatorrian, poetak, gidogileak, editoreak, **nobelagileak**, saiogileak eta editoreak batzeko jaiotza zen, horien adierazpen askatasuna defendatzeko asmoz.

Berria - Kultura

Eleberririk horietan nabari-nabaria da, bestalde, Joyce eta AEBetako **nobelagileengandik** (Dos Passos, Faulkner, Hemingway eta besteengandik) hartutako tekniken erabilera, *Goragalean* ere suma zitekeena. Monika Etxebarria

Doktor Glass-ek, Hjalmar Söderberg **nobelagile** suediarren pertsonaia batek, egiten duen gogoeta bat etorri zitzaidan gogora. Ramon Saizarbitoria

Israel Zangwill (1864-1926), idazle ingeles judua, **nobelagilea** eta pentsalaria. Fernando Rey

Italiako **nobelagileen** tradizioa maite dut, eta Europako **nobelagileen** tradizio handia. Berria - Kultura

Izan ere, nire uste apalean, McEwan ipuinlari hobearen, **nobelagile** baino, eta, tamalez, goiz abandonatu zuen narraziogintza. Berria - Kultura

2 (hitz elkartuetan)

Ez dut ezer asmatu eta nire **nobelagile** -ohiturari jarraituz zerbait asmatzen nuen aldiro, agudo sentitzen nintzen asmatutako guztia ezabatzeraz bultzatua. Fernando Rey

Estiloa, **nobelagile** esku hori, kazetaritza eta literatura elkarrengandik gertuago zeuden garai haiek... Iñigo Aranbarri

· XX. mendean XVII. mendeko herri-**nobelagile** bat izatea gutxiagotzea zen Menard-en begietan. Juan Garzia

Denborarekin, zuk aldarrikatutako bide horretara jo dute euskal **nobelagileek**. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

poeta eta nobelagilea (3)

nobelagintza iz eleberrigintza.

Nobelagintzaren arazo nagusia kausalitatea dela, eta naturalistek aldarrikatutako ahalegina -errealitate bakar eta zinezkoaren kopia edo notario-akta baten bila- banitate eta zentzugabekeria hutsa zela. Bernardo Atxaga

Aldekoaren lanen artean **nobelagintza** aztertu nuen, **nobelagintza** zelako gehien interesatzen zitzaidan generoa. Berria - Kultura

Gaurko euskarazko literaturaren garapen mailara iristeko Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegiren **nobelagintzak** izugarriko garrantzia izan du. Berria - Kultura

Kazetaritza **nobelagintzara** doan tartearen berri duk. Aingeru Epaltza

Gaizkiaren eta azpikoaren gaia ere maiz agertzen da XVIII. mendeko **nobelagintzan**. Jon Muñoz

Euskal **nobelagintzan** agertzen diren maitaleei buruzko liburuaren ondotik hego haizeak gure literaturan duen presentzia lantxo bat zirriborrazten hasia nengoan. Joxean Agirre

Nobelagintzaren eremuan idazle berritzailea izan zen Woolf. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

euskal nobelagintza (7); euskal nobelagintza modernoaren (3)

euskal nobelagintzan (8)

nobelatu, nobela(tu), nobelatan 1 du ad nobela tankeran kontatu.

Eta amildegi horretara nola erortzen zen **nobelatu** zuen beste liburu ederrago batean. Berria - Kultura

Heriotzara arteko bidea **nobelatu** zuen bezala **nobelatu** zituen bere bizitzako beste garai batzuk bere ipuinetan. Berria - Kultura

2 (era burutua izenondo gisa)

Metaforarik gabeko nobela historikoak ez dira benetako nobela historikoak, historia **nobelatuak** baizik. Van Daan andrea: ingeles ikasten ari da, postaz; biografia **nobelatuak** eta eleberriak gustatzen zaizkio. Berria - Kultura

Menyhért Lakatosek bere autobiografia **nobelatuan** romungoroak (Hungariako ijitoak), jornalaritzara joanda, korta handietan zelan biltzen, zelan kantatzen, zelan sexu jotzen zuten kontatzen digu. Pablo Sastre

Mende beteko kronika **nobelatua**. Berria - Kultura

nobelatxo iz hedadura txikiko nobela.

Horrela hasten da Franz Kafkaren *Itxuraldaketa* deritzon **nobelatxoa**. Joxerra Garzia

2001eko udan, urte batzuk lehenagoetik zirika neukan **nobelatxo** bat idazten aritu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Zaila da nekez entretenigarri izatera iristen den Skipping Christmas **nobelatxoa** bestela irakurtzea. Berria - Kultura

nobelatzar iz adkor hedadura handiko nobela.

Hala ere, bazuen xarmarik, niretzat bederen; xarma literario bat, akaso, garai haietan irakurtzen nituen hemeretzigarren mendeko **nobelatzarretako** heroi sentimentalekiko nolabaiteko lotura ukroniko eta memeloa. Iban Zaldúa

Egia baita XIX. mendeko **nobelatzar** haietan, gaur egungo telebistako foiletoietan bezala, ugari bezain nekagarri zirela era horretako kointzidentziak. Xabier Mendiguren Elizegi

nobelazale izond nobelen zalea dena.

Nobelazalea ere banaiz, baina generorik kutunena ipuina dut. Berria - Harian

nobelesko izond nobelarena, nobelari dagokiona.

Gure idazle moderno ezagunenak ere gogoan txertatzeko moduko hasierak oparitu izan dizkigu, hala nola Obabako kontakizunen zati **nobeleskoa** zabaltzen zuen hura: "Aspaldi, artean gazte eta berde ginela...". Xabier Mendiguren Elizegi

A. ren kasuan, hori bai, iskanbilazkoa da errepika plazentaren bilatze hori, traketsa; **nobeleskoagoa** horrenbestez lagun barearena baino. Markos Zapiain

nobelista iz nobelagilea.

Anton Hansen eta Jaan Kross **nobelistak** eta Jaan Kaplinski poeta aipatu behar dira garaikideen artean [Estonian]. Berria - Kultura

Baroja beren-beregi euskal arrazaren izpirituaren **nobelista** da, edo hori nahi du izan. Joxe Azurmendi

Hori ez zela nobela bat egitea, ni ez nintzela **nobelista** ... esan zidaten. Berria - Kultura

nobelistika iz nobelagintza.

Azkenean gure galdera sartu ahal izan genuen, bere **nobelistikaren** ildoei buruzkoa, profitatuz orain gutxi esan zuela nobela, genero literario baino, nolabaiteko espazio literario moduan ulertu beharko litzatekeela. Berria - Kultura

nobelistiko izond nobela tankerakoa.

Baina ez du oso **nobelistikoa** ematen. Berria - Kultura

nobelsaritu, nobelsari(tu), nobelsaritzen du ad Nobel saria eman.

1973an "idoro" eta 2004an **nobelsaritutako** ipuin subatomiko baten arabera, ustezko *quark*-ak elkarrengandik oso gertu daudenean, haien arteko interakzioa hain da ahula non ia partikula libreen gisan portatzen baitira, eta, aitzitik, *quark*-ak elkarrengandik urrunago, eta interakzioa handiagoa baita. Iñaki Segurola

nobia iz neska-laguna.

Luisek beti izaten zuen **nobiaren** bat, baina ez zuk eta ez berak ez zenioten garrantzi handiegirik ematen. Lourdes Oñederra

Ikusiko duzu, ohartu baino lehen etxean egongo zara, zure **nobiarekin**, bideo bat ikusten. Sonia Gonzalez

Beste behin ere, ezin ihes egin neskaren setari, **nobia** formalarena egiteko egoskorkeria hari. Iñaki Iñurrieta

Pedroren argazkietan irribarretsu agertzen zen **nobia** hark ez luke halako izendapenik onartuko: gehien jota, Pedroren **nobia** ohia dela aitortuko luke. Iban Zaldúa

Esaten dut nik, bai, hemen larrutan egitea miraria dela, **nobiarik** eduki ezean. Jon Arretxe

nobiliario izond nobleziari dagokiona. ik noblezia 2.

bat da urguilua, zeinari anitzetan, geure buruaren zuritzeko, ohorea deritzogun; bertze bat inbidia, zeina emulazinoaren beztimendaz mozorrotzen dugun; eta bertze bat egoismoa, zeina titulu **nobiliario** batekin apaintzen dugun. Joan Mari Irigoien

nobio 1 iz mutil-laguna.

Kontu handiz aukeratu nituen **nobioak**, ez baltziren askorik izan, bestalde; hala eta guztiz ere, aitaren azterketa sakon baten ostean bihurtzen ziren, emaitza positiboa bazen, benetako senargai. Iban Zaldúa

Joko hartan astean behin alda zezakeen mutil batek andregaia eta, alderantziz, hilabete batean neskato batek hiru edo lau **nobio** izan zitzakeen errazki. Joxemari Iturralde

Horregatik dituzte gazteek hainbeste **nobio**, erdinobio eta horren gisakoak. Berria - Kultura

Nobioa ez omen zitzaion ezkontegunean aldare aurrean azaldu. Karlos Linazasoro

Unai izan zuen lehenengo **nobia**, bera izan zen Danielaren balarak ukitu zituen lehen mutila, bere titiburuak miatzatu zituen. Jasone Osoro

Oso gaztea da **nobia** izateko, Mikaela. Pablo Sastre

Honezkero **nobia** ere izango du, ezta? Koro Navarro

Aitona Patxi eta amona Mari orduan egin ziren **nobioak**, azaldu dit aitak. Iban Zaldúa

Baita arreba Inesen **nobio** berria ere. Patxi Iturritegi

Lotsa gutxirekin hor ibiltzen duk orain, **nobia** Alemanian duela eta, beste mutil batekin hemen... Pablo Sastre

Ez dut horrela ekarritako **nobiorik** behar, nik neuk bilatutakoa behar dut, ijitoa izango bada ere. Berria - Kultura

2 nobiotan

Migel senarrakin **nobiotan** hona etortzen ginen paseatzera. Patxi Zubizarreta

Handik hilabete gutxira aitari jakinarazi zion bertan neska bat ezagutu zuela eta **nobiotan** hasiak zirela. Fernando Rey

Konprenitu behar duzu ez dagoela batere ondo lñakeri egin diozuna, horrenbeste urtetan **nobiotan** ibili eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Egunero elkartzen ginen **nobiotan** gure etxean, gaua ondo ilundu arte. Arantxa Iturbe

Biak **nobiotan** ari zirela esaten zutela eta berak ez zekiela ezer. Bego Montorio

Berak nirekin egon beharra duela dio, hau da, gu biok bakarrik, umea gabe, intimitate galdua berreskuratu eta **nobiotan** bezala moldatzeko. Patxi Iturritegi

nobiotxo iz adkor nobioa.

Bezperan afaria eskaini digute euskaldunek Centro Catalanean, eta hara agertu dira ahal izan duten guztiak: Arturo, Arbe, Artola, Ortuondo, Txe, Mari Karmen, Isa bere **nobiotxoarekin**. Banco del Puebloko Roberto bere emaztearekin, Koro, Betty, Krispin nafarra, Ramuntxo, Goizeder... bihotzeko jendea dagoeneko, jende maitea guretzat.

Pako Aristi

nobiotza iz ezkongai harremana.

Sari handiena, ordea, jarraikoa zen: zintaz jabetutako mutilak eta haren egile izandako neskak erretratu bat egiten zuten elkarrekin, eta ziurtatuta gelditzen zen hartara "egun bateko **nobiotza**". Bernardo Atxaga

nobizia iz mojagaia.

Jesusen Bihotzeko lekaimen etxe nagusia, **nobizia** sartu zena, Vittorio Veneto-n zegoen. Josu Zabaleta

Eta abadesak arretaz eman biezaie, bai hauei eta bai beste **nobiziei** ere, monasterioko zentzuzkoenen arteak aukeratutako maistra bat, biziera santua eta ohitura onak irakats diezazkien, gure profesaren arabera. Askoren artean

Ardiesten du apezpikuaren baimena, adioak egiten ditu herriari eta badoha **nobiziaren** egitera. Xipri Arbelbide

Gurutzaden eta zaldun gurutzadariak eurrez hiltzearen ondorioz, ordena dominikar berri eta berritzailearen komentuk, eta [...] lekaike dominikarrenak, jadanik XIII. mendearen erdi aldetik **nobizia** umezurtzez eta goi- eta behe-nobeziako alarguntsez hornitu ziren. Joan Mari Lekuona

nobiziadu (orobat nobiziatu g.er.) 1 iz nobiziotza.

Jadanik zenbait urte hartan Hazparneko kongregazioan direnek **nobiziadua** laburtua izatea merezi dutela azpimarratzen du, apezburuek asko sofriarazi dietelakotz eta baldintza guziak onartu dituztelakotz. Xipri Arbelbide

1945ean Jesuiten Loiolako nobiziatuan sartu zen eta **nobiziatuko** bi urte egin zituen. Berria - Kultura

Nobiziadua egiten ari zela, izu ikaragarri baten ondorioz, erotu egin zen, eta gorputzaren eskuin alde osoa paralisi oso larri batek hartuta, mugimenduarekin batera, sentimena, entzumena eta hitza galdu zituen. Askoren artean

Gutun horiekin dagoen dokumentu batek, iduriz Arbelbidek egina, ematen ditu Betarramen sartzeko xedetan diren guzien izenak: 8 apez, **nobiziadua** egina duten 12 gazte, seminario ttipian diren beste 26. Xipri Arbelbide

Azpilkueta izan zen beraz Orreagako kalonje eta, atseginekin entzun zuen bere izen hori, baina ez zen luzaz bizi izan mendiarte horretan: doi-doi han egon **nobiziaduko** urte hartan eta, tarteka, agerraldi bat edo beste egin. Piarres Xarriton

2 fraidegaitegia.

1945ean Jesuiten Loiolako **nobiziatuan** sartu zen eta nobiziatuko bi urte egin zituen. Berria - Kultura

Nobiziadua Mauleko fraileen ondoan finkatu zuen lehenik, Montplaisir etxean, Jaret misionestaren zuzendaritzapean. Xipri Arbelbide

Bestalde **nobiziadu** bat bazuten jadanik Akitaniarako Bordale ondoan, Talence herrian. Xipri Arbelbide

Horretarako, seminario ttipi, **nobiziadu** eta seminario handi sortuko ditu. Xipri Arbelbide

nobiziatu ik nobiziadu.

nobizio 1 iz fraidegaia.

Hauek izan ziren anai Jordanekin bidaliriko anaiak: Weissenseeko anai Hermann, **nobizioa**, apaiza eta predikaria; Würzburgeko anai Konrado, **nobizioa**, subdiakonoa; Würzburgeko anai Henrike, **nobizioa**, subdiakonoa; anai Arnoldo, **nobizio** klerikoa; laikoak, berriz, Koloniako anai Henrike, Wormseko anai Gernoto eta Suebiako anai Konrado. Askoren artean

Jauffretek berak kondatzen du nola **nobizioak** oinez joan ziren Hazparnetik Lekornera, Zelaian gaindi, konfirmazio horretan parte hartzeko. Xipri Arbelbide

Jaret Donibaneko zuzendaria, Salaberri **nobizioen** arduraduna, Ospital apezgai gazteen arduraduna. Xipri Arbelbide

Nobizioaren brebiarioa. Askoren artean

Ordenatik irtetera zihoan **nobizio** gazte batek izan zuen ikuskari harrigarria. Askoren artean

2 (izenondo gisa)

Beste behin, bazen salmo-liburua irakurtzen zekien anai **nobizio** bat; ez zuen ongi irakurtzen, baina, gustura egiten zenez, salterioa edukitzeko baimena eskatu zion Ministro jeneralari eta honek eman. Askoren artean

3 (hitz elkartuetan)

Artean mutil koskorra zela, Ordenan onartu zuten eta **nobizio** -maisuaeren ardurapean jarri. Askoren artean

Azken ikasturteko lehen asteetan fraideen **Nobizio** Etxera joana zen, eta hiru hilabeteren buruan bisitan eraman gintuzten. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nobizioen ondasunetatik (3)

nobiziotegi (corpusean **nobizitegi** soilik) iz fraidegaitegia, nobiziadua.

Semenario eta **nobizitegi**etan hain guti sartzen delarik, nola ikusten dugu gauza hori? halabeharria bezala? ala gure gizarteko bizimoldeen ondorio bezala? **Herria**

nobiziotza iz nobizio denbora.

Madriren egin nuen **nobiziotza**. **Arantxa Iturbe**

noble 1 izond aitoren semeen klasekoa dena; horiei dagokiena.

Lucca hiriko gazte **noble** bat etorri zen Asisa, Ordenan sartzeko asmoz. **Askoren artean**

1185 eta 1190 artean jaio zen, familia **noble** batean. **Askoren artean**

Beste hemeretziak Urtubiako andreak idatzi zituen, hau ere etxe **noble** bateko alaba. **Berria - Kultura**

Eta esaten zidan isilean: guk odol **noblea** diagu zainetan. **Pello Lizarralde**

Baroia -gizon adintsu, burusoil eta esanekoa, zerbitzu publikoan emandako berrogei urteren eta emakume **noble** poloniar baten nahikunde sozial betegabeen zamapean abaildua- nahastu samarturik zebilen bi mutiko pinpirinei dibertsio modua eskaintzeko ahaleginetan. **Xabier Olarra**

Luzaro gabe zenbait gizon eskolatu eta **noble** elkartu zitzaizkion haren biziera hartzeko gogotsu. **Askoren artean**

Zer meritu du aberats jaiotzeak, **noble** edo aitonen seme? **Joan Mari Irigoien**

2 (izan aditzarekin)

Zertarako balio du jaiotzeak, **noble** izateko ez bada? **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Jatorriz **noble** eta bertutez nobleago zen andre batek debozio berezia zion Frantzisko santuari eta begirunez zerbitzatzen zuen. **Askoren artean**

Etorkiz **noblea** eta jakintza haundikoa. **Patziku Perurena**

Nobleak dira batzuk, espainiarrak Hegoaldera bidali zituzten Orangearrak; merkatariak dira besteak. **Felipe Juaristi**

Ez ziren **nobleak**, burgesak baizik, herri-kontseiluan agintzen zutenak. **Askoren artean**

Gure bezero gehienak **nobleak** edo aberatsak dira eta kasu, ondoko hilabeteetan gure lana ez ote den biziki dorpea izaneren. **Elena Touyaru**

- Ez ziren **nobleak** ez kapareak. **Aingeru Epaltza**

Noble nahiz bilau, azken hordia estalpean egokiturik utzi arte ez zuen Migel Mailuk oherako bidea hartu. **Aingeru Epaltza**

3 bikaina, prestua. (pertsonez eta animaliez)

Gizakia, sorkari **noble** eta duina, Jainkoaren irudira egina. **Joan Mari Lekuona**

Baina Jainkoak deitzen bazaitu gizaki **noblea** izan zaitez, mendi-gailur guztiak baino gorago dago zuk igo behar duzun gailurra. **Joan Mari Lekuona**

Dama **noble** eta ausarta zara, eta laguntzarik gabe zureganatu duzu aintza ahaztezina. **Agustin Otsoa**

Ene Jaun **noble** eta agurgarria! **Piarres Xarriton**

Pippin begira geratu zitzaion: garaia, **noblea** eta harroa zen, herri hartan ordura arte ikusitako gizon guztiak bezalakoa. **Agustin Otsoa**

Halakoak nituen gurasoak, **nobleak**, kalkulurik gabeko eskuzabaltasunez jokaten zutenak. **Anjel Lertxundi**

Zaldia, abere **noblea** da. **Daniel Landart**

4 (gauzez)

Aiako herri **noblean**. **Anjel Lertxundi**

Urrea edo zilarra; hau da txanponaren gai **noblea**. **Joan Mari Lekuona**

Harrobiko harriak, harri **nobleak**, harri arrosa edo ia arrosak. **Bernardo Atxaga**

Ongia egiten duenari bihotz **noblea** esaten zaio. **Anjel Lertxundi**

Jose Antonio Agirreren argazkia, bere begitarte zabal, jator, **noblearekin** konfiantza eta berotasuna ematen zizkizuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bertinako langintza da, eta, beraz, **noblea**. **Juan Garzia**

Bere jaioterrian egingo zituela egintza **noble** eta galantak. **Askoren artean**

Arrazoizko maitasun **noble** eta jakintsua ere gauza ospetsua da, preziazgarria eta gustagarria. **Joan Mari Lekuona**

Oso gauza **noble** eta duintzat zeukan Frantziskok [...] Jainko Jaunaren maitasunagatik limosna eskatzea. **Askoren artean**

Komiko lanbide hau guztiz dela lanbide **noblea**! **Josu Zabaleta**

Ez dut inon ikusten edertasun zintzo eta **noble** horri gain hartzen dion eskultura modernorik. **Patziku Perurena**

Kirol **noble** eta eder guztietan trebatzen. **Matías Múgica**

Eta bera, oka egiten zuenean, motibo **noble** bat imajinatzen saiatzen zen, oka zorabio txoro batek baino gauza garrantzitsuagoren batek eragin ziola. **Harkaitz Cano**

Baina unibertsoaren osotasunean gauzak alderantziz gertatzen dira: atalik nobleenak hain **noble** ez dena inguratzen du. **Xabier Kintana**

Horrek bi erantzun mota duela, bata bulgarea eta **noblea** bestea. **Joxe Azurmendi**

Materia materia da, ez **noble** eta ez doilor, infinituki eraldagarria, eta ez du batere axola haren etorki hurbilak. **Juan Garzia**

Mimoak behar ditugunean, modu **noblean** bueltatzen gara mimoen bila, pentsatuz sarituak izango garela, zigortuak izan beharrean. **Julen Gabiria**

5 gas bakunez mintzatuz, beste inongo elementurekin erreakzionatzen ez duena. **ikgeldo 5**.

Gas **noble** esaten zaie, orobat, eta eztabaidatzeko litzateke ea benetan **noble** guztiak diren geldo eta geldo guztiak diren **noble**. **Juan Garzia**

• 6 iz aitoren semea.

Biamoko eta Nafarroako **noble** nahiz elizgizonik handienak. **Aingeru Epaltza**

Baroien, **noble** berezkoen eta **noble** izendatuen liburuxoa ekarri zuen. **Anton Garikano**

-Kanpora **noble**, aberats eta errentadunak, zergarik pagatzen ez dutenak, beti aberasten ari direnak jende xumea aldiz, gose delarik! **Elena Touyaru**

Monarkiaren espirituaren kontra doa **nobleak** merkataritza aritzea. **Iñaki Iñurrieta**

Gorteko **noble** baten aurka idatzi zuen libeloa barka diezaion. **Anjel Lertxundi**

Noble gipuzkoarrak urte andana zituen Iruñean, Felipe II.a bere maiestate katolikoaren ordezkari nagusi Nafarroako Erresuman. **Aingeru Epaltza**

Eta denen aitzinean, gerla-tresnarik izugarriena: Frantzia osoko **noble** lehenen zalduneria harroa. **Aingeru Epaltza**

Aberats izan nahiz behartsu, **noble** nahiz xume, arbiuatu nahiz estimatu, zuhur nahiz simple eta ezjakin, kleriko nahiz laiko. **Askoren artean**

Gubbio familiako Carlo Gabrielli **noblearekin** ezkonduz. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

Bergarako **Nobleen** Errege Mintegian hiru urte estudianturikoa. **Joxe Azurmendi**

7 (hitz elkartuetan)

Enperadoreak ohore militarrik eta **noble**-titulua emango dizkio bere salbatzaile heroikoari. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

andre noble (7); emakume noble (4); familia noble (13); familia noble batean (3); familia noble bateko (3); gauza noble (3); gizon noble (5); gizon noble baten (3); jaun noble (6); jende noble (4)

noble asko (3); noble handi (3); noble nahiz xume (3); zaldun noble (4)

jaiotzaz noblea (4); **jatorra eta noblea** (5); **jaun noblea** (3); **jende noblea** (5); **noblea izan** (3); **noblea jatorriz** (3); **txit noblea** (3)
nobleagoa eta ahaltsuagoa (3)
konpainia noblean (20)
nobleek eta printzeek (3)
nobleen artean (3)

nobledun *izlag* nobleko.

Ezagutzen dut halako izpiritu **nobledun** franko, bidean zokoraturik eta hebaindurik gelditu dena. **Patziku Perurena**

nobleki *adlag* nobletasunez.

Fisika ere gogoko zuen, baina susmagarri zitzaion xede baterantz zuzenduriko ekintza oro: horregatik **nobleki** nagia zen, eta berezko zuen, jator, faxismoarenganako gorroto bizia. **Juan Garzia**

Horrek erakusten du, otoiiza irakurtu-eta, zein **nobleki**, zein amultsuki galdegin duten barkamendua anaitasunean eta bakean bizitzeko, anaitasunaren eta bakearen bilatzeko. **Herria**

nobletasun 1 *iz* noblea denaren nolakotasuna. ik **bikaintasun**.

Egoera naturazkoan aurkitzen da ariman, hau da, Jainkoaren irudi bera da, egiazko irudia, garbia, baina hainbestearinoko bikaintasun eta **nobletasunik** gabea. **Joan Mari Lekuona**

Antzeko bizitasuna zuten zaldizkoek eta zaldien gorputzek: dotoretasun eta **nobletasuna**, ia errudun sentiarazeko moduko grazia eta harmonia, edozein aitoren semeri gorputz-arimetan gertatzen zaiona bezalako. **Xabier Olarra**

Idazkera izango da Arkitekturaren teoriari bere **nobletasun** hori ezartzen diona. **Santiago Iruretagoiena**

Animaliaren atalen artean atal nagusitik urrunen dagoena **nobletasunean** gutxiago da hurbilago dagoena baino. **Xabier Kintana**

2 aitoren seme denaren nolakotasuna.

Orangeko printzearen proskripzioan, Felipe II.ak agindu zion hura edo haren oinordekoak hiltzen zuenari hogeita bost mila ezkutu eta **nobletasuna** emango dizkiola. **Iñaki Iñurrieta**

Zeren eta, noblea eta bere herrialdean txit agurgarria izanik, odoleko **nobletasuna** arbuiauz espiritukoa aukeratu baitzuen. **Askoren artean**

Bazen Eslavonian kondesa bat, **nobletasunez** ospetsu bezain bertutez bikain zena, **Askoren artean**

3 (hitz elkartuetan)

Zeren **nobletasun** agiria bereganatu ondoren egin baitzezakeen amets, orduan baizik ez, nobleen bizimoduarekin, zergak eta tributak ordaintzeari utziz eta lana ere alde baterat utziz. **Joan Mari Irigoien**

Gai honek, onen barruan, nahikunde biziak sortzen ditu barnean biltzeko, eta barne-**nobletasun** gorenean hazteko, Jainkoarekiko ahaidetasun estuak eskatzen duen moduan. **Joan Mari Lekuona**

nobletu, noble(tu), nobletzen 1 du *ad* noble bihurtu.

Aurpegia aurpegi hura zen: argazkigile jakintsu batek zahartu eta aldi berean **nobleturik**, neure gainetik hain garai entzuten nuen osterera erruki adigabe eta iraizekoz oraturiko hitz haiek, "zergatik duzu halako itxura artega?". **Juan Garzia**

Amodio grinak ere ez ditzake ni bezalakoak **nobletu**. **Matías Múgica**

Eguneko ardurek seriotasun soil batez **nobletu** dute. **Josu Zabaleta**

2

Gure diskurtso eskolastiko lojikaz apaindu eta itxuraz **nobletu** honek baino gizenki zuri gutxiago eta gihar gorri gehiago erakusten duela letratu gabeko edozein hiltun inozentek. **Patziku Perurena**

Bilau **nobletuak**. **Patziku Perurena**

nobleza ik **noblezia**.

noblezadun ik **nobleziadun**.

noblezi ik **noblezia**.

noblezia (*orobat nobleza g.er.*) 1 *iz* aitoren seme denaren nolakotasuna. ik **nobletasun 2**.

Etz dut zertan, haren ohorerako, berriro aipatzen ibili haren jatorri ospetsua, familiaren **noblezia**, ondasun handiak. **Askoren artean**

Noblezia diruz erosi ahal izatea bizkorgarri ederra da tratulariak hori lortzen saia daitezen. **Iñaki Iñurrieta**

Handinahia zen Frantzisko, eta diruari **nobleziaren** ospea gehitu nahi izan zion. **Askoren artean**

Joan Perezek guztiz bat egiten du sasoi horretako zaldun euskaldunen balio eta mundu-ikuskerarekin: odol-garbitasuna, **noblezia**, erlijioa, erregearen zerbitzua... **Berria - Kultura**

Noble handien eta herriaren artean dagoen togako **noblezia** hori da bat; lehenaren distira izan gabe, beraren pribilegio guztiak dituen. **Iñaki Iñurrieta**

Nik errege-duintasun eta **noblezia** izugarritzat daukat, aberats izanik guregatik behartsu egin zen Jaunari jarraitzea. **Askoren artean**

Horregatik aukeratu nau ni, munduko **noblezia**, handitasuna, indarra, edertasuna eta jakinduria lotsarazteko. **Askoren artean**

Ohitura primitibo eta ohitura endekatuen nahastea; xalotasuna eta ustelkeria; **noblezia** eta bastartkeria; artzain bizimodua eta gerla zibila. **Berria - Euskal Herria**

2 nobleak, aitoren semeak.

Horrekin hasi zen Ingalaterrako gerra zibila: **noblezia** eta zaldunak alde batetik, errege Charles agintari zutela, eta jauntxo txikiak, burgesak eta nekazariak bestetik, Cromwel buru zutela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Liu Pang ez zen ondasunez gabeturiko **noblezia** feudaleko kide, nekazari baizik. **Iñaki Mendiguren**

Nobleziak pribilegioak zituelako lege penalarren aurrean. **Juan Martín Elexpuru**

Herriaren altxamendu espontaneo, elizak eta **nobleziak** xaxatu eta antolatua izan dela. **Joxe Azurmendi**

Nobleziako kideak dira, ez denak ordea maila bereko nobleak. Jon Muñoz

Bere familiak **nobleziako** neska batekin ezkontzera behartu zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hanka bat nekazari munduan eta bestea **noblezian** duen klasea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Asisko herria eta burgesia garaile ateratzen dira **noblezia** feudalarren aurkako borrokan. Askoren artean

Erregearen gehiegikeriak eta **nobleziaren** harrokeria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiri gehienak errepublika bihurtu ziren, eta **noblezia** hura erori egin zen, edota desegin egin zuten. Iñaki Iñurrieta

Hura ere **nobleziakoa** zen, baina zokoratua zegoen. Koro Navarro

3 bikaintasuna, prestutasuna.

Uztaritzeko auzapez ohia, **noblezia** eta errespetu haundikoa, zinez "jauna". Herria

Gizonaren **noblezia**, saio eta hutsegitez josiriko ehun mendetan zehar irabazia, materiaren jaun eta jabe egitean zetzala, eta, hain zuzen, **noblezia** horrekiko leialtasunari eutsi nahi niolako matrikulatu nintzela ni Kimikan. Juan Garzia

Arimaren **nobleziaz** filosofoek idatzirik utzitakoa naturazko argiez lortu zuten ezagutzea. Joan Mari Lekuona

Nork du ezagutu egiaz Jainkoak naturari emaniko bikaintasun eta **noblezia**? Joan Mari Lekuona

Maisuek diote, baita ere, **noblezia** gutxien duen arimako alderdia, nobleagoa dela zeruko alderdirik goreneana baino. Joan Mari Lekuona

Barruko **noblezia** honetaz, arima-zolan gordetzen denetaz, maisu asko dira hitz egin dutenak, lehengoak eta oraingoak. Joan Mari Lekuona

Elgarren txelo kontzertua **nobleziaz** beteriko lana da, oso britainiarra (victoriarra). Berria - Kultura

Zeruen hierarkia, esfera birakariak, planetak mugiarazten dituzten adimenak, elementuen mailaketa beren **nobleziaren** arabera, eta gorputz zerutiarrak muin hustelezin batez osaturik dauden ikuspegia. Iñaki Mendiguren

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat noblezi)

Colettek idatzi zuen zenbait jenderentzat Parisen bizitzea **noblezia** titulu bat izatea bezalatsu zela. Bernardo Atxaga

Diruz eros zezakeela faltan zuena, **noblezi** tituluak ere diruaren esku egon zitezkeenez gero... zeudenez gero. Joan Mari Irigoien

Aski-eztasuna eta deuseztasuna leporatzea beti ere gauzei, eta gabezia eta hutsa sentitzea, eta horrez gainera asperdura, hori iruditzen zait niri giza izatean aurki daitekeen bikaintasun- eta **noblezia**-seinalerik handiena. Juan Garzia

Urte berean, Iraultza denboran beraz, kenarazi zituzten bizkondeen kaperan ziren **noblezia** markak, armariak eta burdin zerradurak. Michel Oronoz

Ez da, beraz, legitimoa jorratzen ari garen testuei, supituan, euren orijinaltasun titulua eskatzea, eta galdegitea ea **noblezia** mailarik baduten, hauxe neurtzen baita hemen arbasoen faltan. Xabier Arregi

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Garbi dago sasoi honetan euskara ez zela soilik baserritarren edo apaizen hizkuntza, eta Iparraldeko goi **noblezia** ere euskalduna zela. Berria - Kultura

XIII. mendearen erdi aldetik nobizia umezurtzez eta goi- eta behe-**nobleziako** alarguntsez hornitu ziren aurretik zeuden komentuak betez eta beste asko sortzera behartuz.

Joan Mari Lekuona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

noblezia tituluak (3)

nobleziadun *(corpusean noblezadun soilik) iz* nobleziakoa.

Gertakari honek, eta hiletaren luzeak, inguruko tabernetara sakabanatu ditu abokatuak ostalariak **noblezadunak** neskameak poliziak, gehienak ere ur eske min txuria egin zaien damendako Koldo Izagirre

nobody *iz*

Pistan dantza egitera joaten ziren neska mamaletatik hasi eta txurrodun gazte kanueroetara arte, tartean egon daitekeen fauna eta flora oro kontuan hartuta: paisanozko poliziak, EGILko burukideak, trapitxeroak, borrokak, **nobodyak**, makarrak, pijoak, iurretarrak eta despistaturen bat edo beste. Unai Iturriaga

nobokaina *iz* prokaina klorhidratoa, uretan eta alkoholetan urtzen den hauts zuria, anestesiko gisa erabiltzen dena.

Ellenek afarian izugarrizko hotza sentitu zuen, bere baitan gero eta barrurago, **nobokainak** eragindakoa bailitzan. Lopez de Arana

nodriza *iz* kamioiez eta kidekoez mintzatuz, beste kamioi edo kideko bat hornitzen duena.

Errefuertzoak eta kamioi **nodriza** sekula baino bizkorrago iritsi ziren su-lekura. Jon Alonso

nodulo ik **nodulu**.

nodulu *(orobat nodulo) iz* zelula-metaketa gogorra, bereziki tamaina txikikoa.

Nodulu linfatikoak ehunezko kozkor batzuk dira, gorputzaren leku askotan daudenak. Irene Aldasoro

Identifikatu ostean, erasoaren aztarnak **nodulu**-linfatoraino eramaten ditu dendritak. Berria - Gaiak

Askotan, ordea, ahoskordak bortxatuz ematen diogu biriketatik ahulegi datorren aire-etorriari bultzada, eta **noduluak** bezalako gaixotasunak sortzen zaizkigu. Lourdes Oñederra

Medikuak azaldu zidanez [...] **noduloak** isurketa eragin zidan eta memento berean sendatu ez nuenez, orain gogortu eta gaiztotu egin zait. Berria - Kirola

Europako Batasunaren gomendioan agertzen da ahots kordetako **noduluak** lanak eragindako gaixotasun bezala hartu behar direla. Berria - Euskal Herria

noel *iz* gabon kanta.

Ohetik entzun ditut olesak eta **noelak**. Anjel Lertxundi

Bitxiak dira, benetan, orain ia lau mende ateratako **Noelak**, Etcheberryrenak. Pello Zabala

noesi *iz* pentsatzea.

Ez da ez *logos* ez **noesi**, ez da mintzamenaren edo adimenaren gaia. Joan Mari Lekuona

noesiterapia (*orobat neositerapia*) **1** iz anestesiarik gabe, eriazen ahalmen metalez baliatuz, ebakuntza kirurgikoak egiteko teknika.

Eta ez omen dago **noesiterapia** baino sistema lagungarriagorik. Berria - Gaiak

Noesiterapian urte askoko eskarmentua du Escuderok. Berria - Gaiak

Escuderoren arabera, gaixoaren borondatea nahitaezkoa da **noesiterapian**. Berria - Gaiak

2 (hitz elkartuetan)

Noesiterapia eskolak jaso dituzten emaginak plazenta eskuz kentzeko gai izan dira, horretarako anestesia erabili beharrik izan gabe, eta episiotomiak ere egin dituzte.

Berria - Gaiak

Valentziako mediku batek anestesia kimikorik erabili gabe sendatzen ditu gaixoak, **noesiterapia** teknika erabili. Berria - Gaiak

Neositerapia teknika gauza askotarako erabiltzen dela dio Escuderok. Berria - Gaiak

noharroin *izond* behartsua, erromesa.

Eta nor da jakintsuago, finean: baseritar **noharroin** on-beharra baina Jainkoaren bidetik dabilena, edo kapare aberats kasik guztiahalduna baina deabruari arima saldua diona? Joan Mari Irigoien

noiz *adlag*

1 **noiz baino noiz** (zehar galderetan) noiz, noiz azkenean.

Hektor eta Akiles alegia, eta Troiako guda, eta Frantziako hamabi Pareak, eta Ingalaterrako Artur, oraindano bele bihurturik dabilena, eta, bere erresuman **noiz baino noiz** sartuko, bere jendea zain-zain dagoena. Patxi Ezkiaga

Mandatar bat bidali zuen andere dukesak, zure soinekoa eta beste erregali bat Teresa Panza zure emaztearentzat eramanez; zain-zain gaude **noiz baino noiz** etorriko erantzuna. Patxi Ezkiaga

2 lehenago edo geroago

Lasai zebilen, zaldia ez behartzeko, eta, hura ikusirik, inork ez zuen sinetsiko bide hura tatariarrek **noiz baino noiz** mozteko beldurrez egoteko motiborik bazegoela. Karlos Zabala

Lehenengo esploratzaile tatariarrek **noiz baino noiz** agertuko zirela espero zuen, beraz, Mikel Strogoffek. Karlos Zabala

3 **noiz edo behin** noiz edo behin.

Noiz edo behin neure ametsetan agertzen zait eta etorriko dela esaten dit. Gotzon Garate

Noiz edo behin zurrunga-hots zurrunbilotsuak ateratzen zitzaizkion eta lerre-arrasto zarakartsu bat zerion. Mirentxu Larrañaga

Noiz edo behin emakume txiki xamar eta beltzaran bat ikusten zen atzera-aurrera, eta Senperen hileta egunean autoa gidatzen ikusitako hegoamerikarra ere ikusi zenuen, plastikozko zorro batean zekartzan erosketak sukaldara eramaten. Hasier Etxeberria

Gutarteko euskalzale eta ez euskalzaleek ere **noiz edo behin** entzuna dukete "Pottoka" ren kantua. Herria

Euskal herritarren %42,6k maiz irakurtzeko ohitura dute astean behin, gutxienez, eta %15,8k, hilean **noiz edo behin**. Berria - Kultura

4 **noiz edo noiz** noizbait, inoiz.

Noiz edo noiz, bizitza honetan, nork ez ote du sentitu zirrara hori?, pentsatu du gizonak bere baitan. Imanol Zurutuza

-Noiz edo noiz izan behar du lehendabiziko aldia. Anjel Lertxundi

Zakur batekin ikusi izan du, **noiz edo noiz**, etxe ondoko parkean. Iban Zaldua

Julio, berriz, bere maisu-etxean sarturik egoten zen, eta, **noiz edo noiz** irteten zenean, tabernara joaten zen zuzenean, baina ez lehen eramaten zuen itxura ttennte eta begirada harroarekin. Juan Kruz Igerabide

Begi nekatuak ditu, nahiz eta oraindik gordetzen duten halako distir fin bat, **noiz edo noiz** berpizten dena, itzaltzeaz dagoen ikatz-txinparta bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jaungoikoak zuzen idazten du, **noiz edo noiz** lerro okerren bat eginagatik ere. Inazio Mujika Iraola

Leire izeneko bat, esate baterako, adiskide mina zuen, eta, **noiz edo noiz**, Idoiari etxera bila joaten nintzaiolarik, han topatua nuen. Juan Kruz Igerabide

Bizitzeko beste diru badauka, eta **noiz edo noiz** dolarren batzuk xahutzen baditu ere... zer? nor ez da aritu **noiz edo noiz**, bidertzeko edo larreko ote mordoak erretzen? Oskar Arana

Gurasoak ere etorri ziren **noiz edo noiz** bisitan. Arantxa Iturbe

Elizgizonaren famak erakarririk, erregeordeak bere gorte txikira deitua zuen **noiz edo noiz**. Aingeru Epaltza

Ikusi izan ditugu **noiz edo noiz**. Arantxa Iturbe

Noiz edo noiz denok altxatu gara mahaitik. Urtzi Urrutikoetxea

5 **noiz ere** (denborazko perpaus bat txertatzen)

Noiz-ere ezkontzeko adinera helduak baitziren emaiten zioten baktaxari ehun luisen dotea. Xipri Arbelbide

Olentzero mendi zolan topatu-eta herriko eskolako geletara lagundu zuten haur guziek, **noiz ere** denek kantatu baitzaizkieten kantu goresgarri batzu. Herria

Anfitrioi batek izan dezakeen sentipen berbera da, festak okerrera egin duela konturatzean, **noiz ere** ikusten baitu gonbidatuak bazterrean eserita eta elkarren artean nahasteari uko egiten diotela. Izan da une bat, **noiz ere** beldurra menderatuta izatearen azken zantzu hauskorrek izu-laborriari bide eman baitiote, dagoeneko ezin ezkutatuzkoa den izu-laborriari. Mirentxu Larrañaga

Atzeko gurgila ez zen egonean erroitetik zenbait habibetera baino, **noiz ere** eskaleak, agure xahar konkortua eta kasik elbarria, hurbildu eta harri bati egin dion bultza oinarekin. Koldo Izagirre

Ibarrean, artean eguzkia aditzen zen; etxe gris arrunt batzuk hausnarrean ari ziren belardian; **noiz ere** musikari indartsuena, galsoroetan paseoan zebilela, ameslari, belauniko jarri baitzen muino gainean. Eskarne Mujika

Udazkenak, urtero-urtero, ezustean harrapatzen gintuen baratze hartan hosto gorri gutxi batzuek, zeinak arboletatik tupustean jausten ziren, **noiz ere** uste baikenuen oraindik eguzki-egunen erdian ginela. Eskarne Mujika

· Zeu ere menpean zaude, beharra eta premia handiak dira, ez dagokizu erabakitzea norekin eta nola, ezta **noiz ere**, eta tokia ez da garrantzitsua. Lutxo Egia

6 **noiz eta** (denborazko perpaus bat txertatzen)

Zutik nengoen ni Nilo ibaiaren ondoan, **noiz eta** ikusi baintuen Nilotik irteten zazpi behi itxura ederrekoak eta gizen-gizenak, ibaiertzeko larrean bazkatzen hasi zirenak. Jose Antonio Mujika

Abas osaba Kamilen apartamentuan babestu zen; eseria zegoen, eskuak gurutzaturik, **noiz eta**, bortizkeriaz, ate joka hasi baitziren. Patxi Zubizarreta

Sinetsirik dago argi egin digula Francis Bacon-i buruz, **noiz eta** azaldu baitigu bizi eta delikatuia zuela begia, urraren kolorekoa, eta sugegorri baten begiaren modukoa. Juan Garzia

Denbora iragan eta gertaturikoa ahantzia zen, **noiz eta**, ilunabarreko eguzki motelarekin batera, Helenaren begietatik argia ezkutatuta eta distira itzali baitzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldez aurretik dastatzen ari zen egunen batean sentituko zuen plazerra, **noiz eta** akatsik gabeko ordena ezarri eta etxeko ekonomiaren erresorte guztiak zalu mugituko baitziren, elkarri eraginez. Jose Morales

Arma erakustegi batean eskegita zeukan turkiar zimitarra handi bat hartu, eta jotzera zihoan, nola Abraham batek mendian, **noiz eta** gogoeta batek eskua gelditu baitzion.

Josu Zabaleta

Galtzaleak ziren aintzinean 31-28, **noiz-eta** Larrechea eta Filipek hamar kintze egin baitzituzte lerroan zuraidarraren hiru sake eta Carricarten sistako batzuekin eskuineko xokorat. **Herria**

Zeren ene bihotza ez baita lehengoa, eta ez dabilkit gaztetan bezala, **noiz eta** eskatzen niñon guztia emaiten baitzidan, kolpe bat bertze bati zerraiola, neurri, justu eta doi. **Joan Mari Irigoien**

7 (esaldi hanpatuetan)

Lanean jarri behar al ninduten galdetu nien, **noiz eta** halako festa batean. **Bernardo Atxaga**

Deabruak eta hautsak, eta fraide zaharrak **noiz eta** XXI. mendean! **Anjel Lertxundi**

Aspaldi handian irrikitan nengoan hiri noiz erranen, Edu, eta gaur diat parada: hamabortz urte hituenetik irrigarria izan haiz, eta gaur, **noiz eta** gaur, goia jo duk hire irrigarrierian. **Aingeru Epaltza**

Noiz eta orain, ohitu naizenean zu hemen izatera. **Fernando Rey**

Noiz eta orain, negua sartuko den honetan? **Fernando Rey**

8 (beste galdetzaile baten ezkerrean)

Ontsia gogoan dut bada **noiz eta** non nuen ikusi eta entzun lehen aldikotz. **Noiz eta** nola hasi zinen idazten? **Piarres Xarriton**

Nork sentitzen du oroimin handiagoa: haurrak gurasoena ala gurasoek haurrena? **noiz eta** nola izaten den. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez dakigu zehatz **noiz eta** zergatik idatzia izan zen. **Askoren artean**

Ondo ikasia zuten **noiz eta nondik** pasa. **Joxemari Urteaga**

Hilero, **noiz eta** nora joan den jakinarazi behar dio epaileari. **Berria - Euskal Herria**

Zinera joaten bazen, jatexe edota diskoteka batera sartzen bazen, **noiz eta** norekin egin zuen sartu-atera hura..., horrelako zehaztasunak besterik ez zidaten eskatzen agentzian. **Joxemari Iturralde**

- Gainera ez zuten informe oso zehatza nahi, soilik kalean egiten zituen mugimenduen berri, hots, nondik atera eta nora sartzen zen, norekin, **noiz eta** noiz arte. **Joxemari Iturralde**

Gu gara non, **noiz eta** zenbat hil behar diren erabakitzen dugunak, hau da, gerra honetan ordena pixka bat jartzen dugunak. **Jon Alonso**

9 **noiz eta ere** (denborazko perpaus bat txertatzen)

Banindoa, **noiz eta ere**, bat-batean, gizonak erraiten baitaut: [...]. **Marzel Etxehandi**

Bi gazteek elgar ezagutu zuten, **noiz eta ere** Fernanda zaldi karrosan ziholarik Madrilen gaindi, bat-batean zaldiak erotu baitzitzaizkion. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

1848an esposatzera zihozan biak, **noiz eta ere** Madrilgo errege palazioak jakinarazi baitzien ezkontza hori ez zela nehondik ere onartzen ahal. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ikasle multzo bat gure etorkizun profesionalaz ari ginen ikastetxeko patioan [...] **noiz eta ere**, gure Potzolak ahoa bete hortzekin utzi baikintuen denak: [...]. **Aingeru Epaltza**

Lurrean ikusita, zorroan sartu eta bazterrek huster a zihoa, **noiz eta ere** ustekabean norbaitekin topoz topo egin baitzuen. **Koldo Biguri**

10 **noiz... noiz...**

Mutila harresiaren inguruan ibili zen, tentu eta arreta handiz, **noiz** zutik **noiz** haztamuka, estropezu egiteko beldurrak airean. **Felipe Juaristi**

Ohartzen zara **noiz** nabilen eta **noiz** nagoen geldi. **Elizen arteko biblia**

Erlijio gerletan alderdi batetik bertzera ibili zen, **noiz** higanota, **noiz** katolikoa. **Aingeru Epaltza**

Maletatxoan daramaztu egurrezko fusila, itxaroten bera ere, zu bezala, **noiz** amaituko, **noiz** itzuliko, **noiz** desagertuko. **Sonia Gonzalez**

Den-denak ere susmoak eta usteak, **noiz** urduritasunak eta **noiz** sukarrak eragindakoak. **Anjel Lertxundi**

Nola edo hala, **noiz** konboi militarretan, **noiz** Estatuaren gurditzarretan, Petersburgera iristea lortu zuen azkenean. **Jose Morales**

- Bidaia honetako paisajea bezain aldakor sentitzen naiz: **noiz** lehor **noiz** heze, **noiz** egutera **noiz** ainube, **noiz** bero **noiz** hotz... **Patxi Zubizarreta**

Jario haren hitzak, argi txiki motelduak bezala, bere gogoaren ilunpetan piztu ziren, **noiz** gorri, **noiz** urdin, **noiz** hori. **Anton Garikano**

Gezi guztiak ez dira, ordea, berdinak, sortu eta jaurti zireneko aldarrearen arabera baizik, **noiz** labur, **noiz** luze, **noiz** ezpata, **noiz** ziri, **noiz** inozo, **noiz** pozoitsu, **noiz** arin, **noiz** astun. **Joxerra Garzia**

11 **noiz nola** (orobat **noiznola**) egoeraren arabera.

Gizaki zaharrak etsipenaldi asko izan ondoren, **noiz nola** jokatu behar duen jakiten du. **Gotzon Garate**

Ezkerrean berdin, Mitterrand-ek bai eta ez, **noiz nola**. **Herria**

Ez dut "gizaki", "ugaztun adimendun" eta antzeko bihurrikeria jakintzetan katigatu nahi, ez diot "logokeria" lasaigarriaren dialekto tranpazkoari **noiz-nola**, komenentziakzko haizearekin batera dabilenari) amore emango. **Iñaki Segurola**

Jo dezagun orain bizia galtzea besteren baten egitez gertatzen dela; gu hil egiten gaituzte [...] eta haiek, berriz, akabatu edo hil, **noiz nola**. **Iñaki Segurola**

Elgarrekin joanen dira ezkermuturrekoak (Laguiller-Besancenot), Komunistek nahiago dute bakarrik jokatu; aldz berdeak joiten dira sozialistekin toki batzutan, bakarrik bertzetan, **noiz nola**. **Herria**

Batean jauregiatoko jauntxoak lausengatuz eta heien alde agertuz, bestean ez batera samur jauntxo horieri zuten boteretik parte bat bederen kenduz edo mugatuz! **noiz nola** gerta! **Herria**

Batzuek alderdi onetik gatzatu, eta beste batzuek gaitzetik, edo, hobeki esanik, onetik eta gaitzetik, **noiz nola**. **Iñaki Segurola**

12 **noiz eta nola**.

Ikuskizun dago inflazio tentsioak Eurotunela **noiznola** gurutzatzen duen. **Berria - Ekonomia**

Noiz-nola jakin nuen ez dut gogoan. **Aingeru Epaltza**

"Prestige" horren kasuan, nehork ezin erran **noiz nola** hedatuko den petrolakia. **Herria**

Gerrak eta frankismoak ondo fındutako belarriak genituen, entzun behar genuena non-**noiz-nola** entzun ahal izateko. **Anjel Lertxundi**

13 **noiz nolako izond**

Izan da Ulises sindromea **noiz nolako** aringarritzat onartu duen epailerik. **Berria - Euskal Herria**

Hori ere Heisenberg da, indeterminazioaren printzipioa: momentu etenak (gutxigarabeherakoak eta **noiz-nolakoak**, halaberbarrez, gure begieste eta gogoearentzat) lotzen badituz eta identitate iraunkor bat sortzen. **Iñaki Segurola**

• 14 **iz**

Ustegabean harrapatu baininduen, baietz nik; arren eskatu nion garaiz zehazteko bere etorreraren **noiz-nolakoak**, eta albora utzi nuen, jada alferrikakoa baitzen noski, gutun-zirriborroa. **Juan Garzia**

Jainkoarengan bakarrik dago gauzen **noiz-nolakoak** jakitea, Harengan ez baita lehenik eta gerorik, orain hutsa baizik dena. **Patxi Ezkiaga**

15 **noizean behin** (orobat **noizeanbehin g.er.**) **adlag** batzuetan, gutxitan, bataren eta besteren artean tarte handia gertatzen dela. ik **noizbehinka**.

Noizean behin, bere begirada arretatsu eta irribarretsua luzatzen dit; baina ez nau ikusten; jaten ari dena zelatatzen murgilduegi dago. **Monika Etxebarria**

-Bai, gauza ona da **noizean behin** beste leku batzuetara joan-etorri bat egitea. **Jose Morales**

Orain, **noizean behin**, gutunen bat edo beste bidaltzen dio aitak munduko bazterren batetik. **Anton Olano**

Gustuko dut, **noizean behin** eta pertsona egokiek, odaliskarena egitea, emakumeek badakite zertaz ari naizen, zoragarria da. **Karlos Zabala**

Gertutik begiratzen du eta **noizean behin** arnasotsa egiten du. **Monika Etxebarria**

Hemen, *Sin Otetxestea* besterik ez duugu irakurtzen, eta **noizean behin** soilik. Jose Morales
Arretagabe tira egiten zien sokeni, **noizean behin** begi-kolpe bat luzatzen zuela etorri berri bakoitzaren aurpegira, eta **noizean behin**, asperdura beraz, zerura. Irene Aldasoro

Ongi hagoen ikustera etorriko naun **noizean behin** ... Antton Olano

Oso **noizean behin** ikusten dira horrelakoak. Koro Navarro

Putreak eta arranoak begiztatzea oso **noizean behin** suertatu ohi zait, baina noiznahi harrapatzen dut neure burua buztanikararen baten shuffle-joerari begira, miretsia eta eder iritzia. Iñaki Segurola

16 noizean behingo izlag

Buruko min deitu litezkeenak, ez, baina askotan sentitzen dut -bolada batzuetan, ia egunero- buru-arintasun halako bat **noizean behingo** ziztada ez oso zorrotzekin. Anjel Lertxundi

Zure aurrean jesarrita dagoen andrak zeharka begiratzen dizu, **noizean behingo** boladetan, burua altxatzen duzunean zure begirada ekidinez, baina zu soberan konturatu zara gustatuko litzaiokeela jakitea zer den irakurtzen ari zaren liburu gorri hori. Sonia Gonzalez

17 noizean behinka adlag noizean behin.

Lehen egunero edaten bazen, gaur egun **noizean behinka** bakarrik da erosten, besta baten ospatzeko-edo. Berria - Harian

On duk **noizean behinka** gure garaipenak ikusitako tokietara itzultzea. Aingeru Epaltza

Errege Jaunak beharko du auziaz arduratu, baina ezingo du, **noizean behinka** baizik, bere kontaezinezko eginbide guztiengatik. Piarres Xarriton

Eskualde huntako zorianaz har dezagun plazer **noizean behinka** bederen. Herria

-Bilduma zaharrak ikusmiratzeko apeta izaten diat **noizean behinka**. Aingeru Epaltza

18 noizean noiz adlag noizean behin.

Noizean noiz hotzikarak sentitzen nituen gainera. Anjel Lertxundi

Noizean noiz, Yolande ikusten dut, zapatu gauetz. Eskarne Mujika

Komeni da etsaiaren klasikoak berrirakurtzea **noizean noiz**. Koldo Izagirre

19 noizetik noizera adlag noizean behin. ik noiztik.

-Leher eginda hoa, ume gaixo hori -esaten zion **noizetik noizera**. Karlos Zabala

Noizetik noizera, xinpart batek besteak baino biziago urrez erraustatzen zituen haren ile-xorta barneko ilun-nabarrean gorritzka agiri zirenak, eta **noizetik noizera**, gar luzeago batek haren aztal ezitia mihazkatuz, aldera inguratzen zen hats-behera ito batekin. Anjel Lertxundi

Azkenik, denbora ere xuhur baitute jaun horiek, ez ginuen guk, zorigaitzez, **noizetik noizera** baizik gozatu Labeguerie, gazterik zendua gainerat, HERRIAren elgarkidetze egunetan. Herria

· **Noizetik noizera** idekia da kapital emendioko epe hori? Herria

20 noizik behin adlag noizean behin.

Noizik behin presio txikia egiten nuen, non sakatu behar nuen erabakitzeke. Anjel Lertxundi

Noizik behin, Jamesek Edithi begiratzen zion, nola ote zebilen. Koro Navarro

Ez zuen hitzik esaten baina, **noizik behin**, hanka luzatu eta bere oinari ikarazko begirada zuzentzen zion. Monika Etxebarria

Oso gogoko zuen anaia guztiak **noizik behin** eskuz lan egitea. Askoren artean

Weldon andreak bazuen beste zaletasuntxo isil-gordekorik ere, **noizik behin** aitortu ohi zuenik. Mirentxu Larrañaga

Orriak pasatzen egon da une batez: orri zuri asko eta, oso **noizik behin**, zenbait lerro, tinta gorritz eginak. Monika Etxebarria

21 noizik behingo izlag

Suaren **noizik behingo** zapartak baino hots handiago batek atera ninduen neure kabutatik. Anjel Lertxundi

22 noizik behinka adlag noizik behin.

Noizik behinka, bere dendaren atzealdean, amore eman eta sakelatik atera egiten zuen erabat, bizpahiru emakumezko erakusteko. Karlos Zabala

Loak **noizik behinka** hartu zuen bakarrik, eta tarte labor horietan ere haren burua esna-esna egon zen. Karlos Zabala

Gavarden atseginik handienetakoa zen **noizik behinka** lagun batekin gela hartan sartu eta gauza arriskugarri haiek erakustea. Karlos Zabala

-Verlaque deabru horrek adarra jotzen dik -esaten zion Gavardek **noizik behinka** -. Karlos Zabala

23 noizik eta behin adlag noizean behin.

Noizik eta behin gurasoak engainatuak izaten dira. Gotzon Garate

Noizik eta behin, nire aurrean agertzen da bat-batean Bennetten eskuin besoa, edo eskuak haizetakoa ukitzen du emeki. Xabier Olarra

Gure artilleriak obus bat edo bi jaurtitzen ditu airera, **noizik eta behin**, haien lubakietarantz, eta haiek ere beste horrenbeste egiten dute. Mirentxu Larrañaga

Joan egiten zen argia **noizik eta behin**, une batez doi-doi: elektrikaren eten errepikatua. Xabier Montoia

Inork ez zuen ulertzen zergatik, baina handik gutxira, Bertha nora ezean galtzen hasi zen, **noizik eta behin**. Mirentxu Larrañaga

24 noizik noizera adlag noizetik noizera. ik noiztik 4.

Noizik noizera, ibilgailuaren kanpaitxoari eragiten zion, aire biziak, abisu emateko. Anjel Lertxundi

Ezpainen inarrostetik zabaldu da, korridorean zehar, zurrumuru lauso bat eta, **noizik noizera**, kontsonante baten zizpaza entzuten da. Itziar Otegi

25 noiztara adlag ipar noizean behin.

Ez ote lizateke eijer horren irakurtzea **noiztara** heben? haatik aldan aldikoa, eta hona beraz Gernikarik Philippe Etxegorri-ren gütüna. Herria

Hilabetean behin, ostirale arratseko 8etan, hiru irratien artean, Xiberoko Botzaren auzoa den Zinka ostatütik, sonüegile talde bat aldizka entzünen da públikoan, bai müsikan, baia elestan **noiztara**, xüxenka. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

auskalo noiz (25); auskalo noiz arte (8); badaki noiz (10); badakit noiz (7); ea noiz (69); ea noiz arte (7); eguna noiz iritsiko (8); ez dakit noiz (48); ez zekien noiz (8)
noiz agertuko zain (24); noiz ailegatuko zain (8); noiz amaituko den (7); noiz arte (406); noiz arte egon (19); noiz arte egongo (16); noiz arte ibili (8); noiz arte irauenen (10);
noiz arte irauango (17); noiz arte jarraitu (14); noiz arte jarraituko (8); noiz artio (10); noiz aterako zain (8); noiz behinka (20); noiz demontre (8)
noiz edo behin (21); noiz edo noiz (219); noiz egingo den (7); noiz egingo duen (8); noiz ere (14); noiz eta (725); noiz eta ere (20); noiz eta nola (127); noiz eta non (36);
noiz eta nun (10); noiz eta zer (10); noiz eta zergatik (10); noiz etorriko da (9); noiz etorriko zain (21); noiz gertatuko den (9); noiz hasi zen (25); noiz hasi zinen (11);
noiz hasiko den (13); noiz hasiko diren (13); noiz hasiko zain (13); noiz hasten da (7); noiz hil zen (11)
noiz ikusiko dugu (7); noiz iritsiko den (7); noiz iritsiko zain (34); noiz itzuliko da (8); noiz itzuliko den (8); noiz itzuliko zain (14); noiz izan da (7); noiz izan zen (18); noiz
izanen den (7); noiz izango den (18); noiz jaio zen (7); noiz jokatuko diren (10); noiz joko zain (8); noiz nola (31)
noiz sartuko zain (7); noiz sortu zen (8)
nola eta noiz (11); non eta noiz (41); nun eta noiz (8); zehatz mehatz noiz (8)
[3] noizean behin (729); noizean behin bai (3); noizean behin bakarrik (6); noizean behin soilik (10); noizean behingo (3); noizean behinka (14); noizean behinkako (3);
noizean noiz (4); oso noizean behin (25)
[3] noizetik noizera (11); noizetik noizerat (5)
[3] noizik behin (76); noizik behinka (13); noizik eta behin (17)

noizaldi iz denbora.

Benetan hartu ote dakioko gaina denborari? Ba ote du pertsonak **noizaldiari** irabazterik? etriaren bitartez, antza, arrosak betiereko irauan dezake zimeltzeke. Berria -

noizbait *(orobat noizpait g.er. eta noizpeit g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian noizbait agertzen da)* **1 adlag**

2 noizbait ere *(orobat noizpaitere g.er. eta noizpaitte g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian noizbait ere agertzen da)*

Noizbait ere, jabetu nintzen: gu denok, gaztetxoa eta andrea, agerpen bat ginen, nire oroimenak leku desertu hartara ekarritako fantasma taldea. **Bernardo Atxaga**

Noizbait ere heldu ziren etxera, prestatu zuten afaria, eta mahaira eseri ziren. **Patxi Zubizarreta**

Noizbait ere joan zen, eta zientzia liburuen argitaletxe bat sortu zuen bere kasa. **Fernando Rey**

Noizbait ere dena argitu zen eta drogagileak ziurtatu ahal izan zuten, hainbat urte lehenago, Sams Al-Dinek edabe bat eginarazi ziola hazia sendotzeko eta trinkotzeko. **Patxi Zubizarreta**

Ailegatu nintzen **noizbait ere**. **Aingeru Epaltza**

-Esan zenidan **noizbait ere** tokatu behar zitzaizula. **Ramon Saizarbitoria**

Galdu du **noizbait ere** orain urte gutxi arte zikratze sinbolikorako erabiltzen zuen tresna izugarri hura: soldadutza. **Joseba Zulaika**

Ez duk nire ofizioa, baina beste **noizbait ere** egin izan diat. **Eskarne Mujika**

Bere galtza bakero beltz behinola zuri izandako joskuradunekin, eta **noizbait ere** zuri izandako bere espartinekin. **Joxe Austin Arrieta**

-Ikasiko duk **noizbait ere**. **Aingeru Epaltza**

-Arbola eroriaren ondoan -xuxurlatu zion **noizbait ere**. **Aingeru Epaltza**

Zure zauriak **noizbait ere** sendatu egingo dira. **Patxi Zubizarreta**

3 noizbaiteko *(orobat nozbaiteko g.er.) izlag*

Horixe da hiria gaur, handiago eta areago, eta lehenengo batere antzik gabea, izena salbu; edo izen arrotzetara bagoaz, oso bana dira, jakina, **noizbaiteko polis** hura eta orainagoko **city** hauek. **Iñaki Segurola**

Ezaguna duzue, noski, **noizbaiteko** nire jokabidea judaismoan: zeinen gogor pertsegitzen nuen Jainkoaren Eliza, berau suntsitu nahirik. **Elizen arteko biblia**

Neurri jakinik gabeko gogo on **noizbaiteko** hura hotziltzen eta gezatzen hasten denean, neurria eta ordainaren legea gailentzen dira. **Iñaki Segurola**

Ahalkeak hartu gintuen Erkizia azaldu zitzaigunean, sotanak muga ezartzen zuen **noizbaiteko** ikaskideen artean, gelatarra izandako hura Jainkoaren hauta zen orain.

Koldo Izagirre

Galera, zapuzte eta etsi-behar baten umeak gara: haurtzaro beti-joankor, gaztetasun beti-iheskor, amodio beti-galkorraren, lehenbiziko egunsenti itzalik gabeko haren, paradisuaren edo auskalo zeren galerak ekarri gaitu gure izatera, **noizbaiteko** geure onetik orain hauetako ondoezetara. **Iñaki Segurola**

4 noizbaiteko batean

Noizbaiteko batean han zetorrek zaldi gainean... **Patziku Perurena**

Noizbaiteko batean, funtzionarioak keinu egin zidan etortzeko. **Matías Múgica**

Talde osoak ibili omen hituan haren atzetik, eta harrapatu ere bai **noizbaiteko batean**. **Patziku Perurena**

Uste nuen pentsamendua kontzentratu eta kontzentratu, burubide jenialen bat izango nuela **noizbaiteko batean**. **Matías Múgica**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

agian noizbait (9); **bertze noizbait** (4); **beste noizbait** (32); **beste noizbait ere** (4); **esan zuen noizbait** (6)

noizbait amaitu (5); **noizbait bukatu** (4); **noizbait egin** (11); **noizbait esan** (13); **noizbait esan zuen** (5); **noizbait gertatu** (6); **noizbait hasi** (7); **noizbait heldu** (5); **noizbait ikusi** (4); **noizbait ikusiko** (5); **noizbait irakurri** (9); **noizbait itzuli** (6); **noizbait itzuliko** (5); **noizbait izan** (9); **noizbait jakinen** (6); **noizbait kontatu** (4); **noizbait pentsatu** (5)

noizbaiteko batean (4)

noizbehin *adlag* inoiz.

Hutsa den aldetik, Logikak ez du ezin printzipio enpirikorik, eta beraz, ez du ezer hartzen Psikologiatik (**noizbehin** pentsatu den legez), eta honek, beraz, ez du eraginik adimenaren kanonean. **Ibon Uribarri**

Arazoimen hutsaren esperimendu honek kimikariak egiten duenaren antza handia du-, **noizbehin** erredukzioaren saildia baina eskuarki jardunbide sintetikoa deitzen dioten esperimenduaren antza du beraz. **Ibon Uribarri**

noizbehinka *(orobat noiz behinka g.,er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian noizbehinka agertzen da)* **1 adlag** noizean behin.

Noizbehinka, gelditu egiten zen gure trenan bide zabalean, gauaren erdian, ezin jakin zergatik." Oi, Lidia gaixoa", esaten zuen **noizbehinka** gure amak. **Joxe Austin Arrieta**

Noizbehinka kabala errebelatu bat gurutzatzen nuen, gautxori baten auhena hautematen eta bat-batean herri argizatuaren muinera heltzen nintzen. **Itxaro Borda**

Hoteleko nire ohean etzanda, lo egin ezinik, baina lasai; gau beroa da, eta **noizbehinka** dutxatu egin behar neure gorputz traidore hau. **Joxe Austin Arrieta**

Haien bozak, irriak eta, **noizbehinka**, kalapitak ere, karrikatik adi zitezkeen. **Elena Touyarou**

Orduan, **noizbehinka**, zerbait gertatzen da eta erauzi egiten zaitu handigurazko oskol harro horretatik, eta berriro gogorazten dizu ez dakizula fitsik ere bizitzaz. **Oskar Arana**

Patioan argi guztiak zeuden itzalita, eta isiltasuna ere erabatekoa zen; katuren baten marraka goibelak bakarrik hausten zuen **noizbehinka**. **Ramon Saizarbitoria**

Marrok oso **noizbehinka** baino ez zigun hitz egiten haurroi -inoiz ez modu onean, edo bederen umore apur batez-. **Juan Kruz Igerabide**

Iluna da nagusi, arima zolaraino blaitzen dion bakardade zaparradapean, eta oso bakan, oso **noizbehinka**, argi kolperen batek istant batez eteten du ilunaldia, erakusten dizu parajea, eta bat-batean dena agertzen zaizu ulergarri. **Iñaki Iñurieta**

2 noizbehinkako izlag

Baina -aurrenekoetan **noizbehinkako** flash modura, gero kontzienteki- hurrengo hitza edo esaldia zein izango ote zen asmatzeko ahaleginetan hasi nintzen. **Iban Zaldúa**

Zer pentsatuko ote zuten nire **noizbehinkako** bisitariak ezpain-zapi haiak, paperontzian bota beharrean banan-banan jasotzen eta haien inbentarioa osatzen harrapatu izan banindute? **Joxan Elozegi**

Kalendarioen historia kalendarioen **noizbehinkako** egokitzeen historia besterik ez da. **Pello Salaburu**

Baina ordu artean **noizbehinkako** harremanak bakarrik izan zituenez gero, pozgarria irizten zion egonkortasun apur bat izateari. **Mirentxu Larrañaga**

Azkenean, oraindik ere aurpegi osoa argitzen zion **noizbehinkako** irribarre hura egin zidan, eta, aurreko mantala kentzen zuen bitartean, "bihar goizean bertan joan gintezke" esan zuen. **Ramon Saizarbitoria**

Arratsaldetan, gogotik ikasten nuen; oinarrizko batxilergo titulua eskuan neukan, eta goi mailakoa neure kontura ari nintzen prestatzen, Adelairen **noizbehinkako** laguntzarekin. **Juan Kruz Igerabide**

Larunbatero, oso **noizbehinkako** salbuespenak salbu. **Jon Muñoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

noizbehinka agertzen (3); **noizbehinka baino** (10); **noizbehinka baino ez** (5); **noizbehinka bakarrik** (4); **noizbehinka izan** (3); **oso noizbehinka** (15)

oso noizbehinkako (4)

noizdanik (21 agerraldi, 12 liburu eta artikulu 1ean; orobat **noiztanik** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **noizdanik** agertzen da) *adlag* noiz ezker. ik **noiztik**.

Noizdanik dabilta elkarrekin? [Aingeru Epaltza](#)

Ez du gogoan **noizdanik** ez den hain goiz jaikitzen, karreraren lehen urteez geroztik noski. [Aingeru Epaltza](#)

Eta **noizdanik** du bada adiskidantza xarmak batbedera amodioaren xarmatik bertzeratzen? [Jon Muñoz](#)

Auskalo **noizdanik** ez ninduen ezerk hain jota utzi. [Mirentxu Larrañaga](#)

Auskalo **noizdanik** ari zen eginkizun hartan. [Iñaki Iñurrieta](#)

Zure ustez baitezpadako neurri horiek **noizdanik** behar litezke indarrean eman? [Herria](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo noizdanik (3)

noizeanbehin ik **noiz 15**.

noizko 1 *adlag* zer denborata(ra)ko?

-**Noizko** behar duzu artikulua? [Unai Iturriaga](#)

-**Noizko** duk zintzur bustitzea? -galdegin zion bizkarrez konkor bezain zardai zenak, zigarroa ezpainetan dilindan. [Itxaro Borda](#)

Arrantzaren erakustegi bat **noizko**? [Herria](#)

-**Noizko**, orduan, konfettiak? -egin zuen oihu gazteetako batek, ahots hautsiz. [Josu Zabaleta](#)

Denborak esango digu **noizko** berregingo duten kostaldeko bidea, eta zein prezioetan, amerikarrek, debalde egin eta, gainera, dagoeneko amaitzeaz izango luketenean.

[Pako Aristi](#)

-Eta **noizko** elkarrekin zerbait hartzeko gonbidapen hori? [Aingeru Epaltza](#)

Eta **noizko** erantzunak, **noizko** pozaren paradisua eta amets goxo guztien ordaina? [Karlos Linazasoro](#)

2 izlag

Noizko data dute? -galdetu zion Albertok. [Joxemari Urteaga](#)

Gazte jendea andanan sartu eta iriteten zen auskalo **noizko** eta zein estilotako atetzar hartatik. [Unai Iturriaga](#)

Kazetari izatea **noizko** burutazioa den, hori ere kaskoan atxiki gabea dut. [Aingeru Epaltza](#)

Bere ustez, 1968tik aurrera, pentsa **noizko** kontu zaharrak diren, sekulako iraultza gertatu zen euskara kontuetan hizkuntzak ezinbestekoa zuen batasuna bultzatu zenean.

[Pello Salaburu](#)

Zenbat idazle egin ote ditu kritikak ez-dakit-nongo edo badakit-**noizko** idazlerik handiena? [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo noizko (3); **noizko da** (4); **noizko egongo** (3); **noizko espero** (6); **noizko euskarazko** (7); **noizko euskarazko film** (7); **noizko izango** (4); **noizko ote** (6)

noizkoa da (7); **noizkoa den** (10)

noizkoak diren (9); **noizkoak ziren** (3)

noizkotasun *iz*

Nortasunaz gainera, nere karnet horrek nongotasuna, **noizkotasuna** eta norengandikotasuna ere badakartza, sinesten ez dudana Nazio Handi baten izena ez ezik. [Iñaki Segurola](#)

noiznahi (orobat **noiz nahi**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **noiznahi** agertzen da) **1 iz** edozein alditan.

Noiznahi hurbiltzen nintzen Iruainera Lubisi zaldi zainketan laguntzera, eta baita Obabako plazan zegoen ostatura ere, non Ubanbe, Opin, Pantxo eta zerrategiko langile gehienak biltzen ziren. [Bernardo Atxaga](#)

Noiznahi gogoan nuen Elena. [Janbattitt Dirassar](#)

Tabernan **noiznahi** izaten genuen lana, eta beso guztiak ere gutxi izaten ziren tarteka pilatzen zèn lanari aurre egiteko. [Joan Mari Irigoien](#)

Delako goxatze hura **noiznahi** gogoan, banuen batean halako ahalge bat eta bestean halako urgulu bat. [Janbattitt Dirassar](#)

Edozein huskeriagatik gorritzen zen, **noiznahi**; eta, orain, beroak eta aztoraturik zegoen. [Irene Aldasoro](#)

Zeren gorputzari dagokion eginkizunak, talkatzeak eta jarkitzeak, **noiznahi** zernahi joko bailuke; ezerk ezingo luke, beraz, aurrera egin, ezerk ez bailuke atzera egingo.

[Xabier Amuriza](#)

Eta nonahi, **noiznahi** eta nolana izanik ere, norbait bekatu larrian hiltzen bada, damurik gabe eta ordaina bete gabe [...], deabruak harrapatzen dio arima gorputzetik.

[Askoren artean](#)

2 noiznahiko izlag

Haien obretan geure kezken oihartzuna eta -batzuetan- galderen erantzuna aurkitzen baitugu **noiznahiko** eta nonahiko irakurleok. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Hortik segitu du ipuinak ez direla hango edo hemengo, nonahi eta **noiznahiko** baizik. [Patxi Zubizarreta](#)

Txoromasa, publikoa, nonahi eta **noiznahikoa** dela ere, inolako erantzukizunik gabeko abstrazio harroka izan ohi da beti. [Patziku Perurena](#)

Udalak hiritarrak torturatzeko modu berria asmatu baitzuen bizkitartean, auzo bakoitzeko aparkatze **noiznahikoa** bertakoei mugatuz. [Aingeru Epaltza](#)

Emazkidazu sei ale, **noiznahikoak**, mende honetakoak edo aurrekoak. [Antton Olano](#)

3 noiznahi den noiznahi.

Mattin ahantzi nahi nuen, zeren **noiznahi-den** itzal egiten baitzidan, baina ezin izaiten nuen. [Joan Mari Irigoien](#)

Eta Trentoko kontzilioan erabaki arauak eta kanonak erabiltzen zituen **noiznahi-den** armatza eta argudio bakartza. zeren eta dantzak **noiznahi-den** jar baikintzakeen bekatu mortalen bat egiteko arriskuan, eta arriskuaren hartzea eta perilean jartzea berez zen bekatu mortal. [Joan Mari Irigoien](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

noiznahi agertzen (3); **noiznahi ateratzen** (4); **noiznahi botatzen** (3); **noiznahi den** (59); **noiznahi egin** (3); **noiznahi egiten** (6); **noiznahi entzuten** (4); **noiznahi erabiltzen** (4); **noiznahi esaten** (7); **noiznahi eta nonahi** (12); **noiznahi etortzen** (10); **noiznahi gertatzen** (3); **noiznahi has** (3); **noiznahi ikusten** (5); **noiznahi izaten** (4); **noiznahi joaten** (3); **noiznahi mintzatzen** (3); **noiznahi sar** (4); **noiznahi sortzen** (3); **non noiznahi** (3); **nonahi eta noiznahi** (16)

noiznola ik **noiz 11**.

noiz nolakotasun *iz* noiz nolakoa izateko nolakotsauna. ik **noiz 13**.

Probabilismoak, indeterminazio edo ziurgabetasunak, **noiz nolakotasunak**, irrazionaltasunak edo kausagabeziak ez dirudite, begiratu batera, ortodoxiaren aldrean etzateko moduko zerak, baina gauzak halaxe dira, edo ziren, fisiko txorrotxenen artean. **Iñaki Seguro**

noizpait ik **noizbait**.

noizpaitere ik **noizbait 2**.

noizpaitte ik **noizbait 2**.

noizpeit ik **noizbait**.

noiztanik ik **noizdanik**.

noiztara ik **noiz 24**.

noiztasun *iz* ordua.

Noiztasuna ohiko denbora banaketaren legera zehaztu gabe ere, semearen erantzuna argibide aski zen. **Aingeru Epaltza**

noiztenka 1 *adlag ipar* noizbehinka.

Noiztenka ateari so emaiten naiz ea norbait agertuko ote den. **Filipe Bidart**

Noiztenka, baina arras bakan, kasik mokoka aritzen ere ba haatik. **Janbattitt Dirassar**

Lehen ere gertatzen zirela **noiztenka** holakoak bainan ez haatik hoin usu! **Herria**

Oinazeak edo, **noiztenka**, bozkario itzal erraz batek, beti mendira igorri naute, edozein menditara eta bereziki. **Piarres Aintziart**

Goxoki lehenik, bortizki **noiztenka**, gizon hezleak hezten ditu hiruak zaldia, dudarik gabe, neskari kuraia emaiten diola eta ama lillurutzen. **Herria**

Baigura kaskora! Denaden, baginuen **noiztenka** bederen gure euskal argitzailearen mintzatzeria joaiteko parada, berak ere ez baitzuen besterik galdatzen. **Herria**

Berak altxatu zuen, baina, **noiztenka**, iduritzen zitzaion ez zuela ezagutzen. **Elena Touyarou**

Auzoko hurrekin beti josteta, **noiztenka** ariz baserri lanetan eta eskolan gogotik ikasten nuela, hautzaroa iragan zait lorietan. **Piarres Aintziart**

Zakur zaunka bat aditzen zen **noiztenka**. **Itxaro Borda**

Enpleatu batzu etzaten ahal ginen, eta lo egiten ahal ere **noiztenka**. **Marzel Etxehandi**

2 noiztenkako izlag

Izaiten ahal da behin betiko telebista bat bainan izaiten ahal da ere **noiztenkako** telebista bat urtean aldika ari dena. **Herria**

Mendeko kontzilioak (Vatikano I) Aita Sainduaren lehentasuna finkatu zuen bezala, huna azken hunek apezpikuen biltzarren elkargoari indar eman diola, **noiztenkako** sinodo hoieri esker. **Herria**

[Otoitz-leku bat] daukate, Arraioz eta Lekaroz artean, Oharrizko Familia Sakratuaren serorek ongi eta ixilik apaindurik laborantza gune batean apain eta xotil, etorriko diren

noiztenkako otoizleen eskuko. - noizbehinka aritzen den pertsona. ik noiztenkari. **Herria**

Andiazabal eta beste **noiztenkakoak**. **Herria**

Behar da jakin orozgainetik kultur-arte leku balios dela hor, inguruko herrien eta gazteen zerbitzuko: 550 kide koadatzen dira orotara, heietan 50 parte hartzaile bolondres, eta beste 50 **noiztenkako**. **Herria**

noiztenkari *iz* noizbehinka aritzen den pertsona.

Nora doaz **noiztenkariak**? Pauen lehenik, Arroxelan gero, Aix eta Avignon-en azkenik amor eman dute festibalen arduradunek. **Herria**

Cannes-eko festibala: Urtero egiten dena, bainan gogoetan geldituko da aurtengoa, alde batetik **"noiztenkariak"** eman baitiote, hastapenean bederen, behar zen distira beren agerraldiarekin, bertze aldetik azken eguneko sariekin. **Herria**

noiztik (**197 agerraldi**, **86 liburu eta 31 artikulutan**) **1 adlag** noiz ezker. ik **noizdanik**.

Noiztik zara alarguna? **Koro Navarro**

-Noiztik daramatzazu betaurrekoak? -nik galde. **Joxe Austin Arrieta**

Noiztik zegoen siberiar abegitsu haren etxean? **Karlos Zabala**

Tertia signat aipatu hori **noiztik** ote dator? **Pello Zabala**

Noiztik ez ote dabilta Euskal Herri osoan, tankera honetako eske-kantak? **Patziku Perurena**

Adarra jotzen, ala? **noiztik** aldaketa sakon hori? **Patxi Iturritegi**

Noiztik gertatzen zaizkizu erakargarri gizon gazteak. **Lourdes Oñederra**

Jainkoak daki **noiztik** honat Cize-ko eskualdean baziren sagarrondoak, lurra eta aroa hartakoak izanez. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ez zen konkortuta jaino, baina konkortuta dabil ahaztu zaio **noiztik**. **Anjel Lertxundi**

Auskalo **noiztik** sartua zen gure alderdiotara, baina, kontua da XII. menderako egiten direla tresna honen aipamen zehatzak. **Patziku Perurena**

Auskalo **noiztik**. **Hasier Etxeberria**

2 noiztik eta

Noiztik-eta [...] Madrildo Euzkadi'ko Ordezkaritza alde bateko eta besteko presoen trukeetan, bahituak bilatzeko zereginetan eta badaezpadako halako beste proposamen eta kontraproposamen batzuetan sartzen hasi zenez geroztik. **Edorta Jimenez**

3 noiztik hona? zer dela eta?

"**Noiztik** hona?" beraz, edo "zer dela-eta?". Itzi Segurola

Noiztik hona?, edo, Bermeon sasoi batean galdetzen zuten legez: zeatxik eta porke? Iñaki Segurola

-Noiztik hona egiten dut lo gaez? Patxi Zubizarreta

-Noiztik hona da soineko bat hutsala? Patxi Zubizarreta

4 **noiztik noizera** ik **noiz 19**; **noiz 24**.

Tiroak aditzen dituzu **noiztik noizera**. Xabier Montoia

Solasaldiak ere egiten dizkizue **noiztik noizera**. Xabier Montoia

Jaurlaritza presio handia jasaten ari da orain eskua zabal dezan, zehaztu ezinda baikaude jende asko **noiztik noizera** egon zen. Berria - Euskal Herria

noiztsu *adlag* noiz gutxi gorabehera.

-Baina **noiztsu** atera zen zure alaba Errusiako lurraldetik? -galdetu zion Ivan Ogareffek. Karlos Zabala

Edo... **noiztsu** bederen? Txillardegi

noiztxu *adlag* *adkor* noiz.

Otsailean ala Martxoan, **noiztxu** sartzen garen garizuman galdetu zidan lagun batek, egutegi lanen bat egin behar zuelako. Pello Zabala

noka 1 *adlag* emakume bati hika. ik **toka¹**.

Heletako ama familia toka eta **noka** ari zen koskak zirenekin, zuka, aldiz, entterkak zirenekin. Herria

Gehiegizko konfiantzarik gabe -ez zidan **noka** egiten- eta zuhurtziaz -ez zidan galderarik egiten-, harira joan zen: azken hilekoaren data, prezioa, erabiliko zuen teknika.

Joseba Urteaga

Adiskidantza eta politika: toka eta **noka** eta gero mokoka. Herria

2 (izen gisa)

Beti **noka** bortiitz hori. Alberto Barandiaren

3 **nokako izlag**

Edozein kasutan, azpimarratu beharra dago hitanoaren presentzia **nokako** elkarrizketek osatzen dutela gehien-gehienean. Xabier Paya

nola *adlag*

1 **nola edo hala** nolabait; ahal den moduan.

Nola edo hala, ihes egiten saiatu nintzen. Ramon Saizarbitoria

Nola edo hala, atera da atakatik. Pako Aristi

Nola edo hala, noiz konboi militarretan, noiz Estatuaren gurditzarretan, Petersburgera iristea lortu zuen azkenean. Jose Morales

Sokak **nola edo hala** askatu, eta anaiak ere oihanean barneratu ziren. Patxi Zubizarreta

Zainei **nola edo hala** gain hartuz, bortzekoa luzatu nion. Aingeru Epaltza

Barkatu, paparazzi bat naiz, **nola edo hala** irabazi beharra daukat eguneroko ogia. Bernardo Atxaga

Behin sartzea lortuz gero, **nola edo hala** moldatuko zen, ez zen esku hutsik irtengo. Migel Angel Mintegi

Aitari dagokionez, **nola edo hala** konbentzituko dugu. Patxi Zubizarreta

Azkenean, ordea, **nola edo hala**, lortu zuten kontrolatzea. Imanol Zurutuza

Moldatu naiz, **nola edo hala**, esan behar niona esaten. Mirentxu Larrañaga

Poliziaburua, **nola edo hala**, hiriko ongile eta aita babeslea zen. Jose Morales

Saiatu, bederen, saiatu zen **nola edo hala**. Aingeru Epaltza

Iritsiko nintzen etxera **nola edo hala**. Mirentxu Larrañaga

Baina bai, uste osoa nuen aste hartan ere elkar ikusiko genuela **nola edo hala**. Joan Mari Irigoien

Aurre egin behar zitzaiea txapelgorriei, **nola edo hala**. Inazio Mujika Iraola

Hil egingo dinat **nola edo hala**! Patxi Zubizarreta

2 **nola edo halako** (**17** *agerraldi*, **9** *liburu eta artikulua* **1ean**) *izlag* nolabaiteko; ahal den moduko. *ik beherago* **9**.

Gizakiak, animaliak, landareak, ondoak, mikrobioak -hots, **nola edo halako** bizidunok-. Juan Garzia

Euskaldun guztiok garelako **nola edo halako** baseritarrak. Koldo Izagirre

Beraz, mundu osoak **nola edo halako** berezitasunaz bai osotasuna eta bai atalak erabakitzen dizkion izaki baten premia dauka. Xabier Kintana

Poetika idatziaren axioma nagusiak dioenez, testu batek hartzailearengan **nola edo halako** emozioen bat sortuko badu, poetikoki landua behar du, nahitaez, testu horrek.

J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bere baitan **nola edo halako** bertsolari arrastoren bat sentitzen ez duen euskalduna euskaldun eskasa dela esatera ere iritsi zen Oteiza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eurak al dira akats epistemologiko jakin baten **nola edo halako** irudi positiboa? Xabier Arregi

3 **nola... ere!**

Aztoramen berriago batek asaldatu du Yolo, dudarik gabe, eta **nola** aztoratu **ere!** Pako Aristi

Harpa niri buruz ezarri, amak ezin ikus zezakeen eran jarri zen, eta eskua hartu zidan eta tinkatu zuen... **nola** tinkatu **ere!** Jon Muñoz

Zorte txar horrek ez die eragozten, ordea, ingelesei eta iparramerikarrei beren indar guztia erakustea, eta **nola** erakutsi **ere!** Josu Zabaleta

4 **nola eta ez** (erlatibozko aditzarekin)

Nahitaez judu herratua izango da euskalduna, arrotz hein batean edonon, baina Espainian ez derrigor etxeanago Frantzia edo Ingalaterra baino, demokrazian ez erosoago sentituz sozialismoan baino, edo viceversa, **nola eta ez** zion behintzat bihotz barnean bere arrotzasunari (euskalduntasunari) uko egiten, dagoen tokian arras berdindu eta integratzeko, tokian tokiko bihurtuz. Joxe Azurmendi

5 **nola ez** noski.

-Bai, noski, **nola ez**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ume guztiak eskolara joan ziren, **nola ez**; eta gehienak hirugarren mailara heldu ziren. Julen Gabiria

Nire neskalaguna damututa zegoen, eta barkatzeko eskatu zidan; nik barkatu nion, **nola ez**. Iban Zaldúa

Ele bietan, **nola ez**. Joxerra Garzia

Christina Rossetti, Dante Gabriel Rossetti-ren arreba, aipatu zuen noski, eta, **nola ez**, Elizabeth Siddal -Beata Beatrix-, haren emazte eta modeloa. Ramon Saizarbitoria

Hori dela eta, guretzat hurbilena izan zitekeen droga, **nola ez**, alkohola zen. Ana Urkiza

Han zegoen, **nola ez**, Eurenos: [...]. **Iñigo Aranbarri**
Baina hark ere hil behar, **nola ez**! **Xabier Olarra**
-Mesedez, mesedez, **nola ez**! **Jose Morales**
Eginahalak egingo zituen, **nola ez**!, Ostolazak ez ezik kontu korronteak ere eskertuko baitzuen. **Migel Angel Mintegi**
Garbi horien artean zegoen, **nola ez**!, Oliver Cromwel, beti ere Biblia zuela armarik sendoen eta indartsuena errege boterezale eta fede gutxiko bati gogor egiteko. **J.M.**
Olaizola "Txiliku"
-Emaztegaia izango duzu, **nola ez**! **Jose Morales**

6 nola-hala (orobat nolahala g.er.) nola edo hala.

Nola hala desenkusatu nintzaion, kostata, ezin bainion esan zergatik eta zer zela-eta ezin nuen. **Joxe Austin Arrieta**
Nire bizitza **nola hala** zihoan aurrera, zentzu guztietan. **Monika Etxebarria**
Beste zaldun batzuek, ordea, mendekua nahi zuten **nola hala**, eta koldar deitzen hasi ziren gerrarik egin nahi ez zutenei. **Juan Kruz Igerabide**
Elementu formal gotiko, errenazentista eta barrokoak ageri dira nonahi, baina ez **nola hala** nahasian. **Anjel Lertxundi**
Berak zabalzten baitzien bidea, itxuraz bederen, bai ondoko beste zazpi zaldiei, bai dilijentziari berari, eta bai barruan **nola-hala** bizirik heltzen ziren hemeretzi bidaiariei.
Txillardegi
Galanki kostata baina **nola-hala** bidali dute azkenerako, auskalo ze esplikazio edo gezur esanda. **Iñaki Seguro**
Lortzen genituen albisteak bilduma **nola-hala** eginez, jadanik Nafarroa osoa [...] gutarren eskuetan zegoela ondorioztatzen genuen. **Txillardegi**
Ni, bien bitartean, Zunbeltzen marruak **nola-hala** lasaitzen. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Hiriari buruzko pare bat gauza galdetu zizkigun, eta **nola hala** erantzun genion. **Iban Zaldúa**
Ez, ez dut ulertzen **nola-hala** kateatutako hitz horien guztien esanahi benetakoa. **Iban Zaldúa**
Santakruz apeza, berriz, "etxekoa" zen, ezagutu egiten genuen **nola-hala**. **Txillardegi**

7 nola, hala

Buru moztan dioten txerriak **nola, hala** egiten zuen garrasi Hennek. **Koro Navarro**
-Laruginak larrua **nola, hala** zurratu haute garaztarrek. **Aingeru Epaltza**
Euri-tantak leihoko kristalean behera **nola**, hala lerratzen zitzaizkion egunak bata bestearen ondoan eta jario etengabe. **Mirentxu Larrañaga**
Segariak galburuak **nola, hala** lotu ginen lepoak egiteari. **Aingeru Epaltza**
Makila baten puntan dilindan errearazi, eta txori umeak **nola, hala** txioka ari ziren umeen artean partekatu zituen. **Itxaro Borda**
Armiarmak eulia **nola**, hala erakarri din kardinalak harrapakina bere farfailaren amaraunera. **Anjel Lertxundi**
Hargatik amodio debekatuak **nola, hala** gerlak ere ahanzten ziren. **Itxaro Borda**
Soldadu lokartuak alarma deira **nola**, hala zaizkizu zeure ile etzanok, berezko bizidun hazkarri gisa, tanpez zutitu eta tentetzen. **Juan Garzia**

8 nola ... hala ...

Ate biak, **nola** sarrerakoa **hala** irteerakoa, ia finkoak izaten ziren. **Bernardo Atxaga**
Nola bizi, **hala** hil, nehoi trabarik egin gabe. **Elena Touyarou**
Frogatu ere frogatu du marko teoriko honek emankor izan daitekeela, **nola** teoriaren **hala** praktikaren aldetik. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**
Gizon gazte lerdunen ziren, [...] abilak golfean nahiz squash erraketekin, eta Geraldin lagun eta kideak **nola** unibertsitatean **hala** klubetan. **Mirentxu Larrañaga**
Hori dela eta, txantxa bat baino gehiago jasan behar izan zuen, **nola** irakasleengandik **hala** ikaskideon aldetik ere. **Joxerra Garzia**
Nola izaki guztietan **hala** gauza orotan ere Argia eta Ilunbeak nahasi egiten dira. **Patxi Zubizarreta**
Amildegia handiaz gainera, mundua amildegiz josi da azken urteotan, **nola** ipar aldean **hala** hego aldean, **nola** erdigunean, **hala** periferian. **Iñaki Heras**
Bistan da kultur aniztasuna, **nola** etnikoa, **hala** erlijiosoa edo sexu hautaketari dagokiona, beste inon baino nabariagoa izan dela eta beste inon baino hobeto bideratu izan dela hirietan. **Bernardo Atxaga**
Uste dut denoi sarri baino gehixeagotan gertatzen zaigula ideia asko bururatzea baina gero, **nola** gizartearen eraginagatik **hala** hurbilenekoen gaitzespenak sortu beldurragatik, ezer egiten ez ausartzea. **Pako Aristi**

9 nola halako (55 agerraldi, 35 liburu eta 6 artikulutan; orobat nolahala g.er.) izlag nola edo halakoa.

Aitarentzat patatak zuritzea ez da **nola-halako** lan bat, kontuz eta zehatz egitekoa baizik. **Josu Zabaleta**
Narrasa eta **nola-halako** gertatu dela? ezin izan dut hobeki egin. **Elizen arteko biblia**
Abasi harridura handiagotu egin zitzaion, baina Hamidaren hitzek **nola-halako** kontsolamendua ekarri zioten. **Patxi Zubizarreta**
Hik pentsatzen huen kanpoan egon izanak **nola-halako** aura bat emango ziala Mariasunen begien aurrean, **nola-halako** karisma bat. **Jokin Muñoz**
Hortik ondoriozta dezakegu espazioa igogailuarena ez dela **nola-halako** burutazio bat izan. **Beria - Gaiak**
Bürger poetaren balada baten prosazko **nola-halako** bertsiot bat duk. **Anjel Lertxundi**
Ez dut erranen kazetaritzak **nola-halako** eskerrik ez duenik. **Aingeru Epaltza**
Aitzin gaueko joan-etorri **nola-halako** leku egin zuten nire oroimenean. **Aingeru Epaltza**
Maltzurtasun **nola-halako** baten muga-mugan zegoen, horratik, utzikeria hura. **Juan Garzia**
Lau multzo bitxi eta kromatikoki **nola-halakotan** banatu, eta grisén eskalan ehuneko 0-25, ehuneko 25-50, ehuneko 50-75 eta ehuneko 75-100ekotzat definitu zituen. **Xabier Olarra**

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 10 aldiz agertzen direnak)

aurre nola egin (12); **auskalo nola** (29); **badaki nola** (19); **badakigu nola** (27); **badakit nola** (18); **badakite nola** (11); **badakizu nola** (43); **badakizue nola** (10); **bazekien nola** (10); **begira nola** (76)
ea nola (97); **erakusten du nola** (11); **erran dizut nola** (13); **ez daki nola** (36); **ez dakit nola** (299); **ez dakizu nola** (24); **ez jakin nola** (20); **ez nekien nola** (33); **ez zekien nola** (37); **gauzak nola diren** (18); **gauzak nola egin** (12); **gauzak nola itzulkatuko** (20); **gogoan dut nola** (26); **hala edo nola** (15); **hala nola** (2369); **harrigarria da nola** (11); **hori nola egin** (13); **hori nola egiten** (10); **hori nola** (116); **huna nola** (43)
ikus daiteke nola (10); **ikus nola** (10); **ikusit dugu nola** (13); **ikusit nola** (37); **ikusit zuten nola** (21); **ikusit dugu nola** (22); **ikusit dugu nola** (30); **ikusirik nola** (10); **ikusiz nola** (26); **ikuste nola** (48); **ikusteko nola** (29); **ikusten duzu nola** (11); **ikusten nola** (46); **kontatzen du nola** (11); **noiz eta nola** (127); **noiz nola** (31)
nola abiatu (16); **nola adierazi** (51); **nola ageri** (11); **nola agertu** (21); **nola agertzen** (19); **nola agertzen den** (10); **nola ahantz** (12); **nola ahaztu** (11); **nola aida** (12); **nola aldatu** (53); **nola aldatu diren** (14); **nola aldatzen** (34); **nola aldatzen den** (12); **nola alde egin** (10); **nola amaitu** (21); **nola amaitzen** (14); **nola antolatuta** (30); **nola antolatzen** (24); **nola argitu** (11); **nola ari** (94); **nola ari diren** (21); **nola arraio** (49); **nola asmatu** (25); **nola atera** (70); **nola aterako** (29); **nola ateratzen** (33); **nola aukeratu** (11); **nola aurkitu** (43); **nola aurkituko** (12); **nola aurre egin** (35); **nola ausartu** (18); **nola ausartzen** (25); **nola ausartzen zara** (10); **nola azaldu** (55); **nola azalduko** (26); **nola azaltzen** (16)
nola ba (23); **nola babestu** (10); **nola baita** (36); **nola baitira** (12); **nola baitzen** (24); **nola baliatu** (16); **nola baliatuko** (10); **nola baliatzen** (14); **nola baloratzen** (15); **nola baloratzen duzu** (12); **nola banatu** (24); **nola banatuko** (17); **nola banatzen** (19); **nola begiratzen** (30); **nola begiratu** (10); **nola begiratu** (10); **nola bete** (36); **nola betekoa** (13); **nola betetzen** (19); **nola bideratu** (35); **nola bihurtu** (27); **nola bihurtzen** (11); **nola bilatu** (10); **nola bildu** (12); **nola bizi** (272); **nola bizi diren** (19); **nola bizi izan** (52); **nola bizi ziren** (14); **nola biziko** (20); **nola bizitzen** (10); **nola bota** (13); **nola botatzen** (10); **nola bukatu** (30); **nola bukatuko** (33); **nola bukatuko den** (10); **nola bukatzen** (18); **nola bururatu** (14); **nola bururatuko** (11)
nola da posible (59); **nola dabilen** (25); **nola dabilizan** (21); **nola dagoen** (115); **nola daiteke** (11); **nola dakigu** (10); **nola dakik** (19); **nola dakizu** (80); **nola dakizu hori** (15); **nola datorren** (11); **nola datozen** (13); **nola daude** (22); **nola dauden** (57); **nola definitu** (10); **nola definituko** (17); **nola definituko zenuke** (14); **nola deitu** (52); **nola deituko** (11); **nola deitzen** (74); **nola deitzen da** (13); **nola demontre** (33); **nola den posible** (13); **nola desagertzen** (10); **nola deskribatu** (12); **nola deskribatuko** (12); **nola diren gauzak** (19); **nola doa** (15); **nola doan** (36); **nola doazen** (15); **nola du izena** (36); **nola duk izena** (15); **nola duzu izena** (41)
nola edo hala (564); **nola edo halako** (17); **nola eduki** (10); **nola egin** (586); **nola egin aurre** (14); **nola egin zuten** (21); **nola eginen** (53); **nola egingo** (90); **nola egingo den** (12); **nola egiten** (358); **nola egiten den** (44); **nola egiten duten** (26); **nola egoten** (16); **nola ekarri** (13); **nola elkartu** (15); **nola eman** (86); **nola emango** (15); **nola ematen** (24); **nola entzun** (11); **nola entzuten** (10); **nola erabaki** (22); **nola erabili** (86); **nola erabiltzen** (52); **nola erabiltzen den** (12); **nola eragin** (25); **nola eragingo** (21); **nola eragiten** (37); **nola eraiki** (31); **nola eraikitzen** (13); **nola erakutsi** (14); **nola eraman** (43); **nola eramatzen** (12); **nola erantzun** (55); **nola erantzungo** (30); **nola erantzuten** (30); **nola eratu** (12); **nola ere** (41); **nola erori** (13); **nola erortzen** (21); **nola erraiten** (16); **nola erran** (60); **nola erreakzionatuko** (20); **nola esan** (236); **nola esango** (84); **nola esango nuke** (40); **nola esaten** (84); **nola esaten da** (16); **nola eskatzen** (10); **nola eskertu** (10); **nola eskuratu** (12); **nola**

esplikatzan (13); **nola eta noiz** (14); **nola eta noiz** (14); **nola eta zein** (11); **nola eta zer** (10); **nola etorri** (34); **nola eusten** (11); **nola eutsi** (15); **nola ez** (981); **nola ez aipa** (45); **nola ez bada** (12); **nola ezagutu** (42); **nola ezarri** (14); **nola ezartzen** (12); **nola ezetz** (21)

nola frogatu (11); **nola funtzionatzen** (65); **nola funtzionatzen duen** (37)

nola gairiditu (19); **nola galdetu** (11); **nola galdu** (25); **nola gaitzen** (18); **nola garatu** (15); **nola garatzen** (11); **nola gauden** (19); **nola gauzatu** (31); **nola gauzatuko** (25); **nola gauzatzan** (37); **nola gauzatzan den** (18); **nola gelditu** (19); **nola gelditzean** (12); **nola geratu** (17); **nola geratuko** (11); **nola geratzen** (16); **nola gerta** (45); **nola gertatu** (137); **nola gertatu da** (11); **nola gertatu den** (19); **nola gertatu zen** (71); **nola gertatuko** (10); **nola gertatzen** (47); **nola gertatzen den** (16); **nola gogoratzen** (32); **nola gogoratzen duzu** (18); **nola gorde** (18); **nola gozatzan** (11); **nola gustatuko** (10); **nola gustatzen** (15); **nola halako** (40); **nola har** (14); **nola harrapatu** (19); **nola hartu** (102); **nola hartu duzu** (12); **nola hartuko** (59); **nola hartuko zuen** (14); **nola hartzen** (60); **nola hasi** (93); **nola hasi zen** (27); **nola hasiko** (11); **nola hasten** (13); **nola hautsi** (10); **nola hazten** (17); **nola heldu** (56); **nola heltzen** (13); **nola hil** (73); **nola hil zen** (31); **nola hilko** (10); **nola hiltzen** (17); **nola hitz egin** (26); **nola hitz egiten** (25); **nola hobetu** (14); **nola hurbildu** (11)

nola ibili (51); **nola ibiltzen** (37); **nola ibiltzen zen** (10); **nola idatzi** (33); **nola idatzten** (19); **nola igaro** (10); **nola igarotzen** (14); **nola igo** (11); **nola ikasi** (15); **nola ikusi** (63); **nola ikusi duzu** (27); **nola ikusiko** (10); **nola ikusten** (264); **nola ikusten duen** (14); **nola ikusten duzu** (153); **nola irabazi** (21); **nola iragan** (56); **nola iragan den** (12); **nola iraganen** (46); **nola iraganen den** (24); **nola irakurri** (11); **nola irau** (18); **nola iristen** (21); **nola iritsi** (93); **nola iritsi zen** (23); **nola iritsiko** (13); **nola irten** (22); **nola iriteten** (12); **nola irudikatzen** (12); **nola isurtzen** (11); **nola itzuli** (21); **nola itzulikatuko** (26); **nola itzulikatuko diren** (18); **nola itzuliko** (16); **nola itzultzen** (13); **nola izan** (250); **nola izan daiteke** (18); **nola izan liteke** (15); **nola izan zitekeen** (23); **nola izanen** (22); **nola izango** (81); **nola izango da** (23); **nola izango den** (12); **nola izaten** (21)

nola jai (16); **nola jakin** (155); **nola jakin duzu** (10); **nola jakingo** (23); **nola janzen** (14); **nola jarraitu** (24); **nola jarri** (50); **nola jarriko** (13); **nola jartzen** (27); **nola jasan** (22); **nola jaso** (19); **nola jasotzen** (10); **nola jaten** (15); **nola jo** (26); **nola joan** (125); **nola joan den** (25); **nola joanen** (12); **nola joango** (18); **nola joaten** (18); **nola joka** (21); **nola jokatu** (259); **nola jokatu den** (10); **nola jokatuko** (61); **nola jokatzan** (79); **nola jokatzan duen** (22); **nola jotzen** (20)

nola kendu (11); **nola kentzen** (10); **nola konpon** (11); **nola konpondu** (40); **nola konponduko** (17); **nola konpontzen** (13); **nola kontatu** (19); **nola kontatzen** (13); **nola kudeatu** (11); **nola kutsatu** (10)

nola lagundu (28); **nola lan egin** (11); **nola lan egiten** (21); **nola landu** (10); **nola libratu** (13); **nola liteke** (139); **nola liteke hori** (15); **nola litekeen** (13); **nola lor** (31); **nola lor daiteke** (12); **nola lor daitekean** (11); **nola lortu** (125); **nola lortu zuen** (18); **nola lortuko** (27); **nola lortzen** (42); **nola lotu** (24); **nola lotzen** (14)

nola maite (26); **nola mintzatu** (11); **nola mintzo** (14); **nola moldatu** (54); **nola moldatuko** (34); **nola moldatzen** (58); **nola moldatzen den** (10); **nola mugitzen** (31)

nola nagoen (18); **nola nahi** (108); **nola nahi duzu** (45); **nola nahika** (51); **nola nahiko** (14); **nola nahikoa** (14)

nola onartu (13); **nola ordaindu** (18); **nola osatzen** (19); **nola ote** (55)

nola pasatu (33); **nola pasatuko** (16); **nola pasatzan** (27); **nola pentsa** (20); **nola pentsatu** (13); **nola pentsatzen** (24); **nola pizten** (11); **nola piztu** (10); **nola plantatuko** (12); **nola prestatu** (20); **nola prestatzen** (20)

nola salbatu (13); **nola sartu** (80); **nola sartu zen** (18); **nola sartzen** (33); **nola segitzen** (10); **nola sentitu** (38); **nola sentitu nuen** (13); **nola sentitzen** (47); **nola sinets** (15); **nola sinetsi** (11); **nola sortu** (130); **nola sortu zen** (61); **nola sortzen** (47); **nola sortzen den** (13)

nola tratatu (18); **nola tratatzen** (10)

nola uler (28); **nola uler daiteke** (23); **nola ulertu** (61); **nola ulertzen** (31); **nola uste** (18); **nola utzi** (38); **nola uztartu** (14); **nola uztartzen** (18); **nola uzten** (10)

nola zabaldu (15); **nola zabalzen** (20); **nola zaindu** (18); **nola zaude** (26); **nola zebilen** (11); **nola zegoen** (46); **nola zehatzu** (11); **nola zekien** (10); **nola zeuden** (27); **nola zihoan** (19); **nola zitekeen** (27); **nola zuen izena** (21)

non eta nola (62); **nondik eta nola** (20); **nork eta nola** (15); **nun eta nola** (10); **nun nola** (17)

oraindik nola (11); **orduan nola** (17)

zer eta nola (49); **zer nola** (117); **zer nola egin** (17); **zergatik eta nola** (17)

nolabait 1 *adlag*

2 (izen gisa)

Asmabide horietan murgildurik ibili nintzen; baina haietako ezain ere ez zetorren noski bat, ezta **nolabaitik** apurrenean ere, Tsiui Pín-en kapitulu kontraesanez josiekin.

Juan Garzia

3 *nolabaiteko izlag* moduren batekoa; erdipurdikoa.

Marratzkiei begiratzeak **nolabaiteko** atsegina ematen zion. Xabier Olarra

Nahi al duzu, espero al duzu zure gorputzak azkenean zerbait esatea, zerbait egitera behartzea, norbaiti noizbait **nolabaiteko** zerbait eskatzera bultzatzea. Lourdes Oñederra

Gauzen **nolabaiteko** trinkotasunik eza. Monika Etxebarria

Zure hitzetan **nolabaiteko** mingostasun eszeptikoa sumatzen dudala iruditzen zait. Jon Alonso

Ekintza gaizto hark **nolabaiteko** plazera emango zion ziurrenik, baina askoz ere mingarriagoak izan zitzaizkion ondorioak. Markos Zapiain

Helduokin, bazuen **nolabaiteko** harremana. Xabier Olarra

Talde ekologistaren jarrerak, ordea, harridura eta **nolabaiteko** etsipena eragin zuen solidarioen artean. Edurne Elizondo

Sortze-lanerako, beste zerbait behar da... **nolabaiteko** indar berezia edo diziplina, edota biak. Ander Irizar

Aski da, hala dela etsi dezagun, musika barrokoko zati han-hemenkako batzuk entzutea, guztiak ageri baitute familia-aire **nolabaiteko** bat. Juan Garzia

Antzinako ezaguera modu hori ez ote dator sinboloan oinarritutako sistema berriagoen garapeneko akats **nolabaiteko** baten ondorioz? Xabier Olarra

Gertakizun zoriotsua dagoeneko gauzatu den gorputz eroriaren berpizkundea gure subjektibotasunean baita, ez **nolabaiteko** geroan gertatuko dena. Joseba Zulaika

Edurnek nire lankidetzat **nolabaitekoaz** etxeko patioan hedaturiko arropaz oroitu nintzen, eta jakako lepoak goititu nituen, babesgarri ezdeusa izanen nuela jakin arren.

Aingeru Epaltza

· Mogel da lehen euskal nobelaren egilea, oso **nolabaiteko** nobela bada ere. Berria - Kultura

Jatorriz europarra zen jaun baten kezkek beste **nolabaitekoak** ziren garai hartan. Pello Salaburu

4 erdipurdikoa.

Gaur Fernandoren egia bertsozko horiek oso **nolabaiteko** eta erdipurdikotzat dauzkate euskaitzaleek eta Euskalgintzako euskalginek. Iñaki Segurola

Neroni bainaiz Don Kijote Mantxako, animalia honek esan duena bera, nire alde goratzarre gehiegizkoa egin badu ere; hala ere, **nolabaitekoa** izanda ere, eskerrak damaizkiot zeruari bihoz-bera; eta errukiorra eman didalako, inori kalterik ez eta guztiei on egiteko aroia duena. Patxi Ezkiaga

5 *nolabait ere*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

nolabait adieraztearren (5); **nolabait adierazteko** (5); **nolabait deitzearren** (4); **nolabait eman** (5); **nolabait eman behar** (4); **nolabait erraitzearren** (4); **nolabait errateko** (19); **nolabait esan** (97); **nolabait esan liteke** (4); **nolabait esanda** (30); **nolabait esateagatik** (5); **nolabait esatearren** (78); **nolabait esateko** (280); **nolabait konpondu** (6)

nolabaiteko adostasuna (4); **nolabaiteko antza** (15); **nolabaiteko autonomia** (8); **nolabaiteko babesa** (6); **nolabaiteko begirunea** (4); **nolabaiteko eragina** (11); **nolabaiteko eragina izan** (7); **nolabaiteko harremana** (8); **nolabaiteko harriduraz** (4); **nolabaiteko irudi** (4); **nolabaiteko laguntza** (4); **nolabaiteko lasaitasuna** (5); **nolabaiteko lasaitua** (5); **nolabaiteko lotura** (25); **nolabaiteko oreka** (5)

nolabaitkeria *iz*

Aski izan bekit hemen neure kabuz hari batzuk seinalatzea, **nolabaitkeria** gordinean erortzeko arrisku eta guzti. Juan Garzia

nolahala ik **nola** 6.

nolahalako ik **nola** 9.

nolaka

1 *ahal nolaka* ahal den moduan, nola edo hala.

Bederen, orain ez nuen gezurrari heldu behar izan neure burua ahal **nolaka** zuritzeko. **Aingeru Epaltza**

Halako lotsa halako laido halako hastio halako ahalke halako amorrua sortu zait erraien zuztarretan, non ihes egin baitut atzerantz, aha **nolaka**, ziegarrantz. **Koldo Izagirre**

nolakatu, nolaka(tu), nolakatzen da *ad* nolako bihurtu. ik **holakatu**.

Gibelerat egiten du, hura ere izitua **nolakatua** nizan. **Michel Oronoz**

Harrigarri da **nolakatzen**. **Herria**

nolako *izlag*

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

a zer nolako (45); **auskalo nolako** (5); **begira nolako** (27); **begira zer nolako** (9)

ea nolako (5); **ea zer nolako** (12); **hona nolako** (5); **horra nolako** (13)

nolako aldaketak (9); **nolako aldea** (11); **nolako aldea dagoen** (5); **nolako arazoak** (11); **nolako arrakasta** (12); **nolako arrangurak** (5); **nolako arriskuak** (7); **nolako arriskutan** (5); **nolako atsegina** (5); **nolako aurpegia** (11)

nolako baldintzetan (5); **nolako balorazioa** (6); **nolako beldurra** (5); **nolako bidea** (15); **nolako bilakaera** (12); **nolako bilakaera izan** (5); **nolako bizimodua** (7); **nolako bizitza** (7); **nolako borroka** (6)

nolako egitura (5); **nolako egoera** (9); **nolako egoeran** (14); **nolako eguna** (5); **nolako egurra** (5); **nolako emaitza** (5); **nolako eragina** (62); **nolako eragina duen** (6); **nolako eragina duten** (6); **nolako eragina izan** (19); **nolako eragina izango** (15); **nolako erantzuna** (12); **nolako esperientzia** (10); **nolako esperientzia izan** (7); **nolako etorkizuna** (8); **nolako europa** (8); **nolako euskara** (6); **nolako ezaugarriak** (6)

nolako garrantzia (29); **nolako garrantzia duen** (13); **nolako gauza** (7); **nolako gauzak** (9); **nolako geroa** (6); **nolako giroa** (13); **nolako gizona** (8); **nolako gogoa** (8); **nolako gustua** (7)

nolako harremana (20); **nolako harremana duzu** (5); **nolako harremana izan** (5); **nolako harremanak** (13); **nolako harrera** (24); **nolako harrera egin** (6); **nolako indarra** (16); **nolako indarra duen** (5); **nolako indarrez** (6); **nolako irudia** (5); **nolako itxura** (27)

nolako jarrera (20); **nolako jendea** (6); **nolako joera** (5); **nolako jokalaria** (5); **nolako jokoa** (5)

nolako kaltea (11); **nolako kalteak** (9)

nolako laguntza (10); **nolako lan** (8); **nolako lana** (20); **nolako lana egin** (7); **nolako lanak** (11); **nolako lotura** (6); **nolako loturak** (6)

nolako maila (16); **nolako makurrak** (5); **nolako mina** (5)

nolako nekeak (5); **nolako neurriak** (14); **nolako neurriak hartu** (6)

nolako obrak (5); **nolako ondorioak** (28); **nolako ondorioak izan** (5); **nolako ondorioak izango** (7); **nolako oztopoak** (5)

nolako partida (14); **nolako partida espero** (8); **nolako pertsona** (8); **nolako plazera** (6); **nolako poza** (12); **nolako prozesua** (5)

nolako saila (5); **nolako sostengua** (6); **nolako suertea** (5)

nolako taldea (9); **nolako tokia** (5); **nolako tratua** (7)

nolako urratsak (6); **nolako zailtasunak** (6); **nolako zigorra** (8); **nolako zirrara** (11)

nun nolako (9)

pentsa nolako (8); **pentsa zer nolako** (6)

ze nolako (6); **zein nolako** (5); **zenbat eta nolako** (6)

zer nolako (1003); **zer nolako aldaketak** (5); **zer nolako arazoak** (8); **zer nolako bilakaera** (8); **zer nolako bizimodua** (5); **zer nolako eragina** (26); **zer nolako erantzuna** (6); **zer nolako ezaugarriak** (6); **zer nolako garrantzia** (16); **zer nolako harremana** (10); **zer nolako harremanak** (5); **zer nolako harrera** (11); **zer nolako indarra** (8); **zer nolako itxura** (5); **zer nolako jarrera** (10); **zer nolako kaltea** (5); **zer nolako laguntza** (6); **zer nolako lana** (11); **zer nolako neurriak** (6); **zer nolako ondorioak** (17); **zer nolako partida** (6); **zer nolako poza** (5); **zer nolako sostengua** (5); **zer nolako zirrara** (6)

badakizu nolakoa den (14); **ea nolakoa** (6); **egoera nolakoa den** (8); **etorkizuna nolakoa izango** (5); **ez dakit nolakoa** (7); **hara nolakoa** (7); **hau nolakoa den** (5); **hori nolakoa izan** (5); **hori nolakoa izango** (5)

nolakoa den erakusten (6); **nolakoa den ikusi** (5); **nolakoa den jakin** (8); **nolakoa den jakiteko** (5); **nolakoa izan daitekeen** (7); **nolakoa izan den** (35); **nolakoa izan zen** (54); **nolakoa izan zitekeen** (16); **nolakoa izanen den** (17); **nolakoa izango den** (50); **nolakoa izango zen** (25) **nolakoa naizen** (19); **nolakoa ote** (30); **nolakoa ote da** (7); **nolakoa ote den** (6); **nolakoa ote zen** (12); **nolakoa zen jakin** (5)

zer nolakoa (77); **zer nolakoa da** (5); **zer nolakoa den** (13); **zer nolakoa izan** (16); **zer nolakoa izango** (6); **zer nolakoa zen** (13)

badakizu nolakoak diren (7); **ez dakit nolakoak** (5); **nolakoak diren** (114); **nolakoak izaiten diren** (5); **nolakoak izan diren** (8); **nolakoak izan ziren** (14); **nolakoak izango diren** (14)

zer nolakoak (29); **zer nolakoak diren** (5); **zer nolakoak ziren** (6)

nolakotasun 1 *iz* gauza bat den bezalako egiten duen hura.

Ez dago gauza lausoagorik pertsona baten **nolakotasunari** buruzko inpresioak baino. **Koro Navarro**

Gizarte hauen **nolakotasunak**, bai bertuteak eta bai akatsak, nerabazarokoak dira argi eta garbi... **Iñaki Mendiguren**

Slytherinek bere ikaslerik hautatuengana estimatzen zituen **nolakotasun** asko edukitzea suertatu zaizu: bere dohain bakana, parsel-hizkuntza... asmarena... erabakitasuna... **Iñaki Mendiguren**

Landareen eta animalien oinarrizko **nolakotasuna**, hazteko, gaiberritzeko eta ugaltzeko ahalmenean datzana. **Bernardo Atxaga**

Zuhaitz-mota desberdinek **nolakotasunak** ere desberdinak izaten dituzte. **Santiago Iruretagoiena**

Ea, nork esango dizkit mandragoraren **nolakotasunak**? **Iñaki Mendiguren**

Ama izatearen **nolakotasuna** da amatasuna, eta ama, berriz, seme edo alaba bat edo gehiago dituen emakumea. **Berria - Gaiak**

Kolonia-inperioen osakerak ere ez zuen auzitan jarri Europako nazioarteko sistemaren mundu-ekonomiaren **nolakotasuna**. **Koro Navarro**

Ahotsaren **nolakotasunaz** estali nahi izan duzu urduritasuna. **Lourdes Oñederra**

Lehendabiziko bokalaren **nolakotasunaren** kromatikotasuna areagotu da, eta itxiago eta palatalago egin da. **Lourdes Oñederra**

Bokalerdi esaten zaio diptongoan bokalaren ondoren ahoskatzen den **nolakotasun** bokalikoari (*hau aw*). **Lourdes Oñederra**

Gainerako maiztasunek hotsaren **nolakotasuna** baldintzatzen dute, baina ez garaiera. **Lourdes Oñederra**

Ohar bedi, bide batez, matematikariak zenbakie eskaintako kalifikatzaileen **nolakotasuna**: hautsiak, absurdoak, ezinezkoak, gorrak, puskatuak, irudizkoak, konplexuak, idealak eta, bukatzeko, trantszendenteak. **Jon Muñoz**

Txikitik handirako eta barrutik kanporako prozesu osagarri baten bidez jabetzen gara espazioaren neurriaz eta **nolakotasunaz**. **Berria - Kultura**

2 (filosofian eta kidekoetan)

Nolakotasunari eta zenbatekotasunari dagokienez. **Xabier Kintana**

Horien ustez, gizaki bakoitzaeren zorionaren zenbatekoa eta **nolakotasuna** zientifikoki neurtuz, zuzena eta okerra zer diren erabaki dezakegu. **Askoren artean**

Substantzien propietateen artean batzuek haien zerizana ematen digute, beste batzuek, ordea, haien **nolakotasuna**. **Askoren artean**

Parerik gabeko **nolakotasun** bati parerik gabeko kausalitate batek erantzun behar dio. **Juan Garzia**

Gizakia afektu edo sentimenduzko **nolakotasun** baten bidez kalifikatzen denean, adibidez honela esatean: Urika koleratsua da, haserrekorra, beldurtia, edo bihozbera, horiek baina, **nolakotasun** moral iraunkorrek direla esan nahi gabe. **Xabier Kintana**

Halere, esentzia bati baiezeko eta funtsezko eran egotziriko edozein atributu, biotarik bat: edo esentzia bera da, edo bestela esentzia horrexen **nolakotasuna** da. **Xabier**

Kintana

Era substantziazalean edota, nolabait esanda, esentzialki, ez subjektu baten akzidente gisa, gorputzean beroa edota itxura bezala, ez eta **nolakotasun** edo kantitate gisa.

Imanol Unzuurrungaza

Horrek ez baitu haren esentzia osatzen ez eratzen, eta, beraz, ez da "**nolakotasun**" bat besterik; baina **nolakotasuna** "goren genero" gisa, akzidenteetako bat da.

Xabier Kintana

Kontzeptu metafisiko gehienak mahai gainean jartzen ditu Aristotelesek: substantzia, subjektua, izatea, materia, forma, **nolakotasuna**, kategoria, jainkoa, kausa lehena, potentzia, oinarria,...

Askoren artean

3 (izenondoekin)

Badakit, bai, Sinpatia edo Antipatia hitzak lehen aldiz sarrarazi dituzten autoreek gauzen **nolakotasun** ezkutu batzuk adierazi nahi izan dituztela izen horiekin; baina, uste dut, halere, zilegi zaigula hitz horiekin berekin **nolakotasun** ezagun edo nabari batzuk ere aditzea.

Piarres Xarriton

Liburuen **nolakotasun** espazialak ez bezalako betelan neurgaitz eta barreiatuagoa betetzen dute oihartzunek espazioan.

Anjel Lertxundi

Musikaren **nolakotasun** alai ezabatu gabe. Munduko ekonomiaren **nolakotasun** hierarkizatua.

Askoren artean

Europar mundu-ekonomiaren **nolakotasun** kapitalistatik dator haren bokazio unibertsala, bestela esanda, munduko espazio osora zabaltzeko joera, espazio horren heterogeneitateaz baliatuz.

Koro Navarro

Amerikar herrian oro har ezkutuan zeuden **nolakotasun** militarrek 1917-18 eta 1941-45eko aleman-amerikar gerretan agertu zitzaizkien aurkari alemani.

Iñaki Mendiguren

Ez dago kontsonante pilatze handirik, ezta **nolakotasun** iluneko bokalik ere.

Lourdes Oñederra

Garai hartan irakurtzen nituen liburuak [...] nahasmenaren beraren **nolakotasun** fantastiko eta lotura gabearen parte ziren, eta ez txikia gainera.

Koro Navarro

Munduko finantza-doikuntzaren **nolakotasun** partez bortxatu horrek agertzen du zergatik egin zuten gora interes-tasa errealek petrolioaren bigarren krisialdian.

Koro Navarro

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hizkuntza batzuetan bokal fonemak ez dute **nolakotasun** ezaugarririk (h[au] d[a] aurreko eta atzeko bokalen arteko desberdintasunak, edo bokal biribildu eta biribilduen artekoak ez du esanahia bereizten).

Lourdes Oñederra

Kontsonanteen **nolakotasun** desberdintasunaren kasuan.

Lourdes Oñederra

Nolakotasun-multzo baten kontsonantzia edo adostasunaren emaitzaz lortutako arte konplexua da arkitektura.

Santiago Iruretagoiena

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bi bokal-**nolakotasun** silaba bakarrean gertatzea da diptongoa.

Lourdes Oñederra

Lehen bi formateak erabili ohi dira bokal **nolakotasunak** elkarren artean bereizteko, deskribatzeko edo sailkatzeko.

Lourdes Oñederra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ekonomiaren nolakotasun (3); **nolakotasun moral** (3)

nolakoxe *adlag* zehazki nolakoa.

Begira Hugok **nolakoxea** ikusten duen itsasoko langileen mundua, bere etxeko balkoitik badiaara begira, 117-118 orrialdeetan: [...].

Koldo Izagirre

nolamoduz *adlag* nola.

Lanetik etxerakoan, edo gero ataurrean, saguxar egunerokoak **nolamoduz** zebiltzan ere oharatu nahiko zuen afalaurretik.

Pello Zabala

nolanhia *adlag*

1 *nolahiko izlag* edozein motatakoa; erdipurdikoa. ik *nahinolako*.

Horrela, juzgatze oro -zientifiko, etiko, estetiko edo **nolanhikoa** - balioestea da, hots, subjektuaren apriorizko kriterio edo balioaren (arauaren) arabera kontenplatzea. Hiru interpretazioak dira zilegi; **nolanhikoa** ere den edertasuna, hari begira baitago Bogarde.

Joxe Azurmendi

Nolanhiko gizaseme batekin elkartu zen; zortzi hilabete bakarrik iraun zuten elkarrekin.

Gotzon Garate

Zer esan daiteke **nolanhiko** lauki batez?

Jon Muñoz

Iduritzen zaitzidan eliza honen sakonduratik ez nuela ikusten **nolanhiko** paisaia, baizik eta Espainiaren begitartea.

Koldo Izagirre

Biologian, aztertuko den organismoa hautatzea ez da **nolanhiko** auzia.

Juan Garzia

Leku guztietan zabaldua dago, zuen artean lizunkeri arazo bat dagoela, eta ez **nolanhikoa**, jentilen artean ere gertatzen ez direnetakoa baizik.

Elizen arteko biblia

Garai hartan ez zirela bereak **nolanhiko** hankak; gihartsuak eta arinak zituela.

Ramon Saizarbitoria

Erakutsiko baitute nola, berrogeita hamar bat urte honetan, izan naizen ez **nolanhiko** baina paregabeko zerbitzaria delako Errege Jaunarentzat eta haren aita Enperadore Handiarentzat.

Piarres Xarriton

Lana ez zen **nolanhikoa**, ezta ordaina ere.

Migel Angel Mintegi

Ez zen, ez, **nolanhiko** galdera, baina gordin-gordin sortu zitzaion Ruche jaunari.

Jon Muñoz

Galdera ez zen **nolanhikoa**, eta mutikoak itzulinguruka ekin zion elkarrizketari: [...].

Joxerra Garzia

Ez baitzen **nolanhiko** hondamena izan.

Xabier Amuriza

Bainan kasu! ez zernahi eta **nolanhiko** janaria.

Herria

-Bai, makurra izan da eta ez **nolanhikoa** gainerat!

Janbattitt Dirassar

Hemendik aitzina, etxaldeak eman mozkiri bakarra, arto ala esne, saldu beharko zen eta ez **nolanhiko** preziotan.

Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nerriz isilik egoteak bihotza garbi gordetzen duela eta ez dela **nolanhiko** bertutea, mihiari lotuta baitaude bizitza eta heriotza [...] ez noski mihia dastamenaren organo delako, hitzaren organo delako baizik-.

Askoren artean

Ez daukazu **nolanhiko** pagotxa, orduan!

Karlos Linazasoro

2 *ez nolanhiko* (izenondo balioaz)

Ohorea zela esan zuen, ohore ez **nolanhikoa**, munduko printze-etxe ederrenetakoak herrian egotea.

Felipe Juaristi

Mendebaleko adarrean, Rua das Pretaseko gainetatik, ibilaldi ez **nolanhikoa** atzo oraindik mimoz tratatzen zituzten zelaietatik zehar.

Jon Alonso

Mutante sail ez **nolanhiko** bat, haietariko asko guztiz ezustekoak, hala nola lambda bakteriofagoaren eta laktosa sistemaren kiribil erregulatzailetan bakteriariko mutante negatibo azpiratzaileak.

Juan Garzia

Basapizti ez-**nolanhikoak** izan behar zuten zakurrok, beraien ahausien lakarra aintzakotzat hartuz gero behintzat.

Joxe Austin Arrieta

Gauza jakina zen egiteko ez **nolanhiko** horrek debekupean jartzen zizkiola teologia espekulatiboaren arima barreneko atsegin goxoak.

Juan Garzia

Ekintza ez **nolanhiko** hau egin eta gero, ondorengo urratsek betiko ohiturak errepikatu zituzten.

Jon Alonso

Zinez, sakrifizio ez **nolanhikoa** zen hura niretzat une hartan.

Juan Garzia

Laster erakutsi zituen bere dohain ez **nolanhikoak**.

Juan Garzia

Diru puska bat irabazi edo isun bat ordaindu, ez **nolanhikoa** batzuetan.

Juan Garzia

3 nolanahi den (35 agerraldi, 13 liburu eta 5 artikulutan) nolanahi ere.

4 nolanahi ere (2164 agerraldi, 156 liburu eta 1034 artikulutan; orobat **nolanahiere** g.er.) aurreko esaldian adierazten dena gorabehera, eta hura osatuz, esaten denari laguntzen dion esapidea. ik **dena 3; dena 4**.

5 nolanahi ere den (26 agerraldi, 10 liburu eta 3 artikulutan) nolanahi ere.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

ez nolanahi (16); nolanahi dela (58); nolanahi dela ere (39); nolanahi delarik (5); nolanahi delarik ere (5); nolanahi den (35); nolanahi ere (2165); nolanahi ere den (26)
eta ez nolanahiko (9); ez da nolanahiko (18); ez dira nolanahiko (6); ez nolanahiko (21); ez zen nolanahiko (5)
eta ez nolanahikoa (25); ez da nolanahikoa (23); ez nolanahikoa (50); ez zen nolanahikoa (12)
eta ez nolanahikoak (9); ez dira nolanahikoak (13); ez nolanahikoak (14); ez ziren nolanahikoak (7)

nolanahiere ik **nolanahi 4**.

nolanahika (27 agerraldi, 13 liburu eta 9 artikulutan; orobat **nola nahika 56** agerraldi, 4 liburu eta 46 artikulutan –denak Herriakoak-; Euskaltzaindiaren Hiztegian **nolanahika** agertzen da) **1 adlag** nolanahi, edozein moduz.

Ez **nolanahika** non-nahi eta nonnahirekin ibiltzen diren itsusi horietarik. Janbattitt Dirassar

Mendiko suak beti izan dira bainan gisa hortako surik ez dela nun nahi, noiz nahi eta **nola nahika** eman behar. Herria

Populua aldiz, ez da gizakien edozein batasun, **nolanahika** bildua, baina bai legezko kontratuz eta probetxuzko bateratzez elkartu den jendearen biltzarra. Piarres Xarriton

-Egiazki **nolanahika** gidatzen duzu! -epaitu zuen Ninak-. Ramuntxo Etxeberri

Mailek, **nolanahika** eta trabesean paratutako oholez baldar konponduak, otsoendako tranpak ematen dute. Koldo Izagirre

Poetak ez ditut maite, gerla zer den jakin gabe, beren olerkietan **nolanahika** aipatzen dutelako. Itxaro Borda

Erriflearen puntarekin hautsa **nola-nahika** zapaltzen zuen, suge sotil higikorra aldi oroz huts eginez. Itxaro Borda

Bistan da, ez da holako lasterkaldi bat **nolanahika** prestatzen. Herria

Dena bumbuna untzi, balantza, xirio, burdinezko eta kartoinezko kutxa, mota guzietako puskak dotzenaka, iduriz **nola nahika** utziak. Michel Oronoz

Ez dira beraz **nolanahika** emanak izan, baina lekuari begiratuz edo berdin nagusiaren ofizioari eta holako. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azkenean, salatu zidan bere barneko mina: arrats hartan ez zekiela non lo eginen zuen, sos guti zuela, zuen poxia ez **nolanahika** xahutu nahi. Janbattitt Dirassar

2 nolanahikako izlag

Frantsesa ez baita **nolanahikako** mintzaira: ez zuen arra-haurren bilakaera linguistiko handikapatua begiko. Itxaro Borda

Lekuak husteko arrazoï bat bazuen, ez **nolanahikakoa**. Itxaro Borda

nolanahiko ik **nolanahi 1**.

nolanahita *adlag* nolanahi ere.

Baina **nolanahita** ere zuen kontuak dira horiek. Josu Zabaleta

nolapait ik **nolabait**.

nolarebait ik **noherebait**.

nolatan *adlag adkor 1* nola. (harridura adieraziz, edo erretorika galderetan). ik **nolaz; nondik 12**.

- **Nolatan** ausartu zara? Patxi Zubizarreta

- **Nolatan** ez zenuen ekanean gaudituz proba? -galdetu zidan, ez bat eta ez bi. Juan Kruz Igerabide

Nolatan bururatu zaizu? Mirentxu Larrañaga

-Zuzena eta bidezkoa dena **nolatan** lotsagarria izan? Patxi Zubizarreta

Bazekiat - **nolatan** ez diat bat jakingo?-, baina ez zehazki. Iñaki Segurola

Nolatan utziko dut bakarrik etxea? Jose Morales

- **Nolatan** hitz egin dezakegu horrela? Patxi Zubizarreta

Baina **nolatan** esan dezakezu horrelakorik? Jose Morales

-Baina, **nolatan** da posible hori? Jose txo Azkona

Eta **nolatan** ez pentsatu guk orain eskolako tontoen atarramentu hori idiot savant (edo nolabaiteko autista) izatearen tankerako kasu bat izan daitekeela? Iñaki Segurola

Nolatan ez aurkitu arbitrariotasuna, are fantasia hutsa, gure munduan eta haren funtzionamenduan? Juan Garzia

Halabeharrak **nolatan** ekarri dio halako zortea aita-amarik ez duen neskatila bati? Patxi Zubizarreta

Nolatan ez nuen bada neure baitan halako errebantxa sentituko, amak eman nahi izan ez zidan oin-aulkia etxeratzen ari nintzen bitartean? Joxan Elozegi

Nolatan eman, bada, ezezkorik? Jose Morales

Nolatan ez duzu, bada, zeure errege jauna zaindu? Elizen arteko biblia

- **Nolatan** hori? -galdetu zion Andresek, harriturik, azalpen hura entzutean. **Nolatan** istripua? -esan nien nik-. Josu Zabaleta

- **Nolatan**, polizia? Karlos Zabala

" **Nolatan** bizi, gero, ezezagun den hori aurretik ez dugula?", egiten zuen galde René Char-ek. Juan Garzia

- **Nolatan**, gero? Jose Morales

Nolatan! zeuen ondasunak utzi eta orain besteenak jan nahi dituzue? Askoren artean

Nolatan agintzen zuen berea ez zen zaldia! zein eskubiderekini ari zen osaba Juanen izenean! gelatik atera eta pabiloirantz abiatu nintzen presaka. Bernardo Atxaga

2 (galdera txertatueta)

Ez dakit **nolatan** esan dudan horrelakorik. Mirentxu Larrañaga

Ez zait buruan sartzen Mary **nolatan** den Petroliniren hain laguna. Fernando Rey

Ezin dut ulertu jendeak **nolatan** egin dezakeen horrelakorik, egunero. **Mirentxu Larrañaga**
Batek galde egin dezake **nolatan** utzi zuen Kultura Sailak hau horrela gerta zedin. **Pello Salaburu**
Emazteak bere buruari galdetu zion Ernestek **nolatan** har zezakeen halako gozamenik berripaper batekin. **Mirentxu Larrañaga**
Noizdanik eta **nolatan** finkatu dizkiguten leku-izen (--?) horiek ibai "oso" baten izen gisa. **Iñaki Segurola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)

ea nolatan (7); **ez dakit nolatan** (13)

nolatan ausartu zara (5); **nolatan da** (4); **nolatan dakizu** (4); **nolatan den** (7); **nolatan ez da** (3); **nolatan ez dut** (4); **nolatan ez duzu** (4); **nolatan ez nuen** (4); **nolatan ez ziren** (4); **nolatan ez zuen** (4); **nolatan izan zitekeen** (3); **nolatan liteke** (3); **nolatan zaude** (4); **nolatan zu hemen** (3)

nolatsu *adlag* gutxi gorabehera nola.

Hitzeman du bestalde erien asurantzta kutxa arramoldatuko dela eta sei hilabete barne ezaguneko dela hori **nolatsu** eginen den. **Herria**
Horrek behartzen gaitu, hain zuzen, modu sinesgarri samarrean irudikatzeraz **nolatsu** joan den poliki-poliki eraikiz halako konplexutasuna. **Juan Garzia**
Erakutsi omen zion **nolatsu** egiten zen eta, baita liburu bat utzi ere. **Patziku Perurena**
Hona zer asmatu zuen, eta **nolatsu** izan zen bien arteko elkarriketa, euskarazko bertsio ez oso desberdinetarik bat aukeratzen dudalarik: [...]. **Iñaki Segurola**
Hona hemen **nolatsu** lerrokatu ziren: 39 bonba, bakoitzak 250 kilo, beste 260 bonba 50 kiloak eta 5472 bonba kilo batekoak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Ez da, ez, batere sasoi txarra kurtsoaldia eta urtearen abiada **nolatsu** joan daitekeen aztertzeko. **Pello Zabala**

nolatzobait *adlag* *adkor* nolabait.

Ez dute identitate arazorik; badaude espainolak izan nahi ez dutenak, are biziki nahi dutenak ez izan, eta izan ere **nolatzobait** ez direnak, baina nolatzar bait badirenak nahitaez. **Joxe Azurmendi**

nolatzar bait *adlag* *adkor* nolabait.

Ez dute identitate arazorik; badaude espainolak izan nahi ez dutenak, are biziki nahi dutenak ez izan, eta izan ere nolatzobait ez direnak, baina **nolatzar bait** badirenak nahitaez. **Joxe Azurmendi**

nolaxe

1 *zer-nolaxe*

Eraikuntza hori doi-doi zer **nolaxe** izan den historikoki esplikatzeko, E. Hobsbawmek eskaini ditu misterioaren giltza modeloak (*The Invention of Tradition*, 1983), Finkielkrautekin uztartzea erraza ez den fede marxista hertsikoa berau. **Joxe Azurmendi**

nolaz *adlag* nola. ik **nolatan**.

-Eta **nolaz** utzi zuten etxea? **Elena Touyarou**
Bai, **nolaz** ene herriko neska bat horretaratua? **Janbattitt Dirassar**
Auritze: herri honek betidanik hunkitu nau: **nolaz** hoinbeste etxe eder, mendia hor berean delarik? **Piarres Aintziart**
Istori hau kondatzean, **nolaz** ez gogora, orain duela 60 urte gertatu zena, Poloniako konzentrazio kanpo batean? **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Nolaz uko eginen nuen tanpez hoinbeste segurtamenei? **Piarres Aintziart**
Justiziak berak beharko du neurtu **nolaz** holako lerratzek izan ditezkeen. **Herria**
Gehiago dena, nehorik ez du konprenitzen **nolaz** elizako ezkilak, **nolaz** norik beraren ordugailuak, irriatik, telebistak, hozgailuak, hoinbeste mekanikeria etxe batean orain elektrikaz direnak, berdin elektronikaz beteak direnak, **nolaz** geldituak diren edo makurtuak. **Michel Oronoz**
Bestela ez da ulertzekoa **nolaz** izaten zen bakarren bat beti nire inguruan. **Arantxa Iturbe**

nolazbait ik **nolazpait**.

nolazbeit ik **nolazpait**.

nolazpait *adlag* (*orobat nolazbait g.er., nolazbeit g.er. eta nolazpeit g.er.*) *adlag* nolabait.

Alderdi hori UMP delakoan sartua da bainan bere nortasuna begiratuz **nolazpait**. **Herria**
Diotenez %80-ek boza eman dute eta haien artean % 97 agertu da baiaren alde, erran nahi baita, **nolazpait** bakearen alde. **Herria**
Kolpeak hartzea ere josteta artzea zen, **nolazpait**. **Menane Oxandabaratz**
Zuberoako pastoralen itxura hartua du **nolazpait** munduko politikak, ate batetik heldu zaizkigularik jende onak eta kristau garbiak, beste batetik aldiz jende gaiztoak eta turko lohiak, hots, terroristak. **Piarres Xarriton**
Eta, hala eta guztiz ere, itxura guztien arabera zoriotsuak ulertua, jakina eta jana dauka bere heriotza; gertatua, **nolazpait** esan. **Iñaki Segurola**
Kolpeak hartzea ere josteta artzea zen, **nolazpait**. **Menane Oxandabaratz**
Biok ezagutzen dituk hik, **nolazpait** bederen. **Txillardegi**
Nihaturen kontra **nolazpait**! **Janbattitt Dirassar**
Arrazoika ari menturaz, onez onean **nolazpait**? **Janbattitt Dirassar**

nolazpeit ik **nolazpait**.

nolerebait (*15 agerraldi, 6 liburutan; orobat nolarebait 7 agerraldi, 2 liburutan*) *adlag* nolabait ere.

Izutu ninduen baina ernatu ere bai **nolerebait**. **Matias Múgica**

Dena zen zabal, baina aldi berean barneko eta, **nolerebait**, sekretua. **Juan Garzia**
Haren hazpegiek, **nolerebait** esan, toki gutxiegi zuten han ezertan aldatu ahal izateko. **Matías Múgica**
Hein batez ikusten ikastea espero zitekeen, garuneko ikusmen-aldeetatik bide berriak **nolerebait** urratzea. **Xabier Olarra**
Iruditzen zait haatik zilegi dudala pentsatzea ezen nik bertze emakumeei egin dizkiedan laudorioetan duela horrek **nolarebait** kausa. **Jon Muñoz**

nolotil *iz* metamizolaren merkataritza izena.

Eta bitartean, **Nolotil** dosi handiagoak jarriko dizkidatela, gozo-gozo egon nadin. **Hasier Etxeberria**
Herenegun esan zidaan Sebasek, badela **nolotila** ere. **Pablo Sastre**
Nolotila, bai; gure lagun batek hartzen zian hori. **Pablo Sastre**

nomada *1 izond* alderrai bizi dena, bizileku finkorik ez duena.

Herri **nomada** zen ala nekazarizatik bizi zen. **Isabel Arrigain**
Han tribu asko zeuden, kurdu **nomaden** kanpamentuak beren oihal-etxola handiekin. **Fernando Rey**
Jakin genuen toki hartan espainiarren gotorleku bat zegoela, eta horren alboan frantsesen aerodromo bat eta bertako tribu **nomaden** bizpahiru denda. **Patxi Zubizarreta**
Bizimodu **nomadatik** sedentariora pasatu ginen, animaliak etxekotu genituen, lurra lantzen hasi ginen, abere eta lurren jabetza pribatua sortu genuen eta ondasunak aitaren bidez semeenagana pasatzeko legeak egin genituen. **Luis Elberdin**
Bere izpiritu **nomada** dela eta, hainbat tokitan bizi izan da Itxaro Borda: Oragarren, Pauen, Parisen eta Maulen. **Ana Urkiza**
-Hik badakik, bestalde, gizon-emakume haiek **nomadak** zirela. **Joan Mari Irigoien**
Gizonak aspaldi utzia zion, hala ere, **nomada** izateari. **Josu Zabaleta**

2 (izen gisa)

Samintasunez gogoratzen ginen hoteletako garaiez, bizimodu burgesean ere basamortuko **nomaden** antzera bizi baikinen. **Ander Irizar**
Nomadek sorturiko errepubliketan, arrotzen eskuhartzea ezinbestekoa da noski hormagintza kontuan. **Juan Garzia**
Nomadak basamortua ordeztzen du; sedentarioak, hiria. **Joxe Azurmendi**
Pertsona horiek nuklearraren **nomadak** dira, Frantzia osoan ibiltzen dira zentral ez zentral, egin beharreko lanen arabera, eta askotan kanpinetan bizi dira. **Berria - Gaiak**

3 *erdi-nomada*

Gana eta gwi herriak «zibilizatu» egin behar direla eta ehizan oinarritutako bizimodu **erdi-nomada** utzi behar dutela. **Berria - Gaiak**

nomadismo *iz* bizimodu nomada.

Nomadismoa nekazaritza baino gehiago da hainbat arlotan: animaliak etxekotzen eta teknika ekonomikoaren garapenean, honetan parekagarriagoa baita industrializazioarekin nekazaritzarekin baino. **Iñaki Mendiguren**
Zer egin? debekatu, eta kito: papo prostituzioa, **nomadismoa** eta pobrezia. **Joxerra Garzia**
Nomadismoko garaietan, haur asko izatea karga handia izango zen, denei jaten emateko eta denak zaintzeko eta haiekin alde batetik bestera ibiltzeko. **Luis Elberdin**

nomenklatura *1 iz* jarduera edo zientzia bateko terminoen multzoa.

Horiek berez ez direnez esanahi garbikoak izaten, eta ez denez erabilera arruntean erraz ulertzeko moduko **nomenklatura** izaten, eta erregelak ere luze idatzita azaltzen direnez, [...] hitzen maiztasun eta ugartasun hori oztopo bihurtzen da eta ez da irakurlearen adimena nahasteko besterik izaten. **Santiago Iruretagoiena**
Aintzira haietako bat [...] geografian **nomenklaturan** jasotzeko modukoa zena, hogeii verstako luzeran inguratu behar izan zuen, zailtasun galantak garaituz. **Karlos Zabala**
Irakaskuntzako hizkuntza erregistroari gertuenetik segitzen dion **nomenklatura** politikoa ere egin ohi du entsegu politik tartean-tartean. **Iñigo Aranbarri**

2 (hitz elkartuetan)

Berraurkituko ditu "aurkikuntzak" (fosilen sailak, esaterako), eraldaketa kontzeptualak, (esaterako, generoaren definizio berria), adigai ezezagunen azaleratzea (esaterako, ugaztunena edo organismoarena), tekniken hobekuntzak (bildumen antolaera-hastapenak, sailkatze eta **nomenklatura**-metodoa). **Xabier Arregi**

nomina *1 iz* lansaria, soldata; soldataren agiria.

1.800 euroko **nomina** dut nik. **Berria - Euskal Herria**
Langile bakoitzaren **nominan** agertzen da sindikatura afiliatua zauden edo ez. **Berria - Harian**
Madrilgo Corte Ingleseko langile emakume baten **nomina** erakutsi du. **Berria - Harian**
Kasu horretan, **nominaren** edo soldata igoeraren ehuneko bat pentsio osagarrietara bideratzen da. **Berria - Harian**
Apiril bukaeran **nomina** normal jasotzea espero dut. **Berria - Kirola**
Enpresak maiztzeko **nominan** lehen igoera ordainduko ez balu, langileek eskubidea dute epaitegietara joateko. **Berria - Ekonomia**
Gainerakoa (9,13 milioi) iazko martxotik aurrera **nominan** eginiko atxikitzean jaso dute zergadunek. **Berria - Ekonomia**
Zeuk eman zenion lantegiko **nominak** lapurtutakoan lortutako diruaren erdia. **Rafa Egiguren**
Kontratua eta soldata aipatzeak xehekeria barregarria irudi lezake gaurko lan-baldintza negargarriak ezagutu ezean, baina niretzat berriak ziren hitz horiek: kontratua, soldata, eta orobat lanaren munduarekin loturiko guztia: **nomina**, ordutegia, fitxatzea, lankideak... **Xabier Mendiguren Elizegi**
Nomina bat edo banku-balantza bat kalkulatzeko erabiltzen bada konputagailua, oso ondo dago lan egiteko modu hori. **Irene Aldasoro**

2 enpresa bateko soldatadunen zerrenda.

Aldizkariaren sorreran harrizten duen beste gauza bat zera da, euskal kazetaritzan nabarmendu den izen bat bera ere ez egotea **nominan**. **Hasier Etxeberria**

3 irud/hed

Lan horretan jarduten zuen zenbaitek nagusi, ugazaba edo patroii boteretsua zuten: estatu baten **nominan** zeuden lapur "ofizialak" ziren, eta *kortsario* izen ohoretsua zeramaten. **J.M. Olaizola "Txiliiku"**

4 pertsonen edo gauzen izenen zerrenda.

Ezin izan nindutenez hil, kendu egin behar zuten nire izena herritarren **nominatik**. **Koldo Izagirre**
Jon Alonsoren *Idiaren eraman handia* saiakerak (1995) horien adibide-sorta ona eskaini zigon, eta orduz geroztik, jakina denez, **nominak** handituz jarraitu du. **Iban Zaldia**

nominal *1 izond* izenarena, izenari dagokiona; izenez baino ez dena.

Jende buruargi eta kezkatasuna kredo **nominal** izateko adina irau du [kristautasunak], jadanik ahoz ere ez daudelarik haren idealean zerbitzura. [Iñaki Mendiguren](#)

Arafatek bortizkeria deusezteko babes **«nominala»** eta partziala» soilik ematen duela gaineratu zuen. [Berria - Mundua](#)

Handik aurrerako guztiak, presidente **nominalak**, AEBak bilakatzeaz ziren elkarte anonimoko akziodun nagusien ordezkari hutsak izango zirela esan zen. [Berria - Mundua](#)

Gipuzkoako Lurralde Batzarrek baino ezin dionez kargua kendu, GBB berria aukeratzeko barne prozesua egin arte kargu **nominalarekin** jarraitzekotan da. [Berria - Euskal Herria](#)

2 izena aipatuz egiten dena.

Leopoldo Barredak atzo azaldu zuen gaurko bilkuraren hasieran Atutxari eskatuko diotela bozketa **nominala** (legebiltzarkide bakoitza banan-banan deituz egiten den bozketa) erabiltzeko Jaurilaritzaren proposamena bozkatzerakoan. [Berria - Euskal Herria](#)

3 (gramatika)

Miaketa hau nahikoa da zehazteko zer gramatika-egitura motatakoa den aipatutako esaldia (baiezko esaldia, iraganekoa, subjektu **nominala** daroana, etab.). [Xabier Arregi](#)

4 ekonomian, balioaz eta kidekoen mintzatuz, idatzia dagoena.

Txanpon horrek bi eta hiru gramo artean pisatzen ditu eta bere ekoizpen kostuak balio **nominala** gainditzen du. [Berria - Ekonomia](#)

Prezioa balio **nominalaren** bikoitza izateak hautsak harrotu zituen. [Berria - Kirola](#)

Guztira, ordaindu gabeko 193.000 milioi dolarreko banku-kredituen zenbatekoan, 35.000 milioi dolarretan jaitzi zen herrialde hauen zorraren balio **nominala**. [Koro Navarro](#)

3.000 euroko balio **nominala** izango dute zor agiriek. [Berria - Ekonomia](#)

Merkatuak balio **nominalaz** behetiko prezioa ematen zien kredituei [...] eta herrialde zordunek bazuten beren zorren balio gabetzea eskatzea. [Koro Navarro](#)

Bateratze baldintzek ekonomia eta diru Batasunean parte hartuko zuten ekonomia desberdinen bateratze **nominala** lortzea zuten helburu, alegia, adierazle jakin batzuei buruzkoa. [Iñaki Heras](#)

Atzeraldiko faseetan langabeziak gora egiten duenean, soldata **nominaletan** islatzen da gorakada hori. [Koro Navarro](#)

Baldin aldagai **nominalak** (prezioak eta soldatak) truke-tasen bariazioari berehala egokitzen ez bazaizkio, [...] bigundu egingo da krisiaren lehen efektu atzeragarria. [Koro Navarro](#)

nominalismo *iz* unibertsalak objektiboki existitzen ez direla eta izenak baino ez direla dioen doktrina filosofikoa.

Ea natura komun horrek osatzen ote duen izate bakoitzaren muina bere komunitasunean (errealismoa); ala, izakiak erabat singularrak izanik, horiek multzoka izendatu ahal izateko baliabide hutsak ez ote diren zorioneko unibertsal horiek (**nominalismoa**). [Askoren artean](#)

Hori muturreko **nominalismoa** litzateke, eta horren justifikazioa honelako hau izan daiteke: indibiduen arteko desberdintasun txikiak izateak ez du argitzen sailkapenak nola egin behar diren. [Askoren artean](#)

Eskolastikaren **nominalismoari** muzin eginez, materialismo naturalistaren zein eraikuntza kognitiboaren alde agertu zen hastapenetik. [Askoren artean](#)

nominalista *1 izond* izenari dagokiona.

Gaur egun, espainiar Estatuari gelditzen zaion boterea Katalunia, Euskal Herria edo Andaluzia "nazio" ote diren ala ez erabakitzean eta antzeko auzi **nominalista** hil edo bizikoetan ageri da. [Joseba Zulaika](#)

Sevillaren arabera, azkenaldian sarri plazaratu den «nazionalitate eta erregioen arteko eztabaida **nominalista**» ekiditea da ekimenaren helburu politikoa. [Berria - Euskal Herria](#)

2 nominalismoarena, nominalismoari dagokiona.

Esan beharra dago bestelako estrategia **nominalistak** ere badaudela, baina ez ditut aztertuko. [Askoren artean](#)

• 3 *izond/iz* filosofian, nominalismoaren aldekoa.

Unibertsalik ez dagoela argudiatzen duen filosofoari **nominalista** esaten zaio; aurkako jarrera aldarrikatzen duenari, aldiz, errealista. [Askoren artean](#)

Nominalistek nahiago dituzte multzoak unibertsalak baino arrazoi simple batengatik: multzoak izaki garbiak dira, hor baitago multzoen teoria. [Askoren artean](#)

Nominalistak ontologian banakoak eta banakoen multzoak hartuko ditu aintzat, eta horien bitartez saiaturiko da azaltzen errealistak banakoekin eta unibertsalekin azaltzen duena. [Askoren artean](#)

Nominalistak, estrategia horri helduz, ez ditu unibertsalak saihesten, antzekotasun horrek bere eginkizuna bete dezan unibertsala izan behar du-eta. [Askoren artean](#)

Zeren eta, **nominalistek** erran dezaketenen kontra, izenak ez du izanarekin zerikusirik, ezta izenak izenarekin ere. [Joan Mari Irigoien](#)

Nominalista klasiko bat Ockham (1287-1347) dugu, eta, halaber, egungo filosofian, Quine (1908-2000). [Askoren artean](#)

nominalizatzaile *izond* gramatika, perpauseko elementu bati izen izaera ematen diona.

"Formaldatze **nominalizatzaile**" baten bitartez sortu behar dira, honek IS-AS motako perpausak toAS edo ingAS erako izen sintagma bihurtzen dituela. [Itziar Laka](#)

Formaldatze **nominalizatzaileetako** bat TAdj izango da, ondoko erudia duen edozein kateri eragiten diona, [Itziar Laka](#)

nominalizatze *iz* gramatika, perpauseko elementu bati izen izaera ematea.

Ez gara **nominalizatze** interesgarri eta abartsu hauen egituraren barrena abiatuko, ez bada 2.3. pasartearen agertutako arazoaren azalbidetako formalizatzaile bat laburki eskaintzeko. [Itziar Laka](#)

nominatibo *iz* akusatiboa duten hizkuntzetan, subjektuaren kasua.

Hiztunen konszientzian, **nominatiboa** ez da, inolaz ere, deklinabidearen lehen kasua, eta terminoak halako zein holako ordenean agertu ahalko dira. [Isabel Arrigain](#)

Eta gero hasten ginen deklinazioen eskailera zailetan gora, **nominatiboa** *qui* genitiboa *cuius*, datiboa *cui*, akusatiboa *quem*, [...] -Barkatu, don Frantzisko, baina, *Angelum* erran duzu, eta *Angelus* beharko luke, zeren gaur ikasiaren arabera, **nominatiboa** beharko luke hor, ene ustez, ez akusatiboa. [Joseba Sarrionandia](#)

nominatu, nomina(tu), nominatzen du *ad* sari baterako hautagai izendatu.

Nobel sariren baterako **nominatu** eta guzti izan duten honetan, zer egin behar da Bernardo Atxaga (edo Joxe Irazu) Literaturako Nobel sarirako hautagai izendatzeko? [Berria - Kultura](#)

nomo *iz* antzinateko Egipton, administrazio barrutia, probintziaren kidekoa.

Eta ene garaien **nomo** honetan **nomotetiko** bat gertatu zen: akerra emakume batekin lotu zen. **Patziku Perurena**
Baina, *nómos* sustantiboari lotuago dago Egiptoko **nomoa** : administrazioa antolatzeko banatutako larrea, alegia. **Patziku Perurena**

nomologiko *izond* arautzeko teknikari dagokiona.

Zer da mota desberdinen gainetik azalpena? Hemen proposatu zuen azalpenari buruzko teoria filosofikoa bere eredu **nomologiko** deduktiboaren bidez. **Askoren artean**

Ondorioz, eredu **nomologiko** deduktiboan oinarrituriko azalpenari buruzko teoriari alternatibak ugaltu zaizkio: alde batetik, alternatibak eremu epistemikoari dagozkion elementuetan soilik oinarrituz (legeak, usteak eta gisakoak); eta bestetik, alternatibetan eremu ontologikoari dagozkion osagaiak txertatuz, hala nola ezinbestekotasuna, kausazioa edo bateratzea. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eredu nomologiko (3)

nomotetiko (*corpusean nomotetika soilik*) *izond* lege logikoen edo naturaren zientzien arabera.

Legeen aplikazioan nabarmentzen den antinomia **nomotetikaren** etsamina-saialdi onena da gure jakituria zedarriztatuan, honela bere espekulazio abstraktuan bere hanka-sartzeaz erraz ohartzen ez den arrazoimenari horren bitartez bere oinarri-esakuneen determinazioaren uneak aditzera ematearren. **Ibon Urbarri**

non (*orobat nun g.er.*)

1 (toki perpaus bat txertatzen, dagokion aditzak bait- aurrizkia hartzen duela)ik beherago 10.

Amerikar erako sukaldetxo batek jangela-egongelara ematen zuen, **non** tximinia erraldoi batek hartzen baitzuen horma oso bat. Ostatuaren beheko aldean denda txiki batzuk zeuden, **non** sokak, uzta-formako ogitxoak eta zamarietako lepokoak saltzen baitzituzten. **Jon Muñoz**

Espaloiaren bestaldetik, ibaia zihoan, zabal eta sakon alde hartan, **non** batel-estropadak egingen baitziren udan, inguruetako auzoen gozagarri. **Juan Kruz Igerabide**

Bide baketsu bat da hori, **non** maiteminduek datil-ardotik edaten baitute, hilobien harresi leunduen kontra bermaturik. **Juan Garzia**

Gero zein bere txandan joaten ginen "despatxu"ra, **non** Caselli triku-ileak banatzen baitzizkigun lehengaiak, exotikoak zein domestikoak. **Juan Garzia**

Gero, infartua izan zuenean, ospitalera eraman genuen, **non** astebetea egin baitzuen, zainketa berezietako unitatean. **Joan Mari Irigoien**

Gela erabat gris bat antolatu zuen, mundu gris bat bere estudioan, **non** gauza guztiak grisaren gamako koloreetakoak baitziren. **Xabier Olarra**

Koronelaren basoan, edota Koronelaren ibaian, **non** itsas amuarrain mordoak eta izokin mordoak baitzegoen. **Mirentxu Larrañaga**

Mongoliako goi-ordokiaren hego-ekialdeko ertzean zegoen toki batean, **non** baitzegoen estepa hiri inperial berritik hurbilen. **Iñaki Mendiguren**

Azken hau mendi batean zegoen, **non** pilotan luzean aritzen baitziren artzainak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Urre-antzeko bordatuz egindako zaldi-estalkiaren gainean, **non** letra berdez eta puntu gorri biziz idatzita danderine irakur baitzitezkeen. **Iñigo Aranbarri**

Harkaitz hartatik aurrera, **non** hasten baita Ozeanoko itsasbateria, ez zen ezer ezagutzen, Artemidorok eta Eratostenesek irakasten digutenez. **Iñaki Iñurrieta**
Indietarako asmatan zegoen etxejaun bati etxea eta lurra erosi zizkieten arte, **non** habia berria moldatu baitzuten, Lapurdi eta Nafarroa Behereko mugan. **Joan Mari Irigoien**

Lucy haren aurrean gelditu zen eta papertxo bat atera zuen poltsatik, **non** helbide bat baitzeraman idatzirik. **Joxemari Iturralde**

Eihera errekan zegoen eta handik goiti, errepideraino badira harresi edo zutoin batzu, **non** egona baita delako burdinezko tuio handia. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Azken honek egin du kapitulu berezia fraideei buruz **non** aipatzen baita aspaldiko errana: [...]. **Piarres Xarriton**

Feminista zirikatzailer baten artikulu zirikatzailer bat ere bazekarren, **non** ustezko bortxatzaileentzako zigorrak bidezko eta eredugarrienaz zuhurki bezain sakonki gogoetatzeko baitzen. **Iñaki Segurola**

Bakoitza bere lanbideari atxiki behar zaiola eta bere seme-alabei pasarazi behar diela agintzen duten legeak ezin dira onak izan estatu despotikoetan baizik, **non** inork ez baitauka eredu erakargarrikeri izaterik. **Iñaki Iñurrieta**

Filosofiarren mende honetan hain zuzen, **non** argiek, orotarik barreiatuak, bihurtu baitituzte gizon guztiak arras prestuak eta emakume guztiak arras apalak eta begiratuak, batbederak dakien bezala. **Jon Muñoz**

Hortik aurrera etxeetako teilatuak, mailakatuak, ur nabarreraino, uherreraino jaitsiz, **non**, itsasontzi bat arin pasatzen denean, arrasto txuri iheskorra irekitzen baita. **Jon Alonso**

Ni azpiko naukan estatuak asmatu duen ekuazio juridiko-metafisikoa, zeinaren arabera x-ren ingurua=x (**non** x eskuarki hemengo ez-legezko kuadrilla armatua baita). **Iñaki Segurola**

· Une bat iritsi zen **non** ikasleek eskaileran geratu behar izan baitzuten aurrera ezin eginik. **Joxemari Iturralde**

1a (toki perpaus bat txertatzen, dagokion aditzak -n atzizkia hartzen duela)

Baita Obabako plazan zegoen ostatura ere, **non** Ubanbe, Opin, Pantxo eta zerrategiko langile gehienak biltzen ziren. **Bernardo Atxaga**

Erreka baten gisa amildu zen nafta lurrazaleko maldetan aurrera ibaiaren uretaraino, **non** gainazalean geratu zen bere dentsitatearengatik. **Karlos Zabala**

Maimonen *Mi-neh Torah* lorategi botaniko bat da, **non** dena dagoen irakurlearen beharrezan beti kontuan hartuta ordenaturik, saikaturik, neurtuta eta pisatuta, izendaturik eta aurkezturik. **Xabier Kintana**

Hala gertatzen da, kasu, Liébanako Beatoaren ilustratzaileak egindako mapan, **non** Egiptok edo juduen herriak Asiak baino toki handiagoa hartzen duten. **Bernardo Atxaga**

Agian badaude munduak **non** Greta bezalako izakiak robotak diren. **Askoren artean**

Otxandioko erasoan, **non** hiru gizonetik bi galdu zituzten, nora ezean, Urkiolan azaldu ziren. **Ramon Saizarbitoria**

Nola Kristo gure Jauna jaitsi zen bere hamaika ikasleekin Sion menditik, **non** afaria egin zuen, Josafat ibarrentz, ibarreko alde batean zortzi eta baratzeko beste hirurak utzirik. espiritu errepublikarren haizeak ez du bakarrik nazioko plazetan eta batzarretan joko, baita etxe barruetan ere, **non** gizonen zorion eta miserien parterik handiena dagoen. **Patxi Altuna**

1938an, alemaniar tropak Austrian sartzean, Viena utzi eta Tel Avivera joan zen, **non** idazki gehiago egin zituen, besteak beste *Nachts unter der steinernen Brücke*. **Anton Garikano**

-Europa bat nahi dugu **non** ez den onartuko, neurri prebentibo gisa, herri bat indarrez hartu eta milaka pertsona hiltzea Iraken bezala. **Berria - Euskal Herria**

Bigarren gutun multzoa aurkitua nuen orduantxe, eta hirugarrena topatu berri-berria nuen, **non** nire bizkarraren kontra egindako hasperen handi samin batek jauzi ero bat eragiten didan. **Josu Zabaleta**

Ustelkeria moralak jotako gizartea aurkezteko digu, **non** Frantzisko ere guztiz murgildua bizi den. **Askoren artean**

Jena, Austerlitz, Wagram, **non** bala batek ezkerreko hankatik utzi zuen betiko herren. **Felipe Juaristi**

1891, *L'argent*, burtsaren ingurukoak; 1892an, *La Débâcle*, **non** Sedango porrota, inperioaren amaiera, Hirugarren Errepublikaren aldarrikatzea, Parisko setioa, Komuna eta haren kontrako errepresioa kontatzen diren. **Karlos Zabala**

Agian orrialde hauek guztiak jolas bat baino ez dira, jolas existentsial bat, **non** batek ez baitu euskarririk aurkitzen inon. **Karlos Linazasoro**

Berak ez du aurkitu nahi puntu enigmatiko bat, **non** indibidualak eta sozialak bata bestea ordezkatzeko duten. **Xabier Arregi**

· Are interesgarriagoa da zientzia aztertzea aurretiaz kokaturiko une batean, **non** mundu ikuskera bat eratzen den, horren baitan ezarritako zelakoa den egin daitekeen zientzia eta zelakoa ez. **Askoren artean**

2 auskalo non

Senarrak ez zuen deus ere egiten, **auskalo non** pasatzen zituen egunak, auskalo nondik ateratzen zuen bizimodua. **Karlos Zabala**

Tabernara itzul nintekeen, baina **auskalo non** egongo zen agurea. **Anjel Lertxundi**

Alua gori-gori nuen eta burua **auskalo non**, pentsatzeari utzita baitzegoen. **Juan Martín Elexpuru**

Arrantzale-herri batean jaio zen, Massachusettsen, Mainen, edo **auskalo non**, eta txirlek izu-ikara ematen zioten, amesgaiztoak izaten zituen haiek. **Karlos Zabala**

Han zegoen zutik, zerura begira, zabor poltsa bat - **auskalo non** jaso- eskuartean zuelarik. **Jose txo Azkona**

Auskalo non, auskalo noiz, tximista bezala. **Juan Garzia**

2a halako eran non (24 agerraldi 15 liburutan)

Bi herrialdeen arteko infrazio- aldeek badute joera bat truke-tasen alde biko mugimendu simetriko batek oreka ditzaten, **halako eran non** truke-tasa erreala aldatu gabe jarraituko baitu. **Koro Navarro**

-A, te bat behintzat hartuko duzu -esan zuen Anniek, aulkiak mahaitik apartatuz, **halako eran non** inor ezin baitzen mugitu, eta hantxe geratu zen Williams andrea setiatua, bere bular, eraztun eta poltsarekin. **Koro Navarro**

Aire lehorrer eta garbiari diridaia zerion eta gauza guztiei esmalte fin eta leuna ematen zien aire hark, **halako eran non** ostertzean ageri zen guzti-guztiak akuarela edertua ematen baitzuen. **Ander Irizar**

Bera da gainerako guztiaren berme nagusia, eta gainerako osagarri formalak zehazten ditu, **halako eran non** osagarri horiek bera gabe osagai birtual batzuk baino ez baitira... **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

3 halako eran ... non

Baina, gure izateak berezko badu ere etengabe etorkizunera begiratzea, **halako eran** antolatutako dago sistema, **non** gure igarpenak ziurgabeak baitira ezinbestean. **Juan Garzia**

Martinek ezkaratzera itzuli nahi izan zuen ostera ere, baina atsoak **halako eran** ipini zuen argioztia, **non** eskaileraren hasiera argitzen baitzuen. **Koro Navarro**

Zenbaitetan, oldarrean ekiten nion buru hari, **halako eran** uzten nitzion biloak **non** maitasun gau ero bat iragoa zela baitzirudien. **Joxan Elozei**

4 halako gisaz non (35 agerraldi 8 liburutan)

Gogobeterik bizi dituk, **halako gisaz non** ez baitute elkarren beharrik izaten ez eta Jaungoikoarenik ere. Gaiza kreatu guztientzako ezaxolak izan behar dugu, gure hautamenaren aukera libreari zilegi eta debekatua ez zaion guztian; **halako gisaz non** geure aldetik ez dezagun izan nahiago osasuna eritasuna baino, aberastasuna pobrezia baino, ohorea desohorea baino, [...]. **Eskarne Mujika**

Pezaka kentzen zizkieten bere soineko guztiak eta erlikiatzat eramaten, **halako gisaz non** kasik biluzik utzi baitzuten gaixo gizon saildua. **Piarres Xarriton**

Gutunaren azala prestatzen ari zelarik, Tourvel andrea nahasturak jo zuen berriz: **halako gisaz non** neska horrek ez baitzuen jakin gutuna nori igorri. **Jon Muñoz**

Eta izaten diren gauza guztiak Jainkoa baitan dira izaten eta Jainkoari loturik daude **halako gisaz**, **non** Hura gabe ez baitira ez izaten ez pentsatzen ahal. **Piarres Xarriton**

5 halako gisaz ... non

Halako gisaz eginak garelara izaeraz, **non** errazki sinesten baitugu itxaroten dugun hartan, nekez ordea beldur garen hartan. **Piarres Xarriton**

Iragan urte haietan bizi eta ikusitako guztiak **halako gisaz** zaildu zuten **non** jadanik ia ezerk ezin baitzezakkeen aztoratu, larritu edo beldurtu gehiago. **Xabier Montoia**

Ikusten dugu, bada, gehienetan, gizakien izaera **halako gisaz** egina dela, **non** gauzak gaizki doazkienak gupidesten baitituzte eta ongi doazkienak bekaizten. hari esker baitzuten gurari sensitibo guztiak sinesten arrazoiari, eta arrazoiak, berriz, Jainkoari, **halako gisaz** lotuak zirelarik **non** ez baitziren haizu delako gurariak arrazoiaren aurka jartzazera, ez eta arrazoiak Jainkoari desobeditzera ere. **Piarres Xarriton**

6 halako manieraz non (agerraldi 1 liburu 1ean)

Nahi du eraspena kendu, baina nahi du kendu beretu duen gauzarekin geldituz, **halako manieraz non** Jainkoa etor dakion berak nahi duen tokira. **Patxi Altuna**

7 non edo han (25 agerraldi, 20 liburutan) non edo non.

Non edo han, ume bat, lotatik bat-batean aterata, oihuka hasi zen. **Matías Múgica**

Non edo han entzunda dakit, azken hipotesia zera dela: gizaki guztiak familia edo leinu bakar baten ondorengo ote garen. **Joxerra Garzia**

Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor gelditzen da. **Eiizen arteko biblia**

Goiko pisuan hiru miliziano ikusi genituen, **non edo han** bahituran hartutako xanpaina-botila baten muturretik txandaka edaten eta zigarro erretzen jo eta su. **Inazio Mujika Iraola**

Egunero ibiltzen naiz bazterrik bazter, eta ez dut izanen egunik, **non edo han** otearekin topo egin gabekorik. **Patziku Perurena**

RENFE-n lan egiten zuen [aitak], eta familia **non edo han** kokatu orduko, beste norabait bidaltzen zuten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Alabaina, agian etxeratu ezinik zabilek **non edo han**, jainkoek oztopaturik. **Juan Kruz Igerabide**

Hemen egon edo beste **non-edo-han** egon, zer inporta ote dio? **Jesus Mari Mendizabal**

Erabat sinetsita egongo baitzen Charlie han goian zegoela, zeru urdinean, eliza-dorrearen gaindik, **non edo han**. **Mirentxu Larrañaga**

8 non edo non (51 agerraldi, 13 liburu eta 5 artikulutan) tokiren batean. ik nonbait.

Non edo non, pauso-hotsak entzuten dira. **Oskar Arana**

Non edo non ikusita zeneukala haren aurpegi erdibitu beldurgarria. **Hasier Etxeberria**

Inoiz **non edo non** ikusia gogora ekarri nahi, eta ezin. **Iñigo Aranbarri**

-Alkateak dauka **non edo non** gordeta -bota zidan. **Edorta Jimenez**

Gizakiari beharrezkoa baitzaio itxaropena **non edo non** jartzea, bizitzari balioa itzuliko dion zer edo zer [...] kafera, zigarroetara eta billete berrietara zaletu zen. **Patxi Zubizarreta**

Entzun ahal dut oraindik ere, zalapartaka **non edo non**, belar ondu metatuaren azpian. **Mirentxu Larrañaga**

Reno oso txikia denez, ezinezkoa da han bizi diren bi lagunek elkarrekin **non edo non** topo ez egitea. **Berria - Kultura**

Haize hura, konpresore erraldoia piztua zuen baten batek **non edo non** eta arropa guztietako hautsa kendu behar zuen. **Koldo Izagirre**

Beste horrenbeste gertatzen ariko da mundu zabalean zehar, **non edo non**, une honetan. **Mirentxu Larrañaga**

Haren aburuz, hilerrian egon behar zuen **non edo non**. **Mirentxu Larrañaga**

Farlopa apur bat ere geratu behar zait **non edo non**. **Sonia Gonzalez**

9 non edo nondik

Ijito hori ere etorriko da **non edo nondik**. **Urtzi Urrutikoetxea**

Berria-n bertan egindako ahaleginak begi-bistakoak diren arren, beti dago **non edo nondik** sartzen zaigun aleren bat. **Iñigo Aranbarri**

Non edo nondik, ordea, frankotiratzailak tiroka jarraitzen zuen. **Pako Aristi**

Afrika izanik pizti basatien eta, bereziki, sugeen ama eta hazi-tokia, hirigotor horren lurretan ez da honelakorik batere sortzen, eta beste **non edo nondik** ekarrita leku horretan bakarren bat uzten denean ere, berehala hiltzen da. **Santiago Iruretagoiena**

10 non ere (39 agerraldi, 15 liburu eta 5 artikulutan) (toki perpaus bat txertatzen)

Gela bakartu batera heldu ziren, **non ere** zaintzaileetako bat jaun batzuentzat botilak irekitzen ari baitzen. **Irene Aldasoro**

Goizaldeko aire sarkorra sartzen zen atarira, **non ere** baitzeuden zutik. **Irene Aldasoro**

Tropa liberalak jarriko dira Pirinioetako bi muturretan, **non ere** mendiak beherago baitira eta iragan errexagoak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Haren aurpegiak, **non ere** biltzen baitzen Duffy jaunaren egunen kondaira osoa, Dublingo kaleen tindu beltzarana zuen. **Irene Aldasoro**

Deliberatu zuen, egun batez, Izpegiko errekarra joan zela, **non ere** gerezi ondok erori baitzen Xanti. **Michel Oronoz**

Non ere zegoen Carolina-Carolina, ingelesa zen han hitz egiten zen hizkuntza bakarra. **Oskar Arana**

Non ere ginen, beti izaten zuten Ghoete Institutuak beraien-beregi prestatuturiko zerbait. **Edorta Jimenez**

11 **non ez den** (54 agerraldi, 19 liburu eta 8 artikulutan) ez bada.

Nehor ez da besteen bertuteaz bekaizten, **non ez den** bere heineko batenaz. **Piarres Xarriton**

Jendeek diotenaz, hor sartuz geroz nehor ez omen da ateratzen ahal, **non ez den** kordez estekatzen. nehor ez ditu euskaraz mintzatetik trabatzen, **non ez den** beren baitako ezjakintzak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Ez zin egin, ez Egileagatik, ez sorkariagatik, **non ez den** egiaz, beharrez eta begirunez. **Patxi Altuna**

Jainkoaren legeen ala gizalegeen arabera errana da, bere arteziaren eta zuzentasun propioarengatik nornahiri ematen zaion egitekoa ez zaiola beste bati emanen egitera, **non ez den** horrentzat zerbait arrazoi zuzen izaten. **Piarres Xarriton**

Ez dut gehiagorik galdutzen, **non ez den** gure adiskidantzak iraun dezan sekula betiko. **Jon Muñoz**

Mugimendu nagi batean dabil maiz ibiltaria, **non ez den** kirolari ments eta masokista horietarik. **Piarres Aintziart**

Agerrek ez du inoiz esku artean izan bere hizkuntzan idatzitako fitsik, **non ez den** bere eskuak moldatua. **Aingeru Epaltza**

Kondizio batekin, osasuna ez dadila honda, ez eta sor garrantzizko gaitzik, ez eta loari komeni zaiona ken, **non ez den** erdira ekartzeko gehiegi egiteko duen ohitura txarra. **Patxi Altuna**

Gauzen Naturan ez da neholako gauza singularrik aurkitzen, **non ez den** hura baino beste ahaltsuago eta indartsuago bat izaten. **Piarres Xarriton**

Ekonomiaren aldetik badirudi, oro har, munduko merkatu handiaren barnean, jakin dutela gure ordezkariak herriaren maila zaintzen, **non ez den** altxatzen. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo non (48); **badakizu non dagoen** (9); **baina hara non** (24); **baina horra non** (13); **eta hara non** (124); **eta hona non** (32); **eta horra non** (80); **finala non jokatu** (9); **hainbeste non** (15); **hainbestearaino non** (28); **hainbestetaraino non** (10); **halako eran non** (19); **halako gisaz non** (24); **halako moduan non** (13); **halako moldez non** (107); **halatan non** (10); **han non** (23); **hara non** (277); **hona non** (102); **hor non** (37) horra non (198); **horra non datorren** (10); **huna non** (13); **noiz eta non** (36); **nola eta non** (14)

non arraio (29); **non auzalten den** (9); **non baitzirudien ezen** (9); **non bizi da** (15); **non bizi den** (25); **non bizi haiz** (9); **non bizi zara** (18); **non bizi zen** (29); **non da** (241); **non dabilen** (22); **non dago** (363); **non dagoen jakin** (11); **non datorren** (20); **non daude** (89); **non dauden** (105); **non daukan** (10); **non deabru** (10); **non demontre** (17); **non den** (86); **non dira** (90); **non diren** (29); **non dituk** (12); **non du** (10); **non duen** (18); **non duk** (19); **non duten** (9); **non duzu** (18)

non edo (95); **non edo han** (25); **non edo non** (51); **non egingo den** (9); **non egon daiteke** (11); **non egongo da** (9); **non ere** (37); **non eta** (390); **non eta ez** (57); **non eta noiz** (41); **non eta nola** (62); **non eta zertan** (9); **non ez bainuen** (11); **non ez baita** (19); **non ez baitago** (10); **non ez baitzen** (20); **non ez baitzuen** (19); **non ez den** (55); **non ez diren** (10); **non ez duen** (23); **non ez duten** (10); **non ez zen** (12); **non gaude** (13); **non gauden** (31); **non geunden** (12); **non hago** (16); **non hasten den** (14)

non ibili haiz (10); **non ibili zara** (12); **non ikusten dudana** (25); **non ikusten duen** (12); **non ikusten dugun** (11); **non jokatu den** (15); **non nago** (22); **non nagoen** (31); **non nahi** (118); **non nahitik** (12); **non nongoen** (30); **non nintzen** (17)

non ote da (21); **non ote dabil** (10); **non ote dago** (9); **non ote zegoen** (21); **non ote zen** (21); **non ote zeuden** (13); **non sartu haiz** (11); **non sartu zara** (9)

non zagok (9); **non zaude** (26); **non zauden** (18); **non zebilen** (9); **non zegoen** (245); **non zegoen galdetu** (13); **non zegoen jakin** (9); **non zegok** (9); **non zen** (71); **non zer** (25); **non zeuden** (69); **non zeukan** (14); **non ziren** (30); **non zuen** (11)

orain non (19); **planta non jarri** (12)

non-nahi ik nonahi.

nona iz orduen liturgian, primaren ondoan errezatzen den otoitza.

Laikoek, berriz, esan biztate hogeita lau Gure Aita maitinen orde; gorespeneen orde bost; prima, tertzia, sexta eta **nona**, bakoitzaren orde zazpi; bezperen orde hamabi, eta konpletaren orde zazpi. **Askoren artean**

Ezer sentitzen ez zuela egon zen, begiak kliskatu gabe tinko begiratuz, **nona** ordura arte. **Askoren artean**

Nona ondoren bere senera etorri zen eta komentuan zehar oihuka hasi zen harridurazko ahotsez: [...]. **Askoren artean**

nonahi (798 agerraldi, 183 liburu eta 116 artikulutan; orobat non-nahi 147 agerraldi, 38 liburu eta 46 artikulutan, nonnahi g.er., nun nahi 134 agerraldi, 4 liburu eta 126 artikulutan –gutziak Herriakoak-, nunnahi g.er. eta nunahi g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegia nonahi eta non-nahi agertzen dira) 1 adlag edozein tokitan. ik edonon; nahinon.

Eta **nonahi**, noiznahi eta nolanahi izanik ere, norbait bekatu larrian hiltzen bada, damurik gabe eta ordaina bete gabe [...] deabruak harrapatzen dio arima gorputzetik.

Askoren artean

Nekazaria da hemen eta **nonahi** lurretik gertuena bizi den giza klasea. **Iñaki Segurola**

Jendea, **non-nahi** eta beti, pena eta dolorez. **Daniel Landart**

Ez nolanhika **non-nahi** eta nornahirekin ibiltzen diren itsusi horietarik. **Janbattitt Dirassar**

Oсотara bere buruaren jabe den arte bakarra, hitza da: **nonahi** eta betiko den jainko ahalguztidun hori, hitz haragitu hori. **Patzi Perurena**

Nonahi egon daiteke, edo inon ez. **Bernardo Atxaga**

Nonahi aurkitzen ditugu halako adibideak. **Iñaki Arranz**

Nonahi dela, poz argitsu bat alaiki eta bizkor igaroko da gure bizitza bilbatzen duten atsekabe ugarien artean. **Jose Morales**

Nornahi eta **nonahi** zela ere, kontent egoten ahal zen bere arrakastaz. **Aingeru Epaltza**

Beste **nonahi**, barre baino ez zukeen eginen. **Koldo Izagirre**

Ura bada **non nahi** hemen eta, plazer hutsez, herrian sartu aitzin, edan dut aska betetzen duen uretik. **Piarres Aintziart**

Pitagoras, **nonahi** zenbakiak ikusten zituen gizona. **Jon Muñoz**

Euriak ia ezabaturiko horma-irudiak ikus zitezkeen **nonahi**: hemen, botak eta zortzi-itxurako opilak zeuzkaten pintaturik; hor, berriz, galtza urdinak Arshoviako jostun baten sinaduraren alboan; han, [...]. **Jose Morales**

Etxarte eta kalezuloetan istiluak eta kalapitak atzematen ziren **nonahi**, iluntzeko ordu horietan halaxe gertatzen baita beti soldadu, kotxezain eta langile asko dagoen hiri guztietan. **Jose Morales**

Abegi ona intsentsuaren usaina bezala **nonahi** sumatuko duzu. **Gotzon Garate**

Haren lanak [...] orain **non-nahi** aurki daitezke frantsesez itzulirik. **Piarres Xarriton**

Burdinsareak zeuden **nonahi**. **Pello Lizarralde**

Zaborra **nonahi**, auto puskatuak bazterrean. **Gotzon Garate**

Balea hilen zatiak **nonahi** urgainean. **Joseba Sarrionandia**

Elurra eta izotza **nonahi**, eta lera aise eta agudo doa aurrera irristan. **Karlos Zabala**

Izotz gogorra, bide zabala, lur irmoa **nonahi**! **Karlos Zabala**

Tximeletak borborka **nonahi**. **Joxe Austin Arrieta**

Era guztietako produktuen fabrikak ere badira **nonahi**. **Jon Muñoz**

2 nonahiko (orobat non-nahiko) izlag edozein tokitako.

Zenbat-eta gutxiago jakin, errazago hitz egiten da **nonahiko** errealitateaz, eta zernahiren errealitateaz, hala fisikan nola politikan eta bizitzan. **Iñaki Segurola**

Muga horiek zedarrizatzerakoan sortzen dira **nonahiko** eta nolanahiko oztopoak. **Andres Urrutia**

Idazle handiak beti izango dira indarrez, ez beren famaren indarrez, ezpada beren lanaren merituz: haien obretan geure kezken oihartzuna eta -batzuetan- galderen erantzuna aurkitzen baitugu noiznahiko eta **nonahiko** irakurleok. Xabier Mendiguren Elizegi

Greziarrek ez dutela ausardiarik etsaien aurka ekiteko, eta hartarako **nonahiko** mertzenarioak hartzen dituztela "barbaro" deituz. Patziku Perurena

Erraz esaten da, badakit, baina gizaseme **nonahiko** batek diziplinatua izan behar gu, gutziiz militarra. Karlos Linazasoro

Garai hauetako eta mendebalde aberatseko ezaugarria da (ez **nonahiko** eta noiznahikoa). Berria - Kultura

Gainera, teknokrata=burokratek, Pauekoek, nahiz **nonahikoek**, ezjakin supinoek izaten dira gehienetan. Herria

Eta bidaiari guztiek, fedea zeinahi zutela ere, **nonahikoak** zirela ere, diru pixka bat uzten zuten, gutxi edo asko, haritzaren pean. Fernando Rey

Lan haren alde txarrak bistakoak ziren, hain **nonahikoak**, hain abailgarriak, ezen, haiek ez aintzat hartzeke moduren bat aurkitu ezean, kondenatuta zeunden bizimodu garratz eta kexu amaigabeko batera. Oskar Arana

Enuntziatua bere figura guztiak baino finagoa bailitzan, determinazio gutxiagorekin, egitura ez hain indartsuarekin, **nonahikoagoa**. Xabier Arregi

· Eta beraz, gure prelatu auzipetua, ez **nonahiko** Artzapezpikua delarik, baina Toledokoa, Espainietako primatua eta Eliza Katolikoaren hain printze handia, bi epaile soilen esku uzten da. Piarres Xarriton

3 **nonahira** izlag edozein tokitara.

Argi hori **nonahira** zabalduko da barnealdean, beste gauza asko ikusteko, jainkozko diruditen gauzak eta gero hala ez direnak. Joan Mari Lekuona

Matematikak, izan ere, **nonahira** eramaten zaitu! Jon Muñoz

Hortaz, **nonahira** eta alde guztietara ari zarete. Xabier Montoia

4 **nonahitik** (*28 agerraldi*, *18 liburu eta 2 artikulutan*; orobat *non-nahitik 12 agerraldi*, *7 liburu eta 4 artikulutan*) *adlag* edozein tokitatik. ik **nondik 7**.

Nonahitik gatoz, noranahi goaz. Patziku Perurena

Nonahitik gainez egiten dik denak! Jon Muñoz

Guhaurek ere **non-nahitik** jin apezan ezagutza egiten genuen. Marzel Etxehandi

Idazlanak [...] **nonahitik** zetozen: Bizantziotik zein Alexandriatik, Pergamotik zein Sirakusatik, Antiokiatik zein Jerusalemdik. Jon Muñoz

Kultura eta Zientzia Jauregiko dorrea **nonahitik** ikusten da, eraikin guztien artetik nabarmenduta. Berria - Mundua

Jendea ez zen itzultzen joandako lekutik: landaldetik, mendialdetik, itsasaldetik, **nonahitik**; jendea ez zen Parisera itzultzen, besterik gabe. Jon Muñoz

Gero, galdera-zaparrada **nonahitik**. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ageri dira nonahi (4); **ageri ziren nonahi** (3); **arrastoak nonahi** (4); **bertze nonahi** (3); **beste nonahi** (5); **beti eta nonahi** (12); **daude nonahi** (6); **entzuten ziren nonahi** (3); **hasi zen nonahi** (3); **ikus zitezkeen nonahi** (7); **noiznahi eta nonahi** (12)

nonahi ageri (21); **nonahi ageri dira** (5); **nonahi ageri ziren** (10); **nonahi agertu** (3); **nonahi agertzen** (4); **nonahi aurki daitezke** (6); **nonahi aurkitzen** (8); **nonahi bizi** (5); **nonahi daude** (6); **nonahi dela** (5); **nonahi den** (6); **nonahi dira** (5); **nonahi egon** (3); **nonahi entzun** (5); **nonahi entzuten** (10); **nonahi entzuten zen** (3); **nonahi erakusten** (3); **nonahi ere** (6); **nonahi eta beti** (7); **nonahi eta noiznahi** (16); **nonahi hartzen** (3); **nonahi ikus** (6); **nonahi ikus zitezkeen** (3); **nonahi ikusi** (5); **nonahi ikusiko** (3); **nonahi ikusten** (15); **nonahi ikusten dira** (3); **nonahi ikusten ziren** (3); **nonahi sumatzen** (3); **nonahi zabaldu** (4); **nonahi zela ere** (3)

nonahikotasun

iz nonahikoa denaren, nonahi dagoenaren nolakotasuna.

Ulertzekoa da, noski, **nonahikotasunari** dohain zoragarri iriztea, neuk ere, lagunak aitortpena egin zidanean, halaxe iritzi bainion. Karlos Linazasoro

Nonahikotasunaren eta putzu agorren antzeko desira bat, maldiziotik asko zeukana, birritzeko irrikatik, teatro izugarrikotik; goseak errinzero azalpean bezala su hartzen zuen desira bat. Eider Rodriguez

Errabino asko higikunde honen kontra agertu zen, hasidismoak Jainkoarekiko komunikazio intimoa eta katartikoa proposatzen baitu, Haren **nonahikotasunak** unibertsoa osorik hartzen duelako ideian oinarrituta. Koro Navarro

Horri gehitu beharko litzaioke mehatxuaren **nonahikotasun** ikusezin horrek ahalbidetzen duela nortasunari buruz etengabe galderak egitea norbere buruari. Berria - Mundua

nonahitar

iz nonahi sortua.

Kamioizaleak ikusi nituen han-hemenka, taldeka, nazioarteko garraiolariek hain berea duten keinu-hizkera **nonahitarrean** solasean, egoeraren nondik norakoak aztertzen.

Anjel Lertxundi

nonahitasun

iz nonahi izateko nolakotasuna.

Berrikiago **nonahitasuna** ez da beti ongi ulertu... ez Sir Boyle Rochek berak ere, adibidez, hark defendatzen baitzuen gizon bat ez daitekeela aldi berean bi lekutan egon, txoria izan ezean. Xabier Olarra

nonahitasunzale

iz nonahitasunaren zalea.

Luterano zenbaiti, Kristoren gorputza nonahi zegoela baitzioten, **Nonahitasunzaleak** esaten zitzaien. Xabier Olarra

nonahitsu

adlag gutxi gorabehera nonahi.

Modernitateari muzin egiten dion, edo muzin hobe modernitateak berari egiten dion Euskal Herri hori, Euskadi negatiboa (edo "Espainia beltza") **nonahitsu** dago hemen presente: gerrak utzitako kedarrak eta hondakinak han-hemen, ikusten diren etxeetako txirotasuna Koldo Izagirre

nonbait

(*orobat nunbait g.er. nunbeit g.er. eta nonbeit g.er.*) *1 adlag* tokiren batean. ik beherago **4**.

Nonbait nago, norbaiten zain, zerbait egin beharrean. Pako Aristi

Elizako zoko guztietara begira ibili ginen **nonbait** azaltzen ote zinen. Bernardo Atxaga

Nonbait azaldu diren paper berriak ere harraskan erre. Harkaitz Cano

Nonbait apaizen bat aurkitzen zutenean, pobrea nahiz aberatsa, burua makurtuz agurtzen zuten. Askoren artean

Ez zegoen lore lurrik, **nonbait** erretzen ari ziren laharren ke sarkorak garbitu zion barrena. Koldo Izagirre

Nik berriz, gure gixonkasta ohoratzen eta bere goien graduraino goititzen duen ezaugarritzat jotzen dut pitoarekin pentsatze hori, eta akatsik **nonbait** egotekotan. Iñaki Seguro

Domenga isilik zegoen, begiak **nonbait** galdurik. Elena Touyarou

Ahots hura aditu eta Mikel Strogoffek **nonbait** entzuna zuela pentsatu zuen bere artean. Karlos Zabala

Bonantzako petritetik murgil egiten ari ginen, hotza oraindik, ikusgarri hura sartu zenean bokalean barrena, zilarrezko pinu handia -hau **nonbait** irakurria naizela uste dut-

zekarrela atoian. [Koldo Izagirre](#)

Elkarrizketa denboran, ez zituen bakarrik ustez memorioan [nonbait](#) zokoratuak zeuzkan oroitzenak berritu. [Elena Touyarou](#)

Etengabeko arrazoiketa eroak [nonbait](#) pausatu behar, [nonbait](#) etsi behar, eta horra pentsatzeari eta pentsamenduari etsi bat eman, etsipena eman: "hauxe eta kito".

[Iñaki Seguro](#)

Gordeleku hartan ez eta beste [nonbait](#) ezkutatu ote nintekeen galdetu nion orduan neure buruari. [Bernardo Atxaga](#)

Buruu beste [nonbait](#) zuen, begiak goiti itzuliak, zeruari so ala nik dakita zeri. [Janbattiti Dirassar](#)

2 dirudienez, antza denez.

[-Nonbait](#), esaten dizudan ezerk ez ditu axolarik -esan zuen mutilak-. [Mirentxu Larrañaga](#)

Eta taldean dagoeneko egonezin gisako bat zabaldu da eta, [nonbait](#), denak desiratzen daude epaiketari ekiteko; denak, ustez, ni salbu. [Patxi Zubizarreta](#)

Maite dugu mina, hala dirudi, baina ez [nonbait](#) edozein min klase. [Iñaki Seguro](#)

Bestetan baino operazio handiagoa egingo diote, [nonbait](#), eta medikuek esan omen dute gutxi mugitu behar duela ondoren. [Bernardo Atxaga](#)

Ez zieten [nonbait](#) milizianoek moja zaharrei ezer txarrik egin; txikioak bai ugari, baina mojei ezer ez. [Inazio Mujika Iraola](#)

Berdin zitzaion, [nonbait](#), lehen ala bigarren otordua. [Joxe Austin Arrieta](#)

Berak, ordea, "liluragarri" hitzari aski egoki irizten ez, [nonbait](#), halako erliebe batentzat. [Joxe Austin Arrieta](#)

Baldintza gehitxo, [nonbait](#), denbora laburrean aurkitzeko. [Migel Angel Mintegi](#)

Eta hori ez da komeni [nonbait](#), eta horixe da dena. [Iñaki Seguro](#)

Aurreneko bisitaldia omen zuen Estatu Batuetara, nik bai igarri, baina hala ere jadanik erabat finkatua, [nonbait](#), amerikarrei buruzko bere iritzia. [Joxe Austin Arrieta](#)

Eta radarra ere ez zebilen, [nonbait](#), behar bezala. [Jon Muñoz](#)

Haren anaia batek, bertan bizitzen dagoeneko hilabeteak zeramatzanak, nekez jasaten omen zuen klima, [nonbait](#). [Joxe Austin Arrieta](#)

Arkakusoak zituen [nonbait](#) koltxoak. [Harkaitz Cano](#)

Etorkezunik ez, [nonbait](#), Amerikak. [Joxe Austin Arrieta](#)

Florentek ez zion entzun, [nonbait](#). [Karlos Zabala](#)

Bere kasa ohitutako baserritarra [nonbait](#) ... [Pello Zabala](#)

Ez, [nonbait](#). [Migel Angel Mintegi](#)

• 3 *nonbait*eko izlag tokiren batekoa.

[Nonbait](#)eko mahai batean eseri ziren. [Lopez de Arana](#)

[Nonbait](#)eko erlojuak gaueko hamarrak jo zituen. Arrola, Izpegi, Arieta ez dira beste [nonbait](#)eko izenak, tokiak. [Aitor Arana](#)

[Nonbait](#)eko minez baitzegoen beti, buruko minez gehienetan. [Ramon Saizarbitoria](#)

Inguruko hilketen aurrean isilik geratzen den jende berori, segur naiz asaldatu egingo litzatekeela hildako beroriek heriotza zigorrera kondenatu eta fusilatu izan balituzte

[nonbait](#)eko tribunalen batean. [Hasier Etxeberria](#)

Jatorrizko estaldura hartan [nonbait](#)eko armarrria ikus zitekeen. [Edorta Jimenez](#)

Idazle bakoitzaren atzean, gizona ezkututzen omen da, hezur-haragiz-koa, [nonbait](#)eko. [Berria - Kultura](#)

Errusiara ez beste [nonbait](#)eko sentitzen zen. [Berria - Kultura](#)

Hizkuntz politika baten aitzinean gara eta horren arduradunak ez dira [nonbait](#)ekoak, baina bai gure herritarrak. [Herria](#)

[Nonbait](#)eko gaizki ikasia! [Janbattiti Dirassar](#)

• 4 *nonbait*en adlag nonbait, tokiren batean.

[Nonbait](#)en irakurri nuen Tuteran 1999n 2.300 zakur laga zituztela bertan behera. [Gotzon Garate](#)

[Nonbait](#)en bada oraindik irratia berantiarren bat, sinfoniekin-eta, baina itzali egiten dut. [Joxe Austin Arrieta](#)

Izaten dira ba [nonbait](#)en sartu edo nonbaitetik irteten direnean ateari danbatekoa eman behar izaten diotenak jendea beren existentziak jabe dadin? [Anjel Lertxundi](#)

Liebkind Bendelen hitzak gogoratu nituen, izan zitekeela [nonbait](#)en New Yorken Walden doktorearen benetako miresleren bat, egiatan maitatuko zuena. [Koro Navarro](#)

Kanpoan zen, Queens inguruan [nonbait](#)en. [Oskar Arana](#)

Amak beti esaten zion, barruan [nonbait](#)en izango zuela Koldorenganako maitasun amiñi bat. [Unai Iturriaga](#)

Zuen prozedurak, beste [nonbait](#)en beharbada baliagarriak izan daitezkeenak, hemen berehala aurkituko litzukete euren mugak. [Xabier Arregi](#)

-Kondoiren bat izango duk [nonbait](#)en. [Unai Iturriaga](#)

5 *nonbait*era (64 agerraldi, 27 liburu eta 14 artikulutan) adlag tokiren batera. ik *norabait*.

[-Nonbait](#)era joana hintzela uste nian. [Anton Garikano](#)

[-Nonbait](#)era joan nahi duzu edo...? -esan dut azkenean. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

[Nonbait](#)era eramango zaitut? [Lopez de Arana](#)

Ahoan eraman behar dugu nortasun agiria [nonbait](#)era mugitzeko; etengabe eskatzen digute. [Berria - Euskal Herria](#)

Azkenean, [nonbait](#)era behar-eta, ostatu hartu zuen Revelski kalekkan, eguneko errullo bat ordaindurik. [Jose Morales](#)

Ettxera itzuli eta bazkaldu orduko esan zigun [nonbait](#)era zihoala. [Joseba Sarrionandia](#)

-Zer, etxera hoa ala beste [nonbait](#)era joango gaituk? [Urtzi Urrutikoeetxea](#)

Harry herrialde hartako beste [nonbait](#)era joango zen bizitzera, eta negozio bat irekitzeko beste diru emango zion, baldin eta trukean zin egiten bazuen ez zela inoiz ere berritoki Chicagora itzuliko ez eta Bettearekin edo Florarekin harremanetan jarriko. [Oskar Arana](#)

Begiak beste [nonbait](#)era itzuliak ditu, ordea; gogoeta sakonetan murgilduta, lausotua du ikusmena. [Imanol Zurutuza](#)

Lehenago aurpegi gaztea [nonbait](#)era joana zen, eta haren lekuan aurpegi berria zeukan, ikaragarria, ilunpetik etorria. [Jose Morales](#)

6 *nonbait*erako adlag/izlag

Tren-txartelak Milanerako ote ziren edo beste [nonbaiterako, ez nago oso seguru. \[Anjel Lertxundi\]\(#\)](#)

Gazte eta zahar, jendetza etxe guztian, bata bestearen atzetik, [nonbaiterako zain bezala. \[Iñigo Aranbarri\]\(#\)](#)

Garai hartan, Turati behin gure etxera etorri zen, Turinen baitzegoen beste [nonbaiterako bidean. \[Fernando Rey\]\(#\)](#)

7 *nonbait*etik (164 agerraldi, 93 liburu eta 20 artikulutan) adlag tokiren batetik.

Goizero, bere astotxoa hartu, barazkiz eta esnez zamatu, eta [nonbaitetik Baionara etortzen zela erreparatu nuen. \[Txillardeggi\]\(#\)](#)

[Nonbaitetik, haize girotuaren asotsa heldu zitzaidan, baina hura ez zen aski nire trenpu txarra apaltzeko. \[Aingeru Epaltza\]\(#\)](#)

Izaten dira ba nonbaiten sartu edo [nonbaitetik irteten direnean ateari danbatekoa eman behar izaten diotenak jendea beren existentziak jabe dadin? \[Anjel Lertxundi\]\(#\)](#)

Emakume txiki bat atera zen [nonbaitetik, higatua, nahasia ematen zuen neska bat zekarrela. \[Koro Navarro\]\(#\)](#)

Josefinaren ahizpa bat berehala agertu zen [nonbaitetik, haurrez jabetzera. \[Aingeru Epaltza\]\(#\)](#)

-Trikota polita egiten ari zara -esan nion, [nonbaitetik hizketan hasi nahi eta. \[Hasier Etxeberria\]\(#\)](#)

Aurrezten [nonbaitetik hasi behar dugu... \[Berria - Harian\]\(#\)](#)

Aurki beranduegi izango zuen [nonbaitetik dirua ateratzeko. \[Irene Aldasoro\]\(#\)](#)

Gaua [nonbaitetik irten zen, isilik eta oin puntetan. \[Jon Muñoz\]\(#\)](#)

Gasolindegietan lapurretan egitea gustatzen zitzaion, bie, horrela autoz alde egitea askoz errazagoa eta arinagoa zelako hiri barruko [nonbaitetik baino. \[Sonia Gonzalez\]\(#\)](#)

Agian beste [nonbaitetik jo beharra zegoen. \[Iñaki Iñurrieta\]\(#\)](#)

Garunetik edo nerbio-sistemako beste [nonbaitetik seinale bat iristen zaienean uzkuzten dira gorputzeko muskuluak, bat izan ezik. \[Irene Aldasoro\]\(#\)](#)

Kea ateratzen zaio **nonbaitetik** . Pako Ariesti

Musika zetorren **nonbaitetik** . Iñaki Mendiguren

8 **nonbaitik** (71 agerraldi, 18 liburu eta 19 artikulutan) adlag tokiren batetik.

Nonbaitik jiniakakoe eta hemengoek talde ederra sortu dute. Herria

Nonbaitik hasi behar, hala ere -baiezta zuen Léak-, ezta, Ruhe jauna? Jon Muñoz

Iruditu zitzaidan, **nonbaitik**, biziki urrunetik nentorrela. Daniel Landart

-Elkar ezagutzen dugu **nonbaitik**, ez? -galdegin zion, arreta gehiagorekin behatuz. Elena Touyarou

Sosa behar zen **nonbaitik** atera! edo mozkinetatik, edo Estadauak xuhurki ixuri hartatik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Herri-kaxkora iristean eskuin-eskailera bat atera zuen **nonbaitik**, eta beraren kontra lotu ninduen soka lodi batez. Txillardeggi

Menturaz goizetik metatua dudan akidurak nahi baitu **nonbaitik** jalgi. Piarres Aintziart

9 **nonbaitik ere** nolabait, nola edo hala.

Nonbaitik ere, bazuen bizkitartean bere gisako arrangura tipi zerbait. Janbattitt Dirassar

Azken eskualduna **nonbaitik ere** emaztea zen. Itxaro Borda

Baina delako bi hilabete haietan, asteazken guziak eguzkitsu izan ziren, **nonbaitik ere** ! Janbattitt Dirassar

Titin irabazle, **nonbaitik** ere! Herria

10 **han nonbait** (56 agerraldi, 35 liburu eta 8 artikulutan)

Banoa Marsellako alderat, **han nonbait** esposatua den ene ahizpa bati buruz. Janbattitt Dirassar

Hortik ere sortu ziren izarño zenbait, han hemenka, **han nonbait**, Urdozoko aldean, Otikorenen, Garaziko aldean. Michel Oronoz

Basoan eta bidean bere presentzia sumatzen nuen, **han nonbait** zegoen, ziur, niri begira. Jon Maia

Baietz, egon behar zuela **han nonbait** jeepen bat ganoraz bilatuz gero, oilo-herririk hartan, alajaina, txabolaren baten atzean edo, kalabaza, banana eta arto-basarte hartan.

Joxe Austin Arrieta

Bai, badira; beren exkaxean, badira zerbait, ez hemen beharbada baina bai **han nonbait**. Iñaki Segurola

Eta hildako garbia **han nonbait** datza garbi-garbi eta zintzo: proiekturik gabe, helbururik gabe, etorkizunik gabe, gezur esentziaz galtzaratutako arterik eta bitarterik gabe.

Iñaki Segurola

Astiroago egin zuen pausoa, bere pentsamenduaren gakoa **han nonbait**, lurtean, bilatuko balu bezala. Ramon Saizarbitoria

11 **hemen nonbait** (16 agerraldi 13 liburutan)

Eguna argitzera doanean auto bat dator, gelditzen da hiru maisuak bota zituzten lekuan eta gizonetako batek dio: "**Hemen nonbait** egongo da". Bernardo Atxaga

Hemen nonbait egon behar zuan... Iban Zaldúa

Hemen nonbait, pentsatu zuen berak, behatzekin uretan arrastoa eginez, barku bat hondoratu zen. Anton Garikano

Bazen **hemen nonbait** telefono bat, ezta? Harkaitz Cano

Jokatuko nuke **hemen nonbait** badela liburu bat esaten duena nola igaro hiru buruko txakur erraldoi baten ondotik. Iñaki Mendiguren

12 **hor nonbait** (188 agerraldi, 87 liburu eta 24 artikulutan) adlag inguru horretan.

Uste dut Ben Bela **hor nonbait** bizi dela. Bernardo Atxaga

Bai, eguzkia **hor nonbait** dago, gandua arrasto arroxak dauzkan aldean edo. Bernardo Atxaga

Baina uxatutakoak ez ditugu gehiago eskuratuko: haiek galdu dira **hor nonbait**. Pello Zabala

Billete bat izanen duk **hor nonbait**, ezta? Aingeru Epaltza

-**Hor nonbait** behar du aireportuak -esan nuen nik. Joxe Austin Arrieta

Jo ezak *La Rochellera*, bila ezak Floren, **hor nonbait** ibili behar dik, basoan dik hark gordelekua, ezagutuko hau. Koldo Izagirre

Horiek ere ba omen dira, ez hemen beharbada, baina bai han edo **hor nonbait**. Iñaki Segurola

-Ez dugu ezer ere afalduko, **hor nonbait**? Txillardeggi

Santa Luzian hasten da arratsa luzatzen? **hor nonbait**. Pello Zabala

18 graduko latitudean, **hor nonbait**... Joxe Austin Arrieta

Hogeita hamasei eta berrogeita bost urte inguruan ibiliko ziren denak, **hor nonbait**. Mirentxu Larrañaga

-Ez dugu ezer ere afalduko, **hor nonbait**? Txillardeggi

13 gutxi gorabehera.

Ordu erdiko bidaia izaten dut, **hor nonbait**, hiritik amaren herrira. Aingeru Epaltza

Eguneko 20 segundo, **hor nonbait** berandutuz. Pello Zabala

Santo Domingora hurbiltzen ari naiz: bi kilometro eskas, **hor nonbait**! Piarres Aintziart

Johann Sebastian Bachek hamahiru ume (edo **hor nonbait**) ekarri zituen mundura. Joxe Austin Arrieta

Mende bat, **hor nonbait**. Berría - Harian

Hogeita bost bat milimetro luze ziren, **hor nonbait**, eta lau edo bost milimetrokoa zuten diametroa. Juan Garzia

Gendulain, egun, familia bakar baten lur sail erraldoia da hiru milioi metro koadro, **hor nonbait**, eta Lizarrako autobideak zeharkatzen dituen orubeetan dago. Berría - Harian

Bat-bateko bertsoak 20 segundotik (kopla) minutu baterako iraupena du (bederatziko nagusia) **hor nonbait**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

14 **nonbait ere** dudarik gabe.

Askotan eta askoren ahotan agertzen da kezka, **nonbait ere** buruhauste larriak sortzen zituen seinale. Koldo Zuazo

"Lege zaharreko" zuberotar zenbaitek 'dordoka' esateko ez omen dute inondik inora ere onartzen apo-harmatua hitza, **nonbait ere** "manexena" delakoan. Koldo Zuazo

Nik neronek ere... -haren gorpuzkera murrizta zurruntzen sumatu nuen- neurea izanen diat **nonbait ere**, hemendik ez oso urruti. Aingeru Epaltza

Dutxa on baten irrika bizia nuen, **nonbait ere**. Joxan Elozegi

•15 tokiren batean.

Nonbait ere irakurria dut zaldi gainetik erortzen zirela eta ez zirela gai izaten berriz zutitzeko ere, nekatuegi egoten zirelako armadura hori guztia gainean zutela berriz altxatzeko. Koro Navarro

Aita pentsatzen jartzen zen, xuxen ganbarako edo estalpeko lekuren batera edo patioan zeuden piletara joan, **nonbait ere** eskua sartu eta handik pixka batera benetan balio zuen tramankuluren bat ateratzen zuen. Fernando Rey

16 **nonbait han** adlag gutxi gorabehera.

Bi miliatara **nonbait han**, itsasora aitzinatzen zen harkaitz baten gainean argi batzuk ikusi zituztelarik, baratu ziren. Elena Touyarou

Arratsaldeko zazpiak eta erdiak ziren, **nonbait han**. Daniel Landart

IV. mendearen hondarrea, **nonbait han**, baina ez lehenago. Piarres Xarriton

Bi urteren buruan **nonbait han**. Janbattitt Dirassar

Berrogei bat urte badu, **nonbait han**, sortu zitzaigula, Basarri, Monzon eta Etxanizen ondotik, Aresti, Azurmendi, Labéguerie, Xalbador, Laboa, Etxamendi, Lete, Iriondo,

Lekuona, Artzeren belaunaldiko kantutegia. xifre ederra da Rwandako sosean, euro batek zazpi ehun hemengo emaiten baititu; 700 hori da **nonbait han** langile baten eguneko paga; euro bat eta aintzek gutiago. Piarres Xarriton

La-ila-ilaha-Aia, "ez dago beste jainkorik Jainkoa baizik", jartzen zuen **nonbait han**, arabesko baten tankeran. Bernardo Atxaga

17 **nonbait hor** aflag gutxi gorabehera.

Etxean, ordubete, **nonbait hor**. Aingeru Epaltza

Peoiak eta ahaideak gehituta, osotara 100 bat lagun, **nonbait hor**. Aingeru Epaltza

Sohütakoaren heintsüsealat heltü da Irurin ikusliarren saldoa (6.500 **nonbait hor**). Herria

18 berdintsu.

Eskolan gertatzen den guztia eta ahuntzaren gauerdiko eztula, **nonbait hor** niretzako. Jesus Mari Mendizabal

Behatz haundia baino kasik luzexegoa bigarrena, eta hirugarrena ere **nonbait hor**, Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

bertze nonbait (48); **bertze nonbait erran** (10); **beste nonbait** (263); **beste nonbait bilatu** (11); **beste nonbait bizi** (7); **beste nonbait dago** (5); **beste nonbait duela** (7); **beste nonbait egon** (5); **beste nonbait ere** (5); **beste nonbait zuela** (7); **burua beste nonbait** (24)

da nonbait (44); **dago nonbait** (7); **daude nonbait** (6); **dela nonbait** (5); **dira nonbait** (8); **dizut bertze nonbait** (5); **du nonbait** (37); **dugu nonbait** (5); **duk nonbait** (5); **dut nonbait** (8); **dute nonbait** (12)

edo beste nonbait (5); **edo hor nonbait** (5); **edo nonbait** (8); **ere nonbait** (11); **eta beste nonbait** (15); **eta nonbait** (29); **ez beste nonbait** (7); **ez nonbait** (13); **ez zen nonbait** (5); **ez zuen nonbait** (5)

gogoa beste nonbait (9)

han nonbait (55); **hemen nonbait** (16); **hor nonbait** (184); **hori nonbait** (9); **hortxe nonbait** (9)

izan nonbait (5); **izan zen nonbait** (5)

nintzen nonbait (6)

nonbait aipatu (5); **nonbait aurkitu** (5); **nonbait behar** (12); **nonbait behar du** (5); **nonbait bere** (10); **nonbait bilatu** (11); **nonbait bilatu behar** (7); **nonbait bizi** (16); **nonbait dago** (8); **nonbait dagoela** (7); **nonbait duela** (7); **nonbait egon** (10); **nonbait egon behar** (6); **nonbait egongo** (5); **nonbait entzuna** (7); **nonbait erran** (13); **nonbait erran dizudan** (10); **nonbait galduta** (5); **nonbait han** (18); **nonbait hor** (21); **nonbait ikusi** (8); **nonbait ikusia** (9); **nonbait irakurri** (15); **nonbait irakurri dut** (5); **nonbait irakurria** (10); **nonbait izan** (11); **nonbait izan behar** (6); **nonbait izango** (6); **nonbait jarri** (7); **nonbait zegoen** (7); **nonbait zuela** (7)

zegoen nonbait (11); **zela nonbait** (5); **zen nonbait** (56); **zion nonbait** (10); **ziren nonbait** (21); **zitzen nonbait** (5); **zitzaion nonbait** (9); **zuen nonbait** (52); **zuten nonbait** (8)

[3] **beste nonbaiten** (26); **hor nonbaiten** (3); **nonbaiten jarri** (3)

beste nonbaitera (33); **beste nonbaitera joango** (3); **nonbaitera eramango** (3); **nonbaitera joan** (7); **nonbaitera joana** (3); **nonbaitera joango** (3)

beste nonbaiterako (3)

beste nonbaitetik (32); **nonbaitetik atera** (7); **nonbaitetik atera behar** (5); **nonbaitetik etorri** (4); **nonbaitetik etorria** (3); **nonbaitetik hasi** (14); **nonbaitetik hasi beharra** (3)

beste nonbaitik (8); **nonbaitik ere** (18)

nonbaitasun iz

Thierryren bandakoak ez ziren ez denak euskaldunak: sorguneak soilik osatzen zuena **nonbaitasuna**? Itxaro Borda

nonbaitiar iz nonbaitekoa.

Jende ainitz uztañ huntan, gustatzen diren "paristar" eta **nonbaitiar** horiek. Herria

nonbeit ik nonbait.

nonbratu, nonbra, nonbratzen du ad izendatu.

Hala **nonbratu** zuen bufoi hura duke, // zeruaren tabua saihestu nahi luke. Xabier Olarra

nonbre (orobat nunbre b.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian kopuru agertzen da) iz ipar kopurua.

Haurren **nonbre** hori goiti ala beheiti joan da aurten? Herria

Deputatuoen **nonbrea** sobera emendatu gabe. Herria

Tokien **nonbrea** mugatua izanez eta antolaketen erretzeko izenak eman behar dira otsailaren 20-eko berantenez. Herria

Ehun ta zenbait mila hil, beti haundituz joan da Asia hegoalde hartako izgarrikerian galdu direnen **nonbrea**. Herria

Bi milatan goiti joana da hilen **nonbrea**, menturaz xuxen xuxena sekulan jakinen ez dena. Herria

Bistan dena, ez da **nonbre** aski handia, administrazioaren arabera, gela elebidunaren idekitzeko. Herria

Usaian bezala, joanden buruilaren 12an, jende helduak elgarretaratu dira, **nonbre** pollitean, Koxeinea ostatuan. Herria

Nonbre handian segitu dugu ere bere azken egoitzarat, Anne-Marie Gastellu Garzaiainekoa, apirilaren hogoi eta zortzian berrogoi eta hamalau urtetan utzi du mundu hau, joaite ustegabekoak denak hunkitzen gintuela. Herria

Beraz etorri **nonbre** haundian, ez zautzue dolutuko. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

etorri nonbre haundian (5); **nonbre ederrean** (3); **nonbre handian** (15); **nonbre haundian** (23); **zatozte nonbre haundian** (4)

nonbretsu izond ipar kopurutsua.

Herri hortan jendetza Afrikako ugarien edo **nonbretsuenetarik** da lur arau. Herria

nondar 1 iz non jaioa, nongoa. (galderetan)

-Nondarrak zarete? -galdegin zien. Josu Zabaleta

Nondarrak dira gure kontrario horiek? Pedro Alberdi

Dena dela, badakik hemen zenbat eta **nondarrak** garen, Sebastian? Edorta Jimenez

-Orduan, bere bidera bihurturik galdegiten du: nondik norakoa edo noiztik honakoa da "jainko" izeneko zera hori?; nongoa da, **nondarra**, zein etxetako?; non ditu zainak?; uretan jaio al zen?, airean?, surtan?, su-gainean?, lurrazpiko ikara batean?, gaitzean?, ezbizian? Iñaki Segurola

2 (zehir galderetan)

Didier Deschamps futbol jokalaria **nondarra** den gogorarazi digu esatariak berriro. Iñigo Aranbarri

Etengabean jardun beharrak, eta izenak ez errepikatze aldera, pilotaria **nondarra** den esatera bultzatzen du kazetaria. Iñigo Aranbarri

Ez nekien **nondarra** zen, ez nion izenik ezagutzen zuela beste deus. **Anjel Lertxundi**

Galdegiok ea **nondarra** den. **Patxi Zubizarreta**

Hori da nire bizitzaren historia, baina neronek ere ez dakit **nondarra** naizen. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nondarra den (3)

nondibait ik nondik 5.

nondik 1 *adlag*

• 2 *nondikako* iz jatorria.

Kostako zaizu horren **nondikakoa** asmatzen, harik eta arra edo arre horri erreparatzen ez diozun. **Pello Zabala**

Eta, pentsatuz, bai, topatu diot **nondikakoa**. **Pello Zabala**

Eta, pentsatuz, bai, topatu diot **nondikakoa**. **Pello Zabala**

Irteera aldera nagitzen zirelarik, Don Arturoren haserrearen **nondikakoa** ikusi behar zutenen multzo handia sortu zen. **Koldo Izagirre**

· Soziolinguistikak ere izugarri eskolatu gaitu, eta badakigu ama ez dutela umeek hiltzen, baizik-eta aitak, aita doilor bihozgabe auskalo **nondikako** batek. **Iñaki Segurola**

• 3 *nondikosup_1 adlag* non sortua.

Nondikoa ote zen? **Josu Zabaleta**

Gizakiek, ariman astuntasun akigarria sentitzen duten bezala, zertatik datorren eta paparra zanpatzen dien gaitz puska hain handia **nondikoa** den jakin ahal balute, [...].

Xabier Amuriza

• 4 *nondikosup_2* iz nondikakoa, jatorria.

Baina piztiaren oldarrek bazuten **nondiko** bat, bazuten etorkia. **Jokin Urain**

5 *non edo nondik*

Ijito hori ere etorriko da **non edo nondik**. **Urtzi Urrutikoeetxea**

Berria-n bertan egindako ahaleginak begi-bistakoak diren arren, beti dago **non edo nondik** sartzen zaigun aleren bat. **Iñigo Aranbarri**

Non edo nondik, ordea, frankotiratzailak tiroka jarraitzen zuen. **Pako Aristi**

Afrika izanik pizti basatien eta, bereziki, sugeen ama eta hazi-tokia, hirigotor horren lurretan ez da honelakorik batere sortzen, eta beste **non edo nondik** ekarrita leku horretan bakarren bat uzten denean ere, berehala hiltzen da. **Santiago Iruretagoiena**

6 *nondik-bait (corpusean nondikbait eta nondibait soilik)* nonbaitetik.

Nekizkien maldizio guztiak esanda, indarrak eskuratu nituen **nondikbait**; ez nengoen barregarri gelditzeko prest, ez jauna. **Joxean Sagatzizabal**

Dela kanpo aireak, beste **nondibait** joez, suak joanarazten dituelako; dela [...]. **Xabier Amuriza**

Behin, pasian atera eta bidez bide bazihoala, oraingo Mirakruztiak gora **nondibait**, goitik behera sartu eta laster, bat-batean: [...]. **Koldo Izagirre**

Nondibait hasteko, bada, Menéndez Pidal-en aitzindaritzat har daitekeen Agustín Durán madrildarrarekin, hasiko gara. **Joxe Azurmendi**

7 *nondik edo handik* nonbaitetik.

Gorputza sendotu behar dut eta indarra atera **nondik edo handik**. **Berria - Kirola**

Kemena **nondik edo handik** bilduz, eztl idor batzuk egin nituen, adiskide zenduaren aita-amei nire agerpenaz ohartarazi beharrez. **Aingeru Epaltza**

Gorrotoa dizunak, **nondik edo handik** aterako du zu hondatzeko aitzakia. **Gotzon Garate**

Behingoan ehun mila edo berrehun mila errublo eskuratzea **nondik edo handik**. **Jose Morales**

Ezaguna egiten zait, **nondik edo handik**. **Mirentxu Larrañaga**

8 *nondik eresup_1 (toki perpaus bat txertatzen)*

Nondik ere kea heldu baita, han sua bada, dio aspaldiko zuhur hitzak. **Michel Oronoz**

Literatura darion sexualitatea edo sexua darion literatura? **nondik ere** begiratzen diogun. **Berria - Kultura**

9 *nondik eresup_2* nondikakoa gorabehera.

Idazleari -edo narratzaileari- zor zaizkio istorioa - **nondik ere** jasoa duen-, kontakizunaren egitura, pertsonaien diseinua eta gainerakoak. **Jose Antonio Mujika**

Baina gaiztakeria horiek **nondik ere** baitatoz, suntsitzea da orain premiazkoena. **Jon Muñoz**

10 *nondik-nahi (17 agerraldi 12 liburutan; orobat nondinahi 11 agerraldi 4 liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian nondik-nahi agertzen da)* nonahitik.

Arazoak **nondik-nahi** agertzen ziren, eta berak denak konpontzen zituen. **Iñaki Iñurrieta**

Esaten ari naizen simulakro horiek, bada, **nondinahi** datoz eta noranahi igorriak dira. **Xabier Amuriza**

Nondik-nahi mintzo, hainbat ahotsek oihartzun gisara: [...]. **Patxi Zubizarreta**

Nondik-nahi begiratuta ere, ohitura egiaztatu eta norbanakoen arteko liskarrari aplikatzea epailearen ekintza da, eta ez legearena. **Andres Urrutia**

Fernando, gazteegia izaki emakumeekin nahasteko, libre utzi zuten, **nondik nahi** ibil zedin. **Felipe Juaristi**

· **Nondik-nahiko** ekaizteen erasoa sufrituagatik ere, sustrai amorratuak gero eta lurminago barneratzen dituen landare temati eta bakarzaletzat dauka Perurenak, antza, bere burua. **Patziku Perurena**

11 *nondik norasup_1*

Lepoko bat ipintzen diete, emisore ttipi batekin, **nondik nora** dabilizan jakiteko. **Gotzon Garate**

Zaila zen orduan bidea **nondik nora** zihoan ezagutzen, baina, haren zuhurtzia apartari esker, gorabeherarik ez zen izan ibilaldi hartan. **Karlos Zabala**

Nondik nora ibilia zen munduan, Donostian hil zen arte? **Ramon Saizarbitoria**

Nondik nora ibiltzen zen bera kanpoan zegoen denboraldi luze horietan, norekin eta zertan, non eta nola, baina, bereziki, norekin ibiltzen zen. **Joxemari Iturralde**

Hübelek ez zekien **nondik nora** jo. **Anton Garikano**

Hori guztia gertatzen ari zela, **nondik nora** ote zebilen Ulises zuhurra? **Juan Kruz Igerabide**

Ez dakit tipo hori **nondik nora** dabilen, ezta zertan ere. **Unai Iturriaga**

Oinak lurraren gainean nituela jardun nahi nuen behingoz, eta **nondik nora** nabilen ez dakidala gelditu naiz. Agintariek ez zekiten **nondik nora** ibili nintzen, ez eta zer egin nuen ere. **Iñaki Segurola**

Ikerkuntza prozesu azkengabe bat da, **nondik nora** egingo duen sekula jakiterik ez dagoena. **Juan Garzia**

Ez zen zaila haria **nondik nora** zihoan konturatzea. **Harkaitz Cano**

Eta gero, Usurbildik, Andatzako mazelaraino; eta **nondik nora** ez dakidala, Aiaraino. **Txillardegi**

12 *nondik norasup_2* adkor nolatan.

Ikastaro dexente ematen da sormena **nondik nora** bideratu. **Andoni Egaña**

Nondik nora daki beti zer egin eta noiz egin? **Anton Garikano**

Nondik nora ez ote nintzen lehenago konturatu. [Edorta Jimenez](#)
Eta gainera, **nondik nora** halako harridura? [Jon Alonso](#)
Horixe jakin nahi zuela hark, **nondik nora** etorri zen halako deskalabrua. [Karlos Linazasoro](#)
Nondik nora da posible ezaugarri bi horiek uztartzea? [Edorta Jimenez](#)
Ez dakit **nondik nora** sortuko zen nahasketa. [Joxean Agirre](#)
Eta, berbatik berbara, Antonek belarria **nondik nora** galdu zuen azaldu zidan. [Edorta Jimenez](#)
Eta **nondik nora** sortua ote du izen sorgin hori? [Patziku Perurena](#)
Geure-geureak diren lohikeriekin bakean bizitzeko gauza bagara, **nondik nora** uxatuko dugu, bortizki uxatuko, besteren lohikeriarik, kasu honetan zakurrena. [Jon Alonso](#)
Epaileak, ordea, ez du argudiatzen kasu hauetan baldintza hori **nondik nora** betetzen den. [Berria - Harian](#)
-Tira, tira!, **nondik nora** da atsegina nire solasa? [Jose Morales](#)
Nondik nora handinahi eta harropuzkeria hura? [Patxi Zubizarreta](#)

13 nondik norainoko izlag

Eta **nondik norainoko** mapa, gainera! [Pello Zabala](#)
Hark adieraziko dio ariman ze artesi edo pitzatu klase daukan eta **nondik norainokoa**. [Iñaki Seguro](#)
Atzo ziren negoziatzekoak kanpainaren propaganda **nondik norainokoa** izan daitekeen PAN Palestinako Aginte Nazionala eta Israelgo Gobernua. [Berria - Mundua](#)

14 (izen gisa)

Izendatze modu herritar baten ume dena eta ezin nolana izenez dei dakiokena, huraxe baitu izen semantiko eta intensional berekia, bere zertasuna (ez **nondik-norainokoa**) aditzera ematen duena. [Iñaki Seguro](#)
Baseri-aldea zen mintzagai: herri-hustearen **nondik-norainokoa**, iraganetik gaurdainoko laborantza norabideen aipamenak. [Herria](#)

15 nondik norainokotasun iz

Estatuen izenek [...] ez dute, bistan denez, intensiorik, ez diote ezer eta ez dute beren baitan funtsik, izaterik edo zertasunik; estensio, eremu edo hedadura huts dira, ez dute **nondik-norainokotasuna** beste tasunik. [Iñaki Seguro](#)

16 nondik norakosup_1 izlag

Ez diola axola urak **nondik norako** bidea egiten duen. [Iñaki Seguro](#)
Madrilgo udalak minibusa jarri zigun expressokideoi, goiz eder batean ez dakit **nondik norako** bidea eroso egin genezan. [Edorta Jimenez](#)
Nondik norakoa edo noiztik honakoa da "jainko" izeneko zera hori?; nongoa da, nondarra, zein etxetakoa?; non ditu zainak?; uretan jaio al zen?, airean?, surtan?, su-gainean?, lurrazpiko ikara batean?, gaitzean?, ezbizian? [Iñaki Seguro](#)
Nondik norakoa dugu indeterminazioaren zera hori? [Iñaki Seguro](#)

17 nondik norakosup_2 iz ik ibilera.

Erraparatzen al diozue ilargiaren ibilbide eta **nondik norakoari**? [Pello Zabala](#)
Nire **nondik norakoez** aditu nahirik zegoelako berriro laxaturik, itsasoan ibilia eta eskolan ikasia nintzela azaldu nion. [Edorta Jimenez](#)
Raimundo Silvaren, Maria Sararen, gurutzatuen eta mairuen, Mogueimeren eta Ouroanaren joan-etorrien **nondik norakoa** behar bezala segitu ahal izateko. [Jon Alonso](#)
Lehenbizi asmatu zuten meteorologia alorreko tresna, haizearen norabidea, haizeen **nondik norakoa** seinalatuko zuen haize-orratza izan zen. [Pello Zabala](#)
Nire pozaren pozerako, berehala ohartu nintzen Öchlerren **nondik norakoak** ez zuela gure arteko harremana hoztu. [Anjel Lertxundi](#)
Izan ere, diru-aldagai eta kredituaren kontrolaren bidez, jarduera ekonomikoaren **nondik norakoan** eragitea posible baita. [Iñaki Heras](#)

18 nondik norakosup_3 iz zer-nolakoa; zertzelada.

Ezagunak zaizkit gauzen **nondik-norakoak**, sorkariaren mota ezberdinak, garaien aldakuntzak. [Askoren artean](#)
Antoine Cabanne auzapezak eman zuen Pettan Iturraldearen ibilbidearen **nondik norakoa**. [Herria](#)
Agirre lehendakariak badaki Antonio Irlaren zereginen **nondik norakoa**, azken batean bigarrenak lehenaren aginduetara dihardu-eta. [Edorta Jimenez](#)
Lanaren **nondik norakoa** igartzen hasteko, puntu nagusiak identifikatzeko, loturak ikusteko, etab. giltza-kontzeptuek eta hitzek asko laguntzen dute. [Askoren artean](#)
Kode berriaren **nondik norakoak**. [Andres Urrutia](#)
Misioren **nondik norakoa** azaldu zidan. [Edorta Jimenez](#)
Jendeak pasio handiz bizi eta eztabaidatzen zituen gerraren **nondik norakoak**. [Anjel Lertxundi](#)
Bidaia **nondik norakoei** buruz erabakita zeuzkanak argitu zizkien xehetasun ugari emanez, bai bideari zegozkionak, baita ekonomikoak ere. [Anjel Lertxundi](#)
Banekien zer zen Umberto, banuen haren sexualitatearen **nondik norakoan** susmoa. [Anjel Lertxundi](#)
Erdi Aroko pentsaeraren **nondik norakoa**, eta bertan filosofiak hartu zuen lekua ulertu nahi baditugu, [...]. [Askoren artean](#)
Zamape horretan, egunbetetsuko bizarra ferekatu nuen, Kristinaren hitzen **nondik norako** guztiak mamitu nahirik. [Aingeru Epaltza](#)
Azken orrialdeetako bibliografian osatu eta zehazten dira erreferentzia horien guztien **nondik norakoak**. [Iñaki Arranz](#)
Egoeraren **nondik norakoak** aztertzen. [Anjel Lertxundi](#)
Erakutsi beharra zuen gure bizitzaren **nondik norakoak** gu geu gaituela, aldez edo moldez, nobelagile. [Anjel Lertxundi](#)
Herder-en influentzia behin eta berriro aipatzen duen arren, ohi den eran, behin ere ez du argitzen influentzia horren **nondik norako** konkretua. [Joxe Azurmendi](#)
Halabeharrezko erabaki handiak, gure patuaren **nondik norako** nagusiak ezartzen dituztenak. [Ander Irizar](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

auskalo nondik (41); auziaren nondik norakoak (5); batek daki nondik (7); bidaiaren nondik (6)
ea nondik (20); egitasmoaren nondik norakoak (6); ekimenaren nondik norakoak (9); ezbeharraren nondik norakoak (5); galdetu nondik (5); gatazkaren nondik norakoak (8); heriotzaren nondik norakoak (7); horra nondik (8); horren nondik norakoa (7); horren nondik norakoak (12); istripuaren nondik norakoak (13); kanpainaren nondik norakoak (7); lanaren nondik norakoak (5); liburuaren nondik norakoak (5); nola eta nondik (9); non edo nondik (6)
nondik abiatu (5); nondik agertu (5); nondik arraio (5); nondik atera (179); nondik atera duk (17); nondik atera duzu (16); nondik atera zuen (14); nondik aterako (29); nondik aterako zuen (5); nondik ateratzen (42); nondik ateratzen zuen (6); nondik begiratzen (30); nondik begiratzen den (8); nondik begiratzen zaion (12); nondik dator (37); nondik datorkigu (5); nondik datorkigun (6); nondik datorkion (13); nondik datorkizu (11); nondik datorren (56); nondik datoz (8); nondik datozen (32); nondik deitzen (6)
nondik edo handik (38); nondik egin (9); nondik egiten (5); nondik ekarri (5); nondik ere (6); nondik eta nola (20); nondik eta nora (9); nondik etor (6); nondik etorri (40); nondik etorri da (5); nondik etorria (9); nondik etorria zen (5); nondik etorriak (5); nondik etorriko (10); nondik ezagutzen (15); nondik gatozen (12); nondik hartu (11); nondik hartuko (5); nondik has (8); nondik hasi (61); nondik hasiko (10); nondik hator (10); nondik heldu (64); nondik heldu den (6); nondik heldu diren (7)
nondik ihes egin (6); nondik irten (17); nondik irtego (5); nondik izanen (7); nondik jo (30); nondik joan (22); nondik joko (12); nondik jotzen (10); nondik lortu (8); nondik nahi (13); nondik natorren (8); nondik nentorren (6); nondik nora (247); nondik nora dabilen (10); nondik nora doan (5); nondik nora doazen (6); nondik nora ibili (12); nondik nora jo (21); nondik nora joan (6); nondik nora joango (6); nondik nora joko (6); nondik nora nabilen (5); nondik nora zebilen (5); nondik nora zihuan (6)
nondik norako (43); nondik norako guztiak (9); nondik norako nagusiak (12); nondik norakoa (181); nondik norakoak (409); nondik norakoak argitu (15); nondik norakoak argitzeko (14); nondik norakoak azaldu (27); nondik norakoak azaltzeko (20); nondik norakoak azaltzen (5); nondik norakoak aztertzeke (11); nondik norakoak ikertzen (6); nondik norakoak ikusita (6); nondik norakoak jakin (5); nondik norakoak zehatu (6); nondik norakoan (8); nondik norakoaren (11); nondik norakoaren berri (5); nondik norakoari (7); nondik norakoaz (16); nondik norakoei (13); nondik norakoek (7); nondik norakoan (45); nondik norakoan berri (27); nondik norakoez (22)
nondik ote (24); nondik ote dator (7); nondik sartu (11); nondik sartzen (8); nondik sortu (26); nondik sortua (7); nondik sortzen (19)
nondik zatok (25); nondik zatokte (8); nondik zetorkidan (5); nondik zetorkion (19); nondik zetorren (53); nondik zetozen (10); nondik zuen (6)
partidaren nondik norakoa (13); partidaren nondik norakoak (7); planaren nondik norakoak (6)

nondikako ik **nondik 2.**

nondikbait ik **nondik 6.**

nondiko ik **nondik 3.**

nondinahi ik **nondik 10.**

nonerenahiko *izond*

Hizkuntza posibleetatik *n* kopuru batek hiztegi bera darabil; zenbaitetan, liburutegia sinboloari zuzen dagokio galeria hexagonalez osaturiko sistema **nonerenahiko** eta betiraunkorra adiera; liburutegia, ordea, ogia da, edo piramidea edo beste edozer gauza, eta definizioa osatzen duten zazpi hitzek bestelako esanahia dute. **Juan Garzia**

noneto *iz* bederatzi instrumentutarako onduriko musika lana.

Bigarrena hamabi urterekin idatzi zuen [Arriagak], izenbururik gabeko **noneto** bat. **Berria - Harian**

nongo 1 *izlag* zer tokitakoa. (galderetan)

Baina **nongoa** haiz hi? ez haiz ondo hauetakoa? **Janbattitt Dirassar**

Eta **nongoak** dira ba neskok? **Joseba Sarrionandia**

Davidek galdetu zion, orduan: -norena zara eta **nongoa**? **Elizen arteko biblia**

Nongoa da, nondarra, zein etxetakoa? **Iñaki Seguro**

Nongoa zara, italiarra? **Alberto Ladrón Arana**

-Nor eta **nongoa** haut? **Juan Kruz Igerabide**

Hemengo bai... baina **nongoa**? **Iñaki Seguro**

Baina zu, **nongoa** sentitzen zinen? **Ana Urkiza**

2 (zehir galderetan)

-Nongoa haizen galdetu diat! **Anjel Lertxundi**

Ez diot galdetu **nongoa** zen; eta berak ere ez dit bere izena esan. **Jose Antonio Mujika**

Badakit **nongoa** den. Ez dakit zergatik, agurea **nongoa** zen jakin nahi izan nuen; dena den, ez zidan erantzun. **Ramon Saizarbitoria**

Mahaizainak ardo bihurtutako ura dastatu zuen, **nongoa** zen jakin gabe. **Elizen arteko biblia**

Galdera zaparrada izugarria bota zidan: **nongoa** nintzen, zer lanbide nuen, ea Munichera nentorren lehenbiziko aldia zen, luzaro gelditzeko asmorik al nuen... **Alberto Ladrón Arana**

3 (izen baten ezkerrean)

Nongo jeneralen historia? **Jose Morales**

Zer axola dio **nongo** posta-bulegoa erabiltzen duzun? **Oskar Arana**

Nongo diruaz joaten hintzen dibertitzera iaz? **Josu Zabaleta**

Nongo "zalantzak" ordea? Elizgizonen zalantzak, herri-gizonenak ala gizaki orenenak? **Piarres Xarriton**

Nongo gizartea, **nongo** langileak askatu nahi ziren? **Jokin Urain**

Komandantzia bildu ginenez geroztik ez dit bakerik eman, **nongo** mintzaira egiten dudak jakin zuenetik gainean daukat beti. **Koldo Izagirre**

Azkenean artean gehiago lotsatzeko, eta azal izurtuetako nork jakin **nongo** tolesturetan emazte gaztearen koloreak berriro aurkitzeko. **Josu Zabaleta**

Hark zeukan ekarria hark, ez zakiat **nongo** katedralaz ari zuan eta ni berari begira eta karpa baino ixilago nengoa. **Pablo Sastre**

Ikusi zuen Sobakevitx atarrean zegoela oraindik eta, itxuraz, tinko begira zeukala, **nongo** bidea hartuko ote zuen jakin nahirik. **Jose Morales**

Ea **nongo** erdigunera. **Ramon Saizarbitoria**

-Ez ziren guti, bertzalde, **nongo** eta Lüküzeko bidea hartu zutenak. **Aingeru Epaltza**

4 *auskalo nongo*

Eragozpentxo burokratikoak zituztela **auskalo nongo** bankutan gordea zuten dirua eskuratzeko. **Anjel Lertxundi**

Kalaportuko beste karlista handiak ere berdin, **auskalo nongo** soto edo sabai zulotan ezkutatu ziren, Zergatik behartu behar naute goizeko lauetan **auskalo nongo** ukuitako azpiak ateratzera? **Joseba Sarrionandia**

Zerraldo batean zegoela sinesten zuten gainerakoek, **auskalo nongo** kanposantu batean lur emana, marmolezko hilarri baten pean. **Harkaitz Cano**

Hantxe geratzen zen, mugaldeko **auskalo nongo** kuarter-zuloan gorderik aberria defendatzen. **Juan Garzia**

Nire gainbeherako urteak **auskalo nongo** bazter galduan eman behar badituz, aparretan eta dotoreziaz igaro nahi ditut. **Oskar Arana**

5 *ez dakit nongo*

Europako, Afrikako edo **ez dakit nongo** bazter guztietan. Zer pentsatu [liburu] salduena ez dakit **nongo** mojek prestatutako sukalde errezetak direla ohartzen garenean? **Piarres Xarriton**

Nik era guztietako desenkusak eman nizkien, gizon uzkurra zela, **ez dakit nongo** euskal etxean euskara ikasten ari zela edo osasunez makal samarrik zebilela erantzunez. **Joxean Agirre**

Erizain igorri zuten **ez dakit nongo** kanpalekura, eta han hil zen zenbait hilabeteren buruan. **Marzel Etxehandi**

Ez dakit nongo unibertsitateko irakaslea omen da. **Joxemari Urteaga**

Munduko atxur-jaurtitze txapelketa ez-dakit-**nongo**-herritan. **Aingeru Epaltza**

Zenbat idazle egin ote ditu kritikak **ez-dakit-nongo** edo badakit-noizko idazlerik handiena? **Xabier Mendiguren Elizegi**

-Hik kontu egin badatorrela nik zer zakiat **nongo** bat... moldaviarra, adibidez. **Urtzi Urrutikoeetxea**

6 *noiz-nongo iz pl* noiz eta nongo zertzeladak.

Izan ere, batetik, hizketa erabat lotua dago hitz egiten duenarekin eta hizketaren noiz-**nongoekin** eta hartzailearekin. **Patxi Altuna**

Ez naiz hasiko elektroaren gorabeherekin, ez naiz ariko haren ibilbide ezin determinatuzkoaz, haren posizioa eta momentua (noiz-**nongoak**) batera jakin ezinaz. **Iñaki Seguro**

7 *nongo edo hango*

Haietako emakume asko ama ere baziren, haur bakar batez erditutakoak: **nongo edo hango** eskolaren batean zuten mutikoren baten edota amonaren zaintzapean zuten

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo nongo (15); ez dakit nongo (20)

ea nongoa (3); hi nongoa haiz (3); nongoa da (9); nongoa den (22); nongoa den ere (3); nongoa haiz (9); nongoa naizen (8); nongoa nintzen (11); nongoa ote zen (3); nongoa zara (25); nongoa zaren (4); nongoa zen (26); nongoa zen galdetu (3); nongoa zen jakin (3); nor eta nongoa (4)

ez dakit nongoak (3); nongoak dira (3); nongoak diren (12); nongoak zarete (12); nongoak ziren (11)

nongotar *izlag* nongoa, non jaioa.**Nongotarra** zara? Ramuntxo Etxeberri**Nongotarra** zen, eta nor zen jakin zutelarik, bietan zaharrenak esan zion: [...]. Patxi ZubizarretaHoriatariko franko elizgizonak izaten dira eta horiek latinez mintzatzen zaizkit, baina bakoitzak bere hizkuntzaren moldera ahoskatuta, halako moldez non, berek erran aitzin asmatzen ahal baitut **nongotarrak** diren. Aingeru Epaltza**nongotasun** *iz* nongoa izatea.Nortasunaz gainera, nere karnet horrek **nongotasuna**, noizkotasuna eta norengandikotasuna ere badakartza, sinesten ez dudana Nazio Handi baten izena ez ezik. Iñaki SegurolaEdo bestela, pentsatzen nuen... nola esan? **nongotasuna** nuen buruan, nire baitan nioen itsasoa objektu berdeen multzokoa zela edo berdea itsasoaren tasunen artean zegoela. Monika EtxebarriaGauza askoren berri eman dut berehalakoan: nire **nongotasuna**, ogibidea, bidaiaren nondik norakoak... eta, halako baten, huskeriatan gehiegi luzatzen ari nintzela begitandu zait. Jon ArretxeEta nontasunak holako lanak ematen baditu, ze ez ditu emango **nongotasunak**, nortasunak, identitateak eta horien hariko determinazio guztiek? Iñaki SegurolaZer esan urruti horietan **nongotasunaz** galdetzen digutenean? Iñaki Segurola**nonoiz** (*orobat nonoz*) *adlag* noiz edo noiz. ik **noizbait**.**Nonoiz**, handik hamabost egunera, barku bat agertu zan, porturantz joiana, baina oso itxaso txarra egoala. Xabier AmurizaHi, txotxo! ea beti gauza bera joteari izten deutsaan **nonoiz**! Xabier Amuriza**nonon** *adlag* non edo non. ik **nonbait**."Kasu, muturra hautsi gabe," esan zuen Manuk isilka, pala **nonon** utziz. Pablo SastreEtxean ba ei zan pandero zahar bat, ganbara baztarreko **nonon**, Bilboko "botxero" batek amamari ekarria. Xabier Amuriza**nonondik** *adlag* non edo nondik.**Nonondik** gurditzar haundi bat jirako eban, lau txakur txikitan, eta gero, berak barri-barri imini eta barriaren prezioan salduko eban. Xabier Amuriza**nonor** *adlag* nor edo nor. ik **norbait**.Abade gogorra eta zantar samarra egoan orduan Lemoizen eta, eleizara joan ezik, **nonor** jaiegunean solano behar ibili zala jakiten baeban, hurrengo domekan pulpitutik kondentzen eban. Xabier Amuriza-Bera be jabetzen zala uste dok **"nonor"** bazana? Xabier Amuriza**nonora** *adlag* norabait.Ustez ikasi nebanean, neure buruari esan neutsan: "Orain, honegaz, urten egin behar dok **nonora"**. Xabier Amuriza**nonoxynol** *iz* konposatu organikoa, spermizida gisa erabiltzen dena.**Nonoxynol**-9 (N-9) labaingarridun kondoiak egiteari utzi dio Durex etxeak, OME Osasunerako Mundu Erakundeak eta Erresuma Batuko Infekzio Gaitzen Kontrolerako Zentroaren eskariz. Berria - Gaiak**NONOZ** ik **nonoiz**.**nontasun** *iz*Eta **nontasunak** holako lanak ematen baditu, ze ez ditu emango nongotasunak, nortasunak, identitateak eta horien hariko determinazio guztiek? Iñaki Segurola**nontsu** *adlag* non gutxi gorabehera.Zerua hain zagok altu, eta hain begiradarik gabe nire begiak, ezen nahikoa bainuen, eta horrenbesterekin pozik, lurra **nontsu** zen jakinda. Juan GarziaAutodeterminazioa badakigu **nontsu** dagoen, baita heterodeterminazioa ere. Iñaki Segurola**nonzeberri** *iz* kontakatila.Ez zian, bada, **nonzeberri** alu horrek sobera behar bertzeen galtzetan sartzeko. Aingeru Epaltza**Nonzeberri** alaena, faborea eskatu nionean, nire jakin gosearen etorkia azaldu behar izana nion, argibideen ordain. Aingeru EpaltzaEz du besterik eskaintzen **nonzeberri** edo onarterraz askoren taldea baino, beti zain senar-emazteekin bat egiteko, legeen aurka eta gainetik. Andres Urrutia

NOR izord ik nortzuk.

1 **nor baino nor**

Nor baino nor grinatsuago ibili ziren jolas atseginean, buru belarri emanak, ia sena galduta eta mundutik at. **Migel Angel Mintegi**

Bi taldeak **nor baino nor** aritu ziren, huts asko eginda hori bai. **Berria - Kirola**

Biok bildu, eta trabes egingo dugu **nor baino nor**. **Juan Garzia**

Berrogei bat lagun bai, **nor baino nor** distirant eta harroputzago. **Txillardegí**

Baina lehiakortasuna ez da bi lagun, herrena eta atleta profesionala, **nor baino nor** aritzea. **Iñaki Heras**

Epaileak bost ziren, **nor baino nor** portatu zitzaizkidanak. **Joxerra Garzia**

2 (izen gisa)

Hortxe dago gakoa! -esan eta, **nor baino nor** hartan bere nagusitasuna azaltzeko, jarlekua ozenki mugituz zutitzearena egin zuen. **Migel Angel Mintegi**

3 **nor edo nor** norbait.

Bakarrik pentsatzen dut **nor edo nor** kasualitatez etorriko balitz... baina **"nor edo nor"** ez da inor. **Eskarne Mujika**

Gizakiak beti erdeinatzen du **nor edo nor**; gaur egun, mundu osoan ez zenuke aurkituko inor erdeinatzen ez duen gizabanakorik. **Jose Morales**

Beti bada **nor edo nor** irakurtzen dakiena. **Patxi Ezkiaga**

Ate-joka sumatu genuen **nor edo nor**. **Mirentxu Larrañaga**

Orain artekoak dedikatu dizkiot **nor edo nori**, adiskidetasuna, konfiantza, maitasuna, pazientzia, konplizitatea edo beste edozer eskertzeko. **Ana Urkiza**

Ahantzia ekintza batean, **nor edo noren**, batez ere bere buruaren kolpatzeko lotsa. **Itxaro Borda**

Gu ez gira hemen **nor edo noren** hautuetan sartuko. **Herria**

Nork ez du ezagutzen bere hurbilekoetan **nor edo nor**, oinez, bizikletaz edo beribilez Santiagoko itzulia egin berri ez duenik? **Piarres Aintziart**

Haur gehienak sortzen balira jende heldu bezala, eta **nor edo nor** sor baledi haur bezala, orduan bai haurrak urrikari genituzke. **Piarres Xarriton**

Hark dei egin zion Muktada al Sadri Najafeko santutegiak utz ditzan, «hauek ez baitira **nor edo norenak**, guztienak baizik». **Berria - Mundua**

Badakigu 2006garren urteak ere on eta txar ekarriko duela, denentzat ez bada **nor edo norentzat**, halere urte berri on eta oroz gainetik osagarri on deneri! **Herria**

- Hala ere, aspaldion kezu bizi dira, Europa berrian **nor edo nor** izango ote diren. **Edorta Jimenez**

4 **nor ere** (erlatibozko perpaus bat txertatzen)

Nor ere ahalegintzen baita besteak Arrazoiaren arabera gidatzen, hura ez da oldarrez ari, gizatasunez eta bihozberatasunez baizik, eta guztiz lasai dago bere buruarekin. **Piarres Xarriton**

Nor ere menturatzen baita, dena espantu eta fururia, ustez eta gauaz denak libro dituela, hori nekez da Gauekoren aztaparretarik eskapatzen eta sano sana etxera itzultzen. **Michel Oronoz**

Nork ere ikusi baitu hori, zitalez blaituriko mihiz Fortunaren aurka duke traizio-epaia emango. **Juan Garzia**

Nork ere nahi baitu bazkarian parte hartu, izena behar du eman Begiraleen egoitzan urriaren 8-ko berantenez. **Herria**

Beraz, **nor ere** baitu bere burua gutienik ezagutzen eta, ondorioz, baititu ere [...] gutienik ezagutzen bertuteak, hark du gutienik ihardukitzen bertutearen arabera. **Piarres Xarriton**

Ez du aspaldi Trentoko kontzilioak[...] erabaki duela 3. kanonean heretikotzat edukitzea **nor ere** ukatzen baitu Jesu Kristoren gorputz osoa badagoela itxura bakoitzaren baitan, bai eta ere puskatu ondoan itxura bakoitzaren zati bakoitzaren baitan. **Piarres Xarriton**

Halarik ere, **ko jaun dukeak, neure lehengusuak, **nori ere** dakizunez guztizko onginahia zor baitoit, jakinarazi berri dit Napolira deitua izan dela. **Jon Muñoz**

- Zu gaitza zara haatik, **nor ere** baitzara, ene barneko minari hola ohartzeko. **Janbattitt Dirassar**

Kuku zaharra hola galdu nuen, **nor ere** baitzen! **Janbattitt Dirassar**

5 **nor izan da ad**

Nor banintzen, zerbait erran beharko nuen. **Aingeru Epaltza**

Benetan herrian **nor balira** bezala jokatzeko baitzuten. **Bego Montorio**

Horrelako txiste bat entzuten dudanean, kontatzaileari kargu hartu, eta lagunarte hori derrepente utzi behar nuke, **nor banintz**. **Joxerra Garzia**

-Nagusia, **nor bada**, Héraclius doktorea -erantzun zuen Honorine andereñoak. **Josu Zabaleta**

Zeren, ni ni banaiz, nitasun bat dudalako da -modu batean deitzeagatik, jaun André-, eta ni **nor banaiz**, nortasun bat dudalako. **Joan Mari Irigoien**

Konbentzitu egin zuten oso ongi tratatuko zutela eta ikasten bazuen **nor izatera** iritsiko zela. **Pello Lizarralde**

Etorkizunean **nor izateko** modu bakarra horixe dugulako. **Joxerra Garzia**

Halakoek eskuarki gora begira jarri eta **nor denari noiz arte?** **Iñaki Seguro**

galdetzen diote, **nor denari nor dela** aitortuz bide batez. **Iñaki Seguro**

6 **nor... nor...**

Gainerakoak ere - **nor** gehiago, **nor** gutxiago- nahikoa jantziak ziren. **Jose Morales**

Gazteak agertu ziren kanpoan, **nor** bi eskuez buruari helduz **nor** bi eskuez saihesten aldeak igurtziz. jende hura sakabanatzen hasi zen, **nor** udaletxeko bidetik, **nor** elizako bidetik, **nor** ospitaleko bidetik. **Pedro Alberdi**

Zelulak sakabanatu egin dira oraingoan halere: **nor** bere amarekin, **nor** bere umearekin. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Lurrean bertan lo egin zuten, **nork** sukaldetan, **nork** korridoreetan. **Josu Zabaleta**

Gela erdia apustuak egiten ari da, **nork** aurrera jarraituko **nork** errepikatuko. **Josu Zabaleta**

Ama-amonak ez ziren eztabaida hartatik aterako, **nork** bere astoari arre, **nork** bere opilari su. **Joan Mari Irigoien**

- Zein bere izaera eta gustuen arabera jaten hasi ziren denak, **nor** kabiarrak, **nor** sardinaz ketuak, **nor** gazta. **Jose Morales**

Nor zen komunista, **nor** faxista, **nor** zein familiakoa, **nor** zein tradiziokoa, nork zer egin zuen, nork zer egin zezakeen. **Jon Maia**

Galdetzen dio, ez herriari, herri itxuraz moztururiko merkatuari baino, eta entzun uste duenari - **nork** famari, **nork** diruari, **nork** errazkeriari, **nork** aurreko hiruak batuz sortutako burrundarari- erantzuten dio. **Anjel Lertxundi**

Nork bere istorio ikaragarria zekarren, **nork** bere izua, **nork** bere mina, baita **nork** bere gaitzespena ere, gure aldera. **Aingeru Epaltza**

Hori zirela jenden zerbitzari, **nori** matahamiak, **nori** eguberriko goxokiak, **nori** sagar arno, etzen deus eskas arrats hartan. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

auskalo **nor** (7); **badakit nor den** (8); **bazekien nor zen** (7); **bera nor zen** (7)

ea nor zen (8); **egilea nor zen** (7); **ez naiz nor** (17); **hori nor den** (8); **hori nor zen** (7); **horra nor diren** (8); **hura nor zen** (17)

nor ari da (17); **nor ari zen** (8); **nor ariko den** (9); **nor arraio** (8); **nor ausartuko da** (13); **nor baino nor** (108); **nor bere** (434); **nor bere aldetik** (36); **nor bere bidetik** (8); **nor bere buruaren** (16); **nor bere etxean** (9); **nor bere etxera** (25); **nor bere herrira** (7); **nor bere lekuan** (7); **nor bere zoroak** (8); **nor da ba** (13); **nor da hor** (14); **nor da hori** (13); **nor dabil hor** (14); **nor den jakin** (9); **nor den jakiteko** (8); **nor den nor** (8); **nor dira** (39); **nor diren** (97)

nor edo nor (41); **nor edo zer** (10); **nor ere** (15); **nor eta bera** (11); **nor eta zer** (8); **nor gara gu** (15); **nor haiz hi** (9); **nor hura** (15)

nor ikusten dut (7); **nor izan da** (16); **nor izan daiteke** (7); **nor izan daitekeen** (7); **nor izan den** (21); **nor izan zen** (67); **nor izan ziren** (8); **nor izan zitekeen** (20); **nor izanen da** (7); **nor izanen den** (10); **nor izango da** (25); **nor izango den** (45); **nor izango zen** (13); **nor izango zen** (13); **nor nahi** (56); **nor nahik** (15); **nor nahiren** (7); **nor nahiri** (11); **nor naiz ni** (32); **nor nintzen ni** (12); **nor non** (7); **nor nor** (9); **nor norekin** (13); **nor noren** (8); **nor nork** (10); **nor nun** (7)

nor ote (153); **nor ote zen** (48)

); **nor zaitugu** (7); **nor zaitut** (8); **nor zara zu** (65); **nor zein** (7); **nor zen** (493); **nor zen galdetu** (16); **nor zen jakin** (20); **nor zen jakiteko** (8); **nor zen nor** (13); **nor ziren** (82)

auskalo **nork** (13)

nork agintzen du (7); **nork** agintzen duen (11); **nork** asmatuko zuen (13); **nork** behar du (8); **nork** berak (10); **nork** bere (909); **nork** bere aldetik (31); **nork** bere baitan (7); **nork** bere bidea (11); **nork** bere borondatez (7); **nork** bere burua (112); **nork** bere buruaren (11); **nork** bere buruari (40); **nork** bere buruz (10); **nork** bere erara (8); **nork** bere kabuz (7); **nork** berea (23); **nork** bereari (9); **nork** daki zein (7); **nork** daki zenbat (11); **nork** daki zer (21)

nork edo **nork** (11); **nork** egin du (18); **nork** egin duen (11); **nork** egin zion (8); **nork** egin zuen (19); **nork** egina (12); **nork** egingo duen (9); **nork** egiten du (11); **nork** eman zion (8); **nork** eman zuen (7); **nork** ere (25); **nork** erranen du (9); **nork** erranen zuen (39); **nork** esan dezake (14); **nork** esan dik (10); **nork** esan dizu (22); **nork** esan du (16); **nork** esan lezake (7); **nork** esan zuen (22); **nork** esango luke (8); **nork** esango zuen (22); **nork** eta berak (8); **nork** eta nola (15); **nork** eta zergatik (8); **nork** ez daki (24); **nork** ez ditu (28); **nork** ez du (127); **nork** ez luke (7); **nork** ez zuen (14); **nork** ezagutzen du (14); **nork** gehiago (7); **nork** hartuko du (8); **nork** hartuko duen (13); **nork** hil zuen (12)

nork ikusi du (8); **nork** irabazi zuen (9); **nork** irabaziko duen (18); **nork** irabaziko zuen (10); **nork** jarri zuen (7); **nork** jartzen du (9); **nork** jokatu duen (15); **nork** lagundurik (11); **nork** nahi du (9); **nork** norekin (9); **nork** nori (21); **nork** ordezkatuko duen (8)

nork zer (39); **zuetako nork** (10)

botoa nori eman (9)

nori axola zaio (8); **nori bere** (28); **nori berea** (23); **nori bururatzten zaio** (10); **nori buruz** (20); **nori dagokion** (22); **nori egiten dio** (7); **nori eta niri** (7); **nori ez** (18); **nori fida** (7); **nork nori** (21)

ez dakit noren (12); **nor noren** (8); **noren alde** (39); **noren aurka** (18); **noren bila** (10); **noren errua** (7); **noren esku** (23); **noren hil kanpaia** (7); **noren izenean** (14); **noren kontra** (22); **noren partetik** (9); **noren seme** (8)

norena den (39)

norenak diren (11)

norengana jo (20)

nortzuk diren (47); **nortzuk izango diren** (11); **nortzuk osatuko duten** (7); **nortzuk zarete** (8); **nortzuk ziren** (26)

nora

1 nondik norasup_1

Lepoko bat ipintzen diete, emisore tipi batekin, **nondik nora** dabilizan jakiteko. **Gotzon Garate**

Zaila zen orduan bidea **nondik nora** zihoan ezagutzen, baina, haren zuhurtzia apartari esker, gorabeherarik ez zen izan ibilaldi hartan. **Karlos Zabala**

Nondik nora ibilia zen munduan, Donostian hil zen arte? **Ramon Saizarbitoria**

Nondik nora ibiltzen zen bera kanpoan zegoen denboraldi luze horietan, norekin eta zertan, non eta nola, baina, bereziki, norekin ibiltzen zen. **Joxemari Iturralde**

Hübelek ez zekien **nondik nora** jo. **Anton Garikano**

Hori guztia gertatzen ari zela, **nondik nora** ote zebilen Ulises zuhurra? **Juan Kruz Igerabide**

Ez dakit tipo hori **nondik nora** dabilen, ezta zertan ere. **Unai Iturriaga**

Oinak lurraren gainean nituela jardun nahi nuen behingoz, eta **nondik nora** nabilen ez dakidala gelditu naiz. Agintariek ez zekiten **nondik nora** ibili nintzen, ez eta zer egin nuen ere. **Iñaki Seguro**

Ikerkuntza prozesu azkengabe bat da, **nondik nora** egingo duen sekula jakiterik ez dagoena. **Juan Garzia**

Ez zen zaila haria **nondik nora** zihoan konturatzea. **Harkaitz Cano**

Eta gero, Usurbildik, Andatzako mazelaraino; eta **nondik nora** ez dakidala, Aiaraino. **Txillardeg**

2 nondik norasup_2 adkor nolatan.

Ikastaro dexente ematen da sormena **nondik nora** bideratu. **Andoni Egaña**

Nondik nora daki beti zer egin eta noiz egin? **Anton Garikano**

Nondik nora ez ote nintzen lehenago konturatu. **Edorta Jimenez**

Eta gainera, **nondik nora** halako harridura? **Jon Alonso**

Horixe jakin nahi zuela hark, **nondik nora** etorri zen halako deskalabrua. **Karlos Linazasoro**

Nondik nora da posible ezaugarri bi horiek uztartzea? **Edorta Jimenez**

Ez dakit **nondik nora** sortuko zen nahasketa. **Joxean Agirre**

Eta, berbatik berbara, Antonek belarria **nondik nora** galdu zuen azaldu zidan. **Edorta Jimenez**

Eta **nondik nora** sortua ote du izen sorgin hori? **Patziku Perurena**

Geure-geureak diren lohikeriekin bakean bizitzeko gauza bagara, **nondik nora** uxatuko dugu, bortizki uxatuko, besteren lohikeriarik, kasu honetan zakurrena. **Jon Alonso**

Epaileak, ordea, ez du argudiatzen kasu hauetan baldintza hori **nondik nora** betetzen den. **Berria - Harian**

-Tira, tira!, **nondik nora** da atsegina nire solasa? **Jose Morales**

Nondik nora handinahi eta harropuzkeria hura? **Patxi Zubizarreta**

3 nora edo hara norabait. ik beherago 9.

Maiz irtetzen zen **nora edo hara**. **Juan Kruz Igerabide**

Bestela lagunekin joango nintzen kanpian aste pare bat pasatzera **nora edo hara**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Miatu genuen ingurune guztia, errepidearen bi aieketan berrehun bat metro; obispoa tiro-festak izututa, **nora edo hara** ihesi joatea zitekeena baitzen. **Inazio Mujika Iraola**

4 nora ere (toki perpaus bat txertatzen)

Asteburua La Platan iragan dute, **nora ere** bilduak baitziren 700 bat dantzari Argentinako alde guzietatik. **Herria**

- Fereka egiten diozu, begiaz eta esku, haragizkoa balitz bezalaxe; behin eta berriro haren ondora itzultzen zara, gogoan erabiltzen duzu beti, **nora ere** joaten baitzara, zer ere egiten baituzu. **Josu Zabaleta**

Eta **nora ere** joaten nintzen, pilotuaren boneta jantzirik ibiltzen nintzenez, halako batean haserretu egin zitzaidan upelgilea. **Edorta Jimenez**

- Itsasoak, bere lege itsuan, **nora ere** gindaramatzen, haraxe joango ginen, eta gero kontuak. **Edorta Jimenez**

5 nora ezean (160 agerraldi, 46 liburu eta 39 artikulutan; orobat noraezean 288 agerraldi, 84 liburu eta 57 artikulutan, Euskaltzaindiaren Hiztegian, 'nora gabe' adieran, nora ezean agertzen da) nora gabe. ik noraez.

Nik ordea, ez dakit aukeraz profitatzen: **nora ezean** noa, hutsik eta baratz, xahuturiko zeru honen azpian. **Monika Etxebarria**

Berriro marinel gazteak hara eta hona, **noraezean**. **Joxe Austin Arrieta**

Noraezean ibili nintzen, ibilbide jakinik edo helmugarik gabe. **Bernardo Atxaga**

Bi egunez ibili zen Ulises **noraezean**, baina, Eos txirikorda ederduak hirugarren eguna argitu zuenean, uhin baten gainetik, lurra hurbil ikusi zuen. **Juan Kruz Igerabide**

Nora-ezean ibiliko dira, itsasoz itsaso, iparraldetik eguzki aldera, Jaunaren hitzaren bila, baina ez dute aurkituko. **Elizen arteko biblia**

New Yorkera etorri zenean otorduak eta lo-lekua disketxeak ordaintzen zizkion, eta hori bukatu zenean **noraezean geratu** zen. **Harkaitz Cano**

Jitoan egon zara, **nora ezean**. **Mirentxu Larrañaga**

Gizon batek landan zehar **nora ezean** ikusi eta galdegin zion: -Zeren bila zabilta? **Elizen arteko biblia**

Guardia zibil bat hil dute Bilbon eta ez zaitut kalean **noraezean** ikusi gura. **Joseba Sarrionandia**

Alde egin dezala etxetik, hala nahi baldin badu, ibil dadila **nora ezean**, eskean. **Patxi Zubizarreta**

Alderrai edo **nora ezean** galdurik dabilzanen gida. **Xabier Kintana**

Urteetan basamortuan **nora ezean** ibili ostean, zure benetako bokazioa aurkitu duzu azkenean. **Oskar Arana**

Hesirik gabe, lapurren esku gelditzen da alorra; emazterik gabe, **nora-ezean** deitorreka gizona. **Elizen arteko biblia**

Hala gizakiaren ekintzak ere, patuaren halabeharrez arazoturik, asmo eragile guztiari alderatu, eta ustekabeko **nora ezean** suertatzen dira. **Pedro Alberdi**

Erlijio-doktrinaren alorretik **noraezean** zabilzaten guztiok, zatotze eta jarraiki zidorrari. **Xabier Kintana**

6 nora ezik (orobat noraezik) nora ezean.

Bi aste egin nituen hiri handi hartan **nora ezik**. Koldo Izagirre

Gogoia sarritan gorputzaren minetan **noraezik** ibiltzen da. Xabier Amuriza

Baina ez dago ezer gozoagorik jakintsuen doktrinak ondo eraikitako goi tenplu nareetan bizitzea baino, nondik besteak gainbegiria ditzakezun eta hara-hona deslai eta bizitzako bide bila **noraezik** ikus, nor talentutsuago, nor nobleago, gau eta egun lan eta lan saiatzen, nor ondasunetan gorago eta nor agintetsuago. Xabier Amuriza

7 nora gabe (orobat noragabe) adlag

Pasieran ibili zen, **nora gabe**. Koro Navarro

Nora gabe joan nintzen kafetz kafe. Matías Múgica

Beste edozein gizaki **nora gabe** ibiliko zen lainopean edo latitude haien gau polar luzean; hark, ordea, ez zuen bere bidea galtzen. Karlos Zabala

Begiak **nora gabe** begira, ospitaleko itxarongelako horma goibel hark mugatzen zuen ostertzeko lekuren batean jarriak. Jon Muñoz

Sarritan, arratsaldean, hara-hona zebiltzala topatu eta haiekin paseatzen zen merkatuaren auzoan barrena, **nora gabe**, eskuak sakeletan, kaleetako bizitzaz barren-barreneraino interesaturik. Karlos Zabala

8 nora gabeen (orobat noragabeen) nora ezean.

Duda horretan, ezer ezin pentsatuz, **nora gabeen** ibili nintzen goizeko kaleetan barrena. Matías Múgica

38.000 itsas milia nabigatu ostean, itsasoan lau urtez **noragabeen** ibili eta gero. Patxi Zubizarreta

Belatz horrek menditik etorri eta antzara harrapatu duen bezala, hala egingo du Ulisesek ere: **noragabeen** asko nozitu eta gero, etxera itzuliko da, eta ordainarazi egingo die kalte egiten ari direnei. Juan Kruz Igerabide

Halaxe dago mundu guztia, **noragabeen**, krisi betean. Berria - Kultura

9 nora hara (corpusean norahara soilik) norabait.

Guraso mixerableak Ameriketara edo **norahara** hanka egin eta deusen anparorik gabe auzoan utzia; etxenagusi aberatsak bete neskame pobreak, herritik uxarazi ondoan, nonbaitean nolazbait hazitakoa... Patziku Perurena

10 norako ik norako.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

auskalo nora (22); esan nora (7); ez daki nora (7); ez dakigu nora (12); ez dakit nora (36); ez nekien nora (17); ez zekien nora (7); maritxu nora zoaz (7); nondik eta nora (9); nondik nora (247); nondik nora dabilen (10); nondik nora doan (5); nondik nora doazen (6); nondik nora ibili (12); nondik nora jo (21); nondik nora joan (6); nondik nora joango (6); nondik nora joko (6); nondik nora nabilen (5); nondik nora zebilen (5); nondik nora zihoa (6)

nora begira (12); nora begiratu (19); nora bidali (6); nora bideratu (8); nora buruz (6); nora deitu (6); nora doa (20); nora doan (35); nora doaz (9); nora doazen (17)

nora edo hara (5); nora egin (11); nora egingo (5); nora ekarri (6); nora eraman (65); nora eraman zuten (9); nora eramanen (10); nora eramango (19); nora eramango duen (6); nora eramaten (10); nora ere (6); nora erfjord (5); nora eta (50); nora eta zertara (5); nora etorri (7); nora ez (26); nora eza (14); nora ezean (160); nora ezean bezala (5); nora ezean ibili (18); nora ezean ibiltzen (5); nora ezean zebilen (8); nora gabe (18); nora garamatzen (8); nora gindoazen (9); nora goaz (53); nora goazen (23); nora heldu (10); nora hoa (50); nora hoan (6)

nora ibili (13); nora ihes (6); nora ihes egin (5); nora iritsi (22); nora jakin (5); nora jo (123); nora joan (262); nora joan den (11); nora joan zen (13); nora joana (5); nora joanen (8); nora joango (68); nora joango gara (13); nora joaten (17); nora joko (15); nora joko duen (5); nora jotzen (5); nora nahi (9); nora nahi duzu (7); nora nindoan (14); nora noa (5); nora noan (14)

nora sartu (5); nora zihoa (41); nora zihoa (18); nora zoaz (107); nora zoazen (12); nora zoazte (19); nora zuzendu (7)

noraezean aritu (6); noraezean bezala (7); noraezean dabil (8); noraezean dabilen (7); noraezean geratu (6); noraezean ibili (32); noraezean ibili nintzen (8); noraezean ibili zen (7); noraezean ibiltzea (7); noraezean ibiltzen (6); noraezean zebilen (7)

norabait (orobat norabeit g.er. eta norapait g.er.) 1 adlag tokiren atera. ik nora 3.

Boluntario eskaintzen nuen neure burua nonbaitetik edozer ekartzeko edo **norabait** edozer eramateko. Mirentxu Larrañaga

Deliberatu nuen **norabait** behar nuela mugitu, bazter ikuska ibiltzea ez dela kalte. Janbattit Dirassar

Lagun haiek **norabait** aldendu zirela. Gotzon Garate

Bestarik esateko astirik eman gabe, han abiatu zen Alex **norabait**. Fernando Morillo

-Aro hobea izan baliiz, Magali, joaten ahalko ginen itzuliño baten egiterat horrat **norabait**. Janbattit Dirassar

Norabait ihes egin, iskiluak eskutan hartu. Txillardeggi

2 (beste-ren eskuinean)

Gauzak jaso eta beste **norabait** joaten zen jendea. Koro Navarro

Eta orduan Mattek hemendik alde egin zuen beste **norabait** bizitzera, eta emakume harekin ezkondu zen. Mirentxu Larrañaga

Doazela ihesi beste **norabait** penitentzi bizitza egitera, Jainkoaren bedeinkapenaz. Askoren artean

Uilek, erabat izuturik, beste **norabait** begiratu zuen; lotsaturik zegoen, hanka zikin zeukalako. Juan Kruz Igerabide

Lehenago ere erabili izan duzu teknika bera, arreta beste **norabait** desbideratzeko eta metatutako tentsioa bat-batean botatzeko. Rafa Egiguren

Beste **norabait** eramanak izan behar dituzte ni iritsi eta laburrera. Koldo Izagirre

3 (izen gisa)

Harik eta, behin etzanda, burua zurrumbilo zirimolatsuan hasi zaidan arte, eta mehatxuka, amildegi beltzen batera herrestan eraman nahiko banindu bezala, **norabait** beldurgarrira. Mirentxu Larrañaga

4 norabaitera norabait.

Ondoren, bazkaltzera eramaten du **norabaitera**. Oskar Arana

Gure eginkizuna horixe baita: arte mein Korintonko agure zahar hark egiten zuen bezala, astoa **norabaitera** gidatzea, horra gure lantegia! Joxe Austin Arrieta

Lizarrako espetxean beste **norabaitera** eramateko edo askatasunean irteteko aitzakian aterako dituzte fusilatzerara daramatzaten presoak. Jokin Urain

-Justina, egidan mesedea beste **norabaitera** joateko negar egitera! Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bertze norabait (7); bertze norabait joanen (3); beste norabait (120); beste norabait begiratu (4); beste norabait eraman (4); beste norabait eramanen (3); beste norabait eramango (3); beste norabait eramateko (3); beste norabait eramaten (3); beste norabait joan (14); beste norabait joateko (4); beste norabait joaten (5)

norabait alde egiteko (3); norabait alde egiten (4); norabait begiratu (4); norabait begiratu zuen (3); norabait eraman (8); norabait eramanen (3); norabait eramango (3); norabait eramateko (3); norabait eramaten (4); norabait ihes egin (4); norabait iristeko (4); norabait joan (24); norabait joana (5); norabait joanen (3); norabait joango (3); norabait joatea (3); norabait joateko (8); norabait joaten (8); norabait joatera (3)

beste norabaitera (11)

norabaiteratu, norabaitera(tu), norabaiteratzen 1 da/du ad norabait joan; norabait eraman.

Gurasokeriaren bat ikusten baldin baduzu, espero ez zenuen doinuan edo gogoko izango ez zenituzkeen hitzetan [...], ez egin kasurik, eta ez **norabaiteratu**, ez du merezi eta, arrisku hori beti dago gainean. Pello Salaburu

Bizitzan aurkituko duzu maizki prozedurak ilunak izaten direla, orekarik gabekoak, eta horrek sulfuratuko zaitu, eta **norabaiteratu**. Pello Salaburu

2 (era burutua izenondo gisa)

norabako *izlag* noragabekoa.

Nondik sortzen ez zenekiten **norabako** ugari erakarri zuen urdaki errearen usainak. **Koldo Izagirre**

norabeit ik **norabait**.

norabide 1 *iz* norbait edo zerbait nora doan adierazten duen lerro zuzena; noranzkoa.

Hiriaren Harresiko Ate Handia zirkuituaren ekialdeko muturrean zabaltzen zen, baina hurrengoa ia hegoaldera begira zegoen, eta hirugarrena iparraldera, eta horrela hurrengoak ere, **norabide** batera eta bestera. **Agustin Otsoa**

Maite dut anitz eremu hori, lau **norabide** kardinaletara irekia baita lurrez, airez eta itsasoz. **Ana Urkiza**

Zure esku dago tranbiaren **norabidea** aldatzea. **Askoren artean**

Funtsezkoa da haizearen **norabidea** aztertzea. **Bernardo Atxaga**

Eskopetaren mira txikia ikusi du lehenengo, eta miraren **norabideari** jarraika zuzenean anaiaren begiak gero. **Pako Aristi**

Nire **norabide** berean zetorren, urrats luze astitsuz. **Juan Garzia**

Zergatik hazten da belarra eguzkiaren **norabidean**? **Askoren artean**

Aurkako **norabidean**, bide nagusian, zuriz jantzitako gizon bat ikusi dut. **Urtzi Urrutikoetxea**

Eskua luzatu zuen bere begiradaren **norabide** berean. **Bernardo Atxaga**

Lurraldeko puntu jakin batetik abiatzen bagara **norabide** guztietan urruntzeko, ikusiko dugu **norabide** bakoitzean desberdintasunak gehituz doazela, era desberdinez **norabidez norabide**. **Isabel Arrigain**

Norabiderik gabe ibili, irtenbiderik gabe atera, zereginik gabe jardun. **Lourdes Oñederra**

Hasieran, ekialderago zegoen bidea **norabide** berean zihoan, baina gero desbideratu egin zen. **Agustin Otsoa**

Bere atek **norabide** guztietan doazen errepideetara zabaltzen dira. **Iñaki Mendiguren**

Norabide bat adierazten du zuzenkiak. **Jon Muñoz**

Norabidearen zentzua erabat galdua nuen ordurako, labirinto batean nengoela ulertu nuen. **Jon Alonso**

Norabide guztiak kalkulatu dituzu? **Josu Zabaleta**

Espazioa **norabide** guztietan mugarik gabea izatea nahi du Euklidesek. **Jon Muñoz**

Kalkulu diferentzian murgildua, haize-arrosaren **norabide** hartan oso urruti iritsiko zela pentsatzen hasia zen Ruche jauna. **Jon Muñoz**

Zati honetan errepideak, **norabide** bakoitzean, bi errei izango ditu. **Berria - Euskal Herria**

25 tren dira **norabide** bakoitzean. **Berria - Euskal Herria**

Norabide galarazia duen kale batetik sartzen ikusten dugu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 irud/hed

Atea ireki zuenean, bere bizitzak **norabide** berri eta harrigarri bat hartu zuen. **Oskar Arana**

Bizi-iturriaren jarioa mehetzen hasten delarik, eta gogoia urritzen, orduan hasten baita bat bizitzeko arrazoi bilerak, eta, esan ohi duten bezala, zentzu baten bila, eta **norabide** baten bila. **Iñaki Segurola**

Eta lau **norabide** hartzen: ongia eta gaizkia, bizia eta heriotza. **Elizen arteko biblia**

Berehala, prozesua alderantzizko **norabidean** gertatuko da. **Isabel Arrigain**

Gure gizartea **norabide** aurrerakoian bideratzeko. **Iñaki Heras**

Mutazioek ez dute **norabide** finko bat izaten. **Berria - Gaiak**

Zenbat aldiz huts egingen ote dut **norabide** xuxena? **Piarres Aintziart**

Idea bat besterik ez zen, ipuinaren hazia: idatzi izan banu auskalo zein **norabide** hartuko zuen narrazioak. **Iban Zaldua**

Gizarteak ba al dauka zientziak eta teknologiak hartu beharreko **norabideei** buruz iritzia ematerik? **Askoren artean**

Grosrouvreren gogoan, nonbait, **norabide** bakarrekoa behar zuen nahitaez komunikazioak. **Jon Muñoz**

Interkomunikaziorako eta **norabide** bakarreko fluxuen eraginak gaintzeko bide berriak. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Obraren argumentuak beste **norabide** bat hartzen duela konturatzen gara. **Iñaki Mendiguren**

Matematikariak ordu arte lan eginak ziren bi **norabide** desberdinak -ukitzaileak zehaztea eta azalerak kalkulatzeko- gertaera beraren bi aldeak ziren azken batean. **Jon Muñoz**

Baina harremanak alderantzizko **norabide** batean ere ezartzen dira. **Xabier Arregi**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zientzia ikertzeko "**norabide**-aldaketa" horrek zientziaren garapena zilegitzen duen razionaltasun-irizpideei buruzko eztabaida eragin du. **Askoren artean**

Lan horrek **norabide** aldaketa ekarri zion bizitzan bezala, idazketan. **Josu Zabaleta**

Bere erregela guztien **norabide**-lerro denak puntu baten biltzen direlarik bere bila. **Ibon Uribarri**

Kutsadura akustikoak ere **norabide** zentzua kentzen die [baleei] eta, noraezean, edonon hondartzen dira. **Joseba Sarrionandia**

Bost **norabide** sailen artean behar zuten hautu bat egin. **Herria**

2005/2006 ikasturteko **norabide** txostena eta aurrekondutak. **Herria**

Oso ideia egokia iruditut zait, hain zuzen, ermitaren ondoan, **norabide**-mahai borobil hori jarri izana. **Txillardeggi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi **norabide** (12); bost **norabide** (3); lau **norabide** (3)

norabide aldaketa (37); **norabide aldaketak** (3); **norabide aldaketarik** (7); **norabide bakarra** (8); **norabide bakarrean** (6); **norabide bakarreko** (12); **norabide bakarreko maitasuna** (4); **norabide bakarrekoa** (8); **norabide bakarrekoak** (5); **norabide bakoitzean** (14); **norabide bat** (42); **norabide bat eman** (4); **norabide bat hartu** (11); **norabide bat hartzen** (3); **norabide batean** (28); **norabide batean edo** (4); **norabide batetik** (5); **norabide bera** (4); **norabide berean** (61); **norabide berean doazen** (3); **norabide berri** (3); **norabide berria** (8); **norabide biko** (3); **norabide desberdinak** (3); **norabide desberdinetan** (3)

norabide egokia (9); **norabide egokian** (12); **norabide egokian emandako** (3); **norabide ezberdinetan** (3); **norabide guztietan** (23); **norabide guztietara** (3); **norabide hartan** (9); **norabide honetan** (4); **norabide hori** (10); **norabide horretan** (68)

norabide jakin (5); **norabide jakin batean** (3); **norabide jakinik** (5); **norabide jakinik gabeko** (3); **norabide nagusi** (3); **norabide nagusia** (3); **norabide nagusiak** (3); **norabide okerrean** (3)

norabide onean (7); **norabide politiko** (3)

norabide zehatzik gabe (6); **norabide zuzena** (6); **norabide zuzenean** (4); **zein norabide** (17); **zein norabide hartu** (9); **zein norabide hartuko** (4); **zer norabide** (10); **zer norabide hartuko** (5)

aurkako norabidea (4); **bizitzaren norabidea** (6); **gure norabidea** (3); **haizearen norabidea** (11); **hartu duen norabidea** (4); **itsasontziaren norabidea** (3); **kontrako norabidea** (3)

norabidea aldatu (41); **norabidea aldatu zuen** (6); **norabidea aldatuko** (6); **norabidea aldatuz** (3); **norabidea aldatzea** (7); **norabidea aldatzeko** (14); **norabidea aldatzen** (3); **norabidea aurkitu** (4); **norabidea erakusten** (3); **norabidea galduta** (3); **norabidea hartu** (10); **norabidea hartu zuen** (4); **norabidea hartuko** (3); **norabidea markatzen** (3); **norabidea zehazteko** (6); **norabidea zehaztu** (3); **norabidea zuzendu** (6); **norabidea zuzentzeko** (3); **norabidea zuzentzen** (4)

partidaren norabidea (5); **pilotaren norabidea** (3); **politikaren norabidea** (4); **taldearen norabidea** (6); **trabiaren norabidea** (3)
bi norabideak (4); **norabideak finkatu** (4)
aurkako norabidean (8); **bakearen norabidean** (3); **beste norabidean** (5); **bilboko norabidean** (6); **bilborako norabidean** (11); **bilboranzko norabidean** (5); **donostiako norabidean** (7); **donostiako norabidean** (10); **eguzkiaren norabidean** (3); **gasteizerako norabidean** (4); **irungo norabidean** (5); **kantabriako norabidean** (3); **konponbiderako norabidean** (3); **kontrako norabidean** (85); **kontrako norabidean egin** (3); **kontrako norabidean joan** (5); **kontrako norabidean zetorkion** (3); **kontrako norabidean zihoa** (5); **lapurdirako norabidean** (5); **madrilerako norabidean** (5); **nahi duen norabidean** (3); **norabidean abiatu** (3); **norabidean doazen** (3); **norabidean jarri** (5); **norabidean jartzeko** (3); **norabidean joan** (6); **norabidean zetorkion** (3); **norabidean zihoa** (10); **norabidean zihozen** (4)
norabideari eusteko (3)
bi norabideetan (8)
bi norabideko (4); **kontrako norabideko** (4)
bi norabidekoa (4)
norabiderik gabe (17); **norabiderik gabeko** (7)
bi norabidetan (7); **edozein norabidetan** (3); **zein norabidetan** (5); **zer norabidetan** (7)
kontrako norabidetik (4)
norabidez aldatu (10); **norabidez aldatzeko** (4)

norabideratu, norabidera(tu), norabideratzen du *ad* norabide jakin bat harrarazi. ik **orientatu 4**; **norabidetu**.

Argi dago niretzat, nire barruan, nik, gogoak, nire adimena **norabideratzen** dudala; nire nahimenari agintzen diodala; eta nire oroimena gidatzen dudala. **Jenaro Garate**

Frantziarrak daukaten benetako botere batez oharu dira, hau da Europaren erakuntza **norabideratzen** ahal zutela eta, euren hautu egitearekin, 450 milioi europarren etorkizuna baldintzatzen ahal dutela. **Berria - Harian**

Izan ere, liburuan agertzen denez, eguzkiari buruz **norabideratu** harriek hizkera sinplea dute beti. **Berria - Kultura**

norabidetu, norabide(tu), norabidetzen 1 da *ad* orientatu.

Korridoreko argia ez zen aski etxe ezezagunean **norabidetzeko**. **Aingeru Epaltza**

• 2 du *ad* norabideratu. ik **zuzendu**.

Maitasun jakintsuak **norabidetzen** du gizakiaren funtsezko bulkoa kanpoko gauzetatik urruti. **Joan Mari Lekuona**

Hitz horren formak, hitz horrek nahitaez jarraitu behar duen bilakaeraren aldi jakin bat adieraziko du; bilakaera hori lege zehatzek **norabidetu** egongo da. **Isabel Arrigain**

Badira sofrikarioen bizipen hain harrigarri eta neurrigabekoa dutenak, non ez berak ez beste inork ez baitezake **norabidetu** horrelako estualdian. **Joan Mari Lekuona**

Beti ordu da, azken oreneko langilearen gisan, urratsak ongi **norabidetzeko**. **Herria**

noradino ik **noraino**.

noraez (*orobat nora ez g.er.*) 1 iz norakorik eza, orientaziorik eza. ik **desorientazio**.

Eta hor dabilta txindurriak ere, atzera eta aurrera, gelditu gabe, itxuraz **noraez** zoroan baina izatez beren bizilekuak eraiki nahian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Edalontzi hustuari batbatean buelta eman eta euli bat harrapatu zuen barruan, eta euliak bere **noraez** zoroa jarraitu zuen kristalpean. **Joseba Sarrionandia**

Erdilotan, Nemesiok sentitu du Bixkiturriko geltokia igaro dutela; **noraez** gozoan ikusi du Marielexakoa ere atzean gelditzen. **Pako Aristi**

2 irud/hed

Sokratesekin eta, geroago, kristautasunarekin [...] agonia norberaren baitakoa da, ezinegona, **noraeza**, durduzadura ere esaten zaiona. **Askoren artean**

Heriotza tristea izan zuen andrazko hark: haluzinazioak, **noraeza**, paranoia eta hitz egiteko zailtasunak. **Berria - Harian**

Noraeza, ondoeza, harridura, isiltasuna nagusitu ziren ikusleongan. **Karlos Linazasoro**

Zer daukazu galtzeko, zeure bakardadea eta **noraeza** izan ezean? **Hasier Etxeberria**

Aitak burua jaso, eta haren begirakunean islatua ikusi nuen **noraezaren** betea. **Patxi Zubizarreta**

Gizartearen norabidea du kezka; gizartearen **nora ez** eroak literaturan duen eragina. **Ana Urkiza**

Jakinminez baino areago **nora-ez** horretatik ateratzeko, gelako atea ireki, pasillora atera eta han andre gazte bat ikusi zuen. **Matias Mujika**

Begiratzeko modua zuzena, argia zen, begiratuagan halako **noraez** bat sorrarazten zuena. **Iñaki Iñurrieta**

Laneko segurtasunaren egoerak «EAEko administrazioaren **noraeza**» adierazten duela. **Berria - Ekonomia**

Zapaterori, aldiriz, «**noraez** nazionalistari» aurre ez egitea leporatu zion. **Berria - Euskal Herria**

Egun eta gau **noraezean** galduak, eta amesgaiztoak: nazka, beldurra, amorrua eta odola. **Sonia Gonzalez**

3 (adizlagun gisa)

Egoitzari azken soa bota zion, eta mendebalera jo zuen, **noraez** oraino. **Itxaro Borda**

Noraez, han berean abandonatu ziren. **Itxaro Borda**

noraezean ik **nora 5**.

noraezik ik **nora 6**.

noraezitis *iz adkor cf noraez*.

Atseginaz sartuko nintzateke janaria gordetzeko erabiltzen dugun hozkailu horietako batean, eta esnatu ez, harik eta, zenbait hildakorekin egiten den bezala, beren gaixotasunerako -oinaze afektiboa, **noraezitis** -sendabidea topatzen duten arte. **Patxi Zubizarreta**

noragabe 1 *izond* helbururik ez duena, nora gabe dabilena.

Motxila handiak eta janzerak salatzen dute mendizalea, ez paseatzaile **noragabearen** ibilerak. **Aingeru Epaltza**

Bere anaiaren ibilera **noragabeak**. **Pako Aristi**

Baietz egin zuen keinuz, buruko mugimendu **noragabe** batez sarrerako pasiloa seinatzen zuen bitartean. **Jon Alonso**

2 (-en atzikiaren eskuinean, izen gisa)

Bakoitza bere baitan bildurik doa, hotzari kontra egiteko jantzi dituzten xamarra lodiek egungo haien bizitzaren **noragabeaz** ere babestuko bailituzten. **Pako Aristi**
Lan finkoa edo ezkontza medio, taldeko gainerako partaideok arrastoan sartu ahalean. Charlyren **noragabeak** halako kutsu deser osoa ere hartu zuen noizbait. **Aingeru Epaltza**

3 ik **nora 7**.

4 **noragabea** ik **nora 8**.

5 **noragabeko izlag** noragabea.

Triesten bizi izan nuen **noragabeko** nahasmen hartan ere, destinoak Nerinaren gaueroko bisitak eta Umbertoren ia egunerokoak jarri zizkidan bidean. **Anjel Lertxundi**
Askatasunak manifestazioa antolatuko du Baionan, martxoaren 13an, «Frantziaren **noragabeko** errepresioa» salatzeko. **Berria - Euskal Herria**
Eguneroko bizitzaren eta munduko gurpili **noragabeakoaren** arteko kontraesanen liseriketa astunak tripako mina ematen badigu ere, [...]. **Berria - Kultura**

noragabeki *adlag* nora gabe.

Noragabeki zabilta, ezker edo eskuinari buruz joateak axolarik ez dizula. **Xabier Montoia**

noragabetu, noragabe(tu), noragabetzen **1 da/du ad** nora gabe gertatu. ik **desorientatu**.

Zu, berriz, mugimendu jarraitu hark izutua, **noragabeturik** gelditu zinen, lege kontuetan sasiko nenbilela erabat sinetsita. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Biziaren basamortuan **noragabeturik** eta ezbaian ibili ostean. **Patxi Zubizarreta**
Klara **noragabetua** idurikatu nuen, trenputxartua beti, etxera itzuli ezin edo lantokian sartzen ahal ez zela. **Aingeru Epaltza**
Harmailetako ekaitzpean, hotziduak eta **noragabetuak**, jitoan, naufrago apurtuen gisa, baina bizirik! **Karlos Linazasoro**
Hotzikarak hotzikaren atzetik sumatzen zituen Mirarik bere baitan, negar egin nahiaren eta urduritasunaren artean **noragabetuta**. **Fernando Morillo**

2 (era burutua izenondo gisa)

Bizitoki faltan, bere ibilbide **noragabetuari** lotu zitzaion. **Patxi Zubizarreta**
Bere begitartea, lehenago bete eta horikara, zimeldua ageri zen, matrailezur irtenekin, larruazal zurixkarekin, eta, kopeta bete kezka azpian, bere begi orain dirdaigabeek halako aurpegiera etsitu, **noragabetu** eta akitua nabarmentzen zuten. **Patxi Zubizarreta**
Bapore **noragabetua** tifoia hustutako portuan. **Aingeru Epaltza**
Espazioan atomo **noragabetu** bat nola, halatsu durduzutzen zen. **Patxi Zubizarreta**

noragaldu *izond*

Noragaldua sentitu zen une batez, hala ere, Brown jauna, zein arrastori jarraitu ongi ikusten ez zuela. **Karlos Linazasoro**

norahaize *iz*

Ez zara deusetara helduko edo sortu zarenean urkatu behar zintudan errepikatzen diete eta ele makur horiek gero, **norahaize** -ikur, baliatuko dituzte egunero. **Itxaro Borda**

norahara ik **nora 9**.

noraino (*orobat noradino g.er.*) *adlag*

1 **norainoko izlag**

Lehia egin zidaten begiekin, ea **norainoko** gizona ote nintzen apustu eginez bezala. **Edorta Jimenez**
Norainoko nafarra zen, bertalde, Nafarroako erregea? **Aingeru Epaltza**
Norainoko hutsalkeria, zikoizkeria, doilorkeria eror daitekeen gizakia! **Jose Morales**
Zer biziera ilunean eta **norainoko** arriskueta ahitzen zaigun duen luzera duelako denbora hau! **Xabier Amuriza**
Egia da ondoren ezustean harrapatu zituela mundu guztiko gobernuak, ikusirik **norainoko** indar autonomoa har dezakeen sistema honek. **Pello Salaburu**
Haiek zituzten lekuko mozkinen baliatzeko arauak finkatzen, nolako baldintzetan ziren herri horietako behiak, ardiak eta zerriak bazketara joaiten, **norainoko** egur egiteko dretxoak zuten. **Michel Oronoz**
Norainokoa da egiten duten kaltea? **Berria - Gaiak**
-Geria mugitu zuen ezker-eskuin, gorputzaren malgutasuna **norainokoa** zuen ikusteko-. **Anjel Lertxundi**
Jakingo bazenu Errege-Mendiko baso itxi horrek ematen didan nahigabea **norainokoa** den! **Felipe Juaristi**
Hilabeteak iraun zituen erasoak, eta soldadu alemaniarrek haien egoera **norainokoa** zen txarra, krudela eta itxaropengabea kontatzen zieten euren senideei, euren emazteei. **Pako Aristi**
Aitaren barrabilak **norainokoak** ziren jakin zuen Joseluk, eta baita gibela ere, eta esku zabaltasuna. **Josu Landa**
Datuak elkarren artean erkatzen ditugunean konturatzen gara **norainokoak** diren injustizia hauek: urtero-urtero 7,7 milioi ume jaioberri hiltzen da, eta heriotza hauetako % 98 garatzen ari diren herrietan gertatzen da. **Pello Salaburu**

2 (izen gisa)

llobari haren etorkizuneko betebeharren **norainokoa** ikusarazteko garaia iritsia zela. **Monika Etxebarria**
Colinek bere lanari nahita ematen dion hipotesi-izaera horrek ez du aukerarik uzten ikerketa horren **norainokoa** juzgatzeko. **Josu Zabaleta**
Europako gobernu eta estatuburuak NBERen eginkizunaren **norainokoa** eztabaidatzen hasiberriak direla zabaldu zuten atzo iturri diplomatikoek. **Berria - Mundua**
Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Eusko Legebiltzarraren erabaki eskubidearen **norainokoaz** ikuspegi kontrajarriak agertu zituzten batzuek eta bestek. **Berria - Harian**

3 **nondik norainoko izlag**

Eta **nondik norainoko** mapa, gainera! **Pello Zabala**
Hark adieraziko dio ariman ze artesi edo pitzatu klase daukan eta **nondik norainoko**. **Iñaki Segurola**
Atzo ziren negoziatzekoak kanpainaren propaganda **nondik norainoko** izan daitekeen PAN Palestinako Agente Nazionala eta Israelgo Gobernu. **Berria - Mundua**

4 (izen gisa)

Izendatze modu herritar baten ume dena eta ezin nolana izenez dei dakiokena, huraxe baitu izen semantiko eta intensional berekia, bere zertasuna (ez **nondik-norainokoa**) aditzera ematen duena. **Iñaki Segurola**
Baserri-aldea zen mintzagai: herri-hustearen **nondik-norainokoak**, iraganetik gaurdainoko laborantza norabideen aipamenak. **Herria**

5 **nondik-norainokotasun iz**

Estatuan izenik [...] ez dute, bistan denez, intensiorik, ez diote ezer eta dute beren baitan funtsik, izaterik edo zertasunik; estensio, eremu edo hedadura huts dira, ez dute **nondik-norainokotasuna** beste tasunik. **Iñaki Seguro**la

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo noraino (3); **batek daki noraino** (4); **begira noraino** (3); **ez daki noraino** (3); **ez dakigu noraino** (6); **ez dakit noraino** (11); **ez zekien noraino** (3)

noraino den (8); **noraino diren** (5); **noraino hedatzen den** (4); **noraino hel daiteke** (4); **noraino heltzen den** (4); **noraino iristen den** (20); **noraino iristen diren** (3); **noraino iristen zen** (4); **noraino irits daitezkeen** (5); **noraino irits gaitzezkeen** (3); **noraino irits zitezkeen** (6); **noraino iritsiko den** (5); **noraino iritsiko zen** (3); **noraino joan daitezkeen** (3); **noraino joan gaitzezkeen** (3); **noraino zabalduko den** (3)

nondik norainokoa (4); **norainokoa den** (13); **norainokoa zen** (8)

norainoko ik noraino 2.

norako 1 adlag zer tokitarako.

Norako ? **Unai Elorriaga**

-Eta gu, **norako** ? -galdetu zuen Romanek orduan. **Inazio Mujika Iraola**

Baina **norako** , maniobrari jauna? **Fernando Rey**

Ea **norako** zituzten mandioko hemeretzi lagun haiek. **Inazio Mujika Iraola**

Esan zieat **norako** zen eta, honek oso ondo hartuko omen dik. **Pablo Sastre**

Joera **norako** , hara joaten baita beti. **Josu Zabaleta**

• 2 izlag

Handik aterata, askori sumatzen nien **norako** bidea zeramaten. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Azken momentuan, gorputza utzi eta beste zerbaite bihurtzen ari zen bitartean, auskalo **norako** bidean. **Harkaitz Cano**

-Norako asmoan zabilta? -galdegin zion gazte arabiarrek. **Xabier Aranburu**

3 iz norabidea, joera.

Maisuak nire begiradaren **norakoa** ikusirik, harexeri jarraitu zion. **Edorta Jimenez**

Zoriak aukeratzen du **norako** bakoitza, halabehararren menpe dago erabaki bakoitza. **Oskar Arana**

Norako jakinik gabe abiatu zen hirian, eta porturaino joan zen. **Xabier Aranburu**

Norako garbirik gabe nindoan-eta sokatik zintzilik leku ilun hartan barrena. **Patxi Ezkiaga**

Dudan helburu bakarra, nire ontziaren **norako** ezinbestekoa. **Josetxo Azkona**

-Ongi etorri bedi gure hiri honetara, zalduneria ibiltariaren ispilu, artizar eta **norako** den hori. **Patxi Ezkiaga**

Inertzia hutsez, **norako** bat hautatu behar zuelako, eta **norakorik** ikusten ez zuelako. **Fernando Morillo**

Twilight Glow, *Dichotomy* eta *See you later* pieza berriek nire ibilbideari **norako** berria ematen diote. **Berria - Kultura**

4 nondik norakosup_1 izlag

Ez diola axola urak **nondik norako** bidea egiten duen. **Iñaki Seguro**la

Madrilgo udalak minibusa jarri zigun expressokideoi, goiz eder batean ez dakit **nondik norako** bidea eroso egin genezan. **Edorta Jimenez**

Nondik norakoa edo noiztik honakoa da "jainko" izeneko zera hori?; nongoa da, nondarra, zein etxetakoa?; non ditu zainak?; uretan jaio al zen?, airean?, surtan?, su-gainean?, lurrazpiko ikara batean?, gaitzean?, ezbizian? **Iñaki Seguro**la

Nondik norakoa dugu indeterminazioaren zera hori? **Iñaki Seguro**la

5 nondik norakosup_2 iz ik ibilera.

Erraparatzen al diozue ilargiaren ibilbide eta **nondik norakoari** ? **Pello Zabala**

Nire **nondik norakoez** aditu nahirik zegoelako berriro laxaturik, itsasoan ibilia eta eskolan ikasia nintzela azaldu nion. **Edorta Jimenez**

Raimundo Silvaren, Maria Sararen, gurutzatuen eta mairuen, Mogueimeren eta Ouroanaren joan-etorrien **nondik norakoa** behar bezala segitu ahal izateko. **Jon Alonso**

Lehenbizi asmatu zuten meteorologia alorreko tresna, haizearen norabidea, haizeen **nondik norakoa** seinalatuko zuen haize-orratza izan zen. **Pello Zabala**

Nire pozaren pozerako, berehala ohartu nintzen Öchlerren **nondik norakoak** ez zuela gure arteko harremana hoztu. **Anjel Lertxundi**

Izan ere, diru-aldagai eta kredituaren kontrolaren bidez, jarduera ekonomikoaren **nondik norakoan** eragitea posible baita. **Iñaki Heras**

6 nondik norakosup_3 iz zer-nolakoa; zertzelada.

Ezagunak zaizkit gauzen **nondik-norakoak** , sorkarien mota ezberdinak, garaien aldakuntzak. **Askoren artean**

Antoine Cabanne auzapezak eman zuen Pettan Iturraldearen ibilbidearen **nondik norakoa** . **Herría**

Agirre lehendakariak badaki Antonio Iralaren zereginen **nondik norakoa** , azken batean bigarrenak lehenaren aginduetara dihardu-eta. **Edorta Jimenez**

Lanaren **nondik norakoa** igartzen hasteko, puntu nagusiak identifikatzeko, loturak ikusteko, etab. giltza-kontzeptuek eta hitzek asko laguntzen dute. **Askoren artean**

Kode berriaren **nondik norakoak** . **Andres Urrutia**

Misioaren **nondik norakoa** azaldu zidan. **Edorta Jimenez**

Jendeak pasio handiz bizi eta eztabaidatzen zituen gerraren **nondik norakoak** . **Anjel Lertxundi**

Bidaiaren **nondik norakoei** buruz erabakita zeuzkanak argitu zizkien xehetasun ugari emanez, bai bideari zegozkionak, baita ekonomikoak ere. **Anjel Lertxundi**

Banekien zer zen Umberto, banuen haren sexualitatearen **nondik norakoan** susmoa. **Anjel Lertxundi**

Erdi Aroko pentsaeraren **nondik norakoa** , eta bertan filosofiak hartu zuen lekua ulertu nahi baditugu, [...]. **Askoren artean**

Zamape horretan, egunbetetsuko bizarra ferekatu nuen, Kristinaren hitzen **nondik norako** guztiak mamitu nahirik. **Aingeru Epaltza**

Azken orrialdeetako bibliografian osatu eta zehazten dira erreferentzia horien guztien **nondik norakoak** . **Iñaki Arranz**

Egoeraren **nondik norakoak** aztertzen. **Anjel Lertxundi**

Erakutsi beharra zuen gure bizitzaren **nondik norakoak** gu geu gaituela, aldez edo moldez, nobelagile. **Anjel Lertxundi**

Herder-en influentzia behin eta berriro aipatzen duen arren, ohi den eran, behin ere ez du argitzen influentzia horren **nondik norako** konkretua. **Joxe Azurmendi**

Halabeharrezko erabaki handiak, gure patuaren **nondik norako** nagusiak ezartzen dituztenak. **Ander Irizar**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auskalo norako (3); **nondik norako** (43); **nondik norako guztiak** (9); **nondik norako nagusiak** (12); **norako bidea** (3)

galderaren nondik norakoa (3); **gutziaren nondik norakoa** (4); **gutziaren nondik norakoa** (3); **haizearen nondik norakoa** (3); **nondik norakoa** (181); **nondik norakoa azaldu** (3); **nondik norakoa ikusita** (4); **nondik norakoa ulertzen** (3); **norakoa azaldu** (3); **obraren nondik norakoa** (3); **partidaren nondik norakoa** (13)

akordioaren nondik norakoak (3); **auziaren nondik norakoak** (5); **bidaiaren nondik norakoak** (4); **bileraren nondik norakoak** (3); **bizitzaren nondik norakoak** (3)

egitasmoaren nondik norakoak (6); **egoeraren nondik norakoak** (3); **egunaren nondik norakoak** (3); **ekimenaren nondik norakoak** (9); **elkarrizketaren nondik norakoak** (3); **ezbeharraren nondik norakoak** (5); **gatazkaren nondik norakoak** (8); **harremanen nondik norakoak** (3); **heriotzaren nondik norakoak** (7)

istripuaren nondik norakoak (13); **kanpainaren nondik norakoak** (7); **lanaren nondik norakoak** (5); **lanen nondik norakoak** (3); **liburuaren nondik norakoak** (5)

nondik norakoak (409); **nondik norakoak argitu** (15); **nondik norakoak argitze** (14); **nondik norakoak argitzen** (3); **nondik norakoak azaldu** (27); **nondik norakoak azaltzen** (3); **nondik norakoak azaltzeko** (20); **nondik norakoak azaltzen** (5); **nondik norakoak azaltzerakoan** (3); **nondik norakoak aztertu** (4); **nondik norakoak aztertuko** (4); **nondik norakoak aztertze** (11); **nondik norakoak aztertzen** (4)

nondik norakoak ezagutu (3); **nondik norakoak ezagutzeko** (4); **nondik norakoak ikertzeko** (4); **nondik norakoak ikertzen** (6); **nondik norakoak ikusita** (6); **nondik norakoak jakin** (5); **nondik norakoak jakiteko** (4); **nondik norakoak laburbildu** (3)
nondik norakoak ulertzeko (4); **nondik norakoak zehazteko** (4); **nondik norakoak zehazten** (3); **nondik norakoak zehaztu** (6); **nondik norakoak zehaztuko** (3)
obraren nondik norakoak (3); **operazioaren nondik norakoak** (4); **partidaren nondik norakoak** (7); **planaren nondik norakoak** (6); **programaren nondik norakoak** (3); **proposamenaren nondik norakoak** (3); **salerosketaren nondik norakoak** (3); **sorreraren nondik norakoak** (3)

norahahi *adlag*

1 norahahiko izlag

Beti hobe sentitzen nintzelako **norahahiko** billete bat sakelan. **Itxaro Borda**

Betiko eta **norahahiko** "ausweiss" bat sakelan, Luxembourg-eko lagun batzuei zor diedana, alde guzietara joaiten ahal naiz. **Marzel Etxehandi**

Lizardiki euskarari opa izan zion **norahahiko** bidetik. **Anjel Lertxundi**

-Zu bezalako karta-jokalari batek ezin du ezer egin bere halabeharrene kontra, **norahahiko** bideak dira zure eskuan ageri diren marrak ere. esan bailiteke gure egungo poesian dabilen joeren aniztasuna eta **norahahiko** asmoa ahalegin pertsonal hari zor zaizkiola. **Anjel Lertxundi**

2 (adizlagun gisa)

Esan nahi baita, euskara berpiztu nahi badugu, erabilera zabaleko, nonahiko eta **norahahiko** nahi badugu, hau da hizkuntza honek ordaindu behar duen kostua eta hartara makurtu beharko dugu euskaldunok. **Pello Salaburu**

3 iz norahahiko ibilgailua.

Emakume bat hil da Lezon, N-1 errepidean **norahahiko** bat jo ostean. **Berria - Euskal Herria**

Norahahikoa Espainiako Guardia Zibilarena zen. **Berria - Euskal Herria**

Suzuki markako **norahahiko** berde batek trafikoa arauen bat hautsi omen zuen, Emakumea hil egin zen eta **norahahikoa** zihoazen bi guardia zibil erietxera eraman behar izan zituzten. **Berria - Euskal Herria**

4 norahahiko auto

Norahahiko auto bat bidetik atera zen. **Berria - Euskal Herria**

Norahahiko autoaren eta autobusaren arteko istripuari buruz, autoaren gidariak bere ibilgailuaren kontrola galdu omen zuela azpimarratu du Foruzaingoak. **Berria - Euskal Herria**

5 norahahiko ibilgailu

Mendabian **norahahiko ibilgailu** batek eta autobus batek elkar jo zuten. **Berria - Euskal Herria**

G. gizonezkoa hil zen atzo goizeko 08:00ak aldera Asteasun, **norahahiko ibilgailu** batek harrapatuta. **Berria - Euskal Herria**

Zaratamon ikasleak ertzainen **norahahiko ibilgailuetan** iritsi ziren ikastetxera. **Berria - Harian**

NASAREN *Spirit* eta *Opportunity* **norahahiko ibilgailuek** «lan bikaina» egin dute Marten. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

norahahi hedatzen (3); **norahahi hoala** (3); **norahahi jarraitzen** (3); **norahahi joan** (4); **norahahi joanda** (6); **norahahi joanda ere** (6); **norahahi joanik** (3); **norahahi joateko** (3); **norahahi joaten** (7); **norahahi joaten zela** (3); **norahahi noala** (3); **norahahi zoazela** (4)

norahahiko ibilgailu (7); **norahahiko ibilgailu batek** (4); **norahahiko ibilgailua** (5)

norahahiko ik norahahi 2.

norahahira *adlag* norahahi.

Patiara, abokatuarengana, ikustaldietara edo **norahahira** irten aurretik biluztu egiten zintuzten ezer ez zeneramala ikusteko. **Jokin Urain**

norahahitar *adlag* norahahikoa.

Literatur lantegiak modan omen daude, eta, Iturrinoren ustez, horrek erakusten omen du Donsu Etxeko arduradun nagusiaren garaikidetasun **norahahitarra**. **Anjel Lertxundi**

norandrosterona 1 iz nandrolona giza gorputzean sartzean bihurtzen den gaia.

19- **norandrosterona** 2005ean gorputzak berez sortzen dituen sustantzien artean egongo da. **Berria - Kirola**

Norandrosterona 19rekin positiboa eman zuen, baina txostenak aurkeztu ditu, gorputzak eragin zuela frogatzeko. **Berria - Kirola**

Paoluzzik **norandrosteronarekin** eman du positibo eta Liornik stanozolekin. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan)

Norandrosterona tasa altua gorputzak eragina izan zen, eta hori frogatzeko hainbat azterketa, analisi eta txosten igorri zizkion. **Berria - Kirola**

norantz (*orobat norantza g.er. eta noruntz g.er.*) 1 adlag zer aldetarantz.

Harri familiarrak, nondik nentorren eta **norantz** nindoan ulertzen laguntzen zidaten harriak. **Bernardo Atxaga**

Badakizu **norantz** goazen? **Harkaitz Cano**

Norantz jo erabaki ezinik, kaleen izenak hirugarren aldiz ahoskatu zituen kontu handiz. **Lopez de Arana**

Ann Arbor utzi eta New Yorkera itzuli zen, hogeita zortzi urteko izar ohi bat arrastorik ere gabe **norantz** ote zihoan edo bizitzak **norantz** eramango ote zuen hurrengo. **Oskar Arana**

Orduan jakingo dut **norantz** duen joera, eta nora joango den. **Josu Zabaleta**

Aztertu nahi du zer esaten dioten, jakin nahi du non dagoen, begiratu **norantz** joan nahi duen... **Ana Urkiza**

Guk begiekin bakarrik ikus dezakegunez, horregatik gertatzen da, **norantz** begiratzen dugun, hango zer guztiak formaz eta kolorez jotzen gaituztela. **Xabier Amuriza**

Norantz bideratu? hurrengo pausok **norantz** eman lasai erabakitzeko. **Josu Landa**

Orratza **norantz**, bere iparra han. **Jenaro Garate**

2 norantzko izlag ik norantzko.

Norantzko bidea aukeratu behar du kolona blindatuak etsaiaren atzealdeari erasotzeko? ez daki zer erantzun. **Josu Zabaleta**

Jakin nahi izan zuen **norantzko** bidea hartu beharra zeukan hiririk irteko eta zenbat kilometrora zegoen kostaldea. **Joxemari Iturralde**

- Mentxuk amiñi bat laboratu zuen eskuarte albu, gaztearen begirada defingaitza **norantzko** ote zen jakitearren. **Josu Landa**

norantza¹ (*Euskaltzaindiaren Hiztegian **noranzko** agertzen da*) iz norantzkoa; norabidea.

Zelatari, **norantza** eta norabide antizeko. Harkaitz Cano
Bigarren problemaren tren bi aipatzen ziren, norabide berean baina **norantza** desberdinean jakina. Unai Elorriaga
Zirkulazioa arina zen Castellanan behera, hirigunerako **norantzan**. Ramon Saizarbitoria
Burdinbidea Hendaiarako **norantzan** ilunpetan nola galtzen zen begira egon zen denbora batez. Unai Iturriaga
Norantza berean gindoazen biok oinez. Harkaitz Cano
Bere nabigazioaren **norantza** ezartzen duen gutun zigiluz jotakoa. Jon Alonso

norantza² ik **norantz**.

noranzko 1 iz norabide batean higitzeko dauden bi eratako bakoitza.

Dancem konpainiak *Sentido único* ikuskizuna (**Noranzko** bakarra) eskainiko du apirilaren 1ean. Berria - Kultura
Trenaren mugimenduaren kontrako **noranzkoan**. Josu Zabaleta
Kontrako **noranzkoan**, hamaika ontzi igarotzen ziren uretan gora. Karlos Zabala
Ordulariaren orratzen kontrako **noranzkoan**. Ramon Saizarbitoria
Geziak ordainketen **noranzkoa** adierazten du. Koro Navarro
A-8 autobidean, Gasteizko **noranzkoan**, La Salleko bihurgunetik gertu. Berria - Euskal Herria
A-8 autobidean, Muskizeko *La Arena* zubian, Bilborako **noranzkoan** zihoazela. Berria - Euskal Herria
Abertzaleen Batasunak gogor salatu du A-63 autobideko bi **noranzkoetan** hiru lerro jartzeko xedea. Berria - Euskal Herria
Irakurketaren **noranzkoa** aldatuta ere, norabidea horizontaltasunean gordetzen da. Iñaki Arranz
Atzeka zegoen jarrita, trenaren **noranzkoari** bizkar emanez. Karlos Zabala
Hala, behin **noranzko** batetik jorik, galtzeko beldur bagara, kosta dakiguke norabidea aldatzea. Juan Garzia
Bi indar higitzaileek lerro berean egiten duten legez, puntu batetik **noranzko** kontrajarrian tira edo puntua sakatzen duten heinean. Ibon Uribarri
Hirugarren dimentsioa sakontasunarena da, hortaz, gorputza espazioan aurreratuz doan **noranzkoa**. Josu Zabaleta

2 irud/hed

Biologiak bi nozio berri dakarzkigu, kontrako **noranzkoetan** doazenak, paradoxa moduko bat osatuz. Juan Garzia
Urte horretan bertan ezarri ziren euroaren eta diru-mota nazionalen bi **noranzko** truka-neurri ezeztazina. Iñaki Heras
Igorleak aldatu ziren, jabetza ere bai, baina komunikazioak **noranzko** bakarrekoa izaten jarraitzen zuen: goitik beherakoa, alegia. Txema Ramirez de la Piscina
Ezin da baieztatu lan merkatuak **noranzkoa** aldatu duenik. Berria - Ekonomia

norapait ik **norabait**.

noratasun iz

Gauzak horrela, ez nator bat, eperraren sinbologiak, aurreko teoria guzietan jarraituz Mikel Azurmendi adiskideak "Euskal **Noratasunaren** Animaliak" izeneko liburuan dioenaz. Patziku Perurena

noratu, nora(tu), noratzen du *ad* aipatzen den norakoan zuzendu. ik **norabideratu**.

Charlyk arma odoloztatua nireganat **noratua** zuen orain. Aingeru Epaltza
Orduan, halako amorrua, halako erresumina, halako narda hartu dut, non "**Noratu** koldar horiengana!" agintzen diodan piketeari. Koldo Izagirre
"Isla de Luzon" deletreatu zuen dokar zaharrak espainiera txukunean zure aldamenean, largabista bafore sabelandi bati **noratua**. Koldo Izagirre
Kaio zuri-urdinxka mordo bat itsasertzean, Iparralderantz militarki **noratua**. Txillardegui
Barre egin zidan handik, eskua pistola eginda **noratzen** zidala. Koldo Izagirre
Eskuargia **noratu** nion. Aingeru Epaltza
Eskotilak zabaldu zituzten, zubi aurreko kanoia **noratu** ziguten. Koldo Izagirre

norbait (*orobat **norbeit** g.er.*) 1 izord

2 **norbeit izan** nor izan.

Ohore bat, **norbeit bazarela** adierazten duelako. Pako Aristi
Anaiari frogatzeko **norbeit nintzela**. Daniel Landart
- **Norbait izan** nahi diat mundu honetan, horixe duk esan nahi dudana. Lopez de Arana
Norbait izan nahi diat zinean eta bost axola zaidak nola lortzen dudana. Fernando Rey
Zerbait egingo dut, **norbeit izango** naiz, neure madrearentzat. Xabier Olarra
Bazirudien karrikara amildu aurretik **norbeit izana** zela, burges gustuak zituelako batik bat. Itxaro Borda
Lanpostu horrek dena konponduko du, zu **norbeit izango** zara, eta guretzat ohorea izango da. Karlos Zabala
Zeren ilobak gogoan izan behar baitu egun **norbeit bada**, niri zor didala. Bego Montorio
Franco bazen zerbait, **bazen norbait**, eta orain jendeak -ez Ameriketako edo Italiako jendeak, baizik bere jendeak, pontitoarrek- bera maite eta miresten zuen. Xabier Olarra
Ailegatu eta berehala **norbeit nintzen** gotorleku setiatuan. Aingeru Epaltza
-Zu **norbeit zara** haatik! Janbattitt Dirassar
Batzuetan bai, rugby partiden ondotik eta... bost minutuz hitz egiten nuen "**norbeit**" ziren batzuekin. Daniel Landart
Beraz Chilorentzat Arbelbide **norbeit zen**, eta konfidantza merezi zuen norbait. Xipri Arbelbide

Baina **norbait naiz** eta **norbait** ezdekak: **nire** **gaitasun** **arabera** **egin** **gura** **dit**, **hori** **baino** **ez** **du** **erak** **zaten**. **Urtzi Urrutikoetxea**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

antzeko norbait (6); **bazen norbait** (6); **bertze norbait** (12); **beste norbait** (172); **bezalako norbait** (7); **etxeko norbait** (8); **hurbileko norbait** (5); **izeneko norbait** (5); **kanpoko norbait** (6); **maite duzun norbait** (6)

norbait agertu (8); **norbait agertuko** (10); **norbait agertzen** (5); **norbait ari** (15); **norbait ari zen** (7); **norbait aurkitu** (8); **norbait bizi** (10); **norbait bizirik** (6); **norbait da** (11); **norbait dabil** (5); **norbait dago** (7); **norbait dagoela** (6); **norbait dela** (7); **norbait edo zerbait** (7); **norbait egon** (9); **norbait etorri** (11); **norbait etorriko** (6); **norbait ezagutu** (12); **norbait ezagutzea** (6); **norbait ezagutzen** (6); **norbait falta** (6); **norbait hil** (32); **norbait hiltzea** (13); **norbait hiltzeko** (12); **norbait hiltzen** (42); **norbait hiltzen denean** (13); **norbait hori** (31); **norbait horrek** (15); **norbait horren** (5); **norbait hura** (5); **norbait ikusi** (14); **norbait ikusten** (10); **norbait irakurtzen ari** (8); **norbait izan** (25); **norbait izanean** (5); **norbait izango** (12); **norbait izatea** (5); **norbait jo** (5); **norbait joan** (5); **norbait kontratatu** (6); **norbait maite** (12); **norbait sartu** (16); **norbait sartu zen** (7); **norbait sartzen** (7); **norbait sumatu** (5); **norbait zebilela** (5); **norbait zegoela** (7); **norbait zegoen** (8); **norbait zela** (7); **norbait zen** (7); **norbait zerbait** (6); **norbait zetorren** (5); **zerbait edo norbait** (6)

bertze norbait (6); **beste norbait** (116); **kanpoko norbait** (7); **noizbait norbait** (6)

norbait **atea jo** (5); **norbait** **behar** (7); **norbait** **bere burua** (5); **norbait** **deitu** (8); **norbait** **deitzen** (5); **norbait** **egin** (19); **norbait** **eman** (6); **norbait** **erabaki** (6); **norbait** **eraman** (7); **norbait** **erran** (19); **norbait** **esan** (52); **norbait** **esan dezake** (10); **norbait** **esan zuen** (10); **norbait** **esango** (14); **norbait** **esango balu** (6); **norbait** **esaten** (8); **norbait** **galdetu** (7); **norbait** **hartu** (12); **norbait** **hil** (7); **norbait** **idatzi** (5); **norbait** **ikusiko** (8); **norbait** **jo** (5); **norbait** **maite** (5); **norbait** **nahi** (11); **norbait** **oihu egin** (8); **norbait** **ordaindu** (6); **norbait** **ordaindu behar** (5); **norbait** **pentsa** (6); **norbait** **salatu** (10); **norbait** **uste** (15); **norbait** **zerbait** (26)

pentsa dezake norbait (5); **zerbait** **edo norbait** (5)

beste norbaitekin (53); **norbaitekin ari** (5); **norbaitekin ezkondu** (5); **norbaitekin hitz egin** (7); **norbaitekin hitz egiteko** (6); **norbaitekin hitz egiten** (6); **norbaitekin hizketan** (7)

bertze norbaiten (7); **beste norbaiten** (75); **beste norbaiten bila** (5); **beste norbaiten esku** (7); **dagoen norbaiten** (6); **den norbaiten** (27); **duen norbaiten** (12)

norbaiten ahotsa (6); **norbaiten aurrean** (10); **norbaiten beharra** (9); **norbaiten bidez** (5); **norbaiten bila** (40); **norbaiten edo zerbaiten** (5); **norbaiten esku** (12); **norbaiten hitzak** (7); **norbaiten kontra** (10); **norbaiten laguntza** (11); **norbaiten zain** (13); **zerbaiten edo norbaiten** (6)

beste norbaitena (13)

beste norbaitentzat (7)

norbait **norbaiti** (78); **den norbaiti** (5); **duen norbaiti** (13); **norbaiti buruz** (13); **norbaiti eman** (6); **norbaiti ematen** (6); **norbaiti esan** (5); **norbaiti kontatu** (5); **norbaiti mendekatu** (5); **norbaiti zerbait** (8)

norbaitzuk *izord pl* pertsonez mintzatuz, batzuk.

Barnean norbait edo **norbaitzuk** tira ahala ari dira. **Aingeru Epaltza**

Beraz, **norbaitzuk** baldin badaude hara joan nahi dutenak, zutitu eta jar daitezela talde batean bereiz. **Askoren artean**

Eta senideek edo beste **norbaitzuek** ahizparen bati zerbait bidaltzen badiote, abadesak helarazi biezaio. **Askoren artean**

Eta horra hor non, norbaiti, **norbaitzuei** gustatu egin zaion haren lana. **Pako Aristi**

Hori da bizitzan aurki daitekeen Hirutasun Santu bakarra: ez alferrik galtzea, zerbaitetan ona izatea eta (amarenaz at) norbaiten edo **norbaitzuen** maitasuna jasotzea.

Pako Aristi

norbakoitz *iz* norbanakoa.

Norbakoitza bere bakoitzasun setiatuan larri. **Askoren artean**

Manipulazio txiki bat nahikoa da, arrazoirik antimetafisikoena tesi metafisiko bat bihurtzeko: dinkak ez dago, beraz ez dago gizakia besterik (edo: **norbakoitza** besterik) -deus axola gabe zein ikaragarri problematikoa den bi hauek berdintzeko jauzi metafisikoa, indibidua/gizakia, dinkatik pasa gabe. **Joxe Azurmendi**

norbanakako *izlag*

Supazterra galtzera zihoan ordea, etxebizitza **norbanakako** eta hedabide askotariko mundu hartan. **Andoni Egaña**

norbanako (*337 agerraldi, 33 liburu eta 136 artikulutan*) *iz* gizabanakoa.

Nire zibilizazioa Gizonaren gurtzan oinarritzen da, **norbanakoen** bitartez. **Josu Zabaleta**

Baina historia arrazak egiten du -Hegel-engan izpiritu objektiboak bezala-, ez **norbanakoek**. **Joxe Azurmendi**

Gizarte kohesioa eta gizarte kapitala indartzea, herri eta **norbanakoen** berezko kultur erreferenteak indartzea, horiexek dira gobernu arduratsu batek etorkizunera begira egin ditzakeen inbertsioak. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Asmoa Nafarroako eta Euskal Herriko **norbanako** eta erakunde abertzale eta aurrerakoiekin lan egitea da. **Berria - Euskal Herria**

66 alderdi politiko, 25 **norbanako** independente eta bederatziko koalizio saiatuko dira Legebiltzarreko 275 aulkietatik ahalik eta gehien eskuratzen. **Berria - Mundua**

Gure eskualdeko alderdi, sindikat eta ingurumenaz arta duten erakunde publiko eta **norbanako** guzieri. **Herria**

Lege zibilek arautzen dituzte harreman naturalak eta konbentzionalak, aginduzkoak nahiz borondatezkoak, nahitaezkoak zein komenentziazkoak, **norbanako** guztiak beste

norbanako batekin edo batzuekin lotzen dituztenak. **Oskar Arana**

Norbakoen arteko harremanak arautzen dituzten konbentzioen indarrez. **Josu Zabaleta**

Eginbide oro, nolabait, zibila zen, eta **norbanako** bakoitzak egin zezakeen. **Iñaki Iñurrieta**

Lege guztiak **norbanakoei** edo ondasunei dagozkie. **Andres Urrutia**

Norbakoen eskubideei dagokienez, eredu eta inbidiarri izan da beti, Espainiaren aldean, Frantzia. **Joxerra Garzia**

Eskubide zibilak ere, beretik datozkio **norbanako** herritar horri. **Andres Urrutia**

Norbakoak bere burua sakrifikatu beharra du kolektibitate baten salbamenerako, baina hau ez da aritmetika ergel bat. **Josu Zabaleta**

norbanakotasun *iz* norbanakoa izateko nolakotasuna. ik **gizabanakotasun; indibidualismo.**

Norbakotasunak pisu handiagoa du egun, eta kirola askoz profesionalagoa da. **Berria - Kirola**

Norbakotasuna eta bakardadeari loturiko gaur egungo hiritarren bizimodua. **Berria - Kultura**

norbedera *izord* norbera. ik **batbedera.**

Bi perpausak frantsesez erran zütuan prefosta, bona ützülpena ezinago aisa egin diro **norbederak**, hitzez-hitz. **Herria**

Norbederak bere heriotza hautatzean, denik eta askatasun adierazpenik handiena du gauzatzen. **Jose Angel Irigaray**

norbegiar ik **norvegiar.**

norbera 1 *izord* hitz egiten ari dena bera, edo aipatu den hura bera. ik **nor**; **batbedera**.

Norbera hustea ere bada hustea: estalkia altxatzea, nork bere burua abandonuan uztea, maskara kentzea. Joxan Elozegi

Batzuetan besteak ez, baina **norbera** da bere buruarekin harritzen eta haserretzen dena. Patxi Zubizarreta

Gogorra zela **norbera** jaio den etxeari tiro egitea, jakinik-eta etxe hartan dagoela oraindik ere aita, ama eta familia guztia. Inazio Mujika Iraola

Eskarmentuz dakit, **norbera** sasoiatsu ez dagoenean, emakumeek ere ez diotela beren sasoiari eusten. Joxe Austin Arrieta

Adin batetik aurrera, ez da **norbera** izaten ohiturak hautatzen eta erabakitzen dituen. Hasier Etxeberria

Zenbait morroi **norbera** bezain gaizki edo okerrago dabilela egiaztatzeak lasaitu egiten du barrua. Markos Zapiain

Ezin al du **norberak norbera** izan? Pako Aristi

Norbera norberaren aurka, barnea kanpokoaren aurka. Felipe Juaristi

Zuzena al da lagun hurkoari gaitz egitea, **norberak** atsegin hartzeko? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Besteek ere irabazi beharra zeukaten, ez **norberak** bakarrik. Joseba Zulaika

Egokia dela [...] orobat, haren poesiaren arabera taiutzea **norberak** bere bizitza. Askoren artean

Norberak berea dauka. Harkaitz Cano

Herbertek eta biok elkarri begiratu genion: biok, nonbait, **norberak** baino besteak esatea nahiago, zera, jeep baten zain geundela. Joxe Austin Arrieta

Ez jokatu han orain hemen bezala, **norberari** iruditzen zaion moduan. Elizen arteko biblia

Musika horri lotuta beste milaka batzuk daude, **norberarekin** bat egiten dutenak, **norberaren** tamainara egokitzen direnak. Felipe Juaristi

Bitartean, batzordekideek **norberarentzako** egoitza eder bana egin zuten hiriko beste alderdi batzuetan. Jose Morales

Norberarenganako konfiantza beharrezko jarrera da inprobisatzaile, *repentista* edo bertsolariarentzat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

2 **norberaren** ik pertsonal.

Azalpen edo uste nabarmenki zentzugabea, **norberaren** iritziekin gaizki lotzen dena, alegia. Xabier Olarra

Norberaren interesen alde jokutzen. Juan Martin Elexpuru

Handinahia, harropuzkeria, **norberaren** interesak besterik ez ikustea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Drogek oztopatu besterik ez dute egiten yogaren bidea, eta alderantzizko norabidetik eraman gaitzakete, **norberaren** suntsipeneraino. Juan Kruz Igerabide

Norberaren erantzukizuna.

Guztien ongia ezarri zuten jokabidearen xede nagusizat **norberaren** onaren gainerik, hala mundu honetan nola etorkizunekoan. Iñaki Mendiguren

Gauza bera pentsatu behar da bizimodu guztietan, **norberaren** izakerari eta bizibideari dagokiona begiraturaz. Patxi Altuna

Handik ateratzen ditu **norberaren** izuen bazka eta elikagaiak. Felipe Juaristi

Zehatz-mehatz adierazirik zegoen bakoitzak nor zuen ama eta nor aita, eta nolakoa zen **norberaren** jokamoldea. Jose Morales

Etxebarrietaren garaian **norberaren** sakrifizioa egitasmo heroikoa zen. Joseba Zulaika

Zalantzarri gertatzen da beti, noski, ausarkeriaz buruturiko **norberaren** zein besteren egintzen epaia. Juan Garzia

Gertaerak erregistratzeko **norberaren** metodoak hobetzea da oroimena hobetzea. Irene Aldasoro

Defentsa legitimoa - **norberarena** edo lagun hurkoarena -. Joxe Azurmendi

Pertzepzioak, **norberarenak** dira beti. Iñigo Aranbarri

3 **norbere** izlag norberaren.

Ez dago **norbere** kezka eta pentsamenduak koaderno batean idaztea bezalakorik. Harkaitz Cano

Gehiegixto eskatzea bailitzateke jaten eta ostatu emateagatik ordainaraztea **norbere** aitari, arrotz bat balitz bezala. Mirentxu Larrañaga

Fanatismoari kontra egiteko (eta **norbere** burua ondo gobernatzeko) emandakoa koplari gabe jaten ikastea bezalakorik ez dago. Iñaki Segurola

Uste dut "**norbere** buruaren herra edo hisia", deitzen dutela, ingelesez, psikologo batzuek higuindura berezi hori. Piarres Xarriton

Ondorioz, "jakitea" **norbere** buruaz oharreza dela onartzen badugu, Jainkoarengan bizitzea eta jakitea gauza bera dira. Xabier Kintana

Paperean finkatu ahala gertakari haiek historia bihurtzen baitira, eta **norbere** buruarekiko identitatearen sentipena gizentzen hasten. Xabier Mendiguren Elizegi

Norbere sinesmenei uko egitea, autokritika, jendaurrean barkamena eskatzea. Oskar Arana

Norbere herrialdea eta **norbere** euskalkia izan da, gehienbat, ahaleginaren helburua, ez Euskal Herria eta euskararen osotasuna. Koldo Zuazo

· Horregatik, hemendik aurrera funtsezkoa izango da etorkizunaren jabe izan nahi duten eragile eta herritarren aktibazioa, inoiz baino gehiago tontorra egiteko aukera

norberen indar eta ausardiaren arabera izango baita. Berria - Harian

4 **norberetzko** izlag norberarena.

Norberetzko ahalegin zakarrez tematzen dira Jainkoa menperatzen, jakinik Jainkoa ez dela inoren esanera jartzen, baizik eta bete-betean eskaini egiten dela. Joan Mari Lekuona

Ahalegintzen dira Jainkoa etor dadin beren nahikundeak zerbitzatera eta Jainkoak bete ditzan erabat **norberetzkoak** diren egintzak. Joan Mari Lekuona

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

norbera baino (7); **norbera bere** (30); **norbera bere hormadian** (3); **norbera bizi** (3); **norbera da** (3); **norbera dela** (3); **norbera izateko** (5); **norbera pentsatzailearen** (3); **norbera zer** (3); **sentitzen da norbera** (3)

norberak bere (125); **norberak bere aldetik** (5); **norberak bere burua** (16); **norberak bere buruarekin** (10); **norberak bere buruari** (5); **norberak bilatu behar** (5); **norberak bizi** (6); **norberak duen** (7); **norberak egin** (11); **norberak egiten** (7); **norberak erabakitzen** (6); **norberak nahi duena** (12)

norberarekiko kontentua (7)

norberaren baitako (5); **norberaren baitan** (7); **norberaren barruan** (6); **norberaren bizia** (5); **norberaren bizitza** (9); **norberaren burua** (24); **norberaren egoera** (5); **norberaren esku** (8); **norberaren eta besteen** (6); **norberaren etxea** (5); **norberaren etxean** (7); **norberaren ideiak** (12); **norberaren interesa** (5); **norberaren izaera** (7); **norberaren jarrera** (6); **norberaren kondaira** (32); **norberaren kondaira bizi** (6); **norberaren kondairaren** (9); **norberaren kondairaren bila** (5)

norberaganatu, norberagana(u), norberaganatzen du *ad* nork beretu.

Baina komeni da irudioi ihes egitea [...] eta gorputzean pilaturiko humorea edozein gorputzen kontra jaurtitzea, eduki eta maitasun bakarrarentzat gorde beharrean, kezka eta nahitaezko mina **norberaganatuz**. Xabier Amuriza

norberakoi *izond*

Denon zorionerako eman zaizkigu emakumeak, eta ez zorion **norberakoi** eta pribilegiatu baterako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

norberanismo *iz cf soberanismo*.

Hor atzean idatzi den **norberanismo** hitz eder eta pilosopiko horrek beharko du, segurutik, esplikaziotxoren bat. Iñaki Segurola

Norberanismoa gizabanakoaren ideologia garailearen beste izen bat da. **Iñaki Seguro**
Merkatu sexuala da mundu orok -hitz hutsez- hain gorroto dituen (neo) liberalismoaren eta **norberanismoaren** erreinu puru-purua: "ahal duenak ahal duena egin dezala".
Iñaki Seguro

norberanista *izond* cf soberanista.

Eusbakofha da gure berbaje idiotiko eta **norberanista**, ahal duenak ahal duen bezala egiten duena. **Iñaki Seguro**

norberatasun *iz* norbera izateko nolakotasuna.

Nortasuna deitzen diote, edo identitatea, eta esan liteke jaiok mundura dakarren nomahitasuna **norberatasun** jakin batera biltzea dela nortasun pertsonalaren atea ixten duen giltza. **Iñaki Seguro**
Umea edo gaxtea gehiegi aldatzen da nortasun agiri batean harrapatua edukitzeko; gero harrapatzeko modukoa bihurtzen da pertsona, bere **norberatasunean** gero-eta harrapatzen errazagoa, harik-eta bere **norberatasun** horretan zeharo harrapatua, gatzatua eta iltzatua gelditzen den arte. **Iñaki Seguro**

norbere ik norbera 2.

norberekeria (*16 agerraldi, 5 liburu eta 6 artikulutan*) *iz* norberekoikeria. ik egoismo.

Jatorragoa al da, zuhurragoa, komenigarriagoa, **norberekeriari** men egitea pasioari baino lehenago? **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Norberekeria, ordea, ergelkeriaren eta aurreiritziaren semea da. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**
Banakoaren neurosiak sexua du oinarri; aldiz erlijioak, neurosi unibertsalak alegia, **norberekeria**. **Markos Zapiain**
Egilearen arabera, **norberekeriak** beti du eragina gizakiarengan. **Askoren artean**
Norberekeria bultzatzen bada, gizarte ehuna hausten da. **Berria - Harian**
Ergele gizatasuna deitzen duten hori beldurretik eta **norberekeriatik** sortutako ahultasuna besterik ez dela. **Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio**

norbereko *izond* ororen gainetik norberari komeni zaiona egiten duena. ik bereko; egoista.

Doktrina **norbereko** eta ez-moral honen ezinbesteko ondorioa sineslea zerbitzu publikotik gero eta gehiago aldentzea izan zen. **Iñaki Mendiguren**
Umetatik batera **norberekoia** ez zen eredu honetan hezita, herritarrek zerbitzu publikoari eskaintzen zioten bizia, eta prest zeuden beren buruak denentzako onagatik ukatzeko. **Iñaki Mendiguren**
Ekimen asko bultzatzaile bakoitzak duen indar eta baliabideen arabera eramaten dira aurrera, besteekin kontatu gabe, eta zenbaitetan lehia eta interes **norberekoiak** tartean direla. **Berria - Euskal Herria**

norberekoikeria (*4 agerraldi 3 liburutan*) *iz* norberaren berekoikeria. ik norberekeria; egoismo.

Nork hautsi **norberekoikeria** gogorrek estuturik dauzkan atxilotu horien kateak? **Joan Mari Lekuona**
Opari pozoitsuei zaila da kokagunea aurkitzen **norberekoikeriaren** apalategietan. **Pako Aristi**

norberekoitasun norberaren berekoitasuna.

50eko hamarkadan, McCarthy senatariaren sorgin ehizak, guda hotzak eta kapitalismoak bultzatutako **norberekoitasunak**, etengabe kolpatu zuten gizarte estatubatuarra. **Berria - Kultura**

norberetze *iz* aipatzen dena nork bere bihurtzea.

Estilo gotikoa, esate baterako, askok beretu zuten XIX. mendean, eta, hala, estilo individual berriak ez baina garai bateko estiloak eratu ziren **norberetze** horietatik (prerrafaelitak, adibidez). **Josu Zabaleta**

norberetzko ik norbera 3.

nordiko 1 *izond* ipartarra.

Ortega-ren arrazismoari Giménez Caballero-k jeinu espainola kontrajartzen dio, berak hispanitate edo mestizajearena kontsideratzen duena [...] odol eta arrazen nahasketa, hots, gizon-emakume **nordikoari** kontrajarririko andre-gizon mediterranearra edo "katolikoa". **Joxe Azurmendi**
"Arraza **nordiko**" barbaro osasuntsuaren mitoa. **Iñaki Mendiguren**
G. Vacher de Lapouge-rentzat [...] elitiko arraza, dominatzaile eta kreatiboa ("homo europaeus") **nordikoa** da. **Joxe Azurmendi**
Ez da zuhaitz-koxkor hau lurralde **nordikoetarako** egokiena. **Pello Zabala**
Literatura **nordiko** ez-greko-latino "barbaroak". **Joxe Azurmendi**

2 edreoi lumaduna daukana.

Estalki-azal **nordikoa** garbitu egin beharko da. **Juan Kruz Igerabide**

3 *konbinatu nordiko* eski jauziak eta iraupeneko eskia biltzen dituen kirol norgehiagoka.

15 diziplina: Biatloia, bobsleigha, konbinatu **nordikoa**, curlinga, eski artistikoa, izotz hockeya, [...]. **Berria - Harian**
Taldekako konbinatu **nordikoan**, Austria nagusitu zen lehen aldiz, Alemaniaren eta Finlandiaren aurretik. **Berria - Kirola**
Konbinatu **nordikoa**, banaka (gizonezkoak). **Berria - Kirola**

norengandikotasun *iz*

Nortasunaz gainera, nere karnet horrek nongotasuna, noizkotasuna eta **norengandikotasuna** ere badakartza, sinesten ez dudana Nazio Handi baten izena ez ezik. **Iñaki Seguro**

noreste iz ipar-ekialdia.

Branka Bidasoan gora zuzendu ordez, berriro ere, **norestera** jarraitu zuen. **Koldo Izagirre**
Kostazaina **noreste** aldetik urrunduz zen, "ur frantsesetan" inor sar ez zedin. **Koldo Izagirre**
- Ezker hartu beharrean **noreste** hartu genuen. **Koldo Izagirre**
Eta destruktoreak [...] **noreste** ipini zuen branka berehala. **Koldo Izagirre**

norgauzatu, norgauza, norgauzaten 1 da/du ad nortasuna hartu edo eman.

Natura **norgauzatu** bezala ageri zaio egungo hiritarrari, moralki on-ona eta birjin-birjina den nor baten pare bilakatua. **Iñaki Seguro**

2 (era burutua izenondo gisa)

Belar edo landare-jendea ihartu edo erre egiten da; ez da hiltzen, ez baitzegoen bizirik ere (biologiarentzat bai, jendearen hizkuntzarentzat ez; gauzak berezko zentzuan harturik beti ere, ez erabilera irudizko, hedatu eta **norgauzatu**etan). **Iñaki Seguro**

norgehiago iz norgehiagoka.

Bigarren zatian Leonesa aurrera joan zen, eta 55. minutuan, Athleticen defentsaren hutsegite larri batean, Paulinok **norgehiagoa** berdindu zuen. **Berria - Kirola**

norgehiagoka 1 adlag elkarren lehiari arituz.

Kartagotarrekin **norgehiagoka** ari zirenean. **Iñaki Iñurrieta**
Operazioa eta ebakuntzak bata bestearen ondoren egin zizkioten, taldeko mediku guztiak elkarren artean **norgehiagoka** ari zirela. **Pello Salaburu**
Kanpotarrak **norgehiagoka** zebiltzan plazako gizon berria ezagutzearren. **Joanes Urkixo**
Ikertzaileen artean bi talde egin ziren, **norgehiagoka**, nork identifikatu lehenago ADNaren atalkako sekuentzia hori, borroka horren atzean interes ekonomiko handiak daudelako, batez ere farmazia industrietan bultzatuak. **Pello Salaburu**
Internoen arteko solasak nahiko ergelak ziren, etorki eta hierarkia sozialei buruz **norgehiagoka** hasten ginenean. **Joseba Sarrionandia**
Eguzkia ilargiarekin **norgehiagoka**, gorrotoz ere. **Berria - Kultura**
Silikonan elkarri **norgehiagoka** zebiltzan titi erraldoi batzuen artean. **Migel Angel Mintegi**

2 iz lehiaketa, bereziki indarrak neurtzen direna. ikzeingehiagoka.

Haien artean egundoko **norgehiagoka** izaten zen printzeagandik edozein ohore lortzeko, eta antzeko **norgehiagoka** printzeen artean, beren kideen kopurua eta suhertasuna zela eta. **Iñaki Iñurrieta**

Herriaren eta hiriaren arteko **norgehiagoka** zen hura, eta ikusmina eragin zuen. **Koldo Biguri**
Koalizio horrek «nazionalisten eta ez-nazionalisten arteko **norgehiagoka**» areagotu egingo lukeela uste dute. **Berria - Euskal Herria**
Denok gelditu ginen isilik, **norgehiagoka** hura nola amaituko. **Koldo Izagirre**
Iragan azaroen hasi zen bi enpresen arteko **norgehiagoka**. **Berria - Ekonomia**
Hala non gure **norgehiagoka** zaharretan, edertasuna baitzen ausardiaren eta trebeziaren saria. **Jon Muñoz**

3 (kiroletan) ik txapelketa.

Kolonia-n jokatu dira 22 urtez pekoen trinketeko **norgehiagoka** horiek. **Herria**
Nagusien Multzokoan, 8 enberrera jokatu zuten **norgehiagoka**. **Berria - Kirola**
Osasunak ez du inoiz Lehen Mailako **norgehiagoka** bat irabazi Riazor futbol zelaian. **Berria - Kirola**
Final-hamaseirenetako **norgehiagoka** da, eta Iñaki Esainen kontra neurtuko ditu indarrak gaurko irabazleak. **Berria - Kirola**
Baskoniaren eta Panathinaikosen arteko Euroligako **norgehiagoka**. **Berria - Harian**
Joaneko **norgehiagoka** zen, eta Bartzelonan (Mini Estadin) jokatu zen. **Koldo Biguri**
32-23 bukatu zen **norgehiagoka**, etxekoan alde. **Berria - Kirola**
Norgehiagoka parekatua zen itxuraz hasiera batean, hala iruditu zitzaion behintzat Cesarri. **Harkaitz Cano**
Jaap Stam eta Koller handiaren **norgehiagoka** ere estua izango da. **Berria - Kirola**

4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Norgehiagoka kontu doilar haiek itzali ziren behin betiko. **Karlos Zabala**
Euskal Herriak bizi duen **norgehiagoka** egoerari amaiera emango lioke PSOEk. **Berria - Euskal Herria**
Norgehiagoka giro sutuak zera ekarri omen zien herri-kirolei: azpikeria eta azpijokoa. **Berria - Kirola**

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zorrikiz gizenena eta bizkorrena nork eduki, lehiaketa-**norgehiagoka** galanta antolatzen omen zitean. **Jokin Urain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko norgehiagoka (55); **aurkako norgehiagoka** (14); **azken norgehiagoka** (8); **beharreko norgehiagoka** (5)
erabaki zuen norgehiagoka (3); **gaurko norgehiagoka** (18); **hasiko da norgehiagoka** (9); **hurrengo norgehiagoka** (4)
igandeko norgehiagoka (3); **irabazi beharreko norgehiagoka** (4); **izan zen norgehiagoka** (3); **izango da norgehiagoka** (9); **jardunaldiko norgehiagoka** (6); **joaneko norgehiagoka** (4); **jokatuko dute norgehiagoka** (4); **jokatutako norgehiagoka** (3); **kontrako norgehiagoka** (5); **lehen mailako norgehiagoka** (3); **lehen norgehiagoka** (14); **lehen norgehiagoka jokatuko** (3); **lehenengo norgehiagoka** (3)
norgehiagoka ari (3); **norgehiagoka bakarra** (3); **norgehiagoka bat** (8); **norgehiagoka batean** (6); **norgehiagoka berezia** (4)
norgehiagoka erabakigarria (3); **norgehiagoka erraza** (4); **norgehiagoka estua** (4); **norgehiagoka garrantzitsua** (5); **norgehiagoka gogorra** (4); **norgehiagoka hasi aurretik** (3)
norgehiagoka ikusteko (5); **norgehiagoka irabazi** (9); **norgehiagoka irabaztea** (3); **norgehiagoka irabazteko** (5); **norgehiagoka izan** (5); **norgehiagoka izango** (12); **norgehiagoka izango da** (8); **norgehiagoka jokatuko** (14); **norgehiagoka jokatuko** (13); **norgehiagoka osoan** (7); **norgehiagoka parekatua** (6)
arteko norgehiagokak (8); **aurkako norgehiagokak** (3); **azken bi norgehiagokak** (3); **bi norgehiagokak** (10); **gaurko norgehiagokak** (4); **lehen norgehiagokak** (3)
norgehiagokak irabazi (4); **norgehiagokak jokatuko** (3)
arteko norgehiagokan (7); **aurkako norgehiagokan** (9); **azken norgehiagokan** (6); **biharko norgehiagokan** (4); **gaurko norgehiagokan** (13)
igandeko norgehiagokan (3); **joaneko norgehiagokan** (4); **jokatu norgehiagokan** (4); **jokatutako norgehiagokan** (5); **kontrako norgehiagokan** (12); **lehen norgehiagokan** (11)
gaurko norgehiagokarako (3)
norgehiagokaren amaieran (3); **norgehiagokaren atarian** (3)
azken bi norgehiagoketan (4); **azken norgehiagoketan** (4)

norgehiagokeria iz norgehiagoka gaitzesgarria.

Beldur naiz ez ote diren zuen artean eztabaidak, bekaizkeriak, haserreak, **norgehiagokeriak**, gaizki-esateak, esamesak, handikeriak eta nahaspilak izango. **Eiizen arteko**

biblia

San Pauloren testuarekin egin zuen topo, erromatarrei duintasunez bizitzera animatzen zien pasartearekin, alegia, ez jan-edanean eta hordikerian, ez lizunkeria eta neurrigabekerian, ez haserre eta **norgehiagokerian**. [Imanol Unzurrunzaga](#)

Baina, bekaizkeriaz eta **norgehiagokeriaz** beterik baldin bazaudete, ez harrotu eta ez ibili egiaaren aurka gezurretan. [Elizen arteko biblia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

haserre eta norgehiagokerian (3)

norgehiagotasun iz

Bere esanetan, LABek ez du **norgehiagotasuna** bilatzen, «dauden arazoak konpontzen ditu». [Berria - Ekonomia](#)

noría 1 iz ur-gurpila.

Eskaiera kiribila zen, eta igotzeko nekeza, are eta gehiago dagoeneko zaharra zen almuédano honentzat, beharrik ez zizkioten begiak estali behar, **norietako** mandoei bezala, zorabia ez daitezen. [Jon Alonso](#)

Agustinek idatzia zuen jainkogabeak dabilzaneko labirinto biribiletik salbatzen gaituen bide zuzena dela Jesus; Aureliano, berriz, arrunckerian ahalegintsu, Ixion-ekin parekatu zituen, Prometeoren gibelarekin, Sisiforekin,[...] ispiluekin, oihartzunekin, **norriako** mandoekin, silogismo adarbitzekin. [Juan Garzia](#)

2 jolas parkeetako gurpil handia.

Alemaniarrek errea zuten hiria eta txosnak eta **norriak** ikusten ziren zutik hondakinen artean. Nik **norrian** zerua ukitzen duen haurraren sentipena nuen. [Joseba Urteaga](#)

Igandez igande etengabe errepikatzen diren hitzak, hitzen zirkulua biraka balebil bezala, **norria** baten antzera. [Joan Mari Irigoien](#)

Ezin zuen beti **norria** berean bueltaka ibili. [Fernando Morillo](#)

Baina **norria** honetako gelaxkak bikoitzak ziren. [Jon Alonso](#)

Idazlea baita jolas parke hutsean **norrian** sartuta buelta eta buelta bakar-bakarrik dabilen hagin bako atso zahar eroa. [Berria - Kultura](#)

Estrasburgotik Londresera abiatu ziren solidarioak, eta han, milurtekoaren **norriara** igo ziren. [Eduarne Elizondo](#)

3 irud/hed

Bizkorregi zebilki burua, pentsakizunen **norriatik** jaistea lortu ezinda. [Unai Iturriaga](#)

Ezker abertzaleak salatuko luke EAJ berri ere autonomiaren **norrian** sartu dela, eta alderdi sozialistak esango luke abertzaletasunaren zati handi bat bere errotara eraman duela. [Berria - Euskal Herria](#)

4 (hitz elkartuetan)

Harrisonek **norria** -gelaxkako atea ireki zidan, buruaz sartzeko gonbita eginez, eta desagertu egin zen. [Jon Alonso](#)

norkeria iz nortasun gaitzesgarria.

Gorde eta bete zuzen dena, Jaunak, zuen Jainkoak, ez baitu bidegabekeriarik, ez **norkeriarik** egiten, ez eta eskupekorik onartzen. [Elizen arteko biblia](#)

norlehenka adlag nor lehenago iritsi, elkarren lehia arituz.

Liskar ugari piztu ziren gure protagonistaren kariaz: atletik hurbil egon ohi zela oharturik, **norlehenka** oldartu ziren hainbat dama atletik hurbilen zeuden aukietara. [Jose Morales](#)

norma 1 iz araua.

Ba ote da deus argiagorik eta seguragorik ideia egokia baino, egia **norma** izateko? [Piarres Xarriton](#)

Bestela esan, "egia bera bere buruaren **norma**" da. [Askoren artean](#)

Norma horiek, baina, ez dituzte elkarren arteko bizitza eta laguntza errazteko eta denen onerako sortzen, baizik eta beren interesak areagotzeko. [Luis Elberdin](#)

Esate baterako, trafikoko **normak** beharrezkoak ditugu. [Luis Elberdin](#)

Nagusi den taldeak ezartzen eta betearazten ditu **normak**. [Luis Elberdin](#)

Kasik kontrolerako emaitza guztiak **norma** baino biziki gorago dira, gainerat asko metalki pizuen emaitzak falta dira txosten hortan. [Herria](#)

Beltzak, **norma** gisa, ez ziren zientifikoak, medikuak edo unibertsitateko irakasleak. [Berria - Kultura](#)

Esku baloieko Federazioak eskatu du Herriko Etxeari zoladura behar den **normetan** ezartzea. [Herria](#)

Izan ere, ezin giza talde ezin da **normarik** gabe bizi. [Luis Elberdin](#)

Normatik urrunagoko kontuak. [Ana Urkiza](#)

2 (xake jokoan) aldeko goi emaitza jakin baten bidez lortzen den izendapena.

Horrek Gomezek lortutako **norma** guztiak balioztatu ditu eta, beraz, titulua ekarri dio santurtziarrari. [Berria - Kirola](#)

Iragan astean Sevillan jokaturako Espainiako txapelketa irekian hamargarren izan da, eta behin betiko **norma** lortu du. [Berria - Kirola](#)

Capdeperako torneoa Inigo Argandoña gazteak Nazioarteko Maisua izateko hirugarren **norma** lortu du, eta bere izena aterako da FIDEn hurrengo zerrendan. [Berria - Kirola](#)

Beharrezko hiru **normak** lortu zituen eta *elo*-a ere bai, baina **normak** noiz lortu behar diren dioten arauak ez zioten titulua eskuratzen laga. [Berria - Kirola](#)

3 ez-norma iz

Orain arte andrazkook ez dugu lekurik eduki, gizonetzkoena norma izan da eta gurea **ez-norma**, beharrezkoa da produzitzen dena kanporatzeko aukera edukitzea [Berria - Kultura](#)

normal 1 izond ezer berezirik edo neurritz gainerorik ez duena, maizkoena edo ohikoena den motaren arabera dena.

Gau **normal** guztietan (hau da, dantzaldirik gabeko gau guztietan) maitagarriek etxetxo egiten dute. [Julen Gabiria](#)

Baina hau ez zen etxe **normal** bateko emakume **normala**. [Anton Garikano](#)

Gizon **normal** bat baino bi aldiz altuagoa zen ia, eta gutxienez bost aldiz zabalagoa. [Iñaki Mendiguren](#)

Esan nizun, mutil **normala** da erabat. [Bernardo Atxaga](#)

Familia bat gara, familia **normal** bat gara. [Jon Alonso](#)

Jende **normalak** ez daki ezkatututa dagoen batentzat liburu bat zer den. [Josu Zabaleta](#)

-Ezin dugu bikote **normal** bat osatu? -ezpainak dardarka zituen-. [Anjel Lertxundi](#)

Euli **normalak** badu, begi bakoitzaren ganean, antena gisako bat. [Juan Garzia](#)

Zergatik ez ziaten izen **normal** bat ipini? [Eskarne Mujika](#)

Antzeko zerbaite gertatu zitzaizkien ikusmen **normala** zuten pertsonen. [Xabier Olarra](#)

Ez zituen garbi ikusten egunkari **normal** bateko letrak. [Xabier Olarra](#)

Jarrera eta egoera **normal** guztietan. [Irene Aldasoro](#)

Gauza **normala** da hori guztiz, eta ez du ezer esan nahi. [Josu Zabaleta](#)

Ez da tristura **normal** bat; egunerokotasunean zurekin dagoen tristura bat da, ez da pasatzen. [Berria - Gaiak](#)

La Santé-ko kartierretik atera eta detentziora **normalean** sartu bezain laster, ibitokira atera nintzen euskal presoan atxemaiteira. [Filipe Bidart](#)

Garbi zegoen ez zegoela ohituta **era normalean** ibiltzen. [Iñaki Mendiguren](#)

Kalkulu konplexuak **modu normalean** egiteko. [Xabier Olarra](#)

Euskarari ez zaio leku sinboliko bat eman nahi, aldiz, [...] euskarak leku **normal** bat berreskuratu behar du.

· Saiatu zen, beraz, pausoak ziurtasunez ematen, **normal** tankera hartzen, baina halakoetan izaten da zailena jarrera hori lortzea. [Unai Iturriaga](#)

2 (izan eta kideko aditzekin)

Solasetik solasera, herriko politikarra lerratzea **normal** da, gisa batez, konfiantza seinale. [Eneko Bidegain](#)

Bainan **normal** den bezala kirola ere maite zuen, partikulazki pilota. [Herria](#)

Zenbait jarrera ez ditun **normal** ... [Eneko Bidegain](#)

Normala den moduan. [Berria - Kultura](#)

Bazen harengan zerbaite **normala** ez zena, inondik ere. [Josu Zabaleta](#)

Normala denez, Mab Erregina zorritzareko sentitzen zen. [Julen Gabiria](#)

Hori ez dela **ez normala**, ez logikoa, ez eta onargarria iritzi dio. [Berria - Euskal Herria](#)

Gurasoak gorrotatzea oso **normala** da. [Bernardo Atxaga](#)

Horrek ez zuen ezustean harrapatuko, **normal** irudituko zitzaion eta onartu egingo zuen. [Joxemari Iturralde](#)

Egin duena egitea **normala** iruditzen zaik? [Antton Olano](#)

Braillea ikasteko aukera emateak **normala** zirudien garai hartan. [Xabier Olarra](#)

Ez dakit..., ez dut ondo ikusten, ez zait **normala** iruditzen. [Luis Elberdin](#)

Horrexek bihurtu du **normal** esklabotza hegoaldeko herrietan. [Iñaki Iñurrieta](#)

3 (adizlagun gisa) ik normalki.

Eguna, bestela, **normal** joan zen lanean, salbu eta gauza nabarmen hura. [Joxemari Iturralde](#)

Dursley jauna **normal** jokatzeko saiatu zen. [Iñaki Mendiguren](#)

-Baina ezin ditun gauzak **normal** egin ala? [Antton Olano](#)

Zure lagun horrek ez daki jendea **normal** tratatzen, erdeinua, ez du besterik barruan. [Anjel Lertxundi](#)

Badira gazteak, eta beste sexuokoa gainera, gai horri buruz **normal** eta txantxa gordinik egin gabe hitz egiteko gauza direnak. [Josu Zabaleta](#)

Normal egoten saiatuta ez da sekula **normal** egoterik lortzen. [Unai Iturriaga](#)

Tango bat suabe kantatu daiteke; edo kantatu daiteke **normal**. [Unai Elorriaga](#)

Trelawney andereñoia ia **normal** portatu zen, bi ordu geroago bazkaria bukatu zen arte. [Iñaki Mendiguren](#)

Zarataren maila edo iraupena handitu ahal, handiagoa da entzumen-galera ere, eta denbora gehiago behar da belarria bere onera etortzeko eta **normal** entzuteko. [Irene Aldasoro](#)

Hirurogeita bost urtez **normal** ikusi eta gero gertatu zitzaion, beraz, koloreekiko itsutasun erabatekoa. [Xabier Olarra](#)

Ni **normal** bezain hotz agertzen saiatu naiz. [Patxi Zubizarreta](#)

Normal samar jasotzen zituen zuri-beltzeko irudiak; koloretako irudiei begiratzean gauza bitxi eta jasangaitz bat gertatzen zitzaion. [Xabier Olarra](#)

4 **normalean** (1363 agerraldi, 158 liburu eta 508 artikulutan) adlag gehienez, maizenik. ik jeneral¹ 2.

Normalean elizatik ehun bat metrora jokatzeko borroka, sail ezkutu samar batean. [Bernardo Atxaga](#)

Normalean bi muskuluk edo gehiagok egindako indarren oreka delikatuak eusten dio hezurri bere lekuan. [Irene Aldasoro](#)

Lubisen begiak, **normalean** hain lasaia, larritasunez mugitu ziren. [Bernardo Atxaga](#)

Daltonismoa, **normalean** ulertzen den moduan, sortzetikoa izaten da. [Xabier Olarra](#)

Emakumea jelskor izaten da **normalean** gizon bat beste emakumeekin batzen denean. [Koro Navarro](#)

Normalean arazoek bilatzen naute ni. [Iñaki Mendiguren](#)

Orain **normalean** hola egiten da. [Pablo Sastre](#)

Garaziren senitarteko lapurtarrak ere etortzen ziren **normalean**; eta gure mahaikide izaten. [Txillardeggi](#)

Normalean gaiarekin lotua izaten da zeregin hau: ikastegiak ematen duen agiriaren zenbat eta oinarrikoago izan, orduan eta ikerkuntza gutxiago egiten da, **normalean**. [Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu](#)

5 ez-normal izond

Bazekien, beraz, bitizta **ez-normala** eginarazten digutela, eta ez zeukaten argudiorik anormalkeriak utz zitzatela eskatzeko. [Jokin Urain](#)

Izan ere, ezohikoa denak ez du zertan arraroa, hau da, **ez-normala** izan. [Berria - Gaiak](#)

Baina ez hori bakarrik, horrexek hustu zizkion hormonon eraginpeko agresibitatea eta deblautasuna, eta hortik sortuak ziren haren esanekotasun eta naretasun ez **normalak**. [Xabier Olarra](#)

6 normal-normal adlag

Kalamu-zuntzaz egindako zaku **normal-normalak** ziren. [Anjel Lertxundi](#)

Ziur zaude neskatala hori **normal-normala** dela? ez da ez hanka-motza, ez konkorduna ez... halako ezer? [Jon Arretxe](#)

Horrelako testu batekin, itzultzaileak jakin behar du alde aurretik ez dela testu **normal-normal** bat. [Berria - Kultura](#)

Dursley jaunak, hala ere, goiz **normal-normala** izan zuen, hontzik gabekoa. [Iñaki Mendiguren](#)

Agian, etorkizunean **normal-normala** irudituko zaigu teiltuetara begiratu eta aerosorgailuak martxan ikuste. [Berria - Gaiak](#)

· Kontrako ez-tarriko psikiatrek idoro ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela: beldur ikarante batek harrapatutakoaren izaera **normal-normal-normala**. [Iñaki Seguro](#)

7(adizlagun gisa)

Biharamunean **normal-normal** joan nintzen klasera, eta hurrengo egunean ere bai, eta hurrengoan... [Jesus Mari Mendizabal](#)

Etzerako bidea **normal-normal** egin nuen, Aneri zer esango nion pentsatuz. [Iban Zaldia](#)

-Ez -gizonak **normal-normal** erantzun-. [Koldo Biguri](#)

Harekin hizketan jardun zuan, **normal-normal**, kontuak elkarri kontatzen. [Xabier Etxabe](#)

norm, normal, normaltzen (64 agerraldi, 14 liburu eta 40 artikulutan) 1 da/du ad normal bihurtu. ik normalizatu.

Andreari aste batzuetan gelditu zitzaion gogoan oroitzapen epileptikoa, eta gero [...] onerako zein txarrerako, berriro **normaldu** zen. [Xabier Olarra](#)

Pozik nengoen hilekoa berriro **normaldu** zitzaidalako. [Joxan Elozegi](#)

Orain, larriena kenduta, nolabait **normaldu** nauk jan-edanetan. [Aingeru Epaltza](#)

Segundo batzuk pasatuta, ostera, egoera **normaldu** eta lehenagoko marmarioa itzuli zen lokalera. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzaren eta Espainako Gobernuaren arteko harremana **normaldu** egin da. Berria - Euskal Herria

Espero dut gauzak **normalteza**, eta gu ere normala den rola hartzen joatea. Berria - Euskal Herria

Harremanak **normaltzeko** saio etengabeak. Berria - Mundua

Horrek konfiantza sortuko luke eta Bruselari eta bioi lagunduko liguke Iranen eta nazioarteko komunitatearen arteko elkarlana **normaltzen** eta hedatzen. Berria - Mundua

Partaidetza **normaltzeko** lehen urratsak. Ana Urkiza

Libiak, ostera, azken sei hilabeteotako epean, harremanak **normaldu** egin ditu AEBekin, Erresuma Batuekin eta Frantziarekin. Berria - Mundua

Kontua da irakasleok legearen premia daukatela euren lan egoera Euskal Autonomia Erkidegoko Egiaztatze Agentziaren bitartez **normaldu** ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Hitz egingo zuten berriz ere, agian oporrak bukatu eta gauzak berriz **normaltzean**. Koro Navarro

2 (era burutua izenondo gisa)

Hizkuntzaren egoera **normalduetan**, berriz, idazkera ahoskeraren ondoren ikasten da. Lourdes Oñederra

Euskal literatura **normaldua** bultzatzen eta kontsumi zezakeen aristokrazia eta burgesiarik eza. Berria - Harian

3 ez-normaldu izond

Euskararen egoera ez **normaldua** dela-eta, kodeak ere antzeko arazoak sortzen ditu, bertsolariak eta entzuleak kode bera darabilte batzuetan (edo ia bera), eta beste batzuetan, berriz, sekulako amildegia ageri da bataren eta besteen kodeen artean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bizimodu normal bat (4); **bizitza normal** (4); **dena normal** (16); **egoera normal batean** (10); **gauzak normal** (7); **gizon normal bat** (4)

normal ari (5); **normal da** (11); **normal egin** (9); **normal egiteko** (4); **normal egiten** (4); **normal entrenatu** (11); **normal entrenatu zen** (4); **normal hitz egiten** (4); **normal joan** (9); **normal joan zen** (6); **normal normal** (20); **normal normala** (10); **normal samar** (4)

pertsona normal (20); **pertsona normal bat** (5); **pertsona normal batek** (4)

aski normala (4); **baina normala da** (5); **bizimodu normala** (26); **bizimodu normala egin** (9); **bizitza normala** (27); **bizitza normala egin** (5); **bizitza normala egiteko** (8)

egoera normala (4); **egotea normala da** (4); **erabat normala** (13); **erabat normala da** (4); **ez baita normala** (4); **ez baitzen normala** (4); **ez da normala** (62); **ez dela normala** (10); **ez delako normala** (5); **ez normala** (4); **ez zait normala** (5); **ez zela normala** (6); **ez zen normala** (11); **gauza normala** (21); **gauza normala da** (5); **gertatzea normala da** (4); **gutzit normala** (21); **hori normala da** (10)

izatea normala da (5); **jende normala** (9); **nahiko normala** (8); **neska normala** (4)

normal normala (10); **normala al da** (5); **normala bada** (4); **normala baitzen** (5); **normala balitz** (9); **normala balitz bezala** (5); **normala da** (309); **normala da hori** (14); **normala da jendea** (4); **normala dela** (34); **normala delako** (4); **normala den** (52); **normala den bezala** (30); **normala den moduan** (7); **normala denez** (51); **normala duk** (5)

normala egin (15); **normala egin ahal** (4); **normala egiteko** (11); **normala egiten** (7); **normala ematen** (4); **normala ere bada** (13); **normala ez** (18); **normala ez den** (6); **normala ez zen** (4); **normala galarazten** (4)

normala iruditu (9); **normala iruditzen** (29); **normala izan** (41); **normala izan da** (4); **normala izan zuen** (4); **normala izango** (23); **normala izatea** (5); **normala naiz** (4)

normala ote da (4); **normala zela** (19); **normala zen** (54); **normala zenez** (4); **normala zirudien** (5)

oso normala (41); **oso normala da** (11); **pertsona normala** (5); **talde normala** (5)

normalagoa da (6)

erabat normalak (4); **itxuraz normalak** (4); **itxuraz normalak diren** (4); **jende normalak** (7); **normalak dira** (14); **normalak direla** (5); **normalak diren** (9); **normalak ziren** (5); **oso normalak** (4); **pertsona normalak** (7)

bizitza normalean (5); **egoera normalean** (13); **egoten da normalean** (4); **ez du normalean** (5); **izaten da normalean** (14); **izaten dira normalean** (8); **modu normalean** (7)

normalean baino gehiago (4); **normalean behintzat** (6); **normalean bizi** (4); **normalean egiten** (5); **normalean erabiltzen** (8); **normalean ez da** (6); **normalean ez du** (6); **normalean ez dute** (6); **normalean ezin** (5); **normalean gertatzen** (4); **normalean jokutzen** (5); **normalean ulertzen** (4); **ohi da normalean** (10)

ume normalek (4)

ikusmen normaleko (4)

gauzarik normalena (14); **litzateke normalena** (8); **munduko gauzarik normalena** (9); **normalena balitz** (6); **normalena balitz bezala** (5)

baldintza normaletan (7)

baldintza normaletan (7)

gauza normalizat (4); **normalizat hartu** (15); **normalizat hartzen** (10); **normalizat jo** (30); **normalizat jo zuen** (9); **normalizat jotzen** (20)

[3] **egoera normaldu** (4)

harremanak normaltzeko (4)

normalisatu ik normalizatu.

normalitate *(7 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan)* iz normaltasuna.

Gero **normalitate** puskatu bat berregin nahi izatea bezalakoa izan zen, eta horrek ere lanak. Jon Alonso

Euskara modernitatearekin eta **normalitatearekin** lotzen saiatzen zarete. Berria - Euskal Herria

Egoera bortitzak jarraitzen badu, Irakek ezingo duela **normalitatera** itzuli gaineratu du. Berria - Mundua

normalizatu, normaliza, normalizatzen *(222 agerraldi, 8 liburu eta 162 artikulutan; orobat normalisatu g.er.)* 1 da/du ad normal bihurtu. ik normaldu.

Alcalako unibertsitatearen oinarri izan zen san Ildfontso ikastegiak bere ateak ireki zituen 1508an, baina 1509/10 ikasturte arte ez zen **normalizatu** unibertsitatearen urratsa. Piarres Xarriton

Bizileku eta lan baimena da etorkin batek bere egoera **normalizatze**ko behar duena. Berria - Harian

Klandestinitatean bizi diren «etorkin guztien» egoera **normalizatgu** dezaten. Berria - Euskal Herria

Euskara **normalizatze**ko plana. Berria - Ekonomia

Autonomiak hizkuntza **normalizatze**ko aukera eman zigun. Berria - Kultura

Normalizatzekoa baino, normalizatze

koa baino, normalizatze

koa baino, normalizatze

koa baino, normalizatze

koa baino, normalizatze

koa baino, normalizatze

2 (era burutua izenondo gisa)

Euskadiko alderdi politiko eta sindikatu guztiekin harreman **normalizatuak** izaten saiatzeko konpromisoa. Berria - Euskal Herria

Borondaterik balego, erregularizazio prozesu **normalizatu** bati ekingo litzaioke, baina ez omen dago. Berria - Euskal Herria

Hainbatek, euskarak estatus **normalizatu** izan dezan, ezinbestekotzat jotzen dute euskaraz ariituko litzatekeen unibertsitate elebakar bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Jarduera **normalizatu**ren aldeko apustua. **Berria - Euskal Herria**
Hizkuntza gutxituei dagokienez, berriz, itunak ez du haien erabilera **normalizatu** garatzeko neurririk kontuan hartzen. **Berria - Mundua**
Teologia zaharberitzeak harreman zientifiko **normalizatuan** jartzen zituen teologoak beste jakintzetako adituekin, guztiak izaki arrazoidunei dagokien eremu komunean. **Askoren artean**

3 ez-normalizatu izond

Kopuru horrek ez du egoera normalizatuko, gaur egungo egoera **ez-normalizatu** luzatzea baino ez baitu ekarriko. **Berria - Harian**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

egoera normalizatu (6); hizkuntza normalizatu (3)

hizkuntza normalizatu (4)

harreman normalizatuak izateko (3)

administrazioan euskara normalizatze (3); egoera normalizatze (8); erabilera normalizatze (22); euskara normalizatze (18); euskararen erabilera normalizatze (20); euskararen normalizatze (3); harremanak normalizatze (6); hizkuntza normalizatze (6); normalizatze bidean (3); normalizatze lehen plana (4); normalizatze plana (3)

normalizazio (1108 agerraldi, 13 liburu eta 534 artikulutan) 1 iz normalizatzea. ik normalkuntza.

Sindikatuak zein Volkswagengozuzendaritzak «**normalizazio** lortzeko» lan egin behar dutela esan du. **Berria - Ekonomia**

Elkarri-k adierazi du bakea eta **normalizazio** bilatzeko une oso garrantzitsuan dagoela gizartea. **Berria - Euskal Herria**

Normalizazio eskatzen du gizartek euskararen aferan. **Berria - Euskal Herria**

Errealitate ezberdin horien inguruan diagnostiko komuna eraiki eta **normalizazio** jorratzeko proposamen zehatzak kaleratuko dituzte. **Berria - Euskal Herria**

Euskararen erabileraren **normalizazioaren** kontrako jarrerak pisu handia dute unibertsitateen barruan. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

ETBko kirol saioek asko egin dute euskararen **normalizazioan**. **Berria - Kirola**

Euskal Gobernuari baitagokio hizkuntzaren **normalizazioaren** alde hartu behar diren erabakiak hartzea. **Pello Salaburu**

Maiatzaren 1ean, ELAsek deituta elkarretaratzea egingo dute Iruñean, **normalizazio** politikoaren eskutik **normalizazio** soziala eskatzeko. **Berria - Ekonomia**

Irlanda iparraldearen **normalizazio** militarra lortzea da ekintza horien helburua. **Berria - Harian**

Ordenantzen bidez **normalizazioaren** aldeko urratsak egin. **Berria - Euskal Herria**

Gutxieneko **normalizazioak** hiru ezaugarri beharko lituzke; hizkuntzaren lege babesa, belaunaldi berriei euskararen ezagupena bermatzea, eta hizkuntz **normalizatorako** jarrera zibiko eta politikoa garatzea. **Berria - Euskal Herria**

987 milioi pezeta Hizkuntzaren **normalizazio** edo herriratze. **Herria**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Auditoria, **normalizazio** eta sinestamendu ereduak ere proposatu izan dira. alderdi politiko guztien arteko **normalizazio** akordioa lortzea eta gobernagarritasuna bermatzea.

Iñaki Heras

Iruditzen zitzaidan inportantea euskara ere beste hizkuntzek duten **normalizazio** egoerara iristea. **Berria - Kultura**

Bake eta **normalizazio** egoeran biziko den Euskal Herria. **Berria - Harian**

Euskararen **normalizazio** prozesuan bere ekarpena egitea dagokio. **Joxerra Garzia**

Euskarak **normalizazio** bidetik sartu behar baldin badu noizbait, eta sartuko ahal da egunen batean!, gizartean normalean erabiltzen ditugun prozedura berberak erabili behar ditugu euskararekin ere. **Pello Salaburu**

Normalizazio planen garaia amaitu da. **Berria - Euskal Herria**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan handia dago oraindik izate homosexualaren gizarte **normalizazioa** lortu eta homofobia gainditzeko. **Berria - Euskal Herria**

Hizkuntz **normalizazioaren** prozesua moteltze fasean dagoela eta horrek kezka handia eragiten ziela. Energia soziala aktibatze baldintza gehiago du ezker abertzaleak, baina 25 urteotan euskarri izan duen imaginarioak ez du balio: ez darabilen hizkuntza **normalizazioaren** paradigmak, ez lurraldetasunari lotutako eskubide-diskurtsoak, ez elementu fosildu gehiegi dituen ezker-diskurtsoak. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bake eta normalizazio (31); bakegintza eta normalizazio (13); baketze eta normalizazio (5)

euskadiren normalizazio (3); euskal herriaren normalizazio (3); euskal herriko normalizazio (6); euskararen normalizazio (29); euskararen normalizazio bidean (5); euskararen normalizazio planak (3); euskararen normalizazio prozesua (4); euskararen normalizazio prozesuan (8); herriaren normalizazio (4); hizkuntzaren normalizazio (5)

normalizazio bidean (15); normalizazio osoa (3)

normalizazio plana (7); normalizazio planak (15); normalizazio planak abiatzeko (3); normalizazio planaren (5); normalizazio planen (4); normalizazio plangintza (3)

normalizazio politiko (4); normalizazio politiko (141); normalizazio politiko bilatzeko (3); normalizazio politiko erdiesteko (3); normalizazio politiko lortu (4); normalizazio politiko lortzea (6); normalizazio politiko lortzeko (40); normalizazio politikoak (3); normalizazio politikoan (25); normalizazio politikoaren (49); normalizazio politikoaren alde (5); normalizazio politikoaren aldeko (5); normalizazio politikoaren bidean (4); normalizazio politikoaren inguruko (3); normalizazio politikoari (24); normalizazio politikoari begira (8); normalizazio politikoari buruz (4); normalizazio politikoari buruzko (5); normalizazio politikoaz (3); normalizazio politikorako (68); normalizazio politikorako akordio (3); normalizazio politikorako akordio (5); normalizazio politikorako akordioak (3); normalizazio politikorako bidean (3); normalizazio politikorako prozesu (6); normalizazio politikorako prozesua (6); normalizazio politikorako prozesuan (3); normalizazio politikorik (3)

normalizazio prozesu (11); normalizazio prozesu bat (3); normalizazio prozesua (42); normalizazio prozesua abiatzeko (3); normalizazio prozesua bereizi (3); normalizazio prozesua bizkortzeko (4); normalizazio prozesuak (8); normalizazio prozesuan (28); normalizazio prozesuaren (15); normalizazio prozesuari (6); normalizazio prozesurako (7); normalizazio soziala (6); normalizazio sozialaren (3)

bakea eta normalizazioa (24)

euskal gizartearen normalizazioa (4); euskararen normalizazioa (79); euskararen normalizazio lortzea (3); euskararen normalizazio lortzeko (19); gizartearen normalizazioa (4); gure hizkuntzaren normalizazioa (4); herriaren normalizazioa (3); hizkuntz normalizazioa (8); hizkuntza normalizazioa (6); hizkuntzaren normalizazioa (13)

normalizazioa bermatzen (3); normalizazioa ekarriko (5); normalizazioa erdiesteko (3); normalizazioa eta bakea (3); normalizazioa eta hizkuntza (4); normalizazioa lortu (5); normalizazioa lortzea (5); normalizazioa lortzeko (44)

euskararen normalizazioak (13)

euskararen normalizazioan (34); hizkuntz normalizazioan (4); hizkuntzaren normalizazioan (5); normalizazioan aurrera egiteko (7)

bakearen eta normalizazioaren (5); euskararen normalizazioaren (19); euskararen normalizazioaren alde (5); euskararen normalizazioaren aldeko (5); hizkuntz normalizazioaren (8); hizkuntza normalizazioaren (3); hizkuntzaren normalizazioaren (5); hizkuntzaren normalizazioaren alde (3); normalizazioaren alde (18); normalizazioaren aldeko (19); normalizazioaren bidean (9)

euskararen normalizazioari (13); normalizazioari begira (5); normalizazioari buruz (4); normalizazioari buruzko (3); normalizazioari dagokionez (3)

normalizazioa iristeko (4)

bake eta normalizatorako (7); bakegintza eta normalizatorako (3); bakerako eta normalizatorako (6); euskararen normalizatorako (32); euskararen normalizatorako bidean (4); euskararen normalizatorako plana (3); hizkuntz normalizatorako (11); hizkuntz normalizatorako plana (3); hizkuntza normalizatorako (5); hizkuntzaren normalizatorako (4); normalizatorako bidean (7); normalizatorako eta bakegintzarako (3); normalizatorako kontseilu (10); normalizatorako kontseilu politiko (6); normalizatorako plana (6)

normalki 1 adlag normalean, jeneralean.

Normalki, kalitatezko guneak itxita aurkituko dituzu, bertara sartzeko ordainsaria eskatzen dutelako. **Askoren artean**

Igorgailua piztuta egoten da **normalki**, eta gaixoak, maskuria hustu nahi duenean, itzali egiten du. **Irene Aldasoro**

Dena dela, gidak, **normalki**, ez dira hasieratik bukaerara irakurten. **Askoren artean**

Partida gaitza, nahiz, **normalki** Bordelesek irabazi behar duten.

Zuhurtasunez begiratu leihotik beste ohekidea -gizonezkoa **normalki**, inoiz emakumezkoa- joango zen arte. **Joxemari Iturralde**

2 normal, modu normalean.

Kantuz segitzen nuen halere, ez oihuka, baina **normalki**, enetzat, hastapenean bezala, kantuen hitzez orroitzeko. **Filipe Bidart**

Jendea **normalki** hasi zen handik ateratzen eta halako batean lau emakumeek ere gauza bera egin zuten. **Joxemari Iturralde**

Gure teoriaren printzipioa zen nahi genuela **normalki** bizi. **Piarres Aintziart**

Afaria aurrera zihoa **normalki**, inolako gorabeherarik gabe. **Joxemari Iturralde**

normalkuntza (55 agerraldi, 6 liburu eta 38 artikulutan) 1 iz normalizazioa.

Gure sistemaren helburu nagusia **normalkuntza** hori lortzea eta hemendik kanpo ezagunagoak izatea da. **Ana Urkiza**

Gaddafi EBko ordezkariekin bildu zen Bruselan, harremanen **normalkuntza** bultzatzeko. **Berria - Mundua**

Eta **normalkuntzari** begira arazoa larria bada, are larriagoa da prentsa abertzalearen kasuan, jarrera honekin, azken batean, erdarazko bertsioa jotzen baita normal-neutrotzat, eta euskarazkoa markatutzat. **Iñigo Aranbarri**

Politikoez hizkuntz politikaren **normalkuntzan** zer egingo dute eurek erabiltzen ez badute? **Berria - Euskal Herria**

Europako Kontseiluko adituek harriduraz hartu dute euskararen **normalkuntzak** halako barne inkohereziaz izatea. **Berria - Euskal Herria**

Euskal Herrirako **normalkuntza** politikoa bilatzea eta Eusko Jaurilaritzaren Estatutu berriko proposamena bultzatzea. **Berria - Euskal Herria**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen **Normalkuntzako** Zuzendaritza Nagusia. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Enteari dagokion **normalkuntza** lan hori, ordea, aldarri hutsean geratzen da sarri eguneroko erabakietan. **Joxerra Garzia**

Nazioartean eragina euskararen **normalkuntza** prozesuan. **Berria - Euskal Herria**

EHEren aburuz, Donostiako Udalak onartutako euskararen **normalkuntza** plana iruzurra da. **Berria - Euskal Herria**

Urtarrileko hauteskundeetan atarian **normalkuntza** itxura ematearren [...] Faluja hiritik ihes egitera behartuak izan ziren biztanleen etxeratze plana etzi indarrean jarriko dela iragarri zuen atzo lad Alairen gobernuak. **Berria - Mundua**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sasiliterarioa, literaturaz kanpoko beste asmoren batez egindakoa izan delako (katekesia, hizkuntza **normalkuntza** ...). **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Plangintza «tresna ezin hobea» izango da Gasteizko hizkuntz **normalkuntza** lortze aldera. **Berria - Euskal Herria**

normaltasun (392 agerraldi, 58 liburu eta 232 artikulutan) 1 iz normala denaren nolakotasuna. ik normalitate.

Normaltasuna oso kontzeptu aldakorra eta funtsik gabekoa da. **Luis Elberdin**

Normen **normaltasuna** eta estatistiketako **normaltasuna**. **Luis Elberdin**

Preso bat da, normala da, **normaltasun** baten barruan dago. **Iñaki Segurola**

Baina gure ingurua **normaltasuna** da, nolabait esan, egunerokotasunean bizi dugun esperientzia erlijiosoa. **Askoren artean**

Begi-bistakoaren **normaltasuna** eta ezkutukoaren misterioa. **Anjel Lertxundi**

Bertzelako laguna nintzen, gure bizia **normaltasunera** bihurtu zenean. **Aingeru Epaltza**

Ematen zuen bizitza **normaltasunera** itzuliko zela hurrengo urtean, edo Hogwartsen izan ohi zuen bezalako **normaltasunera**, behintzat. **Iñaki Mendiguren**

Itxuraz hiria **normaltasunera** itzuli den arren, nonahi ikus daitezke gertatutakoaren aztarnak. **Berria - Harian**

Borrokari hasi aurretik nekatu balira bezala, ez zuten **normaltasunaren** babes primitiboa apurtzerik lortu, eta bereziak izateko deituta zeudenak arrunt izaten jarraitu zuten. **Pako Aristi**

Narratzaileak nahiago zituen edertasuna tarteka agertzen zuten emakumeak, hau da, xarma **normaltasunaren** atzealdean ezkututzen dutenak. **Patxi Zubizarreta**

Normaltasuna uharte bat da, zikoizkeriaren eta asperkeriaren marrazoek inguratzen dutena, bazter guztietatik. **Joan Mari Irigoien**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Normaltasun demokratikoaren ondorio diruditen gertaerak baino ez dira gertaera horiek guztiak. **Hasier Etxeberria**

Ez dago ez **normaltasun** absoluturik, ez begi errugaberik, zeren ikustea eta interpretatzea, biak batera gertatzen baitira, eguneroko-eguneroko bizitarik arruntenean ere.

Josu Zabaleta

Neu ere, mantela mahai gainean zabalten ikustean, **normaltasun** osoz ate atzeraino joaten naiz eta **normaltasun** osoz ateratzen dut ogia poltsatik. **Anjel Lertxundi**

Horrelako pertsonaia bati, nire ikuspegitik, ohiz kanpoko paisaia dagokio, kale nagusiak agindutako **normaltasuna** hausten duena. **Bernardo Atxaga**

Komisarioa eta guardak etorri ondoko ustekabe-garaia iraganik, gauzak usaiako **normaltasunera** itzuli ziren. **Elena Touyrou**

Eguneroko **normaltasunean** Victoriarekiko obsesioa pasatuko zitzaidala pentsatu nuen, baina ez zen horrela izan. **Ramon Saizarbitoria**

Orduan baretu zen giroa jangelan eta betiko **normaltasunera** etorri. **Joxemari Iturralde**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hain egunerokoa den keinu horretan ez dago ezer harrigarrik, amak, aitak bezala, **normaltasun** itxura eman nahi baitio egiten ari den guztiari. **Anjel Lertxundi**

Normaltasun itxurari gogor eusten bazitzaion ere, gure buruzagiek bazekiten [...] arriskua hantxe zegoela, oso hurbil. **Txillardegí**

Normaltasun giroa zen nagusi, ez zuen inork interes handiegirik erakutsi nirekiko. **Jon Arretxe**

Bikotekideen desioaren erritmoa bat ez datorrenean, baina, **normaltasun** irizpidera jo ohi dugu. **Luis Elberdin**

4 normaltasunez normal.

Beharrik, posta zerbitzua **normaltasunez** zebilen artean. **Karlos Zabala**

Zelula amak kaltetutako ehunetan txertatu dituzte ikertzaileak, eta horrelakoetan bihotzak **normaltasunez** lan egiten duela frogatu ahal izan dute. **Berria - Gaiak**

Euskara «gero eta gehiago eta **normaltasunez**» erabiltzeko konpromisoa hartu zuen, atzo, Eusko Legebiltzarrak. **Berria - Harian**

Euskal Herrian, euskaraz **normaltasunez** bizi ahal izateko. **Berria - Euskal Herria**

Liburu hau hiru hizkuntzetan egina da, euskaraz, espainolez eta frantsesez, Hurelek dionaz **"normaltasunez"**, Euskal herrian girenaz gero. **Herria**

5 ez-normaltasun iz

Portaeraren **ez-normaltasunak** eta berbaldiaren normaltasunak kontraste harrigarria egiten zuten. **Xabier Olarra**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

normaltasun baten barruan (3); **normaltasun itxura** (10); **normaltasun itxura emateko** (3); **normaltasun osoa** (3); **normaltasun osoarekin** (3); **normaltasun osoz** (50); **normaltasun osoz egin** (5); **normaltasun osoz igaro** (3); **normaltasun politikoa** (6)

normaltasuna berreskuratzeko (4); **normaltasuna da nagusi** (3); **normaltasuna lortzeko** (6)

normaltasunaren barruan (3)

normaltasunera itzuli (13); **normaltasunera itzultzea** (3); **normaltasunera itzultzeko** (3)

epaiketa normaltasunez egiten (3); **normaltasunez egin** (7); **normaltasunez egiten** (5); **normaltasunez entrenatu** (10); **normaltasunez hartu** (3)

normaltxo *(orobat normaltxu g.er.) izond adkor normala.*

Inondik inora ere ez zuten halako errespeturik erakusten gainontzeko umeekin, esaten baitzuten gerlari **normaltxoak** zirela. Julen Gabiria

Ondo letorke azken urteotako batenaz bestekoei erreparatzea, datu zerrendei begira, ekain **normaltxu** batek zer eman behar ligukeen, edo gutxienez, zer espero genezakeen jakiteko. Pello Zabala

-Beharbada zerbait **normaltxoagoa** asmatu beharko zenuke, gaurkoagoa, komertzialagoa. Jon Arretxe

normaltxu ik normaltxo.

normaltze iz normal bihurtzea.

Segurtasun arloko «**normaltzea** gauzatzea» eta «irizpide politikoetan oinarritutako polizia ekinbideak bukatzea» galdegin zuen Sinn Feineko diputatu (eta Belfasteko alkate ohi) Alex Maskeyk. Beria - Mundua

Konstituzio berria onartu izanak herrialdeari bultzada garrantzitsua eman arren, **normaltze** prozesua arriskupean da. Beria - Mundua

Hor aurkitu ez dudana ere zintzo bilatzen saiatu naiz, euskarari **normaltze**-aro honetan behar dituen baliabide terminologikoak emateko esperantzatan. Lourdes Oñederra

Prejudice erantsi du zure belarriak zultzeraino, komunikazioa **normaltze** puntura iritsia ez balitz bezala. Lutxo Egia

normalxeago adlag

Hasieran odol lodi, koagulatua ez zen ateratzen irekitako zainetik; gero, poliki-poliki hasi zen irteten; gero **normalxeago**, eta emakumea arnasa aise samar hartzen hasi zen.

Josu Zabaleta

Bestalde, **normalxeagoa** iruditu zitzaidan zutikakoetan gazteek aldea jatea Olasagastiri, eta baita aurrea hartzea ere, ondo jardun baitzuen bikoak. Beria - Kirola

normandiar 1 izlag/iz Normandiakoa, Normandiari dagokiona; Normandiako herritarra.

Erromaren erorikoaren eta **normandiar** konkistaren artean Britainian ziren zenbait komunitateren egoera eta zoria ikuspegi honetatik aztertzen da. Iñaki Mendiguren

Beste **normandiar** abenturazale batzuk. Iñaki Mendiguren

Frantziar izeneko Taillefer **normandiar** juglareak. Iñaki Mendiguren

Normandiar jatorriko andre honen senarra Settesoliko Grazian zen. Askoren artean

Normandiar erara jantzita. Joseba Urteaga

Normandiar armairu baten pareko soina. Jon Muñoz

Egun batean nire irakasle bat etxe aurretik igaro zen eta esan zuen polita zela, etxe **normandiar** tipikoa. Joseba Urteaga

Normandiar batekin ezkondua zen bigarrenez. Karlos Zabala

Normandiarrak lepoa bihurtu nahi zion gizon hari, baina haren intimitatean bizi zen, bestaldetik. Karlos Zabala

Normandiarren sakailatze beldurgarriek, esan dudanez, asko lagundu zuten sesio haiek buka zitezen. Iñaki Iñurrieta

Auzoan, **Normandiar** ederra esaten zioten, urdai saltzaileari Lisa ederra esaten zioten modu berean. Karlos Zabala

2 behe normandiar

Behe-**normandiar** nekazari bat ondoratu zitzaidan, eta San Migelek deabruarekin izandako eztabaida handiaren historia kontatu zidan. Josu Zabaleta

normandiera iz germaniera zaharraren aldaera, normandiar zaharrak hitz egiten zutena.

Germanikoa, esaterako, Ulfilas-eko gotikoan agertzen da [...]; gero germanikoa antzinako goi alemanezko idazkietan berragertuko zaigu, eta geroago anglosaxoierazko,

normandierazko eta abarrezko idazkietan; baina dialekto edo dialekto multzo horiek ez dira, bata lehen egiaztatu den beste dialektoaren jarraipena. Isabel Arrigain

normando izlag/iz normandiarra.

Izan ere, **normandoak**, frankoen erasoaren lantza-mutur zirenak, seljuktarrak bezain konbertitu berriak ziren barbarotasunetik. Iñaki Mendiguren

Jules Renard XIX. mendeko idazleak «frantses literaturako behi **normandoa**» deitzen zuen. Beria - Kultura

normatibizatu, normatibiza, normatibizatzen du ad arau jakin baten mendean ezarri.

Normalizatzeak baino, **normatibizatzeak** gehiago. Beria - Kultura

normatibizazio iz normatibizatzea.

Egoera berri horren aurrean, Euskaltzaindiaren egitekoa «**normatibizazioa**» izango dela azaldu zuen duela hamar bat egun Deustuko Unibertsitatean. Erakunde hau

[Euskaltzainida] hizkuntzaren araugintzaz, **normatibizazioaz** alegia, ardurutzen da, eta ez normalizazioaz. Beria - Kultura

normatibo 1 izond arau-emailea.

Ikasketa horren ikuspuntua arau-emailea edo **normatiboa** izan da batez ere. Askoren artean

Orotariko Euskal Hiztegia ez da, beraz, hiztegi arauemaile edo **normatiboa**, deskriptiboa baizik. Beria - Harian

Curriculumak EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hezkuntza sistemaren oinarri komunak finkatzen ditu, «baina ez du balio **normatiborik**». Beria - Kirola

Honela dira teoria horiek **normatiboak**: gure ekintzak moralki gidatzeko irizpideak eman nahi dizkigute. Askoren artean

Baina, zer balio eduki dezake autoritateak/botereak ez beste ezerk gidatzen duen etika **normatiboak**? Askoren artean

Eredu **normatiboa** bada ere, zer egin behar den asmatzen gutxi laguntzen du. Askoren artean

2 aruari dagokiona.

Testuinguru **normatiboaren** azterketa sakona egin behar da: Europakoa, Frantzia eta Espainiako Estatuena; eta, Euskal Herrian dauden administrazio autonomikoek sortutako arauak. Beria - Euskal Herria

nornagusigo *(corpusean nornausigo)* iz nagusi izateko lehiaketa.

Lau eterdian jokatu dute segida bi pilotari hauk **nornausigoa**. **Herria**

nornahi *(nornahi 146 agerraldi, 45 liburu eta 50 artikulutan; nornahik 115 agerraldi, 34 liburu eta 53 artikulutan; norknahi 0 agerraldi; nornahiri 40 agerraldi, 16 liburu eta 18 artikulutan; norinahi 0 agerraldi) 1 izord edozein pertsona. ik edonor.*

Txoro klase horretakoak lasaia izaten dituk arruntean, baina jelsaldi batek jotzen dituenean, **nornahi** garbitzeko gauza dituk. **Aingeru Epaltza**

Nornahik ez ote dio hori egiten **nornahiri**? **Janbattitt Dirassar**

Nornahik zernahi obra zezakeen lurraldea. **Itxaro Borda**

Nornahik gutien ustean ukan dezake buruko min poxi bat. **Herria**

Hein hori **nornahik** biltzen duke noiznahi. **Janbattitt Dirassar**

Nornahik ez beharbada, baina anitzek ba anitz kasutan! **Janbattitt Dirassar**

Nornahik laster nabaritutako zituen haurdunaldiaren seinaleak ez zituen oraino ageri eta zerbait egin behar zen. **Elena Touyarou**

Nornahiri gertatzen zaio, zeinahi egoeratan. **Bernardo Atxaga**

Betidanik zuen **nornahirekin** hizketan hasteko erraztasuna. **Imanol Zurutuza**

Nornahirekin gelditzen da, hala laborari nola burges, zergez, uztaz nahiz familiaz solas gozoan ari bitartean, basokada bat arno zintzurrazteko prest beti. **Aingeru Epaltza**

Holakoei nik ez dut den gutieneko kasurik egiten, **nornahitaz** nolanhika baliatu nahi duten biziatar tzar batzuk baitira. **Janbattitt Dirassar**

Halako moldez, non, bere xede eta helburuen erdiesteko eta bidean aitzina egiteko, zernahiz eta **nornahiz** baliaturik, bide-eragozkarri guztiez libratuko baitzen. **Joan Mari Irigoien**

2 (ezezko esaldietan)

Joanes Beltzuntze ez zen **nornahi**. **Aingeru Epaltza**

Otsabideko laborari gazteetan Andde ez zen **nornahi**, eta horregarik Ttote damu zen egoera argiari kasu gehixeago ez egina. **Itxaro Borda**

Eskerrak ez nintzen **nornahi**. **Aingeru Epaltza**

Ez zakela gero **nornahi** ekar gureganat. **Janbattitt Dirassar**

-Beraz ez duzu **nornahi** hautatu... **Menane Oxandabaratz**

Jaled Bradea andereak komitatu zituen bi emazte eta, jakin ezazue, ez **nornahi**. **Herria**

Bazituen lekukoak ere, ez **nornahi**: Colin Powel amerikar segetario nausia [...]. **Herria**

Oraingo denboretan pistola bat ez da **nornahiren** eskuetan ikusten. **Aingeru Epaltza**

Ez du **nornahik** emaiten ahal holako sos-aldea! **Herria**

Hori entzutean, Nikolas tiranoa txundituta eta izuz beterik geratu zen, eta beldur handia hartu zuen, hori esaten zionak ez baitzuen **nornahi** ematen. **Askoren artean**

3 (izen baten eskuinean edo ezkerrean)

Eromako Aita Sainduak berak larderiartzen ahal duela laiko **nornahi**. **Piarres Xarriton**

Azken batean, **nornahi** emakume delarik ere, hemendik at dago, telefono-hariaren beste aldean, eta ni hemen nago. **Mirentxu Larrañaga**

4 nornahi eresup_1 nornahi.

Batzuk diote hori ezin egina dela, holakoetan sukarra aise jauzten dela eta **nornahik** ere burua doi bat galtzen duela... **Herria**

Kalte gaitzak beraz, elkartasun mugimendu handi bat sustatu duten kalteak egia erran, holakoetan **nornahik** ere bere bihotz ona aiseago erakusten baitu. **Herria**

Kalte gaitzak beraz, elkartasun mugimendu handi bat sustatu duten kalteak egia erran, holakoetan **nornahik ere** bere bihotz ona aiseago erakusten baitu. **Herria**

Baina ezere truke ematekotan, seme edo alaba batenaren truke emango luke **nornahik** ere bizia. **Imanol Zurutuza**

Amerikanoak dituzte gehienik begietan baina **nornahiri ere** aise oldartzen dira. **Herria**

Harrigarri ere da funtsean nola ihardokitzen ahal duen, holako ibilaldi bat **nornahirentzat ere** biziki akitgarria izaiten baita. **Herria**

5 nornahi eresup_2 (dela, zela edo kideko adizkiren bat bat tartekaturik)

Beraz, Ministro jeneralak, **nornahi** dela ere, ni neu bezalaxe maita eta benera dezala nahi dut eta agintzen dut, ahal dudan neurrian. **Koro Navarro**

-Tira, **nornahi** dela ere bere jabe, azti-familia zaharren bat izan behar, eta aberatsa gainera -esan zuen Fredek. **Iñaki Mendiguren**

-**Nornahi** zarela ere, hitz egin ezazu mesedez -esan nuen. **Koro Navarro**

-Entzun, **nornahi** zarela ere. **Juan Kruz Igerabide**

Nornahi zela ere, Harryk lagundu egin nahi zion. **Iñaki Mendiguren**

Nornahi zelarik ere bera bidetik apartatu nahi zuena, ongi ezagutzen zuen, bazekien bere puntu ahula zein zen. **Harkaitz Cano**

Aurrerantzean hiriko agintaria, **nornahi** zelarik ere, behartua gelditzen zela urtero etxe hartako erreteila eta beharrezko beste konponketak egitera. **Askoren artean**

Nornahi eta nonahi zela ere, kontent egoten ahal zen bere arrakastaz. **Aingeru Epaltza**

Baina **nornahik** zuelarik ere jurisdikzioa -erregeak, kondeak, grabioiak, zenturioiak, jaunek, elizgizonek-, inoiz ez zuten bakarrik epaitzen. **Iñaki Iñurrieta**

Zeren hiltzailea **nornahi** zela ere, itzuli egin baita eta berrito jendeari erasotzen ari baita... **Iñaki Mendiguren**

Nornahi izan zela ere, kanporatu egin zuten -esan zuen Malfoyk-. **Iñaki Mendiguren**

-Lagun isekaria behor-eske dagoen zaldia bezalakoa: irrirtzi egiten du beti, **nornahi** jartzen zaiola ere gainean. **Elizen arteko biblia**

Legea beteko nuen zernahi eta **nornahirena** zelarik ere legea. **Anjel Lertxundi**

Aurrerantzean hiriko agintaria, **nornahi** izanik ere, behartua gelditzen zela etxe hurra konponaraztera. **Askoren artean**

6 nornahi eresup_3 (dela, den edo kideko baten ezkerrean)

Orain ulertzen dut zergatik zeuden norbanakoak, **nornahi ere** zirela, eginbehar berberen mende eta legeen errespetu berbera izatera beharturik. **Josu Zabaleta**

Baina esperientzia denez geroztik, ez da dudarik urteek zorroztu didaten ikusmena bera ere, nire-nirea izanik, eztabaidagarria eta kritikagarria dela, segur bainaiz bakoitzaren esperientzia pertsonala, **nornahi ere** den hau, ezin dela besterengana hedatu. **Pello Salaburu**

7 nornahi den

Lutheroren eta osaba Joanikoten iduri batua zen, beraz -Lutheroren gorputza eta osabaren bisaia-, izugarria, **nornahi-den** dar-dar ipintzeko modukoa, suaren argi-itzalen magalean sufrimenduak eta bakardadeak bere habia aurkitu balute bezala. **Joan Mari Irigoien**

-Egia erran, hautetsiek ere, **nornahi** izan ditzen, ez dute mirakulurik egiten ahal! **Herria**

Chirac -edo, **nornahi** izan dadin, Errepublikako presidentea- legeak baino gorago dea? **Herria**

-Zirkunik ere egin gabe, joka utzi nuen telefonoa, deiegilea, **nornahi** zela, aspertzeko ustean. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste nornahi (5); ez da nornahi (8); ez dira nornahi (4); ez zen nornahi (10); ez ziren nornahi (3); nornahi dela ere (5); nornahi izan (15); nornahi izan daiteke (3); nornahi izanik ere (4); nornahi zela ere (5)

bertze nornahik (3); beste nornahik (4); ez baitu nornahik (3); nornahik badaki (3); nornahik bere (4); nornahik egin (4); nornahik ere (7)

beste nornahiren (3); nornahiren kontra (3)

beste nornahirentzat (3)

nornahitasun iz nornahi izateko tasuna.

Nortasuna deitzen diote, edo identitatea, eta esan liteke jaiok mundura dakarren **nornahitasuna** norberatasun jakin batera biltzea dela nortasun pertsonalaren atea ixten duen giltza. [Iñaki Seguro](#)

nornaiznikeria (*corpusean norniznikeria*) iz handiustea, harrokeria.

Nicolas Sarkozy barne-minixtroa ari da jadanik dena espantu bainan ez ote luzke bere **norniznikeriak** bazterrerat utzi behar izatekotz? [Herria](#)

noroeste 1 iz ipar-mendebaldea.

Eta orduan, uharte galduean legokeen naufragoaren antzera txanel batetik zeinuka ari zen urketariari kasu egin gabe edo ez ikusiarena eginda hartu zituen hamar edo hamabi gradu **noroeste**, zera jakinen du hori komandanteak. [Koldo Izagirre](#)

Ifarra aldiz, itsasaldetik lainoak harrotuaz euria ekartzen duen haize firfira hezeari, **Noroeste** aldekoari. [Patziku Perurena](#)

2 ipar-mendebaleko haizea.

Noroeste gogorrrak jo zian bart. [Koldo Izagirre](#)

3 (adizlagun gisa)

Noroeste jotzen dik, ezin diagu arraun egin haize kontra, ez diagu deus aurreratuko, alferrik nekatuko gaituk. [Koldo Izagirre](#)

norpirenaiko izond Pirineoetako iparraldekoa.

Hala ere, garai horretan oraindik kultura **norpirenaikoa** zen hemen nagusi, Asturiastik Dordoñaraino zabaltzen zena, ez zen hemengoa berezitua. [Berria - Kultura](#)

nortarzun ik nortasun.

nortasun (*orobat nortarzun g.er.*) 1 iz gizabanakoaren izaera eratzen duten ezaugarrien multzoa. ik **personalitate**.

Alegia, ezaguera eta jokaera, irudipen eta sentipen guztiak bat eginez **"nortasun"**, "nitasun" eta halako hitzez aipatzen dugun identitatea osatzen dutenekin. [Xabier Olarra](#)

Hiru adjektibo hauetara bildu zuen alkateak Carlosen **nortasuna**: irundar, maisu, borrokalaria. [Joxerra Garzia](#)

Zure **nortasunean** halako zain hezikaitz bat, eta munduari iseka egiteko eta bidera ateratzen zaizun edozein arrisku zeure gain hartzeko gogo bat zugar. [Oskar Arana](#)

Sindromea eta **nortasuna** bata bestearen arabera moldatzen dira, gero eta gehiago elkar osatuz joaten dira, eta, aspaldi ezkonduetako bikoteak bezala, bi osagaiko izaki bakar bihurtzen dira azkenean. [Xabier Olarra](#)

Bazirudien musika-arloan "emanak" zitzaizkiola sentipen horiek, **nortasun** bat "mailegatzan" zuela, nahiz eta, musika bukatu bezain laster, hura galdu. [Xabier Olarra](#)

Nork bere **nortasunari** eustea baliotsuago izan liteke. [Gotzon Garate](#)

Desegituraturik omen dut **nortasuna**. [Anjel Lertxundi](#)

Uruguaira iritsi zen eta hantxe azaldu zuen bere benetako **nortasuna**. [Edorta Jimenez](#)

Ez nintzen Degrela koronelaren **nortasunaz** jabetzen, nahiz bere izena behin baino gehiagotan entzuna izan. [Bernardo Atxaga](#)

Mota guztietako **nortasun** eta izaerak zeuden, denak ezberdinak, beren originaltasun ukituz, baina denak sartzen ziren "neska arruntan" taldean. [Joxemari Iturralde](#)

Fedezko zera hauetan, izan ere, nork bere joera, gustu, **nortasun**, debozio edo teorien araberrako irudipenak ikusten baititu. [Iñaki Seguro](#)

Gure hurko batzuek, bestalde, beste kolore bateko **nortasun** edo naziotasun bat deklaratzan duen agiria erabili ohi dute, beren gogoz, hautuz eta erabakiz. [Iñaki Seguro](#)

ik beherago 6. [Askoren artean](#)

Zeren... jendetasuna... **nortasun** hori, badakizu? [Menane Oxandabaratz](#)

Nortasuna, ordea, ez da agirian ageri, ez NAN delakoan ez ENA delakoan ere. [Joxerra Garzia](#)

ik beherago 5. [Askoren artean](#)

2 (izenondokian)

Idazle batzuek **nortasun** handiagoa diate beste batzuek baino. [Bernardo Atxaga](#)

Nortasun handiko emakumea da, sentiberatasun sakonekoa, argia eta orekatua, leiala eta era berean autonomoa. [Askoren artean](#)

- **Nortasun** ahuleko emakumea naiz, laztana -erantzun zion-. [Jose Morales](#)

Era askotako umeak ikusi nituen: batzuk argiak, beste batzuk atzeratu antzak, irekiak zein lotsatiak, nork bere **nortasun** berezia zutenak. [Xabier Olarra](#)

Nortasun sendoegia zuen nahigabearen edo zorigaitzoaren haize ezin igarrikoez beraren bidea galarazteko. [Oskar Arana](#)

Nortasun iraunkorrik ez dut sekula maite izan. Bere apaiz bokazioa edo **nortasun** sexuala bat-batean aurkitzen duena bezala sentitu naiz. [Iñaki Seguro](#)

- **Nortasun** bikoitza daukadala esan dit -bota zigun serio, zeharo kezkatuta. [Jokin Urain](#)

Baina Montaignek ez zuen onartu konbertsio erabatekoaren haustura; nahiago zuen esperientziaren jarraitutasuna baieztatu **nortasun** zatiezinean. [Joseba Zulaika](#)

Autistek badute, haren aburuz, **nortasun** benetako bat, eta bera gai da, bere uestez, nortasun horrekin konektatzeko. [Xabier Olarra](#)

Lobulu frontaletako lesioak, nolabait identitatea kendu arren, identitate edo **nortasun** nolabaiteko bat eman ere eman ziola. [Xabier Olarra](#)

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

14-15 urte ditugunean egolatria-fase bete-betean egon ohi gara: horoskopoak irakurri, sinadura-modu berriak probatu, **nortasun**-testak bete, kalean zoazela erakuslehoetan islaturiko zeure irudiari soslaiz begiratu... [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

Pertsonen **nortasun** modelook erantzen badizkiegu robotei. [Berria - Gaiak](#)

Halako **nortasun**-eraldaketa eta -berrantolaketak gu guztion baitan gertatzen dira, egunean zehar, rol nahiz ageriko nortasun batetik beste batera aldatzen garenean: gurasoenetik lanbidekora, politikora, erotikora, edo beste edozeinetara. [Xabier Olarra](#)

Nortasun desorekak eta menpekotasun gaitzak dira ugaritzen ari direnak. [Berria - Gaiak](#)

Baita **nortasun** egonkortasun handiagoa (antsietate gutxiago) ekarriko dutelako ere. [Berria - Mundua](#)

Ez galdegin niri nor naizen ni eta ez eskatu niri beti bat irauteko: **nortasun** egoeraren moralari dagokio hau. [Xabier Arregi](#)

Badakit txantxetan esaten duela, berak ere bere **nortasun** ahuleziaren beldurra duela iruditzen zait. [Josu Zabaleta](#)

Baina izan liteke, halaber, goragoko mailetan, **nortasun**-gose moduko bat: beste persona batzuk askatu, mendean hartu eta baneratzeko premia moduko bat. [Xabier Olarra](#)

HOM gene horietan, baten edo besteren mutazioak dakar, bada, segmentu baten baitako **nortasun**-erakuntza eta, ondorioz, biren ordeze lau hegali dituen euli bat eratzea, edo antenen lekuan, buruan, hankak eratzea. Juan Garzia

Oso iritzi onean zeukan Cunningham jauna **nortasun** -ezagutzaile eta aurpegi-igarle gisa. Irene Aldasoro

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **nortasunaren** funtsa den oreka ezegonkorrean. Iñaki Mendiguren

Ordu arte, Stephen nortasunaren partetzat eduki nuen -autista- **nortasunaren** partetzat, hain zuzen ere- eskasiak izatea gainerakoontzat "nortasun" bat definitzen duten emozio eta gogo-egoera sail hartan. Xabier Olarra

Egunotan modan jarri da "apostasía" egitea, norberak kristau **nortasuna** bazterturik duela adierazteko. Joseba Zulaika

Errepresioaren erruz hantuturik **nortasuna**, nortasun depresiboa da: norberak bere egoeraz negar egin dezake, negar eginaraz. Itxaro Borda

Hala ere, pertzepzio-kognizio prozesuak fisiologikoak badira ere, norberarenak ere badira [...] eta pertzepzio- **nortasun** batera bideratzen dute. Xabier Olarra

Argitu beharra zegoen ea hain ahula ote zen oraindik haren ikusmena eta ikusle- **nortasunaren** oinarri guztia. Xabier Olarra

5 izen-abizenek zertzen duten nortasuna.

Beste ihesaldi bat Italiara, **nortasun** faltsuarekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Frantzia errefuxiatu gisa bizi zen **nortasuna** faltsutuz. Itxaro Borda

Rosa de Winter bezala, paper faltsuei esker, **nortasun** -berri hirurak. Felipe Juaristi

Gogoan zeuzkan Moskun eman zizkioten gomendioak: Siberia ezkutuko **nortasunarekin** zeharkatu eta Irkutskera edonola ere iritsi, Nola, iraganaren estigmaz libratzeko, **nortasun** berri bat asmatu zuen aita-amen izenak erabiliz: Sandor Lester. Karlos Zabala

Lehen-lehenik amorante ezkutuaren **nortasuna** ezagutu nahi zuelako. Xabier Mendiguren Elizegi

6 zerbaiten izaera eratzten duten ezugarrien multzoa.

Nire aurpegiak ez du nonbait behar adina **nortasun**, arruntzia da edo trukagarria, ez du ezer bereizgarririk. Joxean Agirre

Euskara da, horrenbestez, gure **nortasunaren** ezaugarri funtsezko bat, desberdin egiten gaituena. Pello Salaburu

Hilketa/martirio honen ekinntza fundazionalan oinarritu zuen ETAk **nortasun** berria. Joseba Zulaika

Helendarren lehen testuen izaera horrek, ahokotasunaren hipotesiak ongi azaltzen duenak, herri zaharren **nortasun** kolektiboa jartzen du agerian. Askoren artean

Raxoiren ustez, **nortasun** nazional bakarra Espainia da. Berria - Harian

Europako Batasuneko kideek ez dute **nortasun** edo kultura batasunik. Iñaki Heras

«Beste **nortasun** bat» eman nahi diote Eroski markari. Berria - Ekonomia

Horretan gera zitekeen kontua, baina nik **nortasunik** gabeko pelikula zela esan nion. Anjel Lertxundi

Testuak eta musikak euren **nortasun** propioa izango dute, nork berea. Berria - Kultura

Bazirudien lerro bakoitzak bere **nortasun** berezia zuela, eta mujik bakoitzak izana berreskuratzen zuela izenaren bitartez. Jose Morales

Nortasunik gabeko etxe osatutako auzo kaskarra. Txillardegui

Logela tiki bat zen, garbi-garbia baina **nortasunik** gabea, gonbidatuentzako gela bati zegokion gisan. Alberto Ladrón Arana

Memento azkar, fedez, euskal **nortasunez** betea. Herria

Ur-tanten **nortasuna** ez da, inola ere, hodeitasunean urtzen. Joxerra Garzia

7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geroztik gertatu zait, **nortasun** arazoek gero eta garrantzi gehiago hartu duten mundu honetan, Gizakiaren eta Pertsonaren arteko bereizketaz gogoratzea. Piarres Xarriton

Zortzi bozguna beraz eta **nortasun** izpirik gabeko bozgunaek! zendako ez lurraldeka izaitekotz, ja ezagutzen ditugun lurraldeak, Akitania eta beste, kondutan hartuz? Herria

8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskal gizartearen kultura **nortasuna** indartzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Herri **nortasun** edo ahalmen bat historian manifestatua den bezainbatean. Joxe Azurmendi

Bistan da, hori herri honetan eta hemendik aski hurbil eta aski urrun dauden beste herri batzuen ezaugarria denez, nazio **nortasunaren** osagai gisa, gaztelaniak ez duela esangura berezirik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Psikologoek gure nortasuna esaten dioten hori gure gizarte- edo familia-**nortasuna** bezain garbi finkatu beharra dago mundu bizian. Juan Garzia

9 nortasun agiri (213 agerraldi, 46 liburu eta 99 artikulutan; orobat ageri g.er.)

Nere karnetea, **nortasun agiri** edo dena delakoan, nor naizen adierazten da, ustez: izen bat naiz, numero bat naiz, aurpegi bat naiz."José Ramón" naizela jartzen du nire **nortasun agirian**. Iñaki Segurola

Nortasun agiri frantsesean Jérôme deitzen zen. Itxaro Borda

Nortasun-agiriaren arabera, hogeita hiru urte baino ez zituen. Jose Morales

Beste gela batera eraman gintuzten, argazkiak egitera, **nortasun-agirirako**. Juan Kruz Igerabide

Hiru paper behar dira: **nortasun ageria**, lurraldetik ateratzeko baimena, eta ere E 111 papera. Herria

Hamabost egunen buruan **nortasun agiri** faltsuak eskuratu zituzten. Itxaro Borda

Hamabost egunen buruan **nortasun agiri** faltsuak eskuratu zituzten. Itxaro Borda

Atxiloketaren anean bi **nortasun agiri** zituen Gomezek, bietako bat faltsua. Berria - Euskal Herria

Esan zidan nire **nortasun agiriaren** zenbakia bikoiztuta zegoela, besteren batek zenbaki bera zuela, alegia. Jokin Urain

Nortasun agiria erakutsi behar izan dugu etxera sartzeko. Berria - Euskal Herria

Ertzaintzak beste 20 langileren **nortasun agiriak** bildu zituen. Berria - Ekonomia

Duela ia 30 urte Espainiako **Nortasun Agiria** iraungia izanik. Berria - Euskal Herria

Duela 35 urte berritu zuen azkeneko Espainiako **Nortasun Agiria**. Berria - Euskal Herria

Inolako **nortasun agiririk** gabe, errefuxiatu edo herritar **nortasun agiririk** gabe, estatu interesen arabera haizeak darabilen orbela baino gehiago ez da deportatua. Jokin Urain

Horratz gure **nortasun agiri** nazionala. Patziku Perurena

SS **nortasun agiriaren** zenbakia: 35.326. Alberto Ladrón Arana

Zein da ikastola berri horren **nortasun ageria**? Herria

10 nortasun karta nortasun agiria.

Polizak ikuska ditzake nor beraren **nortasun kartak**, pasaportak, egoipen paperak, edozein inkesta administratiboren karietara. Herria

11 nortasun txartel (7 agerraldi, 4 liburu eta 2 artikulutan) nortasun agiria.

40ko hamarkadan, Euzkadiko Ordezkaritzak **nortasun txartelak** lortu zizkien paperik gabe iritsi ziren euskal herritarrei. Berria - Euskal Herria

Nortasun txartel berriak eman behar dizkiete holandar guztiei. Josu Zabaleta

Ingruan behatze lanetan joan-itzulika zeuden polizia batzuek **nortasun txartela** eskatu zieten bi gazteei. Pello Salaburu

Eskaera behin betiko onartu eta etorkinak hilabete du atzerritarren **nortasun txartela** eskatzeko. Berria - Harian

Gainerakoak, edo izurriek jota hiri dira, edo ihesi joan dira **nortasun-txartelk** gabe, eta, beraz, hiltzat hartu behar dituzu. Jose Morales

12 nortasuna izan du ad

Bazuen **nortasuna** emakumeak. **Edorta Jimenez**

Nortasunik ez duen pertsona, **nortasuna** bete-betea ez duena, elbarria da zentzu moralean. **Ander Irizar**

Benetako **nortasuna** bagenu ez genikek hainbeste nortasun agiririk behar. **Joseba Sarrionandia**

Bere aitaren **nortasuna** du eta bere amaren goxotasuna. **Xabier Etxabe**

Gidari izateko **nortasuna duen** pertsona. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

bere nortasun (46); **bere nortasun agiria** (6); **bere nortasun berezia** (7); **bere nortasun propioa** (4); **beren nortasun** (8); **bi nortasun** (4)

espainiako nortasun agiria (6); **euskal nortasun** (10); **geure nortasun** (4); **gure nortasun** (11)

kultur nortasun (5); **nazio nortasun** (6); **nire nortasun** (9)

nortasun ageria (4); **nortasun agiri** (44); **nortasun agiri bat** (4); **nortasun agiri faltsu** (6); **nortasun agiri faltsuak** (11); **nortasun agiria** (98); **nortasun agiria eman** (5); **nortasun agiria ezartzeko** (5); **nortasun agiriak** (21); **nortasun agirian** (6); **nortasun agiriaran** (10); **nortasun agiriko** (7); **nortasun agiririk** (19); **nortasun agiririk gabe** (4)

nortasun aldaketa (5); **nortasun arazoak** (5); **nortasun bakarra** (5); **nortasun bat** (22); **nortasun baten** (8); **nortasun berezia** (17); **nortasun bereziaren** (4); **nortasun berri** (4); **nortasun berria** (10); **nortasun handia** (11); **nortasun handiko** (26); **nortasun handiko gizona** (6); **nortasun handikoa** (9)

nortasun ikur (4); **nortasun kolektiboak** (8); **nortasun nazional** (4); **nortasun nazionala** (7)

nortasun osoa (6); **nortasun politiko** (5); **nortasun propioa** (18)

nortasun zeinu (4); **nortasun zeinuak** (5); **zure nortasun** (4)

bakoitzak bere nortasuna (4); **bakoitzak bere nortasuna** (6); **bakoitzaren nortasuna** (7); **benetako nortasuna** (14); **bere nortasuna** (100); **bere nortasuna begiratzu** (4); **bere nortasuna zaindu** (4); **beren nortasuna** (35); **berezko nortasuna** (10); **berezko nortasuna duen** (5)

egiazko nortasuna (4); **euren nortasuna** (6); **euskal herriaren nortasuna** (8); **euskal nortasuna** (33); **gure nortasuna** (36); **herriaren nortasuna** (12); **hildakoaren nortasuna** (4); **nafarroaren nortasuna** (9); **nazio nortasuna** (7); **neure nortasuna** (7); **norbere nortasuna** (4)

nortasuna agertu (6); **nortasuna atxikitzen** (4); **nortasuna begiratzu** (4); **nortasuna berreskuratuz** (5); **nortasuna berreskuratze** (5); **nortasuna duen herria** (4)

nortasuna eman (5); **nortasuna ematen** (10); **nortasuna eraikitze** (4); **nortasuna finkatzen** (4); **nortasuna galdu** (8); **nortasuna galduko** (6); **nortasuna garatzeko** (4); **nortasuna gordetze** (4)

nortasuna indartzeko (5)

nortasuna ukatzen (4); **nortasuna zaindu** (5); **zure nortasuna** (6)

nortasundun *izlag*

Biltzarrak ikusi du, era berean, babes kolektiboa behar dutela gutxiengo nazionalak, eta gutxiengo horietako kideek ahalmena izan behar dutela legezko subjektu gisa jarduteko, bai gizabanako gisa eta bai legezko **nortasundun** entitateetan elkartuta ere. **Berria - Harian**

nortasungarri *izond* nortasuna ematen duena.

Horrela, euskalgauzaren uestezko bereizgarriak eta **nortasungarriak** (euskal edo nafar) estatupeko, kulturapeko eta agindupeko bilakatzen dira; estatupeko, eta larriagoa dena, estatutikako. **Iñaki Seguro**

nortasuntsu *izond* nortasunez betea.

-Ez haut beldurtu nahi, baina... -paua egin nuen, efektua indartzeko- baina aski dinat hilabete neskarik **nortasuntsuena** ere zoratzeko. **Anjel Lertxundi**

nortasunzale *izond* nortasunaren zalea dena.

Da humanista, demokrata, **nortasunzalea** eta federalista. **Herria**

norte 1 *iz* iparraldea.

Angelutik **norteko** Neuville herrirat, bidaia eder bat egin du herritar Marie Claude serorak. **Herria**

Neure bakardadearekin gozoro ezkontzen ninduenak neure bakardadearekin muturbelzuturik jarri nau itsuski, ezinka eta muzinka, ez **norterik** eta ez konorterik dudala kasik. **Iñaki Seguro**

2 iparreko haizea.

Baina, edonork daki, iparrak edo nortiak -kosta aldean dioten gisara-, bere emaitza, bustia eta euria duena: **Nortetik** datozen edoi baltzak bakarre eurixe. **Pello Zabala**

3 Ferrocarril del Norte-ren izena.

Kantu bat ezpainetan nuela hartu nuen **Norteko** (Hegoalderako) tren. **Iñigo Aranbarri**

Norteko burdinbidearen azken zatia inauguratzen zela eta haren berri ematen. **Martin Anso**

Hortzetako eskuila, alkandora bat, bi aldagarri eta Eromen sortzailea eskuko poltsa batean sartu, eta **Norteko** geltokira abiatu nintzen. **Ramon Saizarbitoria**

Norteko geltokiko kantinan egon ohi zen igeltseroarenak. **Ramon Saizarbitoria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

norteko geltokira (3)

nortu, nor(tu), nortzen da/du *ad* giza nortasuna hartu edo eman. ik**personifikatu**; **zertu**.

Eta Manuel Lekuonak dioenez guziz bestera, horien kantu saltsetatik **nortua** (pertonifikatua) behar du izan, inondik ere, nere guzizko OrantzaAro horrek. **Patziku Perurena**

Komeni dena itzuli gabe utzi, artikuluz gabetu eta horra euskarazko zerak **norturik** munduratu, erdara emagin dela. **Iñaki Seguro**

Kanta honetan, badiirudi Mikelats dela olesarorako **nortu** den pertsonaia gaiztoa. **Patziku Perurena**

Gerxeago, gaztezutuan, ardura ikusi ohi zuen neska hortik zehar, begitartea **nortua**, bularrak haziak, ipurdia borobildua, irriñoa begietan. **Jose Angel Irigaray**

Eta arabiarrak azaldu zaizkigunez gero, ezin utziko dugu aipatu gabe Baxenabarreko*Mairi*, "genio de fuerzas colosales", *mairía* (< *mairu*-a [...]) komeni bezala ebaki eta **nortzetik** heldu dena. **Iñaki Seguro**

nortxo *iz*

Aitortu behar da, dei modu hauek, berdin da Baroja edo Unamunorenak, Espainian **nortxo** goitizera eta, hari nagiz eta geldo irizten zaionez gero, euskaldunak han nagusi jartzera, inoren lotsa eragiten digutela gaur. **Joxe Azurmendi**

nortzuk 1 *izord pl nor.*

-Eta **nortzuk** dira -galdetu zuen- besteek baino gehiago distirutzen duten bi haiek? **Askoren artean**

Badaki Petrussek **nortzuk** ziren arrotz haiek? **Oskar Arana**

-Non nago, **nortzuk** zarete zuek? -galdegin zuen Hasanek, ustekabeen esnaturik. **Patxi Zubizarreta**

-**Nortzuk** dituzu horiek?

Hona **nortzuk** ziren: Pedro eta Joan, Santiago eta Andres, Felipe eta Tomas, Bartolome eta Mateo, Santiago Alfeorena, Simon Zelote eta Judas Santiagorena. **Elizen arteko biblia**

Komeni da jakitea, **nortzuk** izan ziren egoera hartan erregearen solaskideak. **Jon Alonso**

Ernegu batean etorriko zen Juan, pertsona elegante haiek **nortzuk** ote ziren. **Edorta Jimenez**

Galdetu eta jakingo duzu nor naizen eta **nortzuk** ditudan lagun. **Elizen arteko biblia**

Nortzuk diren veneziar petoak asmatzen saiatu edo haien jarduna entzun nahi duenak turisten bideetatik apartatu behar du. **Anjel Lertxundi**

Nor Portalis, **nortzuk** proiektuaren egilekideak. **Andres Urrutia**

2 nortzuek (nork kasuan; orobat nortzuk g.er.)

Taldea **nortzuek** osatu duzue? **Berria - Euskal Herria**

Nortzuk dituzte eskuetan suntsipen handiko armak? **Berria - Mundua**

Eta halaz guztiz, berak, izenik gabeko herri batean galdurik, bazekien **nortzuek** merezi izan zuten zerua. **Juan Garzia**

Ez dakit, euren ustez, **nortzuek** irakurri nahiko lituzketen horrelako kontuak. **Mirentxu Larrañaga**

Horren hurrengo hamabi-hamalau lerro ezabatuen azpian txostengileak Ernest Hemingwayren sarea **nortzuek** osatzen duten argitu nahi du. **Edorta Jimenez**

3 (bestelako kasuetan)

Eta **nortzuei** zin egin zien Jainkoak ez zirela haren atsedenean sartuko? **Elizen arteko biblia**

Egileak hemen, iragaitzaz, liburu hau **nortzuentzat** egina den gogoratzen du, hots, filosofian eta, bereziki, psikologian, ikasketa sakonak eginak zituztenentzat. **Xabier Kintana**

-Ribeiro pixka bat edan nahi duzuenean -Xavierrek ere pluralean-, badakizue **nortzuegana** etorri. **Patxi Zubizarreta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nortzuek osatzen duten (3)

hautagaiak nortzuk diren (3); **irabazleak nortzuk diren** (3); **nortzuk dauden** (3); **nortzuk dira** (28); **nortzuk diren** (47); **nortzuk garen** (4); **nortzuk ginen** (5); **nortzuk ikusten dituzu** (3); **nortzuk izan daitezkeen** (3); **nortzuk izango diren** (11); **nortzuk osatuko duten** (7); **nortzuk zarete** (8); **nortzuk zarete zuek** (4); **nortzuk ziren** (26); **nortzuk ziren esan** (3)

norvegiar (orobat *norbegiar*) 1 *izlag* Norvegiakoa, Norvegiari dagokiona.

Niels zen, zalantzarik gabe, **norvegiar** eta apika are eskandinaviar matematikaririk onena. **Jon Muñoz**

18:30ean, Jan Garbarek **norvegiar** saxo jotzailea ariko da, Kursaalako auditorioan. **Berria - Kultura**

Norvegiar baleazaleak izanen dira: [...]. **Joseba Sarrionandia**

Egun hartako eguzkia gorde orduko **norvegiar** armada garaitua zen. **Juan Garzia**

Norvegiar bandera postean gora altxatu eta zeuengana inguratuko da. **Joseba Sarrionandia**

Eltzea zekarrela etorri zen Larraitz; hura **norvegiar** kutxan sartu eta almohadilla eta taparekin ongi itxi zuen. **Pablo Sastre**

Itsaslasterra gogorrean dagoenean, eta ekaitz batek areagotzen badu lasterraren indarra, arrisksua izaten da **norvegiar** milia bat baino barrurago sartzea. **Koro Navarro**

Lagun **norvegiar** batek onartuko zuen agian batzuk probatzea, ikusteko besterik gabe. **Joxan Elozegi**

Alaveseko Dan Eggen jokalaririk ohi **norvegiarrek** bere kirol ibilbidea bukatutzat ematea erabaki du. **Berria - Kirola**

Portutik atera berriak zirela, goleta **norvegiar** bat ikusi zuten. **Martin Anso**

1,4 milioi koroa **norvegiar** (174.000 euro) ordaindu beharko ditu. **Berria - Ekonomia**

2 *iz* Norvegiako herritarra.

Bi **norvegiar** izan zituen alboetan: Halvard Hanevold bigarren izan zen brontzezko domina irabazi zuen joan zen larunbatean 20 kilometrokoaneta Frode Handersen hirugarren. **Berria - Kirola**

Nora Erfjord **norvegiarra** zen. **Juan Garzia**

Henrik Ibsen **norvegiararen** drama (1828-1906). **Fernando Rey**

Jendeak bidaiatu egiten du, **norvegiar** asko etorri da Bilbora edo Iruñera, eta, horren bidez, jende askok izan du Euskal Herriak duen kultur nortasun bereziaren berri. **Berria - Euskal Herria**

-Urrutieneko uharteari -jarraitu zuen agureak-, **norvegiarrek** Vurrgh deitzen diote. **Koro Navarro**

Baina matematikari handi hori hain hartuta zeukan bere obraren handitasunak, non ez baitzuen betarik hartu **norvegiar** gazte ezezagun haren teoriak ulertzen saiatzeko. **Jon Muñoz**

norvegiara *iz* Norvegian mintzaten den germaniar hizkuntza.

Errezitaldian lau hizkuntza erabiliiko dituzte: euskara, gaztelania, ingelesa eta **norvegiara**. **Berria - Kultura**

Nahiago zuela hemen euskotarrek **norvegiara** ikastea maketoei euskara ikastea baino. **Berria - Euskal Herria**

Norvegiaraz edo serbieraz jakin zezakeen, apika, eta horrek ia ezinezkoa bihurtzen zuen Josebaren ahalegin guztia. **Iban Zaldúa**

noski 1 *adlag* baieztatzen edo ezeztatzen dena ezaguntzat edo begien bistakotzat hartzen dela adierazteko hitza. *ikjakin*¹

Bai, **noski**, jende guztiak onartzen du burutik zegoela aspalditik. **Lopez de Arana**

Bai, **noski**, ez zegoen dudarik: haiek ez ziren bere eskuak. **Karlos Linazasoro**

Ez, **noski**, jauna; ez da oso gai interesgarria. **Antton Olano**

Ez, **noski**, hezur eta haragizko euskaldunak, baizik eta estereotipoaren arabera asmatutako pampina batzuk. Bernardo Atxaga

Noski, hortz eroririk ez neukan batera, ezta zubiztatua daukadana ere, laugarrena eskuin, goian. Joxe Austin Arrieta

Noski, beti egongo da esatea kontatzen dena egia dela. Iñigo Aranbarri

-Noski !-nik. Txillardegia

Noski badituela, beste alderdi aipagarri asko, baina hemen ezin luza ni. Patziku Perurena

Nik, **noski**, suitzarra nintzenez ("sutziarra", berak hala esatea gogokoago, nonbait), ezin omen nuen horretaz iritzi funtsezkorik izan, ez bainintzen inoiz Kaukasoa izana.

Joxe Austin Arrieta

Badakizu, **noski**, zer diren. Bernardo Atxaga

Izan dira, **noski**, beste hainbat hilketa: [...]. Jon Alonso

Ez dut **noski** auzitan jarri nahi iniazio horren baliagarritasuna eta are premia. Juan Garzia

Ximurra ez zen **noski** nire erantzunaren minean. Aingeru Epaltza

Etsipenak sosegatuko zizkidan **noski** nerbioak. Koro Navarro

-Beti ez, **noski**, aldarre olean jaikitzen naizenean soilik. Migel Angel Mintegi

Pentsaera hau, **noski**, ultranazionalista da, totalitarioa. Bernardo Atxaga

Bestetik, beira lantzea ez da kimika: beste asmo batekin etorriak ginen **noski** laboratoriora. Juan Garzia

Berarentzat zen, **noski**, gutuna. Jon Muñoz

Hirusta batek ez dik egundaino trinitatearen zera hori argitu, eta ez nitek harra egiten zaion gatzaz ondatuko janaririk nahi, bat etorriko haiz horretan ere, **noski**, nirekin.

Anjel Lertxundi

Eta baita ere Bob, **noski**, eta Ken... Karlos Zabala

Esatea libre da **noski**. Joxerra Garzia

Hura ez zen ganorazko burubidea, **noski**. Joxe Austin Arrieta

Bere helbide eta telefonorik utzi gabe, **noski**. Bernardo Atxaga

Eta hi ados egon hintzen, **noski**. Iban Zaldua

2 behar bada, ziur aski.

Harritu egingo haiz, **noski**, literatura hitza erabiltzen dudala-eta matematika aipatzeko. Jon Muñoz

Hila behar dik **noski**. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

bai noski (123); **ez noski** (77); **noski baietz** (11)

nosografia iz eritasunen sailkapen eta deskribapena.

Utzi diezaiegun, beraz, oharkabetasunagatik **nosografia** filosofikoa eta mintzei buruzko tratatua sekula ireki ez dituztenei arkeologiak ezberdintasunak nahierara asmatzen dituela esateko ardura. Xabier Arregi

nosografiko izond nosografiarena, nosografiari dagokiona.

Kontzeptu-jokoak eta banaketa **nosografiko** berriak. Xabier Arregi

nostalgia 1 iz maite den zerbaiten edo norbaiten faltak edo urruntasunak eragiten digun goibeltasunezko egoera. ikmin 6; oroimin; iragan² 6.

Zoko mehar haren **nostalgia** bultzatzen zuen orain tabernara; han zegoela, Gavard eta Robineren gaineko tiraniazko ordu gozoak gogoratzen zituen. Karlos Zabala

Hitz galduaren **nostalgia**. Ramon Saizarbitoria

Ezagutu ez dudan zorionaren **nostalgia** absurduan murgildu naiz. Piarres Aintziart

Gazteek zerbaiten desira eta **nostalgia** sentitzen dute beti, susmopeko aberri ezaxola eta beldurgarri batena, mundua deritzon aberri horrena. Xabier Olarra

Militar-leinukoa zen, eta bere zaharragoen destino epikoaren **nostalgia** sentitu zuen. Juan Garzia

Gaua heltearekin bat sartu zen lanbro itxia Arantzazuko partean, eta orduan etorri zitzaion Felixari senarraren **nostalgia**. Xabier Etxabe

Ni, Funky Chicken euskotarra, **nostalgia** jota nago. Harkaitz Cano

Elkarri musu emango diote -geroaren **nostalgia** uxatzeko konjurorik zaharrena-, eta maitasun historia berri bat inauguratuko dute aireportuko behelainoan. Joxerra Garzia

Nostalgiaren tristura darie poema hauei. Irene Aldasoro

Hondakinek malenkonía eta **nostalgia** sor lezakete, baina baita kontrakoa ere: eraikuntza eta mundu berri bat sortu beharrenez premia. Joseba Zulaika

Horregatik gogoratzen ditu, **nostalgia** apur batez, Ondarearen Babeserako Elkartearen egun efimero haiek. Iban Zaldua

Nostalgian bizi dira, **nostalgia** bizi ditu. Hasier Etxeberria

Errebeldiaren **nostalgia**ekin, Absolutuaren **nostalgia**! Joxe Azurmendi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Halaz ere, ahotsean **nostalgia** kutsu bat nabari zuen. Xabier Olarra

Ez zaio polemika- edo **nostalgia**-kutsu gehiegirik nabaritzen Frantzisko eta lagunak aurkeztean eta anaiartearen lehen urteak kontatzean. Askoren artean

Nostalgia sentimendu gazi-gozo bat zen, edo goxoki bat, kanpoa ezitia zuena eta barnea garratza. Joan Mari Irigoien

Ez du polemika-kutsurik; gehienez ere, iragan garaietako **nostalgia**-puntu bat sumatzen zaio. Askoren artean

Koilarakadaz koilarakada hustu beharreko ozeanoa baino askoz zabalago azaldu zitzaidan **nostalgia**-unibertso lazgarri hura guztia. Joxan Elozegi

Osotasuna gainbehera erortzen denean, tradizioak arku eta gezia izateari uzten dio, eta tradizioari egiten zaion deiak **nostalgia**-ekintza bat izateari uko eginik, urrutiramendu ironiko edo suntsiketa sistematiko bihurtzen da. Anjel Lertxundi

Irakurle finek daborduko jakingo zuten, *Rodetacon Teatrok* **nostalgia** bolada hori harrapatu nahi izan du. Berria - Kultura

3 nostalgia izan du ad

Dantzaldi amerikano haien **nostalgia** dut, esaterako. Karlos Zabala

Eduki ezin izan zuen Sabin izeneko seme haren **nostalgia** zuela. Ramon Saizarbitoria

Halako batean, eskutik heldu, eta astia bagenuen Eiffel dorrea ikusi nahi zuela esan zidan, Parisen sinboloa zelako eta, batez ere, lehendabiziko egunaren **nostalgia zuelako** jada. Ramon Saizarbitoria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nostalgia kutsu (3)

nostalgian bizi (3)

nostalgikeria iz nostalgía, gaitzesgarritzat markatua.

Ez, ez naiz **nostalgikerietan** hasiko, garai onak eta tankera horretako txorakeriak, ez dago garai onik, garaiak daude, garaiak, besterik ez. **Karlos Zabala**
Nostalgikeriarik ez, **nostalgikeria** masturbazio moduko bat da, baina benetako plazerrik ematen ez duena **Karlos Zabala**

nostalgiko 1 izond nostalgíari dagokiona; nostalgía dariona.

Urrezko talde hura oroitzen **nostalgikoa** besterik ez da: Leeds *Premier League*ko azken tokian dago, eta urteetako lana harrika bota dute. **Berria - Kirola**
 Neonezko argiak eta tentelkeria amerikar ugari bazterretan, *country* eta *spaghetti western* estilokoak, 60ko hamarkadako aztarna **nostalgikoak**. **Patxi Iturrategi**
 Minor-ek irribarre labur eta **nostalgiko** bat egin zidan. **Oskar Arana**
 Frantzisko Lopez Alenen testu **nostalgiko** bat da, portuetan garabiak-eta sartu aurretik, garraioan ibiltzen ziren astoetako baten kontura. **Anjel Lertxundi**
 Hiririari darion tristura **nostalgikoa**. **Anjel Lertxundi**
 Gaua debaldeko solas **nostalgikoen** erresuma izan zitekeen. **Itxaro Borda**

2 nostalgía sentitzen duena.

Aurkarietan ezar ditzagun ere bospasei marxista-leninistak, gu bezalatsu teologo **nostalgikoak**. **Piarres Aintziart**
 Mundua mundu denetik hain ugariak diren ero **nostalgiko** halakoak! **Anjel Lertxundi**
 Erromantikoeak, **nostalgikoeak** eta komunistek zirrara berezia sentitzen dute irudi horren aurrean. **Urtzi Urrutikoeetxea**
 Ez pentsa **nostalgikoetarik** naizela! **Itxaro Borda**
 Ilustrazioak Arrazoimenaren gure **nostalgikoeak** argitzen ez digutena da, ilustrazio horrek gaur zer izan beharko lukeen. **Joxe Azurmendi**

nostromo iz kontramaisua.

Dena dela, jendeak **nostromoa** esango dio edo, izena hain propioa egingo zaionez, **Nostromo**. **Joseba Sarrionandia**
Nostromoak bilerara deituko du eta kubertan, bere uniforme zuriarekin marinerito manikia dirudiela, sama sendo eta mortsu bibotearekin, aginte ahots ozenez emango ditu aholkuak: [...]. **Joseba Sarrionandia**
 Enbarkazioa gelditu eta atzerantz itzultzeko aginduko du **nostromoak**. **Joseba Sarrionandia**
 'Istriborrera!' aginduko du **nostromoak**, izotzeko tren mamu hori martxan hasiko delakoan. **Joseba Sarrionandia**

nota 1 iz partitura batean, soinu bat adierazteko ikurra; soinu hori bera.

Diapasoiko **nota** da praktikan uhin sinpleari gehien hurbiltzen zaiona. **Lourdes Oñederra**
 Do-re-mi-fa-sol-la-si: bat-bi-hiru-lau-bortz-sei-zazpi: **notak** eta numeroak. **Joan Mari Irigoien**
 Pentagramako **nota** bakar batek. **Askoren artean**
 Hala, 440 Hz dituen *La* bat baino eskala bat goragoko *La* **notak** 880 Hz izango ditu. **Lourdes Oñederra**
 Keinu egin zion Davidi, eta *Padam Padam* doinuaren **notek** bete zuten eskola. **Bernardo Atxaga**
 Guri Hauspoa zaratarik gabe eta **notak** garbi jotzen irakatsi digute. **Xabier Amuriza**
 Gero txistura apuntatu ninduten, **notak** irakurtzen banekiela baliatuta. **Xabier Mendiguren Elizegi**
 Gustuko du musika horrela diseinatzeko, **notak** bakartzea, isolatzea, **nota** bakoitza tarte txuriez inguratutik ikustea. **Alberto Barandiaran**
 Etenen zen erritmoa, iluntzen nahiz argitzen ziren **noten** tinbreak, baina piezak kementsu segitzen zuen aurrera... **Anjel Lertxundi**
 Eta azken **nota** hori erabat isildu denean, azken uhina ere desegin denean, partituraren azken orria itxi du, piano, piano. **Alberto Barandiaran**
 Veneziarrek ibai-tutu bakoitzari musika eskalan zegokion **nota** atera behar zion: do-re-mi-fa-sol-la eta si. **Felipe Juaristi**
 Garaiera bereko **nota** bat oso desberdin entzuten da musika-tresna batean edo bestean jota. **Irene Aldasoro**
 Apen ahots kobrezkoak izarretara jaurtitzen duen **nota** labur, beti berdin, triste hori. **Josu Zabaleta**
 Sarrerako **nota** batzuk moldatu zituen, hain zuzen ere Kirxaren kafe etxean azken hogeitaka urtetan gauero-gauero jotakoak, eta musikaren konpasean kulunkatu zuen bere gorputz hauskorra. *Zentzontle* ezkutuko baten lau **notako** deitore-kanta. **Patxi Zubizarreta**

2 (izenondoekin)

Hala, ez da zaila **nota** altuak eta baxuak aldi berean entzutea. **Irene Aldasoro**
 Gizonezkoek, zubian zutik [...] beren **nota** ozenak botatzen zituzten; emakumezkoek beren **nota** zoliak. **Josu Zabaleta**
 Isiltasun hartan, kantari hasi zen gizon bat gure atzean, ahots ahul-ahulez eta rabelari ere **nota** ahul-ahulak ateratzen zizkiola. **Bernardo Atxaga**
 Pianoaren aitzinean jarri zen Ravel, bere pieza eder batzuk joiten zituela, dena **nota** jautzekari. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
 Musika entzuten ari zen; gitarra baten **nota** gero eta ordenatuagoak. **Unai Elorriaga**
 Sirenek **nota** betibateko, malenkoniatsu batez urratzen zuten gaua. **Alberto Ladron Arana**
 Gero eta nekezago zitzaion pianoaren **nota** desafinatuak jasan behar izatea. **Josu Landa**
 Gero klarinaren **nota** dardarkaria entzun zen. **Agustin Otsoa**
 Ingalaterratik honaino diapasoiarekin luzarazitako **nota** elektrikoen bibrazioa ailegatzen zen. **Fernando Rey**
 Oso bizkor abesten zuen arren, ez zuen **nota** edergarri txikiarik ere huts egin. **Irene Aldasoro**
 Maiztasuna 2.000 Hz (organo baten **nota** garaiena) baino apalagoa bada, [...]. **Irene Aldasoro**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esku batek baxutik jotzen zuen *Silent, O Moyle*-ren melodia eta beste eskuak goitik jarraitzen zion **nota**-sail bakoitzari. **Irene Aldasoro**
 Neurria hartua zieten hatz txiki haiek pianoaren giltzei, eta belarri bikainak, berriz, edozein **nota**-konbinazio behin entzutea nahikoa zuen, hura gogoan hartzeko. **Xabier Olarra**
 Gramofono erraldoiak zabaltzen zuen **nota**-zaparradarekin batera hots urrun, jarrai bat bezala entzuten bainituen. **Alberto Ladron Arana**
 Leon Marty apaizak ere esan ohi zigun pianoak, hark etxean bazuen bat eta, **nota** hotsa aterako bazen barruan zeuzkan hariak jotzeko mailu buru-txuri haiek sorginak zirela. **Pako Aristi**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntza bakoitza musika tresna baitzaitzaion, eta letra bakoitza, ondorioz, musika **nota** bat. **Felipe Juaristi**
 Saxofoi **nota** baten soinu garbi eta zehatza. **Monika Etxebarria**
 Piano- **nota** batzuk eta jendearen kantua ekartzen hasi zen leun-leun jauregitik estalkira. **Anjel Lertxundi**
 Ahots bat, biolin **nota** bat haratago. **Monika Etxebarria**
 Errepideari erreparratu beharrak edo autoaren motor-hotsak ez zuten aldatzen piano- **noten** atsedetik gabeko gora-nahi eta behera-behar hura. **Anjel Lertxundi**

5 oharra.

Kalera irtean, mataderokoa dirudien gure ate erraldoian **nota** bat topatu dut zelo batez itsatsia. Harkaitz Cano

Notak ordenatzen egin dut bidaiaren parte bat. Anjel Lertxundi

Gizona kalean eta mendian pasieran ez ezik, marrazkiak egiten (oso onak), **notak** hartzen, jendea eta gauzak behatzen, sinesgaizki ekinkor egon zen Pasaia egun guztietan. Koldo Izagirre

Orduko kaierra hemen daukat, gaur nahi baitut gau hartako **notek** lagundurik garbiki eta behin betikotz itzatu gertakaria. Piarrés Aintziart

12 urte luzez, 1922tik 1934ra, **nota** -txartel denak Arantzazutik, bertako datu meteorologikoekin bidaliak dira, baina izenpetu gabe. Pello Zabala

6 (azterketetan) ik kalifikazio 2.

Ostiralean, asteko **notak** banatzen zizkiguten, eta gure gelako tarima gainean jartzen ginen ilaran, onenak aurrena eta txarrenak azkena. Bernardo Atxaga

Ikasgelan onena baldin bahintz ere, baldin **notak** oso ongi eta bikain ekarriko bahitu ere, eurek haserre jarraituko liketek. Jesus Mari Mendizabal

Beti atera nituen **nota** onak erlijio klasean. Xabier Mendiguren Elizegi

Nahiko nuke nik haren **notak** atera, hark bezain gutxi estudiatuz. Jon Muñoz

Nota onez gainditzen zituen azterketak. Juan Garzia

Nahi dut jakin dezazun **nota** bikainak lortzen dituzula arlo guztietan. Oskar Arana

Ez zait gustatzen **nota** txarrak ateratzea. Josu Zabaleta

Fred eta George oso buhurriak dira, baina, hala ere, benetan **nota** onak lortzen dituzte. Iñaki Mendiguren

Kontua da neure espedientea Bartzelonara aldatzeko batez besteko **nota** altu samarra behar nuela. Joxerra Garzia

Abisatu zigun denoi **nota** bera jarriko zigula, 5 edo 6, **noten** sistemaren kontra baitzegoen guztiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Geroago, fitxa betetzerakoan, azterketara aurkeztu izanaren marka ezartzen dio, eta hirurogeita hamarreko **nota** jartzen dio. Oskar Arana

Bederatziko **nota** besterik lortu ez duen eskolako lan batena. Iñaki Mendiguren

Etxean pozik ziren, baina **nota** kontuetan nahiko bereziak dira nire gurasoak. Josu Zabaleta

Ez genuen etxera **nota** boletinin batera eramango. Joseba Sarrionandia

Baina galdua nuen itxaropena, azkeneko ebaluazioan **nota** kaskarrak atera bainituen institutuan. Anjel Lertxundi

7 zerbaiten xehetasun, alderdi edo nolakotasuna.

Malenkonía zen, pentsatu zuen, beraren sentimenaren **nota** nagusia. Irene Aldasoro

Nahasturik zegoen, eta mehatxuzko **nota** batek zeharkatu zion ahotsa. Irene Aldasoro

Burumakur eta eskuak gabardinako poltsikoetan sartuta, goibeltasun **nota** hits bat jartzen zuten Argiaren Hiriko espaloi jendetsuetan. Alberto Ladron Arana

Bizkarra tente zutela zeuden eserita, aldare nagusiaren gainean zintzilik zegoen argi: **nota** gorri urrunari begira, eratsu. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

batez besteko **nota** (3); **musika nota** (5); **nota altu** (4); **nota altua** (4); **nota altuak** (5); **nota eman** (3); **nota jarri** (4); **nota luze** (3); **nota ona** (4); **nota onak** (22); **nota onak ateratzea** (3); **nota onak ateratzen** (5); **nota onak lortzen** (3); **nota onarekin** (9); **nota onarekin gainditu** (5); **nota sail** (3); **nota txarra** (3); **nota txarragoak** (3); **nota txarrak** (12); **nota zoli** (5)

lehen **notak entzun** (4); **musika notak** (4); **notak eta soinuak** (3); **notak hartu** (4); **notak hartzen** (5)

notabilismo iz

Hauteskunde hauetan **notabilismo** horri alternatiba bat eskaintzearen bidetik, badaude hainbat txokotan aintzin pausoak emateko aukera... Berria - Euskal Herria

notable 1 iz pertsona gailena, pertsona ospetsua.

Apezek eta **notable** euskaltzaleek. Itxaro Borda

Horrek azaltzen du **notable** handien pisu galera [Ipar euskal Herrrian], azaltzen du abertzaletasunaren sendotzea, eta azaltzen du joera euskaltzale berri baten sorrera, *Elgar-Ensemble*-ren inguruan egituratua. Berria - Euskal Herria

Baina iskanbilak ugariak ziren: adibidez, Amikuzeko oihan komunala zati-zatika saltzen zuten Donapaleuko **notableek**, beren hiriaren urreztatze. Itxaro Borda

Herriko **notableek** oso begi onez ikusten zuten Luigik aurretik zeukan *Ideal* aretoaz gain beste hura zabaltzea. Josu Landa

Giza harremanen hondamendia, bilkuren estresa, euskal kulturako **notableen** hipokrisia, bakardadea, abertzalekeria, desamodioa, erakundeen ustela, heriotza... Markos Zapian

Ez dezaket ahantz alabaina hemengo etxetiar, petxero eta buhameak oro 1789an Errepublikaren alde agertu zirela, apez errefraktarioek, etxeko jaun opulente eta **notableek** haizea norabidez aldarazi artean. Itxaro Borda

Lehenik eta behin, atzo arte lagun izandakoak deskalifikatzen dira: "betiko **notable** eta politikeroak" baino ez omen dira. Joxerra Garzia

2 (izenondo gisa)

Eta Garat anaiak ez ziren baitezpada gizon herrikoiak, etxeko-jau **notableak** baizik. Itxaro Borda

3 azterketen kalifikazioetan, ongi edo oso ongi.

Izan ere, **notablea** nuen matematikan, berari benetan inporta zitzaiona, zeren gainerako ikasgaiak jesuiten marikoikeriak omen ziren, espedientea betetzeak. Patxi Iturritegi

notableño iz adkor notablea.

Hiriko **notableñoak** beren oporrez mintzo, ahal izanez gero bainu jantziz edo gutienez ere galtza motzetan ateratako argazki baten ondoan. Aingeru Epaltza

notableria iz notableen multzoa.

Horixe bera zen, erreplikatu zuen: euskaldunak ez zuen ezer egiten ahal botere indartsu baten hegalpetik kanpo, izan eliza, izan **notableria**, izan edozein alorretako buruzagi; botere indartsu horiek halaber etsai handizat kontsideratzea maite zuen, beraren balioa biderkatzen ziotelako. Itxaro Borda

notari ik notario.

notarial izond notarioarena, notarioari dagokiona. ik notario 2.

Hala ere, edo horregatixe, akta **notarial** batzuk izan gabe, oharpen eta informazio jakingarriz beteriko, euskal historiaren eta gizartearen lekukotza paregabeak utzi dizkigute mota diferenteenetako bidaiariok. Koldo Izagirre

'Gizakia, ezkututzen duena da,' dio neskak modu **notarialez**. Joseba Sarrionandia

notario *(orobat notari g.er.)* 1 iz

Xehetasunak eman nahi zituenean, "harira, harira" esaten baitzion **notarioak**. **Ramon Saizarbitoria**

Hori Elortzak kontatu zuen, baina **notarioaren** bulegoa utzi ondoren jada, kalera atera zirenean. **Ramon Saizarbitoria**

Ritou Hazparneko **notarioaren** etxean izenpetua izan zen Hazparneko misionesten eta kolejiko funtzen saltzea, 85.000 liberetan. **Xipri Arbelbide**

Oro burgesak ziren; **notario**, abokatu, edo saltzaile aberatsak ziren, eta elkar sostengatzen zuten. **Elena Touyarou**

Plazer handi batekin jakin dugu **notario** batek bulegoa ideki duela gure herrian. hau, Pierre Gueraçague, **notario** egon zen Donapaleun eta Donapaleuko herriko auzapez 43 urtez. **Herria**

Beti atzeratzen eta atzeratzen, gauza asko zituela egiteko, tartean amonaren etxeko eskriturei buruzko ez dakit zer **notarioarenean**. **Anjel Lertxundi**

Notarioarenean eskriturak eta gainerako patrifilioak egiten ibili ginen garaian esku artean izan bainituen haren agiriak. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gavarden ondasuna **notario** batenean gordailatua zegoen zuhurki. **Karlos Zabala**

Notarioarengana jo zuen Napumoceno da Silva Araujo jaunaren testamentu itxia irekitzeko ekitaldian formalitatea betetzeko. **Bego Montorio**

Bete ezazu -letra txukunaz, jakina- hau guzti hau eta, bukatutakoan, ondoko bulegoko **notarioarengana** pasa, sinatu beharreko guztiak sinatzeko. **Iban Zaldúa**

Azken urte hauetan ari zen Durruty jaunarentzat lanean, lehenik, joan-jinkari gisara, gero **notarioaren** idazkari laguntzaile bezala eta, azkenik, **notarioaren** laguntzaile lanetan. **Elena Touyarou**

Durruty **notarioaren** bulegoan. **Elena Touyarou**

Ulertzen duzu, Florent maitea, ezta?, ez gara orain hasiko **notariotan**, alferrik litzateke. **Karlos Zabala**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **notarial**.

Derrigorrez behar duzuna **notario** akta da. **Ramon Saizarbitoria**

Naturalistek aldarrikatutako ahalegina -errealitate bakar eta zinezkoaren kopia edo **notario** -akta baten bila- banitate eta zentzugabekeria hutsa zela. **Bernardo Atxaga**

Honela zehazten du einordetzaren **notario** -klusula batek: "hildakoak ez ditu gaurdainokoa bere azken borondateak zehaztu". **Joxan Elozegi**

Nik, artean **notario** -etxea zela ezagutu nuen taberna orain urte batzuk. **Xabier Etxabe**

Alkimiako harri filosofalarekin aberasteko konfiantza askorik ez zuen izango, dirudienez, **notario** lanetan iruzurrak baliatu baitzen. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Bere **notario** -idazkera etzan eta luxe harekin. **Fernando Rey**

Edward Talbot Worcesterreko **notario** -idazkari alkimiazaile bat zen, *De Lapide Philosophorum* liburua idatzi zuena. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Garbi dago **notario** -idazkari alkimiazaile hura alproja biribila zela, baina ez berak uste bezain abila, harrapatu egin baitzuten eskuak **notario** -paperetan zituela, balizko harri filosofalaren eraginez paperetan urrea ez baina bai beretzako dirua sortzen ari zela. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Denbora joan zen eta bildu behar izan ziren oraino, 1683ko otsailaren 28an, arratsaldez, Donosteiko Dendarienarena etxe aitzinean, d'Alhaste errege **notarioarekin**. **Michel Oronoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

notario akta (3); **notario aurreko** (4)

durruty notarioaren (6); **notarioaren aurrean** (11)

notariogo iz notariotza.

Urtezu batez hiru lanak betan eramaiten ditu baina laster uzten ditu **notariogoa** eta "le Progrès" kazeta, euskarazkoa segitzen duelarik. **Herria**

notariotza *(orobat notaritza)* 1 iz notarioaren lanbidea; notarioaren kargua.

Hari eman zizkioten inguruan azaldu ziren dokumentuak; besteak beste, Nortasun Agiriaren kopiak, jaiotzarenek eta **notariotzako** aktak. **Ramon Saizarbitoria**

Herentzia, eskriturak eta **notaritzako** beste dokumentu mami handikoak izenpetzera, ex profeso. **Josexo Azkona**

Gaur eguerdiko 12:30ean Donostiako Baraibar **notaritzan** sinatu ahalgo da. **Berria - Euskal Herria**

Arrasateko **notariotza**, 1955eko urriaren 20^a. **Berria - Harian**

Euskal Herrian zehar hainbat **notariotza** eta udaletxetan eman ahal izango zaio sostengua HZri. **Berria - Euskal Herria**

2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horien artean espetxe politika, **notaritza** eskubideak eta hezkuntza daude. **Berria - Mundua**

Bezeroak eskrituran ez dagoen diruaren BEZa (%7) aurrezten du, baita **notaritza** gastuetako BEZa ere (%16). **Berria - Ekonomia**

notaritza ik notariotza.

notatu, nota(tu), notatzen du ad ohartarazi.

Kuriositate bezala bakarrik **notatuko** dut, R. de Maeztu-k, Unamuno-ren Lore Jokoetako diskurtsoaren iruzkin panegirikoa, beste hauxe adierazten duela, [...]. **Joxe Azurmendi**

Txantxa bat emango du, gogoratzen badut, M. Broszat-ek **notatzen** duen eran, Rosen-berg-ek arraza (alemana) esatea beste gabe (abereez mintzo bagina bezala!) ez omen zuela aski fina kausitzen, eta "arrazaren arima" lelora estilizatu zuela bere diskurtsoa. **Joxe Azurmendi**

2 nabaritu.

Nik ere ez dut **notatu**, beraz... **Menane Oxandabaratz**

Hala eta guztiz, **notatzen** zitzaion adiskidetzeko gogoia. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Orain **notatzen** da, lehen depositua 30 euroekin betetzen zenuen eta orain batzuetan 50 euroekin eta halere ezin bete **Berria - Harian**

notatxo 1 iz ohar laburra.

"Gabon-gaba ez da bakarrik ospatu behar", zioen bere **notatxoan**. **Txillardegi**

Orixek *Euskaldunak* poema sortan honela dio **notatxo** batean: "Zozo mikote, zozo-bikote: zozoak bikoka kabi-egiten asten diran garaia". **Pello Zabala**

Hots, arratsean, Comercio kaleko neure etxera bihurtzean, **notatxo** bat topatu nuen gelan: [...]. **Txillardegi**

Askotan irakurri zuen **notatxoa** treneko bidaian, baina hitz bakar bat baino ez zuen asmatuko ondo esaten: pregunta. **Jon Maia**

Ez ditugu **notatxo** guztiak emanen bainan hemen dagoena uztea bekatu liteke: (-... **Xipri Arbelbide**

2 *adkor* musika nota.

Liubaren ahotsa hurbila zen, adeitsua, samurra, eta doinuak halako beldur berezi baten **notatxo** arinak zituen, iluntasunean emakumeen ahotsak ohi duen bezala. **Jose**

notatze iz ohartaraztea.

Beste hauetarik zenbait ere, beste saioen ondotik, **notatzeen** araberan. [Herria](#)

notazio (orobat *notazione g.er.*) 1 iz ikur eta sinboloen bitartez irudikatzea; ikur eta sinbolo sistema.

Ikur eta **notazio** matematikoen historia. [Jon Muñoz](#)

Notazio hamartarra sakon sustraitua baitzegoen bizitza praktikoa. [Iñaki Mendiguren](#)

[Antso Azkarraren garaiko kantu] gehienak Akitaniako **notazioa** deitzen denarekin marraztuak dira. [Berria - Kultura](#)

Hari zor zaio, orobat, berretzaileen gaur egungo **notazioa**. [Jon Muñoz](#)

Al Khujandiren ondoren, al Khaiamek esan zuen $x^3y^3=z^3$ ekuazioa (gaurko **notazioan**) ezin zela zenbaki osotan ebatzi. [Jon Muñoz](#)

Notazio horri esker idazketa kontzentratua egin daiteke, eta oso modu laburra eskaintzen du batuketa bat idazteko; bereziki, batuketa hori infinitua izanez gero. [Jon Muñoz](#)

(28iii) erregelako **notazioen** adierazpena hau da: C elementua nahitaez aukeratu behar dugu, eta parentesi arteko elementuen artean zero edo gehiago hauta ditzakegu, eskainitako hurrenkeran. [Itziar Laka](#)

2 (hitz elkartuetan)

Inolako **notazio**-sistemen laguntzarik gabe. [Iñaki Mendiguren](#)

· Matematika-**notazioko** "arabiar" sistema delakoarekin. [Iñaki Mendiguren](#)

notaziobide iz notazio sistema.

Notaziobide ezberdin hauek ez daukate esangura sistematikorik; aurkezpenaren argitasunaren mesedetan erabiltzen dira, besterik gabe. [Itziar Laka](#)

notazione ik notazio.

notejode *interj*

Orain esango didan hik nora joan behar dudan larunbat gauean, **notejode**! [Sonia Gonzalez](#)

-Zeurea, **notejode**! -erantzun genion. [Jon Arretxe](#)

Bakarrik horixe falta nuen, gainera puta, **notejode**... [Sonia Gonzalez](#)

notifikadore iz epaitegietan jakinarazpenez arduratzen dena.

Bi **notifikadoreak** erdaldun elebakarrak dira, eta hogeita sei administratibatik %35ek ez dakite euskaraz. [Berria - Euskal Herria](#)

notifikazio iz jakinarazpena.

Bihar eramanen dute Paueko auzitegira estradizio prozeduraren **notifikazioa** jasotzera. [Berria - Euskal Herria](#)

notin iz pertsona.

Esan beharrik ez da **notin** edo pertsona nagusien artean gazte asko, neska eta mutil, etorri ohi dirala, dantzan egiteko gogo gehiago dakarrela ostantzerako baino. [Koldo Izagirre](#)

notizia iz berria.

Kezka eragin zuen atzo albisteak, baina kezka eragiteko moduko **notizia** gehiago ere zabaldu ziren mundu zabalean. [Berria - Gaiak](#)

Eta irratia eguerdian, **notiziak** entzuteko. [Alberto Barandiaren](#)

Eguerdian jakin zuen **notizia**, etxean bazkaritakoan. [Pedro Alberdi](#)

Notizia lehen orrian emango dute, hurrengo egunean: «Torontoko idazle bat, Espainian zezenak adarkatuta». [Berria - Kultura](#)

Alaba etortzen ikusi zuenean, bazekien **notizia** onik ez zekarkiola inolaz. [Xabier Etxabe](#)

Kataluniatik dator **notizia** hauteskunde kanpainaren hasieran. [Berria - Euskal Herria](#)

Amak **notizia** emon eutsanean, aitak "a lo hecho pecho" esanaz, aurrera egin eban duda barik. [Xabier Amuriza](#)

Hemerotekak aztertuz gero, zakur borroka eta boxeolari pasaitar gazte baten debutaren **notizia** ziren lehen orrialdeko **notizietariko** bi, letra handiegietan ageri ez ziren arren. [Harkaitz Cano](#)

Frantziako **notiziak** behatu zituen FR3 telebista katean, gatur ferekatzen zuela. [Itxaro Borda](#)

Rognettak, bere bidaietan, **notiziak** biltzen zituen. [Fernando Rey](#)

Bai, duarik gabe, **notizia** ona da, baina ez naiz fio. [Berria - Harian](#)

Estilo-ariketak liburua (Igela) kalean izatea, bederen, **notizia** handia da bere txikian. [Berria - Kultura](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

notizia eman (3); **notizia handia izan** (3); **notizia izango** (3); **notizia ona** (6); **notizia ona da** (4)

notiziario iz albistegia.

-Telebision ere esango ditek gaur, **notiziarioan**, kontu inportantea bada -ñabartu zuen besteak. [Juan Luis Zabala](#)

noumenaldi *adlag*

Ikerketa filosofikoaren jarraipena, eskuarki, arrakontru halabeharrezko baina anagogikoa izan ohi da, izaki beraren eta lagun duen erreplika esentziagabe eta joskintzakoaren artekoa, zeinak **noumenaldi** aholkatzen baitio ulermenaren mailara lekualdatzeko soingaineko-botoiaren kontzeptua, soziologikoki beheregi kokatua. **Xabier Olarra**

noumeno *iz* arrazoimenak pentsaturiko gauza.

Oro harrezko objektu oro fenomenoetan eta **noumenoetan** ezberdintzeko oinarriaz. **Ibon Uribarri**

Noumenoaz gure sentsuzko begiespenaren objektua ez den gauza bat ulertzen badugu, gure begiespen-eraz abstraitzen dugun heinean, orduan hau **noumena** da adiera negatiboan. **Ibon Uribarri**

Kategoriak agerpen gisa kontsideratzen ez diren objektuei aplikatu nahi badizkiegu, orduan sentsuzkoa ez den beste begiespena jarri beharko genuke oinarrian, eta hainbestez, objektua **noumena** litzateke esanahi positiboan. **Ibon Uribarri**

Noumena zail samarra da harrapatzen; arrazoituz baizik ez daiteke atzeman... eta hori fenomeno bat da, izan ere. **Xabier Olarra**

Bestalde, herriaren izpiritua eta haren adierazpen kulturalak, **noumena** eta fenomeno edo gauza berbaitan eta haren agerketak bezala begiesten bada, erromantizismo edo idealismorik baino gehiago, filosofia bat beste gabe txarra da dagoena. **Joxe Azurmendi**

novecento *iz* Italian 1922 eta 1933 urteen artean garatu zen arte higikundea, Berpizkundearen ariman oinarritzen zena eta faxismoaren estilo ofiziala-edo bihurtu zena.

Aldo Cazullo kazetariak dio: Torinok **Novecento**-ko hiri bat dirudi gaur. **Anjel Lertxundi**

Intimitatea irudikatzea oso era hurbilean, ia garrantzirik gabeko eszenak azaltzea era hotzean, Objektibitate Alemaniarr Berriaren, Parisko eskolaren eta Italiako

Novecentoaren pintura figuratiboaren eguneratzea aldarrikatzen du. **Berria - Kultura**

novohispano *izond* Nueva Españari, hots, Mexikori, dagokiona.

Europar sortutako eskolekin harremana du arte **novohispanoak**, «adiskidetasunean oinarritutako harreman liskartsua», Nabarretekin definitu duenez. **Berria - Kultura**

Mitologiatik eta historiatik ateratako pasarteak eta alegoria geografikoak ageri dira, batik bat, holtz tolesgarri **novohispanikoetan**. **Berria - Kultura**

noziarazi, norizaraz, noziarazten du *ad* nozitzera behartu.

Baina, ez ote zeukaten horrela, Irkutskeko kanpamentura iristean tormentu ankerra **noziarazteko** ? **Karlos Zabala**

Purgatorioa azkar **noziaraztearen** bentajak izango ahal ziren haiek! **Pello Zabala**

nozio 1 *iz* gauza baten ideia.

Adigai enpirikoa edo hutsa da, eta adigai hutsak, jatorria adimenean soilik duen heinean (ez sentimenean irudi hutsean), **nozio** izena hartzen du. **Ibon Uribarri**

Kontzeptuak bereiztea zaila izan zitekeela jakinik, Chomskyk hainbat **nozio** eztabaidatzen ditu. **Itziar Laka**

Euskal nazionalismoaren kasuan ere, "askatasuna", "subiranotasuna", "Estatua", eta antzeko **nozioak** esparru arras desberdinean ulertuko diren politika beharko da.

Joseba Zulaika

Biologia modernoaren lorpenen eskutik etorritako **nozioek**, sarritan, tupust egiten dute luzaroan onetsi diren eta are, inoiz, oraindik ere indarrean dauden ideiekin. **Juan Garzia**

Nozio horiek guztiak zenbait tratamendu matematiko konplexutatik datoz. **Juan Garzia**

Kasu horiek eta kasu posibleek indarra kentzen diote esperientziaren **nozioari**. **Askoren artean**

ik beherago 4. **Askoren artean**

Denboraren **nozioa** galdu zuen. **Iñaki Mendiguren**

Elkartze hauek perpausaren zatien **nozioa** finkatzen dute. **Isabel Arrigain**

Periferiaren **nozioa**, espazioari dagokion metafora, zuzenean lotzen da europar mundu-ekonomiaren zabalkunderako joerarekin. **Koro Navarro**

2 (izenondo eta izenlagunekin)

Nozio komun, unibertsal eta propioen tematizazioaren oinarrian Izateari buruzko tesi spinoztarra dago: unibozitatea. kausa beretsuetarik datoz ere, Gizakia, Zaldia, Zakurra etabar bezalako **nozio** Orokorrak. **Piarres Xarriton**

Vitruviok neurri handi batean grezieraz emanda zeuden jakintza praktikokoak eta **nozio** teorikoak transmititu behar zituen. **Santiago Iruretagoiena**

Analitikotasunaren **nozio** eraldatu sinpleena Gottlob Frege-k aurkeztu zuena da. **Askoren artean**

Arrazoi oinaren nozioa ez da psikologia enpirikoaren kontzeptua, ez da **nozio** zientifikoa, asko jota zio filosofiko baten "tresna" da bakarrik. **Askoren artean**

Erreferentzia, esangura eta sinonimia bezalako **nozio** semantikoez ez dute inolako lekurik eztabaida honetan. **Itziar Laka**

Intuzioari lotutako **nozio** ilunek ezin gaituzte ondorio zentzugabeetara eraman, ez eta ondorio egoki berriak eskaini. **Itziar Laka**

Gramscik landutako "hegemonia"ren **nozio** subertsibotik asko ikas lezake euskal politikak. **Joseba Zulaika**

Nozio kulturalistei loturik garatzen zen, beraz, estetika bide berria eta, batez ere, artearen teoria berria. **Askoren artean**

Litekeena da halakoak gauza adigarriak ezin ulertzea, horiek oinarritzko **nozioak** izan arren. **Xabier Kintana**

Argi samar egon behar luke "gramatikaren soiltasunaren" arrazoizko **nozio** baten arabera, behar hartuko ditugun konplexutasun erlatiboari buruzko erabaki gehienek zuzen irauten dutela. **Itziar Laka**

Gauza batzuk ulertzeko, aurretiko **nozio** ugari lortu eta ikerkuntza luzeak egin behar direla. **Xabier Kintana**

3 (hitz elkartuetan)

Ez dago "batasunik", esentzia bakar eta bakuna onartzu ez bada, osaerarik eta **nozio**-aniztasunik gabea. **Xabier Kintana**

Gustua, horrela, giltza **nozio** bilakatzen da giza izaera eta mundu objektiboa erlazioan nahi dituzten teoria askotan. **Askoren artean**

Adiskidetasuna da beste giltza **nozioa** Aristotelesen etikan. **Askoren artean**

4 (aipatzen den izen baten eskuinean)

Horien ustez, Kuhnen "paradigma" **nozioak** irauli egin zuen zientzia ulertzeko modu estandarra. **Askoren artean**

Existenziaren izaera arrunta "helburu" **nozioaz**, "batasun" **nozioaz** edo "egia" **nozioaz** interpretatzea ez zela zilegizkoa, ulertu zenean, balio orenen hutsunaren sentimendua jo zen. **Joxe Azurmendi**

"Bestea" **nozioa** ari zen lantzen garai hartan, bere ikasleekin. **Piarres Aintziar**

Matematikako limite **nozioarekin** analogia bat eginez, [...]. **Askoren artean**

Ikasturtearen hastapenean, ikerketa lan bat hasi zuten ikasleek hego eta ipar **nozioez**. **Berria - Kultura**

Irudikatze **nozioa** oinarri-oinarritzkoa da. **Josu Zabaleta**

Era horretara ez balitz, balio **nozioak** bere izaeraren zerbait galduko luke, kanpotik ezarritako elementu bat izango lukeelako osagai. **Isabel Arrigain**

Esaterako, *hit* "jo" hitzaren esanahia deskribatzean, zalantzarik gabe, "subjektu" eta "objektu" **nozioak** erabiliz deskribatuko genituzke. Ltziaz

Laka

- Iradoki nahi duguna da "perpaua ulertzea" **nozioa** "hizkuntz maila" **nozioaren** arabera azal daitekeela neurri batean. Ltziaz Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

nozio berri (3); **nozio komun** (6)

denboraren nozioa (5); **ezagutzaren nozioa** (4)

idazkera nozioak menperatzen (3)

nozitu, nozi, nozitzen du *ad* pairatu, jasan, eraman.

Andaluzian, astebeteko eurijasak **nozitu** zituzten, 9 hildako tartean. Pello Zabala

Dohakabeek, aterperik gabe, aire zabalean **nozitu** behar ekaitz zitala. Karlos Zabala

Ez duzu **nozitzen** eskizofreniarik? Karlos Linazasoro

Kalte psikiko larriren bat **nozitzen** ote zuen? Juan Kruz Igerabide

Gosea **nozitzen** duten gizakien kopurua. Edorta Agirre

Ezkortasun hori ezin pareka daiteke, ordea, bere garaiko gizarteak **nozitu** zuen "mal du siècle" harekin. Josu Zabaleta

Galera handiak eta atsekabe ikaragarriak **nozitu** ditugu. Agustin Otxoa

Medikua izanik, kristautasunaren birus berria aztertzeko grina eta tentazioa **nozitu** zituen. Pello Zabala

Erlijio kristauak, orain dela bi mende katoliko eta protestantetan banatu zuen zatiketa zoritxarreko hura **nozitu** zuenean. Iñaki Iñurieta

Nozitu berri zuen esperientzia hura lehenbailehen ahaztu behar zuen. Joxemari Iturralde

Su bizia pizten zaio begietan, esaten ari dena, larrutik **nozitua** izaki, erraiak kiskaltzen ariko balitzaizkio bezala. Anjel Lertxundi

Izugarri **nozitzen** dugu gure ingurunearen eragina. Josu Zabaleta

Balore absolutuen egarriz bizi da Julien Sorel, balore absolutuak **nozitzen** ari diren dekadentziaren lekuko kezkatua da Stendhal. Anjel Lertxundi

Zerbait **nozitzen** ari zen itxura zuen, eta, eguneroko ibilaldira irten aurretik egin ohi zuen bezala, luzatu egin zen. Juan Kruz Igerabide

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko nozitu (4); **torturak nozitu** (3)

nozitzea *izond/iz* nozitzen duena. ik *pairatze*.

Atzerago miatzen jarraitu behar dut, ezinegonaren hautsak harrotzen, ezinegonak eramaten baikaitu, ezinegonak ekartzen, ezinegonak bihurtzen borrokalari, ezinegonak bakezale ere, ezinegonak **nozitzea**, ezinegonak borrero. Juan Kruz Igerabide

nuarbeta *izlag/iz* Nuarbekoa, Nuarberi dagokiona; Nuarbeko biztanlea.

Txiki extremeño-zarauztarrak mistika handiagoa sortu bazuen ere, literatura oparo eta sakonagoaren iturri gertatuko zen gerora **nuarbeta**. Xabier Mendiguren Elizegi

Nuarbeta tiralari gutxiarekin ekin zioten denboraldiari. Berría - Kirola

Nuarbeta gailendu ziren iaz, Areso eta Goiherriren aurretik. Berría - Kirola

nudismo *iz* gorputza biluzik agertzean datzan praktika.

Nudismoa, esaterako, hemengo eta hango txoko txiki eta gutxi batzuetan hasi zen, eta Bilbotik gertu, Sopolako Arrietara hondartzan hain zuzen, emakume eta gizon batzuk biluzik ibiltzen ziren. Berría - Euskal Herria

Toki jakinetan **"nudismoa"** eta naturismoa naturaltasun osoz" praktikatzan duten popabisteroen biluztasun zuri edo jantzia. Iñaki Segurola

Hori jantzita egoteko beste era hagitz errespetagarri bat baizik ez da, **nudismoaren** teorikoez berek aitortzen eta defendatzen dutenez. Iñaki Segurola

nudismozale *iz* nudismoaren zalea dena.

Hi, Edu, **nudismozalea** hintzen gaztetan, eta egin behar duzuen bidaiarako ez duzue arropa beharrik. Aingeru Epaltza

nudista 1 *izond* tokiez mintzatuz, nudismoa praktikatzan dena.

-Hendaiatik hamar minutura, oso plaia ederra da, **nudista**. Joxean Sagatzizabal

Zorionez, hondartzaren alderdi **nudistan** sartu baino lehen mendi aldeko bidea hartu genuen. Juan Luis Zabala

2 nudismoa praktikatzan duen pertsona.

Donostian bertan **nudistek** txoko txiki bat lortu zuten duela urte gutxi Zurriola hondartzan. Berría - Euskal Herria

Nudistek ezin dute «jantzita daudenen eremuan» biluzik ibili; jantzita daudena, aldiz, lasai-lasai ibiltzen dira biluzik daudenen artean. Berría - Euskal Herria

nuklear 1 *izond* zerbaiten nukleoarena, nukleoari dagokiona.

Kultura **nuklear** horretatik historia, hizkuntza, sinboloak, erakundeak, artea eta halakoak iritsi dira. Berría - Kultura

2 familiaz mintzatuz, gurasoek eta seme-alabek soilik osatzen dutena.

Familia **nuklear** batean bizi da. Berría - Hariari

Ene familia zabala zen, ez zen familia **"nuklearra"**, leku ezberdinetan zabaldua zen familia baizik. Ana Urkiza

Pantallak familia **nuklearra** munduarekin konektatzeko daude. Iñaki Segurola

Azken batean, nik diodana, zer dago familia **nuklearra** baino ederragorik? Patxi Iturritegi

3 atomoaren nukleoarena, atomoaren nukleoari dagokiona.

Teoriaren arabera, izar erraldoiak kataklismo baten bidez kolapsa daitezke, barruko erreakzio **nuklearrek** grabitatearen aurka egiteko behar adinako indarra sortzen.

Berría - Gaiak

Supernobetan behatzen ditugu gamma izpiak, haietan erreakzio **nuklear** asko daudelako. Berría - Gaiak

Fisio- edo fusio-erreakzio **nuklearra** sortzea eta kontrolpean izatea ahalbidetzen duen aparatua da erreaktore nuklearra. Berría - Gaiak

Eta fisika **nuklearrean** aditua ere bada -zehaztu zion Amaiak, oharrak zertuz. **Fernando Morillo**

Bereziki partikulen fisika, indar **nuklearrak** eta elektrokimika. **Fernando Morillo**

· Glasgowko Unibertsitateko ikasleek Mordechai Vanunu zientzialari **nuklear** ohia hautatu zuten errektore. **Berria - Mundua**

4 energia mintzatuz, erreazio nuklear batean sortzen dena.

Energia **nuklear** zibilaz [...] ostegunean sinatutako itunak Indiaren programa militar nuklearra ez duela mugatzen esan du New Delhiko gobernuburuak. **Berria - Mundua**

Petrolioaren ordez energia **nuklearra**, ikatza eta gas naturala erabiltzea. **Koro Navarro**

Uranioaren aberasteko eta indar **nuklear** zibilaren ikerketa arloa garatzeko hartutako erabakian ez dugu atzera egingo. **Berria - Mundua**

5 energia nuklearrari dagokiona.

Produkzio **nuklear** eta eolikoa hazi dira gehien epe horretan. **Berria - Ekonomia**

Programa **nuklear** zibilaren inguruko ikerketak gelditzeko eskaririk, ordea, ez duela onartuko ohartarazi du. **Berria - Mundua**

Naziek Alemaniaren proiektu **nuklearreko** buru ezarri zuten berehala. **Fernando Morillo**

Hitachi [...] etxeak 91 kilo erregai **nuklear** ditu gordeta Kawasakiko bizitoki zona batean. **Berria - Gaiak**

Akordio **nuklear** zibil bat negoziatzen ari da Indiarekin. **Berria - Harian**

Eztanda **nuklear** baten osteko desolazio-kutsu bat du haren pinturak. **Xabier Olarra**

Arrisku **nuklearra**. **Berria - Ekonomia**

Badirudi herrialde batzuek beren industria **nuklear** ahula sendotzeko negozio **nuklearrean** parte hartzeko irrikan daudela. **Berria - Harian**

Ipar Koreak ekimen **nuklear** militar eta zibilak bertan behera utziko dituela iragarri zuen atzo. **Berria - Mundua**

Historiako hondamendi **nuklear** larrienak bi hamarkada bete arren, goizegi da oraindik istripuaren ondorio guztiak ikusteko. **Berria - Harian**

Burgosko Larraldi **Nuklearretarako** Planaren arabera, Euskal Herriko hamalau herritan eragingo litzuzke kalteak ezbehar **nuklear** batek. **Berria - Euskal Herria**

AEBetako Segurtasun **Nuklear** Nazionalaren Administrazioak. **Berria - Gaiak**

Espainiako Segurtasun **Nuklearrerako** Batzordean. **Berria - Harian**

6 energia nuklearra erabiltzen duena.

1943an asmatu zen lehenbiziko erreaktore **nuklearra**. **Pello Salaburu**

Guri begira daude une honetan milaka eta milaka arma **nuklear**, une batean lurra desegin dezaketena. **Pello Salaburu**

Sobietar Batasuna arma **nuklear** indartsuenez hornitu nahi dute, eta horretan dihardute. **Fernando Morillo**

Adituek diotenez, plutonio kantitate horrek bonba **nuklear** bat edo bi egiteko balio dezake. **Berria - Mundua**

Defentsa ministro Geoff Hoon-ek armagintza **nuklearrean** aditu zen zientzialari britainiar baten izena eman zuen -David Kelly- BBCko informazio deseroso horien erunduntzat. **Txema Ramirez de la Piscina**

Ukrainako zentral **nuklear** hartan gertatutako istripuak. **Berria - Kirola**

Argindar guztia zentral **nuklear** eta hidroelektikoetatik dator. **Berria - Harian**

Armada hark hainbat itsasontzi eta itsaspeko **nuklear** zituen Murmansk eskualdean. **Berria - Gaiak**

Frantziak lau urpeko **nuklear**, 250-300 buru **nuklear** eta 60 bat Mirage2000N misil ditu. **Berria - Mundua**

7 arma nuklearrei dagokiena; arma nuklearrak dituen.

II. Mundu Gerla bukatzean, mundua aro **nuklearrean** sartuz geroztik, bi potentzia handien artean behin finkatu den terrorearen oreka begiratu gaitu gerla hotzetik gerla berora lerratzea. **Piarres Xarriton**

Saio **nuklear** bat egin zezakeela ohartarazi zuen herenegun Ipar Koreak. **Berria - Mundua**

Japoniaren ustez, ordea, ezin da baztertu Piongiangek proba **nuklear** bat egiteko nahikundea eta gaitasuna duenik. **Berria - Mundua**

Indiak eta Pakistanek «estatu **nuklear** gisa duten erantzukizuna» nabarmendu zuen Haiderrek. **Berria - Mundua**

Munduko armategi **nuklearrak** eragin lezakeen energia baino hamar aldiz handiagoa askatu zuen asteroideak, eta ikaragarritzko txikizioa eragin zuen planetan. **Javi Cillero**

Potentzia **nuklear** handi baten zerbitzu sekretuan sartu nahian dabilen gizon baten joan-etorri kafkiarrak. **Iban Zaldua**

Gerra **nuklear** bat izango da. **Xabier Olarra**

· Misil **nuklear** «berriak» garatzen ari dela dio Moskuk. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arma nuklear (14); bonba nuklear (6); buru nuklear (5); egitasmo nuklear (3); energia nuklear (5); erreaktore nuklear (7); indar nuklear (5); industria nuklear (3); istripu nuklear (3); misil nuklear (3)

nuklear entsegu (3); nuklear indarra (3); nuklear maileko (3)

proba nuklear (3); programa nuklear (7); urpeko nuklear (4); zentral nuklear (34)

ahalmen nuklearra (7); arma nuklearra (6); arrisku nuklearra (3); auzi nuklearra (23); bonba nuklearra (4); disuasio nuklearra (3)

ako zentral nuklearra (19); egitasmo nuklearra (7); ekinbide nuklearra (6); energia nuklearra (62); energia nuklearra garatzeko (4); energia nuklearra helburu (3); energia nuklearra lortzeko (3); erreaktore nuklearra (9); erregai nuklearra (11); erregai nuklearra ekoizteko (3); familia nuklearra (5); garoñ

indar nuklearra (6); informazio nuklearra (3); iranen programa nuklearra (6); krisi nuklearra (5); lemoizko zentral nuklearra (5); material nuklearra (4); mihamako zentral nuklearra (3); nazioarteko teknologia nuklearra (3)

programa nuklearra (65); programa nuklearra garatzea (3); teheranen programa nuklearra (4); teknologia nuklearra (22); teknologia nuklearra garatzeko (3)

urpeko nuklearra (4); zentral nuklearra (48); zentral nuklearra itxi (4); zentral nuklearra ixteko (4)

arma nuklearrak (146); arma nuklearrak egin (5); arma nuklearrak egiteko (16); arma nuklearrak garatzea (4); arma nuklearrak garatzeko (11)

ako zentral nuklearrak (4); egitasmo nuklearrak (9); energia nuklearrak (12); entsegu nuklearrak (3); eraso nuklearrak (3); erregai nuklearrak (3); gai nuklearrak (3); garoñ hondakin nuklearrak (7)

ikerketa nuklearrak (5); indar nuklearrak (4); industria nuklearrak (5); instalazio nuklearrak (5); iranen programa nuklearrak (3); jarduera nuklearrak (3); lobby nuklearrak (3); npt arma nuklearrak (4)

programa nuklearrak (20); saio nuklearrak (9); zentral nuklearrak (42); zentral nuklearrak ixteko (7)

arma nuklearraren (3); auzi nuklearraren (6); auzi nuklearraren inguruan (4)

ako zentral nuklearraren (10); egitasmo nuklearraren (8); egitasmo nuklearraren inguruan (3); egitasmo nuklearraren inguruko (3); ekinbide nuklearraren (3); energia nuklearraren (33); energia nuklearraren alde (3); energia nuklearraren aldeko (3); garoñ

indar nuklearraren (10); indar nuklearraren inguruko (4); irango programa nuklearraren (10); krisi nuklearraren (3)

planta nuklearraren (4); politika nuklearraren (3); politika nuklearraren inguruan (3); programa nuklearraren (30); programa nuklearraren arduradun (3); programa nuklearraren auzia (7); programa nuklearraren inguruan (4); prozesu nuklearraren (3); prozesu nuklearraren inguruko (3); segurtasun nuklearraren (5); teheranen programa nuklearraren (3); txernobilgo zentral nuklearraren (3)

zentral nuklearraren (43); zentral nuklearraren aurkako (4); zentral nuklearraren hondamendiak (3); zentral nuklearraren inguruan (3); zentral nuklearraren kontra (3); zentral nuklearraren kontrako (7)

ako zentral nuklearrari (3); egitasmo nuklearrari (3); energia nuklearrari (3); garoñ

industria nuklearrari (3); irango programa nuklearrari (4)

programa nuklearrari (14); programa nuklearrari buruz (4); programa nuklearrari buruzko (5); zentral nuklearrari (4)

ahalmen nuklearrak (4); arma nuklearrak (5); auzi nuklearrak (8); energia nuklearrak (5); programa nuklearrak (5)

ako zentral nuklearrean (3); garoñ zentral nuklearrean (15)

arma nuklearek (3); zentral nuklearek (7)

txernobilgo zentral nuklearreko (6); zentral nuklearreko (13)

arma nuklearren (25); egitasmo nuklearren (10); hondakin nuklearren (4); programa nuklearren (4); saio nuklearren (3); zentral nuklearren (13)

elkarlan nuklearrerako (3); energia nuklearrerako (5); segurtasun nuklearrerako (12); segurtasun nuklearrerako batzordeak (4); segurtasun nuklearrerako kontseiluak

(5)

zentral nuklearretako (7)

japoniako zentral nuklearretan (3); **zentral nuklearretan** (12)

zentral nuklearretatik (3)

zentral nuklearretik (4)

jarduera nuklearrez (4)

arma nuklearrik (16); **arma nuklearrik gabeko** (9); **istripu nuklearrik** (4); **istripu nuklearrik larriena** (3); **zentral nuklearrik** (3)

nukleartegi *iz ipar* zentral nuklearra.

Nukleartegiak egiten ditugu eta ez dakigu nun ezarriko ditugun **nukleartegi** horien ondarrin! **Menane Oxandabaratz**

Duela hamabost urte, Ukrainian lehertu zen **nukleartegi** bat, Tchernobyl-ekoa, eta gaitzeko hodei kotsukorra hedatu ere Europan barna, nahiz hodei hortaz behin eta behin berri xuxenik etzen biziki zabaldu... **Herria**

Egia erran, ikertzaile eta jakintsun askok hitzemaiten daukute hemendik hein bat laster arrunt beste gisako **nukleartegi** batzu eraikitzen ahalko direla, heiekin lanjer gutiago izanen omen baita eta ondarrin horietarik ez hurbiltzekorik ere hainbes. **Herria**

nukleiko *izond* azidoez mintzatuz, adeninak edo kideko batek, azukre batek eta azido fosforiko batek osaturikoa, izakien bizian oinarritzkoa dena.

Zeinahi ere zirelarik haien funtzioak -nerbio, gihar, guruin zein beste-, zelula guztiak ziren antzeko osagaiz eginak: karbohidratoak, lipidoak, proteinak eta azido **nukleikoak**.

Juan Garzia

Bestalde, sekuentziaren kalitateari dagokionez, lehengo errore-tasa 10.000 baseko akats batekoa zen (baseak azido **nukleikoaren** letrak dira). **Berria - Gaiak**

Nahaste ikaragarri bat gara: azido **nukleikoak** eta oroitzenak, desirak eta proteinak ditugu osagai. **Juan Garzia**

nukleo 1 *iz* zerbaiten -batez ere atomoaren, zelularen eta kidekoen- gunea.

Fusio nuklearrak pisu arineko **nukleo** bi batzen ditu, pisu handiagoko bat sortzeko. **Berria - Gaiak**

Nukleoan fusioaren ondorioz energia sortzen da. **Berria - Gaiak**

Fisioan atomoen **nukleoak** hautsi egiten dira, energia askatzeko. **Berria - Gaiak**

Fisioan **nukleo** oso handiak behar dira. **Berria - Gaiak**

Han non nire **nukleoa**, zitoplasma eta kanpo-mintza hazi egin baitira nire jabea hazi egin den bezalatsu. **Jose txo Azkona**

Birusaren mintza alderik aldera hartzen du **nukleo** horrek, zabalera. **Berria - Gaiak**

Lehenik, emailarearen obuluari **nukleoa** kenduko diote. **Berria - Gaiak**

Globulu gorria, zehatz esateko, ez da, zentzu biologikoan, zelula osoa, ez baitu **nukleorik**. **Irene Aldasoro**

Globulu zuriek badute **nukleoa**, eta gai dira berez mugitzeko. **Irene Aldasoro**

Hala ere, **nukleo** sendoa izan arren, kometak oso lurrunkorak zirela nabarmendu zuen Whipplek. **Berria - Gaiak**

Funtsean, kometen **nukleoak** gogorak, txikiak, arinak eta trinkoak zirela esan zuen. **Berria - Gaiak**

Merkurioren lurrazala, atmosfera, magnetosfera eta **nukleoa** aztertzea da NASAren helburua. **Berria - Gaiak**

Orbita berean bazebilen beste objektu bat, tamainaz ez nolana hikoia, egia esan, baina dentsitate txikiak hala ere [...] espektrometroaren arabera **nukleo** metalikorik gabeko kondrita karbonatuzko arroka puska bat izan zitekeena. **Patxi Iturrirategi**

2 irud/hed ik gune 4.

Gaingan, erretako adreilu-puskekin egindako **nukleoa** zabalduko da, karea nahastuz hirutik bateko proportzioan, zoladuraren lodiera gutxienez sei hatzekoa izan arte.

Santiago Iruretagoiena

Horri esker gaingitu ahal izan zituen Europar Elkargoaren **nukleo** gogorak 80ko hamarraldiko finantza-gorabeherak diru-testuinguru aski egonkor batean. **Koro Navarro**

Ezker abertzalearen adar politikoaren **nukleo** gogorra. **Berria - Euskal Herria**

Beti badago **nukleo** azkar bat auzapezen artean, departamenduaren alde. **Berria - Harian**

Hartako, euskararen normalizaziorako **nukleo** eragile bat da bertsoaren mundua. **Berria - Kultura**

Lur zoruaren kondentsazioa azaltzen den bezala, aireak dituen **nukleo** tiki kondentsagarrietan ere hantxe agertzen da. **Pello Zabala**

Ez direla gehiago hartzen batasunaren hastapen bezala diskurtsoa eraikitzeko legeak (hortik datorren antolara formalarekin) edo hiztunaren egoera (bera ezaugarritzen duten testuinguruarekin eta **nukleo** psikologikorekin). **Xabier Arregi**

[Hiri-estatuetaik] hiritar kolonizatzaile helenikoan **nukleo** batek helenismoaren argia zabalduko zuelarik. **Iñaki Mendiguren**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neutroi baten bidez uranio-**nukleo** bat zatitzen da. **Berria - Gaiak**

Herriatik aparteko baserri **nukleo** erdalduak ziren. **Jon Maia**

1976ko bukaeran talde armatu berriak sortu ziren: Prima Linea, Langile **Nukleo** Armatuak eta Komunismoaren Aldeko Langile Armada, besteak beste. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

kometen nukleoak (4)

nukleoproteido *iz* zelulen nukleoaren osagaia, proteina baten eta azido nukleiko baten konbinazioak osatua.

Azido desoxirribonukleikoak, zitoplasma, **nukleoproteidoak** eta ez dakit zenbat izen korapilatsuk lehertu dute liluramenduaren puxika kolore biziduna. **Berria - Kultura**

nukleotido *iz* azido nukleikoaren osagai oinarritzkoa, base nitrogenodun batek, bost karbono atomoko azukre batek eta azido fosforikoko molekula batek osatua.

Gene bakoitza **nukleotido** -sekuentzia berezi batek osatua da. **Juan Garzia**

Lehenbiziko geneak **nukleotido** -sekuentzia laburrez osatuko ziren noski: hogeita hamar edo berrogei, guztira. **Juan Garzia**

Proteina baten baitako aminoazido-sekuentzia, jakina denez, proteina hori determinatzen duen genearen baitako **nukleotido** -sekuentziak kodetzen du. **Juan Garzia**

Bagenekien KAOSeko agente garrantziko horrek itsuki maite zuela piku-mermelada, batetik, eta bagenekien bere listuaren ADNko **nukleotidoen** sekuentzia zifratua. **Jon Alonso**

nulitate 1 *iz* baliorik eza, baliogabetasuna.

Santxo bera arduratu zen **nulitate** eskaerako txostena prestatzeaz. Berria - Euskal Herria
Espainiako Konstituzioan agertzen den hezkuntza jasotzeko eskubidean oinarritu da **nulitate** eskaera prestatzerako orduan. Berria - Euskal Herria

2 ezgauza.

Zientifikoki inmorala, filosofikoki **nulitate** bat. Joxe Azurmendi

nulo ik nulu.

nulu *(orobat nulo)* 1 izond

baliogabea, batez ere legearen aldetik.

Zapalkuntza antidemokratikoaren bidez bideratu duten dinamika antirrepresiboan desobedientzia eta erresistentzia formetaz baliatu dira (boto **nuluaz**, esaterako). Berria - Euskal Herria

Atzo hizkuntz ereduak arautzen dituen dekretua **nuloa** izendatzea eskatzen idazkia sartu zuen EHBEk Eusko Jaurlaritzak Bilbon daukan egoitzan. Berria - Euskal Herria

Arrazoi berberagatik ez da irteera **nulorik** izango, aurrea hartzen duen traineruak hiru segundoko zigorra izango du. Berria - Kirola

2 matematikan zero zenbakiari dagokiona.

Zenbaki **nulua** asmatzea izan zen hori: indiarren asmakizun handia! Jon Muñoz

Indarra ahula baldin bada eta erresistentzia handia, **nulua** da orduan abiadura. Jon Muñoz

Ez da batura **nuluko** joko: batek galtzen duena ez da besteak irabazten duena. Iñaki Heras

"Lerro" kopuru ia infinitu baten "batuketa", alegia, non lerro bakoitzaren azalera ia **nulua** baitzen! Juan Garzia

Probabilitaterik gutxieneko gertaera zen hura; ez, ordea, probabilitate **nulukoa**; alegia, gertaera zeharo gertagaitza zen; ez, ordea, ezinezkoa. Jon Muñoz

Kondizio horietan, analisi historiko eta sozialez biolentziaren ezkomenientzia frogatzeko posibilitate razionala (errore posible gabeko egia), razionalki **nuloa** da. Joxe Azurmendi

3 boxeoa, ados bukatzen den borroka.

Finnen aholkuz match **nulua** egin zuen, gero hoge dolar pagatu zion. Pablo Sastre

numantziar izond

Numantziako biztanlea.

Historiak **numantziarrek** zortzi hilabete horietan erakutsi zuten adorea jaso zuen. Berria - Kirola

numenifero izond

Topaketa horien ondorio gisa, bi eskualde bereziki **"numenifero"** (erlijio-sortzaile) horietako bakoitza hainbat zibilizazioen estatu unibertsaletan sartuta geratu zen. Iñaki Mendiguren

numerario 1 izond

pertsonez mintzatuz, kide kopuru mugatu batek osaten duen korporazio batekoa.

Nahiz eta Unibertsitatean mugimendu politiko handia izan garai hartan, 1980. urterako, borroka gehiago mugatzen zen irakasle **numerarioen** aferara. Berria - Euskal Herria

2 (izen gisa)

Euskaltzain osoen eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte **numerario** emerituek, salbuespen batekin: bileretan parte hartu ezean, ez dute botoa emateko eskubiderik izango. Berria - Harian

3 (ekonomian)

Estatu horrek banku bat baleuka, zeinen bileteek diruaren betekizuna leukaketen, eta bilete horien balio **numerarioa** izugarria balitz akzioen balio **numerario** izugarriari erantzuteko. Iñaki Iñurrieta

numeratu, numera, numeratzen du ad

zenbakia ipini.

Bakartu, erosi, **numeratu**, kontrolatu, kateatu eta egonean jarri nahi gaituen gizarte hau irauliko dugu. Berria - Euskal Herria

Ireki nuen meza-liburua eta bi marrazki haiek ikusi nituen: ezkerreko orrian hamar harroineko zubi bat zegoen, hamarrak **numeratuak** eta hamar manamenduak signifikatzen zituztenak. Joan Mari Irigoien

numerazio 1 iz

numeratzea.

Marlborough Galeriak adierazi zuen olak egindako akatsari leporatu behar zaiola lan batzuen **numerazio** okerra, eta ukatu egin zuen beste irregulartasunik. Berria - Kultura

Corpasek adierazi zuenaren arabera, moldatutako hainbat artelanek ez zuten ohiko **numerazioa** errespetatu. Berria - Kultura

Zumakera pasealekua ekialdera eta mendebaldera luzatu zen, bloke horretatik abiatuta, eta etxe berrien eraikuntzarekin batera, kalearen **numerazioa** aldatzeko agindua heldu zen udaletxetik. Iban Zaldúa

2 (hitz elkartuetan)

Funtsean, datu hauek ematen ditugu: egilea, obra eta orrialde zenbakia (edo kasuan kasuko **numerazio** sistemari dagokion zenbakia). Iñaki Arranz

numeriko 1 izond

numeroari dagokiona; numero bidez egina.

Ikertutako materialean adierazpen **numerikoak** nabarmenaraz daitezke. Xabier Arregi

Harreman **numerikoak** edo logikoak izan daitezke; eta baita harreman funtzionalak, kausalak, analogikoak. Xabier Arregi

Sistema berriak ezarri erregistratzeko, oharrak hartzeko, deskribatzeko, sailkatzeko, sail **numerikoetan** eta estatistiketan txertatzeko, eta irakasteko modu berriak finkatzeko. Xabier Arregi

Musika azken finean sentimenduei eta efektuei eragiteko aukeraturako konbinazio **numeriko** hutsa ere bada maila batean. Berria - Kultura

Munduko sorkari guziengana iristeko, abstrazio **numerikoa** beste armarik gabe gelditu gara azkenean. Patziku Perurena

Osabarentzat oinarri zientifikorik ez zuten sinbolo **numeriko** eta geometrikoek. Joan Mari Irigoien

Oro har, ordea, onartzen da molekularen tamainak eta formak substantziaren usainarekin erlazioa dutela, oraindik aurkitu ez bada ere sailkapen **numeriko** edo geometriko asebetegarririk. Irene Aldasoro

2 ipar digitala.

Kamera **numerikoaren** begiaren bestaldean zegoen Agatak ez zuen argi borobil jazarkoia baizik ikusten. **Itxaro Borda**

Autoaz gain beste sari frango badira: telebixta, DVD irakurgailu, argazki tresna **numeriko** eta abar. **Herria**

Angela Mejias argazki xuri ta beltzak egiten ditu, argazki **numerikoaren** mundua ez zaiolarik haatik egokia. **Herria**

Musika, film edo bestelako fitxategi **numerikoetan** itsatsiak, kontrolik gabeko kopiak ezinezkoak bihurtzen ditu teknika honek. **Berria - Harian**

Bideoaz zein argazkien bidez, sistema **numerikoak** eskaini ditzazkeen aukerak proposatuko dituzte artistek. **Berria - Kultura**

Herrialde garatu eta pobreenen arteko "urrako **numerikoaz**" bereziki hitz egiteko. **Koro Navarro**

Duela zenbait aste iragan ziren "Euskal Herriko garapen **numerikoaren** topaketen" kari, "www.paysbasquenumerique.net " sarea martxan eman zuen. **Herria**

Euskal Herri **Numerikoa** elkarrekin eraiki. **Herria**

numerito iz adkor showa. ik numerotxo.

"Ez zekiat ba ez ote duen **numerito** bat antolatu", esan zidan Josebak miradorera atera ginenean. **Bernardo Atxaga**

Gauza bat da amerikarrek beren burua saltzen dakitela onartzea, baina nola liteke usoen **numerito** hau? **Harkaitz Cano**

Esan beharrik ez da, nire **numeritoak** ikaskideei grazia egin ziela. **Jesus Mari Mendizabal**

numerizatu, numeriza, numerizatzen du ad ipar digitalizatu.

Paradaz balia, horietan diren dokumentu guziak **numerizaturik** izan daitezke. **Herria**

Pauen diren euskal artxibak **numerizatzen**. **Herria**

8 milioi itxura **numerizatuak**. **Herria**

numerizazio iz ipar digitalizazioa.

Bonnat erakustokian obrak eginen dira, hiriko artxibo sail guzien artean **numerizazio** bateratua pikoan emanen dute. **Herria**

numero (orobat lumero g.er) 1 iz zenbakia.

Mundu bat dira letrak, bertze bat **numeroak**. **Joan Mari Irigoien**

Do-re-mi-fa-sol-la-si: bat-bi-hiru-lau-bortz-sei-zazpi: notak eta **numeroak**. **Joan Mari Irigoien**

Kalkuluak egin ondoren, kontatzen hasten ginen **numero** luze hura, eta milioien, bilioien eta trilioien artean galtzen ginen, zeren **numero** hark infinitutik hurbil behar baitzuen. **Joan Mari Irigoien**

8:00 irakurriko duzu erlojuko **numero** berdeetan. **Joseba Sarrionandia**

Dirua, diru handia [...] urre, zilar, txanpon eta are paper izateari utzi eta bere izana **numero** hutsetan banatzen duen diru elektronikoko edo platoniko soila egin denetik, ez da ikusten, ez dago ikusterik. **Iñaki Segurola**

Erradazu **numero** bat batetik hamarrerat, zeren erraiten duzun numeroak sendatuko baitzaitu. **Joan Mari Irigoien**

Nere karnetea, nortasun agiri edo dena delakoan, nor naizen adierazten da, ustez: izen bat naiz, **numero** bat naiz, aurpegi bat naiz. **Iñaki Segurola**

Izen baten jabe eta diru baten jabe egitea da arrakasta; hau da: letra eta **numero** gizez idaztea pertsona baten izana, balioa eta prezioa. **Iñaki Segurola**

Hemendik aitzina ez naiz **numero** hori baizik izanen. **Marzel Etxehandi**

Belgrave Square-ko zer **numero**? **Antton Olano**

Orain dela hogeita zortzi urte, Prism, Lord Bracknellen etxetik irten zinen, Upper Grosvenor Streeteko 104. **numerotik**, orgatxo batean haur bat, sexu arra, zure ardurapean harturik. **Antton Olano**

Telefona hartu eta **numeroak** markatu ditu. **Jon Arretxe**

Anbulatoriora lehenbailehen ailegatu eta ahalik eta **numerorik** onena hartzeko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Berak lagatako paper zuriaren gainean idatzi nuen telefono zenbakiaren azken **numeroa**. *ik beherago 7.* **Aritz Gorrotxategi**

EEBBetako telefono zenbakietako askok **numeroak** izan beharrean hizkiak eduki ohi dituzte. **Harkaitz Cano**

Zozketan irabazdun atera diren **numeroak**: 59-64-171-236-285-292-316-616- [...]. **Herria**

2 (kontuez mintzatzuz)

Ama, berriz, etxekoandre eskolarik gabea, erosketetako **numeroak** egiten iaioa baina. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ez dira **numeroak** ateratzen. **Berria - Kultura**

3 aldizkariez eta kidekoez mintzatzuz, alea.

Aharrausika hasia den kioskoan *Muñecas de Porcelana*-ren azken **numeroa** eskatu du. **Eider Rodríguez**

4 telefono numeroa.

Nonbait, nik hots egiten nuen **numeroan** inor ez zegoen. **Jesus Mari Mendizabal**

Interesatuak diren guziak gomit dira beren izenen emaitera Otsailaren 10a baino lehen deituz **numero** huntarat: 06 74 20 21 83. **Herria**

5 gramatika-morfena, hitz batek gauza bati edo gehiagori dagokion adierazten duena.

Perpausaren aditz elementuak pasiboaren subjektu gramatikal berriaren **numero** komunztadura bera izan dezan. **Itziar Laka**

Aditzaren eta izenaren **numero** morfemaren bateratze honen balioa eztabaidagarria da egiazki. **Itziar Laka**

6 Polizia edo Guardia Zibileko kide soila.

Numero bat zauritu eta ihes egitea lortu zuten. **Koldo Izagirre**

Orain arte ikusi ez duen **numeroa** maletategi ondoan dago. **Pello Lizarralde**

Lainez zutitu denean kaboak burua alde batera mugitu du **numeroari** baietz, kutxa miatu behar duela adierazteko. **Pello Lizarralde**

Despejenka jarraitzen zuen **numeroak**. **Joxemari Urteaga**

7 ikuskizun edo emankizun bat osatzen duten zatietako bakoitza.

Elsak labana-jaurtitzailearena egiten du **numeroetako** batean: jendea aho-zabalik geratzen da berak ganibeta eskuetan hartu orduko. **Harkaitz Cano**

Zeu izan zinen San Roke festetako **numero** nagusia, anarkista italiar bat urkamendian, inoiz ikusi ez lakoa, leiho hauek itxiak azalduagatik. **Koldo Izagirre**

Eskerrak eman, nire **numeroa** zintzo-zintzo egin, produktu berri jakin bat famatu, enkargu aski mardul baten oharra hartu, agur esan, eta kitoa eman nion aferari. **Juan Garzia**

8 numero uno

lurretan urtero egin ohi zan trikitalari egunean, Rufinok bere burua **numero unotzat** ikusten ebala dinoe han ibilitakoek. **Xabier Amuriza**

9 telefono numero telefono zenbakia.

Bestea, Luisentzako errekadu bat, telefono **numero** bat; deitzeko, mesedez, astelehenean. **Lourdes Oñederra**

Horra ere gau eskolako telefona **numeroa** : 05 59 93 40 83. **Herria**

numerodun *(corpusean lumerodun soilik) izond* numero duena.

Paper-puntta **lumerodunik** bare genden, baña gurdi-mouko artan iyoak giñan alare. **Xabier Olarra**

numerologia *(orobat lumerologia g.er) iz* zenbakien ezkutuko esanahiaren eta haiek giza bizitzan duen eraginaren azterketa.

Zenbat eta aritmetikara zaletuago -azken garaian, zenbakien zientziazat begiz jo zuenez geroztik-, orduan eta higuin handiagooa zion Ruche jaunak **numerologiari**. **Jon Muñoz**

Zuetakoren batek ikusi al du nire **Numerologia** eta Gramatika liburua? **Iñaki Mendiguren**

Zuetakoren batek ikusi al du nire **Numerologia** eta Gramatika liburua? **Iñaki Mendiguren**

Eta egundainoko **lumerologian** bederatzia, azkena da; ez du inork hura baino lumero simple biribilagorik eta beteagorik asmatu. **Patziku Perurena**

numerotaratu, numerotara(tu), numerotarutzen du *ad* numerotara ekarri.

Baina direnak direla aztergaiak zehazteko eta gertaerak **numerotaratzeko** ahaleginak, argi dakusagu Ekonomiak ez daukala -eta epe luzera ere lortzeko ahalmen urriak- beste zientzia zehatzei urrik ematerik, zeintzuekin ez baitu hizkera matematikoaz beste kidesunik. **Iñaki Heras**

numerotxo *iz adkor* showa.

Harik eta Leirek esan zidan arte berak ere pailazooa izan nahi zuela: horrela hasi ginen biak geure **numerotxoak** egiten. **Joan Mari Irigoien**

-Lagunduko al diguzu **numerotxo** batzuk prestatzen?ea ez digun egiten lehengo batean hementxe bertan egin zigun **numerotxo**. **Joan Mari Irigoien**

Jatetxeko **numerotxo** egin ondoren pub batera atera ginen zerbait hartzera. **Joxemari Iturralde**

numismatika *iz* diru piezak eta dominak aztertzen dituen jakintza.

Ordezkatu behar zuen sendagilea gizon aberats bat zen, alarguna, **numismatikara** buru-belarri emana. **Josu Zabaleta**

Hasi ginen Kolko Mitxoletarekin gogoratzen, bera baitzen, gure artean, soziolinguistika, filatelia, matematika, sumo, eraikuntza, filologia, apikultura, psikologia, zinema, latina, enologia, zientzia, literatura, **numismatika** eta abar, hau da, zer edo zer, kanon bat zer izango zen ere barne, esaterako, eta gauzak, orokorrean, zekizkiena. **Jon Alonso**

numismatikari *iz* numismatikan aditua.

Numismatikariak esan zion pozik eskaintzen ziola etxea, han bizi nahi bazuen, eta Andres hantxe geratu zen neskame zahar batekin. **Josu Zabaleta**

nun ik **non**.

nunahi ik **nonahi**.

nunbait ik **nonbait**.

nunbeit ik **nonbait**.

nunbre ik **nonbre**.

nunnahi ik **nonahi**.

nuntzio *iz* estatu batean Aita Santuaren ordezkari diplomatikoa den artzapezpikua.

Nor da orhoit Baionarat jin zela, 1951-n, Roncalli apezpikua, orduan Parisen **Nuntzio** edo Aita Sainduaren ordezkari zena? **Herria**

Dena dela, gure seminarioko balentriaz ez zuten deus jakin orduan, ez eliza-buruek ez estatu-gizonak: ez ziren berri guztiak heltzen oraino ez Paueko prefetexera, ez Pariseko **nuntzioarengana**. **Piarres Xarriton**

Castagna **nuntzioak** gomendiozko gutun bat eman zion Alexandriako kardinalearentzat erranez: [...]. **Piarres Xarriton**

Haren ondotik, beste kardinale bat, Giulio Mazzarini, aita sainduaren **nuntzio** bezala etorria Parisera, Frantziako erregearen kontseiluburu bilakatu zen 1642tik aitzina. **Piarres Xarriton**

EAJk Vatikanorekin izandako elkarrizketetan Aita Alberto Onaindiak Valerio Valery Parisko **nuntzio** apostolikoa izan zuen solaskide. **Jokin Urain**

Benetako ekumenismoa gauzatzeko, baina, Eliza katolikoko hierarkia -aita santua, dikasterioak, **nuntzioak** ...- traba bat da. **Berria - Harian**

nutriente 1 *iz* elikagarria.

Egungo "zabor jana" desagertu egingo da lehen mundu honetatik eta, horren orde, bitamina, mineral eta bestelako **nutriente** bikainez osatutakoa emango zaigu, prezioak prezio. **Edorta Agirre**

Elikagaiak prozesatu egingo dira, berez ez dauzkaten **nutriente** onuratsu batzuk har ditzaten. **Edorta Agirre**

Nutriente guztiak bai, proteina ugari, bitamina eta mineralak bertan. [Berria - Kirola](#)

2 mikro-nutriente ik mikronutriente.

nutriologo iz elikagai kontuetan aditua.

Etorkizuneko elikagaiek oraingoek baino gantz saturatu gutxiago edukiko dituzte: bromatologo, **nutriologo** eta dietistek garrantzizkotzat jotzen dituzten gantzen kopurua - osasunarentzat kaltegarri gertatzen direnak, batik bat- urrituz joango dira gure dietan. [Edorta Agirre](#)

nutritibo 1 izond elikatzen duena. ik elikagarri.

Prebiotikoen antzera, probiotikoen ere badute balio **nutritibo** bat. [Berria - Gaiak](#)

Elikagai **nutritiboak** dira, eta, era berean, osasunerako ere onuragarriak dira. [Berria - Gaiak](#)

Oxidazioa murriztuta, gainera, zukuak propietate **nutritibo** eta bereizgarri organoleptikoak atxikiko dituzte. [Edorta Agirre](#)

2 irud/hed

Krema **nutritibo** on bat eman behar duzu gauero. [Fernando Rey](#)

nutritu, nutri, nutritzen du ad elikatu.

Lurreko humorea bere propietateekin eta bere zapoarekin sustraietan sartzen denean, enborra **nutritzen** duela, eta enborrean barrena goiko adabururaino igoz fruituari leku horretako eta mota horretako zaporea eransten diola. [Santiago Iruetagoiena](#)

nutrizeutiko izond

Elikagai funtzional, "probiotiko" edo "**nutrizeutikoen**" (nutrizio botika,aldi berean) kontsumoa hasia da dagoeneko hedatzen (jogurt eta esnekiak, oro har, zukuak, sojatzko elikagaia, gatzak, ogi eta opilak...) gure artean. [Edorta Agirre](#)

nutrizio 1 iz elikatzea.

Nutrizio txarraren arriskuak. [Berria - Gaiak](#)

Halaber, **nutrizioa** eta elikagaia «arreta handiz» zaintzen dituztela nabarmendu dute. [Berria - Harian](#)

Populazio globalak onartzeko moduko usain eta zapoak dituzten elikagaia ekoitziko dira, bitamina, proteina, karbohidrato, mineral eta gantz funtsezkoak dauzkatenak, **nutrizio** zein gastronomiaren alorretik onak direnak. [Edorta Agirre](#)

Rosello Bartzelonako Ramon Lull Unibertsitatean **Nutrizioko** karrerako zuzendaria da eta urte asko daramatza elikadurak minbizian duen eragina aztertzen. [Berria - Euskal Herria](#)

Nutrizioari buruzko NBEko Batzorde Iraunkorrak egindako txostenaren arabera, bestalde, elikagaien kalitatea da kontrolatu beharreko beste elementuetako bat. [Berria - Gaiak](#)

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik nutrizional.

Etorkizuneko dieta, **nutrizio** ikuspegitik. [Edorta Agirre](#)

Nutrizio alderditik begiratuta, sodio-kloruroaren ordez potasio-kloruroa baliatzen hasiak dira goi-sukaldari aitzindari batzuk, gorputzeko elektrolitoen orekari potasioak hobeki eusten diolako. [Edorta Agirre](#)

Aurkezpen polita, anoa txikiak, baxera abangoardistan, aseptikotasunerainoko higieena hamaika bilgarritan babestua, **nutrizio** aldetik perfektuki orekatua, kromatismo, zapora eta usain erakargarrikoa... [Edorta Agirre](#)

Josep Rosselok, **nutrizio** kontuetan adituak, zerealak hartzea garrantzitsua dela azpimarratu zuen atzo Bartzelonan egiten ari diren elikaduraren gaineko jardunaldietan. [Berria - Gaiak](#)

Nutrizio alorreko adituek. [Edorta Agirre](#)

Guztien ardatz «elikadura osasungarriari buruzko hezkuntza-jarduerak» bultzatzea agertzen da, **nutrizio** ohiturak aldatu eta loditasunaren ondorioetaz argi informatzeko. [Berria - Harian](#)

nutrizional izond elikatzearena, elikatzeari dagokiona. ik nutrizio 2.

Ikuspegi **nutrizionaletik**, berriz, ez dugu ahanzi behar azido oleiko eta linoleikoak iturri behinena bera dela, gainerakoek kaltetan; kolesterol "gaiztoa" suntsitzen du bestelako olioek baino areago, eta asetasun sentzazioa eragiten du jatunarengan. [Edorta Agirre](#)

Osaketa **nutrizionala**, elikadurazkoa, kuzinatze modua, edukitzeko baldintzak eta antzekoez gainera bestelako informazio baliagarri ugaria eman beharko zaigu, bene-benetakoa, egungo hondo horiaren gaineko letra zuriak eta antzeko iruzurrak alboratuta. [Edorta Agirre](#)

nutrizionista iz elikatze kontuetan aditua.

Nutrizionista bezala haurren oreka bilatzen dugu eta gero eta kasu arruntagoak dira pisu arazoak. [Berria - Euskal Herria](#)

Christiane delafaye. **Nutrizionista**. [Berria - Euskal Herria](#)

nylon (orobat nilon g.er.) iz ehungintzan erabiltzen den erretxina sintetikoa.

Wallace Hume Carothers eta bere taldeak erraz hausten ez zen zuntz gogor bat aurkitu zuten, plastikoen oinarritua: **nylona**. [Pello Salaburu](#)

Likrazko kamiseta izerditua erantzi du, eta berdin udako galtza luzeak, %100 **nylon**. [Aingeru Epaltza](#)

Nylonez egindako parapente bat jarri zioten. [Berria - Gaiak](#)

Berandutxo arte, gerra zibilaren hotsak gainean genituenean ere, etorri ohi ziren ijitoak atez ate, farfailak, harizko izarak, **nylonezko** oihalak eta horietakoak eskaintzera. [Pako Aristi](#)

Denak lurrera! -oihu egin du Natxok ahots hautsiaz, **nylonezko** poltsaren kremlera ireki eta kanoi motzeko eskopeta bat atera orduko. [Patxi Iturritegi](#)

Gero, oso azkar, tr ebetasun handiz, zauriaren ertzak josi, eta, **nylonezko** puntada bakoitzean, bost korapilo egin zituen. [Xabier Olarra](#)

Nylonezko soka batez elkarrenganako ilborretea lotu diete bi baltsei. [Aingeru Epaltza](#)

Pultserak egiteko erabiltzen diren **nylonezko** hariak zituen esku-muturretan. [Berria - Euskal Herria](#)

2 (hitz elkartuetan)

Nylon -hari xixtrin bat bizar-makinaren barruan, ez besterik... [Joxe Austin Arrieta](#)

nylonki *(corpusean nilonki soilik) iz nylon gaia.*

Paper batzu bizpahiru asteren buruan, kartoinki asko zenbait hilabete barne, zurezko gauzak dotzena bat urteren epean, bainan plastikakia lau ehun urteren buruan den hoberenetik, **nilonkia** sei ehun urteren buruan, berinaki eta holakoak xuxen ezin erran zonbat denboraren buruan bainan gisa guziz biziki emeki, denbora hori mendeka kondatu behar... **Herria**
